

# **DEUSTUKO UNIBERTSITATEA**

EGITARAUA: HIZKUNTZA ETA HIZKUNTZALARITZA

## **KOLDO MITXELENAREN EUSKAL PROSAKO DISKURTSO-ESTRATEGIAK: ENUNTZIATU PARENTETIKOAK**

**Agurtzane Azpeitia Eizagirrek**

Doktore titulua eskuratzeko aurkezturiko

**TESIA**

Donostia, 2009-2010

**DEUSTUKO UNIBERTSITATEA  
HIRUGARREN ZIKLOA**

**EGITARAUA: HIZKUNTZA ETA HIZKUNTZALARITZA**

**KOLDO MITXELENAREN EUSKAL PROSAKO  
DISKURTSO-ESTRATEGIAK:  
ENUNTZIATU PARENTETIKOAK**

Agurtzane Azpeitia Eizagirrek Elixabete Perez Gazteluren zuzendaritzapean egindako tesia,  
Deustuko Unibertsitatean Doktore titulua eskuratzeko aurkeztua.

Zuzendaria

Doktoregaia

Donostia, 2009-2010

*Aitari, amari eta lanean beti  
aurrera egiten laguntzen  
didaten senideei eta Pablori*

*«Norbaitek oker edo zuzen, trakets edo  
dotore, garbi edo mordoillo lantzen ez badu,  
lantzeke gelditzen da alorra. Egungo  
trakeskeriatik bakarrik jaioko da biharko edo  
etziko apaintasuna». (Koldo Mitxelena).*

**AURKIBIDEA****1. AURKEZPENA**

<b>1.1. ZIOA</b> .....	1
<b>1.2. AZTERGAIA. ARGITARALDIAK</b> .....	8
<b>1.3. ATALAK</b> .....	11
<b>1.4. BIBLIOGRAFIAZ</b> .....	13

**2. IKUSMOLDE TEORIKO-METODOLOGIKOA**

<b>2.1. ALDEZ AURRETIKO ZENBAIT OINARRI</b> .....	14
2.1.1. Hurbilbideak .....	15
2.1.2. Perpausaren marko teoriko-metodologikoa gainditu beharra .....	21
2.1.2.1. Perpaus-barneko ahaleginen ezina .....	22

**2.2. HIZKUNTZA-PRAGMATIKA**

2.2.1. <i>Pragmatika</i> hesitu beharra .....	29
2.2.2. Hizkuntza-pragmatika: osagaiak eta funtsezko terminoak .....	30
2.2.2.1. Esataria/enuntziatzailea .....	32
2.2.2.2. Norentzakoa .....	33
2.2.2.3. Intentzio-asmoa .....	34
2.2.2.4. Enuntziatua vs enuntziazioa .....	35
2.2.2.5. Testuingurua .....	38
2.2.3. Esatari / enuntziatzaileen arteko bereizketa: Polifonia eta diafonia gertakariak .....	40
2.2.3.1. Bakhtine: “dialogismoa” edo ikuspegi elkarriketatua .....	40
2.2.3.2. Esatari / enuntziatzaileen arteko bereizketa: polifonia eta diafonia .....	45

**2.3. TESTU-GRAMATIKAREN EKARRIA**

2.3.1. Testu-gramatika: aldez aurretiko zenbait irizpide eta oinarri .....	51
2.3.1.1. Testu-gramatika .....	52
2.3.2. Zenbait adigairen mugatzea .....	54
2.3.2.1. Testua vs diskurtsoa .....	54
2.3.2.2. Kohesioa eta koherentzia .....	57
2.3.2.3. Makroegitura, mikroegitura eta “gain-egitura” .....	62
2.3.2.3.1. Makroegitura eta mikroegitura .....	62
2.3.2.3.2. Gain-egitura: tipologia .....	65
2.3.2.3.2.1. Kritikak eta testu tipologiak .....	67
A. Kritiken kokalekua testu-tipo homogeneoen barnean .....	67
B. Testuen heterogeneitatea eta kritikak .....	73
2.3.2.3.2.2. Laburbilduz .....	77

**2.4. METADISKURTSOA ETA ENUNTZIATU PARENTETIKOAK**

2.4.1. Eredu nagusiak.....	79
2.4.1.1 Lautamatti ( 1978a, 1978b).....	79
2.4.1.2. Crismore-ren eredia (1984).....	80
2.4.1.3. Vande Kopple-ren eredia (1985, 1988).....	82
2.4.1.4. Crismore, Markkanen eta Steffensen (1993).....	83
2.4.1.5. Dafouz Milne (2000).....	85

**2.5. ENUNTZIATU PARENTETIKOAK DISKURTSOAREN ANTOLAMENDUAN.....** 89

2.5.1. Enuntziatu parentetikoaren definizioa.....	90
2.5.2. Koadro teorikoa.....	91
2.5.2.1. Enuntziatio-maila, Modus-maila eta Dictum-maila.....	94

**3. ENUNTZIATU PARENTETIKOAK: BESTEK EGINDAKO BIDEETAN BARRENA.....** 103**3.1. HIZKUNTZALARITZA-EREMUAN DAGOEN HUTSUNEA.....** 103**3.2. TERMINOLOGIA AUZIA: “PARENTETIKO” DEIZIOA.....** 105**3.3. FUNTZIO INTZIDENTALA VS ENUNTZIATU PARENTETIKOA.....** 107

3.3.1. Funtzio intzidentala: Oviedoko eskola.....	107
3.3.1.1. Unitate intzidentala.....	108
3.3.1.2. “Intzidentaltasuna” aztertzen dutenek egindako ekarria.....	109
3.3.1.2.1. R. Lapesa (1975).....	109
3.3.1.2.2. Martinez (1994a).....	111
3.3.1.2.3. Fernández Fernández (1993).....	119
3.3.2. Enuntziatua eta bere funtzio-mailak.....	127
3.3.2.1. Gutiérrez Ordoñez (1996, 1997a).....	128
3.3.2.2. Fuentes Rodríguez (2007).....	134
3.3.3. Funtzio intzidentala duten adibide-motak Mitxelenaren corpusean.....	137
3.3.3.1. Ezaugarri deskribatzaileak.....	137
3.3.4. Ondorioak.....	143

**3.4. ENUNTZIATU PARENTETIKOAREN EZAUGARRIAK**

3.4.1. Irizpide sintaktiko formalak eta hurbilbide honen araberrako ezaugarritzeak.....	147
3.4.2. Diskurtso mailako hurbilbideak.....	165
3.4.2.1. Maurice Dessaintes (1960).....	166
3.4.2.2. Nemmi (1973).....	173
3.4.2.3. Laurin (1989).....	179
3.4.2.3.1. Argudio-antolamendua.....	184
3.4.2.3.2. Polifoniaren (edo dialogismoaren) gertakaria.....	185

**4. ENUNTZIATU PARENTETIKOEN DEFINIZIO BATERANTZ****4.1. ENUNTZIATU PARENTETIKOAK: GURE TESI-LANEAN IZANGO DITUEN MUGAK**

<b>Koldo Mitxelenaren euskal prosako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak</b>	<b>III</b>
4.1.1 Enuntziatua.....	191
4.1.1.1. <i>Enuntziatu</i> adigaia gure aztergai.....	194
4.1.2. Parentetikotasuna.....	195
4.1.2.1. Muga-irizpideak.....	195
4.1.2.1.1. Mugatzaitzat irizpide-mota bakarra ezin hautatu.....	195
4.1.2.1.2. Finkatutako muga-irizpideak.....	198
4.1.3. Ondorioak.....	205
<b>5. ENUNTZIATU PARENTETIKOEN ANALISIRAKO OHARRAK.....</b>	<b>206</b>
<b>5.1. AZTERGAIRAKO BEGIZ JO DEN ARGITARALDIA.....</b>	<b>207</b>
<b>5.2. ARGITARALDIEN ARTEKO ERKATZEA.....</b>	<b>207</b>
5.2.1. Aldaketa morfologikoak.....	208
5.2.2. Puntuazioari dagozkion aldaketak.....	209
5.2.3. Aipu-markak (kakotxak).....	210
<b>6. ENUNTZIATU PARENTETIKOEN ANALISI FORMALA I:</b>	
<b>ANALISI SINTAKTIKO-TESTUALA.....</b>	<b>212</b>
<b>6.1.SARRERA.....</b>	<b>216</b>
6.1.1. Kontuan izango ditugun aldagarriak.....	216
<b>6.2. PARENTETIKOEN TIPOLOGIA FORMALA</b>	
6.2.1. Lotura sintaktikoa zentzu hertsian.....	218
6.2.2. E1 eta E2 enuntziatuen arteko harremana: koherentzia vs kohesio.....	223
6.2.3. E1 eta E2 enuntziatuen arteko koherentziazko harremana TIPOAK bereizteko ardatz..	226
<b>6.3. A TIPOA.....</b>	<b>231</b>
6.3.1. Modalitate aldaketa adierazten duten parentetikoak.....	231
6.3.2. Zuzeneko diskurtsoa edo zuzeneko aipua.....	235
6.3.2.1. Ezaugarriak.....	237
6.3.2.2. Aditz-mota: “verba dicendi”.....	238
6.3.2.3 E1 en eta enuntziatu markoaren (E2) arteko harreman sintaktikoa.....	241
6.3.3. IS+AS egitura duten enuntziatu parentetikoak.....	244
6.3.3.1. Ondorioak: IS+AS egitura duten enuntziatu parentetikoaren ezaugarri formalak	256
6.3.4. Aditzik gabeko A tipoko enuntziatu parentetikoak.....	258
6.3.4.1. E1 eta E2ren arteko harremana: inferentzia bidezkoa.....	258
6.3.4.2. Aditzik gabeko enuntziatuen analisi formal.....	263
6.3.4.2.1. Aposizioen araberakoak .....	264
6.3.4.2.2. Morfologiazko loturarik ez duten aditzik gabeko enuntziatuak.....	266

<b>Koldo Mitxelenaren euskal prosako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak</b>	<b>IV</b>
6.3.4.3. Ondorioak.....	269
<b>6.4. B TIPOA</b>	
6.4.2. Elementu kohesio-emaileak.....	271
6.4.2.1. Corpusean, B tipoko parentetiko bezala izendatu ditugunen artean agertzen diren kohesio-emaileak.....	274
6.4.3 ERREFERENTZIA-SAREAK: SARE ANAFORIKO-KATAFORIKOAK.....	277
6.4.3.1. Sarrera.....	277
6.4.3.2. Harreman kataforiko-anaforikoak.....	280
6.4.3.2.1. HAU lehen graduko izenordain erakuslea.....	280
6.4.3.2.1.1. HAU erakuslea balio anaforikoz.....	283
6.4.3.2.2. HORI bigarren graduko izenordain erakuslea.....	285
6.4.3.2.3. HURA hirugarren graduko izenordain erakuslea.....	290
6.4.3.3. Ondorioak.....	292
6.4.4. KONEXIO-MEKANISMOAK.....	294
6.4.4.1. Modalitate aldaketa.....	294
6.4.4.2. Testu-mailako konexio-mekanismoak.....	296
6.4.4.3. ETA “artxikonektagailua” enuntziatu parentetikoaren buruan.....	299
6.4.4.3.1. ETA buruan daramaten enuntziatu parentetikoaren eta E1 en arteko harremana.....	299
6.4.4.3.2. ETA2 nabarmentzailea.....	310
6.4.4.3.3. ETA buruan daramaten enuntziatuen egitura formala.....	315
6.4.4.3.3.A. Aditz jokatua daramaten ETA bidezko enuntziatu parentetikoak..	315
6.4.4.3.3.A.1. E1 oinarrizko enuntziatuarekiko aldaketak.....	317
6.4.4.3.3.A.2. Ondorio gisa.....	323
6.4.4.3.3.B. Aditzik ez daramaten ETA bidezko enuntziatu parentetikoak.....	325
6.4.4.3.4. ETA2 ezinbestekoa ala aukerazkoa.....	328
6.4.4.3.4.A. ETA jartzea noiz ezinezko?.....	329
6.4.4.3.4.B. ETA aukerakoa.....	332
6.4.4.3.5. Ondorio orokor gisa.....	333
6.4.4.4. EDO 2 BIRFORMULATZAILEA.....	334
6.4.4.4.1. EDO2 birformulatzaile zuzentzailea.....	335
6.4.4.4.2. Ezaugarritze formala.....	339
<b>6.5. C TIPOA</b>	
6.5.1. AZALPENEZKO IZAERA DUTEN KAUSALAK.....	343
6.5.1.1. Kausazko perpausen sintaxi-izaera.....	344

<b>Koldo Mitxelenaren euskal prosako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak</b>	<b>V</b>
6.5.1.2. Corpusean ohikoak diren menderagailu kausalak.....	345
6.5.1.2.1. BAIT- AURRIZKIA.....	346
6.5.1.2.2. ETA ENKLITIKOA.....	349
6.5.1.2.3. -ELAKO MENDERAGAILUA.....	351
6.5.1.2.4. -ENEZ GERO menderagailuak.....	353
6.5.2. BALDINTZA PERPAUSAK.....	355
6.5.2.1. Forma aldetiko ezaugarritzea.....	355
6.5.2.2. Baldintza perpausen sailkapena.....	356
6.5.2.3. Baldintza perpausaren forma hartzen duen E2 enuntziatu parentetikoaren eta E1 oinarritzko enuntziatuaren arteko lotura.....	357
6.5.2.3.1. Baldintza eta suposizioa (inferentzia bidezko erabilera?).....	359
6.5.2.3.2. Auresuposizioa bertan behera uztea.....	361
6.5.2.3.3. Enuntziatio mailako baldintza perpausak.....	361
6.5.2.3.3.1. Enuntziatio mailako zeharkako baldintzak:.....	361
6.5.2.3.4. Birformulazio eginkizuna duten baldintza perpausak.....	365
6.5.2.3.5. Modalizaziko mailako baldintza perpausak.....	366
6.5.3. KONTZESIO PERPAUSAK (Baldintza perpaus bidez eratutakoak).....	367
6.5.3.1. Forma aldetiko ezaugarritzea.....	367
6.5.3.2. E1 eta E2 enuntziatuaren arteko lotura.....	368
6.5.4. PERPAUS ERLATIBOAK.....	370
<b>7. ENUNTZIATU PARENTETIKOEN ANALISI FORMALA II:</b>	
<b>KOKAPENA EDO INTEGRAZIO-GUNEA</b>	
<b>7.1. SARRERA.....</b>	<b>373</b>
<b>7.2. ENUNTZIATU PARENTETIKOEN INTEGRAZIO-GUNEA: DISTRIBUZIOA.....</b>	<b>375</b>
7.2.1. A TIPOA.....	377
7.2.1.1. E1 oinarritzko enuntziatuaren amaieran.....	377
7.2.1.2. E1 oinarritzko enuntziatuaren egitura sintaktikoa hautsiaz.....	378
7.2.1.2.1. E1 formalki perpaus lokabeak osatzen duenean.....	378
7.2.1.3. Maila bereko perpausen artean.....	392
7.2.1.4. Perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko mugan.....	394
7.2.1.5. Mendeko perpausaren barnean.....	397
7.2.2. B TIPOA.....	399
7.2.2.A. ETA buruan daramaten enuntziatu parentetikoaren integrazio-gunea.....	399
7.2.2.1. E1 oinarritzko enuntziatuaren bukaeran.....	399
7.2.2.2. E2k E1en egitura sintaktikoa hautsiaz.....	399
7.2.2.2.1. E1 Oinarritzko enuntziatua formalki perpaus nagusia.....	400
7.2.2.3. Maila bereko perpausen artean.....	412



<b>Koldo Mitxelenaren euskal prosako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak</b>	<b>VI</b>
7.2.2.4. E2 Perpaus nagusiaren eta mendekoaren artean.....	412
7.2.2.5. Mendeko perpausaren barnean.....	416
7.2.2.B. B TIPOKO gainerakoak.....	417
7.2.2.1 E1 Oinarrizko enuntziatuaren egitura sintaktikoa hautsiaz.....	417
7.2.2.2. Maila bereko perpausen artean.....	422
7.2.2.3. Perpaus nagusiaren eta mendekoaren artean.....	423
7.2.2.4. Mendeko perpausaren barnean.....	424
7.2.3. C TIPOA.....	426
7.2.3.1. Oinarrizko enuntziatuaren aurretik: E2+E1.....	426
7.2.3.2. E1 oinarrizko enuntziatuaren amaieran.....	426
7.2.3.3. Tartekatzerakoan, E1 oinarrizko enuntziatuaren egitura sintaktikoa hautsiaz.....	427
7.2.3.4. Maila bereko perpausen artean.....	433
7.2.3.5. Perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko mugan.....	434
7.2.3.6. Mendeko perpausaren barnean.....	437
<b>7.3. ONDORIOAK.....</b>	<b>440</b>
<b>8. PUNUAZIOA: ENUNTZIATU PARENTETIKOEN MUGA GRAFIKOA.....</b>	<b>448</b>
<b>8.1. GAIAREN KOKAPENA.....</b>	<b>448</b>
8.1.1. Bigarren graduko puntuazio-markak.....	450
<b>8.2. CORPUSEKO ADIBIDEAK AZTERGAI.....</b>	<b>451</b>
8.2.1. A TIPOA.....	452
8.2.1.1. Modalitatearen aldaketa adierazten duten enuntziatuak.....	453
8.2.1.2. Zuzeneko estiloa eta aditza daramaten enuntziatuak.....	457
8.2.1.3. Aditza daramaten enuntziatuak.....	458
8.2.1.3.1. Kokagunea.....	458
8.2.1.3.2. Izaera sintaktikoa eta komunikazio-eginkizuna.....	463
8.2.1.4. Aditzik gabeko enuntziatuak.....	466
8.2.2. B TIPOA: ETA buruan daraman enuntziatu parentetikoa.....	468
8.2.2.1. Distribuzioa edo enuntziatu parentetikoaren kokagunea.....	468
8.2.2.2. Izaera sintaktikoak.....	472
8.2.2.3. Komunikazio-eginkizuna.....	476
8.2.2.4. Ondorioak.....	478
8.2.3. B TIPOKO GAINERAKOAK.....	479
8.2.3.1. Kokagunea edo integrazio-gunea.....	479
8.2.3.2. Izaera sintaktikoa eta euren komunikazio-eginkizuna.....	483
8.2.3.2.1- EDOrekin osatutakoak.....	487
8.2.3. C TIPOA.....	490
8.2.3.1. Kokagunea edo integrazio-gunea.....	490

**Koldo Mitxelenaren euskal prosako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak**  
**VII**

8.2.3.2. Enuntziatu parentetikoaren izaera sintaktikoa.....	495
8.2.3.2.1. Enuntziatio-mailako kausalak.....	495
8.2.3.2.2. Enuntziatio mailako baldintzazko egiturak.....	495
8.2.3.2.3. Enuntziatio mailako kontzesiozko egiturak.....	496
8.2.3.2.4. Modalizazio mailako erlatiboak.....	497
<b>8.3. ONDORIO OROTARIKOAK.....</b>	<b>497</b>
8.3.1. Araurik ezean corpusean atzeman ditugun joera nagusiak.....	500
8.3.1.1. PARENTESIAK.....	502
8.3.1.1.1. Parentesien erabilera nagusiak.....	502
8.3.1.2. MARRAK.....	506
8.3.1.3. KOMA PAREAK.....	508
<b>9. ENUNTZIATU PARENTETIKOEN KOMUNIKAZIO-EGINKIZUNA.....</b>	<b>509</b>
<b>9.1. SARRERA.....</b>	<b>509</b>
<b>9.2. LITERTUR ETA ZINEMA-KRITIKEN NORENTZAKOA.....</b>	<b>511</b>
9.2.1. 1950-1970 urteetako <i>Egan</i> aldizkariaren euskal irakurlea.....	513
9.2.1.1. Garai hartako euskal irakurle kopuruaz, ohar batzuk.....	513
9.2.1.2. 1950-1970 urtetsuetako <i>Egan</i> aldizkaria.....	517
9.2.1.2.1. <i>Eganen</i> jorratuko den gai-mota eta kontuan izango duten balizko irakurlea (norentzakoa).....	519
9.2.2 Mitxelenaren kritiken norentzakoa.....	527
9.2.2.1. Norentzakoari testuan bertan egiten dizkion deiak.....	528
9.2.2.1.1. Zinema-kritiken norentzakoa.....	528
9.2.2.1.2. Liburu- eta literatur kritiken norentzakoa.....	530
9.2.2.2. Aipuen-ehiza, Mitxelenaren testuek duten “ezkutuko arerioa”.....	532
9.2.2.2.1. Aipuen jatorria.....	534
9.2.2.2.1.A. Kokatuak.....	534
9.2.2.2.1.B. Zehaztu gabeak.....	535
9.2.2.2.1.C. Besteren aipuak direnik ere esan gabe.....	537
9.2.2.2.2. Aipuen izaera edo intertestualitatea.....	538
9.2.2.2.2.A. Ahozko nahiz idatzizko euskal munduari erreferentzia egiten diotenak.....	538
9.2.2.2.2.B. Euskal munduaz eta euskal literaturaz haragoko erreferentziak.....	547
9.2.3. Ondorioak.....	554

**9.3. ENUNTZIATU PARENTETIKOAK, ARGUDIATZEKO DISKURTSO-ESTRATEGIA**

**ERRETORIKO-PRAGMATIKOAK**

9.3.1. Sarrera.....	558
9.3.2. Argudiatzea eta pertsuasioa.....	560
9.3.2.1. “Estrategia” hitzaz ulertzen duguna.....	561
9.3.3. ENUNTZIATU PARENTETIKOA, “ESATARIAREN” ARGUDIATZEAN	
AURRERA EGITEKO ESTRATEGIA.....	563
9.3.3.1. Enuntziatu parentetikoak, argudio-ondorioa konexioa bermatzeko estrategia..	563
9.3.3.1.A. Argumentazio-haria aztertzeke kasu praktikoa (I): enuntziatu parentetikoak, argudioaren eta ondorioaren arteko konexioaren edo <i>topos</i> aren adierazpide .....	665
9.3.3.1.B. Argumentazio-haria aztertzeke kasu praktikoa (II): enuntziatu parentetikoak, argudioaren eta ondorioaren arteko lotura gauzatzeko argudio-oinarri.....	568
9.3.3.2. Enuntziatu parentetikoak norabide bereko edo kontrako argudioak emateko bide.....	573
9.3.3.3. Enuntziatu parentetikoak eta kontra-argudioaren teknika.....	576
9.3.3.4. Enuntziatu parentetikoek argudioen indar-mailan duten eragina.....	578
9.3.3.4.1. Modalizazio mailako osagaiak.....	579
9.3.3.4.2. Enuntziatio mailako osagaiak.....	584
9.3.3.4.3. BEHINTZAT /BEDEREN / BEHINIK BEHIN antolatzaileekin sortutako enuntziatu parentetikoak.....	587
9.3.3.4.4. ETA artxikonektagailuz sortutako enuntziatu parentetikoak.....	590
9.3.3.5.- Enuntziatu parentetikoak, argudio-iturriak adierazteko bide.....	596
9.3.3.6. Enuntziatu parentetikoak, besteren ahotsak (ikuspegiak) diskurtsoan sartzeko estrategia: polifonia-gertakaria.....	597
9.3.3.6.1. Heterogeneitate osagarria.....	599
9.3.3.6.2. Balizko diafonia.....	605
9.3.3.6.2 Ageriko heterogeneitatea.....	607
9.3.3.7. Enuntziatu parentetikoak, oinarritzko enuntziatua birformulatzeko estrategia.	607
9.3.3.7.1. BIRFORMULAZIOAK.....	608
9.3.3.7.1.1. Sailkapena.....	613

**9.4. ENUNTZIATU PARENTETIKOAK, PERTSONARTEKO HARREMANAK**

**BIDERATZEKO ESTRATEGIA.....**

9.4.1. Sarrera.....	624
9.4.2. Esatariaren eta norentzakoaren arteko interakziozko harremana.....	625

<b>Koldo Mitxelenaren euskal prosako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak</b>	<b>IX</b>
9.4.2.1. Funtzio fatikoa duten enuntziatu parentetikoak.....	625
9.4.2.2. Enuntziatu parentetikoak, galdera erretorikoak formulatzeko bide.....	629
9.4.2.3. Elkarrizketa bideratu eta erregulatuko duten arau-maximak.....	635
9.4.2.3.1. H. P. Griceren auzolan-hastapena eta arau-maximak.....	637
9.4.2.3.2. Kortesiako arauak.....	639
<b>9.5. ENUNTZIATU PARENTETIKOA, INFORMAZIOA TESTUINGURUAN KOKATZEKO ESTRATEGIA</b>	
9.5.1. Sarrera.....	655
9.5.2. Inferentziak.....	657
9.5.2.1. Griceren inplikaturak (1975).....	659
9.5.3. Enuntziatu parentetikoak, enuntziatua testuinguruan kokatzeko baliabide .....	663
9.5.3.1. Inguruak edo inguruneak.....	664
9.5.3.2. Informazio pragmatikoa.....	668
9.5.3.3. Informazio pragmatikoaren osagaiak.....	672
9.5.3.4. Orogen ezaupide-ingurumaria.....	676
9.5.3.5. Enuntziatu parentetikoa, enuntziatuan testuinguruari dagozkion lorratzak uzteko baliabidea.....	678
9.5.4. Digresioak, enuntziatua testuinguratzeko baliabide.....	682
<b>9.6. ENUNTZIATU PARENTETIKOAK, AHOZKOTASUNA IDATZIAN TXERTATZEKO BALIABIDEA</b>	
9.6.1. Gaiaren kokapena.....	690
9.6.2. Ahozko hizkera eta erregistroak.....	693
9.6.3. Ahozkotasuna.....	696
9.6.4. Enuntziatu parentetikoak, ahozkotasuna idatzian islatzeko baliabidea.....	701
9.6.5. Ahozkotasunaren komunikazio-funtzioa testu idatzietan.....	712
9.6.6. Ondorioak.....	715
<b>9.7. ENUNTZIATU PARENTETIKOA, ESATARIAREN INTENTZIO IRONIKOAREN ISPILU</b>	
9.7.1. Sarrera.....	717
9.7.2. `Ironia´ adigaia mugatu nahian.....	718
9.7.2.1. Tradiziozko hurbilbidea.....	718
9.7.2.2. Ikuspegi pragmatikoa.....	723
9.7.2.2.1. Enuntziatu ironikoen norentzakoa.....	724
9.7.2.2.2. Testuingurua.....	727
9.7.2.2.3. Griceren elkarrizketaren teoria.....	729
9.7.2.2.4. Ironia, polifoniazko diskurtso bezala.....	731
9.7.2.2.5. Sperber eta Wilson-en (1986, 1990) errebantziaren edo pertinentziaren teoria.....	732

<b>Koldo Mitxelenaren euskal prosako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak</b>	<b>X</b>
9.7.3. Parentetikoak, esatariaren intentzio ironikoaren ispilu.....	738
9.7.3.1. Parentetikoaren egiturapean agertzen diren enuntziatu ironikoak.....	738
9.7.3.2. Enuntziatu parentetikoa esatariaren intentzio-ironikoa atzemateko pista-emaile	748
9.7.4. Ironiazko enuntziatu parentetikoen helburu komunikatiboa.....	752
9.7.4.1. Ironiak komunikazioan duen eraginkortasuna: kritika eta umorea.....	754
9.7.4.2. Ironia, arauen ihesbide .....	757
9.7.5. Ondorioak.....	761
<b>10. ONDORIO OROTARIKOAK.....</b>	<b>763</b>
<b>11. IREKITA DAUDEN IKERBIDEAK.....</b>	<b>777</b>
<b>12. BIBLIOGRAFIAZKO ERREFERENTZIAK.....</b>	<b>779</b>
<b>13. ERANSKINA: CORPUSA</b>	

## 1. TESIAREN AURKEZPENA

### 1.1. TESIAREN ZIOA

1.1.1. 1988. ean, Koldo Mitxelena irakaslearen euskal idazlan guztiak (MEIG)<sup>1</sup> argitaratzen hasi zirenean, batek baino gehiagok pentsatuko zuen idazle honen emaitza bere osotasunean eskaintzeak aukera ezin hobea emango ziola euskalgintzan ziharduen orori, oro har, euskararekin harremana duten hainbat auzi aztertu eta berrikusteko.

Gu geu, behintzat, bat gatoz iritzi-uste horrekin. Are gehiago, bat etortze hori teoria mailan ez ezik praktikara eramanez frogatzen ahaleginduko gara tesi-lan honetan. Ikerlan honetara bulkatu gaituen abiabidea eta aldi berean iparrorratz izan dugun helburu nagusia, hain zuzen ere, horixe izan baita: Koldo Mitxelenak bere diskurtsoa modu komunikagarri batean atontzeko darabiltzan zenbait diskurtso-baliabide edo estrategia aztertzea: “egitura parentetikoak”, edota zenbait autorek “intziso” edo “tarteki” izendatu izan dituztenak, hain zuzen.

Baliabide horiek, izan ere, Koldo Mitxelenaren argudio-garapenean nahiz testu-sorkuntza eta informazioaren antolakuntzan —testua esatariaren intentzio edo komunikazio asmoei erantzuten dien hizkuntz unitate txikiagoz osaturiko emaitzat hartuz (Bernárdez 1982, 1995; García Berrio & Mayordomo 1983: 127)— ezinbesteko eginkizuna dutela iruditzen zaigu, eta uste dugu tesian zehar arrazoitu eta indartuko dugula.

Horrezaz gain, bada beste arrazoi bat parentetikoaren azterketa gure tesi-lan honen erdigune edo jomuga nagusi bihurtzeko: hizkuntzalaritza esparruan oro har, eta euskal lanetan bereziki dagoen hutsune ia erabatekoa: gramatiketan, testu- eta estilo-liburuetan nahiz hizkuntza-irakaskuntzetako metodoetan oso gutxitan jorratu izan dira (puntuazioari dagokion ataletan ez bada, eta bertan ere oso aipu laburrekin). Gogoan izan gramatikek jomugatzat perpausa izan ohi dutela, eta azterkizun ditugun baliabide hauek, berriz, perpausaren muga metodologikoa gainditzen dutela eta diskurtso (edo testu) mailan kokatu.

Orain arte oso gutxi jorratu direla salatuz, bibliografian nabarmen daitekeen hutsuneaz gain, hainbat aipu bil ditzakegu. Honatx, horietarik bat:

<sup>1</sup>Sail honetan ez daude Mitxelenaren idazlan guztiak bilduta. Argitarabidean dira beste batzuk. Horrez gain ezin ahantz dezakegu P. Altunaren Mitxelenaren *Idazlan Hautatuak* (1972), nahiz Mitxelena bera hil ondoren *Egan*-ek atera zuen ale berezia: *Koldo Mitxelena. Gizona eta hizkuntza, Egan* 40 (3-6) (1987).

Es el caso de la función comentario, otra de las que se inscriben en el nivel supraoracional, y que hay que relacionar, creemos, con los enunciados parentéticos, que parecen ser a la vez reformulativos y modalizadores. Es una función específica que no ha sido descrita en las gramáticas y que creemos necesita de una investigación más detenida, que dejamos para un futuro próximo. (Fuentes 1996: 18).

Gutxi jorratua izate horrek eraginda, “parentetiko” edo “intzisoen” definizioa bera ere “preteorikotzat” (Maldonado 1991: 91-92) jotzeaz gain, adigai honek barne hartzen dituen egiturak ugariak eta arras desberdinak direla adierazi izan zaigu:

Muchos han sido los distintos fenómenos lingüísticos englobados bajo la denominación general de inciso, término preteórico con el que se suelen designar construcciones muy dispares con la característica común de poseer una entonación independiente e ir adjuntas directamente a la oración principal. (Maldonado 1991: 91-92).

Oso ezaguna egiten ez zaigun enuntziatu mota hau aztertzeko, bada, zer hobeto bere testuetan barra-barra, batere behartu gabe, erabili duen autore batengana hurbiltzea baino?

Mitxelenaren prosaren estiloa trinkoa, abartsua eta nahiko konplexua da. Trinkoa da, hitz gutxitan informazio handia ematen duelako; informazioa elkar-gainkatua agertzen zaigu, eta gainera, informazio honek guztiak atzean duen informazio ezkutu bat azaltzen du, aurrekultura bat dakarrena.

**Abartsua** ere bada bere prosa: perpaus nagusiari adaska eta adar ugari ateratzen zaizkio. Gauzak zehar-meharka esaten ditu, esaera ugari tartekatuz, esateko modu tormentatua, bihurria dauka. Gainera, esaldi luze samarretan, inoren aipuak sartzen baditu, esaera zaharrekin gehituz, testu konplexua bihurtzen dute (Xabier Mendiguren Bereziarturekin izandako elkarrizketa batetik aterata. Lodia gurea da).

*Abartsua* izatearen, nahiz *informazioa elkarren gainean* agertzearen atzean, gure ustez, “tarteki”, “intziso” edo “enuntziatu parentetikoak” leudeke, edo horiek bereziki. Izan ere, inpresioa da Koldo Mitxelenaren prosak periodoen “halako luzapen” bat dakarrela; ez soilik perpaus txertatuen erabilera ugariagatik, baizik eta etengabe ari delako kultura-erreferentziak, zitak, ñabardurak, zehaztapenak, argibideak, iritzi-usteak... tartekatzen.

Informazio hori guztia, ordea, beti ez du modu lau batean, enuntziatuz enuntziatu, albaintzen; maiz aski enuntziatuen arteko gurutzaketetara jotzen du, parentesi edo marren

artean informazio aunitz tartekatuz. Eta horrek berarekin dakar, gure ustez, informazioa elkarren gainean paratzen duelako ustea.

Hondarrear, sintaxia batere behartu gabe, gainezka duen informazioa bideratzeko estrategia egokia gertatzen zaio enuntziatu parentetikoak. Eta erabilera hori lot dezakegu Mitxelenak duen etengabeko zehaztasunerako joerarekin; alegia, norentzakoari aditzera eman nahi dion mezua (bere hasierako intentzio-xedean oinarritutakoa) ahalik eta zehatzen adierazteko nahiarekin eta norentzakoaren interpretazioa bideratzeko helburuarekin.

Beraz, diskurtso-estrategia hau berak aditzera eman nahi duen errealitatea ahalik eta hobekien besarkatzeko baliabide egokia dela ikusiko dugu. Baina ez horretarako bakarrik. Tesian zehar ikusten joango garenez, bere argudioetan aurrera egin eta norentzako bere tesietara erakarri eta hau pertsuaditzeko estrategia erretoriko-pragmatiko garrantzitsu bihurtuko da; hau da, norentzakoarekin interakziozko harremana gauzatzeko — konfiantza-maila, bien arteko zuzeneko elkarrizketa imitatua— nahiz norentzakoaren atxikimendua lortzeko ere bide egokia gertatuko zaio. Pertsuasio-indar handia izango dute bada.

Honenbestez, gisa honetako baliabideak aztertzeko, bere testuen ezaugarritzaile bihurtu diren autore batengana jo dugu. Ez nolanhiko autorearengana, haatik:

Ez da dudarik ondoko urteetan euskara idatziaren eredu berrixe hura gailenduz joan zela belaunaldi gazteko idazleen artean, aurreko belaunaldietan Orixerena nagusitu zen bezalaxe. “Guztiok, ezjakinean edo jakinaren gainean, irakasle genuena galdu dugu” — aitortuko du Mitxelenak berak Orixeren heriotzean—, eta “ezin urratuzko aztarrena utzi” bazigun Orixek eta “gure hizkuntza aldi eta eginkizun berrietarako egokitzen saiatu bazen eginahalean eta “hizkera zailu, labor biziago bat moldatzen”, zinez eta benetan uste dut beste horrenbeste esan genezakeela Mitxelena jaunak euskaraz eta euskararen alde egin duen lanaz. Honek hartaz esan zituen beste hitz hauekin, Orixe izenaren ordeztu Mitxelenarena ezarriz, amaituko dut lantxo hau: “Mitxelenaz geroztik doinu berri batean ikasi du mintzatzen euskal prosak, atsegin bazaigu eta ez bazaigu, euskara batuaren doinua neurri handi batean Mitxelenari eskerrak asmatua, bultzatua eta zabaldua baita egungo euskal libururik gehienetan. (Altuna 1987: 54).

Esan beharrik ez dago Mitxelenak euskararen batasunaren sortze-bilakaeretan izan duen eragina eta egin duen lana. Gu ez gara horren jorran ariko. Baina hainbat autorek aitortu dute bere prosa eredu egokiaren aitzindaritzat<sup>2</sup>.

---

<sup>2</sup>Horren berri nahi duenak irakur bitza: Altuna (1987), Bujanda (1988), Zubimendi (1990), Kortazar (1990:118-119), Esnal & Zubimendi (1993), etab.



Orixen eta Mitxelena euskaraz idazten ere bi erraldoi ditugu. Bien ia lan guztiak berrargitaratuak ditugu: Orixerenak berriki, Etor argitaletxean; Koldo Mitxelenarenak 1988an, "Klasikoak" sailean. Eskuratu eta patxadan irakurri beharko genituzke, zirimiria bezala ase eta goza dezan gure liburu, egunkari, aldizkari, irrati eta telebistako euskara. Bi estilista zoragarri aurkituko ditugu. Gainera, herrian eta idazle zaharretan xurgatutako euskara zaharra kulturgintzarako zorrotzen ahalegin handiak eta egokiak egindakoak dira orexarra eta errenteriarra. Ez balira bezala jokatzera, burugabekeria ez ezik, herriak barkatuko ez lukeen oker larri horietakoa ere izango litzateke. (Atxaga, M. 1993: 118).

Koldo Mitxelenaren prosari euskalgintzan diharduten hainbat autorek eta aztertzailek aitortu izan dizkioten ezaugarriok ikusita (euskal prosari doinu berri bat txertatzea, nahiz estilista zoragarri bat izatea) ezin dezakegu, Atxagarekin bat eginez, ez balego bezala jokatu. Are gehiago, gaur egun ere, euskal prosari dagokionez, gainditzeko hainbat arazo ditugula kontuan izanik.<sup>3</sup>

### **1.1.2. Prosazko tradizio sendo bat osatu beharra**

Prosa egiteko tankera, prosa egiteko moldea. Horra problema. Bai. Euskarak behar du prosa egiteko moldea ongi finkatua eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, euskarak duen premia gogorrenetako bat. Hori duen egunean, euskara bere bizkar-hezurraz horniturik izanen da. Eta hori ez duen bitartean, tresna alferra izango da, gai ez dena, zeregin askotarako balio ez duena. (Villasante 1988: 142).

Aipua aspaldikoa da, baina, gaurkotasun handikoa. Egun ere bataren eta bestearen ahotik entzun baitaiteke "zeinen kamutsa eta mugatua gelditzen zaigun batzuetan geure prosa" (Esnaola 2008a: 17)<sup>4</sup>.

Ez du lan honek euskal prosan nabarmentzen diren hutsuneak gainditzeko formula magikorik eskainiko; ezta hurrik eman ere! Gure helburua askozaz xumeagoa da: Koldo Mitxelenaren prosa erabiliko dugu azterkizun (berak oratu zituen kritikak), eta bereziki, euskarazko prosa honetan darabiltzan estrategia batzuk joko ditugu begiz, erabilera-joerak

---

<sup>3</sup>Euskal prosari leporatu izan zaizkion arazoez (dela lexikoaren mendekotasun diglosikoaz, dela sintaxiaren zabarkeriaz, dela estilo mordoiloari dagokionez) jabetu nahi duenak jo beza, besteak beste, Villasante (1978, 1988, 1993), Arrasate (1992), Euskaldunon Egunkaria (1992, 1995), Esnaola & Zubimendi (1993), Agirre (1994), Perez Gaztelu (1995), Hidalgo (1996a, 1996b, 1996c, 1997a, 1997b), Mendiguren Bereziartu (1996), Sarasua (1996), Garzia, Juan (1997), Sarasola (1997), Garzia, Joxerra (1999), Alberdi & Sarasola (2001), HAEE-IVAP (2005), Berria (2006), Kaltzakorta (2007), Larrinaga (2007) etab.

<sup>4</sup>Liburu honen abiaburuan bi galdera nagusi daude: Zergatik dira ulergaitzak zenbait euskal testu? Nola bihurtu ulerterrazago zenbait euskal testu ulergaitz? Beraz, zailtasun bat dago liburu honen iturburuan, egilearen ustez, "denok nozitzen duguna".

begiztatu eta ahal denean erregelak edo erregularitateak formulatzeko. Ez baita aski, egungo hainbat testu idatzik erakusten digunez (Esnal 2008a, 2008b), gramatika-arauak ongi menderatzea, horrez gain, gramatika-arau horien erabilera-estrategiak menderatu behar ditugu; alegia, komunikazio-ekintza jakin horretan igorlearen edo esatariaren helburu-intentzioak norentzakoari ongi egokitzeak estrategiak. Eta estrategia hauek, jakina, egokitasunaren hastapenarekin<sup>5</sup> hertsiki uztartuta leudeke; hau da, testuak, hainbat aldagairen arabera, doituak egongo dira: zein balizko irakurleri zuzenduta dauden, irakurle-mota horren hizkuntza (eta kultura)-ezaupidea zer-nolakoa den, gaiaren nolakotasuna nahiz testuingurua... horien guztien arabera doituak.

Zergatiak [euskararen erabilera urriaren arrazoiak] era askotakoak dira: bizitasunik gabeko hizkuntza —gatzik gabekoa— baliapidez motz gertatzen da bizitzaren alderdi jori ugariak adierazteko. Gramatikazko zuzentasuna tirano antzua da —mekanismo hutsa— eta inkomunikazioa adierazten du. (Zubimendi 1995: 12).

Tesi-lan honek formula magikorik eskaintzeko helbururik ez badu ere, apika, Koldo Mitxelenaren prosara edo diskurtso-estrategietara makurtzeak lagun diezaguke egun euskal prosari atxiki izan zaizkion hutsuneak argi berri batez ikusten.

Gu ez gara, halere, euskal prosari atxiki izan zaizkion hutsune guztiak azaleratzen hasiko (tesi honen helburua ez izateaz gain, aski konplexua eta zaila —agian, ezinezkoa— gertatuko zaigulako), baina oso gaisetarik bada ere, batzuk papereratuko ditugu, gure lan honekin uztartuta dauden heinean.

Esan izan da, eta euskal artikulua eta liburu batzuk ditugu horren lekuko, euskal prosa oraindik “heldu gabe” dagoela. Baina baieztapen hau orokorregia delakoan gaude; *euskal prosa* adigaiaren azpian, izan ere, izaera eta ezaugarri desberdinetako testuak sar ditzakegu, eta, agian, euskal prosaz oro har hitz egitea baino egokiago da testu mota jakinez eta testu mota jakin horren ezaugarriez mintzatzea. Esaterako, ez da gauza bera kontakizun sotilak oratu edota jakiteko —hizkuntzazko, literaturazko nahiz kritikazko— lan astun eta pisuak oratu:

---

<sup>5</sup>Norentzakoarengan eragiten duena izango da berbaldi egokia, hots, lortu nahi duena lortzeko “egokia” den berbaldiari deritzogu. Diskurtsoa edo berbaldia, izan ere, nekez izan ohi da informazio-truke soila. Joxerra Garziak bere tesian dioen bezala, “gure hizkuntza-ekintzak xede jakin bat izan ohi dute, informazio-trukaketa aseptikotik gorakoa, jeneralean: hartzaileari barre eragiteko, hartzaileak geure ideiez bat egin dezan, geure burua zurtzeko, hartzailea emozionatzeko, zerbait eros diezaguten (...) hitz egiten eta idazten dugu, ez informazioa emateko soilik”. (Garzia 1999: 5-6).

Zenbait alorretan, ordea, besterik gertatzen da: egokia izan daiteke euskara, nahiz eta lehenengoan ulertu ez (gaia bera zaila delako, gaiari buruzko gogoetak korapilatsuak direlako, literaturan jorratzen diren idazkera bereziengatik... Mitxelenaren idazlanak lekuko. (Zubimendi & Esnal 1993:152).

Bestetik, “heldugabetasun” ezaugarriaz zer ulertzen dugun zehaztu beharko genuke. Gauza asko esan nahi da euskal prosa “heldu gabe” dagoela esatean. Esnal eta Zubimendiren arabera (1993), baieztapen hori, besteak beste, elkarri kateaturik datozen aitorten batzuek osatzen dute:

- a) Ahozko euskaratik euskara idatzirako bidea, oro har, ez dago erabat egina.
- b) Bide horretan dauden zenbait behaztopagarri gainditu gabe daude.
- c) Idazle bakoitza bere gisara ari da bidegintzan, hainbat alorretan behintzat.

Badirudi “heldugabea” izatearen muina mintzatzen dugun euskararen eta idazten dugunaren artean eten izugarria egotean datzala. Gu geu enuntziatu parentetikoak aztertzean, baliabide honek ahozko eta idatziaren arteko etena arintzen duela frogatzen ere saiatuko gara; hots, idatziari ahozkotatasunaren ezaugarriak txertatzeko balio duela frogatzen.

Mitxelenari zerbaitegatik aitortu izan zaio, gainera, bere prosak ahozko euskara hori trinkotu egiten duela: perpausak biribildu, osatu, luzatu, orraztu egiten ditu. Eta Mitxelenaren prosa bera da moldezko eta ahozko euskal lekukotasunaren oihartzun: bere bitartez heldu zaizkigu (beste norbaiti buruz berak adierazi zuenez)<sup>6</sup> “euskal idazleen mintzaera dotorea eta ikasia, eta bertsolarien etorri egokia eta lasaia”.

Ahazkotik idatzirako bidea egiteke dagoela informazioaren antolamenduan bertan antzeman daiteke, zenbaiten ustez:

Maiz gertatzen zaigu, banan-banan, erraz ulertzen ditugula esaldi guztietako hitzak. Eta, hala ere, zeharo ulernekeza bihurtzen zaigula testua. Euskara hauek guztiek daukate amankomunean aditza oso atzeratua eramatea esaldian. Areago itzulpenak badira. (Hidalgo 1996a: 40).

Edota bide beretik:

---

<sup>6</sup>Mitxelenak berak, Orixeri buruz mintzo zelarik, esan zituen hitzak aldatu ditugu; hitz horiek bere prosa ezaugarritzeko ere balio dutelako.

Orixeren erreztasuna eta argitasuna ere hortantxe dago garbi ala mordoilo baino areago. Erreztasunaren problema nagusia frasean dago, ez hitz bakar batzutan, garbi ala mordoilo. (Azurmendi 1977: 329-330).

Azurmendik Orixeren prosakeraren inguruan egindako baieztapen honek nahiz Bittor Hildalgok euskal prosakerari buruz, oro har, egindakoak, balio lezakete gaur egun euskal prosak bizi duen hutsune edo “ajeari” beste ikuspegi batetik eusteko. Alegia, gaur egungo euskal idatziak ilunak, ulergaitzak eta maiz aski gozatu gabeak iruditzen zaizkigu eta horri aurre egiteko bide bat egon liteke, agian, sintaxi edo joskeraren egokitasunean. Baina horri zera erantsi nahi genioke: testu ulergaitzen auzia ez da sintaxiaren edo joskeraren egokitasunaren izenean soilik konponduko, ez behintzat perpausaren sintaxi egokitasunera mugaturik; testu-sortzaileak ezinbestean testua hartu behar du komunikazio-unitatetzat, hots, bere intentzio-asmoen komunikazio-emaizta osotzat. Eta horrek berarekin dakar testugileak komunikazio-ekintza batean parte hartzen duten faktore edo aldagai guztiak aintzat hartzea: norentzakoa (beti ez du hartzailearekin zertan bat egin), testuingurua, esatariaren intentzio-asmoa (eta enuntziatzailearena), etab. Hau da, sintaxi-arauez gain, testu (eta diskurtso) estrategiak edo baliabideak ere kontuan izatea beharrezkotzat jotzen dugu.

Izan ere, hizkuntzaren erabileran dena ez da arau eta lege, estu nahiz lasai. Behin arau gramatikalak betez gero eta testuaren legeak aintzat hartuta, eremu handi bat zabaltzen zaio hiztunari: askatasunaren (eta erantzukizunaren) eremua.

Eta, eremu horretan, hiztunari berari dagokio erabakiak hartzea. Horretan lagun izango ditu, lagun preziatu, gure aurreko hiztunek utzi diguten ondarea eta moldatu diguten tradizioa. Baina hiztunak berea du azken hitza, lortu nahi duenaren arabera. Berari dagokio zer aukera hobetsi, zer baliabide hautatu, zer estrategia erabili erabakitzea. (Esnal 2008b: 5).

Honenbestez, ezinbesteko gertatzen zaigu, testu egokiak eta ulerterrazak eratzeko, hau da, esatariaren intentzio-asmoak berak hautatu duen norentzakoari ahalik eta zuzenen eta egokien iristeko, diskurtso-estrategien alorrean urrats txikiren bat egitea. Eta horretarako, diskurtso-estrategia edo baliabideetarik bat aztertuko dugu. Ez, agian, emankorrena, baina bai gutxien jorratua izan dena. Eta, gainera, Koldo Mitxelenak baliabide honekin erdiesten dituen efektuak agerian jarritz, litekeena da euskal prosara edo testugintzara argirik ekartzea.

Ez da dudarik, ordea, intuizioek beren balioa eta indarra testuetan egoki behatu eta aurkitutako datuez egiazta daitezkeenean soilik hartzen dutela; bestela intuizio hutsean gelditzen dira, funtsezko ondorio bihurtu gabe. Saia gaitzen, bada, intuizioak funtsezko ondorio bihurtzen, eta ez gaitzen beti euskal prosa egiteke dagoela esatean geldi.

Borondateari dagokionez, zabarkeriarik ez dago apenas; alegia jendeak badu borondatea eta badu nahia teknika aldetik hizkuntza ezagutu eta menperatzeko. Baina hemen nahi izatea ez da nahikoa. Profesionalki tresna batzuk behar dituzu, eta horietako bat hizkuntza da. Eta ez baldin badaukazu tresna hori ongi prestatua, kamutsa baldin badaukazu, trakeskeriak egingo dituzu, besterik nahi izan arren. Eta horiek inkomunikazio-sortzaileak dira, jendearen aspertzaille. Aspertu ezezik jende asko etsi ere egiten du horrek: euskalgintzan gabiltzanok ikusi behin eta berriro beti aje eta katramila berberarekin topo egiten dugula nahi eta ezin. (Zubimendi 1997: 40-41).

## **1.2. AZTERGAIA. ARGITARALDIAK**

### **1.2.1. Aztergaia**

Aztergaia bi burukoa izango da: batetik, egitura mota hau aztertzeke egokiena izan daitekeen ikusmolde teoriko-metodologikoa jorratuko dugu eta bestetik, berriz, enuntziatu parentetikoaren berriazko azterketa egiten ahaleginduko gara. Azken alderdi hau, tesiaren erdigunetzat jotzen duguna alegia, bi begiratuk osatuko dute:

- a) Lehen begiratuan, egitura edo enuntziatu parentetikoei buruz bestek esana bilduko dugu. Erreferentzia nagusitzat euskara eta gaztelania izango badugu ere, beste hizkuntzetan sortutako teoriak, “parentetikoei” nahiz “intzisoiei” buruz han eta hemen esan eta idatzi direnak (eman izan zaizkion definizioak eta ezaugarriak) bildu eta sailkatu egingo ditugu, ondoren gure galbahetik pasatu eta lanabes izango dugu adigaia bera ongi mugatzeko. Eta adigaia “ongi mugatzeak” berarekin dakar egitura hauen ezaugarri nagusiak atera eta zehaztea ere.
- b) Bigarren begirata, lehenarekin harreman estuan agertzen dena, corpusaren analisi enpirikora mugatuko da. Horretarako, teoriaren ekarria begi aurrean izango dugu eta, beraz, ikusmolde teorikoekin uztarturik aztertuko dugu. Era berean, azterketa enpirikoak lagun diezaguke parentetikoei buruz teorizatzen ere, hots, alderdi

teorikoa bera jorratzen. Azken emaitza bezala, Koldo Mitxelenak darabiltzan enuntziatu parentetikoaren deskribapena, sailkapena eta azalpen egoki bat egitea erdietsi nahi dugu. Horretarako, ezaugarri sintaktiko-testual eta distribuziozkoak batetik, eta bestetik, berbaldian bertan duten eginkizun komunikatibo-erretoriko-pragmatikoa aztertu eta azaltzen saiatuko gara.

### **1.2.2. Testu-tipoa**

Arestian genioenez, gure esparrua Koldo Mitxelenaren euskal prosan, enuntziatu parentetikoak ahalik eta modurik agortzaileenean lantzeraino mugatu dugu. Baina ez ditugu berak euskaraz idatzitako testu guztiak hartuko aztergaitzat. Horrela jokatzek bai baitu bidean galdu eta emaitza baliagarrikerik ez ateratzeko arriskua. Tesiaren hari nagusiari jarraiki, bidezko etsi dugu behean aipatuko ditugun hiru liburukion altxorrean arakatzea.

Bestalde, eginiko aukera murriztegia ere gerta daiteke; beti ere, helburua Mitxelenak mamitutako testu landu guztietan darabiltzan enuntziatu parentetiko guztien berri eman nahi izanez gero. Hain zuzen ere, tesiari mugarririk jarri beharrik eta erdietsi nahi dugun xedeak ekarri dute eremu zabalean sail bat mugatzea.

Bada, ordea, gure ustez, mugatze-lanari ekiteko pisuzkoagoa den arrazoirik: euskaraz asko idaztean oso desberdinak ziren testu motak sortu zituen:

(...) Nos encontramos ante un ensayista de gran talla. Esta publicación ha refutado la opinión de muchos de que Koldo Mitxelena había escrito y publicado más bien poco en lengua vasca. El material ahora reunido recoge textos de variada intención: desde sus primeros poemas, escritos en la cárcel de Burgos, hasta trabajos filológicos, críticas literarias y opiniones diversas. (Kortazar 1990: 118-119).

Ondorioz, testu mota horietatik guztietatik zeintzuk aztertu behar ditugun zehaztea ezinbestekoa da, testu mota jakin batzuetan bestetan baino gehiago agertzeko aukera baitago:

Los enunciados parentéticos no suelen aparecer en los textos puramente informativos, a excepción de alguna aclaración enunciativa. Sin embargo, abundan en los textos de comentario y opinión y, sobre todo, en las columnas fijas de un autor, que a veces están a medio camino entre lo literario y lo periodístico. (Fuentes 2000: 235).

Aipu horretan oin harturik, testu mota jakin bateko artikuluak izango ditugu aztergai: kritikak, bai film edo zinema-kritikak eta bai liburu-kritika eta erreseinak ere. Guztira 184.

Kritikak testu mota edo testu-tipotzat jo ditugu, baina testu-tipologiaren barnean non kokatu ohi dira? Eraginik ba ote du testu mota berezi hori hautatzeak aztergai dugun diskurtso-baliabide hau jorratzeko? Hau da, emaitza bera izango ote litzateke parentetikoaren azterketa kritikei edo, esate baterako, Mitxelenak idatzitako testu zientifikoei aplikatuta?

Galdera horiei guztiei erantzun ahal izateko ezin gintezke norberaren intuizioan oinarritu, eta, agian, aztergaitzat jo dugun testu mota zehatz honen izaera aztertzeak lagun diezaguke erantzunen bat ematen. Bada, gisa honetako auziek ere aztergai izango dute lekurik.

### **1.2.3. Argitaraldiak**

Argitaraldien aukerak ondorio latzak dakartzala esan beharrik ez dago. Guk aztergai Euskal Editoreen Elkarteak kaleraturiko Klasikoen Saileko 21, 22 eta 23 zenbakiak dituzten liburuxkak hautatu ditugu: *Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak I, II, eta III* aleak, hor baitaude bilduta euskaraz idatzitako kritika esanguratsuenak. Argitaraldi gaurkotua beraz.

Horrek ez du esan nahi, haatik, lehenbiziko edizioei erreparatuko ez dieguenik. Maiz aski, exhaustiboki alderatuko ditugu jatorrizkoekin. Erkatze honen ondorioak, analisi empirikoaren hasieran bertan paratuko ditugu; izan ere, egitura jakin hauek, tipografikoki marren, parentesien edo koma parearen bidez bereizten dira eta, jakin badakigu, puntuazio demarkazioak (komatxoren bat ahaztea, esaterako) edizio batetik bestera aldaketaren bat izan dezakeela. Halaz ere, oro har, bilduma batek eskaintzen duen abantailaz baliatu gara kasu honetan.

## **1.3. TESIAREN ATALAK**

Tesiak hamaika atal nagusi izango ditu.

1. Atala: Atarikoa edo tesiaren aurkezpena
2. Atala: Ikusmolde teoriko-metodologikoa

Azterbideari dagokio; hau da, Koldo Mitxelenaren diskurtso-antolaketa eta garapenean eragina duten egitura parentetikoak aztertzeko, metodologiazko azterbideen azalpenak egingo ditugu: erabiliko ditugun hizkuntz ikuspegiak, terminoak, irizpide eta oinarri hautetsiak eta, bereziki, ikuspegi hauek guztiek gure aztergaira argirik ba ote dakarten aztertuko dugu.

### 3. Atala: Enuntziatu parentetikoak, bestek egindako bideetan barrena

Lanean ibiliko dugun enuntziatu parentetikoa adigaia definitu edo mugatzeko, bestek egindako bideetan barrena ibiliko gara, jarraian definizio bat emateko.

Gramatikan ia batere aztertu izan ez den egitura mota honen azterketak, ezinbestean, atzera begiratzea ekarriko du: enuntziatu mota honetaz egin izan diren ekarriak (han eta hemen esanak) bildu, gure galbahetik pasatu eta darabilgun adigaia ongi mugatu eta ezaugarritzeko. Horretarako, euskal eta erdal lanetan (gaztelaniaz bereziki eta frantsesez eta ingelesez gutxiago) egindako lanei erreparatu diegu.

### 4. Atala: Enuntziatu parentetikoaren definizioa

Besteengandik ikasi eta jasotakoa gure galbahetik pasatu ostean, enuntziatu parentetikoak gure tesi-lanean izango dituen mugak zehaztuko ditugu.

### 5. Atala: Enuntziatu parentetikoaren analisirako oharra

Enuntziatu parentetikoaren analisia egin aurretik aztergairako begiz jo den argitaraldiaz eta argitaraldien arteko erkatzeaz hainbat ohar egitea ezinbestekotzat jo dugu. Aztergaiaren zehar izan dezakeen eragina kontuan izanik, oinarritzko corpusa ateratzeko erabili dugun argitaraldi gaurkotua jatorrizkoarekin alderatu eta alderatzearen emaitza orokorrak aipatzeko ditugu.

### 6. Atala: Enuntziatu parentetikoaren analisi formala I: analisi sintaktiko testuala

Enuntziatu parentetikoak ustez ongi definituta eta argitaraldiaz egin beharreko oharra eginda ditugula, oinarritzko corpusean agertzen direnen analisi formala egingo dugu.



Bi zatitan banatuko dugu formazko analisi hau: seigarren atal honetan, enuntziatu parentetikoaren izaera sintaktikoa izango dugu jomuga.

7. Atala: Enuntziatu parentetikoaren analisi formala II: enuntziatu parentetikoaren integrazio-gunea

Enuntziatu parentetikoaren distribuzioa ere mintzagai izango dugu, bai alderdirik formalena kontuan hartuz; hau da, E1 oinarriko enuntziatuaren egitura sintaktikoan hartzen duen lekuari edo posizioari erreparaturik, eta baita alderdi komunikatibo-diskurtiboari erreparaturik ere; diskurtsoaren barneko informazioaren distribuzioak duen egitura komunikatiboari erreparaturik, alegia. Azken hau zubi bilakatuko zaigu alderdi formaletik diskurtso-alderdi baterako jauzia egiteko.

8. Atala: Puntuazioa, enuntziatu parentetikoaren muga grafikoa

Enuntziatu parentetikoak inguratzen dituzten “bigarren gradu” puntuazio-markei begiratu bat emango diogu, Mitxelenaren lumak horien erabileran nolabaiteko sistematikotasunik erakusten duen aztertzeke.

9. Atala: Enuntziatu parentetikoaren komunikazio-eginkizuna

Enuntziatu parentetikoek diskurtsoan duten egitekoa zehaztuko dugu, azpisail bakoitzeko eredugarriak diren adibideak azalduz. Helburua ez da taxonomia bat egitea izango; xede jakin batera bideratutako komunikazio-estrategia batzuk aztertzea baizik. Berbaldi jakin batek esatariaren helburuak bete ditzan, berbaldian bertan martxan jartzen dituen teknika, baliabide, hizkuntza-mekanismo batzuk izango ditugu aztergai; esatariak bere intentzio-asmoak norentzako bati helarazteko ez baita aski gramatikako arauak kontrolpean izatea, berbaldiaren dinamika ere oso kontuan izan beharrekoa baita.

Enuntziatu parentetikoaren komunikazio-eginkizuna azpi-atal hauetan laburbilduko dugu:

- 1- Enuntziatu parentetikoaren argudiatzeko diskurtso-estrategia erretoriko-pragmatikoa.
- 2- Enuntziatu parentetikoaren pertsonarteko harremanak bideratzeko estrategia.

- 3- Enuntziatu parentetikoa, informazioa testuinguruan kokatzeko estrategia.
- 4- Enuntziatu parentetikoa, ahozkoasuna idatzian islatzeko estrategia.
- 5- Enuntziatu parentetikoa, esatariaren intentzio ironikoaren ispilu.

#### 10. Atala: Ondorio orokorrak

Emaitzak interpretatuz, orotariko ondorioak aterako ditugu, tesiaren bizkarrezurra berriz ere osa dezagun.

#### 11. Atala: Bibliografia

### **1.4. BIBLIOGRAFIAZ**

Enuntziatu parentetikoaren azterketa sakonak zoko-miratze lana dakar berarekin. Eta, beraz, bibliografiari dagokion atal hau euskal nahiz erdal lanekin osatu dugu. Batetik, alde edo moldez, egitura mota hau (egitura honen azpi-osagaitzat jo dugun atalen bat) aztertzen duten euskal lanak begietsi ditugu. Baita egitura mota hau aztertzeko egokiak izan daitezkeen termino-osagaiak jorratzen eta formulatzen dituztenak ere. Ez ziurrenik guztiak; baina bai aztergaiari eta finkatu ditugun helburuei egokitzen zaizkien gehientsuenak.

Euskaraz egindako lanen ekarria murrizta izanik, erdaraz eginei ere erreparatu diegu; gaztelaniaz eginikoei bereziki, baina baita frantsesez eginak ere, Genevako eskolaren ekarria islatzen zuten heinean (hau da, guk hautatu dugun iturrietako baten isla diren heinean). Horiekin batera, neurri txikiagoan bada ere, ingelesezkoak kontuan izan ditugu. Tartean bada italieraz nahiz portugesez idatzitako lan bakarren bat ere.

Bibliografia-erreferentziak testuan bertan tartekatu ditugu (autorea, urtea eta orrialdea idatziz) eta ondoren zerrenda osatua lanaren amaieran jarri.

## 2. IKUSMOLDE TEORIKO-METODOLOGIKOA

### 2.1. ALDEZ AURRETIKO ZENBAIT OINARRI

Aztergaiaren oinarri teoriko-metodologikoa mugatu eta zehaztu beharra dago hasiera-hasieratik, bai tesiaren oinarrizko aztergaiari berari dagokionez eta baita aztergai hori lantzeko egokienak izan daitezkeen ikusmolde-teoriei begira ere; hauxe baita, izan ere, edozein ikerketa sendo iraunarazten duen alderdia: adigai-terminoen zehaztapenak, azterbidea aukeratzeko irizpideak nahiz azterbidearen beraren mugak ongi zedarritzea, aztergaiaren sistematizazioari begira kontuan izan beharreko irizpideak, eta abar.

#### 2.1.1. Hurbilbideak

Enuntziatu parentetikoak, hots, tipografikoki marren, parentesien nahiz intzisoko koma parearen (Linares 1979) artean doazen egitura hauek aztertzeke ez gara ikuspegi bat eta bakarrera lerratu; hainbat hurbilbidetatik jasotako ekarriak kontuan hartzea iruditu zaigu egokien (Calsamiglia & Tusón 1999) gisa honetako diskurtso-baliabide edo estrategia bat aztertzeke elkarren osagarri direlako ustean.

Hasieratik bertatik, bada, “diskurtso-baliabide” edo “estrategiatzat” jo ditugu. Eta “diskurtso-estrategia” hau Calsamiglia & Tusón-en (1999) zentzuan interpretatzen dugu, hau da:

La heterogeneidad lingüístico-discursiva no sólo no es caótica, sino que está regulada, más allá del plano gramatical, por una serie de *normas, reglas, principios o máximas* de carácter textual y sociocultural que orientan a las personas en la tarea de construir piezas discursivas coherentes y apropiadas a cada ocasión de comunicación. Comunicación que se entiende, no tanto como un simple y mecánico proceso de transmisión de información entre dos polos, sino como un proceso interactivo mucho más complejo que incluye la continua interpretación de intenciones expresadas verbal y no verbalmente, de forma directa o velada.

Esto implica tomar en consideración a las personas que usan esas formas, y que tienen una ideología, una visión del mundo, así como unas intenciones, metas o finalidades concretas en cada situación; unas personas que despliegan *estrategias*<sup>7</sup> **encaminadas a la consecución de esos fines**. (Calsamiglia & Tusón 1999: 16). (Letrakera lodia gurea da).

<sup>7</sup> Etzana autoreena da.

Gure ustean ere, enuntziatu parentetikoak, esatari-enuntziatzaileak bere intentzio-asmoak erdiesteko norentzakoari egiten dizkion keinuak, seinaleak lirateke; hitz batean, helburu horretara bideratutako estrategiak. Izan ere, esatariaren xede-helburua norentzako horrek bere intentzioa atzematea da eta, beraz, etengabeko ahalegina egingo du esandako guztia birformulatu (enuntziazioaren maila), modalizatu (hots, esatariak berak esan duenari buruz, norentzakoari buruz, nahiz inguruneari buruz duen iritzi-jarrera esplizitu eginez) eta testuinguratzen, harik eta esan duenaren eta esan nahiko zukeenaren artean zirrikiturik txikiena ere egon ez dadin.

Esatariak, izan ere, eskueran du inguratzen duen errealitateaz informazio-multzo handi bat (datu-base izugarri bat) bere inguruarekin harreman-sarea sortzeko ezinbesteko gertatzen zaiona. Datu-base zabal hori datuez eta datu horiek *egoki* erabiltzeko instrukzio-jarraibideez osatuta dago eta aldi-aldi komunikazio-egoera jakin horri egokitzen zaizkionak edo egokitzeko baliagarri zaizkionak soil-soilik aterako ditu (hautatuko ditu).

Komunikazio jakin bati egokitzeak zera esan nahi du:

1) Esatariaren intentzio-asmoei egokitzen zaiola.

2) Norentzakoari egokitzen zaiola: pentsatzekoa da Mitxelenak oso garbi zuela nori ari zitzaion idazten eta parentesi edo marren artean tartekatzen dituen argibide, zehaztasun edo ñabardurak aurrez aurre duen (edo behintzat esatariak buruan duen) irakurle potentzialari egokitzen zaizkiola. Zein da, baina, irakurle hori? Nolakoa da buruan duen balizko norentzako<sup>8</sup> hori?

3) Testuinguruari: Bustosen (1986) ikuspegiari jarraituz, esatari / norentzakoek batean duten informazio pragmatikoari, hain zuzen.

Ez da aski, beraz, hizkuntza zuzen erabiltzeko gramatikazko arauak bakarrik kontuan izatea. Hizkuntza zuzen ez ezik egoki ere erabili behar denez gero, ikuspegi gramatikal soiletik ikuspegi komunikatibora egin beharko dugu jauzia:

Ikuspegi murriz eta eskusibista hori [ikuspegi gramatikal soila] gainditu nahi du ikuspegi komunikatiboak. Ikuspegi berri honek bere baitan hartzen du ikuspegi gramatikala, eta beste hiru ikuspegiz osatu eta zuzentzen du. Ikuspegi soziolinguistikoa, ikuspegi testuala eta ikuspegi estrategikoa dira beste hiru ikuspegiak. (Esna 2008b: 4).

---

<sup>8</sup>Mitxelenaren zinema-eta liburu kritiken norentzakoa zein den irudikatzeko (§ 9) erabiliko dugu, (§ 9.2) hain zuzen ere. Beraz, enuntziatu parentetikoetan oin hartuz, galdera horiei guztiei erantzuna ematen saiatuko gara.

Garbi dago, ordea, ikuspegi komunikatiboa ez dela lortzen ikuspegi gramatikalari beste hiru ikuspegiak gehitu hutsez, ez baita metaketa soila: osotasun berria da ikuspegi komunikatiboa.

Enuntziatu parentetikoek ere uste dugu ikuspegi komunikatibo batetik aztertu behar ditugula, horien eginkizuna, izan ere, esatari-norentzakoen artean komunikazioa egoki gauza dadin esatariak testuan bertan martxan jartzen dituen “komunikazio-estrategiak”<sup>9</sup> dira.

Zentzu honetan, bada, bat egiten dugu Récanatik (1984) eta Fuentesek (1998) diotenarekin:

Gracias a ellos [enuntziatu parentetikoak], el hablante manifiesta explícitamente el modo en que concibe al enunciado que realiza. Carecen de sentido descriptivo, pero funcionan más bien como signos que guían al oyente hacia una apreciación correcta de la afirmación en su contexto. Ayudan a comprender y a aprehender lo que se dice más que a formar parte de lo que dice. (Fuentes 1998a: 153).

Edota Récanatik (1984) dioena:

(...) elle véhicule un commentaire par lequel celui qui parle indique à son auditoire comment son énoncé doit être pris. Ce commentaire porte tantôt sur la force illocutionnaire spécifique de l'énoncé, tantôt sur son attitude affective à l'égard de ce dont il parle, tantôt sur la valeur argumentative de son propos dans le contexte discursif où il s'insère. En bref, les verbes caractérisés par la transparence de la première personne<sup>10</sup> ont une fonction *d'indicateurs pragmatiques*<sup>11</sup>. (Récanati 1984: 324-325). (Letrakera etzana autorearena da).

Hondarrean, enuntziatuari (edo diskurtsoari) berari baino gehiago eragiten dio diskurtsoari buruzko diskurtsoari edo “metadiskurtsoari”. Eta, beraz, diskurtso mailako egitura edo kategoria hauetan sakontzeko ezinbestekoa gertatzen zaigu *metadiskurtsoa* nahiz

<sup>9</sup>Esnali jarraituz (2008a), “hizkuntzaren erabileran, erabakien mundura garamatza *estrategia* terminoak, eta mundu hau arauen munduari kontrapuntu eginaz ikustera”. (Esnal 2008: 28).

<sup>10</sup>Nahiz eta Récanati aditz parentetikoek (lehen pertsonan agertzen diren uste, iritzi... bezalako “aditzen transparentzia” edo gardentasunaz) mintzo zaigun, parentetikotasun izaera azaleratzeko egokia iruditu zaigu.

<sup>11</sup>Une honetan, hau ulertzeko egoki etor dakiguke Ducrot-ek (1984: 254-255) perpausaren esanahiaz eta enuntziatuaren zentzuaz dioena: “Prefiero representar la significación como un conjunto de instrucciones dadas a las personas que deben integrar los enunciados de la oración; estas instrucciones precisan cuáles son las maniobras que deben efectuarse para asociar un sentido a esos enunciados”.

Era berean, Récanatik darabilen *indikatzaile pragmatiko* hitza, ustez, estrategiekin hertsiki uztartuta dago; hau da, egoera batean erregelak erabiltzeko moduarekin. Adigaia hobeto ulertzeko, Fuentesen (2000: 34) liburutik hartutako aipu bat ekarriko dugu Rubattel-ek gramatika eta pragmatika nola ulertzen dituen azalduz: “Gramática y pragmática son, dice C. Rubattel, como en un juego las reglas y las estrategias o tácticas. Luego deducimos de aquí que la gramática supone reglas, y la pragmática estrategias o modos de usar las reglas en el habla, con influencia de todo lo del entorno comunicativo”.

*makroegitura* bezalako terminoetan sakontzea, eta baita ere *modalizazioa*, *birformulazioa*, *testuingurua*, *intenzio-asmoa*, *igorle-esataria*, *enuntziatzailea*, *hartaile-norentzako*... bezalako adigaiak alde aurretik mugatzea ere. Honenbestez, alderdi horiek guztiak barne hartuko dituen ikuspegi teoriko eta metodologiko bat garatu beharra ikusi dugu, aztergaiaren euskarri sendo gisa.

Marko teoriko orokor hori garatzeko, bada, aipaturiko adigai horiek guztiak era batera edo bestera aztergai izan dituzten hizkuntza-korronte edo ikusmoldeetara jo dugu. Batetik, azterbide-hezurduraren euskarri gisa, analisi **linguistiko-pragmatikoa** hautatu dugu eta honen barrenean, **ikuspegi enuntziatibo-pragmatikoa** oso errentagarri gertatuko zaigulako ustea dugu. Ikuspegi enuntziatibo pragmatiko hau, Frantziako diskurtso-analisiaren barrenean aztertu izan den Adierazpenaren edo Enuntziazioaren hizkuntzalaritza da, eta bereziki esatariak diskurtsoan uzten dituen lorratzetan oinarritzen da.

Ez da aski, ordea, esatariaren lorratzei soilik erreparatzea, norentzakoak ere baldintzatuko baitu esatariaren diskurtsoa. Beraz, norentzako edo mezua zuzentzen zaion balizko hartaile hori ezaugarritzeko “Harreraren Estetika”-n giltzarri diren adigai batzuk (irakurle inplizitua, esaterako) begien aurrean izatea beharrezkoa gertatu zaigu. (Olaziregi 1997, 2001).

Bai esataria eta baita norentzakoak zutarrak dituzten ikuspegi pragmatiko horiez gain, aztergaia modu agortzaile batean jorratuko badugu, **Metadiskurtsoaren** inguruko azterlanek ere baliatu gara, eta horiekin batera **Testu-gramatikak** aztergai dituen hainbat adigai eta azalpen geureganatzen ere saiatu gara: makroegitura, mikroegitura, gainegitura, koherentzia, kohesioa, eta, oro har, esaldi-multzo bati, hein batean, testu-izaera edo “testualitatea” ezartzen dioten testu-bideratzaile oro.

Begiratu batean, badirudi ikuspegi horiek guztiak arras desberdinak direla eta erabat urruntzen direla bata bestetik. Ez, baina. Begiratu zehatzago batek ikusaraziko liguke Pragmatikarekin —Pragmatika hizkuntz gertakarietara hurbiltzeko ikusmolde gisa hartuaz— badutela zerikusirik. Bada autorerik (Gallardo 1996, 1998a, 1998b), esate baterako, aipaturiko ikuspegi guztiak Pragmatikaren barne-antolamenduan sartzen duenik.

Nosotros aceptaremos la denominación genérica de “pragmática”, y distinguiremos tres subáreas básicas: una pragmática enunciativa (que atiende sobre todo a los aspectos dependientes del emisor), una pragmática del enunciado (centrada en los aspectos textuales) y una pragmática del receptor (centrada en el oyente). (Gallardo 1996: 19).

Honentzat, bada, urte batzuk geroago berresaten duenez (1998a, 1998b), ikuspegi beraren zatiosagaiak besterik ez lirateke izango:

a) Pragmatika enuntziatzailea: izendapen honen azpian, ordea, autore honek ez du Frantziako Enuntziazioaren Hizkuntzalaritza gogoan, Oxford-eko eskola<sup>12</sup> pragmatiko enuntziatiboa baizik:

Hemos llamado pragmática ENUNCIATIVA a la que surge sobre todo a partir de las obras de J. Austin y J. Searle. Se trata de un enfoque que toma como unidad fundamental el acto de habla, y que se ha desarrollado de manera espectacular en la década de los 80. La mayor parte de estos trabajos no tienen en cuenta al receptor, y lo consideran como un elemento pasivo que, en el mejor de los casos, realizan actos perlocutivos o interpreta los enunciados del hablante a la luz de las máximas. (Gallardo 1996: 27).

b) Pragmatika testuala: hau, autore honen ustez, enuntziatuan eta enuntziatuaren barne-antolamenduan oinarritzen da bereziki: kohesioa, koherentzia, konexioa... izango ditu giltzarri. Badirudi, bada, “Testu-gramatika” deitu izan zaionarekin hertsiki uztartuta dagoela. Guk geuk, bada, “Testu-gramatika” deitu diogu.

c) Harreraren pragmatika edo “Harreraren Estetika”: irakurlearen ikuspuntutik taxututako Literatur Kritikan fruitu interesgarriak eman dituen norabidea da. Korrante honen giltzarri diren kontzeptuak “irakurle inplizitoa” eta “igurikimen horizontea” (Olaziregi 1997) ongi etorriko zaizkigu Mitxelenaren norentzakoa irudikatzeko.

Garbi dago, halere, ikusmolde teorikoen eremu zabal honetan, bataren eta bestearen arteko mugak ez daudela hain garbi eta izendapen beraren azpian, autore batek edo besteak jorratu, adigai eta ulermodu desberdinak atzeman daitezkeela.

Batzuek Enuntziazioaren Hizkuntzalaritza, esaterako, Hizkuntza-Pragmatikatik at ikusten dute, edo diskurtsoaren analisiarekin hertsikiago loturik (Charolles 1988); beste batzuek ez dute batere garbi bere kokalekua (Montolío 1997) eta beste batzuek, azkenik, bete-betean, ikuspegi pragmatikoaren barrenean aztertzen dute.

---

<sup>12</sup>Eskola honek, besteak beste, hizketa-ekintzak (*speech acts*) aztertzen ditu: ekintza lokuzionarioa, ilokuzionarioa eta perlokuzionarioa. Horiez gain, inplikaturei nahiz inferentziei buruzko teoriak, auzolan printzipioak, eta abarrek toki nagusia hartzen dute. Ikuspegi hau ere, bada, nahiz eta berariaz aztertu ez, azalpenak emateko orduan kontuan izan dugu.

Fuentesek (1997), esate baterako, Enuntziazioaren Hizkuntzalaritza Hizkuntza-Pragmatikaren alderdi gisa ikusten du. Hau azken batean, pragmatikaren definizioa modu oso zabalean hartzeak dakarren aniztasunaren ondorio da:

Creemos que la definición más amplia [pragmatikarena] es, como dijo S. Levinson (1983), el estudio de la lengua en el contexto, el estudio del uso de las unidades. Esta definición, simple, es la base de todas las vertientes de investigación de la Pragmática, aunque cada una lo enfoque en un sentido distinto.

1.1. Puede centrarse en lo social, en relación de la lengua con el contexto en que se produce (...)

1.2. También podemos estudiar la Pragmática desde la perspectiva del acto (...)

1.3. Cabe otra vertiente, más internamente lingüística, que se preocupa de ver el uso de las unidades y su dependencia del entorno comunicativo. El hablante emite su mensaje a un oyente, en unas determinadas circunstancias espacio-temporales, sociales, culturales..., todo lo cual deja huellas en dicho mensaje. Por tanto hay que estudiar la influencia de estos elementos externos en la propia comunicación lingüística. Este enfoque difiere de los anteriores en que se centra en lo que tiene reflejo lingüístico, en lo que trasciende al mensaje analizado. Como en otras ocasiones hemos dicho, esta perspectiva, la enunciativa, nos parece de una gran rentabilidad en el análisis lingüístico (...) (Fuentes 1997: 11).

Testu-Hizkuntzalaritzaren (eta horren barruan kokatu ohi dute Testu-gramatika) dimentsio pragmatikoaz dihardu, bestalde, Sáiz Noedak (1996-1997). Autore honen ustez, testu-hizkuntzalaritzaren sendotzea testua komunikazio-unitate oso eta betetzat jotzean gertatu zen. Eta testuaren ikuspegi hau Testu-hizkuntzalaritza eta Pragmatika uztartzetik dator:

[...] la consolidación de la lingüística textual corrió pareja a la del texto como unidad comunicativa plena. Precisamente esta consideración plena del texto es fruto del encuentro entre lingüística del texto y pragmática, lejos de los inicios de la lingüística textual, todavía anclados en la oración, en los cuales el texto no era más que la sucesión o concatenación de oraciones. (Sáiz Noeda 1996-1997: 304).

Testua modu egoki batean aztertuko bada, hizkuntzaz kanpoko faktoreak kontuan izatea behar-beharrezkoa izango da; hots, hizkuntza testuinguruan azertu beharko da.



[...] el proceso dell'espansione teórica testuale che procede [...] da una fase sintattica, e attraverso una espansione semantica, giunge all'ambito pragmatico. (Tonfoni 1983: 25).

Beraz, testu-gramatikan aurrera egiteko ere ikuspegi pragmatikoak berebiziko garrantzia du. Hondarrean, horrela jokatzuz, Hizkuntza-pragmatika, pragmatika linguistiko testual bilakatzen da:

La Pragmática lingüística se convierte en Pragmática lingüístico-textual, al llevarse a cabo la comunicación lingüística por medio de textos. (Sáiz Noeda 1996-1997: 310).

Eta honi hertsiki uztartuta legoke T.A. Van Dijk-ek (1983) agertzen duen Pragmatikaren definizioarekin:

La pragmática se ocupa, pues, de la relación entre la estructura texto y los elementos de la situación comunicativa sistemáticamente ligados a ella: todos estos elementos juntos forman el contexto. (T.A. Van Dijk 1983: 81).

Garbi dagoena da bai Hizkuntza-pragmatikak, bai Enuntziazioaren Hizkuntzalaritzak (diskurtsoaren analisia) eta baita Testu-gramatikak ere, hizkuntza-objektuaren mugak zabaltzea dakartela: perpausetik testu edo diskurtsora egiten dute jauzia eta ez dira barreneko ikuspegi batera lerratzen; kanpoko faktoreak aintzat hartzen dituzte. Gu geu ere, aztergaiaren izaeraz jabeturik eta ikusmolde teoriko horien ekarria geure eginez, ez gara perpausera mugatuko. Diskurtso<sup>13</sup>-mailan kokatzen dugu gure aztergaia eta maila horretan aztergai dugun unitatea testua izango da, hauxe baita esatariaren intentzio-asmoen emaitza osoa eta, beraz, ez da harritzekoa testu-gramatikak jorratutako adigai eta ikusmoldeak geureganatzea.

Bestetik, *testua* bezalako objektu konplexu bat bere osotasunean aztertzeko,

---

<sup>13</sup>“Testua” eta “diskurtsoa” adigaien arteko muga (§ 3.2.1) zehatzago ikusiko dugunez, ikusmolde teorikoen arabera alda liteke. Are gehiago, “testua” adigaiaren ulermodua bera ere ikusmolde teoriko beraren arabera aldatu egiten da. Testu-hizkuntzalaritzan, esate baterako, “testua” hizkuntza osagai duen komunikazio-egitura konplexua da (Schmit 1978: 22). Baina Testu-hizkuntzalaritzaren barranean, Lundquisten arabera (1980), bi ikusmolde nagusitzen dira: kanpoko eta barnekoa, eta, ikusmolde hauen arabera ere, “testua”ren ulermodua aldatu egiten da. Kanpokoak, osotasun gisa hartzen du, hots, enuntziazio-ekintza oso gisa, eta barnekoak, berriz, egitura sintaktiko andana gisa (Fuentes 1996: 14).

Nolanahi ere, testuaren eta diskurtsoaren arteko bereizketa hagitz funtsezkoa da hauekin harreman estuan dauden beste adigai batzuk, *koherentzia* eta *kohesioa* esate baterako, ongi bereizteko. Lan honetan, ordea, “testuaren” eta “diskurtsoaren” definizio teknikoak aintzat hartzen baditugu ere, oro har, biak sinonimotzat joko ditugu (bata bestearen tokian jar liteke). Gehienez ere, oraingo honetan bezala, ñabardura txiki batekin: testua, diskurtsoa aztertzeko abiapuntuan dagoen unitate bezala hartuaz.

komunikazio-ekintza horretan parte hartzen duten osagai edo faktoreak oso kontuan hartu beharra ikusten dugu; testuan bertan zuzenean eragiten duen kanpoko eragileak, alegia. Beraz, diskurtsoaren edo testuaren analisi hori egiteko, Hizkuntza-pragmatikaren ikuspegia hautatu dugu. Alde honetatik bat gatoz Salvio Martín Menéndez-ek (1995) dioenarekin:

El análisis pragmático del discurso se propone superar —aunque sea parcialmente— estos problemas. Supone no sólo una perspectiva definida, la pragmática, sino también la definición de una unidad de análisis en términos operativos que permita abordarla de manera más efectiva para poder analizarla. (Martín Menéndez 1995: 241).

Orain arteko hizkuntzalaritzak, hots, perpausa mugatzat hartzen duenak, hainbat alderdi aztertzeke utzi ditu. Eta gure aztergaiari begira, nahitaezko gertatzen zaigu orain artean jorratu gabeko alderdi horiek (esate baterako, esatari-norentzakoek enuntziatuan bertan uzten dituzten lorratzak: enuntziazio-mailari nahiz modalizazioari dagokion alderdia...) aztertzea, gure aztergaiaren funtzionamendua bete-betean maila horietan gauzatzen baita. Aztergaiaren esparrua zabaltzeak, gainera, ez du saihesten, inolaz ere, orain arte egindako guztia; gainditzen saiatzen da.

### **2.1.2. Perpausaren marko teoriko-metodologikoa gainditu beharra**

Badirudi —edo hau da behintzat egun aho batez onartzen dena (Fuentes 2000)— perpausera mugatzen ziren bi korronte edo eskola nagusiek, Estrukturalismoak eta Gramatika Sortzaile Bihurtzaileak, bazituztela, bere ikuspegira soilik lerratuz gero behintzat, gainditu beharreko bi hutsune, eragozpen edo ezintasun. Bi “ezintasun” hauek, Fuentesi (1997) jarraituz honela laburbil ditzakegu:

Estas dos insuficiencias son: el quedarse en la oración, en una parte de las unidades lingüísticas y no ir hasta el texto, unidad máxima y techo del análisis. Y por otra, explicar el código, pero no el uso de la lengua. Hacer una lingüística de la lengua y no del habla. (Fuentes 1997: 9).

Bi ezintasun horiek, bada, perpausaren muga horretan eta abstrakzio<sup>14</sup> hutsean geratzeak eragiten zituzten. Ez baitzuten hizkuntza-analisia erabilera errealetan, edo

<sup>14</sup> *Abstrakzioa* hitza zentzu honetan darabilgu: gramatika-egitura abstraktua zutela xede edo jomuga adierazteko, eta ez enuntziatua, edo komunikazio-baldintza jakinetan esatari jakin batek norentzako jakin bati aditzera ematen diona.

hizkuntzaren benetako erabileretan aztertzen; hau da, ez zuten hizkuntza-gertakari hori komunikazio-ekintza baldintzatzen zuten osagai guztiak kontuan hartuz aztertzen<sup>15</sup>.

Bi hutsune horiek, bai Testu-gramatikak<sup>16</sup> eta bai Hizkuntza-pragmatikak ere (Enuntziatioaren Hizkuntzalaritza barne) agerian utzi dituzte. Hauek guztiak, izan ere, perpausaren muga metodologikoa gainditu eta testura edo diskurtsora hurbiltzen diren ikuspegiak dira. Eta guk, Fuentesi jarraituz (2000), hizkuntzalaritzaren ikuspegizat jotzen ditugu, zientzia edo jakintza berrizat baino areago.

Pragmatika, bada, ez da egitura-maila, ikusmoldea baizik, aztertzeko ikuspegia, edozein hizkuntza-gertakaritara hurbiltzeko modua. Gramatikak bakar-bakarrik forma alderdiak eta hizkuntza-sistemaren osagaiak aztertzen ditu; Pragmatikak, berriz, gramatikazko kateak interpretatzen eta erabiltzen gradualki laguntzen duten hizkuntzaz kanpoko elementuak.

Egitura edo enuntziatu parentetikoak aztertzeko noraezekoa da, gure ustez, perpausaren egitura gainditzen duen ikuspegira lerratzea.

#### 2.1.2.1. PERPAUS BARNEKO AHALEGINEN EZINA

Perpaus barneko ahalegin batetik gerturatuz gero, oso ohikoak dira intzisoen edo parentetikoaren ezaugarri nagusi gisa “ken daitezke”, edo “kendu arren, tartekatu den enuntziatuak, E1<sup>17</sup>-ek, ez luke ezer galduko” bezalako esapideak:

---

<sup>15</sup>Gauzak horrela aurkeztuta, dirudiena da ikuspegi pragmatikoari bakar-bakarrik bat-batekoa, aldiari aldikoa, errepikaezina dihoakiola, baina hau onartuta, ez ote dizkiogu jakintza egiteko bideak hersten? Nekez egin baitaiteke jakintzarik bakararen eta aldiari aldikoaren gainean. Irtenbide bila, abstrakzio-maila batera jo behar dugu. Jakina da jakintza guztiek errealitatearen eta eskarmentuaren *continuum* delakotik abstrakzioan igoz egiten dutela aurrera. Abstrakzioa, izan ere, hizkuntzalaritzan ardurakoa eta baliagarria da, baldin eta benetako hiztunen jokamoldea eta ariketa-teoriak alde aurretik dioenarekin bat datorrela ikustarazten badigu.

“La pragmática es una disciplina lingüística que trata de los acontecimientos físicos que son las preferencias y es, por ello, menos abstracta que la semántica o la sintaxis, pero en cuanto disciplina que aspira a convertirse en científica realiza sus abstracciones sobre tales acontecimientos físicos”. (Bustos, E. 1986: 22).

<sup>16</sup>Manuel Casado Velardek (1993: 13) testu-gramatika perpaus-gramatikaren mugak zabaltzen dituen ikuspegizat jo zuen: “Según lo expuesto anteriormente, la gramática del texto no representa otra cosa que la ampliación de la tradicional gramática idiomática más allá de la sintaxis oracional. Su objeto, vale la pena insistir, está constituido por los procedimientos idiomáticos orientados hacia la construcción de textos”.

<sup>17</sup>Azalpena errazteko asmoz, “E1” laburdura, frantsesez “Phrase insèrante” edo enuntziatu parentetikoaren tartekatua izan den enuntziatua aditzera emateko erabiliko dugu guk ere. Frantsesez, Baqué Millet-ek PI siglez laburtzen du (Baqué Millet 1997). Beraz, E2-k enuntziatu parentetikoaren ordezkaturiko du eta E1-ek tartekatua izan den enuntziatua.

Mario Linares-ek *La puntuación correcta* liburuan (1974) honela ezaugarritzen ditu intzisoak:

A los efectos del presente estudio, inciso es todo elemento (palabra, frase, oración y más generalmente trozo de escrito) del *ámbito* que puede ser suprimido, junto con las comas, rayas o paréntesis que eventualmente pueden acotarle, sin que varíe el sentido del ámbito y sin que sea preciso retocar la redacción. (Linares 1974: 45-46). (Etzana autorearena da).

Grevisse-k ere era honetako egiturak ez ditu beharrezkotzat jotzen, eta, beraz, hortik ondoriozta dezakegu kenduta ere berdina dela:

Les parenthèses s'emploient pour intercaler dans la phrase quelque indication, quelque réflexion non indispensable au sens, et dont on ne juge pas opportun de faire une phrase distincte. (Grevisse 1975: 371).<sup>18</sup>

Mounin-ek (1974: 171) ere beste horrenbeste adierazten du:

[le fait qu'il s'agit de segments ou de phrases pouvant] disparaître sans affecter ni mutiler les rapports syntaxiques entre les autres éléments de la phrase [...] ce ne sont pas des segments coordonnés /puisque/ ils n'ont aucune fonction commune avec aucun autre segment de la phrase [...] des phrases (et non des propositions) enchâssées dans d'autres phrases avec lesquelles elles n'ont pas de lien formellement marqué. (Mounin 1974: 171).

Baieztapen hauek geure egin aurretik, gure corpusean egiaztatu<sup>19</sup> behar ditugu eta ikusi ea enuntziatu parentetikoa kenduz gero, E1 edo tartekatua izan den enuntziatua, sintaktikoki ongi osatuta gelditzen den; hau da, E2ren alderik alde dauden E1-en zatiak ongi josten ote diren eta ongi josteko zein baliabide erabiltzen dituen Koldo Mitxelenak. Bien arteko harreman sintaktikoaren berri emateko ez da aski, ordea, E1-en bi alderdiak ongi josita dauden ikustea, E1 eta E2ren artean nolabaiteko harremanik ote dagoen ere aztertu beharrean gaude. Eta hau egiteak berarekin dakar bien arteko harreman kataforiko / anaforikoa, lexiko mailan gauzatzen den harremana, elipsia... bezalako aldagaiak kontuan izatea; ez baikara

<sup>18</sup> Guk geuk aipamena Baque Millet-en (1997: 55) artikulutik jaso dugu.

<sup>19</sup> Azpiatal oso bat eskainiko diogu egiteko horri. Ikus enuntziatu parentetikoaren analisi sintaktikoa.

perpaus beraren barneko harreman sintaktiko-semanticoko hutsaz ari, bi enuntziatu desberdinen (E1 eta E2) arteko kohesio nahiz koherentzia-harremanez baizik.

Baina zilegi ote da, hainbat autorek aitortu duen legez, egitura mota hau besterik gabe kentzea? Ez ote du testuan edo berbaldian inolako egitekorik? Zergatik autore gehienek “ken daiteke” bezalako ezaugarria txertatzen diote enuntziatu parentetikoak ezaugarritu eta definitzean?

Galdera horiei erantzunen bat ematen saiatuko gara tesi honetan, corpusean bertan egiaztatutako datuez baliatuz. Baina une honetan gure hipotesia aurreratuko dugu. Horretarako, Kovacciren baieztapen bat (aurreko autoreen ildotik datorrena) eta corpuseko adibide batzuk erabiliko ditugu.

Kovacci-k (1999), posizio parentetikoan agertzen diren aditzondo modalizatzailuez ari delarik, honako hau dio:

Un grupo de adverbios *omisibles* es el de los valorativos emotivos, con los que el emisor evalúa subjetivamente el dictum como un hecho. (Kovacci 1999: 744). (Etzana gurea da).

Aipu hori ulertzeko eta gure aztergaiarentzat baliagarri gerta dadin, guk geuk ere modalizatzaille funtzioa duen enuntziatu parentetiko bat aldatuko dugu; izan ere, ustez —eta corpua da horren lekuko—, modalizatzailiek duten eginkizuna hainbat parentetikorenarekin berdindu daiteke. Alde bakarra da, eginkizun horretarako berezi den aditzondo edo aditz esapidea izan ordez, bestelako sintaxi aukera bat izatea: enuntziatu aske bat, funtzio hori betetzeko perpausaren egituratik aldentzen duten puntuazio-demarkazioen artean kokatua:

- Badirudi baietz, badirudi ezetz. Elbarrituak eta guk, **jakina**<sup>20</sup>, baietz izatea nahi genuke (ZIN<sup>21</sup>: 144). Modalizatzaillea.

- Hitzek, **jakina da**, badute beste zerbait, adimenak ikusten ez badu ere bihotzak uki dezakeena. (LIB I: 117). Enuntziatu parentetiko modalizatzaillea

---

<sup>20</sup>Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia* “jakina” adizlaguntzat jotzen da. Esaten dena ezaguna edo begien bistakotzat hartzen dela adierazten du.

<sup>21</sup>Corpuseko adibideak multzokatzeko erabilitako erreferentziak honako hauek dira: “ZIN” zinema-kritikak direla aditzera emateko, eta LIB I edo LIB II liburu-kritikei dagozkie. Corpusetik ateratako enuntziatu parentetiko guztiak bildu egingo ditugu, nahi duenak beha ditzan.

- Egilea, **jakin behar da**, Esquilacheren alde dago: hobeto esan, Esquilache hartu du aitzakia maiteen dituen gauzak frogatzeko. (ZIN: 192). Enuntziatu parentetiko modalizatzailea.
- Espainiako zineman, **gauza jakina da**, badira bi gazte zerbait egin nahi luketenak, dirua irabazteaz gainera. (ZIN: 191). Enuntziatu parentetiko modalizatzailea.

Askotan ez da batere erraza aditzondo modalizatzaile eta modalizatzaile funtzioa duen enuntziatu parentetikoaren artean bereizketa egiten; are zailago, enuntziatu parentetikoak, kasu honetan bezala, jatorri bereko *jakin* aditzetik osatuta daudenean. Norbaitek pentsa dezake bereizketa bakarra aditzondotik aditza daraman perpaus batera pasatzean dagoela. Adibideek horretara eramán bagaitzakete ere, gure ustez garrantzitsuena ez da aditza izan edo ez izatea<sup>22</sup>, enuntziatu parentetikoen sailean, hamaika adibide aurkituko dugu aditzik gabe eta. Gure ustez, gainera, modalizatzaileen eta enuntziatu parentetikoen arteko harremana ez da biunibokoa; hau da, modalizatzaile oro ez da enuntziatu parentetiko (modalizatzailea ager daiteke edo ez enuntziatu parentetiko gisa) eta, halaber, enuntziatu parentetiko guztien funtzioa ez da modalizaziora mugatzen. Bien arteko aldea da, gure ustez, enuntziatu parentetikoak enuntziatu berri bat dakarrela berarekin, komunikazio-intentzio berri bat; eta modalizatzaileak, berriz, modalizazio maila hori enuntziatu beraren barnean ezartzen du. Esate baterako:

*Jakina*-ren adibidean, badirudi esatariak gertakizuna jakintzat ematen duela; enuntziatu parentetikoekin, berriz, gertakizuna aditzera eman ondoren, bigarren momentu batean, informazio hutsa zena iruzkinduz, esaten digu “jakin behar dela” edo “gauza jakina dela”.

Esan berri duguna frogatzeko adibide gardenago bat erabiliko dugu:

- (a) Zorionez, garaiz iritsi da.
- (b) Garaiz iritsi da (zorionez).

Dirudienez, esatariaren intentzioa lehendabiziko perpausean (a) gertakizun horrezaz poztu egiten dela adieraztea da. Bigarrenean, ordea, poztasun hori gero, bigarren momentu batean bezala sortu da, informazio soila izan zitekeenaren iruzkin gisa.

---

<sup>22</sup>Beharrezkoa da enuntziatua zer den zehazteko berbaldi-irizpideetara makurtzea. Alderdi honetatik enuntziatua = perpausa berdintza ez da beti betetzen.

Hel diezaiozun, ordea, hausnarketa-hariari, alegia, Kovaccik (1999) dioenari: modalizatzaile mota horiek ken daitezkeela dioenari. Modalizatzaile eginkizunera bideratutako aditzondo horien ordean, modalizatzaile funtzioa duen enuntziatu parentetikoak para dezakegu, goiko adibideak erakusten digunez.

Baina ken baldin badaitezke eta perpausari ezer eransten ez badiote, nola uler dezakegu Koldo Mitxelena bezalako euskal idazle ospetsu batek bere testuetan —kritiketan esate baterako, horiek baititugu azterkizun— hainbat eta hainbat aldiz, batere behartu gabe, bere diskurtsoan aurrera egiteko, baliabide honetara jotzea? Nola ulertu, halaber, iritzi-artikuluetan behin eta berriz agertzea?

Gisa honetako baieztapenak, gure ustez, perpausaren barne-ikuspegitik eginik bakarrik uler daitezke. Kovaccik berak “kendu ahal” izatearen arrazoitzat honako hau jotzen du: enuntziatu parentetikoak kendu arren (berak *aditzondo* hitza darabil), *dictumak*, hau da, perpausaren proposiziozko edukiak (Fuentes 1987, 1996, 1997, 1998, 1999, 2000) edo “contenido representativo de la oración” horrek (Kovacci 1999: 740), sintaktikoki eta semantikoki ongi eratuta egoten jarraitzen du (ez dugu inolako aldaketarik egin behar perpaus hori berregiteko) eta, gainera, *dictum* horren egiazko balioa ez da batere aldatzen:

Este carácter significa que al omitir el dictum permanece bien formado, sin que se modifique su valor de verdad. (Kovacci 1999: 740 oin oharrean).

*Dictuma*, edo proposiziozko edukia soil-soilik kontuan hartzeak, ordea, esan nahi du perpausaren barne-mugetatik ez garela ateratzen; izan ere, enuntziatuak *dictumaz* gain “modus”-a ere berarekin darama, hau da, *dictum* horri buruz esatariak duen jarrera. Eta alderdi hori aintzat hartzen badugu, “gauza jakina da” bezalako enuntziatuak *dictumari* ez dio eragingo, baina bai *dictum* horri buruz esatariak duen iritzia esplizitu egingo.

Beraz, “ken daitezke” perpausaren barne-mugak gainditzen ez baditugu; kendu arren, corpusean ere egiaztatuko dugunez, gehienetan tartekatua izan den enuntziatuak bai sintaktikoki eta bai semantikoki funtzionatzen duelako. Baina esatariak garatzen duen argumentazioari edo argudio-hariari nahiz diskurtso-garapenari oro har erreparatuz, ohartuko gara (hori azaleratzen saiatuko gara, behinik behin) badutela diskurtso mailako (komunikazio-) eginkizunik, eta Koldo Mitxelena bezalako idazle batek zerbaitegatik txertatzen dituela bere testuetan.

(...) en efecto, podrían omitirse y el enunciado en el que se insertan no variaría su contenido proposicional, de lo que puede concluirse que su presencia obedece a motivos estrictamente pragmáticos, y no gramaticales. Así pues, estamos ante secuencias en las que lo importante para el hablante no es su contenido proposicional, sino el modo como éste puede ser entendido por el interlocutor. (Montolío 1993: 123-124).

Iritzi honek bat egiten du Delomier & Morel (1986) eta Baqué Millet (1997) autoreekin:

Ceci, et le fait que les parenthétiques aient un rôle indiscutable dans la progression argumentative, incite à penser que les résultats concernant la cohésion de l'énoncé total comportant une ou plusieurs PARs<sup>23</sup> pourraient différer quelque peu de ceux que nous venons de présenter si l'on se situait, non plus a un niveau syntaxique, mais à un niveau pragmatico-argumentatif, comme nous prévoyons de le faire dans une deuxième phase de notre recherche. (Baqué Millet 1997: 69-70).

Edota:

Ils [*et* eta *mais* lokailuak parentetikoek ondok datorrena berreskuratzeko egokiak omen direnak] ne s'expliquent que par la présence de E2 et peuvent être considérés comme des indices du fait que si E2 se situe à un autre niveau énonciatif, il n'en est pas moins nécessaire à la progression discursive et argumentative. (Delomier & Morel 1986: 153).

Eta argudioaren garapenean eragiten badute ken ezin daitezkeen seinale da:

Cuando se define en pragmática un constituyente director como un elemento no suprimible, se implica únicamente que la ausencia de ese constituyente cambiaría radicalmente la orientación argumentativa de la intervención o la volvería ininterpretable. (Fuentes 2000: 89).

Beraz, perpausaren ikuspegitik abiatuz zilegi izan daitezke “ken daitezke” bezalako esapideak, baina hori enuntziatu parentetikoek azterresparrua erabat murriztea litzateke.

Drillon-ek (1991: 257) honela erantzuten dio Grevissek egindako baieztapenari:

---

<sup>23</sup> “Parentetiko” hitzaren laburduratzat darabil.



Utilité de la parenthèse. La parenthèse est un message que l'auteur ajoute à son texte; dire qu'elle n'est pas indispensable au sens de la phrase restreint son champ d'emploi: il arrive au contraire qu'elle ne puisse en faire l'économie, comme un général de ses lieutenants. (Drillon 1991: 257).

Puntu honetan zehar, hainbat autorek egindako aipuetan oinarrituz, teorikoki aztergai ditugun enuntziatu hauen balioa eta egitekoa perpausaren egitura sintaktiko horretatik at kokatzen saiatu gara: enuntziatu parentetikoak “perpaus-bazter” posizioan, “dictum”-etik at, kokatzen dira, gaztelaniazko lanetan “margen oracional” edo ingelesez “periferical”<sup>24</sup> deitzen duten esparru horretan. Hau guztia, ordea, tesian zehar corpuseko datuez egiaztatzen saiatuko gara. Horrez gain, E1 eta E2 enuntziatuen artean gertatzen diren kohesio edo/eta koherentzia-harremanak begitatzeari bada, uste dugunez, ikerketaren interes biziko esparrua.

Gatozen bada, jarraian, ikuspegi teoriko hauen ildo nagusiak ekartzera, baina beti ere jomuga eta iparrorratza aurrean ditugula: enuntziatu parentetikoak aztertzeko zergatik jo behar dugu Hizkuntza-pragmatikara (eta, beraz, Hizkuntzalaritza Enuntziatibora) nahiz Testu-gramatikara edo “metadiskurtsoaren” azerketara? Ba al dakarte argi berririk hizkuntza-gertakari horien ezaupidera?

## 2.2. HIZKUNTZA-PRAGMATIKA

Esana dugu enuntziatu parentetikoak aztertzeko egokia izan daitekeen marko teoriko-metodologikoaren hezurduraren euskarri gisa Hizkuntza-pragmatika zedarritu dugula. Baina lan honetan zer ulertzen dugu Hizkuntza-pragmatika izendapenarekin? Zergatik bilakatu da gure azterbidearen bizkarrezur?

Galdera horiei erantzutea ez da uste bezain erraza. Badirudi, izan ere, oraindik ez dagoela Pragmatikaren izaera erabat zehaztua. Bestela esan, Pragmatikaren mugak, egun oraindik ere aski lausoak dira: batetik, *Pragmatika* izena bera darabilte izaera ñabarreko jakinbideek eta, bestetik, bere barrutia, aztergaia, azterbidea... definitu behar ditu.

<sup>24</sup> Guk geuk proposiziozko edukiari *dictum* deituko diogu eta badirudi aztergai ditugun enuntziatuak *dictum* horretatik at kokatzen direla, enuntziatio- eta modalizazio-mailan, hots, Van Dijk-en (1980, 1989) “makroegituran”.

### 2.2.1. *Pragmatika* hesitu<sup>25</sup> beharra: lan honetan darabilgun `pragmatika' adigaia mugatuz

Pero el problema no reside en la definición misma, sino en la necesidad de la definición. Esta necesidad se debe a varias razones. Una de ellas es que la pragmática todavía está en busca de legitimidad dentro de la lingüística. Otra razón es que su objeto de estudio —el uso de lenguaje o, como propuso Charles Morris en 1938, la relación entre los signos y sus intérpretes— es compartido por otras disciplinas<sup>26</sup>, especialmente la sociolingüística. De modo que la pragmática tiene que hacerse un lugar dentro de la lingüística y también dentro del grupo de disciplinas que estudian la comunicación humana. (Reyes 1990: 22-23).

Badirudi, bada, pragmatikak bere izaera, barrutia, azterbidea, aztergaia... mugatu eta definitu behar zehatz horretaz gain, azterresparruaren izaera bera oinarritu eta justifikatu behar duela.

Garrantzizkoa da, ezer baino lehen, tesi honetan zehar *Pragmatika* hitzaren atzean dagoena azalera, hots, guk Pragmatikaz ulertzen duguna zehaztea. Baina horren aurretik, apika, bidezkoena atzera begiratzea den arren, guk geuk ez dugu behar-beharrezkoa jotzen dugunean baizik atzera jauzirik egingo; tesi-lan honen helburua ez baita *Pragmatika* hitzaren definizioak bildu, aztertu eta sistematikoki, kronologia errespetatuz, aditzera ematea. Gainera, horren berri zehatza nahi duenak jo dezake, besteak beste, Leech (1983), Levinson (1983)<sup>27</sup>, Schlieben-Lange (1986), Reyes (1990), Bertuceli (1993), Escandell (1993, 2005)... lanetara.

Aipa dezagun, halere, Pragmatikak, hizkuntzalaritzaren esparruan, Morris-ekin zorrotz zuela ikuspegia. Honek zeinuaren hiru erlazio-mota bereizi zituen eta prozesu semiotikoa honela banatu:

- sintaktikoa, hau da, zeinuen artekoa;
- semantikoa, hots, zeinuaren eta gauzen artekoa (hizkuntzaz kanpokoa);

<sup>25</sup>Iritziak bereiz dabilta pragmatikaren kokalekua hizkuntza-teoriaren barrenean zehazterakoan: batzuentzat jakintza berria da, besteentzat hizkuntza-gertakarietara hurbiltzeko ikusmoldea. Guk geuk, lan honetan, enuntziatu parentetikoak aztertzeko hizkuntza-ikuspegizat joko dugu.

<sup>26</sup>Pragmatika inguruko jakintzekin harreman estuan dago. Pragmatika eta beste zenbait jakintzaren arteko loturaz (testu-hizkuntzalaritza, soziolinguistika, psikolinguistika...) hainbat lan daude: Schlieben-Lange (1986), Levinson (1989), Fuentes (1996; 1997), Educ.ar (2006), etab.

<sup>27</sup>Irakurleak liburu honetan definizioen bilduma zabala aurkituko du, lehen kapituluaren. Bertan, berriaz Pragmatikaren balizko definizioak aztertu, epaitu eta kritikatzeari ekiten baitio, ondorio gisa definizio onik ez dagoela ateratzeko.

- pragmatikoa: azken hau ere “the science of the relation of signs to their interpreters” (Morris 1985), alegia, zeinuak eta erabiltzaileak uztartzen dituen.

Historiaren bilakabidean hartu izan dituen ñabardurak ñabardura, badirudi, egun, teoriaren helburu funtsezkoenari dagokionez behintzat, nolabaiteko bat etortzea dagoela: *pragmatika* esaten dugunean, komunikazioan darabilgun hizkuntzaren erabilera arautzen duten alderdiak ikertzea diogu; hau da, komunikazio-egoera jakinetan, esatari (enuntziatzaile) jakinek kanporatzen dituzten enuntziatu jakinen erabilera arautzen duten baldintzen eta norentzakoek ikerketa.

Sea cual fuere la perspectiva adoptada por cada una de las orientaciones que la Pragmática engloba, el denominador común a todas ellas es su preocupación por las relaciones entre las expresiones lingüísticas, los participantes comunicativos y el contexto en el que aparecen, o, lo que es lo mismo, la consideración de “el lenguaje en uso”. (Sáiz Noeda 1996-1997: 307).

Hortaz, hizkuntza-erabilera baldintzatzen duten hizkuntzaz kanpoko alderdiak gogoan hartzen ditu pragmatikak, gramatika azterketa huts batek aintzakotzat har ez ditzakeenak, hain zuzen ere. Hau dela eta, esataria, norentzakoa, komunikatzeko asmoa, testuingurua, munduaren ezaupidea, inferentziak, auresuposizioak... eta antzeko adigaiak arrunt funtsezkoak dira. Eta adigai hauek gure lanean ere ongi islatu behar ditugu, enuntziatu parentetikoak bete-betean esatari-enuntziatzaile eta norentzakoek arteko harremana azaleratzeaz gain, testuinguratzeko baliabide gisa ere ikusten ditugulako.

### 2.2.2. Hizkuntza-pragmatika: osagaiak eta funtsezko terminoak

Alderdi hau jorrazteko, han eta hemen berariaz Hizkuntza-pragmatikaz esan eta idatzi direnak biltzeaz gain, Frantziar hizkuntzalaritzaren barrenean jorrazten den ikuspegi enuntziatibo-testualaren ekarria ere gogoan izango dugu, enuntziatu parentetikoak aztertzeke behin eta berriz joko baitugu termino eta osagai hauen erabilerara.

Escandell-ek *Introducción a la pragmática* (1993) liburuan nahiz “Aportación de la Pragmática” artikuluan<sup>28</sup>, Hizkuntza-pragmatikan bi osagai-mota bereizten ditu:

---

<sup>28</sup>Http: / www.uned.es.

1- Materiazkoak, izate fisikoa dutenak; hau da, kanpotik deskriba daitezkeenak: esataria, norentzakoa, enuntziatua eta ingurumaria (leku-denborazko egoera); eta

2- Harremanezkoak; materiazkoak ez direnak, aurrekoen artean sortzen diren harreman-moten araberakoak direnak: informazio pragmatikoa, asmoa, eta gizarte mailako aldea.

Guk geuk, berriz, ez dugu hain garbi ikusten bataren eta bestearen arteko muga. Esate baterako, hark informazio pragmatikotzat eta gizarte mailako tartetzat jo dituenak, guk 'testuinguru' adigaiaren barnean kokatzen ditugu, eta, enuntziatu parentetikoak testuinguruan kokatzeko baliabideak direla baieztatzean osagai horiei egiten diegu erreferentzia; hau da, Bustos-i jarraituz (1986) esatariak eta norentzakoak batean duten informazio pragmatikoaren esparrua aktibatzeke balio dutela esan nahi dugu. Gainera, hainbat autorek testuingurua ekoizpen-baldintzekin parekatzen dute eta horien artean esatari-norentzakoek egiteko funtsezkoa izango dute.

Geroago Escandell-ek (2005) materiazkoak edo kanpokoagoak diren alderdi horiek barne egoeraren adierazgarri direnekin (iritzi, desio, usteak...) uztartuko dituen 'barne irudikapen' adigaia garatu du:

La noción de 'representación interna' es un concepto que evita las inadecuaciones que derivan del uso de la noción de 'referente', y nos permite abarcar tanto los contenidos comunicados que se refieren a aspectos exteriores (objetos, situaciones, etc.), como los que tienen por objeto estados mentales (opiniones, deseos, creencias). (Escandell 2005: 22).

Beraz, Hizkuntza-pragmatikako osagaiak oro 'barne-irudikapena' adigaian bertan ikusten ditu.

Ninguna realidad tiene existencia para nosotros si no la hemos percibido y no la hemos interiorizado: hablamos de las cosas tal y como nos las representamos, y no necesariamente tal y como son en realidad; a efectos cognitivos lo que cuenta no son las personas, las situaciones o las relaciones, sino las representaciones mentales que nos hemos formado. (Escandell 2005: 21).

Guk geuk ere, Hizkuntza-pragmatikaren osagai guztiak ezaugarritu ordez, lan honetan darabilgun *enuntziatu parentetiko* terminoaren definizioan parte hartzen duten bezainbatean

aztertuko ditugu, eta Hizkuntza-pragmatikaren eta bereziki Enuntziatioaren Hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik deskribatuko.

Arestian aipatu dugunez, guretzat enuntziatu parentetikoak diskurtso-estrategiak edo diskurtso-baliabideak dira: esatari-enuntziatzaileek bere intentzio-asmoak erdiesteko eta, beraz, esan duenaren eta esan nahiko zukeenaren artean ahalik eta tarterik txikiena egon dadin, norentzakoari egiten dizkion keinuak edo seinaleak. Hondarrik hondarrean, enuntziatua esatariak nahi bezala interpretatua izan dadin eta norentzako bere tesietara erakar dezan, esatariak berak testuan bertan martxan jartzen dituen komunikazio-estrategiak dira. Ondorioz, esatariaren argudio-haria albaintzeko ez ezik, estrategia horrek eragin zuzena du esatari-norentzakoaren arteko interakziozko harremanean, nahiz komunikazio jakin horretako informazioa testuinguru jakin batean kokatzeko eginkizunean; izan ere, norentzako esatariaren asmoaz jabetzeko enuntziatua testuinguratu beharrean aurkituko da; hots, biek batean duten informazio pragmatikoaren errota martxan jarri beharrean.

#### 2.2.2.1. ESATARIA / ENUNTZIATZAILEA

*Esatari* deituko diogu une jakin batean hizkuntza-adierazpena, ahoz nahiz idatziz, jakinaren gainean gauzatzen duen lagunari. Ez da kodetzaile edo informazio-barreatzaile hutsa, bere ezaupide, sinesmen, jarrera dituen eta bere inguruarekin harreman-sarea sor dezakeen benetako gizabanakoa baizik.

Esataria ez da justu hiztuna. Hitztuna hizkuntza baten ezaupidea duen norbait da, hizkuntza hori erabili nahiz ez. Esataria, berriz, hizkuntza darabilen hiztuna da, eta esatari izaera orduantxe hartzen du, bere ezaupidea gauzatzen duenean, alegia. Hortaz, hiztun izaera abstraktua da, ez da galtzen; esatariarena, berriz, konkretuagoa da eta egoera eta denbora jakin batzuen baitakoa da; ez da kategoria absolutua, zirkunstantziek baldintzaturiko kokalekua baizik.

*Esatari* deizioa Enuntziatioaren Hizkuntzalaritzan *locutor* edo *locuteur* aditzera emateko erabiltzen dena itzultzeko darabilgu. Baina esatari honek hainbat mozorro har ditzake, eta informazioa bere ikuspegi soiletik eman ordez, besteren ikuspegia beregana dezake, beste norbaiten enuntziatzaile bilakatuz. Besteren ahotsak ere izan dezake oihartzunik esatari baten berbaldian. Beraz, oso garrantzizkoa gertatzen zaigu “polifonia” edo ahots ugariaren teoria azaltzea, esatariaren eta enuntziatzaileen arteko bereizketa gauzatzeko. Horretarako (§ 2.2.3.) erabiliko dugu.

## 2.2.2.2. NORENTZAKOA

Kerbrat-Orecchioni (1986, 1998), Enuntziazioaren Hizkuntzalaritzaren barnean kokatu ohi den autoreak, hartzaile-norentzakoaren konplexutasunaz jabetzen da. Honen arabera, mezua jasotzen edo aditzen duena bi motatakoa izan daiteke: norentzakoak (*alokutorio*) edo hartzailea (*ez alokutorioa*), eta azken honetan, berriz, esatariak aurretik ikus ditzakeenak eta aurreikusi ez ditzakeenak bereizten ditu:

a) Alokutorioa edo norentzakoak<sup>29</sup>

Izen honetaz adierazi nahi duguna da esatariak mezua igortzean gogoan duen gizabanakoa; norentzat egiten duen bere mezua, alegia. Honekin txandakatzen ditu esatariak bere zereginak. Esatariak berariaz hautatzen du, buruan duen norentzako hipotetikoak da, izan ere. Gure “kritiken” kasuan izan daitezke Koldo Mitxelenak liburu edo filmen iruzkin-epaiak egitean zuzen-zuzenean gogoan duen *Egan* aldizkariko ohiko irakurlea. Eta honenbestez, parentesien edo marren artean tartekatzen dituen oharak ere norentzako honi zuzentzen dizkio; norentzako honi, hain zuzen ere, egiten dizkio ohar-keinuak, igorri duen informazioa nola ulertu edo interpretatu behar duen adierazteko.

*Norentzako* terminoa ez da erabat *hartzailearen* parekoa. Norentzakoak bakar-bakarrik gizabanakoak izendatzen ditu, ez deskodetze-mekanismoak, esate baterako. Norentzakoak ez da, bestalde, entzule soila, entzulea hizkuntza-kode jakin bat aditzeko gaitasuna duen edonor baita; norentzakoak, berriz, mezua igorri zaiona (esatariak gogoan duena) eta, beraz, komunikazioa (eta esatariaren diskurtsoa) baldintzatuko duena da. (Escandell 1993: 32).

## b) Zeharkako norentzakoak, edo aurretik ikus dezakeen hartzailea

Esatariak buruan duen (edo dituen) balizko norentzako horiez gain, egon daitezke esatariak aurretik ikus ditzakeen beste hartzaile batzuk ere, edo berariaz zuzentzen ez zaizkionak. Esatariak bere zereginak zuzenean hartzaile honekin txandakatzen ez baditu ere,

<sup>29</sup>*Norentzako* adigaiari, izen desberdinak eman izan zaizkio: Fillmore-n Deixis I-ean (1975) *addrese* bezala izendatzen da. Lyons-ek *Semántica*-n (1989: 35), *destinatario* eta *receptor* bereizi egiten ditu eta batzuetan norentzakoak *receptor apuntado* bezala itzultzen du: “receptor a quien está va destinada”.

esataria ardura daiteke komunikazio horretan egon daitezkeen zeharkako norentzakoez ere (*destinatarios indirectos*).

Sin estar integrados en la relación de alocución propiamente dicha, funcionan como “testigos” de intercambio verbal e influyen a veces en él de manera decisiva. (ejemplo de chistes, discursos polémicos, defensas de tesis...). (Kerbrat-Orecchioni 1986: 33).

Gure “kritiken” kasuan izan daiteke, ez *Egan* aldizkariko ohiko irakurlea, baina bai esataria bizi den testuinguru soziokultural horren partaide den edonor, esatari jakin horren testuak irakurtzera lerra daitekeena.

c) Ausazko norentzakoa edo esatariak aurretik ikus ez dezakeen hartzailea

Hartzaile hau ausazkoa, zorizkoa edo aleatorioa da, eta, ondorioz, esatariak ezingo du aurreikusi hartzaile mota honek mezuari emango dion interpretazioa. Hizkuntza-kode jakin hori aditzeko gaitasuna duen edonor izan daiteke eta, beraz, idatzi eta handik urteetara “kritikak” irakurtzera makurtzen den edonor.

Honenbestez, enuntziatu parentetikoak aztertzeke, bereziki, norentzakoari erreparatuko diogu, honekin txandakatzen dituelako esatariak bere zereginak.

### 2.2.2.3. INTENTZIO-ASMOA

Elementu erabakigarria da. Norentzakoak, arestian esan dugunez, ez da edozein hartzaile edo entzule, halabeharrez mezua harrapatzen duen edozein. Norentzakoak beti esatariak hautatua da. Baina, horrezaz gain, bestelakoan ere ondorioa du, izan ere, esatariak haren arabera antolatzen du mezua. Horregatik, esatariaren lanetako bat horixe izango da, solaslagunagan biltzen diren nolako guztiak behar bezala aztertu eta juzgatzea, bere jarduna arrakastatsua izan dadin.

Esatariak duen intentzio-asmoa, bada, norentzakoari eta testuinguruari egokitzen zaio; norentzakoaren neurrira moldatu behar du bere enuntziatua eta horrek berarekin dakar norentzakoaren sinesmen, uste, iritzi, munduaren ezaupidea... gogoan izatea. *Asmoa* terminoan, norabidea, joera, zerbait erdiesteko ahalegina dira azpimarratu beharreko ideiak.

Esandako guztia esatariaren ikuspegiari dagokio, baina norentzakoa ere oso da gogoan hartzekoa<sup>30</sup>. Norentzakoa esatariaren asmoaz jabetzea —pragmatika-teoria gehienek esan duten bezala— ezinbestekoa da enuntziatuak behar bezala aditu eta interpretatzeko. Hau da, ez da aski esanahiak ulertzea, horren ondoan ezinbestekoa da aukeratu zuenaren gogoan zer zerabilkion ere jakitea.

Horregatik guztiagatik, badirudi esan daitekeela gizabanakoak hizkuntza jakinaren gainean darabilenean —eta enuntziatu parentetikoak ere jakinaren gainean tartekatzen ditu bere diskurtsoan—, testuinguruaren aurrean duen jarreraren isla dela, eta asmo jakin baten erantzuntzat har daitekeela. Horregatik da zilegi ez ezik are ezinbestekoa ere, enuntziatuak ekoitzi zituen asmoa gogoan hartuta aztertzea.

#### 2.2.2.4. ENUNTZIATUA VS ENUNTZIAZIOA

Bereizketa hau Enuntziazioaren Hizkuntzalaritzak oso kontuan hartzen du.

##### a) Enuntziatua

Esatariak gauzatzen duen hizkuntza-adierazpena da. Enuntziatua ez da mezua. Azken hau orotarikoagoa da, zeinahi koderen bitartez kanpora baitaiteke; enuntziatua, berriz, hizkuntza-koderen baten arabera ekoitziari deritza. (Escandell 1993: 33).

Enuntziatuaren mugak berbaldiaren dinamikak besterik ez ditzake ezar: esatariaren esku-hartze bakoitza enuntziatu bat da; bestela esan, bere luzera esatariaren izaeraren pareparekoa da. Enuntziatua, hortaz, bi eten edo pausaldiren artekoa da eta balizko esatari-aldatzearen baitakoa da. Honen arabera, interjekzio bat, liburu bat, izen sintagma bat nahiz pasarte oso bat, guztia izan daiteke enuntziatua. Horrek esan nahi duena da ez dagoela gramatika-irizpideez edo gramatika-neurriz neurtzerik enuntziatua; balio duten irizpideak berbaldi-irizpideak dira, ez bestelakoak.

Ildo honetan, komeni da enuntziatua eta perpausa bereiztea, ez baitira gauza bera, eta, nolana dela ere, ez da ahantzi behar ez dela egoki enuntziatua perpausaren gauzatze soiltzat hartzea, enuntziatu guztiak ez baitira nahitaez perpausen isla zuzen. Beraz, berbaldi-unitateak berbaldi-irizpideen arabera definitu eta mugarritu behar dira, ez irizpide formal edo bestelakoen arabera.

---

<sup>30</sup>Gogora dezagun egun gero eta indar handiagoa duela “Harreraren Estetikak” (Olaziregi 1997, 2002).



Hona hemen Escandell-en lanetik (1993: 34) hartutako eskema, unitate bataren eta bestearen arteko aldea ikusteko:

ENUNTZIATUA	PERPAUSA
Hizkuntza-unitate konkretua, esatariak komunikazio-egoera batean gauzatua	Izate abstraktua, teorikoa, gauzatu gabea
Pragmatika-teoria baten barruan berbaldi-irizpideen arabera definitzen da	Gramatika-teoria baten barruan definitzen da, gramatika-irizpideen arabera
Berbaldi-unitatea da	Gramatikaren unitatea
Interpretazioaren, eduki semantikoaren eta igortze-baldintzen arabera da	Eduki semantikoa egituraren arabera da, ez bere balizko erabileren arabera
Irizpide pragmatikoen arabera epaitzen da: egokia / desegokia, eragingarria, hutsala...	Forma-irizpideen arabera epaitzen da: zuzena / okerra

#### b) Enuntziazioa

Enuntziazioaren helburua enuntziatuaren eta komunikazio edo enuntziatio-markoko osagaien artean sortzen diren harremanak deskribatzea da; hau da, enuntziatuaren eta esatari-norentzakoaren, leku-denborazko egoeraren, ekoizpen-interpretazio baldintza orokorren (testuinguru soziohistorikoa, diskurtso-unibertsoa...) artekoa.

Hari honi heldurik, Cervoni-ren arabera ere (1987), enuntziatio edo adierazpen ikuspegiak, enuntziatuaren interpretazio sakon bat egiteko, ekoizpen-baldintzak oso kontuan izatea du eskakizun. Horren arabera, ez da perpausen esanahia soilik deskribatu behar, ez eta bere sintaxia eta semantika-osaera bakarrik ere; horiekin batera, enuntziatuaren esanahia deskribatu beharra dago eta horretarako ezinbestean leku-denborazko egoeraz gain, komunikazio horretan parte hartu duten eragileak (esatari-enuntziatzaile nahiz norentzakoak), testuinguruari nola egokitzen zaizkion nahiz testuan gaiak nola albainduta dauden (kohesioa eta koherentzia) aztertzea komeni da.

Honenbestez, esatari batek komunikatzeko beharra daukanean, esan nahi duenari egokituko zaion formazko (sintaxia-egitura, egitura fonikoa) eta semantikazko lagungarri batzuk hautatuko ditu. Baina horiez gain, norentzako ere bere adimenean irudikatuko du eta

bere mezua norentzako horri nahiz testuinguruari egokitu beharko dio. Beraz, komunikazio-ekintza batean parte hartzen duten faktore oro izan beharko du gogoan.

Enuntziazioaren edo adierazpen terminoaren ulermodua:

Ducrot-ek *Les mots du discours* liburuan (1980: 33) honela definitzen du: “L'événement, le fait que constitue l'apparition d'un énoncé, apparition que la sémantique linguistique décrit généralement comme la réalisation d'une phrase”.

E. Benvenistek (1970: 12), “L'appareil formel de l'énonciation” artikuluan “L'énonciation est cette mise en fonctionnement de la langue par un acte individuel d'utilisation” bezala definituko ditu.

Hondarrik hondarrean, enuntziazioa da enuntziatua sortzeko egitatea (*acto*), eta ez enuntziatuaren testua, gure aztergaia dena.

Aztergai dugunak, hau da, enuntziatuak, ordea, enuntziazioa deskriba dezake edo behintzat enuntziazioaren isla izango du. Zer esan nahi dugu baieztapen horrekin?

1) Esatariak sortuta balego bezala agertzen dela (lehen pertsona horren lekuko). Esatariak bat egin dezake edo ez izate enpirikoarekin, hots, diskurtsoaren egile fisikoarekin.

2) Norentzako bati zuzentzen zaiola (bigarren pertsona). Norentzakoa, arestian ikusi dugunez, ez dator beti bat hartzailearekin.

3) Enuntziazioak baduela indarrik: enuntziatioari esker, galdetu, agindu, baieztatu... egin daiteke.

Enuntziatu orok bere enuntziatioari egiten dio erreferentzia, nahiz eta horren adierazle ageriko markarik beti ez agertu. Esataria enuntziatioaren beharrezko baldintzen artean sartzen du norberaganatze-prozesuak. Norberaganatze-prozesu honetan esataria hizkuntzaren formazko aparailu honetaz jabetzen da eta esatari bezala agertzen:

Mais immédiatement, dès qu'il se déclare locuteur et assume la langue, il implante l'autre en face de lui, quel que soit le degré de présence qu'il attribue à cet autre. Toute énonciation est, explicite ou implicite, une allocution, elle postule un allocutaire. (Benveniste 1970: 14).

Enuntziazioaren hizkuntzalaritzan bi ikuspegi gailentzen dira: murrizta eta zabala:

a) Zabalea den ikuspegiak enuntziatuaren eta komunikazio edo enuntziatu markoko osagaien artean albaitzen diren harremanak deskribatzea dauka helburu; hau da, enuntziatuaren eta esatari-norentzakoan, leku-denborazko egoeraren eta ekoizpen-interpretazioan eragiten duten baldintza orokorren (testuinguru soziohistorikoaren, diskurtsoaren unibertso mugatua...) artekoa. Kerbrat-Orecchionik (1980: 23-33) ikuspegi honi, ikuspegi zabala deritza: “*énonciation étendue*”.

b) Kerbrat-Orecchionik berak zehaztuko du badela enuntziazioaren ikuspegi murriztagoa ere. Eta ikuspegi murriztago hau *esatariak* enuntziatuan uzten dituen hizkuntza lorratzak deskribatzera mugatzen da soil-soilik; hau da, Benvenistek “hizkuntzaren subjektibitatea” deritzana.

Enuntziazioa, bada, Kerbrat-Orecchionirentzat (1986: 43) honako hau da: “*la búsqueda de los procedimientos lingüísticos (shifters, modalizadores, términos evaluativos, etc.)*”. Hizkuntz baliabide hauei esker, izan ere, esatariak enuntziatuari bere seinalea, bere zigilua, bere marka ezartzen dio eta, era honetara, mezuan bertan txertatzea lortzen du (estarian nahiz agerian). Horrela, esataria enuntziatuarekin harremanetan ezartzen du: batzuetan, igorri duen enuntziatutik urrundu egiten da eta bestetan bat egiten du (enuntziazio distantzia).

Enuntziazioa, honenbestez, enuntziatio-subjektua enuntziatuan txertatzea litzateke. Guk geuk, behintzat, era horretara adituko dugu; izan ere, enuntziatu parentetikoak, maiz aski, enuntziatuan esatariaren ahotsa txertatzeko bitarteko ezin hobeak dira: enuntziatu hori modalizatuz edo bere intentzio-asmoei bete-betean erantzuteko birformulatuz, adibidetuz, zehaztuz, etab. Hitz batean, enuntziatio mailan eraginez.

#### 2.2.2.5. TESTUINGURUA

Argi dago —eta inork ez du ukatzen— enuntziatuak interpretatzeko orduan zeinen garrantzizkoa den komunikazioaren ezinbesteko osagai den elementu hau. Egun, Saussure-ren (oro har, estrukturalisten) eta Chomsky-ren ikuspegi inmanentea ez da aho batez onartzen. Bai batak eta bai besteak enuntziatuaren ekoizpen-baldintzak saihestu egiten dituzte

eta, ondorioz, hizkuntzalaritzaren esparruan urrats handiak egin dituzten bi ikuspegi nagusi horien ekarria urri, eskas edo murriztegi<sup>31</sup> gelditu zaigu:

La perspective immanente, cet horizon méthodologique vers lequel la linguistique s'est efforcée de tendre asymptotiquement, apparaît aujourd'hui plus réductrice que productrice. (Kerbrat-Orecchioni 1980: 8).

Zaila da *testuinguru* terminoaren mugak zehaztea. Hizkuntzalari askorentzat muga lausoak ditu eta sistematizatzen ez da batere erraza, testua inguratzen duen *possible world* oro izan baitaiteke; hots, hizkuntzaz kanpoko gertakari oro.

Anabasa are eta handiagoa da testuingurua adierazteko erabili izan diren terminoak ugariak direlako batetik, eta *testuinguru* terminoaren azpian arras desberdinak diren adigaiak uler daitezkeelako, bestetik. Esate baterako, testuingurua adierazteko hamaika termino eta izendapen erabili izan dira: ingurumaria (edo leku-denborazko egoera), ekoizpen-baldintzak, komunikazio-zirkunstantziak, kontestoa, kotestoa... dira horietako batzuk; eta baliokidetzat jo izan diren terminoek barne hartzen dituzten gertakariak, autoreen arabera, aldatzen dira. Komeni zaigu, bada, *testuinguru* hitza darabilgunean zer adierazi nahi dugun zehaztea, ulerkera honen barrenean definituko baitugu enuntziatu parentetikoak testuinguratzeko baliabideak ere badirela genioen baieztapena. Egiteko hau, ordea, enuntziatu parentetikoak diskurtso-estrategia komunikatibo bezala duten testuinguratzeko eginkizuna aztertzean zehaztuko dugu. Oraingoan, bego horretan.

Honekin guztiarekin, enuntziatu parentetikoak definitu eta azaltzeko zuzenean parte hartzen duten osagai-terminoen mugak pixka bat zedarritu ditugulakoan gaude. Ez guztiak haatik. Oraindik esatari-enuntziatzaileen arteko bereizketa mugatzeke dugu; areago, bereizketa hau oinarritzen den ikusmolde teorikoaz ez dugu ezer esan. Beraz, jarraian, enuntziatu parentetikoaren izaera ulertzeko eta aztertzeko baliatuko garen —eta beraz zordun garen— ikusmolde teoriko nagusia azalduko dugu.

<sup>31</sup>Hizkuntza, ezer baino lehen, komunikatzeko tresna da, eta horretarako hizkuntzaz kanpoko osagaiak ere oso kontuan izan behar ditugu.

### 2.2.3. Esatari/enuntziatzaileen arteko bereizketa: polifonia eta diafonia gertakariak

“Polifonia” eta “diafonia” gertakariak aztertu aurretik, aldez edo moldez, fenomeno hauen iturri den Bakhtinen teoriaren nondik norako nagusiak emango ditugu aditzera, baina beti ere gure aztergaiaren ikuspuntutik bideratuta.

#### 2.2.3.1. BAKHTINE<sup>32</sup>: DIALOGISMOA EDO IKUSPEGI ELKARRIZKETATUA

Sarreran bertan esana dugu egitura parentetikoaren erabilera, gure ustez, diskurtso edo berbaldi mailakoa dela eta, beraz, ezin azter daitekeela gramatikazko ikuspegi soiletik, hizkuntzaz kanpoko egoera eta ekoizpen-baldintzak gibelean utzita. Eta baieztapen hau ez da enuntziatu parentetikoaren azterketara bakarrik mugatzen, hizkuntza bere osotasunean aztertuko bada, ezingo da enuntziatio-testuingurua alde batera utzi; testuinguru horretatik at, hizkuntza balizko aukera abstraktua besterik ez baita “n’est que la possibilité de la langue” (Benveniste 1970: 14). Perpausetik, gramatiken objektu abstraktutik, komunikazio unitaterik txikienera, hots, enuntziatura, jauzi egin beharra dugu.

Bakhtinen ustez, enuntziatua bere enuntziatio testuingurutik bereiztea akats handia litzateke, hizkuntza komunikazio-truke zehatzean agertzen baita eta hurbileko gizarte-egoerak enuntziatua bera mugatzen baitu. Enuntziatu oro elkarrekin uztartuta dauden bi alderdiz osatuta dago: hizkuntza-materiaz eta enuntziatioaren testuinguru jakinez. Eta hizkuntza alderdiari bakarrik erreparatzean —Bakhtinek dio— kontuan izan beharreko bi ñabardura nagusi saihesten ditugu: esataria gizartekoa dela, gizaki soziala, eta enuntziatua beti norbaiti zuzenduta dagoela, norentzako baten menpe dagoela, hain zuzen ere. Eta Bakhtinek, bereziki, azken alderdia (norentzako baten menpe egotea, alegia) nabarmentzen du *dialogismoa* edo *ikuspegi elkarrizketatua* bere egin eta bere teoriaren ardatz bihurtzeko.

Gatozen, labur-labur bada ere, adigai hori zehaztera, enuntziatu parentetikoaren izateko arrazoia (diskurtsoan duten eginkizuna) adigai honen ulerkeraren muinean agertzen baita.

Adigai hori zehatz-mehatz definitzea, ordea, ez da batere erraza, interpretazio ugari izan baititu:

La ambigüedad sugestiva del término ha hecho correr ríos de tinta: la trayectoria no lineal del pensamiento de Bajtin da lugar a ello, y tanto si lo consideramos como relación

<sup>32</sup>Autorearen izena, gutxienez, bitara ikusi dugu idatzita: *Bakhtine* nahiz *Bajtin*.

entre intenciones —autorial y heroica—, voces, enunciados o estilos, tal concepto admite una gran variedad de interpretaciones. (Grande Rosales 1994: 57).

Ulerkerak ulerkera, pixka bat zehazteko asmoz, gatozen *dialogismo* hitz honen etimora:

**Dialogismo:** Figura retórica y especie de prosopopeya, que se comete cuando, sea supuesto o verdadero, dirigiendo a solas un pensamiento, se hace preguntas y respuestas como si hablase con otro. Es voz púramente Latina, *Dialogismus*. (Diccionario de Autoridades)<sup>33</sup>.

Jose Gómez Hermosillak (1826, I: 151), Iris Zavalak (1996:76) esango digunez, honela definitzen du:

[Dialogismo] consiste en referir textualmente un discurso fingido de persona verdadera, pero viva, ausente o presente, que habla con alguna otra verdadera también y viva. Si habla consigo misma se llama soliloquio. (Guk aipu hau Zavalatik (1996: 76) jaso dugu, nahiz eta jatorrizkoa goian aipatua den).

Definizio hauek erakusten digute “dialogismoa” ikuspegi elkarrizketatua bezala ulertu behar dugula. Izan ere, “gizakia” ezin uler dezakegu gainontzeko gizakietatik aparte, gainontzeko gizakiekin lotzen duen harremanetik at. “Ni-a” zerbait bada, “zu” eta “hi” batzuk daudelako da “L’être même de l’homme (extérieur comme intérieur) est une communication profonde. Être signifie communiquer (...) Être signifie être pour autrui et, a travers lui, pour soi” (Bakhtine 1979: 311). Ikuspegi honetatik abiatuz, diskurtsoa —eta enuntziatu parentetikoak ere bai— ez daiteke esatariaren ikuspuntutik soilik aztertu, komunikazio-trukean bakarria balitz bezala: berbaldia “hitzezko interakzio” bezala aztertu behar da:

Un énoncé vivant, significativement surgi’s un moment historique et dans un milieu social déterminés, ne peut manquer de toucher á des milliers de fils dialogiques vivants, tissés par la conscience socio-ideologique autour de l’objet de tel énoncé et de participer activement au dialogue social. (Bakhtine 1979: 100).

---

<sup>33</sup> Guk aipu hori Zavalaren lanetik (1996: 75-76) jaso dugu.

Bakhtinen ustez, hizkuntzan ez dago hitzik (hiztegieta salbu) neutroa dela esan daitekeenik; guztiek, inolako salbuespenik gabe, besteren hitzetan oin hartzen dute. Esatari batek zerbait dioenean, ezin pentsa dezakegu “esan duena esaten” lehena izan denik. Esandako hori, jada, besteren batek ahotan hartu izan du, eztabaidatu, iruzkindu... izan du. Esatariak diskurtsoan darabilen mintzagaia edo objektua da, hain zuzen Bakhtinek dioen “le lieu où se croissent, se rencontrent et se séparent des points de vue différents, des visions du monde, des tendances” (Bakhtine 1979: 301). Hau da, besteren hitz eta diskurtsoak norbere diskurtsoan gurutzatzen dira; besteren berbaldiak geuretu (asimilatu), landu, jorratu, hausnartu, baztertu, osatu, zehaztu... egiten ditugu; gure diskurtsoa, izan ere, besterenaren erantzuna da, batek ezin du ekidin aurreko diskurtsoekiko lotura:

(...) l'énoncé est un maillon dans la chaîne de l'échange verbal et on ne peut le détacher des maillons antérieurs qui le déterminent tant du dehors que du dedans, et qui suscitent en lui des réactions-réponses immédiates et une résonance-dialogique. (Bakhtine 1979: 302).

Gainera, badirudi diskurtsoa edo berbaldia ez dagoela aurreko berbaldiekin bakarrik uztartuta, ondorengoekin ere uztartuta dago: “est relié non seulement aux maillons qui le précèdent<sup>34</sup> mais aussi à ceux qui lui succèdent” (Bakhtine 1979: 302).

Gure enuntziatuek, bada, datozen edo etor daitezkeen enuntziatuak eskatzen ditu, hots, etor daitezkeen enuntziatuen erantzuna auresuposatzen du. Bestela esan, guk enuntziatua sortzen eta igortzen dugunean, norentzakoak (balizkoak nahiz errealak) eman liezazkiokeen erantzun eta kontrako arrazoiak ere aintzat hartzen ditugu; bere erantzunaren arabera doitzen ditugu. Beraz, diskurtsoa zuzentzen zaion honek eman diezazkiokeen erantzunak esatariaren enuntziatua (eta diskurtsoa, noski) baldintza dezake eta bere antolamenduan eragin. Nola? Hark izan ditzakeen gaizki ulertu eta kontrako argudioak saihesteko, gure berbaldia etengabe ñabartuz, birformulatuz, azalduz, zehaztuz... Azken batean, norentzakoari berari oharrak eginez eta, beraz, esatariak norentzakoarekin elkarrizketa edo “dialogoa” imitatuz. Eta egiteko edo funtzio hau da enuntziatu parentetikoek diskurtsoaren harian betetzen dutena, beste egiteko batzuekin batera.

(...) tandis que je parle je prends toujours en compte le fond aperceptif sur lequel ma parole sera reçue par le destinataire: le degré sur la situation (...) ses opinions et ses

<sup>34</sup> Bakhtinek dioena ‘testuartekotasun’ adigaiarekin lot dezakegulakoan gaude.

convictions, ses préjugés (de mon point de vue), ses sympathies et antipathies etc. (Bakhtine 1979: 304).

Ñabardurak, birformulazioak eta esatariarenaz gain besteren ahotsak diskurtsoan tartekatzea edo txertatzea, gainera, ez du beti hurrenez hurren egiten; zenbaitetan — enuntziatu parentetikoekin gertatzen den bezala—, gurutzaketen bidez tartekatzen ditu.

Este [es] el principio de lo que será su concepto de dialogía, el *con/y, el intercambio y cruce, desplazamiento de contigüidades y alternancia de voces*. La heterogeneidad *simultánea*, el tiempo y el espacio. (Zavala 1996: 14). (Etzana gurea da).

Bakhtinen ikusmoldetik, gure aztergaiari begira, ondoriozta dezakegu norentzakoak eragozpenak eta oztopoak jartzeko ahalmena duela eta hori ere oso kontuan izan behar duela esatariak bere diskurtsoa eta argudio-haria eratzeko orduan. Grize-k (1982: 246) “*objecteur en puissance*” deritzo; izan ere, norentzakoak, esatariak sortu eta igorritakoari eragozpenak jar diezazkioke eta kontrako arrazoiak bideratu. Ondorioz, esatariak sortzen duen berbaldia ez du komunikatu nahi duen horren gainean bakarrik sortzen; horrez gain, norentzakoaren arabera ere doituko du, norentzakoaren balizko diskurtsoa bere diskurtsoan aurreratu eta birsortuz<sup>35</sup>.

Honenbestez, ezin dezakegu, inolaz ere, norentzakoa parte-hartzaile pasiboa bailitzan aztertu, esatariari entzutera mugatzen den osagaia bailitzan. Honek, izan ere, aditu duenari erantzuteko eskubidea eta jarrera aktiboa du: “leur destinataire qui reçoit un discours adopte dans un même temps, par rapport à ce qui est dit, une “*attitude responsable active*” (Bakhtine 1975). Eta esatariak norentzakoaren jarrera erantzule hori espero du bere enuntziatua eta berbaldia sortu eta kanporatzen duenean.

En la vida real del lenguaje, toda comprensión correcta es activa: abarca lo que debe ser comprendido en el propio horizonte objetivo-expresivo y está indisolublemente ligada a una respuesta, a una objeción o a un consentimiento motivado. En cierto sentido, la supremacía pertenece a la respuesta como principio activo (...) La comprensión y la respuesta están dialécticamente fundidas entre sí, y se condicionan recíprocamente; no pueden existir la una sin la otra (...) El hablante entra en el horizonte ajeno, en el trasfondo perceptivo del oyente. (Bajtin 1989: 99-100).

<sup>35</sup> Fenomeno honi, hau da, norentzakoaren diskurtsoa esatariaren beraren diskurtsoan aurreratu eta birsortzeari, Roulettek “*diafonia*” fenomeno deritza, era honetara, “*polifonia*” fenomenotik bereiziz. Azken hau, besteren ahotsa (norentzakoarena salbu) bere diskurtsoan tartekatzen duenerako uzten du.



Laburbilduz, diskurtsoa gizartekoa da, soziala; ez da hiztegieta biltzen den hitz-altxorra. Edonoren diskurtsoa gainontzekoenarekin harremanean dago (egun *testuartekotasuna* deitu izan zaionarekin pareka dezakegu): gure hitz eta enuntziatuak bestek esandakoekin hornitzen dira (hortik letorke besteren ahotsak nor bere diskurtsoan tartekatzea edo polifonia fenomeno) eta baita norentzakoak eman liezaiokeen balizko erantzunekin ere.

Ulerkera eta interpretazio honetatik letorke Bakhtinen “dialogismo” fenomeno edo “ikuspegi elkarriketatua”: diskurtsoa komunikazio-trukea den heinean, esatari-norentzakoak elkarri eragingo diote, bien arteko elkarriketa “imitatua” bideratuko dute, batetik, eta bestetik, esatariaren diskurtsoan gainontzeko diskurtsoen oihartzuna edo isla nabarmenduko da.

Otro procedimiento (...) es *el crear un aparente dialogismo en el texto*. El hablante utiliza una construcción interrogativa dirigida aparentemente a un interlocutor, que él mismo responde. De esta manera resalta ese segmento, al utilizar esa apelación, y también crea un dinamismo en el texto al desdoblarse el hablante. Crea dos enunciados aparentes que en el fondo son el mismo locutor. (Fuentes 1999b: 49) (Letrakera etzana gurea da).

Ondorioz, “dialogismo” edo ikuspegi elkarriketatu hau, aurrez aurre dauden gizakien arteko komunikazio-trukea litzatekeena, ez da elkarriketaren edo dialogoaren eremura soilik mugatzen; ikuspegi hau bera nabarmentzen da bakarrizketetan, baita Koldo Mitxelenak idatzitako kritiketan ere. Bakarrizketa izan baitaiteke elkarriketatua, besteren hitz eta hotsak barne hatzen dituen eta, gainera, norentzakoarekin zuzeneko harremana (eta elkarriketa) bideratzen duena. Egiteko horretan, hots, esatari-norentzakoaren arteko elkarriketa bideratzeko orduan, enuntziatu parentetikoek badute zeresanik; hauek, azken batean, esatariak norentzakoari bidalitako keinu, seinale eta oharrak baitira, enuntziatua esatariak nahi bezala uler dezan eta bere argudioak berak nahi duen bidetik bidera ditzan. Azken batean, irakurketaren interpretazioa bideratzen dute.

Aski ote da esatariak norentzakoari (eta alderantziz) eragiten diola esatea? Aski ote da enuntziatu parentetikoaren egitekoa esatari-norentzakoaren arteko harreman elkarriketatua bideratzea dela esatea? Ez hori bakarrik. Ikus, enuntziatu parentetikoek duten komunikazio-eginkizunari eskainitako atala.

Segidan, ikuspegi honetatik eratortzen diren `polifonia' eta `diafonia' adigaiak pixka bat zehaztu eta gure aztergaiari egokituko dizkiogu.

### 2.2.3.2. ESATARI / ENUNTZIATZAILEEN ARTEKO BEREIZKETA: POLIFONIA ETA DIAFONIA FENOMENOAK

Diskurtso jakin bateko subjektua hainbat ikuspuntutatik izan daiteke aztertua: enuntziatuaren sortzaile den heinean, narratzaile edo esatari den heinean, etab. Terminologia nahasketak saihestearren, diskurtsoko subjektuak mugatu eta zehazten saiatuko gara, horrela, esatariaren eta enuntziatzaileen arteko bereizketa egingo dugulako.

Tradizio-ikuspegitik begiratuta, enuntziatuaren subjektua (s1) eta enuntziatio edo adierazpenaren subjektua (S1) bereiziko ditugu.

s1=enuntziatuaren subjektu gramatikala da, aditzaren ekintzaren egilea; gerta daiteke, gainera, S1-ekin bat ez etortzea.

S1= enuntziatuaren adierazpenaren egile da.

Saia gaitezen bereizketa adibide soil batekin azaltzen:

Adb. Euskal Herriak Madrilekin aurtengo aurrekontuak negoziatuko ditu

Adibideak erakusten digunez, enuntziatua igortzen duena ez da enuntziatu gramatikalaren subjektu (Euskal Herria).

Zailtasunak, ordea, S1-en ezaugarriak<sup>36</sup> zein diren sakontzen hastean sortzen dira. Ducrot-en arabera (1984) ezinbestekoa da “enuntziatu bat→subjektu bat” ekuazioa desegitea; hau da, zilegi da enuntziatu beraren azpian subjektu bat baino gehiago agertzea, zilegi da ahots bat baino gehiago agertzea. Eta hori polifonia-teoriaren arabera azaltzen du.

---

<sup>36</sup>Covadonga Pendones-en arabera (1994-1995: 264), honako ezaugarri hauek ditu S1-ek:

- Enuntziatua sortzeko jarduera psikofisikoa bere gain du (muskulu- eta inteligentzia-jarduera).
- Igorri duen enuntziatu jakinaren sortzailea da, hots, hizkuntza-sormen horren sortzailea.
- Esaten duenaren, enuntziatuaren, arduraduna da; hau da, “alguien a quien se le debe imputar la responsabilidad de una emisión determinada de palabras”.

Pero además, es un error pensar en la unicidad del hablante y oyente. O. Ducrot plantea la diversidad de voces o polifonía, que se basa en el dialogismo de M. Bakhtine, y que tiene una amplia bibliografía en la Lingüística francesa. (Fuentes 1996: 22).

Ducrot-ek S1 edo adierazpenaren edo enuntziazioaren subjektua lehenik eta behin, bi alderditatik aztertzen du: errealitate enpirikoa den aldetik (Igorlea I), eta diskurtsoko errealitate den aldetik (Igorlea L).

Gisa honetara laburbil dezakegu:

esataria I	esataria L
errealitate enpirikoa	diskurtso-errealitatea
subjektu fisikoa	subjektu narratiboa

Bereizketa hau aski baliagarria gerta dakiguke eleberri, ipuin edo zein-nahi kontaeratarako. Hauetan guztietan, oro har, egileak (I) narratzaile nahiz pertsonaiak (L) jartzen baititu subjektu narratibo gisa.

Gure aztergai zehatzari begira, ordea, bi esatariek bat egiten dute; izan ere, aztergai ditugun kritikak Koldo Mitxelenak (izate fisiko-enpirikoa den aldetik) idatzi zituen eta kritika horietan agertzen den diskurtso-esataria ere Koldo Mitxelena idazlea bera da. Beraz, gure aztergaiari begira, bereizketa honi baino indar handiagoa emango diogu, Ducrot-ek berak, “L esatariaren” barnean, hau da, diskurtsoko subjektuen barnean, atzematen duen bereizketari. “L esatari” honen barnean, izan ere, esataria eta enuntziatzaileak bereizten ditu.

Esataria eta enuntziatzailea(k):

Par définition, j’entends par locuteur un être qui, dans le sens même de l’énoncé, est présenté comme son responsable, c’est-à-dire comme quelqu’un à qui l’on doit imputer la responsabilité de cet énoncé (Ducrot 1984: 193).

(...)

J’appelle “énonciateurs” ces êtres qui sont censés s’exprimer à travers l’énonciation, sans que pour autant on leur attribue des mots précis. (Ducrot 1984: 204).

Bataren eta bestearen artean dagoen alderik funtsezkoena, apika, honako hau da: esataria enuntziatuaren arduradun zuzena da, enuntziatuaren osagai diren hitzak eta egiturak

hautatzen dituen; enuntziatzaileak, berriz, enuntziatu horrek iragartzen dituen ikuspuntuekin egiten du bat.

Honenbestez, esataria ez da ikuspuntu bat, ikuspunturen bat har dezakeena baizik. Esataria, bada, bakarra da, bakarra baita enuntziatua sortzen duena (enuntziatuko hitz eta egiturak hautatzen dituen); enuntziatzailea, berriz ugaria izan daiteke, esatari horrek enuntziatua bere ikuspegitik, nahiz besteren ikuspegitik<sup>37</sup> igor baitezake.

Enuntziatzaileak, ondorioz, enuntziatioari esker agertzen diren izakiak dira, nahiz eta hauek berariaz hitz egin ez, nahiz eta hauen hitzak zehatz-mehatz agertu ez, beren ikuspuntua agertzea zilegi egiten dute. Ildo honetatik uler dezakegu Banfield –ek (1979) enuntziatzailea kontzientzia-subjektua (*sujeto de conciencia*) deitzea, edota ikuspuntu-gunetzat jotzea.

Esatariak (L) duen enuntziatzailearekiko jarrera hamaika modutakoa izan daiteke. Corpuseko zenbait adibiderekin ispilatzen saiatuko gara.

a) Urruntzeko harremana

- Behingoz bederen, zinemak, ixpilu (**zeren ixpilu gero?**) izateari utzirik, amets-ateak iriki dizkigu, Albert Larrorisseri eskerrak. (ZIN: 170).
  
- Bizkaiko hitza omen da *durdua* “dificultad” eta Mogelek (**baina zein Mogelek eta non?**) darabilena. (LIB I: 114).
  
- Egilearen iritziak —**eta norenak ez?**— okerrak izan daitezke hemen edo han. (LIB I :130).

Esatariak beregana dezake, bada, ikuspegi bat edo bestea, baina zenbaitetan bereganatu duen ikuspuntu horretatik urrundu eta iruzkindu egiten du. Eta urruntze-efektu hau erdiesteko, goiko adibideetan ikus dezakegunez, enuntziatu parentetikoak bitarteko egokiak gertatzen zaizkio. Horrelakoetan, badirudi ahots ugari biltzen dela edo “polifonia” fenomeno iragartzen dela, esatariaren beraren bikoizketa gertatu bailitzan.

---

<sup>37</sup>Hizkuntzak, jakin badakigu, ikuspuntu ugari aditzera emateko bere bitartekoak ditu; hau da, hainbat hizkuntza-unitate berariaz ikuspunturen bat aditzera emateko erabiltzen dira. Esate baterako, gure corpusean, Mitxelenak etengabe darabiltza “halakok dioenez”, nahiz parentesien edo marren artean agertzen diren “halakok dio” bezalako esapideak. Guri, enuntziatu parentetikoaren azterketa honetan, marren, parentesien nahiz koma parearen artean doazenak interesatzen zaizkigu. Baita esataria bere diskurtsoetik aldentzeko, urrutiratzeko erabiltzen dituen baliabideak ere. Hauxe baita, hain zuzen, enuntziatu parentetiko ugariaren egitekoa, esataria bere diskurtsoetik aldentu, nahiz besteren ikuspuntua tartekatzea, alegia. Alderdi horretatik esan dezakegu enuntziatu parentetikoek, azken batean, tartekatua izan den enuntziatuarekin erkatuz, enuntziatzaile nahiz modalitate aldaketa dakarrela.

b) Esatariak enuntziatzailearekin bat egitea

Aldez aurretik garbi gera bedi maiz aski (edo gehienetan) esatariak bere-berea duen ikuspuntutik igortzen duela enuntziatua, eta kasu horretan esataria eta enuntziatzailea biak bat izango lirateke. Baina gertatzen ere da esatari horrek enuntziatua beste norbaiten ikuspuntutik igorri arren, ikuspuntu horrekin erabat bat etortzea. Bat etortze hau, gainera, berariaz aditzera eman dezake:

- Onak gailen, gaiztoak lotsagarri ikusirik azkenean, alai irtengo dira zinetik, eta sartu baino zintzoago direlakoan gainera, gogoa onen alde baitzeukaten —**badakizue alderdi horretakoak izaten garela beti, zineman behintzat**— eta eserlekutik mugitu gabe onei eginahalean lagundu baitiete. (ZIN: 124).

Enuntziatzailea esatariaren enuntziatuan sartzea eragotzi edo uzten duten mekanismoak “ageriko heterogeneitatearen” lortzak dira.

c) “Heterogeneitatea” bereziki J. Authier-ek (1982, 1984,1995) jorratu du.

1984an argitaratutako artikulu batean (“Hétérogénéité(s) énonciative(s)”, *Langages*, 73), Jacqueline Authier-ek “enuntziatio-heterogeneitatea” eman zuen aditzera eta “heterogeneo” izaera horren azpian bi mota nagusi bereizi zituen:

- 1) – heterogeneitate osagarria (*constitutive*):
- 2) – agertzen edo erakusten den heterogeneitatea (*montrée*)

Heterogeneitate osagarria ez da diskurtsoaren gainazalean agertzen; halaz ere, diskurtso arteko emaitzatzat har daiteke, Bakhtinek bere dialogismoaren teorian adierazten zuen legez: diskurtso jakin bat aurreko diskurtso guztiekin harremanetan jartzen du osagarria den heterogeneitateak:

La interdiscursividad constitutiva se motiva en el trabajo de un discurso sobre otros discursos. (Pendones De Pedro 1992: 10).

Beraz, badirudi diskurtsoa osatzen duen heterogeneitate honek diskurtsoaren testura edo ehundura nola eginda dagoen aztertzen duela, aurretik sortutako gainontzeko diskurtsoekin harremanetan.

Bigarren heterogeneitate mota, izenak berak adierazten digunez, enuntziatio mailan esplizituki agertzen da. Horren adierazgarri horra hor, esatariaren urruntzea, esatariaren bikoizketa edo bitan banatzea, polifonia-markak, etab.

Nahiz eta bi heterogenotasun-motak bat eginik egon, guk corpuseko azterketa praktikoa edo enpirikoa egitean bereizi egingo ditugu. Egia da, halere, enuntziatioaren gainazalean agertzen den heterogenotasunaren arrastoak aurkitzea errazagoa dela. Hauek, Covadonga Pendones De Pedrok (1992: 10) esango digunez “se reconocen a través de algunas irregularidades gramaticales, variaciones formales del código, el *discurso interrumpido* y marcas tipográficas”. (Letrakera etzana gurea da).

Ageriko heterogenotasun hau bi erataraz ager daiteke: markatuak diren formez, nahiz forma markatu gabez. Markatuek, tipografia edo sintaxi bidezko markei esker, “bestearen”<sup>38</sup> lekua zehazten dute, eta hemen sartuko genituzke kakotxen artean edo etzanaz datozen esaldiak eta baita enuntziatu parentetiko mota bat ere. Bereziki, “enuntziatu parentetikoaren” azpisailtzat jotzen ditugun zuzeneko estiloa, zitak, etab.

Las formas marcadas establecen el lugar del “otro” a través de una marca unívoca (ya sea ésta de carácter tipográfico o sintáctico) como en el caso de los términos y frases entrecomilladas o en cursiva, los incisos, el discurso directo e indirecto, las citas, etc. (Pendones De Pedro 1992: 10).

Enuntziatu parentetiko batzuetan besteren ahotsa marka formalez aditzera ematen bada ere (ikus, goian aipatu ditugun zitak, zuzeneko estiloa, kakotx arteko formak), gehienetan inolako marka formalik gabe<sup>39</sup> dakar besteren ahotsa, edo besteren ahotsaren oihartzuna. Maiz, tesian zehar ikusiko dugunez, egitura parentetikoa baliabide hagitza egokia gertatzen zaio inolako kanpoko marka tipografikorik gabe esatariaren beraren bikoizketa islatzeko.

<sup>38</sup>Esataria zenbaitetan bere diskurtsoa enuntziatzailearen hitzetatik (besteren diskurtsoetik) bereiztera behartuta dago eta horretarako maiz aski marka tipografikoetara jotzen du: kakotxetara...

<sup>39</sup>Jakin badakigu enuntziatu parentetikoa egitura berezia dela bai entonazioaren aldetik eta bai betetzen duen funtzioaren aldetik: enuntziatu aske bat inolako lotura sintaktikorik gabe beste enuntziatu batean tartekatzen dena, eta diskurtsoan duen funtzioa betetzeko perpausaren egituratik aldentzen duten puntuazio-demarkazioen artean kokatua. Beraz, enuntziatu parentetikoak badaramatza marka formalak egitura hau gainerako diskurtsoetik bereizteko, baina ahots ugariak islatzeko ez du enuntziatu parentetikoaren barnean marka tipografikoz ahots horiek desberdintzerik behar.

Beraz, markatu gabeak, nabarmendu gabe egon arren —ez dute marka unibokorik—, polifonia-indarrari esker jartzen dira agerian: ironia, testuarteko erreferentziak, parafrasiak, zeharkako diskurtso askea, eta baita azterkizun dugun enuntziatu parentetikoa bera ere.

Enuntziatio gertakari horien guztien ezaugarri nabarmena da hauei esker esataria gai dela beste enuntziatzaile batzuen ahotsak bere diskurtsoan islatzeko; hau da, polifonia-fenomenoari bidea irekitzeko. Diskurtso mailako prozedura hauek guztiek mezu monologikoaren ideia hautsi egiten dute, beste diskurtso eta enuntziatzaileen lorratzak utziaz. Honenbestez, heterogeneitatearen gertakari hau polifoniarekin hertsiki uztartuta agertzen da: azken batean, enuntziatu beraren azpian esatariaren ahotsaz gain, beste hainbat enuntziatzailerena ere suma daiteke:

(...) la presencia de enunciadores, seres que se expresan a través de la enunciación, sin que por ello se les atribuya palabras precisas. Los enunciadores no hablan, pero la enunciación les permite exponer su punto de vista. La autoridad narrativa de L [locutor] le permite introducir en su propio enunciado posiciones distintas a las suyas, sobre las que puede estar o no de acuerdo. Así, L presta su “voz” como canal a fin de que E [enunciador] pueda expresarse. (Covadonga Pendones 1992: 12).

Beraz, enuntziatzailea esatariaren enuntziatuan sartzea aldeztu edo galarazten duten mekanismoak dira ageriko heterogeneitatearen lorratzak. Gisa honetara, esatariak bere diskurtsoa enuntziatzaileen hitz arrotzetatik bereizi beharra senti dezake eta horretarako forma markatuetara jo. Edota esatariak bere diskurtsoa alda dezake, hots, bere diskurtsoari erreferentzia egin diezaioke eta orduan bere ahotsak enuntziatzaile rola jokatu du<sup>40</sup>. Metadiskurtsoko mekanismoen laguntzaz, esatariak sortu duen diskurtsoa bere helburu-intentzioetara egokitzen saiatuko da eta, horretarako, diskurtsoa birformulatu, zuzendu, ñabartu, zehaztu... egingo du.

Enuntziatioaren hizkuntzalaritzaren ildoak jarraituz mugatu ditugun adigai hauek guztiak bereziki enuntziatu parentetikoaren analisi praktikoa egiteko erabilgarri gertatuko zaizkigu. Enuntziatu parentetikoaren azpisailak bereizi eta deskribatzean itzuliko gara hauetako batzuk aztertzerantz: parafrasia (birformulazioekin harremana duten heinean), zuzeneko estiloa, autoritate zitak, glosak<sup>41</sup>, esaera zaharrak...

<sup>40</sup>Mainogenearen ustez (1987: 66), metadiskurtsoak aukera uzten dio esatariari bere diskurtsoan hainbat maila eratzeko, eta honela, diskurtsoari esker, enuntziatuak eta bere iruzkinak uztartzen dira.

<sup>41</sup>Glosen barrenean, Covadonga Pendonesek (1992: 15-17) gure gaia aztertzei aski garrantzitsua den sailkapen bat dakar: egokitzenak (“halakok” dioen bezala...), enuntziatuan eragiten duten modalizatzaileak, enuntziatioan eragiten dutenak, enuntziatioa zuzendu eta zehazten dutenak, anaforazkoak, enfatikoak, etab.

## 2.3. TESTU-GRAMATIKAREN EKARRIA

### 2.3.1. Testu-gramatika: aldez aurretiko zenbait irizpide eta oinarri

Sarreran esana dugunez, Koldo Mitxelenaren testu-sorkuntzan, antolaketan<sup>42</sup> eta garapenean<sup>43</sup> eragiten duten enuntziatu parentetikoak, beren kokalekua enuntziatuaren sintaxian, perpaus-bazter posizioan dute, eta ez perpausaren barrenean<sup>44</sup>; perpausaren egitura sintaktiko horretatik at alegia. Hauek deskribatu eta sistematizatzeko, bada, perpausaren muga gainditzen duen hizkuntzalaritza edo gramatikaren ikuspegia aplikatzea litzateke egokiena (Bernárdez 1981, 1982, 1987 eta 1995; Fuentes<sup>45</sup> 1987, 1990, 1995a, 1995b, 1998, 1999 eta 2000).

Una gramática del texto, entonces, es una gramática definida en términos de la clase de objeto que debería describir de manera explícita, esto es, “textos”. Asimismo, la lingüística del texto, así como la “sociolingüística”, no debe caracterizarse en términos de ciertos métodos o modelos, sino en términos del alcance, del terreno o de las clases de objetos y problemas pertinentes a este tipo de estudio. (Van Dijk 1989: 18).

Egun, hizkuntzalaritzaren barrenean, testura zuzendutako hizkuntza-ikuspegiak ugariak dira (Bernárdez 1987; Fuentes 1996). Horren lekuko goian aipaturiko Hizkuntza-pragmatika, Enuntziazioaren hizkuntzalaritza, metadiskurtsoaren azterketak eta orain aztergai dugun Testu-hizkuntzalaritza, beste hainbaten artean.

1960ko hamarkadarako, jada, Alemaniako bi aldeetan testu-hizkuntzalaritzako korrante berri bat sortu zen, besteak beste, Janos Petöfik eta Harald Weinrich-ek bultzatua. Espainiara ere zabaldu ziren korrante horren adarrak: literatur teoriarik García Berrio (Petöfi & García Berrio 1979) eta Albaladejo (Albaladejo Mayordomo 1986) izan dira zabalzaile

<sup>42</sup>Testu-plangintzan edo antolamenduan ere eragiten dute. Esaterako “digresioa”, testuaren hasierako plangintzan egon ez arren, une jakin batean garrantzizko bihurtu den informazioa aditzera emateko erabiliko dugu.

<sup>43</sup>Esatariari argudio-haria aurrera eramateko bitarteko egokia gertatzen zaiola ikusiko dugu enuntziatu parentetikoen komunikazio-eginkizunari dagokion sailean, eta bereziki “Argudiatzeko diskurtso-estrategia erretoriko-pragmatikoak” izenburua daraman (9.3) atalean.

<sup>44</sup>Oviedoko eskolakoek perpausaren egitura sintaktikoaren barrenean aztertzen dituzte guk parentetikotzat joko ditugun hainbat enuntziatu. Eskola honetakoek, geroxeago ikusiko dugun bezala, “funtzio intzidentalaren” barrenean aztertzen dituzte.

<sup>45</sup>Linguista honek garbi du, eta hori arrazoitzen ahalegindu da bere lanetan, enuntziatu parentetiko hauek perpausetik at kokatzen direla: “su ámbito, como diremos más adelante, está en la macroestructura textual” (Fuentes 1998: 147), edota “De nuevo estamos en la macroestructura que, como es lógico pensar, se marca de forma marginal en su manifestación entonativa”. (1998: 151).



nagusiak (Portolés 1993), eta hizkuntzalaritzan, berriz, Bernárdez (1982, 1987 eta 1995). Esparru anglosaxoian, bat aipatzekotan M.A.K. Halliday & R. Hasan (1976) aipatu behar (erreferentzia nagusizat liburu hau hartzen du, gainera, gaztelaniazko lanetan garrantzia duen H. Mederos Martinen *Procedimientos de cohesión en español actual* (1988) liburuak). Euskal esparruan ere bada perpaus-mugen haustura metodologikoa aldarrikatzen duen lanik. Begizatutako batzuk honako hauek izan dira: Osa (1990), Zabala & J.C. Odriozola (1992), Ezeiza (1995), L. M. Larringan (1995), Zabala (1996), Makazaga (1996), Idiazabal & Larringan (1998, 2005), Esnal (2008), eta abar.

### 2.3.1.1 TESTU-GRAMATIKA

*Testu-hizkuntzalaritza* izendapenaren azpian arras desberdinak diren ikuspuntu eta zientzia-diziplinak biltzen dira (Van Dijk 1989: 10).

El desarrollo de la gramática del texto no ha sido un movimiento unificado. Al contrario, se han llevado a cabo investigaciones en varios países desde muchos puntos de vista, sin mucha inspiración mutua. (Van Dijk 1989: 10).

Joera horiek pixka bat laburbiltzeko hiru azpisail nagusi bereiziko ditugu (Casado Velarde 1993):

- a) Testu-hizkuntzalaritza: aztergaia testua du (testua bere osotasunean hartuta) eta ez da hizkuntza jakin bateko testura mugatzen.
- b) Testu-gramatika: perpausaz gaindiko gramatika (*gramática transoracional*) nahiz elkarrizketaren analisisa (*análisis de la conversación*) izendapenak eman izan zaizkio. Hizkuntza jakin bateko testuak ditu azterkizun; hau da, hizkuntza horrek dituen gramatika arauetan oinarriturik, perpausaren muga gainditzen duten gertakizunak ditu aztergai: hitzen ordena, elipsia, topikalizazioa, numerazioa, anafora, diskurtso-antolatzaileak, etab. Hortik datorkio perpausaz gaindiko gramatikaren izendapena ere (Casado Velarde 1993: 10).
- c) Bi ikuspuntuaren arteko uztardura.

Guk aztergai ditugun testu-baliabideak jorratzeko testu-gramatika edota testu(inguru)a kontuan izango duen gramatikagintzara jo beharra ikusi dugu. Azken batean, hizkuntza mailan arautuak dauden eta perpausaren muga gainditzen duten testu-baliabide zehatz batzuen deskripzio eta analisisa baita guk bideratu nahi duguna<sup>46</sup>.

Halaz ere, ez gara testu-gramatikaren barrenean buru-belarri sartuko; ez da gure asmoa gramatikagintza honek jorratzen diharduen teoria eta ikusmoldeak berariaz aztertzea<sup>47</sup>. Guk, enuntziatu parentetikoak aztertzeko, perpausaren muga metodologikoa gainditu eta testura lerratu beharra ikusi dugu. Ondorioz, testua aztertzeko testu-gramatikaren ikusmoldeetik garatzen diren hainbat adigai geure egin eta gure azterresparruari egokitzeko ahalegina egingo dugu. Aurrera baino lehen, bada, garrantzizkotzat jotzen ditugun adigai hauek mugatuko ditugu:

- Diskurtso eta testuaren arteko bereizketa,
- Kohesioa eta koherentzia, “testualitatearen” oinarrizko bi baldintza, eta
- Makroegitura, mikroegitura eta gainegitura (edo testu-tipoa).

Gatozen, bada, banan-banan termino hauek definitu eta gure aztergaiari egokitzera.

<sup>46</sup>Testura zabaltzen den ikuspegi honek ere bere sortze-izaera justifikatu beharra izan du. Van Dijk-ek (1989: 18-19) honako argudioak ematen ditu ikuspegi berri honen alde:

“1) las teorías lingüísticas, y las gramáticas en particular, deben dar cuenta de la estructura lingüística de emisiones *completas*, es decir, también de las emisiones de secuencias de oraciones;

2) hay propiedades gramaticales *más allá de la frontera de la oración*, por ejemplo, relaciones semánticas entre oraciones;

3) un estudio del discurso permite *generalizaciones* sobre propiedades de oraciones compuestas y propiedades de secuencias de oraciones;

4) ciertas propiedades lingüísticas, tales como la noción de macroestructura, pertenecen a unidades suprasegmentales como, por ejemplo, fragmentos, párrafos, etc., del universo;

5) la relación entre la gramática y la *pragmática* presupone una descripción gramatical de secuencias de oraciones y propiedades del discurso (...)

6) una gramática del texto es una base más adecuada para una relación sistemática con otras teorías del *estudio del discurso*, como la estilística, la retórica, la poética, el estudio de la narrativa, etc.;

7) una gramática del texto nos da una mejor base lingüística para elaborar modelos cognoscitivos del desarrollo, la producción y la comprensión de la lengua (y por lo tanto del discurso);

8) una gramática del texto proporciona una mejor base para el estudio del discurso y la conversación en el *contexto social interaccional e institucional*, y para el estudio de tipos de discurso y del uso de la lengua en distintas *culturas*”. (Etzana autorearena da).

<sup>47</sup>Testu-gramatikaren jatorrian sakontzeko helburua duenak jo beza lehen aipaturiko lanetara, eta baita, Bernárdez (1987) eta J. Petöfi (1979) autoreen lanetara. Mundu honetan lanean diharduten autore esanguratsuenek idatzitako artikulua biltzen dituzte.

### 2.3.2. Zenbait adigairen mugatzea

#### 2.3.2.1. TESTUA VS DISKURTSOA

Orain arte `testu` eta `diskurtso` adigaiak, oro har, sinonimotzat jo ditugu eta bata bestearen tokian jarri. Baina bi adigaiok benetan sinonimo ote dira?

Galdera honi guztiek aho batez onartzen duten erantzuna ematea ez da batere samurra. `Testu` eta `diskurtso`<sup>48</sup> adigaien arteko muga ikusmolde teorikoen arabera alda daiteke, izan ere. Testu-hizkuntzalaritzan, esate baterako, *testua* hizkuntza osagai duen komunikazio-egitura konplexua da. Baina testu-hizkuntzalaritzaren barrenean, Lundquisten arabera (1980), bi ikusmolde nagusitzen dira: kanpokoak eta barnekoak, eta, ikusmolde hauen arabera ere, *testuaren* ulerkera aldatu egiten da. Kanpokoak osotasun gisa hartzen du, hots, enuntziatio-ekintza oso gisa; eta barnekoak, berriz, egitura sintaktiko andana gisa. (Fuentes 1996: 14).

Adam-ek (1990) testua eta diskurtsoa bereizi egiten ditu, eta testu-auziei aurre egiteko bi jokamolde edo teorizazio-ardatz nabarmentzen ditu: testu-gramatikarien ikuspuntua eta hurbilbidea batetik, eta, bestetik, diskurtsoaren analisia erdigunetzat duten ikerketena.

Autore honen arabera, *diskurtsoa* hitzezko objektu materiala den heinean *testua* ere bada, baina ez `testua` bere adiera hertsian edo teknikoan. Adiera hertsian, testua objektu teorikoa dugu, hots, definizio bidez sortutako objektu abstraktua, berau sortu deneko ekoizpen-baldintzak eta, oro har, hizkuntzaz kanpoko testuingurua alde batera utzita:

DISCOURS= TEXTE + CONDITIONS DE PRODUCTION

TEXTE= DISCOURS – CONDITIONS DE PRODUCTION

Formula horretan ikusten denez, ahozko nahiz idatzizko enuntziatu-hurrenkera testu bidez datorkigu. Horixe da `testu` adigaiaren erabilera arrunta. Baina hitzezko objektu material edo testu horren analisia bi ikuspegitatik egin daiteke, eta, beraz, bi “objektu teoriko” mugatzeko bidea dagoela baieztatu dezakegu. Batean, testua eta berau sortu deneko ekoizpen-baldintzak eta kezkak hartuko dira kontuan; hau da, testu-ezaugarriak eta komunikaziozkoak. Horrela gertatzen da enuntziatuaren eta DISKURTSOAREN analisisetan.

<sup>48</sup> Joxerra Garziak bere tesian “discourse” itzultzeko *berbaldi* terminoa hobetsi du; guk, ordea, nahiago izan dugu bere horretan utzi. Lehen ere nahikoa lan badugu *testuaren* eta *diskurtsoaren* arteko aldea azalerraten, horien baliokide den beste termino bat sartu gabe.

Bada, ordea, beste aukerarik: ekoizpen-baldintzak eta, oro har, hizkuntzaz kanpoko testuingurua alde batera utzi eta testuaren barneko analisisa egitea. Hortik sortutako objektu teorikoa TESTUA litzateke, bere zentzu hertsian.

Van Dijk (1989: 20-21) ere ohartzen da `testu´ eta `diskurtso´ adigaiak batera eta nahasian dabilzala hizkuntzalaritzan. Honen ustez, nahasketaren arrazoia, alemanez eta holandesez ez bezala, ingelesez eta hizkuntza erromanikoetan —euskaraz ere bai gehituko dugu guk— *testu* termino soilaren ordeaz, *testu* eta *diskurtso* bi termino tekniko<sup>49</sup> garatzean datza.

(...) debemos distinguir, o por lo menos aclarar la confusión, entre los términos texto y discurso. Una de las causas de la confusión es el hecho de que en alemán, en holandés y en otras lenguas, de las dos palabras, sólo existe “texto”. (...) La ambigüedad en inglés (y en las lenguas romances) entre “texto” y “discurso” se ha explotado para establecer dos términos técnicos. (Van Dijk 1989: 20).

Van Dijk-en ustez, diskurtsoa beha daitekeena da, hots, benetan igorri dena bere akats, inkoherentzia eta guzti; testua, berriz, abstraktuagoa da:

Así, un discurso es una unidad observacional, es decir, la unidad que interpretamos al ver o escuchar una emisión. Es decir, una gramática sólo puede describir textos, y por lo tanto sólo da una aproximación de las verdaderas estructuras empíricas de discursos emitidos (...) una gramática (del texto) o cualquiera otra explicación de la teoría del discurso sólo puede dar cuenta de ciertas estructuras regulares y sistemáticas del tipo de discurso (y no, por ejemplo, de la manera específica en que Pedro pronuncia ciertas palabras o de su manera extraña de formar conexiones oracionales). (...) Un texto, por otra parte, es más abstracto, un constructo teórico de los varios componentes analizados en la gramática y en otros estudios discursivos. (Van Dijk 1989: 20-21).

Hein batean behintzat, bat egiten du Adam-ek (1990) proposatuarekin: testua objektu abstraktua dela, eta diskurtsoa, berriz, benetan igortzen den objektu zehatza. Badirudi, bada, testua produktua edo emaitza dela; eta diskurtsoa, berriz, produkzioa, ekoizpena, hau da, testua bere funtzionamenduan aztertuta:

---

<sup>49</sup>Euskaraz ere, `testu´ eta `diskurtso´ adigaiak, bi adigai tekniko bihurtu dira. Ikus, bestela, Larriganek (1998) egiten duen ahalegina adigai hauek kontzeptualizatu eta termino tekniko bezala erabiltzeko.

(...) hay una corriente lingüística europea que considera la oposición “texto-discurso” parecida a la de “frase-enunciado”. Es decir, el texto es una construcción teórica, un modelo, que se materializa, se contextualiza como discurso. El discurso sería, pues, el texto más el contexto, el texto en funcionamiento. (Badia & Bassols 1997: 18).

Badia & Bassols-en aipu hau ere, oro har, bat dator Adam-ek (1990) nahiz Van Dijk-ek (1989) proposatuarekin. Guk ere onartzen dugu bataren eta bestearen artean badela alderik eta bata (testua) produktu edo objektu abstraktua den bezala, bestea (diskurtsoa), ekoizpenari edo produkzioari gehiago dagokiola; testua bere funtzionamenduan, alegia. Halaz ere, diskurtsoa, aztergai bihurtzen den unetik bertatik, unitate izatera iristen da, eta zentzu horretan produktua da, estatikoa da. Beraz, alde horretatik, praxis mailan edo analisi-unitate bezala, biak sinonimo lirateke eta batak zein besteak objektu bera ematen du aditzera.

Por tanto: texto = producto, discurso = producción. Pero nosotros lo vemos como una unidad y en este sentido es un producto, es estático, como objeto de análisis. De ahí que hablemos de texto. (Fuentes 2000: 137).

Salvío Martín Menéndezek (1995: 243) *testua diskurtsoaren* osagai bezala ikusten du. Honentzat, “diskurtsoa”, diskurtso-subjektuaren eta testuaren uztardura da eta **Diskurtsoa** = **S** (diskurtso-subjektua) + **T** (testua) axiomaren bitartez ematen du aditzera. Diskurtso-subjektua da, halaber, diskurtso jakin bati “koherentzia” edo benetako zentzua ematen diona, testuinguruarekin (kotestu nahiz kontestutarekin) harremanetan. Bestalde, autore honek ere “testua” unitate formal eta abstraktuagotzat jotzen du eta bere ezaugarri nagusia kohesioa duela esan.

*Testuaren eta diskurtsoaren* definizio teknikoak aintzat hartzen baditugu ere, esan bezala, lan honetan zehar biak sinonimotzat joko ditugu; diskurtsoa ere, hondarrik hondarrean, aztergai edo analisi-unitate dugun momentutik, produktu edo emaitza dugulako, hau da, testu bezala atzematen dugulako. Horrek ez du esan nahi, ordea, testua bere bakarrean, ekoizpen-baldintzak kontuan hartu gabe aztertuko dugunik; beharrezkoa deritzogu, orain arte behin eta berriz azpimarratu dugun bezala, testu horretan zuzenean eragiten duten kanpoko faktoreak (esatari / norentzakoak, testuingurua...) aztertzeari. Honenbestez, testua = diskurtsoa berdintza onartzen dugu, baina, beti ere, ekoizpen-baldintzak kontuan izanda.

Testuaren eta diskurtsoaren arteko bereizketa hau, bada, hagitz funtsezkoa da hauekin harreman estuan dauden beste adigai batzuk, “koherentzia” eta “kohesioa”, esate baterako, ongi bereizteko, eta baita ere, enuntziatu parentetikoaren analisia antolatzeke ere. Analisisian, izan ere, testu adigaiaren bi ulerkerak darabiltzagu aztergaiaren oinarri: “analisi sintaktiko testuala” izenburupean testua hitzezko objektu material bezala aztertuko dugu; esan nahi da perpausak baino maila goragoko hizkuntz unitate formalaz dihardugula eta bertan prozedura formalak ezagutu, definitu eta sailkatuko ditugula. Bestetik, enuntziatu parentetikoaren komunikazio-eginkizuna aztertzerakoan, testua komunikazioaren alderditik aztertuko dugu; hau da, komunikazioko ekoizpen-baldintzak kontuan izanik, enuntziatu parentetikoak zertarako darabiltzan aztertuko dugu, eta objektu teoriko horri *diskurtsoa* deituko diogu.

### 2.3.2.2. KOHESIOA ETA KOHERENTZIA

Goian esan dugu ulergarri ez ezik argigarri ere gertatzen zaizkigula, halere, *testua* eta *diskurtsoa* bereizteko ahaleginak. Argigarri, elkarrekin eta nahasian dabiltzan bi termino hauek azaltzeko ere balio dutelako: koherentzia / kohesioa.

Horren adierazgarri, gatozen Salvio Martín Menéndezek egiten duen bereizketara:

$$\text{Diskurtsoa} = S + T$$

Honentzat, badirudi diskurtsoa testua (bere adiera hertsian hartuta) baino zerbait orokorragoa dela, diskurtsoak testua bera barne hartzen baitu. *Testua*, ondorioz, *diskurtsoa* aztertzeke abiapuntua da, diskurtsoko subjektuarekin batera.

*Diskurtso-subjektua*: Hauke da diskurtsoari koherentzia ematen diona; diskurtso bat koherentetzat<sup>50</sup> jotzeko beharrezkoa dugun osagaia. Subjektu honek diskurtso-estrategiak kontrolatzen eta praktikan jartzen ditu ondoren norentzakoak (edo testua aditu nahi lezakeen edonork; edozein hartzailek, bada) berreraiki eta diskurtsoari zentzua eman diezaion. Horretarako, baliabide hauek deskribatzeke hasi, beren funtzioa azaltzeke jarraitu eta azkenik mezua interpretatzera iritsiko da.

Beraz, esatariak diskurtsoa norentzakoari igortzean, estrategia batzuk erabiltzen ditu diskurtsoaren koherentzia atzemateke. Koherentzia, bada, diskurtso-estrategia horiek atzeman eta azaltzeke erdiets dezakegu.

---

<sup>50</sup>Koherentzia aztertzeke, testuaren kanpotik hurbiltzea proposatzen du Martinek. Beheraxeago ikusiko dugu hurbiltzeke ugari egin izan direla koherentzia aztertzeke.

Un sentido determinado que no es otra cosa que una explicación que depende de la situación y de la interpretación de la serie en la que esa situación se inserta. (Martín Menéndez 1995: 243).

Aipua aditzera ematen duenez, Martín Menéndezek koherentziaz ematen duen definizioa ez da testu-barneko definizioa, hots, koherentzia ez da definitzen testuaren barneko irizpideen bidez; testutik (zentzu hertsian hartuta) at dauden osagaien bidez baizik. Koherentzia bi bidetatik azal baitaiteke:

No obstante, las distintas teorías explicativas que se han elaborado sobre el fenómeno de la coherencia textual han seguido dos caminos distintos: o bien han intentado aclarar la coherencia mediante criterios internos al texto, o bien han tratado de justificarla por un elemento externo (...) (Maldonado Alemán 1995: 164).

Bi bide horietatik, bada, Martín Menéndezek koherentzia kanpoko osagaien baitakoa izango da; hau da, *testu* unitatea diskurtsoa aztertzeko abiapuntua da, baina ongi interpretatu eta aditu ahal izateko, diskurtsoko subjektuak ere azertu beharrekoak dira.

*Testua*: Martín Menéndezek unitate semantikotzat jotzen du eta “kohesioa” testualitate ezaugarriaz definitzen du: “es una unidad semántica que se define por la propiedad que la caracteriza: la cohesión” (1995: 243). Kohesioa gramatikako ezaugarria da: lexikoari eta gramatikari esker lor daitekeena (Halliday-Hasan 1976). Hau, testuko osagaien arteko harremana bideratzeko formazko baliabideek osatzen dute, nahiz sintaktikoek, nahiz semantikoek.

Beraz, Martín Menendezentzat kohesioa testuaren ezaugarri edo osagaia da eta koherentzia berriz, diskurtsokoa, estrategia-mailakoa (Martín Menendez 1995: 243). Koherentzia eta kohesioaren arteko bereizketa hau lot dezakegu Charolles-ek egiten duenarekin. Autore honek (1988) “Les études sur la cohérence, la cohésion et la connexité textuelles depuis la fin des années 1960” artikuluan honela dio:

D’abord les chercheurs ont pris l’habitude (maintenant communément partagée) d’établir certaines distinctions parmi les notions habituellement utilisées pour désigner les phénomènes de continuité textuelle. La terminologie est loin d’être harmonisée, néanmoins tout le monde est à peu près d’accord pour opposer d’un côté la cohérence, qui a à voir avec l’interprétabilité des textes, et, de l’autre, les marques de relation entre énoncés ou constituants d’énoncés concernant ces marques, depuis M.A.K. Halliday et Hasan (1976), on

tend á les reagruer sous le terme générique de cohesion (R. de Beaugrande, 1980; W. Dressler, R. Beaugrande, 1981; R. Martin, 1983; N. Enkvist, 1986, entre autres). (Charolles 1988: 53).

Gure helburua ez da tesi honetan testu koherentziari eta kohesioari buruz azalpen xehe-xehea egitea. Gu konformatzen gara adigaiok bereizi eta mugatzearekin. Horretarako, koherentzia aztertzeo eta definitzeo erabili izan diren hurbilbide-teoriak laburbilduko ditugu Antonio Villarnovori (1990: 229) jarraituz.

Hurbilbide hauetan bi azpisail nagusi bereiziko ditu: koherentzia testu barneko hastapenari edo printzipioari esker azaltzen ahalegindu diren ikuspegiak (barneko koherentzia) edota koherentzia azaltzeo testutik at dagoen hastapen edo osagaiaren batez baliatzen direnak (kanpoko koherentzia).

*Barneko koherentzia:* Testuaren edo diskurtsoaren koherentzia aztertzeo testu baretik egindako hurbilbideak sistematizatuko ditu artikuluan. Gu ez gara hurbilbide hauetariko bakoitza norik erabili duen esatera lerratuko. Bibliografia horren bila dabilenak jo beza Villarnovoren (1990) nahiz Charolles-en artikuluetara (1988). Testuaren baretik egindako ahaleginak Villarnovok honela laburbiltzen ditu:

1) Koherentzia aztertzeo kohesioaren ikuspuntutik egindako azalpenak. Gerta daiteke, ordea, testua erabat kohesionatuta egon arren, koherentea ez izatea. Testuari koherente, azken batean, testu hori zuzentzen zaion noentzakoak iritzi beharko dio.

2) Koherentzia diskurtsoaren topikotik edo tematik<sup>51</sup> abiatuz aztertzeo ahalegina. Bide honetatik abiatzen den autore batek, Giorak (1985), testuak koherentzia izateko honako baldintza hauek bete behar dituela adierazten du:

- Diskurtsoaren sekuentzia bakoitza mintzagai-zati izatea.
- Digresioak<sup>52</sup>, digresio direla zehazteko tipografia-demarkazioaren bidez edo marka baten bidez azaltzea. Horrelakoetan, testuak koherente izaten jarraituko du autore honentzat, baldin eta esatari honek berariaz adierazten badu esan duena digresioa dela, gai nagusitik ihes egiten duena.

<sup>51</sup>Igone Zabalak ere (1996), koherentziaren oinarrian lotura tematikoa ikusten du: "Koherentzia hori lortzeo orduan berebiziko garrantzia dute lokailuek eta testuan zehar ezartzen diren erreferentzia-sareak. Baina badago antzematen zailagoa izanik ere, testuaren koherentziaren oinarrian bertan dagoen beste fenomeno bat, lotura tematikoarena alegia". (1996: 15).

<sup>52</sup> Digresioak enuntziatu parentetikoaren azpisailtzat jo ditugu.



Giorak egindako ekarriak galdera bat sorrarazi digu: digresioak edo enuntziatu parentetikoak testuaren “koherentzia” hautsi egiten al du? edota ez ote da testuaren koherentzia orokor hori erdiesteko bitarteko? Digresioei esker ez ote da inferentzien errota martxan jartzen? Ez ote dute hauek ere esatari-norentzakoek batean duten informazio pragmatikoa aktibatzen laguntzen? Eta, beraz, ez ote dira norentzakoak testu bat koherentea den edo ez jo ahal izateko beharrezkoa duen informazioa? Beude bere horretan galderok. Hau guztia digresioen berriazko azterketa egitean hausnartuko dugu.

*Kanpoko koherentzia:* ikuspegi honetatik egindako ahaleginak testutik at kokatzen dira: testuari koherentzia subjektu interpretatzaileak damaio eta, beraz, testuaren koherentzia ez da testuan bertan kokatzen.

Honako hau da Villarnovok aipatzen duena:

Según este intento explicativo, la coherencia no estaría tanto en el texto como en el sujeto intérprete del texto; la coherencia sería más bien una propiedad atribuida por el intérprete y no algo objetivo de los textos. Naturalmente, aquí se sitúa la coherencia en un elemento externo al texto: en este caso, en el emisor o receptor, que sería quien dotaría de sentido al discurso. (Villarnovo 1990: 233).

Horrek ez du esan nahi, haatik, koherentzia interpretazioaren ikuspuntutik aztertzen dutenek testu barneko koherentzia erabat ezezten dutenik. Hauek, maiz aski, onartzen diote testuari koherentziaren ezaugarri objektiboa. Hauen arabera, interpretazioa subjektuen (interpretatzaileak) eta objektuen (testua) arteko prozesu dialektikoa da. Esan dugunaren lekuko, ikuspegi honetara lerratzen den Conte autorearen bereizketa dakargu:

Así Conte (1988c) distingue una coherencia *a parte subjecti* (o por parte del sujeto) y una coherencia *a parte objecti* (por parte del objeto). Es decir, reconoce una propiedad objetiva de los textos por la cual éstos serían coherentes, y, juntamente con ella, una tendencia en el intérprete a atribuir coherencia a los textos. (Villarnovo 1990: 233).

Koherentzia aztertzeke ulerkera honen arabera, testua instrukzio- edo jarraibidemultzoa da. Instrukzio-sekuentzia hauek norentzakoa gidatu egiten dute, bai testuaren zentzua interpretatzeko unean, bai testuaren koherentzia eratzerakoan. Eta, beraz, testua interpretatzea prozesu aktiboa, sortzailea da (inferentziatzakoa); ez baita deskodetze soila.

Interpretatzean, izan ere, testuan bertan agertzen ez diren zerak gehitzen zaizkio, hots, inferentzia bidez jasotako informazioa<sup>53</sup>.

Ildo horretatik, interpretatzea “puzlea” egitearen pareko egintza da. Helburua, koherentziazko irudia eratzea da, eta horretarako hainbat pieza sortu beharrean aurkitzen gara.

Guk ere uste dugu testuaren koherentzia subjektuaren interpretazioan oinarritzen dela, baina subjektuak koherentziazko irudia eratzeko ezinbestekotzat jotzen dugu testuak berak barneko koherentzia izatea. Alegia, kanpoko koherentziaren oinarri-oinarrian dago barneko koherentzia, eta bata bestea gabe hanka-motz dakusagu.

Honenbestez, koherentzia kohesioa baino abstraktuagoa eta sakonagoa<sup>54</sup> den maila bati dagokio: testua makroegiturarekin edo, jarraian ikusiko dugun bezala, esatariaren intentziazko antolamenduarekin uztartzen duen harreman-sarea da. Bestela esan: esatariak, eduki bat aditzera eman nahi duenean, hots, eduki hori komunikatzeko intentzio jakina duenean, hizkuntza-osagaiak (unitateak, enuntziatuak, paragrafoak...) hierarkia-mailetan antolatzen ditu. Beraz, informazioa egituratzea, antolatzea lortzen du, baina funtsezkoa da egitura hori intentzioari —idaztera bultzatu duen intentzioari, alegia— egokitzea. Eta egokitzapen horri deritzogu koherentzia. Baina egokitzapen hori, intentzioaren eta antolamenduaren arteko lotura hori, norentzakoak atzeman behar du, eta horretarako, *puzlea* berreraikitzeke goian aipaturiko informazio guztiez baliatuko da: mundu-ezaupideaz, testuinguruaz...

(...) se alcanza [la coherencia] cuando hay continuidad de sentidos o ausencia de contradicción cognoscitiva entre el conocimiento activado por las expresiones del texto y el conocimiento del mundo de los participantes en la comunicación. (Alcaraz 1988: 15).

Beraz, koherentzia aztertzeke hainbat irizpide izan behar ditugu kontuan:

Por lo tanto, si en la cohesión parece haber acuerdo en que apunta a las relaciones formales, en la coherencia se manejan diversos criterios: relación con la intención del hablante, conexión con el oyente, adecuación al estado de cosas, el entorno pragmático que rodea el texto. (Fuentes 1996: 67).

<sup>53</sup>Ikus, enuntziatu parentetikoak informazioa testuinguruan kokatzeko estrategiatzat jo dugun atala (§ 9.5.3.) eta bertan inferentziez dioguna.

<sup>54</sup>Sakonagoa diogu koherentzia, nolabait esateko, mamari, ideiei eta informazioaren antolamenduari begira gehiago dagoelako. Mendigurenek (1996: 599) esango digu koherentzia kontzeptuzko lotura ziurtatzen duten prozedura-multzoa dela.

‘Koherentzia’ adigaiak zehazten hainbeste luzatu bagara arrazoi honek bultzatu gaituelako izan da: enuntziatu parentetikoek testuarekin oro har duten harremana koherentzia mailakoa dela uste dugulako.

### 2.3.2.3. MAKROEGITURA, MIKROEGITURA ETA GAIN-EGITURA

Aunque la separación entre macroestructura (organización textual), superestructura (tipo de texto) y microestructura (elementos que componen los enunciados) es difícil de hacer, y cada plano está interrelacionado e imbricado en el resto, los analizamos aparte por utilidad metodológica. (Fuentes 1999: 38).

Atal honi sarrera emateko aipu hau adierazgarria iruditu zaigu. Hasieratik bertatik, oso labur bada ere, hiru egitura-mota hauek oro har ulertzen dena adierazteaz gain, bereizketa hau metodologiazko aukera besterik ez dela aditzera ematen digulako. Eta gure ustez ere atalkatze hau metodologiazko aukera da, baina funtsezkotzat jotzen dugu hauek ongi aditzea enuntziatu parentetikoak aztertzeke.

#### 2.3.2.3.1. Makroegitura eta mikroegitura

‘Makroegitura’ eta ‘mikroegitura’ adigaiak Van Dijk-ek era honetara definitzen ditu:

La macroestructura textual (...) o estructura profunda textual es aquella parte del texto que forman las relaciones subyacentes del producto lingüístico que sobrepasan el ámbito oracional; por otra parte, la microestructura textual es el conjunto formado por las estructuras de superficie de las oraciones del texto y por las estructuras subyacentes de dichas oraciones. (T.A. Van Dijk 1972, 6, 17, apud García Berrio & Albaladejo 1983: 143).

Makroegitura testuala, bada, perpausaren esparrua gainditzen duten barneko harremanetan oinarritzen da. Mikroegitura, aitzitik, testuko perpausen azaleko nahiz azpiko egiturez osatutako multzoa da.

García Berriorentzat (1983: 144-145) makroegitura izaera dinamikoa duen egitura abstraktua da. Honi esker testuko mintzagai edo topikoak hierarkikoki antolatzen eta garatzen dira. Maila ugari ditu eta makroegiturazko antolamenduaren oinarria testu-topikoa edo testuko mintzagaia da: “estructura semántica nuclear de un texto” (García Berrio 1983: 145).

Testuaren muintzat jotzen du eta bertan mintzagai eta azpimintzagaiak informazio-ikuspuntuaren arabera eta testu-tipoaren arabera antolatzen dira. Beraz, makroegitura testuaren organizazio sintaktiko-semantikoa da, testua bere osotasunean hartuta. (A. Garcia Berrio 1983: 156).

Van Dijk-ek (1980, 1983), berriz, makroegitura egitura semantikotzat jotzen du, eta honen ustez, makroegiturak testuaren koherentzia orokorrari eragiten dio:

Hemos supuesto que las macroestructuras de los textos son semánticas: así pues nos aportan una idea de la coherencia global y del significado del texto que se asienta en un nivel superior que el de las proposiciones por separado. De esta manera, una secuencia parcial o entera de un gran número de proposiciones puede formar una unidad de significado en el nivel más global. (Van Dijk 1983: 55-56).

Honenbestez, orain arteko aipuetatik ondoriozta dezakegu testuan badela informazioaren antolamendu edo organizazioa, eta antolamenduari esker, gai garela testuan zatiak bereizi eta hauen artean harremanak ezartzeko.

Enuntziatu parentetikoak testuaren antolamendu edo organizazio honetan eragiten ote dute?

Lehenik eta behin esan dezagun enuntziatu parentetikoak perpausaz gaindiko harremanak bideratzen dituztela; izan ere, enuntziatu parentetikoaren eta testuaren edo E1 eta E3 enuntziatuen artean ez dute koordinaziozko edo subordinaziozko harremanik bideratzen; hauen arteko harremana testu mailakoa da, testuaren koherentzia orokorrari eragiten dion bezainbatean. Sintaxiaren errepresentazioan, enuntziatu parentetikoak perpausetik harago dagoen maila batean (“en un nudo por encima de la oración” esango du Montolíok, 1993: 122) kokatzen dira. Beraz, perpausaz gaindiko baliabideak dira.

Podríamos decir, en general, que todos los mecanismos supraoracionales afectan a la organización informática del texto. Es decir con el paso de la estructura gramatical (oración) a la comunicación concreta ya realizada (enunciación), pasamos a la inscripción del contexto y del hablante. (Fuentes 1999: 38).

Ez da perpausaren eskema konplexuan integratzen den egitura, Oviedoko eskolak definitzen duen “funtzio intzidentalarekin”<sup>55</sup> gertatzen den antzera; aitzitik, modalizazioan eta

---

<sup>55</sup>Funtzio intzidentala beherago (§ 3.3) aztertuko dugu; garrantzizkoa baita, aztergaia sistematizatzeko ahaleginei begira, funtzio hau enuntziatu parentetikoetatik bereiztea.

enuntziatio mailan kokatzen dira. Azken batean testuaren informaziozko nahiz argudiozko egiturari edo argudiatzeari eragiten diote: daturen bat gehitu, azaldu, ñabartu, zehaztu, iruzkindu, parafraseatu, birformulatu, etab. Funtzio horiek guztiak betetzeko baliabide egokiak gertatzen zaizkio Mitxelenari; ez bakarrak, funtzio berbera bestelako egiturez ere eman baitaiteke aditzera (ez ezinbestean enuntziatu parentetikoaren bidez), baina bai usu erabiltzen dituenak.

Kotschi (1986: 208-209) metadiskurtsozko iruzkinez eta ebaluatzeko baliabideez ari delarik, hots, goian aipaturiko funtzio horiezaz ari delarik, baliabide hauek bete-betean testu-antolamenduari dagozkiola aditzera emango digu:

(...) nous considérons que les procédés discursifs illustrés (...) relèvent du domaine de la composition du texte. Ce faisant, nous choisissons une perspective qui exige de considérer tout ce qui se réfère à la composition du texte sous l'angle de son caractère actionnel. Cela signifie que nous considérons les phénomènes de composition comme des résultats d'activités verbales réalisées par les interlocuteurs et interprétables à partir de la structure du texte. Ceci nous amène à dire que les procédés discursifs COMMENTER et EVALUER (ainsi que beaucoup d'autres, comme p. ex. PARAPHRASER, PRECISER, THEMATISER, COMPLETER) sont en fait des actes verbaux d'un type particulier que nous dénommons «actes de composition textuelle». (Kotschi 1986: 208-209).

Kotschik "parentetiko" terminoa erabili gabe diskurtsozko baliabidetzat jotzen dituen estrategia hauek (iruzkintzeko, epaitzeko, zehazteko... balio dutenak), oro har, enuntziatu parentetikoek duten eginkizun bera dute eta, beraz, zilegi izan bekigu bata bestearekin parekatzea. Guztiek testuaren edo diskurtsoaren antolamenduan eragiten dute, hots, makroegituran.

Makroegitura, bada, perpausaz gaindi dagoen egitura da eta testuaren osantolamenduari berariaz eragiten dio, baita testu-plangintzari ere. Esan dugunaren lekuko, horra hor digresioa. Honek badu zerikusirik testu-plangintzarekin, "esatariaren hasierako testu-plangintzan egon ez arren jakin batean adieraztea beharrezkotzat jotzen duen informaziotzat" ulertzen dugun heinean.

[La digresión] introduce un enunciado que se presenta como algo recordado en el momento de hablar y no previsto inicialmente. Esto le da un gran relieve informativo porque, además, implica la aparición de una técnica propia del hablar. Se supone que el que escribe

puede volver, corregir su plan inicial de texto. Por ello tiene ese contenido de espontaneidad y fresca que resalta la información que se da. (Fuentes 1999: 62).

Alde horretatik pentsatzekoa da argudio- nahiz informazio-egituran zuzenean eragiten dutela eta baita enuntziazioan (adierazteko moduan), nahiz modalizazioan (esan duena iruzkintzean) ere.

Consideramos macroestructura el nivel organizativo del discurso, donde encontramos la disposición de la información en enunciados y párrafos, así como todo lo relativo a la actitud del hablante (modalidad) y a las circunstancias de la enunciación (el decir). Frente a esto, la microestructura atiende a lo expresado en la oración, al contenido proposicional. (Fuentes 1998: 151).

#### 2.3.2.3.2. GAIN-EGITURA: TESTU-TIPOA

Tesiaren atarikoan genioen Koldo Mitxelenak euskaraz idatzitako testu guztiak aztergaitzat hartzeak baduela bidean galdu eta emaitza objektiborik ez ateratzeko arriskurik. Baina bada mugatze-lanari ekiteko pisuzkoagoa den arrazoirik: euskaraz asko idaztean oso desberdinak ziren testu motak sortu zituen eta aztergaia testu-tipo jakin bati edo besteari aplikatu ondorio-emaitzetan zuzenean eragin dezakeelakoan gaude.

Los enunciados parentéticos no suelen aparecer en los textos puramente informativos, a excepción de alguna aclaración enunciativa. Sin embargo, abundan en los textos de comentario y opinión y, sobre todo, en las columnas fijas de un autor, que a veces están a medio camino entre lo literario y lo periodístico. (Fuentes 2000: 235).

Honenbestez, egitura parentetikoak modu agortzaile batean aztertzeke, testu-tipo jakin bati erreparatu diogu: zinema- edo liburu-kritikei (edo erreseinei), hain zuzen ere, uste baitugu kritikak enuntziatu parentetikoak aztertzeke testu aukerakoak direla. Hondarrik hondarrean, besteren lanen gainean egindako iruzkinak lirarteke.

Corpusaren izaera jakin honek, hau da, besteren lanen gainean egindako iruzkin eta epaietan oinarriturik egote honek, gainera, atek irekitzen dizkio testuartekotasuna nahiz polifonia-fenomenoak bete-betean agertzeko aukerari: testuotan ahots ugariaren oihartzuna nahiz hainbat testu-zatirena (iruzkintzen ari den zinemako nahiz liburuko pasarteak) adituko dugu. Esataria hainbatetan bere esanen nahiz besterenaren enuntziatzaile izango da, baita

berak dioenaren iruzkintzaile ere. Eta hor dakusagu hainbat enuntziatu parentetikoren oinarria. Beraz, pentsa dezakegu erdietsi nahi dugun helbururako, enuntziatu parentetikoaren azterketa agortzaile bat egiteko alegia, testu-tipo egokia izan daitekeela, berak idatzitako testu zientifiko-informatzaile soilak baino egokiagoa; izan ere, azken hauetan bereziki zehaztapena eta azalpena helburu duten enuntziatu parentetikoak atzemango genituzke, baina ez hainbeste bere iritzi-tartekatzaile nahiz modalizatzaile diratekeenak. Hauen esparrua bete-betean iruzkin-epaiak tartekatzeko bide ematen dioten testu motetan aurkituko dugu.

Enuntziatu parentetikoaren erabilera, beraz, testu motaren arabera ote da? edota hautatu dugun idazlearen baitakoa? Galdera hauei zehatz-mehatz erantzuten ez genuke jakingo, baina biek eragiten dutela esaten ausartuko ginateke.

Esate baterako, Carole Laurinek ere (1989: 32) enuntziatu parentetikoak aztertzen diharduelarik, galdera bera egiten dio bere buruari: enuntziatu parentetikoak zer dira estrategia indibidualak, gizabanakoaren arabera? hots, idazlearen estilo jakinaren baitakoa? Ala diskurtso edo testu-tipoaren arabera?

(...) s'agit-il d'une stratégie individuelle? ou est-ce que l'émission de parenthèses est plutôt favorisée par certains types de discours? Un individu qui a un discours évaluatif fera-t-il plus de parenthèses que celui qui s'en tient à un propos très descriptif? (Laurin 1989: 32).

Autore honek ere ez du erantzuten jakingo “ceci est très difficile à mesurer” (Laurin 1989: 32). Guk geuk ez dugu ukatuko idazlearen estiloaren edo idiolektoaren baitakoa izan ez daitekeenik (§ 10), baina, estilo mailakoaz gain, testu-tipoaren arabera ere badela iruditzen zaigu. Alde horretatik bat gatoz Fuentesekin. Autore honen arabera (2000: 235), enuntziatu parentetikoaren aniztasun eta ugaritasun handiagoa aurki dezakegu iritzi-artikulu, iruzkin-testu nahiz autore baten zutabe jakinetan.

Hau horrela bada, zilegi izan bekigu pentsatzea parentetikoaren azterketa eta ondorio-emaitzak ere alda daitezkeela testu-tipoa aldatuz gero. Beraz, emaitza objektibo eta fidagarriak izan daitezkeen testu-tipo edo testu mota jakin bati zuzenduko gatzazkio: filmen eta liburuen kritikei. Baina testu mota jakin honek tipologiaren barnean ba ote du kokalekurik?

Galdera honek, agian, ez du erantzun bakar bat izango, sailkapen irizpideen arabera, hainbat tipologia izango baititugu. Eta gerta daiteke tipologia bakoitzeko toki desberdina izatea. Egoera honen aurrean, guretzat egokiena den tipologia izango dugu begi aurrean —

edo horretan saiatuko gara bederen— ondoren “kritikek” zein toki hartzen duten aztertzeko. Egokiena hautatzeko, ordea, orain arteko tipologiaren ezaugarriak eta mugak argitu behar.

#### 2.3.2.3.2.1. Kritikak eta testu-tipologiak

Si consiguiéramos distinguir una serie de referencias dentro de un grupo de textos similares, podríamos hablar de una tipología textual. (Badia & Bassols 1997: 19).

Tipologiaren auzia, ordea, ez da batera erraza; izan ere, nahiz eta guztiak bat etorri testu-tipologiaren garrantzia zehazterakoan, oraindik ez da guztientzat asebetegarri gerta daitekeen tipologiarik sortu:

A pesar de la necesidad e importancia de la labor tipológica, y a pesar de la abundancia de publicaciones, los logros hasta ahora no son todavía tan satisfactorias como cabría esperar. Estamos aún en el período de los tanteos y los ensayos. (Villarnovo & Sanchez 1992: 16).

Esate baterako, autore hauek onartzen dute testu-tipologia zehaztea dela Testu-hizkuntzalaritzak duen egiteko larrienetakoa:

Una de las tareas más importantes que la lingüística del texto tiene por delante es la del establecimiento de una tipología de textos. (ibid: 15).

Schimdt-ek (1977: 54), berriz, arrazoiak ematen ditu tipologia-langintzaren garrantziaz. Hona hemen laburbilduta:

a) Komunikazio-teoriak erantzun beharra dauka testuen analisi edo sorkuntzarako formulatuta dauden arauak ea testu-tipo guztientzat balio duten ala bakar batzuentzat.

b) Testu-tipoei buruzko kontzeptu “preteorikoak” omen darabiltzate testuak aztertu eta deskribatzen dituzten jakintzek.

c) Testu komunikatiboko teoriaren hainbat arazo (koherentzia, analisia...) ezin dira konpondu tipologiaren arazoiari irtenbide bat eman gabe.



Bertinetto (1982) autorearen planteamendua are eta muturrerago doa. Honen ustez, *testuaren* definizioa bera ere testu-tipologiaren araberakoa da; izan ere, testuaren definizioak aldaketak izango ditu testu-tipoa aldatuz gero, eta ezingo dugu testuaren definizio bat eta bakarra eman.

Orain arteko tipologietan, ordea, hainbat hutsune edo muga ikusten dituzte (Villarnovo & Sanchez 1992:169):

- a) Ikertzaileen artean irizpide orotarikorik ez izatea.
- b) Tipologiak sortzeko estrategia orotariko baten hutsunea.
- c) Sistematikoa ez izatea.
- d) Beste hizkuntza-gaiekin harremanetan aztertu izana: tipologiaren auzia testuaren definizioarekin, edota zeharkako nahiz zuzeneko estiloarekin aztertu izana, etab.
- e) Erabilitako ikuspegi teorikoen hutsuneak.
- f) Testu-tipoen azterketa modu ugaritara egin izana.
- g) Sailkapen-irizpideen batasunik eza.
- h) Sailkapenen balio heuristiko eskasa.

Hutsune horien arrazoietakoa bat oinarri teorikoari dagokio zuzen-zuzenean eta, beraz, egoki iritzi diogu Isenberg-en proposamena aztertzeari; izan ere, Isenberg-en (1987) lana da, hainbat autoreren iritzi (Villarnovo & Sánchez 1992; Bernardez 1995), testu-tipologia baterako baldintzen hausnarketa teoriko nagusia.

Isenbergekin, testu-tipologia bat eratzeko, honako osagai edo elementu hauek ezinbestekotzat jotzen ditu:

- a) Aplikazio-eremua: Osagai honekin, tipologia zein eremurentzat, zein testu-multzorentzat den baliagarri zehazten da.
- b) Tipologiaren oinarria: Ezaugarri honen bidez zehaztuko dugu zein irizpideren arabera eratua dagoen tipologia.
- c) Testu-tipoak edo testu motak. Edozein sailkapenetan emaitza bera da garrantzizkoena, hots, sailkatu diren testu-tipoak. Azken ezaugarri hau, ordea, oso lotuta dago bi aurrekoekin, emaitza haien araberakoa izango baita.

Ezinbestekotzat jotzen dituen hiru ezaugarri horiekin batera, ondorengo beste lau osagaiak ere aipatzen ditu, ezinbestekoak ez badira ere, egokiak diratekeenak:

d) Homogeneitatea (batasuna). Homogeneoak izateko testu-tipo guztiak irizpide beraren arabera sailkatuko dira.

e) Monotipia. Tipologia bat monotipikoa izango da, baldin eta testu bera beste tipoetan sailka ez badaiteke.

f) Anbiguotasunik eza.

g) Izaera agortzailea: ahalik eta testu gehien besarkatzen dituen tipologia

Azken ezaugarri hau homogeneotasun ezaugarriarekin tentsio-orekan dagoela esan genezake; izan ere, tipologia zenbat eta testu gehiago bildu, orduan eta homogeneoa izateko aukera gutxiago du; hau da, irizpide bakarraren bidez, aplikazio-eremuko testu guztiak sailkatzeko aukera gutxiago izango du. Eta alderantziz.

Aipatu dugun homogeneotasun ezaugarri honen inguruan iritziak bereiz dabilta: batzuentzat tipologia batek homogeneotasunaren ezaugarria errespetatu egin behar du, eta besteentzat, hori amets bat besterik ez da, ideal bat, testu errealak heterogeneoak direlako.

A) “Kritiken” kokalekua testu-tipo homogeneoen barnean

Zenbaitentzat, aukerako osagai horietatik aipatu berri ditugun “homogeneitatea” eta “izaera agortzailea izatea” dira garrantzizkoenak. Eta Villarnovoren eta Sanchezen iritziz zilegi da bi ezaugarri horiek dituen —ezinbestekotzat jo ditugunez gain, jakina— testu-moten sailkapen bat erdiestea. Horretarako, sailkapen-irizpidetzat “helburua” edo “xede” proposatzen dute, hau da, testuak betekizunaren arabera sailkatuz lortuko genuke. (Villarnovo Sanchez 1992: 38).

Bi autoreon arabera, gainera, monotipia eta anbiguotasunik eza saihestu beharrekoak dira; izan ere, litekeena da testu berak funtzio bat baino gehiago izatea eta, beraz, testu-tipo batean baino gehiagotan tokia izatea. Horrez gain, testu nahasiak ere egon daitezke beren zatiak testu-tipo batean baino gehiagotan ager daitezkeenak, eta abar.

Jarraian, Isenberg-ek aipaturiko ezaugarrietarik ezinbestekoak direnak soilik kontuan izanik eta aukerakoak diren *monotipia* eta *anbiguotasunik eza* saihestuz, “kritikak” sailkatzeko saio bat egingo dugu.

a) Aplikazio-eremua (*campo de aplicación*). Aztergai dugun errealitatearen eremuari mugak jarri beharra dago, ia ezinezkoa baita sailkapen batean testua ikusteko modu guztiak islatzea. Honen arabera, testu periodistikoak, testu zientifikoak, argudio-testuak eta abar izango ditugu.

Aztergaira mugatuz, kritiken eremutzat testu periodistikoak<sup>56</sup> hautatu ditugu. Hautua gurarizkoa izan da (Villarnovo 1992: 31), baina ez erabat. Kritika hauek guztiak, izan ere, Koldo Mitxelenak *Egan* aldizkarin argitaratu zituen eta, beraz, hortik abiatzea arrazoizko aukera izan daiteke.

Beraz, kanpoko irizpide honetatik abiatuko gara, hau da, transmisioari erreparatuz behintzat, testu periodistikoak dira. Testu periodistikoen tipologiak bi esparrutatik datoz, neurri handi batean: anglosaxoitik eta latindarretik.<sup>57</sup> Guk, bereziki, eremu latindarrekoak izango ditugu erreferentziatzat. Eremu honetan, testu periodistikoen tipologia agortzailea eratzeko saio nagusia Jose Luis Martinez Albertosek egin du.

1. Estilo informativo (primer nivel)
  - 1.2. Actitud informativa
    - 1.2.1. Información
    - 1.2.2. Reportaje objetivo
      - 1.2.2.1. Reportaje de acontecimientos
      - 1.2.2.2. Reportaje de acción
      - 1.2.2.3. Reportaje de citas (entrevista)
      - 1.2.2.4. Reportaje de seguimiento (reportaje corto)
2. Estilo informativo (segundo nivel)
  - 2.1. Actitud interpretativa
    - 2.1.1 Reportaje interpretativo
    - 2.1.2. Crónica
3. Estilo editorializante<sup>58</sup>
  - 3.1. Actitud de opinión
    - 3.1.1. Artículo o comentario.
      - 3.1.1.1. Editorial
      - 3.1.1.2. Columna

---

<sup>56</sup>*Testu periodistiko* hitza Villarnovo & Sanchez-en ikuspegiaren ulertzen dugu: aldizka prentsan argitaratutako testuak, nahiz eta gehienetan egunkaria izango den.

“Nos referimos aquí a los textos periodísticos destinados a la publicación en prensa de cualquier periodicidad”. (Villarnovo & Sanchez 1992: 133).

<sup>57</sup>Ikuspegi bibliografiko osatuagoa nahi duenak jo beza Casassus-en lanera (1988).

<sup>58</sup>Estilo honezaz informazio zehatza nahi duenak jo beza tesi honetara: Jose María Pérez Martínez (2000).

3.1.1.3. **Críticas**

## 3.1.1.4. Tribuna libre

## 4. Estilo ameno-literario

4.1. Actitud de entretener, divulgar o de creación literaria.

4.1.1. Artículos literarios (ensayo, humor, divulgación, costumbrismo, etc.)

4.1.2. Narraciones de ficción (novelas, cuentos)

4.1.3. Tiras cómicas

4.1.4. Poemas

4.1.5. Columnas personales

4.1.6. Otros

(Martinez Albertos 1983: 291). (Letrakera lodia gurea da).

Amado de Miguelek (1982), berriz, testu periodistikoek literaturarekin duten gertutasun edo urruntasunaren arabera sailkatzen ditu.

Periodismo informativo	Periodismo literario	Literatura periodística
Informar  Páginas de información de los diarios Información en tercera persona (hard news)  Investigación, interpretación y análisis de noticias  Información en primera persona: reportaje, entrevista, crónica (features news)	Orientar  Páginas de opinión y colaboración de los diarios editorial columna colaboración  <b>crítica especializada</b>  tribuna libre artículo de opinión	Deleitar  Páginas literarias de los diarios y revistas Artículo de creación literaria Narración literaria

Kosir-ek (1988) sailkapen-irizpidetzat funtzioa hartzen du eta ondorengo bi multzo nagusi hauek bereizi:

a) Familia informatiboa: albistea, erreportajea, elkarrizketa, etab.

b) Familia interpretatiboa: iruzkina, editoriala, zutabea, argazkia, **kritika**, etab.  
(Letrakera lodia gurea da).

b) Tipologiaren oinarria (*base de tipologización*). Ezaugarri honen bidez zehaztuko dugu zein irizpideren arabera eratua dagoen tipologia. Hau ere oinarri-oinarrian dagoen osagaia da; tipologiaen ugaritasuna eta erabilgarritasuna sailkapen irizpideen arabera izango da, izan ere.

Testu periodistikoak sailkatzeko irizpide arras desberdinak erabil ditzakegu, baina guztiek ez dute erabilgarritasun eta garrantzi bera; hau da, guztiak ez dira gai testu periodistikoaren tipologia homogeneo eta agortzaile bat sortzeko.

Guk irizpidetzat helburua edo xedea hartuko dugu. Irizpide horixe da, hain zuzen ere, Villarnovo eta Sanchezek (1992: 161) darabiltena testu periodistikoaren sailkapen homogeneoa erdiesteko:

Azken sail honetan, hartzailaren zein behar asetzen duten kontuan izanik, ondorengo azpisailak bereizten dituzte:

### 3.1. Inplizituki argudiozkoak

#### 3.1.1. Narraziozkoa

#### 3.1.2. Errepresentaziozkoa

### 3.2. Esplizituki argudiozkoak

#### 3.2.1. Mistoak

##### 3.2.1.1. Narrazioa + argudioa

##### 3.2.1.2. Errepresentazioa + argudioa

#### 3.2.2. Bakunak: argudioa soilik. (Villarnovo & Sanchez 1992: 161-162).

Goiko autoreek (Martinez Albertos 1983, Amado de Miguel 1982, Kosir 1988) genero informatibotzat jotzen dituztenak, Villarnovo & Sanchezek (1992) “Inplizituki argudiozkoen” sailean kokatzen dituzte. Interpretaziozkoak, berriz, “esplizituki argudiozko mistoen sailean” eta irizpidezkoak “esplizituki argudiozko bakunen” barnean. Beraz, ezin esan genezake sailkatze-modu hau erabat berria<sup>59</sup> denik.

Halaz ere, badakar aldaketarik. Esate baterako, gure azterresparrua osatzen duten “kritikak” irizpide generoaren barnean sartzen ziren; azken sailkapen honetan, aitzitik, argudio-testu mistoen barnean sartuko dituzte:

<sup>59</sup>Nuñez Ladevezek (1979) zehaztutako eremuekin ere bat dator: *campo determinativo o descriptivo, campo evaluativo o valorativo* eta *campo argumentativo*. Autore honek, gainera, onartzen zuen lehenbiziko bi eremutan ere argudioa bazegoela, nahiz eta inplizitua izan.

La crítica, por ejemplo, ha sido considerada habitualmente como un “género de opinión”; sin embargo, de acuerdo con los nuevos criterios formulados previamente, debería acomodarse de ordinario con los que hemos llamado tipos argumentativos de forma mixta. (Villarnovo & Sanchez 1992: 163).

Garbi dago aztergai ditugun kritika hauetan Mitxelenak ez duela soilki filmez edo liburuez informatzea bilatzen; testu hauetan, argudioa<sup>60</sup> azalpenarekin —eta baita deskripzioarekin ere— nahasirik agertzen da.

Argudioa, azalpena, deskripzioa zenbait autorek (Weinrich 1976, Álvarez 1994) testu-tipotzat jo izan du; gure ustez, ordea, horiek testu osoak baino areago testu zatiak sailkatzeko balio dute. Hala gertatzen zaigu behintzat aztergai ditugun kritikekin: aztergai ditugun kritikak ez dira erabat argudio testu, ez dira erabat deskripzio ez eta erabat azalpenezko testuak ere. Hirurek dute Mitxelenaren zinema eta liburu kritiketan tokia.

Guk geuk ere azterkizun ditugun kritikak ikusirik, argudioa eta azalpena ez ditugu testu-tipotzat joko, hainbat testu-tipok beharrezkoak dituen osagaitzat baizik. “Amets” bat besterik ez litzateke testu bat, bete-betean, narrazio-testu, argudio-testu, deskripzio-testu... bezala sailkatzea. Hondarrik hondarrean, testu erreal batean normalena da goian aipatu ditugun testu-tipo horiek uztarturik agertzea. Eta horretaz ohartzen da Genevako eskolako J.M. Adam (1987), beste batzuen artean. Honek, testuen “heterogeneo-izaera” aldarrikatuko du.

## B) Testuen heterogeneitatea eta kritikak

Combettek (1987: 17) ohartarazi zuen ziurrenik *continuum* baten aurrean geundekeela: ez da testurik dagokion testu mota definitzen duten ezaugarri guztiak izango dituenik, ez eta ezaugarriarik testu-tipo bati, eta testu-tipo jakin horri bakarrik dagokionik.

Ildo beretik, Adamek (1987: 54-77) jada aditzera ematen du Testu-hizkuntzalaritzak testu-tipologia egokia egiteko jomuga alde batera utzi beharra duela; testua, diskurtsoa bera

<sup>60</sup>Bai argudioa, bai azalpena hainbat autorek Weinrich (1976), Alvarez (1994) testu-tipotzat jo izan du. Álvarez ohartzen da ia ezinezkoa dela testu mota hauen arteko bereizketa egitea:

“Según se ha expuesto en *Tipos de escrito I*, no existe la separación tajante y rígida de estas modalidades. Es habitual la convivencia de los distintos tipos en un mismo texto. Aunque puedan aparecer de forma aislada, generalmente un texto ofrece la mezcla de estas modalidades. Por consiguiente, deslindar la naturaleza específica de cada una de ellas es tarea muy difícil, incluso desde el punto de vista teórico. No obstante, intentamos estudiar y analizar la exposición y la argumentación de forma independiente, aun a sabiendas de que en la práctica se encuentran estrechamente imbricadas, hasta tal punto que podría afirmarse que la exposición es parte integrante de la argumentación”. (Álvarez 1994 :7).

bezala, oso konplexua delako. Beraz, Adam testua baino unitate txikiago eta erabilgarriago baten bila dabil: testu-sekuentziaren<sup>61</sup> bila.

Autore honen abiaburua da pentsatzea badirela testuak testu-tipo edo “gain-egitura” bakarraren azpian sailka ez daitezkeenak. Beraz, autore honek “sekuentzia” adigaiak dakar testu osora zabal daitezkeen osagai edo gain-egituraren antolatzaileak izendatzeko.

Adam-en ustez, testua  $n$  sekuentziez osaturiko unitatea da —tipo bereko nahiz desberdineko sekuentziez—. Eta sekuentzia definitzen du harreman hierarkikoak dituen sare bezala; osoa eta autonomia da, bere-berea duen antolamenduz osatua:

Un TEXTE est une structure hiérarchique complexe comprenant  $n$  séquence — elliptiques ou complétés— de même type ou de types différents. (Adam 1992: 34).

Hau da, sekuentzia, testu-egituraren barrenean, testuaren eta ahapaldiaren artean kokatzen du. Sekuentzia, bada, testu-unitatea da, oinarrizko ezaugarriak dituena eta proposizioez osatua. Testua sekuentziez osatua dago; sekuentziak, berriz, makroproposizioez eta hauek mikroproposizioez<sup>62</sup>. (Adam 1989: 27).

Sekuentzia hauek guztiak erlazionaturik daude. Harreman horren ondorioz sekuentziak bi egoera hauetan ager daitezke:

a) Tipo bereko sekuentzien arteko erlaziotik sortutako testua sekuentzia bakarrak osatuko du: testu homogeneoa izango da.

b) Testuak, sekuentzia-egitura heterogeneoak ditu; hau da, sekuentzia-tipo desberdinez osatua dago. Egoera honetan agertzen denean, sekuentzien arteko txertaketa edo tartekatzea gertatu da eta, ondorioz, sekuentzia menderatzaileak gain hartu du, edota sekuentzien arteko koordinazioa gertatu da. Azken kasu honetan, sekuentziak maila berean agertzen dira.

---

<sup>61</sup>Hainbat autorek eta horien artean Badia & Bassols-ek (1997) Adam-en sailkapena onartu dute: “Fijémonos, pues, en que las secuencias de Adam han retomado la segmentación del continuum textual que hizo Werlich y la han adaptado a su propia teoría. Nosotras, de alguna manera, nos hemos sumado a esta iniciativa. Nos hemos acercado al máximo a esta clasificación, por diversas razones: primero, por su simplicidad; segundo, porque responde bastante a la intuición de los hablantes cultos; y tercero, porque ha sido seguida por muchos autores. La no inclusión de textos escritos instructivos —como hace Adam— se debe a que tienen poca entidad”. (1997: 26).

<sup>62</sup>Proposizioak gure enuntziatuaren pareko izan daitezke eta makroproposizioak gure ahapaldien pareko.

Azterkizun ditugun kritikak ere, gure ustez, sekuentzia-egitura heterogeneoa dute; hau da, sekuentzia-tipo desberdinez osatuta daude. Eta alde horretatik gertuago ikusten ditugu Fuentesen proposamenetik (2000):

Los textos son heterogéneos. Esta es la primera premisa. Así la formulan J.M. Adam y E. Roulet, aunque H. Isenberg no esté muy de acuerdo con la regularidad de una tipología sobre textos heterogéneos. Pero si vamos a la realidad, nos damos cuenta de que el fracaso de los intentos de clasificar los textos viene de no tener en cuenta dicha heterogeneidad. (Fuentes 2000: 137).

Fuentesek (2000: 138) ere testua ezaugarritzeko osagai nagusitzat sekuentzia jotzen du eta sekuentzia hauek askotariko ikuspegia erabiliz ezaugarritzen dira:

<b>IRIZPIDEAK</b>		
<b>MAKROEGITURA/GAIN-EGITURA</b>	<b>DIMENTSIOAK</b>	<b>ENUNTZIAZIOA</b>
<b>SEKUENTZIAK</b>		
Narraziozkoa	Argudiozkoa	Bakarrizketa: bakarrizketa elkarrizketatua
Azalpenezkoa: deskripziozkoa deliberaziozkoa	Poetikoa	Elkarrizketa
Instrukziozkoa		

Guk aztergai ditugun kritiken izaera ikusirik azalpenezko sekuentziei erreparatuko diegu. Honen barrenean bi azpisail bereizten ditu: deskripziozkoak eta deliberaziozkoak.

- Deskripziozkoak: mundu fisikoari dagokion objekturen bat definitzen duten azalpenak.
- Deliberaziozkoak: esatariak gairen bati buruz izan ditzakeen ideia, pentsamolde, adigaiak... definitzen dituzten azalpenak.

Azalpenezko sekuentzietan, oro har, azterkizun ditugun kritiketan bezala<sup>63</sup>, orainaldia, adjektibo ezaugarritzaileak nahiz balorazioa gailentzen dira. Eta argudiozko dimentsioa dutenean, ideien sekuentzia logikoa nagusitzen da.

G. Reyes-en ustez (1999: 59), azalpenezko testuak honela ezaugarritzen dira:

---

<sup>63</sup>Enuntziatu parentetikoaren eginkizun komunikatiboan (§ 9) diskurtsoaren ezaugarrietan sakonduko dugu.



se caracterizan por dar información (datos, ideas) y a veces argumentar para convencer de algo a los lectores. El lenguaje debe ser preciso y convincente, y se tendrá especial cuidado en la selección de los sustantivos y adjetivos que serán numerosos, puesto que transmiten mucha información. En estos escritos se debe estructurar el texto según las necesidades de la información, partiendo, por lo general, de lo conocido, para ir añadiendo datos nuevos. (Reyes 1999: 59).

Fuentesek (2000: 141) azalpenezko sekuentzia honetan honako azpisailak egiten ditu, gure aztergaiari begira berebiziko garrantzia dutenak:

AZALPENEZKOAK	DESKRIPZIOZKOA	ARGUDIOZKOA: <b>Liburuen erreseina</b>
		EZ-ARGUDIOZKOA: paisaiaren baten deskripzioa
	DELIBERAZIOZKOA	ARGUDIOZKOA: saioa, opinioa, editoriala
		EZ-ARGUDIOZKOA: filosofia edo hizkuntzalaritzako azalpenak, eta abar.

Badirudi, bada, filmen kritiketan nahiz liburu-kritiketan azalpenezko sekuentzia dela nagusi; azalpen sekuentzia hori deskripziozkoa izanik eta ideiak eta datuak argudio-dimentsioan harilkatzen direla. Azalpen sekuentzia izateak ez du kentzen, bada, argudiozkoa ez izatea. Are gehiago, azalpenezko sekuentzia deskriptiboa egon daiteke (enuntziatu parentetikoek berbaldian duten eginkizuna azaltzean adierazi eta indartzen saiatuko gara) esatariaren argumentazioaren zerbitzura; hau da, argudioak harilkatu eta ondorio jakin batzuetara bideratzeko estrategiaren zerbitzura egon daiteke. Gauza bat da, honenbestez, sekuentzia nolakoa den eta bestea sekuentzia horretan zein dimentsiok eragiten duen.

SEKUENTZIAK: baztertzailak dira, baina bata bestearekin txerta daitezke.

DIMENTSIOAK: elkarren artean konbina daitezke, ez dira baztertzailak

Kritiketan, askotan, Mitxelenak ez du soilik filmak edo liburuak azaldu eta deskribatzea bilatzen; gehienetan, horrez gain (edo, hobeto, horrezaz baliatuz), norentzako konbentzitzea edo honen iritzia aldaraztea du helburu: film jakin bat ikustera joanaraztea edo ez, liburu jakinen bat irakurraraztea edo ez, etab. Horretarako, bere iritzi, uste edo postura egiaztatzeko (nahiz besteren iritzia errefusatu edo baztertzeko) ematen dituen aldeko edo kontrako arrazoiez osatzen du testua.

Lo argumentativo se caracteriza porque el texto se organiza de modo que se exponen unas razones (argumentos) que llevan a una determinada conclusión. Es influir al oyente en sus ideas (...) Este paso se da a través de un soporte, ley de paso, garante, topoi, o inferencia. Predominan los operadores y conectores argumentativos, y se muestra en el orden de los elementos, la modalidad, la enunciación, los términos léxicos... (Fuentes 2000: 147).

Horiez gain, ordea, kritika bera gainditzen duten beste zeregin batzuetarako ere badarabiltza Mitxelenak azterkizun ditugun kritikak: zinema eta liburu-kritiken bitartez kulturaz, gizarteaz eta, oro har, bera biziki kezkatzen zuten auzi zabalago batzuen arabera iritzia plazaratzeko ere bitarteko egokiak gertatzen zaizkio.

#### 2.3.2.3.2.2. Laburbilduz

Kritikak testu-tipoetan sailkatzeko ahalegin honetan, hainbat tipologia aldatu ditugu, baina hauetan guztietan bi joera nagusi nabarmendu ditugu:

1) Isenberg-ek (1987) aldeztu duen tipologiaren proposamen teorikoa (hau da, testu-tipologia batek ezinbestean bete beharreko ezaugarri zerrenda eta aukerakoa) kontuan hartzen duten ikertzaileak. Hauek testuen homogeneotasun izaera ere onartzen dute. Ikuspegi honen arabera, kritikak non koka daitezkeen ikusi dugu.

2) Oinarrian Isenberg-en proposamena onartu arren, testuen izaera heterogeneoa aldeztu dutenak. Hauen ustez, testu-tipologiaz ezin daiteke hitz egin; hauen ordez, sekuentzia-tipoez mintzatu beharra dugu.

Bi hurbilbideak garrantzizkoak begitandu zaizkigu, baina, apika, testu osoez hitz egitea baino errentagarriagoa gertatzen zaigu sekuentziez hitz egitea; aztergai ditugun kritiketan bereziki azalpenezko sekuentzia deskriptibo-argudiozkoak gailentzen baitira. Eta, gure ustez, bide zabalagoa uzten diote autoreari bere iritzi-jarrerak tartekatze; argudiatzea bera iritzia aldezteko arrazoiak ematea baita, eta, beraz, argudiatzeak norentzako bere aldera bideratzen, norberegantzen laguntzen du. Are gehiago, argudioen ezaugarrien artean intzisoen erabilera ugaria nabarmentzen denean (Álvarez 1994: 39).

En cuanto a la sintaxis, lo más significativo tal vez sea la complejidad de la misma y la aparición de largos períodos oracionales. Predomina la subordinación, más acorde con la expresión del razonamiento, la supeditación de una idea a otra, la comparación o la expresión de la condición para que un hecho sea posible. A estas características generales cabe añadir la presencia de **incisos** cuya finalidad es la de aclarar algún aspecto que si bien se considera secundario, puede servir de apoyo al hecho principal. (Alvarez 1994: 39) (Letrakera lodia gurea da).

Behin “kritikak” marko orokorrigo batean kokaturik ditugula —ez baitugu testu-tipoen eta tipologiaren auzian buru-belarri sartu nahi, gure gai eta helburuetatik gehiegi ez urruntzearren—, hel diezaiozun “metadiskurtsoaren” ikuspegi teoriko metodologikoari. Garbi dago, izan ere, enuntziatu parentetikoek ez dutela “dictum” edo proposiziozko edukian eragiten, proposiziozko eduki horretatik at dagoela hauen eragin-eremua: zenbaitek “makroegitura” deitu duen eremuan, edo beste zenbaitek “metadiskurtsotzat” jo duen eremuan.

Gatozen, bada, metadiskurtsoaren ikuspegi teoriko-metodologikoak enuntziatu parentetikoaren azterketara zein argi dakarren ikustera.

#### 2.4. METADISKURTSOA ETA ENUNTZIATU PARENTETIKOA

(...) La mayor novedad que aporta el “metadiscurso” con respecto a perspectivas anteriores reside en ofrecer una visión global del texto, es decir, un análisis en el que interactúan los aspectos textuales e interpersonales de todo discurso. A pesar de las dificultades metodológicas que entraña un trabajo de esta naturaleza, consideramos muy prometedoras las aportaciones que el metadiscurso puede hacer al análisis del texto. (Dafouz Milne 2000 I: 7).

Testu bat bere osotasunean aztertzeke hainbat alderdi jorra badaitezke ere, metadiskurtsoaren ikusmoldeak bereziki testu-alderdiak pertsonarteko alderdiekin uztartzen diren eremua joko du begiz; hau da, diskurtsoaren antolamenduan nahiz esatari-norentzakoaren arteko interakzio-harremanetan eragiten duten diskurtsoaren hizkuntz osagaiak izango ditu azterkizun. Ere hori hainbat autorek (Vande Kopple 1985; Dafouz Milne 2000) “metadiskurtso” bataiatu izan du. Beste hainbatek, berriz, diskurtsoaren gaineko diskurtso hori, edo proposiziozko edukitik at dagoen eremu hori bataiatzeko “makroegitura” izendapena erabili du.

*Metadiskurtso* terminoa ikusmolde gisa lehenengo aldiz Vande Kopplek (1985) erabili zuen eta ondorengo definizioa eman zion:

(...) as we write, we usually have to write on two levels: on one level we supply information about the subject of our text. On this level we explained propositional content. On the other level, the level of meta discourse, we do not add propositional material but help our readers organize, classify, interpret, evaluate and react to such material. Metadiscourse, therefore, is discourse about discourse or communication about communication. (Vande Kopple 1985: 83).

Beraz, metadiskurtsoak (metadiskurtso-kategoriai esker) ez du proposiziozko edukian parte hartzen, baina bada proposiziozko edukia interpretatzeko, antolatzeko nahiz esatariak berak igorritako proposiziozko edukiari buruz bere iritzia eta jarrera adierazteko bide. Honenbestez, pentsatzekoa da enuntziatu parentetikoak (guk aditzen eta mugatzen ditugun bezala) “metadiskurtso” horretan bete-betean kabituko direla. Hala uste dugulako, “metadiskurtsoaren” kontzeptuan eta ikuspegiari gehiago sakonduko dugu.

‘Metadiskurtso’ kontzeptuaren formulazioa nahikoa berria bada ere, metadiskurtsoaren barneko kategorien taxonomiak ugariak dira (Milne 2000). Guk ez dugu taxonomia horien guztien berri emango; enuntziatu parentetikoaren azterketari argi berriren bat eskain diezaguketen neurrian aipatuko ditugu.

### **2.4.1. Eredu nagusiak**

#### **2.4.1.1 PROPOSIZIOZKO EDUKIAREN ETA EZ DENAREN ARTEKO ALDEA (LAUTAMATTI 1978a, 1978b)**

Autore honen ustez, diskurtso batean bi maila bereiz daitezke:

- Oinarrizko maila edo proposiziozko edukiari dagokiona: diskurtsoaren gaiari dagokio zuzen-zuzenean.
- Proposiziozko edukirik ez duena. Eduki mota honek diskurtsoaren antolamendua interpretatzen laguntzen du.

Lautamattik proposiziozkoa ez den edukiaren ezaugarriak zehazteko urrats handiagoa egiten du. Aztertzaile honen ustez, materia mota honek ez du diskurtsoaren antolamenduan soilik eragingo, balorazioaren alderdia ere ukitzen du. Proposiziozkoa ez den edukian honako sailak bereizten ditu:

- Metatestu markatzaileak (*meta-textual markers*): diskurtsoari berari zuzentzen zaizkio, bai darabilen hizkuntzari eta baita testuaren antolamenduari berari ere. Atal honetan sartzen ditu konektore edo lokailuak ere.
- Ilokuziozko markatzaileak (*illocutionary markers*): esatariak egiten duen ilokuziozko ekintzaren komunikazio-helburua zein den azaltzeko balio dutenak: “I am arguing that...”.
- Iruzkin markatzaileak (*commentary marker*): norentzakoari zuzenean adieraziko dio zein informazio-atal den garrantzitsuena; hau da, diskurtsoaren interpretazioa bideratzen lagunduko dute: “The problem is...”.
- Modalitatearen markatzaileak (*modality markers*): informazioaren edo aurkeztutako ideien egitasuna iradokitzeke baliagarri direnak, bai informazio-iturriak aditzera emanaz eta baita esatariak informazioari buruz duen ziurtasun-maila adieraziz: “It is true...”.
- Jarreraren markatzaileak (*attitude markers*): esatariak agertu dituen ideiei buruz (proposiziozko edukiari buruz) duen iritzi edo jarrera adierazteke baliagarri diren hizkuntz osagaiak: “It is fortunate that...”.

#### 2.4.1.2. CRISMORE-REN EREDUA (1984): HIZKUNTZAREN FUNTZIO TESTUALA ETA PERTSONARTEKOA

Avon Crismorek diskurtsoan Lautamattik eta bestek<sup>64</sup> bereizi izan dituzten bi maila helduko die: proposiziozkoa edo autore honek lehen mailako diskurtsotzat jotzen duena (*primary discourse*) eta proposiziozkoa ez dena (*contentless*) edo metadiskurtsoa. Proposiziozko mailak testuaren ideia-alderdiei egingo die erreferentzia (*ideational part*), eta metadiskurtsoak, berriz, pertsonarteko funtzioei (*interpersonal part*).

<sup>64</sup>Ez baititugu sailkapen guztiak ekarriko gure lanera. Hor leudeke, nahi duenarentzat, Beauvais (1989), Stainton (1996), Williams (1981), etab.

Sailkapen bikoitz honek Halliday-ren hiru makrofuntziotan hartzen du oin: ideia mailako funtzioan, pertsonarteko funtzioan eta testu-funtzioan.

- Ideia mailako funtzioa: informaziozkoa edo adierazlea den funtzioa.
- Pertsonartekoa edo adierazkorra: gizarte mailako harremanak eta pertsonartekoak biltzen ditu, baita norentzakoaren balizko tartekatzeak ere.
- Testu-funtzioa: testuaren edukia adierazteko elementuak egoki erabiltzeaz arduratuko da, diskurtsoa modu zuzen eta egokian uler dadin. Funtzio honek esaldiak diskurtso bihur daitezen egin beharreko harilkatzean eragingo luke.

Crismoreren ereduaren arabera, azkeneko bi funtzioak metadiskurtsoak beteko lituzke eta lehenengoa, berriz, proposiziozko edukiari dagokio, “lehen mailako” diskurtsoari, hain zuzen.

Crismore-k hainbat kritika izan zituen erabilitako terminoak zirela eta: lehen mailako diskurtsoa metadiskurtsoari kontrajartzean, lehen mailako diskurtsoa metadiskurtsoa baino beharrezkoagotzat jotzera garamatza, eta, ondorioz, metadiskurtsoa diskurtsotik ken daitekeelako ustea izatera.

Ondorioz, Crismorek (1989, 1990, 1993) metadiskurtsoaren funtzioak birdefinituko ditu eta onartuko du metadiskurtsoak ere testuari eduki bat eskaintzen diola, nahiz eta eduki hori ideia-mailakoa ez bezalakoa izan.

Honako metadiskurtso kategoriak bereizten ditu:

1. Kategoria informatiboak:

- helburuak (*goals*)
- aurreko planak (*pre-plans*)
- atzera begirako planak (*post-plans*)

2. Jarreraren kategoriak:

- nabarmentzekoak edo areagotzekoak (*saliency*)
- enfatizatzaileak edo indargarriak (*emphatics*)
- diskurtso ñabartzaileak edo leungarriak (*hedges*)
- baloraziozkoak (*evaluative*).

## 2.4.1.3. VANDE KOPPLE-REN EREDUA (1985, 1988)

Vande Kopplek ere diskurtsoan bi maila bereiziko ditu; bi mailen arteko ezberdintasuna, honen ustez, informazio motaren baitakoa da. Crismorek bezalaxe onartzen du metadiskurtsoak ez diola testuari proposiziozko edukirik eransten, baina autoreak ez du baieztatzen metadiskurtsoak edukirik ez duenik.

Bere sailkapenean, metadiskurtsoa bi sail edo multzo nagusitan banatzen du: metadiskurtso testuala, eta pertsonartekoa, eta sail bakoitzak funtzio eta metadiskurtso-kategoria ezberdinak dituela baieztatzen.

## 1) Metadiskurtso testuala: informazio-multzoak elkar lotzeko balio du.

- Sekuentziatzaileak (*sequencers*)
- Konektore logiko-denborazkoak (*logical-temporal*)
- Atzera begirako markatzaileak (*reminders*)
- Aurrera begirako markatzaileak (*announcements*)
- Etorkizun den materiaren erreferentziatzaileak (*statements of what material one is on the verge of presenting*)
- Topikalizatzaileak (*topicalizer*)
- Azalpenezko markatzaileak (*code glosses*).

## 2) Pertsonarteko metadiskurtsoa

- Ilokuziozko<sup>65</sup> markatzaileak (*illocution markers*)
- Narratzaileak (*narrators*)
- Baliozko markatzaileak (*vality marker*)
  1. diskurtso markatzaile edo leungarriak (*hedges*)
  2. ziurtasun markatzaileak
  3. autoritate markatzaileak (*attributors*).

---

<sup>65</sup>Hauen egitekoa, labur esateko, hitzek duten komunikaziozko helburua agerian jartzea da. Hitz edo termino hori "Speech act" edo hizketa-egintzen teorian hartua dago. Teoria hau igorritako enuntziatu bakoitzeko egintzaren bat egiten delako teorian oinarritzen da; hau da, hitzei esker egintzak gauzatzen ditugulako ideian. Hiru egintza-mota desberdin bereizten zituzten: lokuzionarioa (perpaus ongi eratu eta zentzuduna burutzearen egintza); egintza ilokuzionarioa edo ilokuziozkoa (burutzapenak berekin duen indar komunikatiboa, adibidez: agindu, ohartarazi, arrazoia eman, ukatu...); egintza perlokuzionarioa (esatari/norentzakoaren baitan burutzapenak duen efektua: hau da, zer neurritaraino norentzakoaren aldartea, ezagutza edo jarrera aldatu diren burutzapen horren indarrez).

- Jarrera-markatzaileak (*attitude markers*): esatari-enuntziatzaileak proposiziozko edukiari buruz duen jarrera azaltzeko balio dute.
- Iruzkinatzaileak (*commentary*): hauek testuan esatari-norentzakoaren artean sortzen den fikziozko elkarrizketa edo dialogo alderdia adierazten dute; hau da, interakziozko alderdia.
  1. Norentzakoari zuzendutako iruzkinak: norentzakoak har dezakeen ikuspuntua nahiz egoera animikoari buruzko erreferentziak egiten ditu, esataria, une batez, norentzakoaren azalean jarriko bailitzan (“you may not agree that...”).
  2. Testuari zuzendutako iruzkinak: testua norentzakoak ongi uler dezan— esatariak berak duen intentziotik ahalik eta gertuen— egiten dituen erreferentziak edo keinuak. Bertan sartzen dira irakurri behar duenari aurrea hartuz esatariak egiten dituen baloraziozko iruzkinak ere.
  3. Esatari-norentzakoaren arteko harremanari zuzendutako iruzkinak. Atal honetan sartzen ditu “My friends” bezalako deikiak, nahiz plural asoziatiboa edo esatariaren beraren burua zaku berean sartuz egindako baieztapenak ere. Baliabide honekin esatariak norentzakoarekin bat egitea bilatzen du, edota norentzakoaren atxikimendua.

#### 2.4.1.4. CRISMORE, MARKKANEN ETA STEFFENSEN

Hauek aldeztzen duten ereduan metadiskurtsoa honela definitzen dute:

(...) the linguistic material in texts, whether spoken or written, that does not add anything to the propositional content but that is intended to help the listener or reader organize, interpret, and evaluate the information given. (Crismore et al.1993: 40).

Proposatutako sailkapenean, Vande Kopplerenean bezalaxe, testu-maila eta pertsonartekoa bereizten dituzte. Maila testualak, aldi berean, bi antolatzaile-mota biltzen ditu: batetik, testu-markatzaileak (*text markers*) eta bestetik, interpretazio-markatzaileak. Ikus dezagun hauen sailkapena:



## 1. Testu-metadiskurtsoa:

### 1.1. Testu-markatzaileak:

- konektore logikoak
- sekuentziatzaileak
- atzera begirako markatzaileak (erretrospekziozkoak).
- topikalizatzaileak

### 1.2. Interpretazio-markatzaileak:

- azalpenezkoak
- ilokuziozkoak
- aurrera begirako markatzaileak (prospekziozkoak)

## 2. Pertsonarteko metadiskurtsoa:

- diskurtso-ñabartzaileak
- ziurtasun-markatzaileak
- autoritate-markatzaileak
- adierazgarriak
- iruzkinak

Vande Koppleren (1985) sailkapenarekin erkatuz, oraingo honetan ez dira baliozko markatzaileak azaltzen. Bestetik, diskurtso-ñabartzaileek, ziurtasunaren markatzaileek eta autoritate-markatzaileek ez dute azpisail bat osatzen, bere eskuko agertzen dira. Narratzaileak, berriz, autoritate-markatzaileekin uztartzen dituzte; azken batean, sorreran bat ez badatoz ere betekizun bera baitute: norentzakoa konbentzitzea bere argudioen egiaz, eta horretarako gaiaren ezagutza handia duenaren edo prestigio handiko jendearen iritzia tartekatzen du, eta litekeena da jende horren artean autorea bera ere egotea (narratzailea).

Bada, ordea, kontuan izan beharreko bestelako ezberdintasunik. Hauek, Vande Kopplek ez bezala, metadiskurtsoko unitateen artean hainbat puntuazio-ikur sartzen dituzte. Puntuazio-baliabideek ez baitute soilik testu-funtzioa betetzen, bada pertsonarteko funtzioa duenik ere; bestela esan, autore hauen ustez, bada esatariaren jarrera agertzeko balio dutenik (parentesiak, esaterako).

Horrez gain, gure tesiari begira, “iruzkinen” sailean egiten duten azterketak badu garrantzirik. Iruzkinen sailean sei tipo bereizten dituzte:

- Irakurleari (edo, hobeto, gure terminologia erabiliz, norentzakoari) zuzendutako deikiak, bai bigarren pertsonari dagozkion izenordainak erabilia, eta baita bokatiboei esker ere.
- Aginterazkoak
- Esatariak berak erantzuten dituen galdera zuzenak
- Galdera erretorikoak, norentzakoak berak testuan oinarrituz “erantzun” beharrekoak.
- Amaierako ohar eta argibideak (*tag question*)
- Norentzakoari zuzendutako intzisoak, testuaren proposiziozko edukia hausten dutenak.

Crismore eta al.-ek (1993) uste dute pertsonarteko metadiskurtsoa diskurtsoaren estilo informalarekin edo lagun artekoarekin lotuta dagoela, edota idatzizko testua ahozkoarekin lotzeko baliabide badela (norentzakoari egindako deiak, esaterako). Estilo informalarekin ez dakigu, baina ausartuko ginateke baieztatzen esatari-norentzakoaren arteko interakziozko harreman horrek norentzakoarekiko hurbiltasuna edo gertutasuna adierazteko balio duela. Azken batean, tesian bertan frogatzen saiatuko garenez, norentzakoaren pertsuaditzeko helburu orokorraren baitan kokatzen diren diskurtsozko baliabide edo estrategiak dira, norentzakoaren pertsuaditzeko ez baita aski argudio-haria ongi bideratzea, esatariak norentzakoarekin dituen pertsonarteko harremanak ere zaindu behar ditu, honen atxikimendua lortu nahi badu, behintzat.

#### 2.4.1.5. EMMA DAFOUZ MILNE (2000)

Autore honek ingelesez eta gaztelaniaz egindako iritzi-artikuluetan oinarrituz, metadiskurtsoaren kategoriak ditu aztergai bere tesian. Horretarako ikuspegi erretoriko kontrastiboa darabil. Lanaren helburu nagusia testu bat kalitatezko testu egiten duen ezaugarrietariko batzuk zehaztu eta aztertzea da, bai ingelesez eta baita gaztelaniaz ere.

El objetivo principal de nuestro trabajo es, pues, identificar algunas de las características que contribuyen a crear un texto de calidad, tanto en inglés como en español, con el fin de determinar si estos rasgos coinciden o son diferentes. Sólo así seremos capaces de mostrar los elementos que verdaderamente conforman un buen texto persuasivo

en una L1 y comprobar si son semejantes a los empleados en la L2 (Dafouz Milne 2000 l: 4).

Autore hau ohartzen da, halaber, testu baten analisisian hainbat eta hainbat alderdi jorra daitezkeela, baina metadiskurtso-kategoriak aztertzeari emango dio garrantzia. Izan ere, autore honen ustez, metadiskurtso-kategoriak testuaren kalitatean eragiten dute eta, bereziki, pertsuaditzeko edo konbentzitzeko helburua duten testuetan. Gainera, zeinahi testuren analisirako baliagarri iruditzen zaio, azken batean testuaren ikuspegi orokorra eskaintzen baitu.

Nahiz eta testuaren analisirako baliagarri iruditu, metadiskurtsoaren azterketak hainbat arazo eta zailtasun dakartzala konturatzen da, hondarrik hondarrean, ez baitago gramatikazko mugarik metadiskurtsoaren azterketan. Ezin dugu irizpide gramatikal hutsa erabiliz metadiskurtsoa aztertzeraz hurbildu. Erabili daitezkeen irizpide bakarrak diskurtso mailakoak dira. Horrez gain, metadiskurtsoak oso ezberdinak diren unitateak biltzen ditu, hasi hitz soltetik eta puntuazio-ikurretaraino.

Garbi dago —eta beste hainbeste gertatzen da enuntziatu parentetikoekin ere— metadiskurtsoa erabat irekita dagoen sistema dela, eta bertan, komunikazio-egoeraren eta komunikazio-beharraren arabera, etengabe ugari daitezkeela osagaiak.

Arazoak arazo, hona hemen autore honek metadiskurtsoaren ezaugarriak eta hainbat autorek egindako taxonomiak aztertu eta gainbegiratu ondoren proposatzen duen sailkapena. Aurrekoen ildotik, bi sail nagusi bereiziko ditu: metadiskurtso testuala eta pertsonartekoa, eta sail bakoitzean beste hainbat azpisail egingo ditu:

## 1. Metadiskurtso testuala:

### 1.1. Markatzaile logikoak

- emendiozkoak
- aurkaritzakoak
- kausa-ondoriozkoak
- konklusiozkoak

### 1.2. Sekuentziatzaileak

### 1.3. Atzera begirako markatzaileak

### 1.4. Topikalizatzaileak

### 1.5. Azalpenezko markatzaileak:

- marren eta parentesien arteko azalpenak
- puntuazio-baliabideak
- birformulazioak
- adibidegileak (*ejemplificadores*)

#### 1.6. Ilokuziozko markatzaileak

#### 1.7. Aurrera begirako markatzaileak

### 2. Pertsonarteko metadiskurtsoa:

#### 2.1. Diskurtso-ñabartzaileak:

- Aditz modal epistemikoak
- Probabilitatezko aditzondoak
- Adierazpen epistemikoak

#### 2.2. Ziurtasun-markatzaileak

#### 2.3. Autoritate-markatzaileak

#### 2.4. Jarrerazko markatzaileak edo adierazpenezkoak

- Aditz modal deontikoak
- Aditzondo-egiturak
- Aditz kognitiboa

#### 2.5. Iruzkinak:

- Galdera erretorikoak
- Deiki zuzenak
- Plural asoziatiboa
- Intzisoak

Sailkapen horiek guztiek erakusten digute metadiskurtsoak besarkatzen duen esparrua enuntziatu parentetikoarena baino zabalagoa dela. Ikusi besterik ez dago guztietan metadiskurtsoaren barnean sartzen dituztela markatzaile logikoak (emendiozko, aurkaritzako, kausa-ondoriozko lokailu edo konektoreak), nahiz topikalizatzaileak. Guk darabilgun enuntziatu parentetikoaren definizioan, ordea, (hurrengo atalean ikusiko dugu) ez dute beren bakarrean tokirik izango, non eta ez dauden enuntziatu parentetikoaren egiturapean.

Bestetik, Dafouz Milnek, esaterako, “enuntziatu parentetikoak” (izendapen hori ez badarabil ere) azalpenezko markatzaileen sailean ikusten ditu: “marren eta parentesien arteko azalpenak”, edota, iruzkinen sailean (intzisoak). Beraz, marren nahiz parentesien arteko

azalpenen artean eta intzisoen artean bereizketa egiten du, bereizketa hori zertan datzan adierazi gabe.

Horrez gain, sailkapenetan aipatzen diren hainbat osagai bereskuok (birformulazioak, adibidegileek...) enuntziatu parentetikoaren azpisaila osa dezakete, baldin eta funtzio hori betetzeko perpausaren egituratik aldentzen duten puntuazio-demarkazioen artean kokatutako enuntziatu askea bada.

Metadiskurtsoaz egin diren ikerketak eta sailkapenek garbi uzten dute azterkizun ditugun enuntziatu parentetikoek badutela marko teoriko horretan tokirik, baina enuntziatu parentetikoek planteatzen duten lehen arazoa, metadiskurtso-kategoriekin gertatzen den bezalaxe, honako hau da: enuntziatu hauen osatze-egituraren parte hartzen duten hizkuntz elementuak zehatz-mehatz alde aurretik mugatzea ia ezinezkoa da. Hau da, ez dago gramatikazko mugarik, eta, ondorioz, ezin esan dezakegu gramatikazko zein elementu zehatzek osatzen duten. Baliagarri ditugun irizpideak diskurtso-izaerakoak izango dira.

Beraz, enuntziatu parentetikoaren sailean, unitate arras ezberdinak agertuko dira, hasi hitz soiletatik eta esaldi konposatu nahiz diskurtso zatietaraino. Alde horretatik, beti enuntziatuez mintzatuko gara (ez hitz, edo perpausaz), eta enuntziatu horien saila irekita egongo da, komunikazio jakinaren arabera etengabe gehi baitaitezke osagaiak.

Horrez gain, metadiskurtso-kategoriekin gertatzen den bezala, enuntziatu parentetikoek ez dute funtzio bat eta bakarra izango. Forma berak funtzio ezberdinak bete ditzake komunikazio-egoeraren eta behararen arabera.

Honekin guztiarekin enuntziatu parentetikoaren azterbide teoriko-metodologikoaren oinarri orokorrak zehaztuztat ematen ditugu: aztergaiari aplikatuko dizkiogun termino-osagaiak mugatuak ditugu eta garbi geratu zaigu gisa honetako egitura mota bat aztertzeke perpausaren egitura gainditzen duten ikusmoldeak zaizkigula interesatzen.

Proposiziozko edukitik at dagoen esparru zabal horri, ordea, mugak jarri beharra ikusten dugu eta horretarako proposiziozko edukitik kanpo geratzen den esparrua zein modulu edo diskurtso-mailatan kokatzen den aztertzea ezinbestekoa iruditzen zaigu; azken batean, diskurtsoa analisi-irizpide eta antolamendu propioa duten modulu, maila edo osagaietan antolatzen baita.

## 2.5. ENUNTZIATU PARENTETIKOAK DISKURTSOAREN ANTOLAMENDUAN

Diskurtsoa bezalako objektu konplexu batek izan ditzakeen osagai, maila eta egitura nagusiak zehaztuz eta aztertuz lor dezakegu objektu horren funtzionamendua pixka bat sistematizatzea eta, ondorioz, enuntziatu parentetikoak osotasun konplexu eta zabal horren barrenean, zein egitura eta mailatan kokatzen diren mugatzea. Era honetara jokatzeko, gainera, aukera metodologikoa besterik ez da.

La distinción en módulos es interesante para la teoría, para distinguir instrumentos teóricos explicativos en sí, pero en la práctica hay que unirlos. (Fuentes 2000: 31).

Jakin badakigu, izan ere, maila, egitura eta osagai hauek, bere bakarrean, ez dutela existentzia edo izaterik; zerbait badira elkarrekin harremanetan direla. Halaz ere, horrela jokatzeko —hau da, oinarritzko eta atalkako azterketara jotzeak—, bide ematen digu aztergaiaren deskripzio eta analisi sistematikoa egin eta bere barrenak hobeto ezagutzeko. Eta, bide batez, enuntziatu jakin hauek marko teoriko orokor baten koordenadapean kokatuko ditugu: diskurtsoaren edo testuaren ikuspegi pragmatiko baten koordenadapean, hain justu ere. Beraz, gisa honetara, azterresparrua hesitzea lortuko dugulakoan gaude, nahiz eta hesi hauek, bereziki, teoriarekin duten zerikusirik.

Hizkuntzalaritzan bada eskolarik diskurtsoa nola antolatuta dagoen aztertzen duenik. Genevako eskolak, esaterako, diskurtsoaren eredu modularraren proposamena egingo du<sup>66</sup>. Roulet-ek (1991, 1997, 1998) bere laguntzaileekin “moduluen” eredu desberdinak (edo fase desberdinetan osatzen joan direnak) planteatuko ditu diskurtsoa osagai eta azpiosagaietan antolatzeko. Modulua, azken batean, osotasun batean (diskurtsoa edo testua, gure kasuan) erabilera espezifikoa duen ezagutza-zatia izango da: ezagutza-sistema autonomoa edo beregaina. Eta hauek bere bakarrean, berariaz, azter daitezke, edo beste gainontzekoekin harremanetan.

Eredu modularra teoria lantzeko, hots, azalpenezko baliabide teorikoen berri emateko, oso garrantzizkoa izan arren, enuntziatu parentetikoak aztertzeko moduluetan atalkatzea baino argigarriagoa da, gure ustez, diskurtsoaren antolamendu edo maila nagusitan kokatzea.

<sup>66</sup> Proposamen teoriko modularrari buruzko informazioa nahi duenak jo beza *Cahiers de Linguistique Française* (CLF) aldizkarira, proposamen eta eredu hauek argia ikus dezaten aldizkari horretaz baliatu baitziren nagusiki. Proposamen teoriko sakonenak Adam-ek (1990), Miché-k (1998), eta, bereziki, Roulet-ek (1991, 1997, 1998) egin dituzte.

Proposatuko dugun ereduak metodologiaren alorrean hautetsi ditugun eskolen ekarria eta zehaztu ditugun termino-adigaiak oso kontuan izango ditu. Horien arabera, gure proposamena eredu modularra baino askozaz sinpleagoa izango da: moduluen arteko harremanetatik sortutako antolamenduak edo egiturak komunikazio-ekintzan kokatuko ditugu, komunikazio-ekintzako koordinatu edo zutarri nagusiak kontuan izanik; hau da, esataria (enuntziatzaileak), norentzakoa eta testuingurua kontuan hartuta.

Horretarako, ordea, ezinbestekoa gertatzen zaigu enuntziatu parentetikoez oro har, ulertzen duguna (diskurtsoan betetzen duten funtzioaren arabera egindako definizio orokorra) aurreratzea, adigaiaren mugatze-irizpideak eta definizio zehatzak hurrengo atalean zehaztuko baditugu ere. Garrantzitsua da —eta are ezinbestekoa— ordea, une honetan bertan diskurtsoan duen eginkizuna kontuan hartuz definitzea, bestela zail gertatuko baitzaigu egitura mota honek diskurtsoaren antolamenduan zein mailatan eragiten duen zehaztea.

### **2.5.1. Enuntziatu parentetikoaren definizioa**

Une honetan aurreratuko dugun definizioa, bada, enuntziatu parentetikoak diskurtso komunikatiboan duen egitekoaren araberkoa izango da:

Enuntziatu parentetikoak esatari-enuntziatzaileak bere intenzio-asmoak erdiesteko norentzakoari egiten dizkion keinuak, seinaleak dira; hitz batean, helburu horretara bideratutako estrategiak. Izan ere, esatariaren xede-helburua, komunikazio-truke horretan, norentzakoak bere intenzioa atzematea da eta, beraz, etengabeko ahalegina egingo du testutik beretik bere mezuaren interpretazioa bideratzen (bere argudiatzea bideratu eta norentzakoa berak nahi duen bidetik eramaten). Xede hori betetzeko testuan bertan diskurtso mailako hainbat estrategia jarriko ditu martxan: esandakoa birformulatu, zehaztu, modalizatu, arrazoitu eta testuinguratu egingo du, harik eta esan duenaren eta esan nahiko zukeenaren artean zirrikiturik txikiena ere egon ez dadin eta, ondorioz, diskurtsoak esatariak berak nahiko zukeen bidetik jarrai dezan.

Esataria testu-sortzaile den aldetik, eta egiteko horretaz jabeturik, enuntziatua bere komunikazio-intentzioei ahalik eta zuzenen egokitzen saiatuko da. Baina hori ez da aski; beharrezkoa da, aldi berean, norentzakoa bera ere helburu-intentzio horiezaz jabetzea. Horretarako, batetik, esatariak ahalik eta modurik egokienean bere argudio-haria garatzeaz gain (eta hor dakusagu argumentazio-estrategiak nahiz enuntziatio- eta modalizazio-mailan egiten duen ahalegina), norentzakoarekin interakzio-harreman estua izateari eutsiko dio eta, bestetik, ahaleginak egingo ditu bidaltzen dizkion keinu eta oharren bitartez eta komunikazio-testuinguruari esker, honek (norentzakoak), inferentzien errota martxan jarri eta unean-uneko informazio garrantzizkoena jaso dezan.

Aztergai ditugun Koldo Mitxelenaren diskurtsoan, hain usu eta batere behartu gabe darabiltzan enuntziatu parentetikoak eginkizun horiek guztiak dituela frogatzen saiatuko gara; funtzio horiek betetzera lerratzen direla, hain zuzen, diskurtso mailako estrategia edo baliabide horiek.

Aztergai ditugun zinema- eta liburu-kritiketan argudiozko dimentsioa duten azalpenezko sekuentzia deskriptiboak nagusitzen direla esana dugu, esatariak ez baitu modu neutro batean informatzea bilatzen. Bere intentzio-asmoa film edo liburu bat ezaugarrituz edo bere alderdi positiboa nahiz negatiboak deskribatuz, norentzakoa film edo liburu hori ikustera edo irakurtzera lerratzea da (edo, alderantziz). Beraz, badute, norentzakoa konbentzitu edo pertsuaditzeko helburua ere.


Enuntziatu parentetikoek komunikazio-ekintza jakinetan zein diskurtso-egituratan eta mailatan eragiten duten azaltzeko, enuntziatu parentetikoaren osatze-egitura esplizitu egingo duen koadro teorikoa paratuko dugu:

### **2.5.2. Koadro teorikoa**



esataria (enuntziatzailea(k))-----enuntziatua (diskurtsoa)-----norentzako(a)(k)

## MAKROEGITURA



-----GAIN-EGITURA (sekuentziak)-----

-----TESTUINGURUA-----

Enuntziatu parentetikoaren osatze-egitura azal dezakeen koadro teorikoa paratu dugu goian. Koadro teoriko honek argi uzten du enuntziatu parentetikoaren fenomeno aski konplexua dela eta estuki lotuta dauden maila eta egituretan eragiten duela.

Ez ditugu Roulet-ek (1991, 1997) eta Miche-k (1991) proposatzen zituzten modulu guzti-guztiak paratu, eta moduluen ordean, mailak eta egiturak hobetsi ditugu, azken batean, modulu eta dimentsio horiek elkarrekin dituzten harreman eta lotura horietatik eratorritako antolamenduak direlako garrantzitsuen.

Enuntziatioaren hizkuntzalaritzatik datorren hipotesi batekin jokatu dugu, ustez, aztergaitzat dugun egitura-motan sakontzeko argigarri gertatu baitzaigu. Hipotesi horren arabera, gutxieneko komunikazio batean, hots, enuntziatuan, hiru maila bereiz daitezke:

- “dictum” edo proposiziozko edukia bere egiten duena (oraindaino gehien sakondua, eta guk “mikroegitura diktala” bezala izendatu duguna), eta

- perpaus bazterra<sup>67</sup>, askotan implizituki bakarrik agertu arren, komunikazio-ekintza gauzatzeko noraezekoa da. Hau da, modalizazio-maila eta enuntziatio-maila<sup>68</sup>.

Parentetikoak aztertzeke, bada, goiko koadro teoriko horrek erakuts diezagukeenez, hiru maila bereizi ditugu: a) enuntziatio-maila, b) modus-maila eta c) dictum maila. Eta uste dugu —horixe indartzen saiatuko gara tesian zehar— beren egitekoa diskurtsoaren makroegituran kokatzen dela: makroegitura horretako *enuntziatio* eta *modalizatio* mailan nahiz *dictum* mailako makroegituran, informazio- eta argudio-egituretan<sup>69</sup>, hain zuzen; izan ere, aurreratu dugun definizioak berak adierazten digunez, proposiziozko eduki horretan parte hartu baino areago, parentetikoek laguntzen dute esatariak esandako hori norentzakoak ahalik eta egokien aditu eta barnera dezan.

‘Makroegitura’ adigaia Fuentesek (1996, 1998a, 1998b, 2000) darabilen zentzuan ulertzen dugu: diskurtsoaren antolaketari dagokion maila bezala, eta bertan, informazioa enuntziatu eta paragrafoetan antolatzeaz gain, esatariaren jarrera (modalitatea) eta enuntziatio-baldintzak barneratzen dira.

Pero luego hay que diferenciar la microestructura (la organización fónica, sintáctica y semántica interna, el uso de los elementos lingüísticos en sí) de lo que es la macroestructura o disposición en texto. La organización textual es algo que lo envuelve (aquí se llama actividad serial) y lo conecta con otros textos. De ahí que los componentes sean el enunciativo y el retórico, y sus agentes el enunciador y el destinatario. Es el ámbito de la enunciación en sí. (También de la modalidad, añadiríamos nosotros). (Fuentes 2000: 48).

<sup>67</sup>Récanatik (1984) bere lanean darabilen “testu-margena” litzateke, edota Vendlerrek (1970) darabilen “metatestua”.

<sup>68</sup>Aitzindaritzat, Bally (1965) eta Ducrot (1984) hartuko ditugu, bata modalitatearentzat eta bestea enuntziatio-mailarentzat. Guk, horiekin batera eta bereziki gure azterbidearen planteamendurako, Enuntziatioaren hizkuntzalaritzako (eta hizkuntza-pragmatikako, oro har) ideiak bere egin dituen C. Fuentes hautatu dugu, bere lanek eta ikusmolde teorikoek gure aztergaiari argibidea baitakarkiete.

<sup>69</sup>Informazio-egitura eta argudio-egiturak *dictum* mailako makroegituratzat jo ditugu. Proposiziozko edukia aditzera ematea baino gehiago, proposizioari dagokion informazioa antolatzeko eginkizuna du: esatariak gai nagusiak, bigarren mailakoak, gai horien progresio tematikoa, defendatu nahi duen tesiaren arabera antolatuko ditu. Esataria idaztera eraman duen hasierako intentzio hori norentzakoak atzeman dezan ahalik eta egokien antolatuko du. Informazio-egitura eta argudio-egitura, bada, komunikazio-trukean, esatari-norentzakoaren arteko interakziozko harremanaren ondorioz sortuko dira.

“Esto quiere decir que la actividad de recepción/interpretación (es decir, la cooperación interpretativa del oyente/lector) deberá estar prevista y orientada desde el interior mismo del discurso de cada relato para que el valor significativo de la historia contada pueda ser captado por el destinatario y el acto de narrar resulte pertinente y produzca el efecto perseguido por el enunciador/narrador” (Herrero 1997-1998: 214).

Honekin ez dugu esan nahi, inolaz ere, mikroegiturak inolako eraginik ez duenik enuntziatu mota hau aztertzeko unean. Garbi dagoena da, Fuentesi jarraituz (2000), mikroegituran sartu ditugun egitura sintaktiko, semantiko eta fonetikoek makroegituran ere badutela eraginik. Hau hain da horrela, egitura mota hau bereizi eta mugatzeko, sintaxi-irizpideak funtsezko egitekoa izango dute: batetik, enuntziatu mota hau sintaxi aukera bat izango da, enuntziatu aske bat, funtzio hori gauzatzeko perpausaren egituratik aldentzen duten puntuazio demarkazioen artean kokatua, eta bestetik, funtsezkoa da enuntziatu honek (E2), E1 enuntziatuarekin sintaxi-harremanik duen edo ez zehaztea.

Esan nahi duguna da enuntziatu parentetikoa perpausaren mugaz gaindiko maila batean kokatzen dela; ez dagoela E1 enuntziatuko aditzaren menpe eta, azken batean, bi enuntziaturen gurutzaketa gauzatzen dela. Ez du, bada, E1 enuntziatuko proposiziozko edukian parte hartzen.

Laurinek dioen bezala:

Nous avons nommé ainsi [parenthese discursive] les moments où un locuteur suspend momentanément son propos afin d'émettre un commentaire. Il s'agit d'énoncés qui ne font pas réellement partie de ce que le locuteur est en train de dire, qui sont en quelque sorte extérieurs à ce contenu, surajoutés. (Laurin 1989: 4).

*Dictum*, *Modus* eta *Enuntziazio* mailak, ordea, enuntziatu beraren barnean bereizi izan dira eta guk, jakin badakigu, enuntziatu parentetikoaren fenomenoaz aztertu eta deskribatzeko gutxienez bi enuntziatuarekin jokatzeko dugula: E2 enuntziatua edo enuntziatu parentetikoa eta hau tartekatua izan den enuntziatua, E1, alegia. Beraz, enuntziatu parentetiko jakin batek modalizazio mailan eragiten duela diogunean, enuntziatu osoaz dihardugu (enuntziazio osoa da esatariaren jarreraren adierazle, E1 enuntziatua iruzkintzen duena) eta ez enuntziatu beraren barnean egon daitezkeen osagaiez.

#### 2.5.2.1. ENUNTZIAZIO-MAILA, MODUS-MAILA ETA DICTUM-MAILA

Hainbat autoreri jarraituz (Alcaide-Lara 1992, Fuentes 1996, Otaola 1988, etab.), (§2.5.2.) koadro teorikoan ikus litekeen bezala, komunikazio-ekintzaren ikuspegi hirukoitza hobetsi dugu, enuntziatu parentetikoak diskurtsoaren antolamenduan kokatzeko errentagarri

gertatuko zaigulakoan. Alderdi honetan Enuntziazioaren hizkuntzalaritzak garatu dituen teoriak kontuan izango ditugu.

Enuntziazioa bere gain hartzen duen analisi batek berarekin dakar esatariak (eta norentzakoak) enuntziatu horretan bertan, enuntziazioagatik beragatik, utzi dituen lorratzak atzeman eta azaleratzea. Beraz, lorratz hauek, subjektibitatearen errainu direnak, diskurtsoan perpaus-bazterreko mailatan (maila marjinaletan) agertzen dira.

Perpaus-bazterrean kokatuko dira, bada, esatariaren subjektibitatea adierazten duten fenomenoak, bai esatariak enuntziatu duen horri buruzko jarrera adierazten dutenak (modalizazio-maila) eta baita enuntziazioaren sortze-ekintzari berari buruzkoa ere (enuntziazio-maila). Maila hauek, Fuentesen ustez, mezuaren aurreko momentuari dagozkio, eta, oro har, ez dira zuzenean, esplizituki, agertzen, baina agertzen dute beren izaera (hots, egon badaudela atzematen da) maila horri dagokion unitateren batek diskurtsoan eragiten duenean; hau da, maila hauek esplizitu egiten dira esatariak berak maila horietan oin hartzea erabakitzen duenean:

- “Zer diozu? *díot* bihar zinera joango naizela”: “Esatearen ekintza” bera nabarmentzen dut berariaz.

Bi maila hauek, Fuentesek bere tesian (1987: 55) eta lanean (1996: 27-28) adierazten digunez, formaliza daitezke hainbat aditz-tiporekin, nahiz eta kontua ez den maila honetako elementuekin identifikatzea. Horrela, enuntziazio-mailaren adierazgarri, *esan*, *komunikatu* aditzaren baliokide izango da eta, modalizazio-mailari dagokionez, esatariaren jarrera adierazten dutenak balioko lukete. Hauek, oinarrian, Bally-ren ustez behintzat, hiru dira: judizio intelektuala, sentimentua eta nahia edo borondatea, eta *pentsatu*, *sentitu* eta *desiratu* edo *nahi izan* aditzekin formulatuko genituzke. Era honetara, enuntziatu<sup>70</sup> baten analisiak ondorengo hiru estadio edo etapa hauek izango ditu:

- a) Esatariak komunikazio-ekintza bat egiten du (enuntziazio-maila)
- b) Esatariak gertakizun horren aurrean bere jarrera azaltzen du (modalizazio-maila)
- c) - Gertakizuna X da (dictum<sup>71</sup>-maila)

<sup>70</sup> Gogoan izan Enuntziazioaren teoriaren ikuspegitik, esana dugunez, perpausa gramatikako egitura abstraktua dela, eta egitura abstraktu hau enuntziatu edo komunikazio-ekintza bihurtu ahal izateko, hau da, baldintza komunikatibo zehatzetan esatari batek norentzako bati aditzera ematen dion zerbait izatera iristeko, modalizazioaren eta enuntziazioaren beharra duela.

<sup>71</sup> Alderdi honetan Bally (1966) jarraitzen dugu. Honen arabera, perpaus orok bi zati ditu: modus edo modalitatea eta dictum. Egia ere da Gutiérrezrek (1997) bereizketa honi egiten dizkion ohar eta kritikez ere jabetzen garela, baina metodologia gisa ongi datorkigu.

Oro har, azkenengo zatia bakarrik egiten da esplizitu, gainerako guztiak saihestuz.

## ENUNTZIAZIO-MAILA

Enuntziazio-maila egon badagoenaren teoria aditz performatiboetatik sortzen da. J. M. Sadoek (1974) eta J. R. Rossek (1973) proposatu zuten egituraren mailarik gorenean komunikazio-aditzen bat zegoelako hipotesia eta J. L. Austinek (1978) enuntziatu konstatiboak eta performatiboak bereizten ditu. Austinenetzat, enuntziatu guztiak ez dira deskripziozkoak eta bide horretatik gatzatzen du bere enuntziatu performatiboen teoria; bestela esan, “esanez egitea”<sup>72</sup> mamitzen duten enuntziatuena. Enuntziatu hauek, bada, konstatiboek, gauzen berri soilak ematen dutenei, aurrez aurre jartzen zaizkie, azkenok egia/gezurra balioen arabera neur baitaitezke.

“Esanez egitea”, maiz aski, erritoetan gertatzen da:

- “Eskerrak ematen dizkizut”
- “Txalupa hau (halako) izenez bataiatzen dut”
- “Gehiago ez naizela etorriko zin egiten dut”

Hauek eta hauen antzekoak esaten ditugunean ez gara gauzen berri ematen ari, “egiten ari gara” eta formula modukoez baliatzen gara hori egiteko. Honek berarekin dakar aditz performatiboak izan badirela baieztatzea: *zin egin*, *bataiatu*, *izendatu*, *eskertu*, etab. Eta deskripzio soilak ez direlako, hau da, egitateak direlako, ezaugarri bereziak dituzte eta hauetako ezaugarriren bat aldatuz gero (aldia, pertsona...) ezin atxiki dakieke *egitatezko* irakurkerarik.

Ezaugarri horietatik, bereziki, enuntziazio-maila hau azaltzeko, “indikativoko orainaldiko lehen pertsona singularrean esatea” da interesatzen zaigun ezaugarria, enuntziazio-momentuarekin bat eginik, alegia.

Hemendik abiatuz, Rossek (1970), teoria bat sortuko du, zein-nahi perpausen egiturarik gorenean aditz performatibo bat dagoela auresuposatuko duena. Aditz honek

<sup>72</sup> Gisa honetako enuntziatuek itxurazko ezaugarri berezi batzuk dituzte:

- I) gramatikaren ikuspegitik, deklaraziozko perpausa izan ohi da;
- II) indikatiboko orainaldiko lehen pertsona singularrean esaten da;
- III) ez da zentzugabeko adierazpidea, baina
- IV) ezin da egiazko ala gezurrezkoztat jo, egoki ala desegokitzat baizik.

indikati-boko orainaldiko lehen pertsonan dagoen komunikazio-aditzen batekin egingo du bat: “nik diot” edo “nik esaten dut” batekin, alegia.

Hori dela eta, Fuentesek (1987) informaziozko azalpen baten aurretik maila batzuk aldarrikatzen ditu, aurretiko maila batzuk. Maila hauek estarian edo isilpean egon daitezke edo ez, baina edozein berbalditan egon badaude eta beharrezkoak dira, hainbat unitaterekin lotuta daudelako. Esate baterako, honako hauetan atzeman daiteke maila horien isla:

#### 1- Perpaus osoari eragiten dioten aditzondo edo adberbioetan<sup>73</sup>:

- Euria ari du, *zorionez*: Aditzondo honen bidez, esan duenak sortu dion poza adierazten du esatariak. Beraz, aditzondo hau modalitatezkoztat joko genuke. Bada, ordea, enuntziatio-mailan eragiten duen aditzondorik ere:

- Ez naiz ongi sentitzen, *zinez*: Aditzondo hau esatariaren komunikazio-ekintzari dagokio: “esatariak **zinez**<sup>74</sup> **esaten du** ez dela ongi sentitzen. Badirudi, “esan” edo hizketako aditzen bati erreferentzia egitea beharrezkoa dela.

#### 2- Birformulazioetan

Horiek, igorri duen edukiari baino areago (hots, enuntziatuari baino areago), “esatearen” edo “aditzera ematearen” ekintzari eragiten diote, hau da, enuntziatioari berari.

Hipotesi hau, —enuntziatio-maila egon dagoelako uste hau— enuntziatu parentetikoek ere baieztatu dezaketela uste dugu, komunikazio-ekintzaren sortze edo eratze-maila honetan eragiten baitute.

#### MODUS-MAILA (MODALITATEA)

Hau ere, aurrekoa bezalaxe, bazterrekoa da. Gai honetaz definizio eta ikuspuntu teoriko ugari mahairatu izan dira, eta horren lekuko dugu bibliografia-erreferentzien ugaritasuna<sup>75</sup>.

<sup>73</sup>Aztergai honen jorran aritu dira honako hauek ere: Zadavil (1968), Greenbaum (1969), Kovacci (1972, 1980-81), Bellert (1977), Barrenechea (1979), Egea (1979), Quirk, R. et al. (1985), Koptová (1986), Otaola Olano (1988), Jiménez Juliá (1989), Fuentes (1991a), (1991b), Martín Zorraquino (1994), Fuentes & Alcaide Lara (1996), Gutiérrez (1997), Arce Castillo (1998), etab.

<sup>74</sup>*Zinez* bezalako aditzondoak berariaz aztertzen ditu Fuentesek (1995).

<sup>75</sup>Bakarren batzuk aipatzearren, honako hauek aipatuko ditugu: Bally (1965), Otaola, C. (1988), Kerbrat-Orecchioni (1986), Fuentes, C. (1991 a), Fuentes, C. & Alcaide-Lara, E., (1996), Zadavil, B. (1968)...

Ballyk (1965) emandako definiziotik abiatuko gara. Honentzat, enuntziatua bi faktoreren erlaziotik sortzen da:

- **DICTUM**: Proposiziozko edukia, edota aditzaren ekintzaren menpe dauden elementuek igortzen duten informazioa<sup>76</sup>. Charandeauk (1983) dictum honi HURA, erreferentea, deritzo; hau da, errealitateaz zerbait esatea:

Charaudeau (1983) sitúa el ÉL, el referente. Es decir, lo que llamaba C.Bally (1965) el dictum: decir cosas de la realidad. (Fuentes 2000: 48).

- **MODUS**: esatariak igorri duen horrezaz, dictum-ari buruz duen jarrera-iritzia “que señalan el grado de adhesión del sujeto de enunciación a los contenidos enunciados” (Muñoz, 1992: 945). Modus-ak dictum-a bere osotasunean besarkatzen, biltzen, inguratzen du. Ballyk perpausaren arimatzat dauka.

La modalité est l'âme de la phrase; de même que la pensée, elle est constituée essentiellement par l'opération active du sujet parlant. On ne peut donc pas attribuer la valeur de phrase á une énonciation tant qu'on n'y a pas découvert l'expression, quelle qu'elle soit, de la modalité (Bally 1965: 36).

“Modusa”, perpausa abstraktu izatetik enuntziatu izatera pasatzeko beharrezkoa den osagaia da. (Fuentes 1996: 33).

Fillmorek ere honako ekuazio hau formulatu zuen:

“SENTENCE= MODALITY+ PROPOSITION”

Beraz, ekuazio honek nahiz modalitateari buruzko azterketak garbi agertzen dute modalitatea perpausaz gaindiko estratu batean kokatzen dela, ez dela proposizioaren edo

---

Hauek guztiak, oro har, perpaus osoari dagozkion aditzondoekin batera aztertzen dira. Hori dela eta, bibliografiako erreferentzia goian aipatuekin osa daiteke.

<sup>76</sup>Definizio honen interpretazioak ulerkera desberdinak dakartza, gure aztergaiari begira zuzenean eragiten dutenak. Esate baterako, “funtzio intzidentala” Oviedoko eskolakoek defenditzen dute eta hauentzat perpausoko aditzaren eraginpean dauden elementuen funtzioetatik bereizten dira, baina hala ere, perpausaren barrenean kokatzen dira; “dictum”-aren barrenean esango genuke guk. Irizpide hauxe erabiltzen du Fuentesek (1998) funtzio intzidentala enuntziatu parentetikoetatik bereizteko: enuntziatu parentetikoak, funtzio intzidentala duten osagaiak ez bezala, ez dira “dictum”-aren barrenean kokatzen (izatekotan ere, dictum-mailako makroegituran), makroegituran baizik; zehatzago, enuntziatio eta modalizatio mailatan.

perpausaren barnekoa; honek proposizio edo perpaus hori inguratu, bildu egiten du eta biek enuntziatua osatzen dute. Beraz, modalizazioa, perpausaz gaindi, diskurtso-mailan kokatzen da; gramatikazko osotasuna duen perpausa modifikatu egiten du.

Esatariak dictumari buruz duen jarrera hau “subjektibitatea” adigaiarekin nahasirik agertzen da maiz aski. Horren lekuko, Kerbrat-Orecchionik (1986) ematen duen subjektibitatearen definizioa eta sailkapena bera dugu: “La relación con el sujeto de la enunciación” (1986: 189). Gisa honetara definituta, berak dioen bezala, ezer ez da subjektibitatearen esparrutik ateratzen “si se pasara por el matiz del conjunto del léxico, se estaría obligado a constatar que muy pocas palabras se escapan del naufragio de la subjectividad” (1986: 189). Eta subjektibotasunaren adierazgarri gisa honako hauek aipatzen ditu:

- Deiktikoak
- Epaitu edo ebaluatzeko balio dutenak:
  - termino axiologikoak (*belleza, malo, merecer*)
  - termino modalizatzaileak (*creer, posible, sin duda...*)
- Afektiboak (*admirable*) eta, interjekzioak

Kerbrat-Orecchioni bera ere ohartzen da deiktikoak eta epaitzeko balio dutenen artean alderik badela:

El empleo de los deícticos, aún siendo solidario de la situación enunciativa, reposa, en efecto, en un consenso indiscutible: en una determinada situación todo el mundo estará de acuerdo en reconocer que el empleo de “aquí” o de “ahora” es apropiado o inadecuado” Por el contrario, el empleo de los evaluativos puede siempre discutirse, en una determinada situación enunciativa, pues depende de la naturaleza individual del sujeto de la enunciación. (Kerbrat-Orecchioni 1986: 191-192).

Honenbestez, badirudi subjektibitatearen izenean hainbat hizkuntza-gertakari nahasi egiten direla. Gauza bat da komunikazioan eragin zuzena duen leku-denborazko egoera esatariak berak antolatua izatea — hau baita diskurtsoaren sortzailea—, baina besterik da leku-denborazko egoera (kasu deiktikoak) horrek esatariak igorri duenari buruzko jarrerarekin nahastea. Bien arteko nahasketarik gerta ez dadin, bat egiten dugu Fuentesek (1996: 36) proposatzen duen bereizketarekin:



Modus (esatariaren jarrera)	Subjektibitatea
Modalitate mailan eragiten du.	Dictum mailan eragiten du.
Esatariari dagokio.	Enuntziatzaileari dagokio (izan liteke esataria edo ez).
Enuntziatua iruzkintzen edo epaitzen du.	Testuak izendatzen edo ispliatzen duen errealitatea iruzkintzen edo epaitzen du.
Adb: “Zoritxarrez, ez da etorri”.	Adb: “Bere jokabidea ez da batere <i>atsegina</i> izan”.

Bigarren adibidean agertzen den adjektiboa (“atsegina ez izatea” edo “desatsegina”) errealitateari dagokio, hau da, dictum-eko elementu bati: jokabideari. Lehenengo adibideari dagokion *zoritxarrez* aditzondoak, aitzitik, modalitateari edo modus-mailari dagokio: gertakizun baten aurrean (ez etorri izana), esatariak bere jarrera azaltzen du; ez du modu neutro batean informatzen, hala egingo balu, aski zuen “ez da etorri” esatearekin.

Baina zeintzuk dira modalitatea adierazteko hizkuntza-baliabideak? eta horietatik zeintzuk interesatzen zaizkigu enuntziatu parentetikoaren azterketarako?

Fuentesek (1996: 37) esango digunez, modalitatea aditzera emateko bitartekoak ugariak dira:

- Entonazio-baliabideak
- Baliabide semantikoak: balorazio aldetik markatuagoak diren unitateak hautatzea
- Baliabide sintaktikoak:
  - Perpaus aditzondoak: perpaus osoari eragiten dioten aditzondoak eta ez perpausko elementuren bati: *zoritxarrez...*
  - Perpausa: *litekeena da, egia da, etab.*
  - Hitzen ordena
  - Deikiak
  - Interjekzioak
- Baliabide morfematikoak
  - Aditzaren modua

Baliabideetarik batzuk horiek badira ere, diskurtsoan era askotara ager daitezke (Alcaide-Lara & Fuentes 1996):

- Esplizituki dictum-eko osagaien batekin nahasirik. Modalitate hau aditz jakin batzuekin ager daitekeena da: *baieztatzen dut, nahi dut, desira dut, galdetzen dut....*

Inscrita dentro del dictum, mezclada a cualesquiera de sus componentes. Es la modalidad explícita, que puede expresarse con verbos: afirmo, deseo, quiero, pregunto..., en el modo verbal, aumentativos, diminutivos...(1996: 17).

- Hutsune funtzional gisa, perpaus bazterrean, perpaus osoari eragiten diola eta ez perpauseko elementuren bati. Enuntziatuaren osagai sintaktikoa litzateke. Hemen sartzen dituzte perpaus aditzondoak edo balio hori har dezaketen esapideak:

Como un hueco funcional, marginal a la oración, y componente sintáctico del enunciado. Entramos ya en una gramática del discurso, donde debe encontrarse ese hueco del modal que afecta a toda la oración. En él aparecen adverbios, o expresiones que van adquiriendo ese valor. (1996: 17).

Hauek modalitatea adierazteko bereizi diren mekanismoak dira; markatuenak, bada.

- Segmentu gaineko elementuren batekin: enuntziatu osoari eragiten dion entonazioarekin. Maila fonikoari badagokio ere, badu modalitatearen eduki semantiko-diskurtsiboa.

Con un elemento suprasegmental, la entonación, que afecta a todo el enunciado también. Es un elemento del nivel fónico, pero que tiene un contenido semántico-discursivo de modalidad. Informa al enunciado y marca la actitud del hablante. (1992: 18).

- Enuntziatu autonomo gisa funtzionatzen duen elementuren batekin: interjekzioarekin (1992: 18).

- Modalizatzaile funtzioa duen enuntziatu oso bezala. Enuntziatu honek aurreko enuntziatuan agertutako modalitatea zuzentzen du: lehena, oro har, modalitate neutroa edo ez markatua (baieztatzaile adierazkor soila) izango da eta bigarren enuntziatuak modalitate markatua agertuko du. Hori Fuentesek eta Alcaide Larak berariaz diote enuntziatu parentetikoekin erlazionatzen dela; izan ere, enuntziatu parentetikoak aldi berean birformulatzailak eta modalizatzaileak dira

Como un elemento de contenido únicamente modal, que actúa como corrector de la modalidad expresada en el anterior. El primero generalmente va en la no marcada o neutra, la representativa o aseverativa, y el siguiente enunciado está constituido por un elemento

adverbial o expresión que tiene precedente. Es el caso de la función comentario, otra de las que se inscriben en el nivel supraoracional, y que hay que relacionar, creemos, con los enunciados parentéticos, que parece ser a la vez reformulativos y modalizadores. Es una función específica que no ha sido descrita en las gramáticas y que creemos necesita de una investigación más detenida. (Fuentes & Alcaide-Lara 1992: 18).

Guk, enuntziatu parentetikoak aztertzeke, ez ditugu modalitatea ager daitekeen modu guztiak gogoan izango. Gure helburua enuntziatu parentetikoak ahalik eta modurik agortzaileenean aztertzea denez gero, sintaxi aukera horretan agertzen den modalitateari bakarrik erreparatuko diogu, modalizatzaile guztiak, esan dugunez, ez baitira enuntziatu parentetiko; hau da, Fuentesek eta Alcaide-Larak adierazten duten bezala, modalizatzaile funtzioa adierazteko perpausaren egitura sintaktikotik aldendu edo baztertzen den enuntziatu oso eta askea izango dugu kontuan.

Gainera, perpausaz gaindi, perpaus bazterreko posizioan agertu ahal izateko, puntuazio-demarkazio jakin batzuen artean kokatuko da: parentesien, marren eta intzisoko bi komen artean (Linares 1979). Beraz, esatariak berak esplizituki adierazten dituen haiek bakarrik izango ditugu kontuan. Izan ere, bada aztertzailerik enuntziatu parentetiko mota jakin bat aztertzean (hots digresioak), formaren aldetik bi mota bereizten direla dioenik: bata, esatariak jakinaren gainean testuan txertatzen dituenak (hauek puntuazio-demarkazioari esker esplizituki azalduko ditu) eta, bestea, implizituki agertzen direnak, esataria berariaz ohartu ez arren norentzakoa edo irakurlea ohartzen denekoak dira:

Une distinction naturelle opposera ainsi la digression explicite et la digression implicite. Dans le premier cas, l'auteur indique, par tel ou tel signe, qu'il est conscient qu'il va s'éloigner de son sujet ou qu'il s'en est éloigné. Dans le second cas, la digression est identifiée exclusivement par le lecteur, qui considère indépendamment de tout signe de l'écrivain, que celui-ci est sorti de la voie fixée. (Bayard 1996: 19).

Ez dugu ukatzen perpaus bazterreko posizioan esplizitoki agertzen ez den digresiorik ez dagoenik. Modalizazioaz genioen bezala, digresioa agertzeko ere modu bat baino gehiago egon daitezke, baina guk berariaz, enuntziatu parentetiko gisa agertzen direnei soilik erreparatuko diegu. Eta horretarako ezinbestekotzat jotzen dugu puntuazio-demarkazio jakinekin perpaus bazterreko posizioan kokatuta agertzea.

Honekin guztiarekin, bada, enuntziatu parentetikoak aztertzeko hautetsi ditugun termino eta ikuspegi teorikoen alderdia jorratutzat ematen dugu. Orain gatozen, enuntziatu parentetikoaren definizio- eta mugatze-irizpideak eman aurretik —edo eman ahal izateko—, egitura mota jakin honetaz han eta hemen esan eta idatzi dena bildu eta gure galbahetik pasatzera. Ondoren, enuntziatu parentetikoak ondo mugatuta ditugularik, hautatu dugun Mitxelenaren corpuseko enuntziatu parentetikoaren analisi formala (analisi sintaktiko-testuala) eta komunikatiboa (diskurtso komunikatiboan duten zeregina) egingo dugu.

### 3. ENUNTZIATU PARENTETIKOAK: BESTEK EGINDAKO BIDEETAN BARRENA

#### 3.1. HIZKUNTZALARITZAN ENUNTZIATU PARENTETIKOEN AZTERKETAN DAGOEN HUTSUNEA

Autore gehienak bat datoz intzisoen, parentesien edo egitura parentetikoaren azterketak oso bakanak direla aitortzean. Esaterako, Fuentesek (2007) honela berresten du jada (1998, 1999 eta 2000) lanetan aipatua zuen gertakari honen inguruko hutsune ia erabatekoa. Honela zioen 1998an:

Nos ocupamos en este trabajo de un tipo de estructuras al que rara vez se alude en las gramáticas, y que, por tanto, no tiene reconocido un estatus sintáctico claro. (Fuentes 1998: 1).

Beste hainbeste dio 2007an *enuntziatu parentetikoei* buruz ari delarik:

En la bibliografía, **escasa por cierto**, sobre el tema se confunde en ocasiones el parentético con el inciso. Se suelen usar ambos términos para lo enmarcado entre pausas (Fuentes 2007: 72). (Letrakera lodia gurea da).

Atzera jauzia eginez, frantziar esparruan<sup>77</sup>, Nemmik (1973) honela dio:

<sup>77</sup>Frantziar esparruan aurkitu ditugu gure helburu-xedeei zuzenen egokitu zaizkion lan esanguratsuenak: Dessaintes (1960), Nemmi (1973), Suleiman (1977), Cornulier (1978), Reder (1978, 1980, 1982, 1986), Banfield (1979), Récanati (1984), Delomier (1985, 1986, 1989), Laurin (1989), Authier-Revuz (1995), Thompson & Mulac (1995), Zay (1995), Baque Millet (1999), etab.

La lecture de nombreux écrits sur la grammaire révèle une absence surprenante d'étude systématique de l'incise. (Nemmi 1973: 9).

Halaz ere, autore honek ordu arte frantziar esparruan gaiari buruz egindako aipu solteak biltzen ditu; aipuak, ordea, askotan erlatibozko perpaus murrizgarriak ez-murrizgarrietatik bereizteko ahaleginei gehiago dagozkie, edota frantsesez intzisoek izan ohi duten subjektu-aditza ordena aldaketa azaltzeko bitarteko dira.

Laurinek (1989) berariaz enuntziatu parentetikoetan oinarritzen delarik —eta ez intziso eta intzidentalaren azterketan—, beste horrenbeste esango digu: “Á vrai dire les études sur la perenthésés sont inexistantes” (Laurin 1989: 5).

Frantziar esparruan ez ezik esparru anglosaxoian<sup>78</sup> ere hutsunearen errainuak oso dira nabarmenak. Esate baterako, Y. Ziv-ek (1985) era honetara islatzen du gaiaren hutsunea:

Despite occasional references to parenthetical entities, the notion ‘parenthetical’ has not, in fact, been explicitly defined in the linguistic literature. This notion is implicitly regarded as representing either one general conceptual entity or, alternatively, a few such entities characterized by a common pragmatic discourse function, namely, the expression of a comment on or a qualification of that which is communicated in the co-occurring sentence. Formally, the parenthetical unit is conceived of as representing an entity which in some significant sense is external to the sentence. This pretheoretical characterization will serve as the point of departure for the current investigation. (Ziv 1985: 181).

Hutsuneak hutsune, Nemmik (1973: 1) bere tesian esango digun bezala, maiz aski entzun eta irakurri izan ditugu gure diskurtsoetan barrena “soit dit entre parenthèse” edo “ J’ajouterai, incidemment, que...”, bezalako esapideak eta, beraz, intziso, parentesi nahiz intzidental adigaiak ez zaizkigu hain ezezagunak gertatzen. Baina, hitz horiek zein gertakari ezkututzen dute? Entonazio-aukera soil ote dira? Edo antolabide grafiko huts? Edota ez ote du sintaxi-kategoria osatzen, nahiz eta, Blanche-Benvenistek (1991) dioen bezala, makrosintaxi bateko kategoria izan?

Horixe da Nemmik ere bere tesian egiaztatu nahi duena: egitura mota honek sintaxi kategoria osatzen duela:

<sup>78</sup>Esparru anglosaxoian Ziv-en lanaz gain aipatzekoak dira ondorengook ere: Urmson (1952), Downing (1973), Edmonds (1973, 1976), Ross (1973), Corum (1975), Reinhart (1975, 1983), Mittwoch (1979), McCawley (1982), Quirk et al. (1985), Hand (1991, 1993), Thompson, S. & Mulac, A. (1991), etab.

comme on le voit, le but de cette étude n'est pas de faire une analyse exhaustive de la question, mais plutôt de démontrer que l'incise forme une catégorie syntaxique qu'il conviendrait d'inclure dans toute description de la langue. Ayant éliminé de l'enquête tous les points controversés, il restera un certain nombre de syntagmes dont on ne pourra rendre compte qu'à l'aide de la catégorie de l'incise. (Nemmi 1973: 8).

Izan ere, oso ohikoa da, aurreko iritziaren aurka, hainbat autoreren ahotan “intzisoa” entonazio-aukera gisa edo puntuazio-demarkazio gisa soilik agertzea: “van entre incisos” (Gutiérrez 1997a: 99), “aparece como inciso” (Fernández 1993: 203), “a manera de inciso” (Casado Velarde 1991: 102), etab. Guk, ordea, “parentetiko” hitza darabilgunean, irizpide formal horrez gain, “makroegituran” funtzioaren bat duen egitura sintaktikoa daukagu buruan, tesian zehar indartzen saiatuko garenez.

Baina uneoro ahotan darabiltzagun hiru gertakarion —“parentetikoaren” “intzisoaren” eta “intzidentalaren”— arteko aldea (alderik balego, behintzat) terminologia hutsari dagokiona ote da? Gure ustez, sakonagoa da. Terminologiaz harago, hautatutako irizpideen arabera, batak eta besteak biltzen dituen gertakarien eta ezaugarrien artean bada alderik; izan ere, lehentasuna irizpide sintaktikoei, diskurtsozkoei ala fonetikoei eman, autoreek errealitate desberdinak ematen dituzte aditzera, enuntziatu parentetikoez dihardutenean.

### 3.2. TERMINOLOGIA AUZIA: “PARENTETIKO” DEIZIOA

Les différents auteurs ne s'accordent pas en ce qui concerne la terminologie: ils utilisent tantôt les termes de “parenthèse”, “parenthétique”, “incidente”, “incise”, etc. comme étant des synonymes, tantôt ils les opposent entre eux comme recouvrant des objets d'étude différents. Mais, même dans ce dernier cas de figure, les distinctions sont loin d'être claires (...) (Baque Millet 1995-1996: 5).

*Parentetiko* hitzaren definizioak gainbegiratzeko hasi orduko ohartzen gara deizio honek barne hartzen dituen egiturak eta hizkuntza-segmentuak mugatzea bera oso zaila dela.

Un simple survol des définitions des parenthétiques dans les grammaires d'usage permet de constater la difficulté de définir ce type de segments. L'on remarque, en effet, en premier lieu l'existence de différences entre les auteurs, différences qui semblent au premier abord relever de problèmes de terminologie. (Baque Millet 1999: 9).

Honenbestez, aztertzailearen arabera da mugatze-irizpideak zedarritzea eta mugatze-irizpide hauek zenbat eta orotarikoagoak edo zehatzagoak izan, gertakari honen mugak zabalagoak edo hertsiagoak izango dira. Eta, horren arabera, gerta daiteke batek “parentetikotzat” jo dituen egitura eta gertakariak beste ikusmolde baten arabera, beste norbaitek “intziso” edo “intzidental” nozioen barnean aztertzea, edota “intziso” horren azpisailtzat jotzea.

Ainsi, l'on trouve, selon l'ouvrage consulté, les termes de “parenthese”, de segment “parenthétique”, d’“incise”, et d’“incidente”, qui apparaissent tantôt en concurrence, tantôt en distribution complémentaire. (Baque Millet 1999: 9).

Beraz, termino bakoitzaren muga-irizpideak ongi zehaztu beharra daukagu ezertan hasi aurretik, bestela inoiz ez dugu adigaia —eta ondorioz aztergaia— ongi mugatzea lortuko, eta Maldonadok aipatzen duen arazotik ez dugu ateratzerik izango:

Muchos han sido los fenómenos lingüísticos englobados bajo la denominación general de “inciso”, término preteórico con el que se suelen designar construcciones muy dispares con la característica común de poseer una entonación independiente e ir adjuntas directamente a la oración principal. (Maldonado 1999: 3571).

Aztertzaile honentzat, ezaugarri komun horiek, hots, entonazioari dagokiona eta perpaus nagusiari alboraturik edo erantsirik joatea, beren bakarrean ez dira aski “intzisoa” modu argi batean mugatzeko. Hemendik ondoriozta dezakegu mugatze-irizpideak ongi zehazteke daudela eta, ondorioz, garrantzizkoa ez ezik ezinbestekoa ere badela, gure aztergaien aurrera egingo badugu, lan honetan darabilgun “parentetiko” deizioa hesitu eta honek atzean dakarrena agerian uztea; hau da, mugatze-irizpide egokiak eta argigarriak zedarritzea. Era horretara bakarrik lortuko dugu elkarrengandik hain gertu dauden “parentetiko”, “intziso” eta “intzidental” adigaien muga lausoak, ahal den heinean bederen, argitzea.

Horretarako, bestek egindako bideetan barrena abiatuko gara eta abiapuntutzat espainiar eremuan, Oviedoko eskolakoek bereziki, *intzidentalari* buruz egin dituzten azterketei helduko diegu, intzidentalaren eta parentetikoaren artean alderik ba ote dagoen aztertzeke. Ezinbestekoa iruditzen zaigu “intzidental-tasunari” buruzko kontzeptua argi izatea, uste baitugu enuntziatu parentetikoaren eta intzidentalaren esparrua ez dela bera, eta ez dutela

hizkuntza-maila edo estratu berean eragiten. Ondorioz, batak eta besteak biltzen dituen hizkuntza-gertakariak ere ezberdinak izango dira.

### 3.3. FUNTZIO INTZIDENTALA ETA ENUNTZIATU PARENTETIKOA

Alderdi hau jorrazteko, batetik Oviedoko eskolako enuntziatuaren ekarria aldatuko dugu eta bestetik, funtzio honek zein hizkuntza-mailatan eragiten duen aztertuko dugu.

#### 3.3.1. Funtzio intzidentala: Oviedoko eskola

Hainbat hizkuntzalari, Oviedoko eskola jarraitzen dutenak bereziki, funtzio intzidentalez mintzo dira. Ez da batere ohikoa izan “funtzio intzidentala” gramatiketan aztertzea eta horren lekuko nagusi J.A. Martinezek (1994), funtzio honen aztertzaile nagusietako batek, bere lanean darabilen izenburua bera da: *Cuestiones marginadas de la gramática española*. Lan honekin batera, Oviedoko eskolako jarraitzaile diren J. A. Fernandez-en tesi lana (1993) nahiz A.I. Álvarez Menéndez-en lanak (1989, 1988) izango ditugu begi aurrean. Ezin ahantz horiekin batera, nahiz eta eskola berekoak ez izan, Gutiérrezek (1986, 1997a, 1997b), Hernández Pariciok (1994), Carmen Galán Rodríguez (1999), Fuentesek (1998, 2007) eta abarrek gaiari buruz egiten dituzten aipu, adierazpen eta ñabardurak ere.

Gaztelaniaz *incidental* izena eman izan zaion funtzio<sup>79</sup> hau —askok berezko funtzioa denetz zalantzak dituzte (Gutiérrez 1986, Fuentes 1998, Hernández Paricio 1994, etab)— intzisoen familiakotzat jotzen dute, hau da intzisoen azpisaila osatzen dutela agerian uzten dute:

Las unidades incidentales constituyen una parte, mejor o peor definida y delimitada, de la amplia y variopinta familia de los “incisos”, caracterizados (inespecíficamente) en el plano de la expresión por presentarse entre pausas antes, después de la oración o incrustándose en ella y, lo que importa más, desde el punto de vista de la forma de contenido

<sup>79</sup> Zenbaitetan, funtzioak jotzen duten autoreek ere, azalpenak emateko orduan “funtzioa eta posizioa”, hots, bi etenen edo pausen arteko posizioa nahasian erabiltzen dituzte:

“Aparte de los adjetivos y de las oraciones de relativo denominadas explicativas y también otros sintagmas o grupos sintagmáticos de otras categorías pueden contraer esta **función o posición incidental**” (Martínez 1994: 247). (Letrakera lodia gurea da).



como unidades sin función directa ni indirecta con el núcleo oracional. (Martínez 1994: 275-276).

Intzisoen azpisaila osatzeak zer esan nahi du, intzidentaltzat jotzen diren unitate guztiek intzisoen ezaugarri guztiak betetzen dituztela? Eta intzisoen ezaugarri guztiak betetzeak berez bezala ote dakar parentetikoaren ezaugarri guztiak ere betetzea? Hau da, intzisoen azpisaila osatzen dutela esatearekin parentetikoaren azpisaila ere osatzen dutela esan nahi ote dute? Kontu egin dezagun, esate baterako, Baque Milletek (1999) bere tesian egitura parentetikoa intziso nahiz intzidentalak barne hartzen dituen gertakaritzat jotzen duela.

Horixe da, bada, funtzio intzidentala gure aztergaietan aipatu, iruzkindu eta hausnartzeko benetako arrazoiak: funtzio intzidentalak, eta honi egotzi izan zaizkion ezaugarriak, parentetikoekin izan dezaketen harremana, hain zuzen ere. Eta “parentetikoaren”, “intzisoen” eta “intzidentalaren” arteko harremana terminologiaz harago doala uste dugulako, “intzidentaltasunaren” gaiari berariaz helduko diogu eta, ahal den neurrian, parentetikoekin izan ditzakeen berdintasun eta desberdintasunak azalerratu.

### 3.1.1. UNITATE INTZIDENTALA

Intzidentaltasunaz diharduten autore gehienak (Menéndez 1989, Fernández 1993 eta Martínez 1994, beste batzuen artean) bat datoz onartzean funtzio hau perpauseko aditzarekin zuzenean erlazionatzen ez diren substantibo, adjektibo eta aditzondo edo adberbioek bete dezaketela, edota behintzat kategoria horretara eraldatutako<sup>80</sup> egiturek; hots, adjektiboaren eginkizuna betetzen duten erlatibo ez murrizgarri batzuk, mugatzailerik ez daramaten aposizio ez murrizgarriak, aditzondoen sailean sartu izan diren zenbait intziso, bi etenaldiren artean doazen perpaus subordinatu adberbialak<sup>81</sup>, etab.

<sup>80</sup>Kasu honetan, *eraldatu* hitza, *transposizioa izan* aditzera emateko darabilgu. Funtzionalistek transposizioa darabilte sintagma bat edo sintagma multzo bat kategoria batetik beste batera pasatzen dela aditzera emateko. “Transposizio” edo “transkategorizazio” horrek bide ematen die beren baitan, beren kabuz, bete ezin zituzten harremanak gauzatzeko.

<sup>81</sup>Koma artean doazen kausazko perpaus subordinatuek ari delarik, Galán Rodríguezek (1999: 3608) gaztelaniazko gramatika deskriptiboan ez du ‘intzidentala’ adigai erabiltzen “causales periféricos” baizik. Eta berariaz adierazten du izendapenean ez dagoela batasunik: “Las denominaciones para referirse a esta función periférica no coinciden: comentario oracional periférico (Alcina y Blecua 1975: 884-6), función incidental (Gutiérrez 1986: 143, Álvarez Menéndez 1988, Cuenca 1991: 126-129), adjunto libre (Hernández Carbó 1993); disjunto (Quirk 1985)”. (Galán Rodríguez 1999: 3605).

Aparte de los adjetivos y de las oraciones de relativo denominadas explicativas y también otros sintagmas o grupos sintagmáticos de otras categorías pueden contraer esta función o posición incidental. Entre ellos, los sustantivos, al menos los sustantivos comunes, o, por mejor decirlo, los que, como los calificativos, ante todo clasifican, es decir, designan clases. (Martínez 1994a: 247).

Eta beheraxeago honela diosku:

También los adverbios o unidades adverbializadas pueden funcionar como incidentales (por lo cual la función incidental es categóricamente “neutra”, o sea, indiferentemente sustantiva, adjetiva, adverbial o incluso verbal. (Martínez 1994a: 266-267).

Hortaz, badirudi, funtzio “intzidental” honek ez duela hizkuntza-kategoria zehatz bat bere egiten, funtzio hau ezin daiteke hizkuntza-kategoria jakin batekin identifikatu; aitzitik, kategoriaren aldetik “neutroa” da intzidentala: “la función incidental es indiferente a la categoría”, esango digu Martinezek (1994a: 248). Beraz, zein-nahi hizkuntza-unitatek bete dezake funtzio hau. Baina, noiz betetzen du? zeintzuk dira zein-nahi hizkuntza-kategoriak bete beharreko ezaugarriak funtzio intzidentalean doala zehazteko?

Honenbestez, forma aldetiko ezaugarriak nahiz betetzen duten funtzioari dagozkionak zehaztea interesatzen zaigu eta, horretarako, funtzio honen aztertzaile nagusien ekarria laburbildu eta aldatuko dugu.

### 3.3.1.2. “INTZIDENTALTASUNA” AZTERTZEN DUTENEN EKARRIA

#### 3.3.1.2.1. R. Lapesa (1975)

R. Lapesa da lehenbiziko aldiz “intzidental” terminoa erabili duena.

Adjetivo incidental. Llamaremos así al que, sin estar en construcción absoluta, tiene respecto al resto de la frase cierta autonomía marcada formalmente por su libertad de colocación y por estar separado mediante pausas. No está ligado al nombre tan estrechamente como el adjetivo atributivo, ni tiene con el verbo la clara conexión del predicativo. A diferencia del absoluto, se refiere al sujeto, al objeto directo o indirecto o a un complemento circunstancial. La cualidad, estado o actividad que denota no delimita al término referido, y no es, por tanto, indispensable para el sentido lógico de la oración; pero

pone de relieve, a modo de comentario o información oracional destacados, la causa, el modo, el fin y otras circunstancias de la acción del verbo, sin constituir propiamente complemento de él, sino como su oración autónoma condensada. Puede anteponerse al cuerpo de la oración, interrumpirla como paréntesis, o añadirse después. Los escritores modernos suelen separar con comas el adjetivo incidental; pero cuando no lo hacen, como no hay signo gráfico para su peculiar entonación, no siempre es fácil distinguirlo del atributivo o del predicativo. En textos de otras épocas, no puntuados o con puntuación diferente de la nuestra, el margen de interpretación puede ser grande. (Lapesa 1975: 190-191).

Autore honek adjektibo espezifikatibo edo murrizgarriaren eta intzidentalaren arteko aldeak ezartzen ditu. Honatx, laburbilduz:

1) Badu autonomiarik. Pausen artean kokatzen da eta kokatze-askatasuna du; hau da, perpausaren aurretik, parentesiek bezala egitura hautsiaz, nahiz ondoren ager daiteke.

2) Ez dago izenari hertsiki loturik, adjektibo atributua edo adjektibo laguntzailea egon dagoen bezala eta, bestetik, ez du aditzarekin predikatiboek izan dezaketen loturarik ere.

3) Perpauseko osagaien bati zuzentzen zaio: objektu zuzenari, subjektuari, zeharkako objektuari, edo zirkunstantzialei.

4) Semantikaren ikuspegitik, ez du zuzentzen zaion osagaia mugatzen; iruzkin gisa, “zirkunstantziaren” bat nabarmentzen du, kausa, modua, helburua, etab.

Hortaz, gure gaiari begira, honako ideia hauek azpimarratuko ditugu:

a) Badu autonomiarik, bere entonazio-multzoaren jabe da eta.

b) Autonomia onartu arren, garbi agertzen da perpauseko osagaien bati zuzentzen zaiola; hots, perpauseko osagaien baten ko-erreferentea dela. Beraz, ezin esan dezakegu perpausarekin lotura sintaktikorik ez duenik. Gaztelaniaz, gainera, lotura hau oso nabarmena da, zuzentzen zaion osagaiarekin konkordantziatzko edo komunztadurazko harremana bete beharrean aurkitzen baita:

- Juan, sorprendido, llamó a su mujer

c) Forma aldetiko ezaugarri hauezaz gain, funtzioari dagokionez, helburu komunikatiboa du: esatariaren iruzkina.

## 3.3.1.2.2. J. A. Martínez (1994)

Funtzio intzidentalaren aztertzaile nagusietarikoa den. J.A. Martínezek funtzio edo egitura intzidentalaren barnean, honako egitura hauek aipatu eta aztertzen ditu:

- Algunos de los relativos explicativos
- Aposición sustantiva (ciertos casos)
- Algunos adverbios y segmentos y oraciones “adverbiales” para cuya amplia intelección es de importancia decisiva la noción de “incidental”
- Finalmente, se expondrá sumariamente el amplio dominio de los “incisos”, respecto del cual la función incidental constituiría un sub-dominio más o menos específico. (Martínez 1994: 228).

*a) Adjektibo intzidentala*

Adjektibo intzidentalari dagokion bezainbatean, Martínezek (1994a) —eta Fernández ere bat dator honekin (1993)— atribututik eta adjektibo izenlagunetik bereizi egiten dituzte, bai forma aldetik eta bai semantika aldetik.

Adjektiboek, gaztelaniaz, hiru posizio edo kokatze-leku izan ditzaketela azpimarratzen dute bi autoreek:

- Aurretikoa: izenaren aurretik doanean, adjektiboak izenaren ezaugarriak azpimarratzen ditu.
- Ondorengoa: izenaren atzetik doanean, adjektiboak izenaren barrutia murriztu egiten du, eta
- Intzidentala: zirkunstantziazko oharrak txertatzen dizkio izenari: moduzkoa, kausazkoa, baldintzazkoa, kontzesioa eta denborazko oharrak.

No todas, pero sí muchas de las significaciones o matices “circunstanciales” parecen aflorar en los segmentos con función incidental: se trata de significaciones asociadas a la relación “causa-efecto”, es decir, la significación “causal”, la “condicional” y la “concesiva”, además de la “temporal” que acaso sea la matiz de todas ellas. (Martínez 1994a: 231-232).

Garbi dago honentzat ere adjektibo intzidentalak ez duela substantiboarekin edo izenarekin sintagma multzoa osatzen, baina berariaz dio harekin “konkordatzen” edo komunztatzen duela:

(...) el adjetivo incidental no forma grupo sintagmático con el sustantivo con el que, sin embargo, concuerda: no sólo se instituye por sí mismo como grupo fónico (en su calidad de “inciso”), sino que puede permutarse a lo largo de la oración “libremente”, o sea —como ocurre con los aditamentos—, con cierta libertad vigilada. (Martínez 1994a: 231).

*b) Erlatibo ez murrizgarri edo azalpenezkoak: intzidentalak*

Pentsa dezakegu adjektiboen kokapen hirukoitzak erlatiboen eremuan ere eragin dezakeela, baina ez. Honako arrazoiak emango dizkigu Martinezek (1994a: 241-242):

a) Gaztelaniaz ez dago nukleoaren aurrean joango den erlatibozko perpausik; beti nukleoaren atzetik doaz.

b) Atzetik doazen erlatibozko perpausak bi motatakoak izan daitezke:

- murrizgarriak edo espezifikatiboak: hauek mota bereko adjektiboarekin bat datoz, eta
- ez murrizgarriak edo azalpenezkoak: hauek, oro har, adjektibo intzidentalarekin datoz bat; izan ere, batetik, “intziso” entonaziozkoak<sup>82</sup> dira, eta bestetik, perpaus nagusiarekin erkatuz, “zirkunstantzialak” diren hainbat esanahi aditzera ematen dituzte: kausa, kontzesioa, baina, dirudienez, inoiz ez baldintzazkoa.

<sup>82</sup> Oraingo honetan, Martinezek ‘intziso’ adigaia entonazioari loturik bakarrik darabil: bi etenaldiren artean kokatua dagoela esateko edo. Honek beste hainbat autoreren “a manera de inciso” (Casado Velarde 1991: 102), “aparece como inciso” (Fernández 1993: 203), “van entre incisos” (Gutiérrez 1997a: 99), “en posición de inciso” (Martínez 1994: 267) bezalako esapideekin bat egiten duela iruditzen zaigu, eta, beraz, “intzisoa” maiz aski funtzio sintaktikoa duen egitura baino areago entonazio-aukera gisa erabiltzen dutelako susmoa dugu; hots, antolabide grafiko huts bezala:

“los adjetivos intervinientes en anteriores ejemplos como especificadores y “explicativos” (o, mejor, como “epíteto”), lo hacen ahora **en forma de “incisos” o, como “incidentales”** (Martínez 1994: 230). (Letrakera lodia gurea da).

(...) de los valores circunstanciales señalados para el adjetivo “incidental”, la relativa explicativa parece expresar sobre todo el de “causa” y mediante ciertas correlaciones, el de concesión, pero nunca el de condición ya que ésta exigiría en la relativa el modo subjuntivo, modo de la subordinación justamente descartado de los explicativos. (Martínez 1994a: 244).

*c) Substantiboak funtzio intzidentalean*

Martinezek aposizio ez murrizgarriak egitura intzidentaletik bereizi egiten ditu eta horretan bat dator Fernándezekin (1993) eta Álvarez Menendezekin (1989). Haultzat aposizio oro ez da intzidental; intzidental izateko, aposizioan doan izen sintagmak edo perpausak ez bezala, ezin dezake mugatzaile edo artikulurik eraman:

También aquí el sustantivo común —o sea, sin artículo ni otro “actualizador”— clasifica al sustantivo con el que se dice que está en aposición, y, al igual que la de los adjetivos, esta “calificación” expresa una circunstancia del sustantivo que resulta semánticamente relevante para lo expresado por el verbo: “causa”, contraposición “concesiva”, “condición”, y “anterioridad temporal”. (Martínez 1994: 248).

Beste hainbeste atzeman dezakegu A.I. Álvarez Menendezengan ere:

A diferencia del nombre en aposición, el sustantivo incidental carece de todo actualizador —el artículo entre ellos—, lo que impide la plena igualación categorial y funcional requerida por la construcción apositiva. (Álvarez Menéndez 1989 :35).

Hau guztia, agian, adibidez azaltzea egokia izan daiteke. Esate baterako:

-Madrid, *la capital de España*, es una ciudad espléndida (aposizioa)

Artikulua kentzean, ordea, funtzio intzidentalean dagoen substantibo bat erdietsiko genuke, elkarren jarraian dauden bi unitate, baina independenteak edo bere eskukoak direnak; hau da, artikulua kentzean, jada ez da aposizioa, bi osagaiak ez baitira, Taboadak (1978) esango lukeen bezala, kategoria edo funtzio berekoak (Fuentesek (1989) “equifuncionalidad” deritzo horri). Kasu honetan, aposizioaren ordean, “adjektibazioa” dugula esango digu Fuentesek (1989). Bietan, bai aposizioan eta bai intzidentalean funtzio semantiko testual

bera daukagu: azalpena, baina egitura sintaktikoan bereiz dabilta: aposizioa da bata, eta adjektibazioa bestea.

Bouet-ek ere, Fuentesek (1989: 218) jasotzen duenez, aposizioaren eta artikularen loturaz honako hau esango digu:

según él, cuando el nombre en aposición va sin artículo, tiene un valor adjetivo. “Madrid, capital de España, (...)”; con artículo, ya sea *un* o *el*, se identifican los dos nombres”. (Fuentes 1989: 218).

A. I. Alvaréz Menéndez-en ustez (1988), kategoria berekoa ez izatean jarraian dauden bi unitate hauek independente edo bere eskukoak izatea dakar berarekin, eta, ondorioz, intzidentalean doan osagaiaren kokagunea askea izango da.

- Madrid, capital de España, es una ciudad espléndida
- Capital de España, Madrid, es una ciudad espléndida
- Madrid es, capital de España, una ciudad espléndida
- Capital de España, es Madrid una ciudad espléndida<sup>83</sup>

Beraz, funtzio intzidentalean dagoen hizkuntza-kategoriak kokatze askea du eta, alde horretatik, perpaus bazterreko posizioan kokatzen da; perpaus nagusiko aditz (nagusi)<sup>84</sup>aren indar-eremutik at eta, beraz, ez du osagai jakin batekin sintagma-multzoa osatzen.

Intzidentala egitura absolutuekin ere erkatzen du, baina gure aztergaiari begira argi berri gutxi dakarrenez, intzidentaltasuna intzisoekin harremanetan nola aztertzen duen ikusiko dugu. Nolanahi ere, intzidental eta egitura absolutuen arteko loturaz jakin nahi duenak jo beza, besteak beste, ondorengo lan hauetara: Gutiérrez (1986), Fernández (1993), J.A. Martínez (1994).

*d) Intzidentaltasuna eta aditzondoak, nahiz perpaus edo esaldi adberbialak*

<sup>83</sup>Adibide hauek guztiak, Menéndez-en (1988: 35) jaso ditugu. Halaz ere, gisa honetako adibideak ugariak dira Martínez-en (1994), nahiz Fernández-en (1993) lanetan.

<sup>84</sup>*Aditz nagusia* adigai darabilgu, baina ez “aditz nagusi+aditz laguntzaile” bereizketari eusteko; aditz nagusia litzateke aditz ugariz osatutako perpaus batean perpaus nagusiaren nukleoa; hau da, menderagailurik ez daraman aditza.

Funtzio intzidentalean joan daitezkeen aditzondoen artean, *entonces, de todos modos (formas), de cualquier forma (manera), en cualquier caso y con todo (y con eso)*, etab. sartzen ditu.

Todos ellos, orientados anafóricamente, pueden recoger adverbialmente el sentido de una oración precedente o contigua (Martínez 1994: 267).

Horiekin guztiekin batera, beheraxeago, *no obstante* eta *sin embargo* ere sartzen ditu:

significan de la misma manera, aportando el valor “adversativo”, significación relacional entre el sentido de la oración en que se inserta y la unidad a la que se orienta anafóricamente. (Martínez 1994: 268).

Hauezaz gain, beste hainbat aditzondok —euskaraz, bederen, horien baliokideak lokailuen sailean sartu ohi dira— bana-banako azterketa sakonagoa eskakizun dutela adierazten digu: *en consecuencia, por consiguiente, ahora bien, al contrario, por el contrario, en cambio, pues bien, además, aparte*, etab.

Dirudienez, bada, aditzondo horiek guztiek ere —Fuentesek gehienak “enlaces extraoracionales” bezala aztertzen ditu (1987, 1998)—, adiera “erlazionalak” aditzera ematen dituzte. Gainera, funtzio intzidentalean doazen adjektibo eta substantiboek ez bezala, funtzio intzidental honetara berezitu diren unitateak dira.

La amplia gama de significaciones relacionales de estas unidades adverbiales (“adversativas”, “consecutivas”, etc.), en contraste con la reducida de adjetivas, relativas, sustantivas en función incidental y de las construcciones absolutas, se explica por tratarse de unidades circunscritas y casi limitadas a la función incidental. (Martínez 1994: 269).

Funtzio intzidentala aditzondoen —edo hobeto, guk lokailutzat jotzen ditugunen— sailera zabaltzen lehena A.I. Alvarez Menéndez izan da 1988ko “El adverbio y la función incidental” artikuluekin. Eta artikulu honetaz gain, Fernándezek ere bere tesi lanean horien azterketa sistematikoa egingo du.

e) *Funtzio intzidentala, intzisoen multzo mugagabearen zatia*



J.A. Martinezen ustez, “segmentu intzidentalek” gertakizunen halako predikazio balioa ematen dute aditzera, bigarren mailako predikazioa bada ere (*predicación secundaria*); gertakizunek, izan ere, erreferentzia puntutzat ez dute komunikazio ekintza bera hartuko (bere eskuko perpausekin gertatu ohi den legez), lehen mailako predikazioa baizik.

Honenbestez, alde horretatik, segmentu intzidentalak bere eskukoak ez diren unitateak dira, baina aldi berean ez daude perpausaren hierarki funtzioan edo egitura sintaktikoan barneraturik. Eta horretxegatik beragatik, hots, predikazio nagusitik at daudelako, enuntziatu intzidentalaren edukia ezin adi daiteke perpausaren edukiarekin erkatuz baizik. Bigarren mailako predikazioaren eta lehen mailako predikazioaren arteko kontraste horretatik bertatik sortzen dira “kausa”, “baldintza”, “kontzesioa”, bezalako adiera “erlazionalak”.

Por expresar en unidades que no son autónomas pero que a la vez no se integran en la jerarquía de las funciones de la oración (ni en las oracionales ni en las sub-oracionales), es por lo que la unidad incidental entra en contraste con la propia oración; y es sobre la base de este contraste como surgen —de acuerdo con el significado de cada una de las partes— las distintas significaciones relacionales de “causalidad”, “condicionalidad”, y “concesión”. (Martínez 1994: 275).

Funtzio intzidental hau, honenbestez, itxura eta forma ugariko intzisoen sail zabalaren zati da. Intzisoa —Martinezek dio— adierazpen mailan etenaldien edo pausen artean joateagatik ezaugarritzen da, nahiz perpausaren ondoren, nahiz perpausaren barrenean tartekaturik. Eta funtzioari dagokionez, berriz, ez du perpaus gunearekin (nukleoarekin) ez zuzeneko ez zeharkako funtziorik gauzatzen.

Zentzu horretan, “intzisoa” komunikazio-ekintzan agertzen diren zernahi “zirkunstantziaren” hizkuntza-formulazioa da. Zirkunstantzia horiek, ordea, garrantzizkoak dira perpausak hizkuntzaz kanpoko errealitateari egokitzeko; era horretara zentzu osoa erdietsiko baita. Zirkunstantzia horien artean bat, nabarmenena apika, esataria bera da, predikazioa (edo perpausaren eta errealitatearen arteko egokitzapena) ñabartu dezakeelako bigarren mailako predikazio-balioa dakarten intzisoei esker.

Intzisoen eremu zabal horretan egitura-andana metatzen du J. A. Martinezek:

- Batetik, guk modalizatzailen sailean sartu ditugun aditzondoak, edo aditzondo esapideak dakartza: *felizmente, desgraciadamente, por fortuna, con toda seguridad, en mi opinión*, etab.

- Interjekzioak ere sartzen ditu:

pues al fin y al cabo es la única categoría que siempre se presenta en la oración como “inciso”. (Martinez 1994: 276).

- Substantibo soilek nahiz perpaus osoek (oración) ere osa dezakete intzisoen saila: *la verdad, es verdad*, etab.

- Besteren baten zuzeneko hitzak tartekatzeke erabili izan diren aditzak ere tartekatzen ditu: “—dijo el director—”. Egitura honekin batera, gaztelaniaz “como usted dice”<sup>85</sup> bezakoak ere tartekatzen ditu; hau da, euskaraz *bezala* aditzondo<sup>86</sup> edo postposizio<sup>87</sup> bidez, nahiz “-ENEZ”<sup>88</sup> atzizkiarekin sortutakoak.

Honenbestez, argi eta garbi ikusten da “intziso” izendapenaren azpian egitura ugari eta arras desberdinak sartzen dituela: etenaldi edo pausen artean doazen egitura eta segmentu oro, nolerebait predikazio nagusi horretatik at, perpaus bazterreko posizioan geratzen den oro. Juan Garzia euskal ikertzaileak ere (1997) *tartekiak* definitzerakoan beste horrenbeste egiten du; hau da, era askotako elementuak direla dio:

Tartekiak, hitzak berak adierazten duenez (erdaraz “inciso”/“incise” erabili ohi da), esaldietan tartean (esaldiak moztuz, izenak adierazten duenez) sartzen diren elementu era askotakoak ditugu: hitz berezi, sintagma arrunt, perpaus bat zein gehiagoz osaturiko esaldi osoak...(Garzia 1997: 76).

Era horretara jokatur, ordea, ez ote gara azalpen garbirik ematen ez diegun egituren pilaketa nahasi bat egiten ari? eta, jakina, belar-piloa ere ez da beti belar-meta izaten, Mitxelenak esango lukeen bezala. Gure helburua, bada, intziso eta intzidentalaren sailetik

<sup>85</sup> Fuentes-ek ere (1998) “como usted dice” bezalakoak nahiz “según ...”, bezalakoak intzisoen sailean sartzen ditu; “—dijo el director—” bezalakoak, aitzitik, parentetikotzat jotzen ditu. Aurrekoak ez bezala, azken hau lotura sintaktiko formalik gabe gauzatzen baita.

<sup>86</sup> EGLU VI Euskaltzaindiaren gramatika-liburuan, “bezala” ardatz gisa aditzondoa hartzen duten perpaus erlatibotzat jotzen da: “izen ardatzik gabeko perpaus erlatiboak ere erabil daitezke moduzko perpausak osatzeko. Eraikidura hauek aditzondo batekin hornituta agertzen dira, non aditzondo horiek ‘bezala’ eta ‘legez’ eta antzekoak baitira, eta haien ezkerrean agertzen den perpaus erlatiboa huts-hutsik agertzen den, hau da, ardatzik eta determinatzailerik gabe”. (EGLU VI: 298).

<sup>87</sup> Juan Garziak, *Joskera lantegi* liburuan ere “Bezala” postposiziotzat jotzen du. (1997: 68).

<sup>88</sup> “Bezala”-ren pareko balioa izango lukete “arabera”, “-ENEZ” atzizkiarekin hornitutako perpausak ere. Horiek EGLU VI-n *sasimoduzkotzat* jotzen dira: “formaz moduzkoak ematen duten mendeko perpausak aurkitzen ditugu, baina edukiaren ikuspegitik perpaus nagusiaren gauzatzeko moldearekin zerikusi gutxi dutenak. Izan ere, perpaus hauen bidez, perpaus nagusian adierazitakoa berresten dugu, halako moduan non esan baitaiteke perpaus nagusiaren ordezkoko bat dela, halako ‘perpausorde’ bat, harengandik [sic] (euskara idatzian koma batez) banaturik eta galdegai gisa inola ere ager ezin daitekeena”. (EGLU VI: 299-300).

enuntziatu parentetikoak bereiztea da. Norbaitek pentsatuko luke metodologiazko aukera bat besterik ez dela. Bai izan liteke, baina, gure ustez, bada diferentziarik intzidentalaren edo intzisoen eta parentetikoaren artean. Azken hauen egitekoa ez baita perpausaren mugetan gelditzen (nahiz eta predikazio nagusitik at egon, funtzio intzidentalaren defendatzaileek berariaz esan ohi dute perpausaren egiturari sartzeko direla; *dictum*-aren barnean erantsiko genuke guk); hauen (parentetikoaren) egitekoa, aitzitik, makroegitura batean gauzatzen da, enuntziatio- eta modalizazio-maila batean nahiz argudio eta informazio egituren garapenean. Beraz, ez dagokio predikazioaren proposiziozko edukiari, intzidentaletan gertatu ohi denez. Eta alde horretatik ez gatoz bat, era batean behintzat, Juan Garziak dionarekin:

Ezaugarri semantiko nagusia zera dute: horiek jarri zein kendu, esaldiak zentzu osoa duela (hortik erdarazko beste deikera: "incidental"). (Garzia 1997: 77).

Agian terminologia arazoa besterik ez da, baina "funtzio intzidentala" aztertu duten erdal lanetan inoiz ez dute esan kenduz gero ere zentzu osoa izaten jarraituko duenik; azken batean, egitura hau *dictum*-ari edo informazio-edukiari dagokiolako bete-betean, nahiz eta bigarren mailako predikazio balioa izan. Predikazioan eragiten ez dutenak parentetikoak dira, hauek ez baitute *dictum* maila horretan eragiten eta, beraz, kenduz gero ere proposiziozko eduki horri ez lioke eragingo, hauen eginkizuna, tesian frogatzen saiatuko garenez, diskurtsoaren makroegiturari baitute.

Intzidentalek, kendu arren, esaldiak zentzu osoa izaten jarraitzen dutela esanagatik, Juan Garziak honela jarraitzen du:

Esaldiak zentzu oso delakoari eustek ez du esan nahi, jakina, ezer esan nahi ez dutenik: aparte samar geratzen den iruzkin bat izan daiteke, aurreko edo ondorengo testuarekin egiten den lotura, kontraste baten adierazpena... (Garzia 1997: 77).

Beraz, gure ustez, adierazpen honetan nahasi egiten ditu intzidentalek ematen duten informazioa eta parentetikoek ematen dutena; edota ez da behinik behin bataren eta bestearen artean dagoen marra bereizten. Esate baterako, aparte samar geratzen den iruzkina izan daiteke digresioaren bat, izan daiteke esatariak berak esan duenari buruz egindako iruzkina, izan daiteke enuntziatioari berari, hots, enuntziatua formulatzeko moduari berari dagokion

iruzkinen bat, etab. Eta era horretako iruzkina, guk geuk, parentetikoaren egitekotzat joko dugu eta ez intzidentalaren edo intzisoaren egitekotzat.

Halaz ere, J.A. Martinezek intzisoaren edo intzidentalaren sailean sartzen dituen egiturak ikusirik, badirudi Juan Garziak aipatu dituen egiteko guztiak betetzen dituela funtzio intzidentalak. Baina argitasun gehiagoren bila, gatozen funtzio honen azterketa osoena eta sistematikoena egin duen autore batengana: J. A. Fernándezen tesi-lanera, hain zuzen ere. Autore honek, intzidentalaren muga argiago azaltzeaz gain, egitura batzuk, J.A-Martinezek barne hartzen zituenak, funtzio honetatik at utziko baititu.

### 3.3.1.2.3. J.A. FERNÁNDEZ FERNÁNDEZ (1993)

Autore honek funtzio intzidentala ikuspegi funtzionalista batetik aztertzen digu, perpausaren mugetatik atera gabe aztertu ere.

Funtzio intzidentalaren barnean, aurreko autoreek bezala, hainbat egitura aztertzen eta iruzkintzen ditu, nolerebait ohiko gramatiken deskripzio eta sailkapenak zalantzan jarriz: adjektiboa, aditzondoa, substantiboa (izena edo izen sintagma), nahiz kategoria hauetara transkategorizatzen diren enuntziatuak. Eta guztiak modu homogeneo batean ezaugarritzen ditu (Fernández 1993: 8):

- Guztiak perpausaren eskema sintagmatikoan sartzen diren egiturak dira.
- Enuntziatuan betetzen duten lekua predikaziotik at kokatzen da (*posición extrapredicativa*).
- Kokapen horretatik aditz nagusiaren proposiziozko edukiarekin aurkez aurk interpretatzen dira.

Autore honek ere onartzen du segmentu hauek badutela predikazio-balioa: dela predikazio nagusiaren osotasunari dela aditzaren indar-eremuan agertzen den osagaien bati, dela egoerazko erreferenteren bati eragiten diote.

Presuponen una estructura predicativa con la que contrastan —la “predicación matriz”— e inciden sobre el contenido de tal predicación, ya sea sobre la totalidad de ese contenido, ya sobre algún aspecto particular —por la vía de caracterizar predicativamente al referente de una de las unidades integradas en el “grupo verbal”— en todo caso suscitan la

interpretación de sentido relacional que resulta de la concatenación de contenidos más o menos implícitamente relacionales (Fernández 1993: 8-9).

Baina autore honek garbi dauka predikazio nagusitik at kokatutako segmentu guztiak ez direla “intzidentalak” barnean sartzen. Esate baterako, adierazpenaren aditzondoak (*adverbios de enunciación*), edota, gure terminologia erabiliz, adierazpenaren edo enuntziatioaren mailan eragiten duten aditzondoak ez ditu intzidentalak barnean sartzen ez eta diskurtsoaren antolatzaileak ere.

A todos estos fúntivos que ocupan una posición “extra-predicativa”—excepción hecha de los “adverbios de enunciación” y de los “ordenadores de la elocución”— los llamamos —abusando de un término introducido por Lapesa— “incidentales” (Fernández 1993: 8).

Beraz, predikazio nagusitik at kokatze hori nola uztartzen du perpausaren mugabarrutian kokatzearekin? Hau da, funtzio intzidentalaren eginkizuna predikazio nagusitik at dagoela esango digu, baina, aldi berean, ez da ateratzen perpausaren muga metodologikotik.

#### A) “Predikazio nagusitik at” kokatzearen tasuna

En definitiva, se propone la incorporación al elenco de los constituyentes del esquema oracional de un nuevo adyacente “extrapredicativo”, incapaz de denotación y constitutivo de predicación secundaria: el incidental. (Fernández 1993: 9).

Fernándezek, perpausaren muga metodologikoa gainditzen ez badu ere, eskema sintagmatikoa birformulatu eta zabaldu egiten du eta predikazio nagusitik at dagoen funtzio intzidentala ere bere barnean aztertuko du.

Las dificultades para explicar la “oración compleja” no se debían tanto al modelo utilizado —el de la “oración simple”— cuanto al hecho de que tal modelo se encontraba deficientemente establecido, pues incorporaba el espacio estructural “extrapredicativo” desde el que se establece la función incidental, constitutivo de predicación secundaria y potestativo. (Fernández 1993: 9).

Funtzio intzidentala, bada, predikaziotik kanpo (*extrapredicativa*) kokatzen da; izan ere, Hjelmslev-en “morfema hedatuen” (*morfemas extensos*) indar-eremutik at daude:

(...)se halla en una posición que llamaremos “extrapredicativa”, por encontrarse fuera del ámbito de cobertura de los morfemas verbales extensos (esos que, desde Hjelmslev, 1 sabemos que, aunque se expresen en el verbo, caracterizan al conjunto de unidades que constituyen el desarrollo o expansión del sintagma verbal). (Fernández 1993: 63).

Eta zein da, bada, morfema hedatu hauek barne hartzen duten esparrua?

- 1) Subjektu gramatikalaren edo morfologikoaren erreferentzia esplizitu egiten duen osagaiak barne hartzen ditu.
- 2) Aditz lexema zehazten duten osagaiak (IS nor, IS nori, etab.)
- 3) Morfema hedatu hauen berezko balioarekin zuzenean lotzen diren osagaiak: ezezko aditzondoa, zalantzazko aditzondoa, zenbait denborazko aditzondo, etab. Azken batean, hauek *perpaus osoaren edukian* eragiten dute (perpaus osoari eragiten diote) osagai zehatz eta jakin batean baino areago.
- 4) Espazioaren koordinatuei buruzko informazioa bere egiten dute eta baita moduari dagokiona ere.

Estos últimos parecen no presentar vinculación alguna con los elementos de contenido del verbo, pero algunos, los deícticos, no adquieren pleno sentido si no es por remisión al propio sujeto de la enunciación. En todo caso, incluso los adyacentes oracionales que no especifican ninguno de los elementos de contenido del verbo —algunos temporales, algunos locativos y otros de contenido genéricamente “circunstancial”— no dejan de quedar integrados siempre que no impliquen un acto de enunciación diferente del conformado en el verbo del que dependen. (Fernández 1993: 73).

Beraz, morfema hedatu hauek ere perpausaren egitura sintagmatiko horretan integratzen ditu, baldin eta beste enuntziatu bat osatzera iristen ez badira; hau da, enuntziatu bat eta bakarra aditzera ematen badute. Holakoetan, aditzaren edukiari zuzentzen zaizkion osagaiak zehazten ez dituzten morfema hedatu hauek ere predikazio-egitura konplexu horren partaide izango dira.

Aunque cada uno de estos adyacentes realiza una concreta y diferente aportación especificadora del enunciado, todos y cada uno de ellos se muestran bajo la cobertura de los morfemas extensos expresados en el propio verbo, es decir constituyen el desarrollo de un acto de enunciación unitario en el que todos los elementos confluyen (Fernández 1993: 73-74).

Osagai horiek guztiek, gainera (morfema hedatuak barne), predikazio nagusiaren egitura osatuko dute; izan ere, baldin eta aditzak beti predikazioaren bat aditzera ematen badu eta baldin eta aditzaren osagai eta laguntzaileak aditz sistema horren garapena baino ez badira, aditza eta horren osagai guztiak osaturiko multzoak “predikazio egitura” osatuko du. Bestela esan, aditzarekin uztartzen den unitate-multzoak esanahi konplexua baina osoa aditzera ematen du, hau da, predikazio nagusiaren proposiziozko edukia; unitate bakoitza, bere erara, predikazio-egitura horren zati baita.

Baina zer gertatzen da funtzio intzidentalarekin? funtzio intzidental hau predikazio-egitura nagusi horretatik at kokatzen dela. Predikazio<sup>89</sup> nagusi horretatik at kokatu arren, funtzio intzidentalak ere badu bere predikazio-balioa, predikazio nagusiarekin erkatuz, bigarren mailakoa izango dena. Eta bigarren mailakoa izate hori ez dagokio soilik predikazio nagusitik at egote hutsagatik, baita beren bakarrean bere eskuko ez den informazio bat delako ere; informazio honek zentzua izan dezan, predikazio nagusiarekin harremanetan, erlazioan, aztertu beharko da eta, gainera, harreman horretatik sortzen dira intzidentalak bere-bereak dituen adiera “erlazionalak” ere.

Hipotesi horrek gogoeta bat sorrarazten digu: baldin eta predikazio-balioaren jabe badira, nahiz eta bigarren mailako predikazioa izan, ez ote dira, Fernandezek berak predikazioaren egitura nagusia zehazteko erabili duen argudio bera erabiliz, predikazioaren proposiziozko edukiaren jabe, edo partaide? Ez ote dute predikazioa oro har hartuz (hau da, predikazio nagusia eta bigarren mailako predikazioa uztartzen dituen osotasun konplexu gisa hartuz), predikazio horren proposiziozko edukian edo termino lexikoen eduki informatibologikoan eragiten?

<sup>89</sup> Fernándezek (1990, 1993) predikazioa ikuspegi funtzional batetik aztertzen badu ere, funtzionalista guztiak ez datoz bat azalpenekin. Esate baterako, Gutiérrezek (1997: 326) berariaz esango digu predikazioaz duen ikuspegiak ulertzen lagun dezakeela, baina ez duela erabat onartzen.

“A pesar del título (“En torno al concepto funcionalista de predicación”), existen presupuestos y conclusiones que no todos los funcionalistas compartimos:

a) Concepto morfoloquista, no sintáctico de predicación: relación que media entre un lexema verbal y sus morfemas (cf. Gutiérrez 1984: 261 y ss.).

b) La idea helmsleviana de que los morfemas verbales son morfemas extensos: no pertenecerían al verbo, sino que afectarían a toda la oración” (Gutiérrez 1997: 326).

Gure ustez bai. Guk hautatu dugun hizkuntzaren ikuspegi hirukoitzaren arabera, guztia, bai predikazio nagusiaren eduki informatiboa, bai predikazio nagusi horren eduki informatiboan eragiten duen bigarren mailako predikazioa, guztia, *dictum* mailan kokatzen da: predikazioaren proposiziozko eduki horretan.

Halaz ere, perpausaren muga metodologikoa gainditzen ez duen ikuspegitik begiratuta, onartu onartzen dugu Fernandezek aipatzen duen maila-aldaketa; intzidentala predikazio nagusiaren egituratik at egote horrek, beste maila batean aurkitzen dela ondorioztatzera bultzatzen baitu.

Se trata de un desarrollo “axial” de la misma predicación, lo que implica que, “extramuros” del ámbito de cobertura de los morfemas extensos del verbo de que depende, ocupa una posición estructural que se sitúa en otro plano, por lo que, dotado de valor predicativo propio, su contenido se interpreta en confrontación con la predicación matriz. (Fernández 1993: 84).

Gure ikuspegiaren arabera, goian esan bezala, guztia, *dictum* mailan gauzatzen da; *dictum* maila hori, ordea, ez du perpausak soilik osatuko, baita, Fuentesen lana (2007) aztertzean ikusiko dugun bezala, lehen mailako perpaus bazterrak ere (*periferia 1*). Beraz, bada halako maila aldaketa bat, baina beti ere *dictum*aren barnean kokatuz; hots, predikazioaren (lehen mailako nahiz bigarren mailako predikazioaren) proposiziozko edukiaren barnean.

Izan ere, garbi dago badela *dictum*-az haragoko mailarik; edo nahiago bada, lehen mailako perpaus bazterretik haragoko mailarik. Hain zuzen ere, bigarren mailako perpaus bazterra (Fuentes 2007) osatuko du eta makroegitura batean kokatuko da. Bestela, non kokatu Fernandezek funtzio intzidentaletik saihestu dituen adierazpen mailako aditzondoak nahiz guk modalizatzailetzat jo ditugunak? Hauek ez ote daude intzidentalaren mailatik harago?

Galdera horiei erantzuteko, bada, Gutiérrezek hizkuntza-mailak antolatzeke darabilen eskemak eta oharrak baliatuko ditugu eta baita Fuentesek (2007) aurkeztzen duen enuntziatuaren sintaxiari buruzko lana ere. Baina horretara jauzi egin aurretik, Fernandezek intzidentalaren eta adierazpen mailako aditzondoaren artean ezartzen duen aldea zehaztuko dugu. Neurri batean alde hauek esplizitu egiteak berarekin baitakar parentetikotzat jo ditugun osagaien eta intzidentalaren arteko aldea azalratzea ere.



B) Predikaziotik at kokatu arren, funtzio intzidentaletik saihesten dituen osagaiak: adierazpen mailako aditzondoak, diskurtsoaren antolatzaileak.

Fernandezek enuntziatio-mailako aditzondotzat jotzen dituenen artean, guk geuk modalizatzailetzat jotzen ditugunak ere tartekatzen ditu. Honatx, azterkizun dituen multzoak:

A) Francamente, honestamente, sinceramente, respetuosamente, cordialmente, etc.

B) Personalmente, a mi modo de ver, a mi juicio, a mi parecer, a mi entender, según mi criterio, etc.

C) Probablemente, posiblemente, seguramente, presumiblemente, ciertamente, indudablemente, con (toda) seguridad, sin duda, desde luego, por supuesto, evidentemente, naturalmente, necesariamente, obligatoriamente, forzosamente, por fuerza, aparentemente, teóricamente, la verdad, etc., y puede que también en principio, de entrada, acaso, tal vez, quizá, etc.

D) Felizmente, desgraciadamente, afortunadamente, desdichadamente, curiosamente, extrañadamente, sorprendentemente, etc. (Fernández 1993: 192-193).

Horiek guztiak, irizpide formalei esker, honela ezaugarritzen ditu (Fernández 1993: 192):

- 1) Unitate foniko bere eskukoa dute, perpauseko gainontzeko osagaietatik bereizten duena.
- 2) Pausa edo etenei esker kokatzen da, intzisoa bailitzan.

Ezaugarri hauek ez dituzte, halere, gainontzeko intzidentaletik bereizten, haiek ere irizpide formal horiek betetzen baitituzte. Baina badakar ezaugarri bat bi egitura-moten arteko marra ezartzen duena:

Intzidentalak predikazio nagusiko proposiziozko edukiarekin “nozio” mailako harremana ezartzen zuen bezala, hauek ez dute “nozio” edo eduki informatibo logiko hori aditzera ematen; gure hitzez esateko, intzidentalek azken batean proposiziozko edukian eragiten zuten bezala, hauek ez dute maila horretan eragiten, hots, ez dira *dictum* mailakoak.

Pero, además, y a diferencia de otros incisos [incidentales], no mantienen relaciones de **implicación nocional** con el contenido proposicional de la predicación, a cuya estructura se sustraen. (Fernández 1993: 193). (Letrakera lodia gurea da).

Honenbestez, nahiz eta guk etengabe darabilgun *dictum* adigai hau ez erabili, Fernández ere ohartzen da intzidentaletik at uzten dituen osagai horiek ez dutela edukian edo nozioan eragiten. Eta desberdintasun hau, gainera, jokabide sintaktikoan ere ikusten du.

1) Esate baterako, A, C eta D multzoetan bildu dituen aditzondoak enuntziatuaren barnean izan dezaketen adiera berean, bere eskuko gisa ere erabil omen daitezke:

Francamente, vas demasiado lejos (A taldea)

¿voy demasiado lejos? — francamente.

Ciertamente la película es entretenida (C taldea)

¿la película es entretenida? —ciertamente.

Desgraciadamente, lo llamaron a la mili ( D taldea)

¿lo mandaron a la mili? — desgraciadamente.

Osagai horiek enuntziatio-mailako aditzondoak (A) nahiz modalizazio mailako aditzondoak dira (C eta D), hau da, modalizatzaile eginkizunera<sup>90</sup> berezi direnak.

Bere eskuko izate honek adierazten digu gai direla enuntziatua beren bakarrean osatzeko ere, eta enuntziatu parentetikoez dihardugunean horixe da, hain zuzen ere, adierazi nahi duguna. Beren bakarrean enuntziatua osatzen duen egituraz dihardugu, gero enuntziatu hau beste enuntziatu baten barrenean tartekatzen bada ere. Baina beti elkarrekin gurutzatzen diren bi enuntziatuz ari gara, nahiz eta batak bestearen egitura sintaktikoa hausten duen. Beraz, ez dira bata bestearen jarraian paratzen direnak, batak bestearen egitura hautsiaz baizik. Baina hauen balioa ez da hautsi duten enuntziatuarekin erkatuz lortzen; hauek informazioa gehitu baino areago, informazio hori nola ulertu behar dugun instrukzioak ematen dituzte.

---

<sup>90</sup>Modalizatzaileen artean egon dauden multzoak zehaztea ere garrantzitsua da. Gu une honetan ez gara horretan saiatuko. Modalizatzaileen azterketei dagokienez, ordea, bibliografia ugari dago. Oso gainera bada ere, aipa dezagun M. A. Martín Zorraquinori jarraituz (1999), aditzondoek bi modalitate mota adierazten dituztela: “epistemikoa” eta “deontikoa”. C multzoko aditzondoak modalitate epistemikoaren adierazle izango lirateke eta D multzokoak, deontikoen adierazle:

a) La modalidad “epistémica” que abarca las nociones de posibilidad, necesidad, evidencia, o lo dicho por otros.

b) La modalidad “deóntica” que tiene que ver con la voluntad o lo afectivo.

2) C eta D multzoak adierazpenezko baiezkoko esaldietara mugatzen dira; ez dute, beraz, galdera edo harridurazko esaldietan lekurik:

\*¿Vendrá, probablemente, Nébride?

\*¿Vendrá Nébride, probablemente?

\*Probablemente, ¿vendrá Nébride? (Fernández 1993: 195).

3) Predikazio nagusiaren proposiziozko edukiaren eta azterkizun ditugun hauen edukien artean inplikaziozko harremanik ez dagoenez gero, zein-nahi proposiziozko edukiren ondoan ager daitezke. Beraz, alde horretatik, funtzio intzidentala betetzen dutenek baino muga askeagoak dituzte. Beti esan izan da perpausaren mugak hertsiagoak direla diskurtsoarenak baino.

(...) al no darse una relación implicativa entre el contenido proposicional de la predicación matriz y el contenido que manifiesta cada uno de estos segmentos, es posible la aparición de cualquiera de ellos al lado de cualquier contenido proposicional; es decir, en palabras de L. Melis, “ne manifestent pas de restrictions avec les éléments du contenu propositionnel”. (Fernández 1993: 195-196).

Predikaziotik edo *dictum* mailatik at dauden unitate horiek guztiek esatariaren lorratzak uzten dituzte enuntziatuan bertan:

a) Zenbaitetan aditzera ematen ari den diskurtso horren gaineko bere iritzia esplizitu agertzen du, diskurtsoa bera hautsiaz.

b) Bestetan, diskurtsoa bere hasierako intentzio edo helburuei hain hertsiki lotzen ez zaiolako usteak eraginda, diskurtsoa beste modu batera aditzera emango du; enuntziazioa birformulatuko du, edota argi eta garbi geratu ez den osagairen bat, gaizki ulertuak saihesteko, zehaztu, mugatu edo ñabartuko du.

En definitiva, se trata de unidades que, genéricamente, se relacionan con el sujeto de la enunciación (a veces para tratar de condicionar o implicar al interlocutor). Se podría decir que son instrumentos de tipo “metaenunciativo”: el sujeto de la enunciación, que ya se manifiesta en los morfemas verbales, vuelve a mostrarse en estas unidades. No ha de extrañar, entonces, que la posición estructural utilizada sea la extrapredicativa. Ahora bien, ninguna de estas unidades mantienen, cuando se usan como en este epígrafe se muestran, relaciones de implicación nocional con el contenido de la predicación matriz. No obstante, algunos de estos adverbios se prestan a otros usos: desde la misma posición estructural

extrapredicativa, a veces mantienen esas relaciones nocionales; cuando ello ocurra, deberán ser caracterizadas como incidentales, y no como “adverbios de enunciación”, pues habrán entrado en la esfera de lo dicho.(Fernández 1993: 196-197).

Honenbestez, Fernándezen lan hau Martinezena baino askozaz zehatzagoa eta argigarriagoa gertatu zaigu; intzidentalak parentetikoetatik bereizteko ahalegin horretan ustekabeko argi-izpiak ekarri baitizkigu; izan ere, Fernándezek intzidentaltasunaren eta beste hainbat osagaien artean —adierazpen mailako aditzondoak nahiz modalizatzailak— marra bereizgarri bat ikusten du. Hau da, perpausetik at dagoen osagai oro, edo hobeto, predikazio nagusitik at dagoen osagai oro, ez du intzidentalaren sailean sartzen; harago dagoen beste maila batean sartzen ditu: enuntziatio-maila batean.

Beraz, goian utzitako hari-muturrari tira eginez, saiatuko gara atal honetan hizpide eta aztergai ditugun gertakariak (intzidentala, intzisoa eta enuntziatu parentetikoa) zein hizkuntza-mailatan eragiten duten ikusten. Horretarako bidelagun Gutiérrez-en (1997a, 1997b, 1997c, 1997d) lanak eta Fuentesek Gutiérrezen lan horietan oin harturik proposatuko duen enuntziatuaren analisisia (2007) izango dugu.

Gutiérrezek (1996, 1997a) bereziki perpausean bertan dauden mailak zehaztu, iruzkindu eta irudikatzen dizkigu, baina adierazpen mailari eta modalizazioari dagozkion hausnarketak ezin ditugu alde batera utzi; alor horixe baita enuntziatu parentetikoek bete-betean osatzen dutena.

### **3.3.2. Enuntziatua eta bere funtzio-mailak**

Osagai zirkunstantzial edo “aditamentoez” harago esparru zabala dagoela aldarrikatuz, hainbat ikerketa-lan eginak daude dagoeneko. Esan gabe doa, esaterako, goian aipaturiko funtzio intzidentalaren inguruko lanak ere esparru honetakoak direla. Horiez gain, perpausaren egitura sintagmatikoa gainditzen duten mailen azterketan lan handia egin dute, besteak beste, Geernbaum (1969), Quirk et al (1985), Alarcos (1973), Kovacci (1992, 1999), Fuentes (1998, 2007), Porroche, M.-J.M. Laguna (2006), etab. Eta baita, horiekin batera, Gutiérrezek (1986, 1996, 1997a, 1997b) ere. Azken honek mailen azterketa sakona egiten du “La determinación de los niveles oracionales” artikuluan (1997a).

### 3.3.2.1. GUTIÉRREZEN EKARRIA (1996, 1997a)

Autore honentzat, perpausaren eskema sintagmatikoak atomoaren eitea dauka. Erdiz erdi nukleoa edo gunea izango genuke: aditza, eta honen kanpoaldea bere inguruan dauden estratuek edo mailek osatzen dute; hau da, aditzaren inguruan biraka dauden mailek.

FV1: argumentuak edo aditzaren lexemak berak hautatzen dituen osagaiak. Hau da, gaztelaniazko “inplementoak” eta “konplementoak” bereziki. Euskaraz, NOR, NORI, NORK kasuez hitz egin beharko genuke.

(...) habrán de ser considerados argumentos aquellos funtivos que puedan dejar alguna huella sobre el cuerpo formal del verbo, ya se trate de marcas de concordancia o de clífticos pronominales. (Gutiérrez 1936: 32).

FV2: “Aditamentoak” edo zirkunstantzialak diren adjuntuek osatzen dute (gure esparrura ekarriz, postposizio eta deklinabide atzizkiek).

Son funtivos no exigidos ni previstos en la valencia combinatoria del lexema verbal. Efectúan una complementación periférica de primer nivel. Algunos de ellos concretan la presencia de ciertas funciones semánticas ligadas al proceso verbal (instrumento, compañía materia, fin, causa, privación), mientras que otros manifiestan un carácter locativo, temporal o modal. (Gutiérrez 1996: 33).

FV3: “Zirkunstanteak”. Esparru honetan sartzen du delako “funtzio intzidentala” ere:

Ámbito de los circunstantes, que, como su mismo nombre indica, manifiestan hechos marcados por su “exterioridad” al proceso. Aquí se ubicarían algunos de los incidentales. (Gutiérrez 1997: 373).

Edota:

Este es el estrato que más se aproxima a la idea de la función incidental, tal como se presenta en la versión más depurada de A. Fernández (1993). (Gutiérrez 1996: 44).

Jarraian, multzo bakoitza bata bestetik bereizteko, irizpide formal batzuk dakartza. Gu ez gara guztien jorran ariko; funtzio intzidentalari dagokion bezainbatean aipatuko ditugu:

1) No están previstos en la valencia combinatoria del verbo. En este caso se asemeja a los aditamentos.

2) No concuerdan con el verbo ni son conmutables por átonos pronominales. A diferencia de los aditamentos, ni siquiera permiten sustitución por adverbios o por pronombres precedidos de preposición.

3) No permiten ser objeto de una interrogación parcial.

4) No son focalizables en estructuras ecuacionales o ecuandicionales.

5) Los circunstantes, a diferencia de argumentos y aditamentos, se hallan fuera de la organización informativa soporte/aporte

6) No permiten la negación adversativa no **A sino B** ni la interrogación disyuntiva **¿A o B?**

7) Vienen destacados por el **inciso**. No se trata de un rasgo autosuficiente, capaz de definir por sí mismo una función (incidental). El inciso es una marca sistemática (se opone a su ausencia); pero sus usos son tan amplios que carece de un valor conceptual. Es un instrumento signifiante dotado de un valor procedimental (...). Constituye una llamada de atención al interlocutor para que se ponga en marcha el motor de las inferencias y busque una interpretación relevante. (Gutiérrez 1996: 44-45).

Aipu hori ongi datorkigu funtzio intzidentala bestelako osagai eta funtzioetatik bereizteko eta aldi berean, intzisoa, bere ustez, zer den eta zein eginkizun duen ere badakarkigulako.

Gure oraingo helburua, ordea, multzokatze horretan aipatu ez dituen enuntziazio mailako eta modalizazio mailako osagaiak nola eta non irudikatzen dituen jakitea da.

Ubicación funcional de los atributos de modalidad. Aunque los atributos oracionales o atributos de modalidad pueden alternar en el orden con los circunstantes [f.intzidentala], todo parece indicar que se hallan **en un nivel más externo**. (Gutiérrez 1997: 414). (Lodia gurea da).

Gutiérrezek (1996) modalitatezko atribututzat jotzen ditu Alarcosek (1973) “atributo oracional” bezala izendatzen zituenak eta guk modalizatzailetzat jo ditugunak.

Desde el punto de vista del contenido los atributos oracionales efectúan una predicación semántica que toma como base la asunción global del resto del decurso. En esta predicación el hablante introduce un punto de vista, una valoración sobre el enunciado que

emite. Por eso los denominamos también atributos de modalidad, es decir, predicaciones que reflejan la perspectiva del enunciador, del yo hablante, hacia su mensaje. (Gutiérrez Ordoñez 1996: 65).

Modalizazioaren adierazle diren hizkuntza-osagai horiek zein mailatan kokatzen dira? Gutiérrez-ek garbi du modalizazioari dagokion informazioa zirkunstanteak edo intzidentalak baino maila bat harago agertzen direla, urrutirago:

Aunque los atributos oracionales o atributos de modalidad pueden alternar en el orden con los circunstanciales, todo parece indicar que se hallan en un nivel más externo. (Gutiérrez 1996: 66).

Aditzondo edo atributu modalizatzaile hauek funtzio intzidentalarekin (edo *zirkunstanteekin*, Gutiérrezren izendapenez) batera ager daitezke enuntziatuan. Esate baterako:

- **Verdaderamente**, desde el punto de vista técnico, no existe explicación

modalizatzailea	f. intzidentala	Predikazio nagusia
	(2. mailako predikazioa)	

Baina, funtzio intzidentala edo zirkunstanteak ez bezala, predikazio balio horretatik at gelditzen da: Es verdad [ que, desde el punto de vista técnico, no existe explicación]

*Verdaderamente* aditzondoa atributu izatera pasatzen du eta gainontzeko perpausa kompletibozko perpaus subordinatu bihurtu.

Beste hainbeste gertatzen da ondorengoekin ere:

Afortunadamente, con esos hijos, el futuro del negocio está asegurado

- Es una fortuna [que, con esos hijos, el futuro del negocio está asegurado]

Con toda seguridad, si no tomas la medicación, no sanarás

- Seguro [que, si no tomas la medicación, no sanarás].

Beraz, perpaus atributuak, edo atributu modalizatzaile hauek inoiz ez dira perpausaren egitura sintagmatikoan bereizi dituen hiru mailatan sartzen: ez argumentuen artean, ez “aditamentuen” artean, ez eta “zirkunstante” edo f. intzidentalaren barnean ere:

Todo parece indicar que los atributos oracionales efectúan una modificación en el nivel de la modalidad del enunciado lingüístico. Introducen el punto de vista del hablante en una predicación que afecta a los tres niveles oracionales. (Gutiérrez 1997: 414-415).

Modalizatzaileekin hori gertatzen bada, zer gertatzen da enuntziazio-mailako osagaiekin?

1968an CH. Fillmorek modalitatearen kontzeptua perpausaren oinarrizko osagaitzat hartu zuenetik urte batzuk geroxeago, J. M. Sadock-ek (1974) eta J.R. Ross-ek (1970) hipotesi performatiboa garatu zuten. Hipotesi honen arabera, perpaus oro perpaus inplizitu baten osagai da. Perpaus inplizitu honek enuntziazioko aditza darama, baieztapena, galdera, agindua... baldintzatzen ditu, eta “ni” eta “zu” eragileetan oinarritzen da.

Metodologiazko arazoak bitarteko, hipotesi hau saihestu zuten, baina hainbat aditzondoren, esapideren, edo enuntziaturen azterketak (enuntziatu parentetikoak, esate baterako) berriz ere modalitatea eta enuntziazioa bezalako kontzeptuak erabiltzera garamatza.

Enuntziatu ororen azpian enuntziazio mailako predikatu bat dagoelako ustea oso nabarmena da. Eman dezagun honelako adibide baten aurrean gaudela:

-“Zoritxarrez, oso oker ez banago, emakume gaiztoa da, inork ez baititu nik bezala ondorioak ezagutzen”.

Badirudi *zoritxarrez, oker ez banago, inork ez baititu nik bezala ondorioak ezagutzen* segmentuek ez dutela, itxuraz, gunea edo nukleoa den elementurik. Holakoetan, inplizituan ez dagoen aditzen bat berreskuratzen ez badugu, zintzilik baleude bezala ikusiko genituzke.

Honenbestez, honako egituraren<sup>91</sup> aurrean egongo ginateke:

<sup>91</sup> Egitura hau Gutiérrerek proposatutakoaren egokitzapen bat da; ez dugu bere proposamena dagoen-dagoenean aldatu. Besteak beste, “oker ez banago” eta “inork ez baititu nik bezala ondorioak ezagutzen” bezalako segmentuak enuntziazio-mailakotzat jo ditugulako, intzidental edo zirkunstantetzat baino areago. Dena den, kontuan izan behar dugu autore honek, aipaturiko intzidentalaren aztertzaileak ez bezala, zirkunstanteen edo intzidentalaren artean ere, *enuntziazio* mailari dagozkionak batetik eta *enuntziatu* mailari dagozkionak bereizten dituela. Guk, ordea, enuntziazio-mailari dagozkionak ez ditugu intzidentalaren artean sartuko, berariaz proposatutako enuntziazio-mailan baizik.



diotsut-----S:Nik -----ISNORI: zuri -----Orain -----Hemen
--

-----P<sup>92</sup>: emakume gaiztoa da

-----Mod<sup>93</sup>: zoritxarrez

-----EN<sup>94</sup> bald.: oker ez banago<sup>95</sup>

-----EN kausa: inork ez baititu nik bezala ondorioak ezagutzen

2) Kovacci-ri (1986) eta Gutierrez-i (1997a) jarraikiz, enuntziatuaren kausa edo dictum mailako aditzaren kausa adierazten dutenak eta enuntziatioaren kausa edo enuntziatiozko aditzaren kausa adierazten dutenak bereiziko ditugu.

Enuntziatuaren kausaletan, “kausa” edo “arrazoia” fokaliza daiteke egitura *ekuazional*<sup>96</sup> nahiz *ekuandizional*<sup>97</sup> bati esker:

- Euria ari duelako kalea bustita dago
- Kalea bustita badago, euria ari duelako da

Operazio hau, ordea, ezin egin daiteke enuntziatio mailako kausalekin. Baldintzak berarekin dakar kausak eragiten dion aditzaren aurrean egotea:

- Euria ari du, kalea bustita dago eta
- \*Euria ari badu, kalea bustita dagoelako da.

<sup>92</sup>Perpausaren egitura sintagmatikoa aditzera emateko darabilgu.

<sup>93</sup>Modalizazioa aditzera emateko.

<sup>94</sup>Enuntziatio-maila adierazteko darabilgu.

<sup>95</sup>“Oker ez banago” esapidea, esatearen ekintzari dagokio batetik; hots, enuntziatioari berari, baina aldi berean esatariak enuntziatu duen horri buruz duen jarrera ere islatzen du: ez du erabateko baieztapenik egiten, oker egoteko aukera ere badago. Beraz, askotan ez da batere erraza jakiten modalizazio mailari edo enuntziatio mailari dagokion, edota txanpon beraren ifrentzua den.

<sup>96</sup>Egitura mota hau Gutierrezek honela ezaugarritzen du:

“Las construcciones ecuacionales constituyen un recurso sintáctico al servicio de la función informativa de carácter paradigmático denominado focalización: su misión es llamar la atención al interlocutor para informarle de que, en contra de sus expectativas, lo que se actualiza en el decurso es tal funtivo y no otro”. (Gutiérrez 1996: 34).

<sup>97</sup>“Egitura ekuazionalarekin batera, zenbaitetan segmenturen bat fokalizatu daitekeen edo ez ikusteko, “egitura ekuandizionalak ere erabili izan ohi dituzte (Gutiérrez 1997: 375). Egitura ekuandizionalak hiru zati dituzte: segmentu hipotetikoak —izan aditza— enfatizatutako segmentua. Adibideren batekin frogatuko dugu:

“Un pirómano incendió el monte

- si alguien incendió el monte fue un pirómano

- si algo incendió el pirómano fue el monte.” (Gutiérrez 1997: 376).

Baina, horren ordezt, aditz enuntziatibo bat berreskuratuko bagenu, egokia den enuntziatuaren aurrean geundeke:

- Euria ari duela *badiot* kalea bustita dagoelako da

Aplika diezaiogun hau aztergai dugun enuntziatuari: “Zoritxarrez, oso oker ez banago, emakume gaiztoa da, *inork ez baititu nik bezala ondorioak ezagutzen*”:

- “Emakume gaiztoa da, inork ez baititu nik bezala ondorioak ezagutzen”

- \*Emakume gaiztoa bada inork ez dituelako nik bezala ondorioak ezagutzen da.

Ez ote litzateke egokiagoa: “Emakume gaiztoa dela esaten badut, inork ez dituelako ondorioak ezagutzen esaten dut.”


Badirudi, bada, *dictum* mailako aditzaren kausa baino gehiago, enuntziatio mailako aditzaren kausa dela. “kausarekin “ bezala “baldintza” nahiz “kontzesioarekin” ere beste hainbeste gerta dakiguke. Beraz, hauek guztiak *dictum* mailakoak ala enuntziatio-mailakoak izan daitezke. *Dictum* mailako aditzaren kausa, baldintza edo kontzesioa denean eta, noski, intzidentalaren baldintzak betetzen dituztenean, intzidentaltzat joko ditugu; aitzitik, aztergai honetan, enuntziatio mailako aditzaren kausa, baldintza edo kontzesio direnean parentetikotzat joko ditugu.

Honela, enuntziatu bitxi honetan ikus daitekeenez, maila desberdinetako osagaiekin jokatzen dugu. Batetik, osagaiak zintzilik geratuko ez badira enuntziatio mailako aditza berreskuratuko dugu (esan), eta honi loturik enuntziatio mailako osagaiak daudela ikusi: “oso oker ez banago” eta “inork ez baititu nik bezala ondorioak ezagutzen”. Horiez gain, badugu modalizatzailek ere: “zoritxarrez”, esaterako.

Gutiérrezen teorizazioa gure hipotesiei egokituz, honela irudikatuko genituzke osagaiak:

Esataria (enuntziatzaileak)-----enuntziatua (diskurtsoa)-----norentzakoa

## MAKROEGITURA



-----EGITURA GORENA (sekuentziak, testu motak)-----  
TESTUINGURUA-----

### 3.3.2.2. Fuentes (2007)

Enuntziatu batean (eta, beraz, ez soilik perpaus batean) ager daitezkeen osagai guztiak sistematizatzeko ahalegina egin du lan honetan, perpausaren azterketa tradizionalarekin uztartuta. Hau da, enuntziatua bere osotasunean aztertu nahi izan du, perpaus bazterreko osagaiak perpaus barnekoekin osaturik.

Se crean en el enunciado otras funciones, otros huecos sintácticos, que no pertenecen a la oración, sino que envuelven la predicación y dan cabida a otras informaciones, procedentes de diferentes niveles comunicativos. Surge así lo que muchos llaman la periferia oracional, los complementos externos o marginales de la oración. (Fuentes 2007: 11).

Beraz, garrantzitsua gertatzen zaigu lan hau, bertan funtzio intzidentala, nahiz modalizazio- eta enuntziatio-mailako osagaiak edo gertakariak mailakatu dituelako. Horrela jokatzeak intzidentalaren, intzisoaren eta enuntziatu parentetikoaren arteko mugak argitzen lagun diezaguke.

1) Perpausaren egitura sintaktikotik abiatzen da. IS eta AS-z osatutako egitura nuklearretik. Atal honi Gutiérrez-ek (1997a) osagai nuklearren esparrua deituko dio (FV1 bezala izendatuko du).

2) Jarraian, egitura predikatibo hori Gutiérrezrek aipatzen dituen FV2k, “Aditamentoak” edo zirkunstantzialak diren adjuntuek, osatu eta ezaugarrituko dute: postposizio sintagmek.

Aipaturiko osagai horiek guztiek osatuko lukete perpausaren egitura predikatiboa; hots, perpausaren egitura abstraktua.

Jarraian, perpaus bazterra zerk osatuko duen adieraziko digu:

Quando el hablante realiza una emisión lingüística, puede añadir informaciones a esa estructura predicativa, informaciones que surgen de ámbitos más externos que constituyen la realización:

- Informaciones relativas a la presentación: cómo se señala el tema, o cómo se focalizan datos considerados novedosos o destacados por el hablante,
- Informaciones que provienen de la organización argumentativa: circunstancias que constituyen el marco de lo dicho, o que introducen un argumento o la conclusión,
- Informaciones relativas al hablante, su enunciación, y su actitud modal,
- Elementos de enlace con lo previo. (Fuentes 2007: 15).

Perpaus bazterra osatzen duten osagai horiek perpaus osoari eragingo diote, predikazio-nukleo osoari, baina guztiak ez dira maila berean kokatzen. Bertan, “lehen mailako perpaus bazterra” (perpausaren egitura abstraktutik gertuago dagoena) eta “bigarren mailako perpaus bazterra” (perpausaren egitura abstraktutik urrutirago dagoena) bereizten ditu.

“Lehenengo perpaus bazter” honetan sartzen ditu Gutiérrezrek aipatzen dituen FV3: “Zirkunstanteak<sup>98</sup>” edo funtzio intzidentala. Hauek guztiek perpausaren egitura abstraktua

<sup>98</sup>Fuentesek ez bezala, Gutiérrezrek atal honetan sartzen du mintzagaiari eta galdegaiari dagokion auzia: “Circunstancias o tópicos de causalidad, circunstancias o tópicos de referencia, circunstancias o tópicos de

inguratuko dute eta Ballyk (1965) aipatzen duen *dictuma* edo perpausaren proposiziozko edukia osatuko dute (mikroegitura):

Enuntziatua = Zirkunstanteak (funtzio intzidentala) \_\_\_\_\_ Perpausa (IS+AS)

*Dictuma* inguratuz, *bigarren mailako perpaus bazterra* osatzen duten osagaiak egongo lirateke. Osagai horiek guztiak “makroegitura” batean kokatuko ditu.

Beraz, testuaren edo komunikazioaren antolamenduari gehiago dagozkion gertakariak bilduko dira maila honetan; hau da, testuaren bizkarrezur edo zutabe nagusiei zuzendutakoak:

corresponden a los niveles modal y enunciativo, niveles enmacadores de lo dicho, porque presuponen toda la aserción y la relacionan con los agentes comunicativos: hablante y oyente. Corresponden a una organización más externa de la información: la enunciación y la modalidad. Recordemos que ya C. Bally (1965) consideraba el modus como externo al dictum, donde se situaría la predicación. Posteriormente se ha admitido la existencia de una organización aún más externa, englobadora de modus y dictum, que es la enunciación (actividad formuladora del sujeto hablante). (Fuentes 2007: 33-34).

Honako egitura hauek osatuko dute *bigarren mailako perpaus bazterra*:

<p><b>Perpaus bazterra 2:</b>                  Informazioaren maila: Tema (mintzagaia), galdegaia                  Modalizazio mailako osagaiak                  Enuntziazio mailako osagaiak: zuzeneko estiloa</p>
<p><b>Perpaus bazterra 1</b>                  Zirkunstanteak (Funtzio intzidentala)                  Berrinterpretazio-murriztaileak<sup>99</sup></p>
<p><b>Perpausa</b></p>

perspectiva, circunstancias o tópicos locales y temporales”.

<sup>99</sup>Osagai hauek, gaztelaniaz behintzat, *dictum*-aren ondorengo perpaus bazterrean jarri ohi dira, eta *dictum*-ean esandako hori berrinterpretatu egingo du, alde zuzeneko interpretazio orokorra murriztuz, edo behintzat mugatuagoa den eremu batera ekarriz alde zuzeneko esandakoa.

“La intención del hablante es establecer una doble enunciación: una aserción general y otra de ámbito más limitado. Obliga al oyente a volver sobre lo anterior y establecer una nueva interpretación de los datos. Su función discursiva, pues, es la reinterpretación, como un tipo de relación enunciativa, que supone un control del mensaje, una vuelta sobre lo dicho”. (Fuentes 2007: 26).

### 3.3.3. Funtzio intzidentala duten adibide-motak Mitxelenaren corpusean

Zeintzuk dira, bada, gure corpusean funtzio intzidentalaren eginkizuna duten adibide motak? eta beraz, enuntziatu parentetikoen azterketatik at utziko ditugunak?

Oraingo azpiatal honetan saiatuko gara gaztelanian oinarriturik aztertu duten funtzio hau euskarari egokitzen. Egokitzapenak beti dakartza arazoak, ez baikara gaztelaniaz intzidentaltzat jo diren perpausen itzulpenekin arituko; Mitxelenak euskaraz, bere baitatik sortu dituen testuak izango ditugu bidelagun. Eta jakin badakigu hizkuntza bakoitzak bere sistema berezia duela eta ez duela, agian, gaztelaniazko molde berean gauzatuko “intzidentaltasuna”.

Halarik ere, aldatuko ditugun adibideek funtzio intzidentalari txertatu izan zaizkion ezaugarriak, hots, funtzio intzidentalaren aurrean gaudela salatzen diguten ezaugarriak, bilduko dituzte.

Funtzio intzidentala eginkizun sintaktiko berri gisa agertzen digutenek<sup>100</sup>, honako ezaugarri deskribatzaileak proposatu ohi dituzte:

#### 3.3.3.1. EZAUGARRI DESKRIBATZAILEAK

3.3.3.1.1. Perpausaren bazterreko osagaiak dira, edo nahiago bada perpaus horretako aditzarekin ez dute zuzeneko mendekotasunik.

Nola demostra dezakegu aditz nagusiaren predikazio-balio horretatik at dagoela? Zeintzuk dira irizpideak intzidentala gainontzeko funtzio sintaktikoekin bereizteko gai izango direnak? Bereziki irizpide bati erreparatuko diogu: egitura hauek ezin daitezke fokalizatu.

Hori frogatzeko, Alvarez Menéndezek (1988) eta Fernándezek (1993) hainbat irizpide formal aurreratzen dituzte, nahiz eta gehienak, Gutiérrezzek (1997:317) berak baieztatu zuenez, S. Greenbaum, O. Kovacci nahiz Quirk *et alii*-k proposatutako berak izan.

Horren adierazgarri, corpuseko hiru adibide hartuko ditugu eta adibide horiei egokituko dizkiegu intzidentalaren aztertzaileek proposatzen dituzten frogak:

<sup>100</sup>Guztiek ez baitute hala ikusten. (Fuentes 1998, 2007; Gutiérrez 1996, 1997a, 1997b).

**a) Aditzaren indar-eremuko osagaiak ez bezala, f. intzidentalean doazen osagai edo segmentu hauek ez dira galdetzaile baten erantzun izango.**

- Ezkontzak, **estatu ederra izan arren**, baditu bere atsekabe eta alde txarrak.(ZIN: 128).

- Ezkontzak, estatu ederra izan arren, zer ditu?- bere atsekabe eta alde txarrak

- Zerk ditu, estatu ederra izan arren, bere atsekabe eta alde txarrak?- ezkontzak

Baina, zer galdetu erantzuna “estatu ederra izan arren” gerta dadin?

- Film hau, **bakoitza bere erara eta neurrira**, San Agustin edo Rousseau´ren Aitorkizunen sailekoa dugu. (ZIN: 137).

- Film hau, bakoitza bere erara eta neurrira, zein sailetakoa dugu?- San Agustin edo Rousseau-ren sailekoa

-Zein da, bakoitza bere erara eta neurrira, San Agustin edo Rouseauren sailekoa?-Film hau

Baina, zer galdetu erantzuna “bakoitza bere erara eta neurrira” izan dadin?

- Gu ere gehienetan, **lodixkoak ez bagara**, meheegiak aurkitzen gaituzte aukeran. (ZIN: 151).

- Gu ere gehienetan, lodixkoak ez bagara, nola aurkitzen gaituzte aukeran?-  
meheegiak

- Gu ere, lodixkoak ez bagara, zenbat aldiz hartzen gaituzte meheegiak aukeran?-  
gehienetan

- [bestez gain] nor ere gehienetan, lodixkoak ez bagara, meheegiak aurkitzen gaituzte  
aukeran?- Gu

Baina, “lodixkoak ez bagara” izan ote daiteke egitura mota honetan inoiz  
galdetzailereren baten erantzun?

**b) Fokalizatu ezin daitezkeelako frogatzat, galdetzailereren bati erantzuteko gai ez izateaz gain, gaztelaniaz “ecuacional” deitzen zaion egitura ere erabiltzen da. Badirudi aditzaren indar-eremuari dagozkion osagai guztiak jar daitezkeela “egitura ekuazional” eran, baina intzidentala ez:**

- Ezkontzak, **estatu ederra izan arren**, baditu bere atsekabe eta alde txarrak .(ZIN: 128).
  
- Ezkontza da, estatu ederra izan arren, bere atsekabe eta alde txarrak dituen
- bere atsekabe eta alde txarrak dituen da, estatu ederra izan arren, ezkontza
- \*estatu ederra izan arren da, ezkontza bere atsekabe eta alde txarrak dituen
- \* estatu ederra izan arren da, bere atsekabe eta alde txarrak dituen ezkontza
  
- Film hau, **bakoitza bere erara eta neurrira**, San Agustin edo Rousseau´ren Aitorkizunen sailekoa dugu. (ZIN: 137).
  
- Film hau da, bakoitza bere erara eta neurrira, San Agustin edo Rousseau-ren sailekoa dena.
- San Agustin edo Rousseau-ren sailekoa da, bakoitza bere erara eta neurrira, film hau.
- \*Bakoitza bere erara eta neurrira da, film hau San Agustin edo Rouseauren sailekoa.
  
- Gu ere gehienetan, **lodixkoak ez bagara**, meheegiak aurkitzen gaituzte aukeran. (ZIN: 151).
  
- Gu [ere ba] gara gehienetan, lodixkoak ez bagara, meheegiak aurkitzen gaituztenak aukeran.
- Gehienetan gara gu, lodixkoak ez bagara, meheegiak aurkitzen gaituztenak aukeran.
- ?Meheegiak gara gu ere gehienetan, lodixkoak ez bagara, aurkitzen gaituztenak aukeran.
- \*Lodixkoak ez bagara gara gu ere gehienetan meheegiak aurkitzen gaituztenak aukeran.

Honenbestez, adibide horiek ere bat datoz A. Alvarez Menéndezek dioenarekin:

El carácter no verbal de su dependencia se revela en la incapacidad de los tres tipos de estructura para ser foco de alguna de las unidades interrogativas o para constituir la unidad enfatizada de una construcción "ecuacional". (Alvarez Menéndez 1989: 55).



3.3.3.3.1.2. Predikazio nagusitik at kokatzen diren funtiboak dira. Kontzeptu hau Fernándezek honela zehazten du: “se halla fuera del dominio de los morfemas extensos del verbo”. (Fernández 1990: 439).

Pentsa dezakegu, bada, predikazio-gunearen kanpo osagaiak edo direla: “elementos periféricos, marginales a la predicación de su núcleo”. (A. Alvarez Menéndez 1988: 220).

3.3.3.3.1.3. Semantikaren ikuspuntutik, funtzio intzidentalean doan sintagmak badu predikazio baliorik, bigarren mailakoa bada ere. Predikazio balio hau predikazio nagusiarekin erkatuz erdiesten da. Horrela, perpausari erlazio-adierak txertatzen dizkio: ondorioa, baldintza, kontzesioa, etab. Beheraxeago datozen adibideak dira horren lekuko. Zentzu horretan diogu proposiziozko eduki informatiboari dagokiola; hots, *dictumari*.

3.3.3.3.1.4. Intziso-egituraren<sup>101</sup> bidez, gainontzeko sekuentziatik bereizirik agertzen da: “Se hallan aislados del resto de la secuencia por la estructura del inciso”. (Gutiérrez 1997a: 316).

Edota:

Vienen destacados por el inciso. No se trata de un rasgo autosuficiente, capaz de definir por sí mismo una función (incidental). El inciso es una marca sistemática (se opone a su ausencia); pero sus usos son tan amplios que carece de un valor conceptual. (Gutiérrez 1996: 44-45).

Kontu egin dezagun Mitxelenak bere corpusean darabiltzan funtzio intzidentaleko adibide ia gehienak koma artean doazela, eta ez hainbeste marren edo parentesien artean. Agian, horren arrazoietakoa bat izan daiteke, funtzio intzidentala egitura parentetikoa bezain aparte ez dagoelako kontzientzia duela esatariak. Horrek ez du esan nahi, halaz ere, egitura parentetiko guztiak marren edo parentesien artean zedarritzen dituenik; parentetikoa komen artean dakartzan adibideak ere ugariak dira. Egia da, ordea, parentesi nahiz marrek komek baino hobeto islatzen dutela esatariaren intentzioa; informazio hori (enuntziatu parentetiko hori) gainontzeko segmentuetatik (enuntziatuetatik) at kokatzeko duen intentzioa.

---

<sup>101</sup> Gutiérrez (1997: 318) ohartzen da askotan ez dutela funtzio intzidentalaren aztertzaileek intzisoa irizpidetzat jotzen, baina, honen ustez, lehentasuna duen formazko baldintza da: “Aunque raramente se explicita como criterio, no cabe duda de que es una de las condiciones formales prioritarias”. Halaz ere, ohartzen da intziso bezala demarkatutako segmentu oro ere ez dela intzidentala. Fernándezek, esaterako, adierazpen mailari eta modalizazioari zegozkion segmentuak intzidentaletik at uzten zituen. Menéndezek ere E. Alarcosen “perpaus atributoa” (atributo oracional) intzidentalaren sailetik bereizi egiten du. Gu ere bat gatoz bereizketa honekin, eta horren lekuko intzidentalaren eta parentetikoaren arteko bereizketa proposatzen dugu.

3.3.3.3.1.5. Diskurtsoan bertan ager daitezke “aditamentu” gisa agertzen diren osagai berdin-berdinekin:

- **Atzo genioen bezala**, ezin dugu hori egin (f.intzidentala)
- Ezin dugu hori egin **atzo genioen bezala**. (aditamentoa)

3.3.3.3.1.6. Oro har, diskurtsoan mugikortasun handia dute.

3.3.3.3.1.7. Kategoria aldetik neutroa da.

Presentan gran variabilidad categorial: hallamos en posición incidental adjetivos, nombres (sin determinación), adverbios, sintagmas con preposición, oraciones subordinadas e incluso segmentos considerados por la gramática tradicional como conjunciones compuestas o giros conjuntivos. (Gutiérrez 1997b: 317).

Ezaugarri horiek guztiak betetzen dituzte jarraian aldatuko ditugun adibideek. Ondorioz, ondorengo segmentuok funtzio intzidentala dutela esango dugu. Ohartuko gara ia adibide guztiak perpaus subordinatuen sailean sartu izan direla orain arte: gaztelaniaz “adverbiales impropias<sup>102</sup>” deitu izan dira. Halaz ere, perpaus subordinatuak ez bezala, hauek formalki intzisoko egitura batean agertzen dira; hots, puntuazio demarkazioz perpausetik bereizirik, eta ez dira aditzaren guneko osagai.

Bestalde, funtzio intzidentalean agertzen diren osagaiek predikazio-balioa txertatzen dute (bigarren mailako predikazioa) predikazio nagusiarekin erkatzean eta, beraz, predikazio-balio horren arabera bildu ditugu adibideak.

### **Kontzesio-adiera**

- Eta gure arimaren eguneroko —edo asteroko— ogia hori dugunez gero, hemen ere aterpe txiki bat, **narrasa bada ere**, utzi nahi genioke. (ZIN: 123).

---

<sup>102</sup> Honela definituko digu adigai Galán Rodríguezek (1999: 3603-3604): “Basándose en el hipotético paralelismo entre las subordinadas circunstanciales y el complemento circunstancial de las oraciones simples, y en la consideración paradigmática que asigna a la categoría de adverbio la función de complemento circunstancial, otros autores han sugerido una distinción entre “adverbiales propias” o circunstanciales (tiempo, lugar, modo) y “adverbiales impropias” o no circunstanciales (el resto), ya que estas últimas, a diferencia de las anteriores, carecen de equivalentes adverbiales”.

- Baina, **lehena eta agian azkena izanagatik**, zer dela eta uka zinemari literaturari onesten dioguna? (ZIN: 137).
- Bereganatzen du, eta itzultzen digunak, **nahiz eta azala era askotakoa izan**, mami bat du beti: zalantza. (ZIN: 143-144).
- Hori da, berriz, **zenbait umekeria gorabehera**, S. Lumet´ek egin duena. (ZIN: 181).

### **Baldintza**

- Eta badu negarbidetza oraingoan, **inoiz izan badu**. (ZIN: 136).
- Gu ere bagaramatza medikuen azpi-lan okerre buruz, **horrelakorik baldin bada**, zerbait jakin-nahiak, baina zinemak eskeintzen digun zirriturik ez dugu askorik ikasiko. (ZIN: 149).
- Gu ere gehienetan, **lodixkoak ez bagara**, meheegi aurkitzen gaituzte aukeran. (ZIN: 151).

### **Kausa**

- Eta, **errukiak garamatzanez gero**, esan dezagun gizona, berehala hil beharrean, 30 urtean usteltzen edukitzea badaezpadako errukia iruditzen zaigula. (ZIN: 138).
- Baina Xenpelarren bertsoak, **ahotik belarrira ibili direnez gero**, nekez aurki genitzake aldaerarik gabe. (LIB I: 108).
- Hemen, ordea, ez gabilta hezur-haragizko gizakien artean, sinbolo artean baizik eta, **Peru dugunez gero sinbolo nagusia**, Peruren auzia da aurrenik erabaki beharrekoa. (LIB I: 139).

### **Nola, modua adierazten dutenak**

- Guri ere, **okerreanean**, jakintsuenei gertatu zaiena berbera gertatuko zaigu: erdiz-erdi huts egitea. (ZIN: 135).
- Ez du, **besteen antzera**, kamera batetik bestera gelditzeke mugi beharrik, ikuspide berrien bila. (ZIN: 135).

- Film hau, **bakoitza bere erara eta neurrira**, San Agustin edo Rousseau´ren Aitorkizunen sailekoa dugu. (ZIN: 137).

### Noiz, denbora adiera dutenak

- Gehienei atsegin zaigu, **nekatuak gaudenean**, “denbora-paxako” huskeriak ikustea. (ZIN: 139).
- Eta, **ari den musika harrigarria denean**, ez dio inork hitzei jaramon handirik egiten. (ZIN: 154).
- Film honek, **guregana baino lehen**, bazekarren aurretik zarata eta zalaparta. (ZIN: 187).

### Non

- Ez du artean zinemak horrelakorik egin, ezta egingo ere berehalakoan, ez baitu inork, **askoren eta batez ere diruaren mendean dagoen mundu honetan**, horretarako erarik erraz izango. (ZIN: 137).
- Argi eta garbi ageri da, **edozein orrialdetan**, egilearen “olerkaritasuna” eta lirikarako ixuria. (LIB I: 99).
- Gurean, **beste nonnahi bezala**, ez dira asko izan egiazko lirikoak. (LIB I63).

### 3.3.4. Ondorioak

1) Funtzio intzidentalaren inguruko azterketek nahiz funtzio intzidentalari egindako oharrek (Gutiérrezen eta Fuentesen lanek) erakusten digute funtzio intzidentala predikazio nagusitik<sup>103</sup> at kokatzen dela:

- Oviedoko eskolako funtzio intzidentalaren aztertzaileei jarraituz, predikazio nagusitik at kokatzen da (“posición extrapredicativa”), eta alde horretatik, aditzaren eta morfema hedatuen indar-eremutik<sup>104</sup> at dago: “unidades sin función directa ni indirecta con el núcleo oracional” (Martinez 1994: 275-276). Baina, predikazio nagusitik at egon arren ere, perpausaren egitura sintaktikoaren barnean

<sup>103</sup>Autore hauek jarraitzen duten gramatika funtzionalaren ikuspegitik, predikazio-harremana aditz lexemaren eta subjektu-morfemen (pertsona, sing/pl.) harremanetik dator eta predikazio-harreman horri deritzo lehen mailako predikazioa. Horren aldean, bigarren mailako predikazioak hutsuneren bat izango du morfema-osagaietan.

<sup>104</sup>Egia da, hala ere, bai Lapesa (1975) bai Martinez (1994) komuntaduraz eta ko-erreferentziaz mintzo direla, funtzio hau aztertzerakoan.

aztertzen dute, perpauseko osagaien bati zuzentzen baitzaio eta osagai honekin komunztatzen baitu.

(...) son constituyentes del esquema sintagmático oracional que se sustraen a la cobertura de los morfemas extensos que se expresan en el verbo nuclear; ocupan en el enunciado una posición que llamamos “extrapredicativa”, desde la cual su contenido queda en condiciones de ser interpretado en confrontación con el contenido proposicional del “grupo verbal. (Fernández 1993: 8).

Predikazio nagusitik kanpo egote horregatik beragatik Fuentesek funtzio intzidentala, lehen mailako perpaus bazter posizioan dagoela adieraziko digu, eta Gutiérrez-ek FV3ri dagokion mailan.

- 2) Predikazio nagusitik at egon arren, ez dira bere eskuko edo independente. J. A. Fernández-ek (1993) esango digun bezala, erreferentzia puntutzat ez dute komunikazio-ekintza bera hartuko (bere eskuko perpausekin gertatu ohi den bezala), lehen mailako predikazioa baizik. Beraz, gertakizunen predikazio-balioa ematen dute aditzera, **bigarren mailako predikazioa**, eta lehen mailako predikazioarekin harremanetan interpretatzen dira. Erkatze edo kontraste honetan oinarrituz bakarrik ematen dituzte aditzera adiera “erlazionalak”; hau da, kausa, baldintza, kontzesioa, modua nahiz denbora adierak.

La inmensa mayoría de los segmentos incidentales, en efecto, parece conllevar una especie de “predicación” consistente en la ubicación temporal de los acontecimientos cuyo punto de referencia no es el momento del acto de comunicación (como ocurre en la oración autónoma) sino precisamente la predicación de la oración principal. Por esto mismo, y por expresarse en unidades carentes de autonomía, es por lo que podría denominarse “predicación secundaria”. (Martínez 1994: 274).

Beraz, funtzio intzidentalaren edukiari dagokionez, “zirkunstantziatzko esanahi” horiek ez dira soilik intzidentaltasun honen baitakoak, perpausaren predikazio nagusiaren edo edukiaren baitakoak ere badira. Bestela esan, perpaus autonomo eta segmentuaren (unitate intzidentalaren) arteko harremanetik dator zirkunstantziatzko esanahia.

(...) “incidentales”: presuponen una estructura predicativa con la que contrastan —la “predicación matriz”— e *inciden sobre el contenido de tal predicación*, ya sea sobre la totalidad de ese contenido ya sobre algún aspecto particular (...). (Fernández 1993: 8). (Letrakera lodia gurea da).

Aipu horren arabera, intzidentalek txertatzen duten informazioa proposizioko edukiaren edo *dictum*aren barnekoa da. Zentzu horretan, ezin ken daiteke unitate intzidentala; kenduz gero perpausaren proposiziozko eduki hori hanka motz geldituko bailitzateke.

Alde horretatik, parentetikoen jokabidetik aldentzen dela ikusten dugu. Parentetikoek, izan ere, ez dute proposiziozko eduki horretan parte hartzen eta kendu arren ez genuke dictum edo eduki semantiko horretan eragingo; beste maila bateko, hots, makroegitura bateko informazioa galduko genuke, perpausaren egitura sintaktiko horretan eragin ez arren, diskurtsoaren garapena hanka motz utziko lukeena.

- 3) Funtzio hau dictum mailan kokatuko genuke, perpausaren egitura sintaktikotik at, baina predikazioaren (lehen mailako eta bigarren mailako predikazioa bere osotasunean hartuta) proposiziozko eduki batean.
- 4) Enuntziatu parentetikoa, aitzitik, bigarren mailako perpaus bazterreko gertakaria da (Fuentes 2007); bestela esan, makroegitura batean kokatzen den enuntziatio eta modalizazio mailakoa nahiz argudio eta informazio egiturari dagokiona.
- 5) Enuntziatu parentetikoa, gainera, bere eskukoa edo independentea den enuntziatua da, beste enuntziatu batean tartekatzen dena. Ez da, haatik, enuntziatu beraren barneko osagaia, intzidentalarekin eta intzisoarekin gertatzen den legez.
- 6) Intzidentalak, Oviedoko eskolakoen ustez, intzisoaren azpisaila osatzen dute, baina ez (gehituko genuke) enuntziatu parentetikoen azpisaila. Beraz, intzisoa eta intzidentala, parentetikoa ez bezala, enuntziatu beraren barneko gertakari sintaktikoa da.

El segmento en inciso forma parte de la estructura sintáctica del enunciado. Puede ser porque es un complemento resaltado, enfatizado, un complemento tematizado, de enunciación o modal (si aparece en posición inicial) o de reinterpretación (si aparece pospuesto). (Fuentes 2007: 73).

- 7) Beraz, intzisoen esparrua intzidentalena baino zabalagoa da.

Goian sakonduriko horrekin guztiarekin agerian jarri nahi izan dugu gure tesi-lanean enuntziatu parentetikoa diogunean ez garela Oviedoko eskolakoek aztergai dituzten funtzio intzidentalaren gertakariak ari, terminologiaz harago hizkuntza-maila ezberdineko gertakariak baitira. Halaz ere, jarraian ikusiko dugu enuntziatu parentetikoei eman izan zaizkion ezaugarriak aztertzean, *intzidentala*, *intzisoa* eta *enuntziatu parentetikoa* terminoen azpian agertzen diren gertakariak nahasian dabilzala.

Jarraian, bada, gure ustez, enuntziatu parentetikoak betetzen dituen ezaugarriak zehaztuz joango gara, beti ere bestek esandakoetan oinarrituz, nahiz eta “ezaugarri hauek” batzuetan “intziso” nahiz “intzidental” izendapenaren azpian etorri.

### 3.4. ENUNTZIATU PARENTETIKOEN EZAUGARRIAK

Aurrera baino lehen, enuntziatu parentetikoak azaltzeko behin eta berriz erabiliko ditugun laburdurak eta eskemak aipatuko ditugu:

- Enuntziatu parentetikoa izendatzeko E2 laburdura erabiliko dugu.
- Parentetikoa tartekatu den enuntziatua izendatzeko E1 nahiz E3 enuntziatuak erabiliko ditugu Delomier & Morel-i (1986) jarraituz.
- Maiz honako eskema hau jarraitu ohi dute: [E1-E2-E1] nahiz [E1-E2-E3].

Beraz, une honetako xedea, irizpide nagusien arabera, enuntziatu-mota hauen ikerlan nagusiak iruzkindu eta sailkatzea izango da.

Gu ez gara adigai hauen definizio guztiak biltzera lerratuko; guk azterturiko definizio eta ikusmolde teorikoak ahalik eta modurik laburrenean eta sistematikoenean azaltzeko, multzoka bilduko ditugu, baina bereziki definizioak batean dituzten ezaugarriak nahiz ez dituztenak azaleratuz.

Ondorengo bi atalotan bilduko ditugu ezaugarriak:

- a) Irizpide sintaktiko-formalaren (eta semantikoaren) arabera.
- b) Diskurtso mailako ezaugarritzea: komunikazioan betetzen duten funtzioaren arabera.

### 3.4.1. Irizpide sintaktiko formalak eta hurbilbide honen arabeko ezaugarriak

3.4.1.1. Oro har, autore gehienak bat datoz azpimarratzean enuntziatu parentetikoak, nahiz intzisoak edo intzidentalak, E1<sup>105</sup> edo tartekatua izan den perpausaren egitura sintaktikoa hautsi egiten dutela.

Hona hemen autore batzuek emandako definizioak:

- d'une proposition qui suspend le cours d'une phrase ou est rejeté à la fin. (Chevalier et alii 1964: 67).

- Nous appellerons insertion incidente l'insertion d'un mot ou d'un groupe de mots au sein d'une proposition ou d'une phrase dont il disjoint les termes, interrompant ainsi la ligne syntaxique et la ligne mélodique de cette proposition ou de cette phrase. (Dessaintes 1960: 19).

- (...) de propositions incluses (dites aussi intercalées) parmi les autres propositions d'une phrase. (Mounin 1993: 171-172).

- Se interrumpe la propia estructura sintáctica y se marca una indicación marginal. (Fuentes 1998:164).

3.4.1.2. Ez dute E1 enuntziatuaren egitura sintaktikoan parte hartzen; kanpo-izaera sintaktikoa dute (*exterioridad sintáctica*).

- Ce sont ni sujet, ni predicat, ni expansion par subordination. (Mounin 1993: 171-172).

- Se appellera donc incise (ou incidente) les syntagmes qui, sur le plan syntaxique, ne font pas partie des constituants internes de la phrase. (Nemmy 1973: 7-8).

- Formally, the parenthetical unit is conceived of as representing an entity which in some significant sense is external to the sentence. (Ziv 1985: 181).

- Ce n'est pas une relation syntaxique spécifique interne à la phrase. C'est une phrase. (Mounin 1993: 171-172).

---

<sup>105</sup>Baque Millet-ek (1999) E1 oinarizko enuntziatuari edo parentetikoa tartekatu den enuntziatuari PI ("Phrase insérante") deritzo.



Gehienak bat datoz ezaugarri hori onartzean, baina bada eskolarik, goian ikusi dugun Oviedokoa bereziki, “funtzio intzidentala” aztertzeke, perpausaren esparrua zabaltzeko aldarrikatzen duenik, baina beti ere, bere azterketa perpausaren barrenera lerratuz.

Bigarren ezaugarri honek berez bezala dakar hirugarren hau ere:

3.4.1.3. Perpausaren egitura sintaktikoan parte hartzen ez badu, zilegi da pentsatzea, hauek ezabatu edo kendu arren, E1eko perpausaren osagai sintaktikoak bere horretan ongi gelditzen direla.<sup>106</sup>

En réalité, une syntaxe fonctionnelle peut définir avec rigueur les incidentes: ce sont des segments qui, dans une phrase, ne sont ni sujet ni prédicat, ni expansion par subordination. Ils peuvent disparaître sans affecter ni mutiler les rapports syntaxiques entre les autres éléments de la phrase. [...] Ce ne sont pas des segments coordonnés ils n’ont aucune fonction commune avec aucun autre segment de la phrase [...]. Les incidentes signalent une intervention de l’auteur sur un point donné de son énoncé. Ce sont des phrases (et non des propositions) enchâssées dans d’autres phrases, avec lesquelles elles n’ont pas de lien syntaxique formellement marqué [...] (Mounin 1993: 171-172).

Parentetikoak “ezaba edo ken daitezkeen” segmentu edo enuntziatutzat autore ugarik jo dute (metodologiaren atalean gain-gainetik ikusi dugun bezala). Eta hauxe da, gainera, egitura edo hizkuntza-gertakari hau aztertzean eta definitzean funtsezkoen gertatu den ezaugarria. Baina sintaktikoki E1 edo tartekatua izan den perpausa ongi gelditzeak eskumena ematen ote digu sintaktikoki ken daitekeela esateko? Eta ezabatzearen fenomeno hau ez ote da sintaxi aldetik ez ezik diskurtso aldetik ere aztertu beharko? Bestela esan, diskurtsora zabaltzen den sintaxi ikuspegi batetik edo Blanche-Benvenistek (1991) dioen bezala “makrosintaxi” batetik? Diskurtsoaren garapen egoki baterako zein neurritan dira beharrezkoak?

Forma aldetik bereizi ditugun ezaugarriok, ia autore gehientsuenek onartzen dituztenak, argigarriak izan daitezke parentetikoa eta intzidentala bereizteko (ikus, goian esandakoa) intzidentalak *dictum* mailan eragiten duenez gero, informazio hori kentzean, proposiziozko edukia bera geratuko bailitzateke hanka motz, baina ez dira aski *parentetikoa*

---

<sup>106</sup>Beste kontua da diskurtsoari begira ken daitezkeen zedarritzea. Azken batean, perpausaren egitura horretatik at, diskurtso mailan baitute egitekoa.

eta *intzisoa* elkarrengandik bereizteko. Hauen arteko bereizketan urratsen bat egin dezake ondorengo ezaugarriak:

#### 3.4.1.4. E2-k E1-ekin ez du lotura sintaktikorik ezartzen.

Ezaugarri hau, esaterako, Fuentes-ek (1998, 1999b) erabakigarritzat jotzen du parentetikoa intzisetik bereizteko. Aztertzaile honentzat, intzidentalek, oinarrian, intzisoaren azpisaila osatzen dute.

### INTZISOA⇒INTZIDENTALA

Los incidentales son un tipo de los “incisos”, caracterizados (inespecíficamente) en el plano de la expresión por presentarse entre pausas antes, después de la oración o incrustándose en ella, como unidades sin función directa ni indirecta con el núcleo oracional. (Fuentes 1998: 142).

### INTZISOA

Los incisos son complementos que se destacan con pausas. Y pueden indicar una explicación. [...] *un elemento integrado en la oración*, un adjetivo explicativo que tiene que adoptar esta estructura melódica y sintáctica para expresar el valor explicativo. A esto se acerca la oración de relativo explicativa. Y la aposición. Todos ellos son elementos integrados en la oración. (Fuentes 1998: 159).

Aipu horren arabera, “intzisoa” perpauseko osagairen batek izan dezakeen antolabidea da, antolabide grafiko hutsa; hots, entonazio-aukera hutsa. (1998: 159).

Intzisoa nahiz intzidentala, perpausaren partaide baino hobeto, proposiziozko edukiaren edo dictum-aren parte da (Fuentes 2007) eta hurbilen duen perpaus bazterrean kokatzen da (perpaus bazterra 1 bezala ikusi dugu). Garbi dago, ordea, enuntziatu bat eta bakarra dugula jokoan, eta enuntziatu hori E1 da eta oinarritzko perpausaz eta horren egitura sintaktikoa hautsiko duen intziso edo intzidentalaz osatuta dago.

“Parentetikoa”, aitzitik, egitura berezia da, bai entonazio<sup>107</sup> aldetik eta bai betetzen dituen funtzioen aldetik. Enuntziatu aske bat da, inolako lotura sintaktikorik gabe, beste enuntziatu batean tartekatzen dena.

Egitura parentetikoetan, beraz, gutxienez bi enuntziatu ditugu jokoan, parentetikoa bera ere enuntziatua baita eta enuntziatu honek ez du E1 edo tartekatua izan denarekin lotura sintaktikorik. Beraz, beregainak diren bi enuntziatu ditugu.

## PARENTETIKOA

Sin embargo, el parentético es un enunciado distinto (cfr. C. Fuentes 1998). Obedece a una intervención del hablante que interrumpe su propio discurso (...) Formalmente parecen pertenecer al mismo enunciado en el que se insertan. Pero la entonación marca claramente que estamos ante una unidad independiente, diferente del enunciado base. (Fuentes 2007: 73).

Beraz, intzisoaren eta enuntziatu parentetikoaren arteko aldea hau da: intzisoak (eta beraz, baita intzidental ere) perpausarekin batera enuntziatu bat eta bakarra osatzen du eta hurbileko perpaus bazterreko gunean kokatzen da. Bien artean, perpausaren egitura sintaktikoaren eta perpaus bazterrearen artean, bada lotura sintaktikorik. Bien arteko baturak proposiziozko edukia edo *dictum*-a osatzen dute.

Enuntziatu parentetikoa, aldiz, bere bakarrean enuntziatu bat da, E2 enuntziatua, eta nahiz eta E1 enuntziatuan tartekatu, ez du honekin inolako lotura sintaktiko formalik gauzaten, ez bada diskurtso mailako koherentziatzeko lotura. E2 enuntziatuak ematen duen informazioa, gainera, dictum mailatik kanpokoa da, enuntziatuz eta modalizazio-mailan nahiz argudio eta informazio-egiturei dagokiena (*perpaus bazterra 2* bezala izendatzen du Fuentesek 2007).

Honenbestez, Fuentes-ek ematen dituen ezaugarriok parentetikoa intzisotik (eta baita intzidentaletik<sup>108</sup> ere, beraz) bereizten dute. Parentetikoa eta E1 bi enuntziatu dira eta bien artean ez dago perpaus mailako lotura sintaktikorik, ez baitute perpaus konplexu bat osatzen; egotekotan ere diskurtso-mailako lotura izango dute.

<sup>107</sup>Canellada-Madsen-ek (1987: 142-143) erakusten digutenez, parentetikoa entonazio aldetik intzisoa baino baztertuago ageri da. Intzisoa, gaztelaniaz behintzat, *s* (*suspensión*) batetik abiatu eta *anticadencia* edo *semianticadencia* batean amaitzen da; parentetikoak, aldiz, aurretik eta atzetik, *c* bat darama (*cadencia*).

<sup>108</sup>Atore honentzat “intzidentalak” intzisoen barnean sartuko lirarteke: “Los incidentales son un tipo de los “incisos”, caracterizados (inespecíficamente) en el plano de la expresión por presentarse entre pausas antes, después de la oración o incrustándose en ella, como unidades sin función directa ni indirecta con el núcleo oracional”. (Fuentes Rodríguez 1998: 142).

Intzisoa, aldiz, E1 enuntziatuaren barneko osagaitzat jotzen du, eta bien artean lotura sintaktikoa egon badago, nahiz eta pausen bidez, bazterrean edo perpausetik at egongo balitz bezala kokatu.

Lotura sintaktikoa *izan / ez izan* irizpidea, Fuentes-ek enuntziatu parentetikoak intzisotik bereizteko erabili du eta, honela, autore honek parentetikoek ikuspegi murrizta bereganatu; hau da, parentetikoak intziso nahiz intzidentaletik bereiziko ditu.

En la bibliografía, escasa por cierto, sobre el tema se confunde en ocasiones el parentético con el inciso. Se suelen usar ambos términos para lo enmarcado entre pausas. Este es un rasgo común entre ellos, pero el nivel de inserción sintáctico varía. El segmento en inciso forma parte de la estructura sintáctica del enunciado. Puede ser porque es un complemento resaltado, enfatizado, un complemento tematizado, de enunciación o modal (si aparece en posición inicial) o de reinterpretación (si aparece pospuesto). (Fuentes 2007: 73).

Bereizketa hau, ordea, autore guztiek ez dute aho batez onartzen. Mouninen (1993) goiko aipuan ikus zitekeenez, intzidentalaren ezaugarritzat jotzen du lotura sintaktiko formalik ez izatea; eta ez parentetikoek ezaugarritzat.

Lotura sintaktikoa izan ez izan ezaugarri hau Dessaintesek (1960) ere ahotan hartuko du intzidentezko tartekatzeak ezaugarritzeko; baina berarentzat ezaugarri hori ez da egitura mota honek ezinbestean bete beharreko ezaugarri erabakigarria izango. Eta kontu egin dezagun autore honek intzidentezko tartekatzearen barruan aztertzen dituen egitura gehienak guk *parentetiko* deizioaren azpian aztertuko ditugula. Dessaintesentzat normalena loturarik ez izatea bada ere, ezaugarri hau ezin daiteke mugatze-irizpidetzat erabili, gerta baitaiteke lotura gramatikala izan arren, egitura mota beraren aurrean izatea:

1<sup>o</sup>) Un critère grammatical suffit, mais n'est pas toujours nécessaire.

L'absence de lien grammatical entre l'i.i.<sup>109</sup> et l'insérante suffit pour déceler la présence d'une insertion incidente; l'impossibilité de rattacher syntaxiquement l'une à l'autre est, en effet, une preuve suffisante que nous avons affaire à un "corps étranger" introduit incidemment au sein de la proposition. Mais la présence d'un lien grammatical ne doit pas nécessairement exclure la présence d'une insertion incidente. Il existe, en effet, des insertions manifestes qui sont, syntaxiquement, reliées à l'insérante. (Dessaintes 1960: 29).

<sup>109</sup> Zeinu hau darabil "Insertion incidente" laburtzeko.

Autore honek, esate baterako, intzidentezko tartekatzearen barnean, zenbait erlatibozko perpaus ez murrizgarri<sup>110</sup> ere sartzen dituela dakusagu; guk geuk perpauseko egitura sintaktikotzat jotzen ditugunak eta, beraz, parentetikoen azterresparrutik at utziko ditugunak. Horiez gain, ordea, Dessaintes ohartzen da egitura hauek maiz aski *Et, mais* eta *car* bezalako lokailuekin hasten direla; hots, *eta, baina, eta izan ere* bezalako lokailuekin. Gure corpusean ere ugariak dira era honetako adibideak, baina gure ustez, lokailu hauek bi enuntziatuen edukien arteko harreman sintaktikoa bideratzea baino areago, esatariaren iruzkinen bat gehitzeko balio du, enuntziatuaren eduki horretatik (proposiziozko edukitik) at, beste maila batean, dagoen informazioa gehitzeko. Hau guztia, ordea, beheraxeago ikusiko dugu.

Dessaintesek berak ere, ordea, *et, mais* eta *car* lokailuak berariaz aztergaitzat hartzen dituenean, lokailu hauek (berak koordinaziozko konjuntzioak deitzen ditu) balio bikoitza dutela azpimarratuko du; kopulatiboa eta afektiboa.

(...) elles sont introduites par une conjonction de coordination qui, outre sa fonction conjonctive, revêt une valeur affective parfois bien prononcée. Il résulte des textes que nous avons rassemblés que seules les conjonctions *et, mais, car* cumulent cette double valeur, copulative et affective. (Dessaintes 1960: 81).

Beraz, ohartzen da ez dela koordinazio soila eta berariaz egitura mota hau koordinaziotik (eta bereziki justaposiziotik) bereizteko ahalegina egiten du. Autore honentzat justaposizioak, koordinazioak eta subordinazioak komunikazioaren eduki errepresentatzailea antolatu eta ordenatu egiten dute, baina intzidentezko txertatzeari esker, edukiaren esparruan zuzenean eragiten ez duen elementuren bat txertatzen da, psikologiarekin lotura duena: esatariaren ikuspuntua, esatariaren arima-egoera, edo norentzakoari zuzendutako deiak. Beraz, informazio bat txertatzen du, baina ez maila intelektual edo errepresentaziozkoari dagokiona (ez *dictumari* dagokiona, gure terminologia erabiliz), beste maila batekoa baizik.

<sup>110</sup> Ez ditu, ordea, aposizio eta erlatibozko ez murrizgarri guztiak sartzen, modalizazioa txertatzeko gai diren haiek baizik:

“Notons encore qu’il existe aussi des relatives modales qui, à l’instar des principales modales dont nous avons parlé plus haut, sont intercalées pour exprimer une réaction du locuteur”. (Dessaintes, 1960:97).

edota

“Mais l’incidente peut emprunter la forme d’une apposition. C’est la fonction prédictive de l’apposition qui en fait un excellent outil de modalité. Il s’agit aussi d’une construction du style écrit. Le locuteur peut aisément interrompre son énoncé pour y insérer une appréciation personnelle, non plus à propos d’un terme de l’insérante, mais de toute la phrase”. (Dessaintes 1960: 98).

Justaposizioaren eta intzidentezko tartekatzearen arteko bereizketari helduz, garrantzizkoa gertatu zaigun ñabardura bat zehazten du: justaposizioa alboz albo, inolako konjuntziorik gabe, proposizioak paratzea da eta, honela, gramatikalki, proposizio hauek maila berean eta garrantzi berarekin paratzen direla esango digu, guztien artean pentsamendu osoa aditzera ematen dutela (Dessaintes 1960: 165-167). Intzidentezko tartekatzearekin, ordea, ez da maila bereko informazioa paratzen.

Justaposizioan alboratutako proposizioen arteko harremana espontaneoki, bat batean zedarritzen omen dugu; koordinazioarekin harreman hau esplizitu egina dago. Baina zer gertatzen da koordinaziozko konjuntzioa buruan duela txertatutako intzidenteeekin? Egoera honetan, Dessaintes-en ustez, konjuntzioak balio afektiboa bereganatzen omen du.

Beraz, Dessaintes-ek lotura sintaktikoari buruz duen ikuspegia honela laburbilduko dugu:

- Lotura sintaktikoa izan / ez izan ez da bere bakarrean erabakigarria den mugairizpidea; gerta baitaiteke intzidentalaren eta tartekatua izan den perpausaren artean lotura duena ere mota honetakoa izatea.

- Praktikan aztertzen dituen adibide gehienek, ordea, ez dute lotura formalik eta koordinaziozko lotura azaltzen duten konjuntzioak aztertzean (*et, mais, car*), berariaz esango digu nagusitzen den harremana ez dela koordinaziozkoa, afektiboa baizik. Beraz, justaposiziotik (edo alborakuntzatik, EGLUren terminologia jarraituz) eta koordinaziotik bereizten du intzidentezko txertatzea.

Enfin, il est malaisé de coordonner étroitement deux idées qui, nous allons le voir avec le troisième caractère, se trouvent sur deux plans différents: le plan de l'énoncé (objectif) et celui du locuteur en face de l'interlocuteur (subjectif). (Dessaintes 1960: 55).

- Dessaintesentzat lotura izan/ ez izateak baino garrantzi handiagoa du, ondorioz, beste maila bateko informazioa txertatzen duela azpimarratzeak: modalizazio eta enuntziazio mailakoa gehituko genuke guk. Berak modalizazio edo maila modala aipatzen ditu, baina *subjektiboa* eta *modala* terminoak nahasian darabiltza<sup>111</sup> eta ez du *enuntziatio-mailarik* aipatzen. Beste maila bateko informazioa txertatzen duela eta proposiziozko eduki horretan (edo eduki errepresentatzaile horretan) parte hartzen ez duela behin eta berriz azpimarratu

<sup>111</sup> Guk geuk alderdi teorikoan egin dugun bereizketari eutsiko diogu.

arren (Dessaintes 1960: 165), *intzidente logiko* edo *objektiboak* errealitatezko edukian eragiten dutela esango digu. Gatozen zehatzago azaltzera:

Dessaintesek intzidenteak hiru sail nagusitan biltzen ditu:

- **Objektiboak edo logikoak:** hauek proposizioak edo esaldiak igortzen duten errealitatezko edukiari ñabarduraren bat ezartzen diote.

(...) parce qu'elles ajoutent l'un ou l'autre détail objectif, concernant le contenu de réalité exprimé par la phrase. (Dessaintes 1960: 26).

Honela planteatuz pentsa dezakegu komunikazioaren proposiziozko edukian parte hartzen dutela. Baina era horretara formulatu arren, enuntziatuaren edukian baino areago enuntziazioan (hots, enuntziazioa formulatzeko, eta birformulatzeko moduan) bertan parte hartzen dutela esan nahiko lukeela pentsatzen dugu. Honatx, esan dugunaren lekuko:

Le locuteur peut insérer en cours de route toutes sortes d'explications suscitées spontanément par le besoin d'éclairer un terme, de préciser un complément, de fournir quelque information. (Dessaintes 1960: 26).

Pentsa dezakegu, bada, zehaztu, adibidetu, ñabartu funtzioekin gehiago lotzen dela; hau da formulazioa berari erreparatzen dio harik eta esan duenaren eta esan nahiko zukeenaren artean alde txikiena egoteko. Authier-Revus-ek (1995) bere tesian esango digun bezala, "ces mots qui ne vont pas de soi" edota, "non-coïncidences du dire". Beraz, enuntziatio mailari dagokio bete-betean.

- **Dialektikoak edo oratoriazkoak:** hauek gure terminologia erabiliz, esatari-norentzakoan arteko interakzio-harremana bideratzeko balio dutela esango genuke:

Le locuteur peut interrompre l'énoncé pour s'adresser à l'interlocuteur, l'interpeller, attirer son attention, prévoir ses objections ou ses mouvements d'humeur. Ce sont des insertions que l'on pourrait appeler dialectiques ou oratoires: elles n'ajoutent rien d'objectif au contenu de la communication, mais elles conviennent l'interlocuteur à s'y associer plus intimement. (Dessaintes 1960: 27).

- **Modalak edo subjektiboak:** esatariak aditzera eman duen enuntziatuari buruz bere iritzia eta iruzkina tartekatzeke balio dute:

Le locuteur peut enfin interrompre son énoncé pour exprimer ses propres réactions à propos de ce qu'il énonce. Exprimant son état d'âme, il éclaire la réalité qu'il communique d'une lumière personnelle. Ces insertions peuvent être appelées modales ou subjectives: elles révèlent la manière (modus) dont le sujet parlant ou écrivant est affecté par ce qu'il exprime. (Dessaintes 1960: 28).

Honenbestez, garrantzizkoa da informaziozko edukian baino areago, beste maila batean parte hartzen duela kontuan hartzea. Eta, beraz, lotura izan edo ez izateari ez dio hainbesteko garrantzirik ematen; ezaugarri sintaktikoa baino erabakigarriagoa litzateke makroegituran<sup>112</sup> dagoen informazioa tartekatzeke baliagarria dela dioen ezaugarria.

N'attribuant, contrairement à la conception traditionnelle de l'incidente, qu'une importance relative à l'absence de lien grammatical avec l'insérante, nous avons surtout souligné le caractère modal de l'incidente. (Dessaintes 1960: 215).

Bada, ordea, autorerik lotura sintaktikorik izan edo ez izatearen irizpidea enuntziatu parentetikoak ezaugarritzeko ez, baizik eta intzisoa nahiz intzidentala ezaugarritzeko (Mounin 1993) erabiltzen duenik. Orduan galdera-sorta hau sortzen zaigu: zein da lotura sintaktikorik ez duena *egitura parentetikoa* Fuentesek zioen bezala? *Intzisoa?* ala *intzidentala?* Edota guztiak batean duten ezaugarria da? *Parentetikoa* esatean aztertzaile guztiek egitura-mota bera ote dute aztergai?, edota aztergaia *intziso* deiziopean mugatzen dutenek? eta *intzidentala* diogunean guztiek egitura berari egiten ote diote erreferentzia? Galdera-andana horren erantzuna autoreen arabera dela esan dezakegu eta autoreek hautatu duten ikuspegi teorikoaren arabera.

Esate baterako, goraxeago aldatu dugun Mounin-en aipu batek (Mounin 1993: 171-172) esaten zigun *intzidentee*k besteak beste ez zutela lotura sintaktiko markaturik. Dessaintesek, berriz, ezaugarri hori ez du intzidentezko tartekatzeak mugatzeko irizpide erabakigarritzat jotzen. Eta, gainera, autore honek *intzidente* deizioaren azpian ez ditu aztertzen Oviedoko eskolakoek *funtzio intzidentalaren* azpian aztertzen dituzten egitura berak. Dessaintesen *intzidentezko tartekatzean* aztergai duen egiturek, esaterako, Fuentesek

<sup>112</sup>Dessaintesek berariaz ez darabil *makroegitura* terminoa. Berak *maila modala* darabil, baina guk birformulatu dugu ezaugarri modal hori makroegituran kokatzen delako.



(1998, 1999, 2000) *parentetiko* deizioaren azpian aztertzen dituen egiturekin parekotasun handiagoa du, Oviedoko eskolakoek *funtzio intzidentalaren* azpian aztertzen dituzten egiturekin baino.

Nahiz eta eskola bakoitzaren ekarria zehatz-mehatz aztertzerik ez dugun (ez baita hori gure helburua), beheraxeago hauen nondik norakoaren ildo nagusiak azalduko ditugu. Hori geroko utziz, une honetan komeni zaigu autoreek, ikusmoldeen arabera, hiru termino hauen arteko harremana nola bideratu duten zehaztea, baina beti ere *parentetiko*a erreferentzia puntu nagusitzat hartuz.

Ikusi dugu Fuentes-ek parentetikoak intziso eta intzidenteetatik bereizteko ahalegina egin duela. Honen ustez, parentetiko ez da beste bien biltzaile ez eta bietako baten azpi-osagaia ere; azterketa agortzailea egiteko bereizi beharreko bi gertakari desberdin baizik. Beraz, era horretara, aztergaiaren alorra mugatzea lortu du. Bestelakoa da mugatze-irizpide honekin guztiak bat datozen edo ez, baina esparrua murriztea behintzat lortu du.

Beste hainbat autorek ere (Blanche-Benveniste 1990) parentetikoaren ikuspegi murrizta aldarrikatzen dute, eta parentetikoaren mugak ezarri. Hauek parentetikoari mugak ezarri ezartzen dizkiote, baina parentetiko intzisoen azpisailtzat hartuz. Hauentzat parentetiko intziso mota bat da, aditz egitura duen intziso mota:

Nous donnerons une typologie d'une incise assez remarquable, celle qui est constituée par une construction verbale. (Blanche-Benveniste 1990: 146).

Beste hainbat ikertzailek, ordea, parentetikoaren mugak askozaz ere zabalagoak ikusten dituzte; hots, ikuspegi zabalago bati jarraitzen diote, eta ikuspegi honen arabera, parentetiko, intzisoa eta intzidentala bere egiten duen fenomenotzat jotzen dute. Esaterako, Arrive et al-ek (1986) era honetara definitzen du:

La parenthèse est un segment discursif inséré entre deux éléments d'une phrase [...] Les dimensions de la parenthésée sont très variables: d'un mot à un long fragment de discours. Le statut de la parenthèse par rapport à la phrase dans laquelle elle s'insère est également très variable: apposition, explication, commentaire métalinguistique, incise, digression, etc. (Arrivé et al. 1986: 469-470).

Aipu hori oso garrantzitsua da. Hemen garbi agertzen da parentetikoak bere barnean zein fenomeno hartzen dituen. Eta fenomenoaren artean, gure aztergaiaren bete-betean agertzen diren intziso, digresioak, iruzkin metadiskurtsozkoak, etab.

Grevissek (1986) ere mugak ezartzean, parentetikoaren barnean dakusa intzidentala:

*L'élément incident est une sorte de parenthèse par laquelle celui qui parle ou écrit interrompt la phrase pour une intervention personnelle. (Grevisse 1986: 610) (Letrakera etzana gurea da).*

Baque Millet-ek (1999) parentetikoaren azterketa egiteko *parenthèse* edo *segment parenthétique* terminoa intziso eta intzidentearen hiperonimotzat jotzen du; hau da, *parentetiko*a intzisoa eta intzidentala barne hartzen dituen izen orokor edo generikotzat jotzen du:

Mais, de plus, les liens existant entre ces parenthèses et les incises ou les incidentes ne sont quasiment jamais établis, ou alors de manière on ne peut plus floue [...] la seule remarque générale étant que le terme de parenthèse (ou de segment parenthétique) semble correspondre dans la grande majorité des cas à un hyperonyme d'incise et d'incidente. Afin de ne pas alourdir davantage cette présentation, nous nous référerons donc désormais aux trois phénomènes cités ci-dessus (incise, incidente, parenthèse) par le terme générique de parenthétique ne précisant s'il s'agit de l'un ou l'autre de ces phénomènes que lorsque des partitions seront effectuées. (Baque Millet 1999: 14).

Honenbestez, batzuen arabera, lotura sintaktikoa izan edo ez izan (nahiz aditza eraman edo ez) erabakigarria da parentetikoaren intziso eta intzidentalek bereizteko; beste batzuentzat, aitzitik, lotura sintaktiko horrek ez du garrantzirik bata bestetik bereizteko. Azken hauentzat parentetikoaren intzisoa eta intzidentala biltzen dituen termino orotarikoa baita.

Zentzu horretan, bada, intziso eta parentetikoaren definizio bateraturik ez dagoela esango genuke. Hainbat autorek, izan ere, parentetikoaren ikuspegi murrizta aldarrikatzen du (Laurin 1989, Blanche-Benveniste 1990, Fuentes 1998, 1999, etab.), parentetikoaren harreman sintaktikorik ez duten enuntziatuetara (aditza duen enuntziatuetara, oro har) mugatuz; eta beste zenbait autorek (Arrive et al 1986, Grevisse 1986, Baque Millet 1999, etab.) ikuspegi zabala aldeztu dute.

“Lotura sintaktikoa izan edo ez izan” irizpidea garrantzizkotzat (eta erabakigarritzat, beste irizpideekin batera) jotzen dugu, beheagoko atal batean ikusiko dugunez. Baina lotura duen edo ez erabakitzea goian agertutakoa baino askozaz konplexuagoa dela ohartuko gara.

Izan ere lotura edo independentzia hori (perpausera mugatutako) sintaxi aldetik deskribatu ala diskurtsoaren ikuspegitik deskribatu emaitza alda daiteke.

Lotura hauen azterketak, gainera, ondorengo galderari erantzun beharko lieke, gure ustez:

1) E1-en edo tartekatua izan den enuntziatuan ba ote dago elementurik enuntziatu parentetikoan dagoen elementuren batekin ko-erreferentzian<sup>113</sup> dagoenik?

2) Ba ote dago parentetikoaren hasieran lokailu edo lotura-hitzik era batera edo bestera bi enuntziatuen artean —parentetikoa eta E1— nolabaiteko lotura azalduko duenik? Eta parentetikoaren ondotik datorren E2 -ren hasieran?

3) Loturarik balego, lotura hau zein mailatan gauzatzen da, perpaus mailan ala diskurtso mailan?

4) Lotura-hitz hauek zein funtzio dute? Era horretako lotura-hitzak parentetikoaren kanpo-izaera sintaktikoa zalantzan jar ote dezakete?

Corpusak eskainiko digu galdera horiei guztiei erantzuteko bitartekoa. Baina aurrera dezakegu badirela parentetikoaren eta E1en artean ko-erreferentziazko fenomenoak, eta badirela, bestalde, parentetikoaren buruan nahiz E1en bigarren zatiaren buruan lotura-hitzak. Hauek, ordea, gure ustez, ez dute “kanpo-izaera sintaktikoa” edo bazter posizioa galarazten. Zergatik?

a) Parentetikoaren hasieran agertzen direnean, beren funtzioa ez da koordinaziozkoa; ez du aurreko perpausarekin koordinaturik perpaus konplexuago bat eratzen. Gure ustez, Dessaintes-i (1960) nahiz Delomier & Morel-i jarraituz (1986), ez du maila bereko informazioaren arteko lotura-harremana bideratzen; ez du *dictum* mailan dauden bi enuntziatuen arteko lotura bideratzen, elipsian dagoen enuntziazio nahiz modalizazio mailako informazioarekin baizik ez du lotura gauzatzen. Eta ezartzen duten balioa, lotura baino areago, “afektiboa” (Dessaintes 1960), enfatizatzailea, berrindartzailea, berreslea (Fuentes 1998: 145) dela esaten ausartuko ginateke.

Delomier & Morel-ek (1986) honela azaltzen dute:

---

<sup>113</sup>Ko-erreferentziak, Fuentes-i jarraituz, adierazi nahi du errealitate berari egiten diotela erreferentzia; hau da, egiturako bi osagaiak objektu bera izendatzen dutela. Ez du esan nahi, bada, esanahi bera dutenik.

Par ailleurs *et* et *car* ne sont que rarement coordonnants , mais ils soulignent plutôt le décrochement énonciatif et discursif qui s'opère en E2. (Delomier & Morel 1986:148).

Edota:

*Et* semble dans certains exemples ne pas avoir son rôle de coordonnants, mais avoir plutôt pour effet d'assurer la continuation thématique de E1. (Delomier & Morel 1986:151).

Baque Millet ere (1999: 28) iritzi berekoa da; hau da, egitura parentetikoaren buruan datozen lokailu hauen egitekoa ez du koordinaziozkoa denik uste:

lorsqu'ils apparaissent au début de la parenthétique, leur fonction n'est plus de coordonner, mais plutôt de marquer un décrochage entre celle-ci la partie de la phrase insérante qui la précède. (Baque Millet 1999: 28).

b) Lokailua E1 edo tartekatua izan den enuntziatuaren bigarren zatiaren buruan agertzen denean, bere funtzioa ez da hainbeste aurretik datorren enuntziatu parentetikoarekiko lotura bermatzea; aitzitik, E1en bi atalak, enuntziatu parentetikoak hautsitako bi atalak, jostea litzateke.

- Hori sortzeko batu dira, ezkontzaz ala sasi-ezkontzaz ez dakigu, Italiako edertasuna —Gina Lollobrigida deritza— **eta** Ipar Ameriketako trebetasuna, Robert Z. Leonard izenekoa, agi danean. (ZIN: 157).

Goiko adibide honetan ikus daitekeenez, enuntziatu parentetikoak IS bitan hausten du, eta *eta* lokailuak, azken batean, IS hori berregin edo berreskuratu besterik ez du egiten. Ez du, bada, enuntziatu parentetikoarekin loturarik gauzatzen. Beste horrenbeste gertatzen da ondorengo adibidean ere:

- Hilbizunetan izaten dira zenbait txolarte alai —adiskide artean, hildakoaz ahazturik, egiten diren berriketak eta— **eta** Sacha Guitry zena ere, goian bego, saiatu da aldiz-aldiz ikuslearen zama arintzen. (ZIN: 178).

Enuntziatu parentetikoaren ondotik datorren *eta* lokailuak ez du parentetikoarekin koordinaziozko loturarik bideratuko. Paratu dugun adibidean, gainera, hori nabarmena da,

bestela bi *eta* geratuko lirateke alboz albo. Nolerebait oinarrizko enuntziatuaren hariari berriz eusteko balio du, enuntziatu parentetikoak oinarrizko enuntziatu hori (E1) bitan banatu baitu.

L'étude de la structure [E1-E3] montre sans aucun doute que E3 constitue la continuation syntaxique et discursive de E1. L'enchaînement se fait très souvent sans marques distinctives, [E1-E3] formant un énoncé grammatical et achevé. Mais nous avons pu relever deux faits qui traduisent, à nos yeux, le processus de "raccrochage" qui s'effectue après E2: la reprise en E3 de constituants de E1 et la présence de marqueurs tels que *alors*, *donc*, et *et* surtout *mais*. Nous considérons *et* et *mais* comme des marqueurs de "raccrochage" spécifiques de la structure [E1-E2-E3]. Ils ne s'expliquent que par la présence de E2 et peuvent être considérés comme des indices du fait que si E2 se situe à un autre niveau énonciatif, il n'en est pas moins nécessaire à la progression discursive et argumentative. (Delomier & Morel 1986: 153).

Honenbestez, E2-ren bigarren atalaren buruan edo Delomier-en eskemari jarraituz E3ren buruan agertzen den lokailuak E1ekin du lotura edo jarraipena; hau da, E1-ek hasitako hariari eusten dio berriz ere. Berreskuratze-lana ez du *eta* lokailuak soilik bideratzen; *baina* lokailuak ere egiten du:

- Ez du ikusiko, beharbada, bi liburu hauen launa sailen taxua zernola sortu den (lorategirik gehienak bestela bereziak agertu ohi dira, abezez ala mendeka), **baina** horrek ez du axola handirik horiek irakurtzen har dezakeen atseginerako. (LIB II: 144).

Gure corpusean, ordea, era honetako adibideak oso bakanak dira, idatzizko corpus baten aurrean baikaude eta ahozkoak ez bezala, idatzia bera da hari nagusiari eusteko nahikoa euskarri. Ahozkoan, berriz, zenbaitetan (parentetikoa oso luzea denean bereziki), haria ez galtzeko edo parentetikoaren aurretik esandakoa berreskuratzeko, lokailuetara edo errepikapenetara jotzea ohikoa da (Delomier- Morel 1986, Laurin 1989, Zay 1995 ).

- Bada, ordea, Barojazaleek maite duten **zerbait**, gogoetak, hitzak eta esaerak baino barrenago datzan **zerbait** (lurrin arina bezain iheskorra, egia), **eta zerbait hori**, dena den, ez da beti ageri itzulpenean (LIB I: 119).

Honenbestez, badirudi, eta corpusaren analisi enpirikoan hobeto ikusteko parada izango dugu, enuntziatu parentetikoaren ezaugarri behinena E1 eta enuntziatu parentetikoaren

arteko lotura eza litzateke eta, honenbestez, kanpo edo bazter izaera sintaktikoa da lehenetsua izango duen ezaugarria; hots, perpausaren egitura sintaktikotik at, kanpo, bazterrean kokatzea.

Baina aipaturiko irizpide formal hauek beren bakarrean aski ote dira gure aztergaitzat jo ditugun enuntziatu parentetikoak mugatzeko? Ez ote da garrantzitsua perpaus mailako lotura sintaktikorik ez badute ere, E1 eta E2 enuntziatuen artean kohesio sintaktiko-semantikorik ba ote dagoen aztertzea? Hau da, euren arteko sare anaforiko-kataforikoak ere aztertzea? Horiek aztertu ostean esango baitugu E2 kendu arren ere formalki E1 ongi eratuta gelditzen ote den edo ez<sup>114</sup>.

Laurinentzat ez da aski ezaugarri horiek soilik kontuan izatea aztergaia mugatzeko (1989). Autore honek enuntziatu parentetikoak mugatzeko irizpide bakartzat distribuzioari edo PI (edo nahi bada E1) enuntziatuan hartzen duten lekuari dagokiona jotzen du.

#### 3.4.1.5. Enuntziatu parentetikoaren kokatze-puntua (distribuzioa)

*Parentetiko*, *intziso* nahiz *intzidentalak* ezaugarritzean, autore gehienek aztergai izaten dute hauen kokatze-puntua; hots, tartekatuak izan diren enuntziatuan (E1) zein duten ohiko lekua, eta arau edo gomendiorik eman ote daitekeen toki jakin batean kokatu edo ez jakiteko.

Hainbat autorek aipatu edo azpimarratu izan du enuntziatu parentetikoek ez dutela leku finkorik oinarritzeko enuntziatuaren barruan.

Syntactically, this class is characterized by the lack of a specified position in the sentence. The parenthetical may occur in several locations in the sentence; some may occur in initial, medial or final position and they seem to be barred from such positions only where their occurrence would break an otherwise inseparable sequence. (Ziv 1985: 182).

Muga bakarra, bada, hizkuntza jakin horretan bereizezinak diren sekuentziak izango dira, horiek ezin baititu hautsi. Esate baterako:

- a- As far as I know, Bill sent her a lot of money
- b- Bill sent her a lot of money, as far as I know
- c- Bill, as far as I know, sent her a lot of money
- d- \* Bill sent, as far as I know, her a lot of money.

<sup>114</sup> Eginkizun horiek guztiak enuntziatu parentetikoaren analisi sintaktiko-testualerako utziko ditugu.

Azkenengo adibidea ez du zuzentzat ematen; azken batean, ingelesez hautsi ezina den sekuentzia bat hausten duelako.

Beste hainbat autorek (Laurin 1989, Blanche-Benveniste 1990, Baque Millet, 1995-1996) berriz, enuntziatu parentetikoek aztergai duten hizkuntza jakinean zein toki hartzen duten aztertu eta sailkatu dituzte. Sailkapenak, oro har, autoreen, hizkuntza jakinaren, aztergai izan duten corpusaren nahiz egitura-mota hau ezaugarritzeko erabili dituzten mugatze-irizpideen arabera izango dira.

Halaz ere, distribuzioaren aldetik autoreek egindako ohar nagusiak aldatu aurretik, komenigarri iruditu zaigu Dessaintesen ñabardura bat txertatzea. Dessaintesen ustez —eta bat gatoz harekin—, bada parentetikorik toki finkoa duenik: bereziki ideia bat edo termino adigai bat zehaztu, ñabartu edo adibidetzea helburu duten enuntziatu parentetikoak. Baina gehienek ez dute holako toki finkorik; parentetiko gehienek kokatze-puntua esatariaren beraren arabera da. Esatariak, enuntziatu parentetikoak, diskurtsoa berak nahi duen bidetik eramateko garrantzizkoa eta komunikagarritasunari begira estrategikoa gertatzen zaion tokian tartekatzen ditu; bere intentzio-xedeak erdiesteko egoki gertatzen zaion tokian.

Sans doute exit-t-il des incidentes qui ne peuvent avoir qu'une place fixe: celles qui ont trait à l'explication d'un terme que l'on vient d'exprimer, terme qui entraîne une mise au point écartant toute hésitation éventuelle dans l'esprit de l'interlocuteur. Mais, la plupart du temps, l'interruption s'effectue au moment où le locuteur, conscient de l'importance de ce qui va suivre, introduit une appréciation personnelle susceptible d'attirer l'attention de l'interlocuteur. (Dessaintes 1960: 62).

Dessaintes alde batera utzita, Laurin-ek (1989) enuntziatu parentetikoei buruz egindako lana aski esanguratsua iruditu zaigu; autore honek, izan ere, enuntziatu parentetikoak ezaugarritzeko distribuziozko hiru arauok erabiltzea askitzat jo baitu:

1) Parentetikoa aditzaren eta subjektuaren artean nahiz aditza eta bere osagaien artean (dela osagarri zuzena, dela zirkunstantzialak) tartekatzen den enuntziatua da; baita izena eta bere izenlagunaren (erlatibozkoa ere izan daiteke) artean tartekatzen dena ere.

2) Parentetikoa, perpaus nagusiaren eta mendekoaren artean tartekaturiko enuntziatua izan daiteke, baita koordinazio nahiz alborakuntza bidezko perpaus nagusien artean kokatzen dena ere:

- Perpaus Nagusia [\*] mendekoa (kausazkoa, denborazkoa, moduzkoa, etab.)
- Perpaus Nagusia [\*] (*eta, baina, edo...*) Perpaus nagusia. Baque Millet (1995-1996: 6) ere bat dator arau honekin: “L’apparition de parenthétiques est attestée dans notre corpus à la frontière de: a) deux propositions”.
- Perpaus Nagusia [\*] Perpaus nagusia

3) Parentetikoa, E1 enuntziatua hautsiaz, baina parentetikoaren ondoren E1 berriz berreskuratuz tarteka liteke.

Distribuzioaren irizpide hau aplikatzean arazoak sor dakizkiguke; izan ere, goian aipaturiko baldintzen arabera, aipaturiko distribuzioa alda daiteke. Esaterako, zenbaitek E1 enuntziatuaren hasieran kokatzen direnak ere barne hartzen dituzte (Alarcos 1994, Grevisse, 1986). Eta ez hori bakarrik. Tartean edo amaieran kokatzen direnen artean ere desberdintasunak daude.

Baque Millet (1995-1996) eta Blanche-Benveniste (1990) bat datoz Laurin-ek (1989) proposatzen duen lehenengo arau nagusiarekin. Blanche-Benvenistek kokatze-puntuen sailkapena askoz xeheago emango du frantsesari eta frantseseko egiturei zuzenago egokitzen zaizkionak ere tartekatuz.

Oro har, ordea, goian (Laurin-ek eta Baque Millet-ek) aipaturiko arau orokor horiek errespetatzen ditu Blanche-Benvenistek emandako enuntziatu parentetikoaren kokapen-puntuaren sailkapenak.

Sailkapen hauek mahai gaineratzean, gure helburua ez da tartekatze-puntuaren inbentarioak azalratzea; gure helburua ez da beste hizkuntzetako sailkapen xeheenen eta egokien berri ematea. Tartekatze-puntuaren edo distribuzioaren azterketa enpirikoan aztergai dugun autoreak duen joera sistematizatzen saiatuko gara (eta badakigu, aldezturik, hizkuntzak eta autorearen estiloak berak baldintza dezakeela puntu hau), euskarazko testu egoki eta komunikagarriak sortzeko lagungarri gerta dakigulakoan.

Baina une honetan, analisi enpirikotik aparte gauden une honetan, honako hausnarketa-hariari eutsi nahi genioke:

Enuntziatu parentetikoek mintzo garenean, tartean doazen enuntziatuak soilik hartu behar ote ditugu aintzat? Edota, hasieran eta bukaeran datozenak ere bai? Ba ote dago ageriko irizpiderik zehazteko hasierako eta bukaerako zein enuntziatu diren parentetiko?



Galdera hau aztertzaile batek baino gehiagok egin izan du (Ziv 1985, Baque Millet 1999, Grevisse 1986) enuntziatu parentetikoak aztertzerakoan.

Selon la définition donnée ci-dessus, l'élément incident se trouve à l'intérieur de la phrase. Mais il est possible d'y assimiler des mots ou des groupes de mots situés au début ou à la fin de la phrase. (Grevisse 1986: 610).

Edota, argiago:

Il s'agit en premier lieu de déterminer si ces segments sont susceptibles d'apparaître, non seulement dans une position médiane, ce qui est accepté par tous les auteurs, mais aussi dans une position finale, position elle même largement reconnue, ou dans une position initiale, position quant à elle beaucoup plus controversée. (Baque Millet 1999: 26).

Posizio jakin batean agertzen den parentetikoa azterketa-eremutik saihesteko autoreek eman izan dituzten arrazoiak ez dira beti argi eta garbi azaltzen, baina laburbilduz, badirudi ondorengo hiru pentsamolderen arabera direla:

1) Parentetikoak ez dira, oro har, enuntziatuan hartzen duten posizioaren arabera definituak izaten: askotan "sintaxi aldetiko kanpo izaerari" erreparatzen zaio; hots, gure terminologiaz birformulatuz: perpausaren egitura sintaktikotik edo *dictum*-etik at egotearen irizpideari lehentasuna eman ohi zaio. Ikuspegi honetatik egindako hurbilbideek, bada, egitura parentetikoak zein-nahi posiziotan agertzea zilegi egiten dute. Ikuspegi hau erabiliz egindako azterketak parentetikoa, nagusiki, zein posiziotan agertzen den aztertzea mugatzen dira, hasieratik bertatik tartekatze-puntuak saihestu gabe.

2) Parentetikoak enuntziatuaren garapen sintaktiko egokia hausten duten egituratzat jotzen dituzten ikusmoldeen arabera, parentetikoa ager daitezkeen posizio edo leku bakarra tartekoa izango da.

3) Psikologiaren teoria batetik egindako hurbilbidetik, parentetikoak, enuntziatua ekoizten ari den momentuan bigarren mailako ideia bat tartekatzen dutenak lirateke. Ikuspegi honen arabera ager daitezkeen lekuak, tartekoak eta amaierakoak izango dira, enuntziatua igortzen hasi ondorengoak.

Badirudi, bada, posizioari edo E1 enuntziatuan hartzen duen lekuari dagokion irizpide formal hau bera bakarrik mugatze-irizpidetzat hartzea ez dela aski parentetikoaren fenomeno mugatzeko. Are gehiago, litekeena da aipaturiko irizpide sintaktiko guztiak kontuan hartuta ere parentetikoaren mugak erabat ez argitzea. Argi gehiagoren bila ikuspegi sintaktikotik (semantikaren laguntzarekin batera) egindako hurbilbideak ez ezik diskurtso mailako hurbilbidetik egindakoei erreparatuko diegu.

### 3.4.2. Diskurtso mailako hurbilbideak

Egia da diskurtsoaren analisia egiten dihardutenen artean, enuntziatu parentetikoei lerro edo orri batzuk eskaini dizkieten lanak ugariak direla baina, egia ere da diskurtso-ikuspegia azterbidetzat hartu duten enuntziatu parentetikoei buruzko lanak ez direla ugariak. Guk atal honetan, bereziki, enuntziatu parentetikoaren alorra diskurtsoaren ikuspegitik berariaz aztertu dituzten haiek soilik izango ditugu hizpide.

Nahiz eta batzuen eta besteen artean metodologiari dagokionez desberdintasunak egon, guztiak bat datoz onartzean parentetikoa oinarri-oinarrian perpausaren egitura sintaktikotik at, kanpo edo bazter posizioan dagoen egitura dela; nolabait, diskurtsoaren antolamenduan eta garapenean eragiten dutela, eta ez hainbeste perpausaren barnean.

Eta, beraz, aztertu ditugun lanetatik guztietatik (Dessaintes 1960, Nemmi 1973, Ziv 1985, Laurin 1989, Blanche-Benveniste 1991, Baque Millet 1995-96, 1997, 1999, Sitri 1995, Zay & Capany 1995, eta abar) atera dezakegun lehendabiziko ondorio nagusia honako hau da: hainbat estilo liburu eta hiztegiak definizioei aurre eginaz, parentetikoak ez dira garrantzirik gabeko egiturak, kendu arren diskurtsoan eragiten ez dutenak; aitzitik, enuntziatu edo egitura mota honek diskurtsoaren antolamenduan eta garapenean garrantzi handia du: “ces segments sont loin d’être anodins dans la construction du discours, construction à laquelle elles participent activement” (Baque Millet 1999: 29); hain da horrela, Laurin-ek (1989), esaterako, egitura mota hau diskurtso-estrategiatzat jotzen du.

Azken honen lana da (Laurin 1989), gainera, gure uste apalean, enuntziatu parentetikoek diskurtsoan duten rola edo eginkizuna hobekien eta zehatzen aztertzen duena, gainerakoek ataltxo bat eskaintzen baitiote diskurtsoaren azterketari. Beraz, lan horretan oin hartuz gainerakoek ekarriekin osatuko dugu atal hau.

Hasiera emateko, ordea, hel diezaiozun abiapuntu gisa Dessaintes-en lanari (1960). Ez bere analisia bete-betean diskurtso mailakoa delako, baina bai egitura honen diskurtso mailako eginkizuna aztertzeko ikuspuntu eta datu garrantzitsuak eskaintzen dizkigulako; eta, beraz, diskurtsoaren analisirako jauzi horretan bitarteko lan garrantzitsua gertatzen zaigu jarraian ikusiko dugun Nemmiren lanarekin (1973) batera. Azterkizun izango ditugun bi lan horietatik, bada, gure aztergairako —hots, enuntziatu parentetikoek duten diskurtso-eginkizunaren analisirako— interesgarri zaizkigun alderdiak berreskuratuko ditugu, jarraian bete-betean eginkizun horretara mugatutako lanei heltzeko.

### 3.4.2.1. MAURICE DESSAINTE (1960)

Intziso, parentetiko edo intzidentalei buruz aurkitutako lehen lan garrantzitsua, Nemmirena baino lehenagokoa, Dessaintesen *La construction par insertion incidente (étude grammaticale et stylistique)* deritzon lan mardula da. Mardula da, ez orri kopuruaren aldetik soilik, baita bertan gure azterbide metodologikoarentzat oinarri sendorik aurkitu uste dugulako ere.

Autore honek bere lanean ez du *parentetiko* deizioa erabiltzen “intzidentezko tartekatzea” baizik, nahiz eta berariaz aztertu dituen egitura bat baino gehiago guk parentetikoaren barnean aztertuko dugun. Honako hau da bere lanaren abiapuntu nagusi izango den intziso edo intzidentezko tartekatzearen definizioa:

Nous appellerons insertion incidente l’insertion d’un mot ou d’un groupe de mots au sein d’une proposition ou d’une phrase dont il disjoint les termes, interrompant ainsi la ligne syntaxique et la ligne mélodique de cette proposition ou de cette phrase. Sur le plan de la pensée, l’insertion incidente n’ajoute rien d’essentiel à l’énoncé sous un angle subjectif particulier. (Dessaintes 1960: 19).

Horixe da, bada, bere lanaren abiapuntu nagusi izango den intziso edo “intzidentezko tartekatzearen” definizioa. Eta definizioan bertan adierazten zaigunez, ez dute pentsamendu maila batean ezer berririk txertatzen; proposiziozko edukitik at daude, esango genuke guk:

Sur le plan de la pensée, l’insertion des éléments soulignés ne change en rien le contenu de l’énoncé; ces derniers sont en quelque sorte “extérieurs” à ce contenu. En réalité, ils présentent ce contenu sous un jour particulier, sous un éclairage subjectif: nous

constatons une intervention de celui qui parle ou écrit à propos de ce c'il énonce. (Dessaintes 1960: 13).

Beraz, egitura hauek ez dute *dictum*-ean edo perpausaren proposiziozko edukian parte hartzen (*extérieurs à ce contenu*), modalitate mailan baizik; hots, esatariak esan duenari buruz duen iritzi subjektiboan. Eta ezaugarri horrek batetik, eta, jarraian ikusiko dugun hasierako testu-plangintzan ez dagoelako ezaugarriak bestetik, garamatza pentsatzera autore honek ere diskurtso-mailako ezaugarritzean urratsen bat gehiago egin duela.

Mais il arrive fréquemment qu'en cours de route, le sujet parlant ou écrivant s'avise d'intercaler dans l'énoncé des éléments non prévus au départ, non prévus dans le "moule" initial. (Dessaintes 1960: 26-27).

Zerk eragiten du hasierako testu-plangintzan ez zegoen informazioen bat diskurtsoan tartekatzea? Nola jakin, ordea, esatariak bere barnean zer zerabilen? Nola jakin zer zen esatariaren hasierako testu-plangintzan zegoena eta zer ez? Zilegi izan ote daiteke enuntziatu parentetikoak bezalako gertakari bat aztertzeko esatariaren barne psikologian oinarritzea?

Zentzu horretan bertan ikusten du Nemmik ere Dessaintesen teoria hanka motz. Guk ez dakigu testuaren hasierako plangintzan zer zerabilen esatariak, baina bai une jakin batean sortzen ari zen testu hori hautsi egiten duela; ez dela idazten ari zen perpausa amaitu arte zain egoten tartekatu nahi duen ideia edo ñabardura hori azaltzeko. Badirudi gogoratu zaion unean bertan tartekatzeak berebiziko garrantzia duela eta, beraz, une jakin horretan bertan azaldu behar duela. Zehatz-mehatz ezin jakin dezakegu hasierako testu-plangintzan zegoen ala ez; baina bai, testuaren hasierako plangintzan egon balego ere, ez balego bezala tartekatzen duela; hots, ez dagoelako sentrazioa txertatu nahi diola testuari. Halaber, sortzen ari zen perpausaren egitura sintaktikoa hautsi eta tartekatzeak informazio horri bat-batekotasuna —imitatua bada ere— txertatzen dio eta, beraz, elaborazio handiko egitura sintaktikoaren aurrean gaudela pentsa dezakegu. Eta zentzu horretan ulertzen dugu guk ere testuaren hasierako testu-plangintzan ez zegoelako ideia.

Hasierako testu-plangintzan ez zegoen informazio hori, ordea, zergatik eta zertarako tartekatzen du? Hau da, zein izan daiteke Dessaintes-entzat intziso edo parentetikoaren izaeraren arrazoa eta zein komunikazioan betetzen duen funtzioa?

Dessaintes berak (1960: 26) esan zuen enuntziatu oro komunikazio-ekintzan bete-betean parte hartzen duten bi “polo” nagusitik bereiz ezina dela; hau da, esatari-solaskidearen eraginetik. Beraz, pentsa dezakegu aztertzaile honek intzisoa komunikazio ekintzan parte hartzen duten osagaiak kontuan hartuz aztertzen duela. Hain da horrela, intzisoaren azpisailak komunikazioko hiru osagai nagusi abiapuntutzat eta ardatz hartuz osatzen ditu: esataria, norentzakoa (berak “interlocuteur”, solaskidea edo hartzailea darabil) eta enuntziatua.

Si nous prenons les trois éléments principaux de tout acte de communication (locuteur, énoncé, interlocuteur)<sup>115</sup>, nous aurons trois sortes d’insertions, celles qui ont trait au locuteur, à l’énoncé, à l’interlocuteur (et, bien souvent, dans les incidentes plus complexes à deux ou trois éléments à la fois). (Dessaintes 1960: 26).

Hiru ardatzok aintzat hartuz, Dessaintesek hiru intziso edo intzidentezko tartekatze mota bereizten ditu:

a) Intzidentezko tartekatze logikoa edo objektiboa: hauek enuntziatuko termino-adigairen bat azaldu, argitu, zehaztu... egiten dute:

Ce sont des insertions que l’on pourrait appeler logiques ou objectives, parce qu’elles ajoutent l’un ou l’autre détail objectif, concernant le contenu de réalité exprimé par la phrase. (Dessaintes 1960: 26).

Tartekatze-mota honen egitekoa ikusirik, enuntziatuan baino areago, enuntziazio-mailan eragiten dutela esango genuke guk, hain zuzen ideiak birformulatzeko moduan.

b) intzidentezko tartekatze dialektikoa (*dialectiques ou oratoires*): hauek komunikazioaren edukiari ez diote ezertxo ere eransten; hauei esker, esatariak norentzakoarekin duen lotura estutu eta agerian jartzen du.

---

<sup>115</sup> Guk ere parentetikoaren sailkapena hiru ardatzetan bildu dugu, komunikazio-egituran parte hartzen duten hiru osagai ardatz hartuz bildu ere. Baina gure ustez hiru ardatzok esataria (eta bere intentzio-asmoak), norentzakoa (eta honekin duen interakziozko harremana) eta testuingurua (edo esatari-norentzakoek batean duten informazio pragmatikoa) dira. Eta enuntziatuaren ordez, enuntziatuan bertan parte hartzen duten *dictum* maila (proposiziozko edukia edo mikroegitura), *modus maila* (esatariak esan duenari buruz duen iritzi subjektiboa) eta *enuntziatio-maila* (enuntziatuaren formulazioa) bereizi ditugu, eta baita *argudio*-eta *informazio-egitura* ere. Horiek guztiek makroegitura osatzen dute.

Le locuteur peut interrompre l'énoncé pour s'adresser à l'interlocuteur, l'interpeller, attirer son attention, prévoit ses objections ou ses mouvements d'humeur. Ce sont des insertions que l'on pourrait appeler dialectiques ou oratoires: elles n'ajoutent rien d'objectif au contenu de la communication, mais elles conviennent l'interlocuteur à s'y associer plus intimement. (Dessaintes 1960: 27).

Guk “komunikazioari ezer eransten ez diola” esatea baino egokiagozat jotzen dugu proposiziozko edukiari (edo *dictum*-ari) eragiten ez diola esatea; komunikazioari, oro har, zerbait garrantzitsua eransten baitio, komunikazioaren garapen egokia bermatzeko norentzakoari egiten dizkion keinu eta oharrak diren heinean. Eta komunikazioaren garapen egokia bermatzeak berarekin dakar, besteak beste, esatariaren intentzio-asmoez norentzako jabetzea eta, honenbestez, pentsatzekoa da esatari-norentzakoaren arteko interakzio-harremana bideratzeak garrantzi handia duela.

Intziso mota honen egitekoa Dessaintes-ek ondorengo puntuotan ikusten du:

- Norentzakoari zuzendu (*s'adresser à l'interlocuteur*)
- Deitu (*interpeller*)
- Norentzakoaren arreta bereganatu: (*attirer son attention*)
- Objekzioak nahiz umore-printzak aurreikusi (*prévoit ses objections ou ses mouvements d'humeur*)

c) Intzidentezko tartekatze modalak edo subjektibozkoak:

Le locuteur peut enfin interrompre son énoncé pour exprimer ses propres réactions à propos de ce qu'il énonce. Exprimant son état d'âme, il éclaire la réalité qu'il communique d'une lumière personnelle. Ces insertions peuvent être appelées modales ou subjectives: elle révèlent la manière (modus) dont le sujet parlant ou écrivant est affecté par ce qu'il exprime. (Dessaintes 1960: 28).

Behin azpisailak zehaztuak dituela, intzidentezko tartekatzea ezaugarritzen duten mugatze-irizpideak zedarritu nahi ditu. Mugatze-irizpide horiek banan-banan honako hauek dira:

a) Irizpide gramatikala: intzidentezko tartekatzearen eta tartekatua izan den enuntziatuaren artean lotura gramatikalik eza aitortzen dio. Ezaugarri hau da guk ere

parentetikoak intzisotik bereizteko erabili duguna. Argi ikusten da, bada, parentetiko, intziso eta intzidentala gertakarien artean anabasa handia dagoela.

Dessaintesek esaten digu ezaugarri hau nahikoa izango litzatekeela gertakari hau bereizteko, baina inoiz gramatikazko lotura ere ager omen daiteke eta, beraz, ezaugarri hau ere bere bakarrean ez da askitzat jotzen gisa honetako gertakariaren aurrean gaudela erabakitzeko.

L'absence de lien grammatical entre l'i. i. [insertion incidente] et l'insérante suffit pour déceler la présence d'une insertion incidente; l'impossibilité de rattacher syntaxiquement l'une à l'autre est, en effet, une preuve suffisante que nous avons affaire à un "corps étranger" introduit incidemment au sein de la proposition. Mais la présence d'un lien grammatical ne doit pas nécessairement exclure la présence d'une insertion incidente. (Dessaintes 1960: 29).

b) Kanpoko irizpidea (puntuazioa nahiz entonazio aldaketa):

Hau ere beharrezkoa da, baina ez da nahikoa gertakaria identifikatzeko. Zergatik? gerta baitaiteke perpausaren barrenean dauden osagaiak ere puntuazio demarkazioz bereizirik agertzea. Hau da, ager daitezke perpauseko aditzaren indar-eremuan edo eraginpean dauden osagaiak, entonazio edo puntuazio-demarkazioaren bitartez intziso edo intzidentalak bailiran, baina egiazki perpausaren egitura sintaktikoan bertan egon.

c) Irizpide semantiko edo psikologikoa.

Hau ere beharrezkotzat jotzen du, baina bere bakarrean ez da aski.

Honenbestez, Dessaintes ohartzen da mugatze-irizpideok garrantzizkoak direla, baina, oro har, ez direla aski erabakigarriak gertakaria zedarrizteko; ez behintzat beren bakarrean hartuta.

Irizpide hauek onartuz, bere lan-eremuan hainbat gertakari sartzen ditu: zenbait zirkunstantzial, izenondo epitetoa, aposizioan doazen elementuak, birformulazioak (*termes repris pour être rectifiés ou complétés*), hainbat aditzondo, etab.

Aztergaitzat jo dituen hainbat gertakarik zalantza sorrarazten digute, baldin eta "harreman sintaktikorik eza", nahiz "perpausaren egitura sintaktikotik at egotea" irizpidetzat jo baditu, nola onartu "aposizioak", aditzondoak eta izenondo epitetoak, esate baterako, gertakariaren azter-eremuan egotea? Hauek ez ote dute perpausaren egitura sintaktikoan parte hartzen? Ez ote dute tartekatua izan den perpausarekin lotura sintaktikorik?

Aztertzen dituen adibideei erreparatzean, ordea, berehala ohartzen gara “zirkunstanzialtzat” jo dituen adibideak, esate baterako, bete-betean egitura parentetiko direla; hots, zirkunstanzialak baino areago beste enuntziatu oso bat osatzen dutela, tartekatua izan den perpausetik bereizten den modalitate aldaketa eta guzti:

En quelques lignes aussi —et avec quelle désinvolture! — ils font le procès de la radiumthérapie qu’ils accusent de toutes les erreurs et ... (Dessaintes 1960: 35).

Beste hainbeste esan dezakegu aditzondoan artean biltzen dituen adibide batzuez: hauek ere aditzondo soil baino areago enuntziatu osoak dira; enuntziatu parentetikoak, alegia:

Pourquoi Melchior ouvrit-il alors (prudemment, il est vrai) sa porte sur la neige? (Dessaintes 1960: 36).

Honenbestez, gerta daiteke terminologiazko auzia besterik ez izatea.

Bestetik, autore honek intziso edo intzidentezko tartekatzeek dituzten ezaugarriak zehazten ditu:

**1. ezaugarria:** Gertakari honek tartekatua izan den perpausaren melodiazko joera hausten du. Melodia-haustura hau idatzian behintzat —eta gogoratu Dessaintes bereziki testu idatzietan oinarritzen dela— puntuazioaren bitartez demarkatuta agertzen omen dela diosku.

La place occupée par l’incidente est donc délimitée par la ponctuation: virgules, parenthèses, tirets, points de suspension. (Dessaintes 1960: 46).

Dessaintes ohartzen da, gainera, puntuazio ikur hauen artean graduazio bat badagoela, ikur hauek enmarkatzen dituzten hitzen esanahiez harago.

**2. ezaugarria:** gertakari hau bat-batekoa eta ustekabekoa (*fortuite*) da, eta gainera bere eskukoa; hots, tartekatua izan den perpausaetik independentea. Gerta daiteke, ordea, bien artean lotura sintaktiko ahul xamar bat egotea. Sarri gehigarriko proposizioaren baliokidea da eta gramatikaltasuna urratu gabe ken daiteke. (Dessaintes 1960: 52).



Dessaintes-ek, nahiz eta ez esan intzidentezko enuntziatuez diharduela, bai esaten du intzidental gehienak komunikazio-ekintza oso eta osatu baten forma duela; hau da, bere eskukoak diren proposizioen forma. (Dessaintes 1960: 52).

**3. ezaugarria:** pentsamenduaren plangintzari dagokionez, nahiz eta komunikazioaren edukiarentzat gehigarrikoa (*accessoire*) izan, intzidentezko tartekatzeak balio modala txertatzen du. (Dessaintes 1960: 56).

Dessaintes ere bat dator tradiziozko gramatikarekin komunikazioari ez diotela ezer garrantzikorik txertatzen (edota ez diotela ezer objektiborik txertatzen), eta enuntziatuaren argitasunean eragin gabe ken daitekeela baieztatzean (Dessaintes 1960: 57). Baina pentsamolde honek berez bezala dakar planteatzea egitura mota honek zer txertatzen dion testuari.

On peut le constater, la suppression de ces incidentes n'enlève rien d'essentiel au contenu de la phrase. Alors, qu'ajoutent-elles? (Dessaintes 1960: 57).

Beraz, pentsa dezakegu beren eragina komunikazioaren edukian baino areago modalizazio mailan gauzatzen dela, eta esatari-norentzakoaren arteko harremana estuago izaten laguntzen dutela.

Egitura mota honek, bada, esatari-norentzakoaren lortzak testuan bertan txertatzea zilegitzen du; hots, komunikazio-ekintza “humanizatzen” du: “L'incidente “humanise” en quelque sorte l'acte de communication.” (Dessaintes 1960 :57).

Nemmi ere (1973) bere tesiaren amaieran ondorio hori azpimarratzera iristen da:

Comme l's bien fait remarquer Dessaintes, l'incise se situe non sur un plan moins important que le reste de l'énoncé, constituant ainsi un élément accessoire de celui-ci, mais sur un plan différent, celui de la subjectivité, ou, si l'on préfère, elle constitue un point de rencontre entre l'émetteur, le message, et le récepteur. Il semble que l'incise, adoptant phonétiquement le ton de la confidence (débit rapide, faible intensité), crée un lien plus intime entre le locuteur et l'auditeur. Dans l'acte de communication, l'incise humanise le message. (Nemmi 1973: 387).

Nemmiren aipu horrek bide emango digu berak duen ikuspegia txertatzeko. Ez bere analisisa, goian aipatu dugun bezala, diskurtso mailakoa delako, baina bai bera ohartzen delako gisa honetako egitura sintaktikoak perpausaren egituratik at daudela, eta beraz,

diskurtsoaren analisirako jauzi horretan (Dessaintes-enarekin batera) bitarteko lana litzatekeelako.

### 3.4.2.2. E. M. NEMMI (1973)

Il s'agit donc dans un premier temps [...] de démontrer qu'il existe une fonction incise qui permet de rendre compte d'un certain nombre de faits qui sont insuffisamment définis dans les descriptions syntaxiques actuelles. Pour dégager cette fonction avec rigueur, il est indispensable, au départ, d'éliminer les éléments qui ne participent pas toujours de l'incise, soit les éléments qui peuvent fonctionner comme S [sujet], V [verbe] ou E [expansion].

On appellera donc incise (ou incidente) les syntagmes qui, sur le plan syntaxique, ne font pas partie des constituants internes de la phrase. Pour déterminer cette extériorité syntaxique, on utilisera des critères fonctionnels mis en évidence par des méthodes transformationnelles. (Nemmi 1973: 78).

Definizioak erakusten digunez, Nemmik intzisoa ez du diskurtso-mailakoa denik esaten, baina bai perpaus barneko osagaia ez dela. Honek, ordea, nahiz eta diskurtso-mailako egituratzat jo, diskurtso hurbilbidea hautatzeko ezintasunak dituela ohartuko gara (Nemmi 1973: 85). Beraz, bere ikusmoldea garrantzizkoa iruditu zaigu: batetik, Laurin-ek (1989: 14) esango digun bezala, bera delako muga-irizpide oso zehatzekin intzisoa definitzen jakin izan duen bakarretakoa, eta, bestetik, diskurtso-mailako hurbilbideei hasiera emango diolako.

La linguiste E. M. Nemmi (1973) est la seule, à notre connaissance, à avoir défini l'incise à partir de critères très précis. (Laurin 1989: 14).

Definizioa eman aurretik Nemmik intzisoa aztertzeke zein ikuspegi (sintaktikoa, semantikoa ala fonetikoa) lehentasuna eman hausnartu eta aztertuko du. Hausnartze honetan semantikoari eta fonetikoari lehentasuna ematea saihestu egingo du; honen ustez, analisi agortzailea egiteko ez baitira aski. Eta, beraz, ikuspegi sintaktikoa hobetsiko du, definizioan bertan ikusteko parada izan dugunez.

Beraz, Nemmik "sintaxi-estatusa" eman nahi dio intzisoari eta alde horretatik intzisoa sintaxi eta entonazio aldetik exhaustiboki aztertuko du bere tesian. Tesi honetan, gainera, lehenengo lau kapituluak intziso adigaiaren mugak argitzen saiatzen da, eman izan zaizkion definizioak bildu eta iruzkinduz. Autore honek bere tesian zehar beti intziso edo intzidental

adigaiak darabiltza, eta inoiz ere ez parentetikoa, nahiz eta aipatu aipatzen duen adigai hauek —parentetikoa barne— nahasian dabiltzala.

Aztergaira hurbiltzeko ikuspegia mugatu ondoren, aztergaia bera mugatzera pasatuko da. Eta aztergaia mugatzeak esan nahi du bere galbahetik pasatzen duela zein fenomeno edo egitura aztertu eta zein fenomeno ikerketatik kanporatu. Kanporatutako fenomenoak ez du beti esan nahi gaiari bete-betean ez dagozkionik, baina bai berak zehaztutako xede-helburutik harago daudela.

1) Fonetikaren ikuspuntutik<sup>116</sup>: dudak, hitz totalak, etab. bere aztergaitik at uzten ditu. (Nemmi 1973: 84).

2) sintaxiaren ikuspuntutik (Nemmi 1973: 84-85), bere ikerketa perpausera mugatzen du eta ez diskurtsora. Perpaus barneko mugetatik aurkitzen du heldulekua aztergaia ezaugarritzeko, nahiz eta intzisoaren definizioan bertan perpaus barneko osagaietatik at dagoela adierazten digun. Mugatze horrek berarekin dakar ondorengo gertakari edo fenomenoak bere aztergaitik saihestea ere:

a) Diskurtso mailako intzisoa alde batera uzten du. Aipua zuzenean aldatzea merezi duelakoan gaude, gure aztergaia bereziki berak kanpoan utzi dituen gertakizunetan oinarritzen baita:

Des conversations entières peuvent se situer *en marge de l'information de base*. En fait, il existe même des cas où l'information est quasiment nulle, la conversation semble alors *se situer quelque peu en marge de la vie*, sont seul but étant de *maintenir des contacts humains*. (Nemmi 1973: 85). (Letrakera etzana gurea da).

Aipua horren atzean ez ote daude interakzio-harremana bideratzen duten egiturak nahiz digresioak? Oinarrizko bidetik edo gaitik ateratzen den informazioa? Gogoratu digresioa hitzaren etimoak horixe bera esan nahi duela:

L'idée principale est donnée par l'étymologie de digredior. « Dis-gradior », ou *marcher hors*, par exemple du chemin que l'on s'est fixé. Cette idée du chemin ou de la voie droite se retrouve souvent dans les métaphores qui accompagnent la digression, en compagnie d'autres images comme celles de la ligne ou du fil, que l'on passe ou que l'on rompt. ( Bayard 1996:17).

---

<sup>116</sup>Gogoan izan aztergaiaren corpusa ahozkoari dagokiola, nahiz eta hain bat-batekoak ez diren (edo erdi ahozkotasanari gehiago dagozkion) ahozko testigantzak izan.

Tamalez, Nemmik ez du gertakariaren termino zehatzik eranstean ez eta gertakizuna adibidez josten ere. Baina berariaz aipatzen du informazio nagusitik esplizituki aldentzen diren ñabardura edo zertzeladak alde batera uzten dituela:

D'autre part, nous avons éliminé les segments de discours qui dépassent le cadre de la phrase. Certains individus s'écartent volontiers du sujet pour ajouter des détails supplémentaires, des réserves, etc. On connaît les "Et là j'ouvre une parenthèse..." ou "A cet propos, permettez-moi de rappeler..." Avec des marques aussi explicites, il semble difficile de nier l'existence d'une incise. **Nous avons toutefois éliminé ces faits de notre étude, d'abord parce qu'ils dépassent le cadre de la phrase, ensuite parce que la longueur et la complexité de ce type d'incise, tant au niveau syntaxique que prosodique, rendraient difficile l'application de ce modèle à d'autres énoncés.** (Nemmi 1973: 85). (Letrakera lodia gurea da).

Bakoitzak bere aztergaiari mugak *a priori* ezar diezazkiokenez gero, bakoitzaren esku dago zein gertakari aztertu eta zein ez. Baina tesi honetan indartzen saiatuko gara enuntziatu parentetikoaren egitekoa hain justu, gure ustez, diskurtsoaren esparru horretan kokatzen dela; hots, Nemmik kanpoan uzten dituen digresio nahiz interakzio harremana bideratzeko eginkizuna duten enuntziatuetan; oinarritzko informazio (edo *information de base*) horretatik at, hain zuzen.

b) Esaldi osoa osatzen duten intzisoak ere alde batera uzten ditu (Nemmi 1973: 86-87).

Muga honek atzean zein gertakari duen zehaztea ez da hain erraza. Izan ere, esaldi osoak bere aztergaitik saihesten baditu, nolaz azter dezake ondoren PI (edo *phrase incise*<sup>117</sup>) bezala bataiatu duen intziso mota? Agian kontua "esaldi"<sup>118</sup> eta "esaldi oso" adigaien artean legoke. Baina, gero, izenburu honen azpian jorratzen duen adibideak erakusten digu, esaldi

<sup>117</sup> "PI" propositions ou phrases interrompant une autre proposition ou phrase.

<sup>118</sup> Nemmik (1973: 69-70), halaz ere, honela definitzen du "esaldi" terminoa:

Nous partons de la notion de phrase utilisée par exemple par Chomsky, Harris et Dubois, à savoir que celle-ci s'identifie par la présence d'un sujet et d'un verbe (auquel on peut ajouter un complément direct dans les cas de verbes transitifs). On ne nie pas l'existence de phrases du type: "Qui" ou "Viens", mais on verra que ces considérations ne sont pas pertinentes dans le cadre de notre étude.

On pose également que la phrase peut se subdiviser en propositions. Les limites entre les phrases et les propositions sont subtiles puisque la proposition est constituée, elle aussi, d'un sujet, d'un verbe et d'un complément. La différence essentielle entre la proposition et la phrase réside en une distinction hiérarchique; plusieurs propositions peuvent former une seule phrase, mais l'inverse est impossible. De plus, la phrase est toujours indépendante, c'est-à-dire qu'elle n'implique pas la présence d'une autre phrase, alors que la proposition peut être subordonnée. Les marques de cette subordination sont diverses et elles comprennent aussi bien les faits d'intonation que les outils de subordination. Il existe donc deux types de propositions: les propositions indépendantes et les propositions subordonnées. (Nemmi 1973: 69-70).

osoaz baino areago, puntuazio edo entonazio-demarkazio bidez esplizituki adierazten ez den intzisoaz diharduela.

Ingeleseko bi esaldi erkatzen ditu:

-My friend —he lives in New York— is a stamp collector.He has a very fine set of Brittish airmails. (36)

- My friend is a stamp collector. He lives in New York. He has a very fine set of Brittish airmails.(37). (Nemmi, 1973: 87).

Honen inguruan Nemmik (1973: 87) esango digu (37) adibidean intzisoa dagoela esateko irizpide formala aurkitzen zail egiten zaiola, diskurtsoaren syntaxira lerratu gabe:

Il nous semble difficile toutefois, de trouver un critère formel pour dégager l'incise dans le cas de (37) par exemple, sans aborder le problème, encore insoluble, de la syntaxe du discours. Nous avons préféré limiter nos ambitions à un cadre plus modeste. (Nemmi, 1973: 87).

Gu ere bat gatoz (37) adibidea gure aztergaitik at uztean. Baina ez diskurtsozko irizpideen arabera aztertu behar delako, esplizituki puntuazio-demarkaziorik gabe dauden —egon baleude, behintzat— enuntziatu parentetikoak alde batera utziko ditugulako baizik. Autoreak berriaz, bere komunikazio intentzioren arabera parentetikotzat jo dituenak soilik aztertuko ditugu.

Bere corpus aztergaitik saihestuko duen hirugarren gertakaria erlatibozko perpaus ez-murrizgarriei dagokie; hots, E (expansion) funtzioan —subjektu nahiz aditzaren indar-eremuan, itzuliko genuke— parte hartzen duten sintagmak. Bera ohartzen da, ordea, gehienek intzisotzat jotzen dituen elementu hautek baztertzea, apika, askorentzat ez dela oso egokia:

Il peut sembler quelque peu arbitraire d'exclure de l'incise des éléments qui semblent admis par un grand nombre de linguistes. C'est le cas, par exemple, de la relativité non-restrictive. (Nemmi 1973: 87).

Horiek bere aztergaitik baztertzeko arrazoia, kanpo izaera sintaktikoari lotzen zaizkion irizpideak ez onartzea litzateke, eta hau onartuz gero, beste hainbat elementu ere onartu beharko lirateke intzisoaren barrenean.

Bere aztergaia mugatu ondoren, intzisoa bereizteko, Nemmik halako irizpide-zerrenda bat ematen digu, eta irizpide-zerrenda horiei esker, Nemmi gai da intzisoen barnean hiru azpisail nagusi bereizteko:

1) **EI intzisoak** (*élément incise*): Elementutzat jotzen ditu (eta ez enuntziatutzat) eta hauek, hainbat transformaziok erakusten digutenez, ez dute aditzaren eta subjektuaren indar-eremuan (expansion) parte hartzen. Horrela, “heureusement” bezalako aditzondoek —gure terminologiaren arabera modalizataileek— intzisoa osatzen dute. Hauek, izan ere, era honetako transformazioa jasaten dute: “Il a heureusement réussi”---- “Il est heureux qu’il ait réussi”. (Nemmi 1973: 117)<sup>119</sup>.

Nemmik *EI* intziso motaren barneak ondorengo saila bereizten du: aditzondoak (*les adverbies*), aditzondo lokuzioak (*les locutions adverbiales*), transformazioa onartzen duten koordinaziozko konjuntzioak (*les conjonctions de coordination qui acceptent la transformation*), eta baita diskurtsoko partikula batzuk ere, gure terminologian “lokailuak” deritzogunak (*certaines particules discursives telles que: enfin, puis, disons, etab*).

2) **PI intzisoak** (*phrases incises*): perpaus edo proposizioen bat hausten duen perpaus edo proposizioak dira.<sup>120</sup> Sail honetan, Nemmik era honetako adibideak aztertzen ditu: “Nous avons, je crois, très peu de temps” (Nemmi 1973: 117).

3) **RI intzisoak** (*appositions, reprises...*): “une fonction déjà remplie par un autre syntagme” (1973: 381). Aposizio edo berreskuratze hauek ko-erreferentzia egiten dioten sintagmak ordezkata ditzakete: “éléments qui peuvent se substituer aux syntagmes auxquels ils sont apposés sans nuire à la grammaticalité de la phrase” (1973: 118). Sail honetan Nemmik aposizioei, berreskuratzei nahiz errepikapenei egiten die erreferentzia.

*PI* intziso motaz ari garelarik, agian, garrantzizkoa da Nemmik egiten duen azterketa jakin bati erreparatzea: *PI* intzisoen artean, zenbatek du funtzio erreferentziala eta zenbatek konatiboa? Hots, *PI* hauek zertarako erabiltzen dira, informazioen bat gehitzeko ala mezua personalizatzeko? Hau lot dezakegu, gure ustez, parentetikoaren egitekoa *dictum* mailako informazioa ematea baino areago, informazioa nola ulertu behar dugun esatea nahiz modalizazio mailako zehaztapenak egitea delako ustearekin.

<sup>119</sup>Gisa honetako transformazioak, ikusiko dugunez, Oviédoko eskolakoek ere egiten dituzte “funtzio intzidentala” bereizteko.

<sup>120</sup>*Phrase* itzultzeko ez dugu enuntziatua erabili, perpaus baizik. Izan ere, bere lanean zenbaitetan enuntziatu hitza ibili arren, azpisaila egitean berariaz *phrase* darabil.

L'examen du tableau V montre que l'incise de type PI (phrase incise) à fonction conative s'utilise plus fréquemment que celle à fonction référentielle: 43 occurrences (54 % du texte global) contre 36 occurrences (46% du texte global). (Nemmi 1973: 154).

Horrez gain, Nemmi ohartzen da esatari guztien erabilerak aztertuz, konatiboaren erabilera ia erabatekoa idazleek egiten dutela.

Les écrivains préfèrent très nettement l'incise conative à l'incise référentielle (73.91 % comparé à 26.09%). (Nemmi 1973: 156).

Ñabardura hau, gure ustez, oso da kontuan hartzekoa, gure corpusaren emaitzei begira izan baitezake eraginik: pentsatzekoa da, izan ere, gure corpusa idatzizkoa —eta askotan modu literario batean idatzia, gainera— izatean, sintaxi aldetik ere ahozkoa baino gehiago landua dagoela, eta horrek parentetiko-moten sailkapena baldintza dezakeela. Nemmiren corpusa ahozkoa izanik —nahiz eta bat-batekoa ez izan— intziso mota jakin bat (konatiboa) idazleen jardunean besteenean baino gehiago agertzea nabarmena bada, ez ote da are nabarmenagoa izango idatzi literarioan? Analisi enpirikoa izango dugu erantzun-emaile.

Nemmi-ren teoria hainbat aztertzaileentzat erreferentzia puntu nagusi bihurtu da Laurin (1989), Wunderli (1987) eta hein batean baita Baque Millet-entzat ere (1999), besteak beste. Baina, normala denez, corpusaren izaerak ere baldintza ditzake ondorioak eta Nemmik bere azterketa grabatutako elkarrizketa edo konferentzietan oinarritu zuen, hots, elkarrizketa edo ahozko hizkera batean. Beste horrenbeste esan dezakegu Laurinek (1989) eta Baque Millet-ek (1999) erabilitako corpusaz ere. Azken hauek oraindik eta bat-batekoagoa den ahozko hizkeran oinarritu dute euren lana. Halaz ere, beheraxeago ikusiko dugunez, bada diferentziarik. Laurinek, esaterako, parentetikoez egindako aztergaia aditz jokatua daramaten enuntziatuetara mugatu du eta, beraz, analisi sintaktikoaren izaerari *a priori* beste ezaugarri bat erantsiko dio. Irizpide bera, hots aditz jokatua daramaten enuntziatura mugatzea, darabilte Zay-k (1995), nahiz Costek ere (1989), Blanche-Benvenistek (1990: 147) aipatuko digunez.

Beharrezkoa da esatea, gainera, aipaturiko lan horiek guztiek parentetikoan “kanpo edo bazter izaera” sintaktikoan oinarrituta daudela. Baina aipaturiko lanek, Nemmik ez bezala<sup>121</sup>, komunikazioan betetzen duten funtzioa ere erantsi egiten diote beren azterketari.

<sup>121</sup>Nemmik baditu, halaz ere, logikaren edo semantikaren laguntzaz egindako azterketa estatistikoak bere tesian.

Agian, horren balizko arrazoietako bat izan liteke azken hauek beren analisisa perpausaren eremu sintaktikotik harago kokatzea, diskurtsoan edo.

### 3.4.2.3. LAURIN (1989)

Egitura parentetikoak diskurtsoaren ikuspegitik aztertu dituztenen artetik norbait aipatzekotan bereziki Laurin Carole aipatu beharko genuke. Laurinek (1989) Montrealgo Unibertsitatean gai honen inguruko lan interesgarri bat aurkeztu zuen<sup>122</sup> eta, izenburuak berak aditzera ematen digunez, egitura parentetikoak haustura estrategiko gisa ditu azterkizun: *La parenthèse discursive, une rupture stratégique dans l'interaction verbale*.

Honenbestez, diskurtso mailako parentesia ez da hutsaren truk diskurtsoan edo testuan tartekatzen den egitura; ez da ezertarako balio ez duen egitura eta, beraz, kendu arren ezin esan, hainbat uste-iritziren aurka, testuak ezer galtzen ez duenik. Egitura mota hau, Laurinek hitz hauekin esango ez badigu ere, garrantzizko diskurtso-estrategia da, esatari-norentzakoaren interakziozko harremana bideratzeko gai den estrategia, hain zuzen.

Horixe da, gainera, hurbilbide diskurtsibo hau aintzat hartu duten ia guztien lanetatik azpimarratu nahiko genukeen ideia: autore hauentzat guztientzat enuntziatu parentetikoak diskurtsoaren osatze eta barne-antolamenduan zeresan handia dute, diskurtsoan bertan aktiboki hartzen baitute parte; hots, esatariak diskurtsoa norentzakoari egokitzeke egiten duen ahalegin horretan testuaren barrenetik bertatik hartzen du parte.

Laurinen lana ikuspegi soziologiko batean kokatzen da: lan honen helburu nagusia parentetikoaren erabilera maila sozioprofesional desberdinetako hiztunen arabera aztertzea da. Horretarako, bere lana ahozko ekoizpenetan oinarrituko du eta bertan garbi erakutsiko diskurtso-genero honetan parentetikoaren maiztasuna zenbaterainokoa den. Gauza bera egin zuen Nemmik (1973) eta geroago Blanche-Benvenistek (1991).

Corpuseko parentetiko guztiak atera ostean, hitzezko interakzio batean izan dezaketen funtzioa aztertuko du. Eta horretarako ezinbestean enuntziatu parentetikoaren izaera eta hauek agertzen direneko testuingurua aztertu behar.

<sup>122</sup>Lana argitaratzeko egon arren, Montrealgo Unibertsitateko liburutegiak erraztasun guztiak eskaini zizkigun lana geureganatzeko; eta ez lan hau bakarrik, baita mikrofitxa formatuan zegoen Nemmiren tesi-lana eta beste hainbat argitaratu gabeko lan ere, nahiz eta tesi honetan aipatu gabe gelditu, gure aztergaiaren aurrera egiteko lagungarri gertatu zaizkigunak. Beraz, biziki eskertu nahi dugu emandako laguntza.



Enuntziatu parentetikoaren izaera aztertzeko, ordea, lehen-lehenik, Laurinek ere ezinbestean bere aztergaiari mugak jarri behar zizkion, baina mugak ezarri aurretik, hots, irizpide mugatzaileak (edo *critères de délimitation*) ezarri aurretik, honako aurrepremisak hauek planteatzen ditu:

1)- Oro har, Nemmik bezala, irizpide sintaktikoak hobesten ditu.

Pour nous, comme pour elle [Nemmi], il était indispensable de cerner des critères précis et systématiques, et ces critères ne pouvaient être que syntaxiques. (Laurin 1989: 16).

2)- Aditza daramaten enuntziatuak bakarrik izango ditu aztergai.

Cependant ses deux autres sous-classes ne nous concernent pas pour la simple et bonne raison que nous avons choisi de ne retenir que les énoncés avec verbe. (Laurin 1989: 16).

3) Eta autore honek hausturak aztertzen dituenek gero, ezinbestekotzat jotzen du enuntziatu parentetikoaren eta oinarritzko enuntziatuaren artean lotura sintaktikorik ez egotea:

Aussi, si nous croyons que l'absence de lien avec l'insérante est indispensable pour autant tous les éléments "étrangers", extérieurs à la phrase. (Laurin 1989: 17).

Behin premisa horiek zehaztu ostean, irizpide mugatzaileak zerk osatuko dituen azaltzera pasako da.

Mugatze-irizpideak: distribuzioan edo tartekatze-puntuan oinarritutako hiru irizpide hautatzen ditu eta hauen lagungarri kontuan izan beharreko hizkuntza-ezaugarriak gehitzen. Hizkuntza-ezaugarri hauek ez ditu berariaz irizpide mugatzailetzat jotzen, baina egitura parentetikoaren aurrean gaudela salatzen lagungarri gertatu ohi zaizkigula esango digu.

Honatx, mugatze-irizpideak:

1) Enuntziatu parentetikoaren subjektu eta aditzaren artean tartekatutako enuntziatu bat edo batzuk dira, nahiz aditza eta bere osagaiaren baten artean, nahiz izena eta erlatiboaren artean. (Laurin 1989: 18).

2) Enuntziatu parentetikoa perpaus nagusi eta bere mendekoaren artean, edo bi perpaus koordinaturen edo justaposizioan dauden bi perpausen artean kokatzen den enuntziatua da. (Laurin 1989: 19).

3) Enuntziatu parentetikoa hari nagusia hausten duen egitura bezala ezagutzen da, nahiz eta gero hari nagusiari berriz heltzen dion. (Laurin 1989: 21).

Hizkuntza-ezaugarriak:

Azken hauek enuntziatu parentetikoa identifikatzen laguntzen duten hizkuntza-seinaleak dira: subjektu aldaketa, aditz aldiaren aldaketa, aditz-mota aldatzea, etab.

A ces critères de délimitation s'ajoutent des critères de caractérisation linguistique. Ces derniers sont en fait des indices linguistiques qui facilitent l'identification de la parenthèse. Ainsi, les énoncés parenthétiques sont souvent marqués par un changement de sujet et/ou un changement du temps de verbe et/ou un changement du type de verbe. (Laurin 1989: 22).

Ezaugarri horiek, Laurinen ustez, parentetikoaren aurrean gaudela salatzen digute. Baina, benetan zer da adierazten dutena parentetikoaren aurrean gaudela edota bi enuntziatu desberdin ditugula? Gure ustez, hizkuntza-adierazgarriok enuntziatu-aldaketaren adierazgarri gehiago dira enuntziatu parentetikoena baino.

Horrez gain, zilegi ote da enuntziatu parentetikoak mugatzeko distribuzioa edo tartekatze-puntua askitzat jotzea? Gure ustez, kontuan izan beharreko ezaugarria da, baina ez haatik bere bakarrean erabakigarria dena.

Baina ez dira Laurinek hautatutako muga-irizpideak bereziki bere lanean interesgarri iruditu zaizkigunak; hitzezko interakzio batean betetzen duten funtzioa kontuan hartuta egiten duen parentetiko-moten inbentarioa baizik:

Parentetikoaren artean sei kategoria nagusi bereizten ditu:

Il s'agit des parenthèses anticipatives, utilisées par le locuteur pour prévenir les contre-discours virtuels de son interlocuteur; des parenthèses informatives, le locuteur répondant aux interrogations potentielles de l'interlocuteur; des parenthèses interactives, qui servent à maintenir le contact entre les locuteurs; des parenthèses de positionnement, par lesquelles le locuteur émet opinions et jugements de valeur; des parenthèses de souci d'exactitude utilisées par le locuteur pour corriger une partie de son énoncé; et finalement des

parenthèses de digression, dont la fonction renvoie au propre discours du locuteur plutôt qu'à l'interaction verbale. (Laurin 1989: 55-56).

Honako hauek, honenbestez:

- **Parentesi aurreratzailleak:** norentzakoak izan ditzakeen balizko kontra-argudioak saihesteko baliagarriak.
- **Parentesi informatzailleak:** norentzakoak izan ditzakeen balizko galderei erantzuteko egitekoa dutenak.
- **Parentesi interaktiboak:** esatari-norentzakoaren arteko harremana segurtatzeko baliagarriak.
- **Parentesi jarrera-hartzaileak (edo iritzi emaileak):** esatariak bere iritzi subjektiboa tartekatzeko baliagarriak.
- **Zehaztasuna bermatzeko baliagarriak diren parentesiak:** enuntziazioa zuzentzeko balio dutenak.
- **Digresiozko parentesiak:** diskurtsoari gehiago zuzentzen omen zaizkio interakziozko harremanari baino.

Maiztasunari dagokion azterketa batean ohartzen da, gainera, aurreratzekoak (%37,0), informatiboak (%19,2) eta interaktiboak (%25,7) direla ahozko ekoizpenetan gehien erabiltzen diren parentetiko-motak. Eta gutxienik, berriz, digresioak (%2,3).

Badirudi, bada, ia parentetiko gehienak interakziozko harremanean eragiten dutela, eta harreman horretan eragiten duten heinean bakarrik dituela azterkizun Laurinek; eragingo ez lukeen bakarria digresioen sailak osatuko luke:

Parmi les 646 parenthèses de notre corpus, les parenthèses de digression sont les seules à n'avoir, pour ainsi dire, aucune fonction réelle dans l'interaction, car bien qu'elles suspendent le propos, elles n'ajoutent rien à celui-ci. Elles sont de pures digressions, des remarques incidentes tout à fait secondaires. [...] Toutefois avec 2,3 % du nombre total de parenthèses, nous pouvons bel et bien parler d'exceptions qui confirment la règle dans le cas des parenthèses de digression. (Laurin 1989: 57-58).

Garrantzizkoa da, bada, nahiz eta Laurinek berariaz esaten ez digun, parentetiko hauek guztiak, oro har, makroegitura batean parte hartzen dutela. Azterkizun dituen parentetikoak perpausaren egituran baino gehiago eragiten dute testuaren barne-antolamenduan: testuaren informaziozko (*informatzaileak*) eta argudiozko osaeran (*aurreratzaileak edo kontra-argudiozkoak*), nahiz modalizazio (*jarrera hartze*) eta enuntziatio-mailan (*zehaztasuna bermatzeko baliagarri direnak*). Digresiozkoak ere, diskurtsoaren hari nagusiarri bat-batean erantsitako (edo, behintzat, hasierako testu-plangintzan ez zeuden) ñabardura edo iruzkintzat jotzen dituen neurrian, informaziozko eta argudiozko egiturekin harremanetan aztertzen ditu.

Testuaren barne antolamendu hau, ordea, beti dago esatari-norentzakoaren arteko egokitze edo interakziozko harremanari (nahiz testuinguruari) egokitua. Gogora dezagun Laurinek egitura hauek guztiak interakziozko harremanari loturik dituela azterkizun.

Laurinek proposatua ontzat hartzen badugu ere, egokiago iritzi diogu enuntziatu parentetiko hauek bata bestearen segidan paratu ordez (Laurinek egiten duen bezala), bata bestearekin duen harremana eta hierarkia kontuan hartuz paratzea. Horren lekuko da, beraz, metodologiaren alorrean bertan komunikazio-ekintzan betetzen duen funtziotik abiatuz egiten genuen koadro teorikoa (§ 2.5.2.).

Ñabardurak ñabardura, argi dago Laurinen lan garrantzizkotik jaso behar dugun ideia nagusia enuntziatu parentetikoaren eginkizuna diskurtsoaren antolamenduaren barnean, *makroegiturari* dagokion mailan kokatzen dela. Berak ez du hitz horiekin formulatzen; ez du “makroegitura” hitzik erabiltzen lan osoan zehar, baina makroegituraren ideia eta makroegituraz egiten dugun ulerkera suma daiteke sakon-sakonean. Beraz, enuntziatu parentetikoaren muga-irizpideak zehaztean ezin ahantz dezakegun ezaugarria izango da honako hau: egitura-mota honek makroegituran duela bere egitekoa. Eta horrekin ez dugu esan nahi mikroegiturak inolako eraginik ez duenik “makroegiturak” “mikroegitura” bera ere barne hartzen baitu, baina ez alderantziz.

Bada Laurinen lan honetatik gure lanera ekarri behar dugun beste ideia nagusi bat ere: Laurinek egitura parentetiko-motak zehazteaz gain, egitura parentetikoekin alde edo moldez lotzen dituen bi fenomeno berri ematen digu: argudio-antolamenduaren eta polifoniaren berri, hain zuzen.

#### 3.4.2.3.1. Argudio-antolamendua

Ez du berariaz aipatzen, zeharka baizik; kontra-argudiozko parentesiez nahiz justifikaziozko parentesiez hitz egite hutsarekin egiten dio erreferentzia antolamendu zehatz honi. Esatariaren helburua ondorio jakin bateranzko argudioak ematea da; hots, ondorio baten aldeko arrazoiak ematea. Aldez edo moldez, norentzako pertsuaditu edo limurtu nahi du argumentazioari esker, eta pertsuasiozko diskurtso hori antolatzeko estrategia-multzoa ipintzen du martxan. Estrategia-multzo horren baitan ikusten ditugu Laurinek aipatzen dituen kontra-argudiozko nahiz justifikaziozko parentesiak ere.

Hobeto zehaztuz, aurrerapenezko parentesien barnean sei azpisail bereizten ditu:

Ainsi, avons nous identifié six différentes formes que peut prendre la parenthèse anticipative. Il s'agit des parenthèses évaluatives/commentatives, des parenthèses de contre-argumentation, des énoncés de précision / nuance, des commentaires métadiscursifs préfabriqués, des parenthèses de justification et enfin des parenthèses de renforcement. (Laurin 1989: 76).

Honatx, honenbestez:

- a) ebaluaziozko/iruzkintzaileak
- b) kontra-argudiozkoak
- c) zehaztapenezkoak
- d) metadiskurtsozko iruzkinak
- e) justifikaziozko parentesiak
- f) berrindartzaileak

Horiek guztiak, aldez edo moldez, argumentazioaren zerbitzura daudela frogatzen saiatuko gara enuntziatu parentetikoaren diskurtso-eginkizuna aztertzen dugunean. Azken batean, era honetako estrategiek esatariari diskurtsoa berak nahi duen bidetik zuzentzea zilegi egiten diote, norentzakoaren irudi onari eutsiz.

Ez da haatik Laurin Carole egitura parentetikoak argumentazio-estrategiekin uztartzen bakarra. Delomier & Morele-k (1986: 152) ere aipatzen dute:

[E1-E2 mais E3] eskema azaltzen dihardutelarik honela diote:

Nous observons dans certains de nos exemples des marques concessives en E2 (bien entendu, plutôt), mais ce qui est important à nos yeux, c'est qu'il est dans tous les exemples possible de rajouter en E2 une marque concessive. Nous expliquons donc ainsi le phénomène observé et la présence de *mais*: après avoir amorcé l'énonciation de son argument, le locuteur s'interrompt et énonce une objection potentielle dans une schéma intonatif d'incise. Puis il reprend l'argument amorcé avant, en le raccrochant avec *mais* à l'objection fictive, ce qui a pour effet de lui donner plus de poids d'un point de vue argumentatif. On constate alors que E2 est indispensable tant d'un point de vue syntaxique que d'un point de vue discursif et argumentatif. (Delomier & Morel 1986: 152).

Beste hainbat autorek (Sitri 1995, Gapany & Zay 1995, Fuentes 1998, 1999, 2002, Baque Millet 1999: 173) ere, argudio-egituran sakontzen dute, parentetikoek argudiatzearen garapenean eragiten dutela adierazteko.

(..) la suppression des PARs entame le bon déroulement du discours, et, dans un deuxième temps, quelle est ou que'les sont les fonctions que sont susceptibles de remplir les parenthétiques dans l'énonciation et dans la construction de l'argumentation (Baque Millet 1999: 173).

#### 3.4.2.3.2. Polifoniaren (edo dialogismoaren) fenomenoak

Laurinek, bestalde, polifonia fenomenoak ere mintzagai du, bereziki parentesi aurrerazkoen azpisaila aztertzen ari delarik. Azpisail hau ebaluaziozko parentesiek eta iruzkin parentesiek osatzen dute, eta hauetan polifoniak eragiten duela esango digu berariaz:

il est important de distinguer ce type d'évaluation [ebaluatiboak eta iruzkintzaileak] des évaluations de positionnement[...] Dans le premier cas, la parenthèse sert au locuteur à émettre son opinion sur un fait x, dans le deuxième, le locuteur formule plutôt un contre-discours sur son propre dire. Et si l'évaluation de la première parenthèse se situe dans une même linéarité que le reste du propos, l'image que donne la deuxième est celle d'une "hiérarchie de paroles" (Ducrot 1984). Bakhtine parlerait de dialogisme. En effet, on perçoit dans ces énoncés deux voix bien distincts. (Laurin 1989: 80-81).

Polifoniaren gertakaria lanean aipatu besterik egiten ez badu ere, ezin geniezaioke garrantzia ken. Aipatze hutsa da garrantzizkoa, horrek berarekin baitakar enuntziatu

parentetikoaren eta polifonia-gertakariaren uztartzea ere. Eta komenigarria izan daiteke, oso gainetik bada ere, uztarketa honetan sakondu duten lanetara jotzea.

Sitrik (1995: 184), esate baterako, polifonia eta intzisoen (honek ez darabil enuntziatu parentetiko deizioa, baina intziso deizioaren azpian aztertzen dituen gertakari asko eta asko guk geuk enuntziatu parentetikoaren sailean sartuko ditugu) arteko lotura du azterkizun. Autore honek Delomier & Morelek (1986) proposatutako irizpide prosodiko eta sintaktikoak hartzen ditu abiapuntu eta oinarri intzisoak aztertzeko, eta bereziki lotura horiek bi mailatan aztertzen:

- a) esatariaren diskurtsoan norentzakoa kontuan hartzen duen maila.
- b) “besteren diskurtsoak” esatariaren beraren diskurtsoan kontuan izango dituen maila.

Ondorengo hiru parentetiko motak lehen mailari dagozkio:

- a.1) l'incise contient une prise en compte directe de la question ou de la simple présence des interlocuteurs.
- a.2) l'incise prévient l'émergence possible d'un contre-discours prévisible.
- a.3) l'incise permet enfin un positionnement du locuteur dans le “champ” ou le “domaine”, face á ses pairs. (Sitri 1995: 184).

Esatariaren posizionatzea edo jarrera hartzea beste hiru modu hauetara gauzatzen omen da:

- a.3.1. Zuzenean besteren hitzak edo zitak literalki paratzea.
- a.3.2. Esatariak besteren hitz eta terminoak zuzenean txertatu ordez, hauen birformulazioetan edo, definizioetan oinarritzea.
- a.3.3. Esatariaren iritzia herri-jakintzaren edo pentsaeraren atzean ezkutatzea.

Maiz aski, esatariak berak dioenaren inguruko iritzia agerian jartzen duenean, iritzi horren atzean hitzun-komunitatea osatzen duten gehienek iritzia ezkututzen da. Esan berri duguna Fuentesek ziurtasuneko modalizatazaileak aztertzen ari delarik era honetara formulatzen du:

(...) aparte de ese valor modal asertivo de evidencia o certeza, implica a los otros miembros de la comunidad en la visión personal del hablante. Es decir, presupone que lo dicho es lógico y normal para cualquier miembro de la comunidad. (Fuentes 1993: 99).

Lehen maila honetako gertakari polifonikoetan garrantzitsuena Sitirentzat esatariak norentzako zuzena, agerikoa (ageriko galderaren bat planteatu duena) edo balizkoa (zernahi galdera planteatu lezakeena) kontuan hartzea da.

Bigarren maila batek *heterogeneitate ezaugarriak* definitzeko balio dio; hau da berak *extérieurs théoriques du discours* deitzen dituenak. Eta hauen artean garrantzitsuena da esatariak bere diskurtsoa beste diskurtsoen aurkez aurk eratzten duelako ideia. Diskurtsoa besterenaren oposizioan eratze horrek berarekin dakar besteren diskurtso hori oso ongi ezagutzea; besteren ideiak eta balizko erantzunak ere ongi ezagutzea eta bestek egin litzakeen kontra-diskurtsoei aurre egiteko estrategiak bilatzea. (Sitri 1995: 185).

Horrez gain, garrantzizkoa da diskurtsoaren ikuspegi batetik begiratuta, egiten duen honako baieztapen hau ere: intzisoek beste diskurtso bat, hau da, diskurtsoaren hari nagusiaren mailatik aldentzen den beste diskurtso bat osatzen dute, eta hari nagusitik aldentzen den beste maila batean egote horrek berak diskurtso nagusiaren koherentzia hausturarik ez izatea zilegi egiten du.

On pourrait considérer en effet que les incises constituent des lieux d'émergence d'un discours autre, mais qu'elles permettent en même temps, par le décrochement intonatif qui les institue sur un autre plan que le fil du discours, de maintenir la cohérence du discours principal. On peut rappeler, à l'appui de cette thèse, la fréquence des marques personnelles dans les séquences définitionnelles qui constituent l'essentiel de ce discours: tout se passe comme si au "discours du je" venait s'opposer dans les incises le "discours des autres". Paradoxalement, bien loin de témoigner d'un quelconque "bafouillage", en laissant une place au discours "autre" dans les incises, le locuteur réaffirme ainsi sa maîtrise sur le discours principal. (Sitri 1995: 185).

Garbi dago, bada, nahiz eta Laurinek atal hau oso-oso zeharka eta gaintetik pasa, parentetikoaren balio polifonikoaz ezin ahantz gaitzkeela, eta horren lekuko ditugu Sitriren (1995) artikulua gain, Fuentes (1998, 1999) eta Baque Millet (1999), besteak beste.

Badira, bestalde, hainbat eta hainbat diskurtso-analisi egitura parentetikoak aztergai ez dituztenak, baina polifoniaren gertakaria berariaz aztertzen dutenak. Eta horietan, hainbat aldiz, polifonia aztertzen ari direlarik, egitura parentetikoei egin izan zaie erreferentzia, dela



zuzenean aipatzen dituztelako, dela azalpenerako darabilten adibidetegian aztergai ditugun egiturak ugariak direlako (Blanche-Benveniste 1989, Danon-Boileau et alii 1991, Authier-Revuz, 1995...). Horietatik guztietatik esanguratsuena, ziurrenik, Authier-Revuzen (1995) lana da. Honek bere lanean egitura parentetikoak polifonia-fenomenoarekin uztartzen ditu. Aipua luzea bada ere, merezi duela irizten diogu:

Toute forme de modalité autonymique est dédoublement; du deux dans le UN, de l'émergence d'un autre plan dans le processus énonciatif; la spécificité de ces formes de "rupture liée" est de donner, déjà au niveau syntaxique, dans cette structure du deux (constructions) en un (fil), une image, dans la matérialité syntaxique, de ce clivage, interne à l'énonciation, dont elles apparaissent comme des formes privilégiées.

Forme privilégiée de **l'auto-dialogisme** inhérent à la modalité autonymique, cette configuration syntaxique d'un "détachement", depuis le plan du dire en cours, vers celui, second, du reflet d'un point de ce dire —réalisé sur un autre "palier" mélodique ou, souvent, détaché entre tirets ou parenthèses, ou, plus radicalement encore, sur "l'autre ligne" d'une note— apparaît aussi comme la trace dans la matérialité de la chaîne d'un jeu avec —ou plutôt contre!— le temps où s'inscrit la linéarité: au dire "normalement" abandonné à son écoulement continu, s'opposent, en effet, les "retenues" des commentaires méta-énonciatifs, immobilisant le dire au reflets qu'ils en donnent, figure de suspension du déroulement syntaxique de l'énoncé standard, comme arrêté, le temps que se déroule, dans une sorte de "**hors fil syntaxique**" cette autre construction, greffée; et ce mouvement de retenue, du déroulement de l'énoncé de la chaîne, se prête, alors même que c'est évidemment sur la chaîne que se réalisent les commentaires suspensifs, et que celle-ci, inexorablement, se poursuit, durant le temps/ l'espace qu'occupe sa réalisation, au leurre d'une suspension, d'une retenue dans l'écoulement continu du temps dont la linéarité directionnelle des chaînes linguistiques est une image, comme si, 'suspendre effectivement l'avancée de son dire standard, dans la "boucle" méta-énonciative revenant, en marge du déroulement régulier de l'énoncé, sur un point de celui-ci, pris comme objet, l'énonciation accédait, en marge du fil, à une position de surplomb imaginaire extérieure à la chaîne elle-même, où s'abolirait momentanément la contrainte absolue de la linéarité et avec elle de l'écoulement du temps qu'elle incarne. (Authier-Revuz 1995: 146).

Aipu honek erakusten digunez, polifonia, oro har, *modalidade autonimikoari* dagokio, nahiz eta honen agerpen behinena parentetikoei dagokien. Aipu honek salatzen digunez, Authier-Revuzek agerian jartzen du polifoniaren (edo dialogismoaren) eta parentetikoaren arteko lotura.

Honenbestez, eta atal honekin amaitzeko, zera baieztatu nahi genuke: nahiz eta parentetikoak diskurtsoaren ikuspegitik ia batere aztertu gabe egon, Laurinek (1989) eta Sitrik (1995) bereziki egiten duten lana oso kontuan hartzekoa da. Horiekin batera, Dessaintes-en (1960), Nemmi-ren (1973), Baque Millet-en (1999) nahiz Fuentes-en (1998, 1999, 2002) ekarria era ezin uka. Aztertu ditugun autoreen lanetatik ondoriozta dezakegu egitura parentetikoek diskurtsoaren antolamenduan eta garapenean bereziki makroegitura batean eragiten dutela eta hauen azterketa ezin ikus dezakegula *polifonia, argumentazioa, modalizazioa, enuntziazioa, informazio-egitura, interakzio-harremana...* bezalako terminoetatik aparte. Gainera, egitura zehatz honen azterketa agortzailea egin nahi badugu, formazko alderdiaz gain (alderdi sintaktiko-semantikoaz gain), komunikazioaren edo diskurtsoaren alderdiari ere erreparatu beharrean aurkitzen gara, hauen eginkizuna bereziki diskurtso-ikuspegitik hurbiltzean atzemango baitugu.

Baina zein da diskurtsoaren hurbilbidetik egindako era honetako lan batek gure aztergai zehatzari egiten dion ekarria? Zer dakar berri, edo zer ekar dezake gure aztergaira?

Gure ustez, Laurin-ena bezalako lan batek enuntziatu parentetikoek diskurtsoan duten eginbidea bermatu besterik ez dute egiten. Eta, hala, perpausaren barne-ikuspegira mugatutako lanetan behin eta berriz irakurritako “ken daitezke”, “ez dute ezer eransten” “kendu arren perpausak ez du ezer galtzen” bezalako esaldiak baliogabetu baino ez ditu egiten. Zerbaitetarako balio badu, izan ere, horretarako da; egitura mota honek diskurtsoan betetzen dituen funtzioak azaltzeko. Eta funtzio hauek ezin esan bigarren maila batera lerratzen direnik: hauek esatari-norentzako arteko interakzio-harremana ezartzeaz gain, diskurtsoaren norabidea esatariak nahi duten bidetik zuzentzen laguntzen baitute. Bat gatoz, bada, Baque Millet-ek (1999) dioenarekin:

(...) ces segments remplissent des fonctions précises dans le discours, fonctions qui ne peuvent en aucun cas fonctions précises dans le discours, fonctions qui ne peuvent en aucun cas être reléguées à un second plan, d'autant plus qu'elles constituent un lieu privilégié de la négociation, de la part du locuteur, de la bonne marche de son intervention par rapport à son interlocuteur. (Baque Millet 1999: 32).

Honenbestez, bestek egindako bideetan barrena ibiliaz, gure aztergaia mugatzeko eta ezaugarritzeko datu garrantzitsuak erdietsi ditugu. Jarraian, bada, enuntziatu parentetikoaren definizio bateranzko urratsa egingo dugu.

#### 4. ENUNTZIATU PARENTETIKOEN DEFINIZIO BATERANTZ

Bestek egindako bideetan barrena ibiltzeak erakutsi digu aztergaia oso dela konplexua:

a) Ez dago *parentetiko* kontzeptuaren ulerkera bakarra, ugari baizik, eta horrek berarekin dakar *parentetiko* adigaiak guztientzat gertakari berberak ez biltzea.

b) *Parentetiko* terminoarekin batera eta nahasian *intziso*, *intzidental* edo *zirkunstante* terminoak agertzen dira; zenbaitetan elkarren osagarri (sinonimo gisa) eta beste zenbaitetan elkarrengandik bereizirik, hautatutako irizpide eta eskolen arabera.

c) Terminoak nahasian erabiltzeko arrazoi nagusia termino bakoitzaren muga-irizpideak zedarritu gabe egotean datza. Enuntziatu parentetikoaren muga-irizpideak zehazteko, zenbaitek irizpide sintaktiko-semantikoei eman dio lehentasuna; beste hainbat irizpide funtzionaletan oinarritu da, edota diskurtso-irizpideetan. Beraz, beti ez dira muga-irizpide berak erabili.

Corpusaren analisi enpirikoarekin hasi aurretik, zehatz dezagun, bada, tesi honetan *enuntziatu parentetikoa* diogunean zer adierazi nahi dugun; hau da, zein den darabilgun enuntziatu parentetikoaren definizio zehatza eta zein diren definiziorako kontuan izan ditugun muga-irizpideak.

##### 4.1. ENUNTZIATU PARENTETIKOAK: GURE TESI-LANEAN IZANGO DITUEN MUGAK

Besteengandik ikasi eta jasotakoa gure galbahetik pasatu ostean batetik, eta gure corpuseko adibideak aztertuta bestetik, ezinbestekoa iruditzen zaigu, enuntziatu parentetikoak aztertzeke, bereziki, bi alderdiri erreparatzea: *enuntziatuaren alderdiari* batetik, eta *egitura parentetikoari* bestetik. Eta bi alderdiok mugatzeko —parentetikotasunari dagokiona, bereziki—, formazko eta edukizko irizpideak (irizpide sintaktiko-semantiko eta distribuziozkoak) diskurtsoan duten funtzioarekin uztartzen saiatuko gara.

### 4.1.1 Enuntziatua

Behin eta berriz *enuntziatua* diogu, eta ez perpausa, esaldia edo proposizioa. Egia da, zenbaitetan, kontzeptu hauek guztiak elkarren osagarri izan daitezkeela, baina *enuntziatuaren* ordeztu *perpausa* jarriko bagenu, gure azterresparrua gehiegi mugatuko genuke eta baita azteririzpideak nahastu ere. Izan ere, ez da egoki enuntziatua perpausaren gauzatze soiltzat hartzea, enuntziatu guztiak ez baitira nahitaez perpausaren isla zuzen.

Gainera, enuntziatuaren mugak berbaldiaren dinamikak besterik ez ditzake ezar: esatariaren esku-hartze bakoitza enuntziatu bat da; bestela esan, enuntziatua bi eten edo pausaldiren artekoa eta balizko esatari-enuntziatzaileen aldatzearen baitakoa da. Honen arabera, interjekzio bat, liburu bat, izen sintagma bat nahiz pasarte oso bat, guztia izan daiteke enuntziatua. Beraz, ezin dezakegu esatariak unean-unean duen intentzio-xedea ahaztu. Honek esan nahi du ez dagoela gramatika-irizpideez edo gramatika-neurriz enuntziatua neurtzerik; balio duten irizpideak berbaldi-irizpideak dira, ez bestelakoak.

Bi enuntziaturen edo bakarraren aurrean gauden zehazteko, bada, pragmatika-irizpideetan oinarrituko gara, nahiz eta hainbatetan ezaugarri gramatikalak ere lagungarri izango ditugun. Esate baterako, jokoan bi enuntziatzaile izate hutsak —edota esatari bera bi enuntziatzailetan bikoizte hutsak— adieraziko digu bi enuntziaturen aurrean gaudela. Edota esatariak berak bigarren une batean, oinarritzko enuntziatuan esan duena zalantzan jarriz, nahiz esan duen horretatik aldentuz txertatzen dituen iruzkinek ere bi enuntziaturen aurrez aurre jarriko gaituzte. Baina horretaz jabetzeko, diskurtsoaren harian ohartuko gara subjektu gramatikala aldatu egin dela edota aditz-forma nahiz aditz-denborak ere aldatu egin direla, etab. Hau da, irizpide nagusia pragmatiko-linguistikoa da eta, beraz, ezin dezakegu gramatika (sintaxia, semantika, fonetika) eta mikroegitura oro har, alde batera utzi.

Honekin guztiarekin esan nahi duguna da beti ezin dugula enuntziatua=perpausa bezalako alboratzea egin; aitzitik, enuntziatuari gramatikazko hainbat egitura albora dakizkioke. Gogora dezagun, esate baterako, enuntziatuaren eta perpausaren arteko aldea Escandellek (1993: 34) nola azaltzen zuen (ikus, metodologiaren ataleko § 2.3. ).

Enuntziatuaren ordeztu, perpausaz arituko bagina, oro har IS (izen sintagma) eta AS-az (aditz sintagma) osatutako hizkuntza-unitateaz mintzatu beharko genuke (Gutiérrez 1997) eta, ondorioz, aditz jokaturen bat izan beharko luke bere baitan.

Zer gertatuko litzateke orduan aditzik ez daramaten, baina modalitate-aldaketa adierazten duten hainbat eta hainbat parentetikorekin?

- Oker ez banabil, bi horiek barrenean ditugula, guztira (**o Oteiza adiskidea!**) hamahiru dira (LIB II: 101).

- Nabari zaio ez dela gaia zenbaiten (**askoren edo gutxi batzuen?**) gogoko izango eta hala ere, edo horrexegatik beragatik, batere beldur eta kupidarik gabe azaldu nahi luke. (ZIN: 145).

- Clark Gable´ren kaskoa —**ai, gurearen gisara!**— gero eta urdinago ageri dela ere esango nizueke, baina hori badakizue honez gero, nik bezain ongi. (ZIN: 141).

Zer gertatuko litzateke, halaber, esatariaren intentzio komunikatiboari zuzen-zuzen egokitzen ez zaiolako esatariak testuan bertan egiten dituen ñabardura, zehaztapen eta, oro har, hitz bakarreko edo sintagma soileko birformulazioekin?

- Ingelesek *high-Brows* deitzen dituzten kontentagaitz haietako direnek (**edo garenek?**) esango dute beharbada. (ZIN: 121).

- Aldi honetan zenbaiten herri xeheari —**populuari**— azken hitza eman nahi badio ere, zertan eta arte gaietan, ez litzateke harritzeko herri xeheak gai kaxkar eta belaxketara jotzea. (ZIN: 139).

- Duela zenbait urte —**ez hainbeste, horratik**— bestea ikusi genuenok —Norma Shearer eta Leslie Howard´ena, eta John Barrymore´ren Mercurio— badugu halere zalantza bat. (ZIN: 155).

- Gizonaren nagusitzat arrenkuraz beterik dauzka basetxe bateko abereak Berengandik sortzen diren ondasunak —**artilea, esnea, haragia, arrautzak**— ez baitira haren zerbitzurako, gizonaren onerako baizik. (ZIN: 175).

- Jaiotza harrigarriak izaten dira noizean behin, **oso noizean behin**, mundu honetan, Juan Ramón Jimenez´en ume honena bezalakoak. (LIB I: 42).

- Euskaldunen, **eta batez ere euskaldun gurasoen**, aspaldiko egarria berdintzeko agertu dira noski bi liburutxo polit hauek. (LIB I: 97).

Eta esatariak norentzakoaren arreta bereganatzeko honi egiten dizkion agindu moduko dei eta keinuak ez al dira parentetiko?

- Dirudienez, ez baitut kontatu, 255 lerro utzi nizkion Larramendiri, “cuya obra principal es un diccionario vasco-español (**atzekoz aurrera irakur beza irakurleak**) plagado de aberraciones”, eta 38 Bilintxi, beste zenbaiten artean. (LIB II: 83).

- Nik —**eta barka bekit “izenordain higuingarri” honez hasten banaiz mintzatzen**— profeta baten gisan ikusten dut aurrenik gure Oteiza, gure artean nola eta nondik ez dakigula —aldiz bizardun, aldiz okoz soil— agertu zaigun aintzinako igarleen ondorengo galdu baten antzera. (LIB I: 1117).

- Eta ez dezazula Jainkoagatik gutxietsi, **garbizale horrekin ari naiz**, nahi bezain garbi ez deritzozulako. (LIB I: 40).

Adibide horiek erakusten digutenez, egitura parentetikoak ez du ezinbestean IS+AS egituraz osaturik egon behar, nahiz eta parentetikoan agertzen diren askok eta askok aditza izan. Gerta daiteke, gainera, aditza duten kasuetan ere, E2 parentetikoak E1 oinarrizko enuntziatuak duen aditza ez bezalakoa izatea: aditz-aldia aldatu delako, aditzaren subjektua aldatu delako, aditz-mota aldatu delako, etab. Holakoetan ere garbi ikusten da ez garela enuntziatu bat eta bakarraz ari; gutxienez bi enuntziaturen gurutzatzea dugula: E1 oinarrizko enuntziatua edo hari nagusia daramana, batetik, eta E2 enuntziatu parentetikoa bestetik.

- Ingelesek *high-Brows* deitzen dituzten kontentagaitz haietako direnek (**edo garenek?**) esango dute beharbada. (ZIN: 121).

- Baina kopet harro ez direnek (**ez garenek?**) ez dute damu izango ikustera joana. (ZIN: 124).

- Inoiz edo behin —**gero eta hobeto gabiltzala**— egiazko Garoa-ren oroitzapena bera galduko balitz ere (**zer esango lukete orduan kritiko bihurriek<sup>123</sup>?**), oraingo inausaldian baztertu diren abarrak jaso nahi genituzke Egan-en. (LIB I: 80).

- Nahitaezkoa zen, **eta honelaxe ikusi du begi zorrotzez egileak**, euskal idazleez gainera — euskaraz mintzatu direnez gainera, alegia— gure arteko erdal idazleez mintzatzea, gure hizkuntzari dagozkion lanak ondu dituzten neurrian behintzat, eta are erbesteko euskalariez, zahar eta oraingoez. (LIB II: 65).

<sup>123</sup>Jatorrizkoan Mitxelenak “bihurriek” idatzi zuen, nahiz eta gero Klasikoen sailean berrargitaratzean “bihurriez” idatzi. Tesian argitaraldi gaurkotuak eskaintzen dituen abantailez baliatzen bagara ere, enuntziatu parentetikoaren analisiaren hasieran, (5.2) puntuan, jatorrizkoarekin egindako erkaketaren emaitzak paratu ditugu.

Goiko horiek adibide bakan batzuk besterik ez dira aditza daramatenetan ere, gutxienez, bi enuntziaturen aurrean gaudela salatzen digutenak: hainbatetan modalitate aldaketa gertatzen da (baiezko deklarazio batetik galderetara pasatuz, esaterako), pertsona-aldaketak ere ugariak dira (hirugarren pertsonatik lehenera, eta alderantziz), aditz-aldiak ere alda daitezke (iraganalditik orainaldira, indikatibotik ahalerara<sup>124</sup>, etab.).

Honenbestez, parentetikoa diogunean enuntziatu parentetikoa esan nahi dugu. Eta “enuntziatu” adigaia honela ulertzen dugu:

#### 4.1.1.1. 'ENUNTZIATU' ADIGAIA GURE AZTERGAIAN

a) Esatariak gauzatzen duen hizkuntza-adierazpena da. Enuntziatua ez da mezua. Azken hau orotarikoagoa da, zeinahi koderen bitartez kanpora baitaitezke; enuntziatua, berriz, hizkuntza-koderen baten arabera ekoitziari deritza. (Escandell 1993: 33). Gure kasuan Koldo Mitxelenak euskaraz ekoitziei deritzegu.

b) Enuntziatua “komunikaziozko unitate pragmatikoa” da; hau da, komunikazioko gutxienerako unitatea.

c) Esatariak leku-denbora jakinetan norentzakoari bidalitako hizkuntza-segmentua da. Beraz, ezin uler dezakegu egitura abstraktu bezala; komunikazio-baldintza jakinetan gauzatutako hizkuntza-unitate konkretua baizik.

d) Forma aldetik enuntziatuak perpausaren, perpaus multzoaren, sintagma soil baten... gauza daiteke. Ez du, bada, forma jakin bat; ez dago **enuntziatu bat= forma jakin bat** korrelazioa. Ondorioz, ezin dezakegu forma-irizpidea, bere bakarrean, irizpide-mugatzailatzat har.

e) Enuntziatuak entonaziozko muga jakina du: bi eten edo pausaldiren artekoa da; parentetikoaren kasuan, “bigarren graduko” puntuazio-ikurren (Catach 1980, 1994) edo Larringanek (1995) deitzen dituen meta-testu antolatzaileen artekoa. Pausaldi horren lekuko, E1 enuntziatuaren eta E2 enuntziatuaren hasierako isilunea luzeagoa da, ezin dezakegu geldiunerik egin gabe dena jarraian irakurri; nolabait ere enuntziatu desberdinen arteko isilunea markatzen da.

<sup>124</sup>EGLU II-n, irizpide formaletan oinarrituz, adizkien terminologia aldatu agertu zen eta ahalezkoaren orde, esaterako, *ke* morfemadun adizkiak aipatzen dira. Hori oso kontuan hartzen badugu ere, azalpenak emateko adizkia izendatu behar dugunean, erosoago eta argiagoa gertatzen zaigu Euskal Aditz Batuko terminologia erabiliz izendatzea. Bestela jokatzuz adizkien izendapena bera oso luzea gertatzen da eta, azken batean, gure une honetako helburua ez da adizkia berariaz bere ezaugarri guztiak aipatuz izendatzea.

f) Enuntziatua MODUS + DICTUM uztardura da (Bally 1965; Fillmore 1968; Fuentes 1987, 2007); ez du zertan aurreko edo ondorengo enuntziatuen modalitate bera izan.

g) Enuntziatua sortzeko egitateari enuntziazioa deituko diogu, eta guk enuntziazioa, enuntziatuan bertan islatzen den heinean aztertuko dugu.

Honenbestez, enuntziatuak ditugu azterkizun, baina ez enuntziatu guztiak; egitura parentetiko batean enmarkatuta agertzen diren haiek soilik. Baina, zerk egiten du egitura bat parentetiko? Zeintzuk dira “parentetikotasunaren” ezaugarriak?

#### 4.1.2. “Parentetikotasuna”

Goiko atalean ikusi dugunez, “parentetikotasuna” era batera baino gehiagotara ulertu izan da, baina, terminoen arteko nahasketak nahasketa, beharrezkoa zaigu aztergaia mugatuko duten muga-irizpideak finkatzea.

##### 4.1.2.1. MUGA-IRIZPIDEAK

Zeintzuk dira, bada, lanean zehar darabilgun *enuntziatu parentetiko* terminoa definitzeko muga-irizpideak? Ba ote dugu aztergai dugun gertakaria mugatzeko muga-irizpide bat eta bakarra aldezerik?

##### 4.1.2.1.1. Mugatzailatzat irizpide-mota bakarra ezin hautatu

Ez gara irizpide-mota bakarrean oinarrituta corpuseko adibideak azaltzeko gai izan. Esate baterako, kanpokoena den alderditik hasi gara; puntuazioari dagokion alderditik, hain zuzen ere.

##### a) Muga-irizpidea: puntuazioan oinarrituz

Irizpide hau beharrezkotzat jotzen dugu, baina ez da aski irizpide honetan soilik oinarritzea. Puntuazioari<sup>125</sup> eskainiko diogun sailean ikusiko digunez, aski zaila da —baita

---

<sup>125</sup>Puntuazioaren atala aztertu aurretik, edizioen arteko aldeen berri emango dugu; hau da, hautatu dugun edizioa jatorrizkoarekin erkatzean egon dauden aldaketak aipatuko ditugu.



Mitxelena bezalako idazle batentzat ere— puntuazio bitartez enuntziatu parentetikoak intzisetik edo intzidentetik bereiztea. Halaz ere, puntuazioaren ezaugarri formal honetan baliatu beharra daukagu: ez hain nahasian darabiltzagun gertakariak —*intzisoa, parentetikoak, intzidentala*— bata bestetik bereizteko, baina bai enuntziatu parentetikoak gainerako testutik bereizi eta kanporatzeko; hots, funtzio demarkatzaile batekin.

Beraz, ezinbestekoa da “nécessaire, car il s’agit d’extérioriser matériellement l’interruption de l’énoncé et de mettre ainsi en relief l’insertion” (Dessaintes 1960: 30). Baina, aldi berean ez dugu askitatzat jotzen, ez baita bere bakarrean enuntziatu mota honen mugatzaile izateko gai:

Insuffisant, de tels indices extérieurs peuvent aussi bien affecter des compléments appartenant à la phrase même (dont la place peut être calculée, par exemple, pour obtenir un effet oratoire ou esthétique, comme c’est le cas des disjonctions). (Dessaintes 1960: 30).

b) Muga-irizpideak: sintaxian soilik ala semantikan soilik oinarrituz

Beste hainbeste gertatuko litzaiguke, irizpidetzat soilik sintaxia nahiz soilik semantika hartuko bagenu. Esaterako, irizpide bakartzat, oinarrizko enuntziatuaren eta enuntziatu parentetikoaren artean gertatzen den hausturaren lekuko, perpaus mailako harreman sintaktikorik ez izatea joko bagenu, ez genuke beti lortuko enuntziatu parentetikoak intzidentalen sailetik — eta honenbestez, intzisoaren sailarekin— erabat bereizterik.

Gatozen pausoz pauso azaltzera, eta horretarako Mitxelenak behin eta berriz darabiltzan intzidentalen adibideetarik bakarren batzuk ekarriko ditugu:

- Bereganatzen du, eta itzultzen digunak, **nahiz azala era askotakoa izan**, mami bat du beti: zalantza. (ZIN: 143-144).

- Atseginez ikusi nahi genuke film hau, **haurtxo bihurturik**, baina, **geure buruaz ahazturik orain bi mila urteko gizonen arten nahasteko zorian gaudenean**, gizontxoaren garraxi latza entzuten dugu. (ZIN: 129).

- Guk, **urteak igaro ahala**, barrenean hazi zaigun gizontxo kontentagaitzaren marmarra gero eta nabariago somatzen dugu. (ZIN: 129).

Honelako adibideak barra-barra aurki daitezke Mitxelenaren idatzietan. Hauetan ere oinarrizko enuntziatuan haustura bat gertatzen da:

IS [kontzesiboa] AS (a)

Perpaua [nola] baina [noiz] perpaua (b)

IS [noiz] AS (c)

Baina adibide-mota honetan letrakera lodiz markatu ditugun segmentuek marka formala (“nahiz eta”, “-rik”, “-enean”) agerian daramate. Galde egin beharko genuke, halere, marka formalak segmentu hori oinarrizko enuntziatuarekin zuzenean lotzen duen ala ez. Galde egin beharko genuke segmentu horrek enuntziatu bere eskuko bat osatzen duen ala, aitzitik, enuntziatu beraren baitakoa ote den; hots, enuntziatu berean ba ote duen funtzio sintaktikorik. Garbi dagoena da intzidentaltzat jo ditugun segmentu hauek oinarrizko proposiziozko edukiarekin badutela ikuskizunik; proposiziozko eduki hori osatu egiten dutela, nahiz eta, Oviedoko eskolakoek dioten bezala, predikazio nagusiko aditzaren indar-eremutik at egon. Beraz, badirudi ez direla bere eskuko; zerbait badira, predikazio nagusiarekin harremanetan direla.

Honenbestez, lotura sintaktikoa izatea ala ez izatea irizpide argigarria izan daiteke enuntziatu parentetikoak intzidentaletik bereizteko, baina ez da aski horretan mugatzea: gerta baitaiteke marka formala agerian izan arren, enuntziatu parentetikotzat jotzea ere, baldin eta lotura diskurtso-mailako makroegitura batean kokatzen den informazio batekin gauzatzen badu. Holakoetan, izan ere, enuntziatu ezberdinen arteko koherentziazko harremana jarriko lukete agerian marka formal horiek.

- Behin edo behin, egia da, Izpiritu Santuaren prozesioaz ordu t´erdiz mintzatu beharrean aurkitu izan naiz (**irakastea debekatua badaukagu ere, ikastera behartu egiten baikaituzte**), baina geroztik hona jakintza hau baztertuxe eduki dut. (LIB I: 79).

Adibide honetan garbi ikus daiteke egitura parentetikoan agertzen den enuntziatuak argudioan aurrera egiten laguntzen duela. Nola laguntzen digu? enuntziatio mailako kausa edo arrazoia emanaz:

“Izpiritu Santuaren prozesioaz mintzatu beharrean aurkitu naizela diot, eta diodana era horretara diot (edo egia da) ikastera behartu egin gaituztelako”

Beraz, ez dut “Izpiritu Santuaren prozesioaz mintzatu behar izan ikastera behartu egiten gaituztelako”.

Honekin esan nahi duguna oso da sinplea: ez gara oinarrizko enuntziatuaren kausaz ari, enuntziazioaren kausaz baizik; edota Lapesak “causas de dicto” deitzen dituen horretaz, eta ez “causas de re-z”.

Arrazoitze hori, gainera, hasierako testu-plangintzan egongo ez balitz bezala, bigarren momentu batean tartekatzen du. Hala, informazio hori ez du bata bestearen jarraian paratzen; informazio hori oinarrizko enuntziatutik bereizi eta elkarrekin gurutzatu egiten du, ez baita oinarrizko enuntziatuan igortzen duen informazio-mota; enuntziatio-maila bateko informazioa baizik.

Honenbestez, sintaxi mailako lotura izan edo ez izateaz gain, esatariaren intentzio komunikatiboari erreparatu behar diogu: aurretik esandakoaren iruzkin edo komentario gisa, testu-plangintzaren bigarren une batean bezala tartekatzen duen edo ez ikusi eta aztertu beharra dugu. Beraz, enuntziatu-mota honek komunikazioan duen eginkizuna eta diskurtsoaren antolabidean betetzen duen maila zein den ere aintzat hartuko dituen muga-irizpideak behar ditugu.

Ohartuko gara, beraz, ia ezinezkoa dela ezaugarri-mota bakar bat erabateko mugatzailatzat hartzea; ohartuko gara irizpide bat baino gehiago uztartzean soilik lortuko dugula muga-irizpideak finkatzea. Eta, ondorioz, proposatuko ditugun muga-irizpideek ere, alderdi sintaktiko-formazkoak, semantiko-testualak eta diskurtsozkoak bilduko dituzte beren baitan.

#### 4.1.2.1.2. Finkatutako muga-irizpideak

Finkatutako muga-irizpideek alderdi sintaktiko, semantiko-testual eta diskurtsozkoak biltzen dituzte beren baitan. Honatx, bada, gure aztergaietan, enuntziatu bat parentetikotzat jotzeko bete behar dituen muga-irizpideak.

**1)Egitura bat parentetikotzat jotzeko, gutxienez, bi enuntziatu izango ditugu jokoan.** Hau da, bata bestearekin gurutzatuko diren bi diskurtso. Baieztapen hau egitean, enuntziatua, diskurtsoaren gutxienerako unitatetzat jotzen dugu (Fuentes 2000, Larringan, 1998: 22).

2) **Gutxieneko bi enuntziatuak E1 eta E2 izango dira.** E1, edo oinarrizko enuntziatu izendatuko dugunak, diskurtsoaren hari nagusia emango du aditzera (proposiziozko edukia). E2 enuntziatua, berriz, enuntziatu parentetikoa izendatzeko erabiliko dugu; hau da, E1 enuntziatuaren egitura sintaktikoa hautsiko duen enuntziatua izango da. Honek “makroegituran” edo metadiskurtsoan kokatzen den informazioa emango digu aditzera.

Gerta daiteke, halaber, oinarrizko diskurtso-haria E1 enuntziatuak bakarrik ez aditzera ematea; hau da, E1ek ezezik E3 enuntziatuak ere izendatzea. Izan ere, litekeena da E2 enuntziatu parentetikoak E1 enuntziatua erdiz erdi ez haustea, eta E1 enuntziatuaren amaieran (edo hasiera-hasieran) kokatzea, besterik gabe. Horregatik genioen *gutxienez bi enuntziatu* genituela jokoan.

Delomier eta Moreli (1986: 148) jarraituz, honela irudikatuko dugu:

- 1) [E1— E2— E1] edota
- 2) [E1—E2—E3]

Era batera edo bestera irudikatu, halere, gutxienez bi enuntziatu ditugula berresango dugu: oinarrizko enuntziatua (E1 enuntziatuak osatua edo E1 eta E3 enuntziatuen arteko uztarketatik eratorria) eta E2 enuntziatu parentetikoa.

Baina, gutxieneko bi enuntziatuok elkarren artean zein harreman sintaktiko eta semantiko izango dute? Ez da aski, bada, goiko bi baldintza horiek betetzea; bi baldintza horiek betetzeaz gain, gure aztergai honetan, egitura parentetikoaz hitz egiteko ezinbestekotzat jotzen dugu bi enuntziatuok beregainak, bere eskukoak edo independenteak izatea. Beraz, berez bezala dator hirugarren irizpidea:

**3) E1 Oinarrizko enuntziatua eta E2 enuntziatu parentetikoa bere eskuko bi enuntziatu dira; hots, independenteak.**

Zer esan nahi dugu, ordea, “bere eskuko” direla esatearekin? “bere eskukotasun” hori definitzeko bereziki sintaxi alderdiari emango diogu lehentasuna, nahiz eta, lagungarri gisa, alderdi semantiko-testuala ere ez dugun alde batera utziko.

**a-Sintaxi alderditik begiratuta:**

- E1 eta E2 enuntziatuen artean ez dago sintaxi mailako loturarik; testu-mailako edo diskurtso-mailako lotura baizik.

Arau honen arabera,

1.- E2 enuntziatu parentetikoak ezin dezake E1 oinarrizko enuntziatuan funtzio sintaktikorik gauzatu. Alde horretatik, erlatibozkoak ez ditugu enuntziatu parentetikotzat joko: hauek bai baitute sintaxi mailako loturarik.

**Salbuespena:** enuntziazio- edo modalizazio-mailari nahiz makroegituratzat jotzen ditugun informazio- nahiz argudio-egiturari bete-betean dagozkion erlatibo ez murrizgarriak parentetikotzat joko ditugu. Hauek lotura ez baitute aurrekariarekin (ez dute ageriko ardatzik<sup>126</sup>), beste maila bateko informazioa txertatzeko baliagarri dira, nahiz eta horretarako erlatiboaren marka eraman.

- Ondoegei ohituak gauzka, etsirik gaude zernahi gauza eman dezakeela euskara garbian eta, **okerrago dena**, nolnahi eta batere nekerik gabe eman dezakeela. (LIB I: 75).

- Etxeberri Ziburukoak maiz darabil Kristau, oraingo gipuzkoar baten antzera, baita, **are harrigarriago dena**, dongea ere. (LIB II: 67).

- Ongi daki beti gaiaren berri, zein ere baita, Fagoagak; mendean du burutik burura, eta ezin hobeki daki, **zailagoa dena**, dakiena arin eta dotore esaten. (LIB II: 146).

- Geronen txilberrari begira egon ohi garenok izan dugu aldi batez, liburu honi eskerrak, kanpo-alde zabaletan gere burua hegoairatzeko egokiera eta horretarako, **hori da gehien balio duena**, ez dugu beste hizkuntzetara jo beharrik izan. (LIB II: 103).

“Bigarren graduko”<sup>127</sup> puntuazio-marken artean berariaz inguraturik datorren aposizioa, enuntziatu parentetikotzat jotzea etsi dugu, nahiz eta jakin aposizioa eta aurreko segmentua erreferentziakide direla eta formalki perpausaren egitura sintaktikoaren barnean aztertu ohi dela (Fuentes 1989). Horretara honako arrazoiek eraman gaituzte: batetik,

<sup>126</sup> Ez dute ageriko ardatzik ez eta “kanpoko ardatzik ere” (EGLU V:213); hau da, ez dira aurretik aipatua den izen sintagma bati buruz ari.

<sup>127</sup>Puntuazioaren atalean sakonduko dugun bezala, parentesiak, marrak eta bi komak *bigarren graduko puntuazio-marka* izendatuko ditugu, Catach-i (1980) jarraituz.

aurrekariaren eta aposizioaren artean ez dago nexo edo lotura sintaktikorik, ezpada lotura morfologikoa (deklinabide-atzizki bera errepikatzea), eta eginkizun komunikatiboari dagokionez, intentzio osoz berezirik datorren azalpenezko aposizioa enuntziatio-mailako mekanismoa da, aurreko segmentua azaltzeko maiz esatariak bere jarrera edo iruzkina tartekatu egiten baitu. Enuntziatio-mailako gertakari hori modalizaturik agertuko da, eta beraz, perpaus mailako egitura izanik, makroegiturako informazioa txertatzeko baliagarri gertatuko zaigu.

- Ez da, bada, harritzeko gure artean ere zinemak, **begi-festa merkeen horrek**, gero eta zale gutxiago izatea. (ZIN: 123).

- Horregatik edo, antzektokirako utzi ditu pailasokeriak —**txarlotkeriak**—, berebizikoak badira ere. (ZIN: 136).

- Aldi honetako zenbaitek herri xeheari —**populuari**— azken hitza eman nahi badio ere, zertan eta arte gaietan, ez litzateke harritzeko herri xeheak gai kaxkar eta belaxketara jotzea. (ZIN: 139).

2.- Ez dute perpaus nagusi / mendeko harremanik gauzatuko. Eta alde horretatik perpaus subordinatuak edo mendekoak (denborazkoak, moduzkoak, helburuzkoak...) alde batera utziko ditugu; baita predikazio nagusitik at badaude ere (funtzio intzidentalarekin gertatzen zen bezala).

- Bere obrak, ordea, **maiz aurkeztuak eta ikusi-entzunak izan arren**, ez zeuden behar bezala argitara emanak.(LIB II: 95).

- Harrigarria da batetik Larzabal gogo-zabaltasuna ezker-eskuin ari baita teatroan, **komeria bezain trebe drama latzean**. (LIB II: 95).

**Salbuespena:** gerta daiteke, ordea, esatariak berariaz iruzkin gisa parentesien edo marren artean kausazko edo baldintzazko... perpaus subordinatua tartekatzea. Holakoetan unean-unean aztertu beharko dugu, esatariaren komunikazio-intentzioaren arabera, bigarren une batean txertaturiko iruzkin subjektiboak, makroegiturazko edo metadiskurtsozko informazioa txertatzen ote duten. Hala balitz, aztertu beharko genuke lotura sintaktiko hori

benetan zeinekin gauzatzen duen. Aparteko sail batean paratuko ditugu (C tipoan) aztergaitik erabat baztertu ordez.

- Eta zenbait pezetaren truke —*askotxo badira ere*— bihotzeko pake hori ateratzea gutxi al da? (ZIN: 124).

Gure ustez, bigarren une batean txertaturiko iruzkin subjektibo eta testuinguratzaila da. Esatariak, bere kexua agerian jarri eta nabarmentzeko balio dio. Badirudi, beste kritikoek ez bezala, berak sarrera ordaindu behar izaten zuela (ziurrenik euskaraz egiten zuelako kritika), eta kexu hori agerian jartzeko erabiltzen du, eta beraz, enuntziatua indartu eta fokalizatzeaz gain, testuinguruan kokatzen laguntzen du. Bi enuntziatuen arteko lotura, bada, inferentzia bidezkoa da.

- Egiazko lirika, izen horren duin dena alegia —*ez baita aski hitzak lerro lerro banatzea*—, da noski giza mintzoak menderatu duen gailurrik garaiena. (LIB I: 63).

Adibide horrek ere kausazko marka sintaktikoa darama, baina ez du oinarrizko enuntziatuaren kausa adierazten, enuntziazio mailako kausa baizik: “egiazko lirika *diot*, edo izen horren duin dena *diot*, ez baita aski hitzak lerro lerro banatzea” bezala parafrasea genezake”.

Oro har, ordea:

3.- Argudio-egituraren adierazgarri izan daitezkeen kausalak, ondoriozkoak, kontzesiboak... aztergai izango ditugu, baldin eta harreman hori marka formalik gabe aditzera ematen badute; hau da, harreman hori inferituz soilik atzeman badezakegu.

a- Eta atertu gabe aditzera ematen diguten irakaspen honezaz jabetu ez bagina ere —*ez digu guziori argitasun berbera eman Jainkoak: zinemagile izango ginatke bestela zinema-ikusle izan beharrean*—, astiro azaltzen digute azkenean “De rerum natura”-tik hartua dirudien hitzalditxo baten bidez. (ZIN: 147).

“Irakaspen honezaz” ez jabetzea justifikatzen edo arrazoitzen ari da enuntziatu parentetikoaren bidez, baina horretarako ez darabil marka formalik, nahiz eta inferentzia bidez atzeman dezakegun. Beste hainbeste gertatzen zaigu honako honetan ere:

b- Lagunek parre egiten diote —**neskatxa ez da aldamenean harro harro erakutsi nahi izaten ditugun horietakoa**— eta bere ama ere, “Noiz ezkondu behar duk”-ka beti ari zaio ama, ez du semea ezkontzeko bidean ikusteak gehiegi alaitzen. (ZIN: 151).

Honenbestez, E1 eta E2 enuntziatuen arteko lotura ez da sintaxi bidezkoa; maiz, egon badago bien artean loturarik, baina lotura koherentzia mailakoa izango da, hitzez esandakotik harago inplikatzeko duen edukiarekin edo inferentzia bidez atzeman dezakegunarekin egongo baita lotuta.

Honenbestez, gerta daiteke kausazko, ondoriozko, baldintzazko... harremana adierazteko marka formala daramaten enuntziatuak onartzea, baldin eta modalizazio-mailari, enuntziatio-mailari nahiz argudio edo informazioaren antolamenduari badagozkio. Holakoetan, izan ere, E1 eta E2 enuntziatuek ez dute perpaus nagusi / mendeko harremana gauzatzen; diskurtsoko maila desberdinetan dauden enuntziatuen arteko harremana baizik. Hau da, E2 enuntziatuko kausa ez da E1 enuntziatuarena izango, isilpean dagoen, edo enuntziatio- edo modalizazio-mailan dagoen beste enuntziatu batena baizik. (Ikus C tipoko enuntziatu parentetikoaren analisi sintaktikoari dagokion atala).

### **b- Alderdi semantiko-testualetik begiratuta**

#### **- Ez dago sintaxi mailako loturarik; egotekotan testu-mailako lotura dago.**

Sarritan perpausak bere eskuko izaten segi dezakete nahiz ager daitekeen elementuren bat —lokailua, hain zuzen— perpaus horiek elkarrekin duten lotura semantikoaren berri ematen diguna. (Euskaltzaindia 1990:18).

Beraz, nahiz eta E1 eta E2 enuntziatuen artean harreman sintaktikorik ez egon, gerta daiteke enuntziatua batek bestearekin duen erlazioa agerian egotea. Eginkizun horretan lokailuek bete-betean eragiten dute.

Lokailu hauek, nolabaiteko ñabardura ezartzen diote perpaus batek bestearekin duen erlazioari. (Euskaltzaindia 1990: 19).



Honenbestez, E2 enuntziatuan lokailua agertu arren, enuntziatu parentetiko hori beregaintzat joko dugu. Ez, ordea, lokailua daramatenak soilik; gerta daiteke, izan ere, bi enuntziatuen arteko kohesio-harremana gauzatzeko, lokailuaz gain, beste hainbat mekanismo erabiltzea ere: pronominalizazio-erlazioa (anafora-kataforikoa), errepikapena, mugagabe-mugatu egitura, etab.

Mekanismo horiek guztiak R.A. de Beaugrande eta W.U. Dresslerrek (1981), esate baterako, kohesioa lortzeko baliabideekin lotzen dituzte. Eta kohesio-baliabide hauekin lortzen dena ez da sintaxi mailako lotura forma (izatekotan ere sintaxiak komunikazioan lukeen funtzioaz mintzo beharko genuke), testu-mailako lotura baizik.

Baina goian aipatu ditugun hiru ezaugarri horiek beteta ere gerta daiteke oraindik parentetikoen eta intzidentalaren edo intzisoen arteko muga hain garbi ez gelditzea. Eta gure ustez, bataren eta besteen artean muga badagoenez gero, laugarren ezaugarri hau ezinbestekotzat jotzen dugu.

#### **4) Enuntziatu parentetikoek igortzen duten informazioa makroegituran kokatzen da, eta ez dictum-ean edo proposiziozko eduki informatibo batean.**

Enuntziatu bat bere eskukotzat edo independentetzat jotzeko oso garrantzizkotzat jo dugu sintaxi-mailako lotura formalik ez izatea, nahiz eta testu-mailako lotura agerian izan; hau da kohesio- edo koherentzia-mailakoa. Horrez gain, ordea, enuntziatu bat parentetikotzat jotzeko ezinbestekotzat jotzen dugu igortzen duen informazioa komunikazio-eskemaren koordinatu nagusiei dagokiena izatea: esatariari, norentzakoari eta testuinguruari, eta bereziki ondorengo maila hauetan kokatuko da:

- E2 enuntziatu parentetikoa, *dictum* mailatik edo proposiziozko edukitik at dagoen egitura batean kokatzen da: *makroegitura* batean. Eta makroegitura horretan, bereziki, modalizazio-mailan, enuntziazio-mailan eta informazio- nahiz argudio-antolamenduetan edo egituretan.

Beraz, guk enuntziatu parentetikoa ulertzeko eta mugatzeko darabiltzagun irizpideen artean, diskurtsoaren atalari dagokion hau ezin dezakegu alde batera utzi. Kontu egin dezagun, gainera, arau sintaktikoa bere osotasunean bete ez arren, aintzat hartu ditugun adibide-motak (arauaren salbuespenak, alegia) aintzat (eta ontzat) hartu baditugu, hain zuzen ere beren eginkizuna makroegitura honetan kokatzen zutelako hartu ditugula. Hau da,

proposiziozko eduki nagusitik at dagoen beste maila bateko informazioa eransten zutenez, lotura, egon bazegoen ere, ez zelako E2 eta E1en artekoa.

Ezinbestekotzat jotzen dugu, bada, enuntziatu bat parentetikotzat jotzeko aipatu ditugun ezaugarri sintaktiko, semantiko-testual eta diskurtsozkoak betetzea. Hiru ezaugarri-multzo hauek beteko ez balitu, ezingo genuke egitura parentetikoaren aurrean gaudenik esan.

Alde horretatik, bada, ez da aski E1 enuntziatuan funtzio sintaktikorik ez gauzatzea. Funtzio intzidentala aldezten duen Oviedoko eskolak, esaterako, garbi du funtzio intzidentalak ez duela E1 enuntziatuko predikazio nagusian funtzio sintaktikorik gauzatzen. Baina alderdi teorikoan garbi ikusi ere dugu bigarren mailako predikazioa zerbait baldin bada predikazio-nagusiarekin erkatuz dela, eta bai predikazio nagusia, bai bigarren mailako predikazioa *dictum* mailan kokatzen direla; hots, proposiziozko edukian.

Gainera, ezin ahantz dezakegu funtzio intzidentalak forma aldetik badituela perpaus subordinatuen markak; sintaxi-mailako loturaren edo harremanaren adierazgarri.

#### **4.1.3.Ondorioak**

Honenbestez, aztergai honetan darabilgun enuntziatu parentetikoaren kontzeptuak, bigarren graduko puntuazio-markez (komak, marrak eta parentesiak) demarkatuta egoteaz gain, ondorengo lau ezaugarri hauek bete beharko ditu:

- 1) Gutxienez bi enuntziatu izango ditugu jokoan: E1 eta E2 enuntziatuak.
- 2) Bi enuntziatu hauek elkarrekin gurutzatzen dira, eta oro har, E2 enuntziatuak E1 enuntziatuaren egitura sintaktikoa hautsiko du.
- 3) Bi enuntziatu hauek beregainak edo independenteak dira:
  - Ez dute E1 enuntziatuan funtzio sintaktikorik gauzatuko (alderdi sintaktikoa).
  - Izan dezakete ageriko harreman semantikorik (testu-lotura) edo ez.
- 4) E2 enuntziatuak dakarren informazioa makroegituran (edo metadiskurtsoan) kokatzen da; komunikazio-egituraren koordinatu nagusietan. E2 enuntziatuak igortzen duen edukia informazioari (edo proposiziozko edukiari) baino gehiago dagokio esatariari (modaliazio-maila, nahiz enuntziazio-maila), esatari-norentzakoeren interakziozko harremanari, nahiz hauek baldintzatzen duten argudio- eta informazio-antolamenduari, eta testuinguruari (esatari-norentzakoek duten informazio pragmatikoari).

## 5. ENUNTZIATU PARENTETIKOEN ANALISIRAKO OHARRAK

Harik eta deskripziorik agortzaileena egin dezagun, goian zehaztutako muga irizpideak betetzen dituzten enuntziatuak hiru atal nagusitan aztertuko ditugu: alderdi formalari dagokiona batetik, komunikazioan edo diskurtsoan betetzen duten eginkizunari dagokiona bestetik eta, bien arteko jauzia eginaz bezala, testu-ezaugarriei dagokiena; hau da, koherentziazko harremanaren makulu den kohesio-mekanismoei erreparatuz.

Berariaz diogu testu-ezaugarriak ezaugarri formalekin nahiz diskurtsozkoekin dutela zerikusia eta bien arteko zubi-lana egiten dutela. Izan ere, batetik, enuntziatu parentetikoek tipologia formala egiteko ezinbestekoa gertatzen zaigu ezaugarri sintaktikoak ez ezik kohesio-mekanismoak ere kontuan hartzea. Eta, bestetik, “testualitatearen” ezaugarritzat jo izan den “koherentzia” ez dugu ezaugarri objektibo-formaltzat jotzen, “testua” objektu materialetik at dauden gertakariak kontuan hartu behar baititugu testu bat koherentzetzat jotzeko; hau da, norentzakoak, esatari-norentzakoek batean duten informazio pragmatikoak, mundu ezaupideak... baldintzatzen baitute eta, beraz, horrek eskakizun du testua sortu zeneko ekoizpen baldintzak eta, oro har, hizkuntzaz kanpoko testuingurua ere aintzat hartzea; hots, diskurtso-ezaugarriak kontuan izatea.

Beraz, alderdi formalari dagokion atala enuntziatu parentetikoek tipologia formaletik hasi eta puntuazioaren azterketaraino iritsiko da. Tipologia formala egiteko, ordea, E1 eta E2 enuntziatuen arteko integrazio-gradua izango dugu irizpide nagusi eta horretarako alderdirik formal eta objektiboetan oin hartuko dugu: E1 eta E2 enuntziatuen arteko harreman sintaktikoan batetik, eta bi enuntziatuen artean egon dauden kohesio-mekanismoetan; hau da, bi enuntziatuen arteko harreman semantikoa agerian jarriko duten hizkuntza-baliabideetan.

Diskurtsoari dagokion atalean, berriz, enuntziatu parentetikoak diskurtso-estrategia diren heinean izango ditugu hizpide.

Hondarrik hondarrean, bada, enuntziatu parentetikoek ezaugarri formalak (sintaktikoa, distribuzioaren aldetikoa eta puntuazioa), testualak (kohesio-mekanismoak eta koherentziazko harremana) eta diskurtsozkoak (komunikazio jakin honetan, liburu eta film-kritiketan, betetzen duten eginkizuna) aztertzea erdietsi nahi dugu.

Corpusaren analisi formalarekin hasi aurretik, ordea, garrantzitsua —eta are ezinbestekoa— gertatzen zaigu analisi praktikoa hau egiteko hautatu dugun argitaraldiaz eta jatorrizkoarekin duen aldeak bi hitzetan bada ere aipatzea.

## 5.1. AZTERGAIRAKO BEGIZ JO DEN ARGITARALDIA

Aztergaiaren oinarri hautatu dugun testuen argitaraldiaren aukera ez da zalantzarik gabea izan, bi kontrako indarren arteko eragina baitzen tarteko: testugileari edo autoreari zor zaion leialtasuna batetik, eta erabilerraztasuna bestetik; hau da, argitalpen eguneratuari lehentasuna ematea.

Guk Euskal Editoreen Elkarteak kaleraturiko Klasikoen Saileko 21, 22 eta 23 zenbakiak dituzten liburuxkak hautatu ditugu; argitaraldi gaurkotua beraz. Izan ere, argitaraldi horretan egiten den “eskusartzea” soil-soilik Euskaltzaindiak emandako aldian-aldiko gomendio-erabakiak egokitzera mugatzen da. Aldea, jatorrizkoarekin erkatuz, idazmoldeari dagokiona da, oro har: ortografiari, hitzen forma batuari eta baita adizkien<sup>128</sup> forma baturako egokitzapenari dagokiona ere.

Kontuan izanik, batetik, Mitxelenak emana zuela inoiz bere aspaldiko lanak itxuraldatzeko<sup>129</sup> baimena (MEIG 1988: 13), eta kontuan izanik Mitxelenaren beraren jatorrizko artikuluen idazmoldean (ortografiakoetan, adizkietan...) errainua izan dutela aldian-aldiko Euskaltzaindiaren gomendio-erabakiek, zilegi ikusten dugu argitaraldi gaurkotua hautatzea. Erabaki horretan, gainera, oso gogoan izan dugu gure aztergaiari eman nahi izan diogun izaera praktikoa; hau da, egungo euskal irakurlea izan dugu batez ere begi aurrean.

Aukeraren arrazoiek, haatik, ez dute baztertu argitaraldi gaurkotua jatorrizkoarekin erkatzea, ezinbestekoa baita badaezpadako frogatze-lana egitea. Eta, noski, jokabide honekin ez dugu testu-egokitzailen lana auzipean jartzeko helbururik.

## 5.2. ARGITARALDIEN ARTEKO ERKATZEA

Berdintze honek azalean jarriko du testu moldatzaileen lana grafia eta aditz morfologiaz gaineko beste puntu batzuetan (puntuazioan, esate baterako) ere antzematen ote den.

Azterkizun ditugun artikulua gehienak (bat izan ezik) 1968ko Euskararen batasun-agiria baino lehenagokoak direnez gero, ez da harritzekoa jatorrizkoetan *hrik* gabe, *iñ* edo

<sup>128</sup>Aditz morfologiaren gaineko aldatetak ez dio eragiten bete-betean enuntziatu parentetikoaren azterketari.

<sup>129</sup>Mitxelenak berak grafia eta huts-kontuetan jatorrizkoetan eskua sartzea zilegiztatzen du.

“Etika auzia dugu. Irakurgai hori ez da sasikoa, badu bere jabea. Eta ezin alda daiteke jabearen baimenik gabe, zenbait huskeriatan —grafian, huts nabarrietan— izan ezik”. (LIB I: 79).

*ilhez* idatziriko hitzak agertzea eta ondorioz, argitaraldi gaurkotuan ortografia egokiturik agertzea.

Besterik litzateke, ordea, enuntziatu parentetikoak aztergai ditugunez gero, puntuazioaren alorrean aldaketak izatea. Tesian zehar ikusiko dugun bezala, bigarren graduko puntuazio-markak enuntziatu parentetikoak demarkatzeko bitarteko ditugunez, oso kontuan izatekoa da horiek beti ongi aldatuta ote dauden ikustea; baita diskurtso mailako (lokailuren bat edo falta den, esaterako) nahiz oro har gramatikazko aldaketarik (aditz morfologia gaurkotzeaz landako aldaketarik, alegia) ba ote dagoen aztertzea<sup>130</sup>. Egon balego, noski, egilearen jatorrizko formari emango genioke lehentasuna.

Oro har, esan dezagun ez dela alde handirik, baina bada aipatzea merezi duenik. Erkatze-lanaren emaitza, laburbilduz, honako hau da:

### 5.2.1. Enuntziatu parentetikoaren barneko aldaketa morfologikoak

1. Jatorrizkoan ergatiboaren kasu marka egonik, argitaraldi gaurkotuan instrumentala paratu dute:

Jatorrizkoan<sup>131</sup>:

- Inoiz edo behin —gero eta hobeto gabiltzala— egiazko Garoa-ren oroitzapena bera galduko balitz ere (**zer esango lukete orduan kritiko bihurriez?**), oraingo inausaldian baztertu diren abarrak jaso nahi genituzke Egan-en. (1956 (5-6), Garoa).

Argitaraldi gaurkotua MEIG:

- Inoiz edo behin —gero eta hobeto gabiltzala— egiazko Garoa-ren oroitzapena bera galduko balitz ere (**zer esango lukete orduan kritiko bihurriez?**), oraingo inausaldian baztertu diren abarrak jaso nahi genituzke Egan-en. (LIB I: 80).

2. Jatorrizkoan enuntziatu parentetikoak ETA buruan daraman arren, argitaraldi gaurkotuan ETA artxikonektagailua ezabatuta dago:

Jatorrizkoan:

---

<sup>130</sup>Erkatze-lana enuntziatu parentetikoei dagokien heinean soilik egin dugu.

<sup>131</sup>Jatorrizkoak aipatzeko *Eganen* argitaratu zuen urtea aipatuko dugu; argitaraldi gaurkotua aipatzeko berriz, orain arteko kodea erabiliko dugu: zinemari dagokiona bada (ZIN), liburu kritikei dagokiena bada (LIB I edo LIB II).

- Ez dut, gorago esan dudan bezala, sentimenduen jatortasuna ukatzen, inolaz ere, baina ez dut uste — **eta nahiago nuke oker egon, zuzen baino**— jatortasun bizi hori irakurleari aditzera emateko, entzungor egin nahi badu ere, biderik eta modurik aurkitu duenik beti. (1965 (1-6), LUIS MARI MUJIKA ).

Argitaraldi gaurkotuan:

- Ez dut, gorago esan dudan bezala, sentimenduen jatortasuna ukatzen, inolaz ere, baina ez dut uste —**nahiago nuke oker egon, zuzen baino**— jatortasun bizi hori irakurleari aditzera emateko, entzungor egin nahi badu ere, biderik eta modurik aurkitu duenik beti. (LIB II: 142).

### 3. Ergatibo pluralaren eta absolutibo pluralaren arteko nahasketa

Jatorrizkoan:

- Proust eta Kafka-zale amorratuak —oraingoagoak ixil ditzagun— hobeto dute, beharbada, orrialde horiek irakurtzen ez hastea, galbidean gerta ez daitezen. (1962 (1-3) Iraola).

Argitaraldi gaurkotuan:

- Proust eta Kafka-zale amorratuek —oraingoagoak ixil ditzagun— hobeto dute, beharbada, orrialde horiek irakurtzen ez hastea, galbidean gerta ez daitezen. (LIB II: 82).

Aldaketa hau, esaterako, bidezkoa da Euskaltzaindiaren gramatikazko arauak errespetatzea bakarrik egiten baitute moldatzaileek; hau da, euskara estandarren arabera paratuz zuzentzen dute. Beraz, orain arteko jokabideari jarraituz, Euskaltzaindiaren arauetara egokitzeko ahalegintzat jotzen dugunez, egokitzaileena hobetsiko dugu; hau da, argitaraldi gaurkotuak dakarrena.

#### 5.2.2. Puntuazioari dagozkion aldaketak

1. Parentesien ondorengo koma: jatorrizkoan egonik argitaraldi gaurkotuan falta da  
Jatorrizkoan:

- Inglaterratik ez zaigu bere biziko gauzarik etorri. Robert Neame´ren The man who never was (“El hombre que nunca existió”), azken gerrateko ixpiazkoaren gorabeherarekin, polita da. (1959 (1-4) FILM KOXKOR BAT).

Argitaraldi gaurkotuan:

- Inglaterratik ez zaigu bere biziko gauzarik etorri. Robert Neame´ren The man who never was (“El hombre que nunca existió”) [,] azken gerrateko ixpiazkoaren gorabeherarekin, polita da. (ZIN: 191).

2. Marren ondorengo koma, jatorrizkoan egonik argitaraldi gaurkotuan falta da

Jatorrizkoan:

- Moldatuko ote ginateke Robinson adinean, horrelakorik gerta balekigu? Gu —ni behintzat—, ez, eta lanak izango lituzke Sánchez Mazas jaunak berak ere. (1956 (2), 79. or).
- Eta azkenean, behar bezala, onek daramate saria, diruaren orde kontzientzia garbia besterik ez bada ere. Izan ere —nork ukatuko ?—, ez omen da aberastasun hoberik. ((1956 (5-6), Más dura será la caída).
- Globoa ez da nolana hikoia, gaurko gure begiek ikusten dituztenen antzeko maxkuri haizatua. Sorgindua dago, inoiz —aspaldi baino aspaldiago—, Donostiako Louvre´n ostegunetan ematen zizkigutenak bezalaxe, haur irudimenak sorgindua. (1957 (1-2) Le ballon rouge).

Argitaraldi gaurkotuan:

- Moldatuko ote ginateke Robinson adinean, horrelakorik gerta balekigu? Gu —ni behintzat— ez, eta lanak izango lituzke Sánchez Mazas jaunak berak ere. (ZIN: 153).
- Eta azkenean, behar bezala, onek daramate saria, diruaren orde kontzientzia garbia besterik ez bada ere. Izan ere—nork ukatuko ?— ez omen da aberastasun hoberik. ((ZIN: 167).
- Globoa ez da nolana hikoia, gaurko gure begiek ikusten dituztenen antzeko maxkuri haizatua. Sorgindua dago, inoiz —aspaldi baino aspaldiago— Donostiako Louvre´n ostegunetan ematen zizkigutenak bezalaxe, haur irudimenak sorgindua. (ZIN: 170).

3. Aipu-markak: Argitaraldi gaurkotuan besteren aipuak enuntziatu parentetikoak eteten dituenean parentetikoaren bi aldeak aipu-markez adierazten ditu, jatorrizkoan, aldiz, ez.

Jatorrizkoan:

- “Nekazari haurrentzat idatziak dira, ordea —esango du beharbada norbaitek— eta orain kaletarrak dira gehienbat, ez baserritarrak, mota horretako irakurgaien beharrea daudenak”. (1963 (1-3) ) Agustin Pascual Iturriaga).

- “Gisa hortan —eta Lafitte jaunak du hitza, berriz ere— Eskual-herriko ichtorio kantail bat emana zaiku begien antzinerat... Horrek lanari emaiten dio hedadura gehiago, aldez edo moldez”. (1963 (1-3) Jean Baptiste Etcheberry).

Gaurkotuan:

- “Nekazari haurrentzat idatziak dira, ordea” —esango du beharbada norbaitek— “eta orain kaletarrak dira gehienbat, ez baserritarrak, mota horretako irakurgaien beharrea daudenak”. (LIB II: 112).

- “Gisa hortan” —eta Lafitte jaunak du hitza, berriz ere— “Eskual-herriko ichtorio kantail bat emana zaiku begien antzinerat... Horrek lanari emaiten dio hedadura gehiago, aldez edo moldez”. (LIB II: 116).

4. Enuntziatu parentetikoaren demarkazio grafikoan aldaketa:

Jatorrizkoak enuntziatu parentetikoaren adierazle koma bikoitza jartzen bazuen ere, argitaraldi gaurkotuan bukaerako koma puntu bihurtu dute. Horrela, enuntziatu parentetikoa deuseztatuz:

Jatorrizkoan:

- Buenos Airesko “Euskaltzaleak” elkargoak eman du liburutxo hau argitara, **eta merezi onez eman ere**, Tauer jaunari nolabait goratarre egitearren, bere milagarren euskal eskutitzera heldu denean. (1963, (1-3), 150 or).

Argitaraldi gaurkotuan:



- Buenos Airesko “Euskaltzaleak” elkargoak eman du liburutxo hau argitara, **eta merezi onez eman ere**. Tauer jaunari nolabait goratzarre egitearren, bere milagarren euskal eskutitzera heldu denean. (LIB II: 114).

Erkaketa honetatik enuntziatu parentetikoei berariaz eragiten dieten aldaketak soilik aldatu ditugu horietatik kanpo daudenak alde batera utziz. Aldaketa horiek “huskeriatzat” jotzen ez ditugunez gero —ez baitira grafiari eta huts-kontuei dagozkienak—, eta egileari edo testugileari diogun leialtasunak pisu handiagoa duenez gero, jatorrizko forma hobetsi dugu. Hori guztia kontuan izanik, has gaitezen enuntziatu parentetikoaren analisi formalarekin.

## 6. ENUNTZIATU PARENTETIKOEN ANALISI FORMALA I: ANALISI SINTAKTIKO-TESTUALA

### 6.1. SARRERA

Ez gaude ohituak parentesien inguruko azalpenak joskera atal batean ikustera; ia beti ortografi arauen artean aurkitu ditugu liburuetan, komarekin eta gainerako zeinuekin batera, eta honela esango digute: “Halako eta halako kasuetan erabiltzen dira parentesiak”. Zergatik sartu behar ditugu, orduan, joskera arazoaren artean? Bada, euskaraz behintzat arazo sintaktikoak sortzen dituelako parentesien erabilera zabar samar batek, non-nahi eta nolana-hi kokatzeak alegia. (Euskaldunon Egunkariko Euskara mintegia 1997: 43).

Goiko aipuak dioen bezala, parentesiak, eta, oro har, egitura parentetikoak ezin ditzakegu puntuazioaren alderditik soilik jorratu; alderdi horren garrantzia ukatu gabe<sup>132</sup>, sintaxiaren edo joskeraren alderdiari nahiz E1 oinarritzko enuntziatuan hartzen duen lekuari erreparatzea ere beharrezkoa da. Ez, ordea, hauek testuan zehar duten distribuzioak arazo sintaktikoak sor ditzakeelako bakarrik; hori ukatu gabe, honelako egiturak diskurtsoaren antolamendu osoan eragiten duelako, eta beren eginkizuna bereziki maila horretan dakusagulako.

<sup>132</sup>Puntuazioari dagokion alderditik ere berariaz aztertuko ditugu (§ 7).

Beraz, ez da hain erraza joskerari dagokion atala testuari eta diskurtsoari dagokionetik erabat bereiztea; metodologiari eskainitako atalean genioen bezala, maila hauek ez baitira beren bakarrean agertzen, hierarkikoki bata bestearekin uztarturik baizik.

Estamos en la línea de la lingüística de base funcional, cuyos fundamentos residen en el reconocimiento de que no se puede estudiar la sintaxis de la oración aislándola totalmente del proceso textual que se plasma en el discurso. (Moreno Cabrera 1985-1986: 165).

Izan ere, perpausera lerratutako sintaxiaren eta testu-sintaxiaren edo diskurtso-sintaxiaren artean ez dago erabateko hausturarik; jarraipenezko harremana baizik.

Jarraipenezko harreman hau egitura parentetikoetan ere argi nabarmentzen da. Egitura mota honetan, bi enuntziaturen arteko harremana dugu hizpide: E1 edo oinarritzko enuntziatuaren eta enuntziatu horren egitura sintaktikoa hausten duen E2 enuntziatu parentetikoaren artekoa, hain justu ere. Beraz, bi enuntziatu, bi diskurtso-zati ditugu jokoan eta ez perpaus beraren barneko bi osagai (dela bi perpaus, dela bi sintagma). Halaz ere, bi diskurtso elkarrekin gurutzatzen direla aldeztu arren, irizpide sintaktikoak ez ditugu alde batera utziko; areago, ahalik eta modurik agortzaileenean ezaugarritzeko irizpide sintaktikoak testu mailako irizpideekin uztartuko ditugu.

E1 eta E2 enuntziatuen artean harreman sintaktikorik ez dagoela diogunean, perpaus mailako loturarik ez dagoela esan nahi dugu; bien arteko lotura inferentzia-bidezkoa edo kohesio-koherentziazkoa dela ohartuko baikara. Enuntziatu parentetikoaren oinarria, izan ere, diskurtsoan dago edo, zehatzago esateko, diskurtsoaren esparruan ezartzen diren harreman semantiko-pragmatikoetan.

Beraz, ez da harritzekoa izango analisi sintaktiko-testuala izenburupean irizpide sintaktikoak (perpaus mailako lotura formala) testu mailako kohesio<sup>133</sup>-koherentziazko mekanismoekin hertsiki uztartuta ikustea; hau da, sintaxiak (eta semantikak) perpaus mailatik irtetean bideratzen duen harreman motarekin.

Badirudi, bada, perpaus mailan sintaxiak eta semantikak betetzen duten eginkizuna testu mailan kohesioak eta koherentziak betetzen dutenarekin korrelazioan dagoela. Kaplan eta Grabek (1996) esaterako, honako parekotasunak aurkitzen dituzte termino hauen artean:

<sup>133</sup> Lotura hori hain da estua, Andres Alberdik (2008: 43), esaterako, testuaren kohesioa bera, bi mailakoa dela esango digula: perpaus-mailakoa eta testu-mailakoa.

	AZALEKO EGITURAN	SAKONEKO EGITURAN
PERPAUS MAILAN	sintaxia	semantika
TESTU MAILAN	kohesioa	koherentzia

Taula honen arabera, koherentziak testuaren sakonean gertatzen diren eduki mailako loturak bideratzen ditu; eta kohesioak<sup>134</sup>, berriz, testuko osagaiek azaleko egituran gauzatzen dituzten loturak. Bestela esan, *kohesioa* hitza erabiliko dugu koherentzia lortzeko hizkuntza-baliabideez dihardugunean; hots, Beaugrande-Dressler-i (1981) jarraituz, azaleko koherentzia adierazteko.

Si la cohesión representa las conexiones a nivel superficial, la coherencia se refiere a las conexiones del contenido subyacente. La cohesión sería aislable y, por tanto, analizable en el texto, mientras que la coherencia no se podría hacer objetivo con tanta facilidad. (Díaz Prados 2001: 1115).

Kohesio-mekanismoak, izan ere, formalki ikus daitezke testuan, baina koherentziazko harremana izateko ez da ezinbestekoa elementu kohesio-emaileak<sup>135</sup> izatea; hau da, koherentzia hori testu azalean objektiboki islatzea. Bi enuntziaturen artean egon daitekeen koherentzia ikusteko, marka formalek erakuts badiezagukete ere, beste hainbat alderdik eragiten dute: esatari-norentzakoek batean duten informazio pragmatikoak, norentzakoak duen mundu ezaupideak, etab. Esan berri duguna oso nabarmen ikusiko dugu enuntziatu parentetikoaren arteko harremana koherentziazkoa edo kohesiozkoa ote den erabakitzerakoan.

Garbi dago, bada, atal honetan, enuntziatu parentetikoak aztertzeke irizpide sintaktikoak eta testualak<sup>136</sup> uztarturik aztertuko ditugula. Eta honekin erdietsi nahi duguna

<sup>134</sup>Andres Alberdik (2008: 42) honela definitzen ditu kohesio-koherentzia terminoak:

“Testuko elementuak (hitzak, sintagmak, perpausak, paragrafoak...) elkarrekin lotzen dituen lotura-prozedurari deritza kohesioa. Koherentzia, nolabait esateko, mamia, ideiei begira dago; kohesioa, azalari begira, kateaketa formalari.”

<sup>135</sup>Kohesioak, hala ere, sintaxi-mailako loturaz gain, beti eskatzen du nolabaiteko lotura semantikoa ere. Kohesioa ez da, besterik gabe, formalki egiten den lotura bat, eta kito, baizik eta lotura koherente bat ere behar du.

<sup>136</sup>Ohar gaitzen, bada, (eta izenburua bera da horren lekuko) nahiz eta askotan testu= diskurtso parekotasuna egin ohi den, oraingo honetan bereizirik dabilzala. Ikus metodologiaren atala.

parentetikoaren tipologia formala izango da. Hau da, formalki, Koldo Mitxelenak kritiketan egiten dituen enuntziatu parentetikoak nolakoak diren. Besterik da parentetikoek diskurtsoan barna zein eginkizun duten zehaztea. Alderdi horri hurrengo atal nagusia eskainiko diogu.

Analisiaren antolamenduak garbi erakutsiko du, bada, *testu*<sup>137</sup> adigaiaren bi ulerkerak darabiltzagula aztergaiaren oinarri:

1) bata, *analisi sintaktiko-testuala* izenburupean egingo dugunak, *testua* hitzezko objektu material bezala aztertuko du; hau da, aztergaiako barneko ikuspegia hautatuko dugu. Esan nahi da monemak eta perpausak baino maila goragoko hizkuntz unitate formalaz dihardugula eta bertan prozedura formalak ezagutu, definitu eta sailkatzen ahaleginduko gara. Alde honetatik, enuntziatu parentetikoaren tipologia formala erdietsiko dugu.

2) bestea, kanpoko ikuspegitik egiten den *analisi* izango da. Bertan, *testua* komunikazioaren alderditik aztertuko dugu, eta objektu teoriko horri *diskurtsoa* deituko.

Honenbestez, *testu* adigaia ez zaio *diskurtso* adigaiari kontrajartzen; guk *testu* eta *diskurtso* adigaiak elkarren osagarri ikusten ditugu, material berberaren ikuspuntu desberdin bezala. Eta horretxan adierazgarri baino ez dira analisiaren bi atal nagusiok: *analisiaren* atal *testual* eta *formala* batetik, eta *diskurtsibo* edo *komunikatiboa* bestetik.

*Analisi sintaktiko-testuala* izendatu dugun atal honetan, E1 eta E2 enuntziatuen arteko integrazio-gradua izango dugu irizpide nagusi eta horretarako alderdirik formal eta objektiboenetan oin hartuko dugu: E1 eta E2 enuntziatuen arteko harreman sintaktikoan eta bi enuntziatuen artean egon dauden kohesio-mekanismoetan; hau da, bi enuntziatuen arteko harreman semantikoa agerian jarriko duten hizkuntza-baliabideetan.

Honekin guztiarekin *analisi* formalaren lehen alderdia jorratuko dugu, hurrengo atalean *distribuzioa* ere mintzagai izango baitugu, bai alderdirik formalena kontuan hartuz; hau da, E1 oinarriko enuntziatuaren egitura sintaktikoan hartzen duen lekuari edo posizioari erreparatuz, eta baita alderdi *komunikatibo-diskurtsiboari* erreparatuz ere; *diskurtsoaren*

<sup>137</sup>Metodologiako atalean (2.3.2.1. puntuan) genioen *testuaren* eta *diskurtsoaren* definizio teknikoak aintzat hartzen bagenituen ere, lan honetan biak sinonimotzat joko genituela; *diskurtsoa* ere, hondarririk hondarrean, aztergai edo *analisi-unitate* dugun momentutik, *produktu* edo *emaitza* dugulako, hau da, *testu* bezala atzematen dugulako. Horrek ez du esan nahi, ordea, *testua* bere bakarrean, ekoizpen-baldintzak kontuan hartu gabe aztertuko dugunik; beharrezkoa deritzogu *testu* horretan zuzenean eragiten duten faktoreekin (esatari-norentzakoak, *testuingurua*...) harremanetan aztertzeari. Eta horretxan adierazgarri lirateke *testu* adigaiaren bi ulerkerak horiek ere: *testua* bere adiera hertsian (komunikazioko ekoizpen-baldintzak kontuan izan gabe) eta *testua* adiera zabalean edo *diskurtsoaren* baliokide bezala (komunikazioko ekoizpen-baldintzekin harremanetan; hau da, esatari-norentzakoek *testuinguru* jakinetan darabiltzaten *diskurtso-estrategiak* interpretatu eta azaleratzen ditugun bezainbatean).

antolamenduan hartzen duen tokiari erreparatuz, alegia. Azken hau zubi bilakatuko zaigu alderdi formaletik diskurtso-alderdi baterako jauzia egiteko.

### 6.1.1. Kontuan izango ditugun aldaerak

Analisi sintaktiko-testual eta distribuziozkoa egiteko bi aldaera hartuko ditugu aintzat:

#### 1) E1 (eta E3) oinarrizko enuntziatuaren eta E2 enuntziatu parentetikoaren arteko harremana edo *integrazio-gradua*

E2 enuntziatua kendu arren, E1 oinarrizko enuntziatua sintaktikoki ongi eratuta gelditzen den ikusi eta aztertuko dugu. Hala balitz, zilegi litzateke pentsatzea E1 oinarrizko enuntziatuak ez diola parentetikoari erreferentziarik egingo. Besterik da, ordea, E2 enuntziatu parentetikoa E1 oinarrizko enuntziatuan tartekatu eta honekin koherentziazko harremana izateko zein testu-mekanismoz baliatzen den. Beraz, integrazio-gradua diogunean, berariaz bi alderdiri erreparatuko diegu:

a) E1 eta E2 ren arteko harremana edo lotura sintaktikoa.

b) Testu-lotura: kohesio-mekanismoak edo kohesio-prozedurak. Perpausaren gainetik, testuko pasarteak eta elementuak lotu eta estekatzeko dauden bitartekoak dira. Ez daude perpausari begira, testuaren loturari eta egiturari baizik.

Bi alderdi nagusi horiek kontuan izanda **parentetikoaren tipologia sintaktiko-formala** erdiesten saiatuko gara:

- A tipoa
- B tipoa
- C tipoa.

#### 2. E2 enuntziatu parentetikoaren *integrazio-gunea*: distribuzioa

E2 enuntziatuak E1 oinarrizko enuntziatuko zein egitura sintaktiko hausten duen, edo, behintzat, E1 enuntziatuan zein leku hartzen duen hartuko dugu kontuan.

## 6.2. PARENTETIKOEN TIPOLOGIA FORMALA

Arestian genioen bezala, enuntziatu parentetikoaren tipologia formala egiteko bereziki E1 (eta E3) oinarrizko enuntziatuaren eta E2 enuntziatu parentetikoaren arteko harremana edo integrazio-gradua hartuko dugu kontuan. Eta integrazio-gradua aztertzeke, bereziki harreman sintaktikoari eta testu-loturari erreparatuko diogu.

Ez dezagun, ordea, mataza behar baino lehen korapilatu, eta hel diezaiozun lehendabizi enuntziatu parentetikoak ezaugarritu eta mugatzeko zehaztu ditugun irizpideei, hauei esker (hauen konbinaziotik) lortuko baitugu tipoak bereiztea.

Mugatzailatzat jo ditugun irizpideek, hondarrik hondarrean, enuntziatu parentetikoaren ezaugarri-multzoa osatzen dute, enuntziatu-mota hau mugatzeak berarekin baitakar ezaugarritu eta bereiztea ere. Eta enuntziatu parentetikoak ezaugarritu eta mugatzeko zehaztu ditugun irizpide horiek alderdi hirukoitza ukitzen dute:

- **Sintaktiko-formala:** E1 eta E2 enuntziatuen artean ez dago harreman sintaktikorik; halere, normalena ageriko marka formalik ez izatea bada ere, izan dezake zenbaitek marka formalik. C tipokoek, esaterako, syntaxiko marka formala agerian daramate, nahiz eta marka formal hori ez den bi enuntziatuen (E1 eta E2ren) arteko lotura sintaktikoaren adierazle.

- **Semantiko-testuala:** E1 eta E2 enuntziatuen artean harreman semantikoa (edo hobeto, koherentziazko harremana) kohesio baliabidez edo gabe ager daiteke. Koherentziazko harreman hori azalean kohesio baliabidez azaldu edo ez azaltzeak tipo desberdinak sorraraziko ditu.

- **Diskurtsozkoa:** E2 enuntziatu parentetikoaren eginkizuna diskurtsoaren makroegiturazko antolamenduan gauzatzen da; hau da, diskurtsoko koordinatu nagusietan eragiten dute: esatariaren lorratzetan (modalizazio eta enuntziazio mailan), norentzakoarekin gauzatzen duen interakziozko harremanetan, oinarrizko enuntziatua testuinguruan kokatu eta esatari-norentzakoek batean duten informazio pragmatikoa aktibatzeke eginkizunean, argudio- eta informazio-egituretan etab.

Ezaugarri-multzo horien konbinazioak forma aldetik hiru tipo nagusi bereiztera garamatza: A tipoa, B tipoa eta C tipoa. Horretarako, diskurtso-ezaugarria (beren eginkizuna makroegituran kokatzea, alegia) enuntziatu parentetiko orok bete behar duenez gero, alde

batera utziko dugu, eta ezaugarri sintaktiko eta semantiko-testualaren arteko konbinazioaz baliatuko gara.

Aurrera baino lehen, ordea, ezaugarri sintaktiko eta semantiko-testuala zehaztu beharrean aurkitzen gara. Berariaz aztertu beharrekoa baita, batetik, lotura sintaktikorik ez dagoela esateko zertan oinarritzen garen eta bestetik, bi enuntziatuen artean (E1 eta E2) zein harreman-mota gauzatzen den aztertu beharko dugu: koherentziazkoa, kohesiozkoa? Biak batera? Edo batzuetan bata eta bestetan bestea?

### 6.2.1. Lotura sintaktikoa zentzu hertsian

Enuntziatu parentetikoaren definizioan bertan genioen E1 oinarritzko enuntziatuaren eta E2 enuntziatu parentetikoaren artean ez dagoela perpaus mailako lotura sintaktikorik, nahiz E2 enuntziatuak sintaxi mailako marka formala izan (C tipoak, esaterako). Beraz, pentsa dezakegu bien arteko lotura sintaktikorik ez badago, kendu arren ere E1 oinarritzko enuntziatuan ez duela, sintaxiari dagokionez behintzat, inolako eraginik eta aldaketarik eragingo.

Hasieratik bertatik bada, hipotesi hori egiaztatzen saiatuko gara; hau da, E1 edo tartekatua izan den enuntziatuaren antolamendu sintaktikoak egokia izaten jarraitzen duen edo ez ikusteko, corpuseko enuntziatu parentetikoak kendu edo ezabatu ditugu eta kendu ondoren gelditu den enuntziatua edo emaitza aztertu dugu.

Hona hemen corpuseko adibide batzuk:

- Amerikanoen etsaiek ere [\*] ez dute noski nahi beste algara egin haien bizkarretik (ZIN: 185).

[\* —eta nork ez ditu begitan gutxi edo gehiago Europa zahar honetan?—]

- Neurritz gaineko gizona, jenioa [\*], ez da besteen legeetara makurtzeko sortua (ZIN: 136).

[\*—hitz hori hamaika aldiz entzuna dugu—]

- Txalo eta laudorio ugari merezi dute bai argitaratze-lana bere gain hartu duen Aita Prantziskotarrak [\*] bai Arantzazuko Argitaldariak. (LIB I: 78).

[\*—ixilpean gorde du damurik bere burua—]

- Diskoak [\*] atseginez beterik entzungo ditu edozein euskaldunek. (LIB II: 73).

[\*—hizlarien izenik ez dut aipatuko, norbait ixilpean uzteko beldurrez—]

- Gai aukeraz zerbait esan daiteke[\*], baina batez ere hor agertzen diren hitz-esaerak ez dira jatorregiak, maiz aski ezta dotoreegiak ere. (LIB I: 109).

[\*(arrantzari hiru hizketaldi ematea gehiegixko dirudi)]

- Eta horrenbeste gipuzkoar langile elkarren lehian ari bazaizkigu ere, oraingo gisan, mendiak murrizten [\*], ez dute, eginahalak egin arren, Lizardik utzi zigun baso antzaldatua soilduko, harako leihoak itxitako jauregia dirudien hura, atsedenaren eliza, gau argi izarrez josia goian eta ur berdeak [\*] behean dituen. (LIB I: 64).

[\*—edo gehienez pinu beltzez jazten—]

[\*—izar irudiz zirtatuak—]

- Euskarak, egia esan, badu premiarik; zertxobait leuntzeko, hornitzeko eta egokitzeko premia ederrean dagoela guztiok dakigu. Baina egin beharrik ez, aspaldidanik egin-egina baitago. Euskera egiten [\*] hasi baino hobe genuke euskaldunok euskara ongi ikasten hasi. (LIB I: 69).

[\*—edo egin ustez desegiten—]

Adibide bakan horietan argi ikusten da enuntziatu parentetikoa kendu arren, emaitzak —hau da, E1 enuntziatuak— sintaktikoki zuzena eta egokia izaten jarraitzen duela. Beste horrenbeste esan dezakegu corpuseko adibide guztiez ere; ez dago adibide bakar bat ere enuntziatu parentetikoa kenduz gero, E1 enuntziatua sintaktikoki urratuko duenik. Horrek garbi adierazten edo ikusarazten digu enuntziatu parentetikoaren kanpo izaera sintaktikoa eta baita esatariak E1 edo oinarritzko enuntziatuaren planifikazio kognitiboa osotasun edo bloke bat bailitzan egiten duela ere.

Pentsa genezakeen E1 oinarritzko enuntziatuaren bi atalak (hau da, enuntziatu parentetikoaren alde banatan dauden bi atalak) ongi josita egotea, enuntziatu parentetikoaren



luzeraren baitakoa izan zitekeela. Baina corpusak erakusten digu, enuntziatu parentetikoa oso luzea denean ere, E1 en zuzentasun sintaktikoa ongi zaintzen duela.

- Axularren garaikoek [—Pizkunde arokoek alegia, bera ere, berandu xamar jaiogatik, horietakoa baitzen—] antzinako Greko eta Erromatarrak hartu zituzten maisutzat, eta ez hizkuntza gaietan bakarrik. (LIB I: 140).

- Eta atertu gabe aditzera ematen diguten irakaspén honetaz jabetu ez bagina ere [—ez digu guziori argitasun berbera eman Jainokoak: zinemagile izango ginatke bestela zinema-ikusle izan beharrean—], astiro azaltzen digute azkenean “De rerum natura”-tik hartua dirudien hitzalditxo baten bidez. (ZIN: 147).

- Poliki-poliki dihoakio Peru erakusten ez euskara bakarrik [—euskaltzalea zen Mogel, inor izan bada, baina ez zuen uste euskara berez ezer denik, zerbaitetarako ez bada—], beste gauza asko baizik euskararen bitartez: izenak eta utzi eta barrengo izanari begira dagoen egiazko jakitea, lanbide berezien neke eta izkutuak, Bizkaitar ez diren euskaldunen euskalduntasuna, benetako kristautasuna eta zinetako gizalegea. (LIB I: 72).

- Gorputz geneukan Mike Todd [(eta ez dakit hemengo Cervantes-zale porrokatuen arao-biraoek ez ote duten horretan parterik izan)] berak eragin zuen izena bezain kostu handiko film hau aurkeztu digutenean. (ZIN: 181).

Horrez gain, nahiz eta E1 enuntziatu batean enuntziatu parentetiko bat baino gehiago tartekatu, E1 oinarritzko enuntziatuaren egitura sintaktikoa zuzena izango da.

- Horrexegatik [, labur eta berandu hobe denez gero inoiz ez baino,] zilegi izan bekit behar nukéen baino lasterrago [—abespeluan edo, antzinako bizkaitarrek esango zuketen bezala—] neure egitekoak egitea. (LIB II: 121).

- Nik [(izenordain higuin garri hau ezinbestean darabilt)] lehenago ezagutu nuen Olabide [(Itun berriko Olabide, jakina)] besteak baino. (LIB I: 112).

- “Hark berak hari berari” daramate buruan [—edo antzeko zerbait: liburua damurik ez daukat eskuartean—], eta lehenbiziko “hura bera” aurreko bertsoen egilea bide da [—hots Claveria—] eta bigarrena, bertso haiek eskeini zizkiona, hau da, Etxeberri. (LIB II: 66).

- Eta [, hau da beltzena eta gogorrena,] gertakari berbera bi aldetara entzuten baldin badugu [— gaurko neska-mutilek irakurtzen dituzten nobeletan edo antzinako poema epikoetan bezala edertua eta goratua, edo oraingo eta lehengo zenbait idazlek ohi duten bezain beztua eta itxuratxartua—], alderik politena ez dela beti [, ezta maizenik ere,] egiazkoena izaten. (ZIN: 130).

Azkenengo adibide horretatik enuntziatu parentetikoak kenduko bagenitu honako E1 oinarrizko enuntziatuaren aurrean geundeke:

- Eta [\*] gertakari berbera bi aldetara entzuten baldin badugu [\*], alderik politena ez dela beti [\*] egiazkoena izaten. (LIB:130).

Horrela ikusita, badirudi E1 enuntziatua sintaktikoki ez dagoela ongi eratua. Eta pentsa genezakeen, gainera, horren arrazoia E1 enuntziatuan hiru parentetiko tartekatzeak eta bereziki bigarrena hain luzea izateak eragin dutela. Baina azterketa sakonago batek pasarte osoa aztertzeraz garrantzitsua. Hondarrean, mendeko perpaus osagarri hau “Basoan gertatuaren berri nahiz ez ongi jakin, zenbait gauza ikasi ditugu horratik, eta ez nolana hikoak” perpaus nagusiaren menpe legoke.

Hona hemen pasarte osoa:

Basoan gertatuaren berri nahiz ez ongi jakin, zenbait gauza ikasi ditugu horratik, eta ez nolana hikoak. Asiako bazterrik bazterrenean eta Europako txoko honetan gizonak era batetsukoak direla: gizon, alegia. Han ere, hemen bezalaxe, beste grinez kanpora, nor bere burua goraino jaso eta besterena lurreraino jatxi beharra duela eragile. Eta, hau da beltzena eta gogorrena, gertakari berbera bi aldetara entzuten baldin badugu —gaurko neska-mutilek irakurtzen dituzten nobeletan edo antzinako poema epikoetan bezala edertua eta goratua, edo oraingo eta lehengo zenbait idazlek ohi duten bezain beztua eta itxuratxartua—, alderik politena ez dela beti, ezta maizenik ere, egiazkoena izaten. Japonen eta hemen gizona —eta emakumea— izukaitz baino bildurtiago, prestu baino berekoiago, bihotz-zabal baino zitalago dela, alegia. (ZIN: 130).

Honenbestez, E2 enuntziatu parentetikoak kenduta ere, E1 oinarrizko enuntziatuak sintaktikoki ongi eratuta eta egituratuta jarraitzen du. Hori horrela izanda, pentsatzekoa ere da E1 oinarrizko enuntziatuak inoiz ez diola E2 enuntziatu parentetikoari erreferentziarik egingo.

Corpusak erakusten digunez, bada, ordea, adibideren bat E1 enuntziatuak koerreferentziazko harremana bidera dezakeena E2 enuntziatuarekin:

- Ez zituen Bonapartek, egia esan, Elizak agindu bezala argitaratzen, ez baitzuten euskaldunen arimen onerako eragin, baina huts **horiek —behar ziren oharrak eta baimenak—** erraz osa zitezkeen, euskaldunok nahi izan bagenu. (LIB I: 111).

Pentsa genezake “horiek” erakusleak E2 enuntziatu parentetikoak zehazten dituen hutsei erreferentzia egiten diola. Baina, egia ere da, sare anaforiko-kataforikoak aztertzean ikusiko dugunez, maiz bigarren graduko erakusleak hobeto moldatzen direla erlazio anaforikoak bideratzeko (beren erreferentzia aurretik dator), eta Mitxelenarengan ere joera hori izango da nagusi; aldiz, lehen graduko erakusleak egokiagoak dira erlazio kataforikoak aditzera emateko.

Lehen graduko erakusleak (hau, honen...) —eta gertutasuna adierazten duten aditzondoak (hemen(txe) — oso ondo moldatzen dira euskaraz erlazio kataforikoak egiteko, eta horixe da estilo egokia (...) Aldiz erlazio anaforikoak egiteko egokiak bigarren edota hirugarren gradukoak dira (hori, horren..., horiek, horien; hura,haren...,— orobat, hor, han...—), eta desegokiak lehen gradukoak. (Alberdi 2008: 46).

Beraz, pentsa dezakegu “horiek” bigarren graduko erakusleak erlazio anaforikoa bideratzen duela, eta “Elizak agindu bezala ez argitaratzeari” egiten diola erreferentzia. Hala ere, zalantza paper gainean jarri nahi genuke<sup>138</sup>.

Garbi dago, eta corpusa da horren lekuko, E2 enuntziatu parentetikoak kentzean, E1 oinarrizko enuntziatuak sintaktikoki zuzena izaten jarraitzen duela, eta horrek E2 enuntziatu parentetikoaren kanpo izaera sintaktikoa agerian jartzen du, eta baita esatariak E1 edo oinarrizko enuntziatuaren planifikazio kognitiboa osotasun edo bloke bat bailitzan egiten duela ere.

E2 kenduta inoiz ere ez da E1eko sintaxi egitura urratuta gelditzen, ez E2 luzea denean ezta E1 oinarrizko enuntziatuan enuntziatu parentetiko bat baino gehiago tartekatzen direnean ere. Horrek esan nahi du E1 oinarrizko enuntziatuan oro har ez dagoela elementurik E2 enuntziatuko osagairen bati erreferentzia egingo dionik.

<sup>138</sup>Erlazio anaforiko-kataforiko-diaforikoen berri gehiago nahi duenak jo beza (§ 6.4.3.)

Hori horrela izanik, E2 enuntziatu parentetikoa nola tartekatzen da E1 oinarrizko enuntziatuan? Nola uztartzen da E1 oinarrizko enuntziatuarekin. Garbi baitago adiera aldetik ez dagoela bien artean inkoherentziarik.

### 6.2.2. E1 eta E2 enuntziatuen arteko harremana: koherentzia vs kohesioa

Hizkuntza-pragmatikaren ikuspegiak badakar komunikazio-trukea edo prozedura ulertzeko moduan ñabardurarik. Komunikazio-trukea ez da, ikuspegi honetatik begirata behintzat, kodetze edo deskodetze prozesu soila, biek batean duten kodean oinarrituz egina (Jakobson 1960); intentziaz egindako paktu edo bat egitea baizik. Bat egite honetan, esatari-norentzakoek bata bestearen intentzioa atzemateko duten gaitasunaz gain (Grice 1989), funtsezkoa da esatari-norentzako hauek batean duten informazio-esparruan eragingo duten (hitzez esan gabe doana aktibatuz) prozedura ostentsibo-inferentziazkoak (Sperber & Wilson 1986) ere oso kontuan izatea.

Hasta hace pocos años la comunicación se explicaba como un proceso de codificación y descodificación de enunciados. Era lo que habíamos aprendido del *Cours de linguistique générale* (1916) de Ferdinand de Saussure (...) y de su versión perfeccionada en 1960 por Roman Jakobson (...)

Toda comunicación verbal consta de una parte codificada y de otra parte producto de inferencias, esto es, de ciertos procesos mentales que llevan a conclusiones como las anteriores. Los hablantes nos comunicamos presentando lo dicho como un estímulo para desencadenar estas inferencias. La simple descodificación nunca es suficiente, pues la comunicación humana es esencialmente una comunicación inferencial. (Portolés 1998: 14-15).

Kodetze-deskodetze bidez jasotakoaz gain, bada, inferentzia bidez hainbat eta hainbat informazio geureganatzen dugu. Esate baterako, haur batek “ama, egarri naiz” dioenean, amak badaki edo inferitzen du umea ur eske ari dela, hitzez hitz hori esan ez badu ere. Beraz, solaskideak nola komunikatzen gara? Norentzakoa esatariak komunikatu nahi duen horretaz jabe dadin, egokiak diren inferentziak eraginez. Inferentziak, oinarrian, Martín Zorraquino & Portolések (1999: 4058) esango diguten bezala, “arrazoitzeko prozesuak” dira:

Las “inferencias” constituyen procesos de razonamiento y, para que se produzca este proceso inferencial, además de lo dicho, se ha de tener en cuenta el contexto de los

participantes en la conversación. Dicho “contexto” es siempre mental y está formado por las creencias que residen en la memoria, pero también por aquellas que se derivan de la percepción inmediata de la situación o, simplemente, de lo que se ha dicho antes”. (Martín Zorraquino & Portolés 1999: 4058).

Eta baieztapen hau oso gogoan izan behar dugu enuntziatu parentetikoaren eta oinarritzko enuntziatuaren artean harremanik dagoen eta egotekotan bien arteko harremana zer-nolakoa den zehazteko. Izan ere, maiz aski bi enuntziatuon artean ez dago inolako loturarik, ez sintaktikorik ez eta bien arteko harreman semantikoa berariaz agerian jarriko duen testu-baliabiderik: dela lokailu edo testu antolatzaileak, dela sare anaforiko-kataforikorik. Ezin esan, haatik, bien artean inkoherentziarik dagoenik; ezin esan bi enuntziatuen artean ez bururik ez hankarik ez dagoenik. Bien arteko harremana bideratu eta interpretatzeko, ordea, testutik at dauden gertakari pragmatikoetara jo beharko dugu: esatari-norentzakoek batean duten informazio-pragmatikora, mundu ezaupidera, sinesmenera, komunikazioaren egoerara...; hau da, inferentzien errota aktibatu beharrean izango gara.

Honenbestez, kohesio-mekanismoak gabe ere testuan bi enuntziatuen artean lotura aurkitzen dugunean, lotura hori interpretatzeko zailtasunik ez dugunean, bi diskurtso-zati koherente ditugun seinale litzateke. Askotan, koherentziazko harreman hori testuan bertan agertzen diren kohesio-mekanismoek esplizitu egingo dute, baina, corpusean ikusiko dugunez, kohesio-mekanismoak egotea ez da ezinbesteko baldintza izango.

Gogoratu metodologiaren atalean genioenez, ‘koherentzia’ adigaia definitzeko batzuetan testuaren barneko hastapenari edo printzipioei erreparatzen dioten ikuspegiak dudela; hau da, testuan bertan oinarrituz soilik, eta baita testuari koherentzia subjektu interpretatzaileak emango diolako ustea ere.

Gure ustez, koherentzia aztertzeko bi ikuspuntuak (barnekoa nahiz kanpokoak) oso kontuan hartu behar ditugu; areago, gure ustez, testuaren edo diskurtsoaren interpretazioa subjektuen (interpretatzaileak) eta objektuaren (testua) arteko prozesu dialektikoa da:

Quando decimos que un texto es coherente, queremos decir que está organizado lógicamente y que podemos interpretarlo (...) un texto es coherente si

1. su estructura significativa tiene organización lógica y tiene armonía sintáctica, semántica y pragmática entre sus partes y
2. su significado es interpretable porque ayuda al lector a hacer las inferencias necesarias. (Reyes 1998: 127).

Enuntziatu parentetikoak oinarrizko diskurtsoa interpretatzeko, iruzkintzeko, errealitatearekin kontrastatzeko, etab. datuak eskaintzen dizkio norentzakoari.

El paréntesis se utiliza para expresar una opinión controvertida de manera directa y sin necesidad de un nuevo ordenamiento del periodo. (...)

(...) Los paréntesis y guiones largos pueden asimismo reforzar una idea controvertida enmarcando información primordial (...)

(...) También los guiones y paréntesis desempeñan una función de contraste. Se trata de comparar la información presentada en el discurso principal, es decir, la “versión oficial” con la realidad que el autor percibe como auténtica (...) (Dafouz Milne 2000: 1835-1840).

Beraz, egitura parentetikoan agertzen den informazioak, nahiz eta proposiziozko edukian parte hartu ez, oinarrizko diskurtsoan bertan tartekatzen duenak bezainbesteko garrantzia edo gehiago ere izan dezake, horiei esker diskurtsoari koherentzia bilatzeko erraztasunak izango baititugu; izan ere, parentesien edo marren arteko informazio labur, zatikatu edo keinuek iradokizunei eta inferentziei bidea irekitzen die, eta esatari-norentzakoek batean duten informazio pragmatiko hori martxan jarri eta gidatzeko datu ezin hobeak gertatzen dira.

La información recogida en el paréntesis no parece ser imprescindible para la correcta comprensión de la frase y sin embargo, sugiere mucho más de lo que el autor hubiera podido incluir en el texto. Mediante esa ligera digresión y el uso del exclamativo `ha`[adibide zehatz bat iruzkintzen ari da], se abren ante el lector multitud de sensaciones y opiniones relacionadas con la labor de los políticos, algunas probablemente coincidentes con la postura del autor y otras no. Pero, en cualquier caso, el uso del paréntesis resulta mucho más sugerente y rico que el desarrollo de la idea en sí. (Dafouz Milne 2000:1838).

Honenbestez, koherentziak alderdi bikoitza ukitzen du eta, beraz, testu bat koherentetzat jotzeko bi alderdiei erreparatu beharko diegu: kohesio alderdiari eta alderdi pragmatikoei (inferentziakoei). Eta horiexek lirateke, gure ustez, koherentziaren oinarrizko osagaiak ere.

### 6.2.3. E1 eta E2 enuntziatuen arteko koherentziazko harremana, parentetiko tipoak bereizteko ardatz

Goian ikusitakoaren arabera, koherentzia kohesioa baino abstraktuagoa eta sakonagoa den maila bati dagokio: testua makroegiturarekin edo, jarraian ikusiko dugun bezala, esatariaren intenziozko antolamenduarekin uztartzen duen harreman-sarea da. Bestela esan: esatariak, eduki bat aditzera eman nahi duenean, hots, eduki hori komunikatzeko intenzio jakina duenean, hizkuntza-osagaiak (unitateak, enuntziatuak, paragrafoak...) hierarkia-mailetan antolatzen ditu. Beraz, informazioa egituratzea, antolatzea lortzen du, baina funtsezkoa da egitura hori intenzioari —idaztera bultzatu duen intenzioari, alegia— egokitzea. Eta egokitzapen horri deritzogu koherentzia. Baina egokitzapen hori, intenzioaren eta antolamenduaren arteko lotura hori, norentzakoak atzeman behar du, eta horretarako, *puzlea* berreraikitze goian aipaturiko informazio guztiez baliatuko da: mundu-ezaupideaz, testuinguruaz...

(...) se alcanza [la coherencia] cuando hay continuidad de sentidos o ausencia de contradicción cognoscitiva entre el conocimiento activado por las expresiones del texto y el conocimiento del mundo de los participantes en la comunicación. (Alcaraz 1983: 15).

Koherentziazko harreman hori, beraz, maiz aski testutik at dauden diskurtsoko subjektuek ezarriko diote; esatari-norentzakoek batean duten informazio pragmatikoak. Baina horretarako testuak izan beharko du barne-logikarik. Beste hainbatetan, enuntziatuon arteko barne-lotura hori testuan bertan agertzen diren hizkuntza-baliabideek ezarriko dute: kohesio mekanismoek, alegia. Baina bai batean eta bai bestean koherentziazko harremana dagoela esango genuke.

Por lo tanto, si en la cohesión parece haber acuerdo en que apunta a las relaciones formales, en la coherencia se manejan diversos criterios: relación con la intención del hablante, conexión con el oyente, adecuación al estado de cosas, el entorno pragmático que rodea el texto. (Fuentes 1996: 67).

Onartzen dugu, bada, E1 eta E2 enuntziatuen artean badela koherentziazko harremanik. Koherentziazko harreman hori, gainera, ez da bi enuntziaturen (edo diskurtsozatiren) artean modu berean gauzatzen, eta horren adierazgarri bereizi ditugu *tipoak* ere.

**LEHENENGO TIPOA: A**

1 - E1 eta E2 enuntziatuen artean ez dago harreman sintaktiko formalik: E2 enuntziatuak ez darama marka formalik.

2 - E1 eta E2 enuntziatuen artean harreman semantiko-koherentziazkoa badago, baina harreman hori ez da testuan bertan objektiboki kohesio-mekanismoei esker islatzen; inferentzien errota aktibatuz baizik; inferentziazkoa izango da, baina inferentzia horiek eragiteko edo gidatzeko ez da marka formalik egongo. Beraz, ez dago ageriko harreman testual-semantikorik.

3 - Informazioa makroegituran kokatzen da.

**BIGARREN TIPOA: B**

1 - E1 eta E2 enuntziatuen artean ez dago harreman sintaktikorik: marka formalik ez da agertuko.

2 - E1 eta E2 enuntziatuen arteko koherentziazko harremana kohesio-mekanismoei esker islatzen da.

3 - Informazioa makroegituran kokatzen da.

**HIRUGARREN TIPOA: C**

1 - E1 eta E2 enuntziatuen artean harreman sintaktikorik ez dago, baina badu E2 enuntziatuak marka formalen bat:

-Forma aldetik badu menderagailuren bat, baina ez du E1 eta E2 ren arteko harremana gauzatzen, baizik eta:

-Isilik dagoen enuntziaturen baten eta E2ren arteko harremanaren isla da.

-Isilik dagoen modalizazio- edo enuntziatio-mailako aditzen batekin du harremana.

2 - E1 eta E2 enuntziatuen artean ez dago ageriko harreman semantikorik: agerian dagoena E2 eta isilpean dagoen aditzaren nahiz modalizazio edo enuntziatio-mailako aditzen baten artekoa da.

3 - Informazioa makroegituran kokatzen da.



Honenbestez, *A tipo* bezala bataiatu dugun parentetiko tipoan oinarritzko enuntziatuaren eta enuntziatu parentetikoaren artean koherentziazko harremana inferentzia bidezkoa dela esango dugu. Tipo honetako bi enuntziaturen artean ez dago kohesiozko mekanismorik. Barne koherentzia hori marka formalik gabe azaltzen da. Bien arteko harremana inferitu egin beharko dugu. Inferentzia bidez, esatari-norentzakoen artean dauden erreferentzia-markoak aktibatuko ditugu, biak batean duten informazio pragmatikoa zabalduz. Azken batean, enuntziatu parentetikoak komunikazioan gauzatzen diren inferentziak gidatu egingo ditu.

- Robert Aldrich'ek —**Venezian bigarren Zilarrezko Lehoia eraman du aurten**— hainbestean moldatzen ditu irudi moldakaitzak, ofiziale ikasiari dagokionez. (ZIN: 142-143).

- Lagunek parre egiten diote —**neskatxa ez da aldamenean harro harro erakutsi nahi izaten ditugun horietakoa**— eta bere ama ere, “Noiz ezkondu behar duk”-ka beti ari zaion ama, ez du semea ezkontzeko bidean ikusteak gehiegi alaitzen. (ZIN: 151).

- Ez geroi —**gogorragoak ikusi izan dira**— gerta dakigukeelako bakarrik. Ez; ez delako aski gainera gizon bati, urkatzaileari, erru guztia egozte eta hura gizartetik baztertzea. (ZIN: 139).

Zenbaitetan, bada, mota honetako parentetikoetan kausa, ondorioa, kontzesio... bi enuntziatuen arteko harreman logikoak ez dira marka formalez agertzen, baina hitzez hitz, esplizitoki esan gabe ere lotura horrezaz jabetuko gara. Beste hainbat adibidetan, enuntziatu parentetikoak inolako marka formalik gabe, oinarritzko enuntziatua iruzkindu, kritikatu, indartu, dudan jarri, kuestionatu egingo du. Holakoetan, enuntziatu parentetikoa, hein handi batean, instrukzio- edo jarraibide-multzoa izango da. Instrukzio-sekuentzia hauek norentzakoa gidatu egiten dute, bai testuaren zentzua interpretatzeko unean, bai testuaren koherentzia eratzerakoan.

- Nabari zaio ez dela gaia zenbaiten (**askoren edo gutxi batzuen?**) gogoko izango eta hala ere, edo horrexegatik beragatik, batere beldur eta kupidarik gabe azaldu nahi luke. (ZIN: 145).

Eta, beraz, testua interpretatzea prozesu aktiboa, sortzailea da (inferentziazkoa), eta hori garbi ikusten da *A* tipotzat jo dugun parentetiko-motan; ez baita deskodetze soil.

Interpretatzean, izan ere, testuan bertan agertzen ez diren zerak gehitzen zaizkio, hots, inferentzia bidez jasotako informazioa.

Ildo honi jarraituz diogu interpretatzea “puzlea” egitearen pareko egintza dela. Helburua, koherentziazko irudia eratzea da, eta horretarako hainbat pieza sortu beharrea aurkitzen gara.

Horrek ez du esan nahi, haatik, testu barneko koherentzia erabat ezezten dugunik, eta horren lekuko *B tipoa* bezala bataiatu dugun parentetiko-mota litzateke. B tipoa bi enuntziaturen arteko koherentzia kohesio-mekanismoek adierazten dute. Horren lekuko, talde honetako enuntziatu parentetikoan bertan agertzen diren testu-mailako kohesio-emaileak edo mekanismoak lirarteke: erreferentziazko kohesio-mekanismoak eta konexio-mekanismoak.

- Eta gure arimaren eguneroko —**edo asteroko**— ogia hori dugunez gero, hemen ere aterpe txiki bat, narrasa bada ere, utzi nahi genioke. (ZIN: 123).

- Neurritz gaineko gizona, jenioa —**hitz hori hamaika aldiz entzuna dugu**—, ez da besteen legeetara makurtzeko sortua. (ZIN: 136).

C tipoa, ordea, aditzaren flexioak menderagailuaren marka formala darama, eta alde horretatik, itxuraz, mendeko perpausaren aurrez aurre geundeke. Gure hipotesia da holakoetan ere, enuntziatu parentetikoak ez duela E1 oinarritzko enuntziatuarekin mendekotasun-harremana gauzatzen, goragoko edo gainetik dagoen *esan* aditzaren mendekoa ez bada:

- Egiatzko lirika, izen horren duin dena alegia —**ez baita aski hitzak lerro lerro banatzea**—, da noski giza mintzoak menderatu duen gailurrik garaiena. (LIB I: 63).

- Dirudienez, **ez baitut kontatu**, 255 lerro utzi nizkion Larramendiri, “cuya obra principal es un diccionario vasco-español (atzekoz aurrera irakur beza irakurleak) plagado de aberraciones”, eta 38 Bilintxi, beste zenbaiten artean. (LIB II: 83).

Honenbestez, A tipoaren eta B tipoaren arteko desberdintasuna, E1 eta E2 enuntziatuen artean koherentziazko harremana gauzatzeko kohesio-mekanismoak agertu/ez agertzean oinarritzen da. Izan ere, bai batean eta bai bestean ez da sintaxi mailako lotura formalik agertuko.

C tipoa, ordea, ezaugarri pertinentea ez da kohesio-mekanismoak agertzea/ ez agertzea izango. Mota hau beste bietatik bereiztera garamatzana honako hau da: E1 oinarrizko enuntziatuaren eta E2 enuntziatu parentetikoaren artean harreman sintaktikorik egon ez arren, perpaus mailako marka sintaktikorik ager daiteke. Horrek ez du esan nahi, ordea, bi enuntziatuen artean perpausera lerratutako lotura sintaktikorik dagoenik; izan ere, marka formal horiek ez dute E2 enuntziatua E1 enuntziatuarekin josten, elipsian dagoen modalizazio edo enuntziatio-mailako beste enuntziatu batekin baizik.

Hiru tipoek, bada, batean dute bi enuntziatuen artean perpausera lerratutako lotura sintaktikorik ez izatea, bien arteko harremana koherentziazkoa izatea eta beren eginkizuna makroegitura batean kokatzea. Besterik da gero, koherentziazko harremana inolako kohesio-mekanismorik gabe adieraztea (A tipoa), kohesio-mekanismoekin agertzea (B tipoa) edota harreman sintaktikorik izan ez arren, sintaxi mailako marka formala eramatea (C tipoa).

Honatz, laburbilduz:

Tipologia sintaktiko-testual eta diskurtsozkoa	E1en eta E2ren artean ez dago lotura sintaktikorik	E1n eta E2ren artean ez dago marka sintaktiko formalik	E1en eta E2ren artean koherentziazko harremana kohesio-mekanismoz gauzatzen da	Informazioa makroegituran kokatzen da: - enuntziatio-mailan - modalizazio-mailan - argudio-egituran - informazio-egituran
<b>A TIPOA</b>	+	+	-	+
<b>B TIPOA</b>	+	+	+	+
<b>C TIPOA</b>	+	-	-	+

Beraz, ezaugarri sintaktiko, testual eta diskurtsozkoen arabera, hiru parentetiko *tipo* bereizi ditugu, eta jarraian tipo bakoitzari dagozkion ereduak ikusiko ditugu; ondoren eredu bakoitzeko esanguratsuenak gertatzen zaizkigun adibideak erantsiko ditugu.

Badirudi, bada, horrela jokatuta abstraktuenetik konkretuenera doan bidea egin dugula, baina analisisa egitean justu alderantzizko bidea hautatu dugu; izan ere, ezaugarri abstraktuetara iristeko, aldez aurretik, corpuseko adibide konkretuetan oinarritu gara, eta adibide horien azterketak eraman gaitu parentetiko tipoak planteatzera, ezaugarri sintaktiko, testual eta diskurtsozkoen arabera, hain zuzen ere.

Beraz, corpuseko adibideak ahalik eta modurik sistematikoenean multzokatu eta aztertzeko, gatozen corpuseko adibide zehatzak eredu nagusietan multzokatzera.

### 6.3. A TIPOA

A TIPOARI dagokionez, honako eredu hauek bereiz ditzakegu:

A TIPOA		
PARENTETIKO motak	Zenbat adibide	% zenbat
<b>MODALITATE ALDAKETA:</b> E2 Enuntziatuak ez du E1 enuntziatuak duen modalitate bera	38	%8.37
<b>Estilo zuzena</b>	39	%8.59
<b>Aditza daramaten enuntziatuak: IS+AS egitura</b>	86	%18.94
<b>Aditzik gabeko enuntziatuak</b>	291	%64.09
<b>GUZTIRA</b>	454	%100

#### 6.3.1. Modalitate aldaketa adierazten duten parentetikoak<sup>139</sup>

Esatariak zentzua emateaz gain, jarrera bat hartzen du perpausak osatzean. Jarrera horren arabera, (modalizazioa) perpausak lau motatakoak dira, oraindik ere bakunak ala elkartuak diren kontuan hartu gabe. (Alberdi 2008: 84).

1) Oinarrizko enuntziatua adierazpenezkoa izanik, enuntziatu parentetikoa galderazkoa, harridurazkoa, desirazkoa nahiz aginterazkoa... izan daiteke, eta horrek agerian jartzen du bi enuntziatu desberdin direla.

<sup>139</sup>Modalitate-aldaketa adierazten duten enuntziatu parentetikoak, aldi berean, izan daitezke aditza daramaten enuntziatu nahiz aditzik gabeko enuntziatu ere. Nahiz eta hori hala dela jakin, sail berezi batean biltzeari iritzi diogu egokien.

Modalitate-aldaketa: E2k modalitate aldaketa dakar E1 ekin erkatuz	zenbat adibide	zenbatekoa %
<b>GALDERAZKOAK</b> (galde ikurra daramate)	19	%54.05
<b>HARRIDURAZKOAK</b> (harridura ikurra + “oi”, “ai”... bezalako interjekzio partikulak)	7	%18.91
<b>AGINTERA</b> (aditza aginteran)	10	%27.02
<b>Oinarrizko enuntziatua (E1 edo E3) adierazpenezkoa izanik</b>		

Zenbakiz adierazi ditugun datu horien adierazgarri dira honako adibideok:

A) Oinarrizko enuntziatua adierazpenezkoa izanik, enuntziatu parentetikoak galderazkoa edo galde-perpaua da:

- Baina kopet harro ez direnek (**ez garenek?**) ez dute damu izango ikustera joana. (ZIN: 124).

- Nabari zaio ez dela gaia zenbaiten (**askoren edo gutxi batzuen?**) gogoko izango eta hala ere, edo horrexegatik beragatik, batere beldur eta kupidarik gabe azaldu nahi luke. (ZIN: 145).

- Behingoz bederen, zinemak, xpillu (**zeren xpillu gero?**) izateari utzirik, amets-ateak iriki dizkigu, Albert Larrorisseri eskerrak. (ZIN: 170).

B) Oinarrizko enuntziatua adierazpenezkoa izanik, enuntziatu parentetikoak harridurazkoa da:

- Esate baterako, jainko-jainokosak h-z jositako hizkera batean (**ai, behar den lekuan baleude!**) mintzatzen dira, eta gizon hilkorrak halako Bizkai-usai arin bat darion beste batean. (LIB I: 68-69).

- Eta azken urteotan euskal gaietan egin ditugun aurrerapenez miretsirik baldin gagaude —**ai, aurrera egin bagenitu beti aurrerapen horiek!**—, ez dago ahaztuzterik aurrerapen horiek, gaurko izaerak eta egoerak, aldi igaroetan dutela erroa eta oinarria, batez ere oraindik orain, atzo esan dezakegu, euskaraz mintzatzen, hitz lauz nahiz neurtuz, ahalegindu ziren idazle eta bertsolariengan. (LIB II: 52).

C) Oinarrizko enuntziatua adierazpen-perpaua izanik, enuntziatu parentetikoa aginte-perpaua da:

- Liburuak egiteko gaien bila 1970-eko udan hasi zenean, Sanchez Carrionek, ikaslea zelarik, ozta-ozta zuen bukatua lehendabiziko urtea, komunetako —**hitzaren itsusia barka**— lehendabiziko urtea. (LIB II: 158).

- Aspaldi ez duela (**ikus EGAN 1962, 309-310 orr**) Aita Zavalak Txirrita bertsolariari jaso zion bezain oroitarri iraukorra eraiki dio orain beste bertsolari handi bati: Pello Errotari. (LIB II: 129).

Gerta daiteke, ordea, oinarrizko enuntziatuak adierazpena ez den beste modalitate bat izanik, E2 enuntziatua adierazpenezkoa izate. Horrelakoak oso dira urriak (2 adibide):

- Ez ote genuen ikusi nola joan zen “Monseur Vincent” —**ez zen film txarra**— tximistak egiten gure artetik, karitateari buruz zalapalarta gehiegitxo ateratzen zuelako edo, gure kritikak, edozein “Sor Angelica” edo “Madre Alegria” laudorioz betetzen duen kritika horrek, txintik esan gabe? (ZIN: 139).

- Zein euskal sukaldetan —**ez naiz pulpituez ari**— entzun da sekula, adibidez, 100. gn. orrialdean Eñaut Zaharrak emazteri zuzentzen dion bezalako predikurik? (LIB I: 57).

Bai galderazkoek, bai harridurazkoek eta baita aginterazkoek ere badute ezaugarri bat komunean. Hirurak dira esatari-enuntziatzaile(ar)en egoeraren adierazgarri.

Galderazkoek, esterako, duda-muda adieraz dezakete, ezagutzagabetasunaren adierazle izan daitezke, edota, Mitxelenaren artikuluetan gertatzen denez, eztena edo miztoa sartzeko erabil daitezke, baita kortesiazko erabilerak bultzaturik ere. Maiz aski, esatariak berak adierazpenezko enuntziatuetan esandakoari buruz bat-batean, espontaneoki, egindako iruzkinak dira; adierazpenezko enuntziatuak modalizatu egiten dituzte, beraz.

Corpusean, asko eta askotan, oihartzun-galderak agertzen dira; hau da, oinarrizko enuntziatuan esandakoa errepikatuz egindako galderak.

- Zer arraiotarako behar du euskaldun berriak jakin nola esaten diren “apogeo” eta “Perigeo” (**Nola esaten diren?**). Bada ordu gure egitekoari lot gakizkion... (LIB II: 49).

Baita oinarrizko enuntziatuan esandakoak sorrarazten dizkion galdera erretorikoak ere:

- Hemen, egia esan, bideak zabalik zeuden, baina euskararen truk beren ametsak eman nahi dizkiguten gramatikalarien axolagabekeria batetik eta idazleen lasaieria bestetik (**ba ote dago nork bere gogora, antzora, eta moldera egitea baino errezagorik?**), aspaldi josi zitzaigun otez eta elorritz. (LIB I: 139).

Beste hainbatetan oinarrizko enuntziatuan esandakotik pixka bat aldentuz, oinarrizko enuntziatuan esandakoa kuestionatu edo zalantzan jartzeko baliagarri gertatzen zaizkio:

- Behingoz bederen, zinemak, ixpillu (**zeren ixpillu gero?**) izateari utzirik, amets-ateak iriki dizkigu, Albert Larrorisseri eskerrak. (ZIN: 170).

Hainbatetan, enuntziatu parentetikoak kortesiazko-estrategia egokiak gertatuko zaizkio:

- Baina kopet harro ez direnek (**ez garenek?**) ez dute damu izango ikustera joana. (ZIN: 124).

Harridurazkoek, berriz, oinarrizko enuntziatuan esandako edo esaten ari den zerbaitek eragindako erreakzioa adierazten dute: beldur-hotsa, haserrea, ustekabea, alarma-oihua, kezka, atsekabea, desioa etab. Esatari-enuntziatzailearen arima mugiaraz dezakeen zernahi egoera edo gertakizunek harridura sorraraz dezake.

- Direnak direla, garai hartako aztarna aurpegian daramate (“**O egiputzua gloriosoa!**”) eta nork esango du gure oraingo hau baino kaxkarragoa zenik? (LIB II81).
- Clark Gable´ren kaskoa —**ai, gurearen gisara!**— gero eta urdinago ageri dela ere esango nizueke, baino hori badakizue honez gero, nik bezain ongi. (ZIN: 141).
- Oker ez banabil, bi horiek barrenen ditugula, guztira (**o Oteiza adiskidea!**) hamairu (sic) dira. (LIB II: 101).
- Esate baterako, jainko-jainkosak h-z jositako hizkera batean (**ai, behar den lekuan baleude!**) mintzatzen dira, eta gizon hilkorak halako Bizkai-usain airn bat darion beste batean. (LIB I: 68-69).

Aginduzkoek, berriz, esatariak norentzakoa zerbait egitera mugiarazten du:

- Dirudienez, ez baitut kontatu, 255 lerro utzi nizkion Larramendiri, “cuya obra principal es un diccionario vasco-español (**atzekoz aurrera irakur beza irakurleak**) plagado de aberraciones”, eta 38 Bilintxi, beste zenbaiten artean. (LIB II: 83).
- Liburua egiteko gaien bila 1970-eko udan hasi zenean, Sanchez Carrion-ek, ilaslea zelarik, ozta-ozta zuen bukatua lehendabiziko urtea, komunetako —**hitzaren itsusia barka!**—lehendabiziko urtea. (LIB II: 156).

Hau guztia, ordea, diskurtso-eginkizunean sakonduko dugu. Halere, kontua da diskurtsoan duen eginkizun zehatz batek forma desberdinak izan ditzakeela; baita guztia enuntziatu parentetiko bidez emana egon arren. Diskurtso-estrategia bezala aztertzean, bada, funtzioa edo komunikazioan duen eginkizuna izango dugu iparroratz. Formazko azterketa honetan, E2 enuntziatuak modalitate aldaketa dakar E1 enuntziatuarekin erkatuz eta ezaugarri formal hori bihurtzen da arreta gunea.

### 6.3.2. Zuzeneko diskurtsoa edo zuzeneko aipua

Zuzeneko aipua aztertzeko abiapuntutzat enuntziazioaren teoria hautatu dugu. Enuntziazioaren teoria honek bere egiten baitu, batetik, Bajtin-en *dialogismoa* eta



Benvenisteren *enuntziatio markoa* eta bestetik, Ducrot-en (1984) nahiz Authier (1982) eta abarrek proposatzen duten enuntziatioaren *polifonia* gertakaria.

Zuzeneko estiloa da, izan ere, *dialogismoaren* edo polifoniaren gertakaria argien aditzera ematen duena. Oraingo honetan, izan ere, esatariak ez ditu “enuntziatze-ikuspuntuak” bereganatzen, “dialogismoan” ohikoa denez; areago doa.

Gerta daiteke diskurtso batean esatariak enuntziatzailearekin bat egitea:

ESATARIA 1 (edo solaskidea)<sup>140</sup> = ENUNTZIATZAILEA 1

- Gero, **eta egoki dator hori ere**, baditu bi aldiz, 12garren eta 25garren ikasgaien ondotik, gramatika laburpenak ere. (LIB II: 153).

Holakoetan, bien arteko batasuna, identifikazioa edo adostasuna genuke, baina gerta daiteke esataria enuntziatze-ikuspuntuarekin bat ez etortzea ere.

ESATARIA 1# ENUNTZIATZAILEA 1

- Diodan orrialdean bi aldiz agertzen da *dordoa*. Ez nekien ongi zer zen eta Azkuegana jo behar: Bizkaiko hitza oman da *durdua* “dificultad” eta Mogelek (**baina zein Mogelek eta non?**) darabilena. (LIB I: 114).

Holakoetan, adibideak argi erakusten digun bezala, banaketa edo desadostasuna izango genuke, eta esataria enuntziatzaileak dioenetik aldendu egiten da.

Gerta daiteke, ordea, eta aztergai dugun zuzeneko estiloan horixe da, gure ustez, gertatzen dena, esatari batek beste enuntziatzaile baten ikuspuntuak bereganatu baino gehiago bi esatarien enuntziatuak (diskurtsoak) elkarrekin gurutzatzea:

ESATARIA 1= ESATARIA 2

Bi enuntziatu ditugu, bata “esataria 1-ena”, eta bestea “esataria 2-rena” eta enuntziatu (edo diskurtso) bakoitza bere komunikazio (edo diskurtso) egoera jakin bati dagokio. Baina esataria 2-k esataria 1-en zuzeneko hitzak bereganatu eta bere komunikazio-egoeran

<sup>140</sup>Larringanek doktoretzako tesian (1995: 60), “esataria 1” bezala izendatu duguna S1 izendatzen du eta enuntziatzailea S0.

integratu ditu. Beraz, bi esatarien enuntziatuak (edo diskurtsoak) diskurtso bakar batean integratzen dira (Casamiglia & López 2001).

Zuzeneko estiloak, ordea, egitura parentetikoa ote du? Ez zuzeneko egitura guztiek, baina bai, gure ustez, honelako ezaugarri sintaktikoak betetzen dituztenak:

### 6.3.2.1. ZUZENEKO DISKURTSOAREN MOLDEA HARTZEN DUEN EGITURA PARENTETIKOAREN EZAUGARRIAK

1)- Zuzeneko estiloaren egitura duten parentetikoek bi enuntziatu izango dituzte:

- zuzeneko hitzak (literalak) barne hartzen dituen enuntziatua, edo E1 oinarrizko enuntziatua, eta
- zuzeneko hitz horiek aditzera emango dituen enuntziatu markoa, edo E2 enuntziatu parentetikoa.

Gerta daiteke, ordea —eta corpuseko hamabi adibidetan hala gertatzen da—, “esataria 1-en” zuzeneko hitzak ez egotea oinarrizko enuntziatuan, enuntziatu parentetikoan baizik. Halakoetan, ordea, ez dugu enuntziatu markorik, “aipu-marken” marka ortotipografikoa eta egitura parentetikoen marrak edo parentesiak dira “esataria 1-en” zuzeneko hitzak “esataria 2- ren” hitzetatik bereizten dituenak:

- Eta hainbeste esaera gogoangarrik (“**koldarra ehun bider hiltzen da; bihoztunak, ordea, ez du heriotza behin baino gehiago dastatzen**”) gehiago merezi zuen. (ZIN: 127).

- Beste zerbait ziren, ordea, garai hartako askorentzat eta batez ere orduko beati posidentes zirenentzat: nolabaiteko bizimodu nabarmena daramaten arlote alprojak (“**Hoa, har ezak lizunkeriazko emaztea eta sor itzak lizunkeriazko seme-alabak**”), oihu eta garraxi herriz-herri dabiltzan bazter nahastaileak. (ZIN: 117).

Adibide horietan argi eta garbi ikusten da zuzeneko hitzak ez direla beti literalki, diren direnean, hartzen, zenbaitetan, zilegi da bere diskurtsora integratu dituen esatariak pixka bat berregituratzea. Esaterako, adibide horietan, esatariak zuzeneko hitzak euskaratu egiten ditu.

Holako adibideak, corpusean gutxienak izateaz gain, ez dute zuzeneko estiloaz ulertzen duguna zuzen-zuzenean betetzen. Zuzeneko estiloaren egitura duten parentetikoek, goian esan dugunez, zuzeneko hitzak aditzera emango dituzten enuntziatu-markoaren zeregina dute.

2)- Enuntziatu markoa *verba dicendi* motako komunikazio-aditzek osatuko dute eta marren artean edo parentesien artean kokatuko dira (baita bi komen artean ere, nahiz aukera hau Mitxelenak beste biak baino gutxiago erabili).

3) Enuntziatu markoak, gainera, “zuzeneko hitzak jasotzen dituen enuntziatuaren egitura sintaktikoa hauts dezake”, edo zuzeneko hitzak jasotzen dituen enuntziatuaren bukaera-bukaeran agertu. Baina inoiz ez “komunikazio-aditza bi puntuak eta zuzeneko hitzak” egituraren azpian.

Beraz:

a) Batzuetan, E1 enuntziatuaren eskema sintaktikoa hautsi egingo du enuntziatu markoak:

- “Berak eraman du bertsolaritza” —**dio Aita Iturriak**— “periodiku eta radioetara” (Lib:144).

- “Berak eraman du bertsolaritza periodiku eta radioetara” —**dio Aita Iturriak**—<sup>141</sup>.

b) Ez dugu aintzat hartuko bi punturekin eta estilo zuzenaren elementu abiarazleren batekin gauzatzen den zuzeneko estiloa:

- *Honela dio Aita Iturriak: “Berak eraman du bertsolaritza periodiku eta radioetara”*

#### 6.3.2.2.1 Aditz-mota: *verba dicendi*

*Verba dicendi* edo komunikazioko aditzak, oro har, gizakien hitzezko egitateak azaltzen dituzten aditzak dira, baina ez guztiak: bereziki komunikaziokoak diren haiek baizik; hau da, zerbait transmititzeko edo helarazteko intentzioa duten haiek. Ikus dezagun zein eginkizun duen aditz-mota honek Concepción Maldonadori (1991, 1999) jarraituz.

Berariaz komunikaziokoak dira *esan, adierazi, komunikatu, galdetu, azaldu, ziurtatu*, etab. Hauek guztiak subjektua eta norentzakoa gizakia dute.

<sup>141</sup>Holako adibide-motarik ez dugu aztergai dugun corpusean aurkitu, baina zilegi da horrelako adibiderik erabiltzea.

Corpuseko adibideak taula bidez laburbilduko ditugu:

Zuzeneko hitzen enuntziatu-markoa	Komunikazio-aditzak ( <i>verba dicendi</i> )		Zenbat adibide	% zenbat
	<b>Jokatu trinkoa</b>	<i>dio</i>		16
<b>Jokatu perifrastikoa</b>	<i>Esan du</i> (+bukatua, +oraina)		1	%3.7
	<i>Esango du</i> (-bukatua, +geroa)		2	%7.4
	<i>Esaten digu</i> (-bukatua, +oraina)		1	%3.7
	<i>Esaten ziguten</i> (-bukatua, +iragana)		1	%3.7
	<i>Irakurtzen dugu</i> (-bukatua, +oraina)		1	%3.7
	<i>Norbaiten hitzak hartuko ditugu ahoan</i> (-bukatua, +geroa)		1	%3.7
	<i>Norbaitek du hitza</i> (+puntuakaria)		1	%3.7
	<i>Esan daiteke ikurritza</i> (+ke-dun forma)		1	%3.7
	<b>Jokatugabea</b>	<i>Aitortua</i>		1
<i>Esanda</i>		1	%3.7	

Datu horien adierazgarri, hona hemen corpuseko adibide batzuk:

- “Bertso oyek —**dio Aita Zavalak**—Euskalerrri guzira zabaldu ziren...” (LIB II: 122).

- Badugu denok, **esaten digu Cayattek**, bai gerok ere, zer ikusirik auzi horretan (ZIN: 138-139).

- “Harrigarria da —**dio gutxi gorabehera, maiz aipatzen dudana Donostiako kritiko erne eta trebe batek**— zein zuzen dabilen film hau gertatutakoen ondoan, zein zehazkiro biztu duen Douglas Sirk´ek aldi joana. (ZIN: 142).

Azken adibide horrek erakusten du beti ez direla besteren hitzak dauden-daudenean, literalki berresaten; nahiz eta zuzeneko diskurtsoa izan, zuzeneko aipuak berrartu dituenak, aldeaz edo moldez, berregituratu ere egiten duela:

Un texto citado es, pues, una imagen de otro: lo representa como si fuera una fotografía, un dibujo, o una grabación. Pero esa imagen, como veremos, no es nunca completa, y rara vez es fiel. (Reyes 1999: 12).

Aditzei helduz, ordea, goian aipaturikoez gain, “besteren hitzak gogoan hartu” bezalako esapidea, nahiz “irakurtzen dugu” bezalako aditzak ere badarabiltza:

- “Zanpatua zeukan Leturia” —**irakurtzen dugu azken liburuaren hitzaurrean**—“aukeratubear” aren larritasunak”. (LIB I: 137).

- “Azkenean —**besteren hitzak hartuko ditugu ahoan**—, ikusia zegoanez, Ben Trane zintzoak hiltzen du Joseph Erin bihurria”. (ZIN: 143).

Corpusa aztertuta, ohikoena hala bada ere, ezin dezakegu esan —eta alde honetatik ez gatoz bat Maldonadorekin (1991)— aditz guztiek, ezinbestean, jokatuak izan behar dutenik:

- “Erlijoan bertan askozaz gehiago zor zion (**berak aitortua**) Gandhik kristautasunari, edozein europar nabarmenek budismoari baino” (LIB I: 141).

- Buruz dakigun ipui honek, haurtxorik beldurtiena asaldatuko ez duten Robinsonen ibilerak, **berak esanda**, uki gaitzake. (ZIN: 153).

En los incisos C. Maldonado separa los que llevan un verbo conjugado, al que llama verbo parentético, y los que llevan una exclamación o un sintagma nominal, que descarta. Los verbos pueden ser de comunicación, pensamiento, sentimiento o con sentido figurado. Coincide, pues, el verbo parentético y el del discurso directo en ser un verbo de comunicación en primera persona del presente. (Fuentes 1998: 147).

Gu ez gara parentetiko estatusa duen aditzik badagoenik esatera ausartzen, ez eta enuntziatu parentetikoetan agertzen diren komunikazioko aditzak ezinbestean lehen pertsonan agertzen direnik ere (corpusa horren lekuko). Gure ustez, egitura parentetikoan agertzen diren aditzak lirateke parentetiko, baina hauek ez dira egitura parentetikora bakarrik lerratzen; edozein egitura sintaktikotan ager daitezke. Kontua, gure ustez, ez da hainbeste parentetiko estatusa duen aditz-tipoak egiten duela egitura bat parentetiko; *egitura parentetiko* bezala izendatu dugun egitura sintaktiko zehatz bat egoteak baizik. Besterik da egitura mota horretan zein aditz mota agertzen den zehaztea.

Printzipioz, edozein aditz izan daiteke egitura parentetiko batean agertzeko gai, nahiz eta komunikazioko aditz bezala edo *verba dicendi* bezala izendatu ditugun horiek aukera gehiago izan (ikus § 6.3.3.).

Bada, ordea, aditzik, zita edo zuzeneko hitzak tartekatzeke gai izateaz gain, iruzkin edo informazioren bat eransteke gai denik: ziurtatu, aitortu<sup>142</sup>, etab. *Ziurtatu* aditzak, esaterako, esatearen ekintzaz gain, esandakoari buruzko ziurtasun-gradu bat eransten du. *Esango du* batek ziurtasun falta bat adieraziko digun bezala.

Honenbestez, corpusean, *verba dicendi* direlakoan artean “adierazpenezko aditzak (*esan, irakurri, aitortu...*) ez ezik, baditugu iritzi-aditzak (*uste izan, iruditu, iritzi...*), balio positiboko aditzak (*goraipatu...*), balio negatibokoak (*kritikatu*), aginduzkoak (*agindu, galarazi*) eta eskaerazkoak (*eskatu*) ere.

#### 6.3.2.1.2. Zuzeneko hitzak aditzera ematen dituen enuntziatuaren (E1) eta enuntziatu markoaren (E2) arteko harreman sintaktikoa

Aztertzaileen iritziak bereiz dabilta bi enuntziatuen arteko harreman sintaktikoa zehaztean.

##### a) Zuzeneko estiloa, deiktiko edo erakusle baten aposizio gisa

Harreman mota honetaz gehiago jakin nahi duenak jo beza Banfield (1973), Partee (1973), Cram (1978). Aztertzaile horiek, oro har, enuntziatu markoan agerian, esplizituki, agertzen ez den erakusle bat ikusten dute:

- (Honako hau) galdetu zidan: “Nola deitzen da?”

Aztertzeke modu hau, ordea, ez dator bat bete-bete gure aztergaiarekin. Era horretako adibideak saihestu baititugu enuntziatu parentetikoaren egiturarik ez dutelako.

##### b) Zuzeneko aipua *esan* aditzaren osagarri zuzen bezala

<sup>142</sup>Aditz hauek “perlokuziozko” edo “ziozko”aditzak” dira; hau da, esatean egiten edo gauzatzen direnak.

Entre los gramáticos que han estudiado el DD ha sido mayoritariamente defendida la definición sintáctica de la cita directa como objeto directo del verbo de decir de la expresión introductora, y suele ser habitual incluir el estudio del DD y el DI en el capítulo de la subordinación sustantiva. (Maldonado 1999: 3568).

Teoria horren arabera, zuzeneko estiloko egiturak mendeko perpausen barnean aztertu ohi dira. Horren lekuko, espainiar aztertzaileen artean, Hernández Alonso (1984: 231) eta Gutiérrez (1986) aipatu behar. Beste hizkuntzetan, Authier (1979), Banfield (1973), Cornulier (1978), Coulmas (1985), etab.

c) Zuzeneko aipuak eta enuntziatu markoa egitura alboratuak dira

Teoria honen aldeko agertzen da Maldonado ere (1991, 1999)

Desde una definición de la yuxtaposición como un fenómeno discursivo, creemos que el discurso directo consiste, sintacticamente, en la yuxtaposición de la expresión introductora y la cita directa. Entre ambas no hay ningún enlace formal.

La expresión introductora y la cita directa son dos estructuras yuxtapuestas que constituyen un solo enunciado (el discurso directo), cuya correcta interpretación exige la presencia de ambos constituyentes. (Maldonado 1999: 3569-70).

Hurbilbide horiek guztiak, ordea, gehiago dagozkio alde zuzenetik saihestu ditugun zuzeneko estiloari; hau da, enuntziatu markoa hasieran eta ondoren bi puntuak agertzen den egiturari. Eta ez egitura parentetikoan agertzen den zuzeneko estiloari.

Egitura parentetikoa aukeratzen duen zuzeneko diskurtsoa azaltzeko diskurtso-hurbilbidea hobesten dugu; guk era honetara ulertzen dugu:

d) Diskurtsoaren analitik emandako azalpena

Gure ustez, bi enuntziatu daude: oinarrizko enuntziatua edo zuzeneko aipua jasotzen duena eta enuntziatu parentetikoa edo zuzeneko hitz horiek aditzera emango dituen enuntziatu markoa. Guk ez dugu koordinaziozko harremanik ikusten, ezta juntagailurik gabeko koordinazioa izanda ere (hau da, alborakuntza). Bi enuntziatu batean uztarturik

agertzen dira; bi enuntziaturen sintesia dela esango genuke; baina ez juntadura edo menderakuntza-harremanean dagoen enuntziatu bakarra.

Bi enuntziatu horietatik, enuntziatu markoa posizio markatuan kokatzen da, inolako juntagailu edo konjuntzio markarik gabe. Marka tipografikoek (marrak, parentesiak edo bi komak) predikazio nagusitik at dagoen posizio batean kokatzen dute; izan ere ez da esatari berak egindako baieztapena. Bi diskurtso daude jokoan, esatari banari dagozkion bi diskurtso, eta batek bestearen eskema sintaktikoa hauts dezake. Beraz, hor ez dugu inolaz ere koordinaziozko edo mendekotasunezko harremanik ikusten.

A esatariaren diskurtsoa B esatariaren diskurtsoan edo enuntziatuan tartekatzen da. Diskurtso-unitateekin jokatzen dugunez gero, eta gutxieneko diskurtsoa “enuntziatua” denez gero, enuntziatu bat (E2) beste batean (E1) tartekatzen dela esango genuke, nahiz azken honen eskema sintaktikoa hautsiaz tartekatu. Bi enuntziatuek bere eskuko izaten jarraitzen dute, halere; bi enuntziatu izaten jarraitzen dute eta horren adierazgarri da diskurtso bakoitzak bere erakusle-sistema bere horretan gordetzea, edota, modalitate desberdina izaten jarraitzea.

Hauxe da, bada, atal honen buruan aipatu dugunez, polifoniaren edo dialogismoaren kasurik berezkoena; ez gara oraingo honetan enuntziatzaileen eta esatariaren arteko bereizketaz ari. Are nabarmenagoa da. Bi esatari desberdinen bi enuntziatu gurutzatzen dira: A komunikazio egoera batean A esatariaren diskurtsoa, B esatariak berrartzen du B komunikazio-egoera batera erakarri eta bertan tartekatzeko.

Hori da, bada, gure ustez, azalpenik egokiena eta ez alborakuntzarena. Alborakuntzan nekez hautsiko du enuntziatu batek beste baten eskema sintaktikoa eta nekez kokatuko da posizio markatu batean, *dictum* edo proposiziozko edukitik at.

Honenbestez, egitura parentetikoa hautatzen duen zuzeneko diskurtsoan, beregainak diren bi enuntziatu bata bestearekin gurutzatzen dira; oinarritzko enuntziatua, edo zuzeneko aipua, eta enuntziatu parentetikoa, kasu honetan enuntziatu markoa dena. Enuntziatu markoak zuzeneko aipuak jasotzen dituen enuntziatuaren eskema sintaktikoa hausten du, baina, hala ere, ez du bere eskuko izatearen ezaugarria galtzen: bakoitzak bere erakusle-sistema propioa, nahiz modalitatea bere horretan gordetzen du. Gainera, enuntziatu markoak dakarren informazioak enuntziatio-mailari eragiten dio. Eta euren artean, inolako kohesio-nahiz sintaxi-markarik ez dagoenez gero, A tipoari dagokiola ondorioztatzen dugu.



### 6.3.3. IS+AS egitura duten enuntziatu parentetikoak

Honelako adibideez mintzo gara:

- Ez ote genuen ikusi nola joan zen “Monseur Vincent”—**ez zen film txarra**—tximistak egiten gure artetik, karitateari buruz zalapalarta gehiegitxo ateratzen zuelako edo, gure kritikak, edozein “Sor Angelica” edo “Madre Alegria” laudorioz betetzen duen kritika horrek, txintik esan gabe? (ZIN: 139).

- Nik (**izenordain higuigarri hau ezinbestean darabilt**) lehenago ezagutu nuen Olabide (Itun berriko Olabide, jakina) besteak baino. (LIB I: 112).

- Ez da, labur, Sinclair Lewis'en “Main Street” —**eztena ere falta zaio**—, baina badu guretzat gisa horretako zerbait. (ZIN: 164).

Bi enuntziatuen artean ez dago ez lotura sintaktikorik (C tipoa) ez eta kohesio-mekanismorik ere koherentziazko harremanaren adierazle (B tipoa). Bi enuntziatu elkarrekin gurutzatzen dira. E2 enuntziatu parentetikoak IS+ AS egitura dauka, eta corpuseko adibideek salatzen digutenez, nahiz eta biak modalitate bereko enuntziatuak izan (adierazpenezkoak), E2 enuntziatuko aditz jokatuak aldaketa dakar E1 enuntziatuko aditzarekin erkatuz: aldiari dagokionez (denbora edo tenpusa), pertsona-aldaketari nahiz aditzaren moduari dagokionez (indikatioa, subjuntioa, ahalera, agintera), eta baita aditz-sistemari (NOR, NOR-NORK, NOR-NORI-NORK), edo aditzaren aspektuari dagokionez (+burutua, - burutua, geroa) ere.

#### 1- Pertsona aldaketa

a)- E1 enuntziatuko aditz jokatua hirugarren pertsonan egonik, E2 enuntziatuko aditz jokatua lehen pertsonan agertzen da, dela lehen pertsona pluralean dela lehen pertsona singularrean:

- Kritikak ere, **Donostiako kritikaz ari naiz**, nahigabetsua zelako edo, ez *du* deus askorik esan. (ZIN: 139).

- *Badirudi* gainera (**besteregangandik hartu dut berri hau**) liburu hau 1885ean Tolosan argitara baino lehen agertu zela, Tolosan bertan, 1868an, beste “Santa Genovevaren vicitza” bat, “pertsona prestu guztientzat, baña berezkiro amakin beren seme alabentzat ere egokia”. (LIB II: 43).

- Dassin bera ere —**badakigu guztiok zergatik bidali zuten Ameriketatik**— ez da *ausartu* langile iaio eta adoretzu hauei zor zitzaien neke-saria ematera. (ZIN: 186).

b) Horrelako adibideak ugariak dira corpusean, baina alderantzizko hiru adibide ere baditugu; hau da, oinarrizko enuntziatuko aditza lehen pertsonan egonik, enuntziatu parentetikoko aditza hirugarren pertsonan doana:

- Ez ote *genuen* ikusi nola joan zen “Monsieur Vincent”—**ez zen film txarra**—tximistak egiten gure artetik, karitateari buruz zalaparta gehiegitxo atertzen zuelako edo, gure kritikak, edozein “Sor Angelica” edo “Madre Alegria” laudorioz betetzen duen kritika horrek, txintik esan gabe? (ZIN: 139).

- Geronen txilberrari begira egon ohi garenok izan *dugu* aldi batez liburu honi eskerrak, kanpoalde zabaletan gere burua hegoairatzeko egokiera eta horretarako, **hori da gehien balio duena**, ez dugu beste hizkuntzetara jo beharrik izan. (LIB II: 103).

- Ez geroi —**gogorrakoak ere ikusi izan dira**— *gerta dakigukeelako* bakarrik. Ez; ez delako aski gainera gizon bati, urkatzaileari, erru guztia egoztea eta hura gizartetik baztertzea. (ZIN: 139).

Hirugarren pertsona erabiliz sortutako adibide horiek garbi erakusten dute E1 oinarrizko enuntziatuan aipaturiko zerbaiti buruz esatariak berak duen iritzia edo jarrera adierazteko erabiltzen dituela; hau da, nolabait ere E1eko informazioa ezaugarritu eta modalizatzeke egoki gertatzen zaizkio “izan” aditzarekin sortutako atribuziozko perpausak.

c)- E1 enuntziatuko aditz jokatuak hirugarren pertsonan egonik, E2ko aditza bigarren pertsonan agertzen da:

- Onak gailen, gaiztoak lotsagarri ikusirik azkenean, alai *irtengo dira* zinetik, eta sartu baino zintzoago direlakoan gainera, gogoia honen alde baitzeukaten —**badakizue alderdi horretakoak**

**izaten garela beti, zineman behintzat**— eta eserlekutik mugitu gabe onei eginahalean lagundu baitiete. (ZIN: 124).

- “Ez, ez”. Ez *omen dute* horrako txontxongilo horiek, ohi baino larriagoak izan arren, Erromar itxurarik —**nere gizontxoa Filologia Klasikoa ikasia duzue, izenez behintzat**—, ez giza itxurarik ere. (ZIN: 129).

Holakoek nabarmen uzten dute esatariak norentzakoarekin interakziozko harremana bideratzen duela. Bigarren pertsona hori buruan duen hartzaileari, hots, norentzakoari zuzentzen baitzaio.

d)- Oinarrizko enuntziatuko aditza bigarren pertsonari zuzentzen zaionean ere enuntziatu parentetikoko aditza lehen pertsonan ager daiteke:

- Eta ez *dezazula* Jainkoagatik gutxietsi, **garbizale horrekin ari naiz**, nahi bezain garbi ez deritzozulako. (LIB I: 40).

Adibide horretan aditza berez lehen pertsonan agertzen bada ere, norentzakoari esplizitoki zuzentzen zaio.

Zeintzuk dira, bada, E2 enuntziatu parentetikoan gehien agertzen diren izenordainak? Eta horrek zein interpretazio du? (taulaz baliatuko gara)

PERTSONA-IZENORDAINAK	E1 OINARRIZKO ENUNTZIATUA	E2 ENUNTZIATU PARENTETIKOA
1 SING. NI	7	25
1ª PL. GU	7	19
2ª SING ZU	1	0
2ª PL ZUEK	0	3
3ª SING HURA	67	38
3ª PL HAI EK	4	1

Datuek erakusten digutenez, 86 adibidetatik E1 oinarrizko enuntziatuak 67 adibidetan hirugarren pertsona singularra darama, baina, horietatik guztietatik erdiek baino zertxobait gehiagok (38 adibidek) soilik daramate E2 enuntziatuan hirugarren pertsona. Gainerako

erdiak, E1 hirugarren pertsonan egonik ere, lehen pertsona hautatzen baitu dela singularra dela plurala. Hona hemen aldaketak xeheago:

Pertsona izenordea E1	PERTSONA IZENORDEAK E2							% ZENBAT
	NI	GU	ZU	ZUEK	HURA	HAIEK	Guztira	
NI	5	0	0	0	2	0	7	%8.13
GU	1	4	0	0	2	0	7	%8.13
ZU	1	0	0	0	0	0	1	%1.16
ZUEK	0	0	0	0	0	0	0	%0
HURA	15	14	0	3	34	1	67	%77.9
HAIEK	3	1	0	0	0	0	4	%4.65
Guztira	25	19	0	3	38	1	86	%100
%	%29.09	%22.09	%0	%3.48	%44.18	%1.16		

Goiko taulan genioen E1 oinarrizko enuntziatuak 67 adibidetan HURA izenordaina zeramala. Beheko taulan adierazten zaigunez, 67 horietatik 15 adibidek E2 enuntziatuan NI izenordaina daramate, eta 14 adibidek GU izenordaina. Eta hiru adibidetan bigarren pertsonako izenordaina.

Ehunekoek erakusten digutenez, E1 oinarrizko enuntziatu gehienak (% 77.9) HURA izenordaineekin osatzen ditu Mitxelenak eta %16.26 lehen pertsonarekin, dela NI singularrarekin dela GU pluralarekin. E2 enuntziatuen % 51.18k berriz, lehen pertsona daramate.

Garbi dago, bada, enuntziatu parentetikoa lehendabiziko pertsonan egotea dela ohikoena, nahiz eta E1ek hirugarren pertsonako aditza izan. Egia da hirugarren pertsonan ere adibide ugari daudela, baina oro har, adibide horietan ez da aldaketarik gertatzen; hau da, ez da oinarrizko enuntziatua lehen pertsonan egonik, enuntziatu parentetikoan hirugarren pertsona hautatzen (4 adibidetan izan ezik).

## 2. Aditz aldiaren aldaketa

a)- E1 enuntziatuko aditz jokatua iraganaldian doalarik, E2 enuntziatuko aditza orainaldian agertzen da.

- Senarra Iñaki (**honela du izena, ez dut nik bataiatu**), pelotari *izan nahi zuen* eta arrantzan gelditua. (ZIN: 133).

- Nik (**izenordain higuigarri hau ezinbestean darabilt**) lehenago *ezagutu nuen* Olabide (Itun berriko Olabide, jakina) besteak baino. (LIB I: 112).

b)- Edota alderantziz: E1 orain aldian egonik, E2 lehenean

- Gerok ere —**zerbait jakiteko zaleturik geunden aspaldian**— *ez ditugu gogo gaiztoz ikusi*. (ZIN: 160).

- *Egia ere da* horratik inguruko baserritarrek, berberak harri eta belarri eginik aitortzen digunez, ez ziotela haren euskal saioei halako harrera ona egiten —**parre ere egiten omen zuten lotsagabe haiek**—, baina ez zen horregatik asko larritu. (LIB II: 52).

Datuak labur ditzagun ondorengo taularen laguntzaz:

Aditz jokatua E2 enuntziatuan	+ burutua	-burutua	geroa	puntukaria	Zenbat adibide (ehunekotan)
Indikatibo oraina	11	7	2	48	%79.06
Indikatibo lehena	3	0	0	4	%8.13
%zenbat	%16.27	%8.13	%2.3	%60.46	

Ahalerari, subjuntiboari eta aginterari dagokionez, oso adibide bakanak aurkitu ditugu: subjuntiboa oraina (aspektu gabea) hiru adibide (%3.4); ahalerari dagokionez, ahalera oraina 2 adibide (%2.3) eta hipotetikoa 4 adibide (%4.6) eta aginterazkoak bi adibide (%2.3).

Garbi dago, bada, E2 enuntziatu parentetikoa, oro har, orainaldiko aditzek osatzen dutela, baina bereziki puntukaria dela nagusiki agertzen den aspektu marka.

- Nik (**izenordain bildurgarri hau ezinbestean darabilt**) lehenago *ezagutu nuen* Olabide (Itun berriko Olabide, jakina) besteak baino. (LIB I: 112).

- Zenbaitek alde hauetan —**Ganivet eta Sánchez Mazas datozkit orain gogora**—Robinson beheratzeari *ekin dio*, bigarren mailako giza-sinbolua, merkatarien neurrikoa, dela eta. (ZIN: 153).

- Hori sortzeko *batu dira*, ezkontzaz ala sasi-ezkontzaz ez dakigu, Italiako edertasuna —**Gina Lollogrigida deritza**— eta Ipar Ameriketako trebetasuna, Robert Z. Leonard izenekoa, agi danean. (ZIN: 157).

Horrek esan nahi du bereziki aditz trinkoen edo sintetikoen erabilera ugaria dela, nahiz eta aditz perifrastikoekin puntukari izaera hori ARI formarekin ere adierazten duen: Horrelako lau adibide ditugu.

- Ba ote dakigu, horratik, zer-nolakoa den hobetu beharrean ari garen hizkera? Neri behintzat —**ikasiagoengatik ez naiz ari**— deus ere ez dakidala iruditzen zait Ibar-en itzulpen hau irakurri ondoren. (LIB I: 103).

- Eta ez dezazula Jainkoagatik gutxietsi, **garbizale horrekin ari naiz**, nahi bezain garbi ez deritzazulako. (LIB II: 40).

- Kritikak ere, **Donostiako kritikaz ari naiz**, nahigabetsua zelako edo, ez du deus askorik esan. (ZIN: 138).

- Bere gizakiek diotena, honek erakutsi die esaten, ez baitira sarri bere baitatik mintzatzeko eta mugitzeko gauza. Zein euskal sukaldetan —**ez naiz kulptioez ari**—entzun da sekula, adibidez, 100gn. Orrialdean Eñaut Zaharrak emazteari zuzentzen dion bezalako predikurik? (LIB I: 57).

Azken batean, puntukari izaera horrek adizkiak markatzen duen ekintza memento edo puntu horretan bertan gertatzen dela adierazten du, eta “puntukaritasun” hori enuntziatu parentetikoaren ezaugarritzaile bihurtuko da. Izan ere, E1 oinarritzko enuntziatua orainaldian (burutuan, nahiz burutu gabea) nahiz iraganaldian egon, E2 enuntziatu parentetikoak indikatibo orain puntuala hautatzen du. Esatariak tartekatzen duen E2 enuntziatua, enuntziatio-ekintza gertatzen den unean bertan gertatzen dela aditzera emateko edo; hau da, enuntziatio-baldintza puntualari eta zehatzari egiten dio erreferentzia enuntziatu parentetikoak.

## 3- Aditz-motaren aldaketa

a) - E1 enuntziatuko aditza edozein motatakoa delarik, E2 enuntziatuko aditza, oro har, *verba dicendi* edo komunikaziozkoa da.

- Diskoak —hizlarien izenik ez *dut aipatuko*, norbait ixilpean uzteko beldurrez— atseginez beterik **entzungo** ditu edozein euskaldunek. (LIB II: 73) .

- Honako liburu hau ez **da** haren zatitxo bat besterik—*zein zati, izenak aski adierazten du—*, Aingeru Irigarayk ederki itzulia eta osatua. (LIB II: 86).

Taula batean laburtuko ditugu datuak garbiago ikus daitezen:

KOMUNIKAZIOKO ADITZAK	E2 enuntziatu parentetikoak	
	Zenbat adibide	% zenbat
<i>Verba dicendi</i> motako aditza		
ESAN	12	%17.64
NORBAITI/ZERBAITI BURUZ ARITU	4	%5.88
DEITU	3	%4.41
ADIERAZI	2	%2.94
AIPATU	2	%2.94
MINTZATU	1	%1.47
BESTEREN HITZAK AHOAN HARTU /HITZA IZAN	2	%1.47
ENTZUN	2	%2.94
<b>Adimenari lotuagoak</b>		
IRUDITU	1	%1.47
SUSMOA IZAN	1	%1.47
GOGORA ETORRI	1	%1.47
IRAKURRI	1	%1.47
ADITU	1	%1.47
IXILDU/ IXILPEAN GORDE	2	%2.94
ZUZEN EGON	1	%1.47
JAKIN	12	%17.64
AITORTU	2	%2.94
BARKATU	1	%1.47
BERRIA HARTU	1	%1.47
GUZTIRA	52	%72.05

Goian, komunikazioko aditzak, izenburuean, *verba dicendi* motako aditzei adimenari lotuago agertzen direnak erantsi dizkiegu. Azken batean, gizakiaren hitzezko egitateak azaltzen dituzten aditzak dira, baina ez guztiak: bereziki komunikaziozkoak diren haiek baizik; hau da, zerbait transmititu edo helarazteko intentzioa duten haiek. Hala ere, ez zaizkigu guztiak neurri berean daudenik iruditu; izan ere, “esatea” bat da, eta besterik da (oso besterik), zerbait jakitea, aitortzea edo zerbaiten susmoa, irudipena izatea. Horietan hitzezko egitea ez ezik, gogoeta mailako hausnarketa ere badagoelakoan gaude.

Horietatik aparte, ugariak dira “IZAN” aditzarekin sortutakoak ere: “hutsak izan”, “ikasia izan”, “ona/txarra/ gogorrena/ beltzena/harritzekoa IZAN” bezalakoak. Guztiak ere esatariak esan duen horri buruzko jarrera edo iritzia emateko bitarteko egokiak. (horrelakoak 25 adibide ditugu). Sail honetakoak, bada, ez dabilta goikoetatik oso aparte, esateko ez ezik iritzia emateko baliabide baitira.

Azkenik, corpusean ditugu ERAMAN, EMAN, IBILI, AURRERA EGIN, PARRE EGIN, AGERTU aditzekin sortutako enuntziatu parentetikoak ere, esatearen egitate bereiziko genituzkeenak. (9 adibide).

#### 4. Aditz sistemaren aldaketa

a) E1 enuntziatuko aditza NOR motakoa izanik E2 enuntziatua NOR-NORK eta NOR- NORI-NORK sistemetakoa izatea:

- Hori sortzeko *batu dira, ezkontzaz ala sasi-ezkontzaz ez dakigu*, Italiako edertasuna —Gina Lollogrigida deritza— eta Ipar Ameriketako trebetasuna, Robert Z. Leonard izenekoa, agi danean. (ZIN: 157).

- Zer du, bada, film honek? Honen antzekoak, *beste behin esan nuen*, ez *dira* igerkizunak besterik izaten: heriotzaren bat aipatzen dute, baina ezinbestekoa izaten da eta odolik gabekoa (ZIN: 174).

- Ulysseren ibilerek —*adierazi nahi digute ia irudi bakoitzean*— erakusten digutena hauxe *da*: jainko etsaiei, izadiaren indar itsuei alegia, gogor egitean dago gizonaren handitasuna. (ZIN: 147).

b) E1 enuntziatuko aditza NOR-NORK izanda, E2 NOR sistemakoa denean:



- Eta ez *dezazula* Jainkoagatik gutxietsi, **garbizale horrekin ari naiz**, nahi bezain garbi ez deritzozulako. (LIB II: 40).

- Ez *du ikusiko*, beharbada, bi liburu hauen launa sailen taxua zernola sortu den (**lorategirik gehienak bestela bereziak agertu ohi dira, abezez ala mendeka**), baina horrek ez du axola handirik horiek irakurtzen har dezakeen atseginerako. (LIB II: 144).

d) E1 enuntziatuko aditza NOR edo NOR-NORK sistemakoa izanik, E2 NOR-NORI motakoa denean:

- Ez *da*, labur, Sinclair Lewis' en "Main Street" —**eztena ere falta zaio**—, baina badu guretzat gisa horretako zerbait. (ZIN: 164).

- Eta ez *daukat*, **zilegi izan bekik hemen berriz aipatzea**, Oñatibia oiartzuarra ahaturik. (LIB II: 154).

e) E1 enuntziatuko aditza NOR-NORK motakoa izanik E2 NOR-NORI-NORK motakoa denean:

- Irakurle landuak, ordea —**euskal gaietan landuak, diot**— nekerik gabe eta atseginez *irakurriko ditu* orrialde horiek. (LIB II: 127).

f) E1 enuntziatuko aditza NOR-NORI motakoa izanik E2 NOR motakoa denean

- Gai honetan, **lasai esan genezake**, Euskaltzaindiaren sariketara agertu direnetarik asko bide onetik abiatuak eta arras aurreratuak *agertzen zaizkigu*. (LIB I: 50).

- Poliki-poliki *dihoakio* Peru erakusten ez euskara bakarrik —**euskaltzalea zen Mogel, inor izan bada, baina ez zuen uste euskara berez ezer denik, zerbaitetarako ez bada**—, beste gauza asko baizik euskararen bitartez...(LIB I: 72).

g)- E1 enuntziatuko aditza NOR-NORI-NORK sistemakoa izanik, E2 enuntziatukoa NOR sistemakoa da:

- Lagunek parre egiten diote —**neskatxa ez da aldamenean harro harro erakutsi nahi izaten ditugun horietakoa**— eta bere ama ere, “Noiz ezkondu behr duk”-ka beti ari zaio ama, ez du sema ezkontzeko bidean ikusteak gehiegi alaitzen. (ZIN: 151).

h)- E1 enuntziatuko aditza NOR- NORI- NORK motakoa delarik, E2 enuntziatukoa NOR- NORK edo NOR-NORI motakoa da:

- Espainia aldean behintzat —**bestetan ez dakit**— bekaitzez *begirutzen diote* gai hauetan hasten denari, elizgizona ez baldin bada, eta ez dut, ahal baldin badut, neure burua auzitegitan ikusteko gogorik. (LIB I: 96).

- Dan O´Herlihy´k —**lehen aldiz aditzen dut bere izena**— prestutasun berezia *eman dio* jantzi duen pertsonari. (ZIN: 153).

- Zenbaitek alde hauetan —**Ganivet eta Sánchez Mazas datozkit orain gogora**— Robinson behertzeari *ekin dio*, bigarren mailako giza-sinbolua, merkatarien neurrikoa, dela eta. (ZIN: 153).

i) E1 enuntziatuko aditza NOR-NORI-NORK motakoa delarik, E2 NOR-NORI-NORK motakoa da:

- Eta atertu gabe aditzera ematen *diguten* irakaspen honetaz jabetu ez bagina ere —**ez digu guziori argitasun berbera eman Jainkoak: zinemagile izango ginатеke bestela zinema-ikusle izan beharrean**—, astiro *azaltzen digute* azkenean “De rerum natura”-tik hartua dirudien hitzalditxo baten bidez. (ZIN: 147).

Taulan laburtuko ditugu datuak:

Aditz sistema	E1 oinarritzko enuntziatua	E2 enuntziatu parentetikoa
NOR	37	27
NOR-NORI	6	2
NOR-NORK	30	46
NOR-NORI-NORK	7	5

Joerarik nabarmenena, E2 enuntziatuko aditz sistema NOR-NORK motakoa izatea da. Aldiz, NORI daraman aditz sistema da gutxien agertzen dena.

Ikus ditzagun datuak xeheago:

Oinarritzko enuntziatua (E1)	E2 enuntziatu parentetikoa					
	NOR	NOR-NORI	NOR-NORK	NOR-NORI-NORK	ZENBAT GUZTIRA	% ZENBAT
NOR	9	0	25	3	37	% 46.25
NOR-NORI	3	0	3	0	6	%7.5
NOR-NORK	12	1	16	1	30	%37.5
NOR-NORI-NORK	3	1	2	1	7	%8.75
GUZTIRA	27	2	46	5	80	%100
% zenbatekoa	%33.75	%2.5	%57.5	%6.25	%100	

Datuen<sup>143</sup> arabera, bai E1 eta bai E2 enuntziatuetan, oro har, NOR eta NOR-NORK sistemako aditzak dira nagusi, baina bada joera bat E1 NOR motakoa izanik ere E2k NOR-NORK sistemari jarraitzeko (25 adibide, %31.25). E1en NOR-NORK sistemako aditzak daudenean joera nagusia da E2n ere NOR-NORK bere horretan gordetzekoa (16 adibide, %20) edo NOR sistemara pasatzea (12 adibide, %15).

## 5. Aditzaren modua

a)- E1 enuntziatuko aditza indikatibozkoa izanik, E2 enuntziatukoa ahalerazkoa da:

- Gai honetan, **lasai esan *genezake***, Euskaltzaindiaren sariketara agertu direnetarik asko bide onetik abiatuak eta arras aurreratuak *agertzen zaizkigu*. (LIB I: 50).

- Baina yeben (**xeben behar *luke izan***) ez da euskal hitza eta horixe *esan nahi dut*, ez dela euskal hitza: (LIB I.115).

b)- Edo alderantziz:

- Liburu honetan bildu diren Artolaren bertsoak —**ez ondu *zitu*en guziak, ezta alderatzeko ere**— hiru zatitan berez omen *daitezke*, eta hitzaurrearen ondotik nabil berriz ere. (LIB II: 52).

<sup>143</sup>Tauletan 80 adibide daude sistematizatuta; sei adibidetan, izan ere, E1 oinarritzko enuntziatuak ez du aditz jokaturik eta beraz, horiek ez ditugu taula honetan kontuan izan:

- *Hona hemen batzu*: zortzi konfiteruak (25.or. Zortzi konfitero ta?), Lonjinos'ek auxe zion (28.or., au zion), ez aldaiteken (31 or) ez al-akiken-en orde (hurrengo **etzala lizentzi entzun izan dut**)... (LIB I: 107).

- Gai aukeraz zerbait esan *daiteke* (**arrantzari hiru hizketaldi ematea gehiegitxo dirudi**), baina batez ere hor agertzen diren hitz-esaerak ez dira jatorregiak, maiz aski ezta dotoreegiak ere. (LIB I: 109).

- Nere begiak behintzat, **zorrotzagoak ez dakit**, ez *ziratekeen* konturatuko, aldeztatik jakin ez banu. (LIB I: 84).

c) E1 enuntziatuko aditza indikatiboa izanik, E2koa aginterazkoa da (forma jokatu):

- Dirudenez, ez baitut kontatu, 255 lerro *utzi nizkion* Larramendiri, “cuya obra principal es un diccionario vasco-español (**atzekoz aurrera irakur beza irakurleak**) plagado de aberraciones”, eta 38 Bilintxi, beste zenbaiten artean. (LIB II: 83).

d) E1 enuntziatuako aditza indikatiboa izanik E2koa subjuntiboan darama.

- Egia *da*, **aitor dezagun lehenbaitlehen**, ez dugula Atila hau gure haurtzaroko eskola-liburuetan ikusi genuan Jaunaren Zigor ikaragarri hura. (ZIN: 142).

- Nolanahi ere, **esan dezadan lehenbaitlehen**, sermoi malkarretan labaintzen bazaigu inoiz Erkiaga, ez *du* behinere han behera eroriko larririk *egiten*. (LIB II: 78-79).

Taulan berrikusiko ditugu datuak:

Aditz modua	E1 oinarritzko enuntziatua	E2 enuntziatu parentetikoa	Zenbatekoa guztira
INDIKATIBOA	76	69	
AHALERA	4	6	
SUBJUNTIBOA	0	3	
AGINTERA	0	2	

Datuen arabera, E1 oinarritzko enuntziatuen %95 indikatiboan dabilen (ahaleran dauden lau adibideetan izan ezik) eta E2 enuntziatu parentetikoan dabilen aditza ere %86.58 indikatiboan dago, nahiz eta badiren ahalerazko (%7.5), subjuntibozko (%3.75) eta aginterazko (%2.5) formak ere.

Orain arte esandako guztiak E1 enuntziatuko aditzaren eta E2 enuntziatu parentetikoko aditzaren artean gehienetan aldaketak daudela frogatzeko balio izan digu, bai aditzaren pertsonari dagokionez, bai aldiari dagokionez (tenpusa), bai aspektuari dagokionez, bai aditz-sistemari dagokionez eta baita aditz motari nahiz moduari dagokionez ere.

Horrez gain, saiatu gara aldaketa bakoitza corpusean zein maiztasunekin agertzen den ikusten, eta horretarako taulez baliatu gara.

Izan ere, aldaketa bakoitza, egon dagoenean zein maiztasunekin gertatzen den jakiteak, enuntziatu parentetikoaren (morfo)sintaxi alderdiari dagokionez, joera eta lerro nagusiak zedarritzen lagun diezaguke, eta, horrezaz gain, baita diskurtsoaren analisiari begira aurreiritzia osatzen ere. Atal honen hasieran genioen, izan ere, alderdi sintaktiko-testuala diskurtso-alderdiarekin hertsiki uztartuta dagoela, eta bataren eta bestearen artean marra bereizgarriak hizkuntzalariak berak zedarritzen dituela, aztergaia bera ahalik eta modurik agortzaileenean aztertzeke.

Gatozen, bada, atera ditugun datuetatik enuntziatu parentetikoaren izaerari begira ondoriorik atera ote dezakegun ikustera, horrela lortuko baitugu enuntziatu parentetikoak formaz nolakoak diren ezaugarritzea.

### 6.3.3.1. ONDORIOAK: IS+AS EGITURA DUTEN ENUNTZIATU PARENTETIKOEN EZAUGARRI FORMALAK

1) A tipoko IS+AS egitura duen parentetiko mota honek argi adierazten digu enuntziatu parentetikoak oinarrizko enuntziatuarekin erkatuz zenbait aldaketa dakarrela. Aldaketa hauek sistematizatzeko modu egokia aditzak berak eskaintzen digu; aditz laguntzaileari erreparatuz gero, denbora aldaketa, subjektu aldaketa, singular-plural aldaketa, nahiz +/- ahalera aldaketa atzemango ditugu, eta aditz nagusiari erreparatuz gero, aspektuari dagokion aldaketez gain, aditz-motan ere ikus daiteke desberdintasunik. Eta horrek guztiak berretsi egiten du gure hipotesia: egitura parentetikoetan bi enuntziatu bere eskuko daudela jokoan, alegia.

2) Esataria gertakizunak hirugarren pertsonan kontaktzen ari delarik (E1 oinarrizko enuntziatu bidez), enuntziatu parentetiko gehienak lehen pertsonan agertzen dira, dela lehen pertsona singularrean, dela lehen pertsona pluralean. Horretara morfosintaxian bertan islatzen diren diskurtso eskakizunek bultzatzen dutela uste dugu; izan ere, esatariak, maiz aski, bere ikuspegitik ez ezik beste enuntziatzailearen baten ikuspegitik konta ditzake gertakizunak,

baina ez du zertan beti enuntziatzailearekin bat etorri, eta horretxan lekuko izan litezke esatariak berak oinarrizko enuntziaturen sintaxia hautsiaz lehen pertsonan tartekatzen dituen iruzkin, iritzi eta pentsakizunen hari solteak ere.

Aurretik esandakoa modalizatu eta pixka bat urruntzeko, bada, hagitx egoki gertatzen zaio oinarrizko enuntziatuko enuntziatzailea enuntziatu parentetikoko esatari-enuntziatzailetik bereiztea. Eta ez da kasualitate hutsa enuntziatu parentetikoko subjektua lehen pertsonan agertzea eta oinarrizko enuntziatukoa hirugarrenean. Horretxegatik ausartuko ginateke esaten egitura parentetiko bidez agertzen diren xehetasun eta iruzkinak askotan oinarrizko enuntziatuan agertzen direnak baino eragingarriagoak direla eta inolaz ere ez alde batera uztekoak (Dafouz Milne 2001). Hondarrik hondarrean esatariak bere-bereak dituen iruzkin eta hausnarketen hari solteak dira, testua bera ulertzen eta nola ulertu behar dugun adierazten digutenak.

Lehen pertsonan ez ezik bigarren pertsonan ere ager daiteke (hiru adibide) enuntziatu parentetikoko subjektua. Horrela esatari-norentzako(ar)en arteko interakzio-harremana gauzatzen eta sendotzen du. Holakoetan, esataria “zu” izenordain batean ezkututzen den norentzako bati zuzentzen zaio, eta berari zuzentzen dizkio dei eta keinuak ere. (Hau ere diskurtsoaren analisisian izango dugu aztergai).

Aitzitik, adibide bakarren bat (hiru adibide) atzeman dugu gertakizunak lehen pertsonan kontatzen ari dela, enuntziatu parentetikoaren hirugarren pertsonan daramana.

3) Aditz denborari nahiz aspektuari erreparatuz, oso nabarmena da E2 enuntziatu parentetikoan oro har indikatiboko oraina hobestea, baina ez hori bakarrik. Oso da nabarmena aspektuari dagokionez, “puntuari” ezaugarria ere. Enuntziatu parentetikoko aditzak markatzen duen ekintza memento edo puntu horretantxe gertatzen delako. Esatariak, esaten ari zena eten eta une horretan bertan gogoratua bailitzan tartekatzen duen iruzkina dela adierazten digu horrek.

4) Aditz-sistemaren aldaketa ere aztergai izan dugu, baina portzentajeek erakusten digutenez, NOR-NORK-erako isuria antzematen bada ere, maizenik E1 enuntziatuko aditza ere sistema horretakoa da. Gutxienik NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK sistemakoa agertzen da enuntziatu parentetikoetan. Garbi dago bi enuntziatuen arteko desberdintasuna areagotzeko egokiak gertatzen direla, baina enuntziatu parentetikoan NOR-NORK sistema hobesten dela esatea gehiegi esatea da.

5) Singular / plural aldaketari dagokionez, adibide gehienetan E2 enuntziatua singularrean agertzen da, baita E1 enuntziatua pluralean agertzen denean ere. Singulartasuna,

banakotasuna lot daiteke esatariaren beraren agerpen propioarekin; esatariaren beraren erantzukizun dira iruzkin hauek, eta nahiz eta batzuetan “Gu” baten azpian ezkutatu, gehienetan “Ni” baten azpian ezkututzen da.

6) Enuntziatu parentetikoan agertzen diren aditzak, oro har, komunikaziokoak dira: *verba dicendi* motakoak edota esatearen egitateari lotzen zaizkionak. Eta horrek badu oinarririk: enuntziatu parentetikoak maiz aski enuntziazio-mailari zuzendurik agertzen dira. Ikusi besterik ez dago *esan* aditza daramaten adibideak, edota *adierazi*, *aipatu*, *norbaiti buruz ari* etab.

Baina komunikaziozko aditz hauek ez dira beti adierazpenezkoak izango; maiz, deklarazio soilari esatariak berak txertatzen dion balioren bat eransten zaio: ‘jakitea’, iritzia’, ‘judizioa’, ‘ustea’, ‘irudipena’, ‘susmoa’... bezalakoak. Eta baita ‘ona/ txarra/ harritzekoa/ IZAN’ bezalakoak ere. Joera honek erdiz erdi erakusten digu enuntziatu parentetikoei esker esatariak informazioa objektiboki eman ordez, modalizaturik ematen duela, esatariaren beraren galbahetik iragaziak eta, beraz, esatariaren lorratzak bete-betean agertzen dira.

Ehunekoek berek ematen digute aditzera, gainera, E2 enuntziatuan *verba dicendi*, edo, oro har, komunikazioko aditza berariaz hautatu duela, E1 enuntziatuko aditza bestelakoa izanik.

#### 6.3.4. Aditzik gabeko A tipoko enuntziatu parentetikoak

Era honetako adibideak izango ditugu kontuan:

- Honek, itzulinguruz bederen, jendearen bihotzetan sua pizteko erreka hoberik badu —**urrikia, gorrotoa, diru-gosea**— eta orain pizten duen suak Bruto eta bere lagunak kiskaliko ditu. (ZIN: 126).

- Har itzazue hiru lagun —**senarra, emaztea eta lapurra**— eta bil itzazue elkarrekin basa-bazter batean. (ZIN: 130).

##### 6.3.4.1. E1 ETA E2-REN ARTEKO HARREMANA: INFERENTZIA BIDEZKOA

Garbi dago sail honetako adibideetan badela E1 eta E2 enuntziatuen artean koherentziazko harremanik, inferentzia-kateei esker antzeman badezakegu ere. Gehienetan,

izan ere, adierazpen orokorretik adierazpen konkretura doan prozesua antzemango dugu (dedukzio-bidea). Izan daitezke hiperonimo-hiponimo motako kateak, edota zehaztua-xehekatua motakoak; baita, mugagabea-mugatu harremana nahiz adigai orokor baten adiera zehatza finkatu duen harreman-sarea ere. Beraz, batak (E2 enuntziatuak) bestea zehaztu, edo konkretatu egingo du, testuinguru jakinari egokituz.

Koherentziatzko harreman hori, bada, ez du B tipoko enuntziatu parentetikoetan gertatzen ohi denez, horretara berezitatuko testu-antolatzaile edo kohesio-mekanismoez gauzatuko; harreman hori inferitu egin beharko dugu. Eta horrek munduaren ezagutza partekatua du eskakizun, oinarrizko gaitasun entziklopedikoa bai esatariaren aldetik, bai norentzakoarenetik (Bustos 1986).

Oro har, E2 enuntziatu parentetikoa E1 oinarrizko enuntziatua konkretatzeko erabiliko da; izan ere, esatariak E1 oinarrizko enuntziatuan emandako mezua berak nahi bezala norentzakoak uler dezan nahi du. Horretarako adierazpen orokorrei edo zehaztu gabeei, mugak jarriko dizkio, norentzakoak jakin dezan benetan zertaz ari den. Helburu hori erdiesteko nagusiki honako inferentzia-kateak erabiltzen ditu:

### **1) Finkapen-harremana**

E1 oinarrizko enuntziatuan adierazitako adigai orokorra zehaztu egingo du, baina emango dituen adibideek zehazten ari den sail osoa estaliko dute (Zabala 1996).

- Har itzazue hiru lagun —**senarra, emaztea eta lapurra**— eta bil itzazue elkarrekin basa-bazter batean. (ZIN: 130).

E1 oinarrizko enuntziatuko “hiru lagun” sintagma, E2 enuntziatu parentetikoak, hots, “senarrak, emazteak eta lapurrak” osatzen dute; nolabait esateko, enuntziatu parentetikoa osatzen duten hiru adibideek sail osoa estaltzen dute, eta ezin dezakegu saila beste adibide batzuekin osatu. Holakoetan esango dugu orokorretik zehatzerako prozesu horretan, zehaztapena erabat finkatu duela.

- Lehengo bi sailei buruz —**nobelak eta ipui laburrak**— Euskaltzaindiak hartu dituen erabakiak ezagunak dira, Euskalerriko egunerokoek zabaldu baitituzte. (LIB I: 48).



Bi sailak zein diren aditzera emango digu E2 enuntziatu parentetikoak, eta “bi sail horiek” *nobelek* eta *ipuin laburrek* osatzen dute, ez bestek. Beste horrenbeste gertatzen da ondorengo adibideetan ere:

- Hona, txantxetako eta zinetako bertsoetan denbora bateko Tolosa eta garai hartako tolosar jator bat, beste batek —**Labayenek**— orrialde hauetan aurkeztu berri duena. (LIB II: 81).

“Beste bat” zehaztugabea zehaztera dator enuntziatu parentetikoa.

- Lima Barretori eskerrak, zenbait gauza berri ikusi eta entzun ditugu: lurralde berriak —**Brasilgoak**—, aurpegi berriak —beltz, txuri-beltz eta beltxaran—, kanta berriak —orain arte handik etorri zaizkigunak baino jatorragoak— eta gizaki berriak, ohi baino gizonagoak. (ZIN: 134).

E1 oinarrizko enuntziatua “lurralde berriez” mintzo delarik, esatariak ez du buruan edozein lurralde berri, “Brasilgoak” baizik.

- Gizonaren nausitzak errenkuraz beterik dauzka basetxe bateko abereak. Berengandik sortzen diren ondasunak —**artilea, esnea, haragia, arraultzak**— ez baitira beren zerbitzurako, gizonaren onerako baizik. (ZIN: 175).

Ez gara edozein ondasunez ari, basetxe jakin bateko abereengandik sortzen direnez baizik.

## 2) Adibideak gehituz orokorretik konkreziora

Beste batzuetan, ordea, saila irekita utziko du, eta beraz, esatariak berariaz aipatu dituen gain, beste adibide batzuk gehitzea ere zilegi izango litzateke. Horrela jokatuz ere, zehaztea lortuko du, baina adibide batzuk (nabarmenenak edo) aipatuz lortuko du. Azken batean, orokorretik zehatzerako joera horren barruan legoke.

- Hilbizunetan izaten dira zenbait txolarte alai —**adiskide artean, hildakoaz ahazturik, egiten diren berriketak eta**—, eta Sacha Guitry zena ere, goian bego, saiatu da aldiz aldi ikuslearen zama arintzen. (ZIN: 178).

- Malen gaztea, bihozpera, xaloa eta xaloa bezain maliziarik gabea eta haren inguruan dabiltzan gizon-emakumeak —**Petra koinata, inudea, Xalbador tratalaria, Don Bitor ardi itxurako otso bilbotarra, eta enparauak**— bizi bizirik ezartzen dizkigu begien aurrean, nork bere opilari ikatza eraman beharrean ahaleaginean ari direla. (LIB II: 98).

- Ez baitu labore-k Errenterian Azkuek beste lekutan bildu duen adiera: labore da jakia ez dena eta jakiarekin jaten dena (**ogia, taloa edo antzekoak**). (LIB I: 108).

Egia da, goiko adibide horietan, ETA3 bezala bataiatu dugun (ikus § 6.4.4.3.) ETA anakolutoak laguntzen duela; horrek nolabait ere saila irekita dagoela adierazten digu, eta baita *edo antzekoak* nahiz *eta enparauak* esapideek ere.

### 3) Sinonimoak edo perifrasiak E1eko adigaia definitzeko

a) Perifrasietan ordezkapen-lana hitz multzo batek egingo du:

- Egonaldi hori, laburxkoa izanagatik, aski eta gehiegi izan du “llaneroen” — **hango zabaldietako gizon-emakumeen**— hizkera ikasi eta barra-barra egiteko. (LIB I: 51).

- Aurrean bidaltzen dute, baina ez du goseak egoteko astirik, loteriak —**espainol guztien ametsak**— dirupilo polita uzten diolako. (LIB I: 138).

b) Sinonimoak, testuinguruan kokatzeko, edo testuinguru jakinari egokitzeko erabiliko ditu; azken batean, zehazteko:

- Ixil-ixilik, liburuaren izenari dagokionez, jardun du lanean Juan Inazio Goikoetxea —“**Gaztelu**” **euskal letretan**— apaiz jaunak Muxika ixilla liburu mardul hau lantzen eta osatzen, eta ustekabeen hartu gaitu zenbait euskaltzale hain betea eta biribila argitara duenean. (LIB II: 105).

- Aldi honetan zenbait herri xeheari —**populuari**— azken hitza eman nahi badio ere, zertan eta arte gaietan, ez litzateke harritzeko herri xeheak gai kaxkar eta belaxketara jotzea. (ZIN: 139).

- Horregatik edo, antzektokirako utzi ditu pailasokeriak —**txarlotkeriak**—, berebizikoak badira ere. (ZIN: 136).

#### 4) Zehaztapenak

a) Zehaztapenak E1 enuntziatuko terminoa bera errepikatuz eta honi zehaztapen modalizatuak erantsiz ere egiten ditu:

- Liburuari zerbait falta bazaio, nik uste, Aita Altunaren *eragina* —**lanean ikasi duenak ongi ezagutzen duen eragina**— falta zaio soil-soilik. (LIB II: 153).

- *Horrexek, gauza ezerez horrek*, gidatzen du idazle eta hiztun trebea hitzak hautatzean eta horixe da—saio hizkera batean baina ez benetako hizkuntzan—antolatzailearen erabaki hutsez bazter eta deusezta daitekeena. (LIB I: 117).

- Bertsolarien laguntzaile eta ezagutarazle gailena dugun *Aita Zavalak* —**betiko Aita Zavalak**— bildu ditu liburuxka polit honetan azken hamar urte honetako bertso-paperak. (LIB II: 134).

#### b) Zehaztapenak modalizaturik

Zehazterakoan modalizazioak zenbaitetan indar handia hartzen du eta esatariaren jarreraren edo iritziaren isla zuzen gertatzen dira:

- “Agintari” ez da “enperadore-ren” ordain jatorra, ezta “jakinzale” ere “filosofo”-rena, ez gaur eta ez Agustinen denboran; “ele-zati” askotara —**gehiegitara**— har daiteke, ez “silaba”-tzat bakarrik. (LIB I: 76).

- Nerau hizkuntzak irakasten zerbait —**ez gehiegi, beharbada**— aritua naiz eta asko ezagutzen ditut eginkizun horretan langile trebeak direnak. (LIB II: 63).

Adiera mailan inferitu dugun zehaztapenerako edo konpreziarako joera hau analisi formalean ere antzeman ote daiteke?

## 6.3.4.2. ADITIZK GABEKO ENUNTZIATUEN ANALISI FORMALA

Bi enuntziatu gurutzatzen dira; nahiz eta E2 enuntziatuak aditz jokaturik ez eraman, enuntziatutzat jotzen dugu, E1 enuntziatuko sintagmaren bat birformulatuz zehaztu egingo duelako.

Beraz, aurreko sailetan ez bezala, badirudi enuntziatu osoari baino gehiago E1 enuntziatuko sintagmari lotuago agertzen direla. Eta horrek, batetik, enuntziatu parentetikoaren posizioa ere aurrekoetan bezain askea ez izatera darama; aurrekoetan baino estuagoa, zurrunagoa izango da.

- Horregatik edo, antzektokirako utzi ditu pailasokeriak —**txarlotkeriak**—, berebizikoak badira ere. (ZIN: 136).

“Txarlotkeriak” enuntziatuak, E1 enuntziatuko “pailasokeriak” sintagma birformulatzen duenez gero —eta ez E1 enuntziatu osoa—, sintagma horren alboz albo paratzera behartuta dago. Beste hainbeste ondorengoan ere:

- Aldi honetan zenbaitek herri xeheari —**populuari**— azken hitza eman nahi badio ere, zertan eta arte gaietan, ez litzateke harrizkeko herri xeheak gai kaxkar eta belaxketara jotzea. (ZIN: 139).

Posizioaren zurruntasunaz gain, aztergai ditugun aditzik gabeko enuntziatu parentetikoak gramatikalizatuagoak daudela ere esaten ausartuko ginateke. Izan ere, askotan, *aposizioen* araberakoak dira; hau da, zehaztua izan den sintagmak daraman deklinabide atzizki bera eramango du enuntziatu parentetikoak. Ez da, ordea, ezinbestekoa. Gerta daiteke morfologiazko lotura hori ez izatea ere.

- Lima Barretori eskerrak, zenbait gauza berri ikusi eta entzun ditugu: lurralde berriak —Brasilgoak—, aurpegi berriak —**beltz, txuri-beltz eta beltxaran**—, kanta berriak —orain arte handik etorri zaizkigunak baino jatorragoak— eta gizaki berriak, ohi baino gizonagoak. (ZIN: 134).

*Beltz, txuri-beltz eta beltxaran* enuntziatuak, E1 enuntziatuko “aurpegi berriak” sintagma birformulatzen duenez gero, sintagma horren alboz albo paratzera behartuta dago, eta, gainera, adibideak erakusten digunez, ez ezinbestean deklinabide-atzizki berberarekin.

Adibide hori hautatu dugu hiru egitura parentetiko barnean hartzen dituelako. Baina adibide honetan bertan garbi ikusten da lehen eta hirugarren egitura parentetikoetan IS NOR-i dagokion deklinabide atzizkia (–ak) errepikatzen dela; aitzitik, bigarren adibideak “aurpegi berriak” hiperonimoa adibidetzera jotzen du, baina hiperonimoak daraman deklinabide atzizkia errepikatu gabe.

Beraz, atal honetan bi sail egingo ditugu: aposizioen araberako enuntziatu parentetikoak (deklinabide-atzizkia errepikatuta daramatenak) batetik, eta deklinabide-atzizki bera ez daramatenak, bestetik.

#### 6.3.4.2.1. Aposizioen araberakoak

Corpusean ugariak dira deklinabide-atzizki bera daramaten aditzik gabeko enuntziatu parentetikoak. Taula bidez laburbilduko ditugu datuak.

Morfologikoki errepikatzen den deklinabideko kasu-marka	Aditzik gabeko egitura duten E2 enuntziatu parentetikoak	
	Zenbat adibide	% zenbat
<b>SINTAGMAK</b>		
IS NOR ABSOLUTUA	40	%46.51
IS NORK ERGATIBOA	12	%13.95
IS NORI DATIBOA	2	%2.32
<b>IZENLAGUNAK</b>	5	%5.81
<b>ADIZLAGUNAK</b>		
INESIBOA	9	%10.46
SOZIATIBOA	2	%2.32
ABLATIBOA	1	%1.16
DESTINATIBOA	5	%%5.81
NOIZ	3	%3.48
ZENBAT	3	%3.48
NONBAIT	1	%1.16
NOLA	3	%3.43
<b>GUZTIRA</b>	86	%100

Datuek erakusten digutenez, aditzik gabeko enuntziatu parentetiko hauek formaz sintagmak dira. Gehienak IS NOR singularrak nahiz pluralak osatzen du. Eta enuntziatu parentetiko hauen erreferentzia-segmentua ere (zehaztua izan den oinarritzko enuntziatuko segmentua) sintagma izango da (40 adibidetan IS NOR). Gisa honetako adibideak izango genituzke:

### IS NOR

- Zirikadak Jon Etxaidek moldatu zuen Pernando Plaentxiatarra-ren anaia da, baiian ez anaia bixkia. Plaentxiako, Eibarko eta inguruko herritako jendeen ipuiak —**gertatuak edo asmatuak**— eta ateraldiak aurkezten zaizkigu liburu honetan ere, baina bere xaltxan. (LIB I: 145).
- Hizkera gaiak —**oraingo gizartean maizenik erabil daitezkeenetakoak**— ederki aukeratuak daude eta hitzak eta esaerak —**euskaldun ikasiari dagozkionak**— egokiak dira; gorago esan dut Andimak hautatuak eta asmatuak direla. (LIB II: 62).
- Liburuari zerbait falta bazaio, nik uste, Aita Altunaren eragina —**lanean ikusi duenak ongi ezagutzen duen eragina**— falta zaio soil-soilik. (LIB II: 153).

### IS NORK

- Eta hori gutxi balitz, “norbaitek” —**lotsaizunezko piku ostoz bere burua estali nahi duen “norbaitek”**— egilearen bizitzaz eta lanez berri ugari ematen digu liburu gehienen sarreran. (LIB II: 81).
- Hona, txantxetako eta zinetako bertsoetan denbora bateko Tolosa eta garai hartako tolosar jator bat, beste batek —**Labayenek**— orrialde hauetan aurkeztu berri duena. (LIB II: 81).

### IS NORI

- Aldi honetan zenbaitek herri xeheari —**populuari**— azken hitza eman nahi badio ere, zertan eta arte gaietan, ez litzateke harritzeko herri xeheak gai kaxkar eta belaxketara jotzea. (ZIN: 139).

Sintagmez gain, beste batzuetan formaz aditzondoak (5 adibide) nahiz adizlagunak (22 adibide) diren enuntziatu parentetikoak ere baditugu.

### ADITZONDOAK

- Erkiaga lekeitiarra, poesia baztertu gabe —**zorionez**— eleberriari ekin zionean, ez zitzaigun nolana-hi hasi, haizearekin burruka ari dena bezala, ongi jakinaren gainean baizik. (LIB II: 91).

### ADIZLAGUNAK

- Esate baterako, Elizan irakasleak eta ikasleak bezala, maila batean —**goikoan**— daude medikuak eta bestean —**gero eta beheragokoan**— eriak. (ZIN: 149).

Deklinabide-atzizki bera daramatenak ugariak badira ere, ugariagoak dira corpusean morfologiazko lotura hori ere ez duten aditzik gabeko enuntziatu parentetikoak.

#### 6.3.4.2.2. Morfologiazko loturarik ez duten aditzik gabeko enuntziatuak

Mota honetako enuntziatu parentetikoak kopuruz ugariak izateaz gain (205 adibide), askotarikoak ere badira. Bertan, sistematizatzeko helburuarekin hiru sail bereiziko ditugu:

- Batetik, filmen gaztelaniazko itzulpenak izango ditugu, “hemen” (Euskal Herrian edo Espainian) filmen jatorrizko izenburuak nola aldatu zituzten adieraziko digutenak (29 adibide).

- Ez dago bestela aurten ikusi dugun Dmytryk'en “The Young Lions”-ekin (**El baile de los malditos, hemen**) berdintzea besterik. (ZIN: 196).

- Ez da ixiltzekoa Joseph Peuney'ren Man of a thousand faces (“**El hombre de las mil caras**”) Henry Fonda, Walter Brennan eta Victor Mature' kin. (ZIN: 190).

- Bestetik *metahizkuntzazko oharrak* izenburupean bilduko ditugun egitura lexikoak; hau da, inprenta-hutsak, jatorrizko forma egoki-desegokiak nahiz bibliografiako erreferentziak, dela liburu jakin bateko orrialde zehatzari dagozkionak, dela leku nahiz urteari dagozkion erreferentziak (107 adibide).

- 1078-1079 orrialdeetan zabaldu zait liburua halabeharrez. (**Gogoetak-Eccl. 2, 26-4, 8**) eta hor bertan idoro daitezke gehientsuak. (LIB I: 113).

- Inprenta hutsak badira. Bat edo beste ipiniko dut hemen, irakurlearentzat irrixtakorrak izan daitezkeelakoan, neretzat bezala: Gorputz-egieraz (**higieraz “e motu corporis”, 20**), bortatzen (**bortxatzen, 28**), deabruaren xedea (**xedera “laquei diaboli”, 60**), entzuten zintzo billa nai (**etzuten, 105**), berenaga (**beregana, 111**) etzezakela egirik utzi (**atzi, 117**), gogoen atean (**gogoematean, 118**), lagunak (**legunak, 121**) ni aientzat niñedukan au (**aintzat “quem non parvi penderet”, 147**) aitortzea zindutan (**aitortzen, 158**), Itz zula eta edaten (**jaten? “quia manducavit eta bibit”, 178, latina ez dago osorik emana**), Eliza bete oi zatzaion (**zitzaion, 184**), txeko (**etxeko, 189**), Poztitian (**pontitian, 195**), ezaliko (**ezarriko? “ponitis”, 233**), Eudi (**Euodi, 236**), itzuli zintzan (**nintzan, 264**), ateratzen dituk (**ditut, 254**), bera edukitzeke (**idukitzeko “ad habendum se ipsum”, 255**), deudua (**dendua, 264**), irrikuz (**irriskuz, 289**), eten oi zagun (**zaigun, 290**). (LIB I: 78).

Adibidea luzea da, baina aski argigarria adierazi nahi duguna adierazteko. Sail honetan, bada, akatsak, hitzen forma desegokiak, bibliografiazko erreferentziak, etab. sartuko ditugu; azken batean, metahizkuntzazko oharrak.

- Azkenik, aposizioen araberakoekin gertatzen zen bezala, aurreko sintagma zehazteko, mugatzeko edo konkretatzeko balio duten sintagmak ditugu; haiek ez bezala, deklinabideko kasu-marka bera eramango ez dutenak. Sistematizatzeko asmoz, ondorengo azpisail hauek bereiziko ditugu:

### 1) MUGAGABE → MUGATU HARREMANA

E1 oinarrizko enuntziatuko erreferentzia-segmentua mugagabea izanik, E2 enuntziatu parentetikoa mugatua da:

- Bi **fedea —hila ala bizia—** bezala, bi arte mota dira: zinetakoa, jatorra, eta aizuna, gezurrezkoa. (LIB I: 53).

- Honek, itzulinguruz bederen, jendearen bihotzetan sua pizteko **errekai** hoberik badu —**urrikia, gorrotoa, diru-gosea**— eta orain pizten duen suak Bruto eta bere lagunak kiskaliko ditu. (ZIN: 126).



- Hilbizunetan izaten dira zenbait **txolarte** alai —**adiskide artean, hildakoaz ahazturik, egiten diren berriak eta**—, eta Sacha Guitry zena ere, goian bego, saiatu da aldiz aldiz ikuslearen zama arintzen. (ZIN: 178).

- Gerozkoan, guztiok dakigu edo erraz igerrri dezakegu zenbat **bihotz prestu** —**Europako haizeek gehiegi kutsatu ez zituztenak, nahiz kondaira hau ere handik zetorkigun**— ukitu dituzten Genovevaren poz-nahigabeek samurraren samurrezko negar-orritsetan. (LIB II: 44).

Goian aipatzen genuen orokorretik zehatzerako prozesu horren adierazle formala izango litzateke.

## 2) IS NOR/NORK MUGATUA → IZENA+ determinatzailerik gabeko IS [I+IZOND]

E1 oinarrizko enuntziatuko erreferentzia-segmentua IS NOR edo IS NORK mugatua izanik, enuntziatu parentetikoa *izena+ determinatzailerik gabeko IS*ak osatuko du:

- Argentinako zokoren baten harrapatu duten “Toro Moreno”-ren ibilerek —**irabazle parregarri eta galtzaile zintzo**—bizi kezkaten gaituzte. (ZIN: 167).

- Barrengo irudiak eta azala —**beltz, urdin, txuri**— Aita Iriondorenak dira. (LIB II: 80).

- Hori dela eta, eta haxe da axola zaiguna, kontakizun xotil eta paketsua —**ez luze, ez labur, bai bien erdiko**— hariltzen digu Izetak Baztango hizkera txukunean. (LIB II: 85).

- Aurren-aurrenik, Grazianok dioskuna (**ipui zahar eta kontu berri**) entzunaz ezarian bezala finkatzen baitzaigu gure arteko nekazari baten uste, iritzi, asmo, nahi, beteginzarre eta eskastasunaren irudi garbia. (LIB II: 71).

## 3) IS NOR pl → IS NOR sing

E1 oinarrizko enuntziatuko erreferentzia-segmentua IS NOR plurala izanik, enuntziatu parentetikoa singularrean joango da.

- Baita gainerako lagunak ere: andre ostalaria eta bere mirabea, orduko baserritarrak, linu ezpatariak, ola gizonak, baita azkenik —**paradisu ederreko suge beltza**— iskribau-*aguazilak* ere. (LIB I: 72).

- Indioak ere hemen ditugu, apatxeak (**Mescalero edo Chiricahua**), bere buruzagi eta guzti (Cochise, Victorio edo Jerónimo). (ZIN: 131).

Mota hori ere orokorretik zehatzerako prozesuaren isla formala izango litzateke; izan ere, ohikoena E1 enuntziatuko hiperonimoa zehazteko edo konkretatzeko E2 enuntziatu parentetikoak adibideak ekarriko ditu.

#### 4) IS NOR sing → IS NOR pl

Goian aipatu dugunaren justu alderantzizkoa gertatzen da adibide hauetan: E1eko erreferentzia-segmentua singularrean egonik, enuntziatu parentetikoa pluralean agertuko da. Ez da oso ohikoa: corpus osoan bi adibide aurkitu ditugu.

- Hor daude azalduak auzoaren izaera eta egoera, Ipiñako eliz gauzen kondaira (eliza, abatetxea, hilerria, ermitak) eta ipui sorta mardul bat azkenik, bertan bildua. (LIB I: 125).

- Gizonaren nausitzak errenkuraz beterik dauzka basetxe bateko abereak. Berengandik sortzen diren ondasunak —**artilea, esnea, haragia, arraultzak**— ez baitira beren zerbitzurako, gizonaren onerako baizik. (ZIN: 175).

Guztiek ere (bai aditza daramatenak, bai aditzik ez daramatenak, aposizioen araberakoak izan nahiz ez izan), ezaugarri komun bat behintzat badute: oinarrizko enuntziatuan esandakoa zehaztea, konkretatzea, komunikazio-ekintza jakin horretako testuinguruari egokitzea edo mugatzea.

#### 6.3.4.3. ONDORIOAK

Bi enuntziatuen artean ez dago koordinaziozko edo mendekotasunezko harreman sintaktikorik; egotekotan morfologiazko-lotura atzemango genuke; zehaztua izan den sintagmaren deklinabide atzizki berarekin ager baitaiteke (eta agertu ere agertzen da)

apozizioen arabera enuntziatu parentetikoak (86 adibide). Gehienak, ordea, morfologiako loturarik gabeak dira (207 adibide), nahiz eta ezaugarri horren pean izaera ezberdinetakoak bildu: egitura lexikoa duten filmen itzulpenak eta metahizkuntzako oharrak, eta bestetik, deklinabide atzizki bera ez daramaten sintagmak.

Beraz, badirudi, sail honetako apozizioen arabera behinik behin, aurrekoek baino lotura hertsia dutela; hau da, diskurtsoan hartzen duten lekua edo distribuzioa mugatuagoa dago, baina hala ere **A tipokotzat** jotzen ditugu. Honako arrazoi hauengatik:

a)- Bi enuntziatu baititugu jokoan eta ez enuntziatu bereko bi sintagma. E2 enuntziatua E1 enuntziatuko sintagma baten birformulazioa izango da —edo bigarren une batean egindako zehaztapena—, baina berariaz bere tipografiako ikur eta guzti bereiziko duena.

Ikusi besterik ez dago adibiderik gehienak esatariak marren artean eta parentesien artean paratu dituela (eta gutxienak bi komen artean). Horrek, hainbeste adibide parentesien eta marren artean egoteak, erakusten digu esatariak intentzio guztiz paratu dituela bereizirik; E1 enuntziatutik at, eta, beraz, ez dela E1 enuntziatuko sintagmaren baten osagai. Gure ustez, zehaztapen horiek beren bakarrean enuntziatua osatzen dute. Eta E1 oinarrizko enuntziatuko aditzarekin komunztadura-harremanik ez duten enuntziatu parentetikoak dira horren lekuko.

b)- Bi enuntziatuen artean, bada, ez dago koordinaziozko edo mendekotasunezko harreman sintaktikorik, nahiz eta posizioa zurrunagoa duten. Adibide hauetan guztietan, izan ere, oinarrizko enuntziatuan modu orokorrean esandako hitzen bat (hiperonimoa) adibidez josi, zehaztu, xehatu...egiten da eta, beraz, hitz horren hurrenez hurren paratzea hobesten da.

d)- Eransten duten informazioa makroegiturari dagokio: enuntziazio-mailari; enuntziazioaren birformulazioa nagusitzen baita.

e)- B tipokoek ez bezala, ez da kohesio-mekanismoei esker agertzen E1 eta E2 enuntziatuen arteko koherentziako harremana, inferituz<sup>144</sup> baizik. Ez dago marka sintaktikorik ere (C tipoa).

---

<sup>144</sup>Ezin uka hala ere, deklinabideko kasu-marka errepikatzeak bi enuntziatuen arteko lotura edo kohesioa indartu egiten duela.

## 6.4. B TIPOA

### 6.4.1. Elementu kohesio emaileak

Harreman sintaktiko-semantikoak kontuan hartuz gauzatzen ari garen tipologia formalean, B tipoari dagozkio harreman sintaktiko agerikorik izan gabe E1 eta E2 enuntziatuen arteko harreman semantikoa agerian dutenak. Harreman semantikoa agerian dutela diogu, E1 eta E2 enuntziatuen artean kohesio-prozedurak edo baliabideak esplizituki agertzen direlako; hau da, bi enuntziatuen koherentziatzko harremana azalean bertan agertzen dutelako. Hala, E2 enuntziatuak E1 enuntziatuarekin lotura izango du, baina bi enuntziatu beregainak izaten jarraituko dute. Izan ere, jada esana dugunez, ez du perpaus mailako lotura sintaktiko-formalik gauzatuko, izatekotan ere testu-lotura izango dute; testu koherentea sortzen lagunduko duten hizkuntza-baliabideez erdietsitako testu-lotura.

Beraz, A tipoan ez bezala, garrantzi berezia izango dute elementu kohesio-emaileek; horixe baita, azken batean, bien arteko ezaugarri bereizgarri nagusia. Baina euskal lanetan zer aditu izan da kohesio-mekanismoez edo kohesio-prozedurez?

Perpaus bat hartzen dugun bakoitzean, perpausa baino goragoko maila batera bidaliko gaituzten egitura edo elementuak izango ditugu askotan: elementu anaforikoak (erakusleak eta izenordainak: hori, bera...), lokailuak (hala eta guztiz ere, bestalde, gainera...) eta abar. (Alberdi & Sarasola 2001: 269).

Euskal gramatikan nahiz estilo liburuetan honako elementuak sartu ohi dituzte kohesio-prozeduren azpian:

1) Larringanek bere tesian (1995) testu-antolatzaileak aztertzen dituelarik ez ditu lokailuak, adberbioak, juntagailuak eta menderagailuak bereizten; guztiak “testu-antolatzaileak” izenburupean sartzten ditu:

a) Bere eskuko testu-antolatzaile direnak, halanola koordinagailuak, subordinagailuak (juntagailuak, lokailuak (Euskaltzaindia, 1991) eta beste zenbait adberbio funtzio espezialduetan. Esate baterako, “berehala”, “halakoren batean” (...)

b) Proposizio-egiturez kanpo geratzen diren unitateak, erantsiak zein askeak: zenbait aurrizki eta atzizki (“bait-, -nean, -lako, -z (gero); konjuntziozko lokuzioak (“*nahiz eta, zernahi gisaz ere, izan ere,...*”; zenbait adberbio: “*azkenik, geroago, ondoren...*”)

c) Beste lokuzio eta esapide batzuk, lotura, atalketa edota antolaketa zereginetan agertzen direnak, nahiz eta modalizazioarekin estuki lotuak azaldu: *egia esan, orokorki, zentzu horretan, horrek ez du esan nahi, esan nahi baita, derrigorrez, dirudienez, iruditzen zait baliteke, ezagun da, seguruenik, ikus daitekeenez...*

e) Idatziaren formulismoak: elementu hauek ere —idatziaren hizkuntzalaritza batean — kontuan hartu beharra dago. (Larringan 1995: 47).

Larringanek, bada, testu-antolatzaile kontzeptua oso modu zabalean darabilela ikus daiteke: hasi Euskaltzaindiak (EGLU III) lokailuen sailean sartzen dituen elementuetatik eta, modalizatzaileetatik eta konjuntziozko lokuzioetatik pasata, perpaus mailako lotura sintaktikoa bideratzen duten menderagailu eta juntagailuetara.

Autore honek, bada, testu-antolatzaileen artean sartzen ditu “koordinagailuak” eta “subordinagailuak” ere (bait-, -enean, -lako, -ez gero...). Nahiz eta guztiek testua antolatzeko funtzioa izan, edo perpausak nahiz perpaus barneko osagaiak antolatzeko egokiak izan, Euskaltzaindiarekin (1991) bat eginaz, menderagailuek eta juntagailuek perpaus barneko lotura bideratzeko balio dutela esango dugu eta ez testu-mailako lotura.

2) Makazagak (1996: 53) kohesio-emaileen artean honako hauek sartzen ditu:

- a) Lokailuak eta esapideak
- b) Lokailu funtzio duten juntagailuak
- c) Pronominalizazioa: erlazio anaforikoak eta kataforikoak
- d) Errepikapena
- e) Elipsia
- f) Mugagabe-mugatu egitura
- g) Testu-antolaketarako elementuak
- h) Zenbait egitura (distributiboak, galdera-erantzun egitura, galdegai-mintzagai egiturak...)
- i) Perpausen arteko erlazio logikoak (kausa, ondorioa, baldintza, denbora hurrenkera, konparazioa)
- j) Bata bestearen jarraian emandako perpausak.

Makazagak, esaterako, perpausen arteko lotura bideratzeko baliabideez dihardu eta perpausen arteko loturak beste perpaus handiago bat eman dezake, edota testua bera. Horregatik sailkapenean testu-mailako kohesio prozedurez gain perpaus mailakoak ere tartekatzen ditu. B tipoko parentetikoan azterketa honetan, ordea, ez gara perpausen arteko

loturak perpaus handiagoa ematen duen kasuez ari, beregainak diren bi enuntziatuz, hots, bi diskurtso-zatiz baizik.

3) Xabier Alberdik (2001: 270) kohesio-emaileen artean ondorengoak aipatzen ditu: izenordainak, erakusleak, artikulua mugatua, adberbioak, juntagailuak, menderagailuak eta testu-antolatzaileak (lokailuak eta esapideak). Autore honek ere, bada, aurrekoek bezala ez dituzte testu-mailako kohesio prozedurak perpaus-mailakotik bereizten. Gainera, berariaz multzo berean sartzen ditu kohesio-mekanismo guztiak, kohesioa / konexioa bereizkuntzarik egin gabe. (Kohesioa / konexioa bereizketaz jakin nahi duenak jo beza Idiazabal & Larringan (1998) lanera.

4) Euskaltzaindiak, Esnalen koordinaziopean argitaratutako *Testu-antolatzaileak: erabilera estrategikoa* (2008) liburuan ere, testu-antolatzaile izendapenaren azpian sail ezberdinak bereizten ditu. Abiapuntutzat Euskaltzaindiak EGLU III-n bereizitako lokailuak hartuta, testu-markatzaileak, juntagailuak eta menderagailuak, zenbait adberbio, adberbio-esapide eta postposizio-sintagmak, hain zuzen.

Guk, ordea, perpaus mailako lotura sintaktiko formala testu mailako loturatik bereiztea hobetsi dugu. Nahiz eta jakin testua sortzeko guztiak direla beharrezko, eta nahiz eta jakin guztiak direla kohesio-egile, gure ustez, bi maila edo eremutako gertakariak dira. Batetik, perpausaren barrutia, juntadura eta perpaus elkarketa: juntagailuak eta menderagailuak (alborakuntza barne); bestetik, testua eta bere barrutia. Juntadura eta subordinazioa, bada, perpaus mailako fenomeno sintaktikotzat jotzen ditugu, eta ez testu mailakotzat. Eta kohesio-mekanismoa, lan honetan, testualizazio-mekanismo bezala ulertzen ditugunez gero, perpaus barneko lotura sintaktikoak alde batera utziko ditugu.

5) Andres Alberdik ere (2008: 42-43) testuaren kohesioa bi mailatakoa dela uste du: perpaus-mailakoa eta testu-mailakoa. Honentzat, perpaus-mailako kohesio-prozedurak perpaus barruko hitz eta sintagmen loturak bideratzeko moduak dira, eta testu-mailako kohesio-prozedurak, berriz, perpausaren gainetik, testuko pasarteak eta elementuak lotu eta estekatzeko dauden bitartekoak. Azken horiek ez daude perpausari begira, testuaren loturari eta egiturari baizik.

Guk lan honetan bi diskurtso zati edo bi enuntziaturen arteko lotura dugunez aztergai (eta ez perpaus beraren barneko osagaiak), testu-mailako kohesio-prozedurak soilik izango ditugu kontuan. Beraz, kohesio-prozeduren barnean, testu-antolatzaileak ere aztergai izango ditugu, baina ez Larringanek (1995), nahiz Esnalek (2008) kontzeptu horren barnean aztertzen dituzten guztiak, testu-mailakoak diren haiek soilik.

Honenbestez, eta corpuseko adibideak iparrorratz ditugula, honako hauek joko ditugu B tipoko enuntziatu parentetikotan ager daitezkeen kohesio-emaileak:

#### 6.4.2. Corpusean, B tipoko parentetiko bezala izendatu ditugunen artean agertzen diren kohesio-emaileak

Goian aipaturiko sailkapenak kontuan izanik, baina bereziki Mitxelenaren corpusean agertzen diren haiei erreparaturaz, testu-mailako kohesio-prozedurak bi multzotan bereziko ditugu: erreferentzia-mekanismoak eta konexio-mekanismoak.

-a) **Erreferentzia-mekanismoak**<sup>145</sup>: Askotan gertatzen da testuan lehendik agertua den elementu bati (E1eko elementuren bati), beheraxeago (edo tartekatua izan den E2 enuntziatuan) berriro erreferentzia edo aipamena egitea. Aipamen horrexek ematen dio, horretara, lotura edo kohesioa testuari. Erreferentzia hori hainbat modutara egin daiteke:

1) Sare anaforiko-kataforikoa: lehen, bigarren eta hirugarren graduko erakusle izenordain nahiz determinatzaileez baliatuz, aurreko (anafora) nahiz atzeko (katafora) elementu, esaldi, nahiz paragrafoei erreferentzia egingo dion sarea. Ordezko lana egiten duten hizkuntza-elementuak erakusleak ez ezik beste honako hauek ere izan daitezke:

- Aditzondoak: erakusleetatik eratorritakoak: hemen, han, etab.
- Determinazioa: determinatzaileek ere (artikulu, erakusle zein zenbatzaile) kohesio-lana egingo dute. Ezaguna/ezezaguna, urrun/gertu, lehen/orain/gero gisako erlazioak adierazten dizkigute. Esaterako, E1 enuntziatuan zenbatzailearekin doan hari, E2-n artikuluaekin edo erakuslearekin egin diezaioke erreferentzia.

<sup>145</sup>Erreferentzia-mekanismoen artean, horiez gain ordezkapen-lexikala ere sartu ohi da; horrek errepikapen hutsa saihestuz, kohesioaz gainera, arintasuna, aberastasuna eta aldagarritasuna emango dio E1 eta E2ren arteko loturari. Ordezkapen lexikalerako moduek, ordea, ezinbestean inferentzia-kateak oso kontuan izatea dute eskakizun. Beraz, guk A tipoko enuntziatuak aztertzeko izan ditugu kontuan:

1. Sinonimia: Esanahi bereko beste hitz bat erabiltzea.
2. Hiperonimia: Eremu semantiko zabalagoa duen ordezkoa tartekatzea.
3. Hiponimia: Eremu semantiko estuagoa duen ordezkoa erabiltzea.
4. Perifrasia: Ordezkapen-lana hitz multzo batek egitea.
5. Munduaren ezagutza partekatua: Oinarrizko gaitasun entziklopedikoa eskatzen du, bai esatariaren aldetik eta bai norentzakoaren aldetik.

- Makulu-hitzak: “zera”, “pertsonea”, “gauza”, “gorabehera”... eta gisako hitzek ere ordezkapen lan hori egiten dute.

2) Hitzen errepikapena: estiloa astuntzen badu ere, kohesio-lana ongi bideratzen du.

Erreferentzia-sare batzuetan ageriko erreferentziakidetasuna badago ere, beste batzuetan irakurleak bi enuntziaturen (nahiz bi segmenturen) arteko harremana ikusteko inferentzia erabili beharko du. Inferentzia-kateak ezarri behar ditugunean (hiperonimo-hiponimo motako harremanean, esaterako), esango dugu ez dagoela azaleko koherentzia (edo testu-lotura) esplizitu egiten duten hizkuntza-baliabiderik; munduaren ezaupideak (edo informazio pragmatikoak), nahiz inolako lokailurik edo marka sintaktiko formalik gabe ager daitezkeen enuntziatuen arteko erlazio logikoek... lagunduko digute bi enuntziatuen arteko koherentziazko harremana bideratzen.

Aurreratu dugun tipologia formalean ikusi dugu horrelakoek, hau da, E1 eta E2 enuntziaturen arteko harreman semantikoa (edo kohesio-harremana) agerikoa ez dutenek (horietan harremana inferentzia bidezkoa izango da), bide ematen digutela lehen parentetiko tipoa (A tipoa) gainerakoetatik bereizteko. Eta, beraz, “B tipoko” parentetikoekin ari garenez gero, alde batera utziko ditugu.

#### **b) Konexio-mekanismoak<sup>146</sup>**

– Lokailuak: E1 eta E2 enuntziatuen arteko lotura semantikoak bideratzen dituzten lotura-elementuak dira. EGLU IIIIn honako hauek agertzen dira:

<sup>146</sup>*Testu-antolatzaile* terminoa hauta genezakeen Larringanek (1995) edo Esnalek (2008) bezala, baina *testu-mailako konexio-mekanismoak* izendapena hautatu dugu. Izan ere, Larringanek, esaterako, testu-antolatzaile funtzioa dutenen barnean *-elako*, *-enez*, *bait*, *izan ere*, *egia da*, *adibidez*, *jakina*... bezalako formak sail berean biltzen ditu, ez baitu bereizketa forma aldetik egiten, alderdi komunikatibotik baizik:

“hizkuntz unitate formalak diren aldetik ezeze, kanpoko ikuspegi batetik ere analiza daitezke, komunikazioaren edo erabileraren aldetik hain zuzen”. (Larringan 1995: 7).

Esnal-ek ere (2008) Testu-antolatzaileen artean sail ugari bereizten ditu: abiapuntutzat, Euskaltzaindiak aipatzen dituen lokailuak hautatuko ditu, eta lehen saila, testu-markatzaileek osatuko dute (lokailuak, barne), bigarren saila, juntagailuek eta menderagailuek, eta hirugarren saila, zenbait adberbio, adberbio-esapide eta postposizio-sintagmek.

Guk analisi sintaktiko-formala egiten ari garen une honetan, ezin genitzake testu-mailakoak eta perpaus mailakoak —guztiak— sail berean sartu. Testua antolatzeko eginkizuna izan arren, forma aldetik barne hartu izan dituen osagaiak ez dira maila berekoak (edo bestela, *testu-antolatzaile* izendapena darabilgunean juntagailu-menderagailuen saila izan ezik, gainerakoak biltzen dituen kohesio-mekanismoa izendatzeko erabiliko dugu). Formalki, *-elako*, *bait* eta *-enez (izan ere ez bezala)* juntagailuak dira eta hauek bideratzen duten harremana ez da testu-mailakoa, perpaus mailakoa baizik. Gainera, guztiak sail berean sartuz gero, gauzatu dugun forma aldetiko tipologiak ez luke zentzurik izango, ez eta irizpide-mugatzailetzat jo dugun honako ezaugarri nagusiak ere: enuntziatu parentetikoek dihardugunean, gutxienez, bere eskukoak edo independenteak diren bi enuntziatu jokoan izan behar ditugula baieztatzeak. Eta, gure ustez, garrantzitsua da bereiztea eta mugatzea, bestela, berriz ere, “enuntziatu parentetikoek” eremuan arras ezberdinak diren hizkuntza gertakariak nahasteko arriskua izango baikenuke.



1. Emendiozkoak<sup>147</sup>: gainera, ere, ETA<sup>148</sup> (lokailu eginkizuna duen juntagailua barne), behintzat...
  2. Hautakariak: EDO, ALA lokailu eginkizuna duten juntagailuak barne
  3. Aurkaritzakoak: BAINA juntagailua barne. Ordea, nolana ere, halaz ere...
  4. Ondoriozkoak: beraz, bada, honenbestez...
  5. Kausazkoak: izan ere...
- Testu-markatzaileak: Esnalek (2008) egindako sailkapena, nahiz Portolése eta Martínek egindako sailkapena (1999) hobetsi dugu sail hau osatzeko:
1. Informazioaren egituratzaileak:
    1. Iruzkingleak
    2. Ordenatzaileak
    3. Zeharkariak
  2. Operatzaile argudiozkoak:
    1. Indartzaileak (nabarmentzaileak): ETA2<sup>149</sup>, batik bat, batez ere
    2. Adibidegileak<sup>150</sup>: adibidez, esate baterako
    3. Murriztaileak: behintzat<sup>151</sup>, bederen, behinik behin, gutxienez
  3. Birformulatzaileak
    1. Esplikatioak<sup>152</sup>: hau da, hots, alegia
    2. Zuzentzaileak: hobeto esan, bestela esan, EDO2<sup>153</sup>
    3. Urruntzaileak: nolana ere

<sup>147</sup>Ez ditugu Euskaltzaindiak emendiozkotzat jotzen dituen guztiak aztertuko. Esaterako, Euskaltzaindiak talde honetan sartzen duen ETA emendiozko lokailua ez da enuntziatu parentetikoetan agertzen dena; izan ere, emendiozkoa baino gehiago Larringanek aipatzen duen ETA2 *nabarmentzailea* izango genuke. Bestalde, Euskaltzaindiak atal honetan bertan sartzen dituen “Behintzat”, “bederen”, “bederik”, “behinik behin” lokailuak ez ditugu emendiozkoen artean aztertuko, “murriztaileen” artean baizik.

<sup>148</sup>EGLU III-n ETA bezala agertzen den horri guk ETA1 deituko diogu (§ 6.4.4.3.).

<sup>149</sup>Ez luke emendio zentzua izango, nabarmentzeko, hanpatzeko eginkizuna izango luke. Ikus, berariaz lokailu hau buruan duten enuntziatu parentetikoei eskaini diegun azalpena (§6.4.4.3.).

<sup>150</sup>Esnalek (2008) ez darabil termino hori, *zehatzaileak* baizik. Gure ustez, ordea, *zehatzaileak*, edo zehaztapena finkatzen dutenak, zehaztu behar duten termino horren saila bere osotasunean estaltzen dute, eta *adibidegileak*, berriz, sail horretatik batzuk aditzera emateko erabiltzen da. Ikus EDO2 birformulatzailearen atala (§ 6.4.4.4.).

<sup>151</sup>*Behintzat* Euskaltzaindiak emendiozko lokailuen artean sartzen du, baina enuntziatu parentetikoan duten eginkizuna ikusirik, egokiago iruditu zaigu Larringanek darabilen *murriztaile* terminoaren azpian biltzea, berak testuan duen eginkizuna hobeto islatzen baitu.

<sup>152</sup>Igone Zabalak (1996) *iruzkin tartekatzaile* bezala bataiatzen ditu *hots*, *alegia*, *hau da* antolatzaileak.

<sup>153</sup>Larringanek (1995) testu antolatzaileak aztertzean, EDO2 hau birformulatzaileen artean sailkatzen du, hobeto esanda, nolabait esateko, bestela esanda, hitz gutxitan... antolatzaileen pare (§ 6.4.4.4.).

4. Laburbiltzaileak: ondorioz, azken batean
- 4- Modalizatzaileak: noski, antza, jakina...

- Adberbio-esapide eta postposizio-sintagmak

Sailkapena, bada, enuntziatu parentetikoaz egin dugun mugatze teorikotik eta corpuseko adibide zehatzetatik atera dugu. Beraz, ezinbestekotzat jotzen dugu “B tipoko” enuntziatu parentetikoak goian aipaturiko kohesio-emaile horiek bere barnean izatea eta, ondorioz, kohesio-emaileak enuntziatu parentetikoan agertzen diren heinean soilik izango ditugu azterkizun, eta ez testuan barna zeinahi egituratan agertzen direnean.

### **6.4.3. Erreferentzia-sareak: sare anaforiko-kataforikoak**

#### 6.4.3.1. SARRERA

Koherentziadun testuak inoiz “ehundura” (Igone Zabala 1996: 21) izenez, hots, “texture” (Hasan 1994) izenez aipatu izan den ezaugarria dutenak dira. Eta “ehundura” edo “testura” horrek garamatza pentsatzera testua elkarren dependentzia duten elementuez osatuta dagoela; interpretatzeko, testuan ageri den beste osagaien batera jotzeko eskatzen diguten elementuez, hain zuzen ere.

Erreferentziakide diren osagaiak, ordea, Igone Zabalak (1996: 23-24) adieraziko digun bezala, bi mailatan ezar daitezke: perpaus mailan nahiz testu-mailan. Guretzat azken maila hau bihurtuko da arretagune, azken batean E1 eta E2 enuntziatuen artean gauzatzen den erreferentziazko kateak interesatzen baitzaizkigu.

Erreferentziakidetasuna gauzatzeko baliabideak informazio zahar/berrien arteko erlazioarekin zuzenki uztartuta daudela esango genuke. Eta koerlazio hau E1 eta E2 enuntziatuen arteko harremanean ere gauzatzen da. Esaterako, osagaien bat E2 enuntziatu parentetikoan lehen aldiz azaltzen bada (eta oinarritzko testuan ez bada azaldu) mugagabea edo mugatu soila (artikulu bidez mugatua) agertuko da; E2 enuntziatu parentetikoan agertzen den osagaiak jada aipatutako elementuren batean oin hartzen badu, ordea, erakusle bidez adieraziko du.

Esan berri duguna hobeto azaltzeko, Allertonek (1974: 213-237) proposatzen duen taula hierarkikoan oinarrituko gara<sup>154</sup>:

Informazio berria → ez mugatua
Aurretik emandako informazioa → mugatua
“Super emana” → izenordaina
“Hiper-emana” → elipsia.

Honen arabera, elipsiak adieraziko luke garbien solaskideak aldeztu aurretik ezaguna duen informazioa eta, ondorioz, ezaba daitekeena.

Azter dezagun corpusean atzematen dugun jokabidea:

- Eta azken urteotan euskal gaietan egin ditugun *aurrerapenez* miretsirik baldin bagaude —**ai, aurrera egin bagenitu beti aurrerapen horiek!**— ez dago ahaztutzerik aurrerapen horiek, gaurko izaerak eta egoerak, aldi igaroetan dutela erroa eta oinarria, batez ere oraindik orain, atzo esan dezakegu, euskaraz mintzatzen, hitz lauz nahiz neurtuz, ahalegindu ziren idazle eta bertsolariengan. (LIB II: 52).

E1 oinarritzko enuntziatuan “euskal gaietan egin ditugun aurrerapenak” aipatu ditu. Horretarako mugatu plural soila darabil; informazio hau, bada, pentsa dezakegu ez dela informazio erabat berria, baina, halere, ez dago “super-emana”. Horren lekuko, E2 enuntziatu parentetikoan, elementu berari erreferentzia egiten dionean, ez du mugatu soila (artikulua) erabiltzen; “Aurrerapen” hitza “hori” determinatzaile erakuslearekin lagundurik paratzen du.

Maiz aski, ordea, informazio zaharra ez du bere deizio eta guzti aipatu beharrik; aski du izenordeetara jotzea, informazioa aski ezaguna delako eta ulertzeko ez dagoelako errepikatu beharrik:

<sup>154</sup>Guk informazio hau Osaren lanetik (1990: 42) jaso dugu.

- Ez da noski Soroa, orain dakigunez, euskal teatroaren hazia lehen aldiz erein zuena, *ospe hori* — **eta ez hori bakarrik**— Barrutiaren aramaioarrari dagokionez gero, bai ordea euskal teatro berriaren aita, eta teatro berri hori baizik ez da izan Euskalerrian bizi iraunkorrik ezagutu duenik. (LIB II. 53).

E1 oinarrizko enuntziatuan osagaia mugatuta dago (ez artikuluekin soilik, erakusle bidez baizik). Badirudi, bada, informazioa arras ezaguna dela, “super emana” dagoela eta, ondorioz, informazio zaharrari erreferentzia egiteko aski du izenordainarekin.

Informazioa “hiper-emana” dagoenean, elipsira jotzen du:

- Egilearen iritziak —**eta norenak ez?**— okerrak izan daitezke hemen edo han (LIB I: 130).

Ez du “noren iritziak” esaten, “norenak” baizik. Determinatzaileak berak adierazten digu izena isilpean gordetzen duela. Bai erakusleen kasuan, bai mugatzailearen kasuan ere, oso ohikoa da izena ezabatzea. Ezabaketa hori egiteko, noski, adibide horretan bezala, izen horren erreferentzia testuingurutik erraz berreskura daitekeela segurtatu behar dugu. Mugatzailearen kasuan, adibideak erakusten digunez, oso ohikoa da ezabaketa aurrean genitibo marka daraman izen bat dagoenean.

Halarik ere, aditz kopulatiboa da maizenik isilean gordetzen duena:

- “Joanak joan”-en gaia, **hau ere gauza nabaria**, Etxahunen bizitza da. (LIB I: 49).

- Gisa horretako predikua, **eta luze xamarra aukeran**, da goian aipatu dugun Stanley Kramer’en film hau (ZIN: 193).

“Hau ere gauza nabaria *da*” nahiz “eta prediku hori luze xamarra *da* aukeran” bezalako enuntziatuak ulertu beharko genituzke, baina ez da beharrezkoa eta horren adierazgarria elipsia bera da. Elipsia da, izan ere, sistemako perpausen eta testuko enuntziatuen arteko amildegia ongien markatzen duena (Osa 1990: 42). Sistemako perpausak bere osotasunean emanak izan behar dute; testukoetan, aldiz, gutxienak liriteke osorik ematen direnak; izan ere, komunikazio egokiaren helburuak hutsik egin gabe bete ahal izateko ez du osorik eman beharrik ikusten.

Elipsia diogunean, pragmatikaren ekonomiazko kooperazio-printzipioen (edo laguntza-hastapenaren) aginduz gauzatzen den elipsiaz dihardugu. Elipsiak errekupe daitekeen elementuen ezabaketa esan nahi du hemen.

Baina hau da guri gehien interesatzen zaiguna: elipsiaren nahiz sare-anaforiko-kataforikoen kasuan Griceren (1975) kooperazio edo laguntza-hastapenak; hots, “maxims of conversation” nahiz “conversational principles” direlakoak sartzen direla jokoan.

Griceren kooperazio printzipio horiek egon daudenik inork ez du zalantzan jartzen, inork ez baitu ukatzen solaslagunen laguntzeko borondatea, komunikazioak aurrera egin dezan. Bada, beraz, solaskideen artean (esatari-norentzakoaren artean) kooperazio lege-multzo bat, informazio sail zabal bat baliabide linguistikoak laburtuz, arinduz, nahiz isilduz eman ahal izateko.

Ahalik eta esfortzu txikiena egitearen legeak aginduko luke hemen: izen sintagma bere ordainez ordezkaterik bada, hobe; eta ordezkorik ere behar ez bada (elipsia) hobeto. (Allerton 1974: 213-237).

Garbi dago, bada, erreferentzien-sarea bideratzeko baliabide horiek guztiak zilegi direla eta E1 eta E2 enuntziatuen artean gertatu ere gertatzen direla.

#### 6.4.3.2. HARREMAN KATAFORIKO-ANAFORIKOAK

Harreman anaforikoa eta kataforikoa gauzatzeko, Mitxelena, oro har, erakusleez baliatzen da. Baina zeintzuk dira Mitxelenak erabilera anaforiko-kataforikoetarako gehien darabiltzanak? Erabileran sistematizaziorik edo erregularitatetik atzeman ote daiteke edo bata zein bestea bereizi gabe darabiltza?

Jarraian erakusleen graduaren eta erabilera anaforiko eta kataforikoaren artean dagoen harremana izango dugu azterkizun.

##### 6.4.3.2.1. HAU, LEHEN GRADUKO IZENORDAIN ERAKUSLEA

Goiburuan bertan “izenordain erakusleak” izendatu baditugu ere, atal hau jorratzen hasi aurretik ñabardura bat egin beharrean gara. Garbi dago, askotan “izenordain” baino, apika, egokiagoa litzatekeela “segmentu-orde” edo “anaforiko” soil izendatzea. Bestela ikus adibideok:

a- Barcelonan egina, erdarazkoa berbera da, irudi eta guzti. Baina, **eta hau da berri pozgarria guretzat**, erderazkoarekin batera, euskarazkoa ere salgai dago gure artean<sup>155</sup>. (LIB I: 133).

b- Eta, **hau da beltzena eta gogorrena**, gertakari berbera bi alditara entzuten baldin badugu— gaurko neska mutiilek irakurtzen dituzten nobeletan edo aintzinako poema epokoetan bezala edertua eta goratua, edo arinago eta lehenago zenbait idazlek ohi duten bezain beztua eta itxuratxartua—, alderik politena ez dela beti, ezta maizenik ere, egiatzkoena izaten. (ZIN: 130).

*Hau* izenordainak ez du E1 enuntziatuko elementu bakarra erreferentziakide; ondoren deskribatzen den egoera bere osotasunean ordezkutzen du: berri pozgarria zein den (a) edo, berarentzat beltzena eta gogorrena zer den (b) hain zuzen. *Hau* da, maiz, ondoko enuntziatuan deskribatzen den prozesu, egoera edo baldintza-multzoa ordezkutzen du. Eta alde horretatik kasik hobeto datorkigu *izenordain* deitu baino *segmentu-ordain* deitu.

Ñabardurak ñabardura, nahiz elementu bat izan nahiz segmentu oso bat izan erreferentziakide, gramatika tradizionalan erabilitako izendapena hobetsiko dugu, nahasketak saihestearren eta bereziki gure analisiaren helburua ez delako terminologia-auzi horretan sartzea.

Atal honetan aztertuko ditugun erakusle guztiak (nahiz izenordaina izan nahiz mugatzailea izan) E2 enuntziatu parentetikoan agertzen dira, baina E1 enuntziatuan dute beren erreferentziakidea. *Hau* erakuslearekin, harreman-sarea ezkerretik eskuinera ehotzen dela esango dugu:

- [E1 - E2 - E1] eskeman, E2ren ondotik datorren segmentura, eta
- [E1- E2- E3] eskeman, E3 oinarritzko enuntziatura zuzen-zuzenean

Beraz, harreman kataforikoa gauzatzeko Mitxelenak *hau* lehen graduko erakusle izenordaina nahiz erakusle determinatzailea darabil, bai bere forma neutroan (*hau*), bai bere forma indartuan ere (*hauxe...*). Erreferentziakidetasun-katea ondoren datorrenarekin ezartzen duenez gero, bitarteko egokia gertatzen zaio gertakizunen kontaktari intriga eta “suspense” itxura txertatzeko, baina bereziki, komunikazio-estrategia atalean ikusiko dugun bezala, testu zatiak lotzeaz gain ondoren datorrena iragartzeko. Horrela, informazioa era estrategikoan

<sup>155</sup> Azpimarratuta doan segmentua, enuntziatu parentetikoan agertzen den erakuslearen arreferentziakidea izango da. Letrakera lodiz, orain artean bezalaxe, enuntziatu parentetikoak nabarmenduko ditugu.

antolatzeke aukera eskainiko dio Mitxelenari, Esnalek (2008) aipatzen dituen atzerakargei eta pausaldiak markatzeko zailtasunari aurre eginaz.

- Horien guztien gain, **eta hau da hemen dihoakigun auzia, ez dakit ia ezer zezenei eta zezenketari buruz.** (LIB I: 92).

- Baina, **hau jakin nahi genuke poliziak bezala, nola gertatu dira gauzak.** (ZIN: 130).

Garbi dago goiko adibide horietan enuntziatu parentetikoan agertzen den lehen graduko erakusleak baduela iragarle funtzioa: esatariarentzat zein informaziok duen garrantzia iragarriko digu; zein informaziori arreta eman beharko geniokeen iragarriko digu, informazio berria delako eta esatariak berariaz garrantzia eman dion informazioa delako, gainera. Atzerakargak arintzeko ez ezik, baliabide egokia gertatzen zaio informazioa antolatu eta norentzakoaren begiak informazio zehatz batera zuzenduz, informazio jakin bati arreta ipintzeko. Alde horretatik esaten dugu egitura parentetikoek informazio-egituraren hari nagusian ere eragiten dutela.

Informazioa aurreratzeko estrategia hori, ordea, ez du sare-kataforikoa bideratzeko gai den erakusle bidez bakarrik gauzatzen. Egiteko berbera ikusten diegu erlatibo bidezko ondorengo hauei ere:

- Etxeberri Ziburukoak maiz darabil kristau, oraingo gipuzkoar baten antzera, baita, **are harrigarriagoa dena, dongea** ere. (LIB II: 67).

- Ongi daki beti gaiaren berri, zein ere baita, Fagoagak; mendean du burutik burura, eta ezin hobeki daki, **zailagoa dena, dakiena arin eta dotore esaten.** (LIB II: 146).

Erlatibozko egiturekin, edo hobeto, ardatz agerikorik gabeko erlatibozko egiturekin erdiesten duen efektua, “hau” erakuslearekin lortzen duen berbera dela esaten ausartuko ginateke. Erlatibozko parentetiko hauek, gainera, C tipoa aztertzean ikusiko dugunez, ez genituzke erlatibozko perpaus subordinatutzat joko; ez baitute ohiko erlatibozkoek bezala aurrekari edo erreferentzia egiten dion ageriko ardatzik. Hauek, aitzitik, informazio-egituran bertan eragiten dute zuzen-zuzenean, eta, beraz, “eta” artxikonektariarekin gertatzen den antzera, makroegiturako informazioa enuntziatuan bertan txertatzeko baliabidea da.

## 6.4.3.2.1.1. HAU erakuslea balio anaforikoz

*Hau* erakuslea beti balio kataforikoa bideratzeko erabiltzen ote du Mitxelenak, edota balio anaforikoz ere ba ote darabil?

Garbi dagoena da “hau” erakusleaz, oro har, ez duela anaforazko kateamendurik egiten. Baditugu, ordea, bi adibide “hau” (edo, hobeto, “hau” erakusletik eratorritakoa) erakuslea balio anaforikoz erabiltzen duelako adierazgarri:

- Senarra Iñaki (**honela du izena, ez dut nik bataiatu**) pelotari izan nahi zuen eta arrantzan gelditua. (ZIN: 133).

- Zenbait berrirekin agertu zaigu Oskillaso —**honela deitu beharko dugu egilea, bere izena salatzea debekatua daukagunez gero**— “Muttiko kaletarrak Bizkaian” izen ondokoa daraman liburu azalez eta mamiz ikusgarri eta irakurgarri honetan. (LIB II92).

Adibide horietan ez da dudarik “hau” erakusletik eratorritako “honela” erakusle izenordainak erreferentzia-katea aurrez paratua dagoen *Iñaki* nahiz *Oskillaso* osagaiekin ezartzen duela. Bada horiekin batera beste adibide bat hain argia ez bada ere muga horretan egon daitekeena:

- Egituraren ederrez ez genituzke beharbada aintzakotzat hartuko bertso hoek, **eta hoen antzera beste asko**, euskal literaturaren lorategi batean, baina ezin uka adierazi nahi dutena argiro eta bortizki adierazten dutenik. (LIBII:111).

“Hoek” erakuslearekin gauzatzen du erreferentzia-sarea. Ikusi beharko genuke ea “hoek” erakuslea “hauek”-etik datorren edo bigarren gradukotik datorren:

Bi adibide horiek kenduta, ordea, gainerako guztietan ez da dudarik “hau” lehen graduko erakuslea balio kataforikoz darabil. Batzuetan, bere forma neutroan agertu ordez, forma indartuan ere erabiltzen du:

- Are gehiago: badirudi polizi gaia ez dela hemen aitzakia polit bat besterik. Hori dela eta, **eta hauxe da axola zaiguna, kontakizun xotil eta paketsua** —ez luze, ez labur, bai bien erdiko— hariltzen digu Izetak Baztango hizkera txukunean. (LIB II: 85).



- Han-hemenka, **eta *hau* da aipa dezakedan alde txar bakarra**, motz agertzen dira, osatu gabe, zenbait aipamen: izenetan ere, hizkuntza arrotzetarikoetan batipat, badira zenbait oker. (LIB II: 148).

Bada adibide bat “hau” erakusleak erreferentziakidetasuna zeinekin gauzatzen duen zehazten oso zaila dena. Garbi dago ez dela kataforikoa eta izatekotan edo anaforikoa da edo bere erreferentziakidea testutik at dago:

- Euskal nobelak ez dira asko —**eta *hau* bezala erdarara itzuliak izanak gutxiago**— eta azkenengo argitaraldia, Durangon 1906ean egina, ez zen erraz aurkitzen (LIB II: 43).

*Hau* erakusleak aurretik datorren “nobela” hitzari egin diezaioke erreferentzia edo eskuartean duen nobelari; hau da, izate fisikoari.

Beste zenbaitetan lehen graduko erakusletik eratorritako formetara ere jotzen du. Esaterako:

- Badu liburuak hitzaurreaz landara beste hitzaurre edo erdiko hitz bat, arras biziki, egoki eta, ***honela esan badaiteke, tolesgabeki*** idatzia. (LIB II: 9).

Azkenik esan dezagun baduela adibide bat bederen “hau” erakuslea harreman diaforikoa bideratzeko darabilena:

- Diren baino hamar halako ardandegi gehiago irekiko balira —**ez da *hau* nik asmatua**—, ez lirateke hordiak hamar aldiz gehituko. (ZIN: 152).

Honenbestez, laburbil ditzagun erabilerok tauletan. Horrela, argiago ikusteko parada izango baitugu.

LEHEN GRADUKO ERAKUSLE IZENORDEA: HAU							
E2 enuntziatuko izenordeak bideratzen dituen harreman sareak	NEUTROA			ERATORRIA	INDARTUA	ZENBAT ADIBIDE	% ZENBAT
	MUGATU SINGULARRA	MUGATU PLURALA	MUGAGABEA				
<b>ANAFORA:</b> E1-i edo E2ren aurreko atalari egiten dio erreferentzia: E1-E2-E1 edota E1-E2-E3	HAU (2)			HONELA (2)		4	%21,05
<b>KATAFORA:</b> E3ri edo E2ren ondotik datorren atalari egiten dio erreferentzia: E1-E2-E3	HAU (10)	HAUEK (1)		HONELA (1)		12	%63,15
<b>DIAFORA:</b> E2ren aurretik naiz ondotik datorrenari egiten dio erreferentzia	HAU (2)					2	%10,52
E1 eta E3 oinarriko enuntziatuetatik at: komunikazioko koordenatu nagusiei egiten dio erreferentzia norentzakoari, testuinguruari (kontestua, kotestua)	HAU (1)					1	%5,26

Balio kataforikoa edo gertakizunak aurreratzeko egitekoa “hau” erakusle izenordainarekin edo determinantearekin bakarrik lortzen ote du? Edota bada beste erakuslerik egiteko horretara berezi duenik?

Galdera horiei erantzuteko bigarren eta hirugarren graduko erakusleekin sortzen dituen erreferentzia-kateak aztertuko ditugu, erantzuna azterketa horietan bertan kausituko baitugu.

#### 6.4.3.2.2. HORI, BIGARREN GRADUKO IZENORDAIN ERAKUSLEA

Harreman anaforikoa bideratzeko berezi ditu, oro har, bigarren graduko izenordain erakusleak: E2 enuntziatu parentetikoan agertzen direnek erreferentziakidea E1 enuntziatuan dute, parentetikoaren aurretik emana.

- Gizonak bere eskuko duen borondatetik datorren gaitza, ordea, **eta hori da batipat gaitza guretzako**, ez da ia ageri. Gizonagandikako gaitzik ez bada, beraz, ez da egiazko dramarik ere. (LIB I: 101).

- Hasieran aipatu dudan auzian buru-belarri sartu gabe ere, **eta ez daukat oraingoz horretarako gogorik ez astirik**, bistan dago Oskillasoren bi xedeak eta helburuak, euskararen batasuna eta euskal eleberriaren ona, haserre xamar dabiltzala elkarrekin. (LIN II: 93-94).

*Horretarako* izenordainak, *hori* erakusletik eratorritakoak, goiko adibideko *hori* izenordainak ez bezala, ez du E1 enuntziatuko elementu bakarra erreferentziakide; *horretarakok* prozesu osoa ordezkutzen du: hasieran aipatutako *auzian buru-belarri ez sartzea*, hain zuzen. Hau da, maiz, *hau* erakuslearekin gertatzen zen bezala, aurreko edo ondoko enuntziatuan deskribatzen den prozesu, egoera edo baldintza-multzoa ordezkutzen du. Beste horrenbeste gertatzen da ondorengoan ere:

- Aspaldi ez duela, kontuak hartu dizkidate —**eta, jakina, ez diot horretarako eskubiderik ukatzen hartu dizkidanari**— euskal idazle bakoitzari liburu batean opa nizkion edo ez nizkion lerroak direla eta. (LIB II: 98-99).

Atal honetan aztertuko ditugun erakusle guztiak (nahiz izenordaina izan nahiz mugatzailea izan) E2 enuntziatu parentetikoan agertzen dira, baina E1 enuntziatuan dute beren erreferentziakidea edo aurrekaria. Beraz, harreman-sarea eskuinetik ezkerredera ehotzen dutela esango dugu:

- [E1 - E2 - E1] eskeman, E2ren aurretik datorren segmentura, eta
- [E1- E2- E3] eskeman, E1 oinarritzko enuntziatura zuzen-zuzenean.

Koldo Mitxelenak, bada, eskuinetik ezkerrearako harreman anaforikoa gauzatzeko *hori bigarren graduko erakuslea* bereizi du, bai izenordain funtzioan bai mugatzaile gisa:

- Ez zen berez hiztun trebe horietakoa —**Jainkoaren dohaia izaten da *hori***—, jakintza gizona zen izatez, ezer bazen. (LIB I: 120).
- Neurritz gaineko gizona, jenioa —**hitz *hori* hamaika aldiz entzuna dugu**—, ez da besteen legeetara makurtzeko sortua. (ZIN: 136).

- Hizkuntza bat ikasi behar edo nahi duenarentzat, gramatika ez da —**hori behar luke behintzat izan**— lasterbide bat besterik, igo behar duen aldapa latza menderatzeko eskeintzen zaion laguntza eta erraztasuna. (LIB II: 62).

Azkenengo adibide horretan duda-muda sortzen zaigu “hori” anaforikoa, kataforikoa ala harreman “diaforikoa” bideratzeko gai ote den zehazterakoan. Ez baita erraza jakiten “hori” izenordainak “gramatikari” ala “lasterbideari” egiten dion erreferentzia, edota biei. Hala balitz, hau da, biei egingo balie erreferentzia, Delomier eta Morielekin (1986) bat eginez esango genuke E2 enuntziatu parentetikoa harreman diaforikoaren topagune dela; bere erreferentzia-esparruak E1 eta E3 oinarrizko enuntziatuak biltzen baititu, edota [E1- E2 -E1] eskema onartuz gero, erreferentzia-sarea bi aldetara bideratzen baitu. Baita ondorengoetan ere:

- Villasantek dio, eta neronek ere **hori** esan nuen, Etxeberri Ziburukoarenak direla; uste dut, ordea, zuzen zebilela Irigaray, eta gu oker, Claveriari aitortzen dizkionean. (LIB II: 66).

- Sarri aski, eta eskertzekoa da **hori**, Platoni berari utzi dio hitza egileak, era horretan hain merezi onez entzutetsua den idazle haren prosa euskal idazleak dasta dezan bitartekorik gabe (LIB II: 77)

- Zaitegigan askok —ni behintzat **horietakoa** nauzue— idazle landua, ikasia, ikusten dute euskaltzale sutsuaz gainera. (LIB II: 108)

Adibide horietan ikus daiteke “hori” nahiz “horietakoa” izenordainek erreferentzia E1 oinarrizko enuntziatuei bere osotasunean egiten dietela; hau da, eskuin nahiz ezkerrera datorren atalari. Alde horretatik, harreman diaforikoa gauzatzen duela esango dugu.

Bada adibiderik, beraz, enuntziatu parentetikoan datorren erakuslearen erreferentzia-sarea bi aldetara bideratzen duela erakusten duenik, eta horietan harremana ez litzateke anaforikoa izango, “diaforikoa” baizik:

E2 peut être le lieu d’une représentation diaphorique, englobant dans son domaine référentiel à la fois E1 et E3, le fait qui atteste là encore que E2 ne se situe pas au même niveau que E1 et E3. (Delomier & Morel 1986: 155).

Bestalde, Mitxelenak ez du beti “hori” erakuslea bere horretan (bere forma neutroan, alegia) erabiltzen; maiz aski, “hori” erakuslearen forma indartuetara jotzen du, baina forma indartuok ere, oro har, harreman anaforikoa bideratzeko darabiltza.

- Ez zara erraz damutuko, **horixe** aldez aurretik esan diezazuket, liburu hau erostez. (LIB I: 146).

- Beregana dezake ikuslearen gogoan, nahiz gertaera guztien berri aldez aurretik jakin —**horixe gertatzen zitzaidan neroni**—, Charles Laughton eta beste lagun azkarren antzeari eskerrak. (ZIN: 189).

Horrelako adibideak ugariak dira corpusean; hau da, askotan darabil balio anaforikoarekin aurretik emana ordezkatzeko *hori* bigarren graduko erakuslea, bere horretan nahiz bere forma indartuan. Halere, oso emankorra gertatzen zaio harreman anaforikoa bideratzeko *hori* erakuslea deklinatzea: *horretarako, horretatik, horietan, horrekin, horrelako, horrelakorik, horretan, horrexegatik, horretaz, horren, horrenbeste, horretakoak, etab.*

Ikus dezagun bakoitzetik adibide bana bederen:

- Argitasunik nahi duenak jo beza Lafitte jaunak, Herria astekarian aurrenik eta liburuxka batean gero —**horren berria aurreraxeago ikus dezakezu**— euskal itzulpen zahar eta berriei buruz argitara berria duen idazlan jakintsua. (LIB I: 112).

- Hizkera berriz —**horretaz ausarkiago mintza gintezke**— ederra eta ugaria. (LIB I: 47).

- Gizonaren bihotzeko izkutuen berri ere bazekien —**ez zuen lanbide txarra horretarako**—, baina Pereda eta Rochelén gisa, osatzen zituen gizakiek ez zuten gaurko nobeletan ageri diren zenbaitek adina azpil, bihurgune eta zoko ilun. (LIB I: 43).

- Ez dute gaizki zinemaratu —Italiaren eskua ageri da **horretan**— zaharrak ondu duen ipui eder hau. (ZIN: 146).

- Eta burruka larrian eraman gainera —**horrenbeste esan dezaket, noski**—, ez baitzuen etsai indartsuren faltarik. (LIB II: 133).

- Baina Azkue eta Lhanderen hiztegia aurkitzeagatik hutsagatik —**eta horietan aurkitzen ez direnak ere badira ugari liburu honetan**—, ez du hitz batek beste edozien adinbat esku. (LIB I: 114).

- Argitasunik nahi duenak jo beza Lafitte jaunak, Herria aldizkarian aurrenik eta liburuxka batean gero —**horren berria aurreraxeago ikus dezakezu**— euskal itzulpen zahar eta berriei buruz argitara berria duen idazlan jakintsua. (LIB I: 112).

Honenbestez, “hori” bigarren graduko izenordain erakusleak eta bertatik eratorritakoak, oro har, erabilera anaforikoa erakusten du. Zenbaitetan, ordea, ikusi dugu harreman diaforikoa ere bideratzeko gai dela. Baina, Mitxelena-k *HORI*-ren erabilera kataforikorik egiten ote du?

Bere corpusean bada adibide bat argi eta garbi kataforikoa dena:

- “Zein dut horretarako biderik erosoena eta, **horrela esan badaiteke, dotoreena?**”, galdetzen dio bere buruari aurreratzean bizilagunik gabe, “txoria airean bezala”, bizi nahi duen senar gizarajoak. (LIB:128).

*HORI* eta eratorritakoak, bestalde, erabili erabiltzen ditu testutik at dagoen zerbaiti erreferentzia egiteko ere. Alde honetatik bat gatoz Agirrerekin dioenean erakusleek *kotestutarekin* nahiz *kotestutarekin* harremanak bideratzen dituela:

Lan honetan aztertzen diren klase morfologikoen [erakusleek] kotestuan, kontestuan edo jeneraltasunean seinatzeko zeregina dute, espazio fisikoan, diskurtsiboan edo sintetiko hutsean erreferituz alegia, kohesio, konexio edo aktualizazio funtzioak betez. (Agirre 1991: 379).

Gerta daiteke, bada, enuntziatu parentetikoan agertzen den izenordainaren erreferentziakidea testutik at, *kotestuan* aurkitzea, eta ez *kotestuan*, edo testuan bertan. Horren adierazgarri, honatx adibide bat corpusetik aterata:

- Eta ez dezazula Jainkoagatik gutxietsi, **garbizale horrekin ari naiz**, nahi bezain garbi ez deritzozulako. (LIB I: 40).

Argi ikusten da, nahiz eta “horrekin” erakuslea izenordain izan beharrean determinante izan, erreferentziakidea norentzako bera dela; hots, komunikazio egiturako zutabea edo koordinatua bera. Eta, ondorioz, testutik at dago, nahiz eta jakin testuan bertan dinamikoki eragiten duela.

Gatozen, bada, “hori” bigarren graduko erakusle izenordain honek gauzatzen dituen harreman-sareak laburbilduz, taula batean ematera. Argigarri izateaz gain, ondorioak ateratzeko ere lagungarri izango zaigulakoan gaude:

BIGARREN GRADUKO ERAKUSLE IZENORDAINA: HORI							
E2 enuntziatuko izenordainek bideratzen dituen harreman sareak	NEUTROA			BIHURK.	INDARTUA	ZENBAT ADIBIDE	% ZENBAT
	MUGATU SINGULARRA	MUGATU PLURALA	MUGAG.				
<b>ANAFORA:</b> E1-i edo E2ren aurreko atalari egiten dio erreferentzia: E1-E2-E1 edota E1-E2-E3	HORI (17) HORRELAKORIK (3) HORRETAN (3) HORRELA (1) HORRETARAKO (3) HORRETAZ (1) HORRELA KOAK (1)	HORIETAN (1) HORIEK (1) HORIETAKOA (1)			HORIXE (2) HORREXEGATIK (2) HORREXEK (1)	37	%84,09
<b>KATAFORA:</b> E3ri edo E2ren ondotik datorren atalari egiten dio erreferentzia: E1-E2-E3	HORRELA (1)					1	%2,27
<b>DIAFORA:</b> E2ren aurretik naiz ondotik datorrenari egiten dio erreferentzia	HORI (4)	HORIETAKOA (1)				5	%11,36
E1 eta E3 oinarritzko enuntziatuetatik at: komunikazioko koordinatu nagusiei egiten dio erreferentzia norentzakoari, testuinguruari (kontestua, kotestua)	HORREKIN (1)					1	%2,27

#### 6.4.3.2.3. HURA, HIRUGARREN GRADUKO IZENORDAIN ERAKUSLEA

Hirugarren graduko izenordain erakuslea beste biak baino gutxiago erabiltzen du erreferentziako sareak sortzeko. Baina erabiltzen duenean, balio anaforikoz darabil:

- Harako “Viva Zapata”n —**Elia Kazanena hura ere**— ezpain gainean zeraman bigote zarpail haren beharrik ezdu orain, jakina, eta orduko kartoi-itxurako gelditasun hura ere ez zaio nabari. (ZIN: 124).

- Hitzak aldatu-rik, bigarren argitaraldia (**hobetua hura ere**) hartudute gidari, lehenbizikoa, Agirrerena berarena, hartu beharrean. (LIB I: 179).

Horrelakoak, esana dugunez, ez dira ugari corpusean; hau da, E2 enuntziatu parentetikoaren eta E1 oinarrizko enuntziatuko segmenturen baten artean harreman anaforikoa gauzatzeko “hura” hirugarren graduko erakusletara jotzea ez da batere ohikoa.

Corpusean, bestalde, bada adibide bat non erakuslearen aurrekaria oinarrizko enuntziatuan ez dagoen. “Hura” erakusleak, bada, adibide honetan beste enuntziatu parentetiko batean du aurrekaria; beraz, enuntziatu parentetiko baten barneko beste enuntziatu parentetiko batez baitihardugu:

- Hau guztia ez ote da gai egokia garai horretako kondaira, baina barrengoa, ez azalekoa — **Unamunok “intraistoria” deitzen zuen hura edo**—, egin nahi duenarentzat? (LIB II: 111).

Halaz ere, nahiz eta harreman-sarea oinarrizko enuntziatuko osagaien batekin ez izan, bideratzen duen harremana anaforikoa da.

Gehiagotan, forma neutroan baino gehiagotan alegia, *HURA* erakuslearen forma indartuetara jo ohi du:

- Buruz dakigun ipuin honek, haurtxorik bildurtiena asaldatuko ez duten Robinsonen ibilierak, **berak esanda**, uki gaitzake. (ZIN: 153).

- Berari zor zaio, **berbera baitugu**, moldatzailea ez ezik, tren-gidari jatorra bera ere. (ZIN: 171).

- Nolanahi ere, **eta beren artean dituzten berezitasun larriak gorabehera**, bizkiak dirudite azken hoek guztiok Olabideren aldamenean. (LIB II: 112).

- Eta berak bakarrik daki, **eta berari entzun diogunak ere bai zerbait**, nolako neke-larriak pasa zituen harako udaldi hartan, Nafarroan gora eta Nafarroan behera galdezka zebilelarik. (LIB II: 156).



Ikus dezagun taula bidez:

HIRUGARREN GRADUKO ERAKUSLE IZENORDEA: HURA							
E2 enuntziatuko izenordeak bideratzen dituen harreman sareak	NEUTROA			BIHURK.	INDARTUA	ZENBAT ADIBIDE	% ZENBAT
	MUGATU SINGULARRA	MUG. PL.	MUGAG.				
<b>ANAFORA:</b> E1-i edo E2ren aurreko atalari egiten dio erreferentzia: E1-E2-E1 edota E1-E2-E3	HURA (3)				BERAK (1) BERARI (1) BEREN ARTEAN (1)	6	%100
<b>KATAFORA:</b> E3ri edo E2ren ondotik datorren atalari egiten dio erreferentzia: E1-E2-E3							
<b>DIAFORA:</b> E2ren aurretik naiz ondotik datorrenari egiten dio erreferentzia							
E1 eta E3 oinarrizko enuntziatuetatik at: komunikazioko koordenatu nagusiei egiten dio erreferentzia norentzakoari, testuinguruari (kontestua, kotestua)							

#### 6.4.3.3. ONDORIO OROTARIKOAK

1) Corpusetik ateratako datuak sistematizatzeko atera ditugun taula hauek erakusten digutenez, Mitxelenari E2 enuntziatu parentetikoaren eta E1 (edo E3) oinarrizko enuntziatuaren arteko harreman-sarea bideratzeko erakusleak emankorrak gertatzen zaizkio, bai izenordain bezala eta bai determinatzaile bezala ere. Halaz ere, izenordainen erabilera zaigu bereziki interesatzen eta horiei erreparatu diegu bereziki.

2) Horietatik guztietatik etekinik handiena “hori” bigarren graduko erakusleari ateratzen dio: guztira 43 adibide agertzen dira corpusean. “Hori” bigarren graduko erakusle izenordaina (nahiz erakusle determinatzailea) bereziki sare anaforikoa bideratzeko darabil eta modu kataforikoan adibide bakarren bat besterik ez dugu aurkitu. Joera hau bat dator Lafittek (1944) jada esana zuenarekin:

(...) Hau...sert à annoncer ce qui suit:...hitz hauek erran ziozkan...

Hori sert a rappeler ce qui précède: ... hitz hoik esan eta jaiki zen...” (aipua Zabala 1996: 38 orrialdetik jasoa).

Erabilera honekin bat dator Igone Zabala ere:

Hortaz, anafora-funtzioa duen erakusledun izen-sintagma galdegaia denean, *hori* erakuslea erabiltzea da egokiena. Izan ere, *hau* erabiliz gero irakurleak horretan katafora bat ikusteko joera izango du. *Hori* erabilita, ordea, irakurketa bakarra dago, anaforarena alegia. (Zabala 1996: 38).

Guztia ez da, ordea, erabilera anaforikora edo kataforikora mugatzen. Delomier & Morel-ek (1986) proposatu bezala, zenbaitetan erreferentzia-sarea ez da aurrekoarekin edo atzekoarekin gauzatzen; zenbaitetan erreferentziakidea bietan aurkitzen da. Erabilera horri *diaforikoa* deitu diogu (8 adibide). Eta bada, azkenik, erreferentziakidea oinarrizko enuntziatutik at agertzen denik; baita testutik at dagoenik ere. Maiz aski, erakusle izenordainek komunikazioko koordenatu nagusiei egiten diete erreferentzia: dela norentzakoari, dela testuinguruari (kotestuari nahiz kontestuari). Horrelako bi adibide ditugu.

3) *Hau* lehen graduko erakusle izenordaina erabilera kataforikoetarako darabil Mitxelenak. Hamabost adibidetatik, hamarretan harreman horixe ikus daiteke. Eta bi adibide dira (bat dudakoa) erabilera anaforikoa dutenak. Gainerako bi adibideek harreman diaforikoa bideratzen dute eta batek oinarrizko enuntziatutik at du erreferentziakidea.

4) Erreferentziakidetasun-sarea anafora bidez ez du *hori* bigarren gradukoaz bakarrik gauzatzen. Aski esanguratsua da *hura* hirugarren graduko erakuslea ere erabilera horretara bideratu duela. Baita (ia ugariagoak diren) bere forma indartuak ere. Aurkitu ditugun adibideak urriak direnez gero, agian, ez da bidezko orotariko ondoriotzat hartzea, baina joera hori atzematen dela esaten ausartuko ginateke.

5) Erreferentziazko kate hauek guztiak, bada, testuaren ehundura ehotzen dute, eta bereziki adierazten E1 oinarrizko enuntziatuaren eta E2 enuntziatu parentetikoaren artean egon daitekeela ageriko loturarik, nahiz eta lotura testu mailakoa izan eta ez perpaus barnekoa. Holakoak dira B tipoari jarraitzen dioten parentetikoak.

Erakusle izenordainei esker gauzatzen duen harreman-sarearekin amaituta, hel diezaiozun kohesio-prozeduren bigarren atal nagusiari; hau da, E1 eta E2 enuntziatuen artean gauzatzen diren konexio-mekanismoei.

#### 6.4.4. Konexio-mekanismoak

Erreferentzia-mekanismoak ikusi ostean, gatozen, E1 eta E2 enuntziatuen artean egon dagoen loturan edo harremanean sakontzeko, bigarren alderdi honi erreparatzera. Bi enuntziatuen artean, izan ere, lotura egon badago, baina ez sintaktikoa: bi enuntziatu beregainen aurrez aurre baikaude. Horren adierazgarri E2 enuntziatuak E1ekin erkatuz dakarren modalitate-aldaketa izango dugu aztergai lehenik, ondoren konexio-mekanismoei bete-betean eusteko. Modalitate aldaketa hau, ordea, bi enuntziatu desberdin eta independente direlako seinale den modalitate aldaketa hau, buruan antolatzailearen bat daramala gauzatuko du.

##### 6.4.4.1. MODALITATE ALDAKETA

A TIPOAN bezalaxe, B TIPOAN ere bada modalitate aldaketaren adierazgarririk. Oraingo honetan, ordea, E2 enuntziatu parentetikoan lokailuren bat daramate buruan (*etaren* nahiz *edoren* kasuan, esaterako), tartean (*bainaren* adibide bat) edo amaieran (*ordea*, *gero*, kasu). Hala, E2 eta E1en arteko kohesioa esplizitoki, ageriko kohesio-prozedurei esker bideratuko da.

Modalitate-aldaketa: E2k E1ekin erkatuz modalitate aldaketa dakar	<i>E2 enuntziatu parentetikoa</i>	zenbat adibide	% zenbat
	<i>Modalitatea + kohesio-elementua</i>		
E1 adierazpenezkoa izanik	Galderazkoak + EDO	1	%7.11
	+ BAINA	1	%7.11
	+ ETA	5	%35.71
	+ ORDEA	1	%7.11
	+ GERO	2	%14.28
	Aginterazkoa + ETA	3	%21.42
E1 harridurazkoa izanik	Adierazpenezkoa + EDO	1	%7.11
<b>GUZTIRA</b>		14	%100

A tipoko parentetikoekin gertatzen zen legez, modalitatez aldatzean oinarrizko enuntziatua adierazpenezkoa izanik, galderazkoa da gehien erabiltzen dena. Diferentzia bakarra, haiek ez bezala B tipokoek kohesio-elementuren bat izatea.

### **E1 adierazpenezkoa izanik, E2 galderazkoa**

- Ingelesak *high-Brows* deitzen dituzten kontentagaitz haietako direnek (**edo garenek?**) esango dute beharbada.(ZIN: 124).
- Bizkaiko hitza omen da *durdua* “dificultad” eta Mogelek (**baina zein Mogelek eta non?**) darabilena. (LIB I: 114).
- Aita Villasante ezagutzen duenak —**eta nork ez du ezagutzen izenez behintzat gure artean?**— badaki nola ekiten dion beti lanari, sustraiz eta funtsez, bil eta azter ditzakeenak oro bildu eta aztertu ondoren, edozein sailetan. (LIB II: 60-61).
- Behingoz bederen, zinemak, ixpilu (**zeren ixpilu gero?**) izateari utzirik, amets-ateak iriki dizkigu, Albert Lamorisse´ri eskerrak. (ZIN: 170).
- Ulysseri —**zergatik ordea?**— halako Luzifer-airetxo bat erantsi diote, edo Prometheu-airea, Greziatik aldegin nahi ez badugu. (ZIN: 147).

### **E1 adierazpenezkoa izanik, E2 aginterazkoa**

- Nolazpait ere ezagutzen du, ordea, Pascalen hura (**eta barka besterena baldin bada, Pascalena izan beharrean**) egia baldin bada: “Ez zinateke ene bila ibiliko, aurkitu ez baninduzu” (ZIN: 198).
- Nik —**eta barka bekit “izenorde higuigarri” honez hasten banaiz mintzatzen** — profeta baten gisan ikusten dut aurrenik gure Oteiza, gure artean nola eta nondik ez dakigula —aldiz bizardun, aldiz okotz soil— agertu zaigun antzinako igarleen ondorengo galdu baten antzera. (LIB II: 117).
- Gure-gureak baititugu biak —**eta barka biezat “Kamiñazpi”-k**—, gure artetik sortuak eta geron antzera taxutuak. (LIB II: 146).

**E1 harridurazkoa izanik, E2 adierazpenezkoa**

- Eta mutilak gogoko duen neska —*edo neskak mutila*— ikusten duenean, hango apak eta laztanak, elkarri oratuta, nahiz eta igande eguerdian herriko plaza nagusian aurkitu! (ZIN: 133).

Modalitate aldaketak, bada, azterkizun dugun egitura parentetikoan bi enuntziatu desberdin ditugula salatzen digu.

**6.4.4.3. TESTU-MAILAKO KONEXIO-MEKANISMOAK**

E1 eta E2 enuntziatuen arteko kohesioaren adierazle, corpusean agertzen diren konexiozko prozedurak aztertuko ditugu eta baita corpusean duten maiztasuna ere.

**TAULA 1: LOKAILUAK**

Testu-mailako Konexio-mekanismoak	Partikulak edo unitateak	Zenbat adibide	% zenbat
<b>LOKAILUAK</b>			
ONDORIOZKOAK	BERAZ	1	%3.44
	BADA	1	%3.44
	HORRENBESTEZ	2	%6.89
AURKARITZAKOAK	ORDEA	2	%6.89
	BAINA	6	%20.68
	HORRATIK	1	%3.44
	NOLANAHI ERE	2	%6.89
	HALERE	1	%3.44
	HALARIK ERE	1	%3.44
	HALAZ ERE	1	%3.44
	DENA DEN	1	%3.44
	GERO	2	%6.89
EMENDIOZKOAK	GAINERA	2	%6.89
	ERE	2	%6.89
	OROBAT	2	%6.89
HAUTAKARIAK	EDO 1	1	%3.44
	ALA	1	%3.44
GUZTIRA		29	%100

TAULA 2: TESTU MARKATZAILEAK: ARGUDIOZKO<sup>156</sup> OPERATZAILEAK

Testu-markatzaileak	Partikulak, unitateak	Zenbat adibide	% zenbat
<b>Operatzaile argudiozkoak</b>			
INDARTZAILEAK (nabarmentzaileak)	ETA2	133	%71.12
	BATIK BAT	3	%1.604
	BATEZ ERE	4	%2.13
ADIBIDEGILEAK <sup>157</sup>	ESATERAKO	3	%1.604
	ESATE BATERAKO	2	%1.06
	ADIBIDEZ	1	%0.52
MURRIZTAILEAK	BEHINTZAT	33	%17.64
	BEHINIK BEHIN	2	%1.06
	GUTXIENEZ	1	%0.52
	BEDEREN	5	%2.67
GUZTIRA		187	%100

TAULA 3: TESTU-MARKATZAILEAK: BIRFORMULATZAILEAK

Testu-markatzaileak	Partikulak, unitateak	Zenbat adibide	% zenbat
<b>Birformulatzaileak</b>			
ESPLIKATIBOAK	HOTS	1	%1.61
	ALEGIA	20	%32.25
ZUZENTZAILEAK	EDO2	31	%50
	HOBETO ESAN	5	%8.06
	NOLABAIT ESATEKO	2	%3.22
	HOBE	1	%1.61
	HOBEKI	2	%3.22
GUZTIRA		62	%100

<sup>156</sup>Izendapena Esnal (2008) liburuko testu-antolatzaileen sailetik hartuta dago.

<sup>157</sup>Larringanek (1995) darabilen terminoa hobetsi dugu eta ez Esnal-ek (2008) darabilen “zehatzaile” terminoa. Izan ere, gure ustez, *esate baterako*, *esaterako*, nahiz *adibidez* antolatzaileek zehaztapena finkatu baino gehiago sail edo paradigma bateko adibideak ematen dituzte, baina saila bere osotasunean estali gabe, eta beraz, sailak irekia izaten jarraitzen du. Aitzitik, finkapenez, edo zehaztapenez dihardugunean, sail hori estalita geratuko da.

TAULA 4: TESTU-MARKATZAILEAK: MODALIZATZAILEAK

TESTU-MARKATZAILAK	Partikulak, unitateak	Zenbat adibide	% zenbat
MODALIZATZAILEAK	NOSKI	8	%24.24
	BEHARBADA	9	%27.27
	AGIAN	2	%6.06
	APIKA	1	%3.03
	EZTA ALDERATZEKO ERE	7	%21.21
	ZORIONEZ	1	%3.03
	DAMURIK	2	%6.06
	ZORITXARREZ	1	%3.03
	JAKINA	2	%6.06
GUZTIRA		33	%100

Guztira, aztergai dugun corpusean 311 enuntziatu parentetikok konexio-emaileren bat darama. Horietatik guztietatik emankorrena *argudiozko operatzaile* bezala izendatutakoak gertatzen zaizkio eta sail horretan, bereziki, ETA juntagailu-lokailua (artxikonektagailua) buruan izanik sortzen dituen enuntziatu parentetikoak.

Eta hori ez da kasualitatea izango. Hurrengo atalean egiaztatzen saiatuko garen bezala, enuntziatu parentetikoak, oro har, argumentazioan aurrera egiteko estrategia erretoriko-pragmatiko ezin hobekak gertatzen zaizkio esatariari. Eta eginkizun horretan argudiozko operatzaile horiez gain, modalizatzaileek (33 adibide) nahiz birformulatzaileek (62 adibide) ere bete-bete eragingo dute.

Goian esan dugun bezala, bereizi ditugun sail hauetako partikula edo unitateez osatutako enuntziatu parentetikoek diskurtsoan duten eginkizuna edo horien erabilera estrategikoa aztertzeari hurrengo atal osoa eskainiko diogunez gero, forma aldetiko azterketa honetan soilik unitateen mugatzeari helduko diogu eta ohiko sailkapenetatik aldendu edo desberdintzen diren heinean izango ditugu azterkizun. Gure helburua ez baita testu-antolatzaile bakoitza berariaz aztertzea, ezta antolatzaile guztiak aztertzea ere. Baina bai emankorrenak eta aldi berean enuntziatu parentetikoek ezaugarritzaile izan litezkeenak.

Beraz, jarraian, esanguratsuenak eta baliagarrienak (gehien erabiltzen dituelako) gertatzen zaizkion bi antolatzaile aztertuko ditugu: ETA2 *artxikonektagailua* eta EDO2. Horrez gain, egitura parentetikoan duten eginkizuna ez da bete-bete orain arteko sailkapen eta gramatiketan deskribatu izan dena eta hori ere bada arrazoi aski berariaz aztertzeko.

Hasteko *eta* juntagailu, lokailu, argudiozko operatzaile... izan litekeen *artxikonektagailua* izango dugu azterkizun.

#### 6.4.4.3. ETA “ARTXIKONEKTAGAILUA” ENUNTZIATU PARENTETIKOAREN BURUAN

Koldo Mitxelenak *eta* buruan daramaten egitura parentetikoei etekin handia ateratzen die, *eta*, B tipoa osatzen duten enuntziatu parentetikoei dagokienez, emankorrena baliabide horixe gertatzen zaio; aztergai dugun corpusean B tipoa osatzen duten 311 adibideetatik 133 mota honetakoak baitira.

##### 6.4.4.3.1. ETA buruan daraman enuntziatu parentetikoaren *eta* E1 en arteko harremana

Ba ote dago lotura sintaktikorik *eta* buruan daraman enuntziatu parentetikoaren *eta* E1 oinarrizko enuntziatuaren artean?

Atal honetan, “artxikonektagailu” bezala definitu dugun *eta* testu antolatzaile honek E2 enuntziatu parentetikoaren E1 oinarrizko enuntziatuarekin lotzen (koordinatzen) ote duen aztertzen saiatuko gara; alegia, *eta* buruan daramalarik, aurreko enuntziatuarekin (dela enuntziatu horretako sintagmaren batekin) lotura sintaktikorik gauzatzen ote duen.

Ezer baino lehen erabaki beharreko auzitzat jotzen dugu hori; izan ere, enuntziatu parentetiko bezala definitzeko, lan honetan, muga-irizpideen artean lotura sintaktikorik ez izatea aurreikusi dugu, *eta*, jakin badakigu, *eta* testu mailako funtzioa izan dezakeen **juntagailuen** artean sartu ohi dela (Euskaltzaindia 1990, Larringan 1995, Makazaga 1996); hau da, aldaketa-prozesu bat izan *eta* perpaus mailako juntagailu izateari uko egin gabe, testu mailan ere lokailu eginkizuna izatera pasa dela.

Garbi dago, izan ere, *eta* *eta* artxikonektagailua bera da horren lekuko, hainbat *eta* hainbat esapide *eta* lokailutan ihartze edo aldaketa prozesu bat suma daitekeela. Zenbait ikertzailek (Larringan 1995: 295, Makazagak 1996: 54) zuzen-zuzenean esan dute horrelakoak perpaus mailako funtzio bakar bat izatetik bigarren aukera modura edo aukera bakar modura testu mailako funtzio bat izatera heldu direla. Ideia honek oso babes ona du lokailuen morfologia jatorrian (gain + adlatiboa, aldi / berri + instrumentala, ordu + inesiboa...). Horrela, lokailu izenpean jaso diren batzuek, jatorrizkotzat jo daitekeen perpaus



mailako funtzioa eta lokailu gisan aurkitu zaien testu mailako funtzioa dituzte aukeran. Horien artean aurkituko genuke *eta* artxikonektagailua ere.<sup>158</sup>

Hel diezaiogun, beraz, goian egindako galderari: Ba ote dago lotura sintaktikorik *eta* buruan daramaten enuntziatu parentetikoaren eta E1 oinarrizko enuntziatuaren artean?

Lotura duen ala ez erabakitzea oso konplexua da; izan ere, lotura edo bere eskukotasun hori perpausera mugatutako sintaxi aldetik deskribatu ala diskurtso ikuspegitik deskribatu emaitza alda daiteke. Guk, ordea, sintaxi mailako lotura dagoen ala ez galdetzen dugunean perpausera mugatutako sintaxi loturarik dagoenez galdetzen dugu.

Corpusak eskainiko digu galdera horri erantzuteko bitartekoa. Horretarako bereziki hiru alderdiri erreparatuko diegu:

**1) *Eta* emendiozko juntagailu koordinatzailea izan balitz, *etarekin* koordinatzen den sintagmak perpauseko aditza pluralean agertzea izango luke eskakizun.**

a) – Aita **eta** ama etorri **dira**

b) – \*Aita **eta** ama etorri **da**

Alegia, komuntadurak<sup>159</sup> berak eskakizun du aditza pluralean agertzea. Baina zer gertatzen da enuntziatu parentetikoetan *eta* bidez eransten den informazioarekin? Koordinazio kopulatiboa balitz aditza pluralean agertuko zatekeen, baina:

- Soinua, **eta** harekin **batera hitza**, agertu *zenean* zineman, lehengo mutuan iraun zuen Charlotek. (ZIN: 136).

- Japonen eta hemen gizona —**eta emakumea**— izukaitz baino bildurriago, prestu baino berekoiago, bihotz-zabal baino zitalago *dela*, alegia. (ZIN: 130).

---

<sup>158</sup> Ez ditugu hemen jasoko Euskaltzaindiak (1990), Larriganek (1995) eta Makazagak (1998) emandako zehaztasun diakroniko eta diasistematiko guztiak, baina badugu azpimarratzeko zenbait puntu:

a) Jatorrizko perpaus mailako funtzioa, oro har, aditzaren modifikatzailea da.

b) Jatorrizko funtzioa betetzeko ahalmena galduta (*behintzat*, kasu) ala galdu gabe (*berriz*, esaterako), testu mailako funtzio bat betetzera heldu dira.

<sup>159</sup>Ikus Amundarainen tesi-lana (1997). Ikertzaile honek bi atal edozein juntatu ahal izateko baldintza sintaktiko eta semantiko-pragmatikoez dihardu. Horien artean, komuntaduraren faktorea aintzat hartzen du adibide jakin baten onargarritasuna (edo onargarritasunik eza) erabakitzeko.

Corpuseko adibide horiek erakusten digute enuntziatu parentetiko jakin horietan agertzen den informazioa, nahiz eta formalki sintagma izan, ez dela oinarrizko enuntziatuko sintagmarekin koordinatzen. Hala balitz, gramatikala izateko aditzak pluralean joan beharko bailuke; Mitxelenak, ordea, singularrean darabiltza.

Baina zer da Mitxelenaren idiolektoari dagokiona? Zer da euskarari soilik dagokiona? Ala autore baten estiloaz nahiz hizkuntzaz harago doa?

Gu hizkuntzaz gaindiko gertakaria dela esaten ausartuko gara; alegia, ez dela berariaz euskaraz bakarrik gertatzen. Horren lekuko Geoffrey Numberg-en aipua aldatuko dugu:

I should add one further qualification to these observations about the irrelevance of the parenthetical to the semantic and syntactic well-formedness of the embedding sentence. There may be cases in which the inclusion of a parenthetical adversely affects the acceptability of a sentence, as in (i) and (ii):

(i) John is planning to attend.

(ii) ?John (and perhaps his wife) is planning to attend.

I am inclined to say that (ii) is grammatical, though construal of the parenthetical here may create some problems for the parser associated with these structures. Certainly (i) is preferable to (iii), where the embedding sentence would be ungrammatical without the parenthetical:

(iii) \* John (and perhaps his wife) are planning to attend. (Numberg 1990: 106).

Garbi dago beste hizkuntzetan ere jokabide bertsua nabarmentzen dela eta, beraz, ez dela soilik Mitxelenaren idiolektoari dagokiona. Garbi ere dago enuntziatu parentetikoak ez duela eragiten oinarrizko enuntziatuaren zuzentasun gramatikalean; hau da, enuntziatu parentetikoa kendu arren, oinarrizko enuntziatuaren egitura sintaktikoak eta semantikoak zuzena izaten darrai.

Honenbestez, enuntziatu parentetikoaren buruan agertzen den *etak* pentsa dezakegu ez duela oinarrizko enuntziatuarekin (bere osotasunean hartuta), ez eta enuntziatu horretako sintagmaren batekin ere koordinaziorik gauzatzen; gauzatuko balu, oinarrizko enuntziatuak ezingo luke singularrean agertu, pluralean baizik. Eta, ondorioz, corpuseko adibideak nahiz Numbergek proposatuak ez lirateke gramatikalki zuzenak izango. Beraz:

a) *Eta* egitura parentetikoen buruan agertzen denean ez da juntagailu koordinatzailea. Izatekotan lokailua litzateke, baina bigarren puntuan aztertuko dugu bi enuntziatu lokabe horien (E1, E2) arteko harreman semantikoa agerian uzteko balio ote duen, edota, aitzitik

(edo horrez gain), beste maila bateko egituraren batekin gauzatzen ote duen lotura diskurtsiboa.

b) Enuntziatu parentetikoa eta oinarrizko enuntziatua bi enuntziatu bere eskuko dira eta, beraz, E2 enuntziatu parentetikoak ez du eragiten E1 oinarrizko enuntziatuaren egitura sintaktiko eta semantikoan; hau da, enuntziatu parentetikoa kendu arren oinarrizko enuntziatuak gramatikaren aldetik zuzena izaten jarraituko du. Horrexegatik beragatik Geoffrey Numberg-ek (i i i) adibidea txartzat ematen du, enuntziatu parentetikoa kenduz gero, oinarrizko enuntziatua gramatikaren ikuspegitik ez litzatekeelako zuzena izango, ez bailuke komunztaduraren araua beteko. Mitxelenaren adibideek ere beste horrenbeste erakusten dute.

Gure arrazoibidean aurrera egiten lagun diezagukeen bigarren gertakariak juntagailuen eta lokailuen arteko pilaketara garamatza.

## **2) Juntagailuen pilaketa, perpaus gramatikaren debeku**

Ohiko bibliografian adierazi bezala, perpaus elkartu bat lotzeko funtzioa duten juntagailuak ezin pila daitezke esangura harremana edozein delarik ere.

Odriozolak (2005), bereziki, juntagailu eta lokailuen arteko hainbat pilaketa aztertu ditu. Berak Euskaltzaindiak (1994) aztergai dituen juntagailuak erabiliz, *eta* emendiozkoa, *edo* hautakaria eta *baina* aurkaritzakoa izan ditu azterkizun.

Azterketa hau biziki ondo datorkigu, hondarrik hondarrean, B tipoko enuntziatu parentetikoak sortzeko unean bai *eta* eta bai *edo* antolatzaileekin osatutakoak ugari ditugulako corpusean. Baina ez horregatik bakarrik. Odriozolaren azterketak balio diezaguke, hein batean behintzat, hainbat lokailuen arteko metaketa nahiz juntagailu zenbaitena gramatikaren ikuspuntuaren arabera zuzena den edo ez zehazten. Bere helburua neurri batean horixe baita; lokailuei perpaus mailan ere nolabaiteko zeregina onartu eta frogatzea.

Hipotesi eta ikuspegi teoriko horren laguntzaz eta corpusaren laguntzaz, perpausera lerratutako gramatikaren arabera zuzenak ez diren hainbat adibide diskurtsoaren antolamenduan egokiak izan daitezkeela erakusten saiatuko gara. Eta, beraz, hainbat juntagailuen pilaketa perpausera mugatutako irizpideetan oinarrituz zuzenak ez izanik ere, gerta daiteke diskurtsoan antolamendu jakin batean (hots, enuntziatu parentetikoaren egituran) egokiak izatea. Eta egokiak badira, hain zuzen ere, oinarrizko enuntziatuaren eta enuntziatu

parentetikoaren artean lotura gauzatzen ez dutelako dira, bi enuntziatu independente edo bere eskuko direlako eta, beraz, ezin har ditzakegu perpaus beraren barnean gertatzen den pilaketa bezala.

Odriozolak artikulu horretan, *baina + edo* metaketa ez du gramatikaren aldetik zuzentzat ez eta testu aldetik egokitzen ere jotzen:

- \* Konpondu egin beharko dut erlojua **baina edo** boladan dagoen bat eros dezaket.

Adibide horren ordez, zilegi izan bekigu, juntagailuen metaketa frogatzea helburu dugunez, testu funtzioa bete dezaketen beste hainbat juntagailutara ere esparrua hedatzea; garbi izanda, ordea, Odriozolak ez dituela jarraian aztergai izango ditugun metaketak berariaz aztertzen.

- Baina + Eta metaketa
- Ordea + Eta
- Gainera + Eta

Pentsa dezakegu goiko metaketa horiek *Baina + edo* bezalaxe ez-gramatikaltzat jotzea dela ohikoena. Baina zer gertatzen da enuntziatu parentetikoetan? Egitura jakin honetan ohartuko gara, izan ere, maiz aski Mitxelenak oinarrizko enuntziatuaren egitura sintaktikoa horrelako lokailu funtzioa duten juntagailuen ondo-ondoan<sup>160</sup> hausten duela eta egitura parentetikoaren buruan gisa horretako beste lokailu bat paratzen duela. Horrela, jatorriz juntagailuak diren bi lokailuak ondoz ondo paratuko ditu, nahiz eta bien artean, biak bereiziz, egitura parentetikoaren demarkazio grafikoa egon.

### **Baina + eta**

- *Baina, eta horrelakorik ez da sarri gertatzen*, orrialdez orrialde irakurri nuen, eskutik utzi gabe azkeneko "AMDG"-raino heldu arte. (LIB II. 99).

### **Ordea + eta**

---

<sup>160</sup>Garbi dago *etaren* izaeraz gain, enuntziatu parentetikoaren demarkazio grafikoa aditzera ematen duen etena ere oso adierazgarria dela. Dударik ez dago, halere, *eta* egitura horietan juntagailu ez dela frogatzeko ongi datozkigula.

- Gauden gaudenean, *ordea*, **eta inor gutxi saiatu denez gero giro berezien begitarte aldakorra itzultzen eta irakurleari erakusten**, ezin daiteke izan erru arina baizik, akats ezereza, Gazteluri egotzi diodana. (LIB II: 106).

- Bestetik, *ordea*, **eta hemen badihoakit neri ere**, neurkera horren bidez esplika daieke silaba jakinik ez duten kanta zaharren neurria (LIB II: 107).

### **Gainera+eta**

- Esanak oroitarazten dit hor daudela, Oteizak oldar bizian eraso dien etsaien artean, “Urkixotarrak” direlakoak ere: badirudi, *gainera*, **eta ez ninduke horrexek minduko**, neure buru tristea ez dabilela horrengandik urruti. (LIB II: 118).

- *Gainera*, **eta hau da okerrena**, jeben-en jatorria ziape-rena berbera da, alde hau gorabehera. (LIB I: 115).

Erabilera hori diskurtso aldetik egokia bada, bi diskurtso-zati bere eskuko direlako da, lotura sintaktikorik gabeko bi enuntziatu independente, hain zuzen ere. Eta, beraz, horrek ere adieraziko liguke bien artean ez dagoela loturarik, loturarik balego ez bailitzateke egokia izango.

Mitxelena-ren erabilera horrek ere goian atera dugun ondorio berera garamatza. Azken batean, egitura parentetikoaren buruan agertzen den *eta* artxikonektagailuaren egitekoa ez dela, gure ustez, perpausa elkartzeko funtzioa duten juntagailuena.

### **3. Lokailu pilaketa testu-gramatikarentzat zilegi**

Goian ikusi ditugun juntagailuen arteko metaketek aukera gutxi zuten testu-gramatikaren ikuspegitik ere egokiak izateko. Alabaina, ohartu gara azterkizun dugun egitura sintaktiko jakin honetan agertu agertzen direla bata bestearen ondoan, bi enuntziatu bere eskuko direlako eta, horren adierazgarri, bien arteko haustura “bigarren graduko” puntuazio ikurrek zedarritzen dutelako.

Gerta daiteke, *ordea*, eta corpuseko adibideei erreparatu besterik ez dago horretaz jabetzeko, parentetikoaren buruan agertzen den *etak* aurrez aurre lokailuren bat edo esapideren bat izatea.

*Lokailu* deizioa bereziki Euskaltzaindiak (1990) *lokailu* izenaren pean azterturikoak (*gainera, osterantzean, aldiz, beraz, izan ere...*) izendatzeko erabiliko dugu. Horiez gain, ordea, bada hainbat eta hainbat gailu, Makazagarekin bat eginez (1996), *esapide* bezala izendatuko ditugunak, edo, Esnalekin bat eginez (2008), *testu-markatzaile*, nahiz *aditzondo-esapide* gehiago direnak.

Ohiko lokailuen eta esapideen arteko muga, ordea, ez da oso garbia. Euskaltzaindiak aipaturiko guztiak behar bezala ihartuak daudela pentsatu eta *gainera* bezalako hitz bakarrak lokailu direla esango dugu. Euskaltzaindiak, zerrendatzean, lokailu horiekin batera aipatzen dituen bai lokailu moduan erabil daitezkeen juntagailuei (*eta, edo, ala, baina*), bai oso arruntak diren beste hainbat esapide barne hartzen dituen multzoari (*nolanahi ere, ildo beretik, horren ondorioz, hala eta guztiz ere, halaz guztiz, etab.*) berriz, *testu-markatzaile*<sup>161</sup> deizioa emango diogu, Euskaltzaindiak berriki argitaratu duen *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa* liburuan (2008) agertzen den bezalaxe.

Oraingo honetan, bada, lokailu nahiz testu-markatzailetzat jo ditugun haien eta *eta* artxikonektagailuaren artean loturarik dagoen aztertzen saiatuko gara; hau da, holakoetan *etak* lokailu nahiz esapidearekin koordinaziozko loturarik gauzatzen duen aztertuko dugu; bai baita azterbiderik, “intzidentalaren” kategoria berresten duten Oviedoko eskolakoek jarraitzen dutena esaterako, *eta* eta aurreko esapide horien artean koordinaziozko lotura dakusanik.

Alvarez Menendezek (1988) intzidentaltasuna adjektiboetatik aditzondoetara hedatu zuela ikusi dugu metodologiaren alderdian. Baita aditzondo esapidetara ere: *por lo demás, en cualquier caso, sin embargo, por consiguiente, por lo tanto...* Intzidentaltasuna defendatzen duten aztertzaileak ohartzen dira horrelako esapideak lot daitezkeela intzidentalekin; koordinaziozko lotura gauza daitekeela euren artean eta, ondorioz, esapide hauek (erabat ihartu gabe dauden esapide hauek) azken batean intzidentalaren kategoria osatzen dutela.

Hori frogatzeko, “Sin embargo y aunque sean tiempos difíciles...” bezalako adibideak aldatzen dituzte eta *sin embargo* konjuntzioaren eta intzidentalaren artean koordinaziozko lotura dagoela frogatzen.

Son commutables, se oponen en el decurso y son equifuncionales porque, afirman estos autores [intzidentalaren defendatzaileak] pueden entrar en coordinación tanto entre

<sup>161</sup>María Antonia Martínek eta José Portolésekin *diskurtso-markatzaile* terminoa darabilte, eta sail horretan kokatzen dituzte lokailu nahiz hainbat esapide ere, baina beti ere ikuspegi gramatikala erabiliz; hau da, hizkuntza-unitate aldaezinak soilik joz diskurtso-markatzailetzat.

ellas como con los adverbios ya citados, así como con otras construcciones adverbiales. (Fuentes 1998: 144).

Corpusean horrelako adibideak ugariak ditugu:

### **Nolanahi ere + eta**

- : *nolanahi ere, eta beren artean dituzten berezitasun larriak gorabehera*, bizkiak dirudite azken hoek guztiak Olabideren aldamenean. (LIB II: 112).

### **Halaz guztiz+ eta**

- *Halaz guztiz, eta inoren lumarik jantzi gabe*, aski harrigarriak dira gure mariñelen ibilerak. (LIB II: 57).

### **Hala eta guztiz ere+ eta**

- *Hala eta guztiz ere, eta galduak galdu*, Ramuntxo-ren leku aldatze hori euskaldunen onerako izan denik ezin uka. (LIB II: 81).

### **Horrezaz gainera+ eta**

- *Horrezaz gainera, eta horiek baino lehenago noski*, saina edo lurrera ateratzeko egiten ziren suak eta labeak adierazten baitzituen. (LIB II: 57).

### **Beraz + eta**

- Berganmen'ek ez du *beraz, eta ez da hau merezimendu laburra*, ezkutaria beztu nahi izan zalduna areago edertzeko. (ZIN: 198).

### **Berriz + eta**

- Batzuek, *berriz, eta ez gutxi*, bere laburrean eta zorrotzean, gain-gainekoak. (LIB I: 146).

Adibide horietan guztietan, Oviedoko eskolakoei jarraituko bagenie, *etak* aurreko lokailu nahiz konjuntzioekin koordinaziozko lotura gauzatzen duela esango genuke. Gure ustez, ordea, holakoetan ez du maila bereko informazioaren arteko lotura-harremana bideratzen; ez du *dictum* mailan dauden bi enuntziatuen arteko lotura bideratzen. Gure ustez, elipsian dagoen enuntziatioarekin nahiz modalizazio mailako informazioarekin baizik ez du lotura gauzatzen. Eta ezartzen duen balioa lotura baino areago “afektiboa” (Dessaintes), enfatizatzailea, nabarmentzailea (Larringan 1995: 117) berrindartzailea, berreslea (Fuentes, 1998: 145) dela esaten ausartuko ginatke.

Esate baterako:

- *Halaz guztiz, eta inoren lumarik jantzi gabe*, aski harrigarriak dira gure mariñelen ibilerak. (LIB II: 57).

Gure ustez, *eta* lokailuak ez ditu bi segmentuak lotzen. Lehenik eta behin beharrezkoa da, goian esaten genuenez, *etaren* aurrean geldialdi bat egitea (demarkazio tipografikoak adierazten digu). Alde horretatik, egitura hau bazterreko egitura bezala agertzen da, entonazio aldaketa eta guzti. Hurrenkera aldatuz gero, honako egoeraren aurrean geundeke:

- “Eta inoren lumarik jantzi gabe [diot], halaz guztiz aski harrigarriak dira gure mariñelen ibilerak”.

Badirudi, “eta inoren lumarik jantzi gabe” horrek “diot” edo adierazpen mailako aditzen bat auresuposatzen duela; hau da enuntziatio mailako azalpenen bat egiten duela. Beraz, honako zerbait uler dezakegu: “Aurka dagoen zerbait esan dut (halaz guztiz) eta gainera inoren lumarik jantzi gabe diot”.

Honenbestez, *eta* artxikonektagailuak oztopoa enfatizatu, hanpatu egiten du, eta guztia solaskideek jakinaren gainean baleude bezala aurkeztu. Lotura hori, ordea, beti ez da enuntziatio mailan gauzatuko, eta aztergai ditugun adibideak ere ez dira beti hain argiak izango.

Esate baterako, hainbat adibidetan, modalizazio mailan gauzatzen du lotura, eta holakoetan *eta* lokailuak esandako hori bermatzeko, berresteko, berresateko, esandakoari eusteko, nahiz, oro har, bere iritzia txertatzeko baliagarri gertatuko da:



- : *nolanahi ere, eta beren artean dituzten berezitasun larriak gorabehera*, bizkiak dirudite azken hoek guztiak Olabideren aldamenean. (LIB II: 112).

Adibide hau, esaterako, honela parafrasea dezakegu:

“Nolanahi ere bizkiak dirudite azken hoek guztiak Olabideren aldamenean eta hau baieztatzen dut nahiz eta beren artean berezitasun larriak dituzten”

Bermatzeko edo esandakoari eusteko balioa, elidituta dagoen esaldia agerian ipiniaz lortzen dugu, eta hortxe dakusagu *eta* lokailuaren lotura-balioa ere.

Batzuetan urrunago doa eta ez du soilik esandakoari eusteko edo esandakoa bermatzeko balio; hori baieztatzeaz gain, esan duen horri buruz duen iritzia esplizitu egiteko ere balio du:

- Bergman´ek ez du *beraz, eta ez da hau merezimendu laburra*, ezkutaria beztu nahi izan zalduna areago edertzeko. (ZIN: 198).

“Bergman´ek egin duena baieztatzen dut eta, gainera, egin duen hori ez dela merezimendu laburra iruditzen zait”. Beraz, esatariak ez du E1 enuntziatuan esandakoa berretsi bakarrik egiten, bere iritzia emateko edo gehitzeko ere egoki gertatzen zaio *eta* buruan daraman enuntziatu parentetikoa.

Modalizazio mailako informazioa txertatzeko balio duen adierazle adibide ugari ditugu. Modalizazio mailako eta enuntziazio mailako informazioa txertatzeaz gain, informazio-egituran nahiz argudio egituran aurrera egiten laguntzen duen informazioa ere txertatzen du (edo gehitzen du) *eta* buruan daramaten B tipoko enuntziatu parentetikoek.

Ils [et, car...] ne s'expliquent que par la présence de E2 et peuvent être considérés comme des indices du fait que si E2 se situe à un autre niveau énonciatif, il n'en est pas moins nécessaire à la progression discursive et argumentative. (Delomier & Morel 1986: 153).

Autore hauek ere berariaz diote parentetikoaren buruan agertzen diren *eta* bezalako lokailuak adierazgarri direla, enuntziatu parentetikoaren beste maila batean kokatzen delako adierazgarri. Azken batean, diskurtsoaren eta argudioaren garapenean dakusate beren eginkizuna (ikus, horren adierazgarri diskurtso-estrategiei eskainitako atala).

Beraz, autore hauek ere E2 enuntziatuaren buruan agertzen diren *et* eta *car* konektagailuez berariaz mintzo direlarik, ez dute uste koordinaziozko eginkizuna dutenik:

E2 est une proposition introduite par un connecteur appelé habituellement “conjonction de coordination” (et, car). Ce connecteur n’a en fait pas de rôle coordonnant, mais semble plutôt souligner le décrochement énonciatif et discursif de E2. Les propositions qu’introduisent ces deux connecteurs semblent avoir pour rôle d’assurer un ancrage existentiel à ce qui précède. (Dominique & Morel 1986: 146-147).

Iritzi honen aldekoa da Baque Millet ere:

(...) lorsque apparaissent au début de la parenthétique, leur fonction n’est plus de coordonner, mais plutôt de marquer un décrochage entre celle-ci la partie de la phrase insérant qui la précède. (Baque Millet 1999: 28).

#### 6.4.4.3.1.1. Ondorio gisa

Oinarrizko enuntziatuan agertzen diren “lokailu” (*beraz, gainera...*) nahiz “esapideek” (*nolanahi ere, halaz guztiz, hala eta guztiz ere, horrezaz gainera...*) oinarrizko enuntziatu hori aurrekoarekin lotzeko balio dute; hots, *dictum* mailako enuntziatuak beren artean lotzeko. Egitura parentetikoetan buruz buru agertzen den *eta* artxikonektagailuak, aitzitik, enuntziatio mailan edo modalizazio mailan dagoen informazioarekin lotzen du enuntziatu parentetikoaren; hau da, elidituta dagoen modalizazio edo enuntziatio mailako egitura bat presuposatzen du edota enuntziatu bereko aditza errepikatzea eskatzen. Hondarrik hondarrean, makroegiturako edukia perpausean islatzeko mekanismoa da.

Beraz, *eta* buruan daramaten enuntziatu parentetikoaren eta oinarrizko enuntziatuaren artean lotura sintaktikorik ez dagoela frogatzen saiatu gara, eta horretarako hiru frogak nagusi erabili ditugu:

a) Komunztadurari dagokiona: *eta* koordinatzailea balitz oinarrizko enuntziatuko aditza pluralean agertuko zatekeen.

b) Juntagailu metaketari dagokiona: gramatikak debekatzen du bi juntagailu ondoz ondo paratzea. Egitura parentetikoan para badaitezke, bai entonazio aldetik bai sintaxi aldetik bi enuntziatu bere eskuko direlako para daitezke; bi diskurtso-zati independente direlako.

c) Lokailu eta juntagailuen arteko metatzeari dagokiona: oinarrizko enuntziatuan doan lokailu nahiz esapideak maila berean (*dictum* mailan) dagoen informazioarekin dagoen lotura adierazten du, eta *eta* artxikonektagailuak, berriz, gehienetan<sup>162</sup>, makroegiturako informazio batekin gauzatzen du lotura.

#### 6.4.4.3.2. ETA2 nabarmentzailea

Orain arte *eta* "artxikonektagailu" bezala bataiatu dugu juntagailu eta lokailu izateaz gain (*eta*, beraz, maila berean dauden bi enuntziatu lokaberen arteko harreman semantikoa agerian jartzeko ahalmena badu), enuntziatu parentetikoetan behintzat, beste maila bateko informazioa ere gehitzeko gai delako; hau da, jatorriz perpaus mailako baliabide bat izanik makroegitura bateko informazioa aditzera emateko mekanismo bihurtzen delako:

En realidad es cómo lo enunciativo o macroestructural se imbrica en lo oracional y se usa un instrumento oracional como un mecanismo supraoracional. (Fuentes 2000: 237).

Beraz, *eta*, jatorrizko funtzioa betetzeko ahalmena galdu gabe (koordinatzaile emendiozkoa), testu mailako funtzioa betetzera heldu da (enuntziatu lokabeen artean emendiozko harremana dagoela berariaz agertzen du). Baina kontuan izan behar dugu azken funtzio hau betetzean, funtzio horrekin batera jatorrizkoa ez den beste eginkizun bat ere

<sup>162</sup>Ezin dezakegu, halere, baieztapen erabatekorik egin; izan ere, garbi dago zenbaitetan E1 enuntziatuko predikazioaren mugak zabaltzeko, gehitzeko, emendatzeko egitekoa ere baduela. Eta alde horretatik egin dugu ETA1 eta ETA2ren arteko bereizketa.

"(...) Adierazpen tartekatu horrek, predikazioaren jarraipen eta zehaztapena eman lezake soilik". (Agirre 1991: 924).

Ikus, esaterako, corpuseko ondorengo adibidea:

- Soinua, eta harekin batera hitza, agertu zenean zineman, lehengo mutuan iraun zuen Charlotek. (ZIN:130).

Holakoetan ere, "predikazioaren jarraipena" den horietan ere, ordea, *eta* buruan daraman enuntziatu parentetikoak polifoniarekin zerikusirik baduela aztertuko dugu; hau da, holakoetan ere badela makroegiturazko informazioaren txertatzaile. (ik. § 9.3.3.).

betetzen duela. Zein da, bada, betetzen duen funtzioa? Perpaus artean nahiz enuntziatu lokabeen artean emendiozko edukia txertatzeaz gain, ba ote du beste egitekorik? Gure ustez bai.

Emendiozko balioa

*Eta2* “artxikonektagailuak”, batetik, erreferentzia mundua hedatzen du. ‘Gehitzea’ edo emendioa bideratzea *eta2*ren balio pertinentea izango da.

- Soinua, ***eta* harekin batera hitza**, agertu zenean zineman, lehengo mutuan iraun zuen Charlotek. (ZIN: 136).
- Baina zineman, ***eta* gizartean ere sarri**, gehiago balio du itxurak izanak baino. (ZIN: 163).
- Japonen eta hemen gizona —***eta* emakumea**— izukaitz baino bildurriago, prestu baino berekoiago, bihotz-zabal baino zitalago dela, alegia. (ZIN: 130).
- Baina kantari eta dantzari —***eta* zahatoari eragiten**— ari direino ez dira dirudienez, gehiegi oroitzen ez itsasoaz ez etxe gaineko hipotekaz. (ZIN: 132-133).

Horrelako adibideak, hau da, E1 oinarrizko enuntziatuan adierazten denaren erreferentzia mundua hedatzen duten adibideak, ugariak dira. Beraz, holakoetan ezin uka E2 enuntziatuak E1 oinarrizko enuntziatuarekin kohesio mailako harremanik ez duenik.

Halaz ere, adibide horietan bertan, “emendio” esanahi horrezaz gain, bada, gure ustetan, egin daitekeen beste irakurketa bat ere:

*Eta2k* E1 enuntziatuan datorren informazio esparrua hedatzeaz gain, edo hori baino gehiago, bi informazio lerro desberdin elkarrekin gurutzatzea zilegi egiten du, inolako juntagailu eta menderagailurik gabe egin ere.

- a) - Batetik E1 oinarrizko enuntziatuan agertzen den informazioa
- b) - Bestetik, bat batean, pentsatu ahala egiten dituen iruzkin edo bere argudio-harian aurrera egiteko garrantzitsua den informazio berezitua; hots, kalitatearen ikuspuntutik nabarmentzen duena.

Gainera, informazio hauek ez dira une eta ikuspegi beretik eginak izango. Esatariaren izaera bikoitza nabarmenduko dugu: polifonia edo ahots ugariren gertakaria.

E1 enuntziatuan esatariak besteren ikuspuntutik enuntziatzen du eta, aldiz, E2 enuntziatuan esatariak bere-berea duen ikuspegia darabil. Horrela, esatariaren beraren bikoizketaz mintzo beharko genuke edota esatari/ enuntziatzaileen arteko desberdintasuna nabarmendu.

E1 oinarrizko enuntziatua	E2 enuntziatu parentetikoa
- Esataria ± enuntziatzailea (esatariak besteren ikuspegitik informatzen du).	- Esataria = enuntziatzailea (esatariak bere-berea duen ikuspuntua darabil; E1 enuntziatuan darabilen ikuspuntutik aldentzen eta urruntzen da).
- Informazioa <i>dictum</i> mailan edo proposiziozko egituran kokatuko dugu.	- <i>Eta</i> ri esker gehitzen duen informazioa norabideratua dago: informazio-esparrua hedatzen du, baina beti ere informazio hori modalizatuz eta iruzkinduz, bere galbahetik iragaziz. Horrela zuzen-zuzenean argudio-egituran eragiten du.
- Informazioa aldez aurretik pentsatua zegoen eta lehen une batean paratzen du.	- Informazioa, bigarren une batean paratzen du, tartekatua den unean bertan gogoratua bailitzan.
- Oro har, baieztapen edo adierazpen orokor bat egiten du.	- Adierazpen orokor horri ale berezituak gehitzen dizkio, bere ikuspegia justifikatzeko, nabarmentzeko edo bideratzeko komeni zaizkionak.

Esate baterako, har ditzagun goiko adibide batzuk:

a- Baina zineman, **eta gizar-tean ere sarri**, gehiago balio du itxurak izanak baino. (ZIN: 163).

- Japonen eta hemen gizona —**eta emakumea**— izukaitz baino bildur-tiago, prestu baino berekoiago, bihotz-zabal baino zitalago dela, alegia. (ZIN: 130).

c- Baina kantari eta dantzari —*eta zahatoari eragiten*— ari direino ez dira dirudienez, gehiegi oroitzen ez itsasoaz ez etxe gaineko hipotekaz. (ZIN: 132-133).

Lehendabiziko adibidean, esatariak zinemaz dihardu, baina zinemaz dioenak balio dio gizarteari buruz mintzatzeko ere eta azken batean benetan interesatzen zaiona “gizartean itxurak izanak baino gehiago balio duela” adieraztea da.

Bigarren adibidean, oinarrizko enuntziatuan “gizona” darabil baieztapen orokorra egiteko. “Gizona” litzateke klase, paradigma edo sail orokorra (interpretazio-lerro neutroago batek termino horren barruan sartuko luke “emakumea” ere) izendatuko lukeen terminoa, baina sail orokor horri “emakumea” berariaz gehitzeak, “matxismo”, “feminismo” tirabirak ere iradokitzen lagunduko digu. Ez da, beraz, enuntziatu parentetikoei esker egin daitekeen bigarren interpretazio-lerro hau hain neutroa izango. Hau guztia, ordea, diskurtso-estrategien atalean sakonduko dugu.

Hirugarren adibidean “kantari” eta “dantzari” sail orokorrari “zahatoari eragitea” gehitzen dio, baina ez neurri berean. Helburua “emendio soila balitz E1 oinarrizko enuntziatuaren sintaxi egituran bertan txertatuko zuen. Baina esatariari, baieztapen orokor horretatik kide bat nabarmentzea, azpimarratzea, hanpatzea interesatzen zaio, adierazi nahi duen tesia edo argudio-harian aurrera egiteko garrantzizko bihurtzen zaiolako.

Honenbestez, E1 enuntziatua soilik kontuan hartuta egingo genukeen irakurketa arruntari, hain arrunta ez den eta tonu baxuago batean egingo den beste irakurketa-lerro bat irekitzen dio, ironikoagoa, bihurriagoa, bere-bereagoa duena.

Ondorioz, *Eta2* enuntziatu parentetikoaren buruan doanean, gure ustez, emendiozko esanahia txertatzeaz gain badu beste egitekorik. Ezartzen duen balioa, emendioa baino areago afektiboa, enfatizatzailea, berrindartzailea, nabarmentzailea dela esaten ausartuko ginatke, datu hori indartu edo nabarmentzea interesatzen zaiolako bere argudio-harian aurrera egingo badu. Eta alde horretatik, *eta2* edo nabarmentzaile (Larringan 1995) edo indartzaile (Esnal 2008) bezala izendatuko dugu, argudiozko operatzaile hau.

Honenbestez, *eta* bat baino gehiago bereiziko genituzke:

ETA MOTAK		
	ADIERA	ADIBIDE MOTAK
ETA1	Emendio edo gehitze soila	Adibide guztietan agertzen da adiera hori: <ul style="list-style-type: none"> <li>Ez dago, beraz, eta nahi eta ez ez zegokeen, azken urteotan —<b>eta bat edo beste lehendanik</b>— gure Gipuzkoa honetan agertu diren berrikerien alde. (LIB I: 130).</li> </ul>
ETA2	Azpimarratu, hanpatu, nabarmendu, etab.	ETA buruan daramaten enuntziatu parentetikoetan oro har: <ul style="list-style-type: none"> <li>Han-hemenka, <b>eta hauxe da aipa dezakedan alde txar bakarra</b>, motz agertzen dira, osatu gabe, zenbait aipamen:izenetan ere, hizkuntza arrotzetarikoetan batipat, badira zenbait oker. (LIB II: 148).</li> </ul>
ETA3	Anakolutoetan erabiltzen dena	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hilkizunetan izaten dira zenbait txolarte alai —<b>adiskide artean, hildakoaz ahazturik, egiten diren berrikeriak eta</b>—, eta Sacha Guitry zena ere, goian bego, saiatu da aldiz-aldiz ikuslearen zama arintzen. (ZIN :178).</li> </ul>

ETA1 emendiozkoa izendatzeko erabiliko dugu eta ETA2k, berriz, emendiozko balio orokorra ukatu gabe — arrasto nagusi horri beti eusten baitio, nahiz eta emendatzen edo gehitzen duen informazio makroegitura batean kokatzen dena izan—, badu bestelako eginkizunik ere: nabarmentzea, azpimarratzea, hanpatzea, etab. ETA3, berriz, esaldia amaitu gabe geratzen den adibideetarako erabiltzen da. *Anakoluto* bezala bataiatzen ditugu eta zerrenda luza daitekeela adierazten du.

ETA3ren erabilera hau honela definitzen du Agirrek (1991).

ETA elkartizak, kutsu bariatsuak har ditzake kontestu arau. Batzutan lotgaia estali, suposatu edo zehazgabe legez azal daiteke, sintagma eskegiak osatuz. (Agirre 1991: 923).

Agirreraren arabera, *etak* elkartzen duen bigarren osagai hori estalirik edo hitzez zehaztu gabe uzten du, solte, zintzilik dauden sintagmak osatuz.

Gure corpusean goiko adibideaz gain, beste hiru ere agertzen dira egitura parentetikoan:

- Oraingoan, H. Melvilleren eleberri ezaguna zinemaratzean, antolamendu leiala, trebea eta biluzia eman digu, ohi diren apaingarriak —**neskatxa lirainen maite-minak eta**— bazterturik. (ZIN: 186).

Adibide horretan garbi ikus daiteke esatariak “ohi diren apaingarrizat” ez dituela “neskatxa lirainen maiteminak” soilik jotzen, *eta* horrekin beste hainbati ere atak irekita uzten baitzaizkio; esatariak sintagma irekita, bukatu gabe uzten baitu.

#### 6.4.4.3.3. *Eta* buruan daraman enuntziatuen egitura formala

*Eta* buruan daraman E2 enuntziatu parentetikoak aditza eraman dezake edo ez. Beraz, alde horretatik, perpaus (nagusi<sup>163</sup>) baten eitea izan dezake edota sintagma batena. Irizpide hori erabiliko dugu, bada, bi sailak bereizteko.

#### 6.4.4.3.3.A. Aditz jokatua duen *eta* bidezko enuntziatu parentetikoa

Ugariak dira *eta* buruan eramatearen premisa betetzeaz gain, aditza daramaten enuntziatu parentetikoak (73 adibide). Aditz hori, ordea, zein motakoa da? A tipoko enuntziatu parentetikoetan gertatzen zen legez, komunikazioko aditzak ote dira nagusi?

Taula bidez laburbilduko ditugu datuak:

E2 enuntziatuako Aditz mota: komunikazioko aditzak	Aditz jokatua	Aditza eliditua (aditz kopulatiboa berreskura liteke)	%zenbat
Izan (Aditz kopulatiboa)	32	7	%48.75
Verba dicendi motakoak			
ESAN	7		%8.75
AIPATU	1		%1.25
AZALDU	2		%2.5
HITZA IZAN	1		%1.25
MINTZATU	1		%1.25
NORBAITI BURUZ ARITU	3		%3.75
AZKEN PUNTUA IPINI	1		%1.25
SAILEAN SARTU	1		%1.25

<sup>163</sup>Aditzak, azken batean, ez du menderagailurik edo marka formalik eramango. Gehienak horrelakoak badira ere, bada corpusean mendeko perpausaren marka formala daraman adibideren bat edo beste:

- Gure hizkuntza dagoen baino landuago balego, pekatu larria litzateke, noski, mendeari eta garaiari dagokion giro jakin hori ez itzultzea. Gauden gaudenean, ordea, **eta inor gutxi saiatu denez gero giro berezien begitarte aldakorra itzultzen eta irakurleari erakusten**, ezin daiteke izan erru arina baizik, akats ezereza, Gazteluri egotzi diodana. (LIB II:106).
- Gerta baitaiteke, **eta maiz gertatzen baita**, zailtasun horren hogen a idazlearen ez izatea. (LIB II:138).



IRAKURRI	1		%1.25
<b>Adimenari lotuagoak</b>			
DAMUTU	1		%1.25
JAKIN	1	2	%3.75
ZALANTZA GELDITU	1		%1.25
GOGORARAZI	1		%1.25
EZAGUTU	1		%1.25
ESKUBIDEA UKATU	1		%1.25
GOGOA IZAN	1		%1.25
IKUSI (BEGI ZORROTZEZ)	1		%1.25
AUZI BIHURTU	1		%1.25
ASMOTAN IBILI	1		%1.25
<b>Sentimenduak adierazteko</b>			
MINDU	1		%1.25
BELDURRAK EGON	1		%1.25
POZTU	1		%1.25
BEGITAN EDUKI	1		%1.25
<b>Bestelakoak</b>	6		%7.5
<b>Guztira</b>		80	

Adibideen maiztasunak erakusten digunez, gehien agertzen den aditza IZAN aditz kopulatiboa da, eta badu bere arrazoa: lehen esana dugu *eta* buruan daraman enuntziatu parentetikoari esker esatariak E1 enuntziatuan esan duenari buruz, bere iritzia, bere balorazioa gehitzen duela (modalizazio-mailako informazioa), eta horretarako “ IS NOR + Izena/Izenondoa +IZAN” egitura egoki datorkio:

- Baina Fortebraccio della Rovere izen-deiturez jabetu den orduko, **eta ez da harritzeko horien pisu-astuna nabaritzea**, zerbait aldentzen da gure arlotearen barruan. (ZIN: 195).

- Huts larriak, bi ditu itzulpen honek. Esan dudan naturaltasunik eza, aurrenik, **eta pekatu larria da**. (LIB I: 120).

- Barcelonan egina, erdarazkoa berbera da, irudi eta guzti. Baina, **eta hau da berri pozgarria guretzat**, erdarazkoarekin batera, euskarazkoa ere salgai dago gure artean. (LIB I: 133).

- Beharrak eta indarrak batera joarazten ez gaituzteino —**eta txorakeria litzateke orduan euskaldun guztiak giputzen esanera egongo direla sinestea**—, atzera begiratu behar dugu, euskalkiak are gehiago elkarrengandik bazter ez daitezzen. (LIB I: 120).

Sei adibide izan ezik, gainerakoak (A tipoko aditza daramaten enuntziatuekin gertatzen zen bezalaxe) hitzezko egitateak azaltzen dituzten aditzak dira, baina, bereziki, komunikaziokoak, dela esateari zuzendutakoak, dela adimenari lotuagoak, dela sentimenduak adierazten dituztenak.

Badira aditz kopulatiboa eliditurik duten adibideak ere, eta beraz, aditz hori berreskuratzea ez litzateke hain zaila izango. Hona horietako batzuk:

- Gisa horretako predikua, **eta luze xamarra [da] aukeran**, da goian aipatu dugun Stanley Kramer ‛en film hau. (ZIN: 193).

- Gaitz litzateke, **eta are ezinezko [litzateke]**, lehen liburu honen aberastasunaren berri ematea. (LIB II: 98).

#### 6.4.4.3.3.A.1. E1 oinarritzko enuntziatuarekiko aldaketak

E2 enuntziatuak E1eko dakartzan aldaketak modu sistematiko batean biltzeko aditzean bertan islatzen diren haiei erreparatuko diegu.

### 1) Aditz moduaren aldaketa

E2ko aditzak maiz E1eko aditz moduarekin erkatuz aldaketak dakartza. Aldaketa nabarmenenak taula bidez laburtuko ditugu:

Aditz moduaren aldaketa		Zenbat adibide	% zenbat
E1 oinarritzko enuntziatua	E2 enuntziatu parentetikoa		
BALDINTZA	INDIKATIBO (soila)	5	%22.72
AHALERA	INDIKATIBOA	7	%31.81
INDIKATIBOA	AHALERA	5	%22.72
INDIKATIBOA	AGINTERA	5	%22.72
GUZTIRA		22	%100

Goiko datuek erakusten digutenez, *etak* abiatzen dituen enuntziatu parentetikoetatik, 22 adibidek (aditza daramaten enuntziatu parentetikoaren %27.13k) aditz moduan aldaketa dakarte E1 oinarrizko enuntziatuko aditzarekin alderatuz. Aldaketa hauetan bi joera nabarmen ditzakegu.

Batetik, E2 enuntziatu parentetikoarekin, balizko gertakariak (dela baldintzatuak, dela hipotesi mailakoak) esatari-norentzakoek bizi duten errealitatera hurbiltzeko edo gerturatzeko joera.

a) E1 oinarrizko enuntziatuko baldintzari indikatibo soila daraman E2 enuntziatua tartekatzen dio:

- Erraztasunak ezer galdu *badu* hemen edo han, **eta euskaraz tutik ez *dakien* ikaslea daukat gogoan**, ugaritasunak eta aberastasunak irabazi dute. (LIB II: 68).

- Illiada inork itzuli nahi *badu* —**eta *izango da* egun edo bihar egiteko larri horri ekingo dion euskaldun ausarten bat**—, aurkituko du laguntza Aita Barandiaranek egin duen lan izugarrian. (LIB I: 71).

- Euskal irakurleak gehitu eta euskara zabaltzeagatik ekin *badio* lan apal honi —**eta gehiagotarako gai dela gauza nabaria *da***—, ez du gutxi egin gure hizkuntzaren alde. (LIB I: 91-92).

- Gaur egunean euskaraz mintzarazten inor saiatzen baldin bada —**eta ez *dira* gutxi, Jainkoari eskerrak, horretan ari direnak**—, buruzagien artean dabil, dudarik gabe, Aita Patxi Altuna. (LIB II: 153).

b) E1 oinarrizko enuntziatuan ahalerazko aditza darabil, baina E2 enuntziatu parentetikoan indikatibozkoa:

- Esango *nuke*, **eta asko esatea *da***, hau dela higuigarriena amerikanoek Bibliarekin, gizon indartsu eta emakume erdi-biluxiekin, sortzen dituzten saltsa koipetsu horietan guztietan. (ZIN: 189).

- Santu bakoitzaren kondairari buruz ez *naiteke* ezer esaten ari, **eta ez dago ezer esan beharrik**, iturri honetara jo baitu A. Manzidorrek ur bila. (LIB I: 123).

- Neronek *ikus dezakedanez* —**eta ez naiz nor horrelako auzietan mintzatzeko**—, ederki tajutua du gaia, lau kapitulutan berezia, eta harira doa beti egilea, hitz alferrik gabe. (LIB II: 71).

Bestetik, bada joera, eta adibideak dira horren lekuko, E1 oinarritzko enuntzian egindako baieztapena leundu, “goxatu” edo arintzekoa ere. Eta hori, E2 enuntzian ahalera erabiliz lortu ohi du:

- Esanak oroitarazten dit hor daudela, Oteizak oldar bizian eraso dien etsaien artean, “Urkixotarrak” direlakoak ere: badirudi, gainera, **eta ez ninduke horrexek minduko**, neure buru tristea ez dabilela horiengandik urruti. (LIB II: 118).

- Dakidanez —**eta poztuko ninduke bizi-roker nagoela jakiteak**—, euskal literatura guztian behin agertzen da adizki hori, Garibayk XVI. gn. mendean jaso zuen esaera batean. (LIB I: 77).

Aginterazko formak ere, oro har, *barkamena* eskatzeko darabiltza. Beraz, goian aipaturiko leuntze eginkizunarekin, edo, hobeto, kortesiazko-estrategiekin lotuko genuke (diskurtso-estrategien atalean sakonduko dugu):

- Nik —**eta barka bekit “izenorde higuigarri” honez hasten banaiz mintzaten**— profeta baten gisan ikusten dut aurrenik gure Oteiza, gure artean nola eta nondik ez dakigula —aldiz bizardun, aldiz okotz soil— agertu zaigun antzinako igarleen ondorengo galdu baten antzera. (LIB II: 117).

- Gure-gureak baititugu biak —**eta barka biezat “Kamiñazpi”-k**—, gure artetik sortuak eta geron antzera taxutuak. (LIB II: 146)

## 2) Aspektu-aldaketa

Kontuan izanik ahalerazko eta aginterazko adibideak bakanak direla (10 adibide) indikatibozkoari erreparatuko diogu; hobeto esan, enuntziatu parentetikoetan indikatibozko aditzaren zein aspektu-markari ematen dion lehentasuna ikusiko dugu taulaz baliaturik:

Aditz jokatua E2 enuntziatuan	+ burutua	-burutua	+geroa	puntukaria	Zenbat adibide (ehunekotan)
Indikatibo oraina	4	5	3	45	%78.08
Indikatibo iragana	1	0	0	0	%1.36

*Eta* buruan daramaten E2 enuntziatu parentetikoan agertzen diren aditz gehienak, A tipoko parentetikoetan bezalaxe, aditz trinkoak dira eta bere aspektua puntukaria da. Aitzitik E1 oinarrizko enuntziatuan 27 adibide dira puntukaritasun ezaugarria dutenak. Beraz, aspektuari dagokionez ere aldaketa suma liteke E1 eko aditzarekin alderatuz.

### 3) Aditz-denboren aldaketa

Tenpus mailako aldaketa, aldaketarik gertatzen denean behintzat (adibiderik gehienetan E1 enuntziatuko aditza ere orainaldian baitoa), honela labur dezakegu: E1 enuntziatua lehenaldian egonik, E2 enuntziatua orainean agertzen da.

- Nahitaezkoa *zen*, **eta honelaxe ikusi du begi zorrotzez egileak**, euskal idazleez gainera — euskaraz mintzatu direnez gainera, alegia—, gure arteko erdal idazleez mintzatzea, gure hizkuntzari dagozkion lanak ondu dituzten neurrian behintzat, eta are erbesteko euskalariez, zahar eta oraingoez. (LIB II: 65).

- Baina, **eta horrelakorik ez da sarri gertatzen**, orrialdez orrialde *irakurri nuen*, eskutik utzi gabe azkeneko “A.M.D.G.”-raino heldu arte. (LIB II: 99).

- Gorputz geneukan Mike Todd (**eta ez dakit hemengo Cervantes-zale porrokaturen arao-biraoek ez ote duten horretan parterik izan**) berak eragin zuen izena bezain kostu handiko film hau aurkeztu digutenean. (ZIN: 181).

Pare bat adibidetan, ordea, lehen esandako edo egindako zerbaiti erreferentzia egiten diotelako, alderantzizkoa gertatzen da; hau da, Eleko aditza orainaldian egonik, E2 enuntziatuko aditza lehenaldian agertuko da.

- Villasantek *dio*, **eta neronek ere horixe esan nuen**, Etxeberri Ziburukoarenak direla; uste dut, ordea, zuzen zebilela Irigaray, eta gu oker, Claveriari aitortzen dizkionean. (LIB II: 66).

- Itzultzaileek *gorde dute*, eta ez *zen egiteko samurra*, liburuaren bizia, arina eta erraza. (LIB I: 84).

#### 4) Aditzaren pertsona-aldaketa

E2 enuntziatuak E1ekiko askotan dakar aditzeko pertsona-aldaketa:

- Azkenean, eta aski *dugu honekin*, aho batez *aitortzen dute* hamabiek gaizkile gogortua zirudiena ez dela halabeharraren jostailu errugabea baizik izan. (ZIN: 180).

Laburbil ditzagun datuak maiztasunaren taula bidez:

PERTSONA- IZENORDAINAK	E1 OINARRIZKO ENUNTZIATUA	E2 ENUNTZIATU PARENTETIKOA
1 SING. NI	12	22
1ª PL. GU	10	8
2ª SING ZU	0	0
2ª PL ZUEK	0	1
3ª SING HURA	44	40
3ª PL HAIK	7	2

Datuen arabera, A tipokoetan ez bezala, enuntziatu parentetikoan hirugarren pertsona da nagusi, E1 oinarrizko enuntziatuko adibiderik gehienak ere hirugarren pertsonan baitaude. Baina horrek zer esan nahi du aldaketarik ez dela gauzatzen? Ondorengo taulak erantzuna ematen lagunduko digu.

Pertsona izenordaina E1	E2KO PERTSONA IZENORDAINAK							Guztira	% ZENBAT
	NI	GU	ZU	ZUEK	HURA	HAIK			
NI	5	1	0	0	5	1	12	%16.43	
GU	4	2	0	0	4	0	10	%13.69	
ZU	0	0	0	0	0	0	0	%0	
ZUEK	0	0	0	0	0	0	0	%0	
HURA	10	4	0	1	29	0	44	%60.27	
HAIK	3	1	0	0	2	1	7	%9.58	
<b>Guztira</b>	22	8	0	1	40	2	73	%100	
%	%30.13	%10.9	%0	%1.36	%54.7	%2.73	%100		

Aldaketak gertatu gertatzen dira. Oinarrizko enuntziatua hirugarren pertsonan egonik ere, 14 adibidetan (%31.81) E2 enuntziatu parentetikoak lehen pertsonaren aldeko hautua egin du, dela lehen pertsona singularra (10 adibide), dela lehen pertsona plurala (4 adibide). Gainerakoetan (bigarren pertsona pluraleko adibidean izan ezik) bere horretan iraun du, hirugarren pertsonan alegia.

Hirugarren pertsonan hainbeste aldiz agertzea bat ote dator, edo uztar ote daiteke enuntziatu parentetikoak esatariaren iritzi-usteak gehitzeko edo tartekatzeko duten eginkizunarekin?

Gure ustez, bai. Izan ere, hirugarren pertsonan agertzen den enuntziatu parentetikoak maiz eginkizun horretarako erabiltzen baitu; hots, E1 enuntziatuan esan duen “zerbait horri” buruz esatariak berak duen iritzia emateko:

- Barcelonan egina, erdarazkoa berbera da, irudi eta guzti. Baina, **eta hau da berri pozgarria guretzat**, erdarazkoarekin batera, euskarazkoa ere salgai dago gure artean. (LIB I: 133).

- Txillardegiren idazlanei arreta pixkaren bat opa dienak badaki —**eta euskal irakurle gutxi dira nik uste horrenbesteraino heldu ez direnak**— ez dela hitz ozen eta esaera apainen adiskidea, bihotz-erraietatik dariola mintzabeharra. (LIB I: 135).

- Maitasun kontuetan ere ba omen du Bilintxen egitea, **eta ez da harritzeko**, biak elkarren kidetsu zirelarik. (LIB II: 53).

Holakoetan (eta ugariak dira corpusean), esatariak berak duen iritzia agertzen da, baina kanpoko zerbaiti (hirugarren pertsonan dagoen norbaiti edo zerbaiti) buruzko iritzia, hain justu ere.

Lehen pertsonari dagokionez ere adibideak ugariak dira corpusean (30 adibide; %41.09). Egia ere da, jarraian datorren bezalako adibidea ere multzo horretan sartu dugula:

- Xenpelarren bertsoetan zenbait huts, edo huts diruditenak behintzat —**eta barka, oker banabil**—, ageri dira. (LIB I: 107).

Aditz laguntzailerik ez dago, baina hor lehen pertsona ari dela gauza garbia da, baldintzako “banabil” horrek salatzen baitigu. Beraz, barkamena eskatzen duen adibideetan, nahiz eta aditz laguntzailea ez agertu, azpian lehen pertsona singularra dagoela erabaki dugu.

### 5) Aditzaren esanahian eskala-mailaren edo graduazioaren aldaketa

b) *Jakin* aditzetik *azaldu* aditzerako jauzia. Gauza bat baita jakitea eta bestea jakiteaz gain nonbait jakituria hori azaltzea:

- *Badakigu* guztiok, **eta ederki azaldu du Aita K. Iturriak bere hitzaurrean**, leku berezia irabazi duela aspaldidanik I. Eizmendik euskal idazle eta bertsolarien artean. (LIN I:144).

- *Badakigu*, **eta ederki azaltzen du hori San Martinek beste hainbeste gauza bezala**, alferrik joko dugula honelako ipui eta alegietara gai berrien bila. (LIB II: 123).

c) *Nahi* eta *ezin*aren arteko aldea / *gaitz* eta *ezin*aren artekoa

- Eta doi-doi moldatzen naizenez gero olatuen gainetik arnasa noizean behin hartzeko, ez ahal zait inor minberatuko *nahi nukeen*, **eta ezin dezakedan**, bezain luzaz mintzatuko ez banaiz hemen obra bakoitzaz. (LIB II: 95).

- *Gaitz* litzateke, **eta are ezinezko**, lehen liburu honen aberastasunaren berri ematea. (LIB II: 98).

#### 6.4.4.3.3.A.2 Ondorio gisa

Garbi dago, bada, *eta* buruan daraman E2 enuntziatuak badakarrela aldaketarik E1 enuntziatuarekin parekatuz. Aztergai aditza daraman enuntziatuak izaki, aldaketa horiek aditzean oinarriz islatzen eta sistematizatzen saiatu gara. Gainera, gure ustez, aldaketa horixe bera da hanpatu, azpimarratu edo nabarmendu nahi dena *eta* lokailuarekin. Horrela, bi enuntziatuen arteko kontrastea edo oposizioa areagotu egingo da.

Aldaketa horiek, batetik, erakusten dute halako konpreziarako isuria; hau da, orokorretik partikularrera edo hipotesi- eta baldintza-egoeratik errealitatera gerturatzeko ahalegina:

- Ikaskizun ugari *aurki ditzakegu* liburu honen orrietan, **eta aurkituko ditugu**, inoren begiko lastoaren bila ez bagabiltza. (LIB I: 94).

- *Gerta baitaiteke*, **eta maiz gertatzen baita**, zailtasun horren hogena idazlearena ez izatea. Eta ez da idazlearena izango euskara argi eta garbian mintzatzen baldin bada, hemen Etxaide bezala,



nahiz euskara argi eta garbi hori, hemen bezala berriz ere, aberatsa eta ohi baino ugariagoa izan. (LIB II: 138).

Horiez gain, maiz, sare anaforiko-kataforikoak bideratzen dituzten lehen eta bigarren graduko erakusleekin (*hau*, *hori* erakusleekin) uztarturik agertzea ere errealitatera gerturatzeko joera horrekin lotuko genuke. Objektua mundu errealean kokatzeko ahaleginarekin.

- Han-hemenka, **eta *hauxe da aipa dezakedan alde txar bakarra***, motz agertzen dira, osatu gabe, zenbait aipamen: izenetan ere, hizkuntza arrotzetarikoetan batipat, badira zenbait oker. (LIB II: 148).

- Horien guztien gain, **eta *hau da hemen dihoakigun auzia***, ez dakit ia ezer zezenei eta zezenketari buruz. (LIB I: 92).

Adibiderik nabarmenenak agertzeko ere balio du. Holakoetan *batez ere*, *batik bat* bezalako antolatzaile nabarmentzaileekin uztarturik agertuko da, maiz:

- Euskaldunen, **eta *batez ere euskaldun gurasoen***, aspaldiko egarria berdintzeko agertu dira noski bi liburutxo polit hauek. (LIB I: 97).

- Ez baita besterik eleberri hau: interesduna, ederki moldatua, esku trebez josia, arina eta edozeinek —**eta *gazte jendeak batez ere***— gogoz irakur dezakeena. (LIB I: 83).

E1 oinarrizko enuntziatuan sail orokor bat adierazten du esatariak eta sail edo klase horretatik E2 enuntziatuan nabarmenenak diren haiek aipatzeko erabiltzen ditu testu-antolatzaile horiek. Gerta daiteke beren bakarrean agertzea edo *eta2* antolatzailearekin uztarturik. Eta azken honetan *eta2*ren balio enfatizatzaile edo nabarmentzaile hori areagotu besterik ez du egiten.

*Eta* buruan daramaten enuntziatu parentetikoek ez dute, ordea, guztiek aditza eramaten. Bada, jarraian ikusiko dugun bezala, aditzik gabekorik ere.

6.4.4.3.3.B. Aditzik ez daramaten ETA bidezko enuntziatu parentetikoak

Oraingo honetan, E2 enuntziatu parentetikoak ez du IS+AS egiturarik; aditzik gabeko enuntziatuak dira. Sail honetan, A tipokoekin gertatzen zen bezala, bi azpisail bereiziko ditugu: ETAz gain, deklinabideko atzizki bera errepikatuta duten aposizioen araberakoak (%69.23) eta morfologiazko lotura hori ez dutenak (%30.76). Morfologiazko loturarik gabeak dira urrienak:

- Ez, ordea, iguzki aldekoek, **eta neroni ere, haien artean**, batzuetan ak eta besteetan-ek -ka ari natzaizue hemen. (LIB I: 70).

- Arrotz idurituko zaio norbaiti Olabideren hizkera, beste zenbaiti arrotz agertuko zaion bezalaxe Urte, Duvoisin, Uriarte, Larregi eta lardizabalena: nolana ere, **eta beren artean dituzten berezitasun larriak gorabehera**, bizkiak dirudite azken hoek guztiak Olabideren aldamenean. (LIB I: 112).

- Horrezaz gainera, **eta horiek baino lehenago noski**, saina edo lumera ateratzeko egiten ziren suak eta labeak adierazten baitzituen. (LIB II: 57).

Gehienak, ordea, izan badute morfologiazko lotura:

- Soinua, **eta harekin batera hitza**, agertu zenean zineman, lehengo mutuan iraun zuen Charlotek. (ZIN: 136).

- Prosazale agertzen zait neri Villasante, **eta are irakas prosaren zale**, olerkarien kaltean beharbada inoiz edo behin. (LIB II: 66).

- Erramun Artola hau berau da lekuko, **eta lekuko bikain**, liburutxoaren hitzaurreak gogoratzen digun bezala, 1959garrengo abuztuaren gauerdian batean Tolosako "Zeru-txikin" entzun zatekeen kantaren inguruan: (LIB II: 52).

Adibide horietan, *eta* buruan eramateaz gain, morfologiazko-lotura atzemango genuke; E1 enuntziatuko sintagma modalizatuz birformulatu egingo du, baina beti ere

sintagma horrek daraman deklinabide-atzizki bera erabiliz. Horregatik diogu aposizioen araberakoa dela. Hona hemen sail honi dagozkion mota nagusiak:

### IS NOR-en marka errepikatuz

- Ez baita aski, prosaz bezala, besteren hitzen muina eta mamia adieraztea; haren hitzen *musika* ere, **eta ez musika ixila**, belarriek suma dezaketena baizik, nolabait ere berritu behar baita beste soinugailu baten bitartez. (LIB II: 104).

- Japonen eta hemen *gizona* —**eta emakumea**— izukaitz baino bildurriago, prestu baino berekoiago, bihotz-zabal baino zitalago dela, alegia. (ZIN: 130).

### IS NORK-en marka

- Euskaraz *zerbait dakienak*, **eta are zerbait irakatsi nahi duenak**, laguntzaile bizkorra dauka orain liburu argi, trinko eta ongi banatu honetan. (LIB II: 104).

- *Illunabarrak, udazkenak* —**eta gau-neguen itxuraren azpian izkututzen zaigun heriotzeak**— zirrara ezti-mingotsa zabaltzen digute bihotzean, egunsentiak eta udaberriak ez bezala. (ZIN: 136).

### IS NORI-ren marka

- **Guztioi** —**eta neroni aurrenik**— itzurtzen zaizkigu zenbait huts baztertuz gero, egileek poesi-prosarako duten joeran daudela deritzat itzulpen honen alde txarrenak. (LIB I: 85).

- Eskerrik bizienak zor dizkiegu guztiok *Valverdetarrei* —**eta lankide dugun "Ayalde"-ri aurrenik**— ikastaldi hau horren ederki argitara dutelako...eta beste zerbaiengatik ere bai. (LIB II: 73).

Beraz, aurreko sailetan ez bezala, badirudi azken hauetan enuntziatu osoari baino gehiago E1 enuntziatuko sintagmari lotuago agertzen direla. Eta horrek enuntziatu parentetikoaren posizioa ere aurrekoetan bezain askea ez izatera darama; aurrekoetan baino estuagoa, zurrunagoa izango da:

- Gaur, urteen joanak hoztu gaituelako edo, ezin genitzake Arreseren olerkiak ikus orduko euskaltzaleen, **eta batez ere Campionen**, begiz. (LIB I: 87).

Oraingo honetan “Izlag+I” egitura hautsiko du egitura bera erabiliko duen enuntziatu parentetikoak. Hor hiperonimo-hiponimo harremana sumatzen dugu, E2 enuntziatuari esker, hiperonimoaren (*euskaltzaleak*) adibiderik nabarmenena aipatuz. Harreman horretaz jabetzeko, *eta eta batez ere* nabarmentzaileekin uztartzeaz gain, sintagma horren alboz albo paratzera behartuta dago, bien arteko harremana berehalakoa izan dadin eta, gainera, adibideak erakusten digunez, deklinabide-atzizki berbera darabil.

Beraz, badirudi sail honetakoek aurrekoek baino lotura hertsia dute; diskurtsoan hartzen duten lekua edo distribuzioa mugatuagoa dago, alegia.

*Eta* buruan daramaten aditzik gabeko aposizioaren araberako enuntziatuak ugariak dira aztergai dugun corpusean. Hona hemen laburbilduta datu horiek:

Morfoloikoki errepikatzen den deklinabideko kasu-marka	ETA buruan daramaten aditzik gabeko E2 enuntziatu parentetikoak	
	Zenbat adibide	% zenbat
<b>SINTAGMAK</b>		
IS NOR	9	%25
IS NORK	7	%19.44
IS NORI	3	%8.33
<b>IZENONDOAK</b>	2	%5.55
<b>IZOND KONPARATZAILE SUPERLATIBOA</b>	1	%2.77
<b>IZENLAGUNAK</b>		
MENDEKO ADITZIK GABE	6	%16.66
MENDEKO ERLATIBOZKO PERPAUSAZ OSATUAK	2	%5.55
<b>ADIZLAGUNAK</b>		
NON (LEKUZKOAK)	3	%8.33
NOLA (MODUZKOAK)	2	%5.55
NORENTZAT	1	%2.77
<b>GUZTIRA</b>	36	%100

Datuek erakusten digutenez, IS NOR-en kasu marka da gehien errepikatzen dena. Deklinabideko kasu marka errepikatzeak, ordea, ez du esan nahi *eta* buruan daramaten enuntziatu parentetiko horietan E1 enuntziatuarekin harreman sintaktikoa gauzatzen duenik,

kohesio-lotura baizik, nahiz eta kohesio-lotura hori *etak* ez ezik, morfologia mailako loturak ere bermatu.

Gainera, hainbeste adibide parentesien eta marren artean egoteak erakusten digu esatariak intentzio guztiz paratu dituela bereizirik; E1 enuntziatutik at, eta, beraz, ez dela E1 enuntziatuko sintagmaren baten osagai. Gure ustez, birformulazio horiek, beren bakarrean, enuntziatua osatzen dute. Litekeena da, bada, mota hau aurrekoak baino gramatikalizatuago egotea.

#### 6.4.4.3.4. ETA2 ezinbestekoa ala aukerazkoa

Larringanek (1995) *eta2* aztertzen duelarik ez du aztergaia parentetikoaren egitura zehatzera lerratzen. Bost testu-egitura ditu aztergai:

- “./+ ETA”: puntu eta aparte ondoren + ETA
- “ . ETA...”: puntu eta jarrai + ETA hasieran
- “; + ETA...”: puntu eta koma + ETA
- “... + (ETA...“: parentesi marka + ETA
- “— eta...— : gidoitxoia + ETA (Larringan 1995: 118).

Guri berariaz azken bi egiturak interesatzen zaizkigu. Larringan ausartzen da esaten azkenengo bi egitura horietan *eta* zenbaitetan ezinbestekoa dela beste zenbaitetan aukerazkoa eta beste zenbaitetan inolaz ere ezin ager daitekeela. Eta agertzearen eta ez agertzearen arteko aldea honela adierazten du:

Gorago (...) zer desberdintasun dagoen ETA2 —parentesi eta gidoitxoetako lehen elementua dugula— ematearen edo eta ezabatzearen artean galdetzen genuen. Diferentzia honetan dago adierazpen elkartuak (aposatuak) holakoetan har dezaketen balio modaltzailean hain zuzen, aurreko osagaiari buruz lerratzen duen balorapenean. (Larringan 1995: 124).

Larringanek, gainera, egoera honela deskribatzen du:

- a) ETA parentesi eta gidoitxoaren lehen elementu gisa agertzen ahal da
- b) antolatzaile hori batzuetan ezin ezaba daiteke
- c) Bestetuetan, ostera, aukerakoa dugu. (Larringan 1995: 122-123).

Egoera bakoitzari dagozkion adibideak paratzen ditu, baina ez du bataren eta bestearen arteko aldea zehazten. Gu corpusean zein joera nagusitzen diren azaltzen saiatuko gara.

Garbi dago, eta A tipoko hainbat enuntziatu parentetiko dira horren lekuko, ez dela ezinbestekoa *eta* eramatea. Garbi ere dago estilo mailako antolatzailea izan daitekeela; hau da, premisa pertsonalei erantzun diezaiokeela. Izan ere, idazle batzuek beste batzuek baino gehiagotan erabiltzen dute, eta horrek ere erabileraren jatorri indibiduala salatzen digu. Halaz ere, uste dugu eskuartean dugun gaiaren izaerak eta berbaldiaren funtzioak ere (funtzio pertsuasiboa eta adierazkorra izatea, informatiboa...) badutela zeresanik *eta*2ren erabileran.

Alabaina, Mitxelenaren film eta liburu kritika hauetan enuntziatu parentetikoetan agertzen den *eta*2ren balioa *zerorekin* berdin ote daiteke? Hau da, beti aukerakoa ote da?

Agirre (1991: 924) *etaren* antolatzaile-funtzioez eta balio modalizatzaileez mintzo zaigu. Bat gatoz berarekin *eta* artxikonektagailua esatariak esan duenari buruz duen iritzi eta jarrera txertatzeko baliabide egokia delako ustean. Osak (199: 254-255) *etaz* diharduenean, esapide koordinatuetan gauza daitekeen topikalizazioaz ari da, eta perpaus koordinatzaile izateaz gain, testu-antolatzaile ere badela esango digu. Halaz guztiz, kontakizunarekin zerikusia duen gorabeheraren bat ukitzeaz aparte, ez du urrats hori egiten eta beti ere *zero* koordinatzaileak *etaren* zeregin berbera betetzen duela erakustera makurtzen da.

Baina, *eta* = zero koordinatzailea ote da? Beti ezaba ote daiteke? Eta ezabatuz gero A tipoko parentetiko motara iritsiko ote ginateke?

#### 6.4.4.3.4.A. *Eta* jartzea noiz ezinezko?

*Eta* inoiz ezin da agertu ondorengo egoeratan:

a) E2 enuntziatu parentetikoa E1 enuntziatuko elementuren bat modu zehatzago batean finkatzera datorrenean ezin daiteke *eta* jarri. Finkapenezko harremana birformulaziotik hurbil dabil:

Dena den, balio orokortzat honako hau eman daiteke: aurretik esandakoa edota esan berri dena modu zehatzago batetan finkatzera datozela. Arrazoi horregatik ez dira tautologikoak ez eta sinonimiazkoak ere. Guztiarekin ere, eta bereziki inferentziabidezko balioak gauzatzen dituzten sekuentzietan, birformulatzailerik perifrastikoetatik eta inklusiozkoetatik hurbil agertzen zaizkigu. (Larringan 1995: 230).

Finkapenezko harreman hau, Zabalarri jarraituz (1996: 123-124) hiru motatakoa izan daiteke:

- 1) Zehaztua→xehekatuagoa motakoa
- 2) Adierazpen orokora→adierazpen konkretua
- 3) Hiperonimo→hiponimo motakoa

Beraz, garbi ikusten da harreman honetan zehaztea bilatzen dela. Egia da, ordea, adierazpen orokorretik konkreturako bidea adibideak emanaz nahiz adibiderik nabarmenenak adieraziz egin daitekeela. Finkapenezko harremana diogunean, ordea, ez gara sail irekiaz arituko. E2 enuntziatuak E1eko elementuren edo osagairen bat zehazten edo finkatzen duela diogunean, azaldutako elementuaren sail osoa estaltzen duela adierazi nahiko dugu, eta ez sail horretatik adibideren bat edo beste aipatu, edo esatariari nabarmenenak gertatzen zaizkionak.

Bereizketa hau egin beharrekotzat jotzen dugu *eta* buruan noiz ezin daitekeen jarri zehazteko. Izan ere adibideak emateko orduan esataria baliatzen da *eta* artxikonektagailuz:

- Ez baita besterik eleberri hau: interesduna, ederki moldatua, esku trebez josia, arina eta edozeinek —**eta gazte jendeak batez ere**— gogoz irakur dezakeena. (LIB I: 83).

Egia da *edozein* zehaztu gabea zehaztu egin duela, nabarmenena den adibide batez. Horrek ez du esan nahi, ordea, “gazte jendeak” soilik osatzen duenik “edozein”-en multzoa. Beraz, ez da finkapenezko harremana gertatzen. Adibide horretan, *eta* aukerazkoa izango litzateke<sup>164</sup>. Baina ikus ondorengoan:

- Honek, itzulinguruz bedere, jendearen bihotzetan sua pizteko erreka hoberik badu —**urrikia, gorrotoa, diru-gosea**— eta orain pizten duen suak Bruto eta bere lagunak kiskaliko ditu. (ZIN: 126).

*Errekai* hitza zehaztu egingo du; *errekai* terminoaren saila itxirik gelditzen da “urrikia, gorrotoa eta diru-gosea”-rekin. Enuntziatu parentetiko horrek ez luke *eta* buruan onartuko.

<sup>164</sup>Esate baterako, corpusean bada adibiderik *batez ere* nabarmentzailea *eta* gabe agertzen denik:

- Trebe baino trebeago izan da beti hitz berriak sortzeko—hitz elkartuak batez ere—edota hitz arrunt ezagunak adiera berri batera egokitzeko. (LIB I: 76).

- \*Honek , itzulinguruz bedere, jendearen bihotzetan sua pizteko erreka hoberik badu— **ETA urrikia, gorrotoa, diru-gosea**— eta orain pizten duen suak Bruto eta bere lagunak kiskaliko ditu. (ZIN: 126).

Beste hainbeste ondorengoetan ere:

- Har itzazue hiru lagun —**senarra, emaztea eta lapurra**— eta bil itzazue elkarrekin basa-bazter batean. (ZIN: 130).

- Ez dut behar baino gehiago esan uste, ikusle gehientsuen —**goiko eta behekoen**—gogoko izan dela esatearekin (ZIN: 135).

- Hona, txantxetako eta zinetako bertsoetan denbora bateko Tolosa eta garai hartako tolosar jator bat, beste batek —**Labayenek**— orrialde hauetan aurkeztu berri duena. (LIB II: 81).

*Batez ere nabarmentzailearekin eta zilegi den bezala, esaterako, edo adibidez adibidegileekin ez da agertuko:*

- Nere begi-adimenak ez dira zenbaitenak bezain zorrotzak eta ez dut esango film honetako sinbolo guztien funts izkutua —**sorgin gaztearena, esaterako**— ezagutu dudarik. (ZIN: 198).

- San Agustinengan dute sustrai ageria edo ezkutua geroko landare luze-zabal anitzek: filosofia berriak eta baita oraingo gizonak ere. Hark erakutsi baitzigun —**Aitorkizunetarako hamargarren jardun horretan, esaterako**— gure barrengo zoko ilunak aztertzen eta ezagutzen. (LIB I: 75).

- Eta berea izateaz gainera euskaldun garbi sortu zaio. Ez euskaraz dagoelako bakarrik, baia ere euskal mamiz —**adibidez bertsoz, pentsaeraz hitzez adina**— oratu duelako. (LIB II: 88).

b) Zuzeneko estiloan, adibide batean salbu, inoiz ez dugu *eta2* hasieran ikusi:

- “Gisa hortan”—**eta Lafitte jaunak du hitza, berriz ere**— “Euskal-herriko ichtorio kantail bat emana zaiku begien aintzinerat... Horrek lanari emaiten dio hedadura gehiago, aldez edo moldez”. (LIB II. 116).



Adibide hori salbuespena litzateke, gainerakoetan ez baita *eta* agertuko:

- Bion kezka ere ez da berdina: “lehenekoan aukeratu-bearra ba zan larrimiñaren iturria” — **dio hitzurreak**—, “oraingo ontan igarokortasunaren oiñazeak erdibitzen du Leartzaren biotza” (LIB I: 137).

c) E2 enuntziatua inolako kohesio-mekanismorik gabe E1 en egindako baieztapenaren argudio denean, ez da zilegi *eta* buruan eramatea:

- Eta atertu gabe aditzera ematen diguten irakaspén honetaz jabetu ez bagina ere — **ez digu guziori argitasun berbera eman Jainkoak: zinemagile izango ginateke bestela zinema-ikusle izan beharrean**—, astiro azaltzen digute azkenean “De rerum natura”-tik hartua dirudien hitzalditxo baten bidez. (ZIN: 147).

- Lagunek parre egiten diote — **neskatxa ez da aldamenean harro-harro erakutsi nahi izaten ditugun horietakoa**— eta bere ama ere, “Noiz ezkondu behar duk”-ka beti ari zaion ama, ez du semea ezkontzeko bidean ikusteak gehiegi alaitzen. (ZIN: 151).

#### 6.4.4.3.4.B. *Eta* aukerakoa

Maiz aukerakoa izan daitekeelako ustea adibide-bikote hauek adieraz diezagukete; izan ere, adibide mota bera topatu dugu batean *eta*<sup>2</sup> buruan daramala eta bestean berriz ez:

a) Modalitatearen adierazgarri: E1 oinarriko enuntziatua adierazpenezkoa izanik, E2 enuntziatu parentetikoak galdera egiten du. Galdera *etak* burutua izan liteke edo ez:

- Egilearen iritziak — **eta norenak ez?**— okerrak izan daitezke hemen edo han. (LIB I: 130).

- Esamesak ibili dira — **nola ez?**— beste alde batetik, nobela honen inguruan. (LIB II: 78).

*Eta* goiko adibidean izan ordez, behekoan agertuko balitz ere egokia izango litzateke; baita goikoa *etarik* gabe ere.

b) Balizko edo baldintzazko egoera errealitatera gerturatzeko ahalegin horretan, E2 enuntziatu parentetikoak baldintzazko egitura bat hautsiko du, batean *etarekin* eta bestean gabe.

- Diren baino hamar halako ardandegi gehiago irekiko **balira** —*ez da hau nik asmatua*—, ez lirateke hordiak hamar aldiz gehituko; etxean ditudan halako bi ohe baneuzka, ez nuke horregatik lo gehiago egingo. (ZIN: 152).

- Gaur egunean euskaraz mintzarazten inor saiatzen **baldin bada** —*eta ez dira gutxi, Jainkoari eskerrak, horretan ari direnak*—, buruzagien artan dabil, dudarik gabe, Aita Patxo Altuna. (LIB II: 153).

- Ez geroi —*gogorragoak ikusi izan dira*— gerta dakigukeelako bakarrik. Ez; ez delako aski gainera gizon bati, urkatzaileari, erru guztia egozte eta hura gizartetik baztertzea. (ZIN: 139).

- Gerta baitaiteke, **eta maiz gertatzen baita**, zailtasun horren hogena idazlearena ez izatea. (LIB II: 138).

c) Barkamena eskatuz norentzakoari zuzentzen zaionean:

- Liburua egiteko gaien bila 1970-eko udan hasi zenean, Sanchez Carrion-ek, ikasle zelarik, ozta-ozta zuen bukatua lehendabiziko urtea, komunetako —**hitzaren itsusia barka**— lehendabiziko urtea. (LIB II: 156).

- Xenpelarren bertsoetan zenbait huts, edo huts diruditenak behintzat —**eta barka, oker banabil**—, ageri dira. (LIB I: 107).

#### 6.4.4.3.5. Ondorio orokor gisa

*Eta* “artxikonektagailua” aztertzeari hainbeste orri eskaini badizkiogu, goiko adibide guztiek erakusten digutenez, *eta2* buruan daramaten enuntziatu parentetikoak azterkizun ditugun Mitxelenaren artikulua hauetan ugariak direlako eskaini dizkiogu. Mitxelenari bitarteko ezin hobea gertatzen zaio makroegiturako hainbat informazio txertatzeko, bereziki, enuntziatio-mailako eta modalizazio mailako informazioa txertatzeko. Eta informazio-mota hori, bere argumentazioan aurrera egin eta norentzakoa pertsuaditzea helburu duten testuetan, ez da hutsaren hurrengo informazioa.

Bestetik —eta honek ere badu bere pisua—, enuntziatu parentetikoak oinarrizko enuntziatuari dakarkion erabateko hausturaren aurka lan egiten duela dirudi, bien artean kohesioa eraginez. marrek nahiz parentesiek dakarten etenaren aurka, mezuaren izaera globala markatzen du. Horrela, berbaldiaren nolabaiteko *continuum*-a bideratuz. Ikertzaile frantsesek *ancrage* batez hitz egiten dute:

E2 est une proposition introduite par un connecteur appelé habituellement “conjonction de coordination” (et, car). Ce connecteur n’a en fait pas de rôle coordonnant, mais semble plutôt souligner le décrochement énonciatif et discursif de E2. Les propositions qu’introduisent ces deux connecteurs semblent avoir pour rôle d’assurer un ancrage existentiel à ce qui précède. (Dominique & Morel 1986: 146-147).

Izan dezake, bada, hausturaren aurka egiteko eginkizuna, baina argi dago elementuen arteko kidetze edo elkartzea ez dela sintagmatikoa, oroimenezkoa baizik, mezu baitakoa; hau da, *existentiel* modukoa.

#### 6.4.4.4. EDO 2 BIRFORMULATZAILEA

Corpusean *edo* buruan daramaten enuntziatu parentetikoak 31 dira. Buruan ez, baizik eta enuntziatu parentetikoaren amaieran, berriz, beste 13 adibide ditugu. Bataren eta bestearen arteko aldea ez da, ordea, posizioari edo enuntziatuan hartzen duen lekuari dagokiona soilik; bi *edo* ezberdin dira: bat *birformulatzailea* eta bestea joskera anakolutoetan bigarren terminoa falta zaion *hautakaria*:

- Eta, sasikoa ez dena jatorra eta behar bezalakoa denez gero, horra non aurkitzen dugun Peru arlotea egiaren eta zuzentasunaren martiri bihurtua, munduarentzat nardagarri baina norbaitentzat —**ez den Jainkoarentzat edo**— kuttun eta maitagarri. (LIB I. 139).

- Badira nonbait —**Euskalerrian edo**— euskaldun izeneko gizon emakume batzuek (ZIN: 131).

Adibide horietan ikus daiteke hautakariko bigarren atala edo osagaia ezkutuan geratzen dela; hau da, hitzez zehaztu gabe uzten du, solte, zintzilik dauden sintagmak osatuz.

Bada adibide bat, ordea, gure ustez, *edo* hautakaria dena:

- Argia —edo ilunbea—, sortaldetik etortzekotan, ez ote zaigu Txinatik agertuko? (LIB I. 140).

*Edo* buruan daraman enuntziatu parentetiko hori, birformulazioa baino areago disjuntzioa delakoan gaude. Izan ere, “Argia” “ilunbearen” antonimoa da, eta birformulazioa balitz jarraipen eta konkurrentzia handiagoa agertu beharko luke eta ez erabateko kontrasterik. Baina, bestetik, garbi dago esatariak hautakariak diren bi osagaiak ez dituela neurri berean jartzen, eta bigarrena (“ilunbea”, alegia) dela enuntziatio zehatzagoa, bere intentzioei zehatzago egokitzen zaiona. Alde horretatik, bada, birformulazioarekin ere badu zerikusirik.

Gainerako adibideetan *edo* antolatzailea hautakaria baino areago birformulatzailea dela esango genuke.

#### 6.4.4.4.1. *Edo*2 birformulatzaile zuzentzailea

Birformulazioa diskurtso-estrategien barnean aztertuko badugu ere, aurrera dezagun zer ulertzen dugun birformulazioa diogunean eta zergatik uste dugun *edo* buruan daramaten enuntziatu parentetikoak birformulazioak direla; eta ez hautakariak, Euskaltzaindiak EGLU III-n *edo* definitzen duen bezala. Eta birformulatzaile den kasuetan (enuntziatu parentetikoei dagokienez behintzat) ez zaigu iruditzen Larringanek bere tesian defenditu duen bezala, A multzoari dagokionik; hau da, ez zaigu iruditzen (enuntziatu parentetikoetan, behintzat) *hots* eta *alegiaren* pareko denik. *Hobeto esan* eta *zehatzago esan* bezalako birformulatzaileen sailera lerratuko genuke.

Corpusa iturburu eta argibide dugula esan berri dugun hori adibideekin frogatzen saiatuko gara. Beti ere kontuan izan behar dugu, bada, antolatzaile hauen erabilera egitura sintaktiko zehatz eta jakin batean izango dugula azterkizun; hots, enuntziatu parentetikoetara soilik lerratuko garela. Gerta bailiteke bestelako egituretan Larringanek esango digun bezala *hots* eta *alegiaren* pareko izatea, edota Euskaltzaindiak zioen bezala hautakari izatea.

Abia gaitezen Larringanek berak birformulazioari ematen dion definiziotik:

Hitz, enuntziatu, esaldi-sail edo testu-zati batek duen zentzua interpretatzeko, argitzeko, esplizitatzeko, birformulaziora jo ohi du hiztunak. Mintza-jarduneko jardun guztiz arrunta dugu. Bigarrena ez da lehen formulazioekin nahasten, haren errepikatze edo tautologia hutsa ez den bezalaxe. (Larringan 1995: 245).

Birformulazioa, oro har, enuntziazioen artean gertatzen den interakziozko diskurtsoko mekanismo bat da. Esatariak lehen formulazio baten ordeztu bigarren bat hobesten du, enuntziatio-ikuspegiaren aldaketa bideratuz. (Roulet 1991 eta 1987).

Horrela, lehen formulazioa (E1 oinarritzko enuntziatua, alegia) komunikazio-osotasunari (*completude interactive*) begira esatariarentzat egokia ez delako edo esatari-norentzakoaren helburu-asmoei bete-betean egokitzen ez zaielako bigarren modu batez formulatzen du (E2 enuntziatu parentetiko).

Honenbestez, birformulazioan mugimendu bikoitza atzeman daiteke:

a) E1 edo oinarritzko enuntziatuko formulazioa (lehendabizikoa) ez da hain egokia komunikazio alderditik<sup>165</sup> begiratuta.

b) E2 edo enuntziatu parentetikoan egiten duen formulazioa (edo bigarren formulazioa), egokiagoztat jotzen du esatariak.

Bi formulazio horiek igortzen duten informazioaren artean, ordea, zer nolako harremana dago? Bien artean harreman semantikoa ote dago? Edota sinonimiazko, baliokidetzatik harago doa harremana?

Gure ustez, eta corpuseko adibideak dira horren lekuko, bi formulazioek ez dute beti semantikoki baliokideak edo sinonimo izatearen premisa bete beharrik. Bada harreman mota horretara gehiago gerturatzen den adibiderik:

- "Ezin aurrera eginik aurki zirala..." "Aurki", "berehala" da, eta hor esan nahi litzatekeen hori "aurkitu" esaten da euskaraz. Bertsotan **zilegi** da (**edo, gure Xenpelarrek zioen bezala, lizentzi**) bata bestearen orde erabiltzea metri causa, bi silaba besterik ez dituelako, baina ez euskal prosa jatorrean. (LIB I: 70).

Adibide hau aurkitu dugu sinonimiarekin gehien lot daitekeena; izan ere, ia adibide denak (denak ez esatearren) sinonimiazko lotura baino areago diskurtso mailako baliokidetzara erakusten dute: inplikazio bidez, nahiz inferituz atzeman daiteke bien arteko lotura eta

<sup>165</sup> Komunikazio aldetik *egokia* diogunean, labur esateko, honako parametroak hartzen ditugu kontuan:

- esatariak komunikatzeko zituen intentzio-asmoei egokitzen zaiola.
- norentzakoaren uste-sinesmenak kontuan hartzen dituela.
- komunikazio-ekintzaren testuingurua kontuan hartzen duela.

Azken batean, esatari-norentzakoek batean duten informazio pragmatikoa eta interakzio-harremana oso kontuan hartzen duela. Eta, beraz, informatzen duenaz gain (enuntziatua), informazio hori igortzeko erabili duen formulazioa (enuntziatio) oso dela kontuan hartzekoa.

birformulazioa semantikazko zehaztapenak baino gehiago komunikazio eskakizunek (elkarri ulertu beharrak) eragiten dute; portaera diskurtsiboek (eta horregatik sakonduko dugu diskurtso-estrategien atalean).

Beraz, gure ustez —eta Larringanekin bat egiten dugu—, sinonimiazko hizkuntza-baliokidetzak (semantismoen arteko sinonimia) baino harago doan zerbait da, eta diskurtsoaren erreferentzia begietsi beharra dago corpuseko adibideen inguruan taxuzko planteamenduak egingo baditugu. Hala ere, *edo* buruan daraman enuntziatu parentetikoak formalki ezaugarritzeko helburua dugunez gero, froga dezagun corpuseko adibideek ba ote duten tokirik eman dugun birformulazioaren definizio eta azalpen horretan.

Maiz aski antzeko zerbait adierazten badute ere, ez dira trukagarriak izango; azken batean, berbaldi edo diskurtso barneko sinonimiaren aurrean egongo baikara.

- Eta gure arimaren *eguneroko* —**edo asteroko**— ogia hori dugunez gero, hemen ere aterpe txiki bat, narrasa bada ere, utzi nahi genioke. (ZIN: 123).

“Eguneroko ogia” ez da “asteroko ogiaren” baliokide edo sinonimo, testuinguru jakin honetan, ordea, bai: Koldo Mitxelena zinemara astero joaten zen eta zinema da bere arimaren asteroko ogia. Beraz, nolabait esateko, honela ulertu beharko genuke: “gure eguneroko ogia”, hobeto esan gure “asterokoa” (zinemaren kasuan guri dagokigunez asterokoa baita).

Beraz, ezinbestekoak dira inplikazioak, dedukzioak, etab. bien arteko lotura atzemateko.

Euskal tradizio eta deskripzio gramatikaletan, oro har, ez dira “birformulazaiak” agertzen, ezpada, ohar eta zatikako hurbilpenetan. Bada, ordea, hauen azterketa zehatzagoa eta sakonagoa egin duenik (Larringan 1995), eta berrikiago Esnal (2008). Eta guk ere lan horietan oin hartuko dugu, nahiz eta gure helburua testu-antolatzaile bakoitza berariaz aztertzea ez den.

Larringanek (1995: 247), esaterako, “birformulazaiak” deizioaren azpian honako azpisailak egiten ditu:

- Parafrastikoak:

a) *hau da, hots, alegia, Edo2*

b) *bestela esanda, beste hitzetan, beste hitzez, hobeki esanda, zehazkiago esan (da), laburbilduz, labur esanda, hitz gutxitan, nahiago bada, hala esaterik*

*badago, nolabait esan(teko), hobeki azaltzeko, esan gabe doa, horrek esan nahi du, esan nahi baita.*

- Ez-parafrastikoak: *azken batean, azken batez, azkenik, finean, azken finean, azken puntuan, funtsean.*

Esnalek (2008) birformulatzailen artean esplikatioak (*hau da, hots, alegia...*), zuzentzaileak (*hobeto esan, bestela esan...*), urruntzaileak (*nolanahi ere...*) eta laburbiltzaileak (*ondorioz, azken batean, azken finean...*) bereizten<sup>166</sup> ditu

Gure, ustez, enuntziatu parentetikoetarako *edo2* hobeto uztartzen da *hobeto esan* nahiz *zehatzago esan* antolatzaileekin, esplikatio baino gehiago zuzentzaile baita. Esatariak Eleko formulazioa nolabait ere zuzendu egingo du *edo* buruan duen enuntziatu parentetikoaren bidez:

- Horko lagunen buru hausteez badute gerok ditugunen, **edo izan genitzakeenen**, etiea (ZIN: 149).
- Ez naiz honetan ari hutsa, **edo huts-ustekoak**, bilatzea maite dudalako. (LIB I: 85).
- Gizon izanik, kaskarin xamarra da, eta ez du beti uste dugun —**edo nahi genukeen**— bezala entzuten. (LIB I: 57).
- Euskara egiten —**edo egin ustez desegiten**— hasi baino hobe genuke euskaldunok euskara ongi ikasten hasi. (LIB I: 69).

Adibide horietan guztietan, garbi dago esatariak formulazio berri bat bideratzen duela, beti ere, komunikazioaren arabera, aurrekoa baino egokiagoa, zehatzagoa. Ez dugu uste EDO ren ordean, “hau da”, “hots” edo “alegia” bezalako antolatzaileerik para daitekeenik. Baina, bai, “hobeto esan”, zehatzago esan”... bezalako antolatzailearen bat. Ez, agian, B multzoa osatzen duten guztiak, baina bai aipatu ditugun horiek.

Bestalde, *edo* daramaten adibide horiek parafrasia bidezko “iruzkina” iragartzen dute eta, beraz, ez dira zehaztapen edo birformulazio objektiboak; ez dira identifikazio soilak: Eleko formulazioa inbertsonalagoa eta E2koa, berriz, pertsonalagoa, modalizatuagoa dela esaten ausartuko ginatke. Eta, beraz, enuntziatio mailan ez ezik modalizatio mailan ere

<sup>166</sup>Lan honen helburua ez da sailak bereiztea eta etiketatzea, antolatzaileen erabilera estrategikoa aztertzea baino.

eragiten dute. Maiz aski ohartuko gara, gainera, bi maila hauek teorian bereizi bereiz daitezkeela, baina praxian hertsiki lotuak agertzen direla.

Gainera, E1eko formulazioa eta E2koa ez dira sinonimoak, baina ezta antonimoak ere. Edo, bestela esan, E1 eta E2 formulazioen artean bada konkurrentziarik, baina ez da sinonimiazkoa; bada, halaber, kontrasterik, baina ez da antonimiazkoa.

- Ez deritzat nik euskara bide honetatik jaso litekeenik. Euskarak erdaraz esan ez diren, **edo hain ongi adierazi ez diren**, gogoeta eta bihotzondokoei bide emanaz bakarrik jaso dezake burua, lehen, orain eta beti. (LIB I: 58).
- Mejiçoko lur beroetan —**edo lur beroen muga**n— gertatzen den Graham Greene´n ipui labur bat hartu dute oinarri, ezin gehiago luzatuz. (ZIN: 191).
- Gizon izanik, kaskarin xamarra da, eta ez du beti uste dugun —**edo nahi genukeen**— bezala erantzuten. (LIB I: 57).

#### 6.4.4.4.2. *Edo* buruan daraman enuntziatu parentetikoaren ezaugarritze formala

Aditzik gabeko sintagmak dira gehienak. Hiru adibidek dute perpaus nagusiaren forma:

- Honelako liburu bat egiten duenak bere buruaz eman ohi du iritzia, bestez ematen duelarik, **edo gutxienez<sup>167</sup> behintzat irakurlearen eskuan ipini ohi ditu iritzi hori emateko behar dituen oinarriak** . (LIB II: 66).
- Ez ditu, ordea, inork beharbada Orwell´ek adina ezagutu arrisku-beldur horiek, **edo behintzat ez ditu inork horren argiro azaldu**. (ZIN: 175).
- Negarrez gaude beti, euskal irakurgai gutxi ditugula eta, eta ditugun ederrak ere ezin ditugu, **edo ez ditugu nahi**, irakurri. (LIB I: 77).

Aditz jokatu gabeekin sortutako enuntziatu parentetikoak, aitzitik, ugariago dira (5 adibide):

---

<sup>167</sup>Maiz aski *edo* birformulatzaileak *gutxienez*, *behintzat*, *gehienez* bezalako murriztaileak eraman ohi ditu alboan eta horrek egiaztatu besterik ez du egiten *edorekin* egindako formulazio berria oinarritzkoa baino pertsonalagoa dela: adierazpen orokorrari mugak jartzen dizkio; bere esparrura ekartzen du formulazioa.



- Historia ikusteko, **edo ikasia gogoratzeko**, liburu bat irakurtzea baino errazago delako, beharbada. (ZIN: 166).

- Eta horrenbeste gipuzkoar langile elkarrekin lehian ari bazaizkigu ere, oraingo gisan, mendiak murrizten —**edo gehienez pinu beltzez jazten**—, ez dute, eginahalak egin arren, Lizardik utzi zigun baso antzaldatua soilduko, harako leihoak itxitako jauregia dirudien hura, atsedena eliza, gau argi izarrez josia goian eta ur berdeak —izar irudiz zirtatuak— behean dituena. (LIB I: 64).

- Euskara egiten —**edo egin ustez desegiten**— hasi baino hobe genuke euskaldunok euskara ongi ikasten hasi. (LIB I: 69).

Corpusean, ordea, aditzik gabeko sintagmak nagusitzen dira. Eta horietatik lau izan ezik gainerako guztiak aposizioaren arabera sortuta daude; hau da, birformulatzen duten oinarritzko enuntziatuko sintagmek duten deklinabide-atzizki bera daramate:

<b>Morfologikoki errepikatzen den deklinabideko kasu-marka</b>	<b>EDO buruan daramaten aditzik gabeko E2 enuntziatu parentetikoak</b>	
	<b>Zenbat adibide</b>	<b>% zenbat</b>
<b>SINTAGMAK</b>		
IS NOR	6	%30
IS NORK	3	%15
IS NORI	0	%0
<b>IZENLAGUNAK</b>		
MENDEKO ADITZIK GABE	1	%5
MENDEKO ERLATIBOZKO PERPAUSAZ OSATUAK	2	%10
<b>ADIZLAGUNAK</b>		
NORA (LEKUZKOAK)	1	%5
NOLA (MODUZKOAK)	1	%5
KAUSAZKOA	2	%10
NOIZ (DENBORAZKOA)	2	%10
NON	1	%5
<b>POSTPOSIZIOAK</b>		
-EN BEZALA	1	%5
<b>GUZTIRA</b>	20	%100

Beti ez du kasu marka bera errepikatzen:

- Literatur euskararen batasunerako bide berria edo eskeintzen du aurrenik, eta gure artean maizegi ikusten ez den eleberri saioa —**edo eleberri moduan antolaturikako haurtzaroko oroitzapenak behintzat**— besteaz gainera. (LIB II: 93).

Morfologikoki deklinabideko kasu marka bera errepikatzeak E1 eta E2 enuntziatuen arteko kohesioa bermatu egiten du. Baina ez horrek bakarrik. Maiz *edo* buruan daraman enuntziatu parentetikoa beste kohesio-emaileren batekin uztarturik agertzen da; hots, beste antolatzailereren batekin.

EDO2 + beste kohesio-emailereren bat	EDO+ aditzik gabeko sintagma	EDO+ aditza		Guztira
		Aditz jokatua	Aditz jokatu gabea	
<b>Murriztaileak</b>				
BEHINTZAT	1	3	1	5
BEHINIK BEHIN			1	1
GUTXIENEZ		1		1
<b>Birformulatzailak</b>				
HOBETO ESAN	1			1
OROBAT	1			1
<b>Modalizatzaileak</b>				
BEHARBADA	1			1
<b>Guztira</b>	4	4	2	10

Datuek erakusten digutenez ez da kasualitatea *edo2* birformulatzaille bezala bataiatu dugun antolatzaille hau beste kohesio-emaille batekin doanean *murriztaile* batekin (7 adibide), *modalizatzaile* batekin (1) edo *birformulatzaille zuzentzaile* batekin joatea (1).

Murriztaileak, izan ere, bere iragazitik pasata edo modalizaturik birformulatzatzen duen baieztapenari mugak zedarrituko dizkio, nolerebait esataria bera ere egin dezakeen hutsetatik babestuz.

Birformulazioa hautatzean ere ez du edozein hautatzen, birformulatzaille zuzentzailea baizik, eta horrek EDO2 antolatzailleak berak dakarren balio zuzentzailea indartu egingo du.

Jarraian azter dezagun C tipoko enuntziatu parentetikoak.

## 6.5. C TIPOA

Enuntziatu parentetikoak formalki nolakoak diren aztertzen ari garen une honetan, bada enuntziatu parentetikoaren multzo bat (kopuruz besteekin alderatuz urriagoa) aditzean menderagailuaren marka formala daramana. Larringan-en (1995) nahiz Euskaltzaindiak Esnal koordinatzaile izanik atera duen lanaren (2008) arabera, *testu-antolatzaile* lirarteke horiek ere, baina gure ustez, menderagailuek ez dute perpaus askeen arteko lotura semantikoa agerian uzten, perpaus nagusi-mendekoen artekoa baizik.

C tipo bezala bataiatu dugun multzo honetan, bada, enuntziatu parentetikoko aditz flexioak marka formala duela ikusiko dugu, eta alde horretatik, itxuraz, mendeko perpausen aurrez aurre geundeke. Alabaina, jakin badakigu, mendeko perpausak, perpaus diren aldetik, aditz baten inguruan eratzen direla, eta mendeko direla diogu, beste perpaus, aditz, adjektibo edo aditzondo baten osagaiak direlako (EGLU VI: 6). Ondorioz, lehen begiratu batean pentsa genezake enuntziatu parentetiko hori oinarrizko enuntziatuaren mendeko perpausa dela.

Baina nola uztartzen da hori enuntziatu parentetikoak independente direlako ustearekin? Lotura formal horrek zein aditzekin du mendekotasun harremana?

Gure hipotesia da holakoetan ere, hau da, enuntziatu parentetikoko aditz flexioak marka formala daramanean ere, enuntziatu parentetikoak ez duela E1 oinarrizko enuntziatuarekiko mendekotasun-harremana gauzatzen, goragoko edo gainetik dagoen “esan” aditzaren mendekoa ez bada. Hau da, hor, harreman horretan, isilpean edo estarian beste aditz bat badelako ustea dugu, *esanen* kidekoa edo den aditz abstraktu bat, hain zuzen ere; eta enuntziatu parentetiko *esan* aditz horren mendekoa da, ez E1 oinarrizko enuntziatuko aditzarena. Alde horretatik, *esan* genezake atal honetan bilduko ditugun enuntziatu parentetiko guztiek makroegiturako enuntziatio-mailan eragingo dutela.

C tipozat jo dugun sail honetan, formalki, honako enuntziatuak izango ditugu azterkizun:

- 1) Azalpenezko izaera duten kausalak
- 2) Baldintzazkoak
- 3) Erlatiboak
- 4) BEZALA aditzondoarekin (EGLU VI: 298) sortutakoak.

### 6.5.1. Azalpenezko izaera duten kausalak

Oso ongi etortzen zaigu Euskaltzaindiak EGLU VI liburuan kausazko mendeko perpausak aztertzen ari delarik egiten duen bereizketa. Kausazko perpausak, Euskaltzaindiaren arabera, ez dute guztiek izaera berbera eta perpaus kausalen adierazgarri diren menderagailuek ere ez dute guztiek jokabide bera azaltzen. Edo bestela esan, kausa-ondorio erlazio hori sintaktikoki modu desberdinean gauza daiteke. (EGLU VI: 161).

Euskaltzaindiak, hiztunak erakusten duen jarrera kontuan hartuz, bi multzo bereizten ditu: batetik, *kausal beteak* bezala izendatu duen multzoa, eta bestetik *azalpenezko kausalak*. Kausal beteak “kausa zuzenaz gainera, motiboa, arrazoia eta holakoak biltzen diren, betiere ondorio bat eragiten dutenak” dira (EGLU VI: 161). Eta azalpenezko kausalak, berriz, honela definitzen ditu: “Azken hauetan baieztapen bat oinarrizera dator perpaus kausala, edo baieztapen baten azalpen gisa aurkezten du behintzat hiztunak” (EGLU VI: 161).

Badirudi lehendabizikoetan esatariak gauzak nola gertatu bide diren esaten digula. Bigarrenean, aldiz, esatariak bere gain hartzen du azalpena; azalpen horren erantzule esataria bera egiten da.

Corpusari erreparatuz, enuntziatu parentetiko gisa *azalpenezko kausalak* soilik agertzen zaizkigu, eta ez *kausal beteak* direlakoak. Eta horrek badu bere funtsa. Maiz esatariak azalpenezko kausalak darabiltza, esan duenaren justifikazio gisa ematen baitu azalpena. El oinarritzko enuntziatuan esan duena (baieztatu, ezeztatu, galdetu, agindu, etab), zergatik esaten duen ematen du aditzera enuntziatu parentetikoak; hau da, esan duen hori esateko zein arrazoi duen azalduko digu. Hori garbi ikusten da, adibidez, ondorengo adibideetan:

- Ez dut nik esango, **harrokeriaz mintzatzea litzateke eta**, euskal arima zer-nolakoa den aditzera eman duenik. (LIB I: 64).

- Dirudienez, **ez baitut kontatu**, 255 lerro utzi nizkion Larramendiri, “cuya obra principal es un diccionario vasco-español (atzekoz aurrera irakur beza irakurleak) plagado de aberraciones”, eta 38 Bilintxi, beste zenbaiten artean. (LIB II: 83).

“Dirudienez *dio*” ez baitut kontatu” bezala parafrasea genezake. Eta, beraz, ESAN edo kidekoa den aditz baten mendeko genuke.

- Egiatzko lirika, izen horren duin dena alegia —ez baita aski hitzak lerro lerro banatzea—, da noski giza mintzoak menderatu duen gailurrik garaiena. (LIB I: 63).

“Egiatzko lirika edo izen horren duin dena *dior*”, ez baita aski hitzak lerro-lerro banatzea. Garbi ikusten da, bada, azalpenezko kausalek baieztapen baten oinarria eskaintzen digutela, edo esatariak uste duenaren arrazoia.

Kausazko perpausaren marka formala daraman enuntziatu parentetikoak ez du, bada, mendekotasun harremana E1 oinarritzko enuntziatuarekin gauzatzen, isilean, nahiz gorago edo ginetik dagoen ESAN edo kidekoa den aditez osatutako perpausarekin baizik. Alde horretatik EGLU VI liburuan agertzen den azalpenezko kausala edo Lapesak erabili zuen “*causa de dicto*” motakoa litzateke.

#### 6.5.1.1. KAUSAZKO PERPAUSEN SINTAXI-IZAERA

Euskaltzaindiaren arabera, kausazko perpausen artean bereizitako kausal beteek eta azalpenezkoek ez dute izaera sintaktiko bera. Kausal beteak (oro har, *-elako* menderagailuari esker sortutakoak) perpaus nagusiko aditzari hertsiki lotuta (edo txertatuta) agertzen dira eta badute galdegai izateko joera. Aldiz, azalpenezkoak perpaus nagusiko aditzaren indar-eremutik pixka bat kanporago (perpaus nagusitik bereizita) agertzen dira, eta ez dira galdegai izango.

Gauzak horrela badira, honek esan nahi du azalpenak perpaus nagusiaren kanpoaldeko osagaiak edo direla. Kausal beteak, berriz, barneko osagai izango lirateke. Hortaz, perpaus hauen sintaxi izaerari begiratuta, kanpoko eta barneko perpaus kausalak badirela esan genezake. (EGLU VI: 167).

*Barneko* izateak, beraz, aditz nagusiarekiko lotura estuagoa izatea dakar. *Kanpoko* izateak, aldiz, aditzarekin hain lotura estua ez duela esan nahi du. Aditzaren osagarri baino areago perpaus osoaren osagarri lirateke; hots, perpausaren periferian leudeke. Beraz, pentsatzekoa da, egitura parentetikoan agertzekotan, ezinbestean, azalpenezkoak edo periferikoak diren horiek soilik agertuko direla.

Alderdi metodologikoa aztertzean, ordea, kanpoaldean edo periferian ere mailak zeudela ikusi genuen, eta egiaztatu genuen enuntziatu parentetikoak ezin zirela, gure ustez, lehen mailako perpaus bazter posizioan (periferia len) kokatzen ziren funtzio intzidentalarekin

parekatu. Horiek, bigarren mailako predikazioa osatzen bazuten ere, proposizioko edukiaren baitan kokatzen baitziren.

Beraz, atal honetan ez dugu aztergaitzat perpausean tartekaturik (tartekatua gelditze hutsagatik) gelditu den funtzio intzidentala izango (ikus funtzio intzidentalari buruz egindako oharra). Hori baino gehiago da. Esatariak berariaz bereizi ditu *bigarren graduko puntuazio-ikurrekin*<sup>168</sup>. Eta puntuazio-demarkazioaren makulu hori oso kontuan izatekoa da, esatariaren beraren nahia islatzen baitu.

Parentesien, marren eta komen artean agertzen diren perpaus kausalak, bada, zein motatakoak dira? Hau da, kausazko perpaus horrek zein forma edo sintaxi izaera du? Guztiek balio ote dute enuntziazioa edo esatea bera justifikatzeko?

Maiz enuntziatu parentetikoa E1 oinarrizko enuntziatuan esandakoaren edo predikatutakoaren azalpena emateko baliabide egoki bihurtzen da. Azalpen hori, ondorioaren eragile baino gehiago, bere kabuz, bere ardurapean ematen duen zerbait da, perpausean esaten dena baino areago esatea bera justifikatzera datorrena. Eta eginkizun horretarako batzuetan inolako marka formalik gabeko enuntziatua darabil (ikus A tipoa). Beste batzuetan, ordea, eginkizun bera kausazko menderagailuei esker bideratzen du. Zeintzuk dira, ordea, corpusean darabiltzan menderagailuak? Guztiek balio ote dute enuntziazioa edo esatea bera justifikatzeko?

### 6.5.1.2. CORPUSEAN OHIKOAK DIREN MENDERAGAILU KAUSALAK

Corpusean, oro har, *bait-* aurrizkia, *eta* enklitikoak eta *-elako*, *-enez*, eta *-enez gero* atzizkiak agertzen dira kausazko menderagailu gisa.

Kausazko menderagailuak	marren artean	Parentesien artean	Bi komen artean	Zenbat adibide
BAIT-	10	1	5	16
ETA	2		7	9
-ELAKO (edo) -ELAKO (beharbada)	2	0	5	7
-ENEZ	0	0	1	1
-ENEZ GERO	0	0	7	7
<b>GUZTIRA</b>	14	1	25	40

<sup>168</sup>Puntuazioaren atalean aztertuko dugunez, *bigarren graduko puntuazio-markak*, parentesiak, marra eta koma pareak osatuko dute.

Marren, parentesien nahiz koma parearen artean darabiltzan egitura parentetikorik gehienek (16 adibide), *bait-* aurrizkia daramate. Eta ez da kasualitatea. Euskaltzaindiaren arabera (EGLU VI), *bait-* da hain justu ere azalpenezko kausazko perpausak bideratzeko egokiena:

BAIT- zerbait bada hiztunak bere gain hartzen duen azalpena emateko tresna da (EGLU VI: 80).

Edota

ETA-dun perpaus hauek, hortaz, BAIT-dunak bezala, azalpenak emateko guztiz baliaagarriak dira, baita alegiazkoak deitu ditugun azalpenak emateko ere (EGLU VI: 199).

#### 6.5.1.2.1. *Bait-* aurrizkia

Ez da harritzeko, bada, aztergai dugun corpusean ere, *bait-* aurrizkibidez sortutako enuntziatuak izatea gehien. Aurrizki hau azalpenak emateko berariazko tresna bilakatzen baitzaio. Azalpenak, gainera, adibideek erakusten digutenez, gehienetan ez dagozkio E1 oinarritzko enuntziatuan esaten denari, esateari berari baizik.

- Beste zenbait hutsarte nabari dira, baita oihal zaharrari ez dagozkion adabakiak ere: infernuetara jeistea zakur-amets edo sorginkeria hutsal bihurtu da, ardoa egiteko ez da mahats-aleak oinkatzea aski, liktore-aizkorak —**horrela izendatzen baitituzte Ithaka'ko jauregian ikusten ditugunak**— ez ziren noski ugariak garai hartako Grezian, eta gainera gainerakoak. (ZIN: 146).

Goiko adibidean, esaterako, E1eko *liktore-aizkorei* buruzko argibide bat emango digu formaz kausala den enuntziatu parentetikoak. Azken batean, *liktore-aizkora* hitza zergatik esan duen oinarritu edo justifikatuko du; hondarrean, esatearen beraren azalpena edo justifikazioa da. Beste hainbeste gertatzen da ondorengo adibideetan ere:

- Egiazko lirika, izen horren duin dena alegia —**ez baita aski hitzak lerro lerro banatzea**—, da noski giza mintzoak menderatu duen gailurrik garaiena. (LIB I: 63).

“Egiazko lirika” edo “izen horren duin dena” enuntziazioa bera da enuntziatu parentetikoari esker justifikatuko duena; hots, era horretara zergatik enuntziatu duen azalduko du.

- Piarre Lafitte Kalonge eta euskaltzainaren eskutik —**berori baitugu aitzin solasaren egilea**— agertzen zaigu oraingoan Zaitegi jauna: hegazti harraparia hormatxori apalaren eskutik, norbaitek esango lukeenez. (LIB II: 75).

Zergatik dio Piarre Lafitte Kalonge eta euskaltzainaren eskutik agertzen zaigula Zaitegi jauna? “Esatearen” ekintza hori bera da enuntziatu parentetikoaren bidez azalduko duena.

- Ez zait berehalakoan ahaztuko oraindik orain, Pabeko Pirineisten batzarrean, hartu nuen bihotzondokoa Haritschelharrek gure bertsolariaren bizitza eta heriotze tristeaz —**galeretan hil baitzen**— argitasun berriak ematen zizkigularik. (LIB II: 83).

Zergatik dio “heriotze tristea”? Enuntziazio hori (adierazpen hori) argitzera dator enuntziatu parentetikoa.

Beste batzuetan, ordea, enuntziazioa edo esatearen ekintza argitu edo azaldu ordez, BAIT- aurrizkiaren bitartez, E1 oinarritzko enuntziatuan baieztatuari buruzko azalpena emango digu:

- Liburu horrekin batean —**lehen argitaraldian 63 orrialde besterik ez zituen liburuxka baita**— beste bat argitara du “Auspoa”-k: Aita Agustin Cardaberaz Jaincoaren Serbitzari andiaren berri laburrak izenarekin “apaiz batec” euskaraz eman zuena Durangon, Elosurenean, 1908garren urtean. (LIB II: 133).

- *Suspense* gehiegirik gabeko gizon-hiltzea —**lehen hitzek salatzen baitute egilea**—, baina arimen barrunbean ekaitz eta zurrunbiloak sortzen dituena. (LIB II: 130).

Halakoetan ere, ez da kausal betea izango esatariaren erantzukizun den justifikazio-azalpena baizik; esatariak bere kabuz, bere erantzukizunpean eskaintzen duen azalpena.



Zenbaitetan, halere, azalpena ez dagokio ez El oinarrizko enuntziatuan diosenari, ezta esateari berari ere. Gehiago da, gure ustez, esatariak berak dionetik ateratzen den edo atera daitekeen ondorio edo dedukziora iristeko oinarri izan duen arrazoia.

- Geroago —**apaiz eta praile-gai ez direnek ere batzuetan grekoz ikasi edo erdi ikasi behar izaten baitute Unibertsitatean**— lehen bezain gogoko dut, gutxienez. (LIB I: 67).

Adibide horretan garbi ikusten da “geroago lehen bezain gogoko izatea”-ren arrazoia ez dela “Unibertsitatean ikasi behar izatea”, ezta, goiko adibideetan ikusten zen legez, enuntziazioa bera (hots, esatearen ekintza bera) justifikatu edo azaltzea ere. Azalpen hori, nolerebait, esatariak berak atera duen ondorioa edo dedukziora iristeko oinarri litzateke: “uste dudana uste izateko eta uste hori adierazteko arrazoia”.

Adibide horretan esataria *Ilias'ena edo Iliada euzkeraz* liburu euskaratu berriaren kritika egiten ari da eta gorago aditzera emango digu mutil koxkorretan erdaraz irakurri zuela: “Iliada, gainera, oso gogoko dut aspaldidanik. Mutil koxkor ginela, eskuetaratu zitzaigun, ez dakit nola, adiskide batzuei eta neri, Segalaren erdal-itzulpen bikaina”. Baina, ez du erdaraz bakarrik irakurri, “geroago” ere, gustatu zaio. Hitzez hitz hala esaten ez badu ere, enuntziatu parentetikoan emandako azalpenetik deduzi dezakegu, “geroago” jatorrizko hizkuntzan irakurri duela, azken batean ondorio edo dedukzio hori baita justifikatuko duena.

- Behin edo behin, egia da, Izpiritu Santuaren prozesioaz ordu t'erdiz mintzatu beharrean aurkitu izan naiz (**irakastea debekatua badaukagu ere, ikastera behartu egiten baikaituzte**), baina geroztik hona jakintza hau baztertuxe eduki dut. (LIB I: 96).

“Izpiritu Santuaren prozesioaz” mintzatu beharraren arrazoia edo motiboa ez da “ikastera behartua izana”. Enuntziatu parentetikoan emandako argibideari esker deduzi dezakegu Izpiritu Santuaz, nahiz jakintza horretaz jakin badakiela, eta hori uste dugu, uste hori izateko arrazoia emango digulako.

Aztertu ditugun adibideak marren artekoak eta parentesien artekoak izan badira ere, bi komen artekoak ere ugariak dira. Hemen ere, esateari dagozkion kausak ditugu:

- Ez da amets hutsa, **behin bederen mamitu baita**, Lizardigan. (LIB I: 64).

Honekin guztiarekin honako ondorio hau ateratzen dugu: aditz flexioak kausazko mendeko perpausek erabiltzen duten BAIT- aurrizkiaren marka formala daramanean ere, ez duela E1 oinarrizko enuntziatuaren mendeko perpausa denik adierazten, gorago edo isilean dagoen *esan* edo kideko aditzarena baizik. Corpusean aurkitu ditugun adibideetatik gehienek hori erakusten dute.

Beste batzuetan (2 adibide), hitzez hitz agertzen ez den baina deduzi daitekeen ondorio edo dedukzio baten justifikazioa da.

Bada E1 oinarrizko enuntziatuan baieztatu, ezeztatu edo aipatu den zerbaiten azalpena edo justifikazioa egiten duenik ere (2 adibide). Holakoetan ere ez da, ordea, kausal betea izango; hau da, enuntziatu parentetikoa ez da E1 enuntziatuaren kausa edo motibo izango. Holakoetan ere, oso-osorik esatariaren erantzukizun den (edo ardurapean dagoen) justifikazio-azalpena litzateke.

#### 6.5.1.2.2. *Eta* enklitikoa

Jada ikusia dugu *eta* juntagailua ez ezik lokailu ere izan daitekeela, baina horrez gain, badira arrazoiak *eta* elementu honi menderakuntzaren arlotik begiratzeko ere. Hori egiaztatzeko lehenik EGLU VI liburuan datorren aipua ekarriko dugu:

ETA juntagailutzat eman genuen EGLU IV (Juntagailuak) liburuan. Juntagailu honek bi perpaus elkartzen ditu, sintaktikoki maila berekoak. Esan behar da, halaber, emendiozko juntadura —justaposizioa bezala— lotura modu neutroa dela eta, horrenbestez, perpaus juntatuak maila sintaktiko berekoak izan arren, ETA-ren bidez juntatutako bi perpausen artean hainbat semantika-erlazio desberdin gerta daitezkeela. Horien artean kausa/ondorio erlazioa ere bai. (EGLU VI: 200).

Eta erlazio horixe da, hain zuzen, orain aztergai duguna ere: kausa/ondorio erlazioa. Azken batean *eta* enklitikoa azalpenezko perpaus kausalak sortzeko bitarteko gertatzen baitzaio Mitxelenari. *bait-* aurrizkiari buruz genioen bezala, *eta* enklitikoarekin esatariak bere ardurapean ematen duen azalpena bideratzen du.

- “Hamlet”-en ondoren eman digun itzul lan hau hura baino arinagoa —errazagoa ere zen *eta*— eta hizkeraz jatorragoa iruditzen zait. (LIB I: 42).

“Arinagoa”, esatariaren ustez, zergatik den azaldu edo arrazoituko digu enuntziatu parentetikoak. Badirudi, bada, E1 oinarrizko enuntziatuan emandako mezuaren atal bati buruzko azalpenak emango dizkigula, soilik esatariaren erantzukizun direnak edo bere ardurapean egindakoak.

Gehienetan, ordea, esatearen ekintza bera da azalduko duena:

- Honi<sup>169</sup> eskerrak, **eskasiak berak ere alde onak baditu eta**, zeluloide zaharra agertzen zaigu noizean behin. (ZIN: 160).

Beraz, enuntziatu parentetikoarekin enuntziatioaren edo esatearen ekintza bera da azalduko duena; hau da, “Eskasiari eskerrak” esatea oso ohikoa ez bada ere, “eskasiari eskerrak” dio, eta hori dio eskasiak bere alde onak badituela iruditzen zaiolako, kasu honetan “zeluloide zaharra agertzea” bera.

Beste horrenbeste ondorengo hauetan ere:

- Nik ez dut gehiago goraipatuko, **beharrik ere ez du eta**, elezahar berritzaile, artezale eta euskal idazle umil ahaztuen historiolaria hau. (LIB II: 152).

- Ez dut nik esango, **harrokeriaz mintzatzea litzateke eta**, euskal arima zer-nolakoa den aditzera eman duenik. (LIB I: 64).

E1 oinarrizko enuntziatuan dioen “ez dut nik esango” edota “nik ez dut gehiago goraipatuko” ezeztapena bera da batean eta bestean enuntziatu parentetikoak azalduko duena.

- Saia gaitezen, bada, **ongi merezi du eta**, Fernando honen izena bestearena adina barrea dadin. (LIB I: 92).

Zergatik diot “saia gaitezen”? Ongi merezi duelako.

*Bait-* aurrizkiarekin gertatzen zen bezala, dedukzioaren azalpena egiteko ere badarabil *eta* enklitikoa. Ez da E2 enuntziatu parentetikoa E1 oinarrizko enuntziatuaren zuzeneko azalpena edo arrazoaia. E2 enuntziatu parentetikotik deduzi dezakeguna bihurtzen da E1 oinarrizko enuntziatuan uste duen hori uste izateko arrazoi.

---

<sup>169</sup>Honi erakusleak “Hollywood’etik datozen film eskasiari” egiten dio erreferentzia:

- Kexu ginen lehen Hollywood’eko pelikula ugari eta bestetarikoak urri genituelako. Orain, gero eta hobeto gabilta, Hollywood’etik ere deus gutxi etortzen zaigu. (ZIN:169).

- Lehen baino hobeto ezagutzen ditut orain haur liburuak, **etxeokak direla eta**, eta ipui gutxi ikusi ditut, edozein aldetatik begiratuta ere, hauek bezalakoak. (LIB I: 97).

“Etxekoak direla eta” enuntziatu parentetikoa ez da zuzen-zuzen E1 oinarrizko enuntziatuan baieztatutakoaren arrazoa. Gehiago da, gure ustez, esatariak berak dioenetik ateratzen den edo atera daitekeen ondorio edo dedukziora iristeko oinarri izan duen arrazoa. Enuntziatu parentetikotik bertatik deduzi dezakegu esatariak etxean badituela haurrak eta haurrak dituenez gero haurrentzako liburuak ere eskuartean ibili beharrean izan dela. Eta hori, hitzez hitz esan gabe inplikatu duen hori edo atera daitekeen ondorio hori da da hain justu ere E1 oinarrizko enuntziatuan dioenaren azalpen.

Honela parafrasea dezakegu: haur liburuak lehen baino hobeto ezagutzen dituela uste du, eta uste duen hori uste izateko enuntziatu parentetikotik deduzi daitekeena izango da oinarria edo arrazoa.

- Lehen argitaralditik bigarrenera, besteak beste, *gauza gauz* bihurtu zen, *eleiza eleiz* eta *neskatxa neskatz*. Bigarrenetik oraingora, *a* batzuk kentzeari gutxi iritzirik —**eskuak ausartzen ari zaizkigu eta**—, esaldi osoak agertzen dira moztuak. (LIB I: 80).

Azalpena ez da egiazki ondorioaren eragile.

“Eskuak ausartzen ari izateak” esatariaren kritika gogor baten inplikazioa dakar. Enuntziatu horretatik deduzi dezakegu argitaratzaileari jatorrizko bertsioa eraldatzea ez zaiola gehiegi axola. Besteren lanak aldatzeko edo “hobetzeko” eskubidea (askatasuna?) areagotu egin dela, nonbait.

#### 6.5.1.2.3. -Elako menderagailua

Aditzaren flexioari *-elako* atzizkia erantsirik sortuko du azalpenezko perpaus kausala. Egia da, eta horren lekuko dugu EGLU VI liburuan *-elako* atzizkiari buruz esandakoa, *-elako* atzizki bidez, oro har, *kausal beteak* eman ohi direla aditzera, “perpaus nagusiarekiko lotura bortitza duena eta predikazio nagusiaren barruan txertatua ikusten duguna” (EGLU VI: 179).

Alde horretatik ezin pentsa genezakeen *-elako* bidez sortutako perpausa enuntziatu parentetiko izan zitekeenik. Edo behintzat, enuntziatu parentetikoak mugatzeko erabili ditugun ezaugarriak, kanpo izaera sintaktikoa, esaterako ongi uztartuko litzatekeenik

menderagailu honen bidez sortutako perpausekin. Ez eta enuntziatio mailako argibideak, zehaztapenak edo azalpenak emateko funtzioarekin ere.

Corpusari erreparatuz ohartuko gara, ordea, Mitxelenak enuntziatu parentetikoak sortzeko *-elako* kausazko menderagailua darabilenean, ez duela kausal beteak egiteko erabiltzen; hots, ez dela enuntziatu parentetikoa E1 oinarritzko enuntziatuaren egiazko arrazoi, motibo edo eragile. Aurreko *bait-* eta *eta* enklitikoekin gertatzen zen bezala, hau ere azalpenak emateko darabilela esatariak, bere kabuz, bere ardurapean ematen duen zerbait adierazteko. Azalpen hori, bada, esatariak bere gain hartuko du eta perpaus nagusitik aparte emango, kanpo izaera sintaktiko horri eutsirik.

- Barrena begira, itsasoa eta ontziak baztertzen baditugu, agintariaren erantzunbearra eta bakardade astuna erakusten saiatu dira gehienbat, azkenaldi honetan zinema —**bestarik ukitzera ausartzen ez delako edo**— maiz erakusten saiatu den gaia. (ZIN: 177-178).

- Lau-bost laguneren joan-etorrietan mugatzen duelarik —**oinarri izan duen N, Shute´ren liburua horrela moldatua aurkitu duelako, beharbada**—, esan daiteke berez duen indarrari zerbait ostu diola. (ZIN: 194).

Horretarako, bada, adibideek erakusten digutenez, Mitxelenak ez du *-elako* menderagailua soilik erabiliko, menderagailuari gehienetan, bere kabuz emandako balizko azalpen bat dela adierazteko edo, *edo* anakolutozko juntagailua alboratuko dio, edo bestela “beharbada” bezalako modalizatzailerak erantsiko.

- Nik behintzat besoak desgurutzatzen ditut, Aita Altunak mordoilokeria barkakizun etsiko duelakoan, **behin-behingoa delako edo**, egina duen lana txalotzeko. (LIB II154).

- Halaz ere, **hitzak zezenak baino otxanagoak direlako edo**, Manoleteren toreo-gisa urri eta labur adina da aberats eta ingurutsu Altube jaunaren mintzaera. (LIB I: 93).

- Ezerezeko paperetan maiz ikusi izan ditugun zenbait ere, Edmond O´Brien bezala, **gaiak eragiten dielako edo**, gorengoen pare ageri da. (ZIN: 127).

Esatariak ez du baieztatu duenaren arrazoi bakartzat enuntziatu parentetikoan aipatutako “gaiak eragitea” jotzen, baina bai balizko arrazoietatik berarentzat hala dela uste

duena. Hala ere *edo* bukaeran utzita arrazoen multzoa itxi gabe uzten du: “aipatutako horregatik edo beste zerbaitegatik ere izan zitekeen” bezala uler dezakegu. Nolabait ere, arrazoitzat har zitekeena ahuldu, ñabartu egingo du; “erabatekotasuna” kenduko dio.

-*elako* menderagailuaren erabilera horietan, bada, emandako arrazoia esatariaren “ustearekin”, “iritziarekin” gehiago uztartzen dela iruditzen zaigu (hau da, modalizazio mailarekin), eta ez hainbeste, goian aipaturiko menderagailuekin gertatzen zen bezala, enuntziatio-mailarekin. Horregatik, *edo* anakolutoa ez darabilenean, “beharbada” bezalako modalizatzaileaz lagundurik osatu du kausazko perpausa.

- Homerogandik hasi eta irakurleaganaino, **luzexkoa zelako edo**, bi gauza gelditu dira bidean, nabarmen xamarrek biak, eta ez dira inon ageri: poemaren edertasuna eta grazia batetik, eta euskara bestetik. (LIB I: 68).

- Gero, lehorreraturik, **lehengo ezinegonak berak darabilelako edo**, komeriante batzuekin abiatzen zaigu berriz Nafarroa-Gipuzkoetan barrena. (LIB I: 105).

Beraz, ez da E1 oinarrizko enuntziatuaren zuzeneko eragile edo motibo, bere galbahetik pasatako ustezko balizko arrazoi bat baizik. Esan duen horri buruz duen ustearen adierazle, E1 oinarrizko enuntziatuan esandakoaren ustezko arrazoi baten azalpena da; ez, ordea, *bait-* aurrizkiarekin eta *eta* enklitikoarekin gertatzen zen bezala, esatearena berarena. Horretarako, kausazko perpausa ez da *-elako* atzizkiarekin soilik joango, *edo* anakolutoak edo “beharbada” bezalako modalizatzaileak ere (edo horiek batik bat) lagunduko diote.

#### 6.5.1.2.4. *-Enez gero* menderagailua<sup>170</sup>

*-Enez gero* menderagailu honen ezaugarri sintaktiko-semantikoei buruz EGLU VI-k honela dio:

Gehienetan *-eNEZ GERO* perpausak ezker aldean ematen dira, mintzagaigunean, horrenbestez. Solaskideek ezaguntzat ematen duten informazioa biltzen dute. Baina perpausaren eskuinaldean ere maiz agertuko zaigu. “Ertzeko” izanik, galdegai baino areago

<sup>170</sup>Corpusean bada adibide bat *-enez* menderagailuarekin sortutakoa, baina gainerako guztiek *-enez gero* daramate:

- Baina, **hain gaztea ez naizenez**, nahiago dut begiratu ea beti aurrerakada ibili ote garen. (ZIN:160).

mintzagai izan ohi dira. (...) Hauen balioa, berriz, azalpenezkoa izan ohi da. (EGLU VI :191-192).

Menderagailu honek ere, bada, azalpenezko balioa ematen du aditzera *bait-* eta *eta* enklitikoarekin gertatzen zen legez, baina haiek ez bezala, badirudi *-enez gero* menderagailuak, esatariarentzat ez ezik, norentzakoarentzat ere ezaguna litzatekeen informazio gisa emateko aukera eskaintzen du.

- Guri, ordea, **hitz ederretan ez ezik hitz horiek adierazten dituzten gogoeta ederretan ere sinesten ez dugunez gero**, parregarri agertzen zaizkigu, haurtzaroko jostailuei ederretsirik bizi diren gizon-emakume hazien antzera. (ZIN: 158).

Badirudi enuntziatu parentetikoari esker emandako informazioa, nolabait ere, E1 oinarritzko enuntziatuan emandakoaren azalpena dela, justifikazio-azalpena, eta guztiek jakina balitz bezala aditzera ematen duela:

“Hitz ederretan ez ezik hitz horiek adierazten dituzten gogoeta ederretan ere ez sinestea”, bai esatariak bai norentzakoak elkarrekin banatzen duten informazioa da; biek batean dutena. Ez da kasualitatea *guri* izenordaina erabiltzea.

Beste horrenbeste esan dezakegu ondorengoaz ere:

- Ez zegoen deus itzulpen horietan, **Vulgatetik hartuak zirenez gero**, Elizak ontzat eman ez zezakeenik. (LIB I: 111).

Behin baino gehiagotan, *-enez gerorekin* sortutako azalpenezko enuntziatu parentetikoak esatearen ekintzari berari egiten dio erreferentzia:

- Esan dezadan bidenabar, **egokitu denez gero**, gure arbasoek ez zituztela etxeak egurrez egiten, egurra surtarako gordetzen zutela.(LIB II: 49).

- Gero, ordea, ixildu egin zitzaizkigun edota, **esan dudana esatea gehiegi denez gero**, ez zituzten ixuri zituzten hitzak gerorako erein, fruitu gozo bihur zitezen ondorengoentzat. (LIB II: 123).

- Badirudi poesian ontzat hartu dutela “Markue” inor gutxi ontzat hartzen dutenek ere eta, **maixuak mintzatu direnez gero**, ez dut nik zer esanik, poztu egin naizela baizik. (LIB II: 152).

Horiek guztiak *esan* edo esatearen ekintzari berari egingo diote erreferentzia.

## 6.5.2. BALDINTZA PERPAUSAK

### 6.5.2.1. FORMA ALDETIKO EZAUGARRITZEA

C tipotzat bataiatu dugun sail honetakoa genuke baldintza perpausen forma hartzen duen enuntziatu parentetikoaren ere.

Corpusa baldintza perpaus jokatuak osatzen dute (66 adibide ditugu); hau da, *ba-* aurrizkia menderagailutzat daramaten perpausak. Hona hemen, argigarri, horietako batzuk:

- Eta harengan hasten da, noski (**Aita Meagher baztertzen badugu**), Donostiako euskal idazleen arraza bortitza: Baroja zaharra, Bilintx, Soroa, Alzaga eta beste hainbeste eta hainbesterena. (LIB II: 131).

- Maiz gertatu ohi da, izan ere, honelako liburuetan —**susmo txarrak ez dagoenik ikusarazi ez badit**— idazlea esanaren esanaz asperturik bezala mintzatzen zaigula, besteren ahotik entzuna hotz-hotzean birresaten, baina Villasante bero-beroan, su eta gar, mintzatzen da, ez Sertillanges 'gandik entzunaz, bihotz barrendik datorkion etorri gartsuaz baizik. (LIB II: 88).

- Gure euskara, baita Detxeparerena ere, hura baino bi mila urte gehiagoz gazteagoa da, Homero —**inoiz jaio bada**— Detxepare baino bi mila urtez lehenago jaio zen bezala. (LIB I: 68).

Maiz, *ba-* aurrizkiak ez ezik, *baldin* lokailuarekin indarturik joango da:

- Badakit, noski, nekez ikasiko dituela irakurleak "irakurletasunak" eskatzen dizkion zerak — **letraduna baldin bada, euskaraz letradunentzat egiten direnak irakurtzeko behar dituenak, erdarazkoak irakurtzen dituen eran**—, inork irakasten ez badizkio. (LIB II: 137-138).

- Bestela ikasi duenik —**lehen esan dudan gisan ez baldin bada**— erakusten didatenerako, harri koxkor xuri bat gerturik daukat egun seinalagarri hura markatzeko. (LIB II: 63).

- Bai, ordea, adierazi duela zein den euskal ereduak, euskaldunik gehienok, **denok ez baldin bada**, maite dugun ametsa, xamurtasunez eta ixiltasunez nahasia. (LIB I: 64).



*Ba-* aurrizkia daramaten guztiak, ordea, ez dira beti baldintza perpausak. Esaterako, badugu corpusean *ba-* aurrizkia perpaus osagarri gisa agertzen den adibidea ere, “hobe izan” bezalako predikatuarekin:

- Egilea maite dudala gizon den aldetik eta aspaldidanik miretsi izan dudala: gizon jator bezain miratzaile zehatz (**ausartago balitz eta gorago joko balu, hobe gureztat**), euskaltzale gartsu bezain gogo-zabal, burutsu bezain bihoztun. (LIB II: 151).

#### 6.5.2.2. BALDINTZA PERPAUSEN SAILKAPENA

Baldintza perpausen sailkapena, EGLU VIari jarraituz, haietan agertzen den adizkeraren arabera egin ohi da. Haietan baldintza irrealak eta baldintza errealak bereizten dira. Gure corpusean, gehienek, baldintza errealeen saila osatuko dute.

Baldintza irrealak deitzen direnetan alegialdiko adizkerak erabiltzen dira. Haietan gertatugabeko edo gertagaiztatzat jotzen diren gertakariak edo egoerak, jazo edo jazoko balira bezala aipatzen dira. (...) Baldintza errealak deitzen diren perpausetan, aldiz, gertakari gertatuak edo gertakorrak adierazten dira; haietan iraganaldiko eta orainaldiko adizkerak erabiltzen dira. (EGLU VI: 64).

Baldintza irrealei dagokienez, adibide bakarra aurkitu dugu corpusean, eta aspektuaren aldetik [-burutua] eta [+geroa] ezaugarriak ditu:

- Neronek ere egingo nuke, **inork eskatuko balit iritzia**, gorde behar genituenak oro gorde ez ditugularik, ez ditugula ere galdu galdu beharreko guztiak. (LIB I: 51).

Gainerakoak baldintza errealarari dagozkio eta guztiek [+orainaldia] ezaugarria dute, baina aspektu-markan ezberdintzen dira:

[+ burutua]

- Maiz gertatu ohi da, izan ere, honelako liburuetan —**susmo txarrak ez dagoenik ikusarazi ez badit**— idazlea esanaren esanaz asperturik bezala mintzatzen zaigula, besteren ahotik entzuna

hotz-hotzean birresaten, baina Villasante bero-beroan, su eta gar, mintzatzen da, ez Sertillanges 'gaidik entzunaz, bihotz barrendik datorkion etorri gartsuaz baizik. (LIB II: 88).

[- burutua]

- Eta harengan hasten da, noski (**Aita Meagher bazterten badugu**), Donostiako euskal idazleen arraza bortitza: Baroja zaharra, Bilintx, Soroa, Alzaga eta beste hainbeste eta hainbesterena. (LIB II: 131).

[ + puntukaria]

- Dena dela, buruan —**sakelean ez bada**— nobela bat duela etxeratu da. (LIB I: 51).

- Ehunka dira liburu honetan, **milaka ez badira**, hitz berriak, zaharraren zaharrez ahaztuak edo bazterren baten ezagunak badira euskal literaturan inoiz sarrerarik izan ez dutenak: (LIB I: 116).

Formaz goian deskribatu ditugun bezalakoak badira ere, guri garrantzi handikoa iruditzen zaigu bi enuntziatuen arteko lotura aztertzea. Formalki baldintza perpaus baten aurrean gaude, baina E1 oinarritzko enuntziatua E2 baldintza perpausaren forma hartzen duen enuntziatu parentetikoaren baldintzapean dagoen ondore perpausa ote da? Hau da, E2 baldintza-perpausa izanik, E1 ondorio perpausa ote da eta bien artean baldintzadun perpaus konplexua osatzen ote dute?

Gure ustez ez. Corpuseko adibideekin frogatzen saiatuko gara baldintzaren marka formala izan arren, ez dela protasi-apodosi erlazioa gauzatzen eta oraingoan ere bi enuntziatu independenteren aurrean gaudela.

### 6.5.5.3. BALDINTZA PERPAUSAREN FORMA HARTZEN DUEN E2-REN ETA E1-EN ARTEKO LOTURA

*Ba-* aurrizkiak garbi erakusten du badela sintaxi aldetiko marka formala. E1 eta E2ren artean loturarik dagoen edo ez egiaztatzeko, aurretik ikusi behar dugu baldintza perpausak, esanahi aldetik, oro har, zer nolako harremana gauzatzen duen ondore perpausarekin. Horretarako, gainera, gramatika-irizpideak gainditu beharko ditugu.

La condición y su expresión conforman un fenómeno heterogéneo y proteico, cuyo estudio sobrepasa los límites teóricos de la gramática, ya que se trata de un mecanismo cognitivo fundamental: las estructuras condicionales son una de las principales vías lingüísticas de las que dispone el individuo para expresar su capacidad de imaginar situaciones diferentes a las reales; de crear mundos posibles; de soñar con situaciones pasadas que podrían haber sido diferentes; de ocultar lo factual tras la apariencia de lo contingente. (Montolío 1999: 3647).

Baldintza bere adiera hertsian hartuz gero, DRAEk (1992 I: 534), honela definitzen du: “Situación o circunstancia indispensable para la existencia de otra”.

Beraz, definizio horren arabera, “egoera jakin batera iristeko ezinbesteko zirkunstantzia dela esan dezakegu”; hots, ondorio jakin hori gertatzeko aukera bakarra derrigorrez baldintza hori betetzea da, eta baldintza beteko ez balitz ondorio hori ere ez litzateke beteko.

- Eta harengan hasten da, noski (**Aita Meagher baztertzen badugu**), Donostiako euskal idazleen arraza bortitza: Baroja zaharra, Bilintx, Soroa, Alzaga eta beste hainbeste eta hainbesterena. (LIB II: 131).

Lehen begiratu batean, adibide horretan, enuntziatu parentetikoak dakarren baldintza “Aita Meagher baztertzea litzateke” eta, itxuraz, baldintza horren menpe legoke idazleen arraza bortitzaren jatorria “beste harengan” jartzea. “Aita Meagher baztertuko ez bagenu, bada, ezingo litzateke “idazleen arraza bortitza harengan hasi”. Interpretazio horren arabera, E1 oinarriko enuntziatua E2 enuntziatuko baldintzaren ondorio zuzen litzateke. Baina, interpretazio hori ote da egokiena?

Gure ustez, interpretazioa ez doa bide horretatik. Interpretazio egokia egiteko, *baldintza* terminoaren goiko adiera bigarren esanahi batekin uztartu behar dugu: baldintza perpausak, oro har, hipotesi bat aurkezten du; hau da, gerta zitekeenari edo daitekeenari buruz egiten den proposizio aukera bat mamitzen du. Eta hipotesia, DRAEri jarraituz (1992 II: 1113), suposizio gisa hartuko dugu: “Suposición que se establece provisionalmente como base de una investigación que puede confirmar o negar la validez de aquella”.

Maiz, ohartuko gara baldintza-perpausak solaskideen arteko solas konbentzio isiletan eta ageriko esanek inferentziaz inplikatzan dituzten azpiko adierazietan finkaturik daudela.

## 6.5.2.3.1. Baldintza eta suposizioa (inferentzia bidezko erabilera?)

Baldintza perpausaren (protasia) eta ondore perpausaren (apodosia) artean bada inplikazioazko harremana. BA- aurrizkiak (*baldin* lokailuaz indarturik edo ez) badu balio pragmatikoa; interakziozko instrukzio edo jarraibide bat ematen du. Norentzakoari eskatzen dio une batez onar dezala baldintza perpausako suposizioa: “ondorio perpausak zentzua izan dezan, *eman dezagun/ jo dezagun* hau gertatzen dela” bezala parafrasea dezakegu. Aldi berean norentzakoak badaki baldintza perpausaren eta ondore perpausaren artean badela lotura bat.

Baldintza perpausaren funtzioa, bada, suposizio bat, balizko mundu bat, diskurtso-marko bat sortzea da eta suposiziozko edo balizko mundu horretatik abiatuta interpretatuko litzateke ondore perpausa ere; gure kasuan, E1 oinarritzko enuntziatua.

(...) la función de la prótasis es crear una suposición o, formulado en otros términos, un estado de cosas, un mundo posible, un marco discursivo, a partir del cual interpretar la información que sigue. (Montolio 1999: 3651).

Beraz, baldintza perpausak dakarren informazioa alde aurretik ematea garrantzizkoa da esatari norentzakoak suposizio horren jakinaren gainean egon daitezen edo informazio hori elkarrekin bana dezaten.

Baldintza-forma duten enuntziatu parentetikoak, ordea, ez dira E1 oinarritzko enuntziatuaren aurretik ematen, han tartekaturik baizik. Eta Eleko baieztapena edo asertzioa ematen hasi ondoren tartekatzeak, baldintza edo suposizio hori une horretan bertan gogoratu balitzaio bezala aurkeztea dakar; hasierako plangintzan egon gabe, une horretan bertan gogoratua izan balitz bezala, eta gainera, ezinbestekotzat jotzen du baldintza hori enuntziatzea. Badirudi, bada, ez dela bata bestearen ondorio; aitzitik, badirudi, esatariak informazio bat enuntziatzen duela eta behin informazio hori eman ostean edo ematen ari delarik, baldintza-perpausa gehitzea erabakitzen du, aurrez esandakoa ñabartu, eraldatu edo zuzentzeko helburuarekin. Azken batean, birformulaziotik gertu legoke era horretako baldintza-perpausa, eta gainera, esatariak bere burua babesteko mekanismo edo bitarteko ere bihurtzen da.

En cuanto al segundo tipo de posposición [q, si p], la inserción del condicionante cabe interpretarse en el discurso oral como una idea tardía que al hablante le viene a la cabeza y le parece relevante enunciar, pero que no estaba prevista en el plan discursivo inicial. Diríase, pues, que el hablante enuncia una información y, una vez proferida esta, decide añadir otro elemento que modifique o matice lo anterior a modo de autoenmienda o rectificación a posteriori. (Montolío 1999: 3654).

Goiko adibideari helduko diogu:

- Eta harengan hasten da, noski (**Aita Meagher bazterten badugu**), Donostiako euskal idazleen arraza bortitza: Baroja zaharra, Bilintx, Soroa, Alzaga eta beste hainbeste eta hainbesterena. (LIB II: 131).

E1 enuntziatuarekin esatariak baieztapen bat egiten du (“eta harengan hasten da Donostiako idazleen arraza bortitza”), edo egiten ari den bitartean, une horretan bertan gogoratu balitzaio bezala, baieztapen horri muga bat (erreal den muga bat), ñabardura bat jartzen dio, eta horrela, hein batean, E1 enuntziatuan esandakoa modalizatu edo birformulatu egiten du: “Baieztapen hori zuzena izango da, aita Meagher bazterten dugula suposatuz”.

Baldintza perpausa E1 oinarrizko enuntziatuan emandako mezutik atzeratze horrek izan dezake, gainera, interakziozko helburu jakin bat ere. Esatariak norentzakoarekin elkarbanatzen duen interakziozko harreman horretan esatariak nahi duena lortzeko arazoak edo dituen erabiltzen duena. Holakoetan, E1 oinarrizko enuntziatioaren birformulazioa baino gehiago, kortesiaz jokatzeko bilatzen du, enuntziatioa leunduz, edo arinduz, beharxeago ikusiko ditugun “oker ez banago” bezalako enuntziatio-baldintzekin egiten duen bezalaxe. Beste horrenbeste gertatzen da adibide honekin ere:

- Maiz gertatu ohi da, izan ere, honelako liburuetan —**susmo txarrak ez dagoenik ikusarazi ez badit**— idazlea esanaren esanaz asperturik bezala mintzatzen zaigula, besteren ahotik entzuna hotz-hotzean birresaten, baina Villasante bero-beroa, su eta gar, mintzatzen da, ez Sertillanges ‘gaindik entzunaz, bihotz barrendik datorkion etorri gartsuaz baizik. (LIB II: 88).

Adibide horretan, E1 oinarrizko enuntziatua ez da E2 enuntziatuaren baldintzapean dagoen ondorioa. Gehiago da, gure ustez, E1 oinarrizko enuntziatuan egindako baieztapen negatiboa edo kritika leuntzeko edo arintzeko egiten duen ñabardura.

#### 6.5.2.3.2. Auresuposizioa bertan behera uztea

- Gure euskara, baita Detxeparerena ere, hura baino bi mila urte gehiagoz gazteagoa da, Homero —**inoiz jaio bada**— Detxepare baino bi mila urtez lehenago jaio zen bezala. (LIB I: 68).

Adibide horretan ikus dezakegunez, E1 oinarrizko enuntziatuak “Homero Etxepare baino bi mila urtez lehenago jaio zelako” suposizioa dakar. Enuntziatu parentetikoan dakarren baldintza-perpauak, ordea, auresuposizio hori bertan behera botatzen du (“inoiz jaio bada”). Esataria, horrela, E1 oinarrizko enuntziatutik atera daitekeen suposizioa zuzena edo zehatza ez izateko arriskutik babestu egiten da, baldintza forma hartzen duen enuntziatu parentetikoari esker egindako zehaztapenarekin. Honenbestez, baldintza perpausa E1 oinarrizko enuntziatuaren baldintzatzaile baino gehiago da, gure ustez, esatariak baieztatu edo enuntziatu duen horretatik bere burua gordetzeko edo babesteko mekanismoa, baieztapenaren ondoren (edo baieztapena egiten ari delarik) egiten baitu zehaztapena.

(...) Por lo general, cabe interpretar la adición a posteriori de tales prótasis como un mecanismo reparativo mediante el cual el hablante intenta salvaguardarse para el caso de que se deduzca una presuposición inexacta de la aserción de la apódosis. (Montolío 1999: 3654-3655).

Oinarrizko enuntziatuan tartekatutako baldintzazko parentetikoekin zenbaitetan, auresuposizioak bertan behera botatzeaz gain, inferentzia pragmatikoak ere deusezta ditzake.

#### 6.5.2.3.3. Enuntziazio mailako baldintza perpauak

Corpusean aurkitzen ditugun adibiderik gehienak mota honetakoak dira. E1 oinarrizko enuntziatuan dioena ez dago E2 enuntziatuak dioenaren baldintzapean. Hau da, E2 enuntziatuko baldintzak ez du loturarik E1 oinarrizko enuntziatuko egoerarekin, ez bada enuntziazio mailako gertakariekin.

##### 6.5.2.3.3.1. Enuntziazio mailako zeharkako baldintzak

Jarraian aztergai ditugun enuntziatu parentetikoei zeharkako baldintzak<sup>171</sup> ere deitu izan zaie. Enuntziazio mailako baldintza perpausak dira:

- Chaplin-zaleek, **oker ez banago**, ez dute uste bezalako gozamenik izan. (ZIN: 185)

- Lehendabizikoaren bukaerak , zoritxarrez ustekabekoa izanik, ez du ikuslearen gogoia beteko, **oker ez banago**. (ZIN: 191).

- Ongi josia eta ongi emana dago, **ene hitzak ezer balio badu**. (ZIN: 192).

“Ongi josia eta ongi emana egotea” esate baterako, ez dago “nere hitzek balio izan edo ez izatearen” menpe edo baldintzapean.

- Gaia, **oker ez bagaude**, komedia batetik hartua da. (ZIN: 163).

- Duela zenbait urte ikusi genuen horrelako zerbait Curtis Bernhardt´en film batean: “Retorno al abismo” zuen hemen izena, **oker ez badaude**. (ZIN: 174).

Formula hauek, ikus daitekeenez, nahiko formula eginak edo dira, eta alde horretatik X. Alberdik ere “baldintza erritual gisakoak” deitzen ditu (1991: 739). Kortesiako erabileratzat ere jo izan dira (Montolío 1999: 3685).

Corpusean honako aldagarriak ikusten ditugu:

<b>Zeharkako baldintza (enuntziatio mailakoa): oker/ gaizki aditzondoekin sortutako erritozko baldintza.</b>	<b>Zenbat adibide</b>
Oker ez banabil	4
Oker ez banago	11
Oker ez bagaude	2
Oker ez badaude	1
Oso oker ez banago	2
Gaizki ez banabil	1
<b>Guztira</b>	<b>21</b>

*Iritzia, hitza* bezalako hitzekin sortutako enuntziatio mailako baldintza perpausak:

<sup>171</sup>Montoliok (1999: 3683) *condicionales indirectas* izendatzen ditu.

Zeharkako baldintza (enuntziazio mailakoa): <i>iritzia, hitza</i> bezalako hitzekin sortutako erritozko baldintzak.	Zenbat adibide
Ene iritziak ezer balio badu	1
Nere iritziak ezer balio badu	2
Nere iritzi eskasak ezer balio badu	1
Baldin nire iritzia estalkirik gabe agertu behar badut	1
Ene hitzak ezer balio badu	1
Gure ustea garbiro agertu behar badugu	1
Inork eskatuko balit iritzia	1
<b>Guztira</b>	8

*Egia*<sup>172</sup> hitzarekin sortutakoak

Zeharkako baldintza (enuntziazio mailakoa): EGIA hitzarekin sortutako erritozko baldintza.	Zenbat adibide
Egia aitortu behar badut	1
Egia zor badizuet	1
Nori berea eman behar badiogu	1
<b>Guztira</b>	3

Formalki baldintza perpaus hauek (ia) beti orain aldian joan ohi dira. Eta E1 oinarritzko enuntziatuarekiko independentea da bai sintaktikoki eta bai semantikoki. Eta hori hain da horrela bien arteko tempus koorrelazioa ere ez da beti gauzatzen:

- Nik esango **nuke**, nere iritziak ezer balio **badu**, Baiona aldetik etorri zitzaigula bale arrantzarako eragina eta are itsasorakoa erabat. (LIB II: 57).

Adibideak erakusten digunez, ondorio perpauseko “**nuke**” adizkiak, alegiazko baldintza eskatuko luke.

- Irakurle argia —**inoiz makurtu baldin bada horrelakorik lerro txaldan hauek irakurtzera**— ohartu da noski honez gero ez dituela oso gogoko “Cinemascope”, “superescope” eta antzeko izenak daramatzaten sistema berri harrigarriak. (ZIN: 141).

<sup>172</sup>*Gezur* hitzarekin ere sortu izan ditu enuntziatu parentetikoak, baina, corpus honetan bederen, ez da *egia* hitzarekin sortutakoak bezain emankorra gertatzen. Hona hemen adibideren bat:

- Esan daiteke, **gehiagizko gezurrik esan gabe**, hor dagoela euskal literaturari, eta literaturari erabat, utzi dion testamentua eta ordenua. (LIB II: 107).



Goiko adibide horrek ere erakusten digu baldintza perpausaren forma hartzen duen E2 enuntziatu parentetikoaren eta E1 oinarrizko enuntziatuaren artean ez dagoela loturarik. “Inoiz makurtu baldin bada horrelakorik lerro txaldan hauek irakurtzera” baldintza ez da sintaktikoki ongi uztartzen “ohartu da” E1 enuntziatuko aditzarekin. Hor denbora korrelazioak huts egiten du. “Inoiz makurtu bada” horrek halako alegi adiera du, ekintza ez dago burutua; aitzitik, “ohartu da” horretan, bai.

Enuntziazio mailako baldintza perpausetan agertzen den orainaldiak, nolabait ere enuntziatioaren oraina aditzera ematen du, enuntziatutako horri buruzko iruzkin eguneratua edo litzateke.

Montolíok (1999: 3685) enuntziazio mailako baldintza perpaus hauei bazterreko protasia deitzen die; hots, “prótasis periférica” eta bertan lau azpisail bereizten ditu: goian aipaturiko kortesiazko erabilera aditzera ematen dutenez gain, metalinguistikoak edo metadiskurtsozkoak eta interpretazio-gidatzaileak aipatzen ditu.

Azpiatal horiek ordea, komunikazioan edo diskurtsoan duten eginkizunari gehiago lotzen zaizkio azterketa gramatikalari baino. Zein forma duten jakiteko corpuseko adibide bat edo beste aldatuko dugu:

#### Metadiskurtsozkoak

- Badu liburuak hitzaurreaz landara beste hitzaurre edo erdiko hitz bat, arras biziki, egoki eta, **honela esan badaiteke**, toleskabeki idatzia. (LIB II: 59).
- Egiatzko lirikarako joera ez dator ez jakitetik ez hizkuntza landutik. Barrendik dator edo, **nahiago baduzue**, goitik. (LIB II: 84).

Horrelako enuntziatu parentetikoekin esatariak erabili duen hitzarekin bat etortze bat edo bilatu nahi du.

#### Interpretazio-gidatzaile gisa

E1 oinarrizko enuntziatuaren enuntziatioak zein zirkunstantzian duen zentzua adieraziko du E2 enuntziatu parentetikoak. Hau da, E2 enuntziatuak bermatu nahi du E1 enuntziatuaren interpretazioa ahalik eta esanguratsuena edo pertinenteena izan dadin.

Maiz, E2 baldintza perpausaren forma duen enuntziatu parentetikoak interpretazioa prozesatzeko gida izan nahi du; izan ere norentzakoarentzat E1 oinarritzko enuntziatua interpretatzeko zein den testuinguru egokia zehaztuko du.

- Badakit, noski, nekez ikasiko dituela irakurleak “irakurletasunak” eskatzen dizkion zerak — **letraduna baldin bada, euskaraz letradunentzat egiten direnak irakurtzeko behar dituenak, erdarazkoak irakurtzen dituen eran**—, inork irakasten ez badizkio. (LIB II: 137-138).

E1 oinarritzko enuntziatuan agertzen den “irakurletasunak eskatzen dizkion **zerak**” zer diren ulertzeko, E2 enuntziatu parentetikoak testuinguru egokia zehaztu du eta horrela interpretazioa gidatu edo bideratu.

Beude, beraz, bere horretan, enuntziatu parentetikoaren komunikazio edo diskurtso-eginkizuna aztertzean helduko baitiogu.

#### 6.5.2.3.4. Birformulazio eginkizuna duten baldintza perpausak

Goian aipatu dugu E2 enuntziatu parentetikoko baldintza perpausak ez duela E1 oinarritzko enuntziatuarekiko baldintza-ondorio harremana bideratzen. Gehiago dela E1 oinarritzko enuntziatuan egindako baieztapena zehaztu, edo birformulatzeko bitarteko. Egiazta dezagun corpuseko adibideetan oinarrituz:

- Ehunka dira liburu honetan, **milaka ez badira**, hitz berriak, zaharraren zaharrez ahaztuak edo bazterren baten ezagunak badira euskal literaturan inoiz sarrerarik izan ez dutenak: (LIB I: 116).
- Badakizue nondik nora datorkigun gehienok, **guztiok ez bada**, ikusi dugun teatro lan hau. (LIB II: 81).
- Hizkuntzaren gorputz ustelkorrari, **ustelduari ez bada**, lotuak daudelako, hura pizten duen izpiritu biziari jaramonik egin gabe. (LIB II: 118).

Adibide horiek garbi erakusten digute baldintza forma hartzen duten enuntziatu parentetikoek ez dutela E1 oinarritzko enuntziatua baldintzatzen. E1 oinarritzko enuntziatuak igorritako mezuaren atal bat dela zehaztu, ñabartu, zuzendu, edo hitz batean esateko, birformulatzen duena.

Era honetako enuntziatu parentetikoaren eginkizuna hurrengo atalean aztergai izango dugunez, beude bere horretan.

Garbi dago, ordea, birformulazioa maiz esatariak duen jarrerarekin uztartuta dagoela eta enuntziatio mailaren eta modalizazio mailaren arteko marra maiz aski ez dela batere gardena, nahiz eta bereizketa hori egitea metodologiaren aldetik ongi datorkigun. Ikusi bestela ondorengo adibidea. Modalizazio mailako baldintza perpausei atea irekitzeko erabiliko duguna:

- Oraingo hau, egilearen izenik ez badarama ere, Xebe Peña tolosarrarena da eta esango nuke bere mailan gaur aurki daitekeen beste edozein bezain ona dela, **hobea ez bada**. (LIB I.143).

Adibide horretan ikus daitekeenez, esatariak E1 enuntziatuko informazio atal bat birformulatu egin du, baina birformulatzeko esatariak berak duen jarrera agerian utziz.

#### 6.5.2.3.5. Modalizazio mailako baldintza perpausak

- Senarrak, gizon saiatua izan arren, **saiaturik bada**, ezin xehetasun guztiak gogoan eduki. (ZIN: 128).

Honelakoak oso adibide gutxi ditugun arren, garbi ikus daiteke E2 enuntziatu parentetikoak, nahiz eta *ba-* baldintzaren marka formala eraman, ez duela E1 enuntziatuarekin baldintza-ondorio harremana bideratzen. Esatariak esan duenari buruz duen iritzia edo jarrera adierazteko darabilela.

Corpuseko adibideek erakutsi digute C tipotzat jo dugun baldintza perpausaren forma duen enuntziatu parentetikoak, nahiz eta sintaktikoki *ba-* (batzuetan *balidin* lokailuaz indarturik) aurritzia eraman, ez duela, baldintzadun perpausekin gertatu ohi denez, E1 enuntziatuarekin baldintza-ondorioa harremana bideratzen. Eta ondorioz, ez gaudela baldintzadun perpaus konplexu baten aurrean.

*Ba-* aurritzia sintaktikoa izan arren, enuntziatu independentea izaten jarraitzen du eta igortzen duen informazioa makroegitura batean kokatuko genuke, dela enuntziatio mailan, dela modalizazio mailan. Ondorioz, E1 eta E2 (bai sintaktikoki eta bai semantikoki) bi enuntziatu independente edo bere eskuko dira, nahiz eta sintaxi mailako marka formala eraman, eta horixe da, hain zuzen, enuntziatu parentetikotzat jotzeko arrazoia.

### 6.5.3. Kontzesio perpausak

#### 6.5.3.1. FORMA ALDETIKO EZAUGARRITZEA

Baldintza perpaus bidez eratutakoak aztertuko ditugu:

- Oroi zaite ordea euskara ez dela, **maiz —oker baldin bada ere—uste dugun bezala**, gure etxeke hizkera, ez gure herrikoa, ezta gure eskualdekoa ere. (LIB I: 39).

*Ba-* baldintzazkoarekin osatuta daude, eta morfologikoki eta sintaktikoki baldintza perpaustzat jo badaitezke ere, duten balio eta erabileragatik kontzesio perpausen artean kokatu ditugu. Hauek *ba-* aurrizkiaz gain, beti *ere* lokailua eraman ohi dute:

Baldintza perpausekin ere, orain arteko gramatiketan esan ohi den bezala, badute kontzesio perpausek harremana. Baldintza perpauseko protasiari ERE lokailua gehitzen badiogu, esaterako, eta apodosiaren kontrakoa eman, kontzesio perpaus bihurtuko dugu. (EGLU VI: 276).

- Kalean, plazaren erdian, dugu azkenik aspaldiko amets bat: euskal ikasbide osoa —**izenez, lehendabiziko mailakoa bada ere**—, diskoak dituela lagun ikaslearen belarria ohitzeko. (LIB II: 72).

- Eta zenbait pezetaren truke —**askotxo badira ere**— bihotzeko pake hori ateratzea gutxi al da? (ZIN: 124).

*Ere* lokailua, dirudienez, kontzesio perpaus gehien ezaugarri komunetako bat da, eta kontzesio-balioa adierazteko duen garrantzia uzten du agerian horrek. Corpuseko adibide guztiak aditz jokatudun perpausak dira.

*Baldin* lokailua ere erabil daiteke era honetako kontzesio perpausetan:

- Oroi zaite ordea euskara ez dela, maiz —**oker baldin bada ere**— uste dugun bezala, gure etxeke hizkera, ez gure herrikoa, ezte gure eskualdekoa ere. (LIB I: 39).

## 6.5.3.2. E1 ETA E2 ENUNTZIATUEN ARTEKO LOTURA

Baldintza perpausekin gertatzen zen bezala, berebizikoa iruditzen zaigu E2 enuntziatu parentetikoaren eta E1 oinarrizko enuntziatuaren artean zer-nolako harreman logiko-semanticoa dagoen adieraztea. Azken batean, kontzesiozko perpaus hauetan ere marka sintaktiko formala agerian baitute.

Oro har, kontzesio perpausetan bi erlazio mota nagusitzen dira:

A.- Batetik, inferentzia-erlazio bat, presuposizio bat: aldez aurretik gizartean oro har edo hitzunaren mundu ikuspegiari ontzat emandako presuposizioa:  $p$  proposiziotik  $q$  proposizioa ondorioztatzen dugu, eta  $p'$ -tik, berriz  $q'$ .

B.- Bestetik, aurkaritza erlazio bat ere bada. Oposizio edo oztopo bat adierazten du mendeko perpausak, perpaus nagusian adierazitakoari egiten zaion oztopo bat.

Kontzesio perpausaren eta perpaus nagusiaren artean goian zehazturiko harremana gauzatzen bada ere, ikusiko dugu corpuseko adibideetan ez dela horrelakorik gertatzen. Hau da, E2 perpaus kontzesioaren eta E1 oinarrizko enuntziatuaren artean ez dagoela goian zehazturiko inplikaziozko harremanik.

- Hauxe esango dut, **auzokoen sailean sartuko banaiz ere**, Valverderen edergarriak Lizardiren poemaren gogaide jator direla. (LIB I: 65).

“Auzokoen sailean sartzea” ez litzateke E1 oinarrizko enuntziatuan baieztatu duenaren oztopoa; ez behintzat, E1 oinarrizko enuntziatuan adierazitakoari egiten zaion oztopoa. Gehiago litzateke, izatekotan, gizartean edo esatariaren mundu ikuskeran ontzat ematen ez den zerbait egitea. Alegia, “auzokoen sailean sartzea” ez da, agian, gizartean (edo esatariaren beraren mundu ikuskeran) ontzat ematen den zerbait, baina hala ere sartu egingo da. Ezin esan, ordea, E1 oinarrizko enuntziatuan baieztatutakoarekin zuzeneko kontrasterik dagoenik.

- Kanean, plazaren erdian, dugu azkenik aspaldiko amets bat: euskal ikasbide osoa —**izenez, lehendabiziko mailakoa bada ere**—, diskoak dituela lagun ikaslearen belarria ohitzeko. (LIB II: 72).

Adibide horretan ez dugu uste kontzesio perpaus menderatuak E1 oinarrizko enuntziatuan baieztatutakoari oposiziorik edo oztoporik jartzen dionik. Esango genuke bien artean ez dagoela horrelako harreman zuzenik.

- “Horien madria nor den” ikusi duenak daki, eta ikusi duenak, **ongi aditu baditu ere**, ez du gehienetan gogo handirik izango besteri esateko. (ZIN: 141).

Hor ere ez dugu kontrakotasun edo aurkaritzako loturarik ikusten. “Zerbait ongi aditzeak” ez du zertan besteri esateko gogoia piztu; ezin esan dezakegu suposatutako ondorioa —presuposizioa— hautsi eta kontrako zerbait aditzera eman denik.

Gure ustez, eta corpuseko adibideak dira horren lekuko, baldintza perpausetan bereizi dugun bezala, kontzesio perpausaren forma duen E2 enuntziatu parentetikoek ez dute E1 oinarrizko enuntziatuarekin harreman semantiko-logikorik gauzatzen. Hau da, ez dio E1 oinarrizko enuntziatuari oztopo bat jarriko. E2 enuntziatu parentetikoan ematen den informazioak esatearen ekintzari berari (enuntziazio mailari) nahiz esatariak esan duen horri buruz duen uste-iritzien munduari (modalizazio mailari) eragingo dio bereziki.

(...) también es frecuente encontrar usos concesivos en que el acontecimiento expresado en la cláusula subordinada no se relaciona con el expresado en la principal, sino más bien con las circunstancias de la enunciación, de un modo análogo a como lo hacen ciertos elementos adverbiales externos a la predicación verbal denominados “atributos oracionales” o “modificadores oracionales”.(García 1999:3824).

- Gauza jakina da, **sarri esaten ez bada ere**, Larzabal deritzan langile purrukatu hori zabar xamarra dela, zabarra eta utzia, bere teatro lanak inprentara eramaten. (LIB II: 130).

- Egilearen hizkeraz, **asko esan badaiteke ere**, ez dago luzaroan mintzatu beharrik. (LIB II: 61).

Esatearen ekintzari edo enuntziazio zirkunstantziei ez ezik, maiz, esatariak E1 oinarrizko enuntziatuan esan duenarekiko jarrera, iritzia tartekatzeko balio dio kontzesio perpausaren forma hartzen duten enuntziatu parentetikoek. Holakoetan, oso ohikoa dira *uste izan* bezalako aditzak:

- Poz eta negar-iturria, **uste ez badugu ere**, bihotz-barrenean dago, eta barrengo hutsa ez dezake kanpoko ezerk bete, ez han eta ez hemen. (ZIN: 152).

E1 oinarrizko enuntziatuan dioena, “ez dugu hala denik uste, baina hala da” bezala parafrasea dezakegu. Hor, esatariak esan duenari buruz duen jarrera, iritzia agerian jartzen da. Beste hainbeste ondorengoetan ere:

- Oroi zaite ordea euskara ez dela, **maiz —oker baldin bada ere— uste dugun bezala**, gure etxeko hizkera, ez gure herrikoa, ezta gure eskualdekoa ere. (LIB I: 39).

- Eta zenbait pezetaren truke **—askotxo badira ere—** bihotzeko pake hori ateratzea gutxi al da? (ZIN: 124).

Azkenengo adibide honetan ere “zenbait pezeta” sintagma iruzkintzen du, edota horri buruz duen iritzia eta jarrera azaleratzen. Beraz, “askotxo badira ere” kontzesio perpausetik ezin ondoriozta dezakegu E1 oinarrizko enuntziatuak dakarrena, E1 oinarrizko enuntziatuari oztopoa jarri baino gehiago, modalizazio mailako iruzkina tartekatzeko bide ematen dio esatariari.

Beraz, kontzesio perpausak, marka formala daraman mendeko perpausak, oposizio edo oztopo bat adierazten du, baina ez E1 oinarrizko enuntziatuan adierazitakoari egiten zaion oztopo bat. Ez baitu, kontzesio perpaus horrek suposatzen duen ondorioari edo presuposizioari (berez E1 oinarrizko enuntziatuan agertu beharko zukeenari) kontra egiten. Enuntziazio nahiz modalizazio-mailako iruzkinak tartekatzeko bide da.

#### 6.5.4. Perpaus erlatiboak

Badira corpusean erlatibozko mendeko perpausaren forma hartzen duten enuntziatu parentetikoak, batzuek izen espliziturik gabekoak dira eta besteak *bezala* aditzondoa dute ardatz.

##### 6.5.4.1. IZEN ESPLIZITURIK GABEKOAK

Honako adibide motaz dihardugu:

- Etxeberri Ziburukoak maiz darabil kristau, oraingo gipuzkoar baten antzera, baita, **are harrigarriagoa dena**, dongea ere. (LIB II: 67).
  
- Ongiegi ohituak gauzka, etsirik gaude zernahi gauza eman dezakeela euskara garbian eta, **okerrago dena**, nolnahi eta batere nekerik gabe eman dezakeela. (LIB I: 75).
  
- Ongi daki beti gaiaren berri, zein ere baita, Fagoagak; mendean du burutik burura, eta ezin hobeki daki, **zailago dena**, dakiena arin eta dotore esaten. (LIB II: 146).
  
- Ez genukeen aipatuko ere, egileari —**edozeini gerta lekiokena**— itzuri zaion hutsa dela uste bagenu. (LIB I: 57).
  
- Eta “tierra Caliente” hori, jakina, ez dago inon edo, **berdin dena**, nonnahi dago, Río Grandetik behera izanez gero. (LIB I: 52).
  
- Geronen txilborrari begira egon ohi garenok izan dugu aldi batez, liburu honi eskerrak, kanpoalde zabaletan gere burua hegoairatzeko egokiera eta horretarako, **hori da gehien balio duena**, ez dugu beste hizkuntzetara jo beharrik izan. (LIB II: 103).
  
- Ongi daki beti gaiaren berri, zein ere baita, Fagoagak; mendean du burutik burura, eta ezin hobeki daki, **zailago dena**, dakiena arin eta dotore esaten. (LIB II: 146).

Perpaus erlatiboaren forma hartzen badute ere, ez dute E1 oinarrizko enuntziatuan aurrekaririk edo behintzat erreferentzia egiten dioten izen espliziturik, eta beraz, E1 eta E2 enuntziatuen artean ez da mendekotasun-harremanik gauzatuko. Ondorioz, honelako erlatibozko perpausaren funtzioa ez da aurrekaria ezaugarritzea, azaltzea edo zehaztea izango; modalizazio-mailako informazioa txertatzeko eginkizuna izango dute, oro har. Baina ez hori bakarrik.

Garbi dago goiko adibide horietan perpaus erlatiboaren forma hartzen duen enuntziatu parentetikoak baduela iragarle funtzioa: esatariarentzat zein informaziok duen garrantzia iragarriko digu; zein informaziori arreta eman beharko geniokeen iragarriko digu, informazio berria delako eta esatariak berariaz garrantzia eman dion informazioa delako, gainera.

Atzerakargak arintzeko ez ezik, baliabide egokia gertatzen zaio informazioa antolatu eta norentzakoaren begiak informazio zehatz batera zuzenduz, informazio jakin bati arreta



ipintzeko. Alde horretatik esaten dugu egitura parentetikoek informazio-egituraren hari nagusian ere eragiten dutela.

Erlatibozko egiturekin erdiesten duen efektua, “hau” erakusle kataforikoarekin lortzen duen berbera da: ondoren etorriko den informazioa iragarri egingo du, baina erakusleak ez bezala, modalizatuz eta esatariaren galbahetik iragaziz. Beraz, modalizazio-mailan nahiz argudio- eta informazio-egituran eragiten dute zuzen-zuzenean, eta, beraz, makroegiturako informazioa enuntziatuan bertan txertatzeko baliabidea da.

#### 6.5.4.2. BEZALA ADITZONDOAREKIN SORTZEN DIRENAK

Badia, azkenik, corpusean *bezala* aditzondoarekin sortzen diren enuntziatu parentetikoak:

- Euskal eleberrigileetan gehiena —**xuberotarrek dioten bezala**— dugun Anabitarte jauna agertu zaigu berriz ere plazara, zori onean, Usauri eta Donostia-ren hurren hirugarrena den irakurgai honekin. (LIB I: 105).
- Beste alde onik ez balute ere, lekuko diren aldetik duten indarra eta balioa ez die inork ukatuko: “Ondo gogoan artu bear genduke” — **berak dioen bezala**— “bertso auek ez dirala txantxetakoak izan...” (LIB II: 96).
- Horrexegatik, labur eta berandu hobe denez gero inoiz ez baino, zilegi izan bekit behar nukeen baino lasterrago —**abespeluan edo, antzinako bizkaitarrek esango zuketan bezala**— neure egitekoak egitea. (LIB II: 121).

Formaz, *bezala* aditzondoaren ezkerrean agertzen den perpaus erlatiboa huts-hutsik agertzen da; hau da, izen espliziturik eta determinatzailezik gabe.

Gure corpusean gehienak *esan* aditzarekin osatuta daude eta adieraren aldetik, badirudi moduzkoa dela, baina E1 oinarritzko enuntziatuaren gauzatzeko moduarekin zerikusi gutxi duena. Esatearen ekintzari egiten dio erreferentzia, besteren esateko modua da aditzera ematen duena; enuntziazio-mailari dagokion informazioa, bete-betean.

Beraz, E2 enuntziatu parentetikoak ez da E1en moduzko mendeko perpausa, gehiago da enuntziazio mailako informazioa txertatzeko baliabide.

Enuntziatu parentetikoaren tipologia formala zehaztu dugularik, analisi formalarekin amaitzeko, E2 enuntziatuak oinarrizkoa non hausten duen aztertzea geratzen zaigu; hau da, enuntziatu parentetikoaren distribuzioa aztertzea.

## 7. ENUNTZIATU PARENTETIKOEN ANALISI FORMALA II: KOKAPENA EDO INTEGRAZIO-GUNEA

### 7.1. SARRERA

Atal honetan, distribuzioa izango dugu mintzagai, bai alderdirik formalena kontuan hartuz; hau da, E2k E1 oinarrizko enuntziatuaren egitura sintaktikoan hartzen duen lekuari edo posizioari erreparatuz, eta baita alderdi komunikatibo-diskurtsiboari erreparatuz ere; diskurtsoaren barneko informazioaren distribuzioak duen egitura komunikatiboari erreparatuz, alegia. Azken hau zubi bilakatuko zaigu alderdi formaletik diskurtso-alderdi baterako jauzia egiteko.

Behin baino gehiagotan esan (eta egiaztatu) izan da euskarak hitzen ordena nahiko librea duela.

Ongi aski dakigun bezala, eta gramatika gehienetan aipatua izan da kontu hau, hitz ordena aski librea dugu euskaraz. Bi arrazoiengatik gertatzen da halaxe:

- 1) Osagaien zeregin gramatikala (edo gramatika funtzioa) ez baitu tokiak markatzen.
- 2) Eginkizun edo funtzio horiei ez baitagokie toki finko ezin aldatuzkorik.

Horiek horrela izanik, maiz esana izan den bezala, ordenak beste gisa batez garrantzia badu, eta delako orden askatasun horrek, ondorioz, bere mugak ere bai. (EGLU II: 22).

Bai, ordena librea dugu eginkizun edo funtzio gramatikalak baizik ez baditugu kontuan hartzen; ez da librea, ordea, baldin eta perpausaren bigarren egitura edo “mintzagai egitura” bezala ezagutzen duguna aintzat hartzen badugu.

Euskaltzaindiaren gramatikaren arabera (EGLU II: 25), izan ere, perpausetan bi egitura agertzen zaizkigu bata bestearen gainean: *funtzio egitura* eta *mintzagai egitura*. Lehendabizikoak funtzio sintaktikoarekin du zerikusia, kasuek ematen diguten informazioarekin, alegia. Bigarrena, aitzitik, *informazio klasean* edo *hizketaren unibertsoan* oinarrizten da.

Beraz, badirudi perpausaren barneko sintagmen antolaketa ere, hots, hitzen ordena, helburu eta funtzio ezberdinen arabera gauzatzen dela. Hau da, hitzen ordena horiek funtzio-egitura markatzeko helburuarekin erabil daitezke, edota, informazio ezaguna (mintzagaia) eta berria (irazkina) esapide batean estrategikoki ordenatzeko.

Eusebio Osari jarraituz (1990: 109), esan dezakegu hizkuntzak bi funtzio dituela predikatuaren eta honen argumentuen arteko erlazio lineala markatzerakoan: pragmatikarena eta gramatikarena, hain zuzen.

Beste hitz batzuez esanik, hizkuntza batek bere hitz-ordenaketa pragmatikoki erabil dezake, informazio ezaguna eta berria esapide batean estrategikoki ordenatzeko eta adierazteko; edota ordena hori gramatikalki erabil dezake, hau da, erlazio gramatikalak, erreakzioak, komunztadura, subordinazioa, koordinazioa eta abar markatzeko.

Guk ere atal honetan bi egiturei erreparatuko diegu: lehendabizi, egitura gramatikalari; hots, enuntziatu parentetikoak zein funtzio gramatikalen ondoren, aurretik edo zein funtzioaren tartean kokatzen dituen aztertuko dugu. Jarraian, datu horiek interpretatzeko, berriz, egitura komunikatiboa hartuko dugu aintzat; hau da, enuntziatuaren barnean zein informazio-motaren ondoren tartekatzen dituen enuntziatu parentetikoak. Bestela esan, predikatu eta argumentuen edo osagarrien arteko ordena-modua kontuan izanik, informazio ezagunaren eta berriaren edo informazio tematikoaren eta errematikoaren arteko segida horretan, zein gune hartzen duten enuntziatu parentetikoek aztertzen saiatuko gara.

Izan ere, Mitxelenaren prosan enuntziatu parentetikoek hartzen duten kokagunea aztertzeari oso interesgarri irizten diogu, bere prosa ulertzeko ez ezik kokagune bat edo beste bat hautatzeak komunikazioaren ikuspegitik sortzen dituen ondorioak ere ezberdinak izan daitezkeelako. Hau da, azterketa hau egiteak eskain diezaguke gisa honetako enuntziatu parentetikoak era egokian aditzera emateko argia eta norabidea; komunikatu nahi dena era egokian, euskal eran alegia, emateko lagunduko digun norabidea. Gerta daiteke, izan ere, horrelako enuntziatuak neurririk gabe eta nahi den tokian tartekatuta, testuaren komunikagarritasunari mesede baino kalte gehiago egitea:

Kontuz erabili ezean, koma arteko zatia tartekatzeak izan ditzake bere alde txarrak ere: esaldia luzatzea, zatikatzea, korapilatzea, iluntzea...Baliabide hori erabiltzen jakin egin

behar da, neurriz eta kontuz, helburua<sup>173</sup> zein den ahaztu gabe: lehenengo irakurraldian ulertzeko moduko idazkia sortzea. (Zubimendi & Esnal 1993: 227).

## 7.2. ENUNTZIATU PARENTETIKOEN INTEGRAZIO-GUNEA: DISTRIBUZIOA

Atal honetan, goian esan dugun bezala, lehenik alderdirik formalenari erreparatuko diogu; hau da, enuntziatu parentetikoak oinarrizko enuntziatuan hartzen duen lekuari edo posizioari (zein funtzio gramatikalen ondoren edo tartean agertzen den), nolabait joerak zeintzuk diren begiztatu eta ahal bada, eta ahal denean, modu sistematikoan errepikatzen diren haiekin erregelak edo erregularitateak formulatzeko. Zenbaitetan erregularitate-ahulezia kontuan izanik, joerak markatzea aski izango da. Gerta daiteke, bada, aztergai ditugun enuntziatu parentetiko guzti-guztien sistematizazioa zail gertatzea. Baina, hala ere, uste dugu agertuko ditugun datuak aski adierazgarriak izango direla Mitxelenak enuntziatu parentetikoak oinarrizko enuntziatuan integratzeko, nagusiki, zein gunee hautatzen dituen jakiteko; hau da, joerak markatzeko.

Besterik da, oso besterik gainera, joera horiek zergatik eta zertarako hautatu dituen argudiatzea; hots, komunikazio-estrategia bati erantzuten dioten edo horien kokagunea estrategikoki hautatu ote duen argudiatzea. Horretan ere, axaletik bada ere, saiaturako gara. Eta zubi bilakatuko zaigu alderdi formaletik diskurtso-alderdi baterako jauzia egiteko.

Distribuzioaren azterketa honetan, enuntziatu parentetikoetan nabarmendutako “tipoak” beren bakarrean, bereizirik, aztertuko ditugu, sistematizatzeko errazago izango delakoan, eta tipoek kokaguneari dagokionez izan ditzaketen ezberdintasunak (egon baleude, behintzat) ageriago jar daitezkeelakoan.

Beraz, azterketan, E2 enuntziatuak E1 oinarrizko enuntziatuko zein egitura sintaktiko hausten duen, edo, behintzat, E1 enuntziatuan zein leku edo gunee hartzen duen hartuko dugu kontuan. Eta integrazio-gunea kontuan izanik, hiru maila bereiziko ditugu, Baque Millet-ek (1999) proposatzen dituen hiru maila:

- Lehen maila: enuntziatu parentetikoa E1 enuntziatuan kokatzen da
- Bigarren maila: E2 enuntziatu batean: parentetiko baten barruko parentetikoa
- Hirugarren maila: E3 intzidental / intziso baten barruan

---

<sup>173</sup>Helburua hori bada. Gure ustez, ordea, neurriz, tentuz eta behar den tokian ibiltzen jakitea ezinbestekoa da esatariaren xedea (edo idaztera bultzatu duen helburua) berak nahi bezala norentzakoak uler edo adi dezan; izan ere, enuntziatu parentetikoaren izateko arrazoia komunikatzeko estrategia edo bitarteko izatea da, eta ez norentzako bidean galaraztea.

Guk, hasieratik bertatik, corpuseko ia adibide guztiek lehen mailako integrazio-gradua dutela baieztatuko dugu; hau da, oinarrizko enuntziatuaren barnean kokatzen dela enuntziatu parentetikoa. Oso bakanak dira bigarren eta hirugarren mailari dagozkionak, baina ikus ditzagun adibide batzuk:

Parentetikoaren barneko parentetikoa: [E2´]

- Egiatzko lirika, **izen horren duin dena alegia [E2] [—ez baita aski hitzak lerro lerro banatzea—]** [E2´], da noski giza mintzoak menderatu duen gailurrik garaiena. (LIB I: 63).

- Ez dago, beraz, **eta nahi eta nahiez ezin zegokeen, azken urteotan [E2] [—eta bat edo beste lehendanik—]** [E2´] gure Gipuzkoa honetan agertu diren berrikerien alde. (LIB I: 130).

- Xenpelarren bertsoetan zenbait huts, **edo huts diruditenak behintzat [E2] [—eta barka, oker banabil—]** [E2´], ageri dira. (LIB I: 1907).

Intzidental/intziso baten barneko parentetikoa: [E2´´]

- Behingoz bederen, zinemak, **ixpilu [(zeren ixpilu gero? [E2])] izateari utzirik [E2´´]**, amets-ateak iriki dizkigu, Albert Lamorisse´ri eskerrak. (ZIN: 170).

Geienek (%98) bada, lehen mailako integrazio-gunea dute. Eta oinarrizko enuntziatuan duten kokapenean, formalki, lau gune nagusi bereiziko ditugu:

1- Oinarrizko enuntziatuaren hasiera-hasieran.

2- Oinarrizko enuntziatuaren amaieran<sup>174</sup>

3- Oinarrizko enuntziatuaren egitura sintaktikoa hautsiaz:

a. - Oinarrizko enuntziatua perpaus nagusiak edo lokabeak osatzen duenean, perpaus nagusiaren barnean kokatuko da

b. - Maila bereko bi perpausen arteko mugan

<sup>174</sup>Amaierako posizioa diogunean E1 oinarrizko enuntziatuaren bukaera daukagu buruan; hau da, puntuaren justu aurreko atala. Jakin badakigu, halere, E2 enuntziatu parentetikoaren ondoren E3 enuntziatu berri bat hasiko balitz, enuntziatu honen ezker aldeko ertza ere bukaerako posizioa litzatekeela. E1 oinarrizko enuntziatua, ordea, perpaus koordinatu batek osatzen duenean (eta E2 perpaus koordinatu horren tartean kokatzen denean), perpaus koordinatu horretako bigarren proposizioaren ezker aldeko ertza ez dugu bukaeratzat edo amaierako posiziotzat joko. Holakoetan, E2 enuntziatu parentetikoa maila bereko bi perpausen artean kokatzen dela ondorioztatuko dugu.

- c. - Perpaus nagusiaren eta mendekoaren artean
- d. - Mendeko perpausaren barnean.

Kokapenaren edo integrazio-gunearen azterketa hau errazteko, bada, corpuseko parentetiko-tipoak bereizirik aztertuko ditugu.

### 7.2.1. A Tipoa

Analisi sintaktikoan egindako bereizketa kontuan izanik, lau sail nagusi nabarmendu ditugu<sup>175</sup> tipo honen barnean. Distribuzioari edo kokapenari dagokionez, ordea, batera aztertuko ditugu, nahiz eta euren artean kokapen-mailako desberdintasunik balego, berariaz aipatuko genukeen.

Distribuzioaren atal honetan, gainera, E1 oinarrizko enuntziatuak duen forma sintaktikoa erabiliko dugu ardatz kokagune nagusiak zehazteko:

- Oinarrizko enuntziatuaren amaieran
- Oinarrizko enuntziatu lokabearen egitura sintaktikoa hautsiaz
- Maila bereko perpausen artean
- Perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko mugan
- Mendeko perpausaren barnean

#### 7.2.1.1. E1 OINARRIZKO ENUNTZIATUAREN AMAIERAN

Jokabide ezberdina ikusten dugu A tipoko azpisailen artean:

<b>E1 oinarrizko enuntziatuaren bukaeran</b>	<b>Zenbat adibide</b>	<b>% Zenbat</b>
Modalitate-aldaketa duten E2 parentetikoak	9	%45
Estilo zuzena	0	%0
Aditza daramatenak	2	%10
Aditzik gabekoak	9	%45
<b>Guztira</b>	20	%100

<sup>175</sup>Honako sail hauek egin ditugu: modalitate aldaketa, estilo zuzena, aditza daramana eta aditzik gabekoa.

Datuek erakusten digutenez, *estilo zuzenari* dagokion sailak ez du kokagune hau hartzen eta aditza daramatenetan, berriz, bi adibide soilik aurkitu ditugu eta biak inoren hitzetan edo aipuetan agertzen dira:

- Ei tékna toû Abraám este, tà érga toû Abraám epoieíte (**Vulgatak *facite* dio**). (LIB I: 118).

- Emakume bat an ikusi nun birao-izenez kunkuin..., ta eskuan urrezko ontzi bat iguingarriz kunkuin (Ap. 17, 3-4): kunkuin “repleto” (blei, alegia) Zuberoan erabiltzen omen da (**Larrasquetek Kunkuña “(arbre) surchargè de fruits” dakar**). (LIB I: 114).

Modalitate-aldaketa dutenek eta aditzik gabeko enuntziatu parentetikoek, aitzitik, bederatzina adibide behintzat badituzte kokagune honetan:

- “Akamenon Mukene-urira elduala, bere emazte Klitaimnestere ta Aigista´k asmo batez erail zuten”. (**Zenbat Agamenon ziren heldu ahala hiltzeko?**). (LIB I: 69-70).

Kokagune hau hautatzen duten gehienek, ordea, sail berezia osatzen dute: filmen itzulpenak dira, oro har:

- Frantziatik film bat behinpehin agertu zaigu, hamar bizitzako etxea etxola artean bezain nabarmena: Jacques Tati´k burutik burura betetzen duen Mon oncle (“**Mi tío**”). (ZIN: 191).

Corpuseko adibiderik gehienak, jarraian ikusiko dugun bezala, E1 oinarritzko enuntziatuaren egitura sintaktikoa hautsiaz tartekatzen<sup>176</sup> ditu.

## 7.2.1.2. E1 OINARRIZKO ENUNTZIATUAREN EGITURA SINTAKTIKOA HAUTSIAZ

### 7.2.1.2.1. E1 formalki perpaus nagusiak osatzen duenean

Oro har, tartekatzerakoan, E2 enuntziatu parentetikoak E1 oinarritzko enuntziatuaren egitura sintaktikoa hautsi egin ohi du. Holakoetan lau integrazio-gune atzeman ditugu:

---

<sup>176</sup>*Tartekiak* izendapena ere hortik letorke: tartean kokatzen direlako.

- 1- Mintzagaia+[E2]+fokua+aditza
- 2- “Fokua+aditza” bikotearen ondoren
- 3- Fokuaren eta aditzaren artean
- 4- Sintagmaren egitura sintaktikoa hautsiaz<sup>177</sup>:

## 1. MINTZAGAIA+[E2]+FOKUA+ADITZA

Datuak ondorengo taula honetan laburbilduko ditugu:

E2-k E1en egitura sintaktikoa hautsi egingo du	Zenbat adibide	% Zenbat
<b>A. Subjektua topikalizatuz, subjektuaren eta predikatuaren arteko mugan</b>	<b>63</b>	<b>%71.59</b>
<i>Subjektua+[E2]+adberbio<sup>178</sup>-osagarria+aditza</i>	47	%53.4
- Subjektua+ [E2]+ moduzko adberbioa	15	%17.04
- Subjektua+[E2]+ ezezko aditzondo+aditza	18	%20.45
- Subjektua+[E2]+ba-+aditza	6	%6.81
- Subjektua+[E2]+bestelako adberbio-osagarria	8	%9.09
<i>Subjektua+[E2]+osagarri predikatiboa+aditza</i>	7	%7.95
<i>Subjektua+[E2]+osagarri zuzena+aditza</i>	9	%10.22
<b>B. Adberbio-osagarria topikalizatuz</b>	<b>19</b>	<b>%21.59</b>
<i>Adberbio-osagarria+[E2]+ adberbio-osagarria+aditza</i>	7	%7.95
- Adberbio-osagarria+[E2]+ba-+aditza	1	%1.13
- Adberbio-osagarria+ [E2]+ez+aditza	0	%0
- Adberbio-osagarria+[E2]+moduzko aditzondo/adizlaguna+aditza	6	%6.81
<i>Adberbio-osagarria+[E2]+osagarri zuzena+aditza</i>	8	%9.09
<i>Adberbio-osagarria+[E2]+zehar osagarria+aditza</i>	1	%1.13
<i>Adberbio-osagarria+[E2]+subjektua+zehar osagarria+aditza</i>	2	%2.27
<i>Adberbio-osagarria+[E2]+subjektua+aditza</i>	1	%1.13
<b>C. Osagarri zuzena topikalizatuz</b>	<b>4</b>	<b>%4.54</b>
<b>D. Zehar osagarria (IS NORI) topikalizatuz</b>	<b>2</b>	<b>%2.27</b>
IS NORI+[E2]+osagarri zuzena+aditza	2	%2.27
<b>GUZTIRA</b>	<b>88</b>	<b>%100</b>

<sup>177</sup>Hautsura hauek gramatikaren ikuspegitik oso zuzenak ez direnez gero (edo bitxiak behintzat gertatzen direnez gero), aparteko taula batean ikusiko ditugu.

<sup>178</sup>*Adberbioa* adigaia *EGLUI*-ek darabilen zentzuan ulertzen dugu; hau da, aditzari laguntzen berezko zeregina duen klase bezala, eta bertan, *adizlagunak* —bai Izen sintagma deklinatuaren bidez, bai postposizioaren bidez sortuak— eta *aditzondoak* bilduko dira, baita mendeko esaldi batez osatuak ere.



Goiko datuei erreparatuz gero ohartuko gara E2 enuntziatu parentetikoek E1 oinarritzko enuntziatuan hartzen duten lekua ugaria ez ezik era askotakoa ere badela. Halarik ere, joera edo isuri nagusiak aipatuko ditugu, maiz, kokapena ez delako arbitrarioa, estrategikoa baizik:

Mintzagaia hanpatuz, mintzagaiaren eta irazkinaren edo multzo errematikoaren artean kokatuko du maiz enuntziatu parentetikoa. Mintzagai hori, funtzio-egiturari dagokionez, batzuetan *subjektuak* osatuko du, eta bestetan, *osagarri zuzenak*, *zehar osagarriak* nahiz *adberbio-osagarriak*.

#### A) SUBJEKTUA TOPIKALIZATUZ, SUBJEKTUAREN ETA PREDIKATUAREN ARTEKO MUGAN

Enuntziatu parentetikoa, gehienetan, mintzagaia topikalizatu edo hanpatzeko erabiliko du, eta horrela subjektuaren eta aditzaren artean geldiunea egiteko aukera eskainiko dio.

Ezkerraldekoa topikalizatzean, ordea, jarraian datorren predikazioaren edo multzo errematikoaren buruan (ia) behin ere ez du aditza paratuko. *Ia behin ere ez* diogu, izan ere, corpuseko zazpi adibidetan (%10) enuntziatu parentetikoa justu aditzaren aurrez aurreko posizioan paratuko du:

- Haren gogo erne, beratx eta irrikor, bare eta aldartetsuak —**iguzki eta laino, eta hodei nabarrak zeruan barrena lasterka**— *opa zuen* bizi eta heriotza hortxe dago, hitz gutxitan emana, “Urte giro”-n azken hogeitasei bertsotan, eta ez luke inork, burniz eta tupikiz ondu nahi balu ere, irudi sendoagorik sortuko. (LIB I: 66).

- Bertsolarien laguntzailea eta ezagutarazle gailena dugun Aita Zavalak —**betiko Aita Zavalak**— *bildu ditu* liburuxka polit honetan azken hamar urte honetako bertso-paperak. (LIB II: 134).

- “Azkontegia” hitza (“**saetera**”) *ikusit dut* 44 garren orrialdean. (LIB II: 140).

Oso gogoan hartzekoa da zazpi adibide horietan guztietan aditz perifrastikoa darabilela, inoiz ez trinkoa. Izan ere, itxuraz, aditz flexioa perpaus buruan edo multzo errematikoaren buruan jartzeko debekuak ez die aditz guztiei berdin eragiten. Osari jarraituz (1990: 154-155), aditz trinkoek zorrotzago bete dute debeku hori.

Beraz, corpusak erakusten digunez, Mitxelenak enuntziatu parentetikoa mintzagaiaren eta irazkinaren edo eremu errematikoaren artean kokatzean, oso kontuan izan ohi du aditz jokatu soila esapide-buruan —eta kasu honetan multzo errematikoaren buruan— jartzeko debekua. (Osa 1990: 155-157, Oyharçabal 1985: 59).

Badakigu, halere, euskararen erabileraren historian debeku hori ez dela hain sendoa izan —edo agian, hain sendo ibili ez dena debeku horrekiko errespetua izan da—. Nola ahaztu, izan ere, B. Hídalgo (1997b: 16) autore klasikoak<sup>179</sup> aztertu ostean ateratako emaitza estatistikoak?

	<b>kopurua</b>	<b>%</b>
Esaldi kopurua:	4488	100%
<b>Aditza hasieran:</b>	<b>640</b>	<b>14,3</b>
Aditza tartean:	2586	57,6
Aditza amaieran:	1262	28,1

Datu eta azterketa horiek aski esanguratsuak badira ere, oraingo honetan Mitxelenaren jokabidea zaigu interesatzen. Mitxelenak, enuntziatu parentetikoa mintzagaiaren eta irazkinaren edo eremu errematikoaren artean kokatuko du oro har.

Nola lortuko du multzo errematikoaren buruan aditza ez jartzea? Justu aditzaren aurretik (aditzaren ezker alde hurbilean) fokua paratuko du, edo behintzat, Osari jarraituz (1990: 127 eta hur.), fokuari posizioa betetzeko eta perpausa markatu gabe betetzeko gaitasun berezkoena duten funtzioak jarriko ditu:

Osak (1990: 126 eta hur.) osagarri ezberdinen joerak aztertzean, baieztatzen du osagarrien artean badela fokutasunarekiko lehentasun bat, nolabaiteko graduazioa eman daitekeela:

Esateko moduan garelakoan nago, moduzko elementu adberbialak, elementu predikatiboak eta osagarri zuzenak direla gai, fokuari posizioan perpausa testugintzara makurtu gabe joateko. (Osa 1990: 130).

<sup>179</sup> Hídalgo, besteak beste, Axular, Mogel, J.B. Agirre, Duvoisin eta J. Etxepare aztertu zituen. Egia da horiekin batera ahozko zenbait testigantza eta gaur eguneko zenbait idatzi ere izan zituela azterkizun.

**Subjektua+[E2]+fokua<sup>180</sup>+aditza****1. Subjektua+[E2]+adberbio-osagarria+aditza**

Adberbio-osagarriaren arabera, hiru azpisail bereizi ditugu, galdegaia edo fokua zerk osatzen duen gardenago ikusiko delakoan:

**1.1. Subjektua+[E2]+moduzko adberbioa**

- *Aipatu ditudan xehetasunok, berriz diot*, eta beste anitzek, GARBIRO<sup>181</sup> azaltzen digute Olabide ez zela zinetako eta benetako euskaraz ari, saio euskara edo euskara experimental batean baino. (LIB I: 117).

- *Robert Aldrich'ek —Venezian bigarren Zilarrezko Lehoia eraman du aurten—* HAINBESTEAN moldatzen ditu irudi moldakaitzak, ofiziale ikasiari dagokionez. (ZIN: 142-143).

- *Argentinako zokoren baten harrapatu duten “Toro Moreno”-ren ibilerek —irabazle parregarri eta galtzaile zintzo—* BIZIRO kezkatzen gaituzte. (ZIN: 167).

**1.2. Subjektua+[E2]+ezezko adberbioa**

- *Euskararen hango egoera —bagenuen<sup>182</sup> susmo—* EZ da pozgarria, baina nabari da egileari guri bezain penagarri zaiola. (LIB II: 156).

- *Gerok ere —zerbait jakiteko zaleturik geunden aspaldian—* EZ ditugu gogo gaiztoz ikusi. (ZIN: 160).

- *Baina kopet harro ez direnek (ez garenek?)* EZ dute damu izango ikustera joana. (ZIN: 124).

---

<sup>180</sup>Bada adibide bat subjektuaren eta fokuari artean izan ordez, subjektuaren eta aditzaren artean kokatzen dena:

- Mujikak, **egia da**, gogorarazten digu alde zurretik Juan Ramonen hura: “ No creo, en ningún caso, en un arte para la mayoría”. (LIB II:141).

<sup>181</sup>Denek aditzaren jiran pibotatzen dutenez, aditza ez dugu markatuko, baina identifikazioa argiagoa izan dadin, letrakera lodiz paratuko dugu enuntziatu parentetikoa eta fokua, berriz, letra larriz idatziko dugu; etzanez berriz jokoan dagoen beste osagarria.

<sup>182</sup>Hemen ere garbi ikusten da Mitxelenak ez duela, oro har aditza multzo errematikoaren buruan jartzen. Ba-proklitikoaren eginkizuna baiezkotasuna markatzea edo aditza aktualizatzea izan liteke.

### 1.3. Subjektua+[E2]+baiezko adberbioa

- *Hitzek, jakina da*, BAdute beste zerbaite, adimenez nolazpait besarka daitekeen adieraz gainera, adimenak ikusten ez badu ere bihotzak uki dezakeena: beren giroa, usaia, lurrina eta sentimen kutsua. (LIB I: 117).

- *Bestelako "paisajeak" nahiago dituenak —gehienon haragia argala da eta—*, BAdu ikusteko Sofia Lorenen dantza bat, A, gure Prai Bartolome bizi balitz! (ZIN: 191).

- *Duela zenbait urte —ez hainbeste horratik— bestea ikusi genuenok —Norma Sheare eta Leslie Howard´ena eta John Barrymore´ren Mercutio—* BAdugu halere zalantza bat. (ZIN: 155).

### 1.4. Subjektua+[E2]+adizlaguna

- *Ayaldek (lau arrasto beltz lirain paper zurian)* BESTE HIZKUNTZA EDER BATETARA itzuli ditu irudi maiteak. (LIB I: 103).

- *Ameriketako berriak —"Sonata del Estío" alde batera utzirik— "TIRANO BANDERAS"-EN* eman zizkigun. (LIB I: 52).

## 2. Subjektua+ (lokailua)+[E2]+ osagarri predikatiboa+aditza

- *Neroni* ere, **aitortzen dut**, HORIETAKOA nauzu. (ZIN: 123).

- *Hizkera berriz —horretaz ausarkiago mintza gintezke—* EDERRA ETA UGARIA [da]. (LIB I: 47).

- *Cesarek dioenez, akitanoak —gure senideak—* TREBEAK omen ziren zula-eta bete-lanetan. (LIB II: 46).

## 3. Subjektua+ (lokailua)+[E2]+osagarri zuzena+aditza

- *Dan O´Herlihy´k —lehen aldiz aditzen dut bere izena—* PRESTUTASUN BEREZIA eman dio jantzi duen pertsonari. (ZIN: 153).

- Euskal giroz beterik dauden Barojaren liburuak aipatuz gero, Zalacain-ek izaten ditu aldekoak, *beste batzuek*, **gorri antxeko horietakoak edo**, *LA LEYENDA DE JUAN DE ALZATE* daukate Barojaren euskal testamentutzat. (LIB I: 127).

- *Besteak —ez dakit guztiak ohartu diren—* GAI EZAGUNA du, eta gertatua gainera: Tombstone 'ko inguruan Earp eta Crantondarrek tiroka egin zuten kontu-garbitzea. (ZIN: 190).

Beraz, pausaldiak markatzeko egoki datorkio enuntziatu parentetikoa. Subjektuaren eta predikatuaren artean pausaldia adierazteko puntuazio-markak (koma, esaterako) erabiltzea desegokia den arren (edo delako), enuntziatu parentetikoez baliatzen da pausaldi hori markatzeko, eta horrek irakurketa ez ezik ulerkera ere erraztu egiten du. (Esnal 2008: 43; Zubimendi & Esnal 1993).

Subjektuaren eta aditzaren artean komak —koma bat baino gehiago, alegia— idaztekotan, izan dadila koma-tartekoren bat adierazteko. (Zubimendi & Esnal 1993: 219).

Baina subjektua topikalizatzeko ez ezik, maiz adberbio-osagarria bera ere topikalizatu edo hanpatzeko bitarteko gertatzen da enuntziatu parentetikoa. Holakoetan, mintzagai eginkizunean dagoen adberbioa perpausaren hasierara bidaltzen du eta justu ondoren enuntziatu parentetikoa kokatzen.

## B) ADBERBIO-OSAGARRIA TOPIKALIZATUZ

Goiko komunikazio-estrategia bera atzematen dugu: goian, enuntziatu parentetikoak mintzagai hanpatu subjektua bihurtzen zuen bezala, oraingoan adberbioa da mintzagai hanpatu gisa aurreratuko duena. Eta jarraian ez da ohikoa izango aditza multzo errematikoaren buru-buruan agertzea.

### **Adberbio-osagarria+[E2]+fokua+aditza**

Joera arrunta hori bada ere, hiru adibidetan enuntziatu parentetikoa aditzaren justu aurreko posizioan paratzen du, multzo errematikoaren buruan aditza jar ezin daitekeelako araua hautsiaz:

- Azkenik —**last, but not least**—, *aipa dezadan* lehen argitaraldian hainbeste bide irakurria dugun Orixeren hitzaurrea. (LIB I: 66).

Gainerakoetan, ordea, enuntziatu parentetikoaren ondoren multzo errematikoa fokuariekin hasiko da:

## 1. Adberbio-osagarria+[E2]+adberbio-osagarria+aditza

### 1.1. Adberbio-osagarria+[E2]+(moduzko) adberbioa+aditza

- *Espaini aldean* behintzat —**bestetan ez dakit**— BEKAITZEZ begiratzen diote gai hauetan hasten denari, elizgizona ez baldin bada, eta ez dut, ahal baldin badut, neure burua auzitegitan ikusteko gogorik. (LIB I: 96).

- *Hemen aipatu nuen Orbelak-en ondoren* (**ikus iazko EGAN, 99-100 orrialdeetan**), LASTER irten da Arantzubia-ren bigarren olerki liburua. (LIB I: 143).

### 1.2. Adberbio-osagarria+[E2]+ba+aditza

- *Espainiako zineman*, **gauza jakina da**, BAdira bi gazte zerbait egin nahi luketeenak, dirua irabazteaz gainera. (ZIN: 191).

## 2. Adberbio-osagarria+[E2]+osagarri zuzena+aditza

- “Lehenago, *gure Euskalerrian* —**dio egileak**—, FEDEA gorde izan da...” (LIB II: 88).

## C) OSAGARRI ZUZENA TOPIKALIZATUZ

- Aurrenekoari (ekera-ri alegia) dagokionez, norknahi daki egutera askozaz zabalduagoa dagoela gure artean ekera baino: *hau* (**Azkuiek du berriz hitza**) *EZKIOGAN erabiltzen omen dute*. (LIB I:115).

## D) ZEHAR OSAGARRIA TOPIKALIZATUZ

Oraingo honetan, zehar osagarria edo IS NORI da enuntziatu parentetikoak topikalizatuko duena, eta oraingoan ere multzo errematikoaren buruan ez du aditza paratuko fokua baizik:

### **IS NORI+[E2]+fokua+aditza**

- Ba ote dakigu, horratik, zer-nolakoa den hobetu beharrean ari garen hizkera? *Neri* behintzat — **ikasiagoengatik ez naiz ari**— DEUS ERE EZ DAKIDALA iruditzen zait Ibar-en itzulpen hau irakurri ondoren. (LIB I: 103).

Honenbestez, Mitxelenaren prosan —eta azterkizun ditugun adibideak dira horren lekuko— joera nabarmen bat atzematen da: aditza enuntziatu parentetikoaren ondoren kokatzen da, baina ez justu segidan; multzo errematikoaren bigarren elementu gisa (fokuaren ondoren) baizik.

Subjektuaren eta predikatuaren artean enuntziatu parentetikoa tartekatzeo Mitxelenak zuen joera horretaz Esnal eta Zubimendi ere ohartu ziren:

Sarritan erabiltzen zuen Mitxelenak baliabide hau. Maiz baliatzen zen koma arteko zatiz, sujetuaren eta predikatuaren arteko pausaldia egiteko (bakanago marra artekoz eta parentesi artekoz). Maiz eta baliabide-mota ugari erabiliz: sujetua errepikatzea, deikia, iritzi-tartekatzea, hitz indargarriak... (Zubimendi & Esnal 1993: 223).

Gure ustez ere —eta horixe da corpuseko datuek erakusten digutena—, subjektuaren eta predikatuaren arteko kokagune hori maiz erabiltzen du Mitxelenak enuntziatu parentetikoa kokatzeko. Baina kategoria gramatikalek baino areago, mintzagai-galdegai jokoaren arauak gobernatzen edo baldintzatzen dutela dirudi enuntziatu parentetikoaren kokagune hori.

Mintzagaia, goiko adibide horietan guztietan, beti aurretik doala dirudi eta enuntziatu parentetikoek hanpatu edo markatu egiten dute. Hortik aurrera, aditzaren aurreko posizioa dela dirudi guztiz behartua den bakarra.

Enuntziatu parentetikoaren kokalekua, ordea, ez da soilik mintzagaiaren eta irazkinaren edo multzo errematikoaren arteko tarte horretara mugatzen, nahiz eta, datuek erakusten

digutenez, adibiderik gehienak mota horretakoak izan. Jarraian adieraziko ditugun adibideen kokaguneez ondorengo komunikazio-hurrenkerari erantzuten diote:

Mintzagaiaz gain, “Fokua eta aditza” bikoteaz osatutako multzo errematikoa enuntziatu parentetikoaren aurretik kokatzen du: bien artean batzuetan ez dago tarterik eta beste batzuetan egon daitezkeen sintagmek beste mintzagai batzuen itxura hartzen dute.

Mintzagaia+ fokua+aditza+ (perpau abar)+[E2]+ (perpau abar)+ esaldi abar

## 2. “FOKUA+ADITZA” BIKOTEAREN ONDOREN

E2-k E1en egitura sintaktikoa hautsi egingo du	Zenbat adibide	%zenbat
<b>2. “Fokua+aditza” bikotearen ondoren</b>		
Fokua+aditza+subjektua+[E2]/ fokua+aditza+[E2]+subjektua	12	%36.36
Fokua+aditza+Osagarri zuzena+[E2]/ Fokua+aditza+[E2]+osagarri zuzena	3	%9.09
Fokua+aditza+[E2]+osagarri predikatiboa / fokua+aditza+osagarri predikatiboa+[E2]	9	%27.27
Fokua+aditza+adberbio-osagarria+[E2]/fokua+aditza+[E2]+adberbio-osagarria	9	%27.27
<b>Guztira</b>	33	%100

Goiko datuak osa ditzagun corpuseko adibideren batzuk aldatuz.

### Fokua+aditza+(lokailua)+subjektua+[E2]+ /Fokua+aditza+[E2]+subjektua

- HEMEN ditugu —**laster, arin, bildurgarri**— *munduari hainbeste zihoakion ordu larri bateko egiazko borrokalariak*, “Achilles”, “Ajax”, “Exeter” eta itsaso hondargabeak ordu t’erdirako amets-bizitza eman dion “Admiral Graf Spee”-ren errainu iluna. (ZIN: 177).

- ZENBAIT BERRIREKIN agertu zaigu *Oskillaso* —**honela deitu beharko dugu egilea, bere izena salatzea debekatua daukagunez gero**— “Mutiko kaletarrak Bizkaian” izen ondokoa daraman liburu azalez eta mamiz ikusgarri eta irakurgarri honetan. (LIB II: 92).

- BAduge *denok*, **esaten digu Cayattek**, bai gerok ere, zer ikusirik auzi horretan. (ZIN: 138-139)

- Erlji Joan bertan ASKOZAZ GEHIAGO zor zion (**berak aitortua**) *Gandhik* Kristautasunari, edozein europar nabarmenek budismoari baino. (LIB I: 141).



### **(Subjektua)+fokua+aditza+ [E2]+osagarri predikatiboa**

- Gregorio Arrue EZ *da*, **jakina dago**, liburu honen egilea. Itzultzailea izan zen beti haren lana: erdaratik euskarara eta euskaratik erdarara. (LIB II: 43).
- Hizkuntza bat ikasi behar edo nahi duenarentzat, gramatika EZ *da* —**hori behar luke behintzat izan**— *lasterbide bat* besterik, igo behar duen aldapa latza menderatzeko eskeintzen zaion laguntza eta erraztasuna. (LIB II: 62).
- Horrexek, gauza ezerez horrek, gidatzen du idazle eta hiztun trebea hitzak hautatzean eta HORIXE *da* —**saio hizkera batean, baina ez benetako hizkuntzan**— *antolatzailearen erabaki hutsez bazter eta deusezta daitekeena*. (LIB I: 117).

### **Fokua+aditza+osagarri predikatiboa+[E2]+**

- EZ zen berez hiztun trebe horietakoa —**Jainkoaren dohaia izaten da hori**—, jakintza gizona zen izatez, ezer bazen. (LIB I: 120).
- Honako liburu hau EZ *da* haren zatitxo bat besterik —**zein zati, izenak aski adierazten du**—, Aingeru Irigarayk ederki itzulia eta osatua.

### **Fokua+aditza+adberbio-osagarria+[E2]+**

- HAMAIKA NOBELA *bidali dituzte* sariketara —**hamaika esan nahi dut, hamar eta bat gehiago**—, itzuliak eta asmatuak. (LIB I: 49).

### **Fokua+aditza+osagarri zuzena+[E2]+**

- “ZANPATUTA zeukan *Leturia*” —**irakurtzen dugu azken liburuaren hitzurrean**— “aukeratubear”aren larritasunak. (LIB I: 137).
- “BERAK eraman du bertsoarritza” —**dio aita Iturriak**— “periodiku eta radioetara” (LIB I: 144).

**Fokua+aditza+[E2]+adberbio-osagarria/fokua+aditza+adberbio-osagarria+[E2]+(beste osagairen bat)**

- Patxi Urrutikoaraunabeitiaren haur eta mutikotango ibilirak gogoz iraurtzen dira burutik burura. GOGOZAGO [irakurtzen dira] noski —**eta nola ez?**— *zenbait lekutan* beste batzuetan baino. (LIB II: 93).
- ARRISKUBIDE izan daiteke, **zioen**, *euskal gaietan ongia eta gaizkia ezagutzeko adinbat jakituri ez dutenentzat*. (LIB I: 121).
- Zenbait nahasteren beharrea gara noski euskal literaturan, eta BIDE HONETATIK gabiltza— **baterra edo bestera**— *aspaldi honetan*. (LIB II: 94).

### **3. FOKUA+[E2]+ADITZA**

Badira corpusean adibide batzuk (10 adibide, E1 lokabean tartekatzen direnen %6.89) fokua eta aditzaren artean kokaturik agertzen direnak. Jokabide hori joeratzat har ez badaiteke ere, aipatzea behintzat garrantzizkotzat jotzen dugu. Agian, bil zitezkeen adberbio-osagarria topikalizaturik tartekatzen den enuntziatu parentetikoaren sailean, baina, gure ustez, oraingo honetan adberbio-osagarri hori bera da informazio berriena edo fokua:

- Gaia ez zaio egileari ahitu oraindik ez agortu. Ea, bada, NOIZ —**berak nahiz bestek**—*eskeintzen digun* beste horrenbeste Bizkaiko argizagiolaz, Nafarroakoaz edo beste edozein Euskalerritakoaz. (LIB II: 145).

Berez ez ote litzateke “noiz eskeintzen digun” inolako etenik gabe<sup>183</sup> irakurri behar? Hau da, ez ote du galdegaiaren eta aditzaren bloke hori hausten? Arazo honen berri eman zigun Garziak ere (1997).

---

<sup>183</sup>Hidalgok (1997b) esango digu euskal aditzaren joera galdegilearen segidan paratzea dela:

“Euskal aditzaren ohiko joera beti ondore justutik erantsita agertzeko galdegileari”(1997b: 105).

Horren [galdegai den sintagma aditzaren aurrean joateko eta harekin batera entonazio jarraitu batez irakurtzeko posibilitatea izateko] kasu berezi batek ematen dizkigu, hain zuzen, buru-hausterik handienak: zer egin galdegai den sintagmaren ondoren haren aposizio bat badator? (Garzia 1997: 154).

Ez du, ordea, aposizioa soilik gogoan; beheraxeago esango digu, aposizioez gain “gure parentesien, eta beste zenbait prozedura grafikoren” (Garzia 1997: 156), arazoa ere badela.

Beste horrenbeste esan dezakegu ondorengoez ere:

- Esate baterako, jainko-jainkosak H-Z JOSITAKO HIZKERA BATEAN (**ai, behar den lekuan baleude!**) *mintzatzen dira*, eta gizon hilkorrak halako Bizkai-usai arin bat darion beste batean. (LIB I: 68-69).

- Nerau hizkuntzak irakasten **ZERBAIT —ez gehiegi beharbada— aritua naiz** eta asko ezagutzen ditut eginkizun horretan langile trebeak direnak. (LIB II: 63).

- Esate baterako, Elizan irakasleak eta ikasleak bezala, MAILA BATEAN **—goikoan— daude** medikuak eta bestean **—gero eta beheragokoan—** eriak. (ZIN: 149).

- Badaki gertakariak bat besteari josten eta, hori aski ez dela, **EDERKI —arin zorrotz eta biziro— ematen ditu aditzera**. (LIB I: 60).

Adibide horiek erakusten digute fokuak justu aditzaren aurreko posizioa behar duelako debeku hori (nahiz eta oso eztabaidatua izan) ez duela errespetatzen; izan ere, enuntziatu parentetikoak fokuak eta aditzak osatzen duen bloke hori hautsi egingo du.

Haustura hori bezala, bitxiak behintzat gertatzen dira ondorengo sintagma barneko hausturak ere. Joera orokortzat ezin jo daitezke, baina aipagarriak bederen badira.

#### 4. SINTAGMAREN EGITURA SINTAKTIKOA HAUTSIAZ

Sintagmaren egitura hausten duten adibideak dira ziurrenik, gramatikaren ikuspegitik begiratuta behintzat, gogorren edo berezien gertatzen zaizkigunak eta horrexegatik beragatik merezi dute aipatzea.

E2-k E1en egitura sintaktikoa hautsi egingo du	Zenbat adibide	%zenbat
<b>1. Izenlagunaren eta izenaren egitura hautsiaz</b>		
Izlag+[E2+marka]+izena: E2k izenlagunaren marka darama	6	%42.85
Izlag+[E2-marka]+izena: E2k ez darama izenlagunaren marka	0	%0
<b>2. Izena+izenondo+[E2]+erakuslea</b>	1	%7.14
<b>3. Izena+[E2]+izond</b>	5	%35.71
<b>4. postposizio-sintagmak hautsiaz</b>	2	%14.28
<b>Guztira</b>	14	%100

Datuek erakusten digutenez, holako hausturak 14 adibidetan ikusi ditugu (E1 lokabeen tartekatzen direnen %9.65).

### Izlag+[E2+marka]+izena

- Egonaldi hori, laburkkoa izanagatik, aski eta gehiegi izan du “llaneroen”—**hango zabaldietako gizon-emakumeen**— *hizkera* ikasi eta barra-barra egiteko. (LIB I: 51).
- Maiz erabili izan dituen Donostia zaharreko —**atzoko eta herenegungo**— oroitzapenak darabiltza, berriz, herri-min atseginez igortzirikako oroitzapen gozoak. (LIB II: 134).
- Ez dut behar baino gehiago esan uste, ikusle gehientsuen —**goiko eta behekoen**—gogoko izan dela esatearekin. (ZIN: 135).

Goiko adibide horiek, bada, ez dira erabateko haustura, edo behintzat, E2k morfologiazko marka bera izateak haustura hori leundu egiten du. A tipoari dagokionez, ez dugu aurkitu marka morfologikorik gabe izenlaguna eta izena hausten duen adibiderik.

Bitxiagoa gertatu zaizkigu, esaterako, enuntziatu parentetikoa postposizio-egitura hautsiaz tartekatzea edo izenondoaren eta erakuslearen artean kokatzea:

### Izena+izond+[E2]+erakuslea

- Cecil B de Milleren tankera ezagunean moldatu dute *show aberats, ugari eta luze (hiru orduz gorako) hau*. (ZIN: 181).

**Izena+[E2]+izond**

- Eta aldamenekoaren ohiuak belarrian ditugula, nola amets egin, “Cinemascope” —“**mundua sortu zenez gero ikusi den gauzarik miragarriena**”— berriarekin ere? (ZIN: 129).

- Horretaz mintzatu zitzaigun “*The Champion*” (“**El ídolo de barro**”<sup>184</sup>) *gogor* hartan eta horretaz mintzatzeko zaigu orain. (ZIN: 167).

**Postposizio-sintagma hautsiaz**

- Ez dio axolabekeriaren pake gozoan bizi denari pake gozorik utzi nahi eta pakearen —**besteak beste**— *jabe* direnek ez diote berari ere barkatuko. (LIB II: 117).

- Nabari zaio ez dela gaia zenbaiten (**askoren edo gutxi batzuen?**) *gogoko izango* eta hala ere, edo horrexegatik beragatik, batere beldur eta kupidarik gabe azaldu nahi luke. (ZIN: 145).

Berez postposizioaren eta bere aurrekariaren arteko lotura ezin da eten eta horregatik gertatzen zaizkigu goiko kokaguneak bitxi edo harrigarri.

## 7.2.1.3. MAILA BEREKO BI PERPAUSEN ARTEAN

Goian genioen E1 oinarrizko enuntziatuaren amaieran agertzen diren enuntziatu parentetikoetan bi aukera zeudela. Batetik [E1]+[E2] egiturari jarraitzen ziona, eta bestea, [E1]+[E2]+[E3] egituratzat jo zitekeena. Azkenengo horretan, ordea, oinarrizko enuntziatua ez da E1 enuntziatura soilik mugatuko, egitura parentetikoaren ondoren, berriz, oinarrizko enuntziatuari eutsiko baitzaio, E3ri. Beraz, holakoetan, E2 enuntziatu parentetikoa oinarrizko enuntziatuaren bukaeran dagoela esatea baino hobeto legoke, agian, formazko azterketa egiten ari garenez gero, maila bereko bi perpausen artean kokatzen dela esatea.

<sup>184</sup>Kontu egin dezagun, halere, adibide hau film baten itzulpena dela eta horrelakoen kokapena are eta zurrunagoa dela; hau da, jatorrizko izenaren ondoz ondo paratzera behartuta dagoela. Horren frogatzat ikusi besterik ez dago *izena+[E2 itzulpena]+delakoak/izenekoak/deritzanak* bezalako egiturak:

- Hoen artean leku berezia merezi du eskuarki THE PRODIGAL (“**El hijo pródigo**”) *delakoak*, onena izatea bezain berezia eta nabarmena baita txarrena izatea. (ZIN:189).
- Jendeak ez bide dio egin besteri aspaldian Billy Wilder'en The Witness for the prosecution (“**Testigo de cargo**”) *deritzanari* egin dion harrera. (ZIN:189).
- Gehiago nahi zuen Ken Annakin'en ACROSS THE BRIDGE (“**Al otro lado del puente**”) *izenekoak*. (ZIN:191).

E2 maila bereko bi perpaus koordinaturen artean kokatzen da	Zenbat adibide	% Zenbat
Perpaus koordinatu kopulatiboen artean: E1+[E2]+eta+E1	21	%61.76
Perpaus koordinatu aurkaritzakoen artean: E1+[E2]+baina+ E1	13	%38.23
<b>Guztira</b>	<b>34</b>	<b>%100</b>

Pentsa daiteke koordinaziozko juntagailua enuntziatu parentetikoaren aurretik nahiz atzetik joan daitekeela. Bi aukera horiek zilegi izanik ere, A tipoko enuntziatu parentetikoaren sailean, enuntziatu parentetikoaren ondoren agertuko da beti juntagailua; nolabait oinarrizko enuntziatuari berriz eusteko eginkizuna beteko balu bazala. “Berrartze-lan” horretan, jarraian datozen adibideek erakutsiko diguten bezala, *eta* eta *baina* juntagailu-lokailuak dira maizenik erabiltzen dituenak.

### [E1]+[E2]+ *eta/baina*[E3] edota E1+[E2]+*eta/baina*+E1

- Lagunek parre egiten diote —**neskatxa ez da aldamenean harro harro erakutsi nahi izaten ditugun horietakoa**— *eta* bere ama ere, “Noiz ezkondu behar duk”-ka beti ari zitzaion ama, ez du semea ezkontzeko bidean ikusteak gehiegi alaitzen. (ZIN: 151).

- Gai aukeraz zerbait esan daiteke (**arrantzari hiru hizketaldi ematea gehiegixko dirudi**), *baina* batez ere hor agertzen diren hitz-esaerak ez dira jatorregiak, maiz aski ezta dotoreegiak ere. (LIB I: 109).

- Ez da, labur, Sinclair Lewis'en “Main Street” —**eztena ere falta zaio**—, *baina* badu guretzat gisa horretako zerbait. (ZIN: 164).

- Gertakariak kontatzen mutila izan da beti (**ez dago gure Patroi Aundia-ri begiratu besterik**) *eta* bizi eta argiro kontatzen duena euskara erraz, laster, malkarrik gabeko batean esaten du. (LIB I: 123).

Horrelako adibideak corpusean ugari dira eta horietan enuntziatu parentetikoek oinarrizko enuntziatuan (E1 eta E3 enuntziatuek osatzen dute) formalki maila bereko bi perpausen artean dute kokagunea. Bada, ordea, maila bereko bi perpausen artean izan ordez, perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko mugan kokatzen den enuntziatu parentetikorik.

## 7.2.1.4. PERPAUS NAGUSIAREN ETA MENDEKOAREN ARTEKO MUGAN

E2 enuntziatua	E1eko perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko mugan	Zenbat adibide	%zenbat
<b>1. Mendeko perpaus osagarrietan</b>		<b>9</b>	<b>%23.07</b>
Perpaus nagusia+[E2]+mendeko perpaus osagarria		9	%23.07
<b>2. Baldintza perpausetan bi aukera ditugu</b>		<b>11</b>	<b>%28.20</b>
Ondorioa+[E2]+baldintza		3	%7.69
Baldintza+[E2]+ondorioa		8	%20.51
<b>3. Perpaus kausaletan</b>		<b>15</b>	<b>%38.46</b>
Perpaus nagusia+[E2]+ mendeko perpaus kausala		8	%20.51
Perpaus kausala+[E2]+perpaus nagusia		7	%17.94
<b>4. Moduzko perpausetan</b>		<b>1</b>	<b>%2.56</b>
Perpaus nagusia+[E2]+moduzko perpausa		1	%2.56
<b>5. Kontzesio perpausetan</b>		<b>2</b>	<b>%5.12</b>
Kontzesiozkoa+[E2]+perpaus nagusia		1	%2.56
Perpaus nagusia+[E2]+kontzesio perpausa		1	%2.56
<b>6. Helburuzko perpausetan</b>		<b>1</b>	<b>%2.56</b>
Perpaus nagusia+[E2]helburuzkoa		1	%2.56
<b>Guztira<sup>185</sup></b>		<b>39</b>	<b>%100</b>

Datuek erakusten digutenez, perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko muga hori kokagune aproposa gertatzen zaio batetik pausagunea egiteko, eta bestetik (euskaraz menderakuntzaren marka formala oro har, mendekoaren bukaeran jartzen denez), perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko muga agerian jartzeko.

### 1. Perpaus nagusia+[E2]+ mendeko perpaus osagarria

- Poliki-poliki hasten da Maisu Juan ikusten —**horrelako zerbait gertatu bide zitzaion Sokratesekin jarduten zutenei**— erdi ustela *zela* zuen jakin-ustea. (LIB I: 72).

- Egia da, **aitor dezagun lehenbaitlehen**, ez dugula Atila hau gure haurtzaroko eskola-liburuetan ikusi genuen Jaunaren Zigor ikaragarri hura. (ZIN: 142).

### 2. Baldintza perpausetan

<sup>185</sup>Letrakera lodiz agertzen diren sailen baturaz mintzo gara, nahiz eta sail bakoitza xeheago adierazita egon.

## 2.1. Baldintza+[E2]+ondorioa

- Eta, hau da beltzena eta gogorrena, gertakari berbera bi aldetara entzuten *balidin badugu*—**gaurko neska-mutilek irakurtzen dituzten nobeletan edo antzinako poema epikoetan bezala edertua eta goratua, edo oraingo eta lehengo zenbait idazlek ohi duten bezain beztua eta itxuratxartua**—, alderik politena ez dela beti ezta maizenik ere, egiazkoena izaten. (ZIN: 130)

- Diren baino hamar halako ardan-degi gehiago irekiko *balira* —**ez da hau nik asmatua**—, ez lirateke hordiak hamar aldiz gehituko; etxean ditudan halako bi ohe baneuzka, ez nuke horregatik lo gehiago egingo. (ZIN: 152).

## 2.2. Ondorioa+[E2]+baldintza

- Ez duzu ireki besterik—**hasieratik, erditik nahiz azkenetik**—diodanaren egiaz zerorrek jabetu nahi *baduzu*. (LIB II: 98).

## 3. Perpaus kausaletan

### 3.1. Perpaus kausala+ [E2]+perpaus nagusia

- Halaz guztiz, beste aldekoak eta gu hizkuntza berebanean mintzatzen garenez *gero* —**zenbait huskeria gorabehera**—, ez digu guri ere on baizik egingo. (LIB I: 104).

- Gaia ahula du: ustekabeen sortua *izanik* —**ez guretzat bakarrik, baita egilearentzat ere**—, ustegabeko sortze horren ezaugarriak agerian daramatza. (LIB I: 61).

### 3.2. Perpaus nagusia+[E2]+perpaus kausala

- Liburu bakana da gure artean L.M. Mujikaren hau, euskaraz eta erdaraz egina —**erdal itzulpena aldamenean darama euskal testuak**—, bai darabilen *gaiagatik*, bai gaia darabilen *eragatik*. (LIB II: 140).



- Ez du artean zinemak horrelakorik egin, **ezta egingo ere berehalakoan**, ez *baitu* inork, askoren eta batez ere diruaren mendean dagoen mundu honetan, horretarako erarik erraz izango. (ZIN: 137).

Bada adibide bat enuntziatu parentetikoa kokatzeko koordinatuta dauden bi mendeko perpaus kausalen tartea erabiltzen duena:

### **Mendeko perpaus kausala+[E2]+ “eta”+ mendeko perpaus kausala**

- Asko gara sail hau landu behar genukeela batez ere uste dugunok. Gaurkoa delako, oraingo gizakien bihotz-adimenak ukitzeko bide erosoagorik ez dago*elako* —**horretara jotzen dugu euskaldunok ere erdaraz ari garenean**— *eta* euskara arlo horretan gutxi saiatua dugulako. (LIB I: 49).

## **4. Kontzesio perpausetan**

### **4.1. Perpaus nagusi+[E2]+ kontzesio perpausa**

- Horregatik edo, antzektokirako utzi ditu pailasokeriak —**txarlotkeriak**—, berebizikoak *badira* ere. (ZIN: 136).

### **4.2. Kontzesio perpausa+[E2]+perpaus nagusia**

- Eta atertu gabe aditzera ematen diguten irakaspén honetaz jabetu ez bagina ere —**ez digu guziori argitasun berbera eman Jainkoak:zinemagile izango ginatke bestela zinema-ikusle izan beharrean**—, astiro azaltzen digute azkenean “De rerum natura”-tik hartua dirudien hitzalditxo baten bidez. (ZIN: 147).

## **5. Perpaus nagusia+[E2]+moduzko perpausa**

- Bada ordu gure egitekoari lot gakizkion (**euskara irakastea bada, ahalik ongien eta errazen irakasteari**), hodeietatik apur batez jetxiaz. (LIB II: 49).

## 6. Perpaus nagusia+[E2]+helburuzko mendeko perpausa

- Inorengana jo beharko du batzuetan, **ea iruten dion hari berririk**, ale bakan horiek elkarrekin nolazpait ere lotzeko. (ZIN: 154).

Perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko mugan ez ezik, mendeko perpausaren bertan ere kokatu ohi ditu enuntziatu parentetikoak. Kokagune honetan interesgarria litzateke jakitea perpaus nagusiaren egitura sintaktikoa hausterakoan hautatzen zuen posizio edo leku bera hautatzen ote duen mendeko perpausaren ere.

### 7.2.1.5. MENDEKO PERPAUSAREN BARNEAN

Hona hemen, laburbilduz, datuak

E2 enuntziatua E1eko mendeko perpausaren barnean	Zenbat adibide	% Zenbat
Subjektua+[E2]+aditza/ subjektua+[E2]+fokua+aditza	9	%30
Subjektua+[E2]+fokua+aditza	19	%63.33
Osagarri zuzena+[E2]+aditza	2	%6.66
<b>Guztira</b>	30	%100

Goiko datuek erakusten dute mendeko perpausaren barnean tartekatzen dituenean ia beti subjektuaren eta fokuaeren arteko lekua hautatzen duela eta gutxiagotan subjektuaren eta aditzaren artekoa.

### Subjektua+[E2]+aditza

- *Ulysseren ibilerek* —**adierazi nahi digute ia irudi bakoitzean**—erakusten digutena hauxe da: jakinko etsaiei, Izadiaren indar itsuei alegia, gogor egitean dago gizonaren handitasuna. (ZIN: 147).

- Ataka-gaitz honetan, behinola *Eugenio d'Ors'ek* (**artean "xenius" zenak**) egin zuena egin beharko dut: neurri doi eta zehatzetara jo, usteak eta iritziak bertan behera utzirik. (LIB II: 115).

**Subjektua+[E2]+fokua+aditza**

- Aski izango omen da, diotenez, *norbaitek* —**ez dakigu nork**— BOTOI KAXKAR BAT estutzea edo urrutizkin bat eskuetan hartzea. (ZIN: 194).

- *Clark Gable'ren kaskoa* —**ai, gurearen gisara!**— GERO ETA URDINAGO *dela* ere esango nizueke, baina hori badakizue honez gero, nik bezain ongi. (ZIN: 141).

**Osagarri zuzena+[E2]+aditza**

- Ezin uka herri kantak —**zaharrenak eta berriagoak**— aukeratzeko begi eta aho gozoa izan duenik. (LIB I: 46).

Adibide horretan enuntziatu parentetikoak sortzen duen haustura bitxia bederen bada, ez baitugu leku horretan etenik espero.

Honenbestez, mendeko perpausaren barnean ere, oro har, perpaus nagusiaren barnean bereizten genituen kokaguneak dira nagusi.

Atal honekin amaitu aurretik zehaztapen edo ñabardura bat erantsi nahi genuke. Hitzen ordena aztertzeko (bai funtzio-egitura eta baita mintzagai egitura ere), bereziki (aditz jokatzuz osatutako) perpausaren egitura formala duen oinarritzko enuntziatuak gertatu zaizkigu errazen; izan ere, perpausaren ardatza aditza izanik, haren inguruan pibotatzen zuten gainerako osagaiek ere. Gero besterik zen osagai bakoitzaren aditz pibote horrekiko posizioa mintzagai/galdegai (foku) jokoaren arauak gobernatzea.

Enuntziatuak, ordea, jakin badakigu ez duela ezinbestean aditza izan behar bere barnean (eta hori garbi gelditu da enuntziatu parentetikoaren formazko osaera aztertzean ere), eta beraz, E1ek aditzik ez bazuen oso zail (eta are ezinezko) gertatzen zitzaigun enuntziatu parentetikoaren kokagunea zehaztea.

Halaz ere, aztertu ditugun adibideek erakutsi digute Mitxelenaren prosan *A tipoko* enuntziatu parentetikoak tartekatze orduan badela erregularitaterik eta modu sistematikoan errepikatzen diren gune horiek joera batzuen adierazle direla.

Joera bertsuak atzeman ote daitezke *B tipoko* enuntziatu parentetikoaren distribuzioan ere? B tipoa xehe-xehe aztertuz soilik aurkituko dugu erantzuna.

### 7.2.2. B Tipoa

*Eta* buruan daramaten enuntziatu parentetikoek Mitxelenaren prosan duten garrantzia kontuan izanik (gehien erabiltzen duen baliabidea baita), bereizirik ikusiko ditugu: batetik *eta* buruan daramaten enuntziatu parentetikoek kokagunea aztertuko dugu, eta bestetik, gainerako testu-antolatzaileak barne hartzen dituen enuntziatu parentetikoena.

#### A) ETA buruan daramaten enuntziatu parentetikoek integrazio-gunea

Oro har, E1 oinarrizko enuntziatuaren egitura sintaktikoa hautsiaz tartekatuko da enuntziatu parentetikoak, eta gutxiagotan oinarrizko enuntziatuaren bukaeran.

##### 7.2.2.1. E1 OINARRIZKO ENUNTZIATUAREN BUKAERAN

Enuntziatu parentetikoak definizioz E1 oinarrizko enuntziatuaren tartean kokatzen direla adierazi badugu ere, bada amaierako kokagunea hautatzen duenik. Egia da horrelakoak bakanak direla (zortzi adibide besterik ez ditugu aurkitu corpusean), baina bai kontuan hartzekoak.

Hobeto ikus dezagun, adibideez baliatuko gara:

- Basoan gertatutakoaren berri nahiz ez ongi jakin, zenbait gauza ikasi ditugu horratik, **eta ez nolanhikoak**. (ZIN: 130).
- Bere-berea duen bizkaieraz idatzi du, han-hemenka bildutako loreak noizean behin sakabanatuaz, **eta ez da inor damutuko**. (ZIN: 100).
- Nondik jo ongi ez dakiela somatzen dugu batzuetan, **eta ez da harrizko**. (LIB I: 128).

##### 7.2.2.2. E1-EN EGITURA SINTAKTIKOA HAUTSIAZ

Oro har esana dugu, tartekatzerakoan, E2 enuntziatu parentetikoak E1 oinarrizko enuntziatuaren egitura sintaktikoa hautsi egingo duela. Holakoetan, *A tipoa* aztertzerakoan bezalaxe, lau integrazio-gune bereiziko ditugu:

## 7.2.2.2.1. E1 Oinarrizko enuntziatua: formalki perpaus nagusia

E1 perpaus nagusia denean, honako joerak begiztatu ditugu:

- 1- Mintzagaia+[E2]+fokua+aditza
- 2- “Fokua+aditza” bikotearen ondoren
- 3- Fokuaren eta aditzaren artean
- 4- Sintagmaren egitura sintaktikoa hautsiaz

**1. MINTZAGAIA+[E2]+FOKUA+ADITZA**

E2-k E1en egitura sintaktikoa hautsi egingo du	Zenbat adibide	%zenbat
<b>1. MINTZAGAIA+[E2]+FOKUA+ADITZA</b>		
<b>A. Subjektua topikalizatuz, subjektuaren eta predikatuaren arteko mugan</b>	<b>22</b>	<b>%55</b>
<i>Subjektua+[E2]+aditza</i>	3	%7.5
<i>Subjektua+[E2]+adberbio-osagarria+aditza</i>		
- Subjektua+[E2]+ ezezko aditzondoa+aditza	4	%10
- Subjektua+[E2]+ba-+aditza	1	%2.5
- Subjektua+[E2]+moduzko aditzondoa+aditza	3	%7.5
<i>Subjektua+[E2]+predikatu-osagarria+aditza</i>	2	%5
<i>Subjektua+[E2]+osagarri zuzena edo objektua+aditza</i>	7	%17.5
Aditza+[E2]+ subjektua	2	%5
<b>B. Adberbioa topikalizatuz</b>	<b>16</b>	<b>%40</b>
Adberbio-osagarria+[E2]+aditza	2	%5
Adberbioa+[E2]+adberbio-osagarria+aditza	10	%25
Adberbioa+[E2]+osagarri zuzena+aditza	3	%7.5
Adberbioa+[E2]+zehar-osagarria+aditza	1	%2.5
<b>C. Zehar osagarria topikalizatuz</b>	<b>2</b>	<b>%5</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>40</b>	<b>%100</b>

**A) SUBJEKTUA TOPIKALIZATUZ, SUBJEKTUAREN ETA PREDIKATUAREN ARTEKO MUGAN**

*Eta* buruan daraman enuntziatu parentetikoa, gehienetan, mintzagaia topikalizatu edo hanpatzeko erabiliko du, eta horrela subjektuaren eta aditzaren artean geldiunea egiteko aukera eskainiko dio.

Ezkerraldekoa topikalizatzean, ordea, jarraian datorren predikazioaren edo multzo errematikoaren buruan (ia) behin ere ez du aditza paratuko. Goiko datuek erakusten digutenez, enuntziatu parentetikoaren ondoren multzo errematikoa aditzarekin oso gutxitan hasiko du. Hona hemen, bi adibide:

- Gisa horretako predikua, **eta luze xamarra aukeran**, *da* goian aipatu dugun Stanley Kramer'en film hau. (ZIN: 193).

- Beste hutsa teoriari dagokio, baina saioetan teoriak, **eta teoria zuzenak**, *behar du izan gidari*, sasi tartean galduko ez bagara. (LIB I: 120).

A tipoarekin gertatzen zen bezala, *eta* buruan daraman enuntziatu parentetikoa mintzagaiaren eta irazkinaren edo eremu errematikoaren artean kokatzean, oso kontuan izan ohi du aditz jokatu soila esapide-buruan —eta kasu honetan multzo errematikoaren buruan— jartzeko debekua.

Aditza multzo errematikoaren buruan ez jartzeko, justu aditzaren aurretik (aditzaren ezkerralde hurbilean) fokua paratuko du:

## **1. Subjektua+[E2]+adberbio-osagarria+aditza**

Adberbio-osagarriaren arabera, hiru azpisail bereizi ditugu, galdegaia zerk osatzen duen gardenago ikusiko delakoan:

### 1.1. Subjektua+ [E2]+ ez+aditza

- *Amerikanoen etsaiek* ere —**eta nork ez ditu begitan gutxi edo gehiago Europa zahar honetan?**— EZ dute noski nahi beste algara egin haien bizkarretik. (ZIN: 185).

- *Erkiaga lekeitiar olerkari bikaina* —**eta hemen bertan daukazuen “Illobi izengabea” izan bedi diodanaren lekuko zintzo**— EZ da esku trebez landu duen poesi barrutian mugaturik gelditu. (LIB II: 78).

## 1.2. Subjektua+[E2]+ba+aditza

- *Aita Villasante ezagutzen duenak* —**eta nork ez du ezagutzen izenez behintzat gure artean?**—  
BAdaki nola ekiten dion beti lanari, sustraiz eta funtsez, bil eta azter ditzakeenak oro bildu eta aztertu ondoren, edozein sailetan. (LIB II: 60-61).

Azken adibide hau aski esanguratsua da. Badirudi “ba” hori gramatikak behartuta darabilela, flexio soila eremu errematikoaren buruan ezarri ezinak eragindakoa. Eta kasu horretan *ba*-k aktualizatu egingo luke aditz hori, perpausaren baiezkotasuna indartu baino areago. Ontzat emango ote genuke ondorengo adibidea?

- \**Aita Villasante ezagutzen duenak* —**eta nork ez du ezagutzen izenez behintzat gure artean?**—  
*daki* nola ekiten dion beti lanari, sustraiz eta funtsez, bil eta azter ditzakeenak oro bildu eta aztertu ondoren, edozein sailetan. (LIB II: 60-61).

## 1.3. Subjektua+[E2]+moduzko adberbioa+aditza

- *Nik* —**eta barka bekit “izenorde higuigarri” honez hasten banaiz mintzatzen** —PROFETA  
BATEN GISAN ikusten dut aurrenik gure Oteiza, gure artean nola eta nondik ez dakigula —aldiz  
bizardun, aldiz okotz soil— agertu zaigun antzinako igarleen ondorengo galdu baten antzera. (LIB  
II: 117).

## 2. Subjektua+ [E2]+ predikatu-osagarria (edo atributiboa)+ aditza

- *Egilearen iritziak* —**eta norenak ez?**— OKERRAK izan daitezke hemen edo han. (LIB I: 130).

## 3. Subjektua+[E2]+ osagarri zuzena+aditza

- *Euskaraz zerbait dakienak*, **eta are zerbait ikasi duenak**, LAGUNTZAILE BIZKORRA dauka orain  
liburu argi, trinko eta ongi banatu horretan. (LIB II: 104).

- *Illunabarrak, udazkenak* —**eta gau-neguen itxuraren azpian izkutatzen zaigun heriotzeak**—  
ZIRRARA EZTI-MINGOTSA zabaltzen digute bihotzean, egunsentiak eta udaberriak ez bezala. (ZIN:  
136).

Baina subjektua topikalizatzeke ez ezik, maiz adberbio-osagarria bera ere topikalizatu edo hanpatzeko bitarteko gertatzen da enuntziatu parentetikoa. Holakoetan, mintzagai eginkizunean dagoen adberbio-osagarria perpausaren hasierara bidaltzen du eta justu ondoren enuntziatu parentetikoa kokatzen.

## B) ADBERBIO-OSAGARRIA TOPIKALIZATUZ

Goiko komunikazio-estrategia bera atzematen dugu: goian, enuntziatu parentetikoak mintzagai hanpatu subjektua bihurtzen zuen bezala, oraingoan adberbioa da mintzagai hanpatu gisa aurreratuko duena. Eta jarraian ez da ohikoa izango aditza multzo errematikoaren buru-buruan agertzea; hona hemen salbuespenak:

### **Adberbio-osagarria+[E2]+aditza**

- Jakitunek diotenez, **eta jakitunen esanak entzunbeharrekoak omen dira ezjakinonetatik urruti badabilta ere, utzi dio** oraingoan Bardem´ek apurren bat artean erakutsi nahi izaten zuen “kaligrafiari”, hots, ikusleen harrimenerako Orson Welles´en antzera egiten zituen teknika-joko dotoreei. (ZIN: 170).

- Hasieran aipatu dudan auzian buru-belarri sartu gabe ere, **eta ez daukat oraingoz horretarako gogorik ez astirik, bistan dago** Oskillasoren bi xedeak eta helburuak, euskararen batasuna eta euskal eleberriaren ona, haserre xamar dabiltzala elkarrekin. (LIB II: 93-94).

Goiko adibidean agertzen den *bistan dago* hori formula kopulatibo edo predikatibo kontsokratutzat jotzen du Hídalgo (1997b), eta esaldi hasieran nahiz multzo errematikoaren buruan kokatzen ditu:

Eta ere, beste hainbat formula kopulatibo edo predikatibo konsakratuak, esaldi hasieran emanak eta aditz ondorera bultzatzen dutenak esaldiaren predikazio nagusia: *bistan da, argi dago, egia da, kontua zen, litekeena da, baliteke, garbi zegoen, gauza segurua da, damu dut, zail(a) da, gaitz(a) da, gertatzen dena da, ongi da, hobe duzu,...* edo antz bateko beste milaka egitura. (Hídalgo 1997b:106).



Aditza multzo errematikoaren buruan joateko debekua badirudi aditz perifrastikoekin ez duela Mitxelenak hain zorrotz betetzen, edo behintzat, goiko adibideak ez zaizkigula gramatikaren aldetik okerrak iruditzen. Holakoak ere, ordea, eta kopuruari begiratu besterik ez dago, ezin esan ohikoak direnik.

Gehienetan, enuntziatu parentetikoaren ondoren multzo errematikoaren buruan fokua kokatuko du:

### 1. Adberbio-osagarria+[E2]+adberbio-osagarria+aditza

Fokuaren funtzioa betetzen duen adberbio-osagarriaren morfologiazko izaeraren arabera hiru azpisail bereiziko ditugu:

#### 1.1. Adberbio-osagarria+[E2]+ez+ aditza

- *Hemen —eta liburuaren egileari, Max Catto´ri, zor zaio noski eraberritze pozgarri hori—* EZ dira hasierako itxurak azken-aldeko egia bihurtzen. (ZIN: 169).

- *Hizkuntzaren aldetik, eta gure sailean sartzen naiz horrenbestez,* EZ da gogo gaiztoz bezala begiratzekoa, astiro eta sakon aztertzekoa baizik. (LIB II: 89).

#### 1.2. Adberbio-osagarria+[E2]+ba+aditza

- *Gero, eta egoki dator hori ere,* BAitu bi aldiz, 12garren eta 25garren ikasgaien ondotik, gramatika laburpenak ere. (LIB II: 153).

- *Horrez gainera, nolabaiteko gustoak dituztenentzat —eta ni ere horietakoa nauze—,* BADAude hemen zenbait “pasadizo” polit, “Zeamako izkean” moldatuak. (LIB II: 97).

#### 1.3. Adberbio-osagarria + [E2]+ moduzko adberbioa+aditza

- *Azkenean, eta aski dugu honekin,* AHO BATEZ aitortzen dute hamabiek gaizkile gogortua zirudiena ez dela halabeharraren jostailu errugabea baizik izan. (ZIN: 180).

- *Han-hemenka, eta hauxe da aipa dezakedan alde txar bakarra*, MOTZ agertzen dira, osatu gabe, zenbait aipamen: izenetan ere, hizkuntza arrotzetarikoetan batipat, badira zenbait oker. (LIB II: 148).

## **2. Adberbio-osagarria+[E2]+ osagarri zuzena+aditza**

- *Baina Fortebraccio della Rovere izen-deiturez jabetu den orduko, eta ez da harritzeko horien pisu-astuna nabaritzea*, ZERBAIT aldentzen da gure arlotearen barruan. (ZIN: 195).

## **3. Adberbio-osagarria+[E2]+zehar-osagarria+aditza**

- *Sarri aski, eta eskertzekoa da hori*, PLATONI BERARI utzi dio hitza egileak, eta horretan hain merezi onez entzutetsua den idazlearen prosa euskal idazleak dasta dezan bitartekorik gabe. (LIB II: 77).

### **C) ZEHAR OSAGARRIA TOPIKALIZATUZ**

Zehar osagarria edo IS NORI ere topikaliza dezake enuntziatu parentetikoak, eta oraingoan ere multzo errematikoaren buruan ez du aditza paratuko fokua baizik:

- *Oskillasoren liburua irakurri ez duenari, eta beharbada horrelako liburu lodixkoa irakurtzen hasteko beldurrak dagoenari*, ESKE BAT egingo nioke. (LIB II: 93).

Honenbestez, Mitxelenaren prosan —eta azterkizun ditugun adibideak dira horren lekuko— joera nabarmen bat atzematzen da: aditza enuntziatu parentetikoaren ondoren kokatzen du, baina ez justu segidan; multzo errematikoaren bigarren elementu gisa (fokuaren ondoren) baizik.

Joera honen aurkez aurk dugu, ordea, beste joera bat ere: enuntziatu parentetikoa “fokua+aditza” bikotearen ondoren paratzen duena.

## **2. “FOKUA+ADITZA” BIKOTEAREN ONDOREN**

Hona hemen taula:

E2-k E1en egitura sintaktikoa hautsi egingo du	Zenbat adibide	%zenbat
<b>2. “Fokua+aditza” bikotearen ondoren</b>	<b>8</b>	
Subjektua+fokua+ aditza+perpaus abar+ [E2]+esaldi abar	1	%12.5
Fokua+aditza+[E2]+ subjektua	3	%37.5
Fokua+aditza+[E2]+osagarri zuzena	1	%12.5
Fokua+aditza+lokailua+[E2]	3	%37.5
<b>Guztira</b>	<b>8</b>	<b>%100</b>

ETA buruan daraman enuntziatu parentetikoek %70ek goian aipaturiko komunikazio-egiturari eusten badiote ere, %11k aditza aurrealdean darama eta enuntziatu parentetikoak perpauseko osagarri nagusien ondoren paratuko du. Gatozen taulan adierazitakoa adibidez hornitzera:

### 1. Subjektua+fokua+aditza+ perpaus abarra+[E2]+esaldi abarra<sup>186</sup>

- *Larzabal apaiz jaunaren izena ONGI EZAGUNA* da gure artean, **eta merezi onez ezaguna**, bere teatro lanei eskerrak. (LIB II: 130).

Joera honek, Garziari jarraituz (1997), egungo euskal prosan atzematen omen den komunikazio-egitura nagusiarekin egiten du bat:

Mintzagaia ([,]) + galdegaia + Aditza + Perpaus-abarra ([,]) + Esaldi-abarra <sup>187</sup>
---

<sup>186</sup>Terminologia hau, Juan Garziaren (1997) lanetik hartu dugu eta, beraz, komeni da adigai horiek mugatzea:

**Esaldi-abar:** Bere hitzez esateko, adigai hau, mintzagai-galdegai jokotik kanpo geratzen denarentzat asmatu izen orokorra da (Garzia 1997: 174).

**Perpaus-abar:** Honen definizioa ere, hitzez hitz aldatuko dugu: “aditzaren ondoko elementu ez hain bereiztu, bere modura perpausaren joko nagusian parte-hartzaile hori izendatzeko [darabil] (...) aditzaren ondoren eta harekin nolabait bat eginik doala adierazteko”. (Garzia 1997: 174).

Adigai bera aurreraxeago “predikatugai” bezala definitzen du. Eta bai aditzak eta bai predikatugaiak ematen duen informazio garrantzitsu edo enfatizatua zein markotan ulertu behar den adieraziko digute.

Badirudi, bada, *perpaus-abarra* galdegai-marko moduko zerbait dela eta, beraz, *esaldi-abarrak* baino lotura hertsia izango duela perpauseko gainontzeko osagaiekin.

<sup>187</sup>Mintzagaiaren ondoko koma, mintzagai horrek besterekiko duen kontrastearen edo enfasiaren arabera erabakitzen omen delako jarri du parentesi artean. Galdegaiaren esparrua markatuki mugatzen du komak; komarik gabe ere posible zen, beraz, esaldiaren neutrotasun lauago batez. Edonola ere, halako mintzagai ez guztiz labur eta batez ere perpausduinak direnen kasuan, koma eramatea de normalena, enfasi berezirik ez dutenean ere.

Aurrera segitu aurretik, ordea, esan beharra daukagu formulazio hori Garziak (1997) enuntziatu parentetikoak kontuan izan gabe egiten duela eta baiezko adierazpen esaldiez soilik arituko dela; ez da bakarra, horratik, aukera metodologiko hori egiten.

## 2. Fokua+aditza+[E2]+(subjektua)

- Eta, nahiz eta bertsoak herritarrak alaitzeko eginak izan, gertakariak eta egunak eskatzen zuen neurrian, ATSEGINEZ irakurriko ditugu, **eta behin ere ez onurarik gabe**, antzinako gauzetan oraingoan iturburua bilatzen dugunok. (LIB II: 131-132).

- LIBURU ATSEGINA da aurrenik, **eta atsegina bezain erraza**, irakurle askok gogoz eta nekerik gabe irakurriko duena burutik burura. (LIB II: 71).

## 3. Subjektua+ fokua+aditza+[E2]+ (beste osagaien bat)

- *Berak BAKARRIK* daki, **eta berari entzun diogunak ere bai zerbait**, nolako neke-larriak pasa zituen harako udaldi hartan, Nafarroan gora eta Nafarroan behera galdezka zebilelarik. (LIB II: 156).

- Erramun Artola HAU BERAU da lekuko, **eta lekuko bikain**, liburutxoaren hitzaurreak gogorarazten digun bezala, 1959garrengo abuztuaren gauerdi batean Tolosako “Zeru-txikin” entzun zitekeen kantaren inguruan. (LIB II: 52).

*Fokua+aditza* bikotearen ondoren eta enuntziatu parentetikoaren aurretik behin baino gehiagotan lokailua paratu ohi du:

## 4. Fokua+aditza+lokailua+[E2]+(beste osagaien bat)

- Bergamen´ek EZ du beraz, **eta ez da hau merezimendu laburra**, ezkutaria beztu nahi izan zalduna areago edertzeko. (ZIN: 198).

- Patxi Urrutikoaraunabeitiaren haur eta mutikotango ibilerak gogoz irakurtzen dira burutik burura. GOGOZAGO [irakurtzen dira] noski —**eta nola ez?**— zenbait lekutan beste batzuetan baino. (LIB II: 97).

Badira, azkenik, corpusean adibide gutxi batzuk, joeratzat har ez badaiteke ere, aipatu behintzat aipatuko ditugunak. Adibide hauetan *fokua+aditza* bikotea bera hautsiko du enuntziatu parentetikoak.

### 3. FOKUAREN ETA ADITZAREN ARTEAN

E2-k E1-en egitura sintaktikoa hautsi egingo du	Zenbat adibide	% zenbat
<b>3. Fokuaren eta aditzaren artean</b>		
Subjektua +[E2]+aditza	3	%60
Adberbio-osagarria+ [E2]+aditza	2	%40
<b>Guztira</b>	<b>5</b>	<b>%100</b>

Hona hemen adibideak:

- Zintzotu zen gerratean eta PAKEAN —**eta oparo, ez bide baitzituen itzuli ondasun ostuak**— bizi da, beste “katu” bat katuarenak egiten hasi arte. (ZIN: 187).

- GOGOZ —**eta batzuetan parre-algaraz**— irakurtzen dira ipui guztiak, buru batetik bestera. (LIB I: 91).

Berez ez ote litzateke “pakean bizi”, nahiz “gogoz irakurri” inolako etenik gabe irakurri behar? Hau da, ez ote du galdegaiaren eta aditzaren bloke hori hausten?

Haustura hori, halere, fokua daraman marka morfologikoa enuntziatu parentetikoak ere gordetzen duenez gero, ez da hain zorrotza izango.

Azkenik, sintagmak hautsiaz tartekatzen den enuntziatu parentetikoa daukagu. Izenlagunaren eta izenaren arteko lotura hertsia ez ezik postposizio sintagma ere hausten duelako ekarriko ditugu paperera; urriak dira bere corpusean, baina urriak bezain bitxiak gertatzen zaizkigulako dakartzagu hona.

### 4. SINTAGMAREN EGITURA SINTAKTIKOA HAUTSIAZ

Sintagmaren egitura hausten duten adibideak dira ziurrenik, gramatikaren ikuspegitik begiratuta behintzat, gogorren edo bitxien gertatzen zaizkigunak eta horrexegatik beragatik merezi dute aipatzea:

E2-k E1-en egitura sintaktikoa hautsi egingo du	Zenbat adibide	%zenbat
<b>7. Izenlagunaren eta izenaren egitura hautsiaz</b>		
Izlag+[E2+marka]+izena	6	%60
Izlag+[E2-marka]+izena	1	%10
<b>8. Postposizio-sintagmak hautsiaz</b>	3	%30
<b>Guztira</b>	10	%100

#### 4.1. Izenlagunaren eta izenaren artean

Gerta daiteke izenlagun funtzioan mendeko perpausa ere egotea. Bai mendeko perpaus erlatiboaz osatutakoa, bai izen soilaz osatutakoa. *Izenlagun* deizioaren azpian bildu ditugu:

##### Izlag+ [E2]+ izena (IS NOR/NORK-en barruan)

- Maiz aipatzen dugun, **eta maizago aipatu behar genukeen**, kritiko batek eman digu geroxeago “Espainiako zinema onaren” artean egin duen aukeramena: “Historias de la radio”-rekin, “El judas”, “La mies es mucha”, “Un caballero andaluz”, eta abar. (ZIN: 145-146).
- Hizkuntza gaietan urak beren bidera itzuli direnean, Urruzunok hartu du poliki-poliki euskal literaturan zor zitzaion, **eta Altube jaunak aspaldi begiz jo zion**, lekua. (LIB II: 66).
- Hizkuntzaren aldetik, ordea, hori dugu zalantzarik gabe antzinako euskararen —**eta batez ere Bizkaikoaren**— lekukorik harrigarrietakoa eta guztietan miresgarriena ere bai, beharbada. (LIB II: 147).
- Hor dauzka orrialde horietan, egia den ala ez bere begiz ikusi nahi lukeenak, Arranondoko kale mehar, oker, aldapatsuak, itsasoaren (**eta itsagizonen**) zalapartak eta bazter guztietatik darion arrai usaia. (LIB I: 43).

##### Izlag+ [E2]+ izena (adizlagunaren barruan)

- Gaur, urteen joanak hoztu gaituelako edo, ezin genitzake Arreseren olerkiak ikusi orduko euskaltzaleen, **eta batez ere Campionen**, begiz. (LIB I: 87).

Haustura hori egin egiten du, baina haustura hori leuntzeko enuntziatu parentetikoak morfologiazko lotura izango du; hau da, aposizioaren arabera izango dira: hautsi duen E1eko izenlagunaren atzizki bera eramango du E2k. Nagusiki joera hori atzematen bada ere, bada adibide bat morfologiazko loturarik gabe ere izlag+izena egitura sintagmatikoa hautsiko duena:

- Kontu honetan haxe da neretzat penagarriena: inoiz ez direla izan gaur bezain Europaren mendeko (**eta Rusia, de Gaullek gogorarazi berria duenez, Europa da eta Amerika Europaren alaba**) gainerako lurraldeak. (LIB I: 141).

#### 4.2. Postposizio-sintagmak hautsiaz

- Agatha Christiren ipui laburraren (**eta geroxeagoko komediaren**) *gainean* eraikitako film honek ez du suspense delakoa bakarrik. (ZIN: 181).

Postposizio-sintagma berez inolako etenik gabe gauzatzen bada ere, adibide horretan Mitxelenak enuntziatu parentetikoa tartekatzen du. Egia ere da eten hori ahulagoa dela enuntziatu parentetikoak ere erreferentziakide duen hitzaren morfologiazko marka bere horretan gordetzen duelako.

Bada beste gune bat funtzio gramatikal baten ondoren ez baizik eta testu mailako lokailu baten ondoren behin eta berriz agertuko dena.

Lokailuen eta perpaus nagusiaren arteko muga ere askotan tartekatzen du enuntziatu parentetikoa. Hona, antzeman ditugun joerak adibidez horniturik:

#### 5. LOKAILUA+[E2]+ PERPAUSA

<b>E2 Lokailuaren ondoren</b>	<b>Zenbat adibide</b>	<b>% zenbat</b>
Lokailua+[E2]+aditza	2	%16.66
Lokailua+[E2]+ezezko aditzondoa+aditza	2	%16.66
Lokailua+[E2]+moduzko aditzondoa+aditza	1	%8.3
Lokailua+[E2]+ osagarri predikatiboa+aditza	1	%8.3
Lokailua+[E2]+osagarri zuzena+aditza	4	%33.3
Lokailua+[E2]+subjektua+osagarri zuzena+aditza	2	%16.66
<b>Guztira</b>	12	%100

Azpisail horiek guztiak honako honetan bil daitezke: **lokailua+[E2]+ fokua+aditza**; azken batean, fokua-ren posizioa betetzeko gaitasun berezkoena duten funtzioak dira.

### **Lokailua+[E2]+ezezko aditzondoa+aditza**

- *Horien guztien gain, eta hau da hemen dihoakigun auzia*, EZ dakit ia ezer zezenei eta zezenketari buruz. (LIB I: 92).

- *Gauden gaudenean, ordea, eta inor gutxi saiatu denez gero giro berezien begitarte aldakorra itzultzen eta irakurleari erakusten*, EZIN daiteke izan erru arina baizik, akats ezereza, Gazteluri egotzi diodana. (LIB II: 106).

### **Lokailua+[E2]+moduzko aditzondoa+aditza**

- *Baina, eta horrelakorik ez da sarri gertatzen*, ORRIALDEZ ORRIALDE irakurri nuen, eskutik utzi gabe azkeneko "A.M.D.G."-raino heldu arte. (LIB II: 99).

### **Lokailua+[E2]+ osagarri predikatiboa+aditza**

- *Halaz guztiz, eta inoren lumarik jantzi gabe*, ASKI HARRIGARRIAK dira gure mariñelen ibilerak. (LIB II: 57).

### **Lokailua+[E2]+osagarri zuzena+aditza**

- *nolanahi ere, eta beren artean dituzten berezitasun larriak gorabehera*, BIZKIAK dirudite azken hoek guztiok Olabideren aldamenean. (LIB I: 112).

Hori guztia, bada, E1oinarrizko enuntziatuak perpaus nagusiaren (edo, agian, hobe, perpaus lokabearen, ez baitu mendeko perpausik) forma sintaktikoa duenari dagokionez. Baina zer gertatzen da E1 oinarrizko enuntziatua perpaus koordinatu batek osatzen duenean edota mendeko perpausaz osatuta dagoenean? Holakoetan bi sail bereiziko ditugu: batetik, maila bereko bi perpausen artean kokatzen den enuntziatu parentetikoa, eta bestetik perpaus nagusiaren eta mendekoaren artean kokatzen dena.



## 7.2.2.3. MAILA BEREKO PERPAUSEN ARTEAN (JUNTADURAN)

Holakoetan, “E1+[E2]+eta/baina+E1” egitura izango genuke edota “E1+[E2]+eta/baina+E3” egitura, ETA eta BAINA juntagailu ez ezik lokailu ere izan baitaitezke. Hori jakinda ere, bi egiturak sail berean bilduko ditugu. Corpusean bi adibide soilik atzeman ditugu:

- Beharrezkoa zen, izan ere. Euskal nobelak ez dira asko —**eta hau bezala erdara itzuliak izanak gutxiago**— eta azkenengo argitaraldia, Durangon 1906.ean egina, ez zen erraz aurkitzen. (LIB I: 43).

- Ogia —lehorra badere—, jakitea, lasaitasuna ematen dizkigu, eskatzen ditugunean—**eta eskatu gabe ere bai inoiz edo behin**—, *baina* horren truk gero eta estuago lotzen gaitu. (ZIN: 150).

## 7.2.2.4. E2 PERPAUS NAGUSIAREN ETA MENDEKOAREN ARTEAN

Datuak taula bidez adieraziko ditugu:

E2 enuntziatua E1eko perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko mugan	Zenbat adibide	%zenbat
<b>Perpaus nagusia+[E2]+ mendeko perpaus osagarria</b>	<b>10</b>	<b>%28.57</b>
<b>Baldintza perpausetan bi aukera ditugu</b>	<b>10</b>	<b>%28.57</b>
Ondorioa+[E2]+baldintza	4	
Baldintza+[E2]ondorioa	6	
<b>Perpaus kausaletan</b>	<b>8</b>	<b>%22.85</b>
Perpaus nagusi+[E2]+ kausazko mendeko perpausa	5	
Kausazko mendeko perpausa+[E2]+perpaus nagusia	3	
<b>Denborazko perpausetan</b>	<b>3</b>	<b>%8.57</b>
Denborazko mendeko perpausa+[E2]+perpaus nagusia	2	
Perpaus nagusia+[E2]+denborazko mendeko perpausa	1	
<b>Kontzesio perpausetan</b>	<b>3</b>	<b>%8.57</b>
Kontzesiozko perpausa+ perpaus nagusia	2	
Perpaus nagusia+kontzesiozko perpausa	1	
<b>Helburuzko perpausetan</b>	<b>1</b>	<b>%2.85</b>
Perpaus nagusia+[E2]+mendeko perpaus helburuzkoa	1	
<b>Guztira</b>	<b>35</b>	<b>%100</b>

Datu horien arabera E2 enuntziatu parentetikoa perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko muga horretan tartekatzen du, eta hori ere pausaldiak markatzeko erabilera estrategikoarekin uztartuko genuke.

Izan ere, garbi dago perpaus nagusiaren ondoren (mendeko) beste bat datorrenean, bien arteko muga, maiz (ez bada bi perpaus subjektu ezberdina dutela eta justu mendeko perpausa subjektu bateraezin batez hasten), lausoa geratzen da, eta bien artean enuntziatu parentetikoa tartekatuz, pausaldiak egiteko aukeraz gain, garbi ikusiko genuke perpaus berria non hasten den.

E2 enuntziatu parentetikoaren kokaleku formalak eragin zuzena du, bada, komunikazio-eginkizunean. Horien erabilera estrategikoa da: pausaldiak egoki egiteko estrategiarekin uztarturik ikusiko ditugu.

### **1. Perpaus nagusia+ [E2]+ mendeko perpaus osagarria**

- Maiz esan ohi da, **eta okerrik gabe noski**, irakurgai irakurgarrien beharrea gaudela gure hizkuntzan. (LIB II: 59).

- Badakigu guztiok, **eta ederki azaltzen du Aita K. Iturriak bere hitzaurrean**, leku berezia irabazi duela aspaldidanik, I. Eizmendik euskal idazle eta bertsolarien artean. (LIB I: 144).

Gune hori hautatzen duenean, gainera, aditza E1 oinarritzko enuntziatuaren buruan darabil eta mendeko perpaus osagarria E2 enuntziatuaren ondorenera eramango du. Beraz, bada atzerakargak arintzeko darabilen bitartekoa ere.

### **2. Ondorioa+ [E2]+baldintza**

- Mamia behar du lirikak, **eta mami joria**, behin eta berriro irakurriko badugu. (LIB I: 60).

- Ikaskizun ugari aurki ditzakegu liburu honen orrietan, **eta aurkituko ditugu**, inoren begiko lastoaren bila ez bagabiltza. (LIB I: 94).

### **3. Baldintza+ [E2]+ ondorioa**

- Erraztasunak ezer galdu *badu* hemen edo han, **eta euskaraz tutik ez dakien ikaslea daukat gogoan**, ugaritasunak eta aberastasunak irabazi dute. (LIB II: 73).

- Horrela *balitz*, **eta bestela baldin bada barka**, beharrik gabe asmatua dirudi, gure artean *saietera* euskal hitz ezaguna baita oraindik, antzinako leiho mehar horietakoa adierazteko. (LIB II: 140).

Adibide horiek erakusten digute mendeko perpausa hasieran agertzen denean, enuntziatu parentetikoak ez ezik, maiz koma era tartekatzen duela. Aitzitik, hasieran perpaus nagusia paratzen duenean ez du komaren beharrik.

#### 4. Perpaus nagusia+ [E2]+ helburuzko perpausa

- Bi hitz esango ditut, **eta askozaz gehiago beharko lirateke**, argitaldarien lana goratzeko. (LIB I: 65).

#### 5. Perpaus nagusia + [E2]+ perpaus kausala

- Santu bakoitzaren kondairari buruz ez naiteke ezer esaten ari, **eta ez dago ezer esan beharrik**, iturri honetara jo *baitu* A. Manzisidorrek ur bila. (LIB I: 123).

- Aspaldi ez duela, kontuak hartu dizkidate —**eta, jakina, ez diot horretarako eskubiderik ukatzen hartu dizkidanari**— euskal idazle bakoitzari liburu batean opa nizkion edo ez nizkion lerroak *direla eta*. (LIB II: 83).

#### 6. Perpaus kausala + [E2]+ perpaus nagusia

- Baina Azkue eta Lhanderen hiztegian aurkitzeagatik hutsagatik —**eta horietan aurkitzen ez direnak ere badira ugari liburu honetan**—, ez du hitz batek beste edozeinek adinbat esku. (LIB I: 114).

- Neronek ikus dezakedanez —**eta ez naiz nor horrelako auzietan mintzatzeko**—, ederki tajutu du gaia, lau kapitulutan berezia, eta harira doa beti egilea, hitz alferrik gabe. (LIB II: 71).

Baldintzazkoetan bezalaxe, hasieran perpaus nagusia paratzen duenean ez du komaren (hobeto, koma baten) beharrik sentitzen; aitzitik, hasieran mendekoa paratzen duenean, enuntziatu parentetikoaz gain komaren erabilerara ere jotzen du, bi perpausen arteko muga ageriagoan utziz.

### 7. Denborazko perpausa+ [E2]+ perpaus nagusia

- Beharrak eta indarrak batera joarazten ez gaituzteino —**eta txorakeria litzateke orduan euskaldun guztiak giputzen esanera egongo direla sinestea**—, atzera begiratu behar dugu, euskalkiak are gehiago elkarrengandik bazter ez daitezten. (LIB I: 120).

- Baina Fortebraccio della Rovere izen-deiturez jabetu den *orduko*, **eta ez da harritzeko horien pisu-astuna nabaritzea**, zerbait aldentzen da gure arlotearen barruan. (ZIN: 195).

### 8. Perpaus nagusia+ [E2]+ denborazko perpausa

- Gorputz geneukan Mike Todd (**eta ez dakit hemengo Cervantes-zale porrokatuaren arao-biraoek ez ote duten horretan parterik izan**) berak eragin zuen izena bezain kostu handiko film hau aurkeztu digutenean. (ZIN: 181).

### 9. Kontzesio perpausa + [E2]+ perpaus nagusia

- Hasieran aipatu duan auzian buru-belarri sartu gabe *ere*, **eta ez daukat oraingoz horretarako gogorik ez astirik**, bistan dago Oskillasoren bi xedeak eta helburuak, euskararen batasuna eta euskal eleberraren ona, haserre xamar dabilzala elkarrekin. (LIB II: 93-94).

- Euskaraz pentsatuak eta esanak dirudite zati askok eta askok. Eta “auzo-lanean” egina delarik *ere* —**eta, esan didatenez, nork bere zatia banaka itzuli duelarik**— ez zaio gehiegi nabari batasunik ez hori. (LIB I: 84).

Enuntziatu parentetikoek hartzen duten kokagunea ez da, ordea, perpaus nagusiaren barrutira edo perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko muga horretara soilik mugatzen; nahiz eta gutxiagotan izan, mendeko perpausaren barnean ere tartekatzen ditu enuntziatu parentetikoak:

E2 enuntziatua E1eko mendeko perpausaren barnean	Zenbat adibide	%zenbat
Subjektua+[E2]+aditza	5	%38.46
Adberbio-osagarria+[E2]+aditza	5	%38.46
Izenlaguna+[E2]+izena	2	%15.38
subjektua+osagarri zuzena+[E2]+aditza	1	%7.69
<b>Guztira</b>	<b>13</b>	<b>%100</b>

Mendeko perpausaren barnean ere, oro har, perpaus nagusiaren barnean bereizten genituen kokaguneak dira nagusi. Mendeko perpaus horiek zein motatakoak diren ikusteko, adibideak paratuko ditugu:

#### 7.2.2.5. MENDEKO PERPAUSAREN BARNEAN

Subjektua+ [E2]+ aditza egitura eta adberbio-osagarria+[E2]+aditza egitura dira gehien erabiltzen dituenak:

##### 1. Subjektua+[E2]+aditza

- Soinua, **eta harekin batera hitza**, agertu zenean zineman, lehengo mutuan iraun zuen Charlotek. (ZIN: 136).

##### 2. Adberbio-osagarria+ [E2]+ aditza

- Hizkera landuan, **eta landugabetasun landuagoan**, ari garen horrenbeste euskal idazleren artean, Baroja gisako naturaltasun zailena mintzatzen zaigu Bitaño, herri inguruan ikasi zuen 25garren ikasgaien ondotik, gramatika laburpenak ere. (LIB II: 153).

Hau guztia ETA buruan daraman enuntziatu parentetikoari dagokionez. Baina distribuzio bera nabarmentzen ote da B TIPOKO gainerakoetan ere?

## B) B TIPOKO GAINERAKOAK

### 7.2.2.1. E1 OINARRIZKO ENUNTZIATUAREN BUKAERAN

Oinarrizko enuntziatuaren bukaeran kokatzen da enuntziatu parentetikoa corpuseko zazpi adibideetan. Hona hemen horien eredu pare bat adibide:

- Izan genuen Gipuzkoan ukabilkari trebe, **edo gutxienez sendo bat.** (ZIN: 166).

- Eta erraztasun hori makulurik gabe erdietsi da, **orrialde azpiko makulurik gabe, alegia.** (LIB I: 61).

Enuntziatu parentetikoak ez du, beraz, nahiz eta gehienetan hala gertatu, E1 oinarrizko enuntziatuaren egitura sintaktikoa erdiz erdi hausten. Zenbaitetan, bukaeran doaz.

### 7.2.2.2. TARTEKATZERAKOAN E1 OINARRIZKO ENUNTZIATUAREN EGITURA SINTAKTIKOA HAUTSIAZ

E1 oinarrizko enuntziatuak perpaus nagusiaren egitura formala duenean, maiz perpaus horren egitura sintaktikoa hautsi egingo du enuntziatu parentetikoak. Baina, formalki zein egituratan egin ohi du haustura? Eta mintzagai-egiturari dagokionez ba al da erregularitaterik? Zein da perpausaren barruan tartekatzen denean hartzen duen kokapena edo distribuzioa?

Galdera horiei erantzuteko *eta* buruan duten enuntziatu parentetikoak aztertzeke egin ditugun urrats berak egingo ditugu:

- 1- Mintzagaia+[E2]+fokua+aditza
- 2- “Fokua+aditza” bikotearen ondoren
- 3- Fokuaren eta aditzaren artean
- 4- Sintagmaren egitura sintaktikoa hautsiaz

## 1. MINTZAGAIA+[E2]+FOKUA+ADITZA

E2-k E1en egitura sintaktikoa hautsi egingo du	Zenbat adibide	%zenbat
<b>MINTZAGAIA+[E2]+FOKUA+ADITZA</b>		
<b>A. Subjektua topikalizatuz, subjektuaren eta predikatuaren arteko muga</b>	<b>14</b>	<b>%63.63</b>
Subjektua+[E2]+aditza	6	%27.27
<i>Subjektua+ [E2]+ adberbio-osagarria</i>		
- Subjektua+[E2]+ezezko aditzondoa+aditza	2	%9.09
- Subjektua+[E2]+ba-+aditza	2	%9.09
- Subjektua+[E2]+moduzko aditzondoa+aditza	1	%4.54
<i>Subjektua+[E2]+zehir-osagarria+aditza</i>	1	%4.54
<i>Subjektua+[E2]+osagarri zuzena+aditza</i>	2	%9.09
<b>B. Osagarri zuzena topikalizatuz</b>	<b>5</b>	<b>%22.72</b>
- ISNOR+[E2]+aditza	1	%4.54
- ISNOR+[E2]+fokua+aditza		
- ISNOR+[E2]+ISNORK+aditza	1	%4.54
- ISNOR+[E2]+adberbio-osagarria+aditza	3	%13.63
<b>C. Adberbio-osagarria topikalizatuz</b>	<b>3</b>	<b>%13.63</b>
- Adberbio-osagarria+[E2]+fokua+aditza		
- Adberbio-osagarria+[E2]+Osagarri zuzena+aditza	2	%9.09
- Adberbio-osagarria+[E2]+zenbatzailea+aditza	1	%4.54
<b>Guztira</b>	<b>22</b>	<b>%100</b>

Datuek erakusten digutenez, badira 7 adibide enuntziatu parentetikoak multzo errematikoaren buruan ez baizik eta justu aditzaren aurreko posizioan kokatzen dituenak. Joerarik ohikoena ez bada ere, horietatik hirutan aditza ez da perifrastikoa izango (hau da, posizio hori onartzeko errazena dena), trinkoa baizik:

- Ez dute atsedean eta jolas beharrik; asmo batek, sentimendu batek, **beti batek ordea**, *darabiltza*. (ZIN: 124).

- Bata eta bestea, gainera, ezinegonak, **edo hobeto esan larriminak**, *darabiltza*. (LIB I: 136).

Gainerakoetan mintzagaiaren eta multzo errematikoaren artean kokatzen da:

## A. SUBJEKTUA TOPIKALIZATUZ

### 1. Subjektua+ [E2]+adberbio-osagarria

- *Elbar batek, hobeto esan, elbarritu batek*, EZ du leihoa beste ikuskizunik: leihotik ikusten duen etxartea, alegia. (ZIN: 144).

- *Ipar Ameriketako zinemaz zerbait dakitenek —etxe aurre zuritua baino barrenagoko zerbait alegia—* BAdakite Stanley Kramer dela oraindik, hiru edo lau lagunekin, zerbait esan nahi luketenetakoa, noizik behin behintzat. (ZIN: 149).

### 2. Subjektua+ [E2]+ zehar osagarria (IS NORI)+ Aditza

- Hemen kolore nabar-alaiez pintatua ageri zaigun *ipui xalo honek, alegi honek hobeto esan, IKUSLE BATI BAINO GEHIAGORI*, ahoa gozaten diolakoan, sabela mingostuko dio. (ZIN: 175).

### 3. Subjektua+ [E2]+osagarri zuzena (IS NOR)+aditza

- *Axularren garaikoek —Pizkunde arokoek alegia bera ere, berandu xamar jaiogatik, horietakoa baitzen—* ANTZINAKO GREKO ETA ERROMATARRAK hartu zituzten maisutzat, eta ez hizkuntza gaietan. (LIB I: 57).

## B) OSAGARRI ZUZENA TOPIKALIZATUZ

### 1. Osagarri zuzena+[E2]+ adberbio-osagarria+aditza

- *Egilearen bizitza ere, bizitza jakingarria gainera*, BAdakar liburu honek hasieran. (LIB II: 100).

- Baina *ordukoen barrunbeak nolakoak ziren —bere garaikoak, gaurkoak eta gerokoak bezalakoxeak, alegia—*, EDERKI zekien, hori bai, eta baita besteri adierazten ere. (ZIN: 125).

### 2. Osagarri zuzena+[E2]+subjektua+aditza

- *Galdera honi, edo eske honi*, BESTEK erantzun beharko dio, ordea. (LIB II: 113).



## C) ADBERBIO-OSAGARRIA TOPIKALIZATUZ

**1. Adberbio-osagarria+[E2]+fokua+aditza**

- *Inoiz edo behin bai, baina urte luze ugarien buruan nolani ere*, GERTATU BEHAR ZUEN GERTAKARIA zen hori ordukoentzat. (ZIN: 193).

- *Adizki jator baten ordeaz, **natzaio-ren ordeaz alegia***, BI erabiltzen ditu, euskal literaturan sarreerarik izan ez dutenak. (LIB I: 77).

**2. FOKUA+ADITZA BIKOTEAREN ONDOREN**

“Fokua+aditza” bikotearen ondoren	Zenbat adibide	%zenbat
Fokua+aditza+ adberbio-osagarria+[E2]+	2	%33.33
Fokua+aditza+ ISNOR osagarri zuzena+[E2]+	1	%16.66
Fokua+aditza+ ISNOR atrib+[E2]+	1	%16.66
Fokua+aditza+ lokailua+[E2]+subjektua	1	%16.66
Fokua+aditza+[E2]+	1	%16.66
<b>Guztira</b>	<b>6</b>	<b>%100</b>

Honelako adibideez dihardugu:

**1. Fokua+aditza+adberbio-osagarria+[E2]+**

- TREBE BAINO TREBEAGOA izan da *beti hitz berriak sortzeko —hitz elkartuak batez ere—* edota hitz arrunt ezagunak adiera berri batera egokitzeke. (LIB I: 76).

**2. Fokua+ aditza+ ISNOR (atributua)+[E2]+**

- Gregorio de Muxika EZ da *ia izena besterik —ospe oneko izena, halarik ere—* neretzat, eta are gutxiago noski ni baino gazteagoentzat. (LIB II: 85).

Ondoren, gramatikaren aldetik lotura hertsia dute egiturak hausten dituzten parentetikoak izango ditugu mintzagai. Hauek gramatikaren aldetik lotura hertsia edo zurrunagoa dutenez gero, pentsatzekoa ere da lotura hori haustea ez dela zilegi.

3. SINTAGMA-EGITURA HERTSIAK HAUTSIAZ<sup>188</sup>

Izenlagunak eta izenak osatzen duen egitura sintagmatikoaren artean ere badaki kokatzen enuntziatu parentetikoa (5 adibidetan):

- Eta gure arimaren eguneroko —**edo asteroko**— ogia hori dugunez gero, hemen ere aterpe txiki bat, narrasa bada ere, utzi nahi genioke. (ZIN: 123).

Haustura hori, ordea, morfologiazko lotura bera izateak asko arintzen du, enuntziatu parentetikoan ere izenlagunaren marka formala bere horretan gordetzen baitu.

Sail honetan sartu ditugu perpaus erlatiboaren eta izenaren arteko loturak hausten dituzten parentetikoak ere. Perpaus erlatiboak, azken batean, izenlagunaren funtzio bera baitu:

- Horko lagunen buru hausteeke badute gerok ditugunen, **edo izan genitzakeenen**, eitea. (ZIN: 149).

- Ez deritzat nik euskara bide honetatik jaso litekeenik. Euskarak erdaraz esan ez diren, **edo hain ongi adierazi ez diren**, gogoeta eta bihotzondokoei bide emanaz bakarrik jaso dezake burua, lehen, orain, eta beti. (LIB I: 58).

Datuek erakusten digutenez —eta bat datoz horretan ETA buruan daramaten enuntziatu parentetikoekin—, mintzagai egituran, bi komunikazio-estrategia gailentzen dira:

1) Batetik, enuntziatu parentetikoak ezkerreko osagaia topikalizatu egiten du eta ondoren multzo errematikoa “fokua+aditza” bikoteak osatzen du. Egitura edo ordenamendu komunikatibo hau gailentzen da.

Mintzagai markatua+[E2]+fokua+aditza
--------------------------------------

2) Bestetik, “fokua+aditza” bikotearen ondoren tartekatzen du enuntziatu parentetikoa, honela atzerakargak arinduz.

<sup>188</sup>Sintagma-egituraz dihardugu, baina badu adibide bat aditz laguntzailearen eta aditz nagusiaren arteko lotura hausten duena:

- Negarrez gaude beti, euskal irakurgai gutxi ditugula eta, eta ditugun ederrak ere ezin *ditugu*, **edo ez ditugu nahi**, irakurri. (LIB I: 71).

fokua+aditza+[E2]+
--------------------

Antolamendu nagusi horiez gain, ezin ahantz sintagmak hautsiaz tartekatzen dituen enuntziatu parentetikoak ere; bereziki, izen lagunaren eta izenaren arteko lotura ertsia hausten dutenak.

Maiztasun handiagoarekin edo gutxiagorekin, bereizi ditugun kokagune horiek nahiz komunikazioaren antolamendu edo estrategia horiek nagusitzen dira B tipoko enuntziatu parentetikoetan; bai, behintzat, perpaus nagusiaren forma hartzen duen oinarrizko enuntziatuan tartekatzen direnei dagokioenez.

Beraz, esan genezake estrategikoki kokatzen dituela, edo behintzat komunikazio antolamendu jakin bati dagozkiola: enuntziatu parentetikoek, oro har, dakarten entonazio-hausturari esker, ezker aldeko osagaia topikalizatze baliogabe eta horrela E1en ordenamendua markatua geldituko da. Holakoetan enuntziatu parentetikoak mintzagaiaren eta multzo errematikoen artean kokatzen du, informazio ezagunetik informazio berrienerako tarte horretan; pausaldiak markatzeko ere toki estrategikoa da.

Beste batzuetan, berriz, E1enuntziatuko fokua edo galdegaiaren eta aditzaren ondoren kokatzen du.

Pausaldiak markatzeko, ordea, perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko tarteak ere maiz darabil, jarraian ikusiko dugun bezala. Baina lehenik maila bereko perpausen artean non kokatzen den ikusiko dugu.

#### 7.2.2.2. MAILA BEREKO PERPAUSEN ARTEAN

##### [E1]+[E2]+ eta+[E2]

- “Hark berak hari berari” daramate buruan —**edo antzeko zer bait: liburua damurik ez daukat eskuartean**—, eta lehendabiziko “hura bera” aurreko bertsoen egilea bide da —**hots Claveria**— eta bigarrena, bertso haiek eskeini zizkiona, hau da, Etxeberri. (LIB II: 66).

Urriak dira (2 adibide soilik) sail honetan kokagune hori hautatzen duten adibideak, baina, enuntziatu parentetikoak orokortasun batean hartuz, kokagune hori ere erregulartasunez erabiltzen du.

## 7.2.2.3. PERPAUS NAGUSIAREN ETA MENDEKOAREN ARTEKO MUGAN

E2 enuntziatua	E1eko perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko muga	Zenbat adibide	%zenbat
<b>Osagarrietan:</b>	perpaus nagusia +[E2]+ mendeko perpaus osagarria	1	%11.11
<b>Baldintza perpausetan</b>	bi aukera ditugu		
Ondorioa+[E2]+baldintza		1	%11.11
Balditza+[E2]+ondorioa		1	%11.11
<b>Perpaus kausaletan</b>			
Perpaus nagusi+[E2]+ mendeko perpaus kausala		2	%22.22
Perpaus kausala+[E2]+perpaus nagusia		1	%11.11
<b>Kontzesiozkoa+[E2]+perpaus nagusia</b>		1	%11.11
<b>Helburuzko perpausetan</b>			
Mendeko perpausa+[E2]+perpaus nagusia		1	%11.11
Perpaus nagusia+[E2]+mendeko perpaus helburuzkoa		1	%11.11
<b>Guztira</b>		<b>9</b>	<b>%100</b>

Goiko datuek erakusten digutenez, ez dira asko perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko muga horretan kokatzen dituenak. Ikus ditzagun horietarik batzuk:

### 1) Perpaus nagusia+[E2]+Helburuzko perpausa

- Dei bat egiten digu film honek —**dei bat da, hobeto esan, film osoa**— zorigaitz beltz hori guztion artean gugandik *alden dezagun*. (ZIN: 195).

### 2) Helburuzko perpausa+[E2]+perpaus nagusia

- Hizkuntza bat ikasteko —**edo ikasten hasteko, behinik behin**— bide erosoak eskeintzen duten libururik gehienak motz gelditu ohi dira beren egitekoan, hizkuntzak nekerik eta gogo bizirik gabe ezin ikas daitezkeelako noski. (LIB I: 109).

### 3) Kontzesiozko mendeko perpausa+ [E2]+perpaus nagusia

- Eta horrenbeste gipuzkoar langile elkarren lehian ari *bazaizkigu* ere, oraingo gisan, mendiak murrizten —**edo gehienez ere pinu beltzez josten**—, ez dute, eginahalak egin arren, Lizardik utzi zigun baso antzaldatua soilduko, harako leihoak itxitako jauregia dirudien hura, atsedena-

eliza, gau argi izarrez josian goian eta ur berdeak —izar irudiz zirtatuak— behean dituen. (LIB I: 64).

#### 4) Perpaus nagusia+ [E2]+ perpaus kausala

- Nere ustez, liburuak ez zuen deus askorik galduko ipui bat edo beste kentzearekin (**esate baterako, LXIgarrena “Begiondiokoa”**), erderaz ere ezagunegiak direlako. (LIB I: 92).

#### 5) Perpaus Kausala+[E2]+ perpaus nagusia

- Barruti horretan “kristau berria” naizenez *gero*, **sarrera gutxi izan dudanez gero, alegia**, maiz somatzen dut ilunbetan nere burua. (LIB II: 124).

#### 6) Ondorioa+ [E2]+baldintzazko perpausa

- Nik, aukeran, berriegiak aurkitzen ditut, **“garbiegiak” nolabait esateko**, erabateko aitzakietan sartu behar baldin badut. (LIB I: 124).

#### 7) Perpaus nagusia+[E2]+ mendeko osagarria

- Bertsotan zilegi da (**edo, gure Xenpelarrek zioen bezala, lizentzi**) bata bestearen orde erabiltzea metri causa, bi silaba besterik ez dituelako, baina ez euskal prosa jatorrean. (LIB I: 70).

Gehiago dira E2 enuntziatu parentetikoa E1eko mendeko perpausaren barnean kokatzen diren adibideak. Datuetan bilduko ditugu mendeko perpausaren barnean enuntziatu parentetikoak hartzen dituen guneak.

#### 7.2.2.4. MENDEKO PERPAUSAREN BARNEAN

E2 enuntziatua E1eko mendeko perpausaren barnean	Zenbat adibide	%zenbat
Subjektua+[E2]+ adberbio-osagarria+aditza	1	%6.66
Subjektua+[E2]+osagarri zuzena+aditza	1	%6.66
Subjektua+osagarri predikatiboa+[E2]+osagarri predikatiboa+aditza+	1	%6.66
Subjektua+adberbio-osagarria+[E2]+aditza	1	%6.66

ISNOR objektua+[E2]+aditza	3	%20
Izenlaguna+[E2]+izena	1	%6.66
Adberbio-osagarria+[E2]+ subjektua+aditza	1	%6.66
Adberbio-osagarria+[E2]+aditza	4	%26.66
Lokailua+[E2]+osagarri zuzena+aditza	2	%13.33
<b>Guztira</b>	<b>15</b>	<b>%100</b>

Mendeko perpausaren barneko antolamendu hau sistematizatzea gehiago kostatu zaigu, maiz hainbat eta hainbat mendeko perpaus jokatu gabeko aditzekin osatuta zeudelako batetik eta, bereziki askotan, aditzik agertu ere egiten ez zelako. Kontu egin enuntziatu parentetikoek diskurtsoan dutela eginkizuna eta sintaxia lagungarri bazaigu ere, maiz, ez dela aski. Esaterako, hitzen ordenamendua aztertzeko, bereziki aditzaren ondoan (edo hau ardatz izanik) pibotatzen duten osagarriak hartzen ditugu kontuan, baina, jakin badakigu, enuntziatu izateko ez dela ezinbesteko baldintza aditza izatea. Beraz, horrek guztiak sistematizatzeke arazoak sortu dizkigu.

Hala ere, zailtasunak zailtasun, datuei erreparatuz gero ohartuko gara perpaus nagusiaren barnean bereizten genituen kokaguneak errepikatu egiten direla maiz. Ikus ditzagun maiztasunaren aldetik gehien erabiltzen dituen saileko adibideak

### 1. IS NOR+[E2]+aditza

- Eta mutilak gogoko duen neska —**edo neskak mutila**— ikusten duenean, hango hapak eta laztanak, elkarri oratuta, nahiz eta igande eguerdian herriko plaza nagusian aurkitu!(ZIN: 125).

- Lokarri hori —**dena den**— hausten duzunean, ordea, mintzo ozena eta sarkorra duzu, ala nola eskeintza honetan eta zeure aita zenaren oroitzapenetan hemen argitara zenuen artikulu ederrean. (LIB II: 139-140).

### 2. Adberbio-osagarria+[E2]+aditza

- Mejiçoko lur beroetan —**edo lur beroen mugan**— gertatzen den Graham Greene'n ipui labur bat hartu dute oinarri, ezin gehiago luzatuz. (ZIN: 191).

- Ohi ez bezalako gizaki honen berezitasun nabarmenetan, batek harritu nau, aita Zabala harritu duen antzera, gure artean egunorokoa eta nonnahikoa ez delako: beste “hirugarren” bizitzan — **ospearenean, alegia**— zeukan sinesteak. (LIB II: 99).

Kokapen edo gune bertsuak hautatzen ote ditu Mitxelenak C tipoko enuntziatu parentetikoentzat? Azter dezagun, azkenik, C tipoko enuntziatu parentetikoen distribuzioan zein joera nagusitzen den.

### **7.2.3. C Tipoa**

#### 7.2.3.1. OINARRIZKO ENUNTZIATUAREN AURRETIK: E2+E1

Orain arteko sailetan gertatzen ez bazen ere, C tipokoetan agertzen dira enuntziatu parentetikoak E1 oinarrizko enuntziatuaren aurrean kokaturik. Ez da, haatik, ohikoena, eta litekeena da C tipo honek sintaxi mailako marka formala daramanez gero, haustura sintaktikoa beste bi tipoetan bezain garbia ez duelako edo izatea. Egia da halere, eta datuek hala egiaztatzen lagunduko digute, sail honetako enuntziatu gehienak E1en egitura sintaktikoa hautsiaz tartekatzen direla.

Gehienetan hala gertatzen bada ere, bada, goian esan dugun bezala, E1 enuntziatuaren buruan agertzen den adibide bakanen bat. Horrelakoak, ordea, oso dira urriak eta, gainera, erritozko formula eginei edo erantzuten diete:

- **Nere iritzi eskasak ezer balio badu**, ez dut uste aspaldiko urteetan liburu honen baliokorik asko izan dugunik. (LIB II: 89).

Horrelakoren bat (4 adibide) egon badagoela ukatu gabe, ugariagoak dira E1 oinarrizko enuntziatuaren amaieran agertzen diren enuntziatu parentetikoak.

#### 7.2.3.2. E1 OINARRIZKO ENUNTZIATUAREN AMAIERAN

Bederatzi adibide aurkitu ditugu [E1]+[E2] kokagune honetan eta horiek ere erritozko formula eginei erantzuten diete:

- Eta hori ez hemen bakarrik, **nondinahi datozkigun berriak ohi baino gezurtiagoak ez badira.** (ZIN: 135).

- Duela zenbait urte ikusi genuen horrelako zerbait Curtis Bernhardt'en film batean: "Retorno al abismo"zuen hemen izena, **oker ez bagaude.** (ZIN: 174).

- Ongi josia eta ongi emana dago, **ene hitzak ezer balio badu.** (ZIN: 192).

### 7.2.3.3. TARTEKATZERAKOAN, E1 OINARRIZKO ENUNTZIATUAREN EGITURA SINTAKTIKOA HAUTSIAZ

Orain arteko urratsei jarraituz lau gune bereiziko ditugu:

1. Mintzagaiaren eta multzo errematikoaren artean
2. Fokua+aditza bikotearen ondoren
3. Fokuaren eta aditzaren artean
4. Sintagma-egiturak hautsiaz

#### 1. MINTZAGAIA+[E2]+FOKUA+ADITZA

Taulaz baliatuko gara adibideak multzokatzeko:

Mintzagaia+[E2]+fokua+aditza	Zenbat adibide	%zenbat
<b>A) Subjektua topikalizatuz, subjektuaren eta predikatuaren arteko mugan</b>	<b>16</b>	<b>%44.44</b>
<i>Subjektua+ [E2]+adberbio-osagarria+aditza</i>		
- Subjektua+[E2]+moduzko aditzondoa/adizlaguna+aditza	2	%5.55
- Subjektua+[E2]+ ezezko aditzondoa+aditza+	4	%11.11
- Subjektua+[E2]+ba-+aditza+	1	%2.77
- Subjektua+[E2]+adizlaguna+aditza+	7	%19.44
<i>Subjektua+[E2]+osagarri zuzena+aditza</i>	<b>1</b>	<b>%2.77</b>
<b>B) Osagarri zuzena topikalizatuz</b>	<b>1</b>	<b>%2.77</b>
<b>C) Adberbio-osagarria topikalizatuz</b>	<b>14</b>	<b>%38.88</b>
<i>Adberbio-osagarria+[E2]+adberbio-osagarria+aditza</i>	6	%16.66
- Adberbio-osagarria+[E2]+moduzko adberbioa+aditza	1	%2.77
- Adberbio-osagarria+[E2]+ ezezko aditzondoa	3	%8.33



- Adberbio-osagarria+[E2]+adizlaguna+aditza	2	%5.55
<i>Adberbio-osagarria+[E2]+subjektua+aditza</i>	1	%2.77
<i>Adberbio-osagarria+[E2]+osagarri zuzena+aditza</i>	7	%19.44
<b>D) Zehar osagarria topikalizatuz</b>	<b>2</b>	<b>%5.55</b>
IS NORI+[E2]+ fokua+aditza		
- IS NORI+[E2]+moduzko aditzondoa+aditza	1	%2.77
- IS NORI+[E2]+osagarri predikatiboa+aditza	1	%2.77
<b>E) Lokailuaren ondoren: lokailua+[E2]+fokua+aditza</b>	<b>4</b>	<b>%11.11</b>
- Lokailua+[E2]+ezezko aditzondoa+aditza	1	%2.77
- Lokailua+[E2]+moduzko aditzondoa+aditza	1	%2.77
- Lokailua+[E2]+osagarri zuzena+aditza	1	%2.77
<b>Guztira</b>	<b>36</b>	<b>%100</b>

Datuek erakusten digutenez, enuntziatu parentetikoak bere ezker aldeko osagaia topikalizatu egingo du eta ondoren datorren multzo errematikoa fokuekin hasiko da. Beraz, egitura hau jarraitzen dute:

Mintzagai hanpatua+[E2]+fokua+aditza
--------------------------------------

## A) SUBJEKTUA TOPIKALIZATUZ

### 1. Subjektua+[E2]+adberbio-osagarria+aditza

#### 1.1. Subjektua+[E2]+moduzko aditzondoa+aditza

- Baina *Xenpelarren bertsoak, ahotik belarrira ibili garenez gero*, NEKEZ<sup>189</sup> aurki genitzake aldaerarik gabe. (LIB I: 108).

- *Nik, lege zaharrekoa naizelako edo nere ofizioak gramatikarekin zer ikusirik duelako*, BESTELA deritzat. (LIB II: 63).

<sup>189</sup>Identifikazioa errazagoa izan dadin, orain arteko ildoari jarraituko diogu: **enuntziatu parentetikoa** letrakera lodiz eta FOKUA larriz nabarmenduko ditugu eta jokoan dauden gainerako funtzioak letrakera etzanez.

- Barrena begira, itsasoa eta ontziak baztertzen baditugu, agintarien erantzunbeharra eta bakardade astuna erakusten saiatu dira gehienbat, azkenaldi honetan *zinema* —**bestarik ukitzera ausartzen ez delako edo**— MAIZ erakusten saiatu den gaia. (ZIN: 177-178).

## 1.2. Subjektua+[E2]+adizlaguna+aditza

- *Gaia, oker ez bagaude*, KOMEDIA BATETIK hartua da. (ZIN: 163).

## 1.3. Subjektua+[E2]+ezezko adberbioa

- *Chaplin-zaleek, oker ez banago*, EZ dute uste bezalako gozamenik izan. (ZIN: 185).
- Beste zenbait hutsarte nabari dira, baita oihal zaharrari ez dagozkion adabakiak ere: infernetara jeistea zakur-amets edo sorginkeria hutsal bihurtu da, ardoa egiteko ez da mahats-aleak oinkatzea aski, *liktore-aizkorak* —**horrela izendatzen baitituzte Ithaka´ko jauregian ikusten ditugunak**— EZ ziren noski ugariak garai hartako Grezian, eta gainera gainerakoak. (ZIN: 146).

## 1.4. Subjektua+[E2]+ba+aditza

- Teoria horrek, **oker ez banabil**, BAdu beste baten eitea: harako Manuel Lekuona jaunak bere Literatura oral euskérika-n azaldu zuen harena. (LIB II: 107).

## B) OSAGARRI ZUZENA TOPIKALIZATUZ

- *Hizkera, bestek ere esan du eta*, GOGOR XAMARRA agertzen du, han hemenka. (LIB I: 142).

## C) ADBERBIO-OSAGARRIA TOPIKALIZATUZ

Ondorengo egitura honekin egingo dugu topo: adberbio-osagarria+[E2]+ (lokailua) +fokua+aditza

### 1. Adberbio-osagarria+[E2]+adberbio-osagarria+aditza

### 1.1. Adberbio-osagarria+[E2]+ezezko adberbioa+aditza

- *Egilearen hizkeraz, asko esan badaiteke ere*, EZ dago luzaroan mintzatu beharrik. (LIB II: 81).

### 2. Adberbio-osagarria+[E2]+osagarri predikatiboa+aditza

- *Gure gazte denboran, hona bigarrena*, LILURAZ INGURATUAK iruditzen zitzaizkigun zirikaldiak. (LIB I: 140).

### 3. Adberbio-osagarria+[E2]+osagarri zuzena+aditza

- *Dena dela, buruan —sakelean ez bada—* NOBELA BAT duela etxeratu da. (LIB I: 51).

- *Honi eskerrak*<sup>190</sup>, **eskasiak berak ere alde onak baditu eta**, ZELULOIDO ZAHARRA agertzen zaigu noizean behin. (ZIN: 160).

- *Homerogandik hasi eta irakurleaganaino, luzexkoa zelako edo*, BI GAUZA gelditu dira bidean, nabarmen xamarrek biak, eta ez dira inon ageri: poemaren edertasuna eta grazia batetik, eta euskara bestetik. (LIB I: 68).

### 4. Adberbio-osagarria+[E2]+subjektua+aditza

- *Eta hemen, teatroan baikaude*, HITZAK ez dira eranskin huts; hitzak dira azal eta mami. (ZIN: 127).

## D) ZEHAR OSAGARRIA TOPIKALIZATUZ

### IS NORI +(lokailua)+[E2]+fokua+aditza

- *Neri* behintzat<sup>191</sup>, **egia aitortu behar badut**, GAITZAGO zait sarritan oraingo idazki franko barrentzea hamaboskarren meneko kanta zaharrak baino. (LIB I: 136).

<sup>190</sup>Formaz berez postposizio-sintagma litzatekeen arren, funtzioaren aldetik adberbio-osagarrien artean kokatu dugu.

<sup>191</sup>Sail honetako adibideetan ikus daiteke Mitxelenak ezker aldeko osagaiaren topikalizazioa ez duela enuntziatu parentetikoarekin soilik erdiesten, baita lokailuarekin ere; izan ere, lokailu batzuek badute topikalizatzeke eginkizuna. (Osa 1990).

- *Guri, ordea, hitz ederretan ez ezik hitz horiek adierazten dituzten gogoeta ederretan ere sinesten ez dugunez gero*, PARREGARRI agertzen zaizkigu, haurtzaroko jostailuei ederretsirik bizi diren gizon-emakume hazien antzera. (ZIN: 158).

Badira hainbat adibide, goian ikus daitekeen bezala, lokailuaren ondoren kokatzen dituenak, baina goikoak ez bezala, hauek ez dute lokailuaren aurretik beste osagaien bat topikalizaturik.

E) LOKAILUA+[E2]+FOKUA+ADITZA

- *Gainera, oker ez banago*, EZ jakituria EZ jakinduria EZ dira behin ere agertzen O. de Arin´gan. (LIB II: 66).

- *Baina, baldin nere iritzia estalkirik gabe agertu behar badut*, EZ dut uste inoiz gure hizkuntzan entzun denik horrelako hitz larririk, horren zinezko aitorrak, horrenbesteko karraxi sarkorrik. (LIB I: 90).

**2. FOKUA+ADITZA BIKOTEAREN ONDOREN**

B) “Fokua+aditza” bikotearen ondoren	Zenbat adibide	%zenbat
Fokua+aditza+[E2]+osagarri zuzena	5	%45.45
Fokua+aditza+subjektua+[E2]+	1	%9.09
Fokua+aditza+(adberbio-osagarria)+[E2]+subjektua	2	%18.18
Fokua+aditza+[E2]+adberbio-osagarria	3	%27.27
<b>Guztira</b>	<b>11</b>	<b>%100</b>

Honela jokatuz atzerakargak arintzea ere lortzen du; izan ere, enuntziatu parentetikoa aditzaren atzean kokatzen baitu.

**1. Fokua+aditza+subjektua+[E2]+(beste osagaien bat)**

- EZ du *egileak*, **oker ez banago**, ezer erabakitzen Bidasoaz alde bateko eta besteko euskaldunok aspaldidanik darabilgun auzian. (LIB II: 57).

## 2. Fokua+aditza+(adizlaguna)+[E2]+subjektua

- EHUNKA dira *liburu honetan*, **milaka ez badira**, hitz berriak, zaharraren zaharrez ahaztuak edo bazterren baten ezagunak badira euskal literaturan inoiz sarrerarik izan ez dutenak. (LIB I: 116).
- Oro har edo guztira, NEKEZ egin zitekeen, **ene iritziak ezer balio badu**, Etxanizek egin duen bezain lan eder, bide erdiko eta horniturik. (LIB II: 73).

## 3. Fokua+aditza+ [E2]+adberbio-osagarria

- BARRENDIK dator edo, **nahiago baduzue**, goitik. (LIB II: 73).
- EZ da amets hutsa, **behin bederen mamitua baita**, Lizardigan. (LIB I: 64).

## 4. Fokua+aditza+[E2]+osagarri zuzena/osagarri predikatiboa

- Maizago irakurriko banitu, hobe, baina EZ ditut maiz irakurtzen<sup>192</sup>, **egia zor badizuet**, *honen antzeko gaia duten liburuak*. (LIB II: 99).
- EZ da, ordea, **oker ez banago**, *behar bezain ezaguna*, halaz guztiz ere. (LIB II: 145).

Bi komunikazio-estrategia nagusi horien ondoan, ordea, zenbaitetan fokua eta aditzaren artean ere tartekatuta ohi du enuntziatu parentetikoa:

### C) FOKUAREN ETA ADITZAREN ARTEAN

C tipoko enuntziatu parentetikoaren artean badira lau adibide, ustez behintzat, fokua eta aditzaren arteko bloke sendo hori hautsiaz tartekatzen direnak. Gure ustez, izan ere, informaziorik berrienaren eta aditzaren artean tartekatzen du:

- Pierre Lafitte Kalonge eta EUSKALTZAINAREN ESKUTIK —**berori baitugu aitzin solasaren egilea** — *agertzen zaigu* oraingoan Zaitegi jauna: hegazti harraparia hormatxori apalaren eskutik, norbaitek esango lukeenez. (LIB II: 75).

<sup>192</sup> *Fokua+aditza* bikotearen eta enuntziatu parentetikoaren artean zerbait tartekatzen du, dela lokailua, dela adberbio-osagarria, baina enuntziatu parentetikoa *fokua+aditza* bloke horren ondoren paratzen du.

“Nor baiten eskutik” postposizio-sintagma horrek segidan aditza du eskakizun, baina enuntziatu parentetikoa tartekatzen du. Beste horrenbeste esan dezakegu ondorengo honetaz ere:

- HORREXEGATIK, **labur eta berandu hobe denez gero inoiz ez baino**, zilegi izan bekit behar nukeen baino lasterrago —abespeluan edo, antzinako bizkaitarrek esango zuketena bezala— neure egitekoak egitea. (LIB II: 121).

Bigarren graduko erakuslearen forma indartutik eratorritako “horrexegatik” hori da, gure ustez, fokua, eta bere eta aditzaren artean enuntziatu parentetikoa tartekatzen du.

Azkenik C tipo honetan ez dugu sintagmaren egitura sintaktikoa hausten duen adibiderik aurkitu. Bai, ordea, aditz laguntzailearen eta aditz nagusiaren artean:

**Aditz laguntzailea+[E2]+aditz nagusia**

- Ez du, **oker ez bagaude**, horrelako kezkarik Artetxek izan. (LIB I: 59).
- Ez du, **oso oker ez banago**, alferlanik egin. (LIB II: 72).
- Eta ez daukat, **zilegi izan bekit hemen aipatzea**, Oñatibia oiartzuarra ahazturik. (LIB II: 154).

7.2.3.4. MAILA BEREKO PERPAUSEN ARTEAN

E2 enuntziatu parentetikoa maila bereko bi perpaus koordinaturen artean	Zenbat adibide	%zenbat
Perpaus koordinatu kopulatiboen artean: E1+[E2]+eta+E1	2	%22.22
Perpaus koordinatu kopulatiboen artean: E1+ eta+[E2]+ E1	2	%22.22
Perpaus koordinatu aurkaritzakoen artean: E1+[E2]+baina+ E1	4	%44.44
Perpaus koordinatu aurkaritzakoen artean: E1+ baina+[E2]+E1	1	%11.11
<b>Guztira</b>	9	%100

Datuek erakusten digutenez, *baina* eta *eta* juntagailu-lokailuak maiz darabiltza enuntziatu parentetikoaren ondoren, berriz E1eko hari nagusiari heltzeko edo; hau da, berrartze-lanetan. A eta B tipoetan ez bazala, bada, ordea, adibiderik juntagailu-lokailua enuntziatu parentetikoaren ondoren ez, baizik eta aurretik daramanik:

**E1+eta+[E2]+E1 / E1+baina+[E2]+E1**

- Badirudi poesian ontzat hartu dutela “Markue” inor gutxi ontzat hartzen dutenak ere *eta*, **maixuak mintzatu direnez gero**, ez dut nik zer esanik, poztu egin naizela baizik. (LIB II: 152).
- Hego Amerikak baditu zaleak eta etsaiak, *baina*, **nori berea eman behar badiogu**, ez dira giro txarrak hangoak izan idazleentzat. (LIB II: 146).

**E1+[E2]+eta+E1 / E1+[E2]+baina+E1**

- Lehen baino hobeto ezagutzen ditut orain haur liburuak, **etxeokak direla eta**, *eta* ipui gutxi ikusi ditut, edozein aldetatik begiratuta ere, hauek bezalakoak. (LIB I: 97).
- Behin edo behin, egia da, Izpiritu Santuaren prozesioaz ordu t´erdiz mintzatu beharrean aurkitu izan naiz (**irakastea debekatuta badaukagu ere, ikastera behartu egiten baikaituzte**), *baina* geroztik hona jakintza hau baztertuxe eduki dut. (LIB I: 96).
- Gu ere bagaramatza medikuen azpi-lan okerre buruz, **horrelakorik baldin bada**, zerbait jakin-nahiak, *baina* zinemak eskeintzen digun zirriturik ez dugu askorik ikasiko. (ZIN: 150).

## 7.2.3.5. PERPAUS NAGUSIAREN ETA MENDEKOAREN ARTEKO MUGAN

Datuak taula bidez azaleratuko ditugu:

<b>E2 E1eko perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko mugan</b>	<b>Zenbat adibide</b>	<b>%zenbat</b>
<b>1. Mendeko perpaus osagarrietan</b>	<b>11</b>	<b>%47.82</b>
Perpaus nagusia+[E2]+mendeko perpaus osagarria	11	%47.82
<b>2. Baldintza perpausetan bi aukera ditugu</b>	<b>4</b>	<b>17.39</b>
Ondorioa+[E2]+baldintza	3	%13.04
Baldintza+[E2]+ondorioa	1	%4.34
<b>3. Perpaus kausaletan</b>	<b>1</b>	<b>%4.34</b>
Perpaus nagusi+[E2]+ mendeko perpaus kausala	1	%4.34
Perpaus kausala+[E2]+perpaus nagusia	0	%0
<b>4. Helburuzko perpausetan</b>	<b>3</b>	<b>%13.04</b>
Perpaus nagusia+[E2]+helburuzkoa	2	%8.69
Helburuzkoa+[E2]+perpaus nagusia	1	%4.34

<b>5. Moduzko perpausetan</b>	<b>4</b>	<b>%17.39</b>
Perpaus nagusia+[E2]+moduzkoa	1	%4.34
Moduzkoa+[E2]+perpaus nagusia	3	%13.04
<b>Guztira</b>	<b>23</b>	<b>%100</b>

Ikus ditzagun adibideak:

### 1. PN+[E2]+Mendeko adierazpen perpaus osagarria

- Herbart´ek esan zuen, **oker ez banago**, ez *de la* “Odyssea” baino irakurgai egokiagorik haurrak grekoa ikasten abiatzeko. (ZIN: 146).

- Hauxe esango dut, **auzokoen sailean sartuko banaiz ere**, Valverderen edergarriak Lizardiren poeman gogaide jator *dire la*. (LIB I: 65).

- Gauza jakina da, **sarri esaten ez bada ere**, Larzabal deritzan langile purrukatu hori zabar xamarra *de la*, zabarra eta utzia, bere teatrolanak inprentara eramaten. (LIB II: 130).

- Nik esango nuke, **nere iritziak ezer balio badu**, Baiona aldetik etorri zitzaigu *la* bale arrantzarako eragina eta are itsasorakoa erabat. (LIB II: 57).

### 2. Baldintza perpausetan

#### 2.1. Ondorioa+[E2]+Baldintza

- Ez duzu ireki besterik —**hasieratik, erditik nahiz azkenetik**— diodanaren egiaz zerorrek jabetu nahi *baduzu*. (LIB II: 98).

- Badakit, noski, nekez ikasiko dituela irakurleak “irakurletasunak” eskatzen dizkion zerak — **letraduna baldin bada, euskaraz letradunentzat egiten direnak irakurtzeko behar dituenak, erdarazkoak irakurtzen dituen eran**—, inork irakasten ez *badizkio*. (LIB II: 137-138).

#### 2.2. Baldintza+[E2]+Ondorioa



- Xehetasunetan sartuz gero, **gaurko auzia da eta**, nolako hitzak darabiltzan ikus dezakegu. (LIB I: 76).

### 3. Perpaus nagusia+[E2]+Perpaus Kausala

- Nik behintzat besoak desgurutzatzen ditut, Aita Altunak mordoilokeria barkakizun etsiko duelakoan, **behin-behingoa delako edo**, egina duen lana txalotzeko. (LIB II: 154).

## 4. Helburuzko perpausetan

### 4.1. Perpaus nagusia+[E2]+Helburuzkoa

- Bihar, etzi, datorren astean utziko dut, **derrigorrezkoa baldin bada**, ongi marruska *dezaten*. (ZIN: 131).

- Saia *gaitezen*, bada<sup>193</sup>, **ongi merezi du eta**, Fernando honen izena bestearena adina barrea dadin. (LIB I: 92).

### 4.2. Helburuzkoa+[E2]+Perpaus nagusia

- Itzultzeko ordea, **gure ustea garbiro agertu behar badugu**, ez du eskua hain trebe izan. (LIB I: 46).

## 5. Moduzko perpausetan

### 5.1. Perpaus nagusia+[E2]+Moduzko perpausa

- Kalean, plazaren erdian, dugu azkenik aspaldiko amets bat: euskal ikasbide osoa —**izenez, lehendabiziko mailakoa bada ere**—, diskoak *dituela* lagun ikaslearen belarria ohitzeko. (LIB II: 72).

---

<sup>193</sup>Perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko muga hori enuntziatu parentetikoak ez ezik *lokailuak* ere egiten du.

## 5.2. Moduzko perpausa+[E2]+perpaus nagusia

- Lau-bost lagunen joan-etorrietan mugatzen *duelarik* —oinarri izan duen N. Shute´ren liburua horrela moldatua aurkitu duelako, beharbada—, esan daiteke berez duen indarrari zerbait ostu diola. (ZIN: 194).

- Bigarrenetik oraingora, a batzuk kentzeari gutxi iritzirik —eskuak ausartzen ari zaizkigu eta—, esaldi osoak agertzen dira moztuak. (LIB I: 80).

### 7.2.3.6. MENDEKO PERPAUSAREN BARNEAN

Corpusean oso adibide gutxi aurkitu ditugu mendeko perpausaren barneko kokagunea hautatzen dutenak, eta bat izan ezik gainerakoak subjektuaren eta aditzaren artean kokaturik agertzen dira.

E2 enuntziatua mendeko perpausaren barnean	Zenbat adibide	%zenbat
Subjektua+[E2]+fokua+aditza	1	
Subjektua+[E2]+aditza	4	
<b>Guztira</b>	<b>4</b>	

#### 1. Subjektua+[E2]+aditza

- Bai, ordea, adierazi duela zein den euskal eredua, euskaldunik gehienok, **denok ez baldin bada**, maite dugun ametsa, xamurtasunez eta ixiltasunez nahasia. (LIB I: 64).

- Badakizue nondik nora datorkigun gehienok, **guztiok ez bada**, ikusi dugun teatro lan hau. (LIB II: 81).

#### 2. Subjektua+adizlaguna+[E2]+osagarri zuzena+aditza

- Ez zait berehalakoan ahaztuko oraindik orain, Pabeko Pirineisten batzarrean, hartu nuen bihotzondokoa Haritschelharrek gure bertsolariaren bizitza eta heriotze tristeaz —**galeretan hil baitzen**— argitasun berriak ematen zizkigularik. (LIB II: 83).

Honekin guztiarekin, bada, uste dugu E2 enuntziatu parentetiko gehienen —ez guztien— integrazio-gunea pixka bat, bederen, sistematizatu dugula; izan ere, lanean zehar esan dugunez, kokagunea aztertzeke aditza jo dugu ardaztat, baina hainbat eta hainbatetan ez genuen aditzik.

Jarraian, ondorioak atera aurretik —eta horretarako ere baliagarri gertatuko zaigulako — kokagunearen datuak laburpen-tauletan jasoko ditugu. Emaiza orokorren hiru laburpen taula egin ditugu:

**EMAITZA OROKORREN LABURPEN-TAULAK**

**TAULA 1**

<b>E2 ENUNTZIATU PARENTETIKOAK E1 OINARRIZKO ENUNTZIATUAN HARTZEN DUEN KOKAPENA</b>				
<b>TIPOAK</b>	<b>HASIERAN</b>	<b>TARTEAN</b>	<b>AMAIERAN</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>A TIPOA</b>	0	249	20	269
<b>B TIPOA</b>	0	186	15	201
ETA buruan daramatenak	0	125	8	133
Gainerakoak	0	61	7	68
<b>C TIPOA</b>	4	93	9	106
<b>A +B+C tipoen batura</b>	<b>4</b>	<b>528</b>	<b>44</b>	

**TAULA 2**

E1 OINARRIZKO ENUNTZIATUAREN EGITURA SINTAKTIKOA HAUTSIZ TARTEKATZEN DIREN E2 ENUNTZIATUAK: E1-EK PERPAUS NAGUSIAREN FORMA DUENEAN												
	MINTZAGAIA+ [E2]+FOKUA+ADITZA					FOKUA+ ADITZA+ [E2]+		FOKUA+ [E2]+ ADITZA	SINTAGMA HAUTSIZ	ADITZAREN EGITURA HAUTSIZ	GUZTIRA	
	SUBJ TOPIKALIZATUZ	OZ TOPIKALIZATUZ	ZO TOPIKALIZATUZ	ADOND/ADLAG TOPIKALIZATUZ	LOKAILUAREN ONDOREN	F+A+[E2]+	F+A+OSAGARRIA+[E2]+		Izlag+[E2]±iz	bestelakoak Postposizio sintagma hautsiz edo		
<b>A TIPOA</b>	<b>63</b>	<b>4</b>	<b>2</b>	<b>19</b>	<b>1</b>	<b>20</b>	<b>13</b>	<b>10</b>	<b>10</b>	<b>4</b>	<b>0</b>	<b>146</b>
<b>B TIPOA</b>	<b>35</b>	<b>5</b>	<b>3</b>	<b>19</b>	<b>14</b>	<b>5</b>	<b>9</b>	<b>5</b>	<b>10</b>	<b>3</b>	<b>1</b>	<b>109</b>
ETA BURUAN	22	0	2	16	12	4	4	5	7	3	0	75
GAINERAKOAK	13	5	1	3	2	1	5	0	3	0	1	34
<b>C TIPOA</b>	<b>16</b>	<b>0</b>	<b>2</b>	<b>19</b>	<b>3</b>	<b>8</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>6</b>	<b>57</b>
<b>A+B+C</b>	<b>114</b>	<b>9</b>	<b>7</b>	<b>57</b>	<b>18</b>	<b>33</b>	<b>25</b>	<b>15</b>	<b>20</b>	<b>7</b>	<b>7</b>	<b>312</b>
<b>Guztira (KOMUNIKAZIO- ESTRATEGIAK)</b>	<b>205</b>					<b>58</b>		<b>15</b>	<b>27</b>		<b>7</b>	<b>312</b>

TAULA 3

<b>E2 ENUNTZIATU PARENTETIKOA E1 PERPAUS KONPOSATUA DENEAN</b>					
	MAILA BEREKOAK: E1+ [E2]+ETA/BAINA/K OMA+E1		PN+ [E2]+MENDEKOA	MENDEKOAREN BARNEAN	GUZTIRA
	KOPULATIBOZKOAK	AURKARITZAKOAK			
<b>A TIPOA</b>	<b>21</b>	<b>13</b>	<b>39</b>	<b>30</b>	<b>103</b>
<b>B TIPOA</b>	<b>3</b>	<b>1</b>	<b>45</b>	<b>28</b>	<b>77</b>
ETA BURUAN	1	1	35	13	50
GAINERAKOAK	2	0	10	15	27
<b>C TIPOA</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>23</b>	<b>4</b>	<b>36</b>
<b>A+B+C</b>	<b>28</b>	<b>19</b>	<b>107</b>	<b>62</b>	<b>216</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>47</b>		<b>107</b>	<b>62</b>	<b>216</b>

### 7.3. ONDORIOAK

Distribuzioari dagokion atal honetan, E2 enuntziatu parentetikoak E1 oinarrizko enuntziatuan zein gune hartzen duen aztertzen saiatu gara, bereziki funtzio-egitura kontuan izanik; hau da, E2 enuntziatua zein funtzioaren aurretik, tartean edo ondoren kokatzen duen aztertu dugu. Horrek bide eman digu oinarrizko enuntziatuan zein komunikazio-egitura nagusitzen den aztertzeko, osagaien hurrenkera komunikazio<sup>194</sup> zereginen edo komunikazio-legeek ordenatuko baitute.

Beraz, oinarrizko enuntziatuko osagaien hurrenkera (eta enuntziatu parentetikoak ere bertan tartekatzen da), esatariak komunikatu edo aditzera eman nahi duena ahalik eta argiena eta eragingarriena gertatzeko moduan antolatu du Mitxelenak. Hori azaltzeko, tema-errema (Osa 1990) edo mintzagaia-irazkina (Euskaltzaindia 1987) segidak hartu ditugu kontuan;

<sup>194</sup>Osak (1990) euskararen hitz ordena komunikazio zereginaren arabera zela frogatu zuen.

informazio zaharra edo ezaguna dena informazio berriarekin uztartzeko egiten duen osagaien antolamendua edo mintzagai-egitura, hain zuzen. Izan ere, enuntziatu parentetikoaren kokagunea informazio ezagunaren (mintzagaia) eta berriaren (irazkina) kokapen estrategikoaren baldintzapean dago.

E1 oinarrizko enuntziatuaren komunikazio-egitura zein den aztertzeke, aurrenik, E1 formalki zein egiturak osatzen duen mugatu dugu. Izan ere, gutxienez, bi enuntziatuz osatutako diskurtso-zatia dugu aztergai, eta, jakin badakigu enuntziatuak aditz nagusi baten mendekoak edo izen baten mendekoak izan daitezkeela, eta ez direla beti perpaus izatera helduko<sup>195</sup>.

Azterketa honetan, ordea, aurre premisatzat jo dugu E1 oinarrizko enuntziatuak, gutxienez, aditz nagusi bat eramatea (corpuseko adibiderik gehienetan hala gertatzen delako), eta, beraz, izen baten mendekoak alde batera utzi ditugu. Horrek ez du esan nahi, ordea, E2 enuntziatu parentetikoak aditzik gabekoa denean, alde batera utzi dugunik. Beraz, corpuseko adibide guztiak ez ditugu aztertu, baina bai gehienak; zein joera nagusitzen den ondorioztatzeko adina bai, behintzat.

E1 oinarrizko enuntziatuan hiru gune nagusi bereizi ditugu: hasiera-hasierakoa, amaierakoa eta tartekoa; hau da, E1eko egitura sintaktikoa hautsiz tartekatzen den gunea.

A) Hasiera-hasierako gunean lau adibide soilik aurkitu ditugu, eta laurak C TIPOAri zegozkion, erritozko-formula eginei, hain zuzen ere. Beraz, ezin esan Mitxelenaren luman, E1 oinarrizko enuntziatuaren hasierako posizio hori enuntziatu parentetikoak kokatzeko gune aproposa denik.

B) E1 oinarrizko enuntziatuaren bukaera-bukaeran adibide gehiago aurkitu ditugu: 44, guztira. Maiz, gainera, esatariak, aldez aurretik esandakoa zalantzan jarriz egindako galdera, iruzkin nahiz kritikek osatzen dute.

C) Adibiderik gehien multzoa, zalantzarik gabe, E1 oinarrizko enuntziatuan tartekatzen den enuntziatu parentetikoak osatzen du. Horretxegatik beragatik definizioan bertan, enuntziatu parentetikoak, oinarrizko enuntziatuaren egitura sintaktikoa hautsiz tartekatzen den enuntziatutzat jo dugu.

<sup>195</sup>Informazio-egituraren oinarrizko unitateak ezin defini daitezke berezko ezaugarrien bidez. Mezu-hartzailearen ikuspegitik definitu behar dira, hau da, hartzaileak IU [informazio unitate] bakoitza jasotzean lortzen duen asetze mailaren arabera:

- Hartzailea ase gera badaiteke, alegia, esaldia bukatutzat eman badezake, informazio-unitate betea izango dugu (IUB) [informazio unitate bukatua].
- Hartzailea ezin gera badaiteke ase, informazio-unitate betegabea izango dugu (IUBG).[informazio unitate bukatu gabea]. (Hidalgo et al. 2002).

Tarteko posizio honetan, ordea, lau sail bereizi ditugu, E1 oinarrizko enuntziatuaren formazko egiturak baldintzatzen dituen lau sail:

- Oinarrizko enuntziatua perpaus lokabea denean
- Oinarrizko enuntziatua maila bereko perpaus koordinatuek osatzen dutenean
- Oinarrizko enuntziatua perpaus nagusiak eta mendekoak osatzen dutenean
- Mendeko perpausaren barnean


1) OINARRIZKO ENUNTZIATUA PERPAUS LOKABEA DENEAN

Sail honetan, bereziki, bi komunikazio-egitura gailendu zaizkigu eta horiek, ikusiko dugunez, komunikazio-estrategia jakin batzuen zerbitzura egongo dira.

Gehien erabiltzen duen komunikazio egitura ondorengo hau da:

Mintzagai hanpatua+[E2]+fokua+aditza+ (perpaus abar)+(esaldi abar)

**A) Egitura komunikatiboa 1**



E1 perpaus nagusi edo lokabeak osatzen duenean, adibideen %63.20ean, enuntziatu parentetikoak mintzagaia hanpatu edo topikalizatu egingo du, berak dakarren sintaxi- eta tonu-hausturaz baliatuz eta mintzagai markatuaren eta galdegaiaren edo fokua-ren artean kokatuko da. Horrela, mintzagai edo topiko markatutik irazkinerako jauzia egiteko gunean kokatuko du enuntziatu parentetikoak.

Mintzagai hanpatua+[E2]+irazkina, predikazioa edo multzo errematikoak (fokua+aditza)

Beraz, E2 enuntziatu parentetikoak bere ezker aldekoa (dela subjektua, dela adberbio-osagarria, dela osagarri zuzena, dela zehar osagarria) topikalizatzeko balio du, eta hori, bereziki, egitura honek dakarren entonazio-etenak markatuko du.

Behin topikalizatuz gero, irazkina edo multzo errematikoaren buruan aditza jartzeko debekua (ia) gehienetan errespetatzen du (% 4.5en izan ezik), fokua-ren posizioa<sup>196</sup> betetzeko (eta perpausa markatu gabe betetzeko) gaitasun berezkoena duten gramatika-kategoriak aditzaren aurretik kokatuz: osagarri predikatiboa, adberbio-osagarria, osagarri zuzena...

Bat dator, bada, Osak (1990: 126 eta hur.) osagarrien joerak aztertzean egiten duen baieztapenarekin: osagarrien artean badela fokutasunarekiko lehentasun bat, nolabaiteko graduazioa eman daitekeela:

Esateko moduan garelakoan nago, moduzko elementu adberbialak, elementu predikatiboak eta osagarri zuzenak direla gai, fokua-ren posizioan perpausa testugintzara makurtu gabe joateko. (Osa 1990: 130).

Multzo errematikoaren burua aditzarekin hasten duenean ere, ez du aditz trinkoarekin hasiko, perifrastikoarekin baizik. Badirudi, bada, debeku horrek trinkoei gehiago eragiten diela perifrastikoei baino. Holakoetan, badirudi enuntziatu parentetikoak fokua-ren eta aditzaren artean kokatzen duela, baina, esan bezala, ez da ohikoa.

<sup>196</sup>Guk Euskaltzaindiari (1987), Osari (1990) eta Garziari (1997) jarraituz, aditzaren ezker alde hurbila joko dugu fokua-ren posizio naturalizat, nahiz eta jakin, zenbaitetan, eta bereziki euskara mintzatuan entonazioak aipatu ordena hau hauts dezakeela, galdegaia aditzaren eskuinean kokatuz. Galdegaiaren izaera ere kontuan hartu behar dela esaten du Euskaltzaindiak “adibidez, esaldi menperatu luze eta korapilatsu batek osatzen duenean, aditzaren eskuinaldean emateko joera dugu”. Alberdi eta Sarasolaren (2001) liburuan ere, ondoko izenburua darama atal batek: “Perpaus osagarrien salbuespena edo lizentzia: galdegaia predikatu nagusiaren ondoren”. Hildagoren tesia (1997) eta bere lanak (1996a, b, c, d; 1997, 2002) ikusi besterik ez dago galdegaiaren kokapen hori maiz hauts daitekeela jakiteko, nahiz kokapen honek dakartzan zalantzaz jabetzeko.



Honenbestez, E1 oinarrizko enuntziatuaren hasieran, mintzagaia jarriko du, bertan predikatuko dena espazioan eta denboran kokatzen duten elementuak eskaini ohi dira; hau da, adieraziko dudana *noiz*, *non*, *nork* egiten duen. Horren atzetik, edo hori hanpatuz, enuntziatu parentetikoa kokatuko du, eta segidan (nahiz beste osagarri batzuen ondoren) aditzera eman nahi den ekintza, gertaera edo egoera adieraziko du. Aditzaren atzean, zama informatibo txikien duten elementuak edo kokatuko ditu, Garziari jarraituz (1997), “perpau abarrak” nahiz “esaldi abarrak”; hots, “mintzagai-galdegai” joko horretatik at gelditzen diren osagaiak.

Enuntziatu parentetikoa mintzagaiaren segidan kokatze hau, gainera, lot dezakegu Hídalgo (1997b) aipatzen duen marko modalarekin ere.

Hídalgoaren arabera, komunikazio-legeek eskakizun dute esaldiaren marko predikatiboa eraikitzeke eginkizuna duten elementuak esaldiaren hasieran paratzea. Elementu horien artean kokatzen ditu bai elementu tematikoak eta modalak, bai esaldiaren aurreko testuinguruarekin lotura-zubia egiten duten elementuak eta baita esaldian jada ezagunak diren elementuak edota aurrerantzean ezaguntzat eman nahi direnak ere, ondoren honen gainean predikatzeke.

Guri interesgarri gertatzen zaigu predikazioaren marko honetan kokatzen dituela esaldiaren interpretazioa modalizatu edo alda dezaketen elementuak (1996e: 33). Izan ere, nola uka enuntziatu parentetikoek modalizazio mailan duten eginkizuna.

Predikazio-marko honen ondoren etorriko litzateke irazkina edo predikazioa.

Usu darabilen egitura komunikatibo honekin, gainera, pausaldiak markatzeko estrategia ere erdietsiko du.

Subjektuaren eta predikatuaren artean pausaldia adierazteko puntuazio-markak (koma, esaterakoko) erabiltzea desgokia den arren (edo delako), enuntziatu parentetikoez baliatzen da pausaldi hori markatzeko, eta horrek irakurketa ez ezik ulerkera ere erraztu egiten du. (Zubimendi & Esnal 1993, Esnal 2008: 43).

Subjektuaren eta aditzaren artean komak —koma bat baino gehiago, alegia— idazteketan, izan dadila koma-tartekoren bat adierazteke. (Zubimendi & Esnal 1993: 219).

Komunikazio-egitura horrekin batera, edo horren aurkez aurk, bada beste egitura bat, adibideen %18.23k jarraitzen duena: enuntziatu parentetikoa aditzaren aurretik jarri ordez, “fokua+aditza” bikotearen ondoren kokatuko du.

**B) Komunikazio-egitura 2**

(Mintzagaia)+fokua+aditza+(perpaus abar)+[E2]+ (esaldi abar)
--

Mintzagaiaz gain, “fokua eta aditza” bikoteaz osatutako multzo errematikoa enuntziatu parentetikoaren aurretik kokatzen du: bien artean batzuetan ez dago tarterik eta beste batzuetan egon litezkeen sintagmak beste mintzagai batzuen itxura hartzen dute.

Komunikazio-egitura honetan argi ikus daiteke enuntziatu parentetikoaren kokagunea aditzaren eskuinaldera joan dela. Izango luke, bada, aditzaren atzera-kargak arintzeko estrategiarekin loturarik (Zubimendi & Esnal 1993, Hidalgo 1996, Esnal 2008).

**C) Gramatikaren ikuspegitik bitxiak diren kokaguneak**

Bi komunikazio-egitura horien alboz albo badira kokagune batzuk (joeratzat jo ez badaiteke ere (% 8.49) gramatikaren ikuspegitik bitxiak bederen gertatzen direnak; izan ere, sintagmaren egitura hertsia hautsiko du enuntziatu parentetikoak.

Nagusiki “Izenlagun+izenaren” arteko lotura da hautsiko duena (%6.28) eta gutxiagotan “postposizio-sintagma” (%2.20).

1. Izenlagunaren eta izenaren artean kokatzen duenean, ordea, oso kontuan izaten du enuntziatu parentetikoak ere bere ezkerraldeko osagaiak bezala izenlagunaren marka gorde behar duela. Horrela, haustura hori leuntzea lortzen du eta begi-belarrientzat hain gogor ez gertatzea.

2. Postposizio-sintagma oso gutxitan eteten du (E1 perpaus lokabeek osatzen dutenetatik %2.20k, baina guztiak kontuan hartuta %1.2ra heltzen da soilik) eta haustura hau aurrekoa baino nabarmenagoa eta bitxiagoa gertatzen da.

3. Azkenik, fokua eta aditzaren arteko bloke hori hausten ere badaki (%7.86).

## 2) OINARRIZKO ENUNTZIATUA MAILA BEREKO PERPAUSEK OSATZEN DUTENEAN

Oinarrizko enuntziatua maila bereko perpausek osatzen dutela diogunean, koordinazio hori juntaturaz nahiz alborakuntzaz gerta litekeela ez dago dudarik. Corpuseko adibideek erakusten digute, ordea, juntaturaz baliatzen dela; koordinazio kopulatiboaz nahiz aurkaritzakoaz.

Pentsa dezakegu koordinaziozko juntagailua enuntziatu parentetikoaren aurretik nahiz atzetik joan daitekeela. Bi aukera horiek zilegi izanik ere, adibiderik gehientsuenetan (hiru adibidetan izan ezik), *eta* eta *baina* juntagailu-lokailuak enuntziatu parentetikoaren ondoren agertuko dira, nolabait oinarrizko enuntziatuari berriz eusteko eginkizuna beteko balute bezala:

$[E1]+[E2]+ \text{ eta/baina}+[E3]$ edota $E1+[E2]+\text{eta/baina}+E1$
---

Bi formulazioak dira zilegi; azken batean, oso zaila baita zehaztea oinarrizko enuntziatua maila bereko bi perpausek edo bi enuntziatuk osatzen duten. Are zailago, ikusirik *eta* eta *baina* juntagailu ez ezik lokailu ere izan daitezkeela.

Adibide guztien %8.08k hartzen du kokagune hau.

## 3) PERPAUS NAGUSIAREN ETA MENDEKOAREN ARTEKO MUGAN

Adibide(guzti)en %18.24k erakusten digunez, perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko muga horretan kokatzen du enuntziatu parentetikoa. Datuei erreparatu besterik ez dago jakiteko gune hau hautatzen duten adibiderik gehienak perpaus nagusiaren eta mendeko osagarriaren artean kokatzen dituela (%29.24 adibide)<sup>197</sup>.

Ugariak dira, horrez gain, baldintza perpausei nahiz kausalei dagozkien adibideak ere. Horietan, bai perpaus nagusiaren eta mendekoaren artean, bai mendeko perpausaren eta nagusiaren artean koka daitezke<sup>198</sup>. Batari eta besteari dagozkion adibideak pareko dabilta.

<sup>197</sup>Joera horrek ere izango luke atzerakargak arintzeko estrategiarekin zerikusirik, galdegaia mendeko osagarria denean aditzaren atzera eramaten baitu.

<sup>198</sup>Perpaus nagusiaren eta mendekoaren artean, puntuazioari dagokionez, honako ñabardura hau atzeman dugu: mendeko perpausa nagusiaren aurretik agertzen denean, bien arteko muga enuntziatu parentetikoaz ez ezik, komaren laguntzaz baliatzen da; aldiz, perpaus nagusia aurretik doanean, ez.

- Mendeko perpausa+[E2]+(.)+ perpaus nagusia
- Perpaus nagusia+[E2]+mendeko perpausa (komarik gabe).

Datuek erakusten digutenez, gainera, perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko muga hori kokagune aproposa gertatzen zaio batetik pausagunea egiteko, eta bestetik (euskaraz menderakuntzaren marka formala oro har, mendekoaren bukaeran jartzen denez), perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko muga agerian jartzeko; hau da, perpaus nagusiaren ondoren mendeko perpausa non hasten den jakiteko. Horrek ere salatzen digu, bada, Mitxelenak enuntziatu parentetikoak estrategikoki kokatzen dituela; azken batean badirela diskurtsoan aurrera egiteko komunikazio-estrategia. Eta hein batean hor ere aurki ditzakegu euskal prosari atxiki izan zaion egitura “antikomunikatibo” horri aurre egiteko bitartekoak:

Maiz irakurri eta entzun dugun ideia da eraginkortasun falta nabaria dutela egungo euskal testuek, alegia, ez dutela lortzen idazlearen komunikazio-helburuak betetzea. Komunikazio-arazo hauek sarri lotu dira, neurri batean behintzat, euskal hizkuntzaren ustezko barne-egitura antikomunikatiboarekin eta hainbat motatako sendagaiak gomendatu dira: mintzatutik hurbilago dagoen euskara erabiltzea, eta bereziki, esaldi laburrak egitea; lotura-hitz iragarleak erabiltzea, *adibidez ezen, baizik eta, baldin eta, nahiz eta* [...]. Edonola, garbi samar dago gabeziak konpontzeko formulek azken finean zerikusia dutela perpausen osagaien antolakuntzarekin eta puntuazioaren erabilerarekin. (Euskara Berezituaren Mintegia 2002).

#### 4) ENUNTZIATU PARENTETIKOA, OINARRIZKO ENUNTZIATUAREN ETA MENDEKO PERPAUSAREN BARNEAN

Corpuseko adibideen %11.01 daukagu egoera horretan. Hemen ere, oro har, perpaus nagusian bereizitako kokagunea da nagusi: subjektuaren eta predikatuaren artekoa. Gune honetan, ordea, perpaus nagusian ez bezala, subjektuaren eta aditzaren artean maiz kokatzen da (%32.8) enuntziatu parentetikoa, nahiz eta gehiago diren (%46.8) subjektuaren eta fokuen artekoak.

## 8. PUNTUAZIOA: ENUNTZIATU PARENTETIKOEN MUGA GRAFIKOA

### 8.1. GAIAREN KOKAPENA

Analisi formalari ezin diezaiokegu amaierarik eman puntuazioari dagokion alderdia aztertu gabe, testu idatzietan oinarritzen baita gure analisia eta ez ahozko ekoizpenetan eta, funtsean, puntuazio-markek osatzen dute enuntziatu parentetikoak corpusean identifikatzeko kanpokoena den formazko-irizpidea. Gainera, puntuazioa da edozein testu idatziren egituraren euskarri nagusienetakoa:

puntuazioa baita, hain zuzen ere, testu-markatzaileekin, harreman anaforiko-kataforikoekin eta beste bitarteko batzuekin batera, edozein testu idatziren egituraren euskarri nagusietakoa; testuaren egiturarena eta testuaren ulerterraztasunarena, komunikagarritasunarena. (Perez & Zulaika & Muñoa argitaratzean).

Baina ez horregatik bakarrik. Uste dugu puntuazioari —eta, bereziki, “bigarren gradu” puntuazio-marken erabilerari— buruzko hausnarketa (Mitxelenaren euskarazko idazkeran oinarritutako hausnarketa) euskara estandarren idazkera finkatzeko lagungarri gerta litekeela, ikusirik, bereziki, bibliografian diskurtsoaren linealtasuna hausten duten egiturak enmarkatzeko puntuazio-ikurren inguruko azterketetan dagoen hutsunea ia erabatekoa dela. Kopuruari dagokionez, izan ere, ezin esan daiteke literatura oparoegia dagoenik euskaraz puntuazioari buruz.

Puntuazioa lantzeko erabilitako euskarriak oro har, gramatika liburuak, estilo liburuak, idazkera liburuak, ortografia liburuak eta hiztegiak izan dira<sup>199</sup>, baina ez dago

---

<sup>199</sup> Perez, et al-ek argitaratzean duten “Puntua, bi puntu, hiru puntu... Puntuazioa Gipuzkoako gazteen-eskola testuetan” izeneko artikuluan puntuazioari buruz euskaraz dagoen bibliografia (apurra) aipatzen digute:

“Euskarari dagokionez, Euskaltzaindiak ez du berariaz puntuazioari buruzko araurik edo lan berezirik plazaratu. Alabaina, 0. arauan, Ortografiarenean, (Mitxelena 1968: 7) badago puntuazioari buruzko erreferentzia bat. Akademiatik kanpo, euskarazko estilo liburu batzuetan —ez guztietan (Alberdi, X. & Sarasola 2001)— arras landu dute puntuazioaren modu batera edo bastera: batetik komunikabideenetan: Euskaldunon Egunkaria (1992, 1995<sub>2</sub>), Berria (2006), eta bestetik administrazio publikoaren: (HAEE-IVAP 2005). Horiez gain, gramatika liburuetan (Alberdi 2008) nahiz idazkera liburuetan ere (Zubimendi & Esnal 1993; Ezeiza & Lekuona, Altuna 1995; Garzia 1997) jorratu izan dute gaia. Azkenik, eskolako testu-liburuak eta alde batera utzita, bestelako artikuluetan ere puntuazioaz hausnartu izan dute: Garzia (1996), Arrieta (1997), Odriozola (2005), Roque (2009a, 2009b)... Ortografiaren alderdia berariaz jorratzen duenik ere bada, gutxi badira ere: Euskaltzaindiaren arauaz gain, Zubimendi (2004), Arakama eta beste (2005). Euskarriak eta ikuspuntuak hainbat badira, beraz. Aitzitik, kopuruari dagokionez, ezin esan daiteke literatura oparoegia dagoenik euskaraz puntuazioari buruz. Are gutxiago euskal hiztun-idazleen puntuazio-jardunaren deskripzio zehatz berariazkorik. (Perez, Zulaika, Muñoa) ( argitaratzean dago).

euskal hiztun-idazleen puntuazio-jardunaren deskripzio zehatz berariazkorik. Beraz, Mitxelenaren euskarazko idazkeran oinarritutako bigarren graduko puntuazio-markei buruzko lan deskribatzaile honen bitartez gure aletxoa ekarri nahi diogu euskal bibliografiako komunikazioaren ikerketari, nahiz eta jakin hemendik aterako duguna ez dela puntuazio-legerik izango, Mitxelenaren puntuazio-joera nagusien ildo nabarmenenak baizik.

Garbi dago, goian esan bezala, testu idatzietan oinarritzen dela gure analisia eta ez ahozko ekoizpenetan. Ahozko ekoizpena euskarri duten azterketetan, entonazioan bertan aurkitu uste dute intzisoen eta parentetikoaren arteko diferentzia. Esate baterako, gaztelaniazko entonazioari buruz egindako azterketa batean, J.M. Canelladak eta K. Madsenek (1987: 142-143) erakutsi digute parentetikoa entonazio aldetik intzisoa baino baztertuago ageri dela<sup>200</sup>. Intzisoa, gaztelaniaz behintzat, *s* (*suspensión*) batetik abiatu eta *anticadencia* edo *semianticadencia* batean amaitzen da; parentetikoak, aldiz, aurretik eta atzetik *c* bat darama (*cadencia*).

Arrazoibide honi ere heltzen dio Fuentesek intzisoen eta parentetikoaren artean dagoen aldea agerian uzteko. Autore honen ustez (1998: 158), *semicadenciak* nahiz *cadenciak* enuntziatua amaitu dela adierazten digu, baina *anticadenciak* edo *semianticadenciak* ez du enuntziatuaren amaiera adierazten.

Eta iritzi horrek indartu egiten du gure ustea: parentetikoez dihardugunean enuntziatuez dihardugula; E1 oinarritzko enuntziatu baten egitura sintaktiko-semantiko eta diskurtsozkoa hausten duen beste E2 enuntziatu batez, hain justu ere. Enuntziatu parentetikoa, beraz, bere eskukoa da, bere entonazio eta guzti.

Baina nola islatu intonazioaren aldetiko bereizketa hori testu idatzietan? Nola bereizi, entonazioak egiten omen<sup>201</sup> duen bezala, enuntziatua amaitu den edo ez? Idatziz ba ote dugu bitartekorik parentetikoa intzisotik bereizteko? Edo, zehatzago, egitura jakin horietarako berezi diren bigarren graduko puntuazio-ikurren artean (koma parearen<sup>202</sup>, marren eta parentesien artean) ba ote dago desberdintasunik? Hau da, Koldo Mitxelenak ba ote zuen

<sup>200</sup>Entonazioan nabarmentzen den desberdintasuna uste dugu orain arteko analisi sintaktiko-testual eta metodologiazkoan ere atzematera iritsi garela. Hasierako intuizioa da intzisoek (E2), oinarritzko enuntziatuaren (E1) egitura sintaktiko eta semantikoarekin lotura handiagoa dutela parentetikoek baino. Parentetikoak, izan ere, haustura sintaktiko-semantiko eta diskurtsibo handiagoa dakar berarekin.

<sup>201</sup>*Intziso* eta *enuntziatu parentetikoak* bereizteko irizpidetzat entonazioa hartzea ez zaigu oso argigarria iruditzen: batetik, testu idatzietan oinarritzen garelako, eta bestetik, euskarari dagokionez behintzat, euskaraz ez dagoelako azter-esparru hau oso garatua.

<sup>202</sup>Oro har, komak ez dira bigarren graduko puntuazio-marken artean aipatzen, baina argi dago (corpusari begiratu besterik ez) eginkizun hori izan dezaketen koma pareak badirela.

bere testu idatzietan parentesiak marretatik edo komen artekotik bereizteko irizpide zehatzik? Edota bereizten ari zelako kontzientziarik?

Galdera-andana horri erantzunen bat ematea lan nekeza da (eta agian, ezinezkoa), baina erantzunen bat eman nahiak (edo horren inguruko hausnarketaren bat egin nahiak) garamatza puntuazioaren alorra aztertzerara. Uste dugu, izan ere, puntuazioaren aldetiko ezaugarritzeak enuntziatu parentetikoaren izaera gardenago ikusten lagunduko digula.

Beraz, oso kontuan izan beharko dugu, gure azter-esparrua testu idatzietan oinarritzen denez gero, Mitxelenak enuntziatu parentetikoak gainerako testutik bereizi eta mugatzeko zein puntuazio-ikur darabiltzan, eta puntuazio-ikur horien artean ba ote dagoen alderik edo ezberdintasunik.

### **8.1.1. Bigarren graduko puntuazio-markak**

Goiko galdera horiek guztiak horrela planteatuz, norbaitek pentsa dezake puntuazioaren egitekoa, bete-betean, entonazio hori idatzian txertatzera mugatzen dela. Baina, ez. Puntuazio-konbentzioen arrazoia ez da entonazioaren laguntzaile soil izatea, nahiz eta argi dagoen alderdi fonikoak zerikusi zuzena duela puntuaziorekin.

Izan ere, intonazioaren proiektioztat jo daiteke, lege onez, puntuazioa. Zer da, ordea, intonazioa, zentzuaren proiektio bat baino? Hala puntuazioaren eginkizuna zera litzateke: esaldiaren zentzua argitzen laguntzea, intonazioa nola edo hala islatuz. (Garzia 1997: 38).

Aldez edo moldez bat gatoz goiko aipuarekin, uste baitugu puntuazio-ikurrak irizpide sintaktiko diskurtsiboek —hau da, diskurtsoaren antolamendutik eratorritako irizpideek— gidatzen dituztela, eta ez hainbeste entonaziotik eratorritako irizpideek. Eta hori nabarmena da enuntziatu parentetikoak testu idatzian aditzera emateko eginkizuna duten puntuazio-markei erreparatzen badiegu. Horiek, azken batean, testuaren unitate edo egitura sintaktiko-diskurtsozko jakin batzuk zedarrizterara edo inguratzera lerratuko baitira.

Idazleek, bada, enuntziatu parentetikoak testuetan txertatzeko puntuazio-ikur jakin batzuetara jo ohi dute. Nina Catachek (1980: 22; 1994: 72), R. Lauferi jarraituz dioen bezala, “*marques de second régime*” edo bigarren graduko edo mailako puntuazio-ikurretara: intzisoko bi koma, marra nahiz parentesietara. Hauei, “enuntziatio-markak” ere deitu izan zaie (Catach 1980: 22).

Les signes d'énonciation forment également un sous-système séparateur, marquant une distanciation de plus en plus grande des divers plans du discours: la séparation se fait ici non entre les segments de la chaîne syntaxique principale (segments intrasyntactiques), mais entre les locuteurs ou points de vue, présents dans la situation de communication (segments intersyntactiques), ce que R. Laufer appelle la marque d'un "second régime" ou niveau de discours: incises, parenthèses, crochets, marques de régie (dans les scénarios et les pièces de théâtre par exemple), deux-points, guillemets, tirets, alinéas, usage de l'italique, etc. (Catach 1980: 22).

Beraz, ez gara puntuazioa oro har aztertzeraz lerratuko. "Bigarren graduko" ikurrei erreparatuko diegu (eta ez guztiei, koma pareari, marrei eta parentesiei soilik), hauek baitira diskurtsoaren linealtasuna hausten duten egiturak islatzeko baliabide nagusi. Are gehiago, gu puntuazio bidez mugatuta edo inguratuta dauden haietan bakarrik oinarrituko gara; hau da, esatariak jakinaren gainean, puntuazio markatu bati esker, testuan txertatzen dituen haietan soilik.

Ez dugu ukatzen perpaus bazterreko posizioan bistan agertzen ez den digresiorik, modalizatzailearik, edo birformulazioarik ez dagoenik. Egitura hauek agertzeko modu bat baino gehiago egon daitezke, baina guk berariaz, enuntziatu parentetiko gisa agertzen direnei soilik erreparatuko diegu. Eta horretarako ezinbestekotzat jotzen dugu puntuazio-demarkazio jakinekin, esatariak intentzio osoz, perpaus bazterreko posizioan kokatuta agertzea.

Idazleak ba ote du, ordea, bi komak, marrak nahiz parentesiak bereizteko arau-irizpiderik? Edota bataren ala bestearen arteko hautua norbanakoaren araberakoa ote da?

Galdera horiei erantzunen bat eman nahiak corpuseko adibide zehatzak aztertzeraz garamatza.

## 8.2. CORPUSEKO ADIBIDEAK AZTERGAI

La entonación y la puntuación son mecanismos de cohesión independientes y pertenecientes a dos modalidades distintas y *equipolentes* del idioma (Cassany, 1987) Por ello, es mucho más rentable y comprensible fundamentar el aprendizaje y el uso de los signos de puntuación en la observación y en el análisis sintáctico. (Cassany 1993: 184).

Aldez edo moldez bat gatoz goiko aipuarekin; uste baitugu puntuazio-markak irizpide sintaktiko diskurtsiboek —hau da, diskurtsoaren antolamendutik eratorritako irizpideek— gidatzen dituztela; eta ez hainbeste entonaziotik eratorritako irizpideek.



Beraz, bigarren graduko puntuazio-marken artean Mitxelenaren diskurtsogintzan alderik ba ote dagoen ikusteko, edo puntuazio-marka bat erabili edo bestea erabili zerk arautzen edo baldintzatzen ote duen aztertzeko, irizpide sintaktiko diskurtsozkoiei erreparatuko diegu. Azterketaren oinarri ondorengo irizpide hauek joko ditugu:

1. TIPOA: Parentetiko TIPOak edo E1 eta E2ren arteko koherentziazko harremana formalki gauzatzeko moduak eragiten ote du puntuazio-marka bat edo bestea hautatzen? Ba ote dago enuntziatu TIPOAren eta bigarren graduko puntuazio-marken arteko ko-erlaziorik? Azken batean, enuntziatu TIPOAren atzean bi enuntziaturen arteko harremana formalki gauzatzeko modua baitago. Eta TIPO bakoitzaren barneko enuntziatu motak hobesten ote du puntuazio-demarkazio jakin bat? Esaterako, *eta* buruan daramatenetan antzematen ote da ikur jakin baten aldeko joera? Estilo zuzenak zein ikur hobesten du?
2. KOKAPENA: distribuzio-guneak izan ote dezake eraginik puntuazio-marka bat edo beste bat hobesteko?
3. IZAERA SINTAKTIKOA: Enuntziatu parentetikoaren izaera sintaktikoak baldintza ote dezake bera inguratuko duen puntuazio-marka? Alegia, aditza duten enuntziatu parentetikoak zein ikurren aldera lerratzen dira? Eta aditzik gabekoak?
4. KOMUNIKAZIO-EGINKIZUNA: Enuntziatu parentetikoek diskurtsoan betetzen duten komunikazio-eginkizunak ba ote du eraginik puntuazio-hautaketan? Barkamena eskatzeko, edo kortesiazko jokabideetarako zein ikur hobesten du? Esatariak enuntziatu duenari buruz autokritika egin nahi duenean zein puntuazio-ikur hautatzen ditu?

Azterketa ahalik eta xeheena izan dadin, hasieratik bertatik TIPO bakoitza bere bakarrean aztertuko dugu eta tipo bakoitzaren adierazgarri diren enuntziatu motak ere bai. Horrela jokatzuz, agian, errazago ikusiko baitugu Mitxelenak bigarren graduko puntuazio-ikur hauek txertatzean zein arauri jarraitzen dion, edo behintzat, zein joera den nagusi.

### 8.2.1. A Tipoa

Enuntziatu tipo hau da E1 eta E2ren arteko koherentzia aditzera emateko formazko baliabiderik erabiltzen ez duena. Beraz, litekeena ere da bi enuntziatuen arteko haustura-

maila handiago horrek bere eragina izatea puntuazio-marken bidez enuntziatua mugatzerakoan edo inguratzerakoan ere.

### 8.2.1.1. MODALITATEAREN ALDAKETA ADIERAZTEN DUTEN ENUNTZIATUAK

Modalitate-aldaketaren adierazgarri diren enuntziatu parentetiko gehienak A TIPOari badagozkio ere, bada modalitate-aldaketaz gain testu-antolatzailearen bat daraman adibiderik (beraz, B TIPOkoa denik). Guztiak, ordea, atal honetan aztertuko ditugu, horrela datuak osotasun batez aztertzeke aukera izango baitugu.

Joera nagusia enuntziatu parentetikoak modalitate-aldaketa aditzera ematen duenean parentesiz inguraturik adieraztea litzateke. Ikus dezagun datuen taula:

<b>MODALIZAZIO ALDAKETA</b>	<b>KOMAK</b>	<b>MARRAK</b>	<b>PARENTESIAK</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>A TIPOA</b>				
E1 adierazpenezkoa eta E2 galderazkoa	0	2	17	19
E1 adierazpenezkoa eta E2 harridurazkoa	0	2	5	7
E1 adierazpenezkoa eta E2 aginterazkoa	0	2	8	10
E1 galderazkoa eta E2 adierazpenezkoa	0	2	0	2
<i>Guztira</i>	<i>0</i>	<i>8</i>	<i>30</i>	<i>38</i>
<i>Guztira % zenbat</i>	<i>%0</i>	<i>%21.05</i>	<i>%78.94</i>	<i>%100</i>
<b>B TIPOA</b>				
E1 adierazpenezkoa eta E2 galderazkoa				
ETA+	0	7	1	8
EDO+	0	0	1	1
GAINERAKO testu antolatzaileak+		2	2	4
E1 galderazkoa/harridurazkoa eta E2 adierazpenezkoa	1	0	0	1
<i>Guztira</i>	<i>1</i>	<i>9</i>	<i>4</i>	<i>14</i>
<i>Guztira %zenbat</i>	<i>%7.14</i>	<i>%64.28</i>	<i>%28.57</i>	<i>%100</i>
<b>C TIPOA</b>				
E1 galderazkoa eta E2 adierazpenezkoa	0	1	0	1
<i>Guztira</i>	<i>0</i>	<i>1</i>	<i>0</i>	<i>1</i>
<i>Guztira %zenbat</i>	<i>%0</i>	<i>%100</i>	<i>%0</i>	
<b>Emaitza orokorra</b>	<b>1</b>	<b>18</b>	<b>34</b>	<b>53</b>
<b>Emaitza orokorra ehunekoetan</b>	<b>%1.92</b>	<b>%34.61</b>	<b>%65.38</b>	<b>%100</b>

Ikus ditzagun datuak adibideez horniturik:

A) E1 oinarrizko enuntziatua adierazpen-perpaua izanik, E2 enuntziatu parentetikoa galde-perpaua denean

- Baina kopet harro ez direnek (**ez garenek?**) ez dute damu izango ikustera joana. (ZIN: 124).

- Iñakik eta Begoñak seme bat dute: “el” Txantxo (**ze izen arrano ote da hori?**). (ZIN: 133).

- Nabari zaio ez dela gaia zenbaiten (**askoren edo gutxi batzuen?**) gogoko izango eta hala ere, edo horrexegatik beragatik, batere beldur eta kupidarik gabe azaldu nahi luke. (ZIN: 145).

- Behingoz bederen, zinemak, ixpilu (**zeren ixpilu gero?**) izateari utzirik, amets-ateak iriki dizkigu, Albert Lamorisse´ri eskerrak. (ZIN: 170).

Badira, ordea, marren artean inguratzen dituen bi adibide:

- Haiek baino hobek eta dohatsuagoak ote gara, ordea, horrenbestez? eta, zinea artea denez gero —**zazpigarrena?**—, gure arte-lanak ederragoak ote haienak baino? (ZIN: 160).

- Eta azkenean, behar bezala, onek daramate saria, diruaren ordezkiantzia garbia besterik ez bada ere. Izan ere —**nork ukatuko?**— ez omen da aberastasun hoberik. (ZIN: 167).

Beraz, joera nagusiez mintzatu beharra daukagu, beti ez baita betetzen modalitate-aldaketaren eta parentesien arteko lotura.

1. ETA buruan duen enuntziatu parentetikoarentzat marrik hobesten ditu Mitxelenak. Ez dugu parentesien arteko adibiderik ikusi (5 adibide).
2. EDO buruan daramanean parentesien artean inguratu du (adibide bakarra).
3. Bestelako antolatzaileez abiatzen diren parentetikoetan parentesi nahiz marrik erabili ditu enuntziatua inguratu edo mugatzeko (adibide bana).
4. A tipoko enuntziatu parentetikoak inguratzeko bi adibidetan izan ezik (horietan marrik baitarabiltza), parentesiak erabili ditu (17 adibide).

Honenbestez, A eta B tipoak kontuan izanik, E2 enuntziatuak galderazko modalitatea dakarrenean *eta* buruan daraman enuntziatu parentetikoa bereizten da gainerakoetatik.

Enuntziatu mota horretarako marrak hobesten ditu (5 adibide), baina gainerakoetarako, oro har, parentesiak (20 adibide).

B) E1 galderazkoa izanik, E2 adierazpenezkoa denean

Holakoetan, marren aldeko joera ikusten da (8 adibide), nahiz eta badagoen *alegia* bidezko birformulazio bat komen artean ere.

- Ez ote genuen ikusi nola joan zen “Monsieur Vincent” —**ez zen film txarra**— tximistak egiten gure artetik, karitateari buruz zalaparta gehiegitxo ateratzen zuelako edo, gure kritikak, edozein “Sor Angélica” edo “Madre Alegría” laudorioz betetzen duen kritika horrek, txintik esan gabe? (ZIN: 139).

- Hau guztia ez ote da gai egokia garai horretako kondaira, baina barrengoa, ez azalekoa — **Unamunok “intrahistoria” deitzen zuen hura edo**—, egin nahi duenarentzat? (LIB II: 111).

- Eta zenbait pezetaren truke —**askotxo badira ere**— bihotzeko pake hori ateratzea gutxi al da? (ZIN: 124).

C) E1 adierazpenezkoa izanik, E2 aginterazkoa denean

Beti parentesietara jotzen du (10 adibide).

- Ohartxo bat. Euskaraz ere Juslapeña agertzen da 14 garren orriadeko oharrean, Txulapain-en ordeztan (**ikus A. Irigaray, Euskera, 1956, I, 46gn orrialdean**). (LIBI:104).

- Dirudienez, ez baitut kontatu, 255 lerro utzi nizkion Larramendiri, “cuya obra principal es un diccionario vasco-español (**atzekoz aurrera irakur beza irakurleak**) plagado de aberraciones”, eta 38 Bilintxi, beste zenbaiten artean. (LIB II: 83).

- Hemen aipatu nuen Orbelak-en ondoren (**ikus iazko EGAN, 99-100 orrialdeetan**), laster irten da Arantzibia-ren bigarren olerki liburua. (LIB I: 143).

D) E1 adierazpen-perpaua izanik, E2 harridurazkoa denean

Ez da ikur jakin batera lerratzen: marren artean hiru eta parentesien artean bost adibide ditugu. Guztiak, gainera, A tipoari dagozkio. Ikus ditzagun adibide batzuk:

#### Parentesien artean

- Esate baterako, jainko-jainkosak h-z jositako hizkera batean (**ai, behar den lekuan baleude!**) mintzatzen dira, eta gizon hilkorak halako Bizkai-usai arin bat darion beste batean. (LIBI:68-69).

- Direnak direla, garai hartako aztarna aurpegian daramate ("**O Egiptuzua glorioso!**"), eta nork esango du gure oraingo hau baino kaxkarragoa zenik? (LIB II: 81).

- Ongi merezia dute "Arantzazuko prailleek" aipamen berezi bat (...) Gainerako laguntzaileen izenak ere banan-banan emango nituzke, lekuri banu. Oker ez banabil, bi horiek barrenean ditugula, guztira (**o Oteiza adiskidea!**) hamairu (sic) dira. (LIB II: 101).

#### Marren artean

- Irakurgai hori ez da sasikoa, badu bere jabea. Eta ezin alda daiteke jabearen baimenik gabe zenbait huskeriatan —grafian, huts nabarietan— izan ezik. Are gutxiago egilea — **nolakoa, gero!** — hilik dagoenean. (LIB I: 79).

- Eta azken urteotan euskal gaietan egin ditugun aurrerapenez miretsirik baldin bagaude —**ai, aurrera egin bagenitu beti aurrerapen horiek!**—, ez dago ahaztuzterik aurrerapen horiek, gaurko izaerak eta egoerak, aldi igaroetan dutela erroa eta oinarria, batez ere oraindik orain, atzo esan dezakegu, euskaraz mintzatzen, hitz lauz nahiz neurtuz, ahalegindu ziren idazle eta bertsolariengan. (LIB II: 52).

- Clark Gable-ren kaskoa —**ai, gurearen gisara!**— gero eta urdinago ageri dela ere esango nitzuke, baina hori badakizue honez gero, nik bezain ongi. (ZIN: 141).

### 8.2.1.2. ESTILO ZUZENA

Estilo zuzenaren adierazgarri den enuntziatu parentetikoa gehienetan (% 70.37) marren artean inguratzen du. Bada, halere, komen artean (%18.51) nahiz parentesien artean (%11.11) agertzen denik:

#### Marren artean

- “Harrigarria da —**dio, gutxi gorabehera, maiz aipatzen dudan Donostiako kritiko erne eta trebe batek**— zein zuzen dabilen film hau gertatutakoen ondoan, zein zehazkiro biztu duen Douglas Sirk´ek aldi joana. (ZIN: 142).
- “Azkenean —**besteren hitzak hartuko ditugu ahoan**—, ikusia zegoenez, Ben Trane zintzoak hiltzen du Joseph Erin bihurria”. (ZIN: 143).
- “Gainalde zurituak nahikoa erakutsi eta goraiatu ditugu —**esan du berekiko**—, goazen behin zoko ilunak miratzera” (ZIN: 145).

#### Komen artean

- “Begira, **esaten ziguten**, ez du horrek besteen gisa apainduri aberatsen beharrik. (ZIN: 135).
- Badugu denok, **esaten digu Cayattek**, bai gerok ere, zer ikusirik auzi horretan. (ZIN: 138-139).
- Behin, aldizkari honetan (EGAN 1957, 133 or.), Axularren alde onez eta txarrez mintzatu zitzaigun A. Mujika: arriskubide izan daiteke, **zioen**, euskal gaietan ongia eta gaizkia ezagutzeko adinbat jakituri ez dutenentzat. (LIB I: 121).

#### Parentesien artean

- Hauek erdaraz agertzen dira lehenbizi (**erdara zuzenean, dio egileak**), euskal erdaraz gero (erdal hitzak euskal ordenan antolatuak) eta euskaraz azkenik. (LIB I: 98).

- Erlijioan bertan askozaz gehiago zor zion (**berak aitortua**) Gandhik Kristautasunari, edozein europar nabarmenek budismoari baino. (LIB I: 141).

Goiko adibideek erakusten digutenez, estilo zuzeneko diskurtsoa aditzera emateko ere ez du beti eta ezinbestean marretara jotzen; ildo beretik, besteren hitzak diren-direnean bere diskurtsoan tartekatu nahi dituenean ere, kakotxez gain, marretara (%63.63) nahiz parentesietara (%36.36) jo ohi du:

- Eta aldamenekoaren oihuak belarrian ditugula, nola amets egin, “Cinemascope” —**“mundua sortu zenez gero ikusi den gauzarik miragarriena”**— berriarekin ere? (ZIN: 129).
- Kolore bizirik ere ez, eguzkiaren basoko harrigarritzko ibilerak —**“osto-pilo eta izar izunak habe”**— eta euriaren etengabeko emana begietaratzeko. (ZIN: 130).
- Eta hainbeste esaera gogoangarririk (**“koldarra ehun bider hiltzen da; bihoztunak ordea ez du heriotza behin baino dastatzen”**) gehiago merezi zuen. (ZIN: 127).
- Juduen profetak kristautasunaren aitzindariak dira guretzat, erlijio samurrago baten bideak zabaltzen zituztenak. Beste zerbait ziren, ordea, garai hartako askorentzat eta batez ere orduko *beati possidentes* zirenentzat: nolabaiteko bizimodu nabarmena daramaten arlote alprojak (**“Hoa, har ezak lizunkeriazko emaztea eta sor itzak lizunkeriazko seme-alabak”**), oihu eta garraxi herriz-herri dabiliz bazter nahastaileak. (LIB II: 117).

Beraz, estilo zuzena aditzera emateko, nahiz besteren hitzak zuzen-zuzenean esatariaren diskurtsoan txertatzeko ez du beti, puntuazio-ikurrei dagokienez behintzat, jokabide bera erakusten.

### 8.2.1.3. ADITZA DARAMATEN ENUNTZIATUAK

#### 8.2.1.3.1. Kokagunea edo integrazio-gunea

Kokagunearen edo distribuzioaren irizpideak bigarren graduako puntuazio-ikurra hautatzeko baldintzatzen ote duen aztertuko dugu. Hasteko, taulaz baliatuko gara kokagunearen eta puntuazio-ikurren arteko lotura-harremana garbiago ikusiko delakoan:

Aditza daraman enuntziatu parentetikoaren kokagunea	Komak	Marrak	Parentesiak
<b>E1 oinarrizko enuntziatua perpaus lokabea denean</b>			
<b>1. Mintzagaia+[E2]+fokua+aditza</b>			
<b>A) Subjektua topikalizatuz, subjektuaren eta predikatuaren arteko muga</b>	<b>8</b>	<b>14</b>	<b>1</b>
<i>Subjektua+[E2]+adberbio-osagarria+aditza</i>	<b>6</b>	<b>9</b>	<b>1</b>
- Subjektua+[E2]+moduzko aditzondoa+aditza	2	4	0
- Subjektua+[E2]+ezezko aditzondoa+aditza	3	4	1
- Subjektua+[E2]+ba-+aditza	1	1	0
<i>Subjektua+[E2]+predikatu-osagarria+aditza</i>	1	1	0
<i>Subjektua+[E2]+osagarri zuzena+aditza</i>	1	4	0
<b>B. Adberbio-osagarria topikalizatuz</b>			
<i>Adberbio-osagarria+[E2]+adberbio-osagarria+aditza</i>	<b>2</b>	<b>1</b>	<b>0</b>
- Adberbio-osagarria+[E2]+ba-+aditza	1	0	0
- Adberbio-osagarria+[E2]+moduzko adberbioa+aditza	1	1	0
<i>Adberbio-osagarria+[E2]+osagarri zuzena+aditza</i>	0	1	0
<b>C. Zehar osagarria topikalizatuz</b>	<b>0</b>	<b>1</b>	<b>0</b>
<b>2. “Fokua+aditza” bikotearen ondoren</b>	<b>2</b>	<b>8</b>	<b>0</b>
<b>Guztira ehunekotan</b>	<b>%32.43</b>	<b>%64.86</b>	<b>%2.7</b>

Datuek erakusten digutenez, aditza duen E2 enuntziatu parentetikoa perpaus lokabearen forma duen E1 oinarrizko enuntziatuan tartekatzeke, marretara jotzen du Mitxelenak nagusiki (%64.86) eta baita bi komen artean inguratzerara ere (%32.43). Gutxien parentesiez inguratutako adibideak ditugu, baina E1 lokabea izan ordez perpaus konposatuak osatzen duenean, parentesiez inguratutako adibideen kopurua asko igotzen da (%21.05).

E1 perpaus konposatua denean	Komak	Marrak	Parentesiak
<b>- Maila bereko perpausen artean</b>	0	9	6
<b>- Perpaus nagusia+[E2]+mendeko perpausa</b>			
- Perpaus nagusi+[E2]+mendeko perpaus osagarria	2	2	1
<b>- Baldintza-perpausetan</b>	0	4	0
<b>- Kausazko perpausetan</b>			
- Kausazko perpausa+[E2]+ perpaus nagusia	0	4	0
- Perpaus nagusia+[E2]+kausazko perpausa	3	2	
<b>- Kontzesio perpausetan</b>	0	2	0
<b>- Moduzko perpausetan</b>	0	0	1
<b>-Mendeko perpausaren barnean</b>	0	2	0
<b>Guztira % zenbat</b>	<b>%12.5</b>	<b>%67.5</b>	<b>%20</b>



Perpau konposatuetan marren aldeko joera ikusten da (%67.5), bai maila bereko perpauen artean kokatzen denean (%60) eta baita perpau nagusiaren eta mendekoaren arteko mugan kokatzen denean ere (%69.56).

Datuetan ikus daitekeenez, bai perpau kausalaren eta nagusiaren artean, bai kontzesio perpauaren eta nagusiaren artean eta baita baldintzazkoaren eta bere nagusiaren artean ere enuntziatu parentetikoa marraz soilik inguraturik tartekatzen du:

### **Perpau kausala+[E2]+perpau nagusia**

- Halaz guztiz, beste aldekoak eta gu hizkuntza bereberean mintzatzen *garenez gero*—**zenbait huskeria gorabehera**—, ez digu guri ere on baizik egingo. (LIB I: 104).

### **Baldintza perpausetan**

- Diren baino hamar halako arandegi gehiago irekiko *balira* —**ez da hau nik asmatua**— ez lirateke hordiak hamar aldiz gehituko; etxean ditudan halako bi ohe baneuzka, ez nuke horregatik lo gehiago egingo. (ZIN: 135)

### **Kontzesio perpausetan**

- Eta atertu gabe aditzera ematen diguten irakaspén honetaz jabetu ez *bagina ere* —**ez digu guziori argitasun berbera eman Jainkoak: zinemagile izango ginateteke bestela zinema-ikusle izan beharrean**—, astiro azaltzen digute azkenean “De rerum natura”-tik hartua dirudien hitzalditxo baten bidez. (ZIN: 147).

Mendeko perpauaren barnean kokatzen duenean ere, marrez inguratzen edo mugatzen ditu enuntziatu parentetikoak:

- Aski izango omen da, diotenez, norbaitek —**ez dakigu nork**— botoi kaxkar bat estutzea edo urrutizkin bat eskuetan hartzea. (ZIN: 194).

Gainerako kokaguneetan, ordea, marraz ez ezik bi komak nahiz parentesiak ere badarabiltza. Alternantzia horren adierazgarri ikus ditzagun ondorengo kokaguneak eta haiei dagozkien adibide batzuk:

**Subjektua+(lokailua)+[E2]+ezezko aditzondoa+aditza**

- Baina *yeben* (***xeben* behar luke izan**) EZ da euskal hitza eta horixe esan nahi dut, ez dela euskal hitza. (LIB I: 115).

- Nire begiak behintzat, **zorrotzagoak ez dakit**, EZ ziratekeen konturatuko, aldeztatik jakin ez banu. (LIB I: 84).

- Gerok ere —**zerbait jakiteko zaleturik geunden aspaldian**— EZ ditugu gogo gaiztoz ikusi. (ZIN: 160).

- Dassin bera ere —**badakigu guztiok zergatik bidali zuten Ameriketatik**— EZ da ausartu langile iaio eta adoretu hauei zor zitzaien neke-saria ematera. (ZIN: 186).

**Subjektua+[E2]+predikatu-osagarria+aditza**

- Neroni ere, **aitortzen dut**, HORIETAKOA nauzu. (ZIN: 123).

- Hizkera berriz<sup>203</sup> —**horretaz ausarkiago mintza gintezke**— EDERRA ETA UGARIA [da]. (LIB I: 47).

**Subjektua+[E2]+ba-+aditza**

- Hitzek, **jakina da**, BAdute beste zerbait, adimenez nolazpait besarka daitekeen adieraz gainera, adimenak ikusten ez badu ere bihotzak uki dezakeena: beren giroa, usaia, lurrina eta sentimen kutsua. (LIB I: 117).

- Bestelako “paisajeak” nahiago dituenak —**gehienon haragia argala da eta**—, BAdu ikusteko Sofia Lorenen dantza bat. A, gure Prai Bartolome bizi balitz! (ZIN: 191).

**Subjektua+Fokua+aditza+[E2]+Predikatu-osagarria**

- Gregorio Arrue EZ da, **jakina dago**, liburu honen egilea. (LIB II: 43).

---

<sup>203</sup>Ikus dezakegunez, lokailuaren ondoren ez du ezinbestean koma bikoitza erabiltzen. B tipoko enuntziatu parentetikoekin ez bezala, adibide bat baino gehiago aurkitu dugu lokailuaren ondoren marrek inguratzen dutena.

- Hizkuntza bat ikasi behar edo nahi duenarentzat, gramatika EZ da —**hori behar luke behintzat izan**— lasterbide bat besterik, igo behar duen aldapa latza menderatzek eskeintzen zaion laguntza eta erraztasuna. (LIN II:62).

Enuntziatu parentetikoa maila bereko bi perpaus koordinaturen artean kokatzen denean ere bai marrak eta baita parentesiak ere badarabiltza; inoiz ez koma bikoitza:

### **Perpaus koordinatu kopulatiboen artean**

- Lagunek parre egiten diote —**neskatxa ez da aldamenean harro harro erakutsi nahi izaten ditugun horietakoa**— *eta* bere ama ere, “Noiz ezkondu behar duk”-ka beti ari zitzaion ama, ez du semea ezkontzeko bidean ikusteak gehiegi alaitzen. (ZIN: 151).

- Gertakariak kontatzen mutila izan da beti (**ez dago gure Patroi Aundia-ri begiratu besterik**) *eta* bizi eta argiro kontatzen duena euskara erraz, laster, malkarrik gabeko batean esaten du. (LIB I: 123).

### **Perpaus koordinatu aurkaritzakoen artean**

- Gizonaren bihotzeko izkutuen berri ere bazekien —**ez zuen lanbide txarra horretarako**—, *baina* Pereda eta Rochel'en gisa, sortzen zituen gizakiek ez zuten gaurko nobeletan ageri diren zenbaitek adina azpil, bihurgune eta zoko ilun. (LIN I:43).

- Gai aukeraz zerbait esan daiteke (**arrantzari hiru hizketaldi ematea gehiegitxo dirudi**), *baina* batez ere hor agertzen diren hitz-esaerak ez dira jatorregiak, maiz aski ezta dotoreegiak ere. (LIB I: 109).

Perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko mugan, nagusiki, marrak erabiltzen baditu ere, beste hainbatetan marra horiek parentesiekin txandakatzen ditu.

### **Perpaus nagusia+[E2]+mendeko osagarria**

- Poliki-poliki hasten da Maisu Juan ikusten —**horrelako zerbait gertatu bide zitzaion Sokratesekin jarduten zutenei**— erdi ustela zela zuen jakin-ustea. (LIB I: 72).

- Egia da, **aitor dezagun lehenbaitlehen**, ez dugula Atila hau gure haurtzaroko eskola-liburuetan ikusi genuen Jaunaren Zigor ikaragarri hura. (ZIN: 142).

- Badirudi gainera (**besteregangandik hartu dut berri hau**) liburu hau 1885ean Tolosan argitara baino lehen agertu zela, Tolosan bertan, 1868an, beste “Santa Genovevaren vicitza” bat, “pertsona prestu guztientzat, baña berezkiro amakin beren seme alabentzat ere egokia. (LIB II: 43).

### **Perpaus nagusia+[E2]+ perpaus kausala**

- Eta ez dezazula Jainkoagatik gutxietsi, **garbizale horrekin ari naiz**, nahi bezain garbi ez deritzazulako. (LIB II: 40).

- Liburu honek, honezkero guztiok dakigunez, eraman du aurtengo “Agora”-ren “Gipuzcoa” eleberri-saria. Eta burruka larrian eraman gainera —**horrenbeste esan dezaket, noski**—, ez baitzuen etsai indartsuen faltarik. (LIB II: 127).

Honenbestez, kokagunea zenbaitetan izan daiteke baldintzatzailea baina ez erabatekoa, maiz kokagune berean, adibideek erakusten digutenez, bigarren graduko puntuazio-marka ezberdinak aldizkatzen edo txandakatzen baitira.

#### 8.2.1.3.2. Izaera sintaktikoa eta komunikazio-eginkizuna

Bigarren graduko ikurrak hautatzean kanpotik zedarrantutako arau-jakin bati erantzuten ez diolako seinale, hona hemen adibide batzuk, ia egitura sintaktiko (eta komunikazio-eginkizun) bera izanda ere, batzuetan marraez, eta bestetan bi komez inguraturik agertzen direnak:

##### 1. **Norbaiti/zerbaiti buruz ARI NAIZ egituretan**

Izaera sintaktikoa ez ezik, komunikazio-eginkizuna ere bertsua dute ondorengo enuntziatu parentetikoek, nahiz eta puntuazio-ikurrei dagokienez, jokabide bera erakusten ez duten:

- Kritikak ere, **Donostiako kritikaz ari naiz**, nahigabetsua zelako edo, ez du deus askorik esan. (ZIN: 139).

- Eta ez dezazula Jainkoagatik gutxietsi, **garbizale horrekin ari naiz**, nahi bezain garbi ez deritzazulako. (LIB II: 40).

- Bere gizakiek diotena, honek erakutsi die esaten, ez baitira sarri bere baitatik mintzatzeko eta mugitzeko gauza. Zein euskal sukaldetan —**ez naiz kulpitoez ari**— entzun da sekula, adibidez, 100gn. orrialdean Eñaut Zaharrak emazteari zuzentzen dion bezalako predikurik? (LIB I: 57).

- Ba ote dakigu, horratik, zer-nolakoa den hobetu beharrean ari garen hizkera? Neri behintzat —**ikasiagoengatik ez naiz ari**— deus ere ez dakidala iruditzen zait Ibar-en itzulpen hau irakurri ondoren. (LIB I: 103).

Enuntziatu parentetiko horiek zeri edo nori buruz ari den berariaz zehazteko eginkizuna dute, norentzakoa galbidean eror ez dadin eta baita mintzagaiaren (kritikaren) esparrua mugatuz esatariaren beraren irudia babesteko ere.

## 2. JAKINA DA/DAGO/ JAKIN BEHAR DA egituretan

Holakoetan koma bikoitzaren aldeko joera antzematen da:

- Hitzek, **jakina da**, badute beste zerbait, adimenez nolazpait besarka daitekeen adieraz gainera, adimenak ikusten ez badu ere bihotzak uki dezakeena: beren giroa, usaia, lurrina eta sentimen kutsua. (LIB I: 117).

- Gregorio Arrue ez da, **jakina dago**, liburu honen egilea. Itzultzailea izan zen beti haren lana: erdaratik euskarara eta euskaratik erdarara. (LIB II: 43).

- Espainiako zineman, **gauza jakina da**, badira bi gazte zerbait egin nahi luketeenak, dirua irabazteaz gainera. (ZIN: 191).

- Egilea, **jakin behar da**, Esquilacheren alde dago: hobeto esan, Esquilache hartu du aitzakia maite dituen gauzak goratzeko. (ZIN: 192).

3- “DIOT” aditz trinkoarekin zerbait berresan nahi duenean jokabide bikoitza darabil:

- Irakurle landuak, ordea —**euskal gaietan landuak, diot**—, nekerik gabe eta atseginez irakurriko ditu orrialde horiek. (LIB II: 127).

- Aipatu ditudan xehetasunok, **berriz diot**, eta beste anitzek, garbiro azaltzen digute Olabide ez zela zinetako eta benetako euskaraz ari, saio euskara edo euskara experimental batean baino. (LIB I: 117).

#### 4- Ohar metalinguistikoak egitean

Holakoetan ere marrak nahiz parentesiak erabiltzen ditu:

- Hitchcock zaharra, suspense-bila beti bezala (**zalantza esan beharko dugu euskaraz**), antzerki ezagun honetaz jabetu da gure txolarreak alaitzeko. (ZIN: 128).

- Neurritz gaineko gizona, jenioa —**hitz hori hamaika aldiz entzuna dugu**—, ez da besteen legeetara makurtzeko sortua (ZIN: 136).

Nahasketak, alternantziak, aldizkatzeak edo arau-ahultasunaren oihartzunak ugariak badira ere, honako hau baieztatu dezakegu: datuek erakusten digutenez, aditza daramaten A tipoko enuntziatu parentetikorik gehienak (modalitate-aldaketa alde batera utzirik), %65.33 marren artean inguratzen ditu; %22.66 koma parearen artean eta, azkenik, %12 parentesien artean.

Hona hemen, horren adierazgarri, adibideren bat edo beste:

Komen artean

- Nere begiak behintzat, **zorrotzagoak ez dakit**, ez ziratekeen konturatuko, aldeztatik jakin ez banu. (LIB I: 84).

- Eta azken urteotan euskal gaietan egin ditugun aurrerapenez miretsirik baldin bagaude —ai, aurrera egin bagenitu beti aurrerapen horiek!—, ez dago ahaztutzerik aurrerapen horiek, gaurko

izaera eta egoerak, aldi igaroetan dutela erroa eta oinarria, batez ere oraindik orain, **atzo esan dezakegu**, euskaraz mintzatzen, hitz lauz nahiz neurtuz, ahalegindu ziren idazle eta bertsolariengan. (LIB II: 52).

Marren artean

- Ez du beraz hemen zuzendariak —**bestelako filmetara ohituak genduzkan J. L. Mankiewicz'ek**— axaleko zehaztasunaren bila ibili beharrik, “Quo vadis?” batean bezala. (ZIN: 125).

- Ez geroi —**gogorragoak ikusi izan dira**— gerta dakigukeelako bakarrik. Ez; ez delako aski gainera gizon bati, urkatzaileari, erru guztia egozte eta hura gizartetik baztertzea. (ZIN: 139).

Parentesien artean

- Gertakariak kontaktzen mutila izan da beti (**ez dago gure Patroi Aundia-ri begiratu besterik**) eta bizi eta argiro kontaktzen duena euskara arraz, laster, malkarrik gabeko batean esaten du (LIB I: 123).

- Badirudi gainera (**besteregangandik hartu dut berri hau**) liburu hau 1885ean Tolosan argitara baino lehen agertu zela, Tolosan bertan, 1868an, beste “Santa Genovevaren vicitza” bat, “pertsona prestu guztientzat, baña berezkiro amakin beren seme alabentzat ere egokia” (LIB II: 43).

#### 8.2.1.4. ADITZIK GABEKO ENUNTZIATUAK

Aditzik ez duten enuntziatu parentetikoak ere ugariak dira gure corpusean. Horiek, oro har, El oinarritzko enuntziatuko sintagmaren bat birformulatzeko eginkizuna dute. Batzuetan, aposizioaren araberakoak izan daitezke, hau da, birformulatua izan den sintagmaren atzizki bera eramango dute; bestetan, ordea, ez dute inolako morfologiazko markarik errepikatzen.

Horien eta horiek aditzera emateko darabiltzan bigarren graduko marken arteko harremana ondorengo taulak erakuts diezaguke:

A tipoko aditzik gabeko enuntziatuak	Komak	Marrak	Parentesiak	Guztira
Aposizioen araberakoak	30	43	13	86
Aposizio ez direnak	2	52	151	205
<b>Guztira</b>	32	95	164	291
<b>Guztira % zenbat</b>	%10.99	%32.64	%56.35	%100

Datuek erakusten digutenez, esanguratsua da aposizio ez direnetan, hots, E1 eta E2 enuntziatuen arteko lotura inolako marka formalik gabe gauzatzen denetarako ez duela ia behin ere (%0.97) koma pareta erabiltzen; aitzitik, aposizioen arabera egituratuta daudenetan (%34.88) komen artean inguraturik islatzen du.

Litekeena da, bada, E1 eta E2 enuntziatuen arteko koherentziatzko harremana kohesio-baliabideek edota marka morfologikoak (deklinabide kasu marka bera gordetzeak) indarturik azaltzen denean koma parearen aldeko joera handiagoa izatea. Eta, alderantziz, parentesien aldeko joera txikiagoa.

Ikus dezagun, bada, bi enuntziatuen arteko koherentziatzko harremana marka morfologikoz indarturik dagoenean koma parearen aldera gehiago lerratzen ote den eta parentesien aldera gutxiago (eta alderantziz):

Aditzik gabeko sintagmak	Komak	Marrak	Parentesiak	Guztira
Aposizioen araberakoak	30	43	13	86
% zenbat	%34.88	%50	%15.11	
Aposizio ez direnak	2	52	151	205
% zenbat	%0.97	%25.36	%73.65	

Datuek baietz esaten digute. Aposizio ez direnetan koma pareta oso-oso urritan erabiltzen du (%0.97) eta aposizioetan (%34.88) koma parearen artean inguratzen du. Parentesiei dagokienez alderantzizkoa gertatzen da: aposizioen araberako enuntziatuak direnean (% 15.11) dira parentesien artekoak, eta aposizio ez diren enuntziatuetan, berriz, (%73.65).

Ikus dezagun, bada, hipotesi horrek funtsik duen B tipoa eta, berezki, C tipoa aztertuz.



## 8.2.2. B Tipoa

### 8.2.2.A. *Eta* buruan daraman enuntziatu parentetikoa

#### 8.2.2.A.1. DISTRIBUZIOA EDO ENUNTZIATU PARENTETIKOEN KOKAGUNEA

Mitxelenaren diskurtsogintzan, bigarren graduko ikurren arteko aldea (alderik balego behintzat) aztertzeko kontuan izango dugun lehendabiziko alderdia enuntziatu parentetikoaren distribuzioa edo kokapena izango da. Kokapenak baldintzatzen ote du puntuazio-marka baten edo bestearen aldeko hautua?

Alderdi hori aztertzeko kokagunak eta puntuazio-markak erlazionatzen dituen taulez baliatuko gara:

E1 perpaus lokabea denean	Komak	Marrak	Parentesiak
<b>1. Mintzagaia+[E2]+fokoa+aditza</b>			
<b>A. Subjektua topikalizatuz</b>	<b>8</b>	<b>14</b>	<b>0</b>
<i>Subjektua+[E2]+aditza</i>	3	0	0
<i>Subjektua+[E2]+adberbio osagarria+aditza</i>			
- Subj+[E2]+ezezk aditzondoa+aditza	1	3	0
- Subjektua+[E2]+ba+aditza	0	1	0
- Subjektua+[E2]+moduzko aditzondo+aditza	1	2	0
<i>Subjektua+[E2]+predikatu-osagarria+aditza</i>	0	3	0
<i>Subjektua+[E2]+oz+aditza</i>	3	5	0
<b>B. Adberbio-osagarria topikalizatuz</b>	<b>11</b>	<b>5</b>	<b>0</b>
<i>Adberbio-osagarria+[E2]+aditza</i>	1	1	0
<i>Adberbio-osagarria+[E2]+adberbio-osagarria</i>			
- Aderbio-osagarria+[E2]+ezezk aditzondoa+aditza	4	1	0
- Adberbio-osagarria+[E2]+ba+aditza	1	1	0
- Adberbio-osagarria+[E2]+mod. adond+aditza	2	1	0
<i>Adberbio-osagarria+[E2]+osagarri zuzena+aditza</i>	2	1	0
<i>Adberbio-osagarria+[E2]+zehir osagarria+aditza</i>	1	0	0
<b>C. IS NORI topikalizatuz</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>0</b>
<b>D. Lokailua<sup>204</sup>+ [E2]+</b>	<b>12</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
- Lokailua+[E2]+aditza	2	0	0
- Lokailua+[E2]+ezezk adond+aditza	2	0	0

<sup>204</sup> Lokailuaren ondoren zein puntuazio-marka darabilen jakitea ere garrantzizkotzat jotzen dugu eta, beraz, kokagune hau ere gehitu egingo diogu.

- Lokailua+[E2]+moduzko aditzondoa+aditza	1	0	0
- Lokailua+[E2]+predikatu osagarria+aditza	1	0	0
Lokailua+[E2]+oz+aditza	4	0	0
Lokailua+[E2]+subjektua+oz+aditza	2	0	0
<b>2. Fokua+aditza bikotearen ondoren</b>	<b>6</b>	<b>2</b>	<b>0</b>
<b>3. Fokuaren eta aditzaren artean</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>0</b>
<b>4. Sintagma-egiturak hautsiaz</b>	<b>5</b>	<b>3</b>	<b>2</b>
- Izenlagun+[E2]+izena	5	1	1
- postposizio-sintagma	0	2	1
<b>Guztira</b>	<b>45</b>	<b>28</b>	<b>2</b>
<b>Guztira % zenbat</b>	<b>%60</b>	<b>%37.33</b>	<b>%2.66</b>

E1 oinarrizko enuntziatua perpaus lokabeak (nagusiak soilik) osatzen duenean, Mitxelenak *eta* duen enuntziatu parentetikoak tartekatzekeo nagusiki bi komak eta marrak darabiltza eta oso gutxitan jotzen du parentesietara. Baina zer gertatzen ote da E1 perpaus lokabeen forma izan ordez, perpaus konposatuena duenean?

<b>E1 perpaus konposatua denean</b>	<b>Koma</b>	<b>Marrak</b>	<b>Parentesiak</b>
Maila bereko perpausen artean	0	2	0
Perpaus nagusiaren eta mendekoaren artean			
- PN+[E2]+mendeko perpaus osagarria	<b>9</b>	<b>1</b>	<b>0</b>
- <b>Baldintza perpausetan</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>0</b>
- Ondorioa+[E2]+PN	2	1	1
- Baldintza+[E2]+PN	2	4	0
- <b>Perpaus kausaletan</b>	<b>2</b>	<b>6</b>	<b>0</b>
- PN+[E2]+Kausazkoa	2	3	0
- Kausazkoa+[E2]+PN	0	3	0
- <b>Denborazko perpausetan</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
- Denboraz+[E2]+PN	1	1	0
- PN+[E2]+Denborazkoa	0	0	1
- <b>Kontzesio perpausetan</b>	<b>2</b>	<b>1</b>	<b>0</b>
- Kontzesiozkoa+[E2]+PN	1	1	0
- PN+[E2]+Kontzes	1	0	0
- <b>Helburuzko perpausetan</b>			
- PN+[E2]+Helburuzkoa	<b>1</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>10. Mendeko perpausaren barnean</b>	<b>1</b>	<b>11</b>	<b>1</b>
<b>Guztira</b>	<b>20</b>	<b>27</b>	<b>3</b>
<b>Guztira % zenbat</b>	<b>%40</b>	<b>%54</b>	<b>%6</b>

Perpau konposatuetan taulak erakusten duenez, bi aukera dira zilegi: maila bereko perpausez osatuta egotea edo bat nagusia eta bestea mendekoa izatea. Maila bereko perpausek osatzen dutenean marretara jotzen du eta, aitzitik, nagusiaren eta mendekoaren artean kokatzen duenean bi komak darabiltza gehien.

Enuntziatu parentetikoa mendeko perpausaren barnean tartekatzen duenean, marren aldeko joera nabarmentzen da.

Emaitza guztiak kontuan hartuz, garbi ikus daiteke *eta* buruan daraman enuntziatu parentetikoa inguratzeko koma parearen eta marren alde egiten duela eta parentesien arteko adibideak oso urriak direla.

<b>Guztira</b>	<b>Komak</b>	<b>Marrak</b>	<b>Parentesiak</b>
<b>E1-en buruan</b>	0	0	0
<b>E1en amaieran</b>	7	0	1
<b>E1en egitura sintaktikoa hautsiaz</b>			
- E1 perpau lokabea denean	45	28	2
- E1 perpau konposatua denean	20	27	3
Guztira zenbat adibide	72	55	6
<b>Guztira % zenbat</b>	<b>%54.13</b>	<b>%41.35</b>	<b>%4.51</b>

Has gaitezen, bada, parentesien arteko adibideak aztertzetik. Agian, parentesi bidez agertzen diren enuntziatuen kokagunea soilik parentesientzako ote den edo ez ikusteak eman baitiezaguke argirik kokagunea baldintza-irizpide egokia den edo ez erabakitzeko.

Hona hemen parentesien arteko adibideen kokagunak:

### **Postposizio-sintagmak hautsiaz**

- Aghata Christiren ipui laburraren (*eta geroxeagoko komediaren*) *gainean* eraikitako film honek ez du suspense delakoa bakarrik. (ZIN: 181).

### **Izenlagun+[E2]+izena**

- Hor dauzka orrialde horietan, egia den ala ez bere begiz ikusi nahi lukeenak, Arranondoko kale mehar, oker, aldapatsuak, itsasoaren (*eta itsasgizonen*) *zalapartak* ea bazter guztietatik darion arrai usaia. (LIB I: 43).

- Kontu honetan haxe da neretzat penagarria: inoiz ez direla izan gaur bezain Europaren mendeko<sup>205</sup> (**eta Rusia, de Gaullek gogorarazi berria duenez, Europa da eta Amerika Europaren alaba**) gainerako lurraldeak. (LIB I: 141).

### **PN+[E2]+ mendeko perpaus denborazkoa**

- Gorputz geneukan Mike Todd (**eta ez dakit hemengo Cervantes-zale porrokatuaren arao-biraoek ez ote duten horretan parterik izan**) berak eragin zuen izena bezain kostu handiko film hau aurkeztu digutenean. (ZIN: 181).

### **Baldintzan txertatua**

- Nolazpait ere ezagutzen du, ordea, Pascalen hura (**eta barka besterena baldin bada, Pascalena izan beharrean**) egia baldin bada: “Ez zinateke ene bila ibiliko, aurkituko ez baninduzu”. (ZIN: 198).

### **E1en amaieran (eta *bi* punturen aurretik)**

- Goramen bereziak merezi ditu euskal aditzaren berezitasunak bere lekuan utzi dituelako, euskalari gorengoan iritziak gorabehera (**eta ez ziren zoritxarrez euskaldun berriak**): bat da Olabiderentzat *zatzaizkit* (zu!, ez zuek) eta bestea, zein bestea ere, *zakizkit* (zu! Berriz ere!). (LIB I: 119).

Baina, gune horietan beti eta ezinbestean parentesia ote darabil edo txandakatzen edo aldizkatzen du beste puntuazio-markekin? Konturatuko gara, eta corpuseko adibideak dira horren lekuko, kokagune horietan, maiz, parentesietara ez ezik, koma parera nahiz marretara ere jotzen duela:

### **Izlag+[E2]+izena**

- Euskaldunen, **eta batez ere euskaldun gurasoen**, aspaldiko egarria berdintzeko agertu dira noski bi liburutxo polit hauek. (LIB I: 97).

---

<sup>205</sup>“Izenlagun+izena” egitura hausteaz gain, mendeko osagarriaren barnean kokatzen da.

- Hizkuntzaren aldetik, ordea, hori dugu zalantzarik gabe antzinako euskararen —**eta batez ere Bizkaikoaren**— lekukorik harrigarrietakoa eta guztietan miresgarriena ere bai, beharbada. (LIB II: 147).

### **Mendeko osagarriaren barnean**

- Ez da beharbada guztion eredutzat hartzekoa, baina nabari da Txirritak jakin zuela —**eta Goethe baten ahaide hurbila dugu alde horretatik**— bere bizitza ontzen eta lantzen, bere bertsoak ez ezen. (LIB II: 98-99).

- Esan daiteke, gehiegizko gezurrik esan gabe, hor dagoela euskal literaturari, **eta literaturari erabat**, utzi dion testamentua eta ordenua. (LIB II: 107).

Beraz, kokagunearen edo distribuzioaren irizpidea ez da puntuazio-marka jakin bat hautatzeko baldintzatzaile gertatu: kokagune berean zilegi baita *eta* buruan daraman enuntziatu parentetikoa parentesien, marren edo koma parearen artean kokatzea. Baina, datuei erreparatuz, atera al dezakegu bestelako ondoriorik?

JOERA NAGUSIAK distribuzioari erreparatuz:

1. Lokailuaren ondoren, komen artean adierazten du enuntziatu parentetikoa.
2. Maila bereko perpausen artean: marrak darabiltza.
3. Gainerakoetan, marren eta koma bikoitzaren erabilera, ehunekoei dagokienez parekoa da eta elkarrekin txandaka daitezke; hau da, bata zein bestea darabil, eta bata erabiltzea zein bestea erabiltzea, badirudi ez duela kokapenaren irizpideak baldintzatzen.

Ikus dezagun, bada, gainerako irizpideek zer-nola eragiten duten.

#### 8.2.2.A.2. IZAERA SINTAKTIKOA

Atal honetan, bereziki, enuntziatu parentetikoaren antolamendu sintaktiko formalak bigarren graduko puntuazio-marken hautuan eraginik ba ote duen aztertuko dugu; esate

baterako, enuntziatu parentetikoa aditza duen enuntziatua izateak edo ez izateak baldintza ote dezakeen muga grafikoa.

#### 8.2.2.A.2.1. Aditz jokatua duten nahiz ez duten *eta* bidezko enuntziatu parentetikoak

Ikus taula

	Komak	Marrak	Parentesiak	Guztira
Aditz jokatua duen <i>ETA</i> bidezko enuntziatu parentetikoa	51	26	3	80
Aditzik gabeko <i>ETA</i> bidezko enuntziatu parentetikoa	28	23	2	53
Guztira	79	49	5	133
Guztira %zenbat	%59.39	%36.84	%3.75	%100

Datuei erreparatuz, aditz jokatua duten *eta* bidezko enuntziatu parentetikoaren (%63.75) koma parearen artean tartekatuta du, eta (%32.5) marren artean. Parentesien artekoek (%3.75) osatzen dute.

Aditzik gabeko enuntziatuetan, berriz, ez dago alde nabarmenik koma parearen (%52.83) eta marren (%43.39) artean; hau da, bata zein bestea darabil. Ez dirudi, bada, irizpide sintaktiko jakin bat dagoenik bataren edo bestearen alde. Ikusi bestela ondorengo adibideak:

### 1. Subjektuari osagai bat emendatzerakoan

- Soinua, **eta harekin batera hitza**, agertu zenean zineman, lehengo mutuan iraun zuen Charlotek. (ZIN: 136).

- Japonen eta hemen gizona —**eta emakumea**—izukaitz baino bildurriago, prestu baino berekoiago, bihotz-zabal baino zitalago dela, alegia. (ZIN: 130).

### 2. Mintzagaiaren esparrua zabaltzeko eginkizunean

- Baina zineman, **eta gizartean ere sarri**, gehiago balio du itxurak izanak baino. (ZIN: 163).

- Gure gorputz-arimak, gorosti makilaz bezala astintzea ez da agian zinemak —**eta arteak erabat**— mendera lezakeen helbururik gorena. (ZIN: 174).

### 3. *Eta* artxikonektagailua *batik bat, batez ere nabarmentzaileekin agertzen denean*

- Euskaldunen, **eta batez ere euskaldun gurasoen**, aspaldiko egarria berdintzeko agertu dira noski bi liburutxo polit hauek. (LIB I: 97).
- Ez baita besterik eleberri hau: interesduna, ederki moldatua, esku trebez josia, arina eta edozeinek —**eta gazte jendeak batez ere**— gogoz irakur dezakeena. (LIB I: 83).

Aditza duten *eta* bidezko enuntziatu parentetikoetan ere, maiz ikusten da aukera grafikoak ez diola arau jakin bati erantzuten, eta koma pareak zein marrak antolamendu sintaktiko bertsuan darabiltzala.

## 4. Aditz-aldaketa

Analisi sintaktikoan ikusia dugu E2k maiz E1ekin erkatuz aditzean aldaketak dakartzala. Aldaketa horietan oin hartuko dugu egiaztatzeko testuinguru sintaktiko bertsuan ere puntuazio-ikurrak txandakatzen dituela; hau da zein bata zein bestea darabiltzala:

4.1. E1 oinarrizko enuntziatuko baldintzari *indikatibo*<sup>206</sup> soila daraman E2 enuntziatua tartekatzean:

- Erraztasunak ezer galdu *badu* hemen edo han, **eta euskaraz tutik ez dakien ikaslea daukat gogoan**, ugaritasunak eta aberastasunak irabazi dute. (LIB II: 68).

---

<sup>206</sup> Euskaltzaindiak EGLU II-n adizkien forma kontuan izanik, adizkien izendapena aldatu egin bazuen ere, azalpenak emateko, tesian ikus litekeenez, erosoagoa gertatzen zaigu *indikatiboaz*, *baldintzaz*, *subjuntiboaz* nahiz *ahalezkoaz* hitz egitea. Jakin badakigu *indikatibo oraina*, esan ordez, *izan/\*edun-en orainaldia* izendatu beharko genukeela, baina adibide jakinak izendatuz azalpenak ematerakoan nahasgarria gertatzen zaigu horrela jokatzeari. Esaterako, adibideko “izango da” aditza izendatzeko “*izan* aditzaren +*geroa* - *burutua* aspektudun \**izan-en orainaldia*” edo izendatu beharko bagenu, azalpenak luzeagoak ez ezik nahasiagoak ere izango liriateke. Beraz, EGLUko terminologia onartu arren, *Euskal Aditz Batuko* izendapenak erabiliko ditugu, lanaren helburua ez baita adizkiak izendatzerakoan bere formazko ezaugarri guztiak zehatz-mehatz aipatuz izendatzea; izendapen horiek bestelako gertakariak azaltzeko bitarteko dira gure lanean.

- *Illiada* inork itzuli nahi *badu* —**eta izango da egun edo bihar egiteko larri horri ekingo dion euskaldun ausarten bat**—, aurkituko du laguntza Aita Barandiaranek egin duen lan izugarrian. (LIB I: 71).

4.2. E1 oinarrizko enuntziatuak ahalezko adizkia izanik (*Ke*-dun adizkia izanik), indikatibo soila duen E2 enuntziatu parentetikoa tartekatzean:

- Esango *nuke*, **eta asko esatea da**, hau dela higuigarriena amerikanoek Bibliarekin, gizon indartsu eta emakume erdi-biluxiekin, sortzen dituzten saltsa koipetsu horietan guztietan. (ZIN: 189).

- Neronek ikus *dezakedanez* —**eta ez naiz nor horrelako auzietan mintzatzeko**—, ederki tajutua du gaia, lau kapitulutan berezia, eta harira doa beti egilea, hitz alferrik gabe. (LIB II: 71).

4.3. E1eko aditza indikatibokoa izanik, E2 ahalezkoa (*ke*-dun adizkia) denean:

- Esanak oroitarazten dit hor daudela, Oteizak oldar bizian eraso dien etsaien artean, “Urkixotarrak” direlakoak ere: badirudi, gainera, **eta ez ninduke horrexek minduko**, neure buru tristea ez dabilela horiengandik urruti. (LIB II: 118).

- Dakidanez —**eta poztuko ninduke bizi-oker nagoela jakiteak**—, euskal literatura guztian behin agertzen da adizki hori, Garibayk XVI. gn. Mendean jaso zuen esaera batean (LIB I: 77).

5. Tenpus-aldaketa: E1 iraganaldian egonik, E2 orainaldian agertzen denean:

- Nahitaezkoa *zen*, **eta honelaxe ikusi du begi zorrotzez egileak**, euskal idazleez gainera — euskaraz mintzatu direnez gainera, alegia—, gure arteko erdal idazleez mintzatzea, gure hizkuntzari dagozkion lanak ondu dituzten neurrian behintzat, eta are erbesteko euskalariez, zahar eta oraingoez. (LIB II: 65).

- Gorputz *geneukan* Mike Todd (**eta ez dakit hemengo Cervantes-zale porrokaturen arao-biraoek ez ote duten horretan parterik izan**) berak eragin zuen izena bezain kostu handiko film hau aurkeztu digutenean. (ZIN: 181).



Azkenengo adibide horretan, gainerakoetan ez bezala, alternantzia ez da koma parearen eta marren artean gertatzen, marren eta parentesien artean baizik. Baina garbi geratzen da *eta* buruan daramaten enuntziatu parentetikoetan joera nagusia komen artean eta (gutxiago) marren artean adieraztea bada ere, maiz puntuazio-marka horiek, bata bestearen tokian ager daitezkeela, izaera sintaktiko bertsua duten enuntziatuek erakusten digutenez. Ondorengo adibidea atera dugun ondorioa indartzera dator:

E1 oinarrizko enuntziatu berean *eta* buruan daramaten bi enuntziatu parentetiko demarkazio-marka ezberdinekin tartekatuko ditu:

- Ez dago, beraz, **eta nahi eta nahiez ezin zegokeen**, azken urteotan —**eta bat edo beste lehendanik**— gure Gipuzkoa honetan agertu diren berrikerien alde. (LIB I: 132).

Errepara diezaigun komunikazio-eginkizunari.

### 8.2.2.A.3. KOMUNIKAZIO-EGINKIZUNA

Enuntziatu parentetikoek duten komunikazio-eginkizuna aztertzeari hurrengo atal osoa eskainiko diogunez, orain soilik komunikazio-eginkizun zehatz batzuei erreparatuko diegu, puntuazioa aztertzeke egoki datozkigun heinean.

#### 8.2.2.A.3.1. Barkamen eskean

Norentzakoari barkamena eskatzen dioenerako, ondorengo adibideek erakutsiko digutenez, marrak nahiz parentesiak darabiltza; bata zein bestea inolako alderik gabe erabili ere:

- Nolazpait ere ezagutzen du, ordea, Pascalena hura (**eta barka besterena baldin bada, Pascalena izan beharrean**) egia baldin bada: “Ez zinateke ene bila ibiliko, aurkitu ez baninduzu”. (ZIN: 198).

- Nik —**eta barka bekit “izenorde higuigarri” honezaz hasten banaiz mintzatzen**— profeta baten gisan ikusten dut aurrenik gure Oteiza, gure artean nola eta nondik ez dakigula—aldiz bizardun, aldiz okotz soil—agertu zaigun antzinako igarleen ondorengo galdu baten antzera. (LIB II: 117).

- Gure-gureak baititugu biak —**eta barka biezat “Kamifiazpi”-k**—, gure artetik sortuak eta geron antzera taxutuak. (LIB II: 146).

Inoiz ez du eginkizun horretarako koma pareta erabiliko. Aldiz, kortesiazko beste jokabide batzuetan bai:

8.2.2.A.3.2. Kritika negatiboa egiteko (edo leuntzeko), bere burua multzo berean sartzen duenean:

- Ez, ordea, iguzki aldekoek, **eta neroni horien artean**, batzuetan ak eta besteetan ek-ka ari natzaizue hemen. (LIB I: 70).

- Guztioi —**eta neroni aurrenik**— izurtzen zaizkigu zenbati huts baztertuz gero, egileek poesi-prosarako duten joeran daudela deritzat itzulpen honen alde txarrenak. (LIB I: 85).

Adibide horiek erakusten digute hor bigarren graduko puntuazio-ikurren erabilera ez duela arau jakin batek baldintzatzen.

8.2.2.A.3.3. Kritika egiteko modalitatez aldatzen duenean

Enuntziatu parentetikoak hainbatetan oinarrizko enuntziatuarekin erkatuz modalitate-aldaketa dakarrela ikusi dugu. Holakoetan honako joera hau atzematen da: galderazkoa beti marren artean kokatzen du; inoiz ez komen artean ez eta parentesien artean ere.

- Egilearen iritziak —**eta norenak ez?**— okerrak izan daitezke hemen edo han. (LIB I: 130).

- Aita Villasante ezagutzen duenak —**eta nork ez du ezagutzen izenez behintzat gure artean?**— badaki nola ekiten dion lanari, sustraiz eta funtsez, bil eta azter ditzakeenak oro bildu eta aztertu ondoren, edozein sailetan. (LIB II: 60-61).

- Gogozago noski —**eta nola ez?**— zenbait lekutan beste batzuetan baino. (LIB II: 97).

## 8.2.2.A.4. ONDORIO GISA

Ondorio nagusizat honako hau joko dugu: Mitxelenak *eta* buruan daraman enuntziatu parentetikoa testuan mugatzeko edo adierazteko ez duela arau zorrotz eta jakin bat (ez behintzat kokapenean, izaera sintaktikoan edo eginkizun komunikatiboan oinarritzen denik) jarraitzen; hau da, puntuazio-marka bataren ala bestearen arteko hautua gehiago dela norbanakoaren arabera, eta joera nagusiaz gehiago hitz egin behar dugula arau jakin batez baino.

*Eta* buruan daraman enuntziatu parentetikoaren muga grafikoan antzeman ditugun joerak:

1. Joera nagusia komen artean kokatzea da (%59.39), edota marren artean (%36.84). Parentesiak enuntziatu mota honetarako gutxiago darabiltza (%3.75).

Kokapena kontuan izanik

1. Lokailuaren (nahiz juntagailuaren) ondoren, komen artean demarkatuta tartekatzen du enuntziatu parentetikoa. (*ererekin* behin marrek darabiltza, baina uste dugu ondoren modalitate aldaketa etortzeak eragiten duela horretan<sup>207</sup>).
2. Maila bereko perpausen artean: marrek darabiltza.
3. Gainerakoetan, marren eta koma parearen erabileran ez dago alde handirik; egitura eta kokagune bertsuetan bata zein bestea darabil.

<sup>207</sup>Amerikanoen etsaiek ere —**eta nork ez ditu begitan gutxi edo gehiago Europa zahar honetan?**— ez dute noski nahi beste algara egin haien bizkarretik. (ZIN:185).

Baina gainerakoetan koma parearen aldeko joera nabarmena da:

**Lokailua+[E2]+(beste osagaien bat)**

- **Horien guztien gain, eta hau da hemen dihoakigun auzia**, ez daukat ia ezer zezenei eta zezenketari buruz. (LIB I:92).
- **Baina, eta horrelakorik ez da sarri gertatzen**, orrialdez orrialde irakurri nuen, eskutik utzi gabe azkeneko “A.M.D.G.”-raino heldu arte. (LIB II:99).
- **Halaz guztiz, eta inoren lumarik jantzi gabe**, aski harrigarriak dira gure mariñelen ibilerak. (LIB II:57).
- Bestetik, **ordea, eta hemen badihoakit neri ere**, neurkera horren bidez esplikatu daiteke silaba jakinik ez duten kanta zaharren neurria. (LIB II:107).

Izaera sintaktikoa kontuan izanik

1. Aditza duten *eta* bidezko enuntziatu parentetikoek %63.75 komen artean tartekatuta, eta %32.5 marren artean. Parentesien artekoek %3.75 osatzen dute.
2. Aditzik gabeko enuntziatuetan, berriz, koma parearen eta marren arteko aldea ez da hain nabarmena, eta maiz testuinguru sintaktiko eta distribuziozko bertsuan bata zein bestea txandakatzen ditu. Halere:
  - ETA+ARE gradu-eskalarekin<sup>208</sup>: beti komen artean

Komunikazio-eginkizuna kontuan izanik

1. Norentzakoari barkamena eskatzen dioenerako, marrak nahiz parentesiak darabiltza; bata zein bestea inolako alderik gabe erabili ere.
2. Kritika negatiboa egiteko (edo leuntzeko), bere burua multzo berean sartzan duenean ere koma bikoitza nahiz marrak darabiltza.
3. Kritika egiteko modalitatez aldatzen duenean beti marrak darabiltza.

## 8.2.2 B. B TIPOKO GAINERAKOAK

### 8.2.2.B.1. DISTRIBUZIOA EDO KOKAPENA

Hona hemen kokapenaren eta bigarren graduko puntuazio-marken arteko lotura:

E1 perpaus lokabea denean	Komak	Marrak	Parentesiak
<b>1. Mintzagaia+[E2]+fokua+aditza</b>			
<b>A. Subjektua topikalizatuz</b>			
Subjektua+[E2]+aditza	2	1	2
<i>Subjektua +[E2]+adberbio-osagarria</i>			
- Subj+[E2]+ezezk aditzondoa+aditza	1	1	0
- Subjektua+[E2]+ba+aditza	1	1	0
- Subjektua+[E2]+moduzko aditzondoa+aditza	0	1	0

<sup>208</sup>Esan dugunaren adierazgarri hona hemen adibide bat:

- “Prosazale agertzen zait neri Villasante, **eta are irakas prosaren zale**, olerkarien kaltean beharbada inoiz edo behin”. (LIB II:66).

<i>Subjektua+[E2]+predikatu-osagarria+aditza</i>	0	1	0
<i>Subjektua+[E2]+osagarri zuzena+aditza</i>	0	1	0
<i>subjektua+[E2]+zehir osagarria+aditza</i>	1	0	0
<b>B. Osagarri zuzena topikalizatuz</b>			
- IS NOR+[E2]+aditza	0	1	0
- IS NOR+[E2]+adberbio-osagarria+aditza	1	2	0
- IS NOR+[E2]+IS NORK+aditza	1	0	0
<b>C. Zehir osagarria topikalizatuz</b>	<b>1</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>D. Adberbio-osagarria topikalizatuz</b>			
- Adbarbio-osagarria+[E2]+aditza	1	0	0
- Adberbio-osagarria+[E2]+osagarri zuzena+aditza	0	1	0
- Adberbio-osagarria+[E2]+zenbatzailea+aditza	1	0	0
<b>E. Lokailuaren ondoren</b>	<b>2</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>2. Fokua+aditza bikotearen ondoren</b>	<b>2</b>	<b>2</b>	<b>2</b>
<b>Fokua+aditza+adberbio-osagarria+[E2]</b>	1	1	0
Fokua+aditza+IS NOR osagarri zuzena+[E2]	0	0	1
Fokua+aditza+IS NOR predikatu osagarria+[E2]	0	1	0
Fokua+aditza+lokailua+[E2]+subjektua	1	0	0
Fokua+aditza+[E2]+	0	0	1
<b>3. Sintagma-egiturak hautsiaz</b>	<b>2</b>	<b>1</b>	<b>0</b>
- Izenlagun+[E2]+Izena	2	1	0
- postposizio-sintagma	0	0	0
<b>4. Aditz laguntzailearen eta nagusiaren artean</b>	<b>1</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>Guztira</b>	<b>17</b>	<b>13</b>	<b>4</b>
<b>Guztira ehunekotan</b>	<b>%50</b>	<b>%38.23</b>	<b>%11.76</b>

Datuek erakusten digutenez, B tipoko E2 enuntziatu parentetikoa E1 perpaus lokabean tartekatzen duenean bereziki komak hautatzen ditu (%50), baina marren erabilera ere handi xamarra da. Gutxienik, oraingoan ere, parentesien aldeko hautua egingo du.

Gatozen, bada, parentesien artean inguratuta dauden adibideei errapartzera.

### **Subjektua+[E2]+aditza**

- Ingelesek high-Brows deitzen dituzten kontentagaitz haietako direnek (**edo garenek?**) esango dute beharbada ez dela hau zinema hutsa, literatura dela. (ZIN: 124).

- Ez dute atsedean eta jolas beharrik; asmo batek, sentimendu batek, **beti batek ordea**, darabiltza. (ZIN: 124).

- Gizon berbera —**idazle berbera, beraz**— ageri da hiruotan. (LIB II: 152).

**Fokua+aditza+[E2]+( beste osagaien bat)**

- Nik (izenordain higuigarri hau ezinbestean darabilt) lehengo ezagutu nuen Olabide (**Itun berriko Olabide, jakina**) besteak baino. (LIB I: 112).

- Jakinaren gainean geunden, ordea, **azkenaren jakinean alegia**, bera eta gu. (ZIN: 151).

Kokapen sintaktiko berean bigarren graduko puntuazio-ikur ezberdinak tartekatzen ditu. Ezin esan, bada, distribuzio-guneak eragin duenik. Ikus dezagun E1 perpaus lokabea izan ordez perpaus konposatua denean enuntziatu parentetikoak hautatzen dituen guneek puntuazio-markekin nolabaiteko loturarik duten:

<b>E1 perpaus konposatua denean</b>	<b>Komak</b>	<b>Marrak</b>	<b>Parentesiak</b>
Maila bereko perpausen artean	0	2	0
Perpaus nagusiaren eta mendekoaren artean			
<b>- PN+[E2]+ mendeko perpaus osagarria</b>	0	0	1
<b>- Baldintza perpausetan</b>			
- Ondorioa+[E2]+PN	1	0	0
- PN+[E2]+ondorioa	0	0	1
<b>- Perpaus kausaletan</b>			
- PN+[E2]+Kausazkoa	0	0	2
- Kausazkoa+[E2]+PN	1	0	0
<b>- Denborazkoa+[E2]+PN</b>	1	0	0
<b>- Kontseziozkoa+[E2]+PN</b>	0	1	0
<b>- Helburuzko perpausetan</b>			
- PN+[E2]+Helburuzkoa	0	1	0
- Helburuzkoa+[E2]+PN	0	1	0
Mendekoaren barnean	3	9	3
<b>Guztira</b>	<b>6</b>	<b>14</b>	<b>7</b>
<b>Guztira ehunekotan</b>	<b>%22.22</b>	<b>%51.85</b>	<b>%25.92</b>

Perpaus lokabeetan ez bezala, marraz erabiltzen ditu maizenik (%51.85), baina parentesien erabilera ere koma parearena baino handiagoa da gune honetan

### **Perpaus nagusia+[E2]+mendeko osagarria**

- Bertsoetan zilegi da (**edo, gure Xenpelarrek zioen bezala, lizentzi**) bata bestearen orde erabiltzea metri causa, bi silaba besterik ez dituelako, baina ez euskal prosa jatorrean. (LIB I: 70).

### **Perpaus nagusia+[E2]+ kausazkoa**

- Nere ustez, liburuak ez zuen deus askorik galduko ipui bat edo beste kentzearekin (**esate baterako, LXIgarrena “Begiondokoa”**), erdaraz ere ezagunegiak direlako. (LIB II: 92).

- Leizarragak itzuli zuen bezala, “Dohatsu dirade emeak” (**otzanak, alegia**) zeren hek lurra heretaturen baitute”. (LIB II: 152).

### **Mendeko perpausaren barnean**

- Nor banintz ere, ez nintzateke sartuko, nere gogoz behintzat, horrelako listor-kabian, harako Paris (**ez Frantziakoa, alegia**) gizarajo hura bezala. (ZIN: 124).

- Zenbait gai utzi ditu bazterrean egileak, jakinaren gainean horratik eta alde aurretik aitortzen duelarik: herri literatura batetik (bertsolariak, Zuberoako pastoralak eta), hor hemenka aipatzen baditu ere, eta egungo egunean (**edo behintzat liburua osatu zuenean**) bizi diren euskal idazleak. (LIB II: 65).

Enuntziatu parentetikoak perpaus nagusiaren eta mendeko osagarriaren edo mendeko kausazkoaren artean kokatzen dituenean parentesiak erabiltzen ditu. Ikusi ere dugu, ordea, sail honetako *eta* bidezko enuntziatu parentetikoekin gune horretan bertan ez zuela parentesien aldeko hauturik egiten. Pentsa dezakegu, beraz, ez dela kokagune jakin hori parentesientzat bereizi.

## 8.2.2.B.2. IZAERA SINTAKTIKOA ETA EUREN KOMUNIKAZIO EGINKIZUNA

Nagusiki erabiltzen dituen testu-antolatzaileen eta puntuazio-marken arteko harremana aztertuko dugu lehenik. Horretarako taulaz baliatuko gara.

<b>E2n agertzen diren testu-antolatzaileak</b>	<b>Komak</b>	<b>Marrak</b>	<b>Parentesiak</b>
BERAZ	0	1	0
BADA	1	0	0
HORRENBESTEZ	0	1	0
ORDEA	1	0	1
GERO	2	1	1
BAINA	3	0	1
HALARIK ERE /HALERE	0	2	0
HORRATIK	0	1	0
DENA DEN	0	1	0
GAINERA	2	0	0
BATEZ ERE / BATIPAT	1	1	1
NOLANAHI ERE	0	1	0
BEHINTZAT, BEDEREN	28	9	0
ALEGIA	9	7	3
HOBETO ESAN	2	2	0
HOTS	0	1	0
NOLABAIT ESATEKO	1	0	0
HOBE/HOBEKI	0	3	1
ESATERAKO /esate baterako	0	2	2
ADIBIDEZ	0	1	0
NOSKI	2	6	0
AGIAN	0	2	0
JAKINA	0	2	0
BEHARBADA	5	4	0
DAMURIK	0	2	0
<b>Guztira</b>	<b>57</b>	<b>50</b>	<b>10</b>
<b>Guztira % zenbat</b>	<b>%48.71</b>	<b>%42.73</b>	<b>%8.54</b>

Datuek erakutsiko digute komunikazio-eginkizun bera izanik ere, Mitxelenak puntuazio-marka ezberdinak txandakatzen edo alternatzen dituela; hau da, orain marrak hautatzen dituela eta gero parentesiak (eta alderantziz). Ikus ditzagun adibideez baliatuz:



### 1. HOBETO ESAN antolatzailearekin aurretik esandakoa birformulatzean

- Elbar batek, **hobeto esan elbarritu batek**, ez du leihoa beste ikuskizunik: leihotik ikusten duen etxartea, alegia. (ZIN: 144).
- Dei bat egin digu film honek —**dei bat da, hobeto esan, film osoa**— zorigaitz beltz hori guztion artean gugandik alden dezagun. (ZIN: 195).
- Goikoetxea jaunak, askok dakigunez, begi zorrotzez begiratu ohi dio darabilgun —**hobeto esan, darabilten**— euskal neurkerari: ez zaio ez egokia iruditzen ez jatorra. (LIB II: 107).

### 2. ESATE BATERAKO/ ESATERAKO antolatzaileekin adibideak ematerakoan

- Nere ustez, liburuak ez zuen deus askorik galduko ipui bat edo beste kentzearekin (**esate baterako, LXI garrena “Begiondokoa”**), erdaraz ere ezagunegiak direlako. (LIB I: 92).
- Gogora datozkigunak ez dira liburuak edo, gutxienez (**Beribilez, esaterako**), Euskalerritik edo Euskalerrriaren aldamenetik ez dira aldatzen. (LIB II: 102).
- Nere begi-adimenak ez dira zenbaitenak bezain zorrotzak eta ez dut esango film honetako sinbolo guztien funts izkutua —**sorgin gaztearena, esaterako**— ezagutu dudanik. (ZIN: 198).
- Hark erakutsi baitzigun —**Aitorkizunetarako hamargarren jardun horretan, esaterako**— gure barrengo zoko ilunak aztertzen eta ezagutzen. (LIB I: 75).

### 3. BATEZ ERE antolatzailearekin zerbait nabarmendu nahi duenean

- Sarreraz gainera, zati hauexek ditu: I eta II atzizkiak, III aditza (**laguntzailea batez ere**), IV elkarrizketak eta V erdal-euskal eta euskal erdal hiztegia. (LIB I: 109).
- Trebe baino trebeagoa izan da beti hitz berriak sortzeko —**hitz elkartuak batez ere**— edota hitz arrunt ezagunak adiera berri batera egokitzeko. (LIB I: 76).

### 4. ALEGIA antolatzailearekin aurretik esandakoa birformulatzen denean

“ALEGIA+apozizioaren araberako egitura” dugunean gehienetan koma pareta edo marra paratzen ditu; ez ditu parentesiak erabiltzen:

- Ulysseren ibilerek —adierazi nahi digute ia irudi bakoitzean— erakusten digutena hau da: jainko etsaiei, **izadiaren indar itsuei alegia**, gogor egitean dago gizonaren handitasuna. (ZIN: 147).
- Adizki jator baten ordeztan, **natzaio-ren ordeztan alegia**, bi erabiltzen ditu, euskal literaturan sarrierarik izan ez dutenak. (LIB I: 71).
- Azkenean, etxean berriz —**Londresen alegia**—, zertxobait aldatu ikusten dugu David Niven ‘en eskuetan dagoen Phileas Fogg-en garaita eta erorikoa. (ZIN: 182).
- Axularren garaikoek —**Pizkunde arokoek alegia, bera ere, berandu xamar jaiogatik, horietakoa baitzen**— antzinako Greko eta Erromatarrek hautu zituzten maisutza, eta ez hizkuntza gaietan bakarrik. (LIB I: 140).
- Nahitaezkoa zen, eta horrelaxe ikusi du begi zorrotzez egileak, euskal idazleek gainera — **euskaraz mintzatu direnez gainera, alegia**—, gure arteko erdal idazleek mintzatzeari, gure hizkuntzari dagozkion lanak ondu dituzten neurrian behintzat, eta are erbesteko euskalariek, zahar eta oraingoez. (LIB II: 65).

ALEGIA+ apoziziozko egiturarik gabe agertzen denean, aitzitik, erabili ohi ditu parentesiak ere:

- Nor banitza ere, ez nintzateke sartuko, nere gogoz behintzat, horrelako listor-kabian, harako Paris (**ez Frantziakoa, alegia**) gizarajo hura bezala. (ZIN: 158).
- Leizarragak itzuli zuen bezala, “Dohatsu dirade emeak” (**otzanak, alegia**) zeren hek lurra heretaturen baitute. (LIB II: 152).

Parentesien artean agertzen den *alegia* bidez osatutako enuntziatu parentetikoak ez du formalki apozizioaren itxurarik. Azkenengo adibideak izan dezake, baina Leizarragaren hitzetatik bere hitzak bereizteko darabil parentesia.

## 5. BEHINTZAT /BEDEREN/ BEHINIK BEHIN antolatzaileekin

Antolatzaile hauekin ere bi puntuazio-marken aldeko joera da nagusi: koma parearen eta marren aldekoa, hain zuzen. Bien arteko aldea, ordea, ez zaigu batere argi gelditzen. Horren adierazgarri, hona hemen adibide bera batean marren artean paratuko duena eta bestean koma bikoitzaren artean:

- Ez dago lanaren gaitza goraiatu beharrik, ongi baitaki norainokoa den edozein hizkuntzatan, **axaletik bederen**, Aitorkizunak urratu dituenak. (LIB I: 75).

- Gure egunotakoa batez ere, maliziaz josia baitago hainbeste eta hainbeste irakurgai— **axaletik bederen**— miratu ondoren. (LIB I: 57).

Joerarik nabarmenena, ordea, komen artean kokatzea da (%75.67), baina bada adibiderik marren artean kokatzen duenik ere (%24.32). Inoiz ez du parentesien artean kokatzen.

- Espainian —**zineman behintzat**— “betiko triangeluak” lau alde izaten ditu: senarra, emaztea, senarra ez dena eta apaiza. (ZIN: 133).

- Moldatuko ote ginateke Robinson adinean, horrelakorik gerta balekigu? Gu —**ni behintzat**— ez, eta lanak izango lituzke Sánchez Mazas jaunak berak ere. (ZIN: 153).

- Ez da erraz, **neretzat behintzat**, honelako poema batez neurrizko iritzirik ematea: prosaz ondua izateak ez dit batere lana arintzen. (LIB II: 141).

## 6. Modalitate-aldaketa aditzera ematerakoan

Bai parentesiak eta bai marrak biak darabiltza modalitatez aldatu nahi duenean:

- Bizkaiko hitza omen da durdua “dificultad” eta Mogelek (**baina zein Mogelek eta non?**) darabilena. (LIB I: 114)

- Ulysseri —**zergatik, ordea?**— halako Luzifer-airetxo bat erantsi diote, edo Prometheu-airea, Greziatik aldegin nahi ez badugu (ZIN: 147).

Berariaz hautatu ditugu puntuazio-marken arteko hautuan alternantziak edo dauden adibideak. Azken batean, horietan uzten baitute agerian ondorio nagusia ere; hau da, B TIPOko enuntziatu parentetikoak mugatzeko darabiltzan puntuazio-markek ez diotela arau jakin bati erantzuten.

B TIPOarekin amaitzeko, ordea, hel diezaiogun EDO buruan daramaten enuntziatu parentetikoei.

### 8.2.2.B.2.1- EDOrekin osatutakoak

EDO duten enuntziatu parentetikoak	Komak	Marrak	Parentesiak
Modalitate aldaketarekin	0	1	1
Amaieran <sup>209</sup>	4	0	0
Lokailuaren ondoren	3	0	0
“Izlag+I” egitura haustean	1	1	0
Aditz aldaketa dakarrenean	3	2	0
EDO+ <i>behintzat/gutxienez/behinik behin/hobeto esan</i> antolatzaileekin doanean	3	2	1
Gainerakoak	2	6	2
<b>Guztira</b>	<b>16</b>	<b>12</b>	<b>4</b>
<b>Guztira % zenbat</b>	<b>%50</b>	<b>%37.5</b>	<b>%12.5</b>

*Edo* buruan duten enuntziatu parentetikoak koma parearen artean eta marren artean tartekatzen ditu nagusiki. Hona hemen, antzeman litezkeen joera nagusiak:

#### 8.2.2.B.2.1.1. Kokapena

1. Lokailuaren ondoren datorrenean beti komen artean kokatuko du:

- Eleberria baita hain zuzen ere, **edo fiction delakoa orobat**, izan daitekeen lurrik elkorrena nolanhiko batasun saioendako. (LIB II: 94).

<sup>209</sup> Amaierako gunean *edok behintzat, gutxienez, behinik behin* antolatzaileekin bat egiten duenez gero, behin bakarrik kontabilizatuko ditugu.

- Halaz ere, **edo horrexegatik beragatik**, gogoz irakur daiteke liskar sumin haren oihartzun baketsu hau. (LIB II: 122).

2. Amaierako kokagunea hartzen duenean, beti komen artean inguratzen du<sup>210</sup>:

- Zuzentzan ere, lan-banaketa sortu dugu beste gaietan bezala, **edo besteetan baino lehen beharbada**. (ZIN: 138).

- Ez ditu, ordea, inork beharbada Orwell'ek adina ezagutu arrisku-beldur horiek, **edo behintzat ez ditu inork horren argiro azaldu**. (ZIN: 175).

8.2.2.B.2.1.2. Izaera sintaktikoa

1) *Edo gutxienez, edo behintzat, edo hobeto esan, edo gutxienez behintzat, edo behinik behin* antolatzaileekin joera ezberdinak antzeman ditzakegu:

Hiru marka tipografikoak dira zilegi:

- Ez ditu, ordea, inork beharbada Orwell'ek adina ezagutu arrisku-beldur horiek, **edo behintzat ez ditu inork horren argiro azaldu**. (ZIN: 175).

- Bata eta bestea, gainera, ezinegonak, **edo hobeto esan larriminak**, darabiltza. (LIB I: 136).

- Zerbait egiten zela erantzun zitaion, **edo behintzat zerbait egiten zelako itxurak egiten genituela**. (LIB II: 155-156).

- Hizkuntza bat ikasteko —**edo ikasten hasteko behinik behin**—bide erosoak eskeintzen duten libururik gehienak motz gelditu ohi dira beren egitekoan, hizkuntzak nekerik eta gogo bizirik gabe ezin ikas daitezkeelako noski. (LIB I: 109).

---

<sup>210</sup>Hau hain da horrela, *edo* antolatzailea *gutxienez, behintzat, gutxienez behintzat, behinik behin* antolatzaileekin konbinatuz agertzen denean, baldin eta amaierako kokagunean agertzen bada, beti komen artean demarkatuko du, nahiz eta egitura horiekin ikur tipografiko guztiak onargarriak izan.

- Literatur euskararen batasunerako bide berria edo eskeintzen du aurrenik, eta gure artean maizegi ikusten ez den eleberri saioa —**edo eleberri moduan antolaturikako haurtzaroko oroitzapenak behintzat**— besteaz gainera. (LIB II: 93).

- :herri literatura batetik (bertsolariak, Zuberoako pastoralak eta), hor hemenka aipatzen baditu ere, eta egungo egunean (**edo behintzat liburua osatu zuenean**) bizi diren euskal idazleak. (LIB II: 65).

2) Aditzean aldaketa gertatzen den adibideetan ere ez du marka tipografiko jakin baterako joera adierazten:

- Euskarak erdaraz esan ez diren, **edo hain ongi adierazi ez diren**, gogoeta eta bihotzondokoei bide emanaz bakarrik jaso dezake burua, lehen, orain eta beti. (LIB I: 58).

- Negarrez gaude beti, euskal irakurgai gutxi ditugula eta, eta ditugun ederrak ere ezin ditugu, **edo ez ditugu nahi**, irakurri. (LIB I: 71).

- Gizon izanik, kaskarin xamarra da, eta ez du beti uste dugun —**edo nahi genukeen**— bezala erantzuten. (LIB I: 57).

3) “Izlag+I” egitura hausten duten adibideetan:

- Eta gure arimaren eguneroko —**edo asteroko**— ogia hori dugunez gero, hemen ere aterpe txiki bat, narrasa bada ere, utzi nahi genioke. (ZIN: 123).

- Horko lagunen buru hausteeke badute gerok ditugunen, **edo izan genitzakeenen**, eitea. (ZIN: 149).

#### 8.2.2.B.2.1.3. Komunikazio-eginkizuna

Modalitate aldaketa aditzera ematen duen enuntziatu parentetiko bakarra parentesien artean adierazten du:

- Ingelesek High-Brows deitzen dituzten kontentagaitz haietako direnek (**edo garenek?**) esango dute beharbada ez dela hau zinema hutsa, literatura dela. (ZIN: 124).

Honenbestez, adibide horiek guztiek agerian jartzen dute B TIPOko enuntziatu parentetikoak mugatzeko darabiltzan bigarren graduko puntuazio-ikurrek ez diotela arau jakin bati erantzuten. Izan ere, puntuazioak (eta bigarren graduko puntuazio-ikurrek areago), idazlearen sortzailetasuna bitarteko, arauzkoa den horretatik ihes egiteko zirrikitua eskaintzen duela antzeman liteke. Eta ondorioz, aruari zer dagokion eta estiloari zer erabakitzea ez da hain erraza izango.

### 8.2.3. C Tipoa

Tipo honetako adibideak inguratzeko darabiltzan bigarren graduko puntuazio-ikurrak aztertzeko ere orain arteko ildoari helduko diogu; hau da, E2 enuntziatu parentetikoak E1en hartzen duen kokagunea, E2ren izaera sintaktikoa eta beraren komunikazio-eginkizuna izango ditugu ardatz.

#### 8.2.3.1. KOKAGUNEA EDO INTEGRAZIO-GUNEA

Hona hemen C tipoko enuntziatu parentetikoen eta puntuazio-ikurren arteko lotura. Taula bidez adieraziko ditugu, bai E1 perpaus lokabeak osatzen duenean eta baita E1 perpaus konposatua denean ere:

E1 perpaus lokabea denean	Komak	Marrak	Parentesiak
<b>1. Mintzagaia+[E2++fokua+aditza</b>			
<b>A)Subjektua topikalizatuz</b>	<b>12</b>	<b>4</b>	<b>0</b>
<i>Subjektua+[E2]+adberbio-osagarria+aditza</i>			
- Subjektua+[E2]+moduzko adiberbioa+aditza	2	0	0
- Subjektua+[E2]+ ezezko aditzondoa+aditza+	3	1	0
- Subjektua+[E2]+ba-+aditza+	1	0	0
- Subjektua+[E2]+adizlaguna+aditza+	4	3	0
<i>Subjektua+[E2]+predikatu-osagarria+aditza</i>	1	0	0
<i>Subjektua+[E2]+osagarri zuzena+aditza</i>	1	0	0
<b>B) Adberbio-osagarria topikalizatuz</b>	<b>11</b>	<b>4</b>	<b>0</b>

<i>Adberbio-osagarria+[E2]+adberbio-osagarria+aditza</i>			
- Adberbio-osagarria+[E2]+moduzko adberbioa+aditza	1	0	0
Adberbio-osagarria+[E2]+ezezko aditzondoa+aditza	2	1	0
- Adberbio-osagarria+[E2]+adizlaguna+aditza	2	0	0
<i>Adberbio-osagarria+[E2]+osagarri zuzena+aditza</i>	4	3	0
<i>Adberbio-osagarria+[E2]+ subjektua+aditza</i>	1	0	0
Adberbio-osagarria+[E2]+aditza	1	0	0
<b>C) Zehar osagarria topikalizatuz</b>	<b>2</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>D) Lokailuaren ondoren: lokailua+[E2]+fokua+aditza</b>	<b>3</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
- Lokailua+[E2]+ezezko aditzondoa+aditza	1	0	0
- Lokailua+[E2]+moduzko aditzondoa+aditza	1	0	0
- Lokailua+[E2]+osagarri zuzena+aditza	1	0	0
<b>2. “Fokua+aditza” bikotearen ondoren</b>	<b>10</b>	<b>0</b>	<b>1</b>
- Fokua+aditza+[E2]+osagarri zuzena	4	0	1
- Fokua+aditza+subjektua+[E2]+	1	0	0
- Fokua+aditza+adizlaguna+[E2]+subjektua	2	0	0
- Fokua+aditza+[E2]+	3	0	0
<b>3. Fokuaren eta aditzaren artean</b>	<b>2</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>5. Aditzaren egitura hautsiaz</b>	<b>6</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>Guztira</b>	<b>46</b>	<b>9</b>	<b>2</b>
<b>Guztira ehunekotan</b>	<b>%80.70</b>	<b>%15.78</b>	<b>%3.5</b>

Taula 2

<b>E1 perpaus konposatuak osatzen duenean</b>	<b>Komak</b>	<b>Marrak</b>	<b>Parentesiak</b>
Maila bereko perpausen artean	7	1	1
Perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko mugan			
<b>1. Mendeko perpaus osagarrietan</b>			
- Perpaus nagusia+[E2]+mendeko perpaus osagarria	8	3	0
- Perpaus nagusia+[E2]+mendeko osagarria	0	0	0
<b>2. Baldintza perpausetan</b>			
- Ondorioa+[E2]+baldintza	1	2	0
- Baldintza+[E2]+ondorioa	1	0	0
<b>3. Perpaus kausaletan</b>			
- PN+[E2]+Mendeko perpaus kausala	1	0	0
- Kausazkoa+[E2]+PN	0	0	0
<b>4. Helburuzko perpausetan</b>			
- PN+[E2]+Helburuzkoa	2	0	0
- Helburuzkoa+[E2]+PN	1	0	0



<b>5. Moduzko perpausetan</b>			
- PN+[E2]+moduzkoa	0	1	0
- Moduzkoa+[E2]+PN	0	3	0
<b>6. Mendeko perpausaren barnean</b>	<b>2</b>	<b>2</b>	<b>0</b>
<b>Guztira</b>	<b>23</b>	<b>12</b>	<b>1</b>
<b>Guztira ehunekotan</b>	%64	%36	%0

Taula 3

Guztira	Komak	Marrak	Parentesiak
Hasieran	4	0	0
Amaieran	9	0	0
E1 perpaus lokabea denean	46	9	2
E1 perpaus konposatua denean	23	12	1
<b>Guztira</b>	<b>82</b>	<b>21</b>	<b>3</b>
<b>Guztira % zenbat</b>	<b>%77.35</b>	<b>%19.81</b>	<b>%2.83</b>

Datuek garbi erakusten digutenez, aurreko tipoetan ez bezala, C tipoko adibiderik gehienak koma parearen artean inguraturik agertzen dira (%77.35), eta gutxienak (%2.83) parentesien artean. Komen aldera lerratzeko joera egon daiteke, lehen esan bezala, tipo honetako enuntziatuetan E1 eta E2 enuntziatuen artean lotura sintaktikorik egon ez arren, marka sintaktiko formala agertzean.

Halarik ere, hemen ere ugariak dira puntuazio-ikurren arteko txandakatzeak; hots, kokagune berean batzuetan komen artean eta bestetan marren artean inguraturik agertzen da enuntziatu parentetikoa. Ia behin ere ez da gertatzen (adibide bakarra dugu) komen eta parentesien arteko txandakatzea, eta hori izan daiteke puntuazio-ikurrek badutelako nolabaiteko lotura harremanetan dauden enuntziatuen arteko haustura formalarekin.

Ikus ditzagun puntuazio-marken txandakatzeei dagozkien adibideak:

### **Subjektua+[E2]+ezezko aditzondoa**

- Beste zenbait hutsarte nabari dira, baita oihal zaharrari ez dagozkion adabakiak ere: infernuetara jeistea zakur-amets edo sorginkeria hutsal bihurtu da, ardoa egiteko ez da mahats-aleak oinkatzea aski, liktore-aizkorak —**horrela izendatzen baitituzte Ithaka´ko jauregian**

**ikusten ditugunak**— EZ ziren noski ugariak garai hartako Grezian, eta gainera gainerakoak. (ZIN: 146).

- Chaplin-zaleek, **oker ez banago**, EZ dute uste bezalako gozamenik izan. (ZIN: 185).

### **Subjektua+[E2]+adberbio-osagarria+aditza**

- Ezerezeko paperean maiz ikusi izan ditugun zenbait ere, Edmond O’Brien bezala, **gaiak eragiten dielako edo**, GORENGOEN PARE ageri da. (ZIN: 127).

- Barrena begira, itsasoa eta ontziak baztertzen baditugu, agintarien erantzunbearra eta bakardade astuna erakusten saiatu dira gehienbat, azkenaldi honetan zinema —**bestarik ukitzera ausartzen ez delako edo**— MAIZ erakusten saiatu den gaia. (ZIN: 177-178).

### **Adberbio-osagarria+[E2]+osagarri zuzena+aditza**

- Dirudienez, **ez baitut kontatu**, 255 LERRO utzi nizkion Larramendiri, “cuya obra principal es un diccionario vasco-español (atzekoz aurrera irakur beza irakurleak) plagado de aberraciones”. (LIB II: 83).

### **Adberbio-osagarria+ [E2]+ ezezko aditzondoa+aditza**

- Egilearen hizkeraz, **asko esan badaiteke ere**, EZ dago luzaroan mintzatu beharrik. (LIB II: 81).

- Ohiturari bagagozkio —**gutxitan izaten baitira ohiturak arrazoizko oinarririk gabeak**—, gainera, EZ dugu hemen agertzen den bidegaberen bat edo beste bezalakorik egingo: oker bada ajola, okerrago ayola idaztea axola izan behar lukeena. (LIB I: 113).

### **Juntaturaz elkartutako perpausen artean**

Kokagune honetan bigarren graduko hiru puntuazio-ikurren aldizkatzea gertatzen da. Guztiak, gainera, aurkaritzako perpausen arteko muga horretan kokatzen dira:

- Behin edo behin, egia da, Izpiritu Santuaren prozesioaz ordu t´erdiz mintzatu beharrean aurkitu izan naiz (**irakastea debekatuta badaukagu ere, ikastera behartu egiten baikaituzte**), *baina* geroztik hona jakintza hau baztertuxe eduki dut. (LIB I: 96).

- Aberastasun bila etorria da, **lagun zaharrak baitira**, *baina* beti norbaitekin egiten du topo adiskidearekin baino lehenago. (ZIN: 163).

- *Suspense* gehiegirik gabeko gizon-hiltzea —**lehen hitzek salatzen baitute egilea**—, *baina* arimen barrunbean ekaitz eta zurrunbiloak sortzen dituena. (LIB II: 130).

Juntaturaz elkartutako perpausen artean ez ezik, perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko muga horretan ere gertatzen dira puntuazio-ikurren txandakatze edo aldizkatzeak:

### **Perpaus nagusia+[E2]+mendeko osagarria**

- Ez dut, gorago esan dudan bezala, sentimenduen jatortasuna ukatzen, inolaz ere, *baina* ez dut uste —**nahiago nuke oker egon, zuzen baino**— jatortasun bizi hori irakurleari aditzera emateko, entzungor egin nahi badu ere, biderik eta modurik aurkituko duenik beti. (LIB II: 142).

- Nik esango nuke, **nere iritziak ezer balio badu**, Baiona aldetik etorri zitzaigu/la bale arrantzarako eragina eta are itsasorakoa erabat. (LIB II: 57).

### **Baldintza perpausetan**

- Badakit, noski, nekez ikasiko dituela irakurleak “irakurletasunak” eskatzen dizkion zerak — **letraduna baldin bada, euskaraz letradunentzat egiten direnak irakurtzeko behar dituenak, erdarazkoak irakurtzen dituen eran**—, inork irakasten ez *badizkio*. (LIB II: 137-138).

- Hiru zati ditu liburuak, **oker ez banabil**, azkeneko oharrak baztertuz gero: “Elezar. Kontu barri”, “Pasaixuak”, “Badoozanak. Barri emoten. Alkarregaz berbetan”. (LIB II: 152).

Honenbestez, adibide horiek erakusten digute joera orokor gisa, *tipoeak* —eta bereziki E1 eta E2 enuntziatuen arteko koherentziazko harremana formalki gauzatzeko moduak— baduela loturarik puntuazio-marka bat edo bestea hobestearekin. Ez du, ordea, kokaguneak

berak puntuazio-ikur bat edo bestea erabiltzea eskakizun. Bestela ezingo luke hainbeste kokagunetan puntuazio-ikurrak txandaturaz erabili.

### 8.2.3.2. ENUNTZIATU PARENTETIKOEN IZAERA SINTAKTIKOA

Atal honetan, C tipoko enuntziatu-motak izango ditugu azterkizun, baina, bereziki, E1 eta E2 enuntziatuen arteko menderagailuaren eta puntuazio-marken artean dagoen harremanari erreparatuko diogu.

#### 8.2.3.2.1. Enuntziatio-mailako kausalak

Hona hemen kausazko menderagailuen eta puntuazio-marken arteko harremana:

Kausazko menderagailuak	Komak	Marrak	Parentesiak	Guztira	% zenbat
BAIT-	5	10	1	16	%40
ETA	7	2	0	9	%22.5
-ELAKO	5	2	0	7	%17.5
-ENEZ	1	0	0	1	%2.5
-ENEZ GERO	7	0	0	7	%17.5
GUZTIRA	25	14	1	40	%100
% ZENBAT	%62.5	%35	%2.5		

*Bait*-ekin sortutako enuntziatu parentetikoa da parentesien artean inguraturik agertzen den bakarra eta baita marraez inguraturik gehien agertzen dena ere. Izan lezake loturarik, azterketa sintaktikoa egitean genioen bezala, EGLU VI-ren arabera ere azalpenezko kausazko perpausak bideratzeko egokiena delako, eta hori perpaus bazterreko posiziotik bideratuko du. Zer bazterrago marrek eta parentesiek inguratzen dutena baino?

#### 8.2.3.2.2. Enuntziatio mailako baldintzazko egiturak

Ikus taula:

Baldintzazko egiturak	Komak	Marrak	Parentesiak	Guztira
<b>Oker / gaizki adberbio-osagarriekin sortutako formula eginak</b>				
- Oker ez banabil	2	0	0	2
- Oker ez banago	7	0	0	7
- Oker ez bagaude	2	0	0	2
- Oker ez badaude	1	0	0	1
- (Oso) oker ez banago	6	0	1	7
- Gaizki ez banabil	1	1	0	2
<b>Iritzia/hitza... terminoekin osatutako erritozko formula eginak</b>				
- Ene/Nere iritzi (eskas) ak ezer balio badu	6	0	0	6
- Baldin nire iritzia estalkirik gabe agertu behar badut	1	0	0	1
- Ene hitzak ezer balio badu	1	0	0	1
- Gure ustea garbiro agertu behar badut	1	0	0	1
- Inork eskatuko balit iritzia	1	0	0	1
<b>Egia /gezurra terminoekin sortutako formula eginak</b>				
- Egia aitortu behar badut	1	0	0	1
- Egia zor badizuet	1	0	0	1
- Nori berea eman behar badiogu	1	0	0	1
<b>Gainerako baldintzazko egiturak</b>	11	6	2	19
<b>Guztira</b>	<b>41</b>	<b>7</b>	<b>3</b>	<b>51</b>
<b>% zenbat</b>	<b>%80.39</b>	<b>%13.72</b>	<b>%5.88</b>	

Nabarmena da mota honetako enuntziatuetan komen aldeko joera. Agian izan daiteke erritozko formula eginak edo direlako, eta diskurtsoan bertan integraturik sentitzen ditugulako.

### 8.2.3.2.3. Enuntziatio mailako kontzesio egiturak

Kontzesiozkoak	Komak	marrak	Parentesiak	Guztira
Oker baldin bada ere	1	1	0	2
Gainerakoak	4	2	0	6
<b>Guztira</b>	<b>5</b>	<b>3</b>	<b>0</b>	<b>8</b>
<b>% Zenbat</b>	<b>%62.5</b>	<b>%37.5</b>	<b>0</b>	

## 8.2.3.2.4. Modalizazio mailako erlatibozkoak

Erlatibozkoak	Komak	marrak	Parentesiak	Guztira
Zailago dena	1	0	0	1
Berdin dena	2	0	0	2
Harrigarriago dena	1	0	0	1
Okerrago dena	1	0	0	1
Hori da gehien balio duena	1	0	0	1
Edozeini gerta lekioketena	0	1	0	1
<b>Guztira</b>	<b>6</b>	<b>1</b>	<b>0</b>	<b>7</b>
<b>%zenbat</b>	<b>%85.71</b>	<b>%14.28</b>	<b>%0</b>	

Datuek erakusten digutenez, ez du behin ere parentesien artean inguratuko, eta marren artean ere gutxitan:

- Oroi zaite ordea euskara ez dela, maiz —**oker baldin bada ere**— uste dugun bezala, gure etxeko hizkera, ez gure herrikoa, ezta gure eskualdekoa ere. (LIB I: 39).

## 8.3. ONDORIO OROTARIKOAK

Puntuazioaren atal hau jorrazteko, galdera-andana bat izan dugu buruan, ondorengo honetan laburbildu duguna:

Idazleak ba ote du *koma pareta*, *marrak* eta *parentesiak* bereizteko arau-irizpiderik? Edota bataren ala bestearen arteko hautua ausazkoa edo aldian aldikoa ote da?

Galdera horiei erantzunen bat eman nahiak corpuseko adibideak aztertzeraz eraman gaitu eta ondorio nagusi batera iritsi gara:

1- puntuazioak (eta bigarren graduko puntuazio-markek areago), idazlearen sortzailatasuna dela bitarteko, arauzkoa den horretatik ihes egiteko zirrikitua eskaintzen dio Mitxelenari (ikus besterik ez dago etengabe aipatuz joan garen puntuazio-marken txandakatzek edo aldizkatzek). puntuazioa ez baita, ortografia bezala, guztientzako baliagarri den araudi batean bil daitekeena (Cassany 1993, 2007, Arrieta 1998, Figueras 2001).

Beraz, bigarren graduko puntuazio-marken erabilera idazlearen aukera estilistikoaren ondorio dela ondorioztatuko dugu; hau da, unean-uneko aukera estilistikoaren arabera

dela eta ez kanpotik ezarritako arau jakin batzuen arabera. Horrek, hots, subjektibitateari edo norbanakoaren sormen-aukerari ematen zaion esparru zabal horrek, zaildu egin du gure jomuga: komen, marren eta parentesien arteko erabilera zerk eta nola arautzen duen aztertzea.

2- Dena dela, eta zailtasunak zailtasun, puntuazio-markak idazlearen aukeran oinarrিতා baleude ere, garbi dago testuaren interpretazioa zaintzeko eta babesteko ezinbesteko baliabide gertatzen zaizkiola. Puntuazioa, alde horretatik, esatariak berak esan nahi duena, berak egokien iritzi dion moduan adierazi ahal izateko oinarrizko baliabide estilistikoa dela esango genuke.

3- Bigarren graduko puntuazio-markak (azterkizun izan ditugun hirurak), oro har, norentzakoak diskurtsoa esatariak nahi bezala interpreta dezan bidaltzen dizkion instrukzioak, jarraibideak edo argibideak<sup>211</sup> dira. Norentzakoak egiten duen deskodetze-prozesua bideratzen laguntzeko, esatariak intentzio osoz ezartzen dituen marken edo ikurren sistema litzateke. Honenbestez, komunikazio-estrategia orokor baten zerbitzura legoke: mezuaren interpretazioa kontrolatzera bideratuta dagoen komunikazio-estrategia orokorrako baten zerbitzura.

Izan ere, ikur grafiko hauei esker inguratuta dagoen enuntziatu parentetikoak, oro har, diskurtsoa edo testua nola interpretatu behar dugun adierazten digu; helburu horretara bideratutako instrukzioak ematen dizkigu. Ez, ordea, bigarren graduko puntuazio-ikur hauen barneko informazioak soilik, baita ikurrek berek ere. Esana baitugu enuntziatu parentetikoak ezin ditugula (testu idatzietan, bederen) euren ingurutzailerik edo mugatzaile diren bigarren graduko ikur hauetatik at ikusi eta aztertu. Batak bestearen zerbitzura egiten du lan.

4- Bigarren graduko ikur grafikoek enuntziatu parentetikoaren mugak agerian utzi eta honako instrukzio hauek bidaltzen dizkigute:

- Diskurtsoaren barnean beste diskurtso bat gurutzatu da, eta une batez, oinarrizko enuntziatuaren egitura sintaktiko-semantikoa (eta ondorioz, baita diskurtso-egitura bera ere) hautsi egin da.
- Diskurtsoaren hari nagusia une batez eten egin bada ere, bigarren diskurtso honen ondoren berriz ere aurreko hari-muturrari heltzea ezinbestekoa da. Ez da komeni, bada, ikur hauen aurretik datorren guztia ahaztea.

---

<sup>211</sup>Ez bakarrik, hizkuntzek hainbat eta hainbat baliabide, bitarteko edo estrategia baitituzte beren mezuaren interpretazioa bideratzeko. Baliabide edo estrategia horietako bat puntuazioak berak eskaintzen du; izan ere, puntuazioa testuaren interpretazioa bideratzeko mekanismo laguntzaile eragingarria dela uste dugu.

- Beraz, informazioa ez da bata bestearen jarraian alboratuko; bi informazioak elkarrekin gurutzatuta baizik.
- Bi informazio horiek autonomoak dira. marren eta parentesien artean datorren enuntziatuak bere egitura sintaktikoa du; oinarrizko enuntziatuarekin erkatuz, bere eskukoa da bai sintaxi mailako lotura formalari dagokionez eta baita dakarren informazioari begiratuta ere. Autonomia horren lekuko ikusi besterik ez dago, enuntziatu parentetikoek beren puntuazioa izan dezaketela. Esaterako, goian aipatu ditugun modalizazio-aldaketaren adierazgarri diren galde-ikurrak nahiz harridura-ikurrak.
- Oinarrizko enuntziatuek (hots, testuaren hari nagusiari dagokionak edo E1 enuntziatu bezala izendatu dugunak) eta enuntziatu parentetikoek (E2 enuntziatuek) elkarrekin erkatuz, ez dakarte maila bereko informazioa; maila berekoak izanez gero, ez bailitzateke beharrezkoa izango bata bestetik bereiztea. Esatari-enuntziatzaileak mikroegituratik edo proposiziozko edukitik aldentzen den informazioa txertatzeko erabiltzen ditu; makroegiturari dagokion informazioa txertatzeko, alegia.
  1. Zenbaitetan terminoren bat nahiz enuntziatu oso bat parafraseatu edo birformulatuko du igorleak: zehaztu, azaldu, ñabartu, adibidetu, orokortu, etab. Informazio hau guztia **enuntziazio-mailari** dagokio.
  2. Esatariak enuntziatu duen horrekiko duen jarrera ere agerian uzten dute bigarren graduko ikur hauek mugatzen duten hainbat iruzkinak. Hau **modalizazio-mailarekin** uztartu dugu.
  3. Esatariak beste hainbatetan, norentzakoari seinaleak emango dizkio, honek informazioa testuingura dezan; seinale edo laguntza hauek, askotan, norentzakoaren inferentzien errota martxan jarrarazten dute, diskurtsoaren hari nagusitik aldentzen diren hainbat datu gurutzatuz. Honela, informazioa testuinguruan kokatzearekin batera, norentzakoarekin halako zuzeneko harremana imitatzen du: esatari-norentzakoaren interakzio-harremanean sendotzen du.
- Beraz, koma pareak, marrek nahiz parentesiek inguratzen duten informazioa nahiz ikur grafiko hauek berariaz bidaltzen dizkiguten instrukzioak beste maila bateko informazioaren aurrean gaudela aditzera ematen digute; proposiziozko eduki horretatik aldentzen den beste maila batean. Ez digute adierazten ordea —eta alde



honetatik ez gatoz bat Figerasekin (2001; 2000) ez puntuazioa oro har aztertu duten hainbat autoreekin—, bigarren mailako informazioaren aurrez aurre gaudenik. Are gehiago, gure ustez, nahiz eta informazio hau, apika, hasierako testu-plangintzan ez egon, testuan bertan txertatzen bada (eta nola txertatu, gainera) une horretan esatariari garrantzizkoa irudituko zaiolako txertatzen da; ez bigarren mailako informazioa txertatzen ari delako kontzientziarekin.

- “Bigarren graduko” jo izan diren marka grafiko hauek inguratzen duten informazioa, bada, komunikazio helburu orokorrago batek gidatzen du. Esatariaren helburua diskurtsoa ahalik eta komunikatiboena gertatzea da; hots, idaztera bultzatu duen esatariaren hasierako intentzio-xedea, esatariak berak nahi bezalaxe, norentzakoagana iristea da; ez da, bada, informazio-truke soila, eta horrek berarekin dakar hainbat komunikazio- edo diskurtso-estrategia jokoan jartzea. Estrategia horietako batzuk grafikoki inguratzeko eginkizuna dute aztergai ditugun puntuazio-ikur hauek. Ez komunikazio-estrategia guztiak; ezta hurrik eman ere! Baina bai enuntziatu parentetikoek bideratzen dituztenak eta hurrengo atalean sakonduko ditugunak.

5- Arau zehatzez, bada, ezin dezakegu hitz egin, baina bai enuntziatu parentetikoak inguratzeko edo mugatzeko orduan nagusitzen den (edo diren) **joerez**.

### 8.3.1. Araurik ezean corpusean atzeman ditugun joera nagusiak

Joerak aztertzeke, bereziki, irizpide diskurtsibo-sintaktikoei erreparatu diegu: E1 eta E2ren arteko koherentziazko harremana formalki gauzatzeko moduari (tipoei), enuntziatu parentetikoaren distribuzio-guneari eta euren izaera sintaktiko-komunikatiboari.

Joera nagusiak aipatzeko, lanean xehe-xehe aztertuz joan bagara ere, orain datu orokorreari erreparatuko diegu:

	KOMAK	MARRAK	PARENTESIAK	GUZTIRA
<b>A TIPOA</b>				
Modalizazio-aldaketa	0	8	30	38
Estilo zuzena	5	27	7	32
Aditza daramaten enuntziatuak	31	42	13	86
Aditzik gabeko enuntziatuak: aposizio motakoak	30	43	13	86
Aditzik gabeko enuntziatuak: aposizio ez direnak				
- <i>Liburu edo filmen itzulpen edo erdarazko ordainak</i>	0	0	29	29
- <i>Hizkuntza mailako akatsak, hauen forma zuzenak, oharrak, horien jatorrizko gunea (orrialdea)...</i>	0	0	107	107
- <i>Aurreko sintagma zehazteko balio dutenak</i>	2	52	15	69
<b>GUZTIRA</b>	<i>68</i>	<i>172</i>	<i>214</i>	<i>454</i>
<b>GUZTIRA % ZENBAT</b>	<i>%14.97</i>	<i>%37.88</i>	<i>%47.13</i>	
<b>B TIPOA</b>				
Modalizazio-aldaketa <sup>212</sup>	1	9	4	14
ETA buruan daramatenak	79	49	5	133
EDO buruan daramatenak	16	12	4	32
Gainerako testu antolatzailearen bat dutenak	57	50	10	117
<b>GUZTIRA</b>	<i>153</i>	<i>120</i>	<i>23</i>	<i>296</i>
<b>GUZTIRA %ZENBAT</b>	<i>%51.68</i>	<i>%40.54</i>	<i>%7.7</i>	
<b>C TIPOA</b>				
Enuntziazioko kausalak	25	14	1	40
Enuntziazioko baldintzak	41	7	3	51
Enuntziazioko kontzesiozkoak	5	3	0	8
Modalizazioko erlatiboak	6	1	0	7
<b>GUZTIRA</b>	<i>77</i>	<i>25</i>	<i>4</i>	<i>106</i>
<b>GUZTIRA %ZENBAT</b>	<i>%72.47</i>	<i>%23.85</i>	<i>%3.66</i>	
<b>GUZTIRA</b>	<b>298</b>	<b>317</b>	<b>241</b>	<b>856</b>
<b>%ZENBAT</b>	<b>%34.81</b>	<b>%37.03</b>	<b>%28.15</b>	

<sup>212</sup>Adibide hauek modalizazio-aldaketaz gain antolatzailearen bat daramatenez gero, dagokion antolatzailearen multzoan sartu ditugu; beraz, ez zaizkie adibide hauek gainerako guztiei gehitu behar, baina modalizazio-aldaketa aditzera ematerakoan zein puntuazio-marken aldeko hautua egiten duen jakiteko garrantzizkoa gertatzen zaigu datu horiek multzo orokor horietatik bereizirik erakustea.

## 8.3.1.1. PARENTESIAK

Enuntziatu parentetikoaren TIPOei erreparatuz ohartuko gara parentesien erabileraren portzentajerik handiena A tipoko enuntziatu parentetikoei dagokiela, eta hori izan daiteke E1 eta E2 enuntziatuen arteko haustura sintaktiko-formala<sup>213</sup> horietan handiagoa delako; hau da, bien arteko koherentziazko harremana inolako kohesio-baliabiderik gabe gauzatzen delako. Parentesien erabilerarik urriena C tipoko enuntziatu parentetikoei dagokie. Izan daiteke hauek direlako E1 oinarrizko enuntziatuarekin formalki loturarik handiena dutenak, horietan sintaxi mailako marka formala agertzen baita. Aitzitik, eta arrazoi beragatik, C tipo hauxe izango da koma parearen aldeko hautua nabarmenen egingo duena ere, hauetan, E1 eta E2ren arteko lotura estuagoa baita.

Goiko hipotesiak badu, aldez edo moldez, Mario Linares (1974)<sup>214</sup> zioenarekin loturarik. Honen ustez bigarren graduko puntuazio-ikurren arteko aldea harreman semantikoan dagoen graduazioaren arabera da.

Autore honen arabera, izan ere, badira gaiarekin “analogiazko harremana” duten ideiak; badira “hurbileko harremana” dutenak; baita “urrutiko harremana” dutenak ere, eta badira, azkenik, gai nagusiarekin —edo hari nagusiarekin, hobeto— inolako harremanik ez duten ideiak.

– Hari nagusiarekin “analogiazko harremana” duten ideiak bereizteko koma, konjuntzioren bat edo ezer ere ez omen da erabiltzen, edo hori omen da, behintzat, ohikoena. (Linares 1974: 33).

<sup>213</sup> Ikusi besterik ez dago A tipoaren barnean ere aposizioen arabera aditzik gabeko enuntziatuak direla parentesien artean gutxien agertzen direnak, eta hori, gure ustez, enuntziatu mota horretan marka morfologiko bera agertzeak bi enuntziatuen (E1 eta E2) arteko lotura sendoagotu egiten dutelako gertatzen da. Aitzitik, enuntziatu parentetikoak, inolako lotura morfologikorik ez duten aditzik gabeko sintagmek osatzen dutenean, parentesien artean edo marren artean demarkatzeko joera izango du. Bada, beraz, parentesia E1 eta E2 enuntziatuen arteko haustura-graduaren adierazle.

<sup>214</sup> Gaztelaniaren esparruan Mario Linares (1974) izan da parentesien, marren nahiz koma parearen arteko intzisoak puntuazioaren ikuspegitik bereizten ahalegindu den autore bakarrenetakoa. Egia da estilo-liburu guztiek —edo ia guztiek— lantzen dituztela puntuazioaren alorrean *marrak*, *parentesiak* nahiz *intzisoko komak*. Hauek, ordea, gehienbat erabileren inbentario txiki bat egitera lerratzen dira, eta oro har, sail berean sartzen dituzte hiruak; euren arteko bereizketarik egin gabe. (ikus Onieva Morales 1992, Esnal & Zubimendi 1993, Chacon 1995, De la Fuente González 2005, 2006, IVAP 2005, Roque Eguzkitza 2008, 2009, etab.).

- Hurbiltasun-harremana dutela adierazteko *puntua, puntu eta koma* nahiz *pasarte barrengo puntuaz* balia gintezke. Horiekin batera, *marren artean* kokatzen diren intzisoak<sup>215</sup> ere hurbiltasuneko-harremana gauzatzen dutela berariaz aditzera emango digu.

- Hari nagusitik erabat edo ia erabat urruntzen diren ideiak aditzera emateko, *puntu eta aparte* eginez, beste ahapaldia erabili ohi da. Horrez gain, *parentesi bidezko intzisoak* nahiz oin-oharrak oso erabilgarriak omen dira.

Oso eskematikoki adierazi badu ere, ideien arteko distantzia edo harremana bihurtu du irizpide nagusi puntuazio-markak sailkatzeko:

El sentido de distancia entre dos ideas, que tan esquemáticamente se acaba de exponer, va a ser el principio general que nos permitirá resolver todos los casos posibles de puntuación. (Linares, 1974: 33-34).

Gure ustez, harreman semantikoan baino gehiago, E1 eta E2 enuntziatuen arteko koherentziazko harremana formalki (inolako lotura formalik gabe, kohesio-mekanismoei esker edo marka (morfo)sintaktikoarekin) gauzatzeko moduan dago gakoa.

#### 8.3.1.1.1. Parentesien erabilera nagusiak

Parentesiak oso nabarmenak dira, eta erabilera espezializatua daukate. Hona hemen, Mitxelenaren luman parentesien erabileran nagusitzen diren joerak:

### 1. Modalizazio-aldaketak

Modalizazio-aldaketa aditzera ematen duten enuntziatu parentetikoetan, oro har, parentesiak darabiltza. Hautan esatariaren eta enuntziatzailearen arteko desberdintasuna nabarmena da: esataria E2 enuntziatu parentetikoaren enuntziatzailea da eta E1 oinarrizko enuntziatuko enuntziatzailetik desberdintzen da. Beraz, bi enuntziatuen arteko haustura nabarmena da.

---

<sup>215</sup> 'Intziso' adigaia oso modu zabalean darabil, baita guk izendatu ditugun enuntziatu parentetikoentzat ere:

“A los efectos del presente estudio, inciso es todo elemento (palabra, frase, oración y más generalmente trozo de escrito) del *ámbito* que puede ser suprimido, junto con las comas, rayas o paréntesis que eventualmente puedan acotarle, sin que varíe el sentido del ámbito y sin que sea preciso retocar la redacción”. (1974: 45-46).

- Baina kopet harro ez direnek (**ez garenek?**) ez dute damu izango ikustera joana. (ZIN: 124).
- Iñakik eta Begoñak seme bat dute: "el" Txantxo (**ze izen arrano ote da hori?**). (ZIN: 133).
- Nabari zaio ez dela gaia zenbaiten (**askoren edo gutxi batzuen?**) gogoko izango eta hala ere, edo horrexegatik beragatik, batere beldur eta kupidarik gabe azaldu nahi luke. (ZIN: 145).
- Behingoz bederen, zinemak, ixpilu (**zeren ixpilu gero?**) izateari utzirik, amets-ateak iriki dizkigu, Albert Lamorisse´ri eskerrak (ZIN: 170).

## **2- Ohar bibliografikoak**

Oso ohikoa da libururen baten bibliografiazko erreferentzia eman behar duenean parentesietara jotzea. Ikusi ondorengo adibideak:

- Congreso de Literatura y predicación franciscana en euskera (**Aránzazu, 9-12 de agosto de 1960**).
- Honako bertso honetan (**Manual Devotionezkoa, I, 30**), beste askotan bezalaxe, nori berea ematen dio burjesari (sic) (ontzi-jabeari), buruzagiari (patroiari) eta pilotuari, elizaren ontziaz ari dela. (LIB II: 57).

### **a- Data-tarteak jasotzea**

- Ez da, beraz, bestek esana berresaten ari, berbera baita gai horrezaz lan sakon bat argitara zuena erdaraz: La Sierva de Dios M. Angeles Sorazu. Estudio místico de su vida (**Arantzazun, 1950-1951**), bi liburutan. (LIB I: 60).
- Ez dakit ba ote genuen beste bildumarik, Joannateguy´ren bi liburuez kanpora: Ehunbat Sainduen bicitcea (**1876**) eta Sainduen bicitcea (**1890, Ilbeltz Apirila bakarrik**). (LIB I: 123).

### **b- Iruzkin bat edo hizkuntza mailako oharren bat zein orrialde zehatzi dagokion adieraztea**

- Honako beste ohar hau hizkuntzari dagokio. Ubillosez ari dela (**151gn. orrialdean**) dio A. Villasantek: (LIB II: 66).

- Harizmendik (**91 gn. or. hemen**) -ino bukaera erabiltzeak ez du gauza handirik esan nahi, beste hainbeste egiten baitu, esaterako, Axularrek. (LIB II: 67).

- Peru Abarka-tik honek hartu zuen pasartean (**127 gn. or.**) igunpian goraxeagoko gabi-igunaren laburpena besterik ez baita. (LIB II: 77).

### **c- Lan jakinen bat ikustera bidaltzen duten oharra bidaliz, enuntziatzaileak esandako zerbait egiaztatzea**

- Eta Islandiako bazterretan 1600 inguruan entzuten zuten euskara (**ikus N. G. H. Deen, Glossaria duo Vasco-Islandica, Amsterdam, 1937**), gipuzkoarrak ere han gehiegixko nabarmendu zirela dakigularik, Lapurdikoa zen, dudarik gabe. (LIB II: 57).

- Hemen aipatu nuen Orbelak-en ondoren (**ikus iazko EGAN, 99-100 orrialdeetan**), laster irten da Arantzibia-ren bigarren olerki liburua. (LIB II: 143).

### **d- Edizio kritikoetan ohar filologikoak egiteko eginkizuna**

- Xenpelarren bertsoetan zenbait huts, edo huts diruditenak behintzat —eta barka, oker banabil—, ageri dira. Hona hemen batzu: zortzi konfiteruak (**25 or., zortzi konfitero ta?**), Lonjinós'ek auxe zion (**28 or., au zion**), ez al-dakiken (**31 or.**) ez al-akiken-en orde (**hurrengo etzala lizentzi entzun izan dut**), abillidade gutxi dedala/ ez esan iñori (**32, daukanik behar luke**), ezur igarrek austen zailla duk pixka bat beheraxeago (**zailak ttuk, zaila'ituk**), Ni ezazu ibiltzen (**35, enazu**), panparroi pasatu zan (**42, panparroi pasa zuten, iru komertziante" baitziren**), berari tira alde (**49, dale da, ez alde**), inbiriyaq nork ditu (**61. inbiriya nork du, edo inbiriyaq nork ttu gehienez ere**), barrurdia dirudi (**85. basurdia**), eztu galtziak merezi (**95. galtzia**), Iru leyua, Trinitadea (**103 Iru leyuaq**), bestela biziya pena (**104, ez ote da biziyan pena?**), eskatzen ditut zeorri (**107. dizut**), zortzi Ministro abilla (**112. abiya**), kartzela baneta jarri (**114. banetan edo banatan**), eriotzatik gabe (**119. eriotzarik**), Pilatos'ek sententziya (**120, Pilato'k ote?: silaba bat gehiegi baitu bestela**), oyek danagatik (**12, oyek danakatik edo danangatik**), munduari nai ziozkat (**125, diozkat**), eguneko esatea (**131, egunero**), Zugaz akordatzen naiz (**132, zutaz**). (LIB I: 107).

### **3- Itzulpenak**

- Hoen artean leku berezia merezi du eskuarki The Prodigal (“**El hijo pródigo**”) delakoak, onena izatea bezain berezia eta nabarmena baita txarrena izatea. (ZIN: 189).
  
- Beste burutik hastekotan, Elia Kazan´en EAST OF EDEN (“**Al este del Edén**”) aipa dezagun aurrenik. (ZIN: 189).
  
- Ez zen besterik John Ford´en My darling Clementine (“**Pasión de los fuertes**”, **hemen**), Henry Fonda, Walter Brennan eta Victor Mature´kin (ZIN: 190).
  
- Ez dago bestela aurten ikusi dugun Dimytryk´en “The Young Lions”-ekin (“**El baile de los malditos**”, **hemen**) berdintzea besterik. (ZIN: 196).
  
- Gehiago nahi zuen Ken Annakin´en ACROSS THE BRIDGE (“**Al otro lado del puente**”) izenekoak. (ZIN: 191).

Joera horiek nabarmentzen zaizkio eta horietan guztietan ikus daiiteke parentesia badela haustura-mailaren adierazle ere.

### 8.3.1.2. MARRAK

Marrak ere E1ekiko hausturaren adierazle dira. Oro har berari honako joerak atzeman daitezke Mitxelenaren luman:

#### A TIPOA

1. Zuzeneko diskurtsoaren adierazle den enuntziatio markoa aditzera ematen duenean, nagusiki marretara jotzen du:

- “Harrigarria da — **dio, gutxi gorabehera, maiz aipatzen dudan Donostiako kritiko erne eta trebe batek**— zein zuzen dabilen film hau gertatutakoen ondoan, zein zehazkiro biztu duen Douglas Sirk´ek aldi joana. (ZIN: 142).
  
- “Azkenean —**besteren hitzak hartuko ditugu ahoan**—, ikusia zegoanez, Ben Trane zintzoak hiltzen du Joseph Erin bihurria”. (ZIN: 143).

Egia da, halere, badela parentesien artean nahiz bi komen artean inguraturik agertzen denik ere.

2. Beste horrenbeste esan dezakegu besteren hitzak zuzen-zuzenean edo dauden- daudenean oinarrizko enuntziatuan tartekatzen dituen enuntziatu parentetikoaz ere. Guztiak marren artean edo parentesien artean tartekatzen ditu.

- Eta aldamenekoaren oihuak belarrian ditugula, nola amets egin, “Cinemascope” —“**mundua sortu zenez gero ikusi den gauzarik miragarriena**”— berriarekin ere? (ZIN: 129).

- Kolore bizirik ere ez, eguzkiaren basoko harrigarritzko ibilerak —“**osto-pilo eta izar izunak habe**”— eta euriaren etengabeko emana begietaratzeko. (ZIN: 130).

3. Aditza daramaten enuntziatu parentetikoak aditzera emateko, nagusiki, marretara jotzen du eta gutxiagotan koma parera.

4. Aditzik gabeko enuntziatu parentetikoetarako ere, bai aposizioen araberakoentzat bai ez direnentzat marrak erabiltzeko joera du. Komaz ere baliatzen da aposizioen araberakoak aditzera emateko, baina inoiz ez marka morfologiko bera ez daramatenak aditzera emateko. Beraz, hor ere ikus daiteke zenbat eta E1 eta E2ren arteko haustura txikiagoa izan (koherentziazko harremana kohesio-baliabidez indartua baitago), bi komen erabilera handiagoa dela. Ikus dezagun hobeto B TIPOko datuak aztertuz.

## B TIPOA

1. E1 eta E2 enuntziatuen arteko koherentziazko harremana kohesio-baliabidez sendotuta dagoenez gero, puntuazio-marketan ere eraginik baduelakoan gaude: adibiderik gehienak marren artean eta koma parearen artean agertuko baitira. Parentesiaz gutxiago baliatuko da.

2. Modalizazioaren aldaketa gertatzen denean ere, A tipoan ez bezala, gehienak marren artean kokatzen ditu. Gutxiago parentesien artean.

3. *Eta* buruan daramaten enuntziatu parentetikorik gehienak koma parearen artean (%59.39) edo marren artean (%36.84) inguratzen ditu. Askoz gutxiago parentesien artean (%3.75).



4. *Edo* buruan daramatenak ere gehienak komen artean (%50) edo marren artean (%37.5) adierazten ditu. Gutxiagotan parentesien artean (%12.5).

5. Gainerako testu-antolatzailearen bat daramanean ere, gehienetan marren (%48.7) eta komen aldeko joera antzematen da (%42.73). Gutxiagotan agertzen da parentesia (%8.54).

## **C TIPOA**

Pentsatzekoa da, bada, goian aipatu dugun E1 eta E2 enuntziatuen arteko haustura-mailaren eta puntuazio-marken arteko harremana kontuan izanik tipo honetako enuntziatu parentetikorik gehienak koma parearen artean adieraziko dituela. Tipo honi baitagozkio E1 eta E2 enuntziatuen artean harreman sintaktikorik egon ez arren, marka sintaktiko formala daramate enuntziatu parentetikoak, eta horrek, formalki behintzat, lotura handiagoa erakusten du.

Corpuseko datuek uste hori indartu besterik ez dute egiten: koma pareari esker, %72.47 enuntziatu parentetiko ematen ditu aditzera; marrei esker, %23.85, eta %3.66an bakarrik baliatzen da parentesiez.

### **8.3.1.3. KOMA PAREA**

1. Goian esan dugunez, C tipoari dagokio berariaz koma parearen aldeko joera: E1 eta E2ren arteko koherentziazko harremana formalki indartuta badago, koma parearen erabilera orduan eta handiagoa izango da, eta alderantziz. Horren arabera:

## **A TIPOA**

a) Modalizazio-aldaketa dakarren enuntziatu parentetikoa inoiz ez du koma parearen artean inguratuko. Beraz, norentzakoari hizkuntza mailako oharren bat edo egin nahi dionean, nahiz orrialde jakin bat ikustera bidali nahi duenean inoiz ez du koma parearekin egingo.

b) Besteren hitzak zuzenean aditzera eman behar dituzenean ez da koma parearen aldera lerratuko, haustura handia baita; izan ere, holakoetan bi enuntziatzaile desberdin ditugu, edo, hobeto esan, esatariaren eta enuntziatzailearen arteko bikoizketa gertatzen da.

c) Aditzik gabeko aposizioen araberako enuntziatuetan koma parearen erabilera askoz handiagoa izango da aposizioaren araberakoak ez direnetan baino, haietan formalki deklinabide kasu bera errepikatzen baita.

## B TIPOA

a) Koma parearen aldeko joera nagusitzen ari da: A tipoan %14.97 izatetik, hauen erabilera %51.68 izatera pasa da. Horretan, gure ustez, E1en eta E2ren arteko harremana kohesio-baliabidez indarturik egoteak izan badu zeresanik. Ikusi besterik ez dago *eta* buruan duen enuntziatu parentetiko gehienak koma bidez mugatzen edo inguratzen dituela. *Edo* buruan daraman enuntziatuarekin ere beste horrenbeste gertatzen da.

b) Koma parearen benetako esparrua C TIPOko enuntziatu parentetikoetan ikusten dugu.

## 9. ENUNTZIATU PARENTETIKOEN KOMUNIKAZIO-EGINKIZUNA

### 9.1. SARRERA

Azterkizun ditugun enuntziatu parentetikoak definitu eta formalki nola osatuta dauden aztertu eta sailkatu ondoren, komunikazioan eta bereziki Mitxelenaren diskurtsogintzan zein eginkizun edo funtzio duten jorratuko dugu; zertarako, zein helburu erdiesteko darabiltzan hain zuzen errenteriarak. Beraz, bete-betean alderdi komunikatibo-diskurtsiboari erreparatuko diogu.

Hasieratik bertatik esan dezagun enuntziatu parentetikoaren egitekoa komunikazio-eginkizun orokorraren zerbitzura dagoela. Izan ere, zeinahi komunikazio ekintzatan, esatariak norentzakoari zerbait komunikatzeko helburu edo xedea izan ohi du eta ahalegin guztiak egingo ditu bere hasierako intentzioaren eta norentzakoaren interpretazioaren artean ahalik eta alderik edo zirrikiturik txikiena egon dadin.

Ahalegin edo eginkizun horretan ikusten dugu enuntziatu parentetikoaren egitekoa ere. Horretarako, esataria saiatuko da norentzako horrek egingo duen interpretazioa testutik bertatik gidatzen edo bideratzen, bere enuntziatuak modalizatuz, iruzkinduz edota birformulatuz batetik; norentzakoarekin zuzeneko interakziozko harremana bideratuz

bestetik, eta azkenik, esatariak eta norentzakoak batean duten unean-uneko informazio pragmatiko eragingarriena aktibatuz.

Enuntziatu parentetikoaren eginkizun komunikatibo horrek, bada, komunikazio-sarearen zutarrak diren hiru osagairi behintzat eragingo die bete-betean: esatariari berari, norentzakoari edo esatariak buruan duen hartzaileari, eta testuinguruari, hain zuzen. Baina ez da aski izango. Ezinbestekoa izango da, izan ere, esatariaren intentzio-xedea zein den ezagutzea. Mitxelenak kritiketan norentzakoaren informatzeko helburua ote du soil-soilik edota norentzako horrengana berak ateratzen dituen ondorioak helarazi eta honen uste-iritzietan eragitekoa ere bada bere hasierako xedea<sup>216</sup>.

Horren guztiaren arabera, komunikazio-sarearen ez hiru baizik eta lau (esataria, norentzakoaren, testuinguruaren eta intentzio-xedea) zutarrak nagusitan oin hartuko dute enuntziatu parentetikoaren komunikazio zereginek ere. Eta diskurtsoaren antolamenduari dagokionez, enuntziatio-mailan, modalizazio-mailan eta argudio-eta informazio-egituretan eragingo dute; hau da, mezuan bertan baino areago, mezua inguratzen duten egituretan edo makroegituran.

Honenbestez, aztergai dugun corpusa kontuan izanik, bost eginkizun komunikatibo-diskurtsibo nagusi bereiziko ditugu:

1) Esatariak bere arrazoibidean aurrera egiteko bitarteko izango dira. Alde horretatik enuntziatu parentetikoak argudiatzeko diskurtso-estrategia erretoriko-pragmatikotzat joko ditugu.

2) Esatariak norentzakoarekin zuzeneko interakziozko harremana bideratzeko eginkizuna ere badute enuntziatu parentetikoek. Izango dute ikuskizunik, bada, Griceren “auzolanaren edo laguntzaren hastapena”-rekin nahiz kortesiazko arauekin.

3) Esatariak eta norentzakoak batean duten informazio pragmatikoa (Bustos 1986) aktibatzeko eginkizuna dute. Maiz enuntziatu parentetikoak esatari-norentzakoek bizi duten gogo-giroaren isla izango dira eta informazioa testuinguru jakin batean kokatzen lagunduko dute.

4) Ahozkotasuna idatzian txertatzeko baliabide.

5) Esatariaren intentzio ironikoaren ispilu.

Enuntziatu parentetikoak, esatariak berak esandakoa nola interpretatu behar duen adierazteko norentzakoari egiten dizkion ohar-keinuak direnez gero, azter dezagun lehenik

---

<sup>216</sup>Eskaldell-entzat ere (2005) igorlearen edo esatariaren asmoa norentzakoaren barne-irudikapenean eragitea da.

eta behin zein den Mitxelenak buruan duen norentzako hori, honekin txandakatuko baititu bere zereginak.

## 9.2. LITERATUR ETA ZINEMA-KRITIKEN NORENTZAKOA

Jarraian norentzakoari erreparatuko diogu. Komeni ere komeni da komunikabidearen zutabe beharrezkoa den osagarri horri erreparatzea, horrexek baldintzatuko baitu mintzagaia<sup>217</sup> eta mintzagaia helarazteko modua. Are gehiago, enuntziatu parentetiko askoren egitekoa, saioak arrakasta izan dezan, norentzakoaren arreta erakarri eta zereginak honekin txandakatzea dela jakinik.

Norentzako<sup>218</sup> edo alokutorioa diogunean, esatariak mezua igortzean gogoan duen gizabanakoa adierazi nahi dugu, norentzat egiten duen bere mezua, alegia. Esatariak berariaz hautatzen du, buruan duen norentzako hipotetiko da, izan ere. Gure “kritiken” kasuan, Koldo Mitxelenak liburu eta filmen iruzkin-epaiak egitean zuzen-zuzenean gogoan duen *Egan* aldizkariko ohiko euskal irakurlea izango da; baina ez hori bakarrik, baita neurkizun duen lanaren egilea<sup>219</sup> bera ere.

Eta enuntziatu parentetikoei esker egiten dituen oharrak ere norentzako honi zuzentzen dizkio; norentzako honi, hain zuzen ere, egiten dizkio ohar-keinuak, igorri duen informazioa nola ulertu edo interpretatu behar duen adierazteko.

Egia ere da esatariak buruan duen balizko norentzako horrez gain, egon daitekeela zeharkako norentzakorik ere; hau da, esatariak aurretik ikus ditzakeen beste hartzaile batzuk ere, edo berariaz zuzentzen ez zaizkionak. Esatariak bere zereginak zuzenean hartzaile honekin txandakatzen ez baditu ere, esataria ardura daiteke komunikazio horretan egon daitezkeen zeharkako norentzakoez. Gurera ekarriz, izan daiteke, ez *Egan* aldizkariko ohiko irakurlea, baina bai esataria bizi den testuinguru soziokultural horren partaide den edonor, esatari jakin horren testuak irakurtzera lerra daitekeena.

<sup>217</sup>Aski argigarria da Jon Miranderekin egin zuen gutun-trukean Koldo Mitxelena nola saiatzten den bultzatzaile eta eragile izatearekin batera mintzagaiaren mugak ere argi uzten. Hau da, idazlanak eskatzen dizkio Miranderi, baina argi eta garbi utziz zein den euskal giroa, zentsura politikoa eta morala: “Bidaliko ote zenizkiguke bi illez bein, Paris’ko edo beste nonnaiko —Kelterriko esate baterako—berriak. Edozein motatakoak izan ditezke, politika-gai batzuk kendu ezker: emen bat edo beste geiegi asalda dezaketena alegia. (Urkizu 1998).

<sup>218</sup>Metodologiaren atalean ikusia dugu Enuntziatioaren Hizkuntzalaritzaren barnean mezua jasotzen edo aditzen duena bi motatakoa izan daitekeela: norentzako eta hartzailea. Bien arteko ezberdintasuna ere zehaztu dugu.

<sup>219</sup>Mitxelenak lantxook idazten dituen liburugile-argitaratzaileak bizirik daudenez gero, kinka berezia bizi bide du juzku-emate honetan; egokiera politean egon gaitzke, bada, Mitxelenaren hitzari darion freskotasuna, eta aldi berean, hitzak hobeto neurtu beharra ikusi ahal izateko.

Azkenik egon daiteke ausazko norentzakoa ere; hau da, esatariak aurretik ikus ez dezakeen hartzailea: hartzaile hau ausazkoa, zorizkoa edo aleatorioa da, eta, ondorioz, esatariak ezingo du aurreikusi hartzaile mota honek mezuari emango dion interpretazioa. Hizkuntza-kode jakin hori aditzeko gaitasuna duen edonor izan daiteke eta, beraz, idatzi eta handik urteetara “kritikak” irakurtzera makurtzen den edonor.

Uste dugu Mitxelenak lortu duela norentzakoarentzat ez ezik etorkizuneko hartzaileentzat ere bere mezua eta mezua helarazteko modua eragingarria izatea. Baina orain aztergai duguna ez da etorkizuneko hartzaile hori, ez eta (bidenabar ez bada) zeharkako norentzakoa ere. Berariaz zuzentzen zaion norentzako hori izango dugu kontuan, goian esan dugun bezala, horrekin txandakatzen baititu esatariak bere zereginak.

Esatariak buruan duen *Egan* aldizkariko euskal irakurle hori —eta horien artean edo horietatik nabarmenduz neurkizun duen lanaren egilea— nolakoa den irudi bat egiteko, gatozen lehenbizi 1950-1970 urte bitarte horretan *Egan* aldizkariak, oro har, zein irakurle mota zuen aztertzea. Horretarako, zer hobeto Mitxelenaren beraren testuetan oin hartzea baino. Azterkizun ditugun kritikez gain, *Egan* aldizkariko beste hainbat artikuluri ere erreparatuko diegu. Esaterako, “berriketan” atalean elkarrizketatzen zituen solaskideen iritziak aski esanguratsuak dira, berariaz galdetzen baitzien *Egan* aldizkariari zer irizten zioten. Eta horien artean —edo horiekin batera—, Mitxelenak berak bere buruarekin egindako “solasaldia” edo “bakarrizketa” ere oso kontuan izango dugu.

Norentzakoaren atal hau lantzeko ondorengo arrastoei segituko diegu:

### **1- 1950-1970 bitarteko *Egan* aldizkariaren euskal irakurlea**

1. “Asmo berri”, aldizkariaren garai berria iragartzen duen sarrera-artikulua.
2. Mitxelenak *Egan* aldizkarian egindako elkarrizketak eta bereziki bere buru “besteretuarekin<sup>220</sup>” izandako solasean aitortua.
3. Mitxelenaren zinema eta liburu kritiketako hausnarketa-iritzietatik atera daitekeen irakurlearen irudia.

### **2- Mitxelenaren kritiken norentzakoa**

---

<sup>220</sup>Mitxelenak berak bere buruari egindako elkarrizketa-bakarrizketaz dihardugu: “Etxekoekin hizketan” izenburua daramana.

Azterkizun ditugun testuetatik abiatuz, Mitxelenaren testuek irudikatzen duten balizko norentzakoa edo “irakurle implizitua”. Horretarako, bi strategiari erreparatuko diegu:

- a) Irakurlearekin izendatuki eta zuzenean aritzen den alderdiari: irakurlearekin izaten duen fikziozko elkarrizketa horretatik abiatuz, egiten dizkion dei edo deikiei.
- b) Bere testuetan zeharka nahiz zuzenean egiten dituen aipuei.

## 9.2.1. 1950-1970 urteetako *Egan* aldizkariaren euskal irakurlea

### 9.2.1.1. GARAI HARTAKO EUSKAL IRAKURLE KOPURUAZ, OHAR BATZUK

Hogei urteko tarte batean, agian, oso zaila da irakurle-mota berari buruz hitz egitea; are ezinezkoa, jakinik gizartea etengabe aldatuz doan heinean irakurle-kopurua ez ezik irakurle-mota ere aldatuz doala.

Guk une honetan ez dugu euskal irakurleen luze-laburraren auzi labainean sartu nahi. Garai horretako irakurle kopuruari dagozkion datuak (guk aurkitutakoak behinik behin) oso urriak eta zehaztapen handirik gabekoak direlako, batetik, eta Mitxelenak buruan duen balizko norentzakoa aztertzekeo kantitateari baino areago kalitateari edo irakurleak dituen ezaugarriari erreparatu beharko litzaiokeela uste dugulako.

Kopuruaren auzian sartzeko intentziorik ez badugu ere, datu eta pasarte batzuk aski esanguratsuak iruditzen zaizkigu, aztergai dugun garaiazen isla izan baitaitezke:

“Orixe gure artean” (1954, 3-4) izenburua zeraman artikuluan Mitxelenak Orixeri honako galdera hauek egin zizkion:

- Nonbait esan duzu —*Meza-liburuan* noski— berreun edo irureun lagunentzat ari zerala, besteei ajola etzaielako edo. Zergatik ote irakurleak ain urri izatea?
- Lenbizi, liburua garestiz erosiko ez dutelako. Gero gure erria irakurle ez delako.
- Euskal-liburuak zaillak arkitzen dituzte askok. Norena ote da gehienbat errua, egilleena edo irakurleena?
- Biena.
- Irakurleak euskal-gaietan bear bezain ikasiak ezpadira, zein izango litzake erakusteko eta zaletzeko biderik erosoena?
- Gauza urragarri bat idaztea, v. g. “Coprógenas” antzekoa.  
(Bide ontatik ez ote da iñor abiatu? Jakitekoa litzake kiratsak lore-usaiak baiño irakurle geiago bildu ote duen).

Ez irakurtzearen balizko arrazoiak beheraxeago aztertuko baditugu ere, aipu honek garbi erakusten digu “apenas irakurtzen dela euskaraz”, edo behintzat Orixe bezalako goi mailako idazle baten irakurle kopurua oso murrizta dela.

Mitxelenaren liburu-kritiketan ere, maiz agertzen da euskal irakurleak gehitu beharra:

Egileak bere neurriko gaia aukeratu ez duela diotenik ere badira. Hori Etxaideren alde mintzatzea da, nolana ere. *Euskal irakurleak gehitu eta euskara zabaltzeagatik* ekin badio lan apal honi —eta gehiagotarako gai dela gauza nabaria da—, ez du gutxi egin gure hizkuntzaren alde. (MEIG II<sup>221</sup>: 91-92).

Beste zenbaitetan, ordea, argitaratu berri den liburu jakin batzuek erostun edo irakurle ugari izango dutela iragartzen du Mitxelenak berak, eta ziurtasun horren eragile izan daiteke garai hartako irakurle gehienek gai jakin batzuetarako duten isuria.

Lehen Buenos Airesen (1904) eta gero Donostian (1930) argitaratuak nekez aurkitzen direnez gero, jakina da erostun eta irakurle ugari izango duela oraingo liburuak. Bertsolarienganako joera zaharra ez da batere gutxitu gure herrian: ikasiagoak ere bertsozaletu egin direla, besterik ez. (MEIG II: 147).

Irabazi ederra izango du euskarak, nere ustez, liburu hau berriz argitaratzearekin, izango baititu berriz ere irakurle ugari. Gerok ere, honelakoxe ixtorio bakunak haurtzaroko lainartean utzi uste genituenok, ez gara galduan irtengo irakurtzen baditugu. (MEIG III: 44).

Txit dotore azaldu da liburua [kerexeta tar Jaimeren *Jesu-Kristo Gure Jaunaren Barri Ona*], paper bikainean eta azal bikainarekin, eta txit merke, merke baino merkeago: 25 eta 15-na pezeta, hirurehun eta berrogehitamar orrialdetik goragokoa izanik. Erruz saldu da Bizkaian, dakidanez, eta handik kanpora ere zabaltzea merezi luke. (MEIG III: 48).

Agertuz gero [Lardizabalen *Testamentu berriko kondaira edo historiaz* dihardu] ederki zabaldu zen Gipuzkoan barrena Kondaira hau, beste edozein euskal liburu baino gehiago beharbada. Eta ongi merezi zuen horren zabaldua egotea. (MEIG II: 94).

Gogoz irakurtzen dira, bada, bertsolaritzaren eta erlijioaren gaia jorratzen duten liburuak. “Gogoz irakurtzen dira eta ez dago irakurtzeko eskatu beharrik”, baina, hala ere, eskatu egiten du. Liburu-kritiken bukaera ia guztietan egiten dio irakurleari erosteko deia, eta

<sup>221</sup>Aipua azterkizun ditugun kritiketatik bertatik jasoa badago —corpuseko adibideak emateko moduarekin nahasgarri gerta ez dadin—, kritika hori klasikoak saileko *Euskal idazlan guztiak* bildumako zein liburukitatik jaso dagoen adieraziko dugu.

“irakurle nagi horrek” irakur dezan etengabe akuilatzen aritze soilak ez ote du erakusten euskal irakurle kopurua nahi bezain handia ez dela eta kopuru hori handitzeko lan gogor egin behar dela?

Mitxelena, behintzat, etengabe ari da liburuak zabalkunde handia izan dezan ahaleginean: batzuetan, liburua “merke baino merkeagoa” dela adieraziz, eta bestetan zabaltzeko desioa azpimarratuz:

Zabalduko ahal da bilduma polit hau gure artean behar lukeen adina! Dirurik eza aitzakia txarra izango da behintzat oraingoan liburuxka hau ez erosteko. Bakoitzak ez du HAMAR ERREAL besterik balio . (MEIG II: 95).

Salduko ahal da liburu hau merezi duen bezain laister, euskaldunen eta euskararen onerako. (MEIG II: 108).

Argitaraldi eder honek izango ahal du merezi duen harrera! (MEIG II: 95).

Aipu horiek erakutsi digute, oro har, euskal liburuen zabalkundean lan handia egin beharra dagoela, garai hartako euskal irakurleen kopurua ez baita nahiko litzatekeen bezainbestekoa. Eta euskal aldizkarien irakurle-kopuruari buruz ere beste horrenbeste esan ote dezakegu?

Mitxelena berak “etxekoekin hizketan” ari dela *Egan* aldizkariaren irakurleaz galdegitean honela erantzungo du: “erostunak baditu behinik behin, eta irakurleak ere izango al ditu” (MEIG I: 82). Ez du zehazten, ordea, zein den irakurleen kopurua.

Garai hartako irakurle kopuruari edo aldizkariaren zabalkundeari dagozkion datuak oso urriak dira, eta ahalik eta lasterren aztertu beharrekoak. Garbi dago, ordea, euskal aldizkariak garai hartan ez zutela zabalkunde izugarririk eta harpidedunen premia izugarria zela:

Gure beharrean dira, ordea, horrelako harpidedunen beharrean, eta ezin geniezaieke uka gure laguntza. (MEIG II: 88).

Baieztaatu dugunaren lekuko, ikusi besterik ez dago Intxaustik (1980) *Egan*-en garaikide izan zen *Euzko-Gogoaz* ari delarik dioena:



Itxuraz, Euzko-Gogoa-k zabalkunde arazoa ez zuen sekula ongi askatu. Irakurlegoa, irakurle leialen kopurua, ez zen inoiz halako multzo zabalxka batera iritsi. Guatemala-tik irtenda, beste lantegitako diru-iturriak itxi zitzaizkionean, ez zuen luzaro iraun, bere baitandik zeuzkanekin, ez baitzen posible. (Intxausti 1980: 12).

Euskal lanen zabalkunde eskasaren arazoa, gainera, Intxaustik (1980) azpimarratuko digunez, ez zen *Euzko-Gogoarena* bakarrik: “Orduan eta gero, gure egunetara arte, luzatu den borroka da. “Ofizialki ezarritako legezko eragozpenen ondoan, euskaldunen utzikeria tartean zebilen” (1980: 14).

*Euzko-Gogoak* eskaintzen zuen plaza egokia gertatu zaigu idazleak garai hartako euskal irakurlearen eskasiaz mintzo zirelako eta bertan idazten zuen Zeleta-k emandako datu bat ongi etorriko zaigu garai hartan euskal irakurzaletasunaren “indarra” neurtzeko:

Euskara egiten dan erri bakoitzean, gutxienez bost iyeki salduko ziralakoan, bost milla liburu egin zitun gure idazle argiak [Tx. Irigoien-ek]. Uste bezela, bost'eko liburu sortak banatu zituan erri bakoitzera, uriko apaiz euskaltzalienai utziaz eliztarren artean banatzeko ardurea [esan beharra dago hemen, apaiz-apaizgai, fraide-fraidegai eta mojen artean entzute haundia zuela liburu harek<sup>222</sup>].

Iru-lau illabete geroko (sic), idatzi bana zuzendu zien, uste izaneko apaiz euskaltzale laguntzalleai, oarraraziaz unuzkero aisa salduak izango zituztela lenbizi bialduak eta aien txindia igorriaz eska zezatela beste sorta bat...

Dozenerdira etziran iritxi, saldutakoen edo bialitakoen txindia biali ziotenak, eta bi bakarrik, berriz iyekiren bat edo beste eskatu zituztenak. *Euzko-Gogoa*, 1955-epailla, 53 or. (apud Intxausti 1980: 14).

Kontua, ordea, ez omen zen hor gelditu: Liburua erabateko hondamenditik salbatzeko, seiehun eskutitz bidali omen zituzten: 250 gipuzkeraz, 250 bizkaieraz, 100 nafarreraz. Erantzunak, ordea:

Amarretik gora etziran izan, erantzunak; eta berak aitzakiak jarriz uri artan euskeraz irakurtzeko zaletasunik etzegola, liburu polita zala, baña euskara ulergaitza dela... liburua eskoladunentzat idatzia dela...eta abar. Beste batzuk, ezer erantzun gabe, lenbizitik jasoriko liburu-sorta ostera itzuliaz gelditu zitzaizkidan, eta gehien-gehienak deus esan gabe. (*Euzko-Gogoa*, 1955-epailla, 53 or. Apud Intxausti 1980: 14).

<sup>222</sup>Intxaustik egindako ñabardura da.

Istorio hau argigarri bederen gerta dakiguke garai hartako euskal irakurlearen kopurua oso zela urria adierazteko. Eta euskaraz hain gutxi irakurtzearen arrazoiak hein batean Orixek aipatzen zituenaren parekoak dira: euskaraz irakurtzen zutenen maila eskasa, edo trebakuntza falta, idazleak darabilen hizkuntza-maila norentzakoari ez egokitzea<sup>223</sup>, euskaraz irakurtzeko tradizio edo ohitura falta, etab.

Beraz, euskaraz irakurtzeko zaletasunik ezaren errua ez dugu irakurlearengan soilik bilatu behar, goian aipatu ditugunez gain, idazlearengan ere bilatu uste dugu. Maiz aski, Mitxelenak esango digun bezala, idazlearen nahia eta asmoa eta irakurlearen beharra eta gaitasuna uztartzea oso lan nekeza gertatu ohi da:

Gauza jakina da, nahiago izaten badugu ere ixilean gorde, ez direla erraz elkartzen eta egokitzen gure artean, honelako liburu batean, idazlearen nahia eta asmoa eta irakurlearen beharra eta gaitasuna: kenka txar horretan, gainera, irakurlearen kaltetan jokatu ohi dugu gehienetan. (MEIG III: 100).

Jarraian aztertuko dugu, bada, garai hartako *Egan* aldizkariaren nahia eta asmoa zein den eta euskal irakurleak zer eskatzen dion idazleari edo zer gerta dakiokkeen irakurleari — Orixek darabilen hitza erabiliz— “urragarri”.

### 9.2.1.2. 1950-1970 URTETSUETAKO EGAN ALDIZKARIA

XX. mendearen erdi aldera<sup>224</sup> sortu eta oraindik gaur egun bizirik dirauen literatur aldizkari hau aski esanguratsua gertatuko zaigu garai bateko euskal irakurleaz, eta, bereziki, Mitxelenaren norentzakoaz zertzelada batzuk irudikatzeko. Azken batean, aztergai ditugun Mitxelenaren kritika horiek guztiak urtez urte eta aldian-aldian<sup>225</sup> (1950-1970 bitartean gutxi gorabehera) aldizkari horretan bertan plazaratu zituen. Aldizkariko idazle ez ezik,

<sup>223</sup>Arrazoi horiei erantsi nahi genieke egoera soziopolitikoak, oro har, ez zuela asko laguntzen eta euskal unibertsitaterik ez izateak (eta hezkuntzak bere osotasunean) ere izango zuen eragin zuzenik euskal irakurlea hain urria izatean.

<sup>224</sup>1948an sortuko da Mitxelenak berak “Bigarrengo adabakiak” artikuluan zehaztuko duenez.

<sup>225</sup>*Euskalerrriaren Adiskideen elkartearen* literatur buletin gisa jaio zen *Egan* aldizkaria urtean lau zenbaki ateraz hasi zen, eta elebiduna zen: gaztelaniaz eta euskaraz ateratzen zen. 1953. urtea mugarri bihurtu zen aldizkariaren ibilbidean. Antonio Arrue, Aingeru Irigarai eta Koldo Mitxelena hasi ziren aldizkariaren erredakzio eta zuzendaritza lanetan, eta aldizkaria euskara hutseko bihurtu zuten. Hasiera batean urtean lau ale kaleratzen baziren ere, maiztasuna aldatu egin zen, eta urte batzuetan hiru ale, beste batzuetan bi, urte askotan bakarra argitaratu zuten. Hasieratik 1948 hartatik 1987ra bitarte, 74 zenbaki azaldu ziren. Koldo Mitxelenak (Antonio Arrue eta Aingeru Irigarairekin lehenik; Juan San Martinekin gero) gidatu zuen 1953z geroztik hil zen arte, 1987ra arte, eta hain zuzen orduantxe izan zuen etena aldizkariak: 1988an ez zen kaleratu, eta talde berri batek hartu zuen 1989an oraindik ere argitaratzen den aldizkariaren ardura.

aldizkariaren erredakzio eta zuzendaritza lanean ere aritu zenez gero, ahalegindu zen irakurleari aldizkariaren izaera (jorratuko zituzten gaiak, hizkera...) zein zen azaltzen, eta bere kritikak irakurri besterik ez dago irakurleak zuen garrantziaz jabetzeko.

Koldo Mitxelena ez zen aldizkariaren sortzailea izan, baina 1954. urtea mugarri bihurtuko da aldizkariaren ibilbidean, elebidun izatetik euskara hutsean argitaratzera pasatuko baita. Mitxelenak zehaztuko du halere, jada 1953an zenbaki bat izan zela euskara hutsean argitaratua:

Aurrera baino lehen, aldizkari hau ez zen 1954ean sortu, arestian irakurri dugunez [Txillardegik idatzitako *Euskal kulturaren zapalketari* egiten dio erreferentzia], ahobeteko deihadarrez horrela oihukatzen badute ere. Sortu, 1948an sortu zen; Euzko Gogoia baino lehenago, beraz. Ez, ordea, euskaraz soilik, ezta haatik erdara hutsez ere (...)

Dena den, ez zen aldizkaria "Mitxelena-ren inguruan" atera, Mitxelena horrek artean doi-doi jakin baitzuen Diputazioko liburutegiaren atea non zegoen. Sartu zen azkenik, baita EGAN-en ere, ea zenbait lerro (1951,3) argitarako ote zizkioten eske. Orduan eta geroxeago ikusi nuenez, Artetxek zuen euskal lanen ardura eta, beste aldetik eta beste mailan, Aingeru Irigaraiak.

Euskara (berez, hain guttitan bezala!!!) nagusitzen hasia zen, gero eta nabariago, eta zenbaki bat badela esango nuke (1953, 1-4) zeharo euskaraz argitara zena. (...) EGAN euskalduntze bidean genuen, beraz, gu "Asmo berri" atalurrean zuen zenbakiarekin (1954, 2-4) plazara baino lehen. (MEIG I: 257-258).

Mitxelenaren zuzendaritzan, bada, aldizkaria eraberritu egingo da; aldizkariak "asmo berri" bat azalduko du gaiei dagokienez eta norentzakoari edo balizko irakurle-motari dagokionez:

#### Eraberritzearen oinarriak

Maizago argitara eman nahi genduke EGAN: maizago, ugariago eta ornituago. Eta biziakin ari geran ezker eta darabilgun izkuntza bizia den ezker, gaiak ere biziak, gaurkoak, nai genituzke. Sarriegi gertatzen baita azken-aldi onetan euskerak, oinkok? Erabiliaz bere trebetasuna erakutsi bearrean, bere eritasun eta makurrak dituela beti aotan, guziok ezaguten ditugun zenbait pertsona mintsuk bezala. Eta beldur gera ez ote den ori biderik egokiena izango maiteen dutenak ere aspertzeko.

Kalera begira ari nai dugu, baserrira begira baiño geiago. Eta, kalean, gure gisako ikasi edo erdi-ikasientzat. (1954, 2-4, 1-2 or).

Eraberritzea, bada, maiztasun handiagoan ez ezik, aldizkariak jorratuko dituen gaien eta norentzakoaren aldaketan oinarritzen da.

#### 9.2.1.2.1. *Eganen* jorratuko den gai-mota eta kontuan izango duten balizko irakurlea (norentzakoa)

Aldizkariak askotariko gaiak jorratzen zituen. “Gai batzuentzat sail bereziak ditugu”, esango digu Mitxelenak eta dirudienez, sail horiek batek ala besteak bete ohi zituen; irekiak ziren alegia.

Sail horietatik at, ordea, garai hartako euskal giroa, zentsura politikoa eta morala zela bide, zenbait gai ezin uki zitzakeen *Eganek*.

Sail jakin horietatik kanpora, zenbait gai ezin uki ditzake *Egan*-ek, dena delako. (MEIG I: 83).

“Etxekoekin hizketan” ari delarik, Mitxelenak ez du zehazten zein arrazoik eragiten duen gai batzuek aldizkaritik baztertzeko. Baina Miranderekin trukatzeko zituen euskal gutunei erreparatuz gero ohartuko gara bazela halako “zentsura politikoa<sup>226</sup>”:

Bidaliko ote zenizkiguke bi illez bein, Paris´ko edo beste nonnaiko—Kelterriko esate baterako—berriak. Edozein motatakoak izan ditezke, politika-gai batzuk kendu ezker: emen bat edo beste geiegi asalda dezaketenak alegia. (Urkizu 1998).

Aipu horretan, gainera, ikus daiteke aldizkariaren norentzakoa bera dela baldintzatzaile nagusi gai batzuk aldizkarian inolaz ere ez jorratzeko: “emen bat edo beste geiegi asalda” daitezkeen horiek, alegia.

Bere idatzietan zehar behin baino gehiagotan nabarmendu duenez, irakurleak (balizko norentzako horrek) du azken hitza:

<sup>226</sup>Mitxelenak Fagoagaren *Unamuno a orillas del Bidasoa y otros ensayos* liburua iruzkintzean esango digu honek bazuela antzinako *parrhesia* hura; hau da, “mintzatzeko askatasuna”, eta Hego Ameriketako giroak “ez omen dira giro txarrak izan idazleentzat”:

“Badu Fagoagaren liburuak beste alde atsegin bat, idazkera txukun-trebearen ondoan: antzinako *parrhesia* hura nolabait esan. Hemen Buenos Aiestik oihartzun gisa datorkigun haizeak lokarririk gabe ibiltzen ohitua dirudi zero zabaletan barrena. Hego Amerikak baditu zaleak eta etsaiak, baina, nori berea eman behar badiogu, ez dira giro txarrak hangoak izan idazleentzat” (LIB II: 146).

Esan gabe aditzera ematen digu, bada, hemen ez zegoela *parrhesiarik* edo mintzatzeko askatasunik garai hartan.

Entzun dituzu, irakurle, galde-erantzunak. Mutu eta ixilik eduki bazaitugu, ez zauzkagu ahazturik. Eserlekurik ederrena, juezarena, zuretzat gorde dugu. Eta azken hitza zurea da orain. (MEIG I: 87).

Jorratu nahi dituzten gaiak, Mitxelenaren hitzetan: “gaurkoak eta betikoak, hemengoak eta nonnahikoak” (MEIG I: 84) dira. Mitxelena ohartzen da mundua itxuraldatzen ari zaigula, onerako edo txarrerako eta Euskal Herria ere bai. Beraz, aldaketa horiek islatuko dituzten gaiak nahi dituzte; izan ere, “mundu urduri eta aldakor horretan aurkitu behar dugu bizilekua, biziko bagara”. (MEIG I: 84).

Aldizkari honetan nolanhiko gaiak erabiltzean, euskara hegoairatu egiten da, etxe-zokotik atera, hor egoteak lizundu eta herdoitu egingo bailuke nahi eta ez. (MEIG I: 79).

Horrek zer esan nahi du, ordea, “betiko” gaiak, edo gure artean gehienbat erabili izan diren gaiak alde batera utziko dituztela? Ez<sup>227</sup>, baina bai nahiago dituztela gai berritzaileak:

(...) Arkume otxan, baserri txuri, lore txanbelin eta errekatxo marmartiez ari zara zu. Ba, horretatik ahalik gutxien. Politikak dira, izan ere, baina esku gehiegik marruskatu dituelako edo, zimelduxeak daude. Betetasunak higuin-erazi digu goxoa eta beldur gara ez ote zaien hainbeste gertatzen irakurleei. Eta, ahal baledi, ez dugu “mendiko negarrik” ere behar. (MEIG I: 84).

Aipu honetatik ondoriozta dezakegu badela artean irakurle mota bat begiak “betiko gaietara” zuzenduak dituena, baina badela beste irakurle-mota bat, gai horiekin nazkatuxea

---

<sup>227</sup>Mitxelenak aldizkarian, esaterako, ez ditu gai berrien ispilu diren lanak soilik iruzkinduko eta, gainera, berresango du betiko gaiak darabiltzanak eskubide osoa duela horrelako gaiak erabiltzeko. Are gehiago, irakurle-mota handi bat horrelako gaiak asetzen dutenean:

“Irakurgai honek ez darabil auzi larririk: ez du inoren gogorik kezkatuko, ezta bihotzik erdiratuko ere. Ez du beharrik ere. Bere bidetik dabil egilea, kontakizun arin, otxan eta jostarien bidetik. Eskubide osoa du, jakina, **eta gure arteko irakurlerik gehienek ez diote noski horregatik kargurik hartuko**”. (MEIG II: 135-142).

Edota:

“Kritikak errurik egotzi nahi badio, begiz jo duen bidean zuzen ez dabilelako egotzi behar dio: **gaia, saila edo arloa idazleak berak hautatzen du** eta egin gogo eta uste zuenaren arabera hartu behar zaizkio neurriak haren lanari. Txorakeria gorria litzateke noski euskal idazle guztiak orain antzinako Greziako filosofiaz mintzatzeko hastea, baina are gorriagoa euskal idazle bati gai horrezaz mintzatzeko eskubidea kentzea gogoak ematen badio. “Berez behar Billabonakoa” esan ohi den bezala, eta “nor bere zoroak darabil”. Sail horretan eta bestetan, gorengo mailan ala behekoan, badugu zeregin aski euskaraz idatzi nahi dugunok. Gaia, bada, aukera beza nork bere gogora eta oldera, dena den bere lana probetxugarri izan daitekeelakoan”. (MEIG III: 76).

egonik, beste zerbait aurkitu nahi duena ere, “urragarri” gerta dakioken zerbait. Eta ikus daitekeenez, aldizkariak azken horien egarria ere ase nahi du.

Irakurleak aipatu ditugunez, gatozen gai horretan sakontzera. Garbi geratu da, *Egan*-ek irakurleak izan bazituela: “erostunak baditu behinik behin, eta irakurleak ere izango ahal ditu” (MEIG I: 82). Besterik da, goian aipatu dugunez, irakurle-kopurua murrizta den edo ez. Irakurleen aldetik, gainera, aldizkariak oro har oso harrera ona izan zuen, eta goi-mailako aldizkaritzat zuten:

Goramenak entzun eta irakurri ditugu maiz aski: “Goi-gorengo aldizkaria, goi-mailakoa, bikaina, mardula, gaurkoa, eraginkorra...” ahal dakigu guk. (MEIG I: 83).

Baina euskara hutsean plazaratzen den goi-mailako aldizkari honek zein irakurle-mota du? Hau da, nolakoa da, edo zein ezaugarri ditu *Egan* irakurri ohi duen euskal irakurleak? Maite duen gai-motaren arabera eta euskaraz irakurtzeko duen ohitura eta trebetasunaren arabera ezaugarritzen eta multzokatzen saiatuko gara.

Ezaugarri horiek kontuan izanik, agian ezin gintezke irakurle-mota batera lerratu. Mitxelenaren hitzei ez ezik, aldizkarian bertan “berriketan” atalean agertzen diren elkarrizketei erreparatzen badiegu, aise ohartuko gara euskal irakurle horrek aurpegi bat baino gehiago duela.

Mitxelenaren testuetan han eta hemen esandakoari erreparatuz, garai hartako euskal irakurlea hiru multzotan sailkatu dugu:

A) Gerraosteko hasierako urteetan behintzat bada jende-sail handi bat, euskaldun izanik, irakurtzeko ohiturarik ez duena; ez euskaraz ez erdaraz irakurtzen ez duena. Jende hau, beraz, ahozkotasunean bizi da. *Egan* aldizkariko idazleen eta bereziki Mitxelenaren gogoan ere badago jende hau erakartzeko nahia.

B) Euskaldun izanik, euskaraz irakurtzeko ohitura handirik ez du eta irakurtzen duen apurra “betiko gaietara” lerratzen da. Mitxelenaren hitzei eutsirik, “maliziabidean barrena aurreraturik ez dabilen” irakurlea genuke.

C) Erdaraz irakurtzen ohitua dagoen euskaldun jantzia eta ikasia dugu azkenik. Irakurle hau, ordea, betiko gaiak ez dute asetzen. Mitxelenari eutsiz, “maliziaz jositako irakurlea” genuke.

Ikus ditzagun banan-banan:

**A) Euskaldun izanik, irakurtzeko batere ohiturarik ez duena (ezta irakurgai errazik ere)**

Orixek eta *Euzko-Gogoako* pasarteek adierazi digute “Euskal Herrian apenas irakurtzen dela”. Beraz, bada multzo handi bat irakurzaletasunik ez duena. Horren arrazoi izan daiteke, Migel Castells euskaldun berriak esango digun bezala, eskola handirik ez izatea:

Neure euskal jakite laburraren neurriko irakurgai asko aurkitzen ditut. Nik baino hobeto uler ditzake, noski, *eskola handirik gabeko euskaldunak*. Euskaldun asko baita, hizketan jakinik, euskal irakurgai errazik ere irakurtzen ez duenik. (MEIG I: 74).

Dirudenez, mintzagai dugun garai honetan, ikasi gabeko edo eskola handirik gabeko euskaldun asko zegoen; hau da, euskaraz irakurtzen trebatu gabeko jendea. Ikus dezagun Santiago Carrerok “berriketan” atalean zer dioen:

Premiazkoa iruditzen zait euskal irakurgaien ezaguera zabalteza. Ez litzateke horretarako txarra izango edozeinek uler lezakeen hizkera erabiltzea. Asko gara, izan ere, euskaraz dakigunak haurtzaroan irakatsi zigutelako, baina gai horretan beste eskolarik ez dugunak. Horrelakoentzat beste sail bat sor liteke: elkarrizketa moduan egina, gai ugari eta oraingoak ukitzen direla. Irakurtzen jende asko zaletu eta trebatuko litzatekeela derizkiot. (MEIG I:79-80).

Bada, beraz, euskaraz irakurtzen trebatu gabeko euskaldun jende hau euskaraz irakurtzera erakartzeko nahi bat, horretarako euren mailara eta neurrira egokitutako testuak idatzi behar badira ere. Migel Castells-ek ere antzeko eskaera egingo du:

Eske bat egingo nieke [EGAN-eko] idazleei, irakurle naizen aldetik: saia daitezela pixkaren bat makurtu behar badute ere, diotena ahalik gehien irispidean<sup>228</sup> ipintzen. (MEIG I: 74).

---

<sup>228</sup>Galdera bat sorrarazten digu aipu honek: “Garbizaleen hizkera moldeak zerikusirik izan ote zezakeen irakurleak uxatzearekin? Ez gaiengatik, hauek zerabilten kodeagatik beragatik baizik. Orain arte aipatu ez badugu ere izan zitekeen euskal irakurle urriaren balizko beste arrazoi bat. (Garbizaleei buruzko informazioa nahi duenak jo beza Perez Gaztelu 1995a).

Mitxelenak bazuen egoeraren berri eta, jakitun izateaz gain, jende-multzo zabal hori euskaraz irakurtzen trebatzeko lanean hasteko gomita egingo die euskara-irakasleei:

Ta beste guzior gain ta edozer baño gehiago, entzule ta irakurleen lana dugu beharrezko. Sortzaileen esanak hauek beren bihotzetan maitekiro gorde ta ernatzeko lurrik ematen ez ba diete, haien mintzoa “tupiki ozen ta txilin burrunbaria bezala”, iraupen laburrekoa izango da. Eta entzule-irakurleak gaitzeko gai diranak lanari lenbaitlehen ekin beharko, gizonaren gaitasunak gutxitan baizik ez baitira berez sortzen. (1951: 21).

### **B) Euskaraz betiko gaiak soilik irakurtzen dituen euskal irakurlea; hots, “maliziabideetan barrena” aurreratuegi ez dabilena**

“Maliziabideetan barrena gehiegi aurreratu gabeentzat egin bide zituenez gero [Bitoriano Iraolaren, *Oroitzak eta beste ipui asko*], horrelako irakurlerik aurkituko ahal dute gaur bertan ere gure artean. Proust eta Kafka-zale amorratuak —oraingoagoak ixil ditzagun— hobeto dute, beharbada, orrialde horiek irakurtzen ez hastea, galbidean gerta ez daitezen”. (MEIG II: 82).

“Liburu honek [*Brabanteko Genovevaren bizitzak*], irakurle, Proust, Joyce edo Faulkner-en bideetatik urruti xamar eramango zaitu. Ez dizu buruhausterik emango eta ez zaitu pekatu malda limurietan behera amilduko” (MEIG II: 43).

Kafka, Proust, Joyce... bezalako idazleak gai eta teknika aldetik berrikuntzak dakartzan literatura unibertsalaren adierazgarri edo zutabe nagusien erreferentzia izaki, Mitxelenak adierazi nahi digu irakurle-mota hau ez dela berrikuntzen zalea.

Euskaraz irakurtzen ohituak izanik ere begiak “betiko gaietara<sup>229</sup>” (euskal gaiak, bertsolaritzakoak, erlijiozkoak, umeentzakoak...) moldatuak dituztenek, bada, osatuko dute irakurle mota honen argazkia. Garai honetan, gainera, irakurle mota hori oso zabala da:

Goi-gorengo literaturaren gailur gorriak landu behar baditugu, ez ditugu horrenbestez irakurgai erraz, **guztientzakoak**, bertan behera utzi behar. Eta azken urteotan euskal gaietan egiten ditugun aurrerapenez miretsirik bagaude —ai aurrera egin bagenitu beti aurrerapen horiek!—, ez dago ahaztutzerik aurrerapen horiek, gaurko izaerak eta egoerak,

<sup>229</sup>Mitxelenak iruzkintzen dituen liburuetatik, “maliziabideetan barrena aurreratuegi ez dabilen” irakurleei zuzentzen zaizkien lanen modukoak honako hauek lirateke: Julene Azpeitiaren *Amandriaren altzoan* (1961), Arruek euskaraturiko *Brabanteko Genovevaren bizitza* (1960), Aita Basilio Pasiotarraren *Santa Jemaren bizitza* (1961), edo Bitoriano Iraolaren *Otoitzak eta beste ipui asko* (1962).



aldi igaroetan dutela erroa eta oinarria, batez ere oraindik orain, atzo esan dezakegu, euskaraz mintzatzen, hitz lauz nahiz neurtuz, ahalegindu ziren idazle eta bertsolariengan. (MEIG III: 78). (Letrakera lodia gurea da).

Idazleak jakin behar du balizko *irakurle zabal hori* garaiko Euskal Herrian badenez gero, eta eurek maite dituzten gaiak jorratzen dituzten liburuak irakurtzeko eskubidea dutenez gero, ez uxatzen. Horretarako irakurgai errazak ere landu behar dira. Mitxelenak irakurgai erraz horien artean sartuko ditu herri-bertsoen, kontakizunen edo pasadizoen bildumak, neska-mutilentzako lanak, edo denbora-pasako antzerki xumeak.

Maiz esan ohi da, eta okerrik gabe noski, irakurgai irakurgarrien beharrea gaudela gure hizkuntzan. Euskal irakurleen egarri hori berdintzeko, bada, berebizikoa da bere sailean Aita Basilio Pasiotarrak idatzi duen liburu hau<sup>230</sup>. (LIB II: 59).

Liburu<sup>231</sup> atsegina da aurrenik, eta atsegina bezain erraza, irakurle askok gogoz eta nekerik gabe irakurriko duena burutik burura. Eta denbora-pasako irakurle arinek ez ezik, ene ustez, jakintsu kopetilun batek baino gehiagok joko du ezinbestean iturri umil horretara bere jakin-egarria berdintzeko. (LIB II: 71).

Beraz, garbi dago betiko gai hauek jorratzen dituzten liburuak euskaldun askoren<sup>232</sup> egarria asetzeko eginak direla eta, beraz, ez dira alde batera uztekoak, horiek baitira goi-gorengo literaturaren oinarri. Horregatik egiten zaio goragarri Aita Zabalak “Auspoa” sailean erdietsia:

Hor ari zaigu lanean satorraren antzera Aita Zabala (...) Honi eskerrak, beste inongo sailek ez duten aurrerapidea baitu “Auspoa”-k: guztientzat antolatua izanik liburuak, goikoentzat eta behekoentzat, asko-jakinik kontentagaitzenak argitaraldi kritiko bati eskatzen dizkion ze-nolako guztiak betetzen dituela. (LIB II: 94).

### **C) Erdaraz irakurtzen ohitua dagoen euskal irakurlea; “maliziaz jositako” irakurlea**

<sup>230</sup>*Elurra ta sua. Santa Jemaren bizitza* liburuaz dihardu.

<sup>231</sup>Graziano Anduagaren *Aitonaren uzta* liburuaz dihardu.

<sup>232</sup>Euskal irakurle kopuruaz mintzatu garenean ikusi dugun bezala, bertsolaritza eta erlijio-gaiak jorratzen dituzten liburuak dira gehien irakurtzen direnak.

Idazleei eraldatze eske, moldaberritze eske dabiltzanek osatuko dute sail hau. Berritasun eta “erakargarritasun” handiagoko gaiak jorratzen dituztenek; hau da, gisa horretako gaiak orain arte erdaraz irakurri beste erremediorik izan ez dituztenek.

Mitxelenak “etxekoekin hizketan” ari dela honela esango digu:

Ez gaituzte betetzen norik bere atseginerako, norik bere eskua trebatzeko, egiten dituen lanak. Idazlea berarekin ari dela, irakurlearekin alegia, gogora dadin nahi genuke, ez bere buruarekin. **Euskal irakurleak erdaraz irakurtzen du, denon gisara**, eta ez dago euskaraz berresan beharrik erdaraz hobeto behin eta berriro esan diren gauzak, irakurleari zerbait jakingarri ez badakarkio. (MEIG I: 83). (Letrakera lodia gurea da).

Esate baterako, Etxaideren *Joanak-joan* eleberrian urraturiko bidea, irakurlearen alderdi berrizale honi dagokion bezanbatean aurkitzen du eskas Mitxelenak: Etxaidek ez duela orduko (1955eko) euskal irakurle-mota gero eta handiagoa gogoan izan; irakurle horrek, izan ere, haurtzarora pasea du eta bestelakorik behar du egarria berdintzeko:

[Irakurlea] Gizon izanik, kaskarin xamarra da, eta ez du beti uste dugun —edo nahi genukeen— bezala erantzuten. Gure egunotakoa batez ere, maliziaz josia baitago hainbeste eta hainbeste irakurgai —axaletik bederen— miratu ondoren. Negar egin beharren parrez hasten zaigu, eta aharrasika aurkitzen dugu su eta gar ari gatzazkionean. Aspertu egiten dute maiz bide zuzen eta zabalek: bihurtune izkutuak nahi ditu, gora eta beheko aldapa zorrotzak, ustekabeko bidagurutzeak. Gertakizunak hasieran hasi eta, gerta ahala, azken bururaino kontatzea, horixe da dudarik gabe kontabiderik argiena eta erosoena. Ez, ordea, nahi eta nahi ez atseginena. (LIB II: 57).

Honenbestez, irakurle mota honek ez du egileak eskutik heldu eta hara eta hona ibil dezan maite, ezta moralismo eta prediku-usainik eleberri batean topatzerik ere. Maliziaz josia dago, eta bide zuzen, zabal eta errazek aspertu egiten dute.

Aurpegi berrizaleagoa duen euskal irakurle ikasiago eta landuxeago honen saila, Mitxelenaren arabera, txikia izan arren, gero eta handiagoa<sup>233</sup> da. Alabaina, bai irakurle “ezjakinagoek”, bai “saiatuagoek”, denek dute bere gustuen araberako testuak euskaraz aurkitzeko eskubidea, eta hori *Egan* aldizkariak ere bermatu behar du:

<sup>233</sup>1960an “Euskal literatura eta... adarrak” adabakian, egungo egunean irakurleak landuxeak direla esango digu Mitxelenak:

“(…) egungo egunean bertan, landuxeak garelarik gehienok, ez ditugu irakurri, ezta alderatzeko ere, ahotan darabilzagun obra guztiak” (214).

(...) Lizardi *zenaren* denboran bi patroio omen ziren: Jauregi patroia eta Txirrita patroia. Gerok Txirritarenean edo geldituak gaituzu, baina ez genioke inori biderik itxi nahi. Beraz gauzarik berrienak, ausartenak eta burgesarentzat aldrebesenak ere argitaratuko ditugu aurrera ere. Herri-bertsoak eta kanta zaharrak ez ditugu horratik utziko beren txokorik gabe. (MEIG I: 87).

Mitxelenak Txirritaren patroian geldituak gaudela aipatzen duen arren, aukeran irakurle ikasia eta jantzia dela dirudi *Eganeko* irakurleak, baina maliziabidean hain aurreratua ez dabilena<sup>234</sup> ere gogoan izan ohi duena (edo behar duena). Horixe da behintzat batek baino gehiagok erantzungo duena aldizkariak zein alderdi hobetu behar duen galdetzen dionean. Diez de Ulzurrun jaunak, esate baterako, honela esango digu:

Horixe da gaurkoz nere ustez goi-mailako aldizkari baten eredua, **ikasientzat egokia** eta halaz guztiz erraza, denik gutxiena jakitez jantzia dagoenarentzat. Horko solasaldiak, esate baterako, ederki baino ederkiago iruditzen zaizkit: euskal gaiez kanpora, pintura, zezenak edo zinema erabiltzea alegia. Gipuzkoa eta Nafarroako euskal kezkek, gorago esan dudan bezala, ez dira berdinak. Gu beste bide batetik gabiltzalarik, ezin hobeki asmatu duzuelakoan nago hor hartu behar zenuten joera. (MEIG I: 120). (Letrakera lodia gurea da)

Beraz, *Eganeko* idazleak, irakurtzen ez dutenei irakurzaletasuna pizten ahalegintzeaz gain, balizko bi irakurle mota horiek asetzeko moduko jakia atondu beharko du, idazlearen erronka bere lanak irakurriak izan daitezen saiatzea denez gero. Ezinbestekoa da, bada, lanaren mamia eta mami hori estaltzen duen azala ez ezik, norentzat ari den prestatzen gogoan edukitzea. Azken batean “norentzako” horrek bere errainua edo hatza utziko duelako testuan bertan.

Mitxelenak bere kritikak prestatzean goian aipatu ditugun bi irakurle-motak<sup>235</sup> gogoan baditu ere, egingo genuke Perez Gaztelurekin bat eginez (1995b: 86) lan “berritzaileen” premia ikusten duen “maliziaz jositako” irakurlea duela gogoko, hor ikusten bide duelako etorkizuna eta aurrerabidea. Eta horrek, norentzako horrek, baldintzatuko du bere testugintza ere. Ikus dezagun pausoz pauso.

<sup>234</sup>Placido Mujicak esango duen bezala., “Egan gure herrietan gehiago zabaldu behar litzatekeela uste dut” (MEIG I: 97).

<sup>235</sup>Jakin badaki, euskal gizartean euskaraz irakurtzen batere trebatu gabeko euskaldun ugari dagoela eta horien gogo-pizgarri eta zirikatzailea ere badela.

### 9.2.2 Mitxelenaren kritiken norentzakoa

Errenteriarrek garai batean *Egan* aldizkarian (1955-1967, oro har) euskaraz plazara zituen filmen eta liburu-lanen erreseina-kritiken norentzakoa zein da? Zein ezaugarri ditu?

Garrantzitsua (eta are ezinbestekoa) da, hasieratik bertatik, Mitxelenaren euskal kritiken norentzakoaz dihardugula azpimarratzea, ez bestelako testu-tipoen norentzakoaz. Testu-tipoen arabera norentzakoak gainditu beharreko zailtasunak ere desberdinak izango direlako. Eta azterkizun ditugun kritiken barruan ere uste dugu norentzakoari dagokionez badela alderik zinema-kritiken eta liburuen erresena-kritiken artean. Hori ere, bada, izango dugu hizpide.

Mitxelenak egindako elkarrizketak —eta bereziki berak bere buruari egindakoak— gerraondoko euskal irakurleari buruzko hainbat datu ezagutzeko erabili ditugu. Ezin esan, ordea, datu horiek nahikoa direnik Mitxelenaren kritiken norentzakoa ezagutzeko. Goian aipatu ditugun ezaugarri soziolinguistikoez gain, Mitxelena nori zuzentzen zaion jakiteko, berak oratutako testuetan oinarrituko gara, edota bere testuetatik bertatik abiatuko gara: testu orok irudikatzen baitu “irakurle implizitua”. (Olaziregi 1998: 22).

*Irakurle implizitua* adigaia (Olaziregi 1998, 2002) *Harreraren Estetikatik* jaso dugu, eta, oro har, estrategia desberdinen bidez testuak zedarritzen duen irakurketa-orientazioa dela esango dugu; testuak eta irakurleak elkarri eraginez sortzen den kontzeptu teorikoa, alegia.

Testuan bertan esatariak darabiltzan baliabide edo estrategiek, bada, irakurketa orientatu edo bideratzeaz gain, norentzakoaren irudi bat zehazten edo egituratzen lagun diezagukeelako ustea dugu. Izan ere, norentzakoa, edo esatariak bere mezua idaztean buruan duen irakurlea, gaitasun batzuen jabe da (edo izan beharko luke) eta irakurleak dituen gaitasunen arabera, esatariak abian jarritako estrategia horietatik batzuk atzemango dituelako ustea du. Esaterako, esan gabe, isilean edo erdi esanda uzten dituen hainbat eta hainbat aipu nahiz ironiazko erreferentzia horiek guztiak ez ditu edozein irakurlek edo hartzailek jasoko edo mamituko. Baina idazleak testuan bertan jartzen baditu, ustez, buruan duen norentzako horrek atzemango dituelakoan jartzen ditu.

“Irakurle implizitu”-aren kontzeptu horrek bi alderdi barneratzen ditu Olaziregiren hitzetan: “*testuaren egitura* (estrategia desberdinen bidez testuak zedarritzen duen irakurketa-orientazioa) eta *ekintzaren egitura* (testuan apailatuta dagoen egitura hori irakurleak gauzatzea).” (Olaziregi 1998: 23-24).

Gure helburua, ordea, askozaz xumeagoa da. Guk ez diegu Mitxelenak bere kritiketan darabiltzan baliabide edo estrategia guztiei erreparatuko, norentzakoari izendatuki erreferentzia egiten dioten haiek edota norentzakoaren tasunak agerian jartzeko baliagarri gertatzen zaizkigun haiek soilik interpretatuko ditugu.

Honenbestez, norentzakoaren irudia edo erretratua osatzeko giltzarri izango ditugun komunikazio-estrategiak honako hauek izango dira: esatariak norentzakoarekin gauzatzen duen interakziozko harremanaren erakusle, norentzako honi egiten dizkion “deiak” nahiz esan gabe inplikatzeko edo aditzera ematen dituen aipuetan oinarritzen diren estrategiak.

### 9.2.2.1. NORENTZAKOARI TESTUAN BERTAN EGITEN DIZKION DEIAK

Aurrenik, Mitxelenak testuan bertan esplizituki norentzakoari egiten dizkion deiak izango ditugu azterkizun, berarekin txandakatzen duen fikziozko elkarrizketa honetatik, ustez, norentzakoarenak izan daitezkeen hainbat ezaugarri atera baititzakegu:

#### 9.2.2.1.1. Zinema-kritiken norentzakoa

1954ko artikuluan (MEIG I: 123) zuzenean bere zinema-kritiken norentzakoari zuzentzen zaio Mitxelena.

#### **1) Norentzakoa, “gero eta multzo handiagoa osatzen duen” zinemazalea da**

- batere buru-nekerik gabe begiz ikustea gero eta atseginago zaigulako (ZIN: 123).
- Jendeak horretara omen du joera. Ez da, bada, harritzeko gure artean ere zinemak, begi-festa merkeen horrek, gero eta zale gehiago izatea. (ZIN: 123).

#### **2) Zinemazalea ez ezik, zineman aditua da**

Film baten kritika egiteko maiz aipatzen ditu beste filmen bateko aktoreak, zuzendariak, filmen izenburuak etab. Horrek, bada, zuzentzen zaion irakurlea ere gaian aditua izatea eskatzen du, edo behintzat, mintzagaiaren ezaupidea duena.

Esan dugunaren adierazgarri adibide batzuk aldatuko ditugu:

- Ez ditu neskatzak Montgomery Clif´ek beste liluratzan, lotsatia izateaz gainera lodixkoa delako. (ZIN: 151).

- Ez ote zen orduko Dupont´ena oraingo Carol Reed´ena baino film hobea? (ZIN: 169).

- Haren arrazoibide sotilak, lekukoen esanak deuseztatzeko eta zalantzaren haziak besteengan ereiteko, ez ditut agertuko. Perry Mason auzitegian inoiz ikusi duenak ongi daki gauza horiek nola izaten diren. (ZIN: 180).

- Ixpiluan ikus dezakeenaren beldur denak, amets ederragoak darabiltzalako edo, hobe du “La sirena de las aguas verdes” edo antzeko zerbait ikustera joan. (ZIN: 152).

### **3) Esatariak eta norentzakoak, bada, biek gustu bera dute: zinefiloak edo zinemazaleak dira**

- Ez da bada, harritzeko gure artean ere zinemak, begi-festa merkeen horrek, gero eta zale gehiago izatea. Neroni ere, aitortzen dut, horietakoa **nauzu**. (ZIN: 123).

### **4) Mitxelenak norentzakoa “laguntzat” dauka**

- Baina, noizean behin bada ere, zer edo zer ikusten du eta atsegin izaten zaio lagun artean ikusi duenaz mintzatzea. Hemen bezalako lagun artea, berriz, gutxitan topatuko du, ezin baitiezaioke hitza inork uka. (ZIN: 123).

Ez da, ordea, ohiko lagun artea: hitza ez baitio zuzeneko elkarrizketan gertatzen denez, inork kenduko.

### **5) Norentzakoarekin konplizitateko harremana du**

- Onak gailen, gaiztoak lotsagarri ikusirik (...)—**badakizue** alderdi horretakoak izaten garela beti, zineman behintzat— eta eserlekutik mugitu gabe onei eginahalean lagundu baitiete. (ZIN: 124).

- **Badakizue** beraz, film hau ikustera bazoazte, ez zaretela esku hutsik etxeratuko. Clark Gable´ren kaskoa—ai, gurearen gisa!—gero eta urdinago ageri dela ere esango **nizueke**, baina hori **badakizue** honez gero, nik bezain ongi. (ZIN: 141).

- Eta gehienoi atsegin zaigunez giltza-zulotik zelatan egotea, egon **gintezke** hemen adi-adi, batere lotsa eta damurik gabe. (ZIN: 144).

## 6) Norentzakoek zer espero duten edo zer nahi duten ere badaki

- EGAN-en irakurleek “Cancha Vasca” ikusiko dudala eta “Cancha Vasca”-z mintzatuko naizela uste omen dute. Hemen **naukazue**, beraz, gogo onean edo txarrean etorria, zernahitarako gertu. (ZIN: 131) .

## 7) Norentzakoa, irakurle argitzat dauka

- **Irakurle argia** —inoiz makurtu baldin bada horrelakorik lerro txaldan hauek irakurtzera— ohartu da noski honez gero ez ditudala oso gogoko “Cinemascope”, “Superescope” eta antzeko izenak daramatzaten sistema berri harrigarriak. (ZIN: 141).

Ondorengo bigarren alderdi honetan sakondu besterik ez dago, gainera, Mitxelenaren testuek norentzakoa argia, edo behintzat langilea eta sortzailea eskakizun duela ondorioztatzeko.

### 9.2.2.1.2. Liburu- eta literatur kritiken norentzakoa

Gure ustez, liburu eta literatur kritiken norentzakoa, bereziki, bi motatakoa da: neurkizun duen lanaren egilea, argitaratzailea edo lanari zuzenean lotzen zaion norentzakoa izango dugu, batetik; eta bestetik, berriz, lanaren egiletasunarekin inolaz ere lotzen ez den norentzakoa:

Egingo nuke izango duela liburu honek *irakurle* ugari. Hori merezi du eta horrela izango ahal da arimen eta hizkuntzaren onerako. *Euskal idazleak berak* ere ez du ezer galduko hori irakurtzearekin. Izkutuko sakonik ikasiko ez badu ere, ahaztuxe dauzkagun gauzatxo bat edo beste ikas dezake: euskaraz lasai, jator, leunkiro eta irakurlearentzat nekerik gabe mintzatzen. (LIB I: 123).

Aipu horretan ere ikus dezakegu Mitxelenak buruan duela batetik irakurle soila eta bestetik idazlea. Are nabarmenagoa gertatzen da kritiketan, neurkizun duen lanaren egile-argitaratzailerik gehienak ere bizirik baitaude. Irakurle soila diogunean, lan jakin horren egiletasunarekin loturarik ez duen irakurlea dugu buruan, baina ez haatik saiatu eta ikasi gabeko irakurlea; euskaltzalea da gehienetan, euskalaria eta euskara irakaslea maiz. Edo behintzat “gai horretan sartua dagoena”. Villasantek Mitxelenaren *Historia de la Literatura Vasca* iruzkintzean esandako hitzak ongi datozkigu Mitxelenaren literatur kritiken norentzako ezaugarritzen hasteko:

Batzuetan beharbada trinkoegi mintzatzen da. Gai hauetan zerbait sartua dagoenak jasoko du lerro batzuen nondik-norakoa, baiño besteak nekez. (Villasante 1960: 229).

Beraz, irakurle letratua, ikasia edo Mitxelenaren hitzak erabiliz bera bezalako “erdi-ikasia” du eskakizun; hau da, bera bezalako, euskaltzale-euskalari, idazle, euskara-irakasle edo behintzat euskal lanen gaineko berrien gose-egarria duena:

Hemen duzu, irakurle, **zuk eta nik eta beste askok aspaldian nahi eta behar genduen** liburua: hemen aurkituko dituzu, bestetara jo gabe, euskal-idazle eta euskal-obren gaiñean behar zenituen berri ugari eta zehatzak. (MEIG III: 65).

Hizkuntza ongi menderatzen duen irakurlea du buruan Mitxelenak, eta hizkuntza ongi menderatzeaz gain, euskal lanak maite dituen. Besterentzat, hizkuntza ikasten ari zirenentzat, izango ziren, ziurrenik, Mitxelenaren liburu-kritikak baino irakurgai neurtuagorik, behar ziren argitasun, azalpen eta laguntza guztiez hornituak. Mitxelenaren irakurleak, ordea —eta erabat bat gatoz Perez Gaztelurekin 1991—, nahitaez haurretako oharkabetasun atsegina utzi eta “arrazoi-adinera” iritsita egon beharko du; hau da, irakurle honek heldutasun bat erakutsi beharko du, maiz testuan aurkitzen dituen zailtasunei aurre egiteko burua nekatu beharrean aurkituko baita. Mitxelenak, izan ere, ez du irakurle nagirik nahi; ez du irakurlea bere nagitasunean nahiz lozorroan iraunarazterik nahi; aitzitik, irakurle sortzailea, langilea eta heldua nahiko du.

Euskal lanak maite dituela diogunean, ordea, ez gara soilik idatzizko tradizioa mugatzen, irakurle ikasi honek herri-literatura ere oso gogoko baitu:



Zenbait gai utzi ditu bazterrean egilleak, jakiñaren gaiñean orratik eta aldez aurretik aitortzen duelarik: herri-literatura batetik (bertsolariak, Zuberoako pastoralak eta), hor-hemenka aipatzen baditu ere, eta egungo egunean (edo behintzat liburua osatu zuenean) bizi diren euskal idazleak. **Mingarri izango zaio irakurleari bein baino gehiagotan baztertze** hau, baina...(MEIG III: 65). (Letrakera lodia gurea da)

Haurtzaroa pasea duen irakurle landuxea eta hausnartzailea izan behar du:

Formaren betea erakusten dute nonnahi Zaitegiren olerki oek, bere baitakoak adina itzuliek. Orin edertasuna ezta axalekoa: estalki soilla, bitxi nabarmenik gabea, daramate haragi billuziaren gaiñean. **Irakurle hausnarkorra** behar bi soiltasun horien egokitasuna ezagutzeko eta dastatzeko. (MEIG III:109). (Letrakera lodia gurea da).

#### 9.2.2.2. AIPUEN-EHIZA<sup>236</sup>, MITXELENAREN TESTUEK DUTEN *EZKUTUKO* *ARERIOA*

Goian esana dugu zinema-kritiketan, oro har, zinema ezagutzen eta maite duen euskal irakurlea duela gogoan Mitxelenak, mintzagaia ongi ezagutzen duena, alegia.

Liburu kritiken irakurleak ere, mintzagaia oso ongi ezagutzen du; areago, jarraian aztertuko ditugun aipuek erakutsiko digute gai horietan buru-belarri sartuta zegoen irakurlea duela eskakizun (neurkizun duen idazlea, zer esanik ez). Mitxelena, bada, bera bezalako jende ikasiari edo erdi ikasiari zuzentzen zaio gehienetan, garai hartako euskaltzaleei edo behintzat euskararen etorkizunak kezkatzen dituen euskalari, euskara-irakasle eta idazleei. Horrek ez du esan nahi, ordea, bere hizkera, berak darabilen euskara, bestelako irakurleak ulertzeko modukoa ez denik. Ohartuko gara, usu erabiltzen dituela ahozko hizkeran erabili ohi diren esamolde eta adierazpideak nahiz esaera eta atsotitzak. Hala ere, ez zaigu iruditzen ahozkotasunean soilik bizi den horrentzat idazten duenik, testuan mukuru agertzen diren aipuen erreferentziak ezagutuko dituen irakurlea du buruan. Garbi baitago, izan ere, Mitxelenaren kritiken norentzakoak hizkerari baino gehiago beste zailtasun batzuei egin beharko diela aurre.

---

<sup>236</sup>Aipuen alorra polifoniarekin edo ahots aberastasunarekin lotuta dago eta hori komunikazio-estrategien eremuan sakonduko dugu. Atal honen helburua norentzakoaren aurre irudi bat eratzea denez gero, aski izan bedi aipuen ehiza sistematizatzeko aipu-motak biltzea.

Zailtasunak, ordea, ez ditu mintzagaiaren edo aztergaiaren edukiaren muga estuetan topatuko, ez horretan bereziki. Bestelako bideetatik topatuko ditu zailtasunak, Mitxelenaren prosaren ezaugarriak nabarienetatik.

Perez-ekin bat eginez (1991), Mitxelenaren erudizioa du seguruenik etsairik indartsuena norentzakoak. Irakurleari ez zaio lana behar ez denean oztopatu behar baina irakurleak maiz ez ditu Mitxelenaren aipamen zuzen eta zeharkako guztien giltzak. Beraz, bere esku geratuko da, testua osotasunean ulertu nahi badu behintzat, aipamen horien guztien erreferenteak zein izan daitezkeen bilatzea, irakurleari dena egina eman behar ez zaionez gero.

Atal honetan, bada, Mitxelenak bere idatzietan biltzen dituen erreferentzia literarioen oparotasunari begi emango diogu: hasi ahozko tradiziozko eragin nabarmena duten ipuin-pasadizoen aipuetatik, euskal idazle klasikoaren aipuekin jarraitu, eta XX. mendeko literatura modernoaren ispilu diren etara iritsi arte. Esan beharrik ez dago testuartekotasun<sup>237</sup> honek — estarian nahiz agerian beste testuei egiten dien erreferentzia-sare honek — “nolabaiteko gaitasun literarioa” eskatzen diola norentzakoari, baita zinema-kritikena izanik ere, horietan ere barra-barra agertzen baitira literatur erreferentziak. Irakurleak lotura literario horiek ezagutzen lan egin beharko du, eta beraz, irakurle *langilea* eta *sortzailea* izango du eskakizun, erreferentzia horiek bilatu eta ezagutzen dituen heinean lortuko baitu testua bere osotasunean aditzea.

Batzuetan aipamenak kokatuak dira; hau da egilearen izen soila edota egilea eta Mitxelenak begiz jotzen duen esaera topa ditzakegu. Bestetan, berriz, adi egon beharko du irakurleak “harako hark” edo “bestek”-en atzean inor ezkuta ote daitekeen jakin nahi badu. Beste batzuetan, azkenik, batere markarik gabe botako ditu besteren hitzak edo beste norbaitek erabili dituen irudiak bere egingo ditu. Eta azken hauetan, noski, zailagoa izango da esaera horrek edo irudi horrek Mitxelenaz beste gurasorik ote duten jakitea.

Aipuak nolabait sailkatzeko bi irizpide hautatuko ditugu: batetik, aipuen jatorria ezaguna den edo ez ikusiko dugu; hau da polifoniazko gertakari hori agerikoa (formalki zehaztua) den edo osagarria (formalki zehaztu gabea). Batzuetan, gainera, aipuak zehatzak izango dira (intertestualitatea), eta bestetan aipu zehatzak ez baditugu ere, besteren gai testu

<sup>237</sup>Testuartekotasunaren inguruko teorizazio garrantzitsuenetako bat G. Genette kritikari frantsesak egin zuen 1982an argitaratu zuen *Palimpsestos* liburuan. Genettek bere liburuan bereizten dituen bost testuartekotasun moten artean bereziki bi aipatuko ditugu: *intertestualitatea* (jatorrizko testuaren aipamen, laburpen edo itzulpenez burutzen dena) eta *hipertestualitatea* (egileak literatur ondareko zenbait elementu, gai, testu edo estiloren oihartzuna azaleratuz egiten duena).

edo estiloaren oihartzunaz hitz egin beharko dugu (hipertestualitatea), nahiz eta guk guztia “testuartekotasunaren” barnean aztertu.

#### 9.2.2.2.1. Aipuen jatorria

Aipua diogunean norbaiti egindako erreferentzia —hau da, egilearen izen soila— izango dugu gogoan edota Mitxelenak begiz jotzen duen egile horren esaera.

##### 9.2.2.2.1.A. Kokatuak: aipuaren jatorria zein den adieraziz egindakoak

Ugariak dira horrelako adibideak. Hona hemen horietarik batzuk:

- Priestley'k nonbait dioenez, literatura behera omen dihoakigu, batere buru-nekerik gabe begiz ikustea gero eta atseginago zaigulako. (ZIN: 123).
- Herbat'ek esan zuen, oker ez banago, ez dela “Odyssea” baino irakurgai egokiagorik haurrak grekoa ikasten abiatzeko. (ZIN: 146).
- Zenbaitek alde hauetan —Ganivet eta Sánchez Mazas datozkit orain gogora—Robinson beharrezari ekin dio, bigarren mailako giza-sinbolua, merkatarien neurrikoa, dela eta. (ZIN: 153).
- Elizanbururen *Ikusten duzu goizean* oinarri harturik, ematen zaie haurrei, hamaika astetarako, nahikoa berri eta zeregin. (LIB I: 133).

Besterik da aipuaren egilea zein den ezagutzea. Garbi dago, ordea, Mitxelenak aipu horiek ez dituela bere erudizioa edo kultur ezagutza agerian uzteko egiten; ez dugu uste behintzat, berariaz helburu hori dutenik. Berak aipu horiek egiten baditu, buruan duen balizko irakurle horrek atzemango dituelakoan egiten ditu, mezua zuzentzen zaion hark atzemango dituelako ustean, nahiz eta beste hartzailleek, ziurrenik, ezagutu ez. Aipu horiek, bada, norentzako irudikatzen lagunduko digute. Esate baterako, ongi etorriko zaigu Mitxelenak berak Oihenarten hamalaukoaz ari delarik, Oihenartek egindako aipuez dioena hona aldatzea:

Adiskidearen laudorioa, ez nolana, gogoeta jaso eta hitz ederren bidez baizik, amalau neurtitz doietan biribildu; zeini bere bukaera jakina eman; hamalau bertsoak bi lauko eta bi hirukotan banatu; edergailu dotorez apaindu, eta **zenbait aipamen**—“**bederatzi ahizpez maiteki hazia**”— **doi aipatu, letratuentzat argi eta besteentzat ilun izan daitezten**. (1953: 462-463). (Letrakera lodia gurea da).

Mitxelena-entzat aipuen helburua hori ote da? Helburua ez dakigu hori den, baina esan dezakegu aipuek ere norentzakoaren irudi bat eraikitzen lagun diezaguketela. Garbi dago, esate baterako, garai hartako edozein euskaldunek ez duela Ganivet eta Sánchez Mazas edo Herbat zein den jakin ere egingo, baina norentzakoak bai, bere norentzakoak eskakizun du kultur ezagutza izatea.

Ez hori bakarrik. Badira —eta ugari gainera— besterenak direla esan arren, “beste” hori zein den zehaztu gabe edo estalkiren batekin ezkutaturik tartekatzen dituen aipuak ere:

#### 9.2.2.2.1.B. Besteren aipuak direla esanda, baina norenak diren zehaztu gabe

##### a)- Zehaztugabeko izenordainak nahiz sintagmak erabiliz

- “Azkenean —*besteren* hitzak hartuko ditugu ahotan— ikusia zegoenez, Ben Trane zintzoak hiltzen du Joseph Erin bihurria” (ZIN: 143).

- “Gaizkileak ez du inoiz irabazten”: lelo hori ere *nonbait* entzuna bide duzue. (ZIN: 143).

- “Harrigarria da —dio gutxi gorabehera, maiz aipatzen dudana *Donostiako kritiko erne eta trebe batek*— zein zuzen dabilen film hau gertatutakoen ondoan, zein zehazkiro biztu duen Douglas Sirk’ek aldi joana. (ZIN: 142).

- Gaurko Estatua —Miranderen ugazama— *omen da, euskal deitura izan arren euskaldunak oso gogoko ez gaituen idazle batek*<sup>238</sup> dioenez, gaurko gizonaren etsairik purrukatuena. (ZIN: 150).

- Galdetuko balit norbaitek ea merezi duen Ginak hor daraman izengoitia, *erdal idazkiez beste norbaitek esaten duena* esan beharko nioke: “Ez gara nor, adiskidea, auzi hori erabakitzeko” (ZIN: 158).

<sup>238</sup>Oharrean P. Altunak honela esango digu: Madariaga ote da? Euskaldunak gogoto (sic) ez gintuela bederen bai. (MEIG I 1988: 150).

Mitxelenak bazekien “erdal idazkiez beste norbaitek esaten duena” esatearekin batera (azkenengo adibidea), garai hura bizi duen bere norentzakoak jakingo zuela norbait hori “Umandi” zela. Eta ez hori bakarrik. Izendatuki esan gabe, aipu horrek garai hartan Mitxelenak Umandirekin izandako eztabaida iradokiko ziola. Ez zukeen, ziur aski, ondorengo hartzaileok ez bezala, honelako oharrean beharrik identifikatzeko: “Ikus Euzko Gogoia eta Euskera” izenez egin zuen kritika, han astindu zuen lagunaz (Umandi-z' ?) ari baita hemen”. Altunak aipatzen duen artikulua horretan, Umandi jaunaren hitz hauek agertzen dira: “Bi idazlanak pozarren irakurri ditugu. Erderazkoen iritzia emateko nor ezker, euskara iraunarazteko, edertzeko eta zabaltzeko bidea erdera danik ezpaiteritzegu, bestalde”.

### **b)- Aipuaren jatorria izengoiti edo izen orokor baten azpian estalita**

- Zaitegi zalantzan edo, kezkatu, aurkitzen dut liburu honetan ohi ez bezala, honek edo hark dioena dela eta. Bere hitzez esateko “Burrurik ez eta txapela nai, ari omen naiz *urliaren* iritzian , eta bururik eztuenak txapel beharrik ez omen” (LIB II: 76).

- Nahiago nukeen honako hauek ere jaso izan balitu Labayen jaunak bilduma honetan, ezinbestean “Etxeko keea” kentzen zuelarik ere. Hizkeraz ez ezik, baita barren ixuriz ere ez zegoen olerki horietatik urruti beste *euskal liriko handi baten ukitua*. (LIB I: 65)

- Izan genuen Gipuzkoan ukabilkari trebe<sup>239</sup>, edo gutxienez sendo bat. Gure kideek gogoan daukate, noski; gazteagoek ere badute agian haren entzutea (...) Mutur jokalaria hori ipintzen zigun, bada, Luzear´ek begien aurrean beti: “Ez duzue Holako ikusi besterik. Jo eta jo, muinak urtu dizkiote. Mintzatzen ere ahaztu zaio”. (ZIN: 166).

- BESTEEN MINTZOAN BETI HUTSAK BILATZEN DABILTZAN EUSKALTZALEAK KALTEGARRI DIRA. (ZIN: 127) .

Azken adibide horretan nor zuen buruan? Norentzakoak jakingo zuen Mitxelenak hori esatean buruan zein zerabilkien. Guretzat, ordea, etorkizuneko hartzailearentzat, ez da erraz jakiten, artikuluan zehar ez baitu antzekorik esan.

Ez zion nonbait beharrezkoa irizten norentzakoari egilea zein zen zehatz-mehatz esateari. Agian, uste zuelako erdi esanda uztea aski zela norentzako horrek erreferentziakidea

<sup>239</sup>Paulino Uzquidun ez ote da izango hor estalirik dagoena?

identifikatzeko. Perez Gazteluren hitzak aldatuz, “nahiago du gauzak esan baino erdiesatea, alusioa; aieruka, imintzioka aritzea; ukitu arina zaplazteko zalapartatsuaren ordez”. (Perez Gaztelu 1991: 164).

Edota Mitxelenak berak dioena:

Erraza ez dela, dio norbaitek, ezta osoro herrikoa ere. Neroni ere erraza ez delakoan nago, baina ez da erraza, batipat, herri-kutsuan duen aldetik. Herri-bertsok ez ditu behar bezala ulertuko, Xenpelar lekuko, euskaldun garbia ez denak, **diotenak adina ardura baitu ixilik uzten dutenak**. (MEIG V:121). (Letrakera lodia gurea da).

#### 9.2.2.2.1.C. Besteren aipuak direnik ere esan gabe

Norenak diren esaten ez badu ere, aipuak direlako seinale ikur ortotipografikoak darabiltza (ageriko heterogeneitatea).

- Eta **aldamenekoaren** oihuak belarrian ditugula, nola amets egin, “Cinemascope” — mundua sortu zenez gero ikusi den gauzarik miragarriena<sup>240</sup> — berriarekin ere?. (ZIN: 129).

- “Zoazen lekura joango naiz ni ere”.<sup>241</sup> (ZIN: 164).

- Kolore bizirik ere ez, eguzkiaren basoko harrigarritzko ibilerak —“osto pilo eta izar izunak habe”— eta euriaren etengabeko emana begietartzeko. (ZIN: 130).

Azkenengo adibidean agertzen den aipu hori Lizardiren *Bihotz begietan* olerki-bildumako “Baso itzal” olerkitik hartua dago:

III Baso itzal

uzta-uzta

(...)

Atsedena eliz, zutoiz betea

**osto-pilo eta izar izunak abe**

ta i bertan oianeko yaupaleme (Lizardi 1932: 122).

<sup>240</sup>Badirudi “Cinemascope”-ren propagandarekin edo iragarki moduko zerbaitekin duela zerikusirik.

<sup>241</sup>Filmeko neskaren hitzak dirudite.

Beraz, “besteren” aipua dela badakigu (aipu-markek erakusten baitigute) eta “beste hori”, hain ezagun eta maitea<sup>242</sup> duen beste hori, norentzakoak identifikatzeko euskal literaturaren ezagutza izan behar du.

Mitxelenaren norentzakoak, bada, ezinbestean izan behar langilea eta jantzia. Ezagutu beharko du une horretan literatur eta kultur mailan pil-pilean dagoena, mugimendu horretan sartuta ez badago behintzat. Hori aski ez dela, norentzakoak ezingo du irakurle pasiboa izan, sortzailea baizik; honentzako irakurketa etengabeko bilaketa izango da: une bakoitzean Mitxelenaren “ezkutuko arerio” hori zein den bilatzen eta identifikatzen arituko dena.

#### 9.2.2.2.2. Aipuen izaera edo intertestualitatea

Goiko atalean aipuen jatorriaz eta egileaz aritu bagara ere, oraingo honetan aipamena bera izango dugu azterkizun; ez nork dioen edo aipu horren egiletasuna nori leporatzen zaion, aipamen horren izaera, nolakotasuna baizik.

#### 9.2.2.2.2.A. Ahozko nahiz idatzizko euskal munduari erreferentzia egiten diotenak

### **1. Ahozko herri literatura**

Nabarmena da, izan ere, Mitxelenaren aipuek badakartela herri literaturaren ukiturik: bertsolarien erreferentziak, poetenak, herri-kanten parafraziak etengabeak dira bere kritiketan. Bere idatziak, bada, ahozko euskal literaturaren oihartzun dira. Ikus dezagun pausoz pauso:

#### **1.1. Herri-kantak**

Mitxelenak bere testuetan maiz tartekatzen ditu herri-kantaren bati erreferentzia egiten dioten aipuak; baita, horrez gain, herri-kanta jakinaren zatiak ere, diren-direnean nahiz eraldaturik eta aditzera eman nahi duen mezuari egokiturik. Herri-kanta edo abesti hauek batzuetan badute jabea eta Mitxelenak berak aitortzen du (edo ez) zein den, baina

---

<sup>242</sup>Perez Gazteluk bere tesian frogatu zuenez, Lizardi baitzen Mitxelenaren “aldez edo moldezko iturburua” (Perez 1995: 401 eta hur.)

Mitxelenaren kritiketan ageri dira jaberik gabeko herri kanta “umezurtzak” ere: “umezurtzak” eta aldi berean herriarenak direnak, herriak ahoz aho ibili eta bere egin dituelako.

- “Antero’n txamarrotia —txikarren bigotia— Arrese’k ei dauko...” (ZIN: 132).

Batzuetan aipu-marken artean adieraziko ditu (ageriko heterogeneitatea), baina beste askotan aipu zehatzak izan gabe herri kanten oihartzuna edo dakarten estaliriko aipuekin jolas egingo du. Estalirik edo daude, ez baitio irakurleari berariaz esango zein den jatorrizko kanta. Norentzakoak jakin beharreko zerbait izango da, edo behintzat ahalegin hori egin dezan eskatuko dio.

- Melodrama omen da. Hitz beldurgarria, euskaldunen artean (“Damua garaiz” eta) guztiz ezaguna. (ZIN: 136).

Egitura honek “Gernikako arbola” tradiziozko euskal kantuaren oihartzuna<sup>243</sup> dakarkigu gogora: “Gernikako arbola, euskaldunen artean guztiz maitatua”, nahiz eta enuntziatu parentetikoari esker egitura hori hautsi egingo duen, Valeriano Mokoroaren antzerki ezagun baten izenburua tartekatuz.

Badirudi, bada, helburu barregarritz egindako testu baten imitazioaren aurrean geundekeela: Anteron Txamarrotia, Gernikako arbola. Ukaezinezkoa da geure artean hain ezagunak diren kanta horien gaineko aipuek irakurleari igortzen dioten keinua, umorearekin zipristindutako jolas intertestuala eraginez.

Ahozko euskal tradizioaren oihartzuna agerian dute aztergai ditugun kritikek, eta ez soilik euskal liburu edo literatur kritikek, baita Ameriketako edo Ekialde Hurreneko filmen bat iruzkintzea helburu duten zinema-kritikek ere. Garai hartako edozein euskal irakurlek, eta baita irakurtzeko tradizio handirik izan ez arren ahozko literatur tradizioa bizi duen batek ere, erraz ezagutu eta haiekin identifikaturik sentitzeko moduan tartekatzen ditu. Beste hainbeste esan dezakegu ondorengo honi buruz ere:

- Andre Milia Lasturkoaren heriotzarekiko bertsoak: “Ez dauko Peru Garzia’k bearrik-ain gatx andia apukaduagatik. (LIB I: 46).

<sup>243</sup>Oihartzunaz mintzo bagara eta ez zuzeneko aipuaz, *hipertestualitateaz* mintzatu beharko genuke (Olaziregi, 1998). Guri, ordea, ez zaigu —lan honen helburua hori ez baita— terminoen arteko bereizketan sakontzea interesatzen. Guk bai aipu zehatzak bai eraldatutakoak eta baita zerbaiten oihartzun diren haiek ere testuartekotasunaren eremuan sartuko ditugu, testu ezberdinen arteko harreman-sarea aditzera ematen baitute.



## 1.2. Esaera, atsotitz, esamoldeak

Ahozko literatur tradizioa ez ezik, ahozko bat-bateko hizkeran hitzetik hortzera erabili ohi diren esaera, atsotitz nahiz esamolde egin ugari tartekatzen ditu bere testuetan, gure arbasoen izaera, bizimodua eta grinak islatuko dituztenak. Maiz agertzen da, bada, “gure euskara zaharraren aurpegi zimurtua” bere testuetan:

- “Berez behar Billabonakoa”, esan ohi den bezala, eta “nor bere zoroak darabil”. (LIB II: 76).
- “Edale huna, kapaxarduna”, zioten gure aurrekoek. Egiazko lirikarako joera ez dator ez jakitetik ez hizkuntza landutik. Barrendik dator edo, nahiago baduzue, goitik. (LIB II: 84).
- Eta, jakina, noren on, noren gaitz, nafar ardoaren gisa. (LIB I: 61).
- *Oilarrak goizegi jo digu*, eguna argitu baino lehen. (LIB I: 71).
- Oraingo jokabidea zuritu nahi luke, gainera. Baina ez du agian *lixiba behar adina jo*. (LIB I: 79).
- *Iguzkiak badu denentzat argi*, onentzat eta gaiztoentzat, eta Mogelen irriparre gozoa ere, Cervantesena bezala, guziongana hedatzen da, Peru jatorragana beste Maisu Juanengana. (LIB I: 73).
- Ezpata dantzatu (ZIN: 157) / zigorra dantzatu<sup>244</sup> (“legearen zigorra behar bezala dantzatzen” (ZIN: 137-138).

Horrelako esamoldeak ugariak dira bere testuetan, nahiz eta gutxi batzuk bakarrik aldatu ditugun. Aski izan daitezke, ordea, Mitxelenarentzat aldi igaroak duen garrantziaz jabetzeko: “aldi igaroan baititu sustraiak orainak eta geroak”. Garai bateko gogo-giroaren oihartzun dira. Eta horrek berarekin dakar buruan duen irakurle horrek ere gure arbasoen eta tradizioaren berri behintzat izan beharra, Mitxelenaren testuak bere osotasunean interpretatuko baditu behintzat.

---

<sup>244</sup>Esamolde horiek lotura zuzena dute gure aiton-amonek erabili ohi zituzten “leja dantzatu” edo “makila dantzatu” bezalakoekin. Xenpelarrek ere “Fusilak nola dantzatu” darabil “Iya guriak egin du” bertso-sortan.

Beste batzuetan, esaera zahar horien moldea erabiliz, Mitxelenak berak “berriak” sortuko ditu, zaharrak eraldatuz edo beste hizkuntzetakoak gurera egokituz eta moldatuz; soin zaharra izanik gogo berria aditzera emateko egokiak direnak:

### 1.3. Ustezko esaera zaharrak, edo esaera zaharren traza dutenak

Beti ez ditu, bada, Mitxelenak esaera zaharrak diren-direnean aldatzen, maiz, komeni zaionean, beste hizkuntzetako esaerak euskarara egokitu egiten ditu eta eraldatu ere bai:

- Ez da berri txarrik aldamenean gozagarri pittinen bat ez dakarrenik, ezta berri onik ere erabat on esan dezakegunik. (LIB I: 67).

Goiko esaera hori gaztelaniazko “No hay mal que por bien no venga” esaera zaharra euskaratuz edo sortuko du<sup>245</sup>, baina Mitxelenak komunikatu nahi duena komunikatzeko egoki datorkiolako, gaztelaniazko esaera horri bira emango dio.

- Erabateko iritzia emana dago: aditzaile onak ez du besteren beharrik (ILIB I: 76)/ Ulertzaile onak ez du noski gehiagorik behar. (LIB II: 95). [“A buen entendedor, pocas palabras”].

- Beste ariko ezpala dirudi (LIB I: 137) [“Harina de otro costal”]

- Hizkuntza gaietan *urak beren bidera itzuli* direnean, Urruzunok hartu du poliki-poliki euskal literaturan zor zitzaion, eta Altube jaunak aspaldi begiz jo zion, lekua. (LIB II: 68). [“volver las aguas a su cauce”].

- Horrexegatik, labur eta berandu hobe denez gero inoiz ez baino [“más vale tarte que nunca”], zilegi izan bekit behar nukkeen baino lasterrago —abespelean edo antzinako bizkaitarrek esango zuketen bezala— neure egitekoak egitea. (LIB II: 121).

Esaera zaharrak eraldatuta

---

<sup>245</sup>Jorge Giménez Bech-ek (2001: 241) honela itzultzen du: “No hay mala noticia que no lleve aparejado un mínimo gozo, ni noticia favorable que podamos calificar plenamente de buena”.

- Eta hartu eta burutu duen lanaren nekea zenbaterainokoa den, eskarmenturik duenak badaki, eta ez duenak ere errazki igerriko dio. (LIB I: 68). [“dakienak badaki eta ez dakienak baleki”] atsotitzaren moldea eta oihartzuna dakarkigu.

- Harri eta belarri eginik geldituko ginatekeen. (LIB I: 75). [“harri eta zur”].

- Indiarak sor zezaketen gaurko fisika, bide horretatik abiatu izan balira. Bai, eta bizikleta izan zitekeen nere amona, bi kurpil izan balitu. [“si mi abuela hubiera tenido ruedas, bicicleta hubiera sido”]. Gerta zitekeenaz eta ez zitekeenaz mintzatzea ez da gehienetan berriketa alferra besterik ezean. (LIB I: 41). [“balitz eta balu urrutiko anaiak” direla adierazteko].

Beraz, batzuetan “ustezko” esaera zaharren aipamenak ere egiten ditu. Ustezko diogu, ezen ahozko tradiziotik gertu legokeen testuartekotasun bati erreferentzia eginez, irakurlari egiten zaizkion keinu ironikoak baitira. Eta ironia kontuak aipatzen baditugu, esaera “zahar” gehienak zaharrak ez direlako da. Alegia, begi bistakoa da egileak asmatutakoak edo eraldatuak direla. Batzuetan (azkenengo horrek bezala) umorea plazaratzea dute helburu.

Bere lanak esaera zaharrez eta atsotitzez zirtatzen baditu ere, testu zaharrei zor dien errespetua ere oso nabarmena da: “Hori ez zaio harrigarri irudituko Mitxelenak euskara, berria nahiz zaharra, zenbateraino menderatzen zuen dakienari”. (Altuna 1988: 27).

Esate baterako zenbait esaera zahar ez du ahozko tradiziotik jasoko, hainbatek idatzizko iturburua izango dute. Hona hemen, adibide gisa, bakarren batzuk:

### **Isasti lezoarrari egozten zaion atsotitza**

- Hautatu eta berezi beharra, horra gizonari eman izan zaion dohaia eta zigorra: “*Aukeraren maukera, atzenean okerra*”. (LIB II: 73).

Ez dakar ez *Refranes Y Sentencias*-ek ez *Garibaik*. Mitxelenaren *Textos Arcaicos Vascos-en* (1964: 176) agertzen zaigu: “Auqueraren mauquera, azquenean oquerra” [A mucho escoger, a la postre tuerto]. Isastik jaso delako esango zaigu.

**Jacques De Belari egotzitakoa**

- *Orhiko xoria Orhin laket.* (LIB I: 112).

Esaera hori Jacques De Bela zuberorari egozten zaio. Iparraldeko esaera da: “bakoitzak berea nahi du” aditzera emateko aproposa. (Mitxelena 1964: 185).

- *Oinetako lur hau ikara dabilkigu.* (LIB I: 136).

*Textos Arcaicos vascosen* (1964:79) honela agertzen da: “Lamentación de Pedro de Abendaño”:

Yzarragaiti gora elcian joeala  
Jaun Peru Abendañococ esala:  
Oñetako lurrau javil<t>ycara  
Gorpuceco lau araguioc berala...

Bertan zer esan nahi duen adieraziko digu: “Quiere decir que tiene Pedro de Abendaño temor y le tiembla la tierra y el cuerpo...” (1964: 79).

Bertso hau beratu ikus dezakegu liburu bereko 91. orrialdean, hau da, *Endechas por la muerte de Martin Bañez de Artaçubiaga* atalaren barnean:

Oñetaco lurrin jabilt icara,  
Lau araguioc vere an verala,  
Marin Bañes Ybarretan il dala. (...). (Mitxelena 1964: 91).

Mitxelenak honela esango digu:

Se trata, sin duda, de una de las fórmulas usadas en la época medieval vasca que sólo a causa de la escasez de los fragmentos conservados no conocemos mejor (...) Su significación es: Que la tierra de los pies le temblaba y de la misma manera las carnes de sus cuatro cuartos. (Mitxelena 1964: 91).

Beraz, goiko adibide horiek erakusten digute Mitxelenak paperera aldatzen dituen esaera, atsotiz, erretrauetarik batzuk ahozko hizkeratikakoak diren arren, beste hainbatek tinta iturria dutela. Gatozen, jarraian, bete-betean tinta iturria duten aipuak aztertzeraz.

## 2. Euskal literaturaren aztarnak

Testu zaharrekiko mira ez da esaera zaharretan soilik ikusiko. Euskal idazle zaharren aipuak nahiz bere testu-zatienak ere ugariak dira Mitxelenaren kritiketan, batzuetan jatorria zein den zehaztu gabe edo testu zaharretako aipua dela adierazi gabe eta beste batzuetan jatorria zehatz-mehatz aditzera emanaz:

- “Esate baterako, heriotzez hiltzen ditugu, Detxeparek zioenez, gaizkilerik okerrenak. (ZIN: 138).

- “Agora itsu da ta eztazagu zuzena  
Eztu uste berzerik dela lekot maite duyena  
Suyak bano gaizkiago erra diro gizona  
Itsasoak ez iraungi eraxeki dadina”. (ZIN: 154).

Etxeparerena dela esan gabe, bere bertso zatia zinema-kritikaren barnean tartekatzen du, baina oharrean honela esango digu Altunak: “Pizkunde Arokotzat dauka nonbait hemen Mitxelenak, besteren iritziak gorabehera, gure Etxepare honenak, baitira ondoko bertso horiek”. (LIB I.154).

- “Negargarri eta lazarri haiek ikustean zertarako kupitu nahi dugu, geurok jasan nahi ez genukeen minez? Halere ikusleok samindu nahi dugu, eta samin hori zaigu atsegin”. San Agustinen hitzak dira, Orixek itzuli berriak. (ZIN: 164).

- Zerriak batez ere, “nola ezpaitute deus ere on den gauzarik bere urdaia baizen” ez daude lasai. (ZIN: 175).

Azkenengo adibide hori Axularrena<sup>246</sup> da. Baina Mitxelenak ez bide zuen beharrezko ikusten norena zen edo nondik hartutakoa zen esatea. Hori norentzakoaren eginkizuna da.

Beste hainbatean, Lizardik olerkietan erabilitako irudiez baliatuko da, zuzenean iturburua aipatzen ez badu ere (maiz darabilen) *harakok* sarrera egiten dielarik:

---

<sup>246</sup>Nahi izanez gero honako helbideetan aurkituko du horren erreferentzia:

- [http://www.logoslibrary.eu/pls/wordtc/new\\_wordtheque.w.tw.p?w=gaitzeanetl=EU](http://www.logoslibrary.eu/pls/wordtc/new_wordtheque.w.tw.p?w=gaitzeanetl=EU)  
- [http://www.vc.ehu.es/gordailua/Axular\\_1.Htm](http://www.vc.ehu.es/gordailua/Axular_1.Htm)

- Eta oraingo gisan, mendiak murrizten —edo gehienez pinu beltzez jazten—, ez dute, eginahalak egin arren, Lizardik utzi zigun baso antzaldatua soilduko, **harako** leihoak itxitako jauregia dirudien hura, atsedenenaren eliza, gau argi izarrez josia goian eta ur berdeak —izar irudiz zirtatuak — behean dituena. (LIB I: 64).

Hona hemen, goian darabiltzan irudi horien jatorria salatuko duten Lizardiren olerki-zatiak. *Bihotz-begietan* olerki-bildumatik jaso dugu, “Baso itzal” eta “Neskatx urdin-yantzia” olerkietan aurki ditzakegu:

III Baso itzal

uzta-uzta

(...)

**Leioak itxitako yauregia**

basoak iduri. Lo nagusia. (Lizardi 1932: 122).

(...)

**Atsedenenaren eliz**, zutoiz bete,

**osto-pilo eta izar izunak abe:**

ta i bertan oianeko yaupaleme (Lizardi 1932: 122).

“Neskatx urdin yantzia”

ustez, **buru gañean**

**gaua dut, argia**

**amaika izar udiñen**

**dirdirak yosia...**

Ustez, **ur olergiak**

**nituan oñean,**

**izarrok ziralarik**

**islatzen urean...** (Lizardi 1932: 60).

Ondorengo hauetan ere, Lizardiren iruditegitik hartu ditu irudiak berera egokitzeke:

- Asaben lokarri zaharra ez baldin bada eteten, ez dugu besteren beharrik. (LIB I: 65).

Lizardiren “Asaba zaharren baratzaz” ari da. Mitxelenak berak ere idatzi zuen izen bera zeraman artikulua (ikus bibliografia).

- Aski genuke beti begien aurrean edukitzea euskarari “amets-bideetan barna” eragin zion ibilaldi luze hura. (LIB I: 65).

“Amets bideetan barna” “Eusko-bidaztiarena” olerkiko zati bat da.

Adibide horiek erakusten digute Mitxelenaren norentzakoak ere euskal literaturaren —ahozkoaren nahiz idatziaren— ezaupidea baduela edo behintzat ezaupide hori balu bezala jokatzeko duela. Azkenik, euskal mundu literarioaren ukituarekin amaitzeko, ipuinei helduko diegu:

### 3. Herri-literaturaren oihartzun

Aipatzen ditu Mitxelenak beldurrean oinarritzen diren literatura fantastikoaren erreferentziak ere. Gizakioi hain gertutik itsasten zaigun “beldurraren” sentimendu hori ahozko euskal kulturaren edo herri-kontakizunetan pertsonaia (mitologiko) jakin batzuek irudikatu ohi dute: lamiek, sorginek, basajaunak, Tartalo gizon-jaleak, esaterako. Beraz, buruan euskarazko herri literatura ezagutzen duen irakurlea du; eta maiz, baita Ulyse-ren filmaren kritika egiten ari bada ere, erreferentziak norentzakoari gerturatzen dizkio.

- Sorgindua dago, inoiz —aspaldi baino aspaldiago— Donostiako Louvre´n ostegunetan ematen zizkigutenak bezalaxe, haur-irudimenak sorgindua. (ZIN: 170).

- Sorgindua ere esan daiteke, edertasun sorginkeriaz, sorginak eta sorginen erregina ez baitabilta olerki hauetatik urruti:

Anbotoko Anderea<sup>247</sup>

Batzarre-buru nagusi. (LIB I: 124).

- Ongi dakite poliki dabilena maiz heltzen dela ibiltari lasterragoa iristen ez den lekuraino<sup>248</sup>. (LIB I: 133).

<sup>247</sup>Anbotoko Mari dakarkigu gogora.

<sup>248</sup>Dordokaren eta erbiaren fabulari buruz ari da.

- Berri Onaren lehen hotsak entzuten ditugu berriz doi-doi hemen, Erko gazte bizkorrak Erromatik ekarriak, gaitzik gabeko jentil aldi liluragarrian bizi baitziren artean euskaldunak. (LIB I: 45).

- Lurralde atsegin hartan ez zen ia sugerik. Tartalo eta Basajaun itzalak ere umeen parregarritarako hobeak ziren beldurgarritarako baino. (LIB II: 45) .

Estonba'tar Joxe Manuel-en *Izartxo* liburua kritikatzan ari da. Ironikoki darabiltza berez beldur eragile diren pertsonaia horiek, liburuan dena zoriontasuna zela ikusirik, beldurgarritarako baino gehiago barregarritarako izango omen zirela dio. Mitxelenak ez du, bada, sinesten ez lehenaldi zorionsuan ez betiko topikoetan.

- Han daude nonbait kuzkurtuak pixti itxurako arkaitz-zurrunbiloak, lamiak, Tartalo gizon-jalea... (ZIN: 146)

Odysseaz ari dela ere herri literaturako ipuin fantastikoetan erabili ohi diren euskal pertsonaia beldur eragileak sartu ditu. Berak bai baitaki bere norentzakoari euskal mundu literarioko pertsonaiak askozaz gertuago gelditzen zaizkiola, eta nolabait mintzagaia bere norentzakoari egokitzeko modu bat da.

Aipu horiek guztiek ez dute erakusten Mitxelenaren norentzakoa herri xehea, "herri xumea" denik, baina bai balizko irakurle hori "herriaren" ahozko eta idatzizko tradizioa ezagutzen duena dela. Mitxelenak jokabide honekin ez dakigu herri literatura edo ahozko literatura "mailaz" goratzea bilatzen ote duen, baina bai zubigintza egin nahi duela herri-jakinduriaren eta XX. mendeko mundu zabalaren artean. Edo gutxienez, erreparorik batere ez duela itxuraz hain urrutikoak diruditen mundu haiek batzeko eta euskaraz adierazteko.

#### 9.2.2.2.2.B. Euskal munduaz eta euskal literaturaz haragoko erreferentziak

1. Mitxelenaren testuetan maiz agertzen dira beste herrialde batzuetako eta beste hizkuntza batzuetako esapide egin, lokuzio, *idioms...* direlakoak. Ugariak dira, esate baterako, latinezko esapideak, baina horien ondoan maiz agertzen dira frantsesezko, nahiz ingelesezkoak ere:



- Ezin konta, beraz, gertakari hauek *sine ira* eta *studio*<sup>249</sup>. (LIB I: 59).
- *Tour de force* bezala egin bide du. (LIB I: 76).
- Ez naiz hasiko erakusgarri bila: *sexenta proferre possim*. (LIB I: 69).
- Ez ninduen beraz oinazturak jo eta aldarazi *in ictu oculi*, luzaroko jardunak baizik. (LIB I: 112).
- Ikasbide onik bada liburu honetan euskal irakurle eta idazleentzat, euskalarientzat eta, *last but not least*, zenbait euskal gramatikarientzat. (LIB I: 130).
- Ez ote dakar honek gogora harako *abominatio desolationis* hura? Belarriko minak salatzen du ezin daitekeela gure hizkuntzan horrelakorik esan. (LIB I: 122).

MEIG sailean berrargitaratzean Altunak erdaratiko esamolde hauetako askoren euskal ordainak paratzen baditu ere, garbi dago Mitxelenak ez ziola norentzakoari laguntza hori eskaintzen. Eta horrek, esaldiak frantsesez, ingelesez edo latinez egoteak gaitasun linguistiko batzuk eskatzen dizkio irakurleari, nahiz eta liburuan zehar barreiatu dauden batzuk ulertzeko hizkuntza horietan maila handia edukitzea ez den beharrezkoa. Hala ere, aipu hauek norentzakoaren alderdi bat irudikatzen dute: Mitxelenaren norentzakoa ikasia da, edo behintzat “erdi-ikasia”, hizkuntzen “gutxieneko” ezagutza bat duena.

## 2. Beste hizkuntza batzuetako (grekerazko eta latinezkoak barne) fabulen oihartzunak

- Behin batean, mendi batean erdi-beharretatik xagutxo parregarria jaio omen zen. (ZIN: 157).

Oharrean esango zaigu Esopok gerkeraz (sic) eta gero Fedrok latinez eman ziguten fabula ezagunaz ari dela: mendi bat zerbaitez erdi behar; zertaz erdiko, eta xagutxo farregarri batez.

- Eta, ausartzea asko ez dela, nor atzera itzul urteen buruan, hartaz kanpora, oso eta bizi — *Simbad Marinela geroago bezala*—, bere jaioterri harritsura? (ZIN: 146).

---

<sup>249</sup>“Sine ira et studio” litzateke jatorrizkoa.

### 3. Greziako jainko-jainkosen aipuak

- Ez da harritzeko beraz Ulysek *Poseidon'en* estatua itsasora amiltzea film honetan, eta oihu eta garraxika aditzera ematea bere izena Tartalo begi-bakarrari. (ZIN: 147).

- Halako Luzifer-airetxo bat erantsi diote, edo *Prometheu-airea*, Greziatik aldegin nahi ez badugu. (ZIN: 147).

- Ahalmen eta indar oro —baleak itsasoko xardinak bezala— biltzen eta bereganatzen ari den *Goliath* hori baino indartsuagorik nor? (ZIN: 150).

- Nor banintz ere, ez nintzateke sartuko, nere gogoz behintzat, horrelako listor-kabian, harako Paris (ez Frantzia-koa, alegia) gizarajo hura bezala. (ZIN: 158).

Mitxelenaren kultur ezagutza, bada, euskal eremutik harago zihoan. Behin eta berriz esango du Europan zituela bere sustrai guztiak<sup>250</sup>.

Europan barrena zebiltzan haizeen berri bazekien, eta ez da harritzeko, bada, bere kritiketan Europako literaturari, pinturari, musikari, zinemari, filosofiari, jakintzari etab. erreferentzia egiten dieten aipuak ugariak izatea. Esate baterako, bat aipatzearren, batean baino gehiagotan agertzen dira San Agustini erreferentzia egiten dioten aipuak:

- Film hau, bakoitza bere erara eta neurrira, San Agustin edo Rousseau'ren Aitorkizunen sailekoa dugu. (ZIN: 137).

- Ez dut inoiz ulertu San Agustinek haurtzaroarekiko agertzen duen nekaitza eta ezin-ikusia. (ZIN: 171).

### 4. Bibliaren edo Liburu Santuaren ukitua

Mitxelenak behin eta berriz esango digu bera ez dela nor erlijio-gaiez edo Elizaz mintzatzeko, Eliza Ama Santuak bai baititu horretarako bere maisuak:

---

<sup>250</sup>Gogoratu besterik ez dugu Txillardegiren *Peru Leartzakori* egindako kritika Mitxelena europazale eta mendebaldeko kulturaren zalea zela jakiteko.

- *Eliza Ama Santuak* bere maisuak dituenz gero, ez dagokigu guri liburu honen mamiaz mintzatzea (LIB I: 47).

- Honelako [erlijio gaiak, Santa Jema´ren bizitza] *gaietan sartzeko nor ez naizenez gero*, ez ditut noski esango Iraolatar Basilio Aita Pasiotarrak egin duen liburu honez esan behar liratekeen guztiak. (LIB II: 59).

- Neronek ikus dezakedanez —*eta ez naiz nor horrelako auzietan mintzatzeko*— [Gure erlijionearen frogantza, erlijio gaia beraz], ederki tajutu du gaia, lau kapitulutan berezia eta harira doa beti egilea, hitz alferrik gabe. (LIB II: 71).

- Duen gaia, nere barrutikoa ez izateaz kanpora, ez da nolana presakako kritika batean ukitzekoa. (LIB II : 87). [erlijio gaia da: *Kristau Fedearen Sustraiak I, Jainkoa*. Aita Villasante 1962].

Ezin uka, halere, bere kritikek kristau ixuririk ez dutenik. Altunak esango digun bezala, “Ez dugu kristau ixuria honengan aurkitzeko hain barrena jo beharrik; axal-axalean daude oinatzak” (Altuna 1988: 28).

Hain daude axalean, Liburu Santuko esaerek, pasarteek, irudiek nahiz bertako adierazteko moldeek maiz zipriztintzen dute bere diskurtsoa:

Batzuetan Bibliako pasarteak direnik esan gabe baina aipuen marka artean bere baitakoak ez direla aditzera emanez tartekatuko ditu. Ez du, bada, beharrik ikusten norentzakoari Bibliatik hartutako pasarte edo aipua dela adierazteko, buruan duen balizko irakurle horrekin banatzen duen erlijio edo kristau-heziketak horrela jokatzeko bermea eskaintzen dio.

- “Ez bazerate haurtxo bihurtzen, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan”, esan zuen Norbaitek. Horrelako zerbait ipini behar lukete maiz asko zine-atarietan. (ZIN: 141).

“Norbait” hori, jakina da, edo esan beharrik ez dago, Jesus bera dela.

Gehienetan, hain jakintzat ematen du (edo behintzat bere balizko irakurleak jakin beharrekotzat), Bibliatik hartuak direnik ez esateaz gain, besteren aipuak direlako seinale ikur grafikoekin ere inguratu beharrik ez du ikusten:

- Eta, zakur gose batzuek harturik lagun, laster erakusten du borrokan *azkenekoak izan daitezkeela hemen ere*<sup>251</sup> gozamenean aurrenak. (ZIN: 176).

- Baina harako amets-herri haren oroitzapena eta mina zeharo galdu ez duenak, *urteetan aurreratua delarik haurtxo bihurtzeko lotsarik ez duenak*, nekez idoroko du gure zine-etxeetan ikuskizun hoberik. (ZIN: 171).

Goiko aipu horretan ere Bibliako “Ez bazarete haurtxo bihurtzen, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan” esapidea gogorarazten digu. Beste horrenbeste ondorengo honek ere:

- *Zorionekoak* haurrak eta urteetan aurreratuak izan arren haurtzaroko garbitasunean irauten dutenak! (ZIN: 129).

Esaera hori, gainera, Itun Berriko moldean idatzia dago. Badirudi, “haiek izango baitute...” bezalako jarraipena eskatzen duela.

- Errenteriakoak behintzat horrelakoxeak ziren. Baldin beste herririk bada —Gipuzkoan behinik behin—, ohitura garbiagoak zituenik, *jaso beza eskua* bertako semeak. (LIB I: 92).

Hor ere atzematen dugu harako “holako bekaturik egin ez duenak bota beza lehenengo harria” esamoldearen oihartzunik.

Ondorengo aipua ere, nork eta noiz esan zuen esan beharrik sentitzen ez duenez gero, inolako markarik gabe tartekatzen du:

- Elia Kazan’en “Viva Zapata” gogorazteko saio bat edo beste egiten du, erdi parregarri erdi negargarri. *Barka bekio, ez baitzekien zer ari zen*. (ZIN: 143).

Jesusek gurutzean esandako hitzak dira noski, bere norentzakoak erraz asko interpreta ditzakeenak. Garai hartako hitzak gainera, berak zehatz-mehatz edo zuzenean esan gabe, esan nahi duen hori aditzera emateko egoki datozkio.

Edota San Pablora hitzak:

---

<sup>251</sup>“Hemen ere” horrek “Zeruetan bezala” inpliketzen du.

- Bestela, itsua badabil itsu-mutil, ongi jaiok gaude. (ZIN: 140).

Liburu Santuetatik hartutako irudiekin ere maiz jokutzen du: Paradisu galduarekin, Paradisuko sugearekin, lotsaizunezko piku-ostoarekin, etab.

- Eta **emazte eta etxearen jabe** egin ondoren ere, ez du Elizondon etsiko. Ezin baitaiteke izan, ez sortzailearentzat ez bere umearentzat, **Paradisua**ren antzekorik lur honetan, Donostian izan ezik, eta kai inguruan inolaz ere. (LIB I: 105).

- Eta hori gutxi balitz, “norbaitek”— **lotsaizunezko piku ostoz bere burua estali nahi duen “norbaitek”**— egilearen bizitzaz eta lanez berri ugari ematen digu liburu gehienen sarreran. Berri horiek ahotik belarrira jasoak izan ohi dira sarri, “norbaitek” horrek bildu ez balitu, laster galduko liratekeen horietakoak. (LIB II: 81).

Auspoa Liburutegiaz dihardu eta badirudi, “Eva”-k baino motibo gutxiago izan arren, erdi-lotsaturik, erdi-bilutsik erdi-estalirik agertzen den norbait hori, Aita Zavala dela.

Testamentu Zahar nahiz Berritik jasotako irudi horiek, gainera, jaso ez ezik, bere egiten ditu, bere-berea duen sinbologia sortzeko egoki gertatuko zaizkio. Esate baterako, bere kritiketan zehar maiz erabiltzen du “sugearen” eta “paradisua”ren irudia, gizarteko auziak edo gizakien arteko harreman korapilatuak islatzeko egoki gertatzen zaiona; gizon-emakumeek alde asko izaten baitute. Mitxelenaren gogoeta da, eleberrian bizitza ematen zaien pertsonaia horiek “benetakoak”, “hezur-haragizkoak” izan daitezen ezin dela “Paradisu perfektu bat irudikatu”, gizona gizon den artean beti izango baititu argi-ilunak eta Mitxelenak behin eta berriz esango digun bezala, “argi-ilunean dago maiz gizatasun mardula”.

### **Sugerik gabeko paradisia**

- Erkiagaren Lekeitio, gertaleku atsegina izanik, sugerik gabeko paradisia da garratzasunik sumatzeko. Ekaitzen bat edo beste ezagutzen du aldiz-aldiz, bihotzeko eta heste goitiko minak ere bai: mundua sortua izanik, Leibnitzek esango zukeen bezala, ez zitekeen besterik gerta. Gizonak bere eskuko duen borondatek datorren gaitza, ordea, eta hori da batipat gaitza guretzako, ez da ia ageri. Gizonagandikako gaitzik ez bada, beraz, ez da egiazko dramarik ere. (LIB I: 101).

- Neretzat behintzat, orduko lurraldea eta giroa da egiazko Paradisu galdua. (ZIN: 171).

Paradisuko sugearen irudiaz baliaturik, Erkiagagan Etxaidegan harrapatzen dituen antzeko akatsak islatzen ditu: pertsonak ez dira “benetakoak”: gogoeta eta ohar gehiegi agertzen da “sugerik gabeko paradisia da”. Hau da, errealismo falta nabari da, sinesgarritasun edo sintesterraztasun falta. Aitzitik, Peru Abarkaz honela esango digu:

- Eta biek [Peruk eta Maisu Juanek] elkar topatuz gero, berez bezala dator elkarrizketa bizia. Baita gainerako lagunak ere: andre ostalaria eta bere mirabea, orduko baserritarrak, linu ezpatariak, ola gizonak, baita azkenik —paradisu ederreko suge beltza— iskribau-aguazilak ere. Aspaldi aldendu zen eta ia ahazturik daukagun Euskalerra zaharraren oroigarri berdingabea. (LIB I: 72).

Sugea, bada, gaizkiaren sinbolo da, gizakiaren (baina hezur-haragizkoaren) harreman korapilatuen edo pozoituen sinbolo:

- Den bezalakoa da, hori bai, eta ez du arpegirik izkutatzen. Birtuterik birtutetsuena erakusten dute onek eta gaizto bakar bat besterik ez da agertzen liburu osoan, nahitaezkoa delako gainera, onen ontasunak argiroago distira dezan. Eugene Sue edo Xavier de Montepin´en munduan gaude; sugeak Paradisia pozoitu baino lehen. (LIB II: 43).

Bestetan “sugearen” irudiak emakumeez hitz egiteko hizpidea ematen dio; badirudi, izendatuki esaten ez badu ere, “sugearekin” eta “paradisuarekin” batera, ixilean bada ere, hor dabilela Evaren irudia.

- “Sugerik gabeko paradisia dela esan dut, ez horratik emakumerik gabekoa” (LIB I: 101).

Bestetik, Jainkoari egindako desiozko deiak ere ugariak dira ondorengo adibideok erakutsiko digutenez:

- Emango ote digu Jainko onak nahi goragarri hori beterik ikusteko grazia? (ZIN: 144).

- Gorde diezaiola Jaunak begia luzaroan! Ez dakiola behintzat gerta Donibane-inguruan sorginaren begiari gertatu ohi zaiona! (ZIN: 146).

Adibideek erakusten digute, beraz, Mitxelenaren testuetan, ia euskal literatura osoan bezala, nabarmen ageri dela Bibliaren ukitua eta distira, baita erlijio gaiak mintzagai ez zituztenetan ere. Beraz, kritika hauek irudikatzen duten norentzakoak ere erlijio-kultura, eta bereziki kristau erlijio-kultura ezagutzea du eskakizun; izan ere, Mitxelenak bere testuetan Liburu Santuko hainbeste esaera tartekatzen baditu bere norentzakoak erlijio-ezagutza horren oinarriak badituelako ustean tartekatzen ditu, informazio pragmatiko horren jabe badelako ustean.

### **9.2.3. Ondorioak**

Aipuen ehizan ibili behar honek agerian uzten du Mitxelenaren norentzakoaren zailtasunik handienetakoa, handiena ez bada, idazleak berak duen jakintasuna edo erudizioa dela. Etenik gabe, parrastaka jaurtitzen dituen aipuak, ikusi dugun bezala, ez dira euskal mundura soilik mugatzen, erdal munduari egindako erreferentzia literarioak ere ugariak dira. Baina zailtasuna ez dator elkarren gainean bezala agertzen den informazioaren aberastasunetik. Ez behintzat hortik bakarrik. Gehiago dator, gure ustez, Mitxelenak duen alusioka, aieruka, imintzioka, edo gauzak zuzenean esan ordez erdiesaka aritze horretatik. Norentzakoak etengabe ibili beharko du estalirik edo erdi ezkutaturik dagoen hura nor ote den jakin nahian. Mitxelena bera ere maiz dabil ikusi-makusika irakurlearekin; ez agian, norentzakoarekin, baina bai une jakin batean bere testuak irakurtzera lerratu den irakurlearekin.

Garbi dago Mitxelenak norentzakoari egiten dizkion deiekin nahiz ezkutuko edo zehaztu gabeko aipu horiekin guztiekin bere erudizioa erakusteaz gain, norentzakoaren aurre-irudi bat eraikitzen duela. Mitxelenak jakin badaki estarian gordetzen duen informazio hori maiz izendatuki edo agerian esaten denak baino garrantzi handiagoa duela komunikazioan. Badaki, halaber, bera zuzentzen zaion hark, edo bere mezuaren norentzakoak, identifikatu behar duela ezkutuko informazio hori, bera ez baitzaio edozein euskal irakurleri zuzentzen, edozein euskal irakurlek irakur baditzake ere. Edozein irakurlek irakurriko ditu eta bere hizkera ulertzen ez du zailtasunik izango, baina bere norentzakoak soilik, informazio pragmatiko beraren jabe den hark soilik, adituko ditu bere osotasunean, honek atzemango baititu aipuen ezkutuko erreferentzia horiek, nahiz eta horretarako lan egin behar.

Mitxelenaren testuek, bada, lehen-lehenik norentzako langilea eskatzen dute, ez nagia. Berak behin eta berriz esango duen bezala, irakurleari lanik ez zaio gehiegi erraztu behar:

Langilea ez ezik sortzailea ere bai; erreferentzia-sare hori bersortzeko gauza izan beharko du, eta, beraz, egiten duen irakurketa etengabeko bilaketa izango da.

Beraz, Mitxelenaren aipuek ez dute bere erudizio izugarria erakustea helburu; norentzakoari keinu bat egiteko balio dute, ironiarekin eta umorearekin zipriztindutako jolas intertestuala eraginez. Norentzakoari esnatzeko, eta lozorroan ez egoteko keinua egingo dio. Garbi baitago Mitxelenaren balizko norentzako honek berak zeharka-meharka edo zuzenean egindako aipuen erreferentziak aurkitzeko etengabeko sormen- eta bilaketa-lana egin beharko duela.

Laburbilduz, honako ezaugarriak lituzke enuntziatu parentetikoetan agertzen diren keinuen zuzeneko hartzaileak:

### **1) Irakurle sortzailea eta aktiboa da**

XX. eta XXI. mendeko literatur lanek bezala, Mitxelenaren hauek ere irakurlearen partehartze aktiboa eskatzen dute:

Kontua da, bidaia literario hori konplexuagotzen ari dela XX. mendean literatur lanek gero eta protagonismo handiagoa eskatu diotelako irakurleari. (Olaziregi 1998: 18).

Garbi dago azterkizun ditugun testu hauek, itxuraz, hizkuntzalaritzazkoak eta oro har jakintzazkoak baino samurragoak izan badaitezke ere, norentzako langilea, aktiboa eta hein batean sortzailea ere eskakizun dutela. Norentzako honek, goian agertu ditugunez, bai baititu gainditu beharreko zailtasunak. Ez, agian, gaiaren terminologiari dagozkionak, ez eta, agian, mintzagaiak eta aztergaiak berak eragindakoak ere. Norentzako honek, goian ikusi dugun bezala, esatariak hainbat eta hainbat aldiz, zuzenean egindakoak aski ez izan eta, darabilen aipamen ezkutuen estrategiari egin beharko dio aurre, testua bere osotasunean ulertu eta interpretatuko badu: Mitxelenaren ezkutuko arerioari, hain juxtu ere.

Eta bere ardurapean geratuko da hutsuneak betetzea; hau da, ezkutuko aipuen erreferenteak aurkitu eta kokatzea. Norentzako horrentzat, bada, Mitxelenaren testua irakurtzea ez da pasiboki egin daitekeen zerbait; etengabe bilatzen jardutea baizik, eta zenbat eta gehiago irakurri eta kokatu ezkutuko horiek orduan eta beteago, aberatsago eta biribilago gertatuko zaio testua; norentzakoa parte-hartzaile aktiboa izango da.



## 2) Heldutasunera iritsi den irakurlea

Haurtzaroa aspaldi pasea duen irakurlea izango da. Hausnarketak egiteko gai dena. Mitxelenak ez du maite eskutik heldu eta harantz eta honantz berak nahi duen erara ibili eta erabiliko duen irakurlerik. Irakurle heldua nahi du. Heldutasuna erdietsi ahala, argudiatzeko gaitasuna duena.

Jarraian ikusiko dugun enuntziatu parentetikoak, hondarrean, esatariak bere argudioan aurrera egiteko estrategia dira, baina bere argumentazioan aurrera egiteko norentzakoak ere nahitaez heldutasun bat izan eta erakutsi behar. Pentsamenduak norentzakoarekin elkarrizketatuz (itxurazkoa bada ere) arrazionalagoak, eztabaidatuagoak baitirudite.

## 3) Gaian jantzia dagoen irakurlea

Mitxelenaren testuak ulertzeko, garbi dago norentzakoak ezagutu behar dituela gai horri buruzko erreferentzia bibliografikoak, edo behintzat mintzagai duen gaiaren nondik norakoak: zinemaz ari bada zinema-mundua ezagutu beharko du, euskal liburuen kritikez ari bada, euskal literaturaz zerbait (edo zerbait baino gehixeago) jakin beharko du. Mamiari dagozkionak ulertzeko gauza den irakurlea du eskakizun.

Gaian jantzia diogunean ezin ahantz dezakegu egungo gertakarien berri ere jakin behar duela norentzakoak.

## 4) Irakurle hiritar euskalduna

Denborari gogor egitea, etxeak artu dituen kalteak nolapait konpontzea, izkuntzak aurrerantzean ere bizitzeko bear duen kemenez indarberitzea, gure arloa da. Larre-izkuntza dena kale-izkuntza biur dedin, ain maite dugun garo-usaia —norbiatek gorotz-usaia esango luke— zertxobait galtzea naitaezkoa izango du. Kaletarrak ere euskaldun gara, batzuek behintzat, ta zori gaiztoz edo zori onez, kaletarrok gero ta geixeago gailentzen ari. Eta kaletarron buru-bihotzak ez izaki beti lengo euskaldunak bezin garbi. Barrenean bi gizonen burruka latza somatzen dugu —berriz ere Paulo´ren burruka amaigabea: oitura burnizko katea baño lokarri etengaitzakoa baita. Eta euskara biziko baldin ba´da —ta gure aurrekoena ez baña gere izaera benetan azalduko baldin badugu—, gure errietako biziera naasia euskaraz jarri behar nahi-ta-ez: gaurko eziñegona, bizibeharra ta ezinbizia, aundinahia, diru-gosea, maitasun-gorotoak; gaurko gizonen

ametsak, zuur edo zoro; ezerezaren gau beltzean —hiltzeko sortua—, nondik datorren ta zertarako den ez dakienak daraman uskeriazko ibillera galdua ta bera baño goragoko zerbaiten alde gizona bere buruari uko egitera beartzen duen indar ezkutua. (Mitxelena1951: 20).

Gerraondoko urte hauetan Mitxelenak badaki gizartea asko aldatu dela. Herriko eta atzerriko haize berrien eraginez, giro-aldaera larria gertatu da, bestelako pentsabidea bestelako bizimoduen eskutik: usteak, sinesteak eta, azken batean, mundua ulertzeko modua aldatu egin da.

Galileo ondoko jakite berrian hazi den irakurlea du buruan. Jakite horretatik sortu den industriak inguraturik bizi den irakurlea.

(...) Galileo-aurreko dugula esan izan dut [Orixe ari da], jakite berriaren ukatzailea. Jakite horretatik sortu den industriari ere ez dio leku handirik opa bere poema nagusian. (...)

Gu, ordea, eta are gehiago gazteagoak, jakite horretan haziak gara, oraingo hirietan bizi garenak, fabrikaz inguratuak. (MEIG V: 128).

Aipu horretatik ondoriozta dezakegu, Orixe ez bezala, Galileo ondoko irakurle hiritarrarekin ari dela Mitxelena; bere adimen-usteen eta ez dogmen irakaspide zurrak gidatzen duen XX. mendeko irakurle euskaldunarekin. Horregatik ikasia, jantzia behar du izan Mitxelenaren norentzakoak; hau da, nonahi eta ez Euskal Herrian bakarrik<sup>252</sup>, gaiaren konplexutasunari aurre egingo dion edonongo irakurlea, eta aldi berean giza-jakitearen mugez arduratzen dena.

Mitxelenaren norentzakoak azterketa sakonago bat eskatzen duela dudarik ez dugu (eta horretarako ateak zabalik daude). Gure helburua, ordea, ez da berariaz norentzako hau aztertzea izan, bidenabar baizik, enuntziatu parentetikoaren azterketan esatariarekin eta testuinguruarekin batera zutabe nagusi den heinean soilik.

Azterkizun ditugun kritiken norentzakoaren irudi bat behintzat ezagutzen dugularik, hel diezaigun bete-betean enuntziatu parentetikoei esker esatariak norentzako honekin txandakatzen dituen zereginak edo eginkizunak zein diren aztertzeari.

<sup>252</sup>Horren adierazgarri, Perez Gazteluk (1991) dioena aldatuko dugu: “Aldaketa horien inguruan antolatzen da euskal gizarte berria [gerra zibilaren ondoko Euskal gizartea] eta aldaketa horiei erantzuteko gai izan behar duen euskara gorpuzteko ez dute balio lehengo irakaspide eta urratsek, ez bete-betean behinipein. Euskaldun baserriarraren irudi, ustez, aldaezinetik, euskaldunen bizimoduari buruzko ikuspegiarren hesi murriz eta topikoetatik irten beharra dago euskara kez, CHOMSKYZ, ADORNOZ edo MARXez goitik behera blai eginda dagoen gizartean arruntean erabil dadin.” (1991: 160).

Zeregin edo komunikazio-eginkizun hauek, sarreran bertan aipatu dugun bezala, bost sail nagusitan bildu ditugu:

- 1) Esatariak bere arrazoibidean aurrera egiteko bitarteko dira.
- 2) Esatariak norentzakoarekin zuzeneko interakziozko harremana bideratzeko eginkizuna dute.
- 3) Esatariak eta norentzakoak batean duten informazio pragmatikoa aktibatzeke eginkizuna dute.
- 4) Ahozkotasuna idatzian txertatzeko baliagarri gertatzen zaizkio.
- 5) Esatariaren intentzio ironikoa testuan islatzeko bitarteko ere badira.

### **9.3. ENUNTZIATU PARENTETIKOAK, ARGUDIATZEKO DISKURTSO-ESTRATEGIA ERRETORIKO-PRAGMATIKOAK**

Liburuen alde onak eta txarrak, dohaiak eta akatsak jotzen ditu begiz eta horien arauera laudorioak edo erdeinuak parrastaka barreiatzen. “Kritikoak egia zor dio idazleari” esango digu eta Mitxelenak bere egia —zuzen ala oker, zerorrek ikus— estalkirik gabe aitortzen du, beti arrazoi sendo eta pisuetan oinarrituz, ene ustez. (Altuna 1988: 34).

#### **9.3.1. Sarrera**

Enuntziatu parentetikoek diskurtsoan zein funtzio duten aztertzerakoan, esatariaren intentzio-xedea zein den kontuan izan behar dugu. Uste dugu Mitxelenaren xedea ez zela soil-soilik informatzea eta uste ere dugu Erretorikak eskain diezagukeela argibiderik.

Garbi dago, izan ere, Mitxelenak zinema eta liburu-kritikak egitean bazuela Erretorikaren ezagutzarik, edo behinik behin, taxuz argudiatu eta eztabaidan gailentzeko teknika oinarritzkoen jabe bazela. Argudiatu ez ezik, bazekiela norentzakoaren uste, jarrera zein jokabideetan eragiteko moduan berbaldia antolatzen ere; hots, bazekiela norentzakoak film bat ikusteko edo ez ikusteko konbentzitzen, edota liburu bat goraiapatuz eta bere ezaugarri positiboak aurkeztuz irakurlea hura irakurtzera lerratzen. Honenbestez, ezagutzen zituen pertsuasiozko berbaldia sortzeko estrategiak.

Baina zer adierazi nahi dugu “pertsuasiozko berbaldia sortzeko estrategiak” diogunean?

*Pertsuasioa*, Joxerra Garziari jarraituz (Doktorego-tesia 1999: 34), “komunikatzaile batek mezu baten bidez hartzailearen uste, jarrera zein jokabideetan eragiteko egiten duen jarduna da”. Ñabardura bat erantsiko diogu definizio horri, “hartzailearen” tokian “norentzakoak” ezarri beharko genuke, goiko atalean zehaztutakoari helduz. Pertsuasioaren helburua, beraz, Garziak esango digun bezala (1999), norentzakoarengan eragitea da, dela usteetan, dela jarreretan edo jokabideetan. Zehatzago esanez:

1. Pertsuasioa jardun edo prozesu bat da; ez da, beraz, esatariak norentzakoari bidalitako mezua ondu. Pertsuasioan, esatariak sortu eta bidaltzen duen mezua norentzakoak alde aurretik dituen jarrera eta usteekin lehian sartzen da, eta lehia horren emaitzaren ondorioa da saio pertsuasiboaren arrakasta edo porrota.
2. Esatariak norentzakoak pertsuaditzeko edo limurtzeko asmoa izatea ezinbestekoa da jardun jakin bat pertsuasio-saiotzat jo ahal izateko. Esatariaren ezaugarriak (norentzakoak esatariaren duen pertzepzioa) garrantzi handikoak dira pertsuasio-saiotzetan.
3. Pertsuasioaren helburua norentzakoarengan eragitea denez gero, norentzakoak kontuan izanik eta haren arabera egin beharko dira egitekoak oro, saioak arrakasta izan dezan.

Pertsuasio-saioak arrakasta izan dezan zein bide du esatariak? Zein maniobra egin behar du mezua eraginkorra gerta dadin?

Erretorikak, ia sortzetik beretik, pertsuasiozko komunikazioa erdiesteko bideak aztertzeari ekingo dio:

La doctrina retórica de Aristóteles recoge, sistemáticamente, los medios de persuasión de los que puede disponer el orador en la práctica del discurso forense o político. (Spang 2005: 46).

Aristotelesen Erretorikak helburua norentzakoak konbentzitzea du; ez doa egiaren atzetik, ez eta egiaztapenaren atzetik ere. Bere helburua baliabide batzuen laguntzaz (argudioak, probak) norentzakoaren atxikimendua erdiestea da.

Ildo bertsutik doa Perelman & Olbrechts-Tytecaren, *Teoría de la argumentación* (1958: 39) liburua ere. Erretorika berritatz jotzen den liburu honetan ere, esatariak

norentzakoa limurtzea du helburu, eta norentzakoaren atxikimendua lortzeko esatariak eskueran izan ditzakeen diskurtso-baliabideez dihardu. Argudio-estrategiez, gehituko genuke guk.

Pertsuasio-bide nagusiak, Erretorika modernoaren arabera, bi dira: nagusia eta oinarrizkoena argudiatzean oinarrituta dagoena da. Baina badira argudiatzearekin batera bazterreko fenomenoak ere, hizkuntzaz gaindikoak edo paralinguistikoak; gorputz-hizkuntza, alderdi kinesikoa, ahotsari lotutako guztia (prosodia), etab. Egia da, ordea, azkenengo bide hau, bereziki, ahozko berbaldietara gehiago zuzentzen dela, idatzizkoetara baino.

### 9.3.2. Argudiatzea eta pertsuasioa

Berez bi adigai ezberdin izanik, maiz aski definizio berean aurkitu ohi dira. Hondarrik hondarrean, pertsuasiora iristeko prozesu horretan, argudiatzea bitarteko nagusia izango baita. Argudiatzeari buruzko hainbat eta hainbat definiziotan agertzen denari jarraituz (C.Perelman & L. Olbrechts-Tyteca (1989) C. Plantin (1998), V. Lo Cascio (1998)<sup>253</sup>, besteak beste), argudiatzea funtsean ondorio jakin bateranzko argudioak emate soila bada ere, arrazoibidezko ekintza batek berarekin dakar norentzakoa bere ideia eta tesietara atxiki nahia; hau da, konbentzitu eta pertsuaditzeko<sup>254</sup> helburua ere. Eta ildo honetatik, argudiatzea, berez ilokuziozko ekintzatzat joko genukeena, pertsuaditzeko mekanismo edo estrategia-multzoa litzateke; hau da, perlukuziozko ekintza bihurtzen da.

Egun, erretorikaren ikertzaile eta teorikoek, komunikazio erretorikoaren gune argudiatzea jotzen dute; izan ere, bertan biltzen baitira pertsuasio-indarra lortzeko hizkuntza-baliabide edo estrategia nagusiak. Ikusi besterik ez dago argumentazioari buruzko bibliografia<sup>255</sup> horretaz jabetzeko. Baina zer ulertzen dugu *estrategia* hitzaz?

<sup>253</sup>“Argumentar para convencer significa producir un acto ilocucionario para empujar a un hablante, un interlocutor, ideal o real, a realizar un acto perlocucionario, es decir, a aceptar o rechazar la opinión o tesis que se ofrece a través del propio acto de habla”. (V. Lo Casio 1998: 50).

<sup>254</sup>Dafouz Milneren ustez (2000 III:21) pertsuasio-indarra norbait konbentzitzea baino harago doa. Pertsuasio-saioa egin duenari ez zaio aski argudio bidez norbait konbentzitzearekin, beharrezkoa du norbait horren atxikimendua lortzeko beragan zirrara eta emozioa eragitea. “Persuadir es más que convencer, puesto que la convicción no es más que un primer estadio que conduce a la acción. Al persuasor no le basta con convencer por la vía racional, necesita también la adhesión emotiva que conducirá más directamente hacia unos resultados determinados”. (Dafouz Milne 2000 III. ataleko 21 or.).

<sup>255</sup>Kurt Spang-en liburuan (2006) hainbat liburu interesgarriren erreferentzia agertzen zaigu.

### 9.3.2.1. ESTRATEGIA

Calsamiglia & Tusónen (1999) arabera interpretatuko dugu lan honetan ere:

La heterogeneidad lingüístico-discursiva no sólo no es caótica, sino que está regulada, más allá del plano gramatical, por una serie de *normas, reglas, principios o máximas* de carácter textual y sociocultural que orientan a las personas en la tarea de construir piezas discursivas coherentes y apropiadas a cada ocasión de comunicación. Comunicación que se entiende, no tanto como un simple y mecánico proceso de transmisión de información entre dos polos, sino como un proceso interactivo mucho más complejo que incluye la continua interpretación de intenciones expresadas verbal y no verbalmente, de forma directa o velada.

Esto implica tomar en consideración a las personas que usan esas formas, y que tienen una ideología, una visión del mundo, así como unas intenciones, metas o finalidades concretas en cada situación; unas personas que despliegan *estrategias* encaminadas a la consecución de esos fines. (Calsamiglia & Tusón 1999: 16).

Definizio honen arabera, estrategiak komunikazio-ekintza jakinetan helburu jakin bat lortzeko egokiak diren diskurtsoak sortzeko baliabideak dira. “Egokia” izatea, bada, xederako tresna izatea da. Beraz, perpausaren gramatikazko zuzentasunari baino areago diskurtsoaren martxa, interpretazioa eta garapena bideratzeari dagozkio. Eta horrek berarekin dakar komunikazio edo enuntziatio ekintza batean parte hartzen duten osagaiak oro kontuan izatea, komunikatzea ez baita esatariak norentzakoari informazioa helaraztea soilik. Oso kontuan izan beharko da esataria (enuntziatioaren sortzaile den heinean), norentzakoa (honen uste-iritzietan eragin dezakeenez, honek ere zuzenean baldintzatuko baitu testua), eta testuingurua.

Beraz, estrategiek badute, noski, arauekin lotura, baina arauei zuzenean baino areago, arau horiek erabiltzeko moduari dagozkio; helburu jakin bat lortzeko, une jakin bakoitzean, komunikazioko testuingurua kontuan izanik, zein maniobra, zein taktika erabili behar den zehazteari gehiago dagokio.

Une honetan estrategia terminoa hobeto ulertzeko ongi etor dakiguke Ducrot-ek (1986: 254-255) perpausaren esanahiaz eta enuntziatuaren zentzuaz egiten duen bereizketa. Ducrotek interpretazioa instrukzio- edo argibide-multzo bezala ulertzen du, eta instrukzio edo jarraibide hauek enuntziatuei zentzua emateko zein maniobra egin behar den zehazten dute. Gauza bat baita erregelak ezagutzea, eta bestea, arras bestelakoa, estrategia edo taktika; hots,

komunikazioak arrakasta izan dezan erregela hauek komunikazio-egoera jakinetan nola erabili behar diren jakitea:

Prefiero representar la significación como un conjunto de instrucciones dadas a las personas que deben integrar los enunciados de la oración; estas instrucciones precisan cuáles son las maniobras que deben efectuarse para asociar un sentido a esos enunciados. (Ducrot 1986: 254-255).

Esatariaren helburua da bere iritzia edo tesia (berak ateratako ondorioa) berak nahi bezala norentzakoarengana iritsarazi (ilokuziozko ekintza) eta haren iritzi-usteetan eragitea (perlokuziozko ekintza). Beraz, berbaldi horrek arrakasta izan dezan, norentzakoaren interpretazioa berbalditik bertatik erregulatzen, bideratzen, gidatzen ahaleginduko da. Alde horretatik, argudiatzea norentzakoaren interpretazioa gidatu, bideratu eta aurre hartzeko esatariak berbaldian bertan aktibatzen dituen edo martxan jartzen dituen diskurtso-estrategia multzoa litzateke. Diskurtso-estrategia horien artean enuntziatu parentetikoak aztertuko ditugu.

Enuntziatu parentetikoak xede horretara bideratuta daudela egiaztatzen saiatuko gara. Esatariak hainbat mekanismo jarriko ditu martxan norentzakoak berak nahi duen ondorioa erakarri eta biek batean duten informazio pragmatikoa eraldatzeko. Mekanismo horiek guztiek esatari-norentzakoaren arteko interakziozko harremana bideratzen lagunduko dute, baina beti ere baldintza edo arau batzuen barnean: elkarrizketaren kooperazio-arauak kontuan izanik (H. P. Grice, 1975). Eta baita zenbaitetan hastapen horiekin tentsio-orekan egongo diren kortesiazko “arauak” edo mugimendu estrategikoak kontuan izanik ere.

Izan ere, esatariak norentzakoak ondorio jakin batzuetara bideratu eta honek esatariaren iritzi-usteekin bat egiteko (edo konbentzitzeko), bien arteko kooperazioa edo auzolana ezinbesteko gertatuko zaio, eta, beraz, ezin dugu aztergaia esatari-enuntziatzailearen mailara soilik mugatu. Oso kontuan izan beharko dugu komunikazio edo enuntziatio-ekintza batean parte hartzen duten osagaiak oro: esataria (enuntziatzailea), norentzakoak (honekin gauzatuko baitu interakziozko edo fikziozko dialogo hori) eta testuingurua, bien arteko informazio-pragmatikoan eragingo duen heinean. Ezingo ditugu, ezta ere, berbaldi batean parte hartzen duten egitura edo mailak alde batera utzi eta maila jakin batera soilik lerratu; hauen guztien arteko eragina nabarmena izango da xede bera erdiesteko.

### 9.3.3. Enuntziatu parentetikoa, esatariaren argudiatzean aurrera egiteko estrategia

Esatariak norentzakoa ondorio jakin batzuetara bideratu eta hau limurtzeko, batetik, gaia ongi menperatzen duela erakutsi behar du, ideiak, adibideak eta datuak argudio egokien zerbitzura antolatu eta argumentaziorako teknikak kontrolatuz; baina bestetik, norentzakoa mugiarazten duten sentimenduzko balioak ere ezagutu eta berbaldian bertan ezagutza hau aktibatzeko gaitasuna izan beharko du. Honela, testutik bertatik norentzakoaren atxikimendua eskuratzeko estrategia batzuk bideratuko ditu, norentzakoak begiko izan dezan, gertukoa delako, fidagarria delako, etab.

No se trata tan solo de presentar ordenadamente las ideas y ejemplos, sino de introducir elementos afectivos que contribuyan a seducir al lector tanto racional como emotivamente. Recordemos, como señalaba Aristóteles, que la persuasión procede de la adecuada combinación de ambos recursos, puesto que el individuo se guía por criterios no sólo racionales sino más bien afectivos. (Dafouz Milne 2000: V-67-68).

Garbi dago, bada, pertsuasio-saioak arrakasta izan dezan, egoki uztartu beharko dituela bai arrazoari dagokion alderdia eta baita afektibitateari eta emozioei dagokiena ere. Eginkizun horretarako, eta argumentaziorako oro har, hizkuntzak hainbat baliabide edo bitarteko baditu ere, guk enuntzitu parentetikoena soilik izango dugu azterkizun. Atal honetan frogatzen saiatuko gara enuntziatu parentetikoak argudiatzeko eta arrazoibidean aurrera egiteko baliabide egokiak izan daitezkeela.

Jarraian bada ikusiko dugu enuntziatu parentetikoak esatariaren arrazoibidea aurrera eramaten laguntzeko baliabide edo bitarteko direla.

#### 9.3.3.1. ENUNTZIATU PARENTETIKOAK, ARGUDIO-ONDORIO KONEXIOA BERMATZEKO ESTRATEGIA

(...) en un sentido débil todo texto es argumentativo, pues utiliza mecanismos de apoyo que buscan la aceptación por el receptor de un contenido cognitivo, esto es, la verdad de una proposición, la legitimidad de un pensamiento u opinión. (Núñez & Del Teso 1996:193).



Ohikoa da, bada, diskurtsoan (ia guztietan, guztietan ez bada) bi edo enuntziatu gehiago kateatzea ilokuziozko norabide jakin batekin. Kateatze-mota hauetako bat da, hain zuzen ere, argudiatzea.

Argudiatzearen muinean dago argudio(ar)en eta ondorio(ar)en arteko kateatzea ongi egituratuta eta mamituta egotea. Eta horretarako ezinbestekoa da ondorio hori hiztun komunitateak, oro har, onartzen dituen iritzietan (argudio-hobietan) oinarrituz arrazonatuta edo justifikatuta egotea.

Argudio(ar)en eta ondorioaren arteko harremana gauzatzeko eta harreman hori identifikatzeko, Ducrot-ek (1994: 11) Aristotelesen *topoi* edo *toposetara* jotzen du; hau da, argudio-hobietara. Topos, edo topikoak gizartean dauzkagun eta enuntziatuen artean loturak ezartzen dituzten nolabaiteko uste edo ezaupide usuak dira.

Un topos es una regla que se supone comúnmente admitida, y tiene carácter gradual. El topos no sirve para descubrir los términos de la relación argumentativa, sino para legitimar su puesta en correspondencia. (Fuentes 2002: 33).

Topos bat, hortaz, orotariko araua da, zentzuak onartutzat jotzen dena eta gradu-izaera duena. Bistan da solaslagunak topos jakin bati uko egin diezaiokeela, baina garrantzitsuena da topos direlakoak argudio-erlazioak arautzen oinarritzakoak direla. Garbi dago, izan ere, argumentazioa, zenbaitetan agerian dagoenaren eta isilean edo inplizituki dagoenaren artean gauzatzen den erlazioa dela eta erlazio horretan toposak ezinbesteko eginkizuna dute.

Beraz, tesiak edo ondorioak ongi justifikatuta egoteak esan nahi du ondorio jakin batera iritsarazteko emandako argudioak edo arrazoiak hiztun komunitateak, eta beraz, esatari-norentzakoek onartzen duten arau orokor horretan oinarrituta daudela. Arau orokor edo topos horrek, bada, argudio-ondorioen arteko harremana bermatuko du.

Enuntziatu parentetikoaren eginkizunetarik bat topos edo argudio-hobia aditzera ematea edo agerian uztea litzateke. Horrela, norentzakoarengana iritsarazi nahi izan duen ondorioa justifikatzeko erabilitako argudioak gizarteak (eta beraz, esatari-norentzakoak) onartutako ezaupideen gainean oinarriturik egongo lirateke.

Egin dugun baieztapen hau corpuseko adibide zehatzekin azalduko dugu. Horretarako, adibideak bere bakarrean hartu ordez, azterkizun ditugun kritiketarik bi hartuko ditugu:

9.3.3.1.A. Argumentazio-haria aztertzeko kasu praktikoa (I): enuntziatu parentetikoak, argudioaren eta ondorioaren arteko konexioaren edo *topos*aren adierazle

“The Robe” filmaren kritikako argumentazio-haria edo eskema aldatuko dugu, bere laburrean esan nahi dugunaren erakusgarri gerta dakiguke eta:

THE ROBE (“LA TÚNICA SAGRADA”). Film honen oinarritzat hartu duten irakurketa oso ezaguna omen da Ipar-Amerikan: ez genuen halere horren aditzerik. Ez da harritzeko. Badakizue badirela nonnahi, han eta hemen, askok irakurtzen dituen liburuak eta inor gutxi, jende ikasien aurrean behintzat, aipatzen dituenak. Hauetakoa bide dugu “The robe” ere.

Zorionekoak haurrak eta urtetan aurreratuak izan arren haurtzaroko garbitasunean irauten dutenak! Guk, urteak igaro ahala, barrenean hazi zaigun gizontxo kontentagaitzaren marmarra gero eta nabariago somatzen dugu. Atseginez ikusi nahi genuke film hau, haurtxo bihurturik, baina, geuren buruaz ahazturik orain bi mila urteko gizonen artean nahasteko zorian gaudenean, gizontxoaren garraxi latza entzuten dugu: “Ez, ez” Ez omen dute horrako txontxongilo horiek, ohi baino larriagoak izan arren, Erromar itxurarik —nere gizontxo Filologia Klasikoa ikasia duzue, izenez behintzat—, ez giza-itxurarik ere. Eta aldamenekoaren oihuak belarrian ditugula, nola amets egin, “Cinemascope” —mundua sortu zenez gero ikusi den gauzarik miragarriena— berriarekin ere? (MEIG I:129).

1. PARAGRAFOA: Filmak oinarritzat omen duen irakurketa aipatzetik hasiko da:

- “ez genuen halere horren [liburuaren]aditzerik. Ez da harritzeko. Badakizue badirela nonnahi, han eta hemen, askok irakurtzen dituen liburuak eta inor gutxi, **jende ikasien aurrean behintzat**, aipatzen dituenak.” (ZIN: 129).

“Behintzat”-ekin osatutako enuntziatu parentetikoari esker, esatariak bere baieztapenaren esparrua mugatu, murriztu eta zehaztu egingo du, kontrolpean duenari soilik erreferentzia eginaz. Erabilera hau kortesiarekin ere lotuko genuke, bere baieztapena gehiegizko orokortasunetik uxatzea norentzakoarengana hurbiltzeko modu bat ere izan baitaiteke.

2. PARAGRAFOA: Esataria ahots ezberdinen enuntziatzaile izango da (polifonia-gertakaria):

Bibliako pasarte baten ahotsak dakartza bere enuntziazioan tartekaturik, hala direla esan gabe (heterogeneitate-osagarria). Beraz, besteren ahotsen enuntziatzaile da, baina bertako informazioa bere argudio-prozesua garatzeko abiapuntu gertatuko zaio: “Zorionekoak haurrak eta urtetan aurreratuak izan arren haurtzaroko garbitasunean irauten dutenak!”.

Badirudi pelikula hau ikusteko ezinbesteko baldintza dela “haur bihurtzea<sup>256</sup>”, baina ez du lortu, edota filma ez zen “amets eginarazteko” modukoa. Filmaren kontrako argudioa inferi dezakegu:

- Kontrako argudioa:

Agertzen diren gizakiak erromatar itxurarik nahiz giza itxurarik gabeak **omen** dira. Kontrako argudio hau, ordea, estalki leun batez inguraturik agertuko zaigu, ez gordin-gordin; izan ere, esatariaren beraren iritzia ez balitz bezala aurkeztuko digu; hau da, barnean daraman gizontxo kontentagaitzaren iritzia balitz bezala.

Horretarako, esataria bikoiztu egingo da:

– Batetik, “E1 enuntziatzailea” izango da; hau da, filmaren kontrako iritzi horren enuntziatzaile soil, baina ez bertako edukiaren arduradun. Izan ere, “Urteak igaro ahala barnean hazi zaigun “gizontxo” kontentagaitzaren marmarra” da iritzi horren iturri eta arduradun. Horretaz jabetzeko, “Gizontxoaren garraxi latza” entzun besterik ez dugu.

– Bestetik, enuntziatu parentetikoari dagokion E2 enuntziatzailea izango dugu. Enuntziatzaile hau izango da, halaber, esatariarekin bat egingo duena. Esatari honek, enuntziatu parentetikoari esker, “barneko gizontxoak” ematen duen filmaren kontrako argudioa justifikatu egingo du, eta, beraz, esan dezakegu barneko gizontxoaren iritziekin ere bat datorrela, iritzi hori indartzen saiatuko delako:

- Atseginez ikusi nahiko genuke fim hau, haurtxo bihurturik, baina geure buruaz ahazturik orain bi mila urteko gizonen artean nahasteko zorian gaudenean, gizontxoaren garraxi latza

<sup>256</sup>Beste hainbeste egiten du “Betrayed” filma iruzkintzerakoan ere: “Ez bazerate haurtxo bihurtzen, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan”. Badirudi zenbait film ikusteko aurrebaldintza haur bihurtzea dela. Hori ontzat eta egokitzen ematen du Mitxelenak, baina ez du onartuko “haurtasunaren orde umekeria” eskaintzea; hau da, “zinemara sartzerakoan ate atzean uztea arrazoi-eskarmantuak”.

entzuten dugu: “Ez, ez” Ez omen dute horrako txotxongilo horiek, ohi baino larriagoak izan arren, erromar itxurarik —nere gizontxoia Filologia Klasikoa ikasia duzue, izenez behintzat— ez giza-itxurarik ere. (ZIN: 129).

Enuntziatu parentetikoa, bada, “bestek” dioena (bere buru besteretuak egindako kritika negatiboa) justifikatzeko balio dio: barruan daraman gizontxoaren adierazpenak izan dezake fundamenturik edo oinarriarik gai horretan ikasia baita, nahiz eta hori ere kortesiaz adierazi: “izenez behintzat”.

Gai jakin batean ikasia edo bertan espezializatua izateak (toposa) indartu egingo du berak norentzakoari bidali nahi dion ondorioa: akats larriegia du filmak. Eta ikasia dela begibistakoa da; Filologia Klasikoa ikasteak bermatzen du erromatarrei buruz zerbait baino gehiago jakitea. Jakituria eta eskarmentu horrek, bada, ez dio uzten ametsen munduan sartzen: akats larriegia du, nonbait.

Honenbestez, esatariak norentzakoari bidali nahi dion mezua edo ondorioa honako hau da: berak ez duela pelikulan sartzerik lortu, ezta haurtxo bihurtzen ahaleginduta ere. Gaiarekiko duen ezagutzak (Filologia Klasikoa ikasia izateak erromatarrei buruz asko edo zerbait behintzat jakiteko bermea eskaintzen dio) ez baitio uzten larriegiak diren akats horiek ahaztu eta ametsen munduan sartzen. Beraz, hortik ondoriozta dezakegu filmak ikustea ez duela merezi.

Laburbilduz, enuntziatu parentetikoak esatariak norentzakoari bidali nahi dion iritzi edo ondorio jakina justifikatu egingo du, justifikazio hori biek onartzen duten ezaupide usuan (topos-ean) oinarrituz. Horretarako ahots ugariaren teknikaz baliatu da esataria; hau da, filmaren kontrako argudioa adieraziko digu, baina besteren iritzia bailitzan: bere barneko gizontxoaren edo kontzientziaren enuntziatzaile bihurturik.

Kasu praktiko horrek erakusten digu enuntziatu parentetikoak zenbaitetan ondorioen eta hau justifikatzeko erabilitako argudioen arteko konexioa egiten lagun dezaketela.

Gerta daiteke, ordea, argudiotik ondorioarako urrats hori bermatzen duen toposa estarian egotea, eta norentzakoak ondorio horiek bere egingo baditu estarian dagoen ezagutza komun hori esplizitatu edo berariaz agerian jarri behar izatea; agian, inplikatzeko duen edo aditzera eman nahi duen ezagutza komun horren jabe ez delako norentzakoa. Horri, berariaz agerian jarritako lotura edo argudio-hobi horri, Fuentesi jarraituz (2002), argudio-oinarria deituko diogu.

Partimos de la idea general de que en toda argumentación funciona ese garante que J. C. Anscombe y O. Ducrot (1994) denominan topos, que, en definitiva, es el que autoriza el paso del Argumento a la Conclusión, y se constituye en soporte del discurso argumentativo. El topos, dado su carácter de conocimiento común, suele estar implícito en todo acto argumentativo. Y cuando aparece explicitado en el discurso puede deberse a que el hablante infiera que su interlocutor no esté en posesión de ese topos concreto, y, por lo tanto, la base argumentativa, distinta para uno y otro, pueda invalidar la relación A-C [argumento-conclusión]. (Fuentes 2002: 46).

Enuntziatu parentetikoei esker zenbaitetan argudio-oinarri hori agerian uzten da. Argumentaziozko teknika honetaz jabetzeko “On the Waterfront” filmaren iruzkin kritikoa aldatu eta aztertuko<sup>257</sup> dugu.

#### 9.3.3.1.B. Argumentazio-haria aztertzeko kasu praktikoa (II): enuntziatu parentetikoak, argudioaren eta ondorioaren arteko lotura gauzatzeko argudio-oinarri

ON THE WATERFRONT (“LA LEY DEL SILENCIO”). Elia Kazan´ek gehienetan gizarte auziak hartzen ditu gaitzat, eta bai hemen ere. Honako honen gaia ez da berria: lekua oraingoan New York-eko portua izatea. Jauntxo batek eta inguruko lau alferrek mendean daukate portukoak: inork lan egingo badu, inor biziko baldin bada, haien baimenarekin izango da eta haien esanera egon beharko du. Betiko kontua eta, dirudenez, gaurko kontua batez ere.

Ohi bezalako zerbait badu horratik film honek. Oraingo burruka, egiazko burruka, gizon baten arima barruan gertatzen da; horren ondoan gutxi balio dute kanpoko iskanbila eta ukabilkadek. Eta horretarako gutxi bezalako antzezleri bat aurkitu du zuzendariak: Marlon Brando. Honek ez du portuko gazte ezjakinarena egiten: bera da gazte hori, hitz, imintzio, ibilera, pentsabide. Harako “Viva Zapata”-n —Elia Kazan´ena hura ere— ezpain gainean zeraman bigote zarpail haren beharrik ez du orain, jakina, eta orduko kartoi-itxurazko gelditasun hura ere ez zaio nabari.

Ingelesek *high-brows* deitzen dituzten kontentagaitz haietako direnek (edo garenek?) esango dute beharbada ez dela hau zinema hutsa, literatura dela. Baina kopet harro ez direnek (ez garenek?) ez dute damu izango ikustera joana. Onak gailen, gaiztoak lotsagarri ikusirik azkenean, alai irtengo dira zinetik, eta sartu baino zintzoago direlakoan gainera, gogoan onen alde baitzeukaten —badakizue alderdi horretakoak izaten garela beti, zineman behintzat— eta eserlekutik mugitu gabe onei eginahalean lagundu baitiete. Eta zenbait

<sup>257</sup> Azterketa honetan, helburua bestelakoa delako, aipatu bakarrik egingo ditut hainbat gertakari: polifonia, diafonia, kontraargudioaren teknika, etab., baina lanean aurrera egin ahala zehaztuz eta sakonduz joango gara.

pezetaren truke —askotxo badira ere— bihotzeko pake hori ateratzea gutxi al da? (MEIG I: 123-124).

Kritika hori esatariaren argudiatze-haria aztertze-ko baliatuko dugu eta beste behin ikusiko dugu arrazoibidean aurrera egiteko enuntziatu parentetikoak estrategia egokiak direla. Oraingo adibide honetan, argudio-ondorio kateatze hori bermatzeko esatariak eta norentzakoak batean izan beharko luketen ezagutza hori estarian egon daitekeelako ustea du esatariak. Beraz, norentzakoak jabetuko bada, enuntziatu parentetikoaz baliatuko da esataria argudioaren oinarri hori norentzakoari agerian uzteko.

Esatariaren arrazoibidea azter dezagun bere osotasunean, paragrafoz paragrafo:

#### 1. PARAGRAFOA:

– Irakurlea bereganatzeko eta filmak ikusmina sorrarazteko, Mitxelena lehendabizi zuzendariaren izena dakar: Elia Kazan. Eta honek jorratzen dituen gaiak aipatzen ditu: gizarte auziak. Zuzendari hau nolana hikoia ez denez, izena bera aipatze hutsa izan daiteke norentzakoaren atxikimendua lortzeko baliagarri. Beraz, esatariarentzat aldeko argumentu bat dela esaten ausartuko ginateke.

– Gaia bera ez da berria (argudio negatiboa izan zitekeen), baina (inferi dezakegu) interesa sortzen du egungo gizartearekin (“gaurko kontua”) lotzeko baliagarri delako.

#### 2. PARAGRAFOA:

– Filmaren aldeko beste argudio bat aipatuz hasiko da: filmaren berrikuntza (“ohi ez bezalako zerbait badu”): egiazko borroka adierazten du, “gizon baten arima barruan gertatzen da”.

– Antzezlaria, Marlon Brando: “gutxi bezalako antzezlaria” da eta “Viva Zapata”-n zuen kartoi-itxurazko gelditasuna ez zaio nabari. Beraz, aktorea aipatze hutsa nahikoa ez izaki, beste film bati egiten dio erreferentzia. Hau guztia aldeko argudiok indartzeko darabil.

- Eta horretarako gutxi bezalako antzezleri bat aurkitu du zuzendariak: Marlon Brando. (...) Harako “Viva Zapata”-n —**Elia Kazan’ena hura ere**— ezpain gainean zeraman bigote zarpail haren beharrik ez du orain, jakina, eta orduko kartoi-itxurakozko gelditasun hura ere ez zaio nabari.” (ZIN: 124).

Enuntziatu parentetikoak batetik, argudio-harian aurrera egiteko balio dio, norabide bereko beste argudio bat baita; azken batean, aldeko argudioa litzateke filmaren zuzendaria zein den azpimarratzea, “estimatu handitan” duen zuzendaria. Bestetik, norentzakoari filma testuinguruan kokatzeko baliagarri gertuko zaion informazioa eskaintzeko ere balio dio.

### 3. PARAGRAFOA.

– Orain artean filmaren aldeko arrazoiak adierazi ditu: argudio guztiak zeuden irakurleari “filmak ikustea merezi du” ondorioa bideratuta, nahiz eta ondorio hori estarian egon (eta, ondorioz, inferitu egin behar).

– Hirugarren paragrafo honetan, bestek (eta, agian, esatariak berak ere) izan ditzaketen balizko “kontra-argudioak” adieraziko ditu, filmaren aldeko jarrera nabarmenago gelditzeko:

- Ingelesek *high-brows* deitzen dituzten kontentagaitz haietako direnek (**edo garenek?**) *esango dute beharbada*<sup>258</sup> ez dela hau zinema hutsa, literatura dela. (ZIN: 124).

- Baina kopet harro ez direnek (**ez garenek?**) ez dute damu izango ikustera joana. (ZIN: 124).

Besteren iritzien (edo filmaren balizko kontrako argudioen) oihartzun izan daitezkeen enuntziatu horiei, esatariak bere-berea duen iritzia, ñabardura, zehaztapena txertatuko die enuntziatu parentetikoez baliaturik. Horrela, esataria bikoiztu egingo da; besteren iritzien enuntziatzaile izatetik (E1 oinarrizko enuntziatua) bere iritzien enuntziatzaile izatera pasatuko da (polifonia gertakaria).

Egitura parentetikoari esker, informazio hori indartuta geldituko da, eta bere barnean egon daitezkeen zalantzak islatu edo berresteko balioko dio. Edo kortesiaz, gizatasunez, jokatzeko modu bat ere izan daiteke, “kontentagaitz” nahiz “harro” izenondoak negatiboak

---

<sup>258</sup> Letrakera lodia eta etzana gureak dira.

baitira eta inor (norentzakoaren irudia) ez mintzeko modu bat izan daiteke bere burua ere multzo berean sartzea.

Atenúa un sentimiento negativo (...) porque va contra la cortesía expresar estados íntimos, es una manera de desnudarse, de exponer su imagen al criterio de los otros. (Fuentes & Alcaide Lara 2002: 405).

Edota irakurleak berak duen edo izan dezakeen iritziaren oihartzun da? Hala balitz, “diafonia” gertakariaren aurrez aurre geundeke: norentzakoak duen iritziaren enuntziatzaile bihurtuko baita.

Se apela a palabras posiblemente dichas por el receptor o a estados de conciencia del mismo. (Fuentes & Alcaide 2002: 242).

Argudiatzeari dagokionez, kontra-argudioaren teknikaz baliatzen da: kontrako balizko argudio horiek adieraziz, norentzakoari bidali nahi dion ondorioa indartuta ateratzeko aukera emango baitio: “Baina” joan zaitezte ikustera, ez duzue horren damurik izango eta”.

ARGUDIOAK ondorio hori justifikatzeko:

- Onak gailen, gaiztoak lotsagarri ikusirik azkenean, alai irtengo dira zinetik, eta sartu baino zintzoago direlakoan gainera, gogoia onen alde baitzeukaten —**badakizue alderdi horretakoak izaten garela beti, zineman behintzat**— eta eserleketik mugitu gabe onei eginahalean lagundu baitiete. (ZIN: 124).

Enuntziatu parentetikoak (eta hau da honekin guztiarekin demonstratu nahi genuena) ondorioa justifikatzeko argudio-oinarria edo topos-a agerian jarriko du: mundu guztiak daki (“badakizue”) gaizkileen aurka eta onen alde egotea zintzotasunaren adierazle izan ohi dela.

Toposa agerian jarri beharrean sentitu da esataria. Esatariak inferitu du “gogoia onen alde edukitzea” ez dela norentzakoarentzat argudio aski indartsua zinetik alai irteteko ondorioarekin bat egiteko. Argudio-ondorio konexio horrek, huts egingo ez badu, zerbaitekin bermatu beharra sentitu du. Norentzakoa informazio-pragmatiko horren jabe izango ez balitz ere, enuntziatu parentetikoaz baliatuz arau orokor hori berariaz azalduko du.

Areago, argudioaren oinarri den arau orokorra gehiengoak ezagutuko balu bezala aurkezten du; hau da, guztiek jakintzat joko balute bezala eta, horrela jokatuz, bere



arrazoibidean egon litezkeen zalantza edo eztabaidak uxatzea ere lortuko du. Beraz, enuntziatu parentetikoa argudio-oinarriaren zerbitzura agertuko da:

Estos topoi son los que explican que sean fácilmente deducibles las conclusiones a las que se nos guían con los argumentos que se nos explicitan. (Fuentes & Alcaide Lara 2002:181).

– Esatari-norentzakoen arteko elkarrizketa edo dialogizitatea imitatuz, galdera erretoriko batekin amaituko du iruzkina

Los procedimientos de carácter dialógico. Se puede utilizar también como focalizadores. El hablante utiliza una construcción interrogativa dirigida aparentemente a un interlocutor, que él mismo responde. De esa manera, resalta ese segmento, al utilizar esta apelación, y también crea un dinamismo en el texto al desdoblarse el hablante. Crea dos enunciadores aparentes que, en el fondo, corresponde al mismo locutor. (Fuentes & Alcaide Lara 2002: 241).

Es un procedimiento utilizado tanto en textos escritos formales como en los textos orales(...) En los textos formales, con cierta planificación, corresponde a un mecanismo retórico, estableciendo realmente una pregunta seguida de una respuesta hecha por el mismo hablante. (Fuentes & Alcaide Lara 2002: 242).

- Eta zenbait pezetaren truke —askotxo badira ere— bihotzeko pake hori ateratzea gutxi al da? (ZIN: 124)

Bere kexua agerian jarri eta nabarmentzeko edo fokalizatzeko balio dio enuntziatu parentetikoak. Badirudi, beste kritikoek ez bezala, berak sarrera ordaindu egin behar izaten duela (ziurrenik, euskaraz idazten zuelako), eta kexu hori agerian jartzeko erabiltzen du enuntziatu parentetikoa.

*Askotxo* hitzak argudio-karga handia du. “-txo” txikigarria<sup>259</sup> da, baina oraingoan, “zenbait pezeta”ren erreferentzia txikitu ordez, erreferentzia hori indartzeko, edo azpimarratzeko gehiago balio du.

---

<sup>259</sup>Txikigarriak enuntziazioko ekintza batean hainbat osagai eragiten dio:

- Erreferentziari: tamainan  
- Esatariari: afektua, familiartekotasuna, gertutasuna  
- Norentzakoari: kortesiazko leuntzaile edo arintzaile izan daiteke eta, beraz, norentzako konbentzitzeko baliagarri.

*Askotxo* “kantitatezko txikigarria” kontzienteki erabilia dago, zentzu ironikoan; berez, asko xamar edo adieraziko luke: “pezeta asko, gehiegi” iradoki nahi du.

Enuntziatu parentetikoek, azterlanean behin eta berriz ikusiko dugunez, iradokizunei ateak zabalduko dizkiete, eta diskurtsoaren interpretazio-hariak edo lerroak ugarituko dituzte.

Mitxelenaren testu horien azterketak balio digu — eta goiko hari-muturrari helduko diogu honenbestez—, esatariaren mezuak norentzakoarentzat sinesgarria izan dadin, baieztapenak ongi justifikatuta egon behar dutelako ideia indartzeko. Eta enuntziatu parentetikoek, goian ikusi dugunez, iritziaren eta argudioen arteko lotura hori gauzatzeko edo bermatzeko eginkizuna izan dezakete, estarian egonik inferitu beharreko toposa edo argudio-oinarria agerian jarritz.

### 9.3.3.2. ENUNTZIATU PARENTETIKOAK NORABIDE BEREKO EDO KONTRAKO ARGUDIOAK EMATEKO BIDE

Ondorio jakin bateranzko argudioak norabide berekoak (koorientatuak) ala kontrako norabidekoak (antiorientatuak) izan daitezke. Norabide berekoak direla esaten da ondorio beraren lagungarri direnean; aitzitik, norabide desberdinekoak badira, edo ondorio desberdinei laguntzen badiete, kontrako norabidekoak direla esango dugu.

#### A. Enuntziatu parentetikoak norabide bereko argudioen indargarri: justifikazio-azalpen

Ondorengo adibidean ikusiko dugu enuntziatu parentetikoa norabide bereko argudioen justifikazio-azalpen gisa:

- Gauza batean zuzen dago, inolaz ere. Zuzentzan ere, lan-banaketa sortu dugu beste gaietan bezala, edo besteetan baino lehen beharbada. Gaizki ustekoa batek atzi, besteak gorde giltzapean, besteak kondena, besteak urka... eta besteak, guk alegia, egunkarietan irakur. Badugu , esaten digu Cayattek, bai gerok ere, zer ikusirik auzi horretan. Ez geroi —**gogorragoak ikusi izan dira**— gerta dakigukeelako bakarrik. Ez; ez delako aski gainera gizon bati, urkatzaileari, erru guztia egozte eta hura gizartetik baztertzea. (ZIN: 138-139).

Esatariak Cayatteren iritzi-ondorioa arrazoitzeko, norabide bereko bi argudio metatzen ditu, biak ere “badugu denok, bai gerok ere zer ikusirik auzi horretan” baieztapena justifikatuko dutenak:

- “Geroi” gerta dakigukeelako.
- “Ez delako aski gizon bati, urkatzaileari erru guztia egozte eta hura gizartetik baztertzea.

Argudio-indarrari dagokionez, ordea, ez dute biek indar bera; badirudi bigarrenak indar handiagoa duela, lehendabiziko argudioa ez baitu askitzat jotzen. Eta hori hain da horrela enuntziatu parentetiko behar du indar gutxiagoakoa den lehen argudio hori justifikatzeko. Hau da, lehenengo argudioak indarra izan dezan (eta ondorioa justifikatzeko balio dezan), enuntziatu parentetiko darabil.

Beraz, ondorioaren lagungarri norabide bereko bi argudio paratu ditu eta aldi berean lehendabizikoa ere argudiatu egin du, enuntziatu parentetikoari esker. Horrela jokatzuz, esatariak baieztapenari indar handia ematea lortuko du, ez baita baieztapen soila, justifikatua edo egiaztatua baizik. IRITZIA+ARGUDIOA (ENUNTZIATU PARENTETIKOAK indartua)+ indar handiagoko ARGUDIOA egitura izango genuke.

- Ez dago gustora lantegian, bereak eta bost maiz aski —**eta bada zergatik**—esaten dizkiotelako (LIB I: 138).

“Eta bada zergatik” enuntziatu parentetiko gustura lantegian ez egotearen arrazoia bera (bereak eta bost esan izana) justifikatzera dator. Beraz, norabide bereko argudioen artean geundeke.

- Asko gara sail hau landu behar genukeela batez ere uste dugunok. Gaurkoa delako, oraingo gizakien bihotz-adimenak ukitzeko bide erosoagorik ez dagoelako —**horretara jotzen dugu euskaldunok ere erdaraz ari garenean**— eta euskara arlo horretan gutxi saiatua delako. (LIB I: 49).

Adibide honetan ere norabide bereko hiru argudio paratzen ditu hurrenez hurren, baina bigarren argudioaren indargarri, justifikazio-azalpena besterik ez den enuntziatu parentetikoa eransten dio.

Norabide bereko argudioek argudio-saila osatzen dute eta norabide bereko justifikazio-azalpena ematen duten enuntziatu parentetikoek ere lagun dezakete argudio-sail hori osatzen.

Beti ez dira, ordea, enuntziatu parentetikoak norabide berean agertuko, kontrako norabidean ere egon daitezke:

#### B) Enuntziatu parentetikoa, kontrako norabidean doan argudioa emateko bide

- Arrotz idurituko zaio zenbaiti Olabideren hizkera, beste zenbaiti arrotz agertuko zaion bezalaxe Urte, Duvoisin, Uriarte, Larregi eta Lardizabalena: nolanahi ere, **eta beren artean dituzten berezitasun larriak gorabehera**, bizkiak dirudite azken hoek guztiok Olabideren aldamenean. (LIB I: 112).

“Azken hoek guztiok bizkiak dirudite” iritziaren aldeko argudioa ez litzateke izango enuntziatu parentetikoan agertzen dena; aitzitik, baieztapen horri jarritako eragozpena, edo kontrako alderdia litzateke. Kontrako norabidean doan argudioa paratuko du, eta hala bere arrazoibidean indartuagoa aterako da, kontrako argudio eta alderdiak ere kontuan izan eta hausnartu dituelako inpresioa egingo baitigu. Hau, azken batean, kontra-argudioaren teknikaz baliatzea izango litzateke.

- Gregorio de Muxika ez da ia izena besterik —**ospe oneko izena, halarik ere**— neretzat , eta are gutxiago noski ni baino gazteagoentzat. (LIB II: 85).

“Norbait ia izena besterik ez dela esateak” nolabait “negatiboa” den jarraipen bat aurresuposatzen du; hau da, argumentazioa negatiboa den bide batetik eramatea. Halarik ere, enuntziatu parentetikoari esker, esatariak argumentazioari norabidea aldaraziko dio, justu negatiboa zen ibilbide edo arrazonamenduari mugak jarri eta alderdi positiboa azpimarratuz.

Enuntziatu parentetikoek, goiko adibideek erakusten digutenez, arrazoibidean aurrera egiten laguntzen dute, batzuetan ondorioen eta argudioen arteko konexioa bermatzeko argudio-oinarria edo topos-a agerian jarritz; bestetan, baieztapen edo ondorioen justifikazio-azalpenak emanez edota arrazoibidearen kontrako norabidean doazen argudioak adieraziz.

Bai ondorio jakin baten lagungarri diren argudio-sailak, bai kontrako norabidean doazenak, esatariaren hasierako intentzio-xedea erdiesteko baliagarri gertatuko dira, nahiz eta argudio guztiek ez duten xedea lortzeko indar bera. Horrek pentsarazten digu esatariaren komunikatzeko helburu-intentzioen baitan argudio-sailek nolabaiteko barneko antolamendua dutela: beren indarraren arabera argudioak indartsuenetik ahulenera edo ahulenetik indartsuenera antolatuta daudela: argudio-sail bateko argudio-multzo antolatuek argudio-maila osatzen dute.

Argudioen barne-antolamenduaren adierazle, “kontra-argudioaren” teknika aztertuko dugu, enuntziatu parentetikoa oinarrizko enuntziatuan gurutzatuz erdiesten duena.

### 9.3.3.3. ENUNTZIATU PARENTETIKOAK ETA KONTRA-ARGUDIOAREN TEKNIKA

Enuntziatu parentetikoa izan daiteke norabide bereko argudio-iritzien indargarri (justifikatzaile) eta, bidenabar, kontrako norabidean doan argudioan indartsuago abiatzeko abiapuntu. Izan ere, oinarrizko enuntziatuan baieztatutakoari enuntziatu parentetikoaren bidez justifikazio-azalpena eranstea maiz erabiltzen duen teknika da jarraian argudiatzearen norabidea erabat aldatuko duen lokailuarekin eta argudioarekin kontrako norabidean doan argudioan indartsuago abiatzeko. Teknika hau ezaugarritzeko “kontra-argudioaren teknika” deizioa erabiliko dugu.

Argumentazioaren abiapuntu gisa, esatariak E1 onarrizko enuntziatuko iritzia E2 parentetikoarekin justifikatuta edo oinarrituta azalduko du, segidan, BAINA aurkaritzako lokailuarekin, kontrako norabidean doan indar handiagoko argudioa erantsiz. Honela laburbilduko dugu: E1 (iritzia+ E2(argudioa))+ BAINA+ E1 (indar handiagoko iritzia).

- Orain bilduak agertzen diren bertsoetan ez dago beharbada<sup>260</sup> poesia gehiegirik —**neurria bera ere ez zuen, dirudienez, txit zuzen erabiltzen beti Imazek**—, *baina* bai garai luze bateko kondaira, eta ez kondaira hotza eta lehorra, bizia eta umoa baizik, gertakarien kontaketa iritzien beroa eransten dion herri periodismua. (LIB II: 110).

Hasierako baieztapenak eta baieztapen horren justifikazioak liburuaren iritzi negatibo batera garamatzate, baina aurkaritzako lokailua buruan paraturik, argudio-hariak kontrako

<sup>260</sup>Modalizatzaile honek ere baieztapena leundu egiten du. Nolabait esan, geroko *baina* horren aitzin heldulekua edo da.

norabidea hartuko du, eta azken hauxe da, gainera, esatariak norentzakoari bidali nahi dion tesia: “bertso hauetan poesiarik ez dago, baina bai esatariarentzat garrantzitsuago den kondaira bizi eta beroa. Beraz, liburuak merezi du erostea”.

- Gizonaren bihotzeko ezkutuen berri ere bazekien —**ez zuen lanbide txarra horretarako**—, *baina* Pereda eta Rochel'en gisa, sortzen zituen gizakiek ez zuten gaurko nobeletan ageri diren zenbaitek adina azpil, bihurgune eta zoko ilun. (LIB I: 43).

Txomin Agirreren *Kresala* iruzkintzen ari da eta Txomin Agirreri apaiz izateak (ez zuen lanbide txarra horretarako) bihotzeko ezkutuen berri jakitea erraztuko ziola adieraziko digu. Beraz, gizonaren bihotzeko ezkutuen berri jakitea justifikatuko du enuntziatu parentetikoak, baieztapena bera testuinguru jakin batean kokatuz. Jarraian, ordea, “baina” aurkaritzako lokailuarekin abiapuntutzat izan duen argudio-justifikatuaren norabidea irauli egingo du, funtsean indartu nahi duen tesia aditzera emateko: “gizonaren bihotzeko ezkutuen berri bazekien, baina bere nobeletako pertsonaietan ez zuen islatzen jakin”.

- Horrelaxe, nahikoa izan zuen Victor Hugok hamabostalditxo bat Pasaian euskaraz ederki mintzatzeko (...). Egia ere da horratik inguruko baserritarrek, berberak harri eta belarri egink aitortzen digunez, ez ziotela haren euskal saioei halako harrera ona egiten —**parre ere egiten omen zuten lotsagabe haiek**—, *baina* ez zen horregatik asko larritu. (LIB I: 52).

Victor Hugori harrera ona egiten ez ziotelako seinale enuntziatu parentetikoak “parre ere egiten ziotela” adieraziko digu; agian, harrera ona ez egitea baino okerragoa dena. Baina —eta hauxe da esatariak indartu nahi duena— hori guztia berdin zitzaion, edo ez zen behintzat horregatik asko larritu.

Badirudi, argudio-egitura horiekin jokatzuz, esatariak norentzakoari indukzio prozesu bat jarraiarazten diola, datu zehatzetatik abiatuz (argudioz ongi justifikatutako eta testuinguru jakinean kokatutako enuntziatuak indartzen duela) iritzi orokorrera iritsi bitartean (indartu nahi duen tesia). Badirudi norentzakoari laguntzen diola arrazoibidean eta ondorioa inposatu ordez, hasierako datuetatik naturalki eratorriko balitz bezala aurkezten duela.

Gainera, kontraposizioaren edo kontra-argudioaren teknikari esker, balizko eragozpen edo objekzioak saihestuz, bere argudioak indar handiagoa izatea lortuko du.

Kontra-argudioaren teknika honekin amaitzeko, badarabil esatariak informazioa aurkezteko beste modu bat ere: argudioetan oinarritu eta modu positibo batean aurkeztu ordez, ezezkotik abiatzea hain zuzen; hau da, aurkako balizko jarrerak saihestu balitu bezala agertzea. Honela, balizko objektzioak edo eragozpenak saihestu eta emaitza hausnarketa sakon baten ondorio bailitzan aurkeztuko du; itxuraz, aukera guztiak kontuan izan eta aukeratua egokiena balitz bezala.

- Ez da, labur, Sinclair Lewis'en "Main Street"—**eztena ere**<sup>261</sup> **falta zaio**—, *baina* badu guretzat gisa horretako zerbait. (ZIN: 164).

Esatariak hasieratik bertatik egiten duen ezeztapena enuntziatu parentetikoaren bidez justifikatu, oinarritu edo arrazoitu egingo du. Jarraian arrazoibidea irauli eta norentzakoari bidali nahi dion bere iritzia, ondorioa edo tesia adierazteko.

- Ez dut esango *Egunkari* honen azken zatia baino ederragorik ez dela ondu euskaraz —**belles-lettres** direlakoetatik **hagitz urruti gabiltza hemen**—, ezta ere gai garaiagorik ez dela ukitu. *Baina*, baldin nere iritzia estalkirik gabe agertu behar badut, ez dut uste inoiz gure hizkuntzan entzun denik horrelako hitz larririk, horren zinezko aitorrrik, horrenbesteko karraxi sarkorrik. (LIB I: 90).

#### 9.3.3.4. ENUNTZIATU PARENTETIKOEN ARGUDIOEN INDAR-MAILAN DUTEN ERAGINA

Atal honetan, esatariak bere argudioak (eta ondorioak)<sup>262</sup> zein indar-maila edo gradurekin aurkezten dituen aztertuko dugu eta, gainera, argudio nahiz ondorioei indarra emateko eginkizun horretan enuntziatu parentetikoek badutela zeresanik ikusiko dugu.

Enuntziatuak argudio-mailetan antolatzea, berbaldiaren edo diskurtsoaren logikaren oinarritzko zutabea da. Bestalde, ikusia dago ez dagoela berbaldiaren antolamendua eta logikarena parekatzerik; honek adierazten duena da berbaldiak edo diskurtsoak "bere logika" duela, enuntziatuen edukiak bere gisa antolatzen dituela, alegia.

<sup>261</sup>*Ere* lokailuak ere erakusten digu enuntziatu parentetikoak dakarren argudio-justifikazioa aurrekoaren norabide berekoa dela.

<sup>262</sup>Indargarria den elementua zeinahi osagaitan ager daiteke, bai argudioari dagokion atalean eta baita ondorioari dagokionean ere, esatariari bere xedea erdiesteko eragingarriagoa dela iruditzen zaion atalean.

Esatariak maiz erabiltzen ditu enuntziatu parentetikoak argudioaren edo ondorioaren bat indartu eta norentzakoaren arreta informazio horretara bideratzeko.

- Eta, **hau da beltzena eta gogorrena**, gertakari berbera bi alditara entzuten baldin badugu— gaurko neska mutilek irakurtzen dituzten nobeletan edo aintzinako poema epikoetan bezala edertua eta goratua, edo arinago eta lehenago zenbait idazlek ohi duten bezain beztua eta itxuratxartua—, alderik politena ez dela beti, ezta maizenik ere, egiazkoena izaten. (ZIN: 130)

- Gainera, **eta hau da okerre**, jaben-en jatorria ziapere-rena berbera da, alde hau gorabehera (LIB I: 115).

- Are gehiago: badirudi polizi gaia ez dela hemen aitzakia polit bat besterik. Hori dela eta, **eta hauxe da axola zaiguna**, kontakizun xotil eta paketsua—ez luze, ez labur, bai bien erdiko— hariltzen digu Izetak Baztango hizkera txukunean. (LIB II: 85).

- Geronen txilborrari begira egon ohi garenok izan dugu aldi batez, liburu honi eskerrak, kanpoalde zabaletan gere burua hegoairatzeko egokiera eta horretarako, **hori da gehien balio duena**, ez dugu beste hizkuntzatarara jo beharrik izan. (LIB II: 103).

- Eta guztiok, **hau da harritzekoa**, gramatikaz baliatzen dira beti, gutxi edo gehiago. (LIB II: 63)

Antolamendu honetan mailakatzea inplizituki ager daiteke, edota berariaz hizkuntza-osagaien batekin indarturik.

#### 9.3.3.4.1. Modalizazio mailako osagaiekin indarturik

Modalizazioa edo modalitatea, esatariak duen bere diskurtsoarekiko (edo hobeto, proposiziozko edukiarekiko) jarrera aditzera emateko erabiliko dugu (Fuentes 1996: 13). 'Modalizazio' edo 'modalitate' kontzeptua edo adigai funtsean aldatu ez bada ere, modalizazioaren sailkapenak eta sailkatzeko irizpideak autoreen arabera aldatu izan dira.

Gure helburua ez da sailkapen zehatza egitea; esatariak argudioei indarra emateko modalizazio-mailako osagaiek duten eginkizuna aztertzea baizik. Izan ere, argudio-indarraren maila berariaz adierazteko, esatariak maiz modalizazio-mailako elementuetara jotzen du. Oso ohikoa da enuntziatu parentetikoetan *noski*, *jakina*, *mundu guztiak daki* bezalako esamoldeak



ikustea, edota enuntziatu parentetikoa bere osotasunean modalizazio-balioa adierazteko erabiltzea. Holakoetan esatariak adierazi duen proposiziozko edukia giza komunitatearentzat ezaguna balitz bezala aurkezten du, guztien (edo behintzat esatari-norentzako) diskurtso-memorian balego bezala.

Guztien ezaupide izate hori, bere bakarrean, argudio-oinarri garrantzitsua da. Horrek berarekin dakar argudio-ondorioen kateatzea egiteko inolako justifikazioen beharrik ez izatea, “mundu guztiak jakitea”-k bermatzen baitu konexio hori. Azken batean, argudio-oinarria arautzen duten axioma edo hastapenak izango lirateke. Baliabide honekin, argudioen indargarri den baliabide honekin, esatariaren iritzi-ondorioak norentzakoak zalantzan jarri gabe helarazteko bidea edo modua erdiesten du.

Esatariak duen oinarritzko enuntziatuarekiko jarreraren arabera multzokatuko ditugu modalizazio-eginkizuna duten enuntziatu parentetiko nabarmenenak.

A. Informazioa berretsi, konfirmatu nahiz guztientzat logikoa, begi-bistakoa edo jakina dela adierazteko eginkizuna dutenak

1- JAKIN aditzetik eratorritako modalizatzailea (*jakina*), nahiz eginkizun horretara bideratutako enuntziatu parentetikoak: “gauza jakina da, jakin behar da, jakina da, jakina dago”...

- Nik (izenorde higuigarri hau ezinbestean darabilt) lehenago ezagutu nuen Olabide (**Itun berriko Olabide, jakina**) besteak baino. (LIB I: 112).

- Aspaldi ez duela, kontuak hartu dizkirate —**eta, jakina, ez diot horretarako eskubiderik ukatzen hartu dizkidanari**— euskal idazle bakoitzari liburu batean opa nizkion edo ez nizkion lerroak direla eta. (LIB II: 83).

- Espainiako zineman, **gauza jakina da**, badira bi gazte zerbait egin nahi luketeenak, dirua irabazteaz gainera. (ZIN: 191).

- Egilea, **jakin behar da**, Esquilacheren alde dago: hobeto esan, Esquilache hartu du aitzakia maite dituen gauzak goratzeko. (ZIN: 192)..

- Gregorio Arrue ez da, **jakina dago**, liburu honen egilea. (LIB II: 43).

- Hitzek, **jakina da**, badute beste zerbaite, adimenak ikusten ez badu ere bihotzak uki dezakeena. (LIB I: 117).

## 2- JAKIN aditza jokatuta

- Onak gailen, gaiztoak lotsagarri ikusirik azkenean, alai irtengo dira zinetik, eta sartu baino zintzoago direlakoan gainera, gogoan onen alde baitzeukaten —**badakizue alderdi horretakoak izaten garela beti, zineman behintzat**— eta eserlekutik mugitu gabe onei eginahalean lagundu baitiete. (ZIN: 123-124).
- Gutxi gorabehera, **badakizue**, Oraune´ko Errolbak itzuli zigun “Florentzian idazlari koxkorra”-ren kidea. (ZIN: 158).
- XX. atalean ematen da, **badakizue**, Eibarren egindako mitin baten berri. (LIB I: 80).

Baliabide honekin, gainera, norentzakoarekin interakzio-harremana imitatzen du. Izan ere, informazioa norentzakoak baleki bezala azalduz, norentzakoarekin ere argudiatzearen erantzule egiten du; esatariak norentzakoaren babes eta onespen osoa balu bezala jokatzen du, eta ondorioz, zalantza guztiak uxatzen.

## 3 – JAKIN aditza konjugatuta adberbio funtzioan

- Mundu honetako gizonak, **dakigunez**, ez dira gure neurrikoak. (ZIN: 124).
- Ez dira bertsolariak, **ongi dakigunez**, hitzetik hortzera ahapaldi zorrotzak asmatzen dituztenak bakarrik. (LIB I: 48).
- Jainkoak, **denok dakigunez**, dohai bereziz argitzen eta zorrotzen ditu artista garaiek gogoak. (LIB I: 151-152).
- Iritzi zuzeneko da, **guztiok dakigunez**, eta neurri doia darabil nori berea ematen. (LIB I: 126).
- Liburu eder honen euskal itzulpena, **gehienok dakigunez**, Aita Villasante euskaltzainarena da eta apaingarriak, berriz, Aita Jose Luis Iriondok eginak (LIB II: 101).

- Goikoetxea jaunak, **askok dakigunez**, begi zorrotzez begiratu ohi dio darabilgun —hobeto esan, darabilten— euskal neurkerari. (LIB II: 107).

Adibide horiek guztiak erakusten digute Mitxelenak bere argudio-harian aurrera egiteko maiz jotzen duela gehiengoaren iritzietara, edota gehiengoak onartutzat balu bezala aurkezten duela bere arrazoibidea. Hau da, gehiengoaren “babes” horrekin jokatzeko du norentzakoaren babesaren ere lortzeko. Azken batean, norentzakoaren sinesgarritasuna lortzeko estrategia bat besterik ez da.

Aipatu ditugun adibide guzti-guztiak, jakina, ez ditugu parentetikotzat<sup>263</sup> joko, nahiz eta hasiera batean enuntziatu parentetiko izan (“gauza jakina da”, “jakin behar da”, “jakina dago”, “jakina da”, “badakizue”, horren lekuko), modalizatzaile funtzioa duten testu antolatzaileetatik oso hurbil daude (Larringan 1995: 276).

#### 4. NOSKI modalizatzailearekin sortutako enuntziatu parentetikoak

- Bion aurrean zalantzan gelditzen gara —**eta Fagoaga ere bai, noski**—, nor aukera ez dakigulako: biok har ditzakegu, jakina, edo biok arbuia, baina badirudi, nola eta zergatik ez dakigularik, batari opa dioguna besteari ukatzen diogula. (LIB II: 146).

- Léo Joannon'ek lehenbizikoan irakatsi nahi lukeena —**eta beti irakasteko asmotan dabilzanetakoa da, noski**— hauxe da, gutxi gorabehera: ez duela gogortasunak, ezta alderatzeko ere, destenoreko urrikiak eta bigunkeriak adinbat kalte egiten. (ZIN: 179).

- Har dezagun eritzi aditzaren jokaera. Ohiturarik zaharrena —**eta jatorrena, noski**— datiboarekin erabiltzen da. (LIB I: 122).

- Horrezaz gainera, **eta horiek baino lehenago noski**, saina edo lurra ateratzeko egiten ziren suak eta labeak adierazten baitzituen. (LIB II: 57).

Gisa honetako adibideak nahi adina luza daitezke corpusean zehar, baina guztiak argudiozko helburu orotarikoaren zerbitzura daudelakoan gaude: esatariak gehiengoaren iritzi-usteeekin bat egin nahi du norentzako konbentzitu eta limurtzeko. Horretarako, berez

---

<sup>263</sup>Ez dira, bada, guk aldeztu aurretik zehaztu dugun enuntziatu parentetikoaren mugetan errendituko, baina argigarri iruditu zaigu adibide horien testura aldatzea.

zalantzarria edo behintzat eztabaidagarria izan daitekeen iritzi edo argudioren bat gehiengoarentzat jakina, begi-bistakoa edo ezaguna balitz bezala aurkeztean, zalantzak eta eztabaidak uxatzea lortzen du. Zenbat eta jende gehiagoren babesak izan, orduan eta indar handiagoa izango du bere tesiak eta orduan eta justifikatu behar gutxiago argudio(ar)en eta ondorio(ar)en arteko konexioa. “Guztiak horren jakitun direnez gero, aipatu ere egin beharrik ez legoke, baina hori estarian egon ordez, berariaz aipatu egingo du. Beraz, argumentazioan aurrera egiteko estrategia erretoriko-pragmatikotzat joko dugu.

B) Iritzi-emailea edo baloraziozkoa den modalizatzailearekin argudio-indarra apalduz

### 1. IRITZI / USTE hitzekin sortutakoak

Hitzek berek aditzera ematen dutenez, modalitate adierazkorraren barnean iritzi-emailea edo baloraziozkoa den modalitateari dagozkio.

#### 1.1 IRITZIZ adberbioarekin sortutakoak

- Ez da hori, **ene iritzi**, bokal luzea adierazteko bidea, doinua edo azentua bokal horrek zeramalakoa baizik. (LIB I: 41)
- Larramendiren eragina eta kutsua, **ene iritzi**, uste den baino urrutiago heldu da hitz gaietan. (LIB II: 67).
- Hurrengoan, berriz, **ene iritzi**, *igun* “martinete” ez dago arras zuzen, ez Zaitegiren baizik Azkueren erruz. (LIB II: 77).
- Zenbait aldetatik bakarrik begiratuko diot hemen, neri eta aldizkari honi —**neri iritzi apalez**— dagokigun aldeetatik. (LIB I: 135).

#### 1.2. USTEZ/ USTE/ USTEAN adberbioekin sortutakoak

- Zinera etorri gara gaur ere, **ustez behintzat**, baina nola ez dakigula, teatroan aurkitzen gara. (ZIN: 124).

- Ez dut halare ukatu nahi badituela, **ene ustez behintzat**, zenbait gogorkeria eta gogorkeriak zelai zabal honetan nabarmenago dira Shakespeareren malkarretan baino. (LIB I: 42)
- Euskaraz poesi hizkera trebea daukagu, zenbait olerkariri eskerrak: prosa hizkera, berriz, ez dago, **nik uste**, behar lukeen mailan. (LIB I: 85).
- Goragarri da, **nik uste**, alde horretatik euskal irakurle nagiai ez baitzaio biderik eman behar are gehiago nagitzeko eta axolagabetzeko. (LIB II: 77).

Horrelako adibideak ere corpusean nahi adina topa daitezke. Guztiek, ordea, helburu bera dute: baieztapen zorrotzak edo behintzat norentzakoari zorrotzegiak gerta dakizkiokeenak egin orde, esatariak bere baieztapen eta iritziak leunduko ditu eta norentzakoarengana helarazi nahi duen iritzia edo ondorioa, bere usteen araberakoa dela adierazi nahi dio. Horrela, esatariak emandako argudio-ondorioei indarra kenduz, esatariak bere irudia babestea ere lortuko du.

#### 9.3.3.4.2. Enuntziatio mailako osagaiak

Aurreko osagaiek esatariak informatutako edukiari buruz bere jarrera edo iritzia emanaz informazio-atal batzuei (argudio nahiz ondorio batzuei) indar handiagoa edo txikiagoa emateko balio bazuten, oraingo adibideak bete-betean enuntziatioaren edo esatearen ekintzari dagozkio: “egia esateari”, zuzenago esateko.

##### 1. EGIA+aditza+BA... (baldintzako egituretan)

- Neri, behintzat, **egia aitortu behar badut**, gaitzago zait sarritan oraingo idazki franko barrentzea hamaboskarren mendeko kanta zaharrak baino. (LIB I: 136).
- Maizago irakurriko banitu, hobe, baina ez ditut maiz irakurtzen, **egia zor badizuet**, honen antzeko gaia duten liburuak. (LIB II: 99).
- Esan daiteke, **gehiegizko gezurrik esan gabe**, hor dagoela euskal literaturari, eta literaturari erabat, utzi dion testamentua eta ordenua. (LIB II: 107).

“Egia”, nahiz “egia esan” gramatikalizatuta edo ihartuta daude, baldintzazko egitura hauek, berriz, oraindik diskurtso mailakotzat joko genituzke, bere eduki lexikoarekin eta sintaxi mailako askatasunarekin.

## 2. EGIA izenarekin sortutakoak

- Horrelakorik, **egia**, ez zaigu guri bakarrik gertatzen, gaztelerazko zenbait klasiko ere, gehientsuenak ez badira, gehiago aipatzen baitira irakurri baino. (LIB I: 39).
- Olabide ez da, **egia**, hitz berrizale amorratua. (LIB I: 113).
- Ez zitzaion eman hizkuntza, **egia**, nekearen nekez bereganatu zuen, baina puntu honetan ez dio horrek, zoritxarrez, batere axola. (LIB I: 121)
- Bada, ordea, Barojazaleek maite duten zerbait, gogoetak, hitzak eta esaerak baino barrenago datzan zerbait (**lurrin arima bezain iheskorra, egia**), eta zerbait hori, dena den ez da beti ageri itzulpenean. (LIB I: 129).

## 3. EGIA ESAN lokuzioarekin sortutakoak

- Hemen, **egia esan**, herri koxkor batekoak bakarrik ikusten ditugu, Elantxobekoak, baina besteek ez dute alde handirik izango. (ZIN: 131-132).
- Eta guri zineetan egunoro mahaieratzen diguten jakia ez da, **egia esan**, hegaztikia. (ZIN: 137).
- Gizona gizonari dagokion legez kokatzen ikusteak harritzen gaitu, **egia esan**, bestek ez bezala. (ZIN: 139).
- Ez dugu, **egia esan**, Ameriketako berri askorik, geure txokotik aldendu garen aldi bakanetan. (ZIN: 163).

Horrelako adibideak nahi adina luza daitezke corpusean zehar. Guztiek esatearen ekintzari, egia esateari egiten diote erreferentzia, nolabait ere sinesgarritasuna lortzeko

baliagarri gertatuko zaio. Baina bai *egia* eta baita *egia esan* ere forma ihartutzat, gramatikalizatutzat joko ditugu, enuntziatu parentetikotzat baino gehiago.

#### 4. EGIA DA enuntziatu parentetikoak

- Behin edo behin, **egia da**, izpiritu santuaren prozesioaz ordu t´erdiz mintzatu beharrea aurkitu izan naiz (irakastea debekatuta badaukagu ere, ikastera behartu egiten baikaituzte), baina geroztik huna jakintza hau baztertuxea eduki dut. (LIB I: 96).

- Orain, **egia da**, *mintzo zakida* ikusten dut Testamentu zaharrean (Cant. 2, 14): antolatzailearena? Beste leku batean, behar bezala, *erruki zakizkigu* (bizk. *zakiguz*) ageri baita (Tob. 8, 10), *urrikal zakizkigu* Duvoisinenean. (LIB I: 119).

- Mujikak, **egia da**, gogorazten digu alde aurretik Juan Ramonen hura: “No creo, en ningún caso, en un arte para la mayoría” (LIB II: 141)

Enuntziatioari egiten dio erreferentzia, baina badirudi esatariak bere ikuspuntua berresteko darabilela; norentzakoak izandako balizko erreakzio edo erantzunen baten aurrean esatariak berretsi, baieztatu egiten du esandakoa. Beraz, enuntziatio mailako osagai honek badu modalizatzeko eginkizuna ere eta balio du argudio edo ondorioren bati indar handiagoa emateko. Beste horrenbeste gertatzen da *benetan* aditzondoarekin ere.

#### 5. BENETAN aditzondoa

- Miresgarria da, **benetan**, Jainkoaganako deadar larri hau Iparraldetik etortzea, diotenez, munduko gauzetan hain murgildua dagoen Iparralde hotz horretatik. (ZIN: 198).

- Txalotzekoa da, **benetan**, Arantzazuko Teologi-ikasleek, beste ordenetako ikasle eta apaizgaien laguntzarekin, hartu duten eta betetzen ari diren asmoa. (LIB I: 96).

- Liburu atsegina, **benetan**, donostiarrentzat eta donostiar ez direnentzat. (LIB II :135).

- Lastima da, **benetan**, horrako zuzentzaile horrek liburua zuzendu duen bezain erraz mundua ezin zuzendu ahal izatea. (LIB I: 80).

Bai modalizazio-mailako eta bai enuntziazio-mailako osagai horiek argumentazioaren indargarri bezala erabiltzen dira. Hondarrik hondarrean argudio-indarra adierazten duten osagai hauek, indarraz gain, eskala (mailakatzea) nahiz argudio-nahikotasuna adieraz dezakete.

1. Batzuetan argudioari gradu edo indar handiagoa emango dio: *jakina*, eta *noskirekin* ikusi dugu, esaterako, hauek hiztun komunitate osoaren babesa dakartela, argumentazioaren indargarri.

2. *Egiarekin* osatutako esamoldeek, berriz, egiazaletasuna, zinezkotasuna edo zintzotasuna, txertatuko dio argumentazioari, nahiz eta inplizituki jakin zernahi komunikatu behar denean, beti egia esateko intenzioarekin komunikatu behar dela (Griceren hastapena).

3. “Nere ustez, nere uste apalez, nere iritziz” bezalako esamoldeekin esatariak bere irudia zaintzeko eta norentzakoaren babesa lortzeko, argudioari indarra gutxituko dio, edo behintzat leundu eta arinduko du. Halaz ere, argudioek bere arrazoibidean aurrera egiteko nahikoa indar eta pisu izaten jarraituko dute: argudio-indar baxuagoa izango dute, baina “nahikoa” argumentaziorako.

4. Hirugarren multzo horri jarraituko diote *behintzat* antolatzailearekin sortutako enuntziatu parentetikoek ere. Horiekin, esatariak baieztapen orotarikoen hesia murriztu eta mugatuko du, balizko kontrako argudioei aurre eginaz. Halarik ere, edo horrexegatik beragatik, argumentazioan indar nahikoa duen argudioa izango da (argudio-nahikotasuna duena). Eta, bidenabar, esatariak bere irudia zaindu eta babestuko du. Alde horretatik biak batean bilduko ditugu. Esaterako, ohikoak dira, “esatariaren iritzia (ene ustez) + *behintzat* lokailuarekin lotuta doazen enuntziatu parentetikoaren adibideak:

- Ez dut halere ukatu nahi badituela, **ene ustez behintzat**, zenbait gogorkeria, eta gogorkeriak zelai zabal honetan nabarmenago dira Shakespeareren malkarretan baino. (LIB 142).

#### 9.3.3.4.3. BEHINTZAT /BEDEREN / BEHINIK BEHIN antolatzaileekin sortutako enuntziatu parentetikoak



Antolatzaile hauekin osatutako enuntziatu parentetikoak E1 enuntziatuan egiten den baieztapenari edota argudioari nolabaiteko mugak ezartzen dizkio; mintzagaiaren azterresparrua murriztuz hesituko du, eta horretan antolatzaileek izango dute egiteko nagusia.

Antolatzaile honek [behintzat] berarekin darama, nahitaez, beste entitate bati buruz erreferentzia egitea. Esaten dena aurretiaz esan denari nolabaiteko mugapena edo murriztapena jartzeko erabiltzen da. (Larringan 1995: 135).

Orokorregia izan daitekeen baieztapenari berariaz mugak ezartzen zaizkio. Hala, esatariak zuhurtziaz jokatzeko du eta gehiegizko generalizazio horretatik babestu eta zainduko du bere burua. Gauzak hurbilagotik, kontrolpean duen horretatik soilik aurkeztuko ditu.

- Espainian —**zineman behintzat**— “betiko triangeluak” lau alde izaten ditu: senarra, emaztea, senarra ez dena eta apaiza. (ZIN: 133).

Gainerako arloei buruz baieztapena egiten (iritzia ematen) ez da ausartzen, baina bai zinemari buruz, hori baita kontrolpean duena. Gainerako arloetan edo esparruetan gertatzen ote den zalantzan gelditzen da, hipotesi mailan.

Hori hain da horrela, askotan “NI” izenordainari edota “norbere iritzia edo ustea”ri loturik agertzen da; hau da, benetan kontrolpean duen horri loturik:

- Moldatuko ote ginateke Robinson adinean, horrelakorik gerta balekigu? Gu —**ni behintzat**— ez, eta lanak izango lituzke Sánchez Mazas jaunak berak ere. (ZIN: 153).

- Zaitegigan askok—**ni behintzat horietakoa nauzue**—idazle landua, ikasia, ikusten dute euskaltzale sutsuaz gainera. (LIB II: 108).

- Ez dut halare ukatu nahi badituela, **ene ustez behintzat**, zenbait gogorkeria eta gogorkeriak zelai zabal honetan nabarmenago dira Shakespeareren malkarretan baino. (LIB I: 42)

Alde horretatik, orokorretik zehatzera jauzia egiteko baliabide ere bada, eta “ni”, “orain”, “hemen” ardatzekin ere lotura ertsia du.

- Euzko idazleak, nolabait esateko, hiru sailetan bereizten dira —**azken aldi honetakoak behintzat**— erabili duten hizkuntzaren arabera: baditugu euskal idazleak eta, horiezaz gainera, bi erdaratan egin duten Euskalerriko semeak. (LIB II: 143).

“Orain” ardatzari lotuta egongo litzateke goiko adibidea. Edota “hemen” ardatzari ondorengoan:

- Baldin beste herririk bada —**Gipuzkoan behinik behin**—, ohitura garbiagorik zituenik, jaso beza eskua bertako semeak. (LIB I: 92)

Bestetik, *Edo* juntagailuarekin batera, E1 enuntziatua birformulatzeko ere erabiliko du, baina beti ere bigarren aukera hau, mugatuagoa, murriztuagoa, zehatzagoa dena bere intentzioa adierazteko doituago edo egokiago etsiz:

- Hizkuntza bat ikasteko —**edo ikasten hasteko, behinik behin**— bide eroso eskaintzen duten libururik gehienak motz gelditu ohi dira beren egitekoan, hizkuntzak nekerik eta gogo bizirik gabe ezin ikas daitezkeelako noski. (LIB I :109).

E2 enuntziatu parentetikoak dakarren edukia ez da, ordea, E1 oinarrizko enuntziatuak dakarrenaren errepikatze edo tautologia hutsa. E1 enuntziatu-atal baten enuntziazio mailako zehaztapena edo azalpena egingo du, E1eko baieztapen orokorra murriztuz. Bada, beraz, gaiaren progresio edo garapen bat.

Alde horretatik enuntziatu parentetiko mota hau autoerregulaziorako mekanismo, estrategia bihurtuko da; hondarrik hondarrean, E1 enuntziatuan egindako baieztapen orokorra, hipotesian soilik geratuko da, eta aukera hipotetiko horietatik guztietatik bat ekarriko du, kontrolpean duena edo komunikazio-ekintza jakinean gauzatzen dena soilik. Horrela, besteren kritiketatik eta kontrako argudioetatik ere babestuko da. Argumentazioaren barnean erreserbari (Larringan 1995: 138), edo nahiago bada, kontra-argudioen teknikari (Fuentes 2002: 35-36) zuzenduko zaio.

Ildo beretik ulertzen dugu EGLU III-n *behintzat* emendiozko lokailuari buruz esaten dena ere:

(...) gehitze hori ez da hain modu “neuroan” gertatzen eta beti ere aurreko perpausetik biltzen dugun erreferentzia hori (“X”) hori nahikoa markatua da, kontzesio kutsua duelarik batzuetan, baldintzazkoa bestetan, e.a. (EGLU III: 35).

- Gure egunotakoa batez ere, maliziz josia baitago hainbeste eta hainbeste irakurgai —**axaletik bederen**— miratu ondoren. (LIB I: 57).

“Nahiz eta axaletik izan”, “axaletik bada ere” bezala formula dezakegu. Bada hor, beraz, kontzesio- edo baldintza-kutsu bat.

Antolatzaile horiekin osatutako enuntziatu parentetikoetan ere antzeman daiteke beheraxeago aztertuko dugun polifonia-gertakaria. *Behintzatekin* osatutako enuntziatu parentetikoetan, esatariaren bikoiztea gertatzen da: E1 enuntziatzaileak modu neutroago batean adieraziko du; hau da, orokortasun batean. *Behintzat* daraman enuntziatu parentetikoko enuntziatzaileak, ordea, esatariarekin egingo du bat eta bere jarrera edo ikuspegia adierazteko erabiliko du. Esatari-enuntziatzaile honek, bada, orokortasun horri mugak jarriko dizkio, besteren batek izan lezakeen kontrako argudioei aurre egin eta bere argumentazioa indartsuago eginaz.

Lo Casciok (1991) argumentazioko osagaiak zehazterakoan kalifikatzaileen<sup>264</sup> atalean bildu zituen modalizazio mailako osagaiak; argudio(ar)en nahiz ondorio(ar)en indar-maila edo gradua ñabartu, matizatu egiten baitute. Guk, modalizazio-mailakoak ez ezik, osagai modal-enuntziatiboak ere tartekatu ditugu (*egia esan*, bezalakoak). Horiekin batera, *behintzat* murriztailearekin sortutakoak nahiz jarraian aztertuko ditugun *eta* buruan duten hainbat eta hainbat enuntziatu parentetiko ere sail berean sartu ditugu, guztiek ere argudio-iritzien indar mailan edo graduan eragiten baitute.

#### 9.3.3.4.4. *Eta* artxikonektagailuz sortutako enuntziatu parentetikoak

*Eta* “artxikonektagailu”tzat jo dugu analisi sintaktikoaren atalean bertan eta esatariak makroegiturako informazioa txertatzeko darabilen bitarteko nagusia dela adierazi. *Eta* buruan duten enuntziatu parentetikoaren eginkizuna, beraz, ez da argudio-iritzien indar mailan edo graduan eragitea soilik. *Eta* buruan duen enuntziatu parentetikoak, corpuseko adibideak lekuko, hainbat funtzio diskurtsibo betetzen ditu: modalizatzaile funtzioa, enuntziatio-

<sup>264</sup>Kalifikatzailea segmenturen bati argudio-ezaugarriren bat txertatzen dion edozein elementu litzateke. (Fuentes 2002: 60).

mailako zehaztapen nahiz birformulazioak egiteko funtzioa, gauzak kortesiaz adierazteko eginkizuna, norentzakoarekin elkarrizketa burutzeko egitekoa eta horiekin guztiekin batera, bada esataria bikoizteko bitarteko ere. Eginkizun horiek guztiek, alde edo moldez, esatariak bere argumentazioa bideratu eta norentzako limurtzeko estrategia orokor horren arabera zeresanik dutenik ukatu gabe, horien komunikazio-eginkizunak ñabardura eta alde gehiago ditu. Une honetan, ordea, hariari helduz, *eta* buruan duten enuntziatu parentetikoek esatariaren argudiatze prozesuan zuzenean eragiten dutela frogatzen saiatuko gara.

- Lehen baino hobeto ezagutzen ditut orain haur liburuak, etxeakoak direla eta, eta ipui gutxi ikusi ditut, edozein aldetatik begiratuta ere, haiek bezalakoak. Hain dira garbi—**eta halaz ere ez gexak**—, bizi eta egokiak, bai ipuiak eta bai edergarriak. (LIB I: 97).

Adibide honek erakusten digunez, *eta* buruan duen enuntziatu parentetikoak kontrako norabidean doan argudioa bideratzeko darabil. Badirudi “garbi” izate horrek, liburua “gatz eta piperrik” gabekoa dela inferitzera garamatzala, baina enuntziatu parentetikoak adiera edo interpretazio hori saihestuko du. Azken batean, liburuaren alde positiboa indartuago ateratzen lagunduko du.

Askotan, bada, argudio nagusiari kontzesio kutsuko erreserba eransteke erabiltzen da:

- Arrotz idurituko zaio zenbaiti Olabideren hizkera, beste zenbaiti arroz agertuko zaion bezalaxe Urte, Duvoisin, Uriarte, Larregi eta Lardizabalena: nolana ere, **eta beren artean dituzten berezitasun larriak gorabehera**, bizkiak dirudite azken hoek guztiok Olabideren aldamenen. (LIB I: 112).
- Halaz eta guztiz ere, **eta galduak galdu**, Ramuntxo-ren leku aldatze hori euskaldunen onerako izan denik ezin uka. (LIB II: 81).

Ildo horretatik jarraituz, beste batzuetan E1 oinarrizko enuntziatuan baieztatutakoaren justifikazio-azalpenak gehitzeko ere erabili ohi da, esatariaren ardurapean dauden argudio-azalpenak emateko:

- Gauden gaudenean, ordea, **eta inor gutxi saiatu denez gero giro berezien begitarte aldakorra itzultzen eta irakurleari erakusten**, ezin daiteke izan erru arina baizik, akats ezereza, Gazteluri egotzi diodana. (LIB II: 106).

Horrezaz gain, *eta* buruan duten enuntziatu parentetikoek, argudioei, nahiz iritzi eta ondorioei indarra emateko, berresteko, nahiz enfatizatzeko eginkizuna izango dute.

- Halaz guztiz ere, irakurle-gai bakoitza errugabe agertzen baldin bada ere, banan-banan hartuz gero, ez da horrenbestez esan euskal irakurleak erabat errudun —**eta errudun larri, gainera**— ez garenik (LIB II: 138).

Enuntziatu parentetikoarekin esatariak bere tesia indartuko du, bai errepikapenari esker eta baita *eta* lokailuari esker ere. Maiz aski, enfasia edo indarra emateko, modalizatzaileez ere baliatzen da:

- Arlo berriak landu nahi baditugu —**eta horretan ari da, noski, Mujika, inor ari bada**— gogorki eta baldarki mintzatu beharko dugu, leuntasunera eta txairotasunera iritxi baino lehen. (LIB II: 142).

- Aspaldi ez duela, kontuak hartu dizkirate —**eta, jakina, ez diot horretarako eskubiderik ukatzen hartu dizkidanari**— euskal idazle bakoitzari liburu batean opa nizkion edo ez nizkion lerroak direla eta. (LIB II: 83).

*Noski*, nahiz *jakina* modalizatzaileez baliatuz, esatariak guztientzat begi-bistan balego bezala aurkezten du bere arrazonamendua; hots, guztiek onartu eta babestuko balute bezala.

Beraz, azterkizun dugun atal honetako gainerako bitartekoak bezala, argudioaren indar edo graduan eragiteko baliagarri da *eta* buruan daraman enuntziatu parentetikoa. Hala, argudio nahiz ondorio batzuei indar edo enfasi handiagoa edo txikiagoa emanez, esatariak bere argudio-haria edo arrazoibidea bideratzeko aukera izango du.

- Barcelonan egina, erdarazkoa berbera da, irudi eta guzti. Baina, **eta hau da berri pozgarria guretzat**, erderazkoarekin batera, euskarazkoa ere salgai dago gure artean. (LIB I: 133).

- Horien guztien gain, **eta hau da hemen dihoakigun auzia**, ez dakit ia ezer zezenei eta zezenketari buruz. (LIB I: 92).

- Are gehiago: badirudi polizi gaia ez dela hemen aitzakia polit bat besterik. Hori dela eta, **eta hauxe da axola zaiguna**, kontakizun xotil eta paketsua—ez luze, ez labur, bai bien erdiko—hariltzen digu Izeta Baztango hizkera txukunean. (LIB II: 85).

Goiko adibideek erakusten digute *etak* abiatutako enuntziatu parentetikoekin esatariak informazio-atal jakin bati (dela argudioa, dela ondorioa) garrantzia, enfasia emango diola; nolabait ere esatariari informazioa eta, ondorioz, argumentazioa berak nahi duen bidetik eramaten lagunduko dio; hots, argudio-harian berak nahi bezala aurrera egiten.

Bestalde, *eta* konektagailuaz baliaturik, esatariak modalizazio mailako edukia tartekatzeko aukera izango du; hau da, E1 enuntziatuko proposiziozko edukiari buruz duen jarrera edo iritzia txertatzeko bitarteko aproposa gertatuko zaio.

- Gisa honetako predikua, **eta luxe xamarra aukeran**, da goian aipatu dugun Stanley Kramer'en film hau. (ZIN: 193).

- Esan dudan naturaltasunik eza, aurrenik, **eta pekatu larria da**, laboratoriko ontzien erdian jaiotzen dena, *Faust-eko Homunculus* haren gisa, nekez helduko da gizatasun osora. (LIB I: 120).

- Gizonak bere eskuko duen borondatetik datorren gaitza, ordea, **eta hori da batipat gaitza guretzako**, ez da ia ageri. Gizonagandikako gaitzik ez bada, beraz, ez da egiazko dramarik ere. (LIB I: 101).

- Erramun Artola hau berau da lekuko, **eta lekuko bikain**, liburutxoaren hitzaurreak gogoratzen digun bezala, 1959 garrengo abuztuaren gauerdian batean Tolosako "Zeru-txikian" entzun zitekeen kantaren inguruan. (LIB II: 52).

- Badakigu guztiok, **eta ederki azaltzen du Aita K. Iturriak bere hitzaurrean**, leku berezia irabazi duela aspaldidanik I. Eizmendik euskal idazle eta bertsolarien artan. (LIB I: 144).

- Beharrak eta indarrak batera joarazten ez gaituzteino —**eta txorakeria litzateke orduan euskaldun guztiak giputzen esanera egongo direla sinestea**—, atzera begiratu behar dugu, euskalkiak are gehiago elkarrengandik bazter ez daitezela. (LIB I: 120).

- Har dezagun eritzi aditzaren jokaera. Ohiturarik zaharrena —**eta jatorrena, noski**— datiboarekin erabiltzea da. (LIB I: 122)

Goian, adibiderik adierazgarrienak edo nabarmenenak bildu ditugu, baina ezin uka horrelakoak corpusean askozaz ere gehiago daudela. Garbi dagoena da era honetako enuntziatu parentetikoek esker esatariak bere iritzia tartekatuz argudiatzean aurrera egiteko

aukera aproposa duela, edo, bestela esan, makroegiturako informazioa txertatzeko bide bihurtzen duela.

Eta makroegiturako informazioa ez dute modalizazio mailako iritzi edo jarrerak soilik osatzen. Garbi dago diskurtsoari buruz egindako enuntziazio mailako birformulazioak ere oso kontuan izan behar ditugula *eta* konektatuz sortutako enuntziatu parentetikoak argudio-indarra markatzeko baliagarri direla frogatzeko:

a) Esatearen ekintzari erantzuten diotenak

- Esango nuke, **eta asko esatea da**, hau dela higuigarriena amerikanoek Bibliarekin, gizon indartsu eta emakume erdi-bilutxiek, sortzen dituzten saltsa koipetsu horietan guztietan. (ZIN: 189).
- Bi hitz esango ditut, **eta askozaz gehiago behar lirateke**, argitaldarien lana goratzeko. (LIB I: 65).
- Santu bakoitzaren kondairari buruz ez naiteke ezer esaten ari, **eta ez dago ezer esan beharrik**, iturri honetara jo baitu A. Manzidorrek ur bila. (LIB I: 123).
- Guk zalantzarik gabe esan dezakeguna, **eta hemen ipiniko dut azken puntua**, beste hauxe da: ederki baino ederkiago dakitela "Auspoa"-koek zertan ari diren eta nora doazen. (LIB II: 11).
- Villasantek dio, **eta neronek ere hori esan nuen**, Etxeberri Ziburukoarenak direla...( LIB II: 66).

Adibide horiek guztiak birformulazioaren eta modalizazioaren artean daude, enuntziazioaren ekintzan eragiteaz gain, esatariaren iritzia edo jarrera tartekatzeko aukera eskaintzen baitute.

b) Enuntziatua zehaztera bideratutako (bir)formulazioak

- Eta euskaldun berria izanik, **eta bere aldiko euskaldun berria**, ezin gauzak ikus Larramendiren begiz. (LIB I: 116).

- Hizkera landuan, **eta landugabetasun landuagoan**, ari garen horrenbeste euskal idazleren artean, Baroja gisako naturaltasun zailean mintzatzen zaigu Bitaña, herri inguruan ikasi zuen euskara lauean. (LIB II: 152).

- Haiengan maiz topa daitekeelako noski bestetan urri dabilen naturaltasuna, baita garbitasuna ez den —**eta Euskalerrian garbitasunaren etsai dirudien**—jatortasuna ere. (LIB I: 106).

Adibide horietan guztietan *eta* bidez sortutako enuntziatu parentetikoak badu enuntziatua zehazteko eginkizuna; baina zehaztu, beste ezaugarriren bat erantsiz egiten du; ez da, bada, tautologia hutsa. Beraz, E1 enuntziatuaren *eta* *eta* bidezko enuntziatu parentetikoaren artean bada diferentziarik (pluraltasunik, numeralik, baloraziozkorik...).

Beste hainbat adibidetan zehaztaper hori nabarmenenak diren adibideak erantsiz egiten du. Eginkizun horretarako ETA artxikonektagailua *batez ere* edo *batik bat* antolatzaileekin batera erabili ohi du.

c) ETA2 artxikonektagailua BATEZ ERE eta BATIK BAT antolatzaile nabarmentzaileekin uztartuta

E1 oinarrizko enuntziatuan sail orokor bat adierazten du esatariak *eta* sail edo klase horretatik E2 enuntziatuan nabarmenenak diren haiek aipatzeko erabiltzen ditu testu antolatzaile horiek. Gerta daiteke beren bakarrean agertzea edota *eta2* antolatzailearekin uztarturik. *Eta* azken honetan *eta2*ren balio enfatizatzaile *eta* nabarmentzaile hori areagotu besterik ez du egiten:

- Euskaldunen, **eta batez ere euskaldun gurasoen**, aspaldiko egarria berdintzeko agertu dira noski bi liburutxo polit hauek. (LIB I: 97)

- Ez baita besterik eleberri hau: interesduna, ederki moldatua, esku trebez josia, arina *eta* edozeinek —**eta gazte jendeak batez ere**— gogoz irakur dezakeena. (LIB I: 83).

- *Eta* egiazko lirikaren urrearen aldamenean gainerako guztia —**eta batipat jakituri ugariaren urre dena**— ez da tupiki ozena baizik, gehienaz ere. (LIB II: 84).



Adibide horietan guztietan garbi ikusten da *etak*, *batez ere* edo *batik bat* antolatzaileekin batera, sail, paradigma edo klase orokor batetik esatariari berari argudio-harian aurrera egiteko komeni zaizkion haiek aipatzen dituela. E2 enuntziatuan aipatzen dituen osagaiak, izan ere, kualifikatuak izanik, esatariaren iragazitik paseak dira eta, ondorioz, irakurketaren norabidea markatzen dute. Aipatzen duen segmentua, gainera, askotan paradigmaren muturrekoa da.

Kontuan izan behako ditugu, bada, “gradu-eskala” edo “eskala pragmatikoak”:

- Prosazale agertzen zait neri Villasante, **eta are irakas prosaren zale**, olerkarien kaltean beharbada inoiz edo behin. (LIB II: 66)

- Gaitz litzateke, **eta are ezinezko**, lehen liburu honen aberastasunaren berri ematea. (LIB II: 98).

- Euskaraz zerbait dakienak, **eta are zerbait ikasi nahi duenak**, laguntzaile bizkorra dauka orain liburu argi, trinko eta ongi banatu horretan. (LIB II: 104).

Garbi dago, bada, eta adibideak dira horren lekuko, elementuren bat nabarmentzean argudio-norabide bati jarraituz bereizten dituela esatariak eta beraz, modalizazioarekin edo iritzi mailako balorazioekin uztarturik egongo direla.

Honenbestez, goiko adibideetan ikusi dugu E1 oinarriko enuntziatuari informazioa modu neutroan gehitu baino gehiago argudio-norabidean eragiten dutela *eta2*rekin nabarmentzen, azpimarratzen, edo hanpatzen dituen osagaiak. Beraz, argumentaziorako baliabide egokiak gertatzen dira.

### 9.3.3.5. ENUNTZIATU PARENTETIKOAK, ARGUDIO-ITURRIAK ADIERAZTEKO BIDE

Norentzakoa konbentzitzeko eginkizunean paper garrantzitsua betetzen dute argudio-iturriek. Zenbaitetan, enuntziatuen erantzukizuna besteren gain uzteko jo ohi du esatariak iturrietara, eta beste zenbaitetan, berriz, bere argumentazioak (argudioek, nahiz argudio-oinarriek) indar eta babes handiagoa izan dezaten. Izan ere, prestigiodunen edo entzute handikoen aipuez baliatzean, argudio-iritziak egiazkoagoak, egokiagoak edo onargarriagoak balira bezala agertzen dira norentzakoaren begietarako. (Lo Cascio 1998: 128).

## A) Enuntziatuaren erantzukizuna besteri egozteko egitekoa duten iturriak

- “Harrigarria da —**dio, gutxi gorabehera, maiz aipatzen dudana Donostiako kritiko erne eta trebe batek**— zein zuzen dabilen film hau gertatutakoen ondoan, zein zehazkiro biztu duen Douglas Sirk’ ek aldi joana (ZIN: 142).

- Azkenean —**besteren hitzak hartuko ditugu ahoan**—, ikusia zegoenez Ben Trane zintzoak hiltzen du Joseph Erin bihurria. (ZIN: 143).

## B) Enuntziatuaren balioa indartu eta egiaztatzea helburu dutenak

- Bestetan ikusi ez dudana Olabidegan dakust: Mari ez ote zeritzak onen ama...? “Amak behar luke, nik uste” —**dio Zaitegi Jaunak Euzko- Gogoa, 1958, 603 or.**—: “ama irart-okerra bide da” (LIB I: 122).

- “Berak eraman du bertsoaritza”— **dio Aita Iturriak**— “periodiku eta radioetara” (LIB I: 144).

Mitxelenak, liburu eta filmen kritikaz ari delarik, askotan jotzen du obren egileetara, nahiz obra hauen kritikoetara eta, ondorioz, esan dezakegu aipu hauek gaian jakitun direnen aipuak direla. Eta aipuak, hondarrean, esatariak bere diskurtsoan tartekatzen dituen ahotsak dira, esatariarenarengandik bereizten diren ahotsak (edo ikuspegiak). Hitzak hizpidea emanik, jarraian enuntziatu parentetikoak, besteren ahotsak (ikuspegiak) diskurtsoan sartzeko estrategia egokiak ere badirela aztertuko dugu.

#### 9.3.3.6. ENUNTZIATU PARENTETIKOAK, BESTEREN AHOTSAK (IKUSPEGIAK) DISKURTSOAN SARTZEKO ESTRATEGIA: POLIFONIA- GERTAKARIA

Maiz ez du, izan ere, aipamen bezala ematen erlijio liburuetakoa den esana, edota aipamen bezala ematen badu ere, batek ez daki zeinetakoa den. Beste batzutan osoro bere hizkeran txertatua, kako eta ezer gabe, agertzen da eta ez da batere erraz halakoa antzematen. Esate baterako, Sacha Guitry zenduaz ari dela honela dio: “Hilaren obra bizirik daukagunez gero, zilegi izan bedi hartaz, hilaz zilegi ez litzatekeena, esatea” (...) Nork asma hor San Agustinen esaera bat erabili duela Mitxelenak gogoan, haren “De mortuis non fit mentio” delako hura ezagutzen ez badu? Besteren ahoz mintzo da hor, beraz, Mitxelena. (Altuna 1988: 29).

Bajtinez geroztik, metodologiari dagokin atalean zehaztu dugun bezala, enuntziatua subjektu edo enuntziatzaile bakarrak igortzen duen ideia alde batera utzi dute hizkuntza-teoriek eta diskurtsoaren ikuspegi elkarrizketatuaren aldeko joera nabarmendu; itxuraz bakarrizketa den diskurtsoetan ere antzeman daiteke esatariak enuntziatzaileekin nahiz norentzakoarekin bideratzen duen fikziozko elkarrizketa. Eta guk enuntziatu parentetikoak aztertzeke ezinbestekoa dugu ikuspegi horretan oin hartzea; corpusak adieraziko digun bezala, egitura jakin honek esatariaren bikoizte bat dakarrelako eta besteren ikuspegiak diskurtsoan txertatzeko ez ezik norentzakoarekin elkarrizketa bideratzeko estrategia bihurtzen delako.

Ducrot-ek (1984) esatariaren eta enuntziatzailearen arteko bereizketa egingo digu:

Par définition, j'entends par locuteur un être qui, dans le sens même de l'énoncé, est présenté comme son responsable, c'est-à-dire comme quelque'un à qui l'on doit imputer la responsabilité de cet énoncé (Ducrot 1984: 193). J'appelle "énonciateurs" ces êtres qui sont censés s'exprimer à travers l'énonciation, sans que pour autant on leur attribue des mots précis. (Ducrot 1984: 204).

Bataren eta besteren artean dagoen alderik funtsezkoena, apika, honako hau da: esataria enuntziatuaren arduradun zuzena da, enuntziatuaren osagai diren hitzak eta egiturak hautatzen dituen; enuntziatzaileak, berriz, enuntziatu horrek iragartzen dituen ikuspuntuekin egiten du bat.

Honenbestez, esataria ez da ikuspuntu bat, ikuspunturen bat har dezakeena baizik. Esataria edo lokutorea, bada, bakarra da, bakarra baita enuntziatua sortzen duena (enuntziatuko hitz eta egiturak hautatzen dituen); enuntziatzaileak, berriz, bat baino gehiago izan daitezke, esatari horrek enuntziatua bere ikuspegitik, nahiz besteren ikuspegitik<sup>265</sup> igor baitezake.

Enuntziatzaileak, ondorioz, enuntziatioari esker agertzen diren izakiak dira, nahiz eta hauek berariaz hitz egin ez, nahiz eta hauen hitzak zehatz-mehatz agertu ez, beren ikuspuntua agertzea zilegi egiten dute. Ildo honetatik uler dezakegu Banfield –ek (1979) enuntziatzailea kontzientzia-subjektua deitzea, eta Genettek ikuspuntu-gunea.

<sup>265</sup>Hizkuntzak, jakin badakigu ikuspuntu ugari aditzera emateko bere bitartekoak dituela; hau da, hainbat hizkuntza-unitate berariaz ikuspunturen bat aditzera emateko erabiltzen da. Esate baterako, gure corpusean, Mitxelena etengabe darabiltza "halakok dioenez", nahiz parentesien edo marren artean agertzen diren "halakok dio" bezalako esapideak. Guri, enuntziatu parentetikoen azterketa honetan, marren, parentesien nahiz bi komen artean doazenak interesatzen zaizkigu. Baita esataria bere diskurtsotik aldentzeko, urrutiratzeko erabiltzen dituen baliabideak ere.

Esatariak beregana dezake, bada, ikuspegi bat edo bestea, baina zenbaitetan bereganatu duen ikuspuntu horretatik urrundu eta enuntziatzaile hark enuntziatutakoa iruzkindu egingo du. Horrela “autokritika” egiteko aukera izango du; bere burua iruzkindu eta kritikatzeko aukera, norentzakoaren atentzioa erakartzeko. Eta urruntze-efektu hau erdiesteko, adibideetan ikus dezakegunez, enuntziatu parentetikoak bitarteko aproposak<sup>266</sup> gertatuko zaizkio. Horrelakoetan, badirudi “ahots ugaria” edo “polifonia” fenomenoak iragartzen dela, esatariaren beraren bikoizketa eragiten duena.

Esatariak, bada, bere diskurtsoan bertan besteren ikuspegiak adieraz ditzake, bai berari zehaztuz (Authier-ek (1982) ageriko heterogeneitatea deritza) edo esplizituki zehaztu gabe (heterogeneitate osagarria). Helburua, horiekin bat egin edota horiengandik urrunduz bere argudio-haria indartzea.

#### 9.3.3.6.1. Heterogeneitate osagarria: Esatariaren eta enuntziatzaileen arteko bereizketa, formalki zehaztu gabe

Enuntziatu parentetikoei esker, batzuetan, esataria bikoiztu, desdoblatu edo bitan banatuko da. Batetik, beste ahots batzuen enuntziatzaile izango da; hau da, besteren ikuspegiak ekarriko ditu diskurtsora, nahiz eta hor aditzera ematen den informazio edo edukiaren arduradun ez izan. Enuntziatio-ekintzaren arduradun izango da soilik. Holakoetan E1 enuntziatzailea deituko diogu eta honek ez du beti esatariak berak duen iritzi-usteeekin zertan bat egin.

Bestetik, esataria bere ikuspuntuaren arduradun eta enuntziatzaile bihurtuko da (E2 enuntziatzaile) eta horretarako enuntziatu parentetikoak hautatuko ditu. Egitura horietan oso nabarmenak izango dira esatariaren beraren lorratzak, bere markak.

Bikoizketa honi esker, adibideek erakutsiko digutenez, zerbaiti buruzko ikuspegi ezberdinak oso modu zuzenean adierazteko aukera emango dio. Norentzakoaren arreta erakarriko du, honek deskodetzeko ariketa konplexuagoa egin beharko baitu. Gutxienez, bi interpretazio-hari irekiko dira, bi enuntziatio ezberdin baitira. Izate erreal baten bi ahots dira: bata, E1 enuntziatzailearen itxura hartzen duena, testua sortu duen unekoa, eta bestea E2 enuntziatzailearekin bat egiten duena, geroago, bigarren momentu batean egiten duen

---

<sup>266</sup>Hauze baita, hain zuzen, enuntziatu parentetiko ugariaren egitekoa, esataria bere diskurtsotik aldendu, nahiz besteren ikuspuntua tartekatzea, alegia. Alderdi horretatik esan dezakegu, izan ere, enuntziatu parentetikoek, azken batean, tartekatua izan den enuntziatuarekin erkatuz, enuntziatzaile nahiz modalitate aldaketa dakarrela.

zuzeneko iruzkina: benetako elkarrizketa baten aurrean bageunde bezala “ni” batek “zu” bati zuzentzen dion adierazpena. Ikus dezagun adibidez baliatuz:

- Behingoz bederen, zinemak, ixpilu (**zeren ixpilu gero?**) izateari utzirik, amets-ateak iriki dizkigu, Albert Larrorisseri eskerrak. (ZIN: 170).

- Bizkaiko hitza omen da durdua “dificultad” eta Mogelek (**baina zein Mogelek eta non?**) darabilena. (LIB I: 114).

- Ulysseri —**zergatik ordea?**— halako Luzifer-airetxo bat erantsi diote, edo Prometheu-airea, Greziatik aldegin nahi ez badugu. (ZIN: 147).

Goian esandakoa garbi ageri da adibide horietan; izan ere, esataria bera izango da E1 enuntziatuan esandakoa zuzenean zalantzan jarri eta nolabait ere kritikatu duena. Esatariak, bada, enuntziatu parentetikoan agertzen den enuntziatzailearekin egingo du bat, baina ez E1 eko enuntziatzailearekin.

Beste batzuetan, ordea, kritika kutsua are nabarmenagoa izango da, eta esatariak, zuzenean enuntziatzailea astintzeko erabiliko ditu enuntziatu parentetikoei esker egindako iruzkinak:

- Zer arraiotarako behar du euskaldun berriak jakin nola esaten diren “apogeo” eta “perigeo” (**Nola esaten diren?**). Bada ordu gure egitekoari lot gakizkion (euskara irakastea bada, ahalik ongien eta errazen irakasteari), hodeietatik apur batez jexiaz. (LIB II: 49).

- “Troar´ek txumustuan erasartu zuten zaldia...ta danak erri-barrura sarturik, egundoko lepoketa (itoketa) egin zuten” (**Era-sartu? Ez ote dugu euskaldun guztiok “sar-erazi” esaten? Eta noiz ezkerro ito dezake inor burni edo tupiki zorrotzak?**). (LIB I: 69)

- “Akamenon Mukene-urira elduala, bere emazte Klitaimnestere ta Aigista´k asmo batez erail zuten” (**Zenbat Agamenon ziren heldu ahala hiltzeko?**) (LIB I: 69-70).

Beti ez zaio, ordea, enuntziatzaileei zuzenduko. Beste batzuetan, badirudi esatariak galderak norentzakoari zuzentzen dizkiola, edo behintzat, honekin bideratu nahi duela elkarrizketa. Eta horrek diskurtsoari dinamismoa emateaz gain, baieztapenak eztabaidaezinak

edo erabat irmoak ez direlako sententzioa ematen du, nolabait norentzakoarekin (norentzakoaren ustekin) banatu nahiko balitu bezala.

- “Hemen, egia esan, bideak zabalik zeuden, baina, euskararen truk beren ametsak eman nahi dizkiguten gramatikalarien axolagabekeria batetik eta idazleen lasakeria bestetik (**ba ote dago nork bere gogara, antzora, eta moldera egitea baino errazagorik?**), aspaldi josi zitzaigun otez eta elorritz. (LIB I: 128-129).

- Aita Villasante ezagutzen duenak—**eta nork ez du ezagutzen izenez behintzat gure artean?**— badaki nola egiten dion beti lanari, sustraiz eta funtsez, bil eta azter ditzakeenak oro bildu eta aztertu ondoren, edozein sailetan. (LIB II: 60-61).

- Eta azkenean, behar bezala, onek daramate saria, diruaren ordezkaria kontzientzia garbia besterik bada ere. Izan ere —**nork ukatuko?**— ez omen da aberastasun hoberik. (ZIN: 167).

- Egilearen iritziak —**eta norenak ez?**— okerrak izan daitezke hemen edo han (LIB I: 130).

- Bagenituen lehen euskaraz sasi-jakintsuak, sasi-letratuak eta (**zergatik ez esan?**) sasi-kumeak; orain berriz, lehengoan gain, sasi-absolutuak, sasihelburuak, sasi-kezkak, sasi-pakeak eta nik al dakit beste zenbait sasi-gauza. (LIB I: 139).

Adibide horiek guztiek erakusten digute esataria diskurtsoan bertan bikoiztu edo bitan banatu dela, izate beraren bi ikuspegi, bi ahots bailiran. Batetik, E1 enuntziatzailea genuke; hau da, oinarritzko enuntziatua enuntziatzeko ardura duena. Eta bestetik, E2 enuntziatzailea, bigarren une batean (enuntziatu parentetikoari esker), hasierako diskurtso-plangintzatik kanpo balego bezala egindako iruzkina: E1 enuntziatzaileak eman duen informazioa iruzkindu, zalantzan jarri, kritikatu, erasotu egingo duena.

Diskurtsoan bertan egon daitezkeen bestelako iruzkinekin erkatuz, badute adibide hauek berezitasunik: esatariak iruzkinak zuzen-zuzenean egiten ditu, E1 enuntziatuaren linealtasuna hautsiz eta une horretan bertan tartekatuz. Zuzeneko kritika, zuzeneko iruzkina, norentzakoari arreta sorrarazteko modukoa da honi zuzenduko balitzaio bezala adierazten baititu, eta horrela, berarekin zuzenean izandako elkarrizketa bat imitatzen du.

Aipatu dugu, gainera, bi enuntziatio diren neurrian bi enuntziatio-lerro edo bi interpretazio-hari irekitzen direla. Ikus dezagun adibide hauekin:

- Ipuiak badu miztoa, eta suge-miztoa gainera. Nabari zaio ez dela gaia zenbaiten (**askoren edo gutxi batzuen?**) gogoko izango eta hala ere, edo horrexegatik beragatik, batere beldur eta kupidarik gabe azaldu nahi luke. Badirudi eginahalean minberatu beharrean dabilela minbera daitezkeenak. Ezin esan, bada, eskua gorde duenik: gehiegi agertu du, aukeran. (ZIN: 145).

Adibide honetan bi enuntziatio-lerro bereiziko ditugu, esatariaren bikoizketaren ondorioz:

- E1 enuntziatzailea: esatariak enuntziatzaile honen ikuspegitik kontaktzen duenean, kontaketa neutroagoa, orokorragoa edo zehaztugabeagoa egiten du. Esataria, soil-soilik, ikuspegi horren enuntziatzaile izango da.

- E2 enuntziatzailea edo enuntziatu parentetikoan agertzen dena: enuntziatzaile honek darabilen ikuspegiak esatariarekin bat egingo du; edo, hobeto esan, esatariarena berarena da. Hala, aurretik emandako informazioa bigarren une batean iruzkindu egingo du (honek ere miztoa aterako dio). Azken batean, egitura honetatik inferi dezakegu E1 enuntziatzaileak zerabilen “zenbait” zehaztugabe hori “gutxi batzuek” osatzen dutela (gutxi batzuen aldeko apustua egingo du) eta gutxi horiek ziurrenik beheraxeago aipatzen dituen “minbera daitezkeen” haiek soilik direla.

Galdera erretoriko bezala planteatuko du zalantza hori airean utziz eta sujerentzien munduari atea irekiz. Aldi berean, diskurtsoa dinamismo batez zipriztinduko du, norentzakorekin izan dezakeen fikziozko elkarrizketa imitatuz.

- Eta, hau da beltzena eta gogorrena, gertakari berbera bi aldetara entzuten baldin badugu — gaurko neska-mutilek irakurtzen dituzten nobeletan edo antzinako poema epikoetan bezala edertua eta goratua, edo oraingo eta lehengo zenbait idazlek ohi duten bezain belztua eta itxuratxartua—, alderik politena ez dela beti, ezta maizenik ere, egiazkoena izaten. Japonen eta hemen gizona —**eta emakumea**— izukaitz baino bildurriago, prestu baino berekoiago, bihotz-zabal baino zitalago dela, alegia” (ZIN: 130).

“Eta emakumea” enuntziatua perpausaren ikuspuntutik aztertu izan bagenu, bi izen sintagmen arteko koordinazio kopulatiboa (emendiozkoa) ikusiko genuke: “gizona” eta “emakumea” bi sintagmak maila berean leudeke. Garbi dago, ordea, esatariak esanahi edo interpretazio hori erdietsi nahi balu, ez zukeela parentetiko bezala adieraziko.

*Eta* lokailuak, beraz, aurreko sintagmak elkartzeko edo lotzeko baino gehiago balio du enfatizatzeke; sarrera egiten dion enuntziatua indartzeko balio du. Alde horretatik pentsatu

beharko genuke esatariak tartekatu duen informazio hori arras garrantzitsua dela; izan ere, leku jakin horretan egote hutsagatik (parentesi moduan) indartua edo fokalizatua dagoen informazio hori berrindartua agertzen da *eta* lokailuarekin.

Entonazioari dagokionez ere, bada alderik kopulatibo soila irakurri, edo kasu honetan bezala, enuntziatu parentetiko bezala irakurri. Badirudi, bigarren une batean berregituratu duela; hasierako plangintzan egon gabe, unean bertan gogoratu izan balu bezala.

Interpretazioaren aldetik, izate beraren bi ahots direnez gero, esatariaren bikoizketa honek bi interpretazio-lerro irekitzen ditu:

- Batean, interpretazio “inozentea” edo “sexismoaren” arrastorik gabekoa; “gizona” dionean (bai onerako eta bai txarrerako), gizona eta emakumea barne hartzen dituen adigai orotariko bezala hartuz (E1 enuntziatzailea).
- Bigarren interpretazio-hariak, ordea, “emakumea” adigaia berariaz gehitzen dio; hots, badaezpada “gizon” adigai horretan “emakumeak” ere sartzen direla adierazi nahi du. Horrek, egungo irakurleari behintzat, “matxismo”, “feminismo” kontzeptuak iradokitzen dizkigu (edo hizkuntzaren erabilera sexista). Bigarren interpretazio-lerro hau bada, askoz ere zorrotzagoa, kritikoagoa da.

Honelako adibideek erakusten digute esatariaren lorratzak hor bertan agertzen direla, zuzenean norentzakoari egindako iruzkinak dira, eta komunikazio-ekintza erreal bat imitatzen dute.

- Baina kantari eta dantzari —**eta zahatoari eragiten**— ari direino ez dira, dirudienez, gehiago oroitzen ez ltsasoaz ez etxe-gaineko hipotekaz. (ZIN: 132-133).

Lehendik ere indartua eta fokalizatua zegoen enuntziatua (parentetikotasunak eraginda), baina *eta* lokailuari esker areagotu egingo da nabarmentze hori. Hemen ere bi interpretazio-lerro bereiz ditzakegu:

Bata xaloagoa, “inozenteagoa”: dantzari eta kantari aritzea ongi ikusita dago gizartean; beraz, ez litzateke kritikarik egongo. Aldiz, bada beste interpretazio bat ere,



zorrotzagoa, kritikoagoa, ironikoagoa<sup>267</sup> dena: “zahatoari eragiten ari direino ez dira gainerako arazoez oroitzen<sup>268</sup>”.

Azkenengo interpretazioari atek enuntziatu parentetikoak irekiko dizkio. Azken batean, esatari beraren azpian bi enuntziatzaile ditugu, bat xamurragoa, inozenteagoa, besteren ahotsaren enuntziatzaile soil dena; hau da besteren ikuspegia ekartzera lerratuko dena. Eta bestea, zorrotzagoa, ironikoagoa, kritikoagoa, filmaren alderdi negatiboak agerian utziz norentzako bideratzen saiatuko dena. Hondarrik hondarrean, enuntziatu parentetikoari esker, kontaketa iruzkindu, epaitu egingo du besteren ikuspegia alde batera utzi eta bere hatza uzten duen esatari-enuntziatzaileak.

Diskurtsoaren linealtasun hori hautsi ez balu, irakurleak ez luke zertzelada horretan erreparatuko, eta, azken batean, zertzelada hori esatariarentzat garrantzizkoa da, bere argudio-prozesu horretan filma parodiatzeko helburuan laguntzen baitu.

- Gogoz —**eta batzuetan parre-algaraz**— irakurtzen dira ipui guztiak, buru batetik bestera. Zenbaitzu ezagunak dira Plaentxia-Eibarretatik kanpora ere. (LIB I: 91).

Adibide honetan ere ikus daiteke esatariak egitura parentetikoa erabiliz indarra, enfasia eman nahi diola ipuinen alderdi dibertigarriari. Ez dira soilik gogoz irakurtzen, gogoz irakurtzeaz gain barre eraginarazteko ere gai dira. “Neutroagoa” den interpretazio-lerroari (E1), markatuagoa, bideratuagoa dena eransten dio (E2) esatari eta enuntziatzaileak. Badu, bada, argumentazioan eraginik. Izan ere, esatariak ez ditu ikuspegi edo ahots ezberdinak oharkabea, inolako helbururik gabe tartekatzen; diskurtsoa berak nahi duen bidetik eramateko helburuarekin baizik. Oraingo honetan, buruan duen norentzakoak liburu edo ipuin hauek irakurtzera lerratu nahi du. Horretarako, ahots ezberdinen artean berea nabarmentzen du, modu markatuago batez bere ikuspegia tartekatuz.

“Ahots ugariaren” gertakaria azaltzeko, aukeratu ditugun adibideetarik askok galdera erretorikoren bat hartzen du bere barnean. Bigarren atal nagusian (esatari-norentzakoaren arteko interakzio-harremana berariaz aztertuko dugun atalean) sakonduko dugu berbaldian zein eginkizun duen galdera erretorikoen teknika honek; hau da, zer lortu nahi duen fikziozko elkarrizketa galderen teknikarekin planteatuz.

<sup>267</sup>Berariazko atal bat eskainiko diogu ironiaren azterketari (§ 9.7), uste baitugu enuntziatu parentetikoak esatariaren intentzio ironikoaren ispilu ere badirela .

<sup>268</sup>Adibide horretan, *dantatzeari* eta *kantatzeari* “zahatoari eragitea” gehitzean, hiru ekintzak berdindu egiten ditu: hirurak *ahanzgarriak* edo dira. *Eta* bidezko parentetikoa tartekatzeak gauzatzen du berdintze hori, bestela *kantatzeak* eta *dantatzeak* ez zuketean horrelako konnotaziorik zertan izan.

Honenbestez, polifonia gertakaria ere pertsuasioa erdiesteko xedeari loturik ikusiko genuke. Esatariak bere argumentazioan aurrera egiteko ezinbestekoa gertatzen zaio bere ideiek norentzakoaren babesa izatea, eta horretarako norentzakoarekin elkarrizketa bidez “kooperatu” edo auzolanean aritu beharko du, nahiz eta elkarrizketa hori imitatua edo fikziozkoa izan.

Enuntziatu parentetikoek dakarten informazioa, bada, ez dirudi ezinbestekoa denik, baina, hala ere, esatariak testuan bertan esandakoak baino askozaz ere gehiago iradokitzen duela iruditzen zaigu. Izan ere, enuntziatu parentetikoaren estrategia honi esker, esatariak hainbat ikuspegi adierazteko aukera du; hainbat sententzia eta iritzi aipatzeko aukera ematen dio, eta ziurrenik ideia bera garatzea baino eragingarriagoa, iradokitzaileagoa eta aberatsagoa gertatuko zaio. Norentzakoak, azken batean, enuntziatu zehatz horrek (edo esatariak bidaltzen dizkion keinu horiek) eraginda informazio pragmatikoaren errota etengabe martxan jarri beharra izango du. Hainbat informazioaren asoziazio edo lotura egingo du; ziurrenik, esatariak berak buruan zerabiltzanak baino gehiago. Enuntziatu parentetikoek, bada, testuak adierazten duenaz gaindi, iradokitzeko aukera eta bidea irekitzen dute.

#### 9.3.3.6.2. Balizko diafonia

Polifonia gertakariaren barruan, esataria norentzakoak izan dezakeen iritzi edo ikuspegiaren enuntziatzaile bihurtzen denean, diafonia gertakariaren aurrean gaudela esan ohi da (Miche 1995). Gertakari honekin, esatariak norentzakoaren ahotsak ekarriko ditu diskurtsora, baina helburu jakin batekin, bere argumentazio-prozesu horretan aurrera egiteko helburuarekin; izan ere, norentzakoak izan ditzakeen balizko “kontra-argudioak” bere diskurtsoan bertan adierazi eta hauek alde batera utziz, bere argumentazioak indar handiagoa izatea lortuko du. Badirudi esatariak, norentzakoak izan ditzakeen argudio horiek guztiak aztertuta ez ezik, baztertu ere egin dituela, eta, beraz, hausnarketaren ondorio dela egindako argumentazioa. Horrela, bere argumentazioak indar handiagoa duela dirudi, edo behintzat zalantzan jartzea zailagoa dela.

- Eta aldamenekoaren oihuak belarrian ditugula, nola amets egin, “Cinemascope”—“**mundua sortu zenez gero ikusi den gauzarik miragarriena**”—berriarekin ere? (ZIN: 129).

Adibide honetan ikus daiteke enuntziatu parentetikoa besteren ahotsak islatzeko bide dela; gainera, berariaz zehazten ditu aipu-markei esker (ageriko heterogeneitatea). Dirudenez, ahots horiek bere inguruko jendearenak dira (inguruko kritikoenak edo iragarki edo propagandarenak), eta pentsa dezakegu bere idatziak irakurtzen dituztenak ere tartean egongo direla.

Hitz eta ahots hauek, ordea, helburu jakin batekin islatzen ditu: bere arrazoibidean aurrera egiteko baliagarri gertatuko zaizkio. “The robe<sup>269</sup>” filmaren kritika negatibo horretan, kontrako argudioak emateko modua da: Cinemascope, hain miragarria dela badiozue ere, ez da beti nahikoa filma ona izateko. Alegia, bestek goraiatzen duten teknika horrezaz egina dago, baina, hala ere, ez du lortu bera (esataria) ametsen munduan sartzea; ez du lortu berak filma atseginez ikustea. Bidenabar, “Cinemascope” kritikatzeko baliagarri zaio.

- Ingelesek *high-brows* deitzen dituzten kontentagaitz haietako direnek (**edo garenek?**) esango dute beharbada ez dela hau zinema hutsa, literatura dela. Baina kopet harro ez direnek (**ez garenek?**) ez dute damu izango ikustera joana.” (ZIN: 124)

Bi enuntziatu parentetiko horiei esker norentzakoarekin fikziozko elkarriketa bideratu du. Bidenabar esan dezagun horiei esker esataria bikoiztu egingo dela, esataria bera baita enuntziatutako informazioaren lehenengo entzulea, eta informazioaren enuntziatzaile izateaz gain, informazio beraren iruzkintzaile ere bihurtuko da aldi berean. Iruzkina bigarren une batean diskurtsoan bertan adieraziz, esatariaren barnean egon daitezkeen “zalantzak” indartuko ditu.

Aldi berean, ordea, izan daiteke kortesiaz, gizatasunez jokatzeko modua ere: *kontentagaitz* nahiz *harro* izenondoak negatiboak baitira eta inor ez mintzeko modu bat izan daiteke bere burua ere zaku berean sartzea.

Eta irakurleak (norentzakoak) berari buruz duen iritziaren oihartzun badira? Hala balitz, “diafonia” fenomenoaren aurrean egongo ginateke, norentzakoak berak duen iritziaren enuntziatzaile bihurtuko baita.

Se apela a palabras posiblemente dichas por el receptor o estados de conciencia del mismo. (Fuentes & Alcaide Lara 2002: 242).

<sup>269</sup>*The robe* film hau iruzkindu dugu hasieran.

- Hau da, ez duela aski betiko baiezka aritzearekin, hango gauza eder eta atseginak —**zorioneko “amerikar bizibidea”**— eztarria urratu arte goratzearekin. Jendearen burua, buruhaustek astintzeko aitzakiarekin, arintzeko edo. Are gehiago arintzeko, alajaina! (ZIN: 149).

Amerikar zinemari kritika egiten dio, bere helburua gehienetan zein izaten den adieraziz: “hango gauza eder eta atseginak goratzea”. Kritika horretan E2 enuntziatzaileak kontatu bakarrik ez, sentimenduak adierazi ere egingo ditu, kritika are eta indartsuagoa eginaz.

- “Nekazari haurrentzat idatziak dira, ordea,”—**esango du beharbada norbaitek**— “eta orain kaletarrak dira gehienbat, ez baserritarrak, mota horretako irakurgaien beharrea daudenak”. *Baina* aurki horri ere aurki dakioke bere ifrentzua: hiritarrak, kaletarrak, badira oraingo euskal eskoletako haurrak, eta kaletarrak direlako hain zuzen, guztiok mantentzen gaituen ama lurretik saihestuak eta aldenduak, are gehiago komeni zaie nekazaritza eta aberezaintzaren berri jakitea. (LIB II: 112-113).

Besteren hitzez baliatuko da oraingoan ere, haiei aurre egin (*baina* lokailua) eta bere argumentazioari indar handiagoa emateko (ez ote da “Sokratikoa” dialektikan aritzeko modu hau?). Beraz, “polifonia” gertakariaren aldakia besterik ez den “diafonia” gertakaria ere, hein handi batean, argudiatzeko teknika edo estrategia bihurtuko litzateke.

#### 9.3.3.6.2 Ageriko heterogeneitatea

Lehen esan bezala, ageriko heterogeneitatearekin esatariak besteren ahotsak eta ikuspegiak tartekatuko ditu, baina agerian, berariaz besterenak direla adieraziz. Horretarako, aipu-markak erabiliko ditu, edota zuzenean besteren aipuak tartekatuko ditu, baina aipuen iturriak zehaztuz. Aipuen izaera nahiz aipuen jatorria norentzako aztertzean (§ 9.2.2.2.) nahiz argudio-iturriak aipatzean sakonduta dugunez gero, bere horretan utziko ditugu. Askiz izango da ikusteko enuntziatu parentetikoak baliabide egokiak gertatzen zaizkiola esatariari besteren ahotsak zuzen-zuzenean edo moldaturik nahiz agerian edo ezizenen baten azpian estalirik adierazteko. Aipu horiek guztiek erakusten digute bere diskurtsoan ahots ugariaren oihartzuna entzun daitekeela eta guztiek balio dutela esatariaren erudizioa nabarmen jartzeaz gain, bere argumentazioan aurrera egin eta bere intentzio-xedea erdiesteko.

### 9.3.3.7. ENUNTZIATU PARENTETIKOAK, OINARRIZKO ENUNTZIATUA BIRFORMULATZEKO ESTRATEGIA

Existen en la lengua las suficientes referencias a la enunciación como para comprender que los locutores hagan siempre alusión en el discurso al hecho mismo de su habla, que se muestren, que se exhiban hablando y que encadenen sus enunciados no solamente en relación con las informaciones que éstos vehiculan sino en relación con los acontecimientos en que esos enunciados existen. (Ducrot 1986: 147).

Aipu honetatik ondoriozta dezakegunez, hizkuntzan egon badaude enuntziazioaren beraren, hau da, diskurtsoa sortzeko egitatearen beraren adierazpenak edo seinaleak. Enuntziazioaren errainua edo hatza modu askotara ager daiteke. Guk, atal honetan, enuntziatu parentetikoak enuntziatio-ekintzaren isla diren neurrian aztertuko ditugu. Izan ere, ohartuko gara enuntziatu parentetikoek diskurtsoan duten eginkizun nagusia formulazioa zehaztea, ñabartzea, argitzea, azaltzea, zuzentzea, laburbiltzea, etab. dela; hau da, esan duenaren eta esan nahiko zukeenaren artean ahalik eta zirrikitu-osinik txikiena egon dadin enuntziatioa bera birformulatzea.

Birformulazioak, bada, helburu komunikatibo horren baitan aztertuko ditugu, eta ohartuko gara, hondarrean, komunikazioa bermatzeko helburua dutela; hau da, esatariak dituen intentzio-asmoak erdiesteko baliabide edo mekanismoak direla, eta, ondorioz, argumentazioaren makulu ere bai. Argudioei, ondorioei, iritziei egindako zehaztapen eta ñabardurak dira, batzuetan argudioa bera indartzeko, enfatizatze baliabide izango direnak. (ikus, argudio-indarraren atalean bildu ditugula enuntziatio-mailako osagaiak). Bestetan, formulaziori enuntziatio-ikuspegi berri bat txertatuko diote, argudioaren norabidea ñabartuz edota aldatuz (parafrastikoak ez diren birformulazioak kasu).

#### 9.3.3.7.1. Birformulazioak

Birformulazioa, hitz, enuntziatu<sup>270</sup> edo testu-zati batek duen zentzua interpretatzeko, argitzeko, azaltzeko, zehazteko edo zuzentzeko, enuntziatuen artean gertatzen den enuntziatio mailako estrategia da. Esatariak, enuntziatioaren arduradunak, lehen

---

<sup>270</sup>Fuentesen (1993) ikuspegira lerratuko gara birformulazioak bi mugimendu enuntziatiboren arteko parekatzea dakarrela adieraziz; hau da, bi enuntziaturen arteko mugimendua litzateke. Ez baitira soilik gramatikazko bi elementuren artekoa, bi enuntziaturen arteko baliokidetza baizik, nahiz eta enuntziatu horiek perpausez, sintagma soilaz nahiz lexia batez osaturik egon.

formulazioari bigarren bat gehitzen dio, ustez bere intentzio-asmoei hobeto egokitzen zaiona, eta, ondorioz, markatuagoa izango dena, enuntziatio-ikuspegiaren aldaketa baitakar. Izan ere, birformulazioetan mugimendu bikoitza gertatzen da: lehendabizikoan, “hain egokia ez den” ikuspegia formulatuko digu, eta bigarren baten beharra izango du “egokiago” bat agertzeko. Egokiagoa diogu, azken batean, esatariaren intentzio-xedeei nahiz norentzakoaren interpretazio-baldintzei, ustez, hobeto doituko zaiolako.

Un caso específico dentro de la enunciación es la reformulación. Las intervenciones reformulativas son manifestaciones del hablante que precisa, aclara o corrige su enunciación para que se adapte a su intención comunicativa y la reciba el oyente. Muestran el control del hablante sobre su propio discurso. Por tanto, si algo se vuelve a formular, la atención recae sobre ello. Se dice algo en dos momentos comunicativos: uno insatisfactorio para el hablante, y otro que, aparentemente, se muestra más adaptado a lo que quiere decir. (Fuentes 2002: 239).

Beraz, birformulazioarekin “atzetik aurrerako” mugimendu bat antzemango dugu (erretroaktiboa). Helburua, Roulet-ek (1987) aipatzen duen “complétude interactive” bermatzea litzateke; hau da, esatariaren jarduna ez dadila desplazatua, eta koherentziarik eta argitasunik gabea izan. Horretarako, metadiskurtsoko iruzkinak tartekatuko ditu: ilokuziozko funtzioa zehaztu edota, hurrengo ataletan ikusiko dugun bezala, komunikazioa testuinguratu eta norentzakoaren arreta bereganatzeko.

Diskurtso mailako mekanismo honen erantzukizun zuzena esatariak izango du; birformulazioak, azken batean, esatariak testua eraikitzeko duen gaitasunaren adierazle izango baitira. Izan ere, abiaburuko formulazioa, bigarren formulazioaren (birformulatu dena) menpe geldituko da, edo, behintzat, bigarrenak dakarren ikuspegia da esatariak benetan aditzera eman nahi duena. Enuntziatioaren ikuspegi aldaketak, Larringanek adieraziko digunez (Larringan 1995: 245), ez du argumentazioaren norabidea aldatuko, baina, gure ustez, enuntziatu parentetiko bezala tartekatzen dituen birformulazio batzuen helburua (ez, agian, guztiena) horixe da, argumentazioaren norabidea ñabartu, zehaztu eta abiaburuko formulaziotik erabat aldentzea:

- Euskara egiten —**edo egin ustean desegiten**— hasi baino hobe genuke euskaldunok euskara ongi ikasten hasi. (LIB I: 69).

- Argia —**edo ilunbea**—, sortaldetik etortzekotan, ez ote zaigu Txinatik agertuko? (LIB I: 140).
- Sail horretan, zuzen edo oker, buruzagitza emana —**ala hartua**— dauka, bere “Pascual Duarte” dela bide, batez ere. (LIB I: 51).
- Negarrez gaude beti, euskal irakurgai gutxi ditugula eta, eta ditugun ederrak ere ezin ditugu, **edo ez ditugu nahi**, irakurri. (LIB I: 71).

Hauetan guztietan ikus daiteke abiaburuko formulaziorarekin edo birformulazioarekin aditzera eman nahi dena justu kontrakoa dela eta bi enuntziatio-lerro bereizi beharko genituzkeela (polifonia). Batetik abiaburuko formulazioak dakarren enuntziatio-ikuspegia, eta bestetik, birformulazioak dakarrena; hau da, abiaburuko formulazio horretatik beste muturrera aldentzeko den esatariarena. Besterik baita esatea “ditugun irakurgai ederrak ezin ditugu irakurri” edo “ez ditugu irakurri nahi”, edo “euskara” egitea, edo “egin ustez desegitea”. Oso besterik, gainera. Bigarren formulazioak, bada, enuntziatioaren ikuspegi aldaketa dakar, eta horrek argumentazioa ere bideratu egingo du; bigarren enuntziatio horren menpe egongo baita lehena.

Halaz ere, egia da birformulazio batzuek ez dutela argudioaren norabidean aldaketarik ekarriko. Esaterako:

- Horregatik edo, antzektokirako utzi ditu pailasokeriak —**txarlotkeriak**—, berebizikoak badira ere. (ZIN: 136).
- Egonaldi hori, laburxkoa izanagatik, aski eta gehiegi izan du “llaneroen”— **hango zabaldietako gizon-emakumeen**— hizkera ikasi eta barra-barra egiteko. (LIB I: 51).

Adibide horietan garbi ikusten da bi formulazioen artean ez dagoela, nolabait esan, “mendekotasun-harremanik”; bi formulazioak baliokideak direla; nahiz eta jakin baliokidetza hori ez dagoela aldez aurretik emana (sinonimian gertatzen dena); aitzitik, esatariaren baitakoa dela, testu-sekuentzia jakin horren baitakoa, hain zuzen.

Honenbestez, bi birformulazio tipo behintzat bereizi behar ditugu. Eta bi tipo nagusi dira hizkuntzalaritza enuntziatibo-pragmatikoaren ildotik lan egin dutenek bereizten dituztenak (Roulet 1987), Rossari (1990), Fuentes (1993), eta euskal eremuaren baitan

(Larringan 1995): parafrastikoak eta ez-parafrastikoak. Sail nagusi horien barneko sailkapena, ordea, irizpideen arabera autoren batetik bestera aldatu egingo da.

Larriganek (1995: 246) parafrastikoak honela definitzen ditu:

Aski zaigu parafrasia nolabaiteko erlazio semantikoari (sinonimiazkoari, identitatezkoari, baliokidetzazkoari) deitzen zaiola jakitea. Erlazio semantiko horrek, bestalde, partikula batez markatua edo aktualdua behar du egon, hots, metalinguistikoki seinatua. (Larringan 1995:246).

Eta bien arteko aldea honela formulatzen du:

Parafrasikoen eta ez-parafrasikoen arteko desberdintasuna, “para” / “ez-para” aurrizkiek adierazten dutenez, hierarkiazkoa da, maila aldatzen baita. Birformulazio bat adierazten bada ere, “X” eta “Y”-k zein bere aldetik egiten dute. (Larringan 1995: 248).

Zehatz dezagun, bada. “Parafrastikoa” den birformulazioan badirudi baliokidetzazko harremana dagoela, eta ez dagoela mendekotasun harremanik. Eta parafrastikoa ez den birformulazioan, “subordinazio-harremana” legoke: bigarren formulazioak lehena menperatu eta enuntziatio-ikuspegiaren aldaketa ekarriko du, eta funtsean horixe izango da esatariak berariaz komunikatu nahi duena, edota, bere hasierako intentzioei, nahiz norentzakoaren interpretazio-baldintzei hobeto egokitzen zaiona.

Birformulazioaren sailkapenak hautatutako irizpideen arabera ugariak badira ere, guk Mitxelenaren corpuseko adibideetan oinarrituz honako sailkapena egingo dugu:

**A) PARAFRASTIKOAK:** Parafrastikoen saila, oro har, abiaburuko enuntziatua argitzea edo azaltzea helburu duten enuntziatuek osatzen dute. Hierarkizazioari dagokionez, bi enuntziatuak maila berean daude, eta ez dute enuntziatioaren ikuspegian alderik. Hauen barnean honako hauek sartuko ditugu:

- Azalpena argitzea eta azaltzea helburu duten enuntziatu parentetiko birformulaztaileak: *hau da, alegia...* antolatzaileak eraman ohi dituzte.
- Termino zehatzagoa hautatzeko eginkizuna dutenak.
- Enuntziatioa bera zuzentzeko eginkizuna dutenak.



**B) PARAFRASTIKOAK EZ DIRENAK:** Ez da progresiorik gabeko identitatezko harremana gertatuko. Bi formulazioen arteko harremana mendekotasunezkoa da, eta bigarren formulazioa da hobetsia, honek dakarren ikuspegi-aldaketa. Enuntziatioaren ikuspegi-aldaketa oso da nabarmena, bigarren formulazioan lehenari buruz esatariak duen iritzia, jarrera, ikuspegia berariaz adieraztetik, lehenengo formulazioa baliogabetzera ere iristeraino. Mitxelenak honela lortzen du:

- Modalizatuz: birformulatzerakoan, esatariak lehen formulazioari buruz duen iritzia edo jarrera ere berariaz adieraziz.
- Berraztertuz: Aurrez esandakoa berriz hartu eta „zalantza bezala bada ere, hausnarketa edo azterketa hori agertuz.
- Trinkotuz lor daiteke: lehen formulazioan agertzen dena sintetizatuz.

1. Etiketatzuz: Sail osoa estaliko duen hitza edo terminoa erabiliz. (Igonek Zabalak (1996: 128) aipatzen duen finkapenezko-harremana).
2. Ondorioztatuz: lehen formulazioaren ondorioa aterako du.
3. Laburbilduz: lehen formulazioan esandakoa sintetizatuz: *laburbilduz, labur esanda, hitz gutxitan*<sup>271</sup>

- Mugak zabalduz (analitikoa): orotarikoagoa den lehen formulazioa konkretatuz, eta horretarako:

1. Adibideak emanaz: ez dute sail osoa estaliko, sail hori azaltzeko adibideak emango ditu. Sail hau, ordea, luza liteke. (Larringanek (1995) adibidegileak deituko ditu)
2. Nabarmenak diren haiek aipatuz. Hauek ere ez dute sail osoa estaliko. Larringanek (1995) harreman-mota hau burutuko duten antolatzaileei nabarmentzaileak deritze.
3. Zehatzuz (enumeratuz): lehen formulazio orokor hori zertaz ari den zehatz adieraziz (zehaztua xehekatuagoa eginez).

---

<sup>271</sup>Antolatzaile hauek Larringanek (1995) birformulazio parafrastikoaren barnean sartu ditu. Gure ustez, laburbiltzean esatariak ez du identitatezko harremana gauzatzen; hausnartu, aztertu eta berriz pentsatzea dakar. Rossarik (1990) eta Fuentesek (1993) ere ez parafrastikoen artean sartzen dituzte.

Sailkapen honetan ikus daitekeenez, Larringanek (1995) eta Igone Zabalak (1996) bereizten dituzten nabarmentzea, adibidez jostea, nahiz finkapena, birformulazioaren mekanismo orokor horren barnean sartu ditugu. Azken batean, abiaburuko formulazioa birformulatzeko balio baitute.

#### 9.3.3.7.1.1.Sailkapena corpuseko adibideez hornituta

### **A) PARAFRASTIKOAK**

#### 1. ARGITU ETA AZALTZEKO EGINKIZUNA

##### 1.1 ALEGIA antolatzailearekin lagunduta

- Azkenean, etxean berriz —**Londresen alegia**—, zertxobait aldatu ikusten dugu David Niven 'en eskuetan dagoen Phileas Fogg-en garaita eta erorikoa. (ZIN: 182).

- Axularren garaikoek —**Pizkunde arokoek, alegia, bera ere, berandu xamar jaiogatik, horietakoa baitzen**—antzinako Greko eta Erromatarrek hartu zituzten maisutza, eta ez hizkuntza gaietan bakarrik. (LIB II: 140).

- Ipar Ameriketako zinemas zerbait dakitenek —**etxe aurre zuritua baino barrenagoko zerbait, alegia**— badakite Stanley Kramer dela oraindik, hiru edo lau lagunekin, zerbait esan nahi luketenetakoa, noizik behin behintzat. (ZIN: 149).

- Ukabilkadak behar bezala —**suminez itsutu gabe, alegia**— “jasotzen” ikasi duenak, ez du alajaina gutxi ikasi. (ZIN: 167).

##### 1.2. HOTS antolatzailearekin lagunduta

- “Hark bereak hari berari” daramate buruan —edo antzeko zerbait: liburua, damurik ez daukat eskuartean—, eta lehenbiziko “hura bera” aurreko bertsoen egilea da —**hots, Claveria**— eta bigarrena, bertso haiek eskeini zizkiguna, hau da Etxeberri. (LIB II :66).

#### 2. TERMINO ZEHATZAGOA HAUTATZEKO EGINKIZUNA

### 2.1. NOLABAIT ESATEKO antolatzailearekin lagunduta

- Nik, aukeran, berrieki aurkitzen ditut, “**garbiegiak**” **nolabait esateko**, erabateko aitzakietan sartu behar baldin badut. (LIB II: 106).

Esatariak termino zehatzagoa edo, behintzat, bere intentzio-asmoei zehatzago egokituko zaiona paratzeko birformulatuko du E1 enuntziatua. Garbi ikus daiteke ez garela sinonimiazko harremanaz ari, *berrieki* eta *garbiegi* terminoak sinonimo ez direla ikusi besterik ez dugu. Testuinguru jakin horretan esatarien intentzioei egokituagoa den terminoa baizik. Eta, beraz, alde horretatik baliokide lirateke.

### 3-ZUZENTZEKO EGINKIZUNA, TESTUINGURU JAKINARI HOBETO DATORKION FORMULAZIOA ERABILIZ

#### 3.1.HOBETO /HOBEKI ESAN antolatzailearekin lagunduta

- Goikoetxea jaunak, askok dakigunez, begi zorrotzez begiratu ohi dio darabilgun —**hobeto esan, darabilten**—euskal neurkerari. (107).

- Dei bat egin digu film honek —**dei bat da, hobeto esan, film osoa**—zorigaitz beltz hori guztion artean gugandik alden dezagun. (195).

- Ohar bat. Royaumont´en antolatzailea —**agian, hobeki, Larregirena**— Lardizabal izan zen gure artean, ez Añibarro. (LIB :126).

#### 3.2. EDO1 antolatzaileak lagunduta

Birformulatzeko eginkizuna duten *edo* bidezko enuntziatu parentetikoek bi erataraz gauzatzen dute, gure ustez, birformulazioa: batetik, argudio-norabidearen arabera bigarren formulazioa lehenaren baliokide izango da, baina bigarren formulazioak lehenarekin erkatuz, formulazioa testuinguru zehatzera mugatuko du (parafrastikoa). Bestetik, lehen formulazioa berraztertu eta argudioaren norabidea erabat aldatuz gauzatuko du birformulazioa (ez-parafrastikoa). Parafrastikoarentzat EDO1 erabiliko dugu eta gainerakoentzat EDO2.

Beraz, EDO1 duten enuntziatu parentetikoek abiaburuko formulazioa azaldu eta argitzeko eginkizuna dute. Eta argitu edo azaldu (ondorengo adibideetan ikusiko dugu), formulazioa esatariaren eta norentzakoaren testuingurura erakarriz lortuko du:

- Eskutitzek ez dute gure artean luzaro irauten; maiz doaz surtara, **edo paper zaharren saskira**, jaso bezain laister. (LIB II: 115).

Garai batean surtara botatzen baziren ere, egungo testuinguruan funtzio bera betetzen dute paper zaharren saskiek. Beraz, E1 enuntziatua, esatari-norentzakoek batean duten testuinguruan kokatuz birformulatuko du. Beste hainbeste gertatzen da ondorengo adibideekin ere:

- Eta horrenbeste gipuzkoar langile elkarren lehian ari bazaizkigu ere, oraingo gisan, mendiak murrizten —**edo gehienez pinu beltzez jazten**—, ez dute, eginahalak egin arren, Lizardik utzi zigun baso antzaldatua soilduko, harako leihoak itxitako jauregia dirudien hura, atsedena eliza, gau argi izarrez josia goian eta ur berdeak—izar irudiz zirtatuak—behean dituena. (LIB I: 64).

- “Ezin aurrera eginik aurki zirala...” “Aurki”, “berehala” da, eta hor esan nahi litzatekeen hori “aurkitu” esaten da euskaraz. Bertsotan zilegi da (**edo, gure Xenpelarrek zioen bezala, lizentzi**) bata bestearen orde erabiltzea metri causa, bi silaba besterik ez dituelako, baina ez euskal prosa jatorrean. (LIB I: 70).

- Eta mutilak gogoko duen neska —**edo neskak mutila**— ikusten duenean, hango apak eta laztanak, elkarri oratuta, nahiz eta igande eguerdian herriko plaza nagusian aurkitu! (ZIN: 133).

Goiko adibide horretan ere, esatariak enuntziatua testuinguruan kokatuz argitu edo azalduko luke; azken batean, gizarte-aldaketaren isla da: maitasun kontuetan, garai batean ez bezala, ez da beti mutila izaten aurre hartzen duena. Gizartea, edo gizarteko ohiturak aldatuz doaz eta aldaketa horri egokituko dio bigarren une batean formulatuko duen enuntziatua. Beraz, bata bestearen baliokide da. Beste horrenbeste esan daiteke ondorengoari buruz ere..

## B) EZ-PARAFRASTIKOAK

### 1. FORMULAZIOA MODALIZATZEKO EGINKIZUNA

Abiaturuko formulazioa esatariak modalizatuz adieraziko du; hots, bere ikuspegia, jarrera edo iritzia tartekatuz. Horretarako honako hizkuntza-egiturak aurkitu ditugu:

#### 1.1. OSO graduatzailea+ abiaturuko terminoa errepikatuz

- Jaiotza harrigarriak izaten dira noizean behin, **oso noizean behin**, mundu honetan, Juan Ramón Jiménez'en ume honena bezalakoak. (LIB I: 42).
- Besterik da, **oso besterik gainera**, idazlea kritikapean egotea, baina, kritikak errurik egotzi nahi badio, begiz jo duen bidean zuzen ez dabilelako egotzi behar dio. (LIB :76).

*Gainerak* bideratzen duen enuntziatua aurrekoaren hari berekoa dela argi dago, baina bada ñabardurarik. Testu-antolatzaile honekin, eta *oso* graduatzailearekin esatariak bere jarrera eta ikuspuntua adierazteko aukera izango du, markatuagoa izango da; ez baitu informazioa modu neutroan adieraziko.

#### 1.2.-EGI atzizki konparatzaile superlatiboa (neurritz kanpoko) errepikatutako terminoari erantsiz+ modalizatzailea

- Honek euskara garbia maite zuen, **maiteegi apika**, eta ez zuen etsiko entzuten zituenak nolazpait ere zuzendu eta apaindu gaberik. (LIB :55).
- Nerau hizkuntzak irakasten zerbait —**ez gehiegi beharbada**— aritua nahiz eta asko ezagutzen ditut eginkizun horretan langile trebeak direnak. (LIB :63).
- “Agintari” ez da “enperadore”-ren ordain jatorra, ezta “jakinzale” ere “filosofo”-rena, ez gaur eta ez Agustinen denboran; “ele-zati” askotara —**gehiegitara**— har daiteke , ez “silaba”-tzat bakarrik. (LIB I: 76).
- Gainerakoan, hitzez ugari, **ugariegitxo ere bai aukeran**, irakurleak ez baikaude horrelako aberastasunera ohituak. (LIB I: 42).

Azkenengo adibide honetan, gainera, iritzia are eta nabarmenago eginez “txo” atzizki txikigarria erantsi dio. Izan daiteke kritika leuntzeko, edota bere kontrako iritzia nabarmenago egiteko.

### 1.3. ETA artxikonektagailua<sup>272</sup>+ aditzondo modalizatzailea + terminoa errepikatua

- Merezi zuen, **eta ongi merezi ere**, berriz agertzea hainbeste irakurle xehe eta larriren onerako, eta hemen ditugu gure artean “Auspoari” eta San Martini eskerrak. (LIB :130).

- Larzabal apaiz jaunaren izena ongi ezaguna da gure artean, **eta merezi onez ezaguna**, bere teatro lanei eskerrak. (LIB :133).

### 1.4. Aditzondo modalizatzailea edo zenbatzailea + errepikatutako terminoa

- Ez zaigu bakarrik atsegin malko xamurretan lasaitzen den mina; maite dugu, gainera —**izukaraz maite**—, inoren negarrak arinduko ez duen oinaze gordin errukigabea. (ZIN: 164).

- Gero, **askozaz geroago**, sortu zen gogoa eta atsegina, poliki-poliki irakurri ahala. (LIB I: 112).

## 2. BERRAZTERTUZ ETA HAUSNARTUZ FORMULAZIOARI ARGUDIO-NORABIDEA ALDATZEKO EGINKIZUNA

Birformulatua izan den enuntziatuaren hedapenak, progresioa ez ezik, zuzenketa-kutsua ere adierazten du. Parafrastikoetan ez bezala oraingoan ez gara formulazioa testuinguru jakinari egokituz egiten den zuzenketaz ari; oraingoan, hasierako formulazioarekin bat ez datorrelako, edo behintzat bigarren formulazioa esatari-enuntziatzaileak komunikatu nahi zuen horretatik gertuago dagoelako egiten du zuzenketa. Beraz, birformulazioan, esatariaren beraren hatza edo ikuspegia antzeman daiteke, bere argumentazio-haria bideratzeko baliagarri gertatuko zaiona. Eta horretan datza, hain zuzen, birformulazio-estrategia horren eragin argudiatzailea.

Azter ditzagun, ordea, esatariak zein bitarteko dituen birformulazioa berraztertzearen edo hausnartzearen ondorio dela adierazteko.

---

<sup>272</sup>Eta artxikonektagailuari sintaxian berariaz eskainitako atalean (§ 6.4.4.3.) gehiago zehaztu dugu.

### 2.1. Baldintzako egituraz baliatuz

- Badakizue nondik nora datorkigun gehienok, **guztiok ez bada**, ikusi dugun teatro lan hau (LIB II: 81).
- Hizkuntzaren gorputz ustelkorrari, **ustelduari ez bada**, lotuak daudelako, hura pizten duen izpiritu biziari jaramonik egin gabe. (LIB II: 118).

Bi adibide hauekin esatariak ez du irmoki eta zorrotz baieztatuko, baldintzazko egitura honek *ez* aditzondoarekin batera bere baieztapena leundu, arindu egingo du, zalantzarik ere bidea irekiz. Garbi dago, halere, bigarren formulazio honen aldeko joera erakusten duela.

### 2.2. EDO2 Hautakaria

EDO2 buruan daraman enuntziatu parentetiko birformulatzaileri esker, esatariak, aurretik esandakoa (bigarren une batean) berriz aztertu eta hausnartu balu bezala, esandakoaren kontrako ikuspuntua paratuko du. Horrela, muturrekoak eta kontrakoak diren bi ikuspegi edo iritzien arteko hautua egitera behartuko du norentzakoak.

Norentzakoak egin beharreko hautua, ordea, ez da askea izango, esatariak bideratuta egongo da. Izan ere, bi interpretazio-lerro bereiziko ditugu: E1 enuntziatuak dakarren ikuspegia eta iritzia batetik, eta honetatik erabat aldenturik enuntziatu parentetikoak dakarrena, esatariaren ikuspegiarekin bat egingo duena.

Ezin esan dezakegu E1 enuntziatuaren zertzeladaren bat zuzentzen duenik, hala balitz enuntziatu parentetikoak norabide bereko argudioa erabiliz egingo bailuke, nahiz zehaztuagoa, ñabartuagoa izan. Berrazterketaren edo hausnarketa-prozesuaren ondorioz, ordea, esatariak aurkako norabidean doan argudioa paratuko du, norentzakoak bietatik bat hauta dezan.

- Euskara egiten —**edo egin ustean desegiten**— hasi baino hobe genuke euskaldunok euskara ongi ikasten hasi. (LIB I: 69).
- Negarrez gaude beti, euskal irakurgai gutxi ditugula eta, eta ditugun ederrak ere ezin ditugu, **edo ez ditugu nahi**, irakurri. (LIB I: 71).

Goiko adibide horiek erakusten dute, nolabait, birformulazioak esatariaren hausnarketa bat dakarrela. Ez du modu irmo eta itxi batean adieraziko; aitzitik, norentzakoari beste hausnarketa-ildo bat irekita utziko dio gero honek hauta<sup>273</sup> dezan. Garbi dago, ordea, esatariak bigarren formulazio honen aldeko jarrera duela eta, beraz, norentzakoaren haututa ere bideratu xamar uzten duela.

- Mejcoko lur beroetan —**edo lur beroen muga**n— gertatzen den Graham Greene´n ipui labur bat hartu dute oinarri, ezin gehiago luzatuz. (ZIN: 191).

- Horko lagunen buru haustek badute gerok ditugunen, **edo izan genitzakeenen**, eitea. (ZIN: 149).

- Izan genuen Gipuzkoan ukabilkari trebe, **edo gutxienez sendo**, bat. (ZIN: 166).

Esatariak, “trebetzat” baino gehiago jotzen du ukabilkari hori “sendotzat”.

- Gizon izanik, kaskarin xamarra da, eta ez du beti uste dugun —**edo nahi genukeen**— bezala entzuten. (LIB I: 57).

- Ez naiz honetan ari hutsak, **edo huts-ustekoak**, bilatzea maite dudalako. (LIB I: 85).

Bigarren une batez formulatuko duen berrazterketa edo hausnarketa horrek, gainera, sujerentzien munduari atek zabalduko dizkio eta inferentzien errota martxan jarriko.

### 3. TRINKOTZEKO EDO SINTETIZATZEKO EGINKIZUNA

#### 3.1. Etiketatzuz: hiperonimoaz (erreferentzia) sail osoa estaliz

- Axularren garaikoek —**Pizkunde arokoek, alegia, bera ere, berandu xamar jaiogatik, horietakoa baitzen**—antzinako Greko eta Erromatarrek hartu zituzten maisutzat, eta ez hizkuntza gaietan bakarrik. (LIB II: 140).

---

<sup>273</sup>EDO2 hau alde horretatik ALA hautakariarekin berdin daiteke, nahiz eta EDO-ren espazioa ALAren baino irekiagoa eta usuagoa izan:

- Sail horretan, zuzen edo oker, buruzagitza emana —**ala hartua**— dauka, bere “Pascual Duarte” dela bide, batez ere. (LIB I: 51).



- Gure gorputz-animak, gorosti-makilaz bezala astintzea ez da agian zinemak —**eta arteak erabat**— mendera dezakeen helbururik gorena. (ZIN: 174).

### 3.2. Ondorioztatuz

- Erderatiko hitzak —**ez horrenbestez erdal hitzak**— kupidarik gabe hartzen ditu. (LIB :76?).
- Gizon berbera —**idazle berbera, beraz**— ageri da hiruotan (LIB II: 152).

Ondorioa aditzera ematen duten lokailu eta guzti, esatariak, lehen formulaziotik bertatik ateratako ondorio moduko bat paratuz birformulatzen du.

## 4. MUGAK ZABALTZEKO EGINKIZUNA

Birformulazio-teknika hau balio orotarikoa duen abiaburuko enuntziatua (dela enuntziatuko atalen bat) zehaztuz edo konkretatuz egiten du. Horretarako, batzuetan, adibidez hornitzen du, eta holakoetan esatariak paradigma edo sail oso batetik berak batzuk, nahi dituenak, hautatzen ditu, eta beste batzuetan sail horretako nabarmenenak direnak. Besterik da, ordea, zehazterakoan egiten duena: orokortasun eta osotasun horretatik puntu jakin, zehatz batera egingo du jauzia, eta puntu jakin hori bere osotasunean estali. Aldiz adibideak ematean esatariak edozein puntu hautatuko du eta adibideek ez dute sail osoa estaliko, saila irekita utziko du.

### 4.1. Zehaztuz

- Har itzazue hiru lagun —**senarra, emaztea eta lapurra**— eta bil itzazue elkarrekin basa bazter batean. (ZIN: 130).
- Lehengo bi sailei buruz —**nobelak eta ipui laburrak**— Euskaltzaindiak hartu dituen erabakiak ezagunak dira, Euskalerriko egunerokoek zabaldu baitituzte. (LIB I: 48).
- Indioak ere hemen ditugu, apatxeak (**Mescalero edo Chiricahua**), bere buruzagi eta guzti (**Cochise, Victorio edo Jerónimo**). (ZIN: 131).

- Eta frantsesez ez dakienak? Horrek ere erabil dezake, neke gehixeago hartu nahi badu. Ez du aldamenean beste hiztegi bat —**gatzelania-frantsesa**— eduki besterik. Bi lan egin beharra izango du, alferraren gisa. (LIB I: 104).

- Ez zituen Bonapartek, egia esan, Elizak agindu bezala argitaratzen, ez baitzituen euskaldunen arimen onerako eragin, baina huts horiek —**behar ziren oharrak eta baimenak**— erraz osa zitezkeen, euskaldunok nahi izan bagenu. (LIB I: 111).

Lehen formulazioko baieztapen orokorra (sail orokorra), zerk osatzen duen enumeratu, zerrendatu egingo du eta horrela termino orokor hori zehaztea, konkretatzea lortuko du. Zerrendatutako osagai hauek, ordea, ez dira sail horretako adibideak soilik, sail hori bere osotasunean estaliko duten osagaiak dira. Eta horrela zehaztea lortuko du; hau da, zehatz-mehatz berak aipaturiko sail hori zerk osatzen duen finkatzea.

Zehaztea, azken batean, argudio-mekanismo bezala erabiliko du esatariak; izan ere, birformulatzen den oro esatariaren intentzioei egokitzeko asmoz birformulatzen da, eta ondorioz, diskurtsoaren argudio-norabide jakin bati erantzungo dio.

#### 4.2. Adibidetuz

- Ez baita *labore*-k Erreterian Azkuek beste lekutan bildu duen adiera: *labore* da jakia ez dena eta jakiarekin jaten dena (**ogia, taloa edo antzekoak**). (LIB I: 108).

“Edo antzekoak” esapideak, finkapenezko harremanean gertatuko ez den bezala, beste hainbat adibide ere ahalbideratuko lituzke, ez baitute sail osoa estaliko.

- Hilbizunetan izaten dira zenbait txolarte alai —**adiskide artean, hildakoaz ahazturik, egiten diren berriketak eta**—, eta Sacha Guitry zena ere, goian bego, saiatu da aldiz ikuslearen zama arintzen. (ZIN:

- Oraingoan, H. Melvilleren eleberriz ezaguna zinemaratzean, antolamendu leiala, trebea eta biluzia eman digu, ohi diren apaingarriak —**neskatxa lirainen maite-minak eta**— bazterturik. (ZIN: 186).

*Eta* horrek adibideak luza daitezkeela adierazten digu. Esate baterako, finkapen harremana gauzatzen dutenek ez dute era honetako “eta” bat onartuko. Anakolutoko *etak* enuntziatua bukatu gabe dagoela adierazten du.

Anakoluto joskeran, *etari* legokiokeen bigarren terminoa ezabatu egingo da, enuntziatua amaitu gabe, zintzilik geratuko balitz bezala. Holakoetan, emendiozko juntagailu-lokailuak ez du ezer emendatzen.

#### 4.2.1. ESATERAKO antolatzaileak lagunduta

- Nere begi-adimenak ez dira zenbaitenak bezain zorrotzak eta ez dut esango film honetako sinborlo guztien funts izkutua —**sorgin gaztearena, esaterako**— ezagutu dudanik. (ZIN: 198).
- Hark erakutsi baitzigun —**Aitorkizunetarako hamargarren jardun horretan, esaterako**—gure barrengo zoko ilunak aztertzen eta ezagutzen. (LIB I: 75).

Azken batean, esatariak adibideetara jotzen du bere iritzi-ondorioek babesia izan dezaten, edota bere iritzi-ondorio horiek justifikatuak izan daitezen.

#### 4.2.2. ZEHAZTUGABETIK—ZEHAZTEKO URRATSA

- Eta, sasikoa ez dena jatorra eta behar bezalakoa denez gero, horra non aurkitzen dugun Peru arlotea egiaren eta zuzentasunaren martiri bihurtua, munduarentzat nardagarri baina norbaitentzat —**ez den Jainkoarentzat edo**— kuttun eta maitagarri. (LIB I: 139).
- Badira nonbait —**Euskalerrian edo**—euskaldun izeneko gizon emakume batzuek. (ZIN: 130).

Bi adibide horietan *edo* anakoluto joskeran darabil; hau da, ez du, bada, *edori* legokiokeen bigarren terminoa agertzen, enuntziatua amaitu gabe, zintzilik uzten du; hautakizun bakarra aurkezten du. Hautapenaren orde, zalantza, hipotesia edo baieztapen erreserbatua markatuko luke.

### 4.3. Nabarmenduz

#### 4.3.1. BATEZ ERE antolatzaileak lagunduta

- Trebe baino trebeago izan da beti hitz berriak sortzeko —**hitz elkartuak batez ere**— edota hitz arrunt ezagunak adiera berri batera egokitzeko. (LIB I: 76).

- Etxaidek “gipuzkera osatuan” ipintzea erabaki du, eta erabaki hori ezin zezaketen guztiek, **Pernandoren herritar eta auzokoek batez ere**, ontzat har. (LIB I: 91).

Adibideak kontuan izanik, *batez ere*, paradigma edo klase bateko kide zehatzak seinalatzen ditu, baina badirela (izan daitezkeela) beste batzuk ere auresuposatzen: analisi hedakor eta analogikoa dela medio, elementu berrietara egitea baimentzen dute. Bestalde, Larringanek dioen bezala, “partikula horiek bideratu elementuari, kualifikatua izanik, esandakoarekiko nolabaiteko eredutasuna zor zaio: eztabaidagai eta interpretazio-bide bilakatzen zaigu”. (Larringan (1995: 110).

Hauek, diskurtsoan duten eginkizunari dagokionez, objektuaren deskribapena bideratzen dute, baina baita argumentazio-zereginetan parte hartu ere. Enuntziatzaileak, zerrenda baten barnean, elementu edota alderdi berezi batzuk nabarmentzen ditu. Antolatzaile hauek erabiliz, esatariak kasu konkretuen edo zehatzen irakurketa bat egingo du, irakurketa norabideratua, hain zuzen.

Bai adibideak ematean, bai nabarmenenak zehaztean, bietan zerrenda luza daitezkeela auresuposatzen da, finkapen harremana zedarrizten dutenetan ez bezala.

Honekin guztiarekin ondoriozta dezakegu esatariak, enuntziatio-ekintzaren sortzaile eta erantzule den heinean, maiz, bere iritzia, tesiak edo ondorioak azaltzeko behin eta berriz birformulazioetara jotzen duela, nolabait ere bere intentzioei eta norentzakoaren interpretazio-baldintzei hobeto egokitzen zaion formulazio baten bila. Horretarako enuntziatu parentetikoak baliabide ezin hobeak gertatuko zaizkio. Enuntziatu parentetikoan adierazten duen bigarren formulazio honek bide ematen baitio enuntziatio-ikuspegia modu markatu batez aldatzeko ere, eta, ondorioz, bere argumentazioa berak nahi duen bidera lerratzeko mekanismo bihurtuko du.

Horretarako, birformulazioaren barnean modu bat baino gehiago izango du: batetik, informazioa argi eta garbi azaltzea komeni zaio eta horretarako azalpenak eman, azalpenak bere iritziez zipriztindu, nahiz azalpenak zehaztu, adibidez josi, berraztertu eta zuzendu ere egingo ditu. Hala, komeni zaionean, abiaburuko formulaziotik aldentzeko aukera izango du, eta horrela bere enuntziatioa iruzkintzen edo komentatzen ere lehena izango da.

Honekin guztiarekin, bada, ustez frogatu dugu enuntziatu parentetikoak esatariaren argudiatzean aurrera egiteko estrategia badirela, eta Mitxelenak enuntziatu parentetikoak behin baino gehiagotan diskurtso-eginkizun horretara bideratzen dituela.

#### **9.4. ENUNTZIATU PARENTETIKOAK, PERTSONARTEKO HARREMANAK BIDERATZEKO ESTRATEGIA**

##### **9.4.1. Sarrera**

Enuntziatu parentetikoek, pertsuasio-saioak arrakasta izan dezan, diskurtsoan duten eginkizuna aztertzen dihardugu. Esatariari, bere arrazoibidea edo argudio-haria aurrera eramateko bitarteko gertatzen zaizkiola ikusi dugu goian: bere argudioak justifikatzeko, indartzeko (enuntziazio-mailako nahiz modalizazio-mailako osagaiez lagundurik), baieztatzeke nahiz kritikatzeko eta abar. Hondarrik hondarrean, enuntziatu parentetikoek arrazionaltasunari zuzenean lotutako teknikak eskaintzen dizkiola aztertu dugu.

Pertsuasio-saioak arrakasta izan dezan, ordea, goian aipaturiko teknikak ez dira aski; norentzakoaren interesa eta arreta erakartzeko eta honen atxikimendua lortzeko, beste hainbat taktika erabili beharko ditu. Taktika edo estrategia hauek, berak nahi duen norabidean informazioa kateatu eta egituratzeari baino gehiago dagozkio esatariak norentzakoarekin bideratuko duen “pertsonarteko” harremanari; izan ere, norentzakoak egin beharreko interpretazioa bideratzeko, honekin auzolanean aritu beharko du esatariak. Eta horretarako, ezinbesteko gertatuko zaio norentzakoa mugiaraziko duten sentimenduzko balioak ere ezagutu eta diskurtsoan bertan ezagutza hori aktibatzeke teknikak kontrolpean izatea. Beraz, ez soilik arrazoari dagozkionak, baita amultsutasunezkoak edo afektibitatezkoak ere.

Esataria pertsonarteko “feed-back” hau diskurtsotik bertatik bideratzen saiatuko denez, diskurtsoan utziko ditu kooperaziozko harreman horrek bere aztarnak. Esatariari, norentzakoaren konfiantza, sinesgarritasuna eta hurbileko izatea lortuko badu, komeni zaio bien arteko interakziozko harreman hori bide “egokitik” eramatea; edo, behintzat, edozein elkarrizketak betetzen dituen arauak (Grice 1975) kontuan izateaz gain, gizalegez eta kortesiaz, inoren “irudia” mindu gabe, aritzea. Eta hori guztia, gure ustez, komunikazio-trukeak arrakasta izan dezan egingo du esatariak; hots, berak norentzakoa limurtu eta bere asmo-ondorioetara erakartzeko helburuarekin.

Atal honetan, “pertsonarteko” harremana bideratzeko eginkizunean enuntziatu parentetikoek lagun dezaketela egiaztatzen saiatuko gara; are gehiago, elkarlan horrek bere aztarnak proposiziozko edukian baino gehiago, perpaus bazter posizioan eta, bereziki, enuntziatu parentetikoetan uzten dituela ikusiko dugu. Azken batean, enuntziatu parentetikoak *dictum* edo proposiziozko edukitik harago dagoen makroegiturazko edukia (modalizazio mahiz enuntziazio mailakoa) bideratzeko bitarteko egokiak baitira.

#### **9.4.2. Esatariaren eta norentzakoaren arteko komunikazio-trukea: interakziozko harremana**

Komunikazio-trukean, informazioa barreiatzeak (proposiziozko edukia) bezainbesteko garrantzia du “pertsonarteko” funtzioa gauzatzera bideratutako estrategiak; hau da, esatariaren eta norentzakoaren arteko harremana bideratzea helburu duten komunikazio-estrategiek.

Esatariaren eta norentzakoaren arteko interakziozko harremana bideratzeko, Griceren printzipio edo hastapenak kontuan izango ditugu eta horiek osatuz, eta zenbaitetan horiekin tentsio-orekan, kortesiazko estrategiak aztertuko ditugu. Hondarrik hondarrean, ordea, pertsuasio-helburu orokor baten zerbitzura daudelakoan gaude: esatariak norentzakoaren atxikimendua lortzeko, diskurtsotik bertatik, norentzakoarekin harreman “egokia” bideratzen saiatuko da, bien arteko “konplizitatea” lortzen, eta horretarako, auzolanean aritu beharko dute; auzolanean eta gizalegez, inoren “irudia” mindu gabe, bien artean egon daitezkeen gaizki-ulertu nahiz gatazkak saihestu eta leuntzeko helburuarekin.

##### **9.4.2.1. FUNTZIO FATIKOA DUTEN ENUNTZIATU PARENTETIKOAK**

Norentzakoari dei eginaz bere arreta erakartzeko helburua duten enuntziatu parentetikoak ugariak dira corpusean. Esan dezagun, diskurtso-ekintza hori bien arteko elkarlanaren seinale, esatariak norentzakoarekin bideratu nahi duen elkarrizketaren arrastoak direla. Fuentesek funtzio edo eginkizun horri, funtzio fatikoa deitzen dio:

Vamos a dedicarnos ahora al estudio de algunas unidades que tienen como función apelar al oyente, llamar su atención, pedir su colaboración en el acto discursivo. Son elementos intradiscursivos, enunciativos, aunque dirigidos hacia el oyente. Sirven para

mantener la coherencia básica de la comunicación: la relación con su interlocutor. (Fuentes 1990: 172).

Fuentes ez da enuntziatu parentetikoez ari, baina, gure ustez, jarraian aztertuko ditugun enuntziatu parentetikoaren eginkizuna horixe bera da: norentzakoaren arreta erakarritik, norentzakoaren ere bere diskurtso-ekintzako partaide bihurtzea. Azken batean, esatariak norentzakoarekin bideratuko duen “feed-back”-aren seinale lirateke.

### 1. Bigarren pertsona

Aditzaren bigarren pertsonaz baliaturik (singularra nahiz plurala), norentzakoari zuzenduko zaio esataria:

- Egiatzko lirikarako joera ez dator ez jakitetik ez hizkuntza landutik. Barrendik dator edo, **nahiago baduzue**, goitik. (LIB II: 84).

Norentzakoaren aurrez aurre duelako seinale lehen enuntziatua birformulatuko du, ustez, norentzakoarentzat errazagoa edo egokiagoa den formulazioa hautatuz. Horrela, norentzakoaren ere bere diskurtsogintzako partaide aktibo bihurtuko da.

- Gutxi gorabehera, **badakizue**, Oraune'ko Errolbak itzuli zigun “Florentzian idazlari koxkorra”-ren kidea. (ZIN: 158).

- Onak gailen, gaiztoak lotsagarri ikusirik azkenean, alai irtengo dira zinetik, eta sartu baino zintzoago direlakoan gainera, gogoan onen alde baitzeukaten —**badakizue alderdi horretakoak izaten garela beti, zineman behintzat**— eta eserlektutik mugitu gabe onei eginahalean lagundu baitiete. (ZIN: 124).

Bi adibide horietan esataria testutik bertatik norentzakoari zuzentzen zaio, haren (solaskidearen) iritzia ere esatariarenarekin berarekin bat datorrela adieraziz. Biak informazio pragmatiko beraren jabe direla nabarmendu nahi du. Beraz, itxuraz behintzat, ez zaio ezer berririk esaten ari (erredundantea da), baina badaezpada ere adierazi beharreko zerbait gertatzen zaio.

Edukiaz informatzeak baino garrantzi handiagoa du apika esatariak norentzakoaren konplizitatea lortzeko: biak, bai esataria eta bai norentzakoa, talde berean daudelako itxura egiten du, edo behintzat, jokabide honekin, norentzakoari hala sentiarazi nahi dio. Horrela, biak informazio pragmatiko beraren jabe izanik, errazago egingo zaio bere arrazoibidean aurrera egin eta norentzakoa bere iritzietara erakartzea. Beraz, biek batean “omen” duten (edo behintzat hala dutela sentiarazi nahi dio) informazio edo ezaupideaz baliatzen da bere argudioan aurrera egin eta norentzakoaren atxikimendua lortzeko. Beheraxeago ikusiko dugun Levinsonen (1987) kortesia positiboari lotuko zaio.

Beste batzuetan, esatariak ahalerazko forma darabil testuan bertan norentzakoari zuzendu nahi zaionean. Ez dio agindurik ematen, edo behintzat agindu-kutsua kenduz norentzakoari zerbait egitea iradokiko dio: zerbait hori egiteko “aukera” duela adieraziko dio. Beraz, kortesiaz, gizalegez mintzo da, ez baitu zakarra izan nahi. Jokamolde hau, Lakof-en (1973) “norentzakoari gain ez hartu eta norentzakoari aukerak eskaini” arauari lotuko zaiola ikusiko dugu.

- Argitasunik nahi duenak jo beza Lafitte jaunak, Herria astekarian aurrenik eta liburuxka batean gero —**horren berria aurreraxeago ikus dezakezu**— euskal itzulpen zahar eta berriei buruz argitara berria duen idazlan jakintsua. (LIB I: 112).

- Ez zara damutuko, **horixe alde aurretik esan diezazuket**, liburu hau erosteaz. (LIB I: 146).

## 2. Agintera

Aginterara formaz esatariak norentzakoari dei egin eta hau zerbait egitera mugiaraziko du:

- Dirudienez, ez baitut kontatu, 255 lerro utzi nizkion Larramendiri, “cuya obra principal es un diccionario vasco-español (**atzekoz aurrera irakur beza irakurleak**) plagado de aberraciones”, eta 38 Bilintxi, beste zenbaiten artean. (LIB II: 83).

- Eta ezaguna dugu batez ere Aita Villasantek duela zenbait urte (**ikus 1961-ko EGAN, 259-260 orrialdeetan**), haren gogoeta sakonak eta esaera zorrotzak ahotik paperera aldatuaz, bildu zuen Aitonaren uzta joria dela bitarte. (LIB II: 124).



- Aspaldi ez duela (ikus EGAN 1962, 309-310 orr.) Aita Zavalak Txirrita bertsolariari jaso zion bezain oroitarri iraunkorra eraiki dio orain beste bertsolari handi bati: Pello Errotari. (LIB II: 129).

Adibide horietan, esatariak berak esandakoa egiazkoa dela adierazteko, norentzakoari zehazten dio non egiazta dezakeen. Aginduaz baino gehiago norentzakoari ematen dion arduraz hitz egin beharko genuke; izan ere, esatariak dioena egiazkoa dela bere kabuz egiaztatzeko ardura emango dio. Beraz, garbi dago esatariak norentzakoarekin auzolanean diharduela. Eta hori hain da horrela (kortesia-zko jokamoldea aztertzean sakonduko dugu), hainbatetan, “balizko” huts egiteen aurrean, aldez aurretik barkamena ere eskatuko dio norentzakoari.

- Xenpelarren bertsoetan zenbait huts, edo huts diruditenak behintzat —**eta barka, oker banabil**— ageri dira. (LIB I: 107).

### 3. Deiki funtzioa duten enuntziatu parentetikoak

Beste hainbat adibidetan, enuntziatu parentetikoak erabiliko ditu enuntziatua sortu duen unean buruan duen norentzakoari dei eginaz haren arreta erakartzeko.

- Eta ez dezazula Jainkoagatik gutxietsi, **garbizale horrekin ari naiz**, nahi bezain garbia ez deritzozulako. (LIB II: 40).

Gaizki ulerturik egon ez dadin edo, zehatz-mehatz adierazten du zeinekin ari den, zeini zuzentzen zaion bere komunikazioa. “Garbizale” horrekin ari da zuzenean, honekin gauzatzen du fikziozko bere elkarrizketa edo dialogoa.

### 4 Norentzakoari ez ezik, hartzaileari ere deia

Norentzakoari ez ezik, batzuetan, hartzaileei<sup>274</sup> ere zuzenduko zaio, edo behintzat horiek ere kontuan izango ditu:

---

<sup>274</sup>Ikus metodologiaren atalean, eta komunikazio-estrategien atalean egin dugun “norentzakoaren” eta “hartzailearen” arteko bereizketa. Mitxelena bera ere badirudi jakitun dela hartzaile guztiak ez direla bere mezuaren norentzako.

- Jostaketa atsegina izango litzateke agian zuretzat — **eta bide batez irakurleentzat**— barrena eta zeure inguru hurbilera begira mintzatuko bazintzaizkigu, behin bederen. (LIB II: 140).

Esatariak berak egiten du norentzakoaren eta hartzailearen arteko bereizketa. “Zuretzat” hori izango litzateke komunikazio-ekintzako zutarria, esatariak honekin txandakatzen baititu bere egitekoak, baina, bidenabar, gainerako hartzaileei ere eragin diezaieke, “irakurleei”.

#### 9.4.2.2. EUNTZIATU PARENTETIKOA, GALDERA ERRETORIKOAK FORMULATZEKO BIDEA

Norentzakoarekin gauzatzen duen elkarrizketaren edo dialogizitatearen lekuko, esatariak maiz galdera erretorikoen teknikara jo ohi du. Polifonia-gertakaria aztertzerakoan ikusi dugu esataria galdera erretorikoen teknikaz balia daitekeela enuntziatzaileei zuzentzeko. Beti ez zaie, ordea, enuntziatzaileei zuzenduko. Beste batzuetan, badirudi esatariak galderak norentzakoari zuzentzen dizkiola, edo behintzat, honekin bideratu nahi duela elkarrizketa. Eta horrek diskurtsoari dinamismoa emateaz gain, baieztapenak eztabaidaezinak edo erabat irmoak ez direlako sententzia ematen du, nolabait norentzakoarekin (norentzakoaren usteekin) banatu nahiko balitu bezala.

- Hemen, egia esan, bideak zabalik zeuden, baina, euskararen truk beren ametsak eman nahi dizkiguten gramatikariaren axolagabekeria batetik eta idazleen lasaieria bestetik (**ba ote dago nork bere gogara, antzora, eta moldera egitea baino errazagorik?**), aspaldi josi zitzaigun otez eta elorritz. (LIB I: 128-129).

- Aspaldidanik ikasia dugu (**Stendhal-en Chartreuse de Parme-z gero?**) ez dutela elkarren antz handirik historilarien irudi zabal apainek eta burrukan sartua dagoen txingurri bakoitzak bere leiho meharretik ikusten duenak. (LIB II: 55).

Zentzuzkoa da pentsatzea esatariak ez duela norentzakoak galdera hori erantzuterik espero. Zer da orduan esatariak galdera erretoriko bat formulatzen duenean erdietsi nahi duena?

Corpuseko adibideei erreparatuz ohartuko gara galdera erretorikoz formulatutako enuntziatu parentetikoek hainbat komunikazio-funtzio bete ditzaketela diskurtsoan. Hona hemen nagusiak:

1. Zuzenak eta egokiak ez direla iruditzen zaizkion jarrerak edo baieztapenak kritikatu edo hauei eraso egitea

- Zer arraiotarako behar du euskaldun berriak jakin nola esaten diren “apogeo” eta “Perigeo” (**Nola esaten diren?**). Bada ordu gure egitekoari lot gakizkion (euskara irakastea bada, ahalik ongien eta errazen irakasteari), hodeietatik apur batez jetxiaz. (LIB II: 49).

- Troar´ek itxumustuan erasartu zuten zaldia...ta danak erri-barrura sarturik, egundoko lepoketa (itoketa) egin zuten”. (**Era-sartu? Ez ote dugu euskaldun guztiok “sar-erazi” esaten? Eta noiz ezkerro ito dezake inor burni eta tupiki zorrotzak?**) (LIB I: 69).

- Akamenon Mukene-urira elduala, bere emazte Klitaimnestere ta Aigista´k asmo batez erail zuten” (**Zenbat Agamenon ziren heldu ahala hiltzeko?**) (LIB I: 69-70).

- “Pars´ek sagarra Aporidite´ri eman zion, norbera auzian ederren autetsi zuelako” (**Norbera”, nor da “norbera” hori?**). (LIB I: 70).

2. Norberaren iritzi edo jarrera pertsonala adieraztea

- Iñakik eta Begoñak seme bat dute: “el” Txantxo (**ze izen arrano da hori?**) (ZIN: 133).

- Esamesak ibili dira —**nola ez?**— beste alde batetik, nobela honen inguruan. (LIB II: 78).

- Nabari zaio ez dela gaia zenbaiten (**askoren edo gutxi batzuen?**) gogoko izango eta hala ere, edo horrexegatik beragatik, batere beldur eta kupidarik gabe azaldu nahi luke. (ZIN: 145).

3. Hainbat iritzi edo baieztapen zalantzan jartzeko modukoak ez direla adieraztea; hau da, baieztapena ukaezintzat jotzea.

- Eta azkenean, behar bezala, onek daramate saria, diruaren ordezkintzia garbia besterik bada ere. Izan ere —**nork ukatuko?**— ez omen da aberastasun hoberik. (ZIN: 167).

- Egilearen iritziak —**eta norenak ez?**— okerrak izan daitezke hemen edo han (LIB I: 130).

- Aita Villasante ezagutzen duenak —**eta nork ez du ezagutzen izenez behintzat gure artean?**— badaki nola egiten dion beti lanari, sustraiz eta funtsez, bil eta azter ditzakeenak oro bildu eta aztertu ondoren, edozein sailetan. (LIB II: 60-61).

#### 4. Zalantza nahiz zuhurtasuna adieraztea

- Aspaldidanik ikasia dugu (**Stendhal-en Chartreuse de Parme-z gero?**) ez dutela elkarren antz handirik historilarien irudi zabal apainek eta burrukan sartua dagoen txingurri bakoitzak bere leiho meharretik ikusten duenak. (LIB II: 55).

- (...) eta zinea artea denez gero —**zazpigarrena?**—, gure arte-lanak ederragoak ote haienak baino. (ZIN: 160).

#### 5. Etorkizunari begiratzea edo etorkizunean gerta litekeenaren zertzelada batzuk ematea

- Inoiz edo behin —gero eta hobeto gabiltzala— egiazko *Garoa*-ren oroitzapena bera galduko balitz ere (**zer esango lukete orduan kritiko bihurriek?**), oraingo inausaldian baztertu diren abarrak jaso nahi genituzke *Egan*-en. (LIB I: 80).

Funtzioen edo eginkizunen sail hori, ordea, adibideen arabera luza liteke. Ez litzateke harritzekoa izango galdera erretorikoen bidez *interesa sortzea* edo *diskurtsoa* bera *egituratu eta antolatzea* bilatuko balu ere. Parentetikoaren egitura ez darabilelarik behintzat Mitxelena-rengan ohikoa da galdera erretorikoak diskurtsoa antolatzeke edo interesa sortzeko estrategia gisa erabiltzea.

*Julius Caesaren* kritika irakurri besterik ez dago hori ikusteko. Bertako pasarte batzuk aldatuko ditugu:

Antzezkizunak ez du nahaspil handirik. **Zertarako?** Shakespearek ez zekien noski antzinako Erromaren bizitzaz deus askorik; ustekabeen bere garaiko ohitura eta

gauzak ere agertu zituen. Baina ordukoen barrunbeak nolakoak ziren—bere garaikoak, gaurkoak eta gerokoak bezalakoxeak, alegia—, ederki zekien, hori bai, eta baita besteri adierazten ere. Ez du beraz hemen zuzendariak—bestelako filmetara ohituak genduzkan J. L. Mankiewicz'ek—axaleko zehaztasunaren bila ibili beharrik, “Quo Vadis?” batean bezala. Eta teatro dena teatro huts bezala azaltzeko ere kupidarik ez du.

Bruto goibel dabil aspaldian. Maite du Cesar, adiskide eta ongilea, bihotzez maite ere, baina beldur da; honen agindu nahiak ekar ditzakeen kalteen beldur. Ezin berdin dezakeen egarriak erretzen du gainera bihotzaren erdian; aurreko Bruto handi hark azkeneko Erregeren mendetik atera zituen Erromarrak eta Erromako plazetan daude oraindik haren oroigarriak. **Berak, haren pare izateko ahalmena bere baitan sumatzen duen ondorengoak, zer egiten du? Zertarako bizi da?**

Cassio berriz espak jaten du. **Zer da, bada, Caesar hori?** Besteak bezalakoxea lehen, handizkien artean bat; orain lehenbiziko, guzion buruzagi. Noraino jo behar du? Eragozteko, jakina, bide bat dago bakarrik, heriotza, baina Cesar handiaren heriotza zurrizko ezin-eramana eta bekaitza baino estalki apainagorik behar. Hor dago Bruto, ordea, Bruto zuzena, eta Cassiorenak aspaldian zai zegoen hitzak dira honentzat. Ez du eginkizunak alaitzen, goganbehar izkutu batek adierazten baitio hondamenera doala. Baina ez dio axola. Berak baztertuko du menderatzailea, zeharo baztertu gero, baina ez gorroto duen etsaia, adiskiderik maiteena baizik. **Nola eskaini askatasunari horren odola baino eskari ederragorik?** (ZIN: 125-126).

Artikulu bere osotasunean da aztertzeko modukoa, galdera erretorikoz josia baitago. Funtsean, bere arrazoibidean aurrera egin dezan, diskurtsoa antolatu eta egituratzeko, norentzakoaren interesa pizteko nahiz bere jarrera edo iritziak txertatzeko ongi baino hobeto datorkio galdera erretorikoen teknika hau. Zail gertatzen zaigu atzematen, ordea, galdera horiek guztiak ez ote diren pertsonaiek darabiltzaten pentsamenduen oihartzun, edota galdera erretorikoen teknikarekin ez ote dakartzan paperera balizko ikusleen galderak eta kezak. Askotarako balio dezake, bada, teknika honek Mitxelenaren luman, baina bereziki diskurtsoaren antolamenduaren zutari nagusi dela ezin uka. Horretaz jabetzeko ikusi besterik ez dago paragrafo gehienak galdera erretorikoren batekin hasten edo amaitzen dituela.

Hel diezaiozun parentetikoaren egituraren azpian biltzen diren galdera erretorikoei, horiek baititugu azterkizun. Goian zehaztu ditugun komunikazio-funtzioak ugari badira ere, guztiak daude diskurtso-eginkizun orotariko baten menpe edo zerbitzura: eginkizun guztiak norentzakoa limurtu edo pertsuaditzera bideratuta daude. Hondarrik hondarrean, norentzakoari zuzendutako galdera hauekin, esatariak norentzako hori testuan nahasi, tartekatu, “inbolukratu” nahi du. Norentzakoak diskurtso hori bere egin eta senti dezan nahi

du, horrela limurtu edo pertsuaditzeko. Beraz, pertsuasio-prozesuaren ibilbide horretan hainbat helburu beteko lituzke galdera erretorikoz osatutako enuntziatu parentetikoak:

1) Norentzakoaren presentzia eta partaidetza auresuposatzen du. Galdera erretorikoen erabilerak berarekin dakar norentzakoa testuan bertan dagoelako ustea eta, gainera, berak sortutako diskurtsoaren partaide senti dadin saiatzeko da. Esatariak norentzakoa ez du informazioa jasoko duen hartzaile soiltzat; aitzitik, galdera erretorikoei esker, esatariak norentzakoari sinetsarazi nahiko dio bere iritzi-usteen garrantzia dutela eta hein batean argudiatze-prozesu horretan biek dutela erantzukizuna.

- Hemen, egia esan, bideak zabalik zeuden, baina euskararen truk beren ametsak eman nahi dizkiguten gramatikalariei axolagabekeria batetik eta idazleen lasakeria bestetik (**ba ote dago nork bere gogara, antzora, eta moldera egitea baino bide errazagorik?**), aspaldi josi zitzaizkigun otez eta elorritz. (LIB I: 128-129).

Esataria galdera erretoriko horri esker aipaturiko bi izen negatibo horiek (axolagabekeria, lasakeria) justifikatu egingo ditu, baina baieztapen zorrotza egin ordez, norentzakoa inplikaturik, eta norentzakoaren baietza jasotzeko helburuarekin berari zuzenean galdetuz.

2) Aurrekoari hertsiki uztartuta, galdera erretorikoei esker, esatariak norentzakoaren babesa lortu nahi du, berak proposatutako ideiekin identifikatu eta bat egitea. Bestela esan, esatariak eta norentzakoak dituzten iritziak bat baletoz bezala aurkeztuko ditu eta, ondorioz, bere argudio-haria zalantzarik gabekoa balitz bezala.

- Eta azkenean, behar bezala, onek daramate saria, diruaren ordez kontzientzia garbia besterik bada ere. Izan ere —**nork ukatuko?**— ez omen da aberastasun hoberik. (ZIN: 167).

- Egilearen iritziak —**eta norenak ez?**— okerrak izan daitezke hemen edo han. (LIB I: 130).

Dafouz Milneren ustez (2000: IV<sup>275</sup>-70), galdera erretorikoei esatari-norentzakoaren arteko adostasuna lortzeko balio dute eta, jakina, zenbat eta adostasun handiagoa esatari-

---

<sup>275</sup>Ikertzaile honek bere lana atalka zatitu zuen eta atal bakoitza hutsetik hasten zen zenbatzen. Beraz, ez da aski orrialde zenbakia jartzea; orrialde zenbaki hori zein atali dagokion ere zehaztu beharra sentitu dugu.

norentzakoaren artean, orduan eta indar eta sendotasun handiagoa izango du esatariak helarazi nahi duen tesiak.

3) Hizketa-ekintzen teoriak galdera erretorikoak kortesiazko hizkuntza-estrategiatzat jotzen ditu. Izan ere, argudiatzea bera edota argudiatze horretako alderdiren bat galdera bezala planteatzen da eta ez baieztapen bezala. Eta horrek badu bere funtsa: eztabaidagarriak diren ideiak baieztapen irmo bezala aurkeztuz gero, aukera gutxiago legoke norentzakoaren adostasuna lortzeko eta, ondorioz, esatariarekin bat egiteko baliagarri izan ordez, norentzakoa esatariarengandik gehiago aldentzeko balioko luke. Teknika hori, bada, ongi zaintzen du Mitxelenak, baita kritika zorrotzak egiten ari denean ere:

- “Troar´ek txumustuan erasartu zuten zaldia...ta danak erri-barrura sarturik, egundoko lepoketa (itoketa) egin zuten” (**Era-sartu? Ez ote dugu euskaldun guztiok “sar-erazi” esaten? Eta noiz ezkerok ito dezake inor burni edo tupiki zorrotzak?**). (LIB I: 69).

- “Akamenon Mukene-urira elduala, bere emazte Klitaimnestere ta Aigista´k asmo batez erail zuten” (**Zenbat Agamenon ziren heldu ahala hiltzeko?**) (LIB I: 69-70).

Kortesiazko erabilera izan daiteke hitz itsusi bat tartekatu aurretik norentzakoari galdegitea, edo “baimena” eskatzea ere:

- Bagenituen lehen euskaraz sasi-jakintsuak, sasi-letraduak eta (**zergatik ez esan?**) sasi-kumeak; orain berriz, lehengoan gain, sasi-absolutuak, sasihelburuak, sasi-kezkak, sasi-pakeak eta nik al dakit beste zenbait sasi-gauza. (LIB I: 139).

Edota, bere burua ere kritikatuak izan diren haien sailean tartekatzea.

- Ingelesek high-Brows deitzen dituzten kontentagaitz haietako direnek (**edo garenek?**) esango dute beharbada. (ZIN: 124).

- Baina kopet harro ez direnek (**ez garenek?**) ez dute damu izango ikustera joana. (ZIN: 124).

Goiko adibideetako jokabideak erakusten digu esatariak bere burua ere kritika egin dienen artean sartzea izan daitekeela kortesiaz, gizatasunez jokatzeko modu bat: *kontentagaitz* nahiz *harro* izenondoak negatiboak baitira eta, beraz, inoren irudia ez zikindu

eta ez mintzeko modu bat bada bere burua ere multzo berean sartuz norentzakoari galdera egitea.

Atenúa un sentimiento negativo (...) porque va contra la cortesía expresar estados íntimos, es una manera de desnudarse, de exponer su imagen al criterio de los otros. (Fuentes & Alcaide Lara 2002: 405).

Honenbestez, galdera erretorikoen teknika pertsuasioa erdiesteko xedeari loturik ikusiko genuke. Esatariak bere arrazoibidean aurrera egiteko ezinbestekoa gertatzen zaio bere ideiek norentzakoaren babesa izatea, eta horretarako norentzakoarekin elkarrizketa bidez elkarlanean aritu beharko du, nahiz eta elkarrizketa hori imitatua edo fikziozkoa izan.

#### 9.4.2.3.ELKARRIZKETA BIDERATU ETA ERREGULATUKO DUTEN ARAU-MAXIMAK: GRICEREN LAGUNTZAREN HASTAPENA ETA KORTESIA

Esatariaren komunikazioa arrakastatsua izan eta bere intentzio-xedea gauza dadin, goian esan dugun bezala, norentzakoarekin auzolanean, elkarlanean aritu beharra dauka. Esatariak norentzakoarengan eragin nahi du, baina norentzakoaren “irudia” mindu gabe (Brown-Levinson-ek (1987) proposatutakoari jarraituz). Eta egiteko honetan du kortesiak bere lekua: hondarrean, esatariaren nahiz norentzakoaren irudia ez mintzeko, eta hauen jarrera egokia erregulatzeko gizarte-arau multzoa litzateke:

La cortesía puede entenderse, por tanto, de dos maneras diferentes. Puede concebirse, en primer lugar, como un conjunto de normas sociales, establecidas por cada sociedad, que regulan el comportamiento adecuado de sus miembros, prohibiendo algunas formas de conducta y favoreciendo otros. (Escandell 1993: 160-161).



Komunikazio-trukea, garbi dago, helburu zehatz bat erdiesteko<sup>276</sup>, beste pertsonekin interakzio-harremanetan gauzatzen den intentzizko ekintza da, eta, beraz, batetik, zeinahi elkarrizketak bete beharreko (Griceren) arau edo printzipioak bete beharko ditu. Baina ez da aski izango. Arau horietakoren bat urratu beharra duenean, kortesiaren erabileraz justifikatzen saiatuko da, edo, esatariak, berariaz, beste interpretazio bat “inplikatu” nahi duelako egingo du. Izan ere, ezinbesteko baldintza da zuzen ez ezik modu egokian ere erabiltzea hizkuntza. Eta egokitasun horrek eskakizun du elkarrizketako arauetz gain, norentzakoarekin kortesiazko edo gizalegezko harremana bideratzea, bien artean egon daitezkeen ezin ulertu eta auziak arintzeko.

La cortesía puede entenderse también como un conjunto de estrategias conversacionales destinadas a evitar o mitigar dichos conflictos. (Escandell 1993: 163).

Grice (1975) ere ohartzen zen maiz berak proposatutako printzipio eta arauak motz geldi zitezkeela eta hauek osatu beharra zeudela:

He establecido mis máximas como si el propósito [de la comunicación] fuera un intercambio de información lo más efectivo posible; esta especificación es, por supuesto, demasiado estricta, y el esquema necesita ser ampliado para introducir propósitos generales como influir en las acciones de otros u organizarlas. [...] Hay, por supuesto, otras clases de máximas (estéticas, sociales, morales,...), tales como “sea cortés”, que normalmente son observadas por los participantes en el intercambio comunicativo, y que también pueden generar implicaturas no convencionales. Grice ([1967] 1975: 47). “Logic and Conversation”, Cole & Morgan (eds.) (1975), 41-58. (apud Escandell 1995: 32).

Hau oso nabarmena da Mitxelenaren zinema- eta liburu-kritika hauetan. Berak garrantzi handia emango dio informazio-trukea eragingarria (Griceren maximen helburua) izateaz gain, gizalegez bideratua izateari. Eta asmo horrek eraginda tartekatzen ditu hainbat

---

<sup>276</sup>Diskurtsoaren bidez lortu nahi dugun helburua, oro har, perlokuziozkoa edo hizkuntzaz kanpoko da: jarreraren bat, sinesmenen bat edo ezaupideren bat aldarazi, gehitu, etab. Baina izan dezake diskurtso barneko helbururik ere: diskurtso-egoera jakin bat sortzen laguntzearena, hain zuzen. Hau da, enuntziatzaileen nahiz esatari-norentzakoaren arteko harremana, esatariak erdietsi nahi duenarekin bat etortzen (edo bat etortzeko egoera sortzen) lagunduko duena. Eta horrek berarekin dakar elkarlana edo kooperazioa. Gogora dezagun enuntziazioa bera esatari-norentzakoek egiten duten ekintza dela, ez dela esatariak bakarrik egiten duena; esatariak norentzakoak izan ditzakeen duda, gaizki-ulertu, nahiz kontra-argudioak saihesteko ahaleginak egiten ditu eta:

“(…) cuando hablamos de enunciación, siempre se trata de la *actividad común a dos enunciadore*s (incluso si uno de ellos se limita al papel de “locutor virtual”), y que la situación discursiva es una situación construida en común. Incluso en el monólogo o el diario íntimo, el otro siempre está presente”. (Caron 1983: 167). (Letrakera etzana autorearena da).

eta hainbat enuntziatu parentetiko; horrela informazio-trukearekin erdietsi nahi duena norentzakoaren irudia mindu eta zapaldu gabe batetik, eta bere irudi ona mantenduz bestetik, erdiesten du. Beraz, Griceren printzipio edo hastapenez gain, kortesiazko arauak ere kontuan izan beharko ditugu diskurtso-azterketara hurbiltzean. Eta ez hori bakarrik. Zenbaitetan ohartuko gara komunikazio-trukeak arrakasta izan dezan, Griceren printzipioak kortesiarenarekin tentsio-orekan egongo direla.

#### 9.4.2.3.1. H. P. Griceren auzolan<sup>277</sup>-hastapena eta arau-maximak

Griceren ereduak komunikazio-trukea arautzen duten elementuak zein diren eta nolakoak diren azaltzea du helburu. Gricek dioenez, hizketan ari direnean, auzolanean edo lankidetzan ari balira bezala jokatzeko dute solaskideek (esatari-norentzakoek, alegia), hainbat arauri men eginez edo. Idatzi gabeko arauri batek auzolanean jardutea aginduko baligu bezala.

“Elkarrizketaren arauak” (*maxims of conversation*) deitzen die Gricek arauoi, eta elkarrizketan elkari laguntzeko dugun joerari, berriz, auzolan-hastapena edo laguntzaren-hastapena (*co-operative principle*).

Nuestros intercambios comunicativos no consisten normalmente en una sucesión de observaciones inconexas, y no sería racional si lo fueran. Por el contrario, son característicamente —al menos en cierta medida— esfuerzos de cooperación; y cada participante reconoce en ellos, de algún modo, un propósito o conjunto de propósitos comunes o, al menos, una dirección aceptada por todos (...) En cada situación, algunos de los posibles “movimientos” conversacionales serían rechazados por inapropiados conversacionalmente. Podríamos, entonces, formular un principio general, que es el que se supone que observan los participantes: *Haga que su contribución a la conversación sea, en cada momento, la requerida por el propósito o la dirección del intercambio comunicativo en el que está usted involucrado.* (Grice 1975: 45). (apud, Escandell 1993: 92).

Beraz, hastapen deskribatzailea da, diskurtsoak zentzua izan dezan arrazionaltasunak eskatzen duen oinarritzko baldintza, alegia. Hastapen nagusi hau maila apalagoko beste arau batzuek osatzen dute: kalitatearen arauak, kantitatearen arauak, esanguratsua izatearen arauak

<sup>277</sup>Joxerra Garziak (1999) “auzolan-printzipioa” bezala itzultzen du, eta guk ere, auzolan-hastapena nahiz laguntzaren hastapena erabiliko ditugu adigai berarentzat.

(*relevancia*), eta nolakotasunarenak. Hauetako bakoitzak, aldi berean, beste zenbait hartzen ditu bere barnean. Hona laburtuta:

1) Kantitatearen araua (*the maxim of quantity*). Eman behar den informazio-kopuruarekin du ikuskizuna. Maxima edo arau hauek dauzka:

1.a) Komunikazio-trukearen helburuak eskatzen duen adina informazio eman dezala.

1.b) Ez dadila izan behar baino aberatsagoa.

2) Kalitatearen araua (*the maxim of quality*). Saia zaitetz egiatzko ekarpena egiten

2.a) Ez esan gezurtzat daukazuna.

2.b) Ez esan hala dela ziur ez dakizun hori.

3) Esanguratsu edo garrantzitsu izatearen araua (*the maxim of relevance*). Ardurakoak edo esanguratsuak diren gauzak besterik ez esan. Hau da, esatari-norentzakoek bere mintzaldietan mintzagaiarekin ikuskizuna duten gauzak esatea espero da.

4) Nolakotasunaren araua: (*the maxim of manner*). Mintza zaitetz argi eta garbi, eta honako osagarriak ditu:

4.1. Adierazpen ilunei itzuri egin.

4.2. Anbiguetaterik ez.

4.3. Labur izan.

4.4. Taxuz adierazi gauzak (ordenari eutsi).

Arau horiek ez dira jokaeraren arau zorrotzat hartu behar, hizkuntza-jokabidea epaitzeko erabiltzen diren arau deskribatzailetzat baizik. Batzuetan, ordea, goian esan dugun bezala, esatariak hitzez hitz esandakoaz harantzago beste zerbait “inplikatu” nahi duelako, edota esatari-norentzakoek arteko harremana egokiagoa izatearren hauts daitezke arauok.

Se dice que el intercambio es interaccional, cuando lo que importa es el mantenimiento de las relaciones sociales, y vence la cortesía; y es transaccional, cuando lo importante es la transmisión eficaz de la información, y tienen prioridad los principios. (Escandell 1993: 166).

Aipu hau lot dezakegu Goffmanek zioenarekin (1979, 1987), hots, komunikazio-trukean bi betebeharrak nagusi zeudela zioenarekin:

1) Eginbide sistemikoak edo mezuen transmisio egokia ziurtatzen dutenak. Guk puntu hau Griceren auzolan-printzipioarekin lotuko dugu. Goraxeago ikusi dugu hainbat enuntziatu parentetikoren egitekoa mezuen transmisio egokia bermatzea dela. Egiteko horretara bideratzen dira, esaterako, birformulazioak zehaztapenak, azalpenak, etab.

2) Erritozko betebeharra: gizartean onargarria dena aditzera ematen dutenak. Parekotasunak egitea zilegi bazaigu, guk betebeharrak hau kortesiak eskakizun duenarekin parekatuko dugu. Esan dezakegu, gainera, enuntziatu parentetiko ugariaren izateko arrazoiak, jarraian corpuseko adibideekin egiaztatzen saiatuko garenez, “kortesia-zko” erabilera bermatzea ere badela, komunikazioaren eragingarritasunaz gain.

Honek ez du esan nahi kortesia-zko arauak Gricek proposatutakoetatik erabat aldentzen direnik; zenbaitetan Griceren arauen bat hautsi edo bertan behera utzi daiteke kortesiaren izenean, baina askotan bai batak eta bai besteak bat egiten dute, Griceren arauak ere gizalegean eta jokabide arrazionalen oinarrituta baitaude.

#### 9.4.2.3.2. Kortesia-zko arauak

Zeintzuk dira corpusetik ateratu ditzakegun kortesia-zko jokamoldeak edo arauak? Hau da, kortesia-zko zein estrategiaz baliatzen da esataria norentzakoarekin duen interakziozko harreman hori gauzatuz argumentazioan aurrera egiteko?

Ez dakigu kortesia-zko arau orokorrez hitz egin dezakegun. Bada, izan ere, kortesia-zko arauak unibertsalak ote diren edota gizarte jakinaren arabera alda ote daitezkeen eztabaidatzen duenik. (Escandell 1995: 31-61). Gu ez gara auzi horretan sartuko, gure helburua, atal honetan, esatariaren eta norentzakoaren arteko interakziozko harremana erregulatzeko eta bideratzeko, esataria kortesia-zko estrategiez baliatzen ote den ikustea izango da, eta bere aztarnak enuntziatuan edo diskurtsoan bertan non eta nola agertzen diren aztertzea.

Badakigu azken bi-hiru hamarkadetan kortesiari buruzko lanak (Pragmatikaren alorrean) asko ugartu direla (Escandell 1993). Guk, gure aztergaira hurbiltzeko lagungarri gertatzen zaigun neurrian, oinarri-oinarrian dauden bi lanen ildo nagusiak aipatuko ditugu: Robin Lakoff-en (1973) *The Logic of Politeness* eta Penelope Brown eta Stephen Levinson-en *Politeness* (1987).

Lakoff-ek gaitasun pragmatikoa bi ararekin deskribatuko du:

1. “Izan argia”.
2. Jokatu kortesiaz.

“Argia izatea” auzolan-hastapenarekin bat dator eta kortesiaz jokatzeari hiru modutara agertzen omen da:

- a) Solaskideari ez gain hartu edo ez jazarri (nagusitu).
- b) Beti aukerak eskaini.
- c) Adiskidetasun-loturak indartu.

Brown eta Levinson-en liburua, berriz, (1987) bakoitzaren irudiaz (“face”, metaforikoki) dihardu. Bi aurpegiko txanponak bezala, bi alderdi ditu: batetik, ez du inposizio edo jazarpenik nahi eta bestetik norentzakoaren estimua eta aprezioa sentitu nahi du. Hau da, autore hauen ustez, besteren “irudia” mintzeke eta norberarena babestuz eta zainduz bideratuko dira hobekien gizarte mailako harremanak.

Hori guztia Mitxelenaren corpusean nola islatzen den aztertuko dugu. Honako arau-maximen arabera jokatzeko duela dirudi:

**- “Gizakiak gara, gizartekoak eta gizalegez jokatu behar dugu”**

Gizakia ez da bakarrik bizi, besteekin harremanean baizik. Beraz, harreman hori bermatzeko ezinbesteko gertatuko zaio arau batzuei (nahiz estarian edo inplizituki egon) men egitea. Izan ere, gizakiak “personarteko” harreman horretan oreka bilatu beharra izango du, solaskideen arteko eztabaidak edo gatazkak saihestuz edo, behintzat, leunduz. Kortesiaz jokatzeari ez baita arau batzuei jarraitzea soilik, kortesiaren helburua arauak ezagutuz gatazkak eta gaizki ulertuak saihestu edo leuntzea izango da, ahal dela inoren irudia mindu gabe.

Esatariak norentzakoaren atxikimendua lortzeko bi norabidetara, gutxienez, zuzendutako kortesiazko estrategiak jarriko ditu martxan: kortesia positibora, nahiz kortesia negatibora (Brown & Levinson 1978, 1987).

1. Kortesia positiboa: norentzakoaren irudi positiboari zuzentzen zaio, eta esatariak dituen desira eta intentzioak norentzakoarentzat ere desiragarri gertatzeko ahalegina egingo du.
  1. Batetik, bere irudia zaindu eta babestuko du: norentzakoarentzat sinesgarria eta fidagarria gertatzeko, “egiazale” ez ezik, ziurtzat duen hura soilik adierazten saiatuko da.
  2. Norentzakoa erakartzeko, ordea, horrez gain, norentzakoaren hurbileko agertu beharko du. Eta horretarako, biek batean duten esparruan ipiniko du arreta; hau da, biek batean duten informazio pragmatikoari edo ezaupide komunei erreferentzia eginez. Beraz, esatariak norentzakoaren desioak ere ezagutu beharko ditu, eta horren arabera auzolanean jokatu, inoiz gain hartzeko edo inposatzeko helbururik gabe, diskurtsogintza horretan biak partaide aktiboak balira bezala.
2. Kortesia negatiboa: Maiz, ordea, esatariak alde zuzenetik ikus dezake zenbait baieztapenekin norentzakoaren irudia mindu edo eraso dezakeela. Kortesia negatiboa, bada, norentzakoaren irudiak jasan duen “erasoa” (irudi negatiboa) berdindu, orekatu eta konpentsatzeko esatariak darabiltzan estrategiak lirateke. Brown eta Levinson-ek *softeners* deritze; hau da, esamoldea leundu, arindu edo gozatzeko eginkizuna dutenak.
  1. Ordezkatzeko baliabideak: mehatxuaren indarra gutxitzeko edo arintzeko ordezkatzen diren esamolde edo egiturak. Esaterako, agintera erabili ordez, zeharkako egituretara jotzea.
  2. Esatariaren eta mehatxuzko ekintzaren artean distantzia handiagotzeko modalizatzea: iritzia, ustea...soilik dela adieraziz
  3. Zuzentzea: norentzakoaren irudia mindu izana zuzentzeko edo konpontzeko bitartekoak: esate baterako, barkamena eskatzea.

Hori guztia corpuseko adibideekin egiaztatuko dugu.

## 1. Kortesia positiboa: Esatariak bere irudia zaindu eta babestuko du

Eginkizun horretan oin hartuz, ondorengo hastapenak izango ditu kontuan esatariak:

1.1. Izan zaitez egiazalea (edo behintzat, hala bazina bezala ager zatzaizkio norentzakoari)

Kortesiako arau honek, Montoliók berariaz aipatzen duenak (1993: 123), Griceren “kalitatearen” arau-maximarekin bat egiten du: “gezurtzat daukazuna ez esan” azpi-arauarekin, hain zuzen. Esatariak norentzakoarekin harreman egokia izan nahi badu, arau hau ezinbestean bete beharko du. Eta, beraz, diskurtsoan barrena esataria “egiazale” bezala agertzen da, edo, behintzat, “egia esatea” edo “egia esaten ari dela” behin eta berriz aipatuko digu:

“Egia esatearen” ekintza enuntziatiboa indartzeko hizkuntzak modu bat baino gehiago eskaintzen dio Mitxelenari. Batzuetan esapide egin edo forma ihartuetara joko du. Gramatikalizatuta edo dauden hizkuntza forma horiek ez dira, ordea, bete-beteen enuntziatu parentetiko, eta egon badauden arren, eduki lexikoa eta sintaxi mailako askatasuna duten diskurtso mailako forma askeei (enuntziatu parentetikoei) soilik erreparatuko diegu:

### a. EGIA+ ADITZ NAGUSIA+BADUT (BALDINTZAKO EGITURETAN)

- Neri, behintzat, **egia aitortu behar badut**, gaitzago zait sarritan oraingo idazki franko barrentzea hamaboskarren mendeko kanta zaharrak baino. (LIB I: 136).

- Maizago irakurriko banitu, hobe, baina ez ditut maiz irakurtzen, **egia zor badizuet**, honen antzeko gaia duten liburuak. (LIB II: 99).

### b. EGIA DA

- Behin edo behin, **egia da**, izpiritu santuaren prozesioaz ordu t´erdiz mintzatu beharrean aurkitu izan naiz (irakastea debekatuta badaukagu ere, ikastera behartu egiten baikaituzte), baina geroztik hona jakintza hau baztertuxea eduki dut. (LIB I: 96).

- Orain, **egia da**, *mintzo zakida* ikusten dut Testamentu zaharrean (Cant. 2, 14): antolatzailearena? Beste leku batean, behar bezala, *erruki zakizkigu* (bizk. *zakiguz*) ageri baita (Tob. 8, 10), *urrikal zakizkigu* Duvoisinenean. (LIB I: 119).

- Mujikak, **egia da**, gogorazten digu alde zuzenetik Juan Ramonen hura: “No creo, en ningún caso, en un arte para la mayoría” (LIB II: 141)

Enuntziatu parentetiko horiei esker, esataria berariaz ari da norentzakoari egia zor diola adierazten. Izan ere, esatariak jakin badaki norentzakoaren konfiantza eta sinesgarritasuna lortu nahi badu, beti “egia” esan beharrean dela, beti “zor diola egia”. Eta hori berariaz agertzeak, nolabait, esatariaren konpromisoa agerian jartzen du.

Beste hainbeste esan dezakegu “egiaren” beste muturrean dagoen “gezur” hitzarekin sortzen dituen enuntziatu parentetikoei buruz ere:

- Esan daiteke, **gehiagizko gezurrik esan gabe**, hor dagoela euskal literaturari, eta literaturari erabat, utzi dion testamentua eta ordenua. (LIB II: 107).

Enuntziatio-mailari erreferentzia egiten dioten adibide horiek guztiek ez diote gramatikako zuzentasunari eragiten. Esataria baliabide honekin norentzakoaren aurrean “egiazale” agertzen da eta bere ikuspuntua berresteko baliagarri gertatuko zaio. Enuntziatio-mailako osagai hauek kortesiarekin lotura dute: uneoro, norentzakoaren konfiantza eskuratzeko edo norentzakoarentzat esataria sinesgarri gerta dadin, etengabe ari zaio “egia esaka” edo “benetan” ari dela adierazten.

## 1.2. Babes zaitetz (ziur ez bazaude, adieraz ezazu diskurtsoan bertan)

Arau hau ere, Griceren kalitatearen arau-maximarekin bat dator: “Ez esan hala dela ziur ez dakizun hori” arauarekin. Berez, ez legoke berariaz esan beharrik, solaskideek bai baitute horren berri, baina diskurtsoan bertan berariaz esaten bada, interakziozko harreman horretako arauak argi eta garbi zedarritu nahi dituelako da. Esatariak idatzi gabeko — baina elkarren arteko harremana bideratzeko noraezokoak diren— araei men eginez jokatu nahi du; hau da, gizalegez.



a.OKER EZ BANAGO<sup>278</sup>

Baldintza egitura honek ez du “ondorio” bat eskatuko; gehiago da enuntziatua leundu edo arintzeko bitartekoa. Horren eginkizuna, gure ustez, kortesiazko jokamoldeari lotuko zaio bete-betean. Estrella Montolíoren ustez ere, baldintza egitura hau perpaus osoari eragiten dioten modalizatzaileetatik gertu dago, haiek bezala funtzionatzen baitu:

Es decir, en todos estos casos, la cláusula con *si* funciona no como una cláusula integrada en un esquema oracional complejo, sino como un modalizador oracional, como una secuencia mediante la cual el hablante comenta de algún modo el contenido de su enunciado. (Montolío 1993: 122) .

- Bistan dago bi alde dituela teoria horrek. Batetik, eredu berri bat (**Orixek behinola, oker ez banago, segitu zuena Prudentzioren zenbait itzulpenetan**) aurkezten die hitz neurtuz mintzatzen direnei: horiei dagokie, beraz, erantzuna, bide berria onartzea ala arbuiatzea, eta ez neri, ez baitut oraingoz bertsoetan hasteko asmorik ez gogorik. (LIB II: 107).

- Oraindik orain idatzi nuen —**azkenengo Egan-en, gaizki ez banabil**— izango nuela luzatu gabe Kerexeta jaunaren idazlanez berriro ere mintzatu beharra. (LIB II: 60).

- Gainera, **oker ez banago**, ez jakituria ez jakinduria ez dira behin ere agertzen O. de Arin´gan. (66)

Badirudi parentetiko bezala paratutako enuntziatu hauek norentzakoaren aurrean “apal”, “xume”, “umil” agertzeko strategiari erantzuten diotela; izan ere, esatariak, baldintzako egitura horiei esker, dioenaren ziurtasun osoa ez izatea agerian, esplizituki, adierazten du eta, beraz, ez da egiaren arduradun egiten. Zergatik? Izan daiteke benetan ziur ez delako, edota era horretara ez delako dioen horretan nahasten. Baina egingo genuke Mitxelenak enuntziatu hauen bidez umiltasun tonu hau sartzan duenean, dioen horren egiaz erabat konbentziturata dagoela, baina nolnahi ere, ez du esatari indartsu, ahaltsu edo agintzaile gisa agertu nahi. Norentzakoaren irudia ez mintzeko modu bat da.

<sup>278</sup> Polok (1971: 108-9) “si no me equivoco” bezalako protasien balioa perpausaz gaidikoa dela uste du: “el condicionante restringe el significado de toda la frase (...) funciona metalingüísticamente, nos parece”.

- Xenpelarren bertsoetan zenbait huts, edo huts diruditenak behintzat —**eta barka, oker banabil**— ageri dira. (LIB I: 107).

Adibide honetan barkamena ere eskatzen dio norentzakoari. Halaz ere, ziur gaude esatariak ez duela duda izpirik ere esandakoari buruz. Askotan, nahiago baitu oker egon, zuzen egon baino:

- Berdintsu gertatzen da *diago* eta bere senideekin. Dakidanez —**eta poztuko ninduke bizi**  
**oker nagoela jakiteak**— euskal literatura guztian behin agertzen da adizki hori, Garibayk XVI gn. mendean jaso zuen esaera batean: “Atzean diagonak utsean diago”. (LIB I: 77-78).
- Ez dut, gorago esan dudan bezala, sentimenduen jatortasuna ukatzen, inolaz ere, baina ez dut uste —**nahiago nuke oker egon, zuzen baino**— jatortasun bizi hori irakurleari aditzera emateko, entzungor egin nahi badu ere, biderik eta modurik aurkitu duenik beti. (LIB II: 142).

Adibide horiek adierazten digute esatariak badakiela ziurtasun osoz “egia” esaten ari dela edo, behintzat, zuzen dabilela, eta batzuetan (alderdi negatiboak esan beharrean denean), nahiago luke gezurretan eta oker balebil zuzen eta egiatan baino. Horrela, kontrako edo negatiboak diren alderdiak modu zorrotz batez eman ordez, leuntzeko estrategia litzateke. Norentzakoaren atxikimendua lortu nahi du eta askotan egiak (edo bere egiak) estalki leun batez inguraturik adieraziko ditu.

La introducción de este tono modesto explica que en ocasiones empleen estas prótesis [“si no me equivoco”...] hablantes que sí están efectivamente convencidos de la veracidad y exactitud de lo que dicen, pero que, sin embargo, por alguna razón, no quieren aparecer como hablantes prepotentes en una situación dada. (Montolío 1993: 127).

Bestetan, gaizki edo oker ote dabilen benetako zalantza duenean, ez du baldintzazko egitura horretara jotzen; berariaz, justifikatu egiten du oker ibiltzekotan zergatik edo zerk eraginda ote dabilen oker:

- “Hark berak hari berari” daramate buruan —**edo antzeko zerbait: liburua damurik ez daukat eskuartean**—, eta lehendabiziko “hura bera” aurreko bertsoen egilea bide da —hots, Claveria— eta bigarrena, bertso haiek eskaini zizkiona, hau da, Etxeberri. (LIB II: 66).

Holakoetan, badirudi esatariak bere burua babesteko estrategia gisa darabilela: norbait kritikatu izateko arrisku handiagoa dago baieztapen biribilak egiazkoak ez direla frogatzean. Aitzitik, kritika horren arriskua txikiagoa da, balizko modu batean edo erabateko ziurtasunik gabe egindako baieztapenekin.

(...) el hablante (...) usa muchas veces (...) a modo de expresión auto-exculpadora, muy adecuada para salvaguardarse de una crítica potencial: es difícil criticar directamente a alguien que previamente ya se ha adelantado y se ha disculpado por algún error posible (“si no estoy en un error” / “ si no me equivocó”...) (Montolío 1993: 128-129).

Horrek “errespetuaren fenomenoaz” hausnartzera garamatza. Oso ohikoa da, nahiz eta esatari-norentzakoek batean duten ezaupideren bati buruz baieztatu, erabateko ziurtasunik gabe, zeharka-meharka<sup>279</sup> aditzera ematea:

cuanto más indirecta es la expresión de los actos de habla, mayor es la posibilidad del hablante de negarlos, y mayor es el número de opciones que se le ofrecen al oyente. Sin esta deliberada falta de precisión, la vida social sería imposible. (Stubbs 1983: 174).

Enuntziatu parentetiko hauek, apika, ez dute esataria gizalegekoa denik esaten, baina bai gizalegez jokatzeko duen pertsona bezala agertzen norentzakoaren aurrean. Alde honetatik, kortesia norentzakoaren pertsuaditu eta esatariaren interesetara erakartzeko estrategia eragingarria da.

Norentzakoaren erakartzeko, ordea, horrez gain, norentzakoaren hurbileko agertu beharko du eta horretarako, biek batean duten esparruan ipiniko du arreta; hau da, biek batean duten informazio pragmatikoari edo ezaupide komunei erreferentzia eginez. Beraz, kortesia positiboaren bigarren alderdiari helduko diogu. Horren arabera, esatariak norentzakoaren desioak ere ezagutu beharko ditu, eta horren baitan auzolanean jokatu, inoiz gain hartzeko edo inposatzeko helbururik gabe; diskurtsogintza horretan biak partaide aktiboak balira bezala.

---

<sup>279</sup>Informazioa zeharka-meharka ematea ez litzateke bete-betean Griceren arauarekin bat etorriko. Honek “nolakotasunaren maximan” dioenez, gauzak labur, anbiguitaterik gabe ematea hobesten duelako, besteak beste. Baina arau hori hauts daiteke esatariak, une jakin horretan, informazioa eragingarria izateari baino garrantzi handiagoa ematen diolako esatari-norentzakoaren arteko harremana bermatzeari.

## 2. Kortesia positiboa: izan zaitez norentzakoaren hurbileko, taldekide bazina bezala funtzionatu

Norentzakoa erakartzeko, bada, bi solaskideen arteko hurbiltasun-harremana erdietsi beharko du; esatariaren hurbileko (edo talde bereko) senti dadin, biek batean duten esparruan ipiniko du arreta, eta beraz, ugariak izango dira biak batean duten ezaupide komunari erreferentzia egiteko hizkuntza-formak:

- Gutxi gorabehera, **badakizue**, Oraune'ko Errolbak itzuli zigun "Florentzian idazlari kokorra"-ren kidea. (ZIN: 158).

- Onak gailen, gaiztoak lotsagarri ikusirik azkenean, alai irtengo dira zinetik, eta sartu baino zintzoago direlakoan gainera, gogoia onen alde baitzeukaten —**badakizue alderdi horretakoak izaten garela beti, zineman behintzat**— eta eserlekutik mugitu gabe onei eginahalean lagundu baitiete. (ZIN: 124).

Honenbestez, esatariak norentzakoaren desioak ere ezagutu beharko ditu, eta horren arabera auzolanean jokatu. Garbi izanaz, ordea, inoiz ez duela norentzakoari gain hartzeko edo inposatzeko helbururik izan behar.

2.1 Erasorik ez egin (esan beharrekoa diplomaziaz edo esku leunez eman aditzera) eta norentzakoari aukerak utzi

Norentzakoa zerbait egitera mugiarazi nahi duenean, agindu bidez mugitu ordez, baditu beste zeharkako hizkuntza formak:

- Argitasunik nahi duenak jo beza Lafitte jaunak, *Herria* astekarian aurrenik eta liburuxka batean gero —**horren berria aurreraxeago ikus dezakezu**— euskal itzulpen zahar eta berriei buruz argitara berria duen idazlan jakintsura. (LIB I: 112).

- Ez zara damutuko, **horixe aldez aurretik esan diezazuket**, liburu hau erostez. (LIB I: 146).

Adibide horiek erakusten digutenez, esatariak norentzakoari zuzentzeko ahalerazko forma darabil. Ez dio agindurik ematen, edo behintzat agindu-kutsua kenduz norentzakoari

zerbait egitea iradokiko dio: zerbait hori egiteko aukera duela adieraziko dio. Beraz, kortesiaz, gizalegez mintzo da, ez baitu zakarra izan nahi (Lakof-en “norentzakoari gain ez hartzeko” arauari loturik).

Agintera darabilenean ere, agindu baino gehiago esatariak norentzakoari egiten dion deia da hau zerbait egitera mugi dadin; hau da, esatariak esandakoa bere begiz hausnartu eta justifikatzeko aukera eskainiko dio:

- Dirudienez, ez baitut kontatu, 255 lerro utzi nizkion Larramendiri, “cuya obra principal es un diccionario vasco-español (**atzekoz aurrera irakur beza irakurleak**) plagado de aberraciones”, eta 38 Bilintxi, beste zenbaiten artean. (LIB II: 83).

- Eta ezaguna dugu batez ere Aita Villasantek duela zenbait urte (**ikus 1961-ko EGAN, 259-260 orrialdeetan**), haren gogoeta sakonak eta esaera zorrotzak ahotik paperera aldatuaz, bildu zuen Aitonaren uzta joria dela bitarte. (LIB II: 124).

Adibide horietan, esatariak berak esandakoa egiazkoa dela adierazteko, norentzakoari berari esaten dio non egiazta dezakeen. Agindua baino gehiago, norentzakoari ematen dion ardura da, esatariak dioena egiazkoa dela bere kabuz konprobatzeko. Beraz, garbi dago esatariak norentzakoarekin auzolanean diharduela. Esatariak norentzako bere diskurtsogintzan “inbolukratu” nahi du.

### **3. Kortesia negatiboa: enuntziatua leuntzeko baliabideak**

Bada ekintzarik esatariaren nahiz norentzakoaren irudian eragin dezakeenik, eta batzuetan bataren edo bestearen irudia zikindu, ilundu edo minduko dute. Holakoetan, esatariak hainbat aukera izan ditzake: erabat saihestu, leundu edo zuzendu.

- Diskoak —**hizlarien izenik ez dut aipatuko, norbait ixilpean uzteko beldurrez**— atseginez beterik entzungo ditu edozein euskaldunek. (LIB II: 73).

Maiz, ordea, saihestu ordez, enuntziaturen batek norentzakoaren irudia min dezakeela uste badu, beste hainbat bitarteko izango ditu esku artean enuntziatua modu leunago batez adierazteko edo norentzakoari barkamena eskatuz zuzentzeko ere.

Esate baterako, askotan, ekintza zehatz bat zergatik gauzatu den justifikatu eta azaltzea bera, norentzakoaren onespena lortzeko mugimendu estrategikoa da. Horrekin batera, enuntziazioa leundu, arindu eta modalizatuko duten baliabideak funtsezkoak dira, norentzako erasotuta eta minduta senti ez dadin. Neurri batean Lakoff-ek (1973) kortesiaz jokatzeari ulertzen duenarekin bat letorke.

Funtsean, baieztapen biribilak egin gabe, baieztapenak modu leun batez adieraztea esatari inposatzailea ez dela adierazteko modu bat litzateke.

Dudarik gabe, hainbat enuntziatu parentetiko *softeners* gisa (Levinson-ek (1983: 212) erabiltzen dira; hau da, “gozatze”, “arintze” edo “leuntze” estrategia bezala.

Enuntziatu parentetikoek baieztapenak leundu edo arintzeko zein aukera eskaintzen dute?

Batetik, baieztapenak zorrotzegiak, irmoegiak izan ez daitezen, honako diskurtso-estrategia hauek erabiltzen ditu:

### 3.1. Ordezkatzeko baliabideak

Mehatxuaren indarra gutxitzeko edo arintzeko ordezkatzen diren esamoldeez ari gara. Esaterako, norentzakoari zuzeneko aginduak eman ordez, zeharkako egituretara jotzea (goian ikusi dugu) izan daiteke agindua ordezkatzeko modu bat. Bere burua kritikakizun izan duenaren artean sartzea ere bai:

#### a. Bere burua kritikakizun izan duenaren artean sartuz

Norbaiten edo zerbaiten alderdi negatiboak aipatu behar dituenean, esatariak inor ez mintzeko asmoz (edo, behintzat, min hori leuntzeko asmoz) zenbaitetan bere burua ere multzo berean sartuko du.

Norentzako mindu gabe gauzak aditzera emateko, Mitxelenak bere diskurtsoan usu darabilen baliabidea da: norbait kritikatzeari, bere burua ere barne eginez kritikatzeari. Horretarako hainbat hizkuntza-baliabide ditu. Nagusiki, “gu” lehen pertsona pluraleko izenordaina erabiltzera jotzen du:

Mediante el uso de la primera persona del plural, aunque sólo se refiera al oyente, el hablante pretende incluirse en una actividad que compete exclusivamente al oyente. (Mulder 1991: 74).

- Euskarak inoiz egin duenik ederrena, eta halere egiteko —**gerok egiteko**—dagoena. (LIB I: 65).

Eginkizun dagoen hori guztiei (bere burua barne) dagokiela adierazi nahi du esatariak.

- Clark Gable´ren kaskoa —**ai, gurearen gisara!**— gero eta urdinago ageri dela ere esango nizueke, baina hori badakizue honez gero, nik bezain ongi. (ZIN: 141).

- Guztioi —**eta neroni aurrenik**— itzurtzen zaizkigun zenbait huts baztertuz gero, egileek poesi-prosarako duten joeran daudela deritzat itzulpen honen alde txarrenak (LIB I: 85).

- Esanak oroitarazten dit hor daudela, Oteizak oldar bizian eraso dien etsaien artean, “Urkixotarrak” direlakoak ere: badirudi, gainera, **eta ez ninduke horrexek minduko**, neure buru tristea ez dabilela horrengandik urruti. (LIB II: 118).

- Beregana dezake ikuslearen gogoia, nahiz gertaera guztien berri alde aurretik jakin —**horixe gertatzen zitzaidan neroni** —, Charles Laughton eta beste lagun azkarren antzeari eskerrak. (ZIN: 189).

Era honetara jokatzek esatari-norentzako arteko distantzia murriztu egiten du:

Esta referencia pseudo-inclusiva reduce la distancia entre ambos. (Haverkate 1984: 84-92).

Baliatu beharreko estrategia da, bada, Mitxelena bezalako kritiko bati<sup>280</sup> maiz egokitzen baitzaio besteren kritika egitea:

Ez gaitu, ez, kritika pixka batek, edo puxka batek, geure burua ukatzera erakarriko. Egin dezakeen gaitza ere ez da gehiegizkoa izango. Batez ere, gertatu den bezala, zoramen gorrian geure buruari begira luzaroan biziak baldin bagara. (MEIG IV: 29-47).

---

<sup>280</sup>Perez Gazteluk honela esango digu: “Mitxelena eta kritika, niretzat, txanponaren aurki-iferentzuak dira”. (Perez Gaztelu 1995b: 80).

Garbi du, gainera, kritikaren helburua errealitateari ahalik eta gehien hurbiltzen zaion irudia erdiestea dela; baina ez besterik gabe akatsak ateratzea.

Crítica, claro es, no significa detracción, sino simplemente un intento de conseguir una imagen más aproximada siquiera sea en una medida infinitesimal, de la realidad. No se trata de “sacar defectos” —que, por otra parte, en nada empañan el brillo de una obra que ha de ser apreciada en su conjunto— (...)

No hay, además, dos críticas: una benéfica o “constructiva” como ahora se complacen en repetir, y otra maléfica y destructora. La crítica es lo que es: crítica a secas y en el fondo, en cierto sentido, destructiva siempre. Pero no es destructiva por el placer de destruir, sino por deseo de edificar mejor, por creer que nada estable puede asentarse sobre cimientos inciertos, vacilantes o carcomidos. (Mitxelena 1970: 28).

Norbaiti kargu hartu eta kritika egitea, beraz, Mitxelenak zilegitzat ez ezik egin beharrekotzat jotzen du; baita, noski, berari egiten diotenean ere:

- Aspaldi ez duela, kontuak hartu dizkirate —**eta, jakina, ez diot horretarako eskubiderik ukatzen hartu dizkidanari**— euskal idazle bakoitzari liburu batean opa nizkion edo ez nizkion lerroak direla eta. (LIB II: 38).

b. *Ni*, izenordain *higuigarria*

Goian ikusi dugu esatari zorrotz eta autoritario izan ordez, *gu* izenordainarekin zuzentzea duela gustukoen. *Ni* izenordaina, berriz, behin eta berriz adieraziko digunez ez du batere atsegin, eta derrigorrean besterik erabiliko ez duenaren itxura ematen digu.

- Nik (**izenordain higuindarri hau ezinbestean darabilt**) lehenago ezagutu nuen Olabide (Itun berriko Olabide, jakina) besteak baino. (LIB I: 112).

Hain da horrela, zenbaitetan *ni* izenordaina erabiltze hutsagatik norentzakoari barkamena eskatzen dio:

- Nik —**eta barka bekit “izenorde higuigarri” honezaz hasten banaiz mintzatzen**— profeta baten gisan ikusten dut aurrenik gure Oteiza, gure artean nola eta nondik ez dakigula—aldiz



bizardun, aldiz okotz-soil—agertu zaigun antzinako igarleen ondorengo galdu baten antzera. (LIB II: 117).

Badirudi, *ni* indibidual hori ez dela nor besteren auzietan sartzeko.

- Neronek ikus dezakedanez —**eta ez naiz nor horrelako auzietan mintzatzeko**—, ederki tajutu du gaia, lau kapituluetan berezia, eta harira doa beti egilea, hitzalperrik gabe. (LIB ? :71).

Bada, beraz, Mitxelenaren testuetan joera bat *ni* indibidualaren ordeztu *gu* izenordain “komuna” edo “guztien bateratzaile” izan daitekeena erabiltzeko. *Ni* ez du gogoko, baina ez bere-berea den zerbait (iritziren bat) azaltzeko beldur delako, maiz duguna edo garena besteri esker edo dugulako edo garelako; besteren ondare delako. Hori hain da horrela, bere iritzi eta ahotsa ere, maiz, besteren oihartzun da. Besterekiko lotura, tupiki ozena baino indartsuagoa da, nonbait. Eta bakoitzari berea zor zaionez gero, gizalegez jokatzeko modu bat litzateke *niren* ordeztu *gu* hautatzea.

### c) Enuntziatuaren modalizazioa

Esatariaren eta mehatxuzko ekintzaren artean distantzia handiagotzeko, esatariak enuntziatua modalizatu egingo du: “bere ustea, iritzia” soilik dela adieraziz, edota bere mintzagaiaren esparrua dakien edo kontrolpean duen alor horretara mugatuz eta murriztuz.

- Gaizki egin da, **ene ustez**, Axularren eta beste batzuen cc kk-rekin bihurtzea kh-rekin egin beharrean. (LIB I: 131).

- Euskaraz poesi hizkera trebea daukagu, zenbait olerkariri eskerrak: prosa hizkera, berriz, ez dago, **nik uste**, behar lukeen mailan. (LIB I: 85).

- Hurrengoan, berriz, **ene iritzi**, igun “martinete” ez dago arras zuzen, ez Zaitegiren baizik Azkueren erruz: (LIB II: 77).

Mitxelenak garbi du zenbaitetan, “interakziozko harreman hori bermatzeko” bere iritzia ezin izaten duela estalkirik gabe agertu:

- Baina, **baldin nire iritzia estalkirik gabe agertu behar badut**, ez dute uste inoiz gure hizkuntzan entzun denik horrelako hitz larririk, horren zinezko aitorrik, horrenbesteko karraxi sarkorrik. (LIB I: 90).

Beste batzuetan bere mintzagaiari mugak ezartzen dizkio, esparrua mugatu, murriztu egingo du, kritika orokorra izan ordez, esparru jakin batera murriztuz edo minimizatuz:

- Ez dut halere ukatu nahi badituela, **ene ustez behintzat**, zenbait gogorkeria, eta gogorkeriak zelai zabal honetan nabarmenago dira Shakespearen malkarretan baino. (LIB I: 42).

- Nere begiak behintzat, **zorrotzagoak ez dakit**, ez ziratekeen konturatuko, aldez aurretik jakin ez banu. (LIB I: 84).

- Espainia aldean behintzat —**bestetan ez dakit**— bekaitzez begiratzen diote gai hauetan hasten denari, elizgizona ez baldin bada, eta ez dut, ahal baldin badut, neure burua auzitegietan ikusteko gogorik. (LIB I: 96).

- Neri behintzat—**ikasiagoengatik ez naiz ari**—deus ere ez dakidala iruditzen zait Ibar-en itzulpen hau irakurri ondoren. (LIB I: 103).

- Espainian —**zineman behintzat**— “betiko triangeluak” lau alde izaten ditu: senarra, emaztea, senarra ez dena eta apaiza. (133)

Horietan guztietan, badirudi esatariak baieztapena leundu, gozatu egiten duela; zerbait baieztatu behar duenean —eta are gehiago baieztatu behar duen hori norbait mintzeko modukoa izan badaiteke—, bere iritzi soila dela adieraziz, edota baieztapenaren mugak hesituz. Baliabide hauek Gil Mulderrek (1991: 75) era honetara definitzen ditu:

Atenuantes que indican que el hablante no asume la completa responsabilidad de la verdad del enunciado. (Mulder 1991: 75).

#### 4. Kortesia negatiboa: gaizki ulertuak saihesten ahalegindu

4.1. Gaizki ulertua izateko zirrikiturik txikiena ere estal ezazu: zuzendu behar denean zuzentzea da egokiena, baita horretarako norentzakoari barkamena eskatu behar bazaio ere

Ondorengo adibideotan, badirudi kortesiazko arau horri jarraitzen diola esatariak. Ez du lotsarik besteri, eta norentzakoari bereziki, barkamena eskatzeko. “Barkamen eskea” egiteko egitura parentetikoak egoki datozkio. Ikus ditzagun horren adierazgarri ondorengo adibideak:

- Gure-gureak baititugu biak —**eta barka biezat “Kamifazpi”-k**—, gure artetik sortuak eta geron antzera taxutuak. (LIB II: 146).
- Ez dut hemen euskal hiztegirik, baina badirudi hitz berria dela. Horrela balitz, **eta bestela baldin bada barka**, beharrik gabe asmatua dirudi, gure artean *saietera* euskal hitz ezaguna baita oraindik, antzinako leiho mehar horietakoa adierazteko. (LIB II: 140).
- Nolazpait ere ezagutzen du, ordea, Pascalena hura (**eta barka besterena baldin bada, Pascalena izan beharrean**) egia baldin bada: “Ez zinateke ene bila ibiliko, aurkitu ez baninduzu”. (ZIN: 198).

Garbi dago esataria norentzakoarekin atsegina izaten saiatzen dela eta alde horretatik kortesiaz eta gizalegez jokatzeko duela. Ez dugu uste, ordea, kortesiaz jokatzeko beste modu bat izan zitekeen arren, norentzakoari dena egin ematen saiatzen denik. Bere helburua ez da (eta uste dugu corpuseko enuntziatu parentetikoena ere ez dela) norentzakoari mezua *eginahalik txikiena* eginaz interpreta dezan laguntzea, berak nahi bezala hark interpreta dezan ahalegin guztia egitea baizik, harik eta esan duenaren eta esan nahiko zukeenaren artean zirrikiturik txikiena ere egon ez dadin.

## 9.5. ENUNTZIATU PARENTETIKOA, INFORMAZIOA TESTUINGURUAN KOKATZEKO ESTRATEGIA

### 9.5.1. Sarrera

Goiko atala amaitu dugu adieraziz esatariak bideratu edo gidatu egin nahi duela irakurketa berak nahi duen interpretazioa egin dezan norentzakoak, eta enuntziatu parentetikoaren eginkizuna oinarri-oinarrian horixe dela; hau da, norentzakoaren interpretazio-prozesua testutik bertatik gidatu, bideratu eta erregulatzeko arrasto, aztarna edo lagungarriak ematea norentzakoari, bai esan duenaren eta esan nahiko zukeenaren artean tarterik txikiena egon dadin eta baita, noski, esan nahi zuenaren eta honi emandako interpretazioaren artean ahalik eta zirikiturik txikiena egon dadin ere.

Interpretazioaren gakoa, izan ere, ez da soilik argudiatzeari dagozkion markak topatzea, ez eta, ziurrenik, testu jakin horri dagozkion egitura nahiz pertsonarteko ezaugarriak identifikatzea ere. Maiz aski, interpretazioaren gakoa iradokitzeko gaitasunean dago; hots, iradoki eta inferentzien errota martxan jartzeko gaitasunean. Eta egiteko horretan enuntziatu parentetikoek zeresan handia dutela ikusiko dugu. Corpuseko adibide batzuk ekarriko ditugu horren lekuko:

- Aldi honetan zenbaitek herri xeheari —**populuari**— azken hitza eman nahi badiote ere, zertan eta arte-gaietan, ez litzateke harritzekoa herri xeheak gai kaxkar eta belaxketara jotzea. (ZIN: 139).

Goiko adibide honek, esate baterako, hitzez hitz hala ez badio ere, esatari-norentzakoaren arteko komunikazio-trukea gauzatu zen garaiaren isla dakar: garai hartako tirabira edo auzi bat inplikatu du edo behintzat auzi hori inferitzeko keinuak edo arrastoak bidaliko dizkigu:

Pentsa genezake “herri xehea” adigaiaren sinonimo besterik ez dela “populu” hitza, baina termino horren erabilerak esaten duen horretaz harago bidaltzen du norentzakoari; izan ere, “Jurgi Oteizak esan digu” artikuluan agertzen denez, gizartean, artea ulertu eta epaitzerakoan iritziak bereiz zebiltzan: “herriari”, “herri ikasiari”, “herri xeheari” azken hitza ematen ziotenen artean eta, “arte” gaietan behintzat, hori onartzen ez zutenen artean. Honela adieraziko digu Mitxelenak berak:

Betiko leloa zegoen gero. Oteizaren izena entzun orduko hasiko baitzaizkizu herria bihotz-muinetan daramaten horietako zenbait “Zer esango du horrezaz herri gaisoak (sic)? Zer pentsatu behar du nekazari zintzoak, arrantzale jatorrak, artzai (sic) tolesgabeak?”.

“Neroni ere —egiten nuen neure artean— herrikoa ote naiz? Ezin erantzun. Dakidana hauxe da: herriaz gutxi dakidala, “populua” ere batzuek deitzen diotela, “herri ikasi” bat ere sortu dela gure artean, besteez gainera, gutarik zenbait bere haserrean irentsiko dituen egun edo bihar, eta horrelaxeko huskeriak” (MEIG I: 108).

Beraz, “zenbait” hori, “herria bihotz-muinetan daramaten horietako zenbait” da; herri xeheari “populua” deitzen dion zenbait. Eta hitz horietatik atera dezakegu Mitxelena ez dela herri xeheari edo “populuari” azken hitza ematearen aldeko; ez behintzat arteari dagokionez. Beharbada, beste zerbaitetan bai, baina arte-gaietan ez. Eta jarrera hori argudiatzen du adieraziz herri xeheak gai kaxkarretara jotzeko aukera handia duela, nahiz eta jakin “herri ikasi” bat ere sortu dela gure artean.

Honenbestez, *populu* hitza testuinguru honetan ez da sinonimo soila. Adigaia indartuz hainbat interpretazio-lerrori irekiko dizkio ateak, hitzez hitz esan gabe ere, garai hartan pil-pilean zeuden gertakariak inferitu edo aditzera emateko. Eta alde horretatik diogu enuntziatu parentetikoek balio dutela enuntziatua testuinguru jakin batean kokatzeko (testuinguratzeko); azken batean, testuinguru batean kokatzeko keinuak edo oharrak bidaliko dizkiolako norentzakoari.

Bidaltzen dituen pista edo arrasto horiek, norentzakoaren arabera, interpretazio-lerro ugari (eta ez guztientzat berdinak) iradoki ditzake, interpretazioa, atal honetan frogatzen saiatuko garenez, norentzakoak duen ezaupide “entziklopediko” edo pragmatiko horren baitakoa izango baita.

Esate baterako, ondorengo adibideak, norentzakoak duen mundu ezaupide horren arabera, gauza bat baino gehiago iradoki ditzake:

- Oker ez banabil, bi horiek barrenen ditugula, guztira (**o Oteiza adiskidea!**) hamahiru dira. (LIB II: 101)

Esataria, hamahiru zenbakia esatearekin batera, Oteizaz gogoratzen da (edo Oteizari dei egiten dio), proposiziozko edukia edo informatzen ari dena alde batera utzi eta une horretan bertan, hasierako plangintzan ez balego bezala, digresio bat tartekatuko du. “Hamahiruak” Oteiza dakarkio burura. Zergatik? “Hamahiru” zenbakiak Arantzazuko apostoluak zirela eta

Oteizak izandako istiluen oihartzuna dakarkigu. Baina ziurrenik enuntziatu parentetiko horrek eduki ezberdinak inplikatuko ditu (euskal kulturaren hamahiru zenbakiak badu konnotazio berezi bat: “ez dok hamahiru”, etab), bakoitzak duen ezagutza horretatik abiatuz egiten duen adimen mailako ariketa horren arabera; hots, inferentzien arabera.

### 9.5.2. Inferentziak

Tesian zehar behin eta berriz aipatu eta erabili dugu adigai hau, baina agian egoki litzateke definitzea. Hizkuntza-pragmatikaren ikuspegiak badakar komunikazio-trukea edo prozedura ulertzeko moduan ñabardurarik. Komunikazio-trukea ez da, ikuspegi honetatik begiratuta behintzat, kodetze edo deskodetze prozesu soila, biak batean duten kodean oinarrituz egina (Jakobson 1960); intentziaz egindako paktu edo bat egitea baizik. Bat egite honetan, esatari-norentzakoek batak bestearen intentzioa atzemateko duten gaitasunaz gain, funtsezkoa da esatari-norentzako hauek batean duten informazio-esparruan eragingo duten (hitzez esan gabe doana aktibatuz) prozedura ostentsibo-inferentziazkoak (Sperber & Wilson, 1988) ere oso kontuan izatea.

Hasta hace pocos años la comunicación se explicaba como un proceso de codificación y descodificación de enunciados. Era lo que habíamos aprendido del *Cours de linguistique générale* (1916) de Ferdinand de Saussure (...) y de su versión perfeccionada en 1960 por Roman Jakobson (...)

Toda comunicación verbal consta de una parte codificada y de otra parte producto de inferencias, esto es, de ciertos procesos mentales que llevan a conclusiones como las anteriores. Los hablantes nos comunicamos presentando lo dicho como un estímulo para desencadenar estas inferencias. La simple descodificación nunca es suficiente, pues la comunicación humana es esencialmente una comunicación inferencial. (Portolés 1998: 14-15).

Kodetze-deskodetze bidez jasotakoaz gain, bada, inferentzien bidez hainbat eta hainbat informazio geureganatzen dugu; hau da, agerian hitzez hitz esan gabe ere, berariaz sortzen ditugun zantzu edo susmabide izan litezkeen aztarnak interpretatuz (hau da, inferituz) ere bideratzen da solaskideen arteko komunikazioa. Horretarako, jakina, alde zuzenetik ezagutza komun bat izatea ezinbestekoa da.

Escandell-en arabera (2005), inferentzia prozesu bat da azterna eta honek erreferentzia egiten dion edukia lotzean oinarritzen dena:

La “inferencia” es el proceso por el que se reconstruyen los vínculos que permiten ligar la señal indicial y el contenido al que ésta se refiere. Típicamente la recuperación de este vínculo está basada en la utilización de conocimientos extralingüísticos, que permiten salvar la distancia que media entre el estímulo utilizado y su contenido. (Escandell 2005: 39).

Beraz, deskodetze-prozesutik lortutako informazioa testuinguruak eskaintzen digun informazio pragmatikoarekin uztartu beharko dugu, mezua ongi interpretatzeko ezinbestekoa izango baita:

Hemos visto que para llegar a la interpretación completa del enunciado necesitamos añadir contenidos que no están codificados, sino que provienen de fuentes extralingüísticas. La “inferencia” es, como hemos dicho, el proceso por el que se integra información procedente de diversas fuentes: en el caso de la comunicación humana es el proceso que nos permite combinar la información obtenida a partir de la decodificación del mensaje lingüístico con otra información contextual. Podemos denominar “pragmáticos” a los procesos inferenciales que intervienen en la interpretación de los enunciados lingüísticos. (Escandell 2005: 82).

Enuntziatu parentetikoak aztertze oso egoki datorkigu autore honek berariaz aztertzen duen “inferentziatzko prozesu pragmatikoa”, bai oinarritzkoa eta baita bigarren mailakoa ere.

Oinarritzko prozesu pragmatikoak:

La inferencia toma en cuenta la información contextual disponible (es decir, el conjunto de representaciones interiorizadas de cada individuo) y la utiliza para rellenar las casillas de la representación lingüística que requieren especificaciones ulteriores. (Escandell 2005: 82).

Esate baterako, testu batean “hemen” aditzondoa agertzen bada, inferentziatzko ariketa izango da “hemen” aditzondo hori leku jakin batekin lotzea, hizkuntzak kodetutako edukiarekin eta egoerari buruz dakigunarekin uztarturik. Esparru zehatza zein den zehaztera garamatzen pista guztiak izango dira inferentziatzkoak.

Azken batean, hizkuntzaren deskodetze prozesutik erdietsitako adierazpen kontzeptual eta eskematiko hori hornitu eta aberastu egingo du oinarritzko prozesu pragmatikoak, zehaztu, gauzatu, mamitu egingo baitu. Hau da, testuinguru jakin eta zehatz batean kokatuko du mezua.

Bigarren mailako prozesu pragmatikoak:

(...) los humanos no nos conformamos con computar el contenido explícito de los enunciados, sino que lo integramos con otras representaciones procedentes de nuestro conocimiento del mundo y de las expectativas creadas por la situación. Utilizamos el enunciado codificado lingüísticamente como un “indicio” de nuestro objetivo comunicativo (esto es, como una señal que se conecta de manera natural con otro fenómeno o estado de cosas), para que el interlocutor infiera cuál es la relación entre un indicio producido y lo que queremos comunicar. (Escandell 2005: 85).

Esplizituki aditzera ematen duenaz haragoko informazioa inferitzeko ariketa litzateke. Hitzez hitz esandako horrek zer inpliketzen edo zer ematen duen aditzera aztertze prozesua.

Enuntziatu parentetikoak enuntziatua testuinguruan kokatzeko baliabidea ere badirela frogatzea helburu dugun honetan, agerian edo esplizituki esaten den horrezaz haragoko informazio pragmatikoa zaigu interesatzen, inferentzia bidez erdiesten dugun informazio pragmatikoa, hain zuzen ere.

Bigarren mailako prozesu pragmatikoei Gricek *inplikaturak* deizioa eman zien. Azter dezagun, bada, inferentzia mota hori.

#### 9.5.2.1.GRICEREN INPLIKATURAK (1975)

Gricek inferentzia, hondarrik hondarrean, hitzez hitz esandakoaz harago esatariak aditzera eman nahi duenari deitzen dio, baina inferentzia horiek esatariak nahita, berariaz, sortu baditu, horiek *inplikatura* deituko ditu. Gauza bat baita erantzunak esaten duena edo erantzunaren adiera, eta beste bat adiera horren bidez aditzera eman nahi dena, edo esatariak aditzera eman nahi duena; hots, inplikaturik gelditzen den esanahia.

Inplikatura, bada, ingelesezko “imply” hitzetik dator, eta bi gauza esan nahi ditu; alde batetik, “inplikatu” eta bestetik, Osak (1990: 28) esango digunez, “adidetzo bidea eman”, gaztelaniazko “dar a entender”. Gricek, kontzeptu honen teorizatzaileak, bi motatako



inplikatura bereizten ditu: bata hizketa edo diskurtsoko inplikatura deitzen du, eta bestea, inplikatura konbentzionala edo lexikala. Guri diskurtsoko inplikaturak zaizkigu interesatzen: testuinguruaren baitakoak; hau da, inplikaturik gelditzen den esanahi horien interpretazioa diskurtsoa sortu den testuinguruaren menpe egongo da, edo behintzat, testuinguru horrek posibilitatuko du.

Grice ohartzen da komunikaziozko ekintza batek arrakasta izan dezan, ezinbestean, solaskideak elkarlanean edo auzolanean aritu beharko dutela eta horretarako arau edo maxima batzuk proposatuko ditu (§ 9.4.2.3.1.). Zenbaitetan, ordea, arau horiek urra edo gaindi daitezke. Eta arau horiek gainditzen edo urratzen dituenak, berariaz, propio egiten du, hain justu ere, norentzakoak urraketa hori aurki dezan, eta aurkikuntza hori, azken batean, testuinguruaren arabera interpretatu beharreko inplikatura bihurtuko da.

- Esate baterako, jainko-jainkosak h-z jositako hizkera batean (**ai, behar den lekuan baleude!**) mintzatzen dira, eta gizon hilkorrak halako Bizkai-usai arin bat darion beste batean. (LIB I: 68-69).

*Maxim of manner* (nolakotasunaren araua itzuli dugu) hastapenaren arabera, komunikazioak arrakasta izateko, argia izan behar du eta anbiguitasunak saihestu behar ditu. Goiko adibidean, enuntziatu parentetikoak esatariaren desio bat dakar, “h-ak behar den lekuan egoteko desioa”. Baina, hondarrik hondarrean, enuntziatu horretatik esan duenaz harago aditzera eman nahiko lukeen ondorio bat atera dezakegu: testua edo liburua ortografiatzeko akatsez josita dagoela, bai behintzat “h”-ari dagokionez. Beraz, hizkuntzaren aldetik egindako kritika da inplikaturik gelditzen den esanahia.

Azken batean, adibide horiekin erakutsi nahi dugu enuntziatu bat interpretatzeko ez dela aski enuntziatu horrek hitzez hitz esaten duenaren esanahia ezagutzea (kodetze-deskodetze prozesua); enuntziatu horrekin esatariak aditzera eman nahi duena (bere komunikatzeko intentzio-asmoa) zer den jakitea dela garrantzitsua; hau da, esan duen horretatik zer inferi dezakegun, edo esan duen horrek zer inplikatzeko duen.

Baina zergatik diogu inplikatura horiek diskurtsozkoak direla? Nola atzeman dezakegu esatariak hitzez hitz esan duenaz harago zer eman nahi duen aditzera?

Inplikatura horiek diskurtsozkoak direla dio, inplikaturik gelditzen den esanahi hori testuinguruak posibilitatuko duelako. Kontestuaren edo testuinguruaren arabera da, beraz, inplikaturazko balioa (Osa 1990: 28). Esate baterako:

- Eta zenbait pezetaren truke —**askotxo badira ere**— bihotzeko pake (sic) hori ateratzea gutxi al da? (ZIN: 124).

Enuntziatu parentetikoari esker, esatariak bere kexua agerian jarri edo azpimarratu nahi du: filmak ikusteko ordaindu beharra dauka, eta ez gutxi gainera. “Askotxo” hitzak argudio-indar handia baitu. “-txo” txikigarria da, baina oraingoan, “zenbait pezeta”-ren erreferentzia txikitu ordez, gehitzeko balio du: “gehiegi (asko baino gehiago)” iradokiko luke.

Esaten duen horrezaz gain, ordea, beste zerbait ere eman nahiko luke aditzera: kexuaren muina, hain zuzen. Izan ere, pentsatzekoa (eta bidezkoa) da filmaren bat ikusteagatik ordaindu behar izatea, baina hori aipatzen badu, beste kritikoek ez bezala, berak, kritikoa izanik, ordaindu behar izaten duelako da. Haiek ez bezala, honek euskaraz idazten duelako. Beraz, zentzu horretan interpretatu beharko genuke esatariari ordaintzen duena gehiegi iruditzea. Bere kritiketan, gainera, behin eta berriz azpimarratzen duen kexua da.

Garbi dago, bada, enuntziatu parentetikoez baliatuz, esatariak hitzez hitz esandako horretaz gaindi beste zerbait eman nahi duela aditzera. Eta inplikatu nahi duen hori azpian dagoen bidegabekeria da, eta baita euskarak bizi duen egoera ere. Azken batean, txartela doan eman ziezaioketenek ongi zekiten hark *Eganen* (euskaraz ordea!) kritika egiten zuela.

Kexu hori beste pasarte batean ere aipatzen du:

- Erakutsia izan zen film hau iaz Cannes eta Veneziaren izena, besterik ez aipatzeagatik, zeharo ixilarazi duen Donostiako zinema-aste ederrean. Baina hemen ari natzaizuen honek ez du jai horietan sarrerarik izaten, **ordaindu gabeko sarrerarik**, alegia. (ZIN: 182). (Lodia gurea da).

Testuinguruak lagunduko digu, bada, hitzez hitz esandako horretatik harago aditzera eman nahi duen hori interpretatzen. Oraingo honetan, kotestuak, edo berak idatzitako beste pasarte batzuek.

Beste hainbeste esan dezakegu ondorengo adibideari buruz ere:

- Hilzikunetan izaten dira zenbait txolarte alai —**adiskide artean, hildakoaz ahazturik, egiten diren berriketak eta**—, eta Sacha Guitry zena ere, goian bego, saiatu da aldiz-aldiz ikuslearen zama arintzen. (ZIN: 178).

Enuntziatu parentetikoaren artean adibide bat paratu ez balu, litekeena da pentsatzea “hilkizunetan txolarte alaiek” ez dutela tokirik izaten, baina adibide horrek enuntziatua testuinguratzeko ere balioko digu.

Beraz, testuinguruak interpretazio-prozesu horretan garrantzi handia duela ikusiko dugu. Ez baita aski izango esatari-norentzakoak soilik kontuan izatea; diskurtso hori egoki interpretatu ahal izateko, testuingurua, edo nahiago bada, Lo Casciok deitzen duen argudio-markoa<sup>281</sup> kontuan izan beharko da; hau da argudiozko enuntziatio-ekintza sortu deneko testuingurua eta egoera.

Testuinguruak, izan ere, enuntziatu beraren interpretazioa alda dezake. Esate baterako, “Ortografiako akats handiak dituzu” enuntziatuak ondorio ezberdinak izan ditzake testuinguruaren arabera: azterketa bati dagokiola izan daiteke “ez duzu aprobaturiko” ondorioa eraman dezakeen argudioa; aitzitik, tabernan edo kalean egindako lagun arteko elkarrizketa batean, batak besteari egindako komentario edo iruzkin soilak izan daiteke.

Tesian aurrera egin ahala ohartuko gara enuntziatu parentetikoaren zeregin nagusietako bat ere horixe dela: informazioa testuinguruan kokatzea. Esatariak norentzakoari interpretazioa gidatzeko keinuak, seinaleak, arrastoak edo pistak ematen dizkiola diogunean, horixe esan nahi baitugu: esatariak norentzakoari enuntziatua testuinguruan kokatzen lagunduko diola, honek inferentzien errota martxan jarri eta enuntziatua egoki interpreta dezan. Eta “egoki” diogunean, beti ere, esatariak aldeztu aurretik zituen uste eta intentzioei nahiz norentzakoari egokitzen zaiola adierazi nahi dugu.

Honenbestez, pertsuasiozko prozesu honetan, testuinguruko osagaiak garrantzi handia dute. Esaterako, norentzako esatariak azaldu eta aldeztu nahi duen gaiaren jakitun izateak esatariaren argudiatzea hobeto jarraitzea dakar eta, ondorioz, aurkeztutako tesiei atxikitzea edo hauetatik baztertzea.

Enuntziatu parentetikoak enuntziatua testuinguruan kokatzeko komunikazio-eginkizuna duenez, defini dezagun ‘testuinguru’ adigaiak haren arabera; Mitxelenak dituen erreferentzia kulturalak (zinemaren nahiz euskal literaturarenak), erlijiosoak, errituzkoak, nahiz bere garaiko gizarte auzien erreferentziak diskurtsoan bertan tartekatzeko aukera eskaintzen baitio.

<sup>281</sup>V. Lo Casciok (1998) argudio-markoa argudiatzea gauzatzen deneko egoera pragmatikoari deitzen dio, eta honako adigaiak besarkatzen ditu: gaia, solaskide-motak, argudio-prozesuaren nahiz pertsuasio-prozesuaren sarrera, erdibideko estadioak, amaiera, helburuak, baldintzak, egoera soziolinguistiko eta kulturalak, denbora, lekua, testu-tipoa, etab.

### 9.5.3. Enuntziatu parentetikoa, enuntziatua testuinguruan kokatzeko baliabidea

Argi dago —eta inork ez du ukatzen— enuntziatuak interpretatzeko zeinen garrantzizkoa den komunikazioaren ezinbesteko osagai den elementu hau. Egun, Saussureren (eta estrukturalisten) eta Chomskyren ikuspegi inmanentea ez da aho batez onartzen. Bai batak eta bai besteak enuntziatuaren ekoizpen-baldintzak saihestu egiten dituzte eta, ondorioz, hizkuntzalaritzaren esparruan urrats handiak egin dituzten bi ikuspegi nagusi hauen ekarria urri, eskas edo murriztegi<sup>282</sup> gelditu zaigu:

La perspective immanente, cet horizon méthodologique vers lequel la linguistique s'est efforcée de tendre asymptotiquement, apparaît aujourd'hui'hui plus réductrice que productrice. (Kerbrat-Orecchioni 1980: 8).

*Testuingurua* kontuan izatea, bada, ezinbestekoa da, baina ez da batere erraza *testuinguru* terminoaren mugak zehaztea. Hizkuntzalari askorentzat muga lausoak ditu eta sistematizatzen ez da batere erraza, testua inguratzen duen *possible world* oro izan baitaiteke; hots, hizkuntzaz kanpoko gertakari oro.

Anabasa are eta handiagoa da *testuingurua* adierazteko erabili izan diren terminoak ugariak direlako batetik, eta *testuinguru* terminoaren azpian arras desberdinak diren adigaiak uler daitezkeelako, bestetik. Esate baterako, testuingurua adierazteko hamaika termino eta izendapen erabili izan dira: *ingurumaria* (edo leku-denborazko egoera), *ekoizpen-baldintzak*, *komunikazio-zirkunstantziak*, *kontestua*, *kotestua*, etab. dira horietako batzuk; eta baliokidetzat jo izan diren terminoek barne hartzen dituzten gertakariak autoreen arabera aldatzen dira. Komeni zaigu, bada, *testuinguru* hitza darabilgunean zer adierazi nahi dugun zehaztea, ulerkera horren barrenean definitzen baitugu enuntziatu parentetikoa testuinguruan kokatzeko baliabidea bezala.

Egitekoa, ordea, ez da batere samurra; asko dira, izan ere, potentzialki eragingarriak izan daitezkeen hizkuntzaz kanpoko parametroak edo gertakariak, eta horrek sistematizatze zailtasunak dakartza. Zailtasunak zailtasun, hizkuntzalaritzaren barrenean testuingurua sistematizatze ahalegin ugari izan dira. Gu, oso labur bada ere, autore batzuen ekarriaz baliatu gara: Coseriu (1967), Bustos (1986), Van Dijk (1992), Escandell (1993, 2005), etab. Ez dira testuinguruaz gogoetak egin dituzten bakarrak, baina hauen ekarriak gure aztergaiari

<sup>282</sup> Hizkuntza, ezer baino lehen, komunikatzeko tresna da, eta horretarako hizkuntzaz kanpoko osagaiak ere oso kontuan izan behar ditugu.

begira izan dezake zeresanik, enuntziatu parentetikoak, arestian genioenez, testuinguruan kokatzeko baliabide ere badirela frogatzeko.

Autore hauengana guztiengana hurbiltzean galdera bat izango dugu gogoan: zein dira testuinguruak barne hartzen dituen gertakariak? Eta guk gertakari horietatik guztietatik zeintzuk hartzen ditugu kontuan, enuntziatu parentetikoak testuingururatzeko baliabide ere badirela diogunean? Erantzunean bila ditzakegu batzuen eta besteen arteko aldeak.

### 9.5.3.1. INGURUAK EDO INGURUNEAK

Coseriu (1967), enuntziatua interpretatzerakoan *inguruak*, edo *inguruneak* duen garrantziaz mintzo da:

[...] en todo momento, lo que efectivamente se dice es menos de lo que se expresa y se entiende. Mas ¿cómo es posible que lo hablado signifique y se entienda más allá de la lengua? Tal posibilidad está dada por las actividades expresivas complementarias y, sobre todo, por las circunstancias del hablar, o sea, por los entornos.

Los entornos intervienen necesariamente en todo hablar, pues no hay discurso que no ocurra en una circunstancia, que no tenga un “fondo”. [...] los entornos orientan todo el discurso y le dan sentido, y hasta pueden determinar el nivel de verdad de los enunciados. (Coseriu 1967: 308-309).

Hizkuntzalari hau ere ohartzen da hitzez hitz esandakoaz harago jo behar dugula enuntziatuak interpretatzeko, hitzez esaten dena aditzera ematen dena baino gutxiago baita. Eta horretarako testuinguruak edo hizketako baldintzek (*entornos*) zeresan handia izango dute.

Hona hemen Coseriuk bereizten dituen testuinguruak corpuseko adibideez lagunduta:

#### 1. Testuingurua edo ingurune fisikoa

Agerian, begi-bistan dauden gauzek osatuko dute; Escandell-en (1993) ingurumariaren (edo leku-denborazko egoeraren) baliokide litzateke. Euskarri fisikoa da; enuntziazioa gauzatzen den “markoa”. Bere zutaberik garrantzizkoenak dira “lekua” eta “denbora”.

- Eta, hau da beltzena eta gogorrena, gertakari berbera bi aldetara entzuten baldin badugu — **gaurko neska-mutilek irakurtzen dituzten nobeletan edo antzinako poema epikoetan bezala edertua eta goratua, edo oraingo eta lehengo zenbait idazlek ohi duten bezain beztua eta itxuratxartua**—, alderik politena ez dela beti ezta maizenik ere, egiazkoena izaten. (ZIN: 130).
- Robert Aldrich'ek —**Venezian bigarren Zilarrezko Lehoia eraman du aurten**— hainbestean moldatzen ditu irudi moldakaitzak, ofiziale ikasiari dagokionez. (ZIN: 142-143).
- Giza-izaera barrenez mintzatzen zitzaigun “Rashomon”, gizona gizon —**nahiz Japonen, nahiz Euskalerrian**— egiten duten zer nagusi horietaz. (ZIN: 143).

Esatariak bere enuntziatua testuinguratzen du; “non” eta “noiz” ardatzak berariaz zehazten ditu. Horrela, leku-denborazko egoeraren berri ematen digu enuntziatu parentetikoei esker.

## 2. Testuinguru enpiriko eta naturala

Leku eta une jakin batean, agerian egon ez arren, solaskideek ezagutzen dituzten gauza objektibo nahiz potentzialek osatzen dute testuinguru hori. Saia gaitezen corpuseko adibide batez azaltzen:

- Badira nonbait —**Euskalerrian edo**— euskaldun izeneko gizon-emakume batzuk. (ZIN: 131).

Enuntziatu parentetikoak informazioa zehaztu eta testuinguratu egiten digu, “nonbait” halako testuinguru enpiriko eta natural bati dagokiola adieraziz (Euskal Herriari). “Nonbait” horretan atzematen dituen ezaugarriak Euskal Herriari edo dagozkio, eta ez du zertan euskarri fisikoa soilik adierazi; hau da, ez daitezke soilik kanpotik deskriba, harremanezko edukiak<sup>283</sup> ere osatuko baitu.

---

<sup>283</sup>Harremanezko edukia, jarraian informazio pragmatikoa edo harremanezko testuingurua aztertzean, sakonduko dugu.

### 3. Testuinguru praktikoa edo aldian aldikoa

Testuinguru edo ingurune honek, hitzak dioen bezala, komunikazio-trukea gauzatzen deneko testuinguru jakina du hizpide. Diskurtsoa gauzatzen den ekoizpen baldintza subjektiboak eta objektiboak kontuan hartuko ditu.

- Erraztasunak ezer galdu badu hemen edo han, **eta euskaraz tutik ez dakien ikaslea daukat gogoan**, ugaritasunak eta aberastasunak irabazi dute. (LIB II: 73).

- Kritikak ere, **Donostiako kritikaz ari naiz**, nahigabetsua zelako edo, ez du deus askorik. (LIB II : 139).

Esatariak ekoizpen-prozesu jakin horretako zein norentzako duen gogoan adieraziko digu, edo “kritika” dioenean, une jakin horretan zein kritikaz mintzo den. Ez da, bada, oro har, ekoizpen-baldintza orokorreaz ari, konkretuaz baizik; ekoizpen-baldintza jakin hori testuinguratzen dihardu.

### 4. Testuinguru historiko eta kulturala

Ingurune honek esatariak bizi eta ezagutzen dituen baldintza historikoak eta kulturaren transmisioaren adierazgarri direnak hartuko ditu aintzat.

- Eta, hau da beltzena eta gogorrena, gertakari berbera bi aldetara entzuten baldin badugu — **gaurko neska-mutilek irakurtzen dituzten nobeletan edo antzinako poema epikoetan bezala edertua eta goratua, edo oraingo eta lehengo zenbait idazlek ohi duten bezain beztua eta itxuratxartua**—, alderik politena ez dela beti ezta maizenik ere, egiazkoena izaten. (ZIN: 130).

- Robert Aldrich´ek —**Venezian bigarren Zilarrezko Lehoia eraman du aurten**— hainbestean moldatzen ditu irudi moldakaitzak, ofiziale ikasiari dagokionez. (ZIN: 142-143).

Goiko adibide horiek, ingurumariaren berri ez ezik, testuinguru historiko eta kulturalaren berri ere ematen digute.

Bada corpusean adibide-sail bat alderdi historiko eta kultural hori islatzeko ongi etor dakigukeena. Europari edo “europartasunari” egiten diote erreferentzia:

- Amerikanoen etsaiek ere —**eta nork ez ditu begitan gutxi edo gehiago Europa zahar honetan?**— ez dute noski nahibeste algara egin haien bizkarretik. (ZIN: 185).

- Kontu honetan hauxe da neretzat parregarriena: inoiz ez direla izan gaur bezain Europaren mendeko (**eta Europa, de Gaullek gogorazi berria duenez, Europa da eta Amerika Europaren alaba**) gainerako lurraldeak. (LIB I: 141).

Mitxelenak enuntziatu parentetikoek bidez behin eta berriz egingo dio Europari erreferentzia, bere sustrai guztiak Europan dituela azpimarratuko digu, eta Europaren kultura gu guztiona dela, nahi badugu eta ez badugu:

Ni behintzat ezin naiteke zalantzan hasi Europa'ri buruz, nere sustrai guztiak Europa'n baititut. **Europa'ren kultura —berak sortutako nahiz besterengandik hartutako gaiez oratua—** gu guztiona da, nerea ez ezik, nahi badugu eta nahi ezpadugu. Gure berezitasuna ezta europartasunaren hezur-mamiei usai eta kolore berexi-antzekoa ematen dien larmintz mehea baizik. (MEIG IV: 45 ).

Garai-giroen isla dira, gainera. Dirudienez, gazteak bereziki, Europako haizeak onak ala kaltegarriak ditugun eztabaidatzen hasiak ziren.

Europaren haizeak onak ala kaltegarriak ditugun: ona orain piztu eta berritu zaigun auzia. Berandu xamar gabiltza, gehienetan bezala, auzi hori 98-koena berbera den ezker. Gogora dezadan, beraz, aurre askoan ibili zela behin Euskal Herria gai horretan, Azkoitiko zalduntxoekin<sup>284</sup>. (MEIG IV: 44).

Munduaren lau kantoietatik bildutako jende horrek jaso duen lurrak eta herriak, gainera, orain zenbaitek hain gorroto dituen Europaren antza eta eitea darama. (ZIN: 160).

Mitxelenak garai hartan (idazle) gazteen artean zegoen Europa kritikatu eta gutxiesteko joerari, ordea, kritika egiten dio, baita horretarako Txillardegiren *Peru Leartzeko* liburuko pasarteren batzuk aitzakia hartu behar baditu ere:

---

<sup>284</sup>Beste aipu batean honela esango digu: “Gerta daitekeena dela deritzat gurea bezalako bazter herri bateko jendeak Europa arbuiatzen hastea Europaren berri ongi jakin baino lehenago. Europan bertan badaukagu, nere ustez, zer ikasia ugari luzarorako, bestetara jo gabe. Peñafloidak eta beste zalduntxoek XVIIIgarren mendean hasi zuten lanbidea zai daukagu oraindik, ez baititu bestek geroztik gehiegi aurrerazi. (LIB I: 142).



“Sorkaldeko erlijioak” —**dio hitzaurrean**— “oso lilura sakona puztutzen dute Europako gizonarengan. Budarenak batez ere... Zenbait ohar ipini nahi nituzke hainbat lasterren. Hona lehenbizikoa. Urteetan aurreratuxea nagoenez gero, ez da harritzeko gaur Europan barrena dabilzan haizeen berri ez gehiegi jakitea. Beste horrenbeste gertatuko zaie, ordea, eta urte gutxi barru, zorioneko “denboratasuna” dela bide, oraingo gazteagoi. (LIB I: 139).

Jakite berri horren berri [budismoa] hotsa ez ote zuen ekarri nolazpait ere Chaok Euskalerriraino? Eta ez ote ditugu geurok, europarrok, argitara eman, aztertu eta azaldu Indiako erlijio-, arte-eta jakite-liburuak ehunetan laurogehita hemeretzi bider? (LIB I:142).

“Europa” mintzagai duten enuntziatu parentetiko horiek, bada, tartekatu ditugun pasarteek erakutsi digutenez, garai hartako eztabaida historiko eta kulturalen isla dira. Ez horren berri luze-zabalean garaturik ematen duelako, baina agertu agertzen da garai hartako belaunaldien arteko kontrastea (belaunaldien arteko tirabirak). Beraz, izan badira garai arteko gogo-giroen arrasto edo errainu.

#### 9.5.3.2. INFORMAZIO PRAGMATIKOA: SOLASKIDEEN EZAUPIDE, ASMO ETA SINESMEN-USTEAK

Testuinguruak badu materiazko osagairik eta baita harremanezkorik ere. Materiazko osagaia testuinguruaren alderdirik fisikoenak osatuko du, hots, ingurumariak edo leku-denborazko egoerak. Harremanezkoen artean, berriz, informazio pragmatikoa aipatzen digu Escandellek (1993), “testuinguru” izendapenik eman gabe. Bustosek (1986) informazio pragmatiko hau testuinguruaren barnean sartuko du, eta Coseriuk bereizitako testuingurumota guztiak kabituko lirake, fisikoa alde batera utziz.

Escandell (1993, 2005)

Autore honek 1993an pragmatikako osagaiak bi azpimultzotan sailkatzen ditu: *materiazkoak*, izate “fisikoa” dutenak, hau da, kanpotik deskriba daitezkeenak; eta *harremanezkoak*, aurrekoen artean sortzen diren harreman-moten arabera direnak.

Bereziki, atal honetan, harremanezko osagaiari edo informazio pragmatikoari erreparatuko diogu.

*Informazio pragmatikoa*

Honela deritza Escandellek (1993) gizabanako batek hizketaldi jakin batean dituen ezaupide, sinesmen, uste, iritzi eta sentimendu-andanei. Esatari-norentzakoek, hortaz, badituzte munduaz, hurkoaz, inguratzen dituenaz, eta abarrez alde zuzeneko eskarmentuak.

Esate baterako, errepara diezaiozun ondorengo adibideari:

- Ez dute gaizki zinamaratu —italiarren eskua ageri da horretan— zaharrak ondu duen ipui eder hau. (ZIN: 146).

Enuntziatu parentetiko hori garbi dago ez dagokiola fisikoa den zerbaiti; ez du lekuaren edo denboraren erreferentziarik ematen. Halarik ere, ezin esan enuntziatua testuinguratzen laguntzen ez duenik. Esatariak (eta, jakina, baita norentzakoak ere) zinemaz duen ezaupidea, ustea eta iritzia agerian geratzen da. Italiarrek, dirudienez, zinemarako esku polita erakusten dute edo behintzat uste horren aldeko da esataria, eta jakin badaki norentzakoak ere baduela italiarren trebezien berri.

Beraz, “kanpoko errealitatearen” barrentzea gertatzen da. Baina ez dira ezaupide soilak; informazio pragmatikoak gure adimen-mundua osatzen duen oro hartzen du, objektiboenetik hasi eta norberekoenetara iritsiz.(Escandell 1993: 37).

Funtsean, kanpoko errealitateaz bakoitzak egiten duen barne-irudikapenaz hitz egin beharko genuke:

La noción de representación interna permite explicar de manera más sencilla la relación entre lo que queremos comunicar y las palabras que empleamos para hacerlo. Las representaciones internas son personales y privadas; las expresiones lingüísticas, en cambio, son “representaciones externas”, es decir, representaciones comunes y públicas. Las representaciones internas pueden ser muy detalladas y precisas, y cada individuo es capaz de reconocer en ellas toda una gama infinitesimal de matices diferentes (Escandell 2005: 33).

Escandellek (2005), bada, “kanpoko errealitatea”, “egoerazkoa”, “munduaren eta norentzakoaren ezaupidea”... adigai horiek guztiak bilduko dituen `barne- irudikapen´ adigaiak garatuko du. Norbanako bakoitzak komunikazioaren egoera hori nola barrentzen duen

aztertuko du. Ezin genezake, bada, egoeraz objektiboki hitz egin; norbanakoak komunikazio-truke bakoitzean hauteman (edo irudika) dezakeenaren arabera izango da; subjektiboa, beraz.

Goiko azalpena argitzeko, apika, ongi datorkigu ondorengo adibidea:

- Eta oraingo gisan, mendiak murrizten —**edo gehienez ere pinu beltzez jazen**—, ez dute, eginahalak egin arren, Lizardik utzi zigun baso antzaldaturako soilduko, harako leihoak itxitako jauregia dirudien hura, atsedeenaren eliza, gau argi izarrez josia goian eta ur berdeak —izar irudiz zirtatuak— behean dituenak. (LIB I: 64).

Enuntziatu parentetiko horrek esatariaren alderdi ezku bat agerian jartzen du; alderdi naturzale edo ekologista, alegia. Mendien eta, oro har, inguruaren hondamendiak sortzen dion kezka ispilu da enuntziatu parentetikoak: mendiak murriztearen antzeko zerbait da esatariarentzat mendiak pinu beltzez jostea.

Inguratzen duen mundu hori esatariak mentalki horrela irudikatzen edo mamitzen du: fisikoki mendiak edo basoak hondatzen ari badira ere —eta ez dira kanpotarrak hondatzen ari direnak, hemengo langileak baizik— Poesiaren errainuan basoak betikotasuna irabazi du Lizardiri eskerrak.

Beraz, inguratzen gaituen mundu hori mentalki nola irudikatzen edo mamitzen dugun da garrantzitsua. Eta irudikapen mental horiek, jakina, ez dira estatikoak izango, etengabe aldatuz doazenak baizik.

Bustos-entzat (1986), esate baterako, hizkuntza bateko hiztun-entzuleen asmo, uste eta sinesteak dira, hain zuzen ere, komunikazio-egoera jakinetan, hizketaldien benetako testuingurua osatzen dutenak eta, funtsean, sinesmen-multzoen aldatzea da komunikazio-trukea aurrerabidean jartzen duena.

Beraz, bai Bustosentzat bai Escandellentzat, testuinguruak (edo informazio pragmatikoak) solaslagunek dituzten sinesmen-multzo aldaerazak eta subjektiboak dira.

Zehatz esan, solaslagunek egoera jakin batean hizketaldi bat egoki nahiz desegokitzat jotzea ez da kanpoko egoera objektiboaren arabera, solaslagunek egoera horrezat duten ustearen arabera baizik. Adibidez, agindua ematen duenak benetako agintea izatea ala ez izatea ez da ardurakoena hizketaldiaren ilokuziozko (eta perlokuziozko) indarrerako, solaslagunek hala uste izatea baizik. Solaslagunak protagonistak dira eta ez kanpoko ikusle hotz.

Hizketaldiaren egokitasun pragmatikoa, hondarrik hondarrean, solaslagunen arteko tratuan datza. Eta hori horrela da horiek bakarrik dakitelako testuinguruaren berri, hau da, badakite edo dakitela uste dute zein diren halako komunikazio-trukea behar bezala betetzeko beharrezkoak diren usteak, testuinguruaren gunea osatzen duten usteak.

Irudikapen horien edo inguruaren barrentze horren subjektibitateaz hitz egin du Escandellek. Bustosentzat ere alferrikakoa da osagai subjektiboari muzin egitea. Horrek ez du esan nahi, ordea, gizabanako bakoitzaren informazioak besterenarekin inolako ikuskizunik ez duenik. Esate baterako, goian aipatu dugun “italiarren eskua ageri da horretan” enuntziatu parentetikoak ez luke zentzurik “italiarrek duten zinemarako trebetasunaren berri” esatariak soilik izango balu; norentzakoak ere ezaupide komun hori duelakoan txertatzen du, honek ezaupide horretan oinarrituz mezua hobeto adi eta interpreta dezan.

Errepara diezaiogun ondorengo adibide honi ere:

- Ixil-ixilik, liburuaren izenari dagokionez [*Musika ixilla*], jardun du lanean Joan Inazio Goikoetxea —“Gaztelu” euskal letretan— apaiz jaunak *Musika Ixilla* deritzan liburu mardul hau lantzen eta osatzen, eta ustekabean hartu gaitu zenbait euskaltzale hain betea eta biribila argitara duenean. (LIB II: 105).

Goiko adibide horretan ikus daitekeenez, esatariak enuntziatu parentetikoaren bidez solaslagunek batean duten jakintza-ezaupidea aktibatuko du; zehatzago, euskal kulturako partaide izateaz baliatzen da solaslagunari norbait identifikatzeko arrasto edo pista bat emateko: esatariak badaki edo uste du norentzakoak “Inazio Goikoetxea” bezala ez duela pertsonaia hori ezagutuko, baina jakin badaki euskal letretan bere burua aditzera eman duen goitizena paratzen badu, norentzakoak errazago identifikatuko duela. Beraz, kultura jakin horretako partaide izateak (eta ezaupide hori aktibatzeke gai den bitartekoa testuan bertan tartekatzeak) lagunduko dio mezua interpretatzen.

Garbi dago, bada, solaslagunek informazio-esparru zabalak izan ohi dituztela batean; hots, jakintza-ezaupideak, ohiko usteak edo kultura jakin bateko partaide izateak berarekin dakarren munduaz den ikusmoldea.

El conocimiento compartido y la utilización de un mismo conjunto de criterios para conceptualizar la realidad dependen de manera decisiva de la socialización del individuo: al formar parte de un determinado grupo social, aprendemos a percibir las cosas, a entenderlas

y a conceptualizarlas como hacen los demás miembros de nuestro grupo. (Escandell 2005: 34).

Esatari-norentzakoek batean duten sinesmen-multzoari Bustosek (1986) hizkuntza-trukearen guztiena den oinarria deritza (Bc). Multzo hau aldakorra da, hizkuntza-trukeak ere mugikorrek baitira: sinesmen berriak sortzen eta sartzen dira oinarri horretan, oinarria aberasten, hornitzen da. Aberaste-hornitze hauek ezinbestekoak dira teoria pragmatikoarentzat (eta bereziki aztergai ditugun enuntziatu parentetikoak interpretatzeko), honen deskripzioaz eta sorrarazten duten mekanismoez komunikazio-trukearen barrenak ezagutzen aurrera egingo genuke eta.

Ikuspegi honen arabera, beraz, testuingurua ez da enuntziatio-ekintza inguratzen duen marko fisiko eta kultural finko bat, ez eta alde zehatz zehatz dagoena ere; solaskideen arabera da. Hau da, horien uste eta sinesmenen nahiz horiek egiten duten barne-irudikapenen arabera. Subjektiboa eta dinamikoa (komunikazio-trukearen arabera aldatuz doana).

Informazio pragmatikoaren osagaiak hobeto zehaztu nahian S.C. Dik-en ikusmoldea aipatuko dugu

### 9.5.3.3. INFORMAZIO PRAGMATIKOAREN OSAGAIK

S.C. Dik-en arabera (1989), informazio pragmatikoaren osagaiak hiru dira: orotarikoa, interakziozkoa eta “kotestuaren” arabera.

1) Orotarikoa: munduaz den ezaupidea, bere naturazko ezaugarriak, kulturazkoak...

Oso ohikoa da Mitxelenarengan euskal gauzak eta mundu zabalekoak (Europakoak bereziki) uztartu nahi izatea. Ezin gera gaitezke munduari bizkar emanez, ezinbestekoa da denboraren gorpuean eta aldien aurrerabidean beste herrien uztarkide bilakatzea.

Ikusi besterik ez dago Europaren defentsan esandakoak. Horiez gain, ugariak dira munduaren ezaupidearen adierazgarri diren enuntziatu parentetikoak:

- Ez du beraz hemen zuzendariak —**bestelako filmetara ohituak genduzkan J. L. Mankiewicz’ek** — axaleko zehaztasunaren bila ibili beharrik, “Quo vadis?” batean bezala. (ZIN: 125).

- Robert Aldrich´ek —**Venezian bigarren Zilarrezko Lehoia eraman du aurten**— hainbestean moldatzen ditu irudi moldakaitzak, ofiziale ikasiari dagokionez. (ZIN: 142-143).

- Eta Islandiako bazterretan 1600 inguruan entzuten zuten euskara (**ikus N. G.H. Deen, Glossaria duo Vasco-Islandica, Amsterdam, 1937**), gipuzkoarrak ere han gehiegixko nabarmendu zirela dakigularik, Lapurdikoa zen, dudarik gabe. (LIB II: 57).

2) Egoeraren araberakoa edo interakziozkoa: elkarrekin jardutearen ondorioz, solaskideek atzematen dutenetik eratorritako ezaupidea.

- Eta gure arimaren eguneroko —**edo asteroko**— ogia hori dugunez gero, hemen ere aterpe txiki bat, narrasa bada ere, utzi nahi genioke. (ZIN: 123).

Jakin badakigu, Mitxelena zinema ikustera astero joaten zela, eta horregatik, berak bizi duen egoera jakinari egokitzeke, hautsiko du “eguneroko ogia” esapidea<sup>285</sup>.

Halaber, interakzioaren baitakoak edo izan daitezkeenak asko dira.

- “Neri behintzat —**ikasiagoengatik ez naiz ari**— deus ere ez dakidala iruditzen zait Ibar-en<sup>286</sup> itzulpen hau irakurri ondoren. (LIB I: 103).

- Eta ez dezazula Jainkoagatik gutxietsi, **garbizale horrekin ari naiz**, nahi bezain garbi ez deritzazulako. (LIB I: 40).

Badirudi solaskideak aurrez aurre dituen zuzeneko elkarrizketa batean gertatu ohi denez, zuzenean solaskideari egiten diola dei; bada ezpada, zalantzarik egonez gero ere, komunikazio-truke jakin honetako norentzakoa zein den berariaz emango digu aditzera. Eta ez du zeharka edo aipatzen, berariaz baizik. Interakzioaren araberakoa den enuntziatu parentetiko horrek, bada, badakar garai hartako euskalzale eta euskalarien artean mintzagai eta eztabaidagai zen gai baten oihartzuna ere: garbizalekeriarena<sup>287</sup>. Beraz, hain hurbil eta

<sup>285</sup> Estilo kontua ere badela uste dugu; oso Mitxelenaren da hautsi eta alda ezin omen diren esapideak eta aldatzea.

<sup>286</sup> “Ibar” izendapenaren azpian Justo Mokoroa legoke.

<sup>287</sup> Perez Gazteluk (1995a) tesiko atal oso bat eskaini zion “garbizaleei” nahiz “narras-zaleei”. Berri zehatzagoa eta osoagoa nahi duenak jo beza iturri horretara, gure helburua ez baita gai horretan sakontzea.

hain urruti dugun garai bateko giroaren zipriztin batzuk dakarzkigu enuntziatu parentetikoak: hizkuntzaren inguruko kezka.

Mitxelena ez zen “mordoilokeriaren” aldeko, baina jakin bazekien —berak aitortua— “hizkuntzari gutxi ajola diola garbitasunak, eta aberastasunak, biguntasunak, errextasunak, berriz asko” (1953: 454). Eta beraz ez zaio euskal liburu bat baztertzeko arrazoi aski iruditzen garbizaleek nahi bezain garbia ez izatea. Maiz euskara gaitu dutenek (bai Axularrek, bai Oihenartek, esaterako) latin-eredura euskara egokitu beharrean ari zirenean, uste zuten, zuzen noski, ez zirela euskara nahaspilatzen eta zikintzen ari, aberasten eta gehiagotzen baizik.

Mitxelena, bada, ez da ez garbizale ez eta mordoilokeriaren aldeko ere. Ikusi besterik ez daude ondorengo pasarteak, bere jarrera ezagutzuz garai hartako eztabaidaren zertzelada batzuk bederen agertzeko:

Nondik jo ez dakiela somatzen dugu batzuetan, eta ez da harritzeko. Euskararen alde txarrak eta debekuak, zenbaiten iritziz, bere eskas eta urritik omen datoz. Lehenxeago bai; gaur ez dut uste. Duela zenbait urte ez baitzen gure artean beste sendabiderik baraua eta odol ateratzea baizik. Hitz hau ez da garbia: bazter dezagun eta kito. Horrelako horrek ere badu halako erdal usai bat. Hobe dugu utzi. Harako esaera haren antzekorik ba omen da erdaraz: debeka dezagun, beraz. Bide horretatik ez zitzaizkigukeen azkenik lau hitz jaioberri eta bi esaera besterik geldituko.

(...) Hutsak betetzeko zeinnahi euskalkitatik hartzen hasi ginen eskuak betean: gauza jakina da beste erdara batetikako erdarakadek ez gaituztela asko mintzen. Orain berriro, erdaratikako hitzei ere sarrera zabaltzen hasi gintzaizkien. Azkenean, dialektu nahastea dela, euskaldunek beti ahotan dituzten “erdal hitzak” nahiz dozenatxo bat lagunek darabiltzan hitz “jatorrak” direla, badaukagu non hauta, gaurko erdaren iturri garbitik barra-barra biltzen hasi garelarik, edonongo kultur hitzak eta Garibayren arima bezala ez izango bai izango dabilzan ghost-word erratuak ahaztu gabe. (LIB I: 128).

Baina Mitxelena erdi-bidean edo agertzen da:

Ez du garbikeri kutsurik behar izan zinez eta benetan garbi agertzeko, ezta mordoilokerien laguntzarik ere normahirentzat adierraz eta irakurgarri izateko, ikasientzat adina eskolarik gabeentzat. Larramendiren ezinak, hitz batean, egina dirudi atzera ere. (LIB II:100).

Enuntziatu parentetikoak, bada, hitzez hitz esan gabe ere, bera bizi den garaiko pentsaeraren edo gogo-giroen isla dira, eta beraz, enuntziatua testuinguratzen laguntzen dute.

3) “Kotestuaren” araberakoa: aurreko berbaldian trukaturako hizkuntza-adierazpideetatik eratortzen dena.

Testuan bertan aurreko edo ondorengo pasarteren bati erreferentzia egiten dioten enuntziatu parentetikoak ere asko dira:

- Argitasunik nahi duenak jo beza Lafitte jaunak, Herria astekarian aurrenik eta liburuxka batean gero —**horren berria aurreraxeago ikus dezakezu**— euskal itzulpen zahar eta berriei buruz argitara berria duen idazlan jakintsua. (LIB I: 112).

- Bestela ikasi duenik —**lehen esan dudan gisan ez baldin bada**— erakusten didatenerako, harri kokkor xuri bat gerturik daukat egun seinalagarri hura markatzeko. (LIB II: 63).

“Lehen esan dudan gisan” enuntziatu parentetikoak artikulua berean agertzen denari egiten dio erreferentzia; hau da, gramatikarik gabe errusieraz ikasi nahi zuen gizaseme mordoari. Horiek, ordea, Mitxelenak esango digunez, behin ere ez zuten errusiera ongi ikasterik lortu.

- Oraindik orain idatzi nuen —**azkenengo Egan-en, gaizki ez banabil**— izango nuela luzatu gabe Kerexeta jaunaren idazlanez berriro ere mintzatu beharra. (LIB II: 60).

- Bistan dago bi alde dituela teoria horrek. Batetik, eredu berri bat (**Orixek behinola, oker ez banago, segitu zuena Prudentzioren zenbait itzulpenentan**) aurkezten die hitz neurtuz mintzatzen direnei: horiei dagokie, beraz, erantzuna, bide berria onartzea ala arbuiatzea, eta ez neri, ez baitut oraingoz bertsotan hasteko asmorik ez gogorik. (LIB II: 107).

Goiko adibide horiek ere beste horrenbeste ematen digute aditzera: “kotestuaren” laguntza garrantzizkoa da mezua testuinguruan kokatzeko. Agian azkenengo adibidea ikusita ezin esan hurbileko kotestua denik; agian “testuartekotasunaz” ere hitz egin beharko genuke. Garbi dago, izan ere, “Orixek itzulpen jakin batzuetan segitu zuela eredia” eta enuntziatu parentetikoak testu horien baitan kokatzen du bere mezua.



Orain arte testuinguruari (edo informazio pragmatikoari) buruz esandakoa laburbilduz, ikusi dugu —eta enuntziatu parentetikoak dira horren lekuko— esatariaren mezua ongi interpretatzeko, kodetze-deskodetze prozesuaz gain inferentziazko prozesu pragmatikoak oso garrantzizkoak direla; funtsean, hitzez hitz esandakotik harago berariaz ematen dituen aztarna edo arrastoek zer inplikatzan duten aditzeak interpretazioari eta iradokizunei atea zabaltzen dizkio.

Esana dago mundua barneratzea gertatzen dela eta, horren ondorioz, informazio pragmatikoa batik bat subjektiboa, nork bere erara mamitzen duena dela; honek ez du, halaz guztiz, esan nahi gizabanako bakoitzaren informazioak besterenarekin inolako ikuskizunik ez duenik.

Garbi geratu da, bada, solaslagunek informazio-esparru zabalak izan ohi dituztela batean; hots, jakintza-ezaupideak, ohiko usteak edo kultura jakin bateko partaide izateak berarekin dakarren munduaz den ikusmoldea. Hizkuntza, esan beharrik ez dago, solaslagunek batean duten ezaupide-eremua da, horregatik, hizketan ari direnak bai gramatika-sistemari bai eduki semantikoari dagokien ezaupidean bat datozelakoan daude.

Solaslagunek batean duten ezaupide-eremu hori zehazki mugatzerik ba ote dago?

#### 9.5.3.4. OROREN EZAUPIDE-INGURUMARIA

Sperber eta Wilson-ek (1986a), esate baterako, diote ia ezinezkoa dela solaslagunek batean duten ezaupide-eremu hori zehazki mugarritzea, eta, batez ere, batean zer dagoen eta zer ez xehetzea. Sekula ezin omen gaitzke seguru izan besteak dakienaz eta alderantziz, eta horregatik, elkarrizketaren ondore ona ezin berma omen daiteke delako elkarren ezagutza horretan.

Hauen ustez, egokiagoa da guztiena den, orenen, ezaupide-ingurumariaz hitz egitea. Honen arabera, solaslagunak batean dutena gertakari-multzoa da.

Sperber eta Wilson Griceren teoriatik abiatzen dira, baina Griceren arau edo maximak arau bakar batera bildu dituzte: esanguratsua izatearen araura, hain zuzen (*maxim of relevance*). Mezuren bat interpretatzeko nekea hartzen duenak berarentzat mezu hori esanguratsua dela uste duelako hartzen du neke hori. Esanguratsu izate hori, ordea, ez dago, bi ikertzaileok diotenez, enuntziatuan bertan. Aitzitik, enuntziatuari eta testuinguruari, bi-biegi begira ebazten du norentzakoak mezu jakin bat esanguratsu zaion ala ez. Izan ere,

solaskideak inferentzietatik abiatuz enuntziatuak interpretatzeko gaituta daude, aldez aurretik duten ezaupideak gaituta.

Teoria hau ere murriztegia da eta ezin dezake erabateko arrakasta ziurtatu. Areago, beharbada ez da beharrezkoa, ezta komenigarria ere teoria batek zehaztasun osoz azal dezan solaslagunek batean dutena, solaslagunek berek abiapuntuan duten hipotesia ere ez baita horren zehatza.

Esan bezala, esatariak egiten duen gauza bakarra besteaz eta besteak dakienaz hipotesi bat aurreratzea da; hau da, berak badaki guzti-guztia ez dakiela, baina saiatzen da ahalik eta gehiena urreratzen, hurbiltzen, kasurik gehienetan ulerterraztasuna ziurtatzeko heinean bederen.

- Nor banintz ere, ez nintzateke sartuko, nere gogoz behintzat, horrelako listor-kabian, harako Paris (**ez Frantziakoa, alegia**) gizarajo hura bezala. (ZIN: 158).

Adibide horretan, enuntziatu parentetikoari esker esatariak norentzakori, mezua ulerterrazagoa gerta dakion, zehaztaper bat egiten dio; horrela bere mezua norentzakoari urreratu edo hurbildu egiten dio. Badaki norentzakoak “Paris” Frantziako hiriburua dela, baina oraingo honetan ez da horretaz ari, izen bereko pertsonaiak baizik, Troiako erregeraren semeaz, hain zuzen. Testuinguru horretan, gainera, “hiru ederren aurrean” Paris-ek egin behar izan zuen aukerarekin berdintzen du “listor-kabia”.

Esatariak, bada, “Paris” Frantziako hiriburua ez dela esatearekin ezin esan norentzakoari zehatz-mehatz zein den esaten dionik, baina bai interpretaziorako atear irekitzen dizkiola: informazio horren jabe ez bada, jakin-mina behintzat piztuko dio.

Egindako zehaztaper hori, bada, askitatz jotzen du; gehiago esan beharrik ez du sentitzen nonbait. Buruan duen norentzakoak kultur ezaupide horren jabe delako hipotesia du esatariak, eta ez du pista horrek (“Frantziako Paris-i buruz ez diharduela” esate hutsak), norentzakoak Illiada<sup>288</sup> (edo Troiako gerrako) pertsonaia identifikatzera eramango ez duen zalantzarik.

Honenbestez, onar daitekeena da solaslagunek tamaina desberdineko informazio pragmatikoa dutela batean, eta gainera, bakoitzak hipotesi bat eraikitzen duela esparru horren eta bestearen informazioaren gainean.

---

<sup>288</sup>Troiako jatorrizko izena Illion izanik, hortik dator tragedia kontatzen duen lanaren izena.

Alabaina, komunikazioaren gunea, sarritan, guztiena den esparru horren kanpoan dago: hau gertatzen da, urrutirago gabe, informazio berria trukutzen denean.

- Harako “Viva Zapata”n —**Elia Kazanena hura ere**— ezpain gainean zeraman bigote zarpail haren beharrik ez du orain, jakina, eta orduko kartoi-itxurako gelditasun hura ere ez zaio nabari. (ZIN: 124).

- Hori sortzeko batu dira, ezkontzaz hala sasi-ezkontzaz ez dakigu, Italiako edertasuna —**Gina Lollobrigida deritza**— eta Ipar Ameriketako trebetasuna, Robert Z. Leonard izenekoa, agi danean. (ZIN: 157).

Esatariak goiko adibide horietan ematen duen informazioa, ustez, berria da, edo behintzat esatariak uste du norentzakoari ongi etorriko zaiola informazio horren berri izatea informazioa testuinguratuz hobeto interpretatuko duelako.

Baina kasu horietan ere, informazio berria behar bezala jaso ahal izateko, guztien oinarri bat beharrezkoa da, aldeztatik inolako ezaupiderik ez bagenu enuntziatu oro ulertezina gertatuko bailitzaiguke.

- Ez du beraz hemen zuzendariak —**bestelako filmetara ohituak genduzkan J. L. Mankiewicz’ek**— axaleko zehaztasunaren bila ibili beharrik, “Quo vadis?” batean bezala. (ZIN: 125).

Informazio horretaz jabetzeko, esatariak badaki zinema-munduaz norentzakoak oinarri bat baduela, eta auresuposatzen du “bestelako filmetara ohituak genduzkan” esatea nahikoa dela, norentzako hori zer-nolako filmez ari den jabetzeko.

Behin komunikazioa arrakastaz bukatu ondoren, garbi dago informazio berria guztien ondareko osagai bihurtzen dela. Beraz, etengabe aldatuz joango da guztiena den esparru hori.

#### 9.5.3.5. ENUNTZIATU PARENTETIKOA, ENUNTZIATUAN TESTUINGURUARI DAGOZKION LORRATZAK UZTEKO BALIABIDEA

Enuntziatu parentetikoek mezua testuinguratzen laguntzen dutela frogatzeko, testuingurutzat jo ditugun osagai horiek guztiak hartu behar al ditugu gogoan? Edota

hizkuntza-unitate gauzatu direnak? Hau da, testu jakin horretan bertan bere lorratzak uzten dituztenak?

Orain arte esan dugunetatik ondoriozta daiteke solaskideen ezaupide eta sinesmen-usteen berebiziko garrantzia dutela komunikazioak amaiera onik izango badu. Gainera, jokamoldea arautzen duen hastapena ere bada, bai informazio pragmatikoak bai hurkoaz dauden teoriak enuntziatuaren edukia eta itxura moldatzen dutelako.

Hain da horrela, enuntziatuan bertan uzten du lorratzik, parentetikoaren egiturapean bada ere. Hainbat enuntziatu parentetikok diskurtsoan duten egitekoa, izan ere, ezaupide eta sinismen-uste horietan oinarrituz, esatariak hitzez hitz esaten duenaz haragoko informazioa inferitzen<sup>289</sup> laguntzea da. Norentzakoak esatariaren esanetatik horixe inferituko duen esperantzan —edo asmo horretan— egiten ditu, baina “horixe” inferitu ahal izateko, ezinbestean biak, bai esatariak eta bai norentzakoak, batean informazio pragmatikoa izatea ez da beti nahikoa; batzuetan, hitzez zuzen-zuzenean esan gabe doanaz jabetzeko, norentzakoari oharrak, arrastoak, aztarnak edo datuak igortzen dizkio.

- Hau guztia ez ote da gai egokia garai horretako kondaira, baina barrengoa, ez azalekoa —**Unamunok “intraistoria” deitzen zuen hura edo**— egin nahi duenarentzat? (LIB II: 111).

Garai horretako “barneko kondaira” zer den hobeto ulertzeko esatariak norentzakoari pistak bidaliko dizkio Unamuno *intraistoria* adigaiaren teorizatzailea izan baitzen, eta horren aipuak enuntziatua hobeto ulertzeko ez ezik, *intraistoria* termino horrek atzetik dakarren guztia iradokiko dio norentzakoari.

Beste batzuetan, ordea, ematen duen arrastoa ez da hain garbia izango. Esan gabe (edo erdi esanda) jakintzat emango du, ustez behintzat, norentzakoak informazio horren berri baduelako. Edo behintzat, berak buruan duen norentzako horrek gaiaren inguruan informazio aski duela pentsatuko du esan duen horrekin aditzera zer eman nahi duen jakiteko.

- Dassin bera ere —**badakigu guztiok zergatik bidali zuten Ameriketatik**— ez da ausartu langile iaio eta adoretu hauei zor zitzaien neke-saria ematera. (ZIN: 186).

Guri, urte batzuk pasatu ahala, zail gertatzen zaigu jakiten “zergatik bidali zuten Ameriketatik”, baina, ziurrenik, berak buruan duen norentzako hori jakitun da, biek batean

<sup>289</sup>Escandell-ek (2005) zioen bezala, ez da aski kodetze-deskodemate prozesua, prozesu “ostentsibo-inferentziazkoak” ere ezinbestekoak dira komunikazioak amaiera onik izango badu.

duen informazio pragmatiko horrek bide emango baitio hitzez hitz zergatia esaten ez badu ere, horren azpian dagoenaz jabetzeko.

Horrek adieraziko digu hitzez hitz esandakoaz harantzago doan horrezaz jabetzeko (hots inferentzia horietaz jabetzeko), esatariaren eta norentzakoaren arteko interakzio-ekintza horretako testuinguru jakinak lagunduko digula; edo interakzioa gauzatu den une jakin horretako esatari-norentzakoek batean duten informazioak. Azken batean, inferentziazko prozesua aldez aurretik ditugun nahiz solaskideek partekatzen duten ezagutza horietatik abiatuz mentalki egiten den ariketa da. Eta alde horretatik oso garrantzitsua da jakitea esatariak norekin, zein norentzakorekin gauzatzen duen interakziozko harreman hori, berak buruan duen norentzako horrekin banatzen duen informazioa ez baita edozein hartzailearekin batean izan dezakeen berbera. Eta beraz, inferentzien errota aktibatzeke edo martxan jartzeko pista edo arrasto horiek ere ezaupide pragmatiko horren jabe ez denarentzat ez dira enuntziatuak interpretatzeko baliagarri gertatuko. Ez baitio implizituan gelditu denari buruz ezer esango.

[la presuposición pragmática] depende de factores contextuales (relación entre los participantes, situación, marcos cognitivos compartidos, etc.) e incluye el conocimiento del mundo, lo que algunos autores han llamado el conocimiento o saber enciclopédico (Maingueneau, 1996, 1998). Desde luego, cuando hablamos o escribimos, no lo decimos todo; por un lado, partimos de que nuestra audiencia o quien nos va a leer tiene toda una serie de conocimientos, de saberes de todo tipo, que no necesitamos incluir en nuestros enunciados. Por otro lado, a lo largo de la interacción vamos comprobando si las asunciones sobre los conocimientos previos de nuestros interlocutores han sido adecuados o no. (Calsamiglia & Tusón 2007: 180).

Esate baterako filmen kritikako esatariak ondorengo hau dioenean auresuposatzen du norentzakoak filma ikusi duela eta ez duela zertan “zergatiak” azaltzen aritu:

- Ez dago gustora lantegian, bereak eta bost maiz aski —**eta bada zergatik**—esaten dizkiotelako (LIB I: 138).

Esatariak, filmeko protagonistak “bereak eta bost entzutea” justifikatu egiten du, arrazoiak berariaz eman gabe. Uste baitu, edo auresuposatzen baitu, norentzakoa ezagutza horren jabe dela, eta askitzat jotzen du ezagutza hori aktibatzeke ideiarekin bat, aipuren bat, oharren bat tartekatzea.

Alde horretatik esaten dugu enuntziatu parentetikoaren egitekoa badela informazio pragmatiko hori gogora ekartzea, aktibatzea (inferentzien edo auresuposizioen errota martxan jartzea) ere; labur esan, enuntziatua testuinguruan kokatzeko baliabide ere badela. Baina gerta daiteke, zenbaitetan, bidaltzen dituzten pista edo oharra ez izatea nahikoa enuntziatua ongi interpretatu ahal izateko (norentzako ez delako esatariak auresuposatu duen ezagutza horren jabe). Beraz, ez du testuinguratzeko eginkizuna arrakastaz bete.

#### 9.5.3.6. ONDORIOAK

1. Esatariaren mezua ongi interpretatzeko, kodetze-deskodemate prozesuaz gain inferentziako prozesu pragmatikoak oso garrantzizkoak —eta are ezinbestekoak— dira; funtsean, hitzez hitz esandakotik harago berariaz ematen dituen aztarna edo arrastoek zer inplikatzan duten aditzaiek interpretazioari eta iradokizunei ateak zabaltzen dizkie.

2. Enuntziatu parentetikoaren komunikazio-eginkizuna norentzakoari aztarna edo pista horiek ematea izango da hitzez hitz, esplizituki, esandakotik harago inplikatzan duenarekin lotura egin dezan.

3. Horrela, enuntziatu parentetikoaren laguntzaz, hizkuntza bidez kodetze-deskodemate prozesutik jasotakoa testuinguruak eskaintzen duen informazioarekin uztartzeko aukera izango du mezua interpretatu behar duenak; hau da, kodetze-deskodemate prozesua hertsiki uztartuko du inferentziako prozesu pragmatikoarekin.

4. Informazio pragmatiko hori edo testuinguruak eskaintzen duen informazio hori batik bat subjektiboa da; nor bere erara mamitzen duena, alegia. Eta aldi berean dinamikoa, edo komunikazio-trukearen arabera aldatuz doana.

5. Horrek ez du, halaz guztiz, esan nahi gizabanako bakoitzaren informazioak besterenarekin inolako ikuskizunik ez duenik. Garbi geratu da, bada, solaslagunek informazio-esparru zabalak izan ohi dituztela batean; hots, jakintza-ezaupideak, ohiko usteak edo kultura jakin bateko partaide izateak berarekin dakarren munduaz den ikusmoldea.

6. Ez da hain garbi geratu, ordea, informazio pragmatiko hori edo oreana den ezaupide-ingurumari hori zerk osatzen duen. Hau da, ezaupide pragmatiko hori erabat aldeztu aurretik mugatzerik ba ote dagoen ala komunikazio-trukearen arabera ote den.

7. Testuinguruak osatzen duten gertakari eta faktoreak esatari /enuntziatzaileak hautatu eta antolatzen ditu, hizkuntzak eskaintzen dizkion baliabideen eta erdietsi nahi duen helburu jakinaren arabera.

8. Enuntziatu parentetikoek, funtsean, informazioa testuinguru jakin batean kokatzen laguntzen dio norentzakoari. Hitzez hitz esandakotik inplizituki aditzera eman nahi den horretara iristeko bitarteko egokiak dira, enuntziatuan bertan uzten baitituzte lorratzak, pistak edo aztarnak; arrasto horiek, bada, inferentzien errota martxan jarri eta unean uneko beharrezkoak diren konexioak egiteko hagitik beharrezkoak dira, edo esatariak behintzat beharrezkotzat jotzen ditu.

9. Azken batean, testuingurua osatzen duen informazioa eta testu-informazioa erabat uztartutako daude. Diskurtsoak egiten duen jarduera ororen sortzaile dira batetik, baina diskurtsoak berak sortuak bestetik, eta, beraz, ez dute bere eskukoa den estatusik. Ondorioz, ezin pentsa dezakegu testu-informazioa eta testuinguru-informazioa bi informazio-mota bere eskuko edo independente direnik. Biak daude uztartuta eta elkarren menpe: testuingurua beharrezkoa da testua ongi ulertzeko (anbiguotasunik gabe), baina, halaber, testua ezinbestekoa da testuingurua bera mugatzeko. Hain da horrela, enuntziatu parentetikoak ongi datozkigu testuingurua mugatzeko, baina, halaber, euren izatea ere testuinguru horren araberakoa da.

Ondorio horiek alderdi teorikoa edo autore ugariren ekarria corpuseko adibide zehatzekin uztartuz atera ditugu. Corpuseko adibide horiek guztiek erakusten digute, norentzakoak enuntziatuak ongi interpreta ditzan, esatariak behin eta berriz informazioa testuinguratzen diharduela. Azken batean, ustez norentzakoak bere hasierako ezagutza entziklopediko edo pragmatiko horretan ez duen informazioa emango dio. Enuntziatu parentetikoei esker informazio hori osatu egingo du, enuntziatua hobeto interpretatzeko proposiziozko edukiarekin hertsiki uztartuta dagoen informazioa erantsiz.

Beste hainbatetan, esatariak informatzen ari den proposiziozko edukitik at dauden “digresioak” egiteko erabiliko ditu enuntziatu parentetikoak, baina digresio hauek ere informazioa testuinguruan kokatzen lagunduko diote.

#### **9.5.4. Digresioak, enuntziatua testuinguratzeko baliabidea**

Las digresiones estructuran propiamente la información. Por digresión entendemos un enunciado que interrumpe sintácticamente a otro y que supone una intervención del hablante que comenta su propio discurso añadiendo un dato aparentemente no relacionado con él o que no estaba en el plan originario del texto, que ha sido recordado y se inserta

porque se considera importante para la comprensión por parte del oyente. (Fuentes 2000: 233).

Digresioa, oinarrian, esatariaren hasierako testu-plangintzan ez dagoen (Mateo 1996), eta, beraz, informatzen ari den proposiziozko eduki horretatik at dagoen (edo aldentzen den) informazioa litzateke. Proposiziozko edukitik at dago, baina proposiziozko eduki horrek berak iradoki edo gogoraziko dio esatariari, eta honek, ematen ari den informazioa eten eta une horretan bertan gogoratu balu bezala tartekatzen du, beretzat garrantzitsua den informazioa baita. Alde horretatik ez gatoz bat Laurinek (1989) dioenarekin.

Autore honentzat digresioak dira parentetikoaren artean interakziozko ekintzan inolako funtziorik ez duten bakarrak:

(...) les parenthèses de digression sont les seules à n'avoir, pour ainsi dire, aucune fonction réelle dans l'interaction, car bien qu'elles suspendent le propos, elles n'ajoutent rien à celui-ci. (Laurin 1989: 57).

Berarentzat, digresioek bakar-bakarrik balio dute “pour donner une information gratuite, non spécifiquement requise par l'interaction verbale”. (Laurin 1989: 58).

Esatariak, ordea, bere diskurtsoan tartekatu badu, informazio hori garrantzitsua dela iruditu zaiolako tartekatu du. Garrantzitsua ez, agian, E1 enuntziatuaren proposiziozko esanahiaz jabetzeko, baina bai, beharbada, norentzakoari bidalitako mezua ongi ulerrarazteko baliagarri gertatuko zaiolako. Izan ere, esatariak egindako digresioek, azken batean, hasierako testu-plangintzan egon ez arren, norentzakoaren ezagutza pragmatiko edo entziklopediko hori osatzen lagunduko dute; hau da, testuinguru kognitibo horretan eragingo dute, ustez norentzakoak ez dakien informazioa delako eta esatariari jakinaraztea nahi diolako. Oro har, bada, norentzakoarentzat informazio berria delako ustean tartekatzen du. Edota ezaguna bada ere, bere argudiatze-prozesuan aurrera egiteko baliagarri gertatuko zaio.

Esate baterako:

- Behin ikasi nuen gizaseme mordo bat rusoz ikasteko zaletasunik biziena zuena. Ez zitzaien gauza handirik falta: langileak ziren eta ikasiak, gutxien zekienak bai baitzekizkien hiru hizkuntza.

Maisua ere aukerakoa zuten, Vladivostoken jaiotako radiotelegrafista. Baina —**betiko** “**baina**”<sup>290</sup>

<sup>290</sup>*Baina* lokailua beste une batean ere digresioen abiapuntu gertatuko zaio: “Hiztegi aldetik ere, garbizale xamar aurkitzen dut, neure gogorako. Baina langileak —berriz ere “maiña”-rekin hasi behar—, lanean ari denak, hobeki daki lanaren berri besoak gurutzaturik begira dagoenak baino”. (LIB II: 154).



**madarikatua, Prai Bartolomek esango zukeen bezala**— Vladivostoktarrak ez zuen behinere inongo gramatikarik ikasi eta bere ikasleak ez ziren behinere gauza izan rusoz ikasteko, *atec, syn* eta horrelako hitz banaka batzuez kanpora. (LIB II: 63).

Garbi ikus daiteke, digresioa E1 enuntziatuko “baina” aurkaritzako lokailuak iradoki edo gogora ekarritako zerbait dela, eta “baina” aipatu duenarekin batera etorri zaiola gogora Prai Bartolomeren esamoldea. Badu garrantzirik ordea. Esatariak bere argudiatze-prozesu horretan aurrera egiteko, digresio horrek kontrako argudio bati emango baitio sarrera; nolabait bere argudioa indartuago ateratzeko erabiliko duen kontrako argudioari:

Izan ere, bazirudien esatariak aipatzen dituen argudioak hizkuntza bat ongi ikasteko premisa ezinbestekoak zirela eta, beraz, “errusiera ongi ikastera iritsi ziren” bezalako ondorio batera garamatzala. Esatariak, ordea, argudiatzearen norabidea erabat aldatuko du, kontrako argudio indartsu bat adieraziz. Eta digresioak ere hain zuzen horixe adierazi nahi du, bizitzan (gustuko ez izan arren ere) beti daudela “bainak” (“baina” madarikatuak) ustezko ibilbide “egokiari” mugak, eragozpenak edo oztopoak jartzeko erabiliko direnak. Izan ere, “baina” juntagailu-lokailuak beti jartzen du abian aurkako norabidean doan argudioren bat edo ñabarduraren bat.

Adibide jakin honetan, esatariak adierazi nahi digu hizkuntza bat ikasteko ez dela aski gogoia, astia eta ikasteko zaletasuna, gramatikaren laguntza ere ezinbestekoa dela, bestela Vladivostoken ikasleei gertaturikoa gertatuko zaiela; hau da, ez direla hizkuntza hori ikasteko gauza izango.

Digresioak, esana dugu, oro har, aldeztatik jorratzen ari den mintzagaia edo topikoa eten egingo duela unean bertan gogora etorri zaion beste informazio batekin. Eta esatariari oinarritzeko enuntziatuko zerbaitek zerbait iradoki edo gogora ekarri badio, pentsatzekoa da esanahi aldetik nolabaiteko lotura edo koherentziarik baduelako ekarri diola. Lotura hori, ordea, ez da agerikoa, hitzez hitz esandakoaren eta hitz horiek iradokitakoaren (edo hitz horietatik inferitu edo susma litekeenaren) artekoa baizik.

Eman dezagun honako adibide hau:

- Honek [Etxeparek], ordea, apaiza izanik —**zertxobait ahazturik bazeukan ere bere izaera, hagitx bestelako neurtitzak egin zituenean**—, ez zuen besteren hitzik entzun behar, bera baitzen prediku-lekuaren jabe. (ZIN: 193).

Esatariak Etxepare apaiz zelako zela predikatzaille, edo prediku lekuaren jabe adierazi nahi digu, baina *apaiz* hitza aipatzearekin batera gogora datorkio zenbaitetan “apaiz izate hori” ahaztu egiten zitzaioela: hagitx bestelako neurtitzak egin zituenean. Guztiok dakigu, edo hitz horietatik inferi dezakegu amodiozko neurtitzak (hezur-haragizko amodiozko neurtitzak, alegia) dituela buruan esatariak. Eta ez dela oso ohikoa gure gizartean apaizak hezur-haragizko amodio kontuetan hainbeste jakitea edo hainbesteko eskarmentua izatea (edo hala izanik ere, jendaurrean aitortzea).

Honenbestez, El enuntziatuak jorratzen duen gai nagusitik ihes egiten du digresioak, baina ez, gure ustez, diskurtsoaren edo testuaren koherentzia hautsiaz; aitzitik, testuaren koherentzia erdiesteko bitarteko izan daiteke, baldin eta koherentzia, solaskideen negoziazioan oinarritzen dela onartu eta esatariaren intentzio-asmoei egokitzen zaion harreman-sare semantiko-pragmatiko bezala ulertzen badugu. Izan ere, digresioek — eta enuntziatu parentetikoek oro har—, esatariak eta norentzakoak batean duten informazio pragmatikoa aktibatzen lagunduko dute. Azken batean, digresio bidez esatariak bidaltzen dizkion oharrek, norentzakoak testu bat koherentea<sup>291</sup> den edo ez etsitzeko beharrezkoa duen informazioa litzateke, azken batean testuari koherentzia subjektu interpretatzaileak emango baitio.

Esatariak tartekatzen dituen digresioek zer nolako informazioa eskainiko diote norentzakoaren mundu ezaupide horri?

Galdera horri erantzuteko, Maria Lúcia Da C. V. De Oliveira Andraderen lan bati eutsiko diogu (1999). Honen ustez, digresioa topiko aldaketa dakarren diskurtso-mugimendua da; esatariak une batez hautsi egingo du jorratzen ari den topikoa beste topiko bat txertatzeko (digresioa), baina ondoren hasierako topikoari helduko dio:

(...) digressao: tipo de movimento tópico que suspende momentaneamente o tópico discursivo prévio (tópico A), introduzindo um novo tópico (tópico B); este, por sua vez é abandonado e substituído pelo tópico original, que é reintroduzido. (Andrade 1999: 553).

Autore honen ustez, enuntziatu berri batek topiko berri bat sor dezake eta topiko hauek ere azpisailetan (azpitopikoetan) antolatuta egon daitezke. Digresioekin, berriz, topikoa edo

<sup>291</sup>Koherentzia horren zerbitzura, esatariak digresioak tipografiazko demarkazioaren bidez zehazten ditu.

mintzagaia une batez baztertu egiten da, beste topiko bati bide emateko. Topiko hauen artean, ordea, bada hurbiltasunik:

(...) a digressao está associada a uma dupla mudança imediata, isto è, deve haver uma relação de contiguidade entre os tópicos (A-B-A) em termos de localização. (Andrade 1999: 555).

Hurbiltasun hau, ordea, interakzioan parte hartzen duten solaskideek bideratzen dituzten inferentzien bidez antzeman liteke; ez da beraz, hitzez hitz gauzatuko den lotura, esandako horretaz harantzago antzeman beharrekoa baizik; hots, testuinguruak, komunean duten ezaupide horretatik abiatuz, interpretatzeko aukera eskainiko liguke.

Eta testuinguru horretatik abiatuz, edo testuinguruaren osagai gisa, hiru digresio tipo bereiziko ditu Andradek, guri ere aztergairako egoki datozkigunak:

### 1. Digresio logiko-esperientziazkoa

Hasierako tema edo topikoaren eta digresioaren artean bada loturarik: lotura hau logikoa izango da edo solaskideek duten eskarmentu edo esperientzietan oinarrituko da. Hasierako edo erdiguneko topiko horretatik eratorriko da digresioa, baina bien arteko lotura inferentzia bidezkoa izango da; hau da, nahiz eta hitzez hitzekoa ez izan solaskideek aldeztu aurretik duten ezagutza horretatik interpretatu beharrekoa.

- Gogoz —**eta batzuetan parre-algaraz**— irakurtzen dira ipui guztiak, buru batetik bestera. (LIB I: 91).

Digresio honek esan gabe ere aditzera eman diezaguke (edo bertatik inferi dezakegu) euskal liburu gehienek, oro har, nahiz eta gogoz irakurri, ez dutela barre-algararik sortarazten, baina aztergai duen horrek, bai; gaitasun hori baduela azpimarratu nahi du.

### 2. Pertsonarteko digresioak (interakzioan oinarritutako digresioa)

Digresioak topiko aldaketa dakar, baina solaslagunek dituzten gizarte mailako kezkek, egonezinak edo buruhaustek islatuko ditu. Beraz, interpretazioa solaskideek batean

duten informazio pragmatiko horretatik abiatu egin beharko dute. Bi azpisail bereiziko ditu Andradek:

### 2.1. Pertsonarteko digresio intzidentala

Gizarte mailako kezka bideratzen dituzte, baina bereziki, gizakomunitateko arauak jarraitzeari edo betetzeari lotuta daude.

Aztergai ditugun kritikan ere, esatariari, maiz, proposiziozko edukiak gizarteko auzi edo tirabirak aipatzeko bide ematen dio:

- Hemen ere ez dago bide galtzerik gauzen berri dakienarentzat, bai ordea auzi askori buruz — **eta euskal gramatikaren punturik gehienak auzi bihurtuak ditugu gaurko eta hemengo euskaldunok**— zalantzan dagoenarentzat. (LIB I: 121).

- Lehen ere asko saiatu izan dira gerrako —**eta politikako**— hautsi-konpondu eta josi-urratuen itsumena adierazten. (ZIN: 187).

- Jakitunek diotenez, **eta jakitunen esanak entzunbeharrekoak omen dira ezjakinonetatik urruti badabiltza ere**, utzi dio oraingoan Bardem´k (sic) apurren bat artean erakutsi nahi izaten zuen “kaligrafiari”, hots, ikusleen harrimenerako Orson Welles´en antzera egiten zituen teknika-joko dotoreei. (ZIN: 170).

Honela, hasierako plangintzan ez baleude bezala tartekatzen baditu ere, aipu horiek badute garrantzirik, bide ematen baitiote berak gainezka zuen informazioa (informazio-pragmatiko-entziklopedikoa edo mundu ezagutza hori) aipatu behintzat egiteko. Eta aipatzea aski da, iradokizunen, auresuposizioen nahiz inferentzien munduari ateak irekitzeko.

### 2.2. Bat-bateko pertsonarteko digresioa

Interakziozko ekintza jakin horretako egoera jakinak eragindakoa. Esatariari testuinguruko elementu jakin batek sortaraziko dio digresioa.

- Erraztasunak ezer galdu badu hemen edo han, **eta euskaraz tutik ez dakien ikaslea daukat gogoan**, ugaritasunak eta aberastasunak irabazi dute. (LIB II: 73).

Adibide honetan, esatariak berak buruan duen norentzakoa zein den zehaztu eta azpimarratu du. Interakziozko ekintza jakin horretako solaskideari eragiten dio zuzenean.

### 3. Digresio erretorikoa

Esatariak halako geldiune bat egiten du norentzakoari ohar metalinguistikoak edo hizkuntzaren inguruko oharrak emateko. Digresio tipo honetan, halaber beste bi azpisail bereizten ditu:

#### 3.1 Digresio erretoriko didaktikoa

Sekuentzia honek aurreko sekuentzia eraldatuko du, zuzendu edo argitu egingo du.

Gure aztergaiko esataria, Mitxelena, hizkuntzalaria da eta bere esparrua hizkuntzari dagokiona da:

- Hizkuntzaren aldetik, **eta gure sailean sartzen naiz horrenbestez**, ez da gogo gaiztoz bezala begiratzekoa, astiro eta sakon aztertzekoa baizik. (LIB II: 89).
- Hizkera berriz —**horretaz ausarkiago mintza gintezke**— ederra eta ugaria. (LIB I : 47).

Hizkuntzalaria dela jakinik, bere afizio-ofizioei zuzenean eragiten dioten hizkuntzaren inguruko zehaztapen eta zuzenketak erantsiko ditu; hau da, ohar metalinguistikoak. Eta ohar hauek, sintaxia batere bihurritu gabe, egitura parentetikoei esker tartekatuko ditu, ustez, interakziozko ekintza jakina gauzatu den unean, norentzakoak jakingo ez duelakoan eta norentzakoaren ezagutza orotariko horretan txerta dezan nahi duelako.

#### 3.1.1. Ohar metalinguistikoak

- Aitzakiak aise bilatuko lizkiokete, ordea, nahi balute. Neurritz gaineko gizona, jenioa —**hitz hori hamaika aldiz entzuna dugu**—, ez da besteen legeetara makurtzeko sortua. (ZIN: 136).
- Hitchcock zaharra, suspense bila beti bezala (**zalantza esan behako dugu euskaraz**), antzerki ezagun honetaz jabetu da txolarteak alaitzeko. (ZIN: 128).

- Horrexegatik, labur eta berandu hobe denez gero inoiz ez baino, zilegi izan bekit behar nukeen baino lasterrago —**abespeluan edo, antzinako bizkaitarrek esango zuketean bezala**— neure egitekoak egitea. (LIB II: 121).

Hizkuntzari buruz egindako oharrek, azken batean garai hartako joerak ere aditzera ematen dituzte. Zein adigai hobesten den, edo jendeak zein forma erabili ohi duen.

- Andrè Cayattek ez zuen inoren jolaserako egin film hau, horren bidez mandatu bat —**gaur esaten den bezala**— zabaltzeko baizik. (ZIN: 137).

Testuinguruak, ordea, aldatuz doaz, eta kritiketako esatariak hori zioen garaian ez bezala, egun, “mandatua” hitzaren ordez, “mezua<sup>292</sup>” esango da.

Hizkuntzaren erabilera okerrak zuzentzen ere saiatuko da:

- Theodor Dreisser'en liburua, Joseph van Sternberg'ek eraman zuen zinemara aspaldi xamar; gero eta azkena pittinen bat gozatuta, duela urte gutxi, George Stevens'ek (“**A place in the sun**”, **hemen “Iguzkian lekua”, “Iguzkitan” izan beharreen, bihurtu zutena**). (ZIN: 163).

Edota hitzaren jatorrizko formak azaltzen:

- Ez naiz, bada, gehiegi harritzen zarauztar batek aitortzen badu (184 gn. or.) bere aitak Ziburuko (**orduko Zubiburuko**) ontzi batean arotz zelarik ikasi zuela bale eta bakalao arrantzaren berri eta ari (sic) eskerrak hartu zutela gero Zarauzko marinelek urrutietarako bidea. (LIB II: 57).

### 3.2. Pertsuasiozko digresio erretorikoa

Digresio hauek helburu jakin bat erdiesteko galdera erretoriko bezala formulatzen dira.

- Aita Villasante ezagutzen duenak —**eta nork ez du ezagutzen behintzat gure artean?**— badaki nola ekiten dion beti lanari, sustraiz eta funtsez, bil eta azter daitezkeenak oro bildu eta aztertu ondoren, edozein sailetan. (LIB II: 60-61).

---

<sup>292</sup>Ikus Patxi Altunak (MEIG I: 137) oin oharrean dioena.

- Amerikanoen etsaiek ere —**eta nork ez ditu begitan gutxi edo gehiago Europa zahar honetan?**
- ez dute, noski, nahi beste algarra egin haien bizkarretik. (ZIN: 185).

Gisa horretako adibideak galdera erretorikoen atalean aztertu ditugu. Maiz oso zail gertatzen baita parentetiko bat digresio-motakoa den edo ez zehaztea. Izan ere, hasierako testu-plangintzan ez egotea eta unean bertan gogoratu balu bezala txertatutako informazioa izatea azken batean enuntziatu parentetiko guztiek izan dezaketen ezaugarria da. Funtsean (hurrengo atalean azterkizun izango dugu), enuntziatu parentetiko ahozketasuna testu idatzian txertatzeko baliabide ere badelako, eta ahozketasunaren ezaugarri funtsezkoa izango da bat-batekotasuna edo espontaneitatea. Ezberdintasun nagusia, oinarrian, jorratzen ari den tema edo mintzagaia une batez etetea litzateke, baina ikusi dugu etete horrek ere ez duela testuaren koherentzia hausten.

Garbi dago, ordea, atal honetan aztergai ditugun enuntziatu parentetikoek era batera edo bestera, norentzakoaren interpretazio “egokira” zuzenduta dagoen informazioa txertatzen dutela. Bestela esan, informazioa, komunikazio-truke horretako testuinguru zehatzean kokatzen laguntzen dutela, norentzakoak testuinguru jakin horretatik abiatuz esatariaren intentzioen arabera interpreta dezan.

Honenbestez, komunikazio-trukean, esatariaren eta norentzakoaren zereginak txandakatuz doaz, eta parte hartzearen arabera guztiena den oinarria ere aldatuz doa. Bai proposiziozko edukiari zuzenean lotutako informazioa erantsiz, bai eduki horrekin zerikusirik ez duen baina une horretan esatariarentzat garrantzizkoa den informazioa erantsiz (digresioak, esaterako).

## **9.6. ENUNTZIATU PARENTETIKOAK, AHOZKOTASUNA IDATZIAN TXERTATZEKO BALIABIDEA**

### **9.6.1. Gaiaren kokapena**

Ahozkoa eta idatzia bi transmisibide edo bi transmisio-kanal ezberdin izanik, bakoitzak bere ezaugarri, arau eta hizkuntza-baliabideak ditu, bata bestetik bereizten dituztenak. Bereizketa, gainera, hasi ezaugarri soziokulturaletik eta ezaugarri gramatikal eta diskurtsozkoetaraino iristen da (Cassanyk 2005).

Cassanyren lanean oinarrituz (Cassany 2005), ahozkoaren eta idatziaren arteko ezberdintasunik nabarmenenak<sup>293</sup> honako hauek dira:

Ahozko hizkuntza	Hizkuntza idatzia
<b>EZAUGARRI PRAGMATIKO-DISKURTSOZKOAK</b>	<b>EZAUGARRI PRAGMATIKO-DISKURTSOZKOAK</b>
- Bat-batekoa eta iheskorra den komunikazioa	- Komunikazio iraunkor eta geroratua (diferitua)
- Aldibereko interakzioa onartzen du eta solaskide batek baino gehiagok hartzen du parte. Aldez aurretiko planifikaziorik ez du.	- Esatari bakarra arduratzen da, interakzio geroratua du eta aldez aurretiko planifikazioa du eskakizun.
- Leku-denborazko testuinguruari hertsiki lotuta dago.	- Leku-denborazko testuinguruarekiko lotura askeagoa da; bere eskukotasun handiagoa du.
- Lagunartekoak, subjektiboak eta orotarikoagoak diren erregistroei ematen die lehentasuna.	- Modalitate estandarrekin eta erregistro formal, objektibo eta zehatzarekin gehiago lotzen da.
- Implizituz josita dago (estarian dauden datu ugariz baliatzen da).	- Datuak agerian adierazten ditu, esplizituagoa da.
<b>EZAUGARRI GRAMATIKALAK</b>	<b>EZAUGARRI GRAMATIKALAK</b>
- Amaitu gabeko esaldiak onartzen ditu, baita anakolutoak ere.	- Perpaus konplexu eta gramatikaren aldetik ongi osatuta daudenen aldeko isuria nabarmena da.
- Elipsi ugari egin ohi da eta hitzen hurrenkeran malgutasun handia erakusten du.	- Elipsiak gehiago ditu kontrolpean eta hitzen hurrenkerazurrungoia da.
- Sintaxi aldetiko inbrikazioa nabarmena da.	- Estilo nominalaren aldeko isuria.
- Lexikoaren errepikapena handia.	- Lexiko aberatsa eta ugaria.

Goiko taula horrek komunikazio idatziaren eta ahozkoaren arteko desberdintasunak jasotzen ditu eta aise atzeman daiteke bien artean badela alde nabarmenik. Horrek ez du esan nahi, haatik, batoren eta bestearen arteko muga zenbaitetan lausoa izan ez daitekeenik. Atal honetan, behintzat, horixe frogatzen saiatuko gara: idatzia ahozkoaren ispilu izan daitekeela edo bai behintzat berariaz ahozkoa idatzian mimetizatzeko modu bat, eta horretarako enuntziatu parentetikoak bitarteko egokiak direla.

Idatziaren baliabideetako bat berariaz, jakinaren gainean, “ahozkoaren itxurak” egitea da. Hau da, batzuetan, Tusonek (1991) esango digun bezala, oharkabean islatzen dira ahozkotasanaren markak idatzian (bigarren pertsona, aukera lexikoak...), baina beste batzuetan helburu estilistiko-komunikaziozkoak eraginda berariaz jotzen da ahozkoaren ezaugarriak idatzian islatzera. Eta enuntziatu parentetikoak ahozkoa idatzian txertatzeko

<sup>293</sup>Ahozkoaren eta idatziaren arteko konparaketa egiteko bereziki alderdi sintaktiko-diskurtsozkoek erreparatuko diegu, nahiz eta jakin ezberdintasun soziokulturalak ere badirela bien artean (Cassany 2005: 18 eta hur.). Guk, gure lanerako egoki gertatzen zaizkigun haiek ekarriko ditugu.



baliabidea dela diogunean horixe esan nahi dugu: helburu estilistiko-komunikaziozkoa bitarteko, ahozko hizkeraren ezaugarriak berariaz imitatzen dituela idatzian.

Beraz, ahozkoaren eta idatziaren arteko muga edo etena ez da beti erabatekoa izango bitarteko guneak egon badaude, eta *continuum* hori gaur egun garai batean baino nabarmenagoa da, komunikazio elektronikoak edo IKTen erabilerak testugintzan duen itzala ikusi besterik ez dago horretaz jabetzeko:

Además de los géneros tradicionales, las nuevas posibilidades que abre la informática han hecho que se desarrollasen modos de comunicación ligados al empleo de las nuevas tecnologías, que han supuesto, en cierta medida, la redefinición de algunos conceptos ligados al medio de transmisión. Los mensajes de correo electrónico, los mensajes a móviles y los mensajes instantáneos (chat) se han configurado, en poco tiempo, como subgéneros con sus propias características estereotípicas. Una teoría general sobre la comunicación debe darles, como es lógico, cabida.

Uno de los aspectos más llamativos de estas nuevas formas de comunicación es que, por sus propias características, tienden a desdibujar la frontera entre oralidad y escritura: probablemente en ninguna otra manifestación escrita se observa con tanta claridad el deseo de reproducir por medios gráficos muchas de las propiedades de la lengua oral. (Escandell 2005: 111).

Hori begi bistakoa izanik, egon daitezke egiturak —eta hau da guk frogatu nahi duguna—, parentetikoak esaterako, sintaktikoki oso landuak eta konplexutasun handikoak direnak —beraz, hizkuntza idatzia ongi menderatzea eskakizun dute— eta ahozkotasuna idatzian txertatzeko edo ispilatzeko baliabide ere izan daitezkeenak.

Horrek zer esan nahi du enuntziatu parentetikoak bereziki ahozko hizkeran gertatzen direla? Gezurra badirudi ere, ez. Ohartuko gara enuntziatu parentetikoak sintaktikoki oso egitura landuak eta hausnartuak direla eta ahozko hizkera inprobisatu eta bat-batekoan baino leku handiagoa dutela idatzian; hizketan ari garela oso zaila baita enuntziatua hautsi ostean, atzera hasierako hariari sintaktikoki egokia eta zuzena den enuntziatua osatuaz lotzea.

Aldi berean, ordea, enuntziatu parentetikoaren ezaugarri semantiko-pragmatiko eta sintaktikoek erakutsiko digute badutela ahozko hizkerari eman izan zaizkion ezaugarriekin loturarik; nolabait, ahozko komunikazio-trukearen ezaugarriak berariaz idatzian islatu edo mimetizatzen baliagarriak direla. Beraz, ez gara ari enuntziatuaren gainazalean agertzen ez diren ezaugarriez, berariaz, gainazalean bertan arrastoren bat uzten duten ezaugarriez baizik.

Jakina baita (Bustos Tovar 1995) idatzizko testu oro erreproduzitutako diskurtsoa den aldetik, ahozko hizkeraren ezaugarriak, sakon-sakonean bada ere, agertu behar dituela.

Sin embargo, todo texto escrito es un discurso reproducido. Ello significa que la escritura es una representación convencional y que, por tanto, posee su propia retórica. Dicho de otro modo, si se admite que el diálogo es la forma más natural del lenguaje, aquel se hallaría subyaciendo en toda expresión escrita (Bakhtine 1981), en cuanto que siempre alguien (elocutor) se comunica con otro (alocutor). De este modo, en toda expresión escrita pueden hallarse rasgos de oralidad, pero estimamos que estos existen cuando aparecen en la manifestación superficial del enunciado. (Bustos Tovar 1996a: 360).

Azterkizun ditugun egitura hauek ahozkoaren eta idatziaren arteko etena edo marra lausoagoa egingo dute; hondarrean, ahozkoa idatzian txerta edo nahas daitekeenaren adierazgarri izango dira. Baina beti ere komunikazio-eginkizun edo estrategia baten zerbitzura daude: pertsonarteko harremana edo esatari-norentzakoaren arteko interakaziozko harremana diskurtsoan bertan gauzatzeko eginkizunaren zerbitzura.

### **9.6.2. Ahozko hizkera eta erregistroak**

Hasieratik bertatik ñabardura bat ezarri behar dugu: “ahozko hizkera”k ez du ezinbestean “lagunarteko hizkerarekin” zertan bat etorri. Ez baita gauza bera transmisio-kanala eta erregistroa. Ahozkoaz nahiz idatziaz mintzo garenean transmisio-kanalaz (transmisiobidez) mintzo gara. Ahozkoa diogunean, ahoz helarazitako hizkuntza dugu gogoan. Besterik da ahozko hizkera horretan (nahiz idatzizkoan) erregistroak egotea.

Erregistroa, azken batean, egoeraren ezaugarrien arabera (solaskideen arteko harreman, asmo, gai, formaltasun-maila, etab.), esatariak hautatzen duen hizketa modua litzateke (Escandell 2005). Hizkuntzaren jabe den hiztunak, gehienetan, hainbat erregistro menderatzen ditu eta badaki hizkuntza komunikazio-egoera bakoitzari egokitzen.

Si nos interesan las diferentes clases de situaciones es porque tienen repercusiones muy importantes sobre las elecciones lingüísticas. La situación es, efectivamente, uno de los factores que más incidencia tienen en el estilo de lengua utilizado. Además de las diferencias ligadas a la procedencia geográfica de los participantes (que dan lugar a la variación dialectal), se ha reconocido siempre la existencia de variedades que se relacionan con la

adecuación a la situación comunicativa, y que permiten distinguir diferentes `registros`o `variedades` diafásicas. (Escandell 2005: 47).

Hainbat erregistro-molde daude eta horien arteko aldea Escandell-en ustez, (2005: 48) enuntziatuaren kontrol-mailaren arabera da. Esate baterako, alde aurretik enuntziatua kontrolpean izatea alde aurretiko planifikazioarekin lotuta dago; aitzitik, enuntziatuaren kontrola zenbat eta txikiagoa izan are eta informagoa, bat-batekoagoa, gutxiago egituratua, sintaxi mailako hausturaz josiagoa, etab izango da hizketa modua, ahoz ari garenean gehienetan gertatu ohi den bezala.

Briz-en ustez (1998: 26-7), erregistroen artean bada formaletik informalerara edo lagunartekora doan tarte horretan bi muturren arteko *continuum* bat. Honen ustez, ahozko lagunartekoa, idatzizko lagunartekoa, ahozko formala eta idatzizko formala bereiz daitezke eta honako ezaugarriak dituzte:

1. Ahozko lagunartekoa:

- Gertutasun handiagoa atzematen da esatari-norentzakoaren artean.
- Esatari-norentzakoek informazio pragmatiko handiagoa dute batean.
- Egunerokoagoa da.
- Planifikazio-maila eskasagoa du.
- Pertsonarteko harremana bideratzea dute helburu.

2. Idatzizko formala:

- Gertutasun txikiagoa antzematen da esatari-norentzakoaren artean.
- Batean informazio pragmatiko gutxiago dute.
- Egunerokotasun gutxiago dute.
- Planifikazio-maila handiagoa dute.
- Pertsonarteko helburua maila xumeagoan.

3. Idatzizko lagunartekoa<sup>294</sup>:

- Gertutasun edo hurbiltasun handiagoa.
- Informazio pragmatiko handia.
- Pertsonarteko harremana bideratu nahia.
- Planifikazio-maila handiagoa.

<sup>294</sup>Planifikazio-maila handiagoari lagunarteko ezaugarriak eranstetik aterako da.

4. Ahozko formala:

- Gertutasun-maila txikiagoa du.
- Egunerokotasun gutxiago du.
- Planifikazio handiagoa.

Erregistroak, bada, ahozkoan nahiz idatzian daude, baina ahozko erregistroen prototipo edo eredu lagunarteko hizkera jotzen da (Cortes 1992) eta maiz aski ahozkotasunaren ezaugarriak lagunarteko erregistroari egozten zaizkionarekin berdintzen dira.

Ezin ahantz dezakegu, ordea, ahozko hizkerari egotzi izan zaizkion lagunartekoa edo maila jasokoa ez den erregistroaren ezaugarriak (aurrez aurrekoa, planifikatu gabekoa izatea, etab), gaur egun kode idatzian ere aurki ditzakegula; izan ere, egun ezaugarri horiek berak dituen kode idatzirik ere bada. Ikusi besterik ez dago IKTek ekarri duten aldaketa: lagunarteko hizkeraren ezaugarriak, garai batean ahozkoan soilik gertatzen zirenak, gaur egun, kode idatzian ikustea ere ohikoa baita.

Funtsezko ñabardura hori egina dugula, guk enuntziatu parentetikoak ahozkotasuna idatzian txertatzeko baliabide dela diogunean, ahozko hizkeraren tasun edo ezaugarriak ditugu buruan. “Ahozko” adjektibo hori, ordea, maiz nahasian eta askotarako erabiltzen dugu. Voguerà (1992)-ri jarraituz<sup>295</sup>, hiru dimentsio edo alderdi ezaugarritzeko balio dezake:

- Hizkuntzaren transmisio edo kanala ezaugarrituko du.
- Oinarrizko hizkuntz komunikazioa ezaugarritzeko erabil daiteke; hau da, egunerokoa eta bat-batekoa den ahozko hizkera ezaugarritzeko.
- Ingurune kultu eta ofizial baten aurkez aurk, kultur ingurune edo eremu geografiko jakin bati dagokion hizkuntz ezaugarri multzoa izendatzeko erabil liteke.

Hirugarrena “egoerak baldintzatutako erregistroaren (lagunartekoaren)” sinonimo litzateke, lehenengoak, idatzizkoaren aurkez aurk transmisio bideari egingo lioke erreferentzia eta bigarrena litzake “ahozkotasunaren” adierazgarri.

---

<sup>295</sup>Aipua Fuentesen artikulutik (2000) jasoa dugu.

“Ahozotasuna” diogunean, izan ere, ahozko hizkeraren tasun edo ezaugarriak ditugu buruan, (kontzeptua bera) idatziak ez dituen ezaugarriak, eta ez dugu buruan lagunarteko hizkera, nahiz eta hau izan ahozko hizkeraren prototipo edo eredu<sup>296</sup>.

Esan dezagun, bakar-bakarrik, idatzitik ahozkorako aldea ez dela, aditu hauen aburuz, kodearen edo mezubidearen aldaketa soilik. Aitzitik, ahozkotasunak bere mundu-ikuskerara propioa lekarke, berezia, idatziarena ez bezalakoa guztiz. (Garzia 1999: 114).

Baina ezaugarri bat ahozkotasunaren ezaugarritzat jotzeko, aurrez, ahozko hizkeraren ezaugarriak zeintzuk diren zehaztu beharko ditugu.

### 9.6.3. Ahozkotasuna

‘Ahozkotasuna’ diogunean zein “tasun” edo ezaugarri hartuko ditugu kontuan? Ahozko hizkeraren eredu nagusia eguneroko elkarrizketa arrunta da hainbat autorentzat.

La oralidad pura es privativa de la lengua coloquial conversacional. (Bustos Tovar 1997: 10).

Vigara Taustek (1994) ere lagunarteko eguneroko hizkeraz honela dio:

El concepto de “coloquial” que manejamos coincide con el delimitado en Vigara, 1992: modalidad diafásica de carácter oral y conversacional; es decir, hablada, en la cual el lenguaje se va concibiendo al tiempo que se está usando y en función del “otro”, interlocutor individual o plural destinatario del mensaje, con el cual el hablante se encuentra en relación simultáneamente subjetiva, espacial y temporal durante el proceso vivo de la comunicación. Se trata, pues, de una modalidad diafásica de carácter general en la que pueden establecerse grados (el de plenitud viene dado por lo que podríamos denominar “conversación cotidiana”) según como actúen en la realidad del acto comunicativo los diferentes condicionantes que fundamentan su delimitación como “variedad contextual de la actuación lingüística”. Puede hablarse, así, de grados de jerarquización interlocutiva, de mayor o menor formalidad, de intencionalidad más o menos marcada, de mayor o menor

<sup>296</sup>Besterik da ahozkotasunaren ezaugarri behinenak lagunarteko erregistroari egotzi izan zaizkion hainbatekin bat etortzea.

convencionalidad, de convivencia más o menos estrecha, mayor o menor premeditación o reflexión discursiva por parte de los interlocutores. (Vigara Tauste 1994 ).

`*Coloquial*` adigairen ikuspegi murriztagoa darabilte Oesterreicher, Koch eta abarrek `*coloquial*` adigaia ezaugarritzeko ondorengo tasunak azpimarratzen dituzte:

- Ahozkoa.
- Hizketaldi- edo solasaldi-izaera duena.
- Ez-formala.
- Egunerokoa edo eguneroko gaiak jorratzen dituen.

Briz-entzat ere (1998: 26-27), ahozko hizkeraren prototipo edo eredu lagunarteko eguneroko elkarrizketa da. Baina berak lagunarteko eguneroko elkarrizketa ezaugarritzeko aipatzen dituen tasunak hein handi batean bat datoz Bustos-ek (1997) ahozkotasanarentzat aipatuko dituen tasunekin:

Bustos-ek (1997: 10-11), honako hauek aipatzen ditu. Argigarri bezala ongi datozkigunez, aldatu egingo ditugu:

- Sintaxis concatenada frente a sintaxis incrustada,
- Abundancia de perífrasis,
- Morosidad informativa,
- Repetición y reelaboración,
- Sintaxis abierta y dislocada
- Presencia de deixis personal, temporal y situacional. (Bustos Tovar 1997: 10-11).

Garbi dago, funtsean, `ahozkotasun` kontzeptua zerk ezaugarritzen duen zehaztu beharko bagenu solaskideak zuzenean eta aurrez aurre dituen elkarrizketa bat irudikatuko genukeela. Ondorengo ezaugarri hauek izango lituzke:

Solaskideak aurrez aurre dituen elkarrizketa hori, bada, **bat-batekoa** eta **inprobisatua** izango da, **txandakitzeak zehaztu gabe** dituen, **dinamikoa** eta **kooperaziozkoa**; izan ere, esatari-norentzakoek banatzen duten informazio pragmatikoa hain da handia, maiz ezagutza horretan oin hartzen duen informazio implizitu ugari dago. Zuzenean esan gabeko gauza asko emango da aditzera. Hau da, inferentziak, estari dagoen informazioa... ugaria da, esatariak

espero baitu, batean duten informazio edo ezagutza komun horren arabera, norentzakoak zertaz ari den ezagutzea eta interpretatzea.

Horrez gain, elkarrizketan ugariak izango dira egoerazko testuinguruari zuzenean erreferentzia egiten dioten hizkuntza-osagaiak: deiktikoak (*ni, zu*) aditzondoak (*hemen, gaur, orain..*). Ondorioz, komunikazioaren egitura jakin honek **deixiaren eta elipsien ugaritzea** dakar. Baita hizkuntz ekonomiarako isuria ere.

Bat-batekoa edo inprobisatua izateak berarekin dakar aldez aurretik hausnartu eta **planifikatu gabeko elkarrizketa** izatea ere (Escandell 2005); aldez aurretik planifikatu gabea edo hizketan ari den bitartean egituratuz eta planifikatuz doana. Ezaugarri horrek sintaxi mailan ere badu eragina; izan ere, bat-batekotasunak eta hausnarketa formalaren hutsuneak nahiz etengabe norentzakoari eta komunikazio-egoera jakinari egokitu behar horrek egitura sintaktikoen hausturak dakartza.

Funtsean, bada, ezaugarri hauek bat datoz Cassanyk (2005:18 eta hur.) idatzizkoaren aurkez aurk, ahozko hizkera ezaugarritzeko ematen dituenarekin (§ 9.6.1.).

Azter ditzagun ezaugarri horiek banan-banan:

#### 1. Solaskideen presentzia: solaskideak aurrez aurre dituen elkarrizketa

El grado de personalización se refleja en el frecuente uso de referencias al hablante y al interlocutor, muletillas, unidades léxicas que expresan reservas y modificaciones (*digo, creo, me parece...*), rellenos discursivos, preguntas retóricas. (Fuentes 2000: 230).

Garbi dago aurrez aurreko ahozko elkarrizketan *niak* presentzia handia duela. Esatariaren lorratzak behin eta berriz agertzen dira eta ez soilik izenordainari esker; esatariaren jarreraren adierazle diren esapideak ere ugari daude: *nik uste, nire iritziz, nire uste apalean, etab.*

Esatariaren adierazgarri den *ni* ez ezik norentzakoari egindako deiek ere garrantzi handia hartzen dute eta informazioa norentzakoari egokitze ahalegina atzeman daiteke.

Badirudi, bada, ahozko elkarrizketa horretan kasik komunikatzen denak baino garrantzi handiagoa duela parte hartze subjektiboak:

La inmediatez, fugacidad e imprevisibilidad propician un uso del lenguaje fundamentalmente irreflexivo, donde lo que importa es, más que la pura transmisión de información (es decir más que contenidos objetivos transmitidos), la participación subjetiva en la comunicación y la fluidez.

- La improvisación formal: organización y formalización del mensaje al ritmo del pensamiento-sentimiento subjetivo del hablante y
- la actualización del sentido por aproximación (en el doble plano interlocutivo: emisión-recepción) durante la interacción comunicativa. (Vigara Tauste 1994: 176).

## 2. Komunikazio-trukearen testuinguru jakinari etengabeko erreferentzia

Ahozko berbaldiak badu “esatekoak jakinarazteko” idatziak ez duen baliabiderik, eta baliabide horiek, ahozkoak bai eta idatzizkoak ez dituen horiek, “ahozko berbaldiaren jirako testuinguru”ei dagozkie. Esatekoak jakinarazteko ez ezik emozioak eragiteko ere balio dute ahozko berbaldiak bakarrik dituen baliabide horiek.

El discurso escrito despliega una gramática más elaborada y fija que el discurso oral, pues, para transmitir significado, depende más sólo de la escritura lingüística, dado que carece de los contextos existenciales plenos normales que rodean el discurso oral, y ayudan a determinar el significado de éste de una manera un poco independiente de la gramática. (ONG, 1982). (apud Garzia 1999:117).

Egoerazko testuinguruaren mendekotasun handia du ahozko bat-bateko elkarrizketak, eta beraz, testuinguruari erreferentzia egingo dioten hizkuntza-osagaiak maiz aski agertzen dira.

## 3. Bat-batekotasuna vs planifikazioa

Idatziak, esan beharreko hori aldeztatik aurretik planifikatzeko aukera eta beta eskaintzen du. Ahozkoak, ordea, bat-batekotasuna<sup>297</sup> du ezaugarri behinena: esan beharrekoa bat-batean ateratzen dena da, ez du aldeztatik aurretik planifikatzeko aukerarik, ez bada hitz egiten ari den unean bertan bat-batean egiten dela. Aldeztatik aurretiko hausnarketaren hutsunea ia erabatekoa da.

<sup>297</sup> Egia da irrati-telebistetako esatariek maiz aski aldeztatik aurretik planifikatutako testua izan ohi dutela oinarrian eta, beraz, ez direla erabat bat-batekoak; ahozkoaren eta idatziaren artean dagoen *continuum*-aren adierazgarri dira eta ahozkoaren eta idatziaren arteko etena erabatekoa ez delako adierazle.



En la comunicación oral espontánea hay poco tiempo para planificar el contenido y la forma de lo que se dice. El escritor tiene tiempo para diseñar, corregir, re-empezar, coordinar y subordinar mensajes; en suma puede planificar contenidos y formas lingüísticas. El lector, por su parte, que tiene control sobre el material que lee, puede procesarlo a su propio ritmo. (Silva-Corvalán 1996: 261).

Bat-batekotasun horrek nahiz komunikazio-egoerari egokitu beharrak izango du syntaxian eraginik: sintaxi mailako hausturak edo “anomaliak” dira horren lekuko.

Baina, nolakoa da solaskideak aurrez aurre dituen ahozko mintzaldiaren sintaxia?

#### 4. Sintaxi mailako integrazioa

Parece menos integrada, más parcelada o desmembrada, porque contiene un abundante número de cláusulas independientes, frecuente coordinación por medio de Y u otros conectores inespecíficos. (Narbona 1989: 167-168).

Aipiak aditzera ematen digunez, ahozko hizkeran sintaxia zatikatuagoa, askeagoa da, edo gutxiago integratua dago. Gainera, pilatzailea (akumulatiboa) da, ez subordinatzailea. Izan ere, berbaldia osatzen duten elementuak maila berean jartzeko joera du ahozkotasunak. Parataxirako joera horrek, Onge-k (1982) ere aipatzen duenak, ahozkotasunaren lege unibertzala dirudi: ahozko berbaldia, oro har, maila bereko osagaiak elkarren segidan jarriz osatzen da (perpausak eta esaldiak justaposizioan edo koordinazioan lotuz).

Subordinazioa, beraz, idatziaren kontua da; subordinazioaren presentzia, gertakariak hierarkia jakin baten arabera ordenatu nahia, idatzizko mundu-ikuskerak eragindako ondoriotzat har daiteke (Garzia 1999). Idatzizko arrazoibidea ez dabil eroso informazio guztia maila bereko egituratan antolatuz, lehentasunak ezarri behar izaten ditu, eta antolamendu hori gauzatzeko kohesio-mekanismoak ezinbestekoak dira.

#### 5. Esatari-norentzakoek batean duten informazio pragmatikoa: kooperazioa

Solaskideek batean duten eskarmentua, ezagutza eta gertutasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da mezuaren erredundantzia-maila. Eta, alderantziz, mezua ahalik eta trinkoen emateko aukera are eta handiagoa izango da. Izan ere, solaskideen

kooperazioaren eraginez, komunikazioan hainbat informaziok azalpenik ez du beharko, aipatzerik ere ez, zuzenean esan gabe ere esana egongo baita edo inferitzeko moduan.

Beraz, solaskideak aurrez aurre dituen zuzeneko ahozko elkarrizketa batean, zuzenean esan gabe informazio ugari inplikaturiko edo emango da aditzera. Esatari-norentzakoek batean duten orotariko ezaupide edo informazio pragmatiko horrek bermatuko du, eta ez da hitzez edo gramatikazko osagaiez baliatu beharrik izango.

En la realidad del acto comunicativo, el lenguaje puede (y suele) ser simultáneamente redundante y conciso, a la vez explícito (e incluso demasiado explícito) en su dimensión estrictamente lógica y sólo alusivo-implicador en cualquiera de sus otras dimensiones (afectiva, fática, etc). Lo realmente interesante en el registro coloquial no es tanto lo que los interlocutores han dicho, cuanto el hecho mismo de decirlo precisamente en ese momento de su relación vital y comunicativa. (Vigara Tauste 1994: 181-182).

Solaskideentzat ere horixe da erosoena: ahalik eta ahalegin gutxienarekin ahalik eta komunikaziorik azkarrena eta jaria korrena erdieste. Hizkuntzaren ekonomiarako joera, bada, handia da, eta horretan egoerazko faktoreak eta testuinguruko auresuposizioak joan etorri handikoak dira.

#### **9.6.4. Enuntziatu parentetikoak, ahozotasuna idatzian islatzeko baliabidea**

Enuntziatu parentetikoak ahozko hizkeraren tasunak idatzian islatzeko edo imitatzeko baliabide estrategikoak direla frogatzeko, oro har, idazten ez diren eta ahozko bat-bateko hizkera bati dagozkion ezaugarri nabarmenak berariaz aditzera emateko baliagarri direla ikusiko dugu.

Besterik litzateke ahozko hizkeraren ezaugarriak zergatik eta zertarako islatzen dituen aztertzea; hau da, hondarrean zein helburu komunikatibo dagoen aztertzea: naturaltasuna eta arintasuna idatzian txertatzeko helburu estetikoak, esatari-norentzakoaren arteko eragina eta hurbiltasuna erdiesteko helburu soziala, etab. Hori ere izango dugu azterkizun.

Aurrera egiteko, egitura parentetikoez tesi-lan honetan aditzera eman ditugun ezaugarri sintaktiko-semantiko eta pragmatiko nabarmenenak paperera ekarriko ditugu, jarraian ahozotasunaren ezaugarritzailatzat jo ditugun haiekin erkatzeko.

Enuntziatu parentetikoa:

- Elkarrekin gurutzatzen diren bi enuntziatu bere eskuko ditugu: E1 oinarrizko enuntziatua eta E2 enuntziatu parentetikoa.
- E2 enuntziatu parentetikoak E1 oinarrizko enuntziatuaren egitura sintaktikoa eta diskurtsoaren linealtasuna hautsi egingo du.
- E2 enuntziatua hasierako plangintzan ez balego bezala edota idazten ari den unean bertan gogoratutako edukia bailitzan agertzeko komunikazio-intentzioa atzeman daiteke.
- Gehigarria den informazio bezala agertzen da, ez esatariak ematea helburu duen informazio bezala. Makroegiturako informazioa txertatzen du, ez proposiziozko edukia. Pentsa daiteke, bada, bigarren mailako informazioa dela, baina oinarrizko enuntziatuaren sintaxi-sekuentzia hautsirik, are eta gehiago indartzen edo fokalizatzen da informazio hori.
- Oinarrian, parentetikoaren egiturapean, esatariak egiten duen esku hartzearekin, esatariaren bikoizketa atzeman daiteke: enuntziatu parentetikoko esataria, esatari izateaz gain, iruzkingile izango da. Esatariak bere diskurtsoari buruz egiten dituen iruzkinen aurrez aurre gaude; beraz, E2 enuntziatuko iruzkingilea E1eko esatariarengandik urrundu egingo da, eta informazioa igortzeaz gain, epaitu, iruzkindu, kritikatu egingo du. Bada, beraz, hausnarketa eskakizun duen jarrera bat mezua birformulatzetik gertu egon daitekeena.

Goian aipatu ditugun enuntziatu parentetikoaren ezaugarri horiek, alde edo moldez, solaskideak aurrez aurre dauden ahozko hizketaldiak dituenekin badu loturarik.

### 1. Aldez aurretik planeatu gabeko bat-bateko interbentzioa

Bat-bateko elkarrizketan gertatu ohi den bezala, aurrez planeatu gabeko interbentzioa imitatzen du. Esataria ez da unean bertan gogoratu zaiona aditzera emateko enuntziatua amaitu zain egongo. Esaten ari zenari utzi eta unean bertan gogoratua tartekatzen du. Horrek oinarrizko enuntziatuaren linealtasuna haustea ere badakar, eta haustura ez da soilik sintaktikoa izango pragmatikoa ere izango da.

Ahozkoztatuen efektu hori erdietsi nahi du esatariak, baina jakin badakigu idatzian bertan islatzen badu, ongi hausnartutako egitura dela eta funtsean horrela jokatzuz bi muturretako gertakariak uztartzea lortzen duela. Izan ere, zerk eragiten du enuntziatu parentetiko hori? planifikatu eta hausnartu gabe egoteak sortzen duen hutsunea zuritu nahiak edota ongi hausnartzearen ondorio da? Hau da, esatariaren hasierako intentzio-xedeei hain zehatz ez egokitzeak eragindako birformulazio hausnartuaren ondorio da?

Garbi dago bi muturretako efektuak sortzeko estrategia izan daitekeela: bat-batekotasunaren eta hausnarketarik eza batetik, eta ongi baino hobeto hausnartu izatearena bestetik.

## 2. Sintaxiaren haustura, solaskideak aurrez aurre dituen bat-bateko elkarrizketaren adierazgarri

2.1. Esatariak aukera egiten du bi enuntziaturen arteko harremana linealki, bata bestearen ondoz ondo paraturik gauzatzea edota bata bestean gurutzatuta: enuntziatu parentetikoa eta oinarritzkoa bata bestea hautsiz lotzen dira, bata bestea inguratzen du eta horrela bien arteko harreman semantiko-pragmatikoa hertsia egiten du.

- Ez ote genuen ikusi nola joan zen “Monsieur Vincent” —**ez zen film txarra**— tximistak egiten gure artetik, karitateari buruz zalaparta gehiegitxo ateratzen zuelako edo, gure kritikak, edozein “Sor Angélica” edo “Madre Alegría” laudorioz betetzen duen kritika horrek, txintik esan gabe? (ZIN: 139).

Erka dezagun goiko adibidea ondoz ondo paraturiko bi enuntziatu bezala birformulatutakoarekin:

- Ez ote genuen ikusi nola joan zen “Monsieur Vincent” tximistak egiten gure artetik, karitateari buruz zalaparta gehiegitxo ateratzen zuelako edo, gure kritikak, edozein “Sor Angélica” edo “Madre Alegría” laudorioz betetzen duen kritika horrek, txintik esan gabe? **Ez zen film txarra.**

Garbi dago goiko eta beheko adibideek ez dutela efektu bera erdiesten. Enuntziatu parentetikoa oinarritzko enuntziatuan gurutzaturik aurrez aurre bi solaskide baleude bezala funtzionatzen du. Batak bestearen diskurtsoa hautsiko balu bezala, eta bi enuntziatuen arteko

harremana askozaz ere zuzenagoa, gertuagoa, lotuagoa edo hertsiagoa da bigarren adibideko bi enuntziatuena baino.

Esan duguna are nabarmenagoa egiten da enuntziatu parentetikoaren bidez tartekatzen den iruzkinaren esparrua edo erreferentea oinarrizko enuntziatuko osagairen bat denean:

- Beste zenbait hutsarte nabari dira, baita oihal zaharrari ez dagozkion adabakiak ere: infernetara jeistea (sic) zakur-amets edo sorginkeria hutsal bihurtu da, ardoa egiteko ez da mahats-aleak oinkatzea aski, liktore-aizkorak —**horrela izendatzen baitituzte Ithaka´ko jauregian ikusten ditugunak**— ez ziren noski ugariak garai hartako Grezian, eta gainera gainerakoak. (ZIN: 146).

Adibide hori ondoz ondoko enuntziatutan honela berreraiki dezakegu:

- Beste zenbait hutsarte nabari dira, baita oihal zaharrari ez dagozkion adabakiak ere: infernetara jeistea zakur-amets edo sorginkeria hutsal bihurtu da, ardoa egiteko ez da mahats-aleak oinkatzea aski, liktore-aizkorak ez ziren noski ugariak garai hartako Grezian, eta gainera gainerakoak. **Liktore-aizkorak esan dut horrela izendatzen baitituzte Ithaka´ko jauregian ikusten ditugunak.**

Garbi dago adierazkortasun aldetik ezberdintasun handia dagoela enuntziatu parentetikoa oinarrizko enuntziatuan gurutzaturik tartekatu edo diskurtsoaren linealtasuna hautsi gabe ondoz ondo paratu.

Enuntziatu parentetikoak oinarrizko enuntziatuari eragiten dio, bertan txertatzen edo tartekatzen da. Parentesi hauek diskurtsoan hain beharrezkoak diren enuntziatio-koordinatuen enmarkatzaile edo inguratzaile dira.

2.2. Beraz, planeatu gabeko interbentzioa izan daiteke (ahozko hizkerari edo ahozko hizkera imitatu nahi duen idatzizko hizkuntzari gehiago dagokiona), baina garrantzitsua da mamiari dagokionez:

Zerbait gehitzen du, norentzakoak informazioa ulertu ez duelako edo, argibide bezala, hark ez dituen auresuposizioez informatzen du. Bat-bateko ahozko hizkeran gertatzen den bezala, informazioak baino garrantzi handiagoa du esatari-norentzakoek batean duten informazio pragmatikoa osatzeak.

- Robert Aldrich'ek —**Venezian bigarren Zilarrezko Lehoia eraman du aurten**— hainbestean moldatzen ditu irudi moldakaitzak, ofiziale ikasiari dagokionez. (ZIN: 142-143).

Enuntziatu parentetikoak ematen duen informazioarekin oinarrizko enuntziatuan emandako informazioa testuinguru jakin batean kokatzen du esatariak. Esatariak buruan duen balizko norentzakoak jakingo ez balu ere, argibideak emango dizkio.

2.3. Enuntziatu parentetikoek solaskideak aurrez aurre daudelako sentrazioa helarazten dute. Esatariak zerbait iruzkindu nahi duelako bikoiztu egiten da; zerbaiten enuntziatzaile eta beste zerbaiten esatari bihurtzen da (polifonia-gertakaria).

- Ulysseri —**zergatik, ordea?**— halako Luzifer-aitetxo bat erantsi diote, edo Prometheu-aitetxo Greziatik aldegin nahi ez badugu. (ZIN: 147).
- Amerikanoen etsaiek ere —**eta nork ez ditu begitan gutxi edo gehiago Europa zahar honetan?**— dute noski nahi beste algarara egin haien bizkarretik. (ZIN: 185).
- Behingoz bederen, zinemak, ixpilu (**zeren ixpilu gero?**) izateari utzirik, amets-ateak iriki dizkigu, Albert Lamorisse'ri eskerrak. (ZIN: 170).
- Zer arraiotarako behar du euskaldun berriak jakin nola esaten diren “apogeo” eta “Perigeo” (**Nola esaten diren?**). (LIB II: 49).

Oinarrizko enuntziatuan dioena besteren ikuspegitik enuntziatua balitz bezala, informazio hori iruzkinduz edo kritikatu E2 enuntziatu parentetikoan bere ikuspegi subjektiboaren esatari bihurtzen da. Beraz, aurrez aurre dauden solaskideen arteko elkarrizketa bat imitatzen du.

Se hace presente, pues, el hablante con estas intervenciones como si estuviera actuando en el momento, como si tuviéramos una situación comunicativa en presencia. El hablante la recrea al introducir estos comentarios directos, expresiones del yo dirigidos a un tú, como si estuviéramos en una interlocución real. (Fuentes 2000: 237).

### 3. Sintaxi mailako integrazioa

Goian esana dugu ahozkotasanak berbaldia osatzen duten elementuak (enuntziatuak, erantsiko dugu guk) maila berean jartzeko joera duela; maila bereko osagaiak elkarren segidan metatuz edo pilatuz osatzen dela, alegia.

Horrek ulertarazten digu berbaldia osatzen duten enuntziatuak justaposizioan nahiz koordinazioan lotzen direla; ez hainbeste menderakuntza subordinazioa erabiliz. Subordinazioak perpaus nagusi-mendekoen harremana aditzera ematen baitu, eta beraz, maila berekoak ez direlako seinale da.

Esanak gure esparrura ekarriz, enuntziatu parentetikoekin ere ez ote da gauza bera gertatzen? Anlisi sintaktiko formalari begiratu besterik ez dago ikusteko E2ri dagokion diskurtsoa E1en txertatu edo tartekatzerakoan sintaxi mailako loturarik ez dela gertatzen bi enuntziatuen artean (ikus enuntziatuen tipologia formala). Justaposizioekin edo alborakuntzarekin gertatzen den bezala, pentsa dezakegu, baina horietan ez bezala, enuntziatuak alboz albo paratu ordeztatik bestea gurutzatuz tartekatzea.

- Liburu honetan bildu diren Artolaren bertsoak —**ez ondu zituen guziak, ezta alderatzeko ere**— hiru zatitan bereiz omen daitezke, eta hitzaurrearen ondotik nabil berriz ere. (LIB II: 52).

A tipoko enuntziatu parentetiko orok egitura horixe dauka. B tipoko enuntziatuetan, berriz, bi enuntziatuen arteko lotura semantikoa testu-antolatzailearen bati esker agirian jartzen da. Testu-antolatzailer horietatik maiztasunari begiratu besterik ez dago gehien darabilen baliabidea *eta* artxikonektagailuarena<sup>298</sup> dela jakiteko:

- Gorputz geneukan Mike Todd (**eta ez dakit hemengo Cervantes-zale porrokaturen arao-biraoek ez ote duten horretan parterik izan**) berak eragin zuen izena bezain kostu handiko film hau aurkeztu digutenean (ZIN: 181).

- Aita Villasante ezagutzen duenak —**eta nork ez du ezagutzen izenez behintzat gure artean?**— badaki nola ekiten dion beti lanari, sustraiz eta funtsez, bil eta azter ditzakeenak oro bildu eta aztertu ondoren, edozein sailetan. (LIB II: 60-61).

---

<sup>298</sup>Ezin ahantz dezakegu Narbonak (1989: 167-168) zioena: koordinazio hori “Y” konektagailuz bideratzeko joera handia dela.

Beraz, pentsa dezakegu enuntziatu parentetikoek islatzen dutela (edo imitatzen dutela) ahozko hizkerako sintaxi askea, zatikatua, eta akumulatzailea. Ez da, bada, E1 eta E2 enuntziatuen artean hierarkiaren arabera antolatzen informazioa. Adibideek aditzera emango digutenez, enuntziatu parentetikoaren sintaxia, ahozko hizkerarena bezalaxe, askeagoa edo gutxiago integratua dago. Edo, hobeto esan, integrazio hori edo lotura hori bata bestean gurutzatuz tartekatzeak berak ematen du.

#### 4. Subjektibitatea: *ni*aren (edo *gu*aren) presentzia

Enuntziatu parentetikoaren bidez egiten duen *ni*aren esku hartzea etengabekoa da, nahiz eta maiz subjektibitatearen arrasto hori *gu* baten azpian agertu. Euskaraz —eta Mitxelenak bereziki— *ni* izenordaina ez du ia behin ere erabiltzen eta gainera, berariaz edo barkamena eskatzen digu *ni* batez hasi delako edo *ni* hori ezinbestean besterik ez darabilela azpimarratzen digu<sup>299</sup>.

Garbi dago, ordea, *ni* izenordaina erabili nahiz *gu* izenordaina erabili, subjektibitatearen arrastoa dakarrela, edo behintzat subjektuaren ekintza nabarmena dela. Izan ere, nabarmena da enuntziatu parentetikoari esker, esatariak enuntziatioaren sortzaile eta eratzzaile den heinean, enuntziatio-mailako azalpenak gehitzen dituela, edo modalizazio-mailako iruzkinak bere jarrera edo postura agerian uzteko egoki gertatzen zaizkiola edota unean bertan garrantzizkoa iruditu zaion daturen bat edo informazioaren bat gehitzeko baliabide egokia dela.

Idatziko komunikazioak duen distantziaz baliatuz egingo balitu ezingo genuke jarrera hau ulertu, nahikoa espazio eta denbora egongo bailitzateke ustez bere intentzioei hain ongi egokitzen ez zaion formulazioa kendu eta zuzenagoa soilik birformulatzeko, edota hurrengo enuntziatuaz baliatuko litzateke bere berehalako iruzkin hori diskurtsoaren linealtasuna hautsita gurutzatu ordez.

Jokabide horietan guztietan nabarmen dago esatariaren *nia* dela guztiaren eragile: *nia* da testuaren sortzaile eta edukiaren antolatzaile (datuak justifikazio-azalpen gisa gehituz eta

<sup>299</sup>Euskaraz GU darabilgu inguruko hizkuntzetan NI darabilten egoera askotan. Mitxelena ere ez da “NI” izenordaina erabiltzearen aldeko. Ikusi besterik ez daude era honetako adibideak nahiz aipuak:

- Nik (**izenordain higuigarri hau ezinbestean darabilt**) lehenago ezagutu nuen Olabide (Itun Berriko Olabide, jakina) besteak baino. (LIB I:112).
- Herabez ote den ala “**ni higuigarria**” higuin duzulako, ez dakit. (MEIG III:137-140).

Garbi dago, ordea, zuzenean “NI” izenordaina ez badarabil ere, NI-aren presentzia erabatekoa dela enuntziatu parentetikoetan.



bere arrazoibidean aurrera eginez), *nia* da jarrera subjektiboen eragile. Silva-Corvalán-ek aipatzen duen “pertsonalizazio” ezaugarritik gertu geundeke.

- Moldatuko ote ginateke Robinson adinean, horrelakorik gerta balekigu? Gu —**ni behintzat**— ez, eta lanak izango lituzke Sánchez Mazas jaunak berak ere. (ZIN: 153).

- Diren baino hamar halako ardandegi gehiago irekiko balira —**ez da hau nik asmatua**—, ez lirateke hordiak hamar aldiz gehituko; etxean ditudan halako bi ohe baneuzka, ez nuke horregatik lo gehiago egingo. (ZIN: 152).

- Beregana dezake ikuslearen gogoa, nahiz gertaera guztien berri aldeztetik jakin —**horixe gertatzen zitzaidan neroni**—, Charles Laughton eta beste lagun azkarren antzeari eskerrak. (ZIN: 189).

Hainbat eta hainbat enuntziatu parentetikotan “NI” izenordaina berariaz agertzen bada ere —eta horrek ere egiaztatuko luke “NI”-aren presentzia egitura horietan eten gabekoa dela—, beste hainbat eta hainbatetan ez du berariaz aipatuko, baina holakoetan ere, “NI”-aren lorratzak edo aztarnak oso dira nabarmenak. Ikus ditzagun enuntziatu parentetikoaren izaera (eta komunikazioan duen funtzioa) egokien aditzera ematen duten enuntziatu parentetiko motak.

Iruzkin modalak, *niaren* erakusle:

- Beharrak eta indarrak batera joarazten ez gaituzteino —**eta txorakeria litzateke orduan euskaldun guztiak giputzen esanera egongo direla sinestea**—, atzera begiratu behar dugu, euskalkiak are gehiago elkarrengandik bazter ez daitezten. (LIB I: 120).

- Har dezagun eritzi aditzaren jokera. Ohiturarik zaharrena —**eta jatorrena, noski**— datiboarekin erabiltzea da. (LIB I: 122).

- Zenbait aldatatik bakarrik begiratu diot hemen, neri eta aldizkari honi —**neri iritzi apalez**— dagokigun aldeetatik. (LIB I: 135).

Enuntziazio mailako azalpen-argibideen emaila:

- Hizkuntza bat ikasteko —**edo ikasten hasteko, behinik behin**— bide erosoak eskeintzen duten libururik gehienak motz gelditu ohi dira beren egitekoan, hizkuntzak nekerik eta gogo bizirik gabe ezin ikas daitezkeelako noski. (LIB I: 109).

- Nahitaezkoa zen, eta horrelaxe ikusi du begi zorrotzez egileak, euskal idazleez gainera—**euskaraz mintzatu direnez gainera, alegia**—, gure arteko erdal idazleez mintzatzea, gure hizkuntzari dagozkion lanak ondu dituzten neurrian behintzat, eta are erbesteko euskalariez, zahar eta oraingoez. (LIB II: 65).

- Hitchcock zaharra, suspense-bila beti bezala (**zalantza esan beharko dugu euskaraz**), antzerki ezagun honetaz jabetu da gure txolarreak alaitzeko. (ZIN: 128).

Justifikazio-azalpenen emaile:

- Eta atertu gabe aditzera ematen diguten irakaspen honetaz jabetu ez bagina ere —**ez digu guztioi argitasun berbera eman Jainkoak: zinemagile izango ginateteke bestela zinema-ikusle izan beharrean**—, astiro azaltzen digute azkenean “De rerum natura”-tik hartua dirudien hitzalditxo baten bidez. (ZIN: 147).

- Ez da, labur, Sinclair Lewis´en “Main Street” —**eztena ere falta zaio**—, baina badu guretzat gisa horretako zerbait. (ZIN: 164).

- Gehienez ere, Luis XIV eta XV garrenak izan zituzten zenbait amoranteren izena —**guztiak aipatzea lan luzeegia bailitzateke**— eta gezurrezko aurpegia—egiazkoa baino ponpoxagoa, beharbada— ikasiko du edo gogora ekarriko. (ZIN: 178).

Goiko adibideek erakusten digute enuntziatu parentetikoetan *niaren* lorratzak ugariak direla. *Niaren* erabateko esku hartzearen adierazgarri ez ezik komunikazio-trukearen marko jakinari erreferentziak egiteko ere erabiltzen ditu enuntziatu parentetikoak Jarraian ikusiko dugu egitura hauek diskurtsoan hain beharrezkoak diren enuntziatio-koordinatuen enmarkatzaile edo inguratzaile ere badirela.

## 5. Komunikazio-trukearen marko jakinari etengabeko erreferentzia

Egoerazko testuinguruaren mendekotasun handia du ahozko bat-bateko elkarrizketak, eta, beraz, ugariak dira testuinguruari erreferentzia egingo dioten hizkuntza-osagaiak. Silva-Corvalán-ek (1996) testuinguru horri ingurune soziala deritza eta ahozko hizkeraren edo ahozkotetasunaren ezaugarrien artean, ingurune sozialari egokitzen zaizkion hizkuntza-erabilerak aipatzen ditu. ‘Ingurune sozial’ adigaiak solaskideen pertsonarteko harremanak, komunikazioa garatzen den espazioa eta denbora eta hizketa-gaia hartzen ditu bere barnean:

Hay que añadir a esas exigencias: la condición de acomodar los usos lingüísticos al entorno social en el que se produce la comunicación. Por entorno social entiendo factores tales como las relaciones interpersonales de los participantes, el espacio y el tiempo en el que se desarrolla la comunicación y el tema mismo de la conversación. (Silva-Corvalán 1996: 261).

Ikusia dugu, jada, enuntziatu parentetikoetan esatariaren lorratzak begi-bistakoak direla, baina esatariari ez ezik norentzakoari egiten dizkion dei, keinu eta oharrak ere oso ugariak dira, honekin bideratzen baitu pertsonarteko interakziozko harremana.

- Irakurle argia —**inoiz makurtu baldin bada horrelakorik lerro txaldan hauek irakurtzera**— ohartu da noski honez gero ez ditudala oso gogoko “Cinemascope”, “Superescope” eta antzeko izenak daramatzaten sistema berri harrigarriak. (ZIN: 141).

- Ez zara damutuko, **horixe alde aurretik esan diezazuket**, liburu hau erostez. (LIB I: 146).

Komunikazio-trukean parte hartzen duten solaskideei erreferentzia egiteko ez ezik, egoerazko testuinguru horretan espazioari eta denborari ere erreferentzia egiteko baliagarri dira enuntziatu parentetikoak. Hobeto esan, komunikazioa gauzatzen deneko une eta leku jakinari egindako erreferentziak aditzera emateko.

Horretarako elementu deiktikoak, nahiz denbora eta espazio hurbilaren adierazgarri diren aditzondoak (*gaur, orain, hemen*, esaterako) oso dira adierazgarriak. Horiek guztiek oinarritzko enuntziatua solaskideen araberrako denbora eta espazio jakin batean sartzeko bitarteko egokiak dira:

Los elementos deícticos insertan “lo enunciado” en un tiempo y en un espacio con referencia a los productores y destinatarios del texto. (Bustos Tovar 1996: 359).

Solaskideen<sup>300</sup> araberako “gaur” edo “orain” ardatzari erreferentzia egiten diotenak:

Gaur:

- André Cayattek ez zuen inoren jolaserako egin film hau, horren bidez mandatu bat —**gaur esaten den bezala**— zabaltzeko baizik. (ZIN: 137).

- Eta, hau da beltzena eta gogorrena, gertakari berbera bi aldetara entzuten baldin badugu —**gaurko neska-mutilek irakurtzen dituzten nobeletan edo antzinako poema epikoetan bezala edertua eta goratua, edo oraingo eta lehengo zenbait idazlek ohi duten bezain beztua eta itxuratxartua**—, alderik politena ez dela beti ezta maizenik ere, egiazkoena izaten. (ZIN: 130).

Orain:

- Zenbaitek alde hauetan —**Ganivet eta Sánchez Mazas datozkit orain gogora**—Robinson beheartzeari ekin dio, bigarren mailako giza-sinbolua, merkatarien neurrikoa, dela eta. (ZIN: 153).

Solaskideen araberako “hemen” ardatzari erreferentzia egiten diotenak:

- Giza-izaera barrenez mintzatzen zitzagun “Rashomon”, gizona gizon —**nahiz Japonen, nahiz Euskalerrian**— egiten duten zer nagusi horietaz. (ZIN: 143).

“Hemen” ardatza “Euskal Herria” litzateke, solaskideen bizilekua.

“Gaur, hemen, orain” ardatzak, bada, komunikazio-trukea gatzatu edo gauzatu den egoerazko testuinguruaren adierazgarri dira, solaskideak aurrez aurre dituen solasaldiek duten testuinguruarekiko mendekotasunaren adierazle. Komunikazio-truke hori oraintxe bertan, solaskideen begien aurrean gauzatuko balitz bezala.

<sup>300</sup>“Solaskideak” diogunean esatariak eta esatariak buruan duen balizko norentzakoaz dihardugu; ez, noski, urteak aurrera egin ahala ere mezu hori irakur edo har lezakeen edozein hartzaile. Horregatik diogu komunikazio-truke horretako partaide zuzen direnen (esatariaren eta norentzakoaren) araberakoa dela “gaur” ardatza edo “hemen” ardatza.

Ez da harritzekoa, bada, komunikazio-trukearen marko jakinari erreferentzia egiten diotenez gero, enuntziatu parentetikoak enuntziatio-koordinatuen enmarkatzaile edo inguratzaile izatea.

#### 6. Esatari-norentzakoek batean duten informazio pragmatikoa: kooperazioa

Elkarrizketa bat gauzatu ahal izateko oinarri-oinarrizkoa da solaskideen artean halako “konplizitate” bat egotea; batean duten munduaren ezaupide pragmatikoak emandako konplizitatea.

Batean duten ezaupide pragmatiko hori oso zabala izan daiteke, hizkuntzaren eremua era gaindi dezakeena. Ezagutza horren errainuak ager daitezke afektibitatezko faktore edo alderdietan (esatari-norentzakoek hurbiltasuna, begikotasuna), kultur alderdietan (bizibidean eta bereziki, literatur eta kultur ezagutza, etikan, politikan, eta abar) nahiz gizarte mailako ezaugarrietan (belaunaldi berekoa izan edo ez, gizarte-mailan, arraza eta jaioterrian... ). Jakina da solaskideek batean duten mundu-ezaupide horrek izango duela arrastorik diskurtsoan, edo, hobeto, bien arteko komunikazio-trukean.

Arrastorik handiena elipsietan, esan gabe aditzera ematen den informazio aunitzetan agertuko da. Norentzakoak zailtasunak izan ditzakeela uste duenean enuntziatu parentetiko bidez argibideren edo pistaren bat emango dio esandako hori testuinguru jakin batean kokatu ahal izateko (§ 9.5.):

Honenbestez, solaskideak aurrez aurre dituen zuzeneko ahozko elkarrizketa batean bezala, zuzenean esan gabe informazio ugari inplikaturiko edo emango da aditzera. Esatari-norentzakoek batean duten orotariko ezaupide edo informazio pragmatiko horrek bermatuko du, eta ez da hitzez edo gramatikazko osagaiez baliatu beharrik izango.

#### **9.6.5. Ahozkotasunaren komunikazio-funtzioa testu idatzietan**

Goian enuntziatu parentetikoak ahozkotasuna edo ahozko hizkeraren ezaugarri behinenak berariaz idatzian txertatzeko baliabide edo estrategia ere badirela frogatzen saiatu gara. Baina zerk eragin dezake solaskideak aurrez aurre dituen bat-bateko elkarrizketa baten tasunak idatzian txertatu nahi izate hori? Esatariak zein efektu edo ondorio erdietsi nahi du beste transmisio-bide baten ezaugarriak idatzian berariaz txertatzearekin? Ahozkotasunaren ezaugarriak zertarako birstortu edo islatu testu idatzian?

Maiz esan izan da —eta euskal prosari ere leporatu izan zaio— ahozkotik idatzirako jauzia ez dagoela oraindik behar den bezala egina. Garbi dago idatzia eta ahozkoa transmisio bide desberdinak direla eta bakoitzak bere erretorika duela, baina badirudi euskal prosa heldugabea izatearen muinetako bat (Esnal & Zubimendi 1993) mintzatzen dugun euskararen eta idazten dugunaren artean izugarritzko etena egotean datzala.

Atal honetan, eta tesian zehar oro har, ikusi dugu Mitxelenaren prosak ahozko hizkera hori trinkotu egiten duela: perpausak biribildu, osatu, luzatu, orraztu egiten dituela. Mitxelenaren prosa bera da moldezko eta ahozko euskal lekukotasunaren oihartzun: bere bitartez heldu zaizkigu (Orixerri buruz berak adierazi zuenez) “euskal idazleen mintzaera dotorea eta ikasia, eta bertsolarien etorri egokia eta lasaia”.

Horretaz jabetzeko, ikusi besterik ez dago testu idatzien lekuko ez ezik ahozko hizkeraren lekuko diren aipu edo aipamenak zeinen ugariak diren bere prosan, ahozkotatasunaren tasun edo ezaugarriak behinenak idatzian bertan txertatzeraino.

Testu idatziaren eta ahozkoaren arteko jauzia hain handia ez izateko, enuntziatu parentetikoak estrategia egokiak gertatzen zaizkio; baliabide honi esker ahozkoaren eta idatziaren arteko etena arindu egingo da; horiei esker, idazketak ez baitu ahozkotatasuna zeharo estaliko, eta zubi interesgarria bihurtzen da idatzian ere ahozkotatasunarekiko lotura ez eteteko, edo behintzat, egon dagoen eten hori arintzeko.

Ahozkotatasunaren ezaugarriak idatzian islatu edo mimetizatzean, ahozko bat-bateko elkarrizketa batean gertatu ohi den bezala, hainbat efektu edo funtzio komunikatibo erdietsiko ditu:

- 1) Solaskideak elkarrengandik gertuago, hurbilago sentiaraztea. Esataria norentzakoarengana gehiago hurbiltzeko, edo behintzat, honentzat hurbilagoa, zuzenagoa gerta dadin solaskideak aurrez aurre dauden zuzeneko komunikazio-sarea birsortu edo imitatuko du testu idatzian. Izan ere, maiz, kontakizunaren originaltasuna ez dago istorio berriak asmatzean oinarrituta. Gauza da entzuleekin joan-etorriko harremana sortzea, orainaldikoa eta bizia, bitala: esatari-norentzako(ar)en arteko *feed-back*a. Esatari-norentzakoaren artean sortzen den harremanean ere bai baitago balio estetikoak.
- 2) Egoerari gehiago lotzea, konkrezioari alegia. Aurki ditzakegun abstrakzioak eta kontzeptuak beti ingurune bizi eta zehatz bati loturik egongo dira. Egoerari hain loturik joate horrek ingurumen fisikoari kateatzea esan nahi du eta

ingurune hori, nolabait esateko, ezustearen erreinua dela esan genezake: ez dago programatze edo prebisorik. Beraz, giza giro bizitik oso hurbil dagoelako efektua sortzen du; erabat txertaturik, esan beharko genuke.

- 3) Adierazpena orainean biziarazten du, “orainaren” ardatzari lotzen zaio: maiz, Igerabidek (2000) esango digun bezala, orainerako baliagarriak edo erabilgarriak ez diren edukiak eta oroitzapenak beren funtzioa galtuta geratzen dira, eta desagertzera egiten dute. Hori da ahozkotasunean erabiltzen den bidea oreka mantentzearen. Beraz, mezua bizirik mantendu eta egoerari lotzeko egokia gertatzen zaio; konkrezioari, alegia.
- 4) Mezuan bertan ikuspegi parte hartzailea eta subjektiboa txertatzeko balio dio. Egitura horiei esker, hain zuzen ere, ahozko bat-bateko hizkeran gertatu ohi den bezala, esataria bera da enuntziatzaile, bere ikuspuntu subjektiboa da agerian geratzen dena, eta ez, oinarrizko enuntziatuan gerta litekeen bezala, besteren ikuspuntuaren enuntziatzailea.
- 5) Enuntziatu parentetikoak norentzakoari egiten zaizkion “keinu”, “imintzio” modukoak dira. Esatariak norentzakoari egiten dion begiratuaren keinuek, ahozko hizkeran bezalaxe, adierazkortasun berezia dute Ahozkotasunean, jakina baita gorputza ere mezuak igorritz ari dela ahotsarekin batera.
- 6) Ahozkotasunaren ezaugarriok, honenbestez, diskurtso idatziari naturaltasuna, arintasuna, freskotasuna eta bat-batekotasuna txertatzeko helburu estetikoak izan dezake, baina baita ere esatari-norentzakoaren arteko elkarreragina eta hurbiltasuna erdiesteko helburu soziala ere:

Es una “oralización”, un rasgo sintáctico que proporciona una “frescura” y espontaneidad propia de lo oral. Se recrea la situación directa: hay un Yo que habla y se dirige directamente (en la ficción) al destinatario. Esto lo acerca también al registro coloquial, aunque lo separan otros rasgos. El tema, la planificación...Es un rasgo, pues, de oralidad. (Fuentes 2000: 239).

Guk ez dugu uste, aztergai dugun Mitxelenaren corpusean, enuntziatu parentetikoaren helburua diskurtsoari lagunarteko doinu bat ematea denik; ez du esatariaren eta norentzakoaren arteko “harreman informal eta lagunartekoa” birstortu edo islatu nahi. Gure ustez, mutur horretaraino iritsi gabe, enuntziatu parentetikoekin esatariaren eta norentzakoaren artean dagoen interakziozko harremana da berariaz nabarmendu nahi duena; solaskideak

aurrez aurre baleude bezala, bien arteko *feed-backa* birsortu edo imitatu nahi du. Gainera, esatariaren hasierako intentzio-xedea erdiesteko, eta norentzakoak mezua ongi aditu eta interpretatzeko, bien arteko kooperazioa edo elkarlana ezinbestekoa dela agerian uzten du, eta, horretarako, jakina, biek batean duten munduaren ezaupidea eta konplizitatea ezin saihestu.

Honenbestez, agerian geratu da esataria ahozkoatasunaren teknikaz ere baliatzen dela bere komunikazio-helburua erdiesteko; izan ere, idatziak ez ditu ahozko tasunak erabat estaltzen, eta horren lekuko garbi dira enuntziatu parentetikoak: ez ahozko hizkeran erabili ohi den egitura edo enuntziatu mota delako, baizik eta idatziari dagokion egitura landu, hausnartu eta konplexua izanik, ahozko ezaugarriak testu idatzian birsortzeko aukera eskaintzen digutelako.

#### **9.6.6. Ondorioak**

Atal honetan enuntziatu parentetikoak ahozkoatasunaren ezaugarriak idatzian islatzeko baliabide ere badirela frogatzen saiatu gara; ahozkoaren eta idatziaren arteko erabateko etena arindu egiten dutela frogatzen. Frogatze-ahalegin horretan solaskideak aurrez aurre dituen ahozko bat-bateko elkarrizketaren ezaugarriak behinenak aztertu eta egitura parentetikoaren ezaugarri sintaktiko-semanticoko eta pragmatikoekin uztartu ditugu.

Ondorio nagusiak honako hauek dira:

1) Ahozko komunikazio-trukean, maiz, mezuak berak baino garrantzi handiagoa izango du pertsonarteko interakzio-funtzioak nahiz jarrera edo esan duenari buruzko iritziz emateak. Ahozkoatasunean lehentasuna, komunikatzeak berak baino areago, norbaitekin harremanetan jarri eta barne irudikapenean eragitea da. Beraz, bereziki garrantzitsua izango da proposiziozko eduki hori inguratzen duen komunikazio-markoa: esatariaren hasierako komunikazio-intentzioa norentzakoari eta testuinguru jakinari egokitu beharra.

Ezinbestekoak izango dira, bada, mezuaren eratzailer eta antolatzaile den esatariaren jarrera islatuko duten hizkuntza-osagaiak nahiz enuntziatioari berari egindako oharrak eta baita interpretazioa bideratzeko norentzakoari egindako keinuak ere; hau da, esatariaren eta norentzakoaren arteko *feed-backa*.

Enuntziatu parentetikoetan ere gauza bertsua gertatzen da. Parentetikoak, une batez, oinarritzko enuntziatua sintaktikoki eta pragmatikoki hausten edo eteten duen enuntziatua da.



Gehitzen duen informazioa makroegitura batean kokatzen da, eta ez *dictum* edo proposiziozko edukian:

- enuntziatio mailako argibideren edo birformulazioaren<sup>301</sup> bat izan liteke,
- esatariaren jarreraren adierazle, modalizazio mailako iruzkina
- esatariaren arrazoibidean aurrera egiteko justifikazio-azalpenen bat
- edo une horretan bertan esatariari garrantzitsua iruditu zaion daturen bat.

2) Aldez aurretikako planifikaziorik eza edo diskurtsoa sortu ahala egiten den planifikazioa islatzeko komunikazio-intentzioa du.

Komunikazio ekintza hori zuzeneko eta bat-batekoa bailitzan agertzen zaigu: zuzeneko eta bat-bateko solasaldietan gertatu ohi denez, esatariari esaten ari den unean bertan bat-batean gogoratutako informazioa da, baina esatariarentzat garrantzitsua, enuntziatua amaitu arteko astirik ez baitu izango enuntziatua txertatzeko. Berariaz imitatzen du ahozko solasaldia. Bestela idatziak uzten du tartea hain garrantzitsua den informazio hori ondoko ondoko enuntziatuetan garatzeko edota egokia ez den adierazpidea zuzendu eta egokiena soilik formulatzeko, birformulazioen beharrik izan gabe.

3) “Pertsonalizazio” handia agertzen duen egitura.

Komunikazio ekintza horretan subjektu esatariaren presentzia benetan da nabarmena: “Ni” horren lorratzak bete-betean agertzen dira: “Ni” hori da diskurtsoaren sortzailea eta diskurtsoaren erabateko kontrola duena, bere diskurtsoa eteteraino eta nahi dituen iruzkin eta zuzenketak eginaz norentzakoaren interpretazioa gidatu edo norabideratzeraino. Pertsonalizazioak indar handia du beraz.

4) Solaskideak aurrez aurre dauden komunikazio-trukea imitatzen du. Horretarako, esatariaren eta norentzakoaren arteko interakziozko harremanak garrantzi handia du eta baita hauen arteko “konplizitateak” ere. Biek batean duten munduaren ezaupide pragmatikoak

---

<sup>301</sup>Bustosek (1997), nahiz Vigar Tauste k(1994) ahozkotasanaren ezaugarrien artean, parafrasien ugaritasuna dute hizpide. Parafrasien artean kokatzen ditu Vigar Taustek birformulazailak:

“Los tres grandes subtipos de recurrencias parafrásticas:

- ampliaciones
- reformulaciones
- reajustes expresivos

No constituyen categorías cerradas. Pues en toda recurrencia (repetición) lo realmente importante es, desde el punto de vista informativo, el hecho mismo de su aparición relacionado siempre simultáneamente con los aspectos temáticos, afectivos y de organización y expresión de la información transmitida en la enunciación”. (Vigara Tauste 1994: 195).

bermatzen du esan gabe aditzera emandako informazio oro. Estarian dagoen baina inferi daitekeen informazioa ugaria da, interpretazio-arazoak saihesteko bien arteko kooperazioa eskakizun duena.

5) Solaskideak aurrez aurre dituela imitatzeko esataria bikoiztu egingo da, besteren enuntziatzaile eta norberaren esatari bihurtuz. Oinarrizko enuntziatuak, maiz, beste baten ikuspegia dakar, beste baten edo norentzakoaren beraren esanen isla bailitzan. Eta hori lortzen du E2 enuntziatuan egiten dituen kritikak edo iruzkinak (esatariak bere ikuspegitik bertatik egiten dituenak) oinarrizko diskurtsotik urruntze bat dakarrelako. Beraz, solaskide ezberdinak imitatuko ditu. Urruntasun polifonikoa.

6) Ahozotasuna idatzian txertatuz norentzakoaren arreta bereganatzea lortzen du eta baita norentzakoarekiko hurbiltasuna edo gertutasuna ere. Hori ongi datorkio bere arazoibidean aurrera egin eta norentzakoaren interpretazio bideratzeko.

7) Egitura parentetikoak ahozko hizkeraren ezaugarriak testu idatzian txertatzeko baliabide badira ere, ez dugu ahozko hizkeran gisa honetako egitura sintaktikorik erabiltzen. Azken batean oso egitura landuak dira eta sintaxi mailako ezaupide handia eskatzen dute.

## **9.7. ENUNTZIATU PARENTETIKOA, ESATARIAREN INTENTZIO IRONIKOAREN ISPILU**

### **9.7.1 Sarrera**

Hitzezko ironia esatariak berariaz —intentzio osoz— egiten duen lokuzioa<sup>302</sup> da eta, ondorioz, hala balitz bezala aztertu beharrekoa, komunikazioan duen eginkizuna eta esatariak baliabide horrekin erdietsi nahi duen efektua ulertu eta azaldu nahi badugu, behintzat<sup>303</sup>. Ezin dezakegu, bada, Mitxelenaren diskurtsogintzaren ezaugarri nagusi diren enuntziatu parentetikoaren azterketa ahalik eta agortzaileena egin ironia alde batera utzirik, bere diskurtsogintza behin eta berriz zirtatzen baitu hitzezko ironia finak.

Aztertu beharreko alderditzat jotzen dugu, baina azterketa honetan gure mugak zein diren aldeaz aurretik garbi azaldu beharra dugu; izan ere, lan honetako gure jomuga ez da

<sup>302</sup>Lanean sakondu ahala ohartuko gara ironiazko enuntziatuetan lokuziozko hizketa ekintza ilokuziozkoarekin ezin berdindu daitekeela; izan ere, esaten dena, esan nahi dena ez bezalakoa baita; hau da, esaten dena ez dator bat benetan komunikatu nahi denarekin.

<sup>303</sup>*Ironia* gertakaria aztertzeke ezinbestekoa da esatariaren intentzioa oso kontuan izatea. Lan honetan, begi aurrean izango dugu esatariak norentzakoarengan zein efektu erdietsi nahi duen; hau da, perlokuziozko hizketa-ekintza.

ironia bere luze-zabalean aztertzea, enuntziatu parentetikoak esatariaren intentzio ironikoaren ispilu diren heinean soilik izango ditugu azterkizun. Gure azterresparrua, beraz, mugatuagoa da, ez da ironiaren baso zabalera zabaltzen: enuntziatu parentetikoekin ikuskizuna duen neurrian izango dugu azterkizun. Eta horretarako, tesiaren ildoari jarraituz, ikuspegi pragmatikotik egingo dugu ironiarako hurbilbidea, uste baitugu gertakari honen benetako komunikazio-izaera hobeto islatuko duela.

Ironiari buruzko hausnarketak eta `ironia` adigaia ulertzeko moduak Erretorikaren esparruan sortu zenetik egun arte aldaketak izan ditu. Gu ez gara ironia gertakariaren errebisio kritiko bat egiten hasiko, gure helburua ere ez delako, baina aztergai darabilgun `ironia` adigaiaren mugak zehazten lagun diezaguketen definizioak gurera ekarriko ditugu.

### **9.7.2. `Ironia` adigaia mugatu nahian**

Ironiazko erabilera azaltzeko pragmatikaren lerro ezberdinetatik heldu izan zaio; izan ere, horrelako komunikazio-izaera duen hizkuntza-gertakari bat bere osotasunean azaltzeko, semantikaren ikuspegi inmanenteak hutsuneak zituela ohartu ziren. Ahaleginak egin dira, bada, hainbat hurbilbide teorikotatik: hizketa-ekintzen teoriak baliaturik, Griceren elkarrizketaren teoriatik, bai argudiatzearen teorian oin harturik eta baita enuntziazioaren ikuspegi polifonikotik nahiz honekin harremanetan ikusiko dugun “errelebantziaren” edo “pertinentziaren” teoriatik abiaturik ere.

Guk ez dugu, goian esan bezala, hurbilbide guztien errebisio kritikoa egiteko asmorik, baina oso ongi datozkigu bataren eta bestearen ekarriak azterkizun duguna ahalik eta hobekien azaltzeko. Abiapuntu bezala, tradiziozko hurbilbidetik eman izan zaizkion definizioak aipatu bederen egingo ditugu:

#### **9.7.2.1. TRADIZIOZKO HURBILBIDEA**

Tradiziozko hurbilbideetan, “ironia” gertakaria bi modutara behintzat definitu ohi da. Lehendabizikoa honako hau litzateke:

La ironía es decir algo distinto de lo que se quiere decir o dicho de otra forma, el irónico pretende expresar “algo distinto de lo que realmente dice. (Torres Sanchez 1999: 6).

Definizio horrek erantzuten dio ironiari buruz izan dezakegun intuizioari. Azter dezagun corpuseko adibideren bat erabiliz:

- Erraldoiak ditugu berriz ere, Altzo-ko Handiaren neurriko gizon-emakumeak. “Superescope”-an egina omen dago. Exer gaitezen bada ahalik urrutien<sup>304</sup>. (ZIN: 142).

- Berriz ere ontzia zabala dela derizkiogu, baina edaria urria, eta ez onenatarikoa. Urruti gaudelako beharbada. Robert Aldrich-ek —Venezian bigarren Zilarrezko Lehoia eraman du aurten— hainbestean moldatzen ditu irudi moldakaitzak, ofiziale ikasiari dagokionez. Elia Kazan ‘en “Viva Zapata” gogorazteko saio bat edo beste egiten du, erdi parregarri erdi negargarri. **Barka bekio**, ez baitzekien zer ari zen. (ZIN: 143).

Adibide horietan garbi ikusten da “ontzia zabala eta edaria urria” iruditzearen benetako arrazoia ez dela “urruti egotea”, esatariak (Mitxelenak, gure kasuan) hitzez hitz hala badio ere. Goian esan duen “ahalik eta urrutien exeriko dela” enuntziatuarekin hitz jokoa egiten du, baina garbi dago, *Superescope*ri kritika egiteaz gain, filma txarra dela inplikatu nahi duela. Beraz, hitzez hitz benetan esan duena ez bezalako zerbait esan nahi izan du. Oraingo, bego horretan.

Gaur egun, ordea, ez da definizio egokitzat jotzen; azken batean, definizio horrek ironiaz gain beste hainbat hizkuntza gertakari hartuko lituzkeelako bere mugetan (metaforak, sinekdokeak, litoteak, etab). Horrez gain, egon daiteke ironiazko gertakaririk esatariak hitzez hitz esan duen horixe bera esan nahi izan duenik, eta hala ere, testuinguru jakin horretan, ironikotzat jo daitekeenik. Hau da, gerta daiteke enuntziatu bera literalki egiazkoa izatea eta testuinguruaren arabera ironiko; izan ere, esan nahi den horixe bera esan arren, testuinguru jakin horretan ez du errelebantziarik eta ridikulu edo barregarri samar gertatzen da. Ondoren, ikuspegi pragmatikotik heltzean aztertuko dugu.

2) Tradiziozko bigarren definizio bat honako honetan laburbil daiteke: “ironiak hitzez hitz esandakoren kontrakoa dena esaten du; alde horretatik, ironia “esaten denaren kontrakoa edo aurkakoa esatea litzateke”.

Hori gertatzen da, esate baterako, enuntziatuan bertan esplizituki esandako enuntziatu bat egoerari buruz edo testuinguru (pragmatiko) jakinari buruz banatzen duten informazioak gezurtatzen duenean:

<sup>304</sup>Ironia hobeto nabarmentzeko gure ustez ironiaren ispilu dena azpimarratu egingo dugu.

- Jendea aspertuxe zeukalakoan edo, azkenean jarri dio film honi Blasettik bixigarri pixka bat, pikardi-ttanttoa. Vittorio de Sicak, napolitar jatorriari dagokionez, solo luze bat kantatzen digu, bere herriko kantarien araura. Gina Lollobrigidak aski du nonbait begien aurrean agertzearekin, ia ahoa zabaldu gabe. Bera da nahiko pizgarri, pentsatu bide zuen Blasettik. (ZIN: 159).

Garbi dago, edo behintzat Mitxelenaren gainerako zinema-kritikak irakurri besterik ez dago, esatariarentzat ez dela aski antzezleri bat ia ahorik zabaldu gabe begien aurrean agertze hutsa. Edertasuna ez da aski antzezleri ona izateko.

Esatariak testuan bertan ematen dizkigu, ordea, justu kontrakoa aditzera eman nahi duelako adierazgarriak: “nonbait” modalizatzailea edo justu jarraian dioena bera:

- Eta azken-azkenean bilotxik uzten du de Sicak gure Lollo auzitegikoen aurrean, eta bide batez, jakina, gu guztion aurrean. Erazte hori gezurrezko edo —garbi baino zehatz hobea— sinbolikoa dela esan beharrik ba al dago? Nork nahiko luke besterik? (ZIN: 159 ).

“Biluzik” uzten duela adieraztea eta ondoren egiten duen zehaztapen ironikoa aski litzateke goian esan duguna egiaztatzeko: alegia, nabarmenegi gelditu dela Lollo film jakin horretan: bere edertasuna bakarrik du erakusgai, eta ez bere antzezteko gaitasuna.

Ikuspegi tradizionalaren arabera, bada, ironiazko edozein kasutan parafrasi bat gertatzen da kontrakoa den “irudizko adiera” batera edo “zentzu figuratu” batera garamatzana, eta irudizko adiera horixe da ironiaren benetako zentzua.

Sperber-Wilsonen (1981) ‘irudizko adiera’ adigaiak saihestu nahi dute, anbiguitasuna areagotu besterik egiten ez omen duelako. Izan ere, hitzez hitzeko esanahiaren interpretazio-multzoa mugatua da eta erreferentziak eta semantikazko aldagaien arabera zehatz daitekeena. Interpretazio horietatik egokiena dena aukeratu eta justifikatu behar da. Irudizko adierak<sup>305</sup> kontuan izan beharko bagenu, horien balizko interpretazioak mugagabeak izango lirateke.

Tradiziozko definizio horiek, ordea, ironiazko hainbat enuntziatu alde batera uzten dituzte. Ondorengo honek izango ote luke tokirik?

- Negar-usaiera jendea erruz dator, eulia goxora bezala. Bihotza erdibituko zaigula agindu digute eta uste horrek alaitzen die nonbait aurpegia. Nik, berriz, osorik gorde nahi nuke, zimurrik ere

<sup>305</sup>Irudizko adieratzat edo zentzu figuratutzat jotzen dute antzekotasunaren edo gertutasunaren arabera esanahia.

gabe ahal balitz, gaurkoz behintzat. Bihar, etzi, datorren astean utziko dut, derrigorrekoa baldin bada, ongi marruska dezaten. Egun jakinak jarri behar lituzkete horretarako. (ZIN: 131)

Goiko adibide horretan ez da hitzez hitzeko adiera (literala) “irudizko adieraren” kontrakoa edo aurkakoa, baina, hala eta guztiz, zentzu komunak erakusten digu pasarte hori ere ironikoa dela.

Ikuspegi tradizioaletik ematen den bigarren definizio honek (esan nahi denaren kontrakoa edo aurkakoa esateak) lehenengo definizioarekin erkatuz (esan nahi denaren desberdina den zerbait esatea) badu abantaila bat: ironia, gainerako ironikoak ez diren zeharkako baliabideetatik bereizteko aukera, alegia. Ironia litzateke, izan ere, esanahia alderantzikatu edo iraultzen duen bakarra.

Kontrako edo aurkako esanahia iradokitzearen alderdi horrek, ordea, goian ikusi dugun bezala, ez digu corpuseko adibide guztiak azaltzeko balio; bereziki balio du kontrakotasun hori termino edo adigai lexiko zehatz baten gainean eraikitzen denerako.

Esaterako: *baso bat jaurti eta puskatu duen bati norbaitek ongi egina!* esaten badio, edota norbaitek *uztaila bete-betean euria goian behean ari dela, aste osoan zehar eguraldi zoragarria daukagu!* badio, garbi dago horietan esatariak intentzio osoz ironiazko enuntziatuak darabiltzala. Baina ironia horien muina ‘ongi’ edo zoragarria’ adigai lexikoetan oinarritzen da, esatariak horien guztiz aurkakoa dena (‘gaizki’, edo ‘penagarria’) komunikatu nahi baitu.

Ikus dezagun corpuseko adibideetan oinarrituz:

- Baina Teologiaz kanpora ere aurkitzen da gauzarik aski aldizkari honetan: filosofia, ekonomia, etnografia eta kultura gaiak erabat. Hona zenbait gaurkoenen artean hautatuak: Menéndez Pelayo, Unamuno, Herriot, neorrealismoa zineman, musika berria... Berri usai bizia darie gainera zenbait olerkiri eta Sarriren edergarriei. Oteizak gure artean erein zuen hazi gaiztoa ez da nonbait txoil galdu. (LIB I: 96).

- Egile-zuzentzaileek ez dituzte inolaz ere begi txarrez ikusten juduen ahaleginak. Besterik baino gehiago, badirudi eginahal izugarri horien berria zabaldu nahi dutela mundu guztian barrena. Gerok ere —zerbait jakiteko zaleturik geunden aspaldian— ez ditugu gogo gaiztoz ikusi. Ikusgarria da, eta harrigarria. Munduaren lau kantoietatik bildutako jende horrek jaso duen lurrak eta herriak, gainera, orain zenbaitek hain gorroto duten Europaren antza eta eitea darama.

Gure haurtzaroko judu maltzur haiek nola ari ote zaizkigu kristau itxura hartzen? Juduak berak gogokoago ditugulako ala juduen ingurukoez aspertuxe gaudelako? (ZIN: 159-160).

Adibide horietan, esatariak intentzio osoz ironiazko enuntziatuak darabiltza. Baina ironia horien muina `gaiztoa´ edo `maltzur´ adigai lexikoetan oinarritzen da, esatariak ez baitu hori komunikatu nahi, guztiz kontrakoa dena ez bada.

Baina beti esan dugun horren aurkakoa ote da zinez edo benetan ironiaz adierazi nahi izan duguna? Eta zeren aurkakoa? Enuntziatu ironiko horietan dagoen elementu zehatz baten aurkakoa? Batzuetan, goian ikusi dugun bezala, badirudi badela hizkuntza elementu bat (adjektiboa edo aditzondo) enuntziatuaren balio ironikoa adieraziko lukeena. Baina ez da ironiazko enuntziatu guztietan era horretako hizkuntz osagairik agertuko, eta beraz, holakoetan ironiaren muina komunikazioaren osotasunean aurkituko genuke, intentzio osoz aditzera eman nahi izan den enuntziatu ironiko horren komunikazio-trukean:

En ocasiones parece existir un elemento lingüístico, habitualmente adjetivo o adverbio, que podrían representar el valor irónico del enunciado; pero, sin embargo, no siempre aparecen en los enunciados irónicos este tipo de elementos, por lo que la clave de la ironía hemos de buscarla en el conjunto de la comunicación en que se emite el enunciado intencionalmente irónico. (Sanchez Torres 1999: 10).

Egiazta dezagun corpuseko adibideekin:

- Keixu ginen lehen Hollywood´eko pelikula ugari eta bestetarikoak urri genituelako. Orain, gero, eta hobeto gabilta, Hollywood´etik ere deus gutxi etortzen zaigu. (ZIN: 160).

Enuntziatu parentetikoa da bere osotasunean ironiaren eragile.

Edota:

- Kristoz gerozko bigarren mendekoak edo omen dira, Altzateko Jauna baino pixkaren bat lehenagokoak.

Kristautuxea zen Euskalerrria Alzatekoa mundura zenean. Berri Onaren lehen hotsak entzuten ditugu berriz doi-doi hemen, Erko gazte bizkorrak Erromatik ekarriak, gaitzik gabeko jentilaldi liluragarrian bizi baitziren artean euskaldunak. Eta Berria entzun orduko nekerik gabe makurtzen da lege berrira Izartxo, jentil baratze hartako lore zoragarria (...) Lurralde atsegin hartan ez zen ia

sugerik. Tartalo eta Basajaun itzalak ere umeen parregarritarako hobeak ziren beldurgarritarako baino. (LIB II: 45).

Pasarte hori ere ironiaz betea dago, baina ironia hori ez da hizkuntza-osagai jakin batean oinarritzen. Garbi dago —eta azpimarratuta dagoena behintzat bada horren lekuko— esatariak ez duela “lehenaldi zorionsuan” sinesten, ez eta betiko topikoetan ere. Hori, ordea, ez du hitzez hitz esaten, estarian dagoen adierazpena eta esatariaren benetako jarrera inplikaturik baizik.

Beraz, ikus daitekeenez, tradiziozko hurbilbide horiek ironiazko gertakaria ulertzen lagun diezagukete, baina oraindik eskas edo urri gertatzen dira. Batetik, ez baita azaltzen esataria zerk bultzatzen duen enuntziatu ironikoak hitzez hitzekoak edo zuzenekoak baino nahiago izatera; hau da, aukera horrek ba ote duen loturarik ironiaren komunikazio-izaerarekin. Bestetik, hari horri loturik, ikusi dugu ironiaren adigaia mugatzeko ezinbesteko faktorea dela “testuingurua” edo hizkuntzaz kanpoko osagaiak ere oso kontuan izatea. Eta beraz, esatariak ironiaz komunikatu nahi duena aztertzeke, hizkuntza osagaiak hizkuntzaz kanpokoarekin uztarturik aztertu beharko genituzke:

La ironía no es una palabra o una expresión que en sí presenta una significación contraria a la explícita, sino que el fenómeno irónico se manifiesta en todo el conjunto textual en el que se incluye. Ironía es, pues, la calificación que da el contexto al sentido individual de una palabra o de un juicio que, a su vez, en virtud de una relación de reciprocidad, revierte en el sentido textual, contribuyendo así a su configuración. (Sánchez Torres 1999: 11).

Testuinguruaren kontzeptuak, bada, ezinbestean agertu behar du ironiaren gertakaria definitzerakoan, testuinguru jakin horren baitan baitago enuntziatu bat ironiko izatea edo ez.

Ironia orok, pentsamenduaren eta diskurtsoa artikulatzen duten hitzen arteko kontradikzio edo inkongruentzia bat ematen du aditzera, norentzakoak atzeman beharreko kontradikzioa. Beraz, ironiaren muina barne-kontradikzioan edo barne-inkongruentzian egongo da eta testuingurua —norentzakoarekin batera— baliabide ironikoaren testu-interpretazioan erabakigarria izango da.



## 9.7.2.2. IKUSPEGI PRAGMATIKOA

Komunikazio ironikoak arrakasta izan dezan beharrezkoa da, gutxienez, ondorengo hiru osagai hauek kontuan izatea:

- 1) Esatari ironikoa: esatari honek mezua intentzio ironikoz igorriko du eta estarian daraman (esan gabe doan) esanahia inferitu beharko du norentzakoak; horretarako hainbat adierazgarri edo susmagarri utziko dizkio. Reyesek (1992), esaterako, esatariaren lana edo egitekoa nabarmentzen du. Esatariak, ironiazko mezua igortzeko, norentzakoa ere oinarritzko ezaupide komunaren jabe dela auresuposatzen du.
- 2) Norentzako ironikoa: esatariaren norentzakoak gaitasun aski du ezkutuko esanahi hori inferitzeko, mezuan bertan edo mezuaren inguruan txertaturiko adierazgarri edo arrasto horiek egoki interpretatuz. Norentzako honek ere ez du, ordea, estarian dagoen enuntziatua formulatuko, soilik aditu edo ulertu egingo du eta irribarrearekin nahiz zeinahi iruzkin ironikorekin erreakzionatuko du. Azaldu beharrak, noski, “jokoa” urratzea edo haustea lekarke.
- 3) Ezaupide komuneko oinarria (informazio pragmatikoa) ezinbestekoa da ironiak arrakasta izan dezan; ezaupide hori hizkuntzazkoa, soziokulturala nahiz pertsonala izan daiteke eta norentzakoak ezaupide horretatik tira egin beharko du ironia egoki interpretatuko badu.

Beraz, ironia interpretatzeko muina edo giltza esatariak norentzakoaz duen auresuposizio horretan dago; hau da, esatariak jakin badaki berak buruan duen norentzako horrek baduela (edo izan behar duela) testuinguruko informazio pragmatiko esanguratsuenaren edo errelebantearen berri:

- Baduela hizkuntzaren ezaupidea hitz batzuek besteak baino konnotazio indar handiagoa dutela jakiteko.
- Gaurkotasunaren ezaupide soziokultural eta literarioa banatzen dutela; baloreen sistema politiko, kultural, ideologikoa, etab.
- Bakoitzak duen eskarmentu pertsonalaz jabetzen dela.

## 9.7.2.2.1. Enuntziatu ironikoen norentzakoa

Komunikazio ironikoak bi hartzaile ditu, arras bestelakoak diren bi hartzaile. Batek inolako erreparorik gabe esatariak hitzez hitz esandako hori onartzen du; hau da, besterik gabe, irakurketa literal hori onartzen du. Bada, ordea, beste hartzailearik; guk gure hipotesien arabera, hartzaile hau “norentzako” bezala izendatuko genuke. Norentzako honek mailaz igo nahi du ironiak baldintzatutako interpretaziora iritsi ahal izateko. Norentzako honi (eta ez hartzaileari) igortzen dizkio esatariak pistak edo seinale ironikoak; hau da, honekin txandakatzen ditu bere komunikazio-eginkizunak.

Ironiagilearen eta hartzaile-norentzakoaren artean sortzen den harremana honako hau da: hartzaile xalo eta inozoari zinezko eta benetako jarrera simulatzen dio. Aitzitik, ironiaz jabetzen den norentzakoa berehalakoan urruntzen da hitzez hitzeko irakurketa horretatik eta inplikaturako adiera inferitzen duenean, esatariaren eta norentzakoaren artean benetako konplizitatea lortuko du.

Beraz, autore honen arabera, lehendabiziko hartzailea zentzugabe edo inozo samarra da, ez baita gai esatariak bidaltzen dizkion pista horiez jabetzeko, eta beraz, hauxe bihurtzen da ironiaren benetako biktima.

Baina ez da bakarra. Ikus dezagun “Cancha vasca” filmaren kritikako pasarte bat horretaz jabetzeko:

- Badira nonbait —Euskalerrian edo— euskaldun izeneko gizon-emakume batzuek. Hemen, egia esan, herri koxkor batekoak bakarrik ikusten ditugu, Elantxobekoak, baina bestek ez dute alde handirik izango. (ZIN: 131-132).

- Esan behar dizuet horratik, horrako arrantzale horietaz susmo txarra eginda nagoela. Gaizki bizi direla, bai, baina...Eguraldi ona denean, itsas-ertzeko arkaitz-mutur batera joango zaizkizu taldeka, galtzak zuri eta gerrikoa gorri. Han egoten dira zai, nor agertuko, txistulari direlako batzu, arrantzaleak noski hauek ere. Hasiko zaizkizu txistulariak soinua jotzen, eta besteak dantzan, “espatadantxan”, eguerdialdean, izerditan blai, herrira itzuli arte. Eseriko dira orduan kai-ondoan dauden mahai luzeetan, nork bere botila ardoa aurrean, eta zintzurra urratu beharrean ekingo diote kantuari: “Antero’n txamarrotia —txikarren bigotia— Arrese’k ei dauko...”. Esandakoak, egunoroko zereginak dira. Lekeition edo beste nonbait jai handiak direnean han ikusten dira ikustekoak! (ZIN: 132).

Bi pasarteak oso-osorik dira ironiko. Bertan, esatariak edo ironiazaleak *ezjakinaren* itxura egiten du; simulatzailearen paperean sartzen da. Horretarako bere ahots propioa alde batera utzi eta ahots ironikoa hautatzen du.

Ironiazaleak, horrela jokaturik, bere biktimak engainatzen ditu edo behintzat horiekin txantxetan edo brometan aritzen da. Kasu honetan, garbi dago itxurak egiten edo simulatzen ari dela antzeman ere egin ez duen hartzaile “ingenuo” horrez gain, badela beste biktimarik: kritikagai duen “Cancha Vasca” filmeko aktoreak eta zuzendaria lirateke benetako biktima; hau da, horiek zinemaratu duten “zentzugabeko” filma.

Garbi ikus daiteke, bada, esatariak aski ongi bereizten dituela hartzailea eta norentzakoa; hau da, itxurak egiten edo simulatzen ari dela ere antzeman ez duen irakurlea edo hartzailea batetik, eta bere mezua zuzentzen zaion norentzakoa bestetik. Izan ere, garbi du esatariak bere norentzakoa jabetuko dela hitzez hitz kontatutako istorio horren guztiaren atzean dagoen intentzioaz eta gai izango dela irakurketa ironikoa egiteko.

Beraz, bi eratako biktimak leudeke: enuntziatu ironikoarekin kritikatzeko dena batetik (ironiazaleak simulatzen duena) eta esatariaren intentzio ironikoaz jabetu ez den hartzailea bestetik. Hartzaile-biktimak horiek izanik, enuntziatu ironikoen norentzakoa bestelakoa da; honi zuzenduko dizkio adierazgarri edo pistak enuntziatu ironikoaren interpretazio egokia egin dezan. Pistak bidaliko dizkio enuntziatuaren irakurketa ironikoa gauza dezan. Baina, jakina, pista edo adierazgarri horiek atzemateko, ezinbestekoa izango da esatari-norentzakoen artean ezaupide komuna izatea: sinesmen, ezaupideak, usteak, etab. Eta, jakina, baita hiztun komunitate horretako giza jokabidea arautzen duten balore- eta arau-sistemaren ezaupidea ere.

Honenbestez, ironiaren gertakaria ezin uler daiteke norentzakoa kontuan izan gabe, enuntziatu bat ez baita berez eta bere baitan ironiko, norentzakoak atzeman eta hala interpretatzen ez badu behintzat.

El discurso irónico necesita, pues, una audiencia que pueda interpretarlo literalmente, ingenuamente. (Sánchez Torres 1999: 21).

Eta Mitxelena bera ere ez ote zen horren jakitun? Ikus dezagun ondorengo pasartean dioena:

- Bata, 'Amicis' en "Calabriar turuta-jotzaile koxkorra": calabriarra izan beharrean lonbardiarra edo siziliarra izatea badaiteke. Gutxi gorabehera, badakizue, Oraune'ko Errolbak itzuli zigun "Florenziar idazlari koxkorra"-ren kidea. Handikiro, retorika goitarrez emana, batere ironiarik gabe. Ironia gerok baitaukagu begietan soldadu azkar haiek italiarrak direla gogoratzen garenean batez ere. (ZIN: 158).

Begietan ez ezik, baita luman ere. Horixe da behintzat atal honetan frogatzen ahaleginduko garena.

Gertakari bat ironikotzat jotzeko norentzakoak kontuan izatea ezinbestekoa bada ere — izaera ironikoa enuntziatu horretaz egiten den interpretazioak ematen baitio—, ez da nahikoa; horrekin batera, testuingurua edo solaskideek batean duten informazio pragmatikoa oso kontuan izan beharko dugu.

#### 9.7.2.2.2. Testuingurua

Gertakari bat ironikotzat jotzeko, ezinbestekoa da testuari bere osotasunean erreferentzia egitea mundu ezagun baten berri izateko, edo batean duten ezaupidea osatzeko. Hondarrean, informazio pragmatiko horrekin erkatuz nabarmentzen dira inkongruentziak eta desegokitasunak.

La ironía está determinada, en primer lugar, por la referencialidad del texto, que permite, en un primer momento, reconocer un mundo familiar, respecto del cual las incongruencias destacan evidentemente. Es el contexto el que destaca el valor irónico de un texto; en este componente contextual se incluyen nuestros modelos de conducta, que provocan juicios sobre lo que el texto presenta; las expectativas sobre lo que puede deparar el mundo que en el texto se ha construido, los significados aparentes que, por su incongruencia, caracterizamos de irónicos, y, finalmente, nuestra idea de los procedimientos habituales con que juega el texto, que podrán reforzar la conveniencia de una lectura irónica. (Sánchez Torres 1999: 21).

Testuinguru pragmatiko horretan oin harturik, ironia prozesu dinamiko eta sortzailea da, ohikoa eta esperoko litzakeen horretatik urruntze bat dakarrena. Urrundu edo desbideratu egingo da norentzakoak dituen igurikimen edo espektatibak erabat hausten dituelako, honek ez baitu espero esatariak testuinguru jakin horretan inolako koherentziarik ez duen zerbait esaterik. Koherentziarik eta egokitasunik gabekotzat iruditzen zaio, esatari-norentzakoek

batean duten ezaupide orotariko horren guztiz kontrakoa edo inkongruentea den zerbait esaten delako.

Norentzakoa, testuaren hitzez hitzeko irakurketa egitean, zerbaitek harritu egingo du; espero ez zuen zerbaitekin egingo du topo, irribarrea ateratzeraino. Oso zaila da, ordea, esatariaren eta norentzakoaren arteko sintonia ironikoa zerk eragiten duen zehaztea. Faktore ugari hartu beharko lirateke, izan ere, kontuan: hasi bakoitzak enuntziatu ironikoak hautemateko izan dezakeen sentiberatasunetik eta bakoitzak hiztun-komunitate horretako giza jokabidea arautzen duten “barneko araudiaz” izan dezakeen ezaupideraino (galarazita zer dagoen, zein muga edo zein lizentzia har daitekeen etab).

Enuntziatu ironikoen irakurketa egokia egiteko, itxura engainagarri horren atzean zer dagoen sakondu behar da; izan ere, esatariak beste zerbait inplikatzan du eta inplikatzan duen hori da, benetan, aditzera eman nahi duena. Norentzakoa inplikatura horretaz jabetzen denean, bada, sortzen da esatari-norentzakoaren artean konplizitatezko harremana.

- Izan genuen Gipuzkoan ukabilkari trebe, edo gutxienez sendo bat. Gure kideek gogoan daukate, noski; gazteagoek ere badute agian haren entzutea, ez baitzen ez idazlea, ez pintatzailea, ez beste nolanhiko etxekalte horietakoa. Mutur-jokalaria hori ipintzen zigun, bada, Luzear´ek begien aurrean beti: “Ez duzue Holako ikusi besterik. Jo eta jo, muinak urtu dizkiote. Mintzatzen ere ahaztu zaito”. (ZIN: 166)

Adibide horretan, aise ohar gaitezke Mitxelenaren “umore” eta ironiaz. Idazle-pintatzaileak ez dauzka honek noski etxekaltetzat —berari buruzko ezaupideak aise erakusten digu zenbaterainoko estimutan dituen—, baina lanbide edo ogibide hori izan balu, ez zen ukabilkaria hain ezaguna izango.

Beraz, norentzakoa ezin daiteke hitzez hitzeko irakurketa batean gelditu, itxura engainagarri horrek zer ezkutatzan duen aztertu gabe.

Ironia oinarritzen da, bada, aldez aurretik ditugun aurreiritzi kulturekin edo norentzakoaren iritzi-usteekin talka egiten duen inkongruentzian. Eta bat ez etortze horixe da, hain zuzen ere, testuaren interpretazio ironikoa egitera garamatzana. Horrek ez du esan nahi, ordea, ironiazko enuntziatuaren interpretazio bat eta bakarra egongo denik, hori ere norentzakoaren baitakoa izango da; hau da, norentzakoak duen informazio pragmatikoaren edota norentzakoa inguratzen duen testuinguruaren baitakoa.

Ikusi dugu, bada, hitzezko ironia aztertzeke ez dela aski hizkuntza mailako osagaiak kontuan izatea; horrez gain, hizkuntzaz kanpoko osagaiak ere oso kontuan izan behar ditugu enuntziatuen irakurketa ironikoa egin nahi badugu. Izan ere, gertakari honetan besteetan baino areago, hitzez hitz esaten denaz harago zer inplikatzeko duen inferitu behar da, esaten dena ez baitator bat benetan komunikatu nahi denarekin.

#### 9.7.2.2.3. Griceren elkarrizketaren teoria

Griceren teoriaren arabera (1989), hiztun ironikoak gauza bat esaten du edo esan balu bezala<sup>306</sup> egiten du, horren aurkakoa (edo aurkakoa den zerbait inplikatzeko duena) inplikatzeko. Alderdi semantiko hutsetik Pragmatikaren esparrura dakar aztergaia. Autore honek tradizioz zerabilten “esanahi figuratuaren” nozioa eraldatzen du, inplikatura “konbertsazioanalaren” (diskurtsokoa) mesedetan. Beraz, Griceren ustez, ironia aurkakotasunean oinarritzen da.

Orain muina esanahi inplizitu hori ezaugarritzea litzateke; hau da, komunikazio ironikoan estarian dagoen informazioa ezaugarritzea. Logikoek hizketa naturala zehaztu gabetzat jotzen zuten, anbiguotzat; izan ere, hitzez hitzeko esanahi hori testuinguruaren arabera aldatu egiten zen. Logiko horien aurkez aurk, Gricek ez du uste hizketa natural hori zehaztu gabea denik: bada elkarrizketaren logika bat, elkarlanaren edo kooperazioaren hastapena. Badira elkarrizketan maiz erabiltzen diren formulak (*ezta?*, *ulertzen?*, esaterako) hastapen hori eragingarria den egiaztatzeke erabiltzen direnak.

Batzuetan, ordea, elkarlanaren edo kooperazioaren hastapena bermatzen duten arau-maximak urra daitezke, bai kortesiaren izenean (§ 9.4.2.), baina baita azterkizun dugun ironiazko enuntziatuak tartekatuta ere. Urratze horrek, ordea, elkarlanaren edo kooperazioaren hastapenean sinesten duten solaskideak inferentziatzko prozedurak erabiliz ezkutuan zein zentzu dagoen aztertzeraz behartzen du eta esatariak zein intentzio darabilen zehaztera.

Gricek ironia urraketa horiekin harremanetan aztertzen du; izan ere, bere ikuspegiaren arabera, aurkakotasun ironikoa (*oposición irónica*) ez da perpaus mailako ezeztapen semantikoarekin erkatuz lortzen, elkarrizketako maximen berariazko urraketaekin baizik. Honek aurreko teoriak gainditu egiten ditu bi alderditan:

<sup>306</sup>Ikus Garmendiaren artikuluan (2006), Griceren paradoxari buruz dioena.

1) Esatariak maxima bat ageri-agerian urratzea (esaterako, baieztapen faltsuak eginaz) izan daiteke aski adierazgarri adierazpen bat noiz jo daitekeen ironikotzat jakiteko.

2) Teoria honek, bada, adierazpenean logikoak ez diren alderdiek eragindako enuntziatu ironikoaz edo esan gabe doan informazio ironikoaz jabetzen laguntzen du, bere maximen oinarria horixe baita: esatariak duen gaitasuna logikoak ez diren zentzuak inferitzeko (diskurtsoko implikaturak), elkarriketako maxima horietakoren bat urratzen ari denean.

Hasiera batean, bada, “aurkakotasun ironiko” oro azal daiteke Griceren maximaren bat edo beste berariaz urratzen dela adieraziz:

Esate baterako:

“Miren nire **bihotzeko lagun mina** da (dio Jonek)”

Mirenek eta Jonek izugarritzko eztabaida izan duten unean bertan horrelakorik esaten badu, begi bistan dago ez dela egia esaten ari, eta ondorioz, kalitatearen hastapena (hots, beti egia esaten aritzea) urraturik geldituko litzateke. Eta solaskideak hastapen horietan erabateko konfiantza duenez gero, inferituko du hitzez hitz esan duenaz bestelako zerbait inplikatu edo eman nahi izan duela aditzera. Litekeena da esan duenaren kontrakoa izatea.

Kooperazioko edo elkarlaneko urraketa horiek, bada, oinarritzko bi alderdik eragiten dituzte:

- 1) Kortesia-jokatu nahiak: esatari-norentzakoaren arteko informazio trukea kortesia-jokatu nahiari zor zaio maximen urraketa. Mezua zeharkakoa denez gero, kalitatearen araua urratzen du, baina eragingarria da kortesiaren araua errespetatzen baitu.
- 2) Ironia-jokatu nahiak: Norentzakoaren igurikimen edo “espektatibak” erabat hautsi izanak sortzen duen harridurak eragiten duen umoreak eta ironiak.

Baina ironiazko enuntziatua dugun bakoitzeko kooperazioren hastapen horietakoren baten urraketa gertatzen ote da? Dirudenez, eredu honen arabera azter daitezkeen gertakari pragmatikoak urriak dira. Irizpide hori ez da askitzat jotzen, bai baitaude ironia kasuak irizpide horren arabera azal ezin daitezkeenak.

#### 9.7.2.2.4. Ironia, polifoniazko diskurtso bezala

Ducroten polifoniazko teoriaren arabera (1984), enuntziatu berean ahots bat baino gehiago agertzen edo biltzen da, subjektu hiztuna ere ez delako bat eta bakarra; subjektuaren baitan hiru entitate bereiz daitezke:

- 1) SUBJEKTU HIZLARIA: izate enpiriko eta erreala da; hizkuntzaz kanpoko, antropologiak aztertuko lukeena.
- 2) ESATARIA: bi izaera agertzen ditu:
  1. Esataria, diskurtsoan bertan agertzen den heinean (L)
  2. Munduko gizakia den heinean; diskurtsoan bertan agertu arren subjektu enpirikoaren antza duena. (R)
- 3) ENUNTZIATZAILEA: diskurtsoan bertan agertzen da, baina ikuspuntua soilik aurkezten du, esatariaren ikuspuntutik aldentzen den beste ikuspuntu bat.

Ironiaren gertakaria azaltzeko polifoniazko zernahi gertakaritan gertatzen den bezala, esatariak bere ikuspuntutik aldentzen den edo bere ikuspuntuarekin bat ez datorren beste enuntziatzaile bat gogora dakar. Enuntziatzaile honek ez du esatariaren ikuspuntua aditzera emango, honek emango duen mezuak ez du esatariaren jarrera islatuko, beste balizko edo erreala den enuntziatzaile batena baizik. Hortik letorke esataria bikoiztu eta bere ikuspuntua ez ezik, besteren oihartzun izango delako ustea ere; hau da, esatariak enuntziatu berean besteren oihartzunezko aipamen bat txertatuko balu bezala jokatzeko du.

Baina horrek zer esan nahi du esatariaren bikoizketa gertatzen den bakoitzeko ironiazko gertakariaren aurrez aurre gaudela? Hala balitz, enuntziatu parentetiko oro ironiaren ispilu litzateke, eta ez dugu hala denik uste. Beraz, aski ote da ironiazko gertakaria definitzeko esatariak enuntziatu berean besteren oihartzunezko aipamena egingo balu bezala jokatzeko duela esatearekin? Edota ezinbestekoa da esatea esatariaren benetako ikuspegi besteren oihartzun den ikuspegi horrekiko aurkakotasunean dagoela edo behintzat ikuspegi horri uko egin eta ikuspegi horretatik aldentzean oinarritzen dela.

Hala ere, tesian zehar ohartu gara enuntziatu parentetikoetan, maiz, esatariaren beraren ikuspuntua islatzen dela, beste E1 edo oinarritzeko enuntziatuko enuntziatzailearen ikuspuntutik erabat aldentzen eta urruntzen dena. Baina ez da haatik, beti ironiazkoa izaten enuntziatu hori.



## 9.7.2.2.5. Sperber eta Wilson-en (1986, 1990) errelebantziaren edo pertinentziaren teoria

Autore hauek, ikuspegi pragmatikoan oin harturik, ironia gertakaria deskribatu eta azaltzen aritu dira.

Baldin eta komunikazioa kodetze-deskodetze prozesu bat balitz, zeinahi testuk, kontrako adierazgarririk ez bada behintzat, esanahi literala edo hitzez hitzezkoa igorriko luke. Ondorioz, Semantika aski litzateke hitzez hitzeko esanahi horien azterketa egiteko. Nola liteke, ordea, kodetutako adierak ez ezik, estarian geratzen den kodetu gabeko beste hainbat zentzu barreiatzea? Estarian dagoen eduki inplizitu hori norentzakoak inferitu egingo du eta inferitzeko deskodetze prozesutik jasotako informazio hori testuinguru pragmatikoaz duen informazioarekin eta esatariak duen ezaupidearekin uztartuko du.

Komunikazioko gertakari bat interpretatzeko —eta ironia, azken batean, izaera komunikatiboa duen gertakaria da— ezinbestekoa da, autore hauen ustez, inferentziazko eredu bat kontuan izatea. Eta inferentzia horiek gidatzeko pertinentziaren (errelebantziaren) edo esanguratsuenaren hastapena hautatzen dute irizpidetzat, agerian nahiz estarian dagoen eduki hori interpretatzeko irizpidetzat.

Komunikazio ekintza jakinen interpretazio orok pertinentziaren irizpide hori ase behar du, baita komunikazio hori (ironia, kasu) figuratua edo itxurazkoa den adierak osatzen duenean ere: ahaleginik txikienarekin ahalik eta efektu kognitibo gehien erdiesten saiatuko da norentzako. Teoria honen arabera, enuntziatuen ageriko informazioa input gisa erabiliko da testuinguruaren laguntzaz ezkutuan dagoen edukia berreskuratu eta efektu kognitiboak erdiesteko. Horrela, estarian dagoen informazioa edo esatariak inplikatu nahi duen informazioa inferituz, norentzako jabetuko da esatariaren benetako jarreraz; hau da, esatariak enuntziatu hori igortzean zerabilen intentzioaz eta benetan helarazi nahi zuen mezuaz.

Beraz, Sperber eta Wilson (1990) ondorio batera iristen dira: ironia ez da arauaren erabilera desbideratu bat, diskurtsoan dekorazio edo adornu funtzio soila duena; aitzitik, eduki kognitibo oinarrikoa eta funtsezkoa ematen ditu aditzera.

Hauen ustez, esataria ironikoki ari denean, esatari horrek oihartzunezko aipamen (absurdo) bat egiten du, eta oihartzundutako aipamen horrekiko jarrera negatiboa erakusten du. Adibideez baliaturik hobeto azaltzen saiatuko gara:

- Negar-usaira jendea erruz dator, eulia goxora bezala. Bihotza erdibituko zaigula agindu digute eta uste horrek alaitzen die nonbait aurpegia. Nik, berriz, osorik gorde nahi nuke, zimurrik ere gabe ahal balitz, gaurkoz behintzat. Bihar, etzi, datorren astean utziko dut, derrigorrekoa baldin bada, ongi marruska dezaten. Egun jakinak jarri behar lituzkete horretarako. (ZIN: 131.)

Adibidean ikus daitekeenez, besteren aipamena dakar: “bihotza erdibituko zaigula agindu digute”. Besteren aipamen horrekin, garbi dago esataria ez datorrela bat. Baina zerekin ez dator bat aipamenaren edukiarekin edo aipamenarekin berarekin? Esataria ez da ari filma hain hunkigarria den edo ez eztabaidatzen. Esatariak ez du horri buruzko iritzirik ematen; aitzitik, oihartzunezko aipamena bera da iruzkin ironikoaren sortzailea.

Goikoa bezalako iruzkin ironikoei azalpenen bat emateko, Sperber eta Wilson-ek errelebantziaren teoria orokorrean oinarritzen den eta ikertzaileen artean interes berezia sortu duen “erabili-izendatu/aipatu (Uso-Mención)” teoriak garatuko dituzte.

Horren arabera, ironiazko gertakarietan enuntziatua ez da “erabiltzen” errealitateaz hitz egiteko; hau da, *dictum*eko proposiziozko eduki bat aditzera emateko. Ironiazko gertakarietan enuntziatua “aipamen” bezala hartzen da eta ironia aipamen horretaz mintzatzeko eta aipamen horrekiko distantzia bat hartzeko erabiltzen da. Ironia, bada, oihartzunezko aipamenekin erkatuko litzateke; gertuagokoa eta urrutiagokoa izan daitekeen oihartzunarekin, pentsamenduen oihartzun nahiz hitz erreal edo irudimenezkoen oihartzun izan daitekeenarekin.

Esate baterako, ikus ditzagun corpuseko pasarte ironiko hauek:

- Ezkontzak, estatu ederra izan arren, baditu bere atsekabe eta alde txarrak. Zinemak eta liburuek aho batez erakusten digutenez, maiz aurkitzen da senarra bere emaztea “akabatzeko” behar gorrian. Noizik behin, aldatzeko edo, emazteari gertatzen zaio ezbehar hori. (...)

Hirugarren ekitaldia: “Gaizkintzak ez du inor aberasten”, “Berak irekitako zuloan erori zen”, eta abar. Senarrak, gizon saiatua izan arren, saiaturik bada, ezin xehetasun guztiak gogoan eduki. Giltzatxo batekikoa ahaztu zaio oraingoan. Ez du gaizki hartu sorbalda gainean jarri dioten eskua, ezta gehiegi harritu ere. Gu ere ez. Gisa horretako asmakizunek nahitaez pot egin behar dutela erakutsiko ez baligute behin eta berriro, ez lirakeke laster lur gainean geldituko ezkongaiak eta alargunak baizik. (...)

Zaharrago eta ikasiago, Solon zaharrak esan ohi zuen bezala. Eta emazteari besotik helduta bagoaz etxe aldera. (ZIN: 129).

Pasarte hori ezin uka ironikoa ez denik. Ironia hori zertan datzan zehazteak ematen dizkigu, ordea, lanak. Lehenik eta behin, agertu agertzen da ironiazalearen (Mitxelena gure kasuan) itxurazko inozentzia bat senarrak emaztea “akabatzeko” beharrari buruz ari delarik honako hau dioenean: “noizik behin, **aldatzeko edo**, emazteari gertatzen zaio ezbehar hori”.

Inozentzia hori faltsua da, edo behintzat, errealitatearekin eta esatariari buruz dugun ezaupidearekin tupust egiten duena, bien artean aurkakotasun nabarmena dagoelako, eta kontraste horretaz jabetzeak irria sorrarazten dio norentzakoari.

Bestetik, garbi ere dago hitzez hitz dioen hori nahikoa absurdoa edo ilogikoa dela eta, oinarrian, beste zerbait (kontrakoa edo dena) inplikatzeko erabiltzen duela. Hitzez hitzeko irakurketa literala egingo bagenu, ohartuko ginatke esatariaren ustez filmak edo berak igortzen duen mezuak baduela eginkizun edo erakutsi nagusirik: “gisa horretako asmakizunek nahitaez pot egin behar dutela erakustea”, zeren bestela, erakutsi horiek emango ez balizkigute gure gizartean ez litzateke ezkondurik egongo (guztiak hilak izango liratekeelako, nonbait).

Arrazoibide horrek, ordea, garbi dago esatariarentzat ez duela zentzurik, edo behintzat “irrelebantea” edo funtsik gabea dela. Ala, “gisa horretako asmakizunek nahitaez pot egin behar dutela” erakutsi beharra ote dugu gure gizartean ezkongaiak egon daitezen?

Erakutsi hori, bada, hitzez hitz esanguratsutzat eta nahitaezkotzat jotzen duena, erabat irrelebantea edo funtsik gabekoa dela aditzera emateko darabil; hau da, justu kontrakoa aditzera emateko. Esatariak, noski, ez du filmak behin eta berriz ematen duen erakutsiaren beharrik gisa horretako ekintzak ez egiteko, eta horren adibide garbia da dakarren aipamena: “zaharrago eta ikasiago”. Eta are ironikoagoa dena: emazteari besotik hartuta badoa etxera.

Izan ere, hitzez hitz besterik badio ere, garbi dago esataria ez duela film honek batere harritu, ez diola ezer berririk irakatsi: “jakina zegoen horrelako ekintzek huts egingo zutela, zahartzaroak ematen baitu ezaupide hori: zaharrago eta ikasiago”.

- Gogoan daukat nola zioten orduko maisu ikasiek: “Egiazko zinema, zinema hutsa, ixila da berez; ez du hitzaren beharrik. Zinema jator honek, Chaplinenak, aski ditu orain ere zeinuak eta imintzioak, irudi soila, itxurazko edergarri berri horiek jantzi gabe”. Baina Charlot bera, urteekin, hasi zen etsaiagana hurbiltzen. Eta azkenean, nork esan, inor baino berritsuago azaldu zaigu. Zaharra hiltuna izaki, nonbait. (ZIN: 136).

Besteren edo beste pentsamenduren baten oihartzuna edo durundia dakarren aipamenarekin jolas egiten du esatariak, ez baitu proposiziozko eduki bat aditzera emateko erabiltzen; ez baitu errealitateaz mintzatzeko erabiltzen, aipamenaz beraz baliatzen da irria sorrarazteko. Aipamen hori, jatorrizko testuingurutik edo testuinguru idealetik ateratzean, erabat ironiko gerta daiteke, testuinguru errealean norentzakoaren igurikimenekin talka egiten duelako. Jatorrizko testuinguruan seriozki esandakoa dena, testuinguru jakin horretan erabat desegokia edo inkongruentea da eta, ondorioz, irribarrea sortzeko balio du. Eta desegokia izan daiteke, ez beti faltsua delako, irrelebantea delako ere bai. Oihartzunezko aipamena hori bera da —ez horrek aditzera ematen duen proposiziozko edukia— beraz, komunikazioko testuinguru jakin horretan ironiko.

- Gauza berri bat badu horratik film honek, berri eta apaingarria; Lana Turner'en ilea, horizta izana, beltza da oraingoan. Badakizue beraz, film hau ikustera bazoazte, ez zaretela esku hutsik etxeratuko. Clark Gable-ren kaskoa —ai, gurearen gisa!— gero eta urdinago ageri dela ere esango nizueke, baina hori badakizue honez gero, nik bezain ongi. (ZIN: 141).

Film baten kalitatea neurtzeko irizpidea aktore baten ilearen kolore-aldaketa bada, ezin film ikusgarria izan. Filmak dakarren gauza berritza Lana Turner'en ilearen kolore-aldaketa aipatze hutsak talka egiten du norentzakoaren espektatiba edo igurikimenekin, eta harridura eta irria sorrarazten du. Filmaren berrikuntzak aipatzean aktorearen ile-kolore aldaketaz mintzatzea erabat absurdoa eta desegokia da, eta egokitasun falta hori ez dator esan duena faltsua delako, ezpada, inolako funtsik edo errelebantziarik ez duelako.

Adibideek erakusten digutenez, ironiazko oihartzun-enuntziatuen kasuan, esatariak beste enuntziaturen bateko edukira igortzen gaitu eduki hori testuinguru jakin honetara ekarriz, itxuraldatu, puztu edo handizkatzeko, edo burla-irriz eraldatzeko.

Sperber eta Wilson (1981), bada, uste dute ironia orotan ez dela esaten denaren aurkakoa aditzera ematen baizik eta aurkezten den esanahia da testuinguru jakin horretan batere egokia ez dena (ridikulua ere bada). Eta desegokia den enuntziatu horrek beste enuntziatio bat gogora ekartzen du zinetan esatariak enuntziatuan esaten den horren egiarekin konpromisorik hartuko ez lukeen.

Honenbestez, teoria honen arabera, enuntziatuak, hitzez hitz (literalki) hartuta, zinez eta seriozki esandako enuntziatio bat dakar gogora. Alabaina, enuntziatu horren intentzio ironikoak ez du esataria proposiziozko edukiarri buruzko sinesmenen bat adierazten ari dela

interpretatzera behartzen. Aitzitik, enuntziatu horrekin enuntziatuari berari buruzko sinesmenen bat adierazten du, baina ez enuntziatu horren proposiziozko edukiari buruzko jarrera, uste edo sinesmena.

Beraz, enuntziatu horren proposiziozko eduki horretatik bereizten da: ez du *dictum* horri buruzko jarrerarik aditzera emango, erabat faltsua delako edo batere garrantzirik ez duelako, goiko adibideetan ikusi dugun bezala. Bestela esan, enuntziatu ironikoek esatariaren jarrera azaltzen dute, baina ez enuntziatuaren proposiziozko edukiarekiko jarrera (enuntziatu horrek erreferentzia egiten dion errealitatearekikoa), enuntziatu horrekikoa baizik. Bi enuntziatu mota ditugu bada: (edo hobeto bi jarrera mota: enuntziatuaren eduki proposiziozkoari buruzko jarrera eta enuntziatuari berari buruzkoa).

Honenbestez, batzuetan, oihartzunezko aipamenak dakarren edukiarekin ez dator bat:

- Egile-zuzentzaileek ez dituzte inolaz ere begi txarrez ikusten juduen ahaleginak. Besterik baino gehiago, badirudi eginahal izugarri horien berria zabaldu nahi dutela mundu guztian barrena. Gerok ere—zerbait jakiteko zaleturik geunden aspaldian—ez ditugu gogo gaiztoz ikusi. Ikusgarria da, eta harrigarria. Munduaren lau kantoietatik bildutako jende horrek jaso duen lurra eta herriak, gainera, orain zenbaitek hain gorroto duten Europaren antza eta eitea darama.

Gure haurtzaroko judu maltzur haiek nola ari ote zaizkigu kristau itxura hartzen? Juduak berak gogokoago ditugulako ala juduen ingurukoez aspertuxe gaudelako? (ZIN: 159-160) .

“Haurtzaroko judu maltzur haiek” garbi dago esatariak badio ere, ez dela bere ikuspegiaren isla, besteren enuntziatzaile baizik. Besteren aipuen oihartzuna dakar, beste ikuspegi baten enuntziatzaile da soilik esataria, baina bere ikuspegitik erabat aldentzen da, oraingo honetan ez baitu uste “judu horiek maltzurak” direnik. Erabat faltsua da beraz.

Beste hainbatetan, ordea, oihartzunezko aipamenarekin ez dator bat testuinguru jakin horretan desegokia eta inkongruentea delako:

- Axal-axalekoa da, inon axalekorik izan bada. Irudi-andana luze honek prozesioa dirudi, beste batean esan nuen bezala, edo moda-erakusketa. Frantziako Historiaren itsaso zabalean murgildu nahi lukeenak ez du apar eta bitsa baizik ikusiko. Gehienez ere, Luis XIV eta XV garrenek izan zituzten zenbait amoranteren izena —guztiak aipatzea lan luzeegia bailitzateke— eta gezurrezko arpegia —egiazkoa baino panpoxagoa, beharbada— ikasiko du edo gogora ekarriko. Badaiteke ere amorante-saila gure artean zertxobait moarratua [inausita, kimatuta] agertzea, alde gaitzera makur ez gaitezen. (ZIN: 178).

“Guztiak aipatzea lan luzeegia bailitzateke” horrek ez ote dakar eskerrak emateko erabiltzen den formulen oihartzuna? Edo “zenbait libururen izena —guztiak aipatzea lan luzeegia bailitzateke—“ egituraren oihartzuna? Gure ustez bai.

Enuntziatu hori oihartzunezko aipamena balitz bezala txertatzen du, ziurrenik bestelako testuinguru batean (liburuarena kasu) arras egoki datorrena, baina erregearen amoranteei erantsirik agertzea ez du norentzakoak espero; esatari-norentzakoek batean duten informazio pragmatikoaren arabera (kultura ezaupidearen eta kultura horretako heziketa, ohitura, ideologia eta barneko “arau” ikusezin horien arabera) ez da egokia. Heziketa kultural ideologiko horrekin erkatuz inkongruentea eta desegokia da. Baina horrek ez du esan nahi kasu honetan esan duenaren kontrako adiera bat eman nahi izan duenik aditzera; ez du semantikaren araberako aurkakotasun ironikoa aditzera ematen. Esatariak horixe esan nahi izan du, baina testuinguru honetan desegokia da eta desegokia delako gertatzen zaio harrigarri eta ustekabeko norentzakoari.

Ironian gehiago balio du, beraz, esan gabe doanak hitzez hitz esandakoak baino; ironiaren interpretazioak izan ere eskakizun du norentzakoak balizko testuinguru jakinak kontrolpean izatea, horietatik pertinentea edo esanguratsuen den edukia kontuan izanaz interpretatzeko. Ondorioz, ironiazko enuntziatuen interpretazioak inferentziazko izaera du, horiez baliaturik eraikitzen baitira testuinguruen baitako implikaturak.

Garbi dago, ordea, informazio ironiko hori oso dela irristakorra; funtsean, ez dago — eta ezin egon daiteke— interpretazio bat eta bakarra; balizko aukera guztietatik une horretan norentzakoarentzat esanguratsuen edo errelebantea dena hautatzen da:

La fragilidad de que puede adolecer, sin embargo, este flujo de información irónica, a pesar de que el receptor sea despierto y avezado, hace que indefectiblemente la detección de las figuraciones caiga en el terreno de la probabilidad y lo opinable, pues la opción de la ironía no representa, al fin y al cabo, más que una interpretación del texto entre muchas posibles. (Torres Sánchez 1999: 35).

Norentzakoak ironiaren interpretazio ahalik eta egokiena egin dezan, maiz esatariak, argigarri modura, pistak edo adierazgarriak igortzen dizkio eta eginkizun komunikatibo horretan badute zeresanik enuntziatu parentetikoek ere, nahiz eta nagusiki enuntziatu parentetikoa ironia aditzera emateko baliabide gertatu.

### 9.7.3. Enuntziatu parentetikoa, esatariaren intentzio ironikoaren ispilu

Enuntziatu parentetikoaren komunikazio-eginkizuna aztertzen ari garen une honetan, ezin ditzakegu alde batera utzi intentzio ironikoa duten enuntziatu parentetikoak, ez eta berauen funtzio komunikatiboa ere. Hau da, enuntziatu parentetikoa esatariaren ikuspegiaren eta jarreraren zuzeneko isla izanik, zergatik eta zein efektu sortzeko asmotan jotzen duen esatariak zeharkako jokamolde honetara, esan beharrekoa zuzen-zuzenean esan gabe.

Eginkizun komunikatiboa hurrengo atalean aztertuko badugu ere, frogatzen dezagun lehenik enuntziatu parentetikoak izan badirela esatariaren intentzio ironikoaren ispilu. Atal honetan, bada, ikusiko dugu esatariak, maiz aski, enuntziatu ironikoz zirtatzen duela bere diskurtsoa eta enuntziatu ironiko horiek har dezaketela parentetikoaren egitura sintaktiko diskurtsiboa ere, goiko hainbat adibidek erakutsi baitugu Mitxelenak ironia agertzeko ez duela ezinbestean enuntziatu parentetikoetara jo beharrik.

Enuntziatu parentetikoak esatariaren intentzio ironikoaren ispilu direla diogunean, ordea, bi alderdi azpimarratu nahi genituzke. Batetik, parentetikoaren egitura sintaktiko-diskurtsiboa hautatzen duten enuntziatu ironikoak izango ditugu interesgune. Bestetik, parentetikoaren egitura hautatzen ez badute ere, ironiazko intentzioa duten enuntziatuen interpretazio ironikoan zuzenean eragiten dutenak; izan ere, pasarte ironikoen ahalik eta interpretaziorik egokiena egiteko enuntziatu parentetikoak lagungarri izan daitezkeela frogatzen saiatuko gara. Hau da, parentetikoa bera enuntziatu ironiko ez izan arren, kotestuan dagoen enuntziatu ironikoa interpretatzen laguntzeko testutik bertatik norentzakoari bidaltzen dizkion arrasto edo keinu adierazgarriak izan daitezkeela ikusiko dugu.

#### 9.7.3.1. PARENTETIKOAREN EGITURAPEAN AGERTZEN DIREN ENUNTZIATU IRONIKOAK

Parentetikoaren egitura, tesian definitu eta frogatzen dihardugunari jarraituz, bi enuntziaturen arteko gurutzaketa sintaktiko diskurtsozkoa da: bi diskurtso-zati ditugu, beraz, jokoan (E1 oinarrizkoa, eta bertan tartekatzen den E2 enuntziatu parentetikoa), eta enuntziatu parentetikoak, komunikazio-trukean hertsiki uztartuta dauden koordinatu nagusiei egiten die erreferentzia: **esatariari** (modalizazio eta enuntziatio-mailakoak nahiz argudiatzearen garapenean eragiten dutenak, esaterako), **norentzakoari** (esatari-norentzakoaren arteko interakziozko harremana bideratzeko balio dutenak) eta **testuinguruari** (esatari-

norentzakoek batean duten ezaupide-sinesmenek osatzen duten informazio pragmatikoaren errota martxan jartzeko baliagarri direnak). Beraz, *dictumari* edo proposiziozko egiturari baino gehiago eragiten dio makroegiturari.

Baliagarri izan ote daitezke esatariaren intentzio ironikoa aditzera emateko ere? Garbi dago, izan ere, gertakari bat ironikotzat jotzeko esatariak intentzio ironikoa izatea ezinbestekoa dela. Azken batean, komunikazioan efektu jakin bat erdiesteko asmoz, esatariak berariaz sortu duen enuntziatua da. Baina garbi gelditu da, era berean, intentzio ironikoan garrantzia berez esan gabe doanak edo inplikatzan duenak duela eta ez hainbeste hitzez hitz esandakoak. Aztergai ditugun enuntziatu hauek, bada, “zeharkako izaera” edo dute, esatariak ez baitu esan nahi duen hori zuzenean hitzez hitz esaten, zeharka baizik. Eragingarria den esanahia maila xumean edo handiagoan isilean dagoen informazioa da; hau da, hitzez hitz esandakotik harago inplikatu nahi dena. Hortik “berreraiki” beharko du norentzakoak esanguratsuen edo errelebantea den zentzua.

Beraz, garbi dago ezin gaitzkeela ironiaren gertakaria aztertzeraz hurbildu ikuspegi pragmatiko batetik ez bada; izan ere, norentzakoak, intentzioz ironikoa den enuntziatua esatariak nahi bezala interpretatzeko, hizkuntzazko elementuak hizkuntzaz kanpokoekin uztarturik aztertu behar ditu, bai behintzat, esatariak komunikazioan erdietsi nahi duen efektua erdietsiko badu. Azken batean, komunikatutakoa esandakoaren eta inplikaturakoaren arteko batuketa da.

Pragmatikaren ikuspuntutik ironia mugatzeko egindako ahaleginak zaizkigu interesatzen. Horien ekarriak, gehiago edo gutxiago, parentetikoaren egiturapean agertzen den enuntziatu ironikoa aztertzeke ere baliagarri zaizkigu eta. Izan ere, guri sortzen zaigun galdera hau da: nola uztar daiteke parentetikoaren izaera (eta parentetikotasunarekin aditzera eman ohi den informazio-mota ere hortxe sartuko genuke) eta komunikazioan duen eginkizuna ironiaren izaera eta eginkizun komunikatiboarekin?

Enuntziatu parentetikoak, tesian zehar behin eta berriz azalduz joan garenaz, polifoniazko gertakariaren adierazgarri nagusia da. Egitura honi esker, esatariaren beraren bikoizketa hori nabarmendu egiten da; esatariak, izan ere, bere ikuspuntua ez ezik besterena ere ekar dezake diskurtsora, eta ironiazko intentziorik ez duten enuntziatu parentetikoetan bikoizketa hori oinarritzko enuntziatuarekin (E1ekin) erkatuz gauzatzen da. Enuntziatu ironikoek, berriz, beste enuntziatuekin erkatzeke zain egon gabe, enuntziatu beraren baitan agertzen dute bikoizketa, edo enuntziatu beraren baitan biltzen dira ahots ezberdinak. Holakoetan esatariak bere iritzi eta ikuspegiarekin bat ez datorren enuntziatzaile bati dei



egiten dio (edo behintzat gogora ekartzen du). Nola uztar daiteke, bada, enuntziatu parentetikoak esatariaren ikuspegiaren isla izatea enuntziatu ironikoak besteren ikuspegiaren oihartzunezko aipamen izatearekin?

Itxura batean, enuntziatu ironikoek igortzen duten mezuak ez du esatariaren jarrera islatzen, beste balizko edo benetako enuntziatzaile batena baizik. Itxura batean, ordea; itxura engainagarri horren atzean dagoena inferituz gero ohartuko gara esataria besteren oihartzun-aipamenaz baliatzen dela beragandik aldendu eta honi uko eginaz bere benetako jarrera inplikatzeko.

Beraz, esatariaren ikuspegiaren isla izan ohi den enuntziatu parentetikoaren intentzio ironikoz erabiltzen denean, esan ote liteke esatariaren beraren ahotsa ez denik? Edo esataria besteren oihartzunezko aipamenaz baliatzen da bere benetako barne-ahotsa islatzeko?

Saia gaitzen galderari azalpenen bat ematen corpuseko adibideez baliaturik:

- Garoa berbera —antzeko zerbait baizik— ez delarik ere. Huts bat baitu hirugarren agerraldi eder honek, bat bakarra baina larria, jatorrizko pekatuak bezala edozein izaera garbi kutsa dezakeena: hobetua izatea, azalean (barrengo bigarren azalean) dioenez. Hitzak aldaturik, bigarren argitaraldia (**hobetua hura ere**) hartu dute gidari, lehenbizikoa, Agirrerena berarena, hartu beharrean. (LIB I: 79). (Letrakera lodia Mitxelenarena berarena da).

Enuntziatu parentetikoaren egiturapean agertzen den “hobetua hura ere” enuntziatua, ironiazko enuntziatua da eta gainera, testugileak berak (esatariak berak) berariaz markatzen duena. Berrargitaraldiari egiten dio erreferentzia esatariak, baina esatariak ematen duen informazio horrek esatariaren beraren ikuspegia islatzen ote du? Ez ote da, bestek (argitaratzaileek) azalean, barrengo bigarren azalean, ematen duten iritziaren enuntziatzaile? Garbi dago, esatariaren beraren ahotsa bada ere, ez dela hau iritzi horren erantzule egiten (grafikoki, aipu-markez adierazteak indartu egiten du uste-iritzi hori), ezpada iritzi honekin inplikatu nahi duenarena. Eta esan, hitzez hitz, hala badio ere, enuntziatu horrekin inplikatu edo aditzera eman nahi duena justu bestelako zerbait da, justu kontrakoa den zerbait. Garbi dago esatariari, Mitxelenari kasu honetan, ez zaiola “hobetua denik” iruditzen, ironikoki darabilela.

Eta horretaz jabetzeko ez dago Mitxelenak berrargitarapenetako eraldaketei buruz duen iritzia ezagutu besterik:

- Textuak dauden daudenean aldatu dira, ohi diren hobekuntzarik gabe. (LIB I: 130)

- “Hondar-hondarreraino bagatoz, ez du hemen zer ikusirik ez gramatikak ez estetikak. Etika auzia dugu. Irakurgai hori ez da sasikoa, badu bere jabea. Eta ezin alda daiteke jabearen baimenik gabe, zenbait huskeriatan —grafian, huts nabarietan— izan ezik. Are gehiago egilea— nolakoa gero!— hilik dagoenean.” (LIB I: 79).

Informazio pragmatikoak erakusten digu, beraz, enuntziatu parentetiko horretan esatariaren beraren ahotsa besteren enuntziatzaile dela, erabat kontra dagoen iritzi baten enuntziatzaile, nahiz eta hitzez hitz halakorik ez esan.

Enuntziatu parentetiko hori ironikoki darabilela jabetzeko, gainera, ez dugu pasartean gehiago sakondu besterik. Ohartuko gara “hobetze” hitza ia beti darabilela ironikoki eta gainera, zalantzarik egon ez dadin grafikoki bereizten du; esatariak berak “urruntze markak” erabiltzen ditu:

- Hitzaurregileak erakutsi nahi liguke ez dela huts hori oharkabez egin, ongi jakinaren gainean baizik. Ez omen zuen alegia begi onez ikusi zenbaitek orduan ere *hobetze* hori. Oraingo jokabidea zuritu nahi luke, gainera. Baina ez du agian lixiba behar adina jo. (LIB I: 79).

- Oraingo agerraldi honek, gainera, *hobetua* ez ezik, *hobeagotua* deitzea merezi luke. Ez ditugu, izan ere, aurrerakada makalak egin 30 urte hauetan eta ongi irabazia dugu gure aldetik zerbait hobetzeko eskubidea. (LIB I: 80).

Pasarte osoa da ironikoa, nahiz eta oraingoan enuntziatu ironikoa islatzeko parentetikoaren egitura ez erabili. Jarraian datozen pasarteek hari berari heltzen diote, baina oraingoan ironiaren ispilu enuntziatu parentetikoak izango dira:

- Lehen agerralditik bigarrenera, besteak beste, *gauza gauz* bihurtu zen, *eleiza eleiz* eta *neskatxa neskatz*. Bigarrenetik oraingora, a batzu kentzea gutxi iritzirik —eskuak ausartzen ari zaizkigu eta—, esaldi osoak agertzen dira mozturik. (LIB I: 80)

Esataria, noski, ironikoki ari da eta “hobetze” hori zein neurritaraino den desegokia adierazteko, hobetu beharraren hobetu beharrez argitaratzaileak egiten dituen gramatikazko akatsak aipatzen ditu: hobetzen ari delakoan, zuzen daudenak oker jartzen ari baita.

Enuntziatu parentetikoak ironia hori indartu besterik ez du egingo, baita jarraian datorren enuntziatu parentetikoak ere:

- Inoiz edo behin —**gero eta hobeto gabiltzala**— egiazko *Garoa*-ren oroitzapena bera galduko balitz ere (zer esango lukete orduan kritiko bihurriek?), oraingo inausaldian baztertu diren abarrak jaso nahi genituzke Egan-en. (LIB I: 80).

Enuntziatu parentetikoari esker, goiko ironiari jarraipena ematen dio esatariak. Esatariak jakin badaki “gero eta hobeto gabiltzala” dioenean justu kontrakoa aditzera eman nahi duela, eta norentzakoa ere jabetuko dela intentzio horretaz. Jarraian datorren pasartean ere argigarri modura, adierazgarri batzuk bidaltzen dizkio norentzakoari:

- Condorcet, Comte, Spencer eta horrelakoen progresismua malda behera omen dabil mundu guzian; zeharo lur jota dagoela diotenik ere badira. Ez, horratik, mundu guztian. Bizi da oraindik txoko batean, eta ez dago burua makurtzeko. Euskaldunok, noski, inor baino hobeak eta trebeagoak gara edozein aldetatik: ez naiz ni uste kontsolagarri hori inori kentzen saiatuko. Baina ez daude horrenbestez euskaldun guztiak maila berean. Nork berdin gintzake gaurko euskaldun argi eta aurreratuok orain berrogeitamar urtekoekin? Orain berrogeitamar urtekoak, berriz, mutilak ziren orain ehun urtekoen ondoan. Ikaskizun gutxi utzi digute aurrekoek, eta utzi diguten gutxia ere aise zuzen eta hobe dezakeguna. (LIB I: 81).

Bere uste-iritziak argi erakusten digute, ordea, Mitxelena beti ari zela aldarrikatzen orainaren sustraiak lehenean daudela. Garbi adierazten du bera ez datorrela bat “uste kontsolagarri horrekin”, justu bestelakoa dela bere iritzia: “ez naiz ni uste kontsolagarri hori inori kentzen saiatuko” edota jakin badaki islatu duen besteren ikuspegi hori ez dela benetakoa; irudimenezkoa edo ametsetakoa da:

- **Amets xuri-gorri** horrek baditu, haatik, zenbait alde txar. **Ez dute gaizki parre egin behar ondorengoek gure bizkarretik!** (LIB I: 81).

Ironiazko gertakaria, irudipenezko esanahia, *amets xuri-gorriarekin* parekatzen du. Beraz, garbi dago ez dela berak benetan aditzera eman nahi duena; berak guztiz kontrakoa dena inplikatu nahi du, hitzez hitz esandakotik harago dagoen bere ikuspegia; besteren oihartzunezko aipamenak baliatzen ditu horrekin erabat kontra dagoen iritzi eta jarrera bat

inplikatzeko. Inplikatura horietaz jabetzean ohartuko gara esatariak aditzera eman nahi izan duen errealitateaz; ohartuko gara esatariaren beraren isla den barneko ahots eta ikuspegiaz. Eta horixe da, hain zuzen, ironiaren muina.

Norentzakoari, esatariak bidali nahi duen mezuaz jabetzeko, biek batean duten informazio pragmatikoak laguntzen dio. Norentzakoak badaki, esataria “egilearen jatorrizko hitzak eraldatzearen edo “hobetzearen” guztiz kontrakoa dela, eta berrargitaratzean jatorrizko lanak diren-direnean berrargitaratu behar direla; hori baita gizalegez jokatzeara<sup>307</sup>.

- Ez ziezaiokeen orduan euskaldun berri batek begiramen handirik ekarri euskaldun jator bati, hots, euskaraz debekurik gabe mintzatzen denari. Jakina eta ezaguna baitzen euskaldun jatorrek “hobetu beharreko” hizkuntza zarpail batean egiten zutela. Ez dago Txomin Agirrerri bertsolarien jardunak ematen zion tristuraz oroitu besterik edota Campionen harako txantxetako hura: “Los vascos son unos burros que no saben lo que se vascuencean”. (LIB I: 116-117).

Ironia, bada, eragingarria da norentzakoaren emozioetan eragitea lortzen badu, eta beraz, etika, morala eta gure uste-sinesmenekin hertsiki uztartuta dauden auzietan maiz darabil esatariak. Esaterako, egilearen hitzak aldatuz berrargitaratze bat egitea ez du etikotzat jotzen eta horrek eragiten dizkio kritikarik zorrotz eta garratzenak, ironiaren bidez aditzera ematen dituenak. Ez dugu, bada, horietan hitzez hitz esandakoa hartu behar kontuan, horrek iradokitzen edo inplikitzen duena baizik, guztiz bestelakoa (kontrakoa, edo desberdina) dena hain zuzen.

Adibideek erakusten digute enuntziatu parentetikoetan, oro har, esatariaren beraren ahotsa agertzen dela, baita horretarako (bere iritzi eta ikuspegia aditzera emateko) besteren enuntziatzaile izan behar badu ere. Hau da, esatariaren beraren ahotsa ager daitekeela besteren aipamenezko oihartzuna tartekaturik ere, baldin eta besteren ikuspegi horren justu kontrakoa dena edo erabat urruntzen dena inplikatu edo aditzera eman nahi badu behintzat. Funtsean, intentzio osoz egin duen erabilera ironikoaz jabetu behar.

Alde horretatik bat gatoz Muechke-rekin (1969:5) ironia “benetan esan ez duena esateko artea dela” dioenean. Honentzat ez da enuntziaturik edo egoerarik bere baitan ironikoa denik; ironikoa izango da ematen zaion interpretazioaren arabera. Muechkerentzat ironia ezaugarritzeko ezinbestekoak diren hiru elementuak honako hauek dira:

---

<sup>307</sup>Mitxelenak kritika nola ulertzen zuen jakin nahi duenak jo beza Perez Gazteluren lanera (1995b), lan horretan ongi baino hobeto azaltzen baitu Mitxelenak kritikaz duen ikusmoldea.

- Batetik, ezinbestekoa da ironiazko enuntziatuan bi maila bereiztea: beheko maila eta goikoa. Beheko maila, ironia jasan duenak hautematen duen egoera da, ironiazaleak era engainagarrian aurkezten duena. Goiko maila ironiazaleari berari agertzen zaion egoera litzateke.
- Bi mailen arteko oposizioa edo kontrastea.
- Inozentzia faltsua, gezurrezkoa edo alegiazkoa, *dissimulatioren* adigai klasikoari egokitzen zaiona.

Inozentzia faltsu hori maiz darabil esatariak enuntziatu parentetikoaren intentzio ironikoaren ispilu denean:

- Homerogandik hasi eta irakurleaganaino, **luzexkoa zelako edo**, bi gauza gelditu dira bidean, nabarmen xamarrek biak, eta ez dira inon ageri: poemaren edertasuna eta grazia batetik, eta euskara bestetik (LIB I: 68) .

Garbi dago ez dela hori gertatu Homerogandik hasi eta irakurleaganainoko bidea luzea zelako. Enuntziatu parentetiko horretan bada, esatariaren inozentzia faltsu hori nabarmenduko litzateke.

Beste horrenbeste esan dezakegu ondorengo adibide hauetaz ere:

- Amets bideetan barrena ez gaituzte eramango, **txorabia ez gaitezen**; erakutsi, ordea, erakutsiko dizkigute diruak eta kameraren begi erneak erauts ditzakeenak oro: urrutiko lurralde ederrak kolore bizitan eta oihal zabalagoan. (ZIN: 181).

- Eta ez da, dirudienez, zerurik ez lurrik ikaratuko garaiz ohar gaitezen gure azken orduaz. Aski izango omen da, diotenez, norbaitek —ez dakigu nork— botoi kaxkar bat estutzea edo urrutizkin bat eskuetan hartzea. Urrutizkin polit horren erretratoak ere, **lasaiago bizi gaitezen noski**, zabaldu dituzte batzuek. Beste aldekoek ez dute txintik atera, **baina ez dira botoi-faltan egongo**. (ZIN: 194).

Goiko adibide horietan ere atzeman daiteke esatariak, intentzio osoz, itxurazko inozentzia bat ematen duela aditzera eta itxurazko inozentzia hori norentzakoak esatariak berak errealitateaz duen ikuspegiarekin erkatzen duenean, orduan sortzen zaio norentzakoari konplizitatezko irribarrea:

Jokabide ironiko horrek, gainera, urruntze handia adierazten du esatariaren benetako ikuspegiaren eta besteren oihartzunezko aipamenak dakarren ikusmoldearen artean. Esatariaren bikoizketa, enuntziatu parentetikoetan, oro har, oinarriko enuntziatuarekin harremanetan gertatzen bada ere, parentetikoaren egitura hautatzen duten enuntziatu ironikoek bere baitan agertzen dute polifoniazko gertakaria; hau da, esatariaren beraren bikoizketa. Garbi dago “lasaiago bizi gaitezen” hori besteren aipamenezko oihartzun dela, bestelako testuinguru batean “argudio egokia” izan zitekeena, baina testuinguru jakin honetan desegoki gertatzen dena, irria sorrarazteraino desegoki; “ridikulua” izateraino desegoki, alegia.

Ironia, bada, esatariari munduaren ikuspegi bat islatzeko bitarteko bihurtzen zaio; bitarteko, edo arma aldi berean kritiko eta etsipenezko bat. Munduaren ikuspegi hori itxurazkoaren eta benetakoaren arteko kontrastean irudikatzen du; hau da, ironiari esker, itxuraren eta errealitatearen arteko kontrastea nabarmendu egiten da. Ikus dezagun corpuseko adibide hauetan:

- Esango dizuet zer den film hori, ikusi gabe ere lasai geldi zaitetzen. Badira nonbait — **Euskalerrian edo**— euskaldun izeneko gizon-emakume batzuek. Hemen, egia esan, herri koxkor batekoak bakarrik ikusten ditugu, Elantxobekoak, baina bestek ez dute alde handirik izango. Euskaldunik euskaldunenak direlakoan aukeratuko ahal zituzten (ZIN: 132).
- Esan behar dizuet horratik, horrako arrantzale horietaz susmo txarra eginda nagoela. Gaizki bizi direla, bai, baina... Eguraldi ona denean, itsas-ertzeko arkaitz-mutur batera joango zaizkizu taldeka, galtzak zuri eta gerrikoa gorri. Han egoten dira zai, nor agertuko, txistulari direlako batzu, arrantzaleak noski hauek ere. Hasiko zaizkizu txistulariak soinua jotzen, eta besteak dantzan, “**espatadantxan**”, eguerdialdean, izerditan blai, herrira itzuli arte. Eseriko dira orduan kai-ondoan dauden mahai luzeetan, nork bere botila ardoa aurrean, eta zintzurra urratu beharrean ekingo diote kantuari: “Antero’n txamarrotia —**txikarren bigotia**— Arrese’k ei dauko...” Esandakoak, eguneroko zereginak dira. (ZIN: 132).
- Eramankizunak ere badituztela esaten digute, eta guk sinetsi egin behar. Itsaso delako norbaitekin dabilta beti zirika, atunbila, eta itsaso hori bilduragarria omen da eta maltzurra. Leon-kastiloan bezala da: arrantzaleak oraingoan atuna jan, eta hurrengoan atunak arrantzalea. Baina kantari eta dantzari —**eta zahatoari eragiten**— ari direino ez dira, dirudienez, gehiegi oroitzen ez Itsasoaz ez etxe-gaineko hipotekaz. (ZIN: 132-133).

Ironizatzaillea, holakoetan, pertsona xalo, bakun eta inozo bezala agertzen da, eta bera inguratzen dutenen ideiak eta hitzarmenak “hipokresiaz” salatzen, jakinarazten edo kontatzen ditu. Ikusi bestela Celari buruzko iruzkin kritikoari dagozkion pasarte hauek ere:

- Egonaldi hori, laburxkoa izanagatik, aski eta gehiegi izan du “llaneroen”— hango zabaldietako gizon-emakumeen—hizkera ikasi eta barra barra egiteko. Ez da harritzeko. Jainkoak, denok dakigunez, dohai bereziz argitzen eta zorrozten ditu artista garaien gogoak. Horrelaxe, nahikoa izan zuen Víctor Hugok hamabostalditxo bat Pasaian euskaraz ederki mintzatzeko. Hor ikasi zuen noski etxeko jauna “le labourer de la montagne” dela frantsesez. Egia ere da horratik inguruko baserritarrek, berberak harri eta belarri eginik aitortzen digunez, ez ziotela haren euskal saioei halako harrera ona egiten —parre ere egiten omen zioten lotsagabe haiek—, baina ez zen horregatik asko larritu. (LIB I: 51-52).

Pasarte hori ia bere osotasunean da ironikoa, esatariak hitzez hitz esandako horrekin justu kontrakoa inplikatzeko baitu: ez da aski egonaldi laburxko bat hizkuntza bat ikasi eta barra-barra egiteko, ezta ikasle hori Cela bezain azkarra eta “Jainkoaren dohai bereziz argitu eta zorrozitutako gogo duen artista<sup>308</sup>” izanik ere. ikusi besterik ez dago kritika horretan bertan dioena:

- Celak ez du hizkuntza berririk asmatu: ez da edozein horretarako gai. Venezuelako “beterritarren” hizkera eman nahi izan digu, eta zehazkiro eman. Baina beterritarrak hor daude, haien hizkuntza ere bai, eta ezin eragotzi nahi duenari hizkera horrekin Celaren liburukoa berdintzea. Eta alde ederra omen dago, dakitenek diotenez, batetik bestera. (LIB I: 52).

Beraz, ez du zehazkiro ematerik lortu, hala ari balitz bezala jokatu arren. Garbi dago, bada, ironiazko jokabide honekin salaketa eta kritika gogorra egiten diola Cela bezalako idazle zuhurrari, eta enuntziatu parentetikoak, besteren oihartzuna dakarren aipamenaz baliaturik (“parre ere egiten omen zioten lotsagabe haiek”) ironia hori areagotu besterik ez du

<sup>308</sup>“Jainkoagandikako dohaia” maiz darabil joko ironikoa egiteko:

“Beste esankizunik ere badago, larriagorik behar bada. Ulysseri—zergatik, ordea?— halako Luzifer-aitrexo bat erantsi diote, edo Prometheu-airea, Greziatik aldegin nahi ez badugu. “Ulysseren ibilerek— adierazi nahi digute ia irudi bakoitzean—erakusten digutena hauxe da: jainko etsaiei, Izadiaren indar itsuei alegia, gogor egitean dago gizonaren handitasuna. Honela, bere bizi laburra, beldur eta kupidarik gabe, galbidean ipintzen duelarik, jasotzen du bere burua, hilkorra izan arren jainko hilezkorren gainetik”. Eta atertu gabe aditzera ematen diguten irakaspen honetaz jabetu ez bagina ere —ez digu guztioi argitasun berbera eman Jainkoak: zinemagile izango ginatke bestela zinema-ikusle izan beharrean—, astiro azaltzen digute azkenean “De rerum natura”-tik hartua dirudien hitzalditxo baten bidez”. (ZIN:147). (Lodia gurea da)

egiten. Nolabait ere, hamabostalditxo batean ikasitako hizkuntza bat (zeinahi hizkuntza delarik ere) barra-barra egiteko gaitasuna oso kolokan jartzen du.

Goiko pasarte horiek, bada, oso-osorik dira ironiko, eta enuntziatu parentetikoek esatariaren intentzio ironikoa indartu besterik ez dute egingo. Pasarte horietan ironiaren hainbat adierazgarri ikus daitezke:

- 1) Ironizatzailearen aldetik itxurazko inozentzia islatuko duen elementuak nabarmen daitezke. Ikusi besterik ez dago: “Badira nonbait —Euskalerrian edo— euskaldun izeneko gizon-emakume batzuek” dioenean edota “Itsaso delako norbaitekin dabilta beti zirika, atunbila” dioenean argi eta garbi dago itxurazko inozentzia bat ari dela aditzera ematen.
- 2) Itxurazkoaren eta errealitatearen arteko kontrastea: Esatariak, bada, errealitatearen benetako ezagutzarik ez balu bezala, itxurazko zerbait agertzen du. Errealitatea benetan ezagutzen ez duelako itxura egiten du. Norentzakoak itxurazko horrek engainatua izan dadin uzten du eta ez du ezagutzen itxura horren azpian zer errealitate ezkututzen den.
- 3) Norentzakoa nahiz hartzaile oro dibertitzeko, komikoa edo barregarria den elementuak tartekatzen ditu: “espatadantxan”, “Antero’n txamarrotia — txikarren bigotia— Arrese’k ei dauko”, etab. Honek (irri)barre egingo du intentziosko kontrakotasuna atzematen duenean.
- 4) Urruntze-jarrerak ironiazalea darama errealitatea askatasunez, nagusitasun- eta jostaketa-kutsuz azaltzera.

Honenbestez, ikusia dugu hainbatetan esatariak bere intentzio ironikoa aditzera emateko parentetikoaren egitura hautatzen duela. Horrela jokaturik, esatariaren bikoizketa areagotu egiten da: enuntziatu parentetikoetan oro har, bikoiztasuna bi enuntziatuen arteko harremanean ikusten bada ere, enuntziatu parentetiko hori intentzio ironikoz gauzatzen denean, enuntziatu parentetikoan bertan atzematen da esatariaren bikoizketa.

Bikoizketa edo ahots ugariren agerpena nabarmenagoa da, beraz, intentzio ironikoz gauzatutako enuntziatu parentetikoetan. Irakurketa ironikoari atea irekitzen dizkien enuntziatu parentetikoetan esatariak besteren oihartzunezko aipamena dakar gogora, aipamen horren kontrako jarrera eta ikuspegia aditzera emateko. Beti ez du, ordea, kontrako jarrera adieraziko. Izan liteke, behin eta berriz ikusi dugun bezala, errealitatearen eta itxurazkoaren



arteko kontrastea testuinguru jakin horretan inkongruentea edo desegokia den aipamenekin erdiestea.

Enuntziatu parentetikoaren egitura daraman enuntziatu ironikoak, funtsean, jarrera baten adierazpen implizitua inplikatzeko edo aditzera ematen du, eta enuntziatu ironiko horren errelebantzia edo pertinentzia esatariak oihartzunezko aipamenari buruz duen jarrerak baldintzatuta dago. Enuntziatu parentetikoari esker, esataria bikoiztu egiten da eta erantzukizunik batere ez duen oihartzunezko aipamenaren enuntziatzaile bihurtzen da, ez baitu aipamen horrek hitzez hitz dioena aditzera eman nahi, guztiz bestelakoa den adierazpen implizitu bat inplikatu baizik. Aditzera eman nahi duen adierazpen implizitu hori da esatariaren benetako jarrera edo ikuspegia.

Esan ote dezakegu, beraz, enuntziatu parentetikoan agertzen den ikusmoldea esatariarena ez denik? Gure ustez, ez. Irakurketa literalean geratuz gero, esatariak besteren aipamenak dakartzanez gero, besteren enuntziatzaile litzateke. Baina oihartzunezko aipamen hori bere benetako jarrera implizitua inplikatzeko darabilenez, pentsa ere dezakegu esatariaren ikusmoldea agertzen dela. Beraz, itxura engainagarri horren atzean dagoenaz jabetu ez den horrentzat izan liteke enuntziatu parentetikoan agertzen den esataria besteren ahotsen enuntziatzaile soila. Norentzakoarentzat, ordea, hau da irakurketa ironikoaz jabetzen den harentzat, oihartzunezko aipamenetik erabat aldentzen den esatariaren ikusmolde implizitua islatzeko bidea da.

Honenbestez, enuntziatu parentetikoan bertan entzuten dugu ahots ezberdinen durundi hori, intentzio ironikoz gauzatuta badago behintzat. Gainerakoetan, oro har, esatariaren bikoizketa hori E1 oinarritzko enuntziatuarekin erkatuz antzeman zitekeen: enuntziatu parentetikoan esatariak bere ikusmoldeetik epaitzen, argudiatzen edo informatzen du eta maiz urruntzen da E1 oinarritzko enuntziatuak dakarren ikusmoldeetik. Intentzio ironikoz gauzatutako enuntziatu parentetikoetan, berriz, esatariaren ahotsa ez da hitzez hitz agertzen dena; hitzez hitzeko horretatik urrunduz inplikatzeko duen adierazpen implizituan soilik aurki dezakegu bere barneko ahots hori.

### 9.7.3.2. ENUNTZIATZAILE PARENTETIKOA, ESATARIAREN INTENTZIO IRONIKOA ATZEMATEKO PISTA-EMAILE

Esana dugu informazio ironiko hori oso dela irristakorra, funtsean ez baitago interpretazio bat eta bakarra. Batzuetan, ordea, balizko interpretazio horri oinarri sendoagoak

eta objektiboagoak ematen dizkio enuntziatu parentetikoak; hau da, esatariak diskurtsoan bertan norentzakoari ironia horretaz jabetu eta inplikatzan duen hori inferitzeko pistak edo adierazgarri batzuk bidaltzen dizkio. Beraz, atal honetan ez dihardugu parentetikoaren egitura hartzen duen enuntziatu ironikoaz, baizik eta enuntziatu bat ironikoa dela antzemateko norentzakoari, parentetikoaren egitura diskurtsiboaz baliaturik, bidaltzen dizkion adierazgarri edo pistak izango ditugu mintzagai.

Enuntziatu bat ironikoa dela hautemateko batzuetan besteetan baino adierazgarri gehiago egon daitezke; hau da, testuan bertan esatariak norentzakoari bidaltzen dizkion pisten arabera, ironia batzuk beste batzuk baino agerikoagoak dira. Pentsatzekoa baita zenbat eta pista edo adierazgarri gehiago agertu, norentzakoarentzat ironia hautematea errazagoa izango dela eta ondorioz agerikoagoa izango dela ironia. Pentsatzekoa ere da esatariak badituela estrategiak edo bitartekoak enuntziatu ironikoak sortzeko eta beraz, bitarteko horiek identifikaturik ironia hautemateko adierazgarri edo pistak ere identifikatuko genituzkeela. Esate baterako, esatariak bere burua gutxiesten duelako itxurak egitea bera, edo inozentzia faltsu bat simulatze hutsa aski adierazgarri izan daiteke enuntziatu hori ironikoa dela atzemateko.

Zenbaitetan esatariak, berariaz, simulazio hori edo errealitatea ezagutuko ez lukeelako inozentzia faltsu hori txikiagotu egingo du, bere intentzio ironikoa ia agerian adieraziz, eta horretarako enuntziatu parentetikoez ere baliatzen da:

- Hutsak, **huts nabarmenak**, axal-axalean azaltzen dira. Sacha Guitry, dirudienez, “Napoleon” zinemaratu beharrean aurkitzen da berak Talleyrand izan nahi zuelako. Ez du gaizki egin Talleyrandena, begiak itxirik eta ahoa zabal, bon mots direlakoak darizkiola. Eskeini digun ingurutxoko dantzariak prozesio batean dabiltzala dirudite, edo meza nagusia ematen. Zurrun, buru-iritzi, Historiaren belarrira ixurtzen dituzten beren esan sonatuak: Combronerena frantsesez utzi digute hemen. Arkaitz berberak ikusten dira borrokaleku guztietan, nahiz Marengo izan, nahiz Austerlitz, nahiz Eylau. Napoleon´en soldaduek ez dute gerra maite, ezta lasterka ibiltzea ere. Ez daitezene neka, astiro-astiro aurreratzen dira, jira-bira polit bat eginda noiz etzango. Maria Walewskak Napoleoni azkenean esaten dizkion hitzak lotsatu edo nazkatu gabe entzuteko, gorra behar da izan edo belarriak estaliak eduki. Denak aipatzen hasiz gero, ez genuke berehalakoan bukatuko. (ZIN: 165-166).

Enuntziatu parentetikoak adierazten digu “huts nabarmenak” aipatzen ari dela eta beraz, nola sinetsiko dugu “Sacha Guitryk ez duela gaizki egin Talleyrandena” segidan

“begiak itxirik eta ahoa zabal diharduela dioskunean”? Edota, “Napoleon’ en soldaduek ez dutela gerra maite”, funtsean filmaren ezaugarritze positiboa izan zitekeenaren jarraian, “ezta lasterka ibiltzea ere” eransten dionean; garbi dago ironikoki hutsak, huts nabarmenak, azaleratzen ari dela.

Beste horrenbeste pentsa genezake ondorengo enuntziatuaz ere: “ez daitezten neka, astiro-astiro aurreratzen dira, jira-bira polit bat eginda noiz etzango”. Bestelako testuinguru batean, apika, ez litzateke ironikoa izango; hau da, esatariak hitzez hitz esan duen hori adierazi nahiko luke, baina ez gerrateko bataila bat deskribatzen ari denean. Testuinguru honetan, gaizki antzeztu dutela aditzera eman nahi du. Honekin guztiarekin, bada, filmaren huts nabarmenenak azaleratzeko helburua du: “denak aipatzen hasiz gero, ez genuke berehalakoan bukatuko”.

Beraz, garbi dago —edo horixe ikusarazi nahi genuen, behintzat—, esatariak bere intentzio ironikoaren berri enuntziatu parentetikoez baliaturik ematen diola aditzera eta, ondorioz, simulazio horren efektua ere txikiagotu egingo da.

Beste batzuetan, simulazio hori gehiegi, nabarmenegi adieraziko du, norentzakoa, besterik gabe, gehiegikeria horretaz jabe dadin:

- Den bezalakoa da, hori bai, eta ez du arpeirik izkutatzen. Birtuterik birtutetsuena erakusten dute onek eta gaizto bakar bat besterik ez da agertzen liburu osoan zehar, nahitaezkoa delako gainera, onen ontasunak argiroago distira dezan. Eugène Sue edo Xavier de Montepin’ en munduan gaude; sugeak Paradisua pozoitu baino lehen ordea (LIB II: 43).

- Kristoz gerozko bigarren mendekoak edo omen dira, Altzateko Jauna baino pixkaren bat lehenagokoak.

Kristautuxea zen Euskalerrria Alzatekoa mundura zenean. Berri Onaren lehen hotsak entzuten ditugu berriz doi-doi hemen, Erko gazte bizkorrak Erromatik ekarriak, gaitzik gabeko jentilaldi liluragarrian bizi baitziren artean euskaldunak. Eta Berria entzun orduko nekerik gabe makurtzen da lege berrira Izartxo, jentil baratze hartako lore zoragarria (...) Lurralde atsegin hartan ez zen ia sugerik. Tartalo eta Basajaun itzalak ere umeen parregarritarako hobeak ziren beldurgarritarako baino. (LIB II: 45).

- Sugearen antzekoena, Basurdi (**Barojarena bezala, ez da Basurde’raino heltzen**). Izartxo dela bide maitemindurik ibiltzeaz gainera, zenbait erromar errugaberen lepoak moztuak ditu bidenabar, F.L.N.-ko buruzagi baten eran. Sutu da biziro Erko zintzoa, baina, eskuak odolez zikin

ditzan baino lehen, bere buruari ematen dio Basurdik merezi duen heriotza, Aita Gaucher mistelagilearen dinakoa, ardo kupel batean murgil eginaz. (LIB II: 46).

Iragan zoriontsu bat ironizatzen edo nabarmenki simulatzen ari da esataria (“Basurdi” bera, sugearen antzekoena dena, ez da “Basurde”-raino heltzen), justu kontrakoa inplikatzeko; hau da, ez duela lehenaldi zoriontsuan sinesten aditzera emateko. Errealitate figuratuaren eta benetakoaren arteko kontrastea, ordea, oso da handia eta enuntziatu parentetikoak are eta handiagoa egiten du.

- Artean keinuka —gor-mutuen antzera—ari zitzaigun zinema hasi zen behin, ez oso gaxterik, hizketan. Hizketan ez ezik, soinua jotzen ere ikasi zuen. Are gehiago, marraka, marrua, kurrinka, orroa, makakorroa, irrintzi eta arrantza egiten ere bai. Kolore xuri-gorri politak etorri zitzaizkion. Hazi ahala, irudiak larritzen zihoazen, gero eta handiago. Luze-zabalean handitu ez ezik, loditu ere egin omen dira. Argi oihaleko irudi horietako batek besoa luzatzen duenean, makurtu egiten omen gara, uki ez gaitzan. Orain irudipen hutsa da, baina luzaro gabe, Jainkoa lagun, bekainean hartuko dugu muturrekoa, erne ez bagabiltza. (ZIN: 160).

Pasarte ironiaz betea da eta ironia horren muina, hein batean gehiegizko enfasi edo hiperbolez jositako adierazpenean dagoela uste dugu. Kritika egitea ez ezik umorea sortzea ere badu diskurtso-estrategia honek helburu.

Zein da, bada, hiperbolearen eragina? Hiperboleak argudio exajeratu bat aurkezten du, egiazkoa izateko nabarmenegia dena; gehiegizkoa gauza onerako. Beraz, berariaz gaizki erabilitako argudio bat bezala ulertzen da, komunikazio egoera jakin horretan desegokia dena. Testuinguru jakin horri ez egokitzea izan daiteke ironiaren adierazgarri.

Autore batek baino gehiagok egin izan du testuan bertan dauden balizko seinale, “pista” edo adierazgarriak sistematizatzeko ahalegina; norentzakoari ironia hauteman eta interpretatzeko lagungarri izango diren pistak sistematizatzekoa. Boothentzat (1974: 49), esate baterako, testu bateko ironia atzemateko inferentziaren arauak ondoren datozen gertakari hauei emandako erantzun bezala ager litezke:

1. Ironiazaleak berak argi eta garbi aditzera eman dezala ironikoa izango dela, tituluan bertan egiten duen zuzeneko gonbitearekin edota esplizituki egindako baieztapenen batekin.

2. Nabarmen-nabarmena den akats bat —erabat ilogikoa dena edo ezaguna den gertakari historikoa aldatzen duena— testuan egiaztat hartzea.
3. Testuan bertan kontradikzioak egotea; hau da, hasiera batean egiazkotzat jotzen dituen gertakari bat beheraxeago gezurtatuta agertzea.
4. Estiloaren bat-bateko kontraste nabarmena; doinu aldaketa dakarrena.
5. Gure ezaupide-sinesmenen eta testuan bertan adierazten direnen arteko kontrastea eta talka egitea. Ustez, gainera, esataria bera ere ez dator bat testuko sinesmenekin.

Aldez edo moldez, autore honek ironia hautemateko adierazgarritzat jotzen dituen ezaugarriok kontuan izan ditugu ironiazko enuntziatuak aukeratzeko, eta garbi gelditu da ironia egoki interpretatzeak esatariaren sinismen eta ezaupideak ezagutu eta horietan parte hartzea ere eskakizun duela. Eta horrek bien artean halako “konplizitatea” sortzen du.

Ironiazko gertakariaren abstrakzioa eta enuntziatu ironiko orotan egon daitezkeen erregularitateen sistematizazioa helburu duen beste lan bat Muechke-rena da (1969).

Muechke saiatuko da enuntziatu ironikoen deskodetzea nola gauzatzen den azaltzen edo argitzen; hau da, nola lotzen diren elkarrekin esatariaren eta norentzako jarrera eta ezaupide-sinesmenak, bien artean konplizitatezko harremana gauzatzeko. Aldi berean testu ironikoek komunikagarritasuna bermatzeko testuan bertan islatzen dituzten adierazgarriak argitzen eta sistematizatzen saiatzen da.

Itxuraren eta errealtatearen arteko gatazkak du lehentasuna bere lanetan. Bien arteko inkongruentzia ironiazaleak emandako judizioetan agertzen da eta baita ekintza errealek itxurazkoa ezezten edo gaitzesten dutenean edo horiei itzal egiten diotenean ere.

Baina, zergatik hautatzen du Mitxelenak bere mezuak aditzera emateko zeharkako jokabide ironikoa? Zein da ironiarekin erdietsi nahi duen komunikazio-helburua? Eta zergatik jotzen du horrenbeste ironia erabiltzera?

#### 9.7.4. Ironiaren helburu komunikatiboa

Mitxelenak berak aitortzen du maiz ibili behar izaten duela zehar esanetan eta itzulunguruka, aitortu nahi ez duena nolabait, zuzenean esan gabe, adierazi edo inplikatu nahian:

- Eta diodana oso osorik eta ahoa betean esaten dut. Ez dago, Jaunari eskerrak, beste zenbaitetan bezala zehar esanetan eta itzulinguruka ibili beharrik aitortu nahi ez dena nolazpait adierazi nahian. (LIB II: 101).

Mitxelenaren aipu horrek erakusten digu maiz zeharkako itzulinguruetara jotzeko arrazoa solaskideen irudia babestea dela; hots, kortesiaz jokatzeari, inoren irudia mindu gabe.

Horrez gain, ordea, garbi dago —eta enuntziatu ironikoak dira horren lekuko— zeharkako jokabide hori oso egoki datorkiola esplizituki inoren irudia mindu edo erasotu gabe kritika erasotzaile eta zorrotza egiteko nahiz umorea sortzeko.

Atal honetan zehar behin eta berriz ikusi dugu esatariak enuntziatu ironikoekin jokatzeari, norentzakoaren igurikimen edo espektatibak erabat hausten dituela; norentzako aho bete hortz uzten du, ez baitu, inolaz ere, horrelakorik espero. Baina ezusteko hori zerk eragiten du?

Ezustekoaren muina honela laburbil dezakegu: esatariak hitzez hitz dioen hori testuinguru horretan ez da batere koherentea; inkongruentea eta desegokia da, eta esatariaren duen ezagutzak ez dio uzten, besterik gabe, esandakoa dagoen-dagoenean interpretatzen. Izan ere, hitzez formulatu duenaren eta hark esatea espero zezakeenaren artean kontraste eta haustura handia dago.

Haustura horrek, bistakoa da, nahasmendua sortzen dio norentzakoari eta, txunditze horretatik ateratzeko, esatariak komunikatzeko izan duen hasierako intentzio-xedea atzematen ahaleginduko da. Horrela, ironiazko enuntziatuen bidez aditzera eman nahi izan duen esanahi inplizitua zein den inferitzeko ahalegina egingo du.

Ahalegin horri erantzungo lioke hainbat enuntziatu parentetikok ere; ironia interpretatzeko adierazgarri edo pista-emaile diren heinean.

Baina, zer bilatu nahi du esatariak norentzakoaren espektatibak hauste horrekin? Zertarako sortzen dio nahasmendu hori, funtsean komunikatu nahi duena bestelako zerbait bada? Ez ote zezakeen zuzenean komunikatu nahi duen hori bera aditzera eman, zeharkako jokabidea hautatu eta norentzakoak inferitu eta interpreta dezan utzi ordez? Jokabide hau helburu komunikatibo batek eraginda hautatzen ote du? Hala bada, zein komunikazio-helburu erdiesten du zeharkako hitz-joko honekin?

– Helburu nagusia solaskidearekin konplizitatezko harremana sortzea da. Esatariak uste eta espero du norentzako bikoiztasun honetaz jabetuko dela; alegia, gai

izango dela hitzez hitzeko formulazioen atzean edo horien babesean aditzera eman nahi izan duen benetako errealitateaz jabetzeko. Ironiaren muina, azken batean, hortxe baitago: esan gabe aditzera eman nahi izan duen jarrera inplizitua inplikatzeko ahalmenean esatariaren aldetik, baina hori inferitzeko norentzakoak duen gaitasunean bestetik.

- Ironiazko irakurketa egitean norentzakoak esatariarekin lortutako konplizitatezko harremanak, “atsegina” edo irria behinik behin sorraraziko dio. Atsegina sorraraz dezake, izan ere, pertsonarteko harremana sendotuago ikusteak, norentzakoa jabetu baita esatariaren ezkutuko intentzioaz, inplikatutako adierazpen inplizitua interpretatzea lortu duenean. Euren artean konplizitateko harremana badagoela sentitzeak sorraraz diezaioke atsegina norentzakoari, zentzu inplizituak atzemateko bezainbesteko gaitasun kognitibo eta emoziozkoa erakutsi baitu. Norentzakoaren irribarrea, funtsean, esatariak norentzakoa txunditzeko eta “deskolokatzeko” duen azkartasun, zolitasun eta zorrotzasunak ez ezik, esatariak jo dion erronka mental hori (“desafio” hori), arrakastaz gainditzeko izan duen asmamenak sortzen dio (irakurlearen poza helburua bete duela, desafioari “eutsi” diola ikustean). Beraz, irakurle edo norentzako “heldu” batekin bat egiteko beste modu bat ere bada.
- Baieztapen neutro eta positibo batekin besteren kritika negatiboa egitea.
- Bere diskurtsoa umorez zipriztintzea.

#### 9.7.4.1. Ironiak komunikazioan duen eraginkortasuna: kritika eta umorea

Norbait edo zerbait kritikatzeko nahiz umorea sortzea helburu duten enuntziatuak komunikazioaren oinarrizko ezaugarri batek biltzen ditu: bai batak eta bai bestek norentzakoaren espektatiba edo igurikimenak hautsi nahi ditu, norentzakoa “deskolokatu” edo nahastu nahi du. Hasierako nahasmen edo txunditze horrek behartuko du norentzakoa esatariaren intentzio-xedea zein izan den argitzeko inferentziak egitera, ez baitu ulertzen zerk eraman duen testuinguru horretan itxuraz behintzat desagokia edo inkoherentea den jokabidea hautatzera. Esatariaren intentzio-xedea zein den jakinda erdietsiko du igorri nahi izan duen mezuaren zentzu pertinentea edo errelebantea.

Norentzakoak jokabide hori hautatzen du, funtsean, esatariak komunikatzailea izan behar (eta nahi) duela badakielako edo behintzat horretaz fio delako. Beraz, jakin badaki itxurazko haustura horren atzean intentziorik indar jakin eta zehatzak egon behar duela.

Zein testuingurutan edo noiz darabil, oro har, ironia gure corpuseko esatariak? Gehienetan libururen baten autoreari edo argitaratzaileari kritika zorrotza egin nahi izan dionean edo film bateko aktore edo zuzendariren bat umorez kritikatu nahi izan duenean erabili du Mitxelenak.

Ironiaz jokatzek esatariari aukera eskaintzen dio hizkuntza modu positibo edo neutro batean erabiliz kritika negatibo eta erasotzailea egiteko. Kritika hori, gainera, zeharka egindako kritika hori, askozaz ere erasotzaileagoa eta oldarkorragoa izatera hel daiteke zuzeneko kritika baino; ohartu baikara zeharkako jokabide honen funtsera iritsiz gero, kritika zorrotza ez ezik eragingarria ere egitea lortzen duela, agian zuzen-zuzenean egindakoa baino zakarragoa, oldarkor eta erasotzaileagoa izan daitekeena. Ironia, bada, bere burua “babestuz” erasotzeko arma eragingarri bihurtzen da Mitxelenaren eskuetan. Baina baita diskurtsoari umore eta pikardia-tantoa txertatzeko baliabide ere. Beraz, bi eginkizun horiek ezin genitzake alde batera utzi Mitxelenak, gure corpusean bederen, darabilen ironia aztertzeko.

Eginkizun komunikatibo hori aldatzen ote da ironiazko gertakariaren ispilu enuntziatu parentetikoa denean? Gure ustez ez. Ironiak parentetikoaren egitura hautatzen duenean ere eginkizun bera du: helburu kritiko erasotzailea nahiz umorea sortzeko edo atsegin emateko helburua.

Esate baterako, gogoratu besterik ez dugu esatariak *Garoaren* argitaraldi berrian egin diren aldaketak zein zorrotz kritikatzeko aukera eskaintzen dion ironiak. Dagoen-dagoenean, idazlearen nahia errespetatuz, argitara beharrean aldaketak eginaz argitaratzea ez zaio batere egokia ez eta gizalegezkoa ere iruditzen. Horretarako, kritika zorrotza bezain erasotzailea egiteko, ironiaz baliatu eta babestu dela ikusi dugu, eta enuntziatu parentetikoak esatariaren intentzio ironiko horren isla zuzen direla: ironia enuntziatu parentetiko horietan agertzen delako edota ironia hori indartzeko erabiltzen duelako.

Beste batzuetan parentetikoaren egiturapean agertzen den ironia, umorearen zerbitzura egongo da; hau da, diskurtsoa umore eta pikardia-tantoz zipriztintzeko helburuarekin erabiliko du:



- Gauza berri bat badu horratik film honek, berri eta apaingarria; Lana Turner´en ilea, horizta izana, beltza da oraingoan. Badakizue beraz, film hau ikustera bazoazte, ez zaretela esku hutsik etxeratuko. Clark Gable´ren kaskoa—**ai, gurearen gisa!**— gero eta urdinago ageri dela ere esango nizueke, baina hori badakizue honez gero, nik bezain ongi. (ZIN: 141).

- Axal-axalekoa da, inon axalekorik izan bada. Irudi-andana luze honek prozesioa dirudi, beste batean esan nuen bezala, edo moda-erakusketa. Frantziako Historiaren itsaso zabalean murgildu nahi lukeenak ez du apar eta bitsa baizik ikusiko. Gehienez ere, Luis XIV eta XV garrenek izan zituzten zenbait amoranteren izena —**guztiak aipatzea lan luzeegia bailitzateke**— eta gezurrezko arpegia —**egiazkoa baino panpoxagoa, beharbada**— ikasiko du edo gogora ekarriko. Badaiteke ere amorante-saila gure artean zertxobait moarratua [inausita, kimatuta] agertzea, alde gaitzera makur ez gaitzen. (ZIN: 178).

- Sacha Guitryk gaingiroki eskuztatzen duen irudi-liburutik gogoan gelditzen dira bat edo beste, egoera, ibilera edo jazkera —**gainaldea beti ere**— dela bide: Claudette Colbert-Mme de Maintenon, Sacha Guitry-Luis XIV garrena aguretua eta. (ZIN: 178).

- Gertaerek aspertuxe daukaten ikusleak ikuskizun eder bezain ugarietan lasai ditzake begia eta gogoia. Bestelako “paisajeak” nahiago dituenak —**gehienon haragia argala da eta**—, badu ikusteko Sofia Lorenen dantza bat. A, gure Prai bartolome bizi balitz! (ZIN: 191).

Umorezko ironiak, solaskideen artean konplizitatezko jokoa sortzea du helburu, elkarrekin partekatzen dituzten ezaupide eta baloreen gaineko akordioa suspertuz edo indarberrituz. Komunikazioaren ondorioa irribarre isila da. Irribarre hori, batetik, hitzez hitz dioenaren eta esan gabe aditzera eman nahi duen errealitatearen arteko kontrasteak sorrarazten du, baina baita hizkuntza-joko horretan parte hartzeak ere.

Adibide horietan guztietan ikus daiteke enuntziatu parentetikoa umorea eta pikardia-tantoa txertatzeko darabilela. Ironia horietan, bada, umorezko intentzioa atzeman daiteke.

(...) el mecanismo pragmático de la ironía puede responder a diversos fines. Hay que reconocer que la ironía, como tipo de mención ecoica, es en cierta forma neutra en cuanto a su función, y puede utilizarse con fines tanto polémicos o agresivos como gratificantes. (Sanchez Torres 1999: 111).

Ironiaren helburua zein den zehazteko, beraz, enuntziazioaren intentziazko izaera zein den aztertu behar da. Komunikazioak, hondarrean, esatariaren intentzioei erantzuten die: esatariak bere enuntziatuari esker, iruzkin pertsonal bat edo zerbaiten edo norbaiten aldeko edo kontrako ikuspegia igortzen du. Beraz, Reyes-i jarraituz (1979), funtsean, ironia positiboaz edo negatiboaz mintzo gaitzake. Autore hau boterearen (indarraren) ironiaz eta jokoaren ironiaz mintzo da.

Boterearen edo indarraren ironiarekin esatariak kritikakizun izan duena irrigarri uzten edo isilarazten saiatuko da; nolabait ere esatariak bere gogoaz edo nahiaz ezarri nahi du edo norentzakoarengandik zerbait lortu nahi du: maiz hizkuntza mailako jokabide batzuk zuzentzea, besterentzat euskarazko eredu egokia izan dadin nahi du. (ikus Olabideren kritika)

#### 9.7.4.2. IRONIA, ARAUEN IHESBIDE

Gure corpuseko esatariak badu, hala irizten dionean, liburuen egile-argitaratzaileak edo filmaren aktore-zuzendariak kritikatzeko intentzio-xedea. Kritika hori, ordea, zeharka, ironiaz babesturik egiten du. Zergatik babesteko ironiaz baliatu? Ironia, azken batean hizkuntzak eskaintzen duen baliabide edo estrategia oso eragingarria delako, elkarrizketako arauen bat urratu arren (Grice) inolako isunik jasan gabe aurrera irteteko aukera eskaintzen duena.

Ironia, bada, hein batean urratu duen lege edo arauen bati ihes egiteko bidea da; esatariak intentzio osoz hautatzen duen ihesbidea. Zergatik diogu, ordea, esatariari arauen bat urratu arren aurrera egiteko bideak irekitzen dizkiola? Gizartean, gizartekoak garenez gero, bada gizalegez jokatu behar dela esaten diguten barne-araurik. Barne-arau horiek ikusezinak dira, baina hiztun komunitatearen parte garenez gero, bakoitzarengan eta bakoitzaren baitan daude; solaskideak, azken batean, bere kontzientzian bilduak ditu balizko giza jokabidea arautzen duten ohitura horiek, lege bihurturiko ohiturak, hain zuzen. Brown eta Levinsonen (1987) kortesiazko hastapenarekin lot ditzakegu, edo, oro har, komunikazioaren giza alderdia islatzen dute.

Garbi dago Mitxelenak norbaiti edo zerbaiti kritika egiten dionean, nahiz eta helburu jakin batekin egindako kritika izan, kritikakizun duen hari oldartzen zaiola edo eraso egiten diola, bere irudia mintzeraino eraso ere.

Holakoetan kritika zorrotz, garratz eta erasotzailea egin behar duenean, maiz, ironiaz baliatzen da. Esatariak estrategikoki hautatzen du ironia itxuraz behintzat inoren irudia mindu gabe aitortu edo egotzi nahi dion hori egozteko.

Zergatik diogu kritika erasotzailea egiteko estrategikoki hautatzen duela ironiaz baliatzea? Ironia, azken batean, hitzez hitz edo benetan esan ez dena esateko artea baita; “esateko” baino areago, agian, “aditzera emateko” edo “komunikatzeko” artea dela esan beharko genuke. Izan ere, esan ote dezakegu benetan esandakorik badela ironian?

Ironiari dagokionez, *esandakoari* buruzko auzia desberdina da neurri handian: arazoa ez da horrenbeste esaldi ironiko batek esandakoa zehazki zer den erabakitzea, baizik argitzea, behin betiko, ba ote den benetan esandakorik ironian. (Garmendia 2006: 78).

Lan honetan zehar, behin eta berriz azpimarratu dugu ironia esatariaren jarrera inplizitua inplikatzeko estrategia dela. Hori hala bada, esandakorik ez dago (ez behintzat hitzez hitz formulatutakorik). Ondorioz, esatariak ez du erantzukizun errealik, bere benetako jarrera edo komunikatu nahi izan duena inplizituan edo ezkutuan dagoen hori denez gero.

Esatariak, alde horretatik, esandakoarekiko konpromisoa hartuko du; hau da, esandakoari atxiki zaio. Beraz, arrazoibide horrekin esatari ironikoa gorde egin daiteke hitzez hitz esandakoaren atzean, eta alde horretatik diogu ironia esatariaren gordeleku izan daitekeela.

Izan ere, ironia kasuetan atxikimenduari ihes egitea errazagoa da, ez ironiak ezaugarri bereziren bat duelako, baizik inplikatura oro ezabagarria delako hiztunaren aldetik.(Garmendia 2006: 83).

Baina, berez, esatariaren atxikimendua benetan hitzez hitz esandako horretara mugatzen ote da, edota komunikatutako inplikaturei ere atxikitzen zaie? Bestela nola uztartu enuntziatu parentetikoaren izaera eta enuntziatu parentetikoaren egiturapean agertzen den ironiaren oihartzun-izaera?

Hau da, behin eta berriz tesian indartuz joan gara enuntziatu parentetikoetan esataria bere benetako ikuspegiaren enuntziatzaile eta arduradun azaltzen dela, baita E1 oinarrizko enuntziatuan besteren enuntziatzaile izanik ere. Hau da, esatariaren bikoizketa horretan, esatariaren isla zuzena enuntziatu parentetikoek dakartela. Enuntziatu parentetiko hori ironiaz darabilenean, ordea, esatariaren bikoizketa enuntziatuan bertan gertatzen da: esatariak

besteren oihartzunezko aipamena dakarrenez gero, besteren enuntziatzaile litzateke (eta ondorioz ez litzateke enuntziatuaren arduradun eta erantzule izango), baina aldi berean bere benetako ikuspegiaren enuntziatzaile ere izango da, esandako hori bere benetako jarrera inplizitua inplikatzeko input bihurtzen denez gero (inplikaturak esandakotik abiatuta inferitzen dituelako norentzakoak).

Honenbestez, paradoxikoa bada ere, enuntziatu parentetiko ironikoetan, gainerakoetan ez bezala, esataria ez da hitzez hitz dioenaren arduradun, ezpada hitz horietatik inferitzen den esatariaren adierazpen inplizituarena. Alde horretatik, benetan komunikatu nahi duena inplizituan dagoen adierazpen edo jarrera inplizitua denez gero, horren arduradun litzateke. Ironiak eskaintzen dio, ordea, ihesbide edo gordeleku bat: ironia kasuetan atxikimenduari ihes egitea errazagoa da, ez baitago hitzez formulatutakorik eta inplikatura oro ezabatzen errazagoa baita.

Esate baterako:

- *Garoa* berbera —antzeko zerbait baizik— ez delarik ere. Huts bat baitu hirugarren agerraldi eder honek, bat bakarra baina larria, jatorrizko pekatuak bezala edozein izaera garbi kutsa dezakeena: hobetua izatea, azalean (barrengo bigarren azalean) dioenez. Hitzak aldaturik, bigarren argitaraldia (**hobetua hura ere**) hartu dute gidari, lehenbizikoa, Agirrerena berarena, hartu beharrean. (LIB I: 79).

Jakin badakigu esatariak “hobetua hura ere” enuntziatu parentetikoa ironikoki darabilela eta nahiz eta hitzez hitz hori esan, bere benetako ikuspegia “okertua hura ere” enuntziatutik gertuago dagoela; izan ere, jakina da Mitxelenari ez zaiola “hobetua” denik iruditzen<sup>309</sup>. Beraz, esataria inplikitzen edo aditzera eman nahi duen “okertua hura ere” horren erantzule da.

Norbaitek, ordea, argitaratzailea “erasotzea” leporatuko balio —besteren irudia mindu duenez gero, ez duela gizalegez jokatu, esaterako— aski luke adieraztea berak “esan”, ez duela horrelakorik esan. “Esan”, hitzez hitz, justu kontrakoa esan baitu.

Beraz, ironiak ematen dio esatariari nahi duena adierazteko askatasuna inolako gizalegezko araurik (benetan urratzen duen araurik) urratu izan ez balu bezala jokatzeko. Alde horretatik, egia da, ironiak esatariari babestoki edo gordeleku bat eskaintzen dio:

<sup>309</sup>Kasu honetan marka grafikoak eta letrakera etzanak urruntzen laguntzen dio.

elkarrizketako arau, hastapen edo maxima guztien aurka defendatzen duen “arma” eragingarria da:

Así pues, ironizar es huir de todo riesgo, cualquiera que sea; es un arma defensiva contra todas las normas o principios y máximas conversacionales. Se puede proferir un insulto irónicamente, utilizar una variante de “mal uso” irónicamente, o utilizar irónicamente un retruécano detestable, cometiendo así infracciones contra las normas de decoro y cortesía, sin caer en sanciones. (Sánchez Torres 1999: 113-114).

Ironia, honenbestez, arauren batek huts egin dezan esatariak egiten duen maniobra estrategikoa da: ezarritako arauren batek geldiarazteko eskatuko liokeen diskurtsoaren une horretan, aurrera jarraitzeko atea zabaltzen dizkio. Holakoetan esatariaren adierazpen-askatasunari atea irekitzen dizkio, baina komunikazioaren izaera sozialari ere bai: gizalegez jokatzeko araudian edo hiztun-komunitatearen ohituretan oinarritzen den izaera sozialari.

Ironia, nahiz kritikoa nahiz umorezkoa izan, ez da zolitasun eta azkartasun handiko gertakaria soilik, komunikazioan eragingarria ere bada. “Benetako” esanahia hitzez formulatu gabe geratzen da, eta horrek esatariarentzat esfortzu txikiagoa egin ahal izatea dakar, eta aldi berean esan gabe doanak indar (iradokitzaile) handiagoa du hitzez hitz formulatutakoak baino. Estarian edo inplizituan dagoenaren esanahia zein den jakitea norentzakoari dagokio, baina honek ere, oro har, ez du hitzez formulatzen, bestela joko ironiko hori hautsi egingo litzakete. Norentzakoaren lana da, beraz, estarian dagoen mezu horri ahalik eta esanguratsuena edo pertinenteena den esanahia ematea.

Inplizituen joko hori, Ducrot-en arabera (1982: 10-11), hizkuntzan beharrezkoa da eta oro har, funtsezko bi arrazoik sorrarazi dute:

- 1) Zeinahi hiztun komunitatetan, baita liberalenean ere, hainbat tabu daude: batetik bada halako hitz multzo bat ahoska ezin daitekeena edo soil-soilik zorrotz mugatutako testuinguru jakinetan onartzen dena. Bada, bestalde, mintzagairik “isiltasunaren legeren” batek edo galarazita eta babestuta bezala duenik.
- 2) Elkarrizketan ere, oro har, esatari bakoitzak egoera jakinetarako hitzez hitz, esplizituki formula ezin dezakeen informazio-mota desberdina du. Ezin dezake formulatu ez bere baitan galarazteko modukoak direlako, baizik eta hitzez hitz formulatze hutsa jarrera erasotzailea eta gaitzesgarritzat jotzen

delako. Esatariarentzat, une horretan horrelakorik esatea, besteren aurrerako, harrokeriaren, umiliatzearen erakusle litzateke, horrela jokatzuz, solaskideak apaldu, gutxietsi, mindu eta zauritzen duen eta besteren gaintik dagoen esatari bezala agertuko litzateke. Beraz, eskueran ditu hizkuntza mailako bitarteko edo estrategiak inolako erantzukizunik bere gain hartu gabe, esan nahi duen hori, esan gabe, zeharka, aditzera emateko. Ironiaz baliaturik, hain zuzen.

Beraz, adierazpen inplizituen beharra handia da, esplizituki baieztatzen den oro eztabaidagai bihurtzen baita. Ondorioz, oinarrizko sinesmenak, aukera ideologiko edo bakoitzaren aukera pertsonalek lotura itogarririk edo estutasunik sor ez dezan ezinbestekoa da gisa honetako adierazpide edo diskurtso-estrategia egoki bat sortzea. Ezin uka, bada, ironiaren balio sozial eta psikologikoa. Beti hitzez hitz esan gabe doan horretaz ari garenez gero, estarian dagoen eta aditzera eman nahi izan duen horretaz ari garenez gero, esatariak ez du erantzukizun errealik izango, ez baita esan gabeko horren erantzule izaterik. Beste alde batetik begiratuta, ironia gizakion komunikazioaren bereizgarria ere bada (animaliek...ez dute). Oso gizakiona da eta adimen maila bateko gizakia eskatzen du gainera.

### 9.7.5. ONDORIOAK

1) Atal honekin amaitzen dugu enuntziatu parentetikoaren komunikazio-eginkizun nagusiak deskribatu eta azaltzarekin. Eginkizun horiek bost estrategia komunikatibo nagusitan bildu ditugu:

- Enuntziatu parentetikoak, argudiatzean aurrera egiteko estrategia erretoriko-pragmatikoak.
- Enuntziatu parentetikoak, pertsonarteko harremanak bideratzeko estrategia.
- Enuntziatu parentetikoak, informazioa testuinguruan kokatzeko estrategia.
- Enuntziatu parentetikoak, ahozkotasuna idatzian txertatzeko estrategia.
- Enuntziatu parentetikoak, esatariaren intentzio ironikoa aditzera emateko estrategia<sup>310</sup>.

<sup>310</sup>Enuntziatu parentetikorik ezean ere ironiak badu lekuri Mitxelenaren diskurtsogintzan. Ironiaren esparrua, bada, errenteriarren luman askoz zabalagoa da, baina gure xedea enuntziatu parentetikoetara mugatu dugu.

2) Bi aldetatik da enuntziatu parentetikoa esatariaren intentzio ironiko horren ispilu: ironiaren isla den heinean, batetik, eta testuan ironia non dagoen hautemateko pista-emaile bihurtzen den heinean, bestetik.

3) Intentzio ironikoz gauzatutako enuntziatu parentetikoan esatariaren ikuspegia aditzera ematen da, baina ez hitzez hitz dioenari erreparatuz (edo hitzez hitzeko irakurketa eginez), hitzez hitz dioren horrek inpliketzen duenari erreparatuz baizik. Hitzez hitzeko irakurketa eginaz ohartuko gara maiz besteren oihartzunezko aipamena dakarrela, baina hitzez hitz esan gabe doana inferituz gero, atzemango dugu esataria urrundu egiten dela oihartzun-aipamen honetatik, eta berak benetan aditzera eman nahi duena arras bestelakoa dela.

4) Honenbestez enuntziatu parentetiko ironikoez ari garenean esan ote dezakegu esataria zeren erantzule den? Hitzez hitz esan duenari ala inplikatu duenari atxiki zaio esataria? Gauza bat baita hitzez hitz esaten dena eta bestea (oso bestelakoa) inplikatu edo aditzera eman nahi dena; hau da, esan gabe doana. Eta esan gabe doan hori atxikitzen zaio ironiazalea. Alde horretatik esango genuke esataria enuntziatu ironikoetan ez dela hitzez hitz esan duenaren erantzule, benetan inplikatu edo aditzera eman nahi duen horren erantzule baizik.

5) Besterik da, ordea, esatari ironikoa paradoxa horretaz baliatzea: askatasun osoz aditzera eman duen horrekiko besteren kritikak saihestearren, enuntziatu ironikoa gordeleku edo babesleku gertatzen zaio. Alde horretatik, ironiak ematen dio esatariari nahi duena adierazteko askatasuna inolako gizalegezko araurik (benetan urratzen duen araurik) urratu izan ez balu bezala jokatzeko. Zentzu horretan diogu ironiak esatariari babestoki edo gordeleku bat eskaintzen diola: elkarrizketako arau, hastapen edo maxima guztien aurka defendatzen duen “arma” eragingarria da.

6) Ironiaren helburu nagusia solaskidearekin konplizitatezko harremana sortzea izango da. Norentzakoak esatariarekin lortutako konplizitatezko harremanak atsegina eman edo irria behinik behin sorraraziko dio. Atsegina sorraraz dezake, izan ere, pertsonarteko harremana sendotuago ikusteak, norentzakoa jabetu baita esatariaren ezkutuko intentzioaz, inplikaturako adierazpen implizitua interpretatzea lortu duenean. Euren artean konplizitateko harremana badagoela sentitzeak sorraraz diezaioke, bada, atsegina norentzakoari, zentzu implizituak atzemateko bezainbesteko gaitasun kognitibo eta emoziozkoa erakutsi baitu. Norentzakoaren irribarrea, funtsean, esatariak norentzakoa txunditzeko eta “deskolokatzeko”

---

Ironiaren atek irekita gelditzen dira, bada, gehiago sakondu nahi duenarentzat.

duen azkartasun, zolitasun eta zorroztasunak ez ezik, esatariak jo dion erronka mental hori (“desafio” hori), arrakastaz gainditzeko izan duen asmamenak sortzen dio.

7) Ironiazko enuntziatu parentetikoarekin baieztapen neutro eta positibo batekin besteren kritika negatiboa egitea nahiz bere diskurtsoa umorez zipriztintzea lortzen du esatariak.

Beraz, esataria ironiaz baliatzen denean, intentzio osoz baliatzen da eta hala ez balitz bezala jokatzek komunikazioko hainbat eginkizun eta efektu saihestea dakar.

## **10. ONDORIO OROTARIKOAK**

Tesiaren atarikoan esan bezala, gure tesiaren zioa azterlanak erakutsi digunaren arabera argitzeari zuzenago iritzi diogu, kapituluz kapitulu ateratako ondorioak errepikatzen ibiltzeari baino.

Gure abiapuntuari begiak irauli eta aldeztu nahi dugun tesia gogora ekarriko dugu: Koldo Mitxelenak bere diskurtsoa modu komunikagarri batean atontzeko, batere behartu gabe barra-barra darabiltzan enuntziatu parentetikoak baliabide edo estrategia egokiak gertatzen zaizkiolako hipotesia dugu. Bere diskurtsogintzaren<sup>311</sup> ezaugarritzaile diren baliabide hauek erabiltzera behin eta berriz jotzen badu, Mitxelenaren argudio-garapenean nahiz testu-sorkuntzan eta informazioaren antolakuntzan ezinbesteko eginkizuna dutelako da.

Beraz euren eginkizuna perpausaren muga metodologikoa gainditzen duen esparruan (diskurtsoaren edo testuaren esparruan) aurkitu uste dugu eta ez perpausaren muga metodologikoaren barnean. Alde horretatik iruditzen zaigu diskurtsoa egokia eta komunikagarria izan dadin ezinbestekoa dela gramatika-arauak ongi menderatzeaz gain, gramatika-arau horien erabilera-estrategiak ere menderatzea. Enuntziatu parentetikoak aztertuz diskurtso-estrategien alorrean urrats txikiren bat egin dezakegulakoan gaude.

Horrezaz gain, bada beste arrazoi bat parentetikoaren azterketa gure tesi-lan honen erdigune edo jomuga nagusi bihurtzeko: hizkuntzalaritza esparruan oro har, eta euskal lanetan bereziki dagoen hutsune ia erabatekoa: gramatiketan, testu-eta estilo-liburuetan nahiz hizkuntza-irakaskuntzetako metodoetan oso gutxitan jorratu izan dira (puntuazioari dagokion ataletan ez bada, eta bertan ere oso aipu laburrekin). Eta jorratu direnetan behin baino

---

<sup>311</sup>Bere diskurtsogintzarena ez ezik bere estiloaren ezaugarritzaile ere badela uste dugu, azken batean egitura hauetan esatariak bere arrastoa eta bere zigilua nabarmen utziko baitu.



gehiagotan irakurri dugu egitura mota hau “ken daitekeela” edo kendu arren perpausak zuzena izaten jarraitzen duela. Gure ustez, ordea, Koldo Mitxelena bezalako maisu batek bere prosa horrelako egiturekin zirtatzen badu zerbaitengatik eta zerbaitetarako zirtatzen du. Eta beraz Koldo Mitxelenak, komunikagarritasunari begira, baliabide honekin lortzen dituen efektuak agerian jarritz, litekeena da egungo euskal prosara edo testugintzara argirik ekartzea. Hau guztia erakutsi nahiz, hain zuzen ere, egitura mota hau ahalik eta modurik agortzailenean aztertzerako jo dugu gure hipotesia egiaztatzen ala gezurtatzen duten frogatzeko asmoz.

Gure corpora Mitxelenaren zinema- eta liburu-kritikek osatzen dute eta, beraz, ateratako ondorioak ere testu-tipo jakin honi dagozkionak dira. Ikusteko dago, izan ere, bestelako testu-tipoetan enuntziatu parentetikoaren erabilera bera izango ote dugun. Era berean ikusteko ere dago —Mitxelenak euskaraz soilik idatzi ez zuenez gero— gaztelaniazko testuetan zernolako erabilera egiten duen.

Enuntziatu parentetikoaren erabilera idazlearen estiloaren baitakoa ez ezik testu moten araberkoa ere badela uste dugu, maiztasunaren aldetik, behintzat, enuntziatu parentetikoaren aniztasun eta ugaritasun handiagoa aurki dezakegu iritzi-artikulu, iruzkin-testu nahiz kazeta-zutabeetan.

1. Corpusaren aukera, bada, berariazkoa izan da, testuak besteren lanen gaineko iruzkin eta epaietan oinarriturik egoteak atek irekitzen baitizkio modalizazioari, testuartekotasunari nahiz polifonia-gertakariak bete-betean agertzeko aukerari. Testuotan, bada, ahots ugariren oihartzuna adituko dugu. Beraz, enuntziatu parentetikoaren azterketa agortzaile bat egiteko testu-tipo egokitzat etsi dugu azalpenezko sekuentzia deskriptibo-argudiozkoak gailentzen diren testu mota hau, bide zabalagoa uzten baitiote autoreari bere iritzi-jarrerak tartekatzeko. Izan ere, argudiatzea bera iritzia aldezteko arrazoiak ematea da eta, beraz, argudiatzeak norentzako bere aldera bideratzen eta bereganatzen laguntzen du. Eta hortxe ikusten dugu enuntziatu parentetikoaren funtsa ere.

2. Enuntziatu parentetikoak esatariak bere intentzio-asmoak erdiesteko norentzakoari egiten dizkion keinu edo arrastoak dira, testutik bertatik mezuaren interpretazioa (nora)bideratu eta gidatzeko erabiltzen dituenak. Esatariaren helburua bere intentzio-xedea norentzakoak atzematea da eta horretarako ahalegin guztiak egingo ditu bere enuntziatua modalizatu, birformulatu eta testuinguratzen harik eta esan duenaren eta esan nahiko zukeenaren artean zirrikiturik txikiena ere egon ez dadin eta diskurtsoaren interpretazioak esatariak nahiko zukeen bidetik jarrai dezan. Oinarri-oinarrian, norentzako ondorio jakin batzuetara bideratu eta honen iritzi-usteetan eragiteko intentzio edo xedearen zerbitzura

daude. Horretarako, norentzakoarekin interakziozko harreman zuzen eta egokia izan beharko du, elkarrizketako hastapenak errespetatzeaz gain (Grice 1975), kortesiazko estrategiak ere kontuan izango dituena. Are gehiago, zenbaitetan norentzakoarekin konplizitatezko hurbiltasuna bilatuko du ironiaz baliatuz edo ahozkotasuna idatzian imitatuz.

3. Lehendabiziko atalean ohartu gara egitura mota hau aztertzeke oinarri sendoak paratu behar ditugula eta oinarri sendo horiek perpausaren muga metodologikoa gaindituz soilik erdietsiko ditugula, hauen eginkizuna perpausaren mugetatik at kokatzen delako. Hori egin ezean, oso ohikoak izango dira “puede ser suprimido” (Linares 1974) edo “reflexion non indispensable au sens” (Grevisse 1975), “phases pouvant disparaître sans affecter ni mutiles les rapports syntaxiques” (Mounin 1974), “son omisibles” (Kovacci 1999) bezalako baieztapenak. Baina zilegi ote da, hainbat autorek aitortu duen legez, egitura mota hau besterik gabe kentzea? Zergatik autore batek baino gehiagok “ken daitezke” bezalako ezaugarria eranstean diote enuntziatu parentetikoak ezaugarritu eta definitzean? Ken baldin badaitezke eta perpausari ezer eranstean ez badiote, nola uler dezakegu Koldo Mitxelena bezalako euskal idazle ospetsu batek —bere prosa maiz aski eredugarritzat joa izan denean (Esnal & Zubimendi 1993, Esnal 2008, etab.— hainbat eta hainbat aldiz, bere diskurtsoan aurrera egiteko, baliabide honetara jotzea?

Gisa honetako baieztapenek aztergaiaren aurrera egin ahala ohartu gara ez dutela lekurik, perpausaren barne-ikuspegitik eginik bakarrik uler daitezkeela. Egia da, izan ere, perpausaren egitura sintaktikoari nahiz perpausaren proposiziozko edukiari (*dictumari*) ez diotela ezer eranstean, euren funtzioa ez delako hizkuntza-maila horretakoa; hau da, egitura honek ez duelako perpausaren proposiziozko edukian eragiten, diskurtsoan baizik, diskurtsoaren makroegituran, zehatz esateko.

Aztergaiaren marko teoriko-metodologiko gisa, bada, ez gara ikuspegi bat eta bakarrera lerratu; hainbat hurbilbidetatik jasotako ekarriak kontuan hartzea iruditu zaigu egokien (Calsamiglia & Tusón 1999), gisa honetako diskurtso-baliabide edo estrategia bat aztertzeke elkarren osagarri izango direlako ustean.

Testua edo diskurtsoa aztergai dituzten Hizkuntza-pragmatika nahiz Testu-gramatika jo ditugu azterbidearen bizkarrezurtzat, ohartu baikara ezinbestekoa dela batetik enuntziatu jakin hauek interpretatzeko hizkuntzaz kanpoko elementuak kontuan hartzea (esataria, norentzakoa, intentzio-xedea, testuingurua, eta abar) eta bestetik, enuntziatu hauek hizkuntzako zein egituratan eta zein mailatan eragiten duten (mikroegitura, makroegitura, testu-tipologia) aztertzea.

Hizkuntza-pragmatika diogunean komunikazioan darabilgun hizkuntzaren erabilera arautzen duten alderdiak ikertzea diogu, eta enuntziatu parentetikoaren izaera hobekien islatuko duena ikuspegi honen barneko Enuntziatioaren Hizkuntzalaritza izango da. Ikuspegi enuntziatibo-pragmatikoa oso errentagarri gertatu zaigula frogatu uste dugu tesian zehar, azterbide hau —bere ikuspegi murrizenean— esatariak enuntziatuan uzten dituen hizkuntza lorratzak deskribatzera mugatzen delako: “la búsqueda de los procedimientos lingüísticos (shifters, modalizadores, términos evaluativos, etc”. (Kerbrat-Orecchioni 1986: 43). Hizkuntz baliabide horiei esker, esatariak enuntziatuari bere seinalea, bere zigilua, bere marka ezartzen dio. Esatariaren lorratz horiek inon agertzekotan enuntziatu parentetikoetan agertzen direla ikusi dugu, enuntziatu hauek enuntziatio-mailan eta modalizazio-mailan eragiten baitute bete-betean.

Oso egoki etorri zaigu ikuspegi honetatik egiten den esatari-enuntziatzaileen arteko bereizketa teorikoa nahiz hartzaile eta norentzako(ar)en artean egiten dena, enuntziatu parentetikoetan bereizketa horiek argi eta garbi mamitzen baitira.

Praktikan ikusi dugu polifonia gertakaria azaltzerakoan, maiz aski enuntziatu parentetikoari esker esataria bikoiztu edo bitan banatzen dela: batetik, E1 oinarrizko enuntziatuko enuntziatzaile izango da eta bestetik, ikuspegi horretatik urrunduz, E2 enuntziatu parentetikoaren esatari. Horrela ulertzen ditugu E1 enuntziatuan esaten ari dena zalantzan jarriz egiten dituen kritikak. Bikoizketa horrek, gainera, bi interpretazio-lerrori irekitzen dio atea: bata neutroagoa edo objektiboagoa da (E1 enuntziatuak dakarrena) eta bestea kritikoagoa, bihurriagoa, ironikoagoa da; bere-berea den marka edo zigilua.

Diskurtsoa ez daiteke, ordea, esatariaren eta enuntziatzailearen ikuspuntutik soilik aztertu, komunikazio-trukean bakarra balitz bezala. Berbaldia hitzezko interakzio bezala aztertu behar da. Koldo Mitxelenaren lanak aztertzeke, gainera, ezinbestekoa da hartzailearen eta norentzakoaren arteko bereizketa oso kontuan izatea, Mitxelenak argi baitzuen nori zuzentzen zitzaion; bere balizko irakurle potentziala zein zen bazekien eta honekin txandakatzen zituen bere zereginak, honekin bideratzen zuen interakziozko harremana eta ez hartzailearekin. Hartzailea, azken batean, hizkuntza-kode jakin bat aditzeko gaitasuna duen edonor da; norentzako, berriz, mezua igortzean esatariak gogoan duena eta bere komunikazioa baldintzatzen duena.

Bere komunikazioa baldintzatzen duela diogu, izan ere esatariak aintzat hartzen ditu norentzakoak eman liezazkiokeen erantzun eta kontrako arrazoiak eta diskurtsoa bere balizko erantzunaren arabera ere doitzen du. Esate baterako, hori garbi ikusten da enuntziatu

parentetikoaren izaeran: norentzakoak izan ditzakeen gaizki ulertu eta kontrako argudioak saihesteko berbaldia etengabe ñabartzen, zehazten eta birformulatzen du; azken batean norentzakoak egin dezakeen interpretazioa testutik bertatik bideratu eta gidatuko duelako seinale da.

Enuntziatu parentetikoaren eginkizun komunikatiboa aztertu aurretik —edo hobeto aztertu ahal izateko—, aldeztu aurretik Mitxelenaren norentzakoak<sup>312</sup> irudikatu dugu eta horretarako Mitxelenak oratutako testuetan oinarritu gara, testu orok irudikatzen baitu irakurle implizitua. Beraz, Harreraren Estetikan erabili ohi den ‘irakurle implizitoaren’ adigaiak baliatu gara, testuak zedarrizten duten irakurketa-orientazioak, Mitxelenaren norentzakoaren alderdi batzuk behintzat azaleratzeko. Testugileak darabiltzan estrategiak aztertuz, izan ere, norentzakoak gainditu beharreko zailtasunak (eta zailtasunei aurre egiteko dituen gaitasunak), nolakoak diren atera dezakegu eta horrek norentzakoaren irudia zehazten edo egituratzen lagun diezagukeelako ustea dugu.

Gu bereziki esan gabe edo erdi esanda uzten dituen aipuen ehizan ibili gara, horien atzean zein ezkututzen ote zen arakatu nahian; izan ere, idazleak testuan bertan jartzen baditu, ustez, buruan duen norentzako horrek atzemango dituelakoan jartzen ditu. Norentzakoaren arerio nagusia, ziurrenik, Mitxelenaren erudizioa izango da eta ezkutuko aipu horien izaera kontuan izanik norentzakoaren alderdi batzuk bederen irudikatzea lortu dugu:

- Mitxelenaren testuek norentzako *langilea* eta *sortzailea* eskatzen dute, ezkutuko aipameneren strategiari aurre eginaz erreferentzia-sare hori birsortzeko gauza izango dena. Beraz, euskal ahozko nahiz idatzizko literatur eta kulturaz gain, euskal munduaz haragoko erreferentziei ere, maiz aski, aurre egin beharko die. Ondorioz, Mitxelenaren norentzakoak egiten duen irakurketa etengabeko bilaketa izango da.
- Heldutasunera iritsi den irakurlea du, beraz, eskakizun. Irakurle hau hausnarketak egiteko gai izateaz gain, esatariaren intentzio ironikoa atzemateko gai ere izango da. Izan ere, ironiari eskaini diogun atalean ikusi dugu norentzakoak esatariaren ezkutuko intentzioez jabetu behar duela eta soilik orduan, implikatutako adierazpen implizitua interpretatzea lortzen duenean, lortuko duela mezua bere osotasunean interpretatzea. Esatariak jo dion erronka mental hori (“desafio” hori)

<sup>312</sup>Mitxelenaren zinema eta liburu kritiken norentzakoak irudikatzen saiatu garela zehaztu behar dugu, ez bestelako testu-tipoen norentzakoak, testu-tipoen arabera norentzakoak gainditu beharreko zailtasunak ere ez direlako berdinak izango.

arrakastaz gainditzeko izan duen asmamenak ere norentzakoaren beste alderdi bat erakusten digu. Irakurle heldu batekin bat egiteko beste modu bat baita.

- Gaian jantzia dagoen irakurle ikasi edo erdi-ikasiala, eta jorrazizun dituen gaiek interesa behinik behin sortzen dioten irakurlea.
- Irakurle hiritar euskalduna.

4. Metodologiazko oinarriak zehaztu ondoren atzera begiratu dugu enuntziatu parentetikoaren azterketan bestek egindako bideetan barna ibiltzeko. Ibilbide honetatik hainbat ondorio atera ditugu:

a) Ez dago 'parentetiko' kontzeptuaren ulerkera bakarra, ugari baizik. Eta horrek dakar 'parentetiko' adigai bera ere "preteorikotzat" (Maldonado 1991) jotzeaz gain, adigai honek guztientzat gertakari berberak ez biltzea.

b) Parentetiko terminoarekin batera eta nahasian *intziso*, *intzidental* edo *zirkunstante* terminoak agertzen dira; zenbaitetan elkarren osagarri (sinonimo gisa) eta beste zenbaitetan elkarrengandik bereizirik, hautatutako irizpide eta eskolen arabera.

c) Terminoak nahasian erabiltzeko arrazoi nagusia termino bakoitzaren muga-irizpideak zedarritu gabe egotean datza. Enuntziatu parentetikoaren muga-irizpideak zehazteko, zenbaitek irizpide sintaktiko-semantikoei eman dio lehentasuna; beste hainbat irizpide funtzionaletan oinarritu da, edota diskurtso-irizpideetan. Beraz, beti ez dira muga-irizpide berak erabili.

Beraz, ondorio nagusi batera iritsi gara: gure aztergaiaren aurrera egingo badugu garrantzizkoa ez ezik ezinbestekoa ere badela lan honetan darabilgun *parentetiko* deizioa hesitu eta honek atzean dakarrena agerian uztea; hau da mugatze-irizpide egokiak eta argigarriak zedarritzea. Era horretara bakarrik lortuko baitugu elkarrengandik hain gertu dauden 'parentetiko', 'intziso' eta 'intzidental' adigaien muga lausoak, ahal den heinean bederen, argitzea.

Horretarako, lehen-lehenik, *intzidentaltzat* jo izan den funtzioa aztertu dutenen ekarriari berariazko begiratu bat eman diogu eta ohartu gara enuntziatu parentetikoaren eta intzidentalaren (eta ondorioz, intzisoen<sup>313</sup>) esparrua ez dela bera, eta ez dutela hizkuntza-

<sup>313</sup>Funtzio intzidentalaren aztertzaileek funtzio hau intzisoen azpisaiztat jotzen dute. (Martinez 1994).

maila edo estratu berean eragiten: intzidentala *dictum* mailan kokatzen da (Fuentesen ustez (2007), *perpaus bazterra 1en*); enuntziatu parentetikoak, aldiz, diskurtsoaren makroegituran (*modalizazio* eta *enuntziazio* mailan eta argudio nahiz informazio-egituretan) du bere kokagunea (Fuentesen terminoak erabiliz (2007), *perpaus bazterra 2n*).

5. Besteengandik ikasi eta jasotakoa gure galbahetik pasatu ostean batetik, eta gure corpuseko adibideak aztertuta bestetik, azterkizun dugun enuntziatu parentetikoaren mugairizpideak zehaztu ditugu. Horretarako bi alderdiri erreparatzea ezinbestekoa iruditu zaigu: *enuntziatuaren* alderdiari batetik, eta egitura *parentetikoari* bestetik. Eta bi alderdiok mugatzeko —parentetikotasunari dagokiona, bereziki—, formazko eta edukizko irizpideak (irizpide sintaktiko-semanticok eta distribuziozkoak) diskurtsoan duten funtzioarekin uztartu ditugu.

Honenbestez, aztergai honetan darabilgun enuntziatu parentetikoaren kontzeptuak, bigarren graduko puntuazio-markez (koma pareta, marrak eta parentesiak) demarkatuta egoteaz gain, ondorengo lau ezaugarri hauek bete beharko dituela ondorioztatu dugu:

- 1) Gutxienez bi enuntziatu izango ditugu jokoan: E1 eta E2 enuntziatuak.
- 2) Bi enuntziatu hauek elkarrekin gurutzatzen dira, eta oro har, E2 enuntziatuak E1 enuntziatuaren egitura sintaktikoa hautsiko du.
- 3) Bi enuntziatu hauek beregainak edo independenteak dira:
  - Ez dute E1 enuntziatuan funtzio sintaktikorik gauzatuko (alderdi sintaktikoa).
  - Izan dezakete ageriko harreman semantikorik (testu-lotura) edo ez.
- 4) E2 enuntziatuak dakarren informazioa makroegituran (edo metadiskurtsoan) kokatzen da; komunikazio-egituraren koordinatu nagusietan.

Mugatzailatzat jo ditugun irizpideek, hondarrak hondarrean, enuntziatu parentetikoaren ezaugarri-multzoa osatzen dute, enuntziatu-mota hau mugatzeak berarekin baitakar ezaugarritu eta bereiztea ere. Enuntziatu parentetikoak ezaugarritu eta mugatzeko zehaztu ditugun irizpide horiek alderdi hirukoitza ukitzen dute:

- Sintaktiko-formala: E1 eta E2 enuntziatuen artean ez dago harreman sintaktikorik; halere, normalena ageriko marka formalik ez izatea bada ere, izan dezake zenbaitek marka formalik. C tipokoek, esaterako, sintaxiko marka formala agerian daramate, nahiz eta marka formal hori ez den bi enuntziaturen (E1 eta E2ren) arteko lotura sintaktikoaren adierazle.

- Semantiko-testuala: E1 eta E2 enuntziatuen artean harreman semantikoa (edo hobeto, koherentziazko harremana) kohesio baliabidez edo gabe ager daiteke. Koherentziazko harreman hori azalean kohesio baliabidez azaldu edo ez azaltzeak tipo desberdinak sorraraziko ditu.

- Diskurtsozkoa: E2 enuntziatu parentetikoaren eginkizuna diskurtsoaren makroegiturazko antolamenduan gauzatzen da; hau da diskurtsoko koordinatu nagusietan eragiten dute: esatariaren lorratzetan (modalizazio eta enuntziazio mailan), norentzakoarekin gauzatzen duen interakziozko harremanetan, oinarrizko enuntziatua testuinguruan kokatu eta esatari-norentzakoek batean duten informazio pragmatikoa aktibatzeke eginkizunean, argudio- eta informazio-egituretan etab.

Ezaugarri-multzo horien konbinazioak, forma aldetik hiru tipo nagusi bereiztera garamatza: A tipoa, B tipoa eta C tipoa. Horretarako, diskurtso-ezaugarria (beren eginkizuna makroegituran kokatzea, alegia) enuntziatu parentetiko orok bete behar duenez gero, alde batera utzi dugu, eta ezaugarri sintaktiko eta semantiko-testualaren arteko konbinazioaz baliatu gara tipoak bereizteko.

A tipoa:

- 1 - E1 eta E2 enuntziatuen artean ez dago harreman sintaktiko formalik: E2 enuntziatuak ez darama marka formalik.
- 2 - E1 eta E2 enuntziatuen artean harreman semantiko-koherentziazkoa badago, baina harreman hori ez du testuan bertan objektiboki kohesio-mekanismoei esker islatzen; inferentzien errota aktibatuz baizik; inferentziazkoa izango da, baina inferentzia horiek eragiteko edo gidatzeko ez da marka formalik egongo. Beraz, ez dago ageriko harreman testual-semantikorik.
- 3 - Informazioa makroegituran kokatzen da.

B tipoa

- 1- E1 eta E2 enuntziatuen artean ez dago harreman sintaktikorik: marka formalik ez da agertuko.

2- E1 eta E2 enuntziatuen arteko koherentziazko harremana kohesio-mekanismoei esker islatzen da.

3 - Informazioa makroegituran kokatzen da.

C tipoa

1- E1 eta E2 enuntziatuen artean harreman sintaktikorik ez dago, baina badu E2 enuntziatuak marka formalen bat:

-Forma aldetik badu menderagailuren bat, baina ez du E1 eta E2 ren arteko harremana gauzatzen:

-Isilik dagoen enuntziaturen baten eta E2ren arteko harremanaren isla da, edo

-Isilik dagoen modalizazio- edo enuntziazio-mailako aditzen batekin du harremana.

2- E1 eta E2 enuntziatuen artean ez dago ageriko harreman semantikorik: agerian dagoena E2ren eta isilpean dagoen aditzaren nahiz modalizazio edo enuntziatio-mailako aditzen baten artekoa da.

3 - Informazioa makroegituran kokatzen da.

Tipo bakoitzeko enuntziatu mota nagusiak zein diren zehaztu eta deskribatu ditugu. Beraz, analisi sintaktiko-testual honetatik Mitxelenak darabiltzan parentetikoek deskribapena, sailkapena eta azalpen egoki bat ematea erdietsi nahi izan dugu.

Tipologia honetan ikusi dugu enuntziatu parentetiko mota batzuk besteak baino emankorragoak gertatzen zaizkiola. Oso nabarmena da, esaterako, *eta* buruan duten enuntziatu parentetikoek ugaritasuna eta aberastasuna.

6. Enuntziatu parentetikoek definizio-irizpideetan zedarritu dugu E1 oinarritzko enuntziatuko egitura sintaktikoa hautsiaz tartekatzen diren egiturak direla enuntziatu parentetikoak. Beraz, kokapena edo integrazio-gunea zein den aztertzea oso garrantzitsua zen kokagune desegokiak diskurtsoaren komunikagarritasuna bermatu baino gehiago oztopatzerira irits zitezkeelako. Eta horrek gure tesia berretsi edo aldeztu baino gehiago ezeztu egingo zukeen. Gogora dezagun gure hipotesia oinarritzen dela enuntziatu parentetikoak Mitxelenak diskurtsoa modu *komunikagarri* batean garatzeko bitarteko egokiak direla.



Egitura honen integrazio-gunea aztertzeko ez da aski izan kokagune sintaktikoa; hau da, zein egitura sintaktikoren aurretik edo ondoren kokatzen den azterzea. Funtzio-egitura horrez gain, mintzagai-egiturari ere erreparatu diogu; hau da, informazio ezaguna eta berria esapide batean estrategikoki ordenatzeko moduari. Horrek bide eman digu oinarrizko enuntziatuan zein komunikazio-egitura nagusitzen den aztertzeko, osagaien hurrenkera komunikazio<sup>314</sup> zereginen edo komunikazio-legeek ordenatuko baitute.

Ondorio nagusizat honako hau atera dugu: oinarrizko enuntziatuko osagaien hurrenkera (eta enuntziatu parentetikoa ere bertan tartekatzen da), esatariak komunikatu edo aditzera eman nahi duena ahalik eta argiena eta eragingarriena gertatzeko moduan antolatu du Mitxelenak. Izan ere, enuntziatu parentetikoaren kokagunea informazio ezagunaren (mintzagaia) eta berriaren (irazkina) kokapen estrategikoaren baldintzapean dago.

Integrazio-gunea aztertzeko lau sail bereizi ditugu, E1 oinarrizko enuntziatuaren formazko egiturak baldintzatzen dituen lau sail:

- Oinarrizko enuntziatua perpaus lokabea denean.
- Oinarrizko enuntziatua maila bereko perpaus koordinatuek osatzen duenean (alborakuntza eta juntadura).
- Oinarrizko enuntziatua perpaus nagusiak eta mendekoak osatzen duenean.
- Meneko perpausaren barnean.

6.1. Oinarrizko enuntziatua perpaus lokabea denean, bi komunikazio-egitura gailendu zaizkigu eta horiek, ikusiko dugunez, komunikazio-estrategia jakin batzuen zerbitzura egongo dira.

Gehien erabiltzen duen komunikazio egitura ondorengo hau da:

Mintzagai hanpatua+[E2]+fokua+aditza+ (perpaus abar)+(esaldi abar)

E1 perpaus nagusi edo lokabeak osatzen duenean, adibideen %63.20 enuntziatu parentetikoak mintzagaia hanpatu edo topikalizatu egingo du, berak dakarren sintaxi- eta tonu-hausturaz baliatuz, eta mintzagai markatuaren eta galdegaiaren edo fokuari artean kokatuko da. Horrela, mintzagai edo topiko markatutik irazkinerako jauzia egiteko gunean kokatuko du enuntziatu parentetikoa.

<sup>314</sup>Osak (1990) euskararen hitz ordean komunikazio zereginaren arabera zela frogatu zuen.

Behin topikalizatuz gero, irazkina edo multzo errematikoaren buruan aditza jartzeko debekua (ia) gehienetan errespetatzen du (% 4.5en izan ezik), fokua-ren posizioa betetzeko (eta perpausa markatu gabe betetzeko) gaitasun berezkoena duten gramatika-kategoriak aditzaren aurretik kokatuz: osagarri predikatiboa, adberbio-osagarria, osagarri zuzena...

Honenbestez, E1 oinarrizko enuntziatuaren hasieran, mintzagaia jarriko du, bertan predikatuko dena espazioan eta denboran kokatzen duten elementuak ezarri ohi dira; hau da, adieraziko dudana *noiz*, *non*, *nork* egiten duen. Horren atzetik, edo hori hanpatuz, enuntziatu parentetikoa kokatuko du, eta segidan (nahiz beste osagarri batzuen ondoren) aditzera eman nahi den ekintza, gertaera edo egoera adieraziko du. Aditzaren atzean, zama informatibo txikien duten elementuak edo kokatuko ditu, Garziari jarraituz (1997), “perpaus abarrak” nahiz “esaldi abarrak”; hots, “mintzagai-galdegai” joko horretatik at gelditzen diren osagaiak.

Usu darabilen egitura komunikatibo honekin, gainera, pausaldiak markatzeko estrategia ere erdietsiko du. Izan ere, subjektuaren eta predikatuaren artean pausaldia adierazteko puntuazio-markak (koma, esaterako) erabiltzea desegokia den arren (edo delako), enuntziatu parentetikoez baliatzen da pausaldi hori markatzeko, eta horrek irakurketa ez ezik ulerkera ere erraztu egiten du. (Esnal 2008: 43, Zubimendi & Esnal 1993).

Bada behin eta berriz errepikatzen den beste komunikazio-egitura bat ere:

(Mintzagaia)+fokua+aditza+(perpaus abar)+[E2]+ (esaldi abar)
--

Mintzagaiaz gain, “fokua eta aditza” bikoteaz osatutako multzo errematikoa enuntziatu parentetikoaren aurretik kokatzen du: bien artean batzuetan ez dago tarterik eta beste batzuetan egon litezkeen sintagmek beste mintzagai batzuen itxura hartzen dute.

Komunikazio-egitura honetan argi ikus daiteke enuntziatu parentetikoaren kokagunea aditzaren eskuinaldera joan dela. Izango luke, bada, aditzaren atzera-kargak arintzeko estrategiarekin loturarik (Zubimendi & Esnal 1993, Hidalgo 1996, Esnal 2008).

6.2. Oinarrizko enuntziatua maila bereko perpausak osatzen dutela diogunean, koordinazio hori juntaturaz nahiz alborakuntzaz gerta daitekeela ez dago dudarik. Corpuseko adibideek erakusten digute, ordea, juntaturaz baliatzen dela; koordinazio kopulatiboaz nahiz aurkaritzakoaz.

[E1]+[E2]+ eta/baina+[E3] edota E1+[E2]+eta/baina+E1
--

Perpau nagusiaren eta mendekoaren arteko muga hori kokagune aproposa gertatzen zaio batetik pausagunea egiteko, eta bestetik (euskaraz menderakuntzaren marka formala oro har, mendekoaren bukaeran jartzen denez), perpau nagusiaren eta mendekoaren arteko muga agerian jartzeko; hau da, perpau nagusiaren ondoren mendeko perpaua non hasten den jakiteko. Horrek ere salatzen digu, bada, Mitxelenak enuntziatu parentetikoak estrategikoki kokatzen dituela; azken batean badirela diskurtsoan aurrera egiteko komunikazio-estrategia. Eta hein batean hor ere aurki ditzakegu euskal prosari atxiki izan zaion egitura “antikomunikatibo” horri aurre egiteko bitartekoak:

Maiz irakurri eta entzun dugun ideia da eraginkortasun falta nabaria dutela egungo euskal testuek, alegia, ez dutela lortzen idazlearen komunikazio-helburuak betetzea. Komunikazio-arazo hauek sarri lotu dira, neurri batean behintzat, euskal hizkuntzaren ustezko barne-egitura antikomunikatiboarekin eta hainbat motatako sendagaiak gomendatu dira: mintzatutik hurbilago dagoen euskara erabiltzea, eta bereziki, esaldi laburrak egitea; lotura-hitz iragarleak erabiltzea, *adibidez ezen, baizik eta, baldin eta, nahiz eta* [...]. Edonola, garbi samar dago gabeziak konpontzeko formulek azken finean zerikusia dutela perpauen osagaien antolakuntzarekin eta puntuazioaren erabilerarekin. (Euskara Berezituaren Mintegia 2002).

7. Garbi dago, bada, gabeziak konpontzeko aipatzen dituzten formula horietarik bat baino gehiago eskaintzen dizkiola Mitxelenari enuntziatu parentetikoaren erabilera estrategikoak: osagaiak modu estrategiko batean antolatzeke bitarteko izateaz gain, ahozkoaren eta idatziaren arteko etena hain nabarmena izan ez dadin ere laguntzen duela frogatzen saiatu gara. Hau da, enuntziatu parentetikoak badirela ahozkoatasuna idatzian imitatzeke edo islatzeke bitarteko.

8. Enuntziatu parentetikoaren analisisia formalari amaiera eman diogu puntuazioari dagokion alderdia aztertuz, testu idatzietan oinarritzen baita gure analisisia eta ez ahozko ekoizpenetan eta, funtsean, puntuazio-markek osatzen baitute enuntziatu parentetikoak corpusean identifikatzeko kanpokoena den formazko-irizpidea. Gainera, puntuazioa da edozein testu idatziren egituraren euskarri nagusietakoa eta beraz, diskurtsoa modu komunikagarrian garatzeko puntuazioaren eginkizuna ezin baztertuzkoa da. Beraz, tesian, bigarren graduko puntuazio-marken erabileran atzeman daitezkeen joera nagusiak paperera jaulki ditugu.

Uste dugu puntuazioari —eta, bereziki, “bigarren graduko” puntuazio-marken erabilerari— buruzko hausnarketa (Mitxelenaren euskarazko idazkeran oinarritutako hausnarketa) euskara estandarren idazkera finkatzeko lagungarri gerta daitekeela, ikusirik, bereziki, bibliografian diskurtsoaren linealtasuna hausten duten egiturak enmarkatzeko puntuazio-ikurren inguruko azterketetan dagoen hutsunea ia erabatekoa dela. Beraz, Mitxelenaren euskarazko idazkeran oinarritutako bigarren graduko puntuazio-markei buruzko lan deskribatzaile honen bitartez gure aletxoak ekarri nahi izan diogu euskal bibliografiako komunikazioaren ikerketari, nahiz eta jakin hemendik atera duguna puntuazio-legeak baino gehiago Mitxelenaren puntuazio-joera nagusien ildo nabarmenenak izan direla.

9. Enuntziatu parentetikoek komunikazioan badutela eginkizunik —eta nolakoa gainera— frogatzen saiatu gara. Eginkizun komunikatibo hori ondorengo ardatz hauetan laburbil daiteke:

1. Enuntziatu parentetikoak esatariaren argudiatzean aurrera egiteko bitarteko egokiak gertatzen zaizkio.
2. Enuntziatu parentetikoak esatariaren eta norentzakoaren arteko interakziozko harremana bideratzeko estrategiak dira.
3. Enuntziatu parentetikoak, informazioa testuinguruan kokatzeko ere bitarteko egokiak dira, inferentzien errota martxan jartzeko norentzakoari bidaltzen dizkion keinu edo arrastoak aski lagungarriak gertatzen zaizkio irakurketaren interpretazioa testutik bertatik bideratzeko.
4. Enuntziatu parentetikoak ahozotasuna idatzian txertatzeko nahiz esatariaren intentzio ironikoa aditzera emateko ere estrategia aski egokiak dira.

Honekin guztiarekin, bada, ustez frogatu dugu enuntziatu parentetikoak konplexutasun handiko egitura sintaktiko hausnartu eta landu hauek, Mitxelenaren diskurtsoaren antolamenduan eta garapenean eragin zuzena dutela eta diskurtsoa modu *komunikagarri* batean garatzeko bitarteko ezin hobeak gertatzen zaizkiola. Izan ere Mitxelenak idaztera bultzatu duen hasierako intentzio-xedea erdiesteko, maiz aski, enuntziatu parentetikoaren erabilera estrategikoaz baliatzen da, bai alderdirik formalenari dagokionez (integrazio-gunea), bai komunikazioan betetzen dituen funtzioei dagokienez ere. Ez da, bada, besterik gabe “ken daitekeen” gertakaria.

## 11. IREKITA DAUDEN IKERBIDEAK

1. Gure corpora Mitxelenaren zinema- eta liburu-kritikek osatu dute eta, beraz, ateratako ondorioak ere testu-tipo jakin honi dagozkionak dira. Ikusteko dago, izan ere, bestelako testu-tipoetan enuntziatu parentetikoaren erabilera bera izango ote dugun. Era berean, ikusteko ere dago —Mitxelenak euskaraz soilik idatzi ez zuenez gero— gaztelaniazko testuetan zer-nolako erabilera egiten duen.

2. Mikrokosmos batean (enuntziatu parentetikoaren esparru mugatu eta murriztean) Mitxelenaren euskal prosaren hainbat eta hainbat ezaugarri ikusi eta aztertu ditugu, prosa “hiritar”, “landua” mamitzen joateko bitarteko izan daitezkeenak, baina dudarik ez dago Mitxelenaren prosak hori baino askoz alderdi eta ertz gehiago dituela, bere osotasunean aztertzea merezi dutenak. Esaterako:

a- Guk tesian aztergai parentetikoaren distribuzioa edo kokagunea soilik izan badugu ere, Mitxelenak euskaraz idaztean darabilen hitz-hurrenkeraren bere osotasunean aztertzea interesgarria litzateke. Mitxelenak berak uste zuen idazle baten estiloaren muina hitz-hurrenkeraren zegoela eta, are gehiago, euskararen kasuan, euskarak hitz-hurrenkeraren ez baitu halako katea bortizik. Beraz egokia litzateke euskarak eskaintzen dizkion ahalbideei Mitxelenak nolako etekina ateratzen dien ikusteko; hau da, zein komunikazio-estrategia darabiltzan ikusteko esparru aproposa da.

b- Mitxelenaren noizkoak azterketa sakonagoa beharko luke eta Harreraren Estetikak ireki dezake horretarako biderik. Prosa aberats honek irakurleari eskatzen dion ahalegin berezia nolabait bideratzeko eta ahal balitz errenteriarrengana iristeko egokia izan daiteke era horretako azterketa.

c- Aurrekoarekin uztartuta, 1950-1975 urteetako euskal irakurleen azterketa soziolinguistiko sakona egiteke dago.

d- Bigarren graduko puntuazio-markak soilik izan ditugu azterkizun, baina ikusirik puntuazioaren alorrean euskaraz dugun hutsunea, uste dugu Mitxelenaren euskal testuetako puntuazioa aztertzea euskara estandarren idazkera finkatzeko lagungarri gerta daitekeela.

e- Mitxelenaren ironia ez da enuntziatu parentetikoetara soilik mugatzen eta interesgarria litzateke estrategia horrekin erdiesten dituen komunikazio helburuetan sakontzea, prosari gaitza eta piperra txertatzeaz gain zer dakarkion aztertzeko. Ikusi besterik ez dago gaur egun komunikatzaile onak idatziz nahiz ahoz (kultur espresio gisa euskal herrian hain aberatsa den bertsolaritzari erreparatu besterik ez dago) noraino erabiltzen duten

ironia umorea sortzeaz gain, ziria sartu eta norentzakoarekin konplizitatezko harremana sortzeko. Umorea (inteligentea eta jaso) sortzeko estrategian nagusi bihurtu zaigu.

Egin dugun ikerketa, bada, Mitxelenaren euskal prosan eta diskurtsogintzan barrena ibiltzeko bide-urratze bat besterik ez da, gero bide hau (baliagarria bada) garbitzen hasteko.

## 12. BIBLIOGRAFIA

- ACÍN E. (1999), "Por cierto, a propósito y otros digresivos", in *Lengua y Discurso, Estudios dedicados al profesor Vidal Lamiquiz*, Madrid, Arco/Libros.
- ADAM, J. M. (1987): "Types de séquences textuelles élémentaires", *Pratiques*, 56, 54-79.  
- (1990): *Éléments de linguistique textuelle*, Liège, Mardaga.  
- (1991): "Cadre théorique d'une typologie séquentielle", *Études de linguistique appliquée*, 83, 718.  
- (1992): *Les textes: types et prototypes. Récit, description, argumentation, explication et dialogue*, Paris, Nathan.
- ADAM, J. M. & REVAZ, R. (1989): "Aspects de la structuration du texte descriptif: les marqueurs d'énumération et de reformulation", *Langue Française*, 81, 59-98.
- AGIRRE, J. M. (1991): *Euskal Gramatika Deskriptiboa*, Bilbo, Labayru.
- AGIRRE, J. M. (1994): "Desoreka sintaktikoak", *Administrazioa euskaraz*, 6.
- AGIRRE, J.M. (LIZARDI) (1932): *Biotz-begietan*, Bilbo, Verdes Achirica.
- ALARCOS, E. (1973): "Aditamento, adverbio y cuestiones conexas", in *Estudios de gramática funcional del español*, Madrid, Gredos, 219-253.
- ALBALADEJO MAYORDOMO, T. (1986): *Teoría de los mundos posibles y macroestructura narrativa*, Alicante, Univ. Alicante.
- ALBERDI, A. (2008): *Oinarrizko gramatika*, Donostia, Elkar, Ikastolen elkartea.
- ALBERDI, X. & SARASOLA, I. (2001): *Euskal estilo-libururantz.*, Bilbo, EHU.
- ALCAIDE LARA, E. (1992): "La expresión de la modalidad en textos actuales, *In Problemas y métodos en el análisis de textos in Memoriam A. Aranda*, Sevilla, Universidad de Sevilla, 9-36.
- ALCARAZ VARO, E. (1988): "De la lingüística oracional a la supraoracional", *Estudios Lingüísticos de la Universidad de Alicante*, 1, 7-24.
- ALONSO-CORTES, A. (1999). *La exclamación en español. Estudio sintáctico y pragmático*, Madrid, Minerva Ediciones.
- ALTUNA, P. (1972): *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, Bilbo, Etor.  
- (1987): "Mitxelena euskal gramatikaria", *Koldo Mitxelena. Gizona eta hizkuntza*, Egan XL, 49-54.  
-(1988): "Aurkezpena", MEIG I, II, III, Donostia, 15-33.
- ÁLVAREZ MARTÍNEZ, M. A. (1990): "El adverbio y sus "fronteras", in *Actas del Congreso de la Sociedad Española de Lingüística, XX Aniversario (Tenerife, 2-6 de abril de 1996) vol I*, Madrid, Gredos, 296-306.
- ÁLVAREZ MENÉNDEZ A.I. (1988): "El adverbio y la función incidental", *Verba*, 15, 215-236.  
-(1989): *Las construcciones consecutivas en español. Estudio funcional sobre la oración compuesta*, Oviedo, Departamento de Filología Española.
- ÁLVAREZ, M. (1994): *Tipos de escrito II: Exposición y argumentación*, Madrid, Arco / Libros.
- AMUNDARAIN, ARANA, I. (1997): *Juntadura eta elipsia euskaraz*, Euskal Herriko Unibertsitatea (doktorego-tesia), (2002an UPV/EHUk argitaratua).
- ANDRADE, M. L. C. V. O. (1999): "Digressao e configuração contextual: a manifestação de relevância" in Samper, J. A. et al. (ed.), *Actas del XI Congreso Internacional de la Asociación de Lingüística y Filología de la América Latina*, 553-560.
- ANSCOMBRE, J. C. & DUCROT, O. (1994): *La argumentación en la lengua*, Madrid, Gredos.

- ARAKAMA, J.M.; ARRIETA, A.; LOZANO, J.; ROBLES, J., URRUTIA, R. M.** (2005): "Puntuazio zeinuen dagozkien tarteak", *Administrazioan euskaraz* 49, 18.
- AREJITA, A. et al.** (2005): *Bizkai euskeraren Jarraibide Liburua*, I eta II, Bilbo, Labayru Ikastegia.
- ARCE CASTILLO, A.** (1998): "Los conectores pragmáticos como índices de modalidad en español actual", *Estudios de Lingüística*, 9-24.
- AREJITA, A.** (1982): *Euskal joskera*, Durango, Leopoldo Zugaza.
- ARISTÓTELES** (1971): *Retórica*, Madrid, Instituto de estudios políticos.
- ARRASATE, M./ EITB (ed.)** (1992): *Euskarazko albistegietako esku-liburua*, Durango, Euskal Irrati Telebista.
- ARRIETA, L.** (1997): "Puntuazioa: ulergarritasunaren aldeko apustua", *Administrazioa euskaraz* 17, 19. (<http://www.ivap.euskadi.net>).
- ARRIVÉ M. & GADET, F. & GALMICHE, M.** (1986), *La grammaire d'aujourd'hui*, Paris, Flammarion.
- ATXAGA, M.** (1993): *Deiadarrak*, Donostia, Txertoa.
- AUER, P.** (1992): "John Gumperz' Approach to Contextualization", in Auer, P. & Di Luzio A. (ed.), *The contextualization of Language*, Amsterdam, John Benjamins, 1-37.
- AUSTIN, J.L.** (1978): *How do you things with words*, Oxford, University Press. (gaztelaniaz: *Cómo hacer las cosas con palabras*, Barcelona, Paidós, 1989).
- AUTHIER-REVUS, J.** (1979): "Problèmes posés par le traitement du discours rapporté dans une grammaire de phrase", *Linguisticae Investigationes* 3: 2, 211-228.  
-(1982), Hétérogénéité montrée et hétérogénéité constitutive: éléments pour une approche de l'autre dans le discours", *DRLAV*, 26, 91-151.  
-(1984): "Hétérogénéité(s) énonciatives(s)", *Langages*, 73, 98-113.  
-(1995): *Ces mots qui ne vont pas de soi, Boucles réflexives et non coïncidences du dire*, Paris, Larousse.
- AZURMENDI, J.** (1977): *Zer dugu Orixeren alde*, Oñati, Jakin.
- BAJTÍN, M.** (1979): *Esthétique et théorie du roman*, Paris, Gallimard (gaztelaniaz: *Teoría y estética de la novela*, Madrid, Taurus, 1989).  
-(1984): *Esthétique de la Création verbale*, Paris, Gallimard (gaztelaniaz: *Estética de la creación verbal*, Madrid, Siglo XXI., 1985).
- BALLY, Ch.** (1966): *Linguistique générale et linguistique française*, Berne, Francke.
- BANFIELD A.** (1973): "Narrative Style and Grammar of Direct and Indirect Speech", *FL* 10: 1, 1-3.  
-(1979): "La syntaxe de l'incise narrative et l'attribution de point de vue de phrase en phrase", *Linguisticae Investigationes* 3: 2, 229-243.
- BAQUÉ MILLET, L.** (1995-1996): "Peut-on supprimer les parenthétiques? Analyse d'un corpus de parole spontanée", *Cahiers du Centre Interdisciplinaire des Science du langage*, 11, 5-17.  
-(1997): "Étude des parenthétiques en français. Analyse d'un corpus de parole spontanée", in Arturo Delgado, *IV Congreso de la Asociación de Profesores de Filología Francesa de la Universidad de Filología Francesa de la Universidad Española*, Univ. de Las Palmas de Gran Canaria, Servicio de Publicaciones, 55-72.  
-(1999), *Les manifestations phoniques pharantétiques dans le discours spontané: une contribution à l'étude de la polyphonie*, Université Autonoma de Barcelona. (Doktorego-tesia).
- BARRENECHEA, A. M.** (1979): "Operadores pragmáticos de actitud oracional: los adverbios en mente y otros signos", in A.M. Barrenechea et. al., *Estudios lingüísticos y dialectológicos. Temas hispánicos*, Buenos Aires, Hachette, 39-59.
- BASSOLS, P. & BADIA, T.** (1997): *Modelos textuales*, Barcelona, Eumo Octaedro.
- BAYARD, P.** (1996): *Le hors-sujet. Proust et la digression*, Paris, Minuit.



- BEAUGRANDE, R. A. de & DRESSLER, W. U.** (1997): *Introducción a la lingüística del texto*, Barcelona, Ariel.
- BEAUVAIS, P.J.** (1989): "A Speech Act Theory of Metadiscourse", *Written Communication* 6, 11-31.
- BELLERT, I.** (1977): "On semantic and distributional properties of sentential adverbs", *Linguistic Inquiry*, 8, 2, 337-35.
- BENITO LOBO, J. A.** (1992): *La puntuación: usos y funciones*, Madrid, Edinumen.
- BENVENISTE, E.** (1970): "L'appareil formel...", *Langages*, 17, 10-18.
- BERNÁNDEZ, E.** (1982): *Introducción a la lingüística del texto*, Madrid, Espasa-Calpe.  
 - (1987): *Lingüística del texto*, Madrid, Arco / Libros.  
 - (1995): *Teoría y epistemología del texto*, Madrid, Arco / Libros.
- BERRENDONNER, A.** (1983): "'Connecteurs pragmatiques' et 'anaphore'", *Cahiers de linguistique française*, 5, 215-246.  
 - (1987): "De la ironía o metacomunicación, la argumentación y las normas", in *Elementos de pragmática lingüística*, Gedisa ed. Barcelona, 143-202.  
 - (1990): "Pour une macro-syntaxe", *Travaux de Linguistique*, 21, 25-36.
- BERRIA** (2006): *Estilo-liburua*. Donostia, Berria.
- BERTINETTO, P. M.** (1982): "Can we give unique definition of the concept 'text'? Reflexions on the status of textlinguistics", in J. S. Petöfi (ed.), *Textus vs sentence*, Hamburg, Buske, 143-159.
- BERTUCCELI, M.** (1996): *¿Qué es la pragmática?*, Barcelona, Paidós.
- BLANCHE-BENVENISTE, Cl.** (1989): "Constructions verbales "en incise" et rection faible des verbes", *Recherches sur le Français Parlé*, 9, Aix-en-Provence, Université de Provence, 53-73.
- BLANCHE-BENVENISTE, Cl. et al.** (1991): Deux cas d'application de la macro-syntaxe: les parenthèses", in *Le Français parlé. Études grammaticales*, Paris, Édition du CNRS, 147-157.
- BOOTH, C. W.** (1986), *Retórica de la ironía*, Madrid, Taurus humanidades, Alfaguara.
- BOSQUE, I. & DEMONTE, V.** (de.) (1999): *Gramática descriptiva del español*, Madrid, Espasa.
- BRIZ, A. et al. (ed.)** (1996a): *Pragmática y gramática del español hablado*, Valencia, Libros Pórtico.  
 - (1996b): "Sintaxis del español coloquial: algunas cuestiones previas" in Briz, A. et al., *Pragmática y gramática del español hablado*, Valencia, Libros Pórtico.  
 - et al. (ed.) (1997): *Sobre l'oral i l'escrit*, Valencia, Univ. de València .  
 - (1998): *El español coloquial en la conversación*, Barcelona , Ariel.
- BROWN, P. & LEVINSON STEPHEN, C.** (1987): *Politeness. Some Universals of Language Use*, Cambridge, Cambridge University Press.
- BUJANDA, J.** (1988): "Koldo Mitxelenaren testu azterketa", *Egan*, XL, 209-275.
- BUSTOS TOVAR, J.J.** (1995): "De la oralidad a la escritura", in *Actas del I Simposio sobre el análisis del discurso oral*, Almería, 11-27.  
 - (1996a), "La imbricación de la oralidad en la escritura como técnica del discurso narrativo", in Thomas Kotschi, Wulf Oesterreicher y Klaus Zimmermann (ed.), *El español hablado y la cultura oral en España e Hispanoamérica*, Ververt, Iberoamericana, Madrid, 356-374.  
 - (1996b): "Aspectos semánticos y pragmáticos de la comunicación oral", in Briz A. et al., *Pragmática y gramática del español hablado*, Valencia, Libros Pórtico, 37-49.  
 - (1997): "Organización textual y oralidad", in Briz, A. et al. (1997).
- BUSTOS, E.** (1986): *Pragmática del español. Negación, cuantificación y modo*, Madrid, Universidad Nacional de Educación a Distancia.
- BUTRON, J. & DE PEDRO, M. L.** (1984): *Euskal Gramatika Praktikoa*, Donostia, Erein.
- CANELLADA, M.J. & MADSEN K.** (1987): *Pronunciación del español*, Madrid, Castalia.

- CARON, J.** (1989): *Las regulaciones del discurso. Psicolingüística y pragmática del lenguaje*, Madrid, Gredos.
- CASADO, M.** (1991): “Los operadores discursivos *es decir, esto es, o sea y a saber* en español actual: valores de lengua y funciones textuales”, *Lingüística Española Actual*, 13, 87-116.  
 -(1993): *Introducción a la gramática del texto del español actual*, Madrid, Arco / Libros.
- CALSAMIGLIA H. & TUSÓN VALLS, A.** (1999): *Las cosas del decir: manual de análisis del discurso*, Barcelona, Ariel, 2007.
- CALSAMIGLIA, H. & LÓPEZ, C.** (2001): “Polifonía en textos periodísticos con información científica” in *Lengua, Discurso, Texto, (I Simposio Internacional de Analisis del Discurso)*, Madrid, Visor Libros, (Universidad Complutense de Madrid), 2647-2664.
- CASCÓN, E.** (1995): *Español coloquial*, Edinumen, Madrid.
- CASSANY, D.** (1988): *Describir el escribir. Cómo se aprende a escribir*. Barcelona: Paidós.  
 - (1993): *La cocina de la escritura*, Barcelona, Anagrama.  
 - (2005): *Expresión escrita en L2/ ELE*, Madrid, Arco/Libros.  
 - (2007): *Afilas el lapicero*. Barcelona, Anagrama.
- CASSASUS, J. M. & NUÑEZ LADEVEZE, L.** (1991): *Estilo y géneros periodísticos*, Barcelona, Ariel.
- CATACH, N.** (1980): “La punctuation”, *Langue française*, Larousse, Paris. (aldizkariaren ale osoa).  
 -(1994), *La ponctuation (Histoire et système)*, Paris, Presses Universitaires de France.
- CERVONI, J.** (1987): *L'énonciation*, Paris, PUF.
- CHACÓN, T.** (1995): *Cuadernos de la Uned.*, (3.ed.), Facultad de Filología Universidad Nacional de Educación a Distancia, Madrid.
- CHARANDEAU, P.** (1983): *Langages et discours*, Paris, Hachette.
- CHAROLLES, M.** (1988): “Les études sur la cohérence, la cohésion et la connexité textuelles depuis la fin des années 1960”, *Modèles linguistiques*, 10/2, 45-66.
- CHEVALIER, J.C. et al.** (1964): *Grammaire du français contemporain*, Paris, Larousse.
- CLARK, H. & GERRIG, R.** (1984): “On the Pretense Theory of Irony”; *Journal of Experimental Psychology: General* 113, 1, 121-126.
- COMBETTES, B.** (1987): “Types de textes en faits de langue”, *Pratiques*, 56, 5-17.
- CORNULIER, Benoit De** (1978), “L’incise, la classe des verbes parenthetiques et le singe mimique”, Montreal, *Les Cahiers de linguistique de l’Université de Québec*, 8, 53-95.
- CORTÉS RODRÍGUEZ, L.** (1992): “Algunas precisiones en torno al término *coloquial*”, in *Estudios del español hablado (Aspectos teóricos y sintáctico-cuantitativos)*, Almería, Instituto de Estudios Almerienses.
- CORUM, C.** (1975): “A pragmatic analysis of parenthetic adjuncts”, *Papers from the eleventh Regional Meeting of the Chicago Linguistic Society*, Chicago, 133-141.
- COSERIU, E.** (1967): “Determinación y entorno. Dos problemas de una lingüística del hablar”, in *Teoría del lenguaje y Lingüística general*, Madrid, Gredos, 1967, 282-323.
- COULMAS F.** (1985): “Direct and Indirect Speech: General Problems and Problems of Japanese”, *JoP* 9, 41-63.
- COVADONGA PENDONES, D. P.** (1992): “La heterogeneidad enunciativa: algunas manifestaciones de la heterogeneidad mostrada”, *E.L.U.A.*, 8, 1992, 9-24.  
 - (1994-1995): “Anotaciones sobre los componentes de la comunicación en el discurso político gubernamental”, *E.L.U.A.*, 10, 1994-1995, 259-280.
- CRAM, D.F.** (1978): “The Syntax of Direct Quotation”, *Cahiers de Lexicologie*, 33, 41-52.

- CRISMORE, A. et al.** (1990): « Metadiscourse in Popular and professional Science Discourse», in NASH, W. (ed.) *The Writing Scholar. Newbury Park, California, Sage*, 118-136.  
- (1993): “Metadiscourse in Persuasive Writing. A study of text written by American and Finnish University Students”, *Written Communication*, 10, 1, 39-71.
- CRISMORE, A.** (1984): The Rhetoric of Textbooks: Metadiscourse”, *Curriculum Studies* 16, 279-296.  
- (1989): *Talking with Readers: Metadiscourse as Rhetorical Act*, New York, Peter Lang.
- DAFOUZ MILNE, E.** (2000): *El metadiscurso como estrategia retórica en un corpus de textos periodísticos: estudio contrastivo de la lengua inglesa y lengua española*, Universidad Complutense de Madrid. (argitaratu gabeko tesia).  
- (2001): “Algunos aspectos de la subjetividad en los artículos periodísticos de opinión: un estudio contrastivo español-inglés”, in *Lengua, Discurso, Texto, Madrid, Visor Libros, 1833-1840*.
- DANON-BOILEAU, L. & MEUNIER, A. & MOREL, M.A. & TOURNANDRE, N.** (1991): “Intégration discursive et intégration syntaxique”, in Morel, M.A. (ed.), *Integration syntaxique et cohérence discursive*, Paris, Larousse, 111-128.
- DE MIGUEL, A.** (1982): *Sociología de las páginas de opinión*, Barcelona, Ate.
- DELOMIER, D.** (1989): “Le rôle des incisives dans l’intonation”, in *L’interaction*, Association des Sciences du Langage, Buscila, Paris.
- DELOMIER, D. & MOREL, M.A.** (1986), “Caractéristiques intonatives et syntaxiques des incisives”, *DRLAV*, 34-35, 141-160.
- DESSAINTE, M.** (1960): *La construction par insertion incidente*, Paris, D’Artrey.
- DÍAZ PRADOS, M.** (2001): “Acercamiento al concepto de coherencia” in *Lengua, discurso, texto, (I Simposio Internacional de Analisis del Discurso)*, Madrid, Visor Libros, (Universidad Complutense de Madrid, 1111-1124.
- DRILLON, J.** (1991): *Traité de la poctuation française*, Paris, Gallimard.
- DIK, S. C.** (1989): *The theory of Functional Grammar*, Dordrecht, Foris.  
-(1995): “Cortesía, fórmulas convencionales y estrategias indirectas”, *Revista Española de Lingüística*, 25, 1, 31-66.
- DOWING, B.** (1973): “Parenthetical rules and obligatory phrasing”, *Papers in linguistics*, 6, 108-128.
- DUCROT, O.** (1980): *Les mots du discours*, Paris, Éditions de Minuit.  
-(1982): *Decir y no decir*, Barcelona, Anagrama.  
-(1984): *Le Dire et Le Dit*, Paris, Éditions de Minuit (gaztelaniaz: *El decir y lo dicho. Polifonía de la Enunciación*, Barcelona, Paidós, 1986).  
-(1989): “Esbozo de una teoría polifónica de la enunciación”, in *El decir y lo dicho. Polifonía de la enunciación*, Barcelona, Editorial Paidós Ibérica. 174-238.
- EDMONDS JOSEPH E.**(1973): “Parenthetical clauses” in *Proceedings of the Ninth annual meeting of the Chicago Linguistic Society*, Chicago, University of Chicago  
-(1976): “Parenthetical clauses”, in *A transformational approach to english syntax. Root, structure preserving and local transformations*, Nueva York-San Francisco-Londres, Academic Press, 43-64.
- EDUC.AR** (Portal educativo del Estado argentino) (2006): “Pragmática”.  
<http://aportes.educ.ar/lengua/nucleo-teorico/estado-del-arte/pragmatica/pragmatica.php>.
- EGAN** (1987): *Koldo Mitxelena. Gizona eta Hizkuntza*, Egan 40 (3-6) (ale berezia).
- EGEA, E.R.** (1979): *Los adverbios terminados en –mente en español contemporáneo*, Bogotá, Instituto Caro y Cuervo.
- EL PAÍS.** *Libro de estilo* [http://www.wikilengua.org/index.php/Libro\\_de\\_estilo\\_de\\_El\\_Pa%C3%ADs](http://www.wikilengua.org/index.php/Libro_de_estilo_de_El_Pa%C3%ADs)

- ELHUYAR** (2000): *Euskal hiztegi modernoa*, Usurbil.
- ESCANDELL VIDAL M.V.** 1993): *Introducción a la pragmática*, Barcelona, Anthropos.  
 - (1995): “Cortesía, fórmulas convencionales y estrategias indirectas”, *Revista Española de Lingüística*, 25, 1, 31-66.  
 - (2005): *La comunicación*, Madrid, Gredos,  
 - “Aportaciones de la Pragmática”, 1-16. <http://www.uned.es/dpto-leng-esp-y-ling-gral/escandell/papers/AprtPrag.PDF>.
- ESNAL, P.** (2008)a: Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa, Bilbo, Euskaltzaindia.  
 -(2008)b: “Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa”  
 -(<http://www.erabili.com>).
- EUSKALDUNON EGUNKARIA** (2001): Estilo liburua, Donostia, Egunkaria.  
 -(1998-1999): *Euskara mintegia. Joskera, adierazpenak, puntuazioa, hiztegia*, Andoain.
- EUSKALTZAINDIA** (1979): *Euskal Aditz Batua*, Donostia.  
 -(1985-2005): *Euskal Gramatika Lehen Urratsak I, II, III; IV, V eta VI*.  
 -(1993): *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*, Bilbo.
- EZEIZA, J. & LEKUONA, M. & ALTUNA, E.** (1995): *Esalditik testura*, Donostia, Gaiak.
- FERNÁNDEZ FERNÁNDEZ, A.** (1990): “En torno al concepto funcionalista de predicación”, en *Actas del Congreso de la Sociedad Española de Linguística, XX Aniversario* (Tenerife, 2-6 de abril de 1990), Vol I, Madrid, Gredos, 436-444.  
 -(1991): “Sobre la diferenciación entre aditamentos y suplementos y sobre el complemento adverbial”, *Revista de Filología de la Universidad de la Laguna*, 10, 139-158.  
 -(1993): J.A. Fernández Fernández, *La función incidental en castellano. Hacia un modelo de esquema oracional (con criterios funcionalistas)*, Oviedo, Universidad de Oviedo. (Doktoretesia).
- FIGERAS, C.** (2000): “La semántica procedimental de la puntuación”, ([www.ucm.es/info/especulo/numero\\_12/puntuac.html](http://www.ucm.es/info/especulo/numero_12/puntuac.html), (1-12).  
 - (2001): *Pragmática de la puntuación*, Barcelona, EUB, Ediciones Universitarias de Barcelona.
- FILLMORE, CH.** (1968): “The case for case”, in Bach-Harms (ed.), *Universals in Linguistic Theory*, Holt-Reinhart-Winston, 1-98.  
 - (1975): *Santa Cruz Lectures on Deixis*, Bloomington, Indiana U.P.
- FUENTE GONZÁLEZ, M. Á. de la.** (2004): “Problemas de puntuación en *La fiesta del chivo*, de Mario Vargas Llosa”, *Espéculo* 28. ([http://www.ucm.es/info/especulo/numero\\_28/puntuac.html](http://www.ucm.es/info/especulo/numero_28/puntuac.html)).  
 - (2005): “La coordinación en inciso”, *Espéculo* 29, 2005.  
<http://www.ucm.es/info/especulo/numero29/dobles.html>  
 - (2006): “La adición en inciso: sus formas y puntuación”, *Espéculo* 32, 1-52.  
<http://www.ucm.es/info/especulo/numero32/adicion.html>
- FUENTES RODRÍGUEZ, C.** (1987): *Enlaces extraoracionales*, Sevilla, Alfar.  
 -(1989): “De nuevo sobre la aposición”, *Verba* 16, 209-236.  
 -(1990a): “Algunos operadores de función fática”, *Sociolingüística Andaluza. Habla de Sevilla y hablas americanas*, Sevilla, Publicaciones de la Universidad de Sevilla, 137-169.  
 -(1990b): “Apéndices con valor apelativo”, *Sociolingüística Andaluza. Habla de Sevilla y hablas americanas*, Sevilla, Publicaciones de la Universidad de Sevilla, 171-196.  
 -(1991a): “Adverbios de modalidad”, *Verba: Anuario Galego de Filoloxia*, 18, 275-321.  
 -(1991b): “Algunas reflexiones sobre el concepto de modalidad”, *Revista de la Sociedad Española de Lingüística Aplicada*, 7, 93-108.  
 -(1992): “La cohesión y la coherencia textual, claves en el análisis e interpretación de los textos”, in *Problemas y métodos en el análisis de textos in memoriam Antonio Aranda*, Univ. Sevilla, Manuel Ariza (de.), 123-145.  
 -(1993): “Conclusivos y reformulativos”, *Verba*, 20, 171-198.  
 -(1993): “Claro: modalización y conexión”, *Sociolingüística Andaluza* 9, Sevilla, Secretario de Publicaciones de la Universidad de Sevilla, 99-126.

- (1995): "Polifonía y argumentación: los adverbios de verdad, certeza, seguridad y evidencia en español", *Lexis XIX*, 1, 59-83.
- (1996): *Aproximación a la estructura del texto*, Málaga, Librería Ágora.
- (1997): "La Pragmática hoy en España. Su importancia en el análisis lingüístico", *Introducción teórica a la Pragmática Lingüística* (Actas del Seminario de Pragmática Lingüística, Sevilla, otsaila, 1996), Sevilla, Kronos (Pórtico, distr.), 9-25.
- (1998a): "Estructuras parentéticas", *LEA*, XX /2, 137-174.
- (1998b): *La sintaxis de los Relacionantes Supraoracionales*, Madrid, Arco/libros
- (1999): "Lo oral en lo escrito: los enunciados parentéticos", *Moenia*, 5, 225-246
- (2000): *Lingüística Pragmática y Análisis del discurso*, Madrid, Arco/libros.
- (2007): *Sintaxis del enunciado: los complementos periféricos*, Madrid, Arco/libros.
- (2002): *Mecanismos lingüísticos de la persuasión*, Arco/libros Madrid.
- (1999 a): *La organización informativa del texto*, Madrid, Arco/Libros.
- (2009): *Diccionario de Conectores y Operadores del Español*, Madrid, Arco/libros.
- FUENTES RODRÍGUEZ, C. & ALCAIDE LARA, E. R.** (1996): *La expresión de la modalidad en el habla de Sevilla*, Premio Ciudad de Sevilla de Investigación, 1994, Sevilla, Publicaciones del Excmo. Ayuntamiento de Sevilla.
- GALÁN RODRÍGUEZ, C.** (1999): "La subordinación causal y final", in Bosque, I- Demonte V. (ed.) (1999), 3597-3642.
- GALLARDO PAÚLS, B.** (1996): *Análisis conversacional y pragmática del receptor* Valencia, Colección Sinopsis, Ediciones Episteme.
- (1998 a): *Comentario de textos conversacionales, V.I (De la teoría al comentario)*, Madrid, Arco/ libros.
- (1998b): *Comentario de textos conversacionales, VII (Los textos)*, Madrid, Arco/libros.
- GARCIA BERRIO, A. & ALBALADEJO, T.** (1983): "Estructura composicional. Macroestructuras", *ELUA*, 127-180.
- GARCÍA, L** (1999): "Las construcciones concesivas" in Bosque, I- Demonte V. (ed.), (1999), 3805-3878.
- GARMENDIA MUJICA, J.** (2005): "Pretense and echoic mention for defining verbal irony", Ypungstowngo (Ohio) ISHS-2005 kongresuan aurkeztutako papera.
- (2006): "Zer esan ironiaz", *Gogoia*, VI-1, 77-89.
- GARZIA GARMENDIA, JOXERRA** (1999): *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak: (Marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa), (Argitaratu gabeko tesia)*.
- GARZIA GARMENDIA, JUAN** (1996): "Puntuazioaren sintomatik sintaxiaren gaitzera", *Administrazioa euskaraz* 13, 19.  
(<http://www.ivap.euskadi.net>)
- (1997): *Joskera lantegi*, Gasteiz, HAEE/ IVAP.
- (2005): *Kalko okerrak*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritz, EIMA.
- GAUGER, H. M.** (1996): "Escribo como hablo. Oralidad en lo escrito", in Kotschi, T. et al., 341-358.
- GIMÉNEZ BECH, J.** (itzultzailea) (2001): *Mitxelena entre nosotros*, Alberdania, Donostia.
- GENETTE, G.** (1989): *Palimpsestos*, Madrid, Taurus.
- GIORA, R.** (1985): "What is a coherent text", in Sözer (ed.) (1985): *Text connexity, Text cohrence. Aspects methods results*, Hamburg, Buske. 16-35.
- GOENAGA, P.** (1980): *Gramatika bideetan*, Donostia, Erein.
- GOFFMAN, E.** (1979): *Relaciones en público*, Madrid, Alianza.
- (1987): *Façons de parler*, París, Minuit.
- GRABE, W & KAPLAN, R.B.** (1996): *Theory & Practice of Writing: An applied linguistic perspective*, New York, Longman.

- GRANDE ROSALES, M. A.** (1994): *Proyección crítica de Bajtín: La articulación de una contrapoética*, Granada, Universidad de Granada.
- GREENBAUM, S.** (1969): *Studies in English adverbial usage*, London, Longmann.
- GREVISSE, M.** (1986): *Le Bon Usage. Grammaire française avec des remarques sur la langue française d'aujourd'hui*, Gembloux (Belgique), Duculot, [12. edizio errebisatua].
- GRICE, P.** (1989): *Studies in the way of words*. Cambridge, Mass: Harvard University Press.  
 -(1991), "Lógica y conversación", in Valdés (ed.), *La búsqueda del significado*, Madrid, Tecnos/Univ. De Murcia, 511-530.
- GRIZE, J. B.** (1982): *De la logique à l'argumentation*, Genève, Droz.
- GUTIÉRREZ ORDOÑEZ S.** (1986a): "Observaciones sobre el estilo directo en español", *Estudios Humanísticos. Filología* 8, 26-38.  
 -(1986b): *Variaciones sobre la atribución*, Colección Contextos, Univ. de Leon.  
 -(1995): "Nuevas variaciones sobre la atribución", in *Panorama de la Investigación Lingüística a l'estat Espanyol, Actes del I Congrès de Lingüística General*, Valencia, Universidad de Valencia, 30-54.  
 -(1997a): "Reflexiones sobre la función incidental", in *Gramma-Temas* 2, 111-156.  
 -(1997b): "La determinación de los niveles oracionales", in *La oración y sus funciones*. Madrid, Arco Libros, 368-426.  
 -(1997c): "La periferia verbal (I): complementos de verbo enunciativo y atributos de modalidad", in *Actas del Congreso de Gramática y Pragmática*, Valencia, noviembre de 1995).  
 -(1997d): *Temas, remas, focos, tópicos y comentarios*, Madrid, Arco Libros.
- HABE,** (1989): *Euskara irakaslearen eskuliburua*, Donostia, HABEren glotodidaktika Zerbitzua.
- HAEE-IVAP** (1994): *Hizkera argiaren bidetik*, Gasteiz.  
 -(1997): *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak*, Gasteiz.  
 -(2000): *Zalantza-dantza*, Gasteiz.  
 -(2003). *Galdezka: euskarazko zalantzei erantzunez*, Gasteiz.  
 -(2005): *IVAPeko estilo-liburua*, Gasteiz.
- HALLIDAY, M. A. K. & HASAN R.** (1976). *Cohesion in English*, London, Longman.
- HAND, M.** (1991): "On saying That again", *La Ph*, 14, Dordrecht/ Boston, 349-365.  
 - (1993): "Parataxis and Parentheticals", *La Ph*, 16:5, 495-507.
- HASAN, R.** (1994): "The texture of a Text", in David Graddol & Oliver Boyd-Barred eds. , *Media Texts: Authors and Readers*, Great Britain. The Open University.
- HAVERKATE, H.** (1984): *Speech acts, speakers and hearers: reference and referencial strategies in Spanish*, Amsterdam, Benjamins.  
 -(1994): *La cortesía verbal. Estudio pragmalingüístico*. Madrid, Gredos.  
 -(1985), "La ironía verbal: análisis pragmalingüístico", *Revista Española de Lingüística* 15, 2, 343-391.
- HAVERKATE, H. & HENGEVELD, K. & MULDER, G.** (ed) (1993), *Aproximación pragmalingüística del español*, Editorial Rodopr, Amsterdam-Atlanta, GA.
- HERNÁNDEZ ALONSO, C.** (1984), *Gramática funcional del español*, Madrid, Gredos.
- HERNÁNDEZ PARICIO, F.** (1994): "Núcleos oracionales y oraciones nucleares: proyecciones funcionales, estructura de la cláusula y subordinación", in Hernández Paricio (ed.), *Perspectivas sobre la oración*, Universidad de Zaragoza, 101-144 .
- HERRERO CECILIA, J.** (1997-1998): "La argumentación en el relato y la evaluación del mundo narrado", *Pragmalingüística*, 5-6-, 211-236.
- HIDALGO, B.** (1994), *Hitzen ordena euskaraz*, Doktore-tesia (argitaratu gabea).  
 -(1995) "Ohar estatistiko garrantzitsuak euskararen hitz ordenaren inguruan. Euskara S.O.V.?",

*Fontes Linguae Vasconum*, 70, 401-420.

-(1996a): “Euskal joskeraren mito kaltegarriak (I) Nola idatzi euskaraz modu arin, ulergarri eta aberats batean”, *Hizpide*, 35, 39-51.

-(1996b): “Euskal joskeraren mito kaltegarriak (II) Euskararen hitz-ordena librea”, *Hizpide*, 36, 21-27.

-(1996c): “Euskal joskeraren mito kaltegarriak (III) Aditza maiz euskaraz esaldi hasieran”, *Hizpide*, 37, 23-31.

-(1996d) “Hurbiltze bat euskal hitz ordenaren tradizioari”  
([http://www.inguma.org/egiledatuakgakoa.php?egile\\_gakoa](http://www.inguma.org/egiledatuakgakoa.php?egile_gakoa))

-(1997): “Hitzen ordena euskaraz”, Irailak 22-26, (EIZIEk antolatutako ikastaroan emandako materiala).

-(1998): “Baina zer da euskal joskera?”, *Administrazioa euskaraz*, 21, 18-19.

-(2002): “Hitzen ordena esaldian”, *Senez*, 25.

**HIDALGO, B. et al.** (2002), “Zer irakatsi euskal hitz-hurrenkeraz eta puntuazioaz?” Zabaltzen ditugun ideien egokitasuna auzian”, *Euskara Berezituaren Mintegia, Zientzia Fakultatea*, 2002 (<http://www.ei.ehu.es>).

**IGERABIDE, J. K.** (1993): *Bularretik mintzora. (Haurra, ahozkotasuna eta Literatura)*, Donostia, Erein. (bereziki, “Haur literatura eta ahozkotasuna” deritzon atala, 43-66).

**INTXAUSTI, J.** (1980), “Zaitegi eta Euzko-Gogoa (eta II) Hamar urteko lana (1950-1959)”, *Jakin*, 13, 96-119. (<http://andima.armiarma.com/eugo/gehi06.htm>).

**ISENBERG, H.** (1987): “Cuestiones fundamentales de tipología textual”, in E. Bernárdez (ed.), *Lingüística del texto*, Madrid, Arco, 95-129.

**JAKOBSON, R.** (1960): “Lingüística y poética”, in *Ensayos de lingüística general*, Barcelona, Ariel, 1984, 347-395.

**JIMÉNEZ JULIÁ, T.** (1989): “Modalidad, modo verbal y modus clausal en español”, *Verba*, 16, 175-213.

**KALTZAKORTA, M.** (2007): *Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (I)*, Bilbao, Udako Euskal Unibertsitatea.

**KERBRAT-ORECCHIONI, C.** (1986): *La Enunciación. De la subjetividad en el lenguaje*, Buenos Aires, Hachette, 1993.

- (1998): *Les interactions verbales. Approche interactionnelle et structure des conversations*. Tome I. Paris, Troisième Édition, Armand Colin.

**KOKTOVÁ, E.** (1986): *Sentence adverbials*, Amsterdam, J. Benjamins.

**KORTAZA, J.** (1990): *Literatura vasca siglo XX*, Bilbo, Etor.

**KOSIR, M.** (1988): “Towards a theory of journalist text form”, *Media, Culture and Society*, 10, 345-61.

**KOTSCHI, T. et al. (ed.)** (1996): *El español hablado y la cultura oral en España e Hispanoamérica*, Frankfurt/Madrid, Vervuert/Iberoamericana.

**KOTSCHI, T.** (1986): “Procédés d'évaluation et de commentaires métadiscursifs comme stratégies interactives”, *Cahiers de linguistique française*, 7, 207-230.

**KOVACCI, O.** (1972): “Modificadores de modalidad” in Kovacci, 1986.

-(1980-81): “Sobre los adverbios oracionales”, in Kovacci, 1986.

-(1986): *Estudios de Gramática Española*, Buenos Aires, Hachette.

-(1992): *El comentario gramatical*, Madrid, Arco Libros

-(1999): “El adverbio”, in Bosque, I. & Demonte V., (ed.) (1999), 705-786.

**LAFITTE, P.** (1979). *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*, Elkar, Donostia .

**LAKOFF, R.** (1973): “The logic of politeness: or minding your p's and q's'”, *Papers from the Ninth Regional Meeting of the Chicago Linguistic Society*, 292-305.

- LAMIQUIZ V.** (1996): "Texto oral y texto coloquial", *Scripta Philologica in memoriam M.Taboada Cid, I*, A Coruña Univ da Coruña, 123-130.
- LAPESA, R.** (1975): "Sintaxis histórica del adjetivo calificativo no atributivo", in *Homenaje al Instituto de Filología y Literaturas Hispánicas "Doctor Amado Alonso en su cincuentenario*, Buenos Aires, 171-199.
- LARRINAGA, A.** (2007): *Euskarazko albistegietarako eskuliburua II*, EITB, Bilbo.
- LARRINGAN, L. M. & IDIAZABAL, I.** (1998): *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratzeko baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*, Gasteiz, Euskal Herriko Unibertsitatea, Arabako Foru Aldundia.  
- (2005): *Euskararen kalitatea aztertze marko teorikoa eta metodologikoa*, *Ikastaria*, 14, 9-29.
- LARRINGAN, L.M.** (1995): *Testu-antolatzaileak bi testu motatan: testu informatiboa eta argudiapenezkoa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, (Argitaratu gabeko Doktorego-tesia).
- LAURIN, C.** (1989): *La parenthese discursive, une rupture stratégique dans l'interaction verbale*, Montréal, Université de Montréal, Département d'anthropologie (argitaratu gabeko tesina).
- LAUTAMATTI, L.** (1978a): "Observation on the Development of the Topic in Simplified Discourse", in Kohonen, V. et al. *Text Linguistics, cognitive learning and a language teaching*, Turku, Finland: University of Turku, 71-104.  
- (1978b): "Some observation on Cohesion and Coherence in Simplified Texts", in Ostman, J. O. (ed.) *Cohesion and Semantic*, Turku, Finland: Research Institute of the Abo Akademi Foundation, 165-181.
- LEECH, G. N.** (1983): *Principles of Pragmatic*, Londres, Longman.
- LEVINSON, S.** (1983): *Pragmatics*, Cambridge, Cambridge University Press (gaztelaniazko itzulpena: *Pragmática*, Barcelona, Teide, 1989).
- LINARES, M.** (1974): *La puntuación correcta*, Ávila, Talleres el diario de Avila, 1991.  
- (1979): *Estilística. Teoría de la puntuación. Ciencia del estilo lógico*, Madrid, Paraninfo.
- LLORENTE ARCOCHA, M. T.** (1996): *Organización de la conversación. Operadores discursivos en español*, Salamanca, Publicaciones Universidad Pontificia.
- LO CASCIO V.** (1998): *Gramática de la argumentación*, Madrid, Alianza.
- LOFFLER-LAURIAN**, (1985): "Parentheses et guillemets, enfants maudits de la ponctuation. Vers une typologie de leur usage en vulgarisation scientifique", *Liaisons HESO*, 13, 21-42.
- LOPETEGI, E.** (1993): *Hizkuntza zuzen erabiltzeko arau eta proposamen-bilduma*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- LONZI, L.** (1981): "Avverbi frasali e strutture parentetiche", *Linguae stile*, 16: 3, 393-431.
- LÓPEZ ALONSO**, (1990): "El discurso y el conector reformulativo: 'es decir'", *Filología románica*, 7, 87-97.
- LUNDQUIST**, (1980): *La cohérence textuelle: syntaxe, sémantique, pragmatique*, Nyt Noridisk Forlag, A. Busck, Kobenhavn.
- LYONS, J.** (1980): *Semántica*, Barcelona, Teide.
- MAINGUENEAU, D.** (1987): *Nouvelles tendances en analyse du discours*, Paris, Hachette.
- MAKAZAGA, J. M.** (1996): "Perpausen arteko testu-mailako lotura: testu zientifikoak sortzen, Zabala, I., & Odriozola, J. C., 1996, *Testu-loturarako baliabideak*. Euskara teknikoa, Bilbo, E. H. U ko Argitarapen Zerbitzua, 45-111.
- MALDONADO ALEMÁN, M.** (1995): "Coherencia y textualidad", *Revista de Filología Alemana*, 3, 163-186.
- MALDONADO, C.**, (1991): *Discurso directo y discurso indirecto*, Madrid, Taurus.  
- (1999), "Discurso directo y discurso indirecto", in Bosque, I. & Demonte, V. (ed.), 3549-3596.



- MARTÍN MENÉNDEZ, S.** (1995): “Análisis pragmático del discurso: perspectiva textual y perspectiva discursiva”, Anuario de Lingüística Hispánica, XI, 239-253.
- MARTÍN ZORRAQUINO, M. A.** (1994): “Sintaxis, semántica y pragmática de algunos adverbios oracionales asertivos en español actual”, in Violeta Demonte (ed.) *Gramática del español*, México, El Colegio de México, 557-589.  
 -(1999): “Aspectos de la gramática y de la pragmática de las partículas de modalidad en español actual”, in T. Jiménez Juliá et al. (ed.), *Español como lengua extranjera: enfoque comunicativo y gramática*, Univ. de Santiago de Compostela, 25-56.
- MARTÍN ZORRAQUINO, M.A. & PORTOLÉS LÁZARO, J.** (1999): “Los marcadores del discurso”, in Bosque, I. & Demonte, V. (ed.), 4051-4214.
- MARTÍNEZ ALBERTOS, J. L.** (1983): *Curso General de Redacción Periodística. Periodismo en prensa, radio, televisión y cine. Lenguaje, estilo y géneros periodísticos*, Barcelona, Mitre.
- MARTÍNEZ, J. A.** (1994a): “Función incidental y su conexión con otras construcciones del español”, *Cuestiones marginadas de la gramática española*, Madrid, Istmo, 225-283.  
 -(1994b) “Aposición e incidentalidad”, in *Cuestiones marginadas de gramática española*, Madrid, Istmo.
- MATEO, J. E.** (1996): “Los marcadores digresivos en español actual. Estudio especial de *por cierto*”, *Scripta Philologica in memoriam M. Taboada Cid, II*, Coruña, Universidade da Coruña, 531-552.
- McCAWLEY JAMES, D.** (1982): “Parentheticals and Discontinuous Constituent Structure”, *Linguistic Inquiry*, 13:1, 91-106.
- MEDEROS, H.** (1988): *Procedimientos de cohesión en el español actual*, Santa Cruz de Tenerife, Excmo. Cabildo Insular de Tenerife.
- MENDIGUREN BEREZIARTU, X.** (1996): “Euskararen hizkuntz ereduaz eta kalitateaz zenbait gogoeta”, *Euskera-XLI* (2. aldia), 583-604.
- MICHÉ, E.** (1995): “Les formes de reprise dans un débat parlementaire”, *Cahiers de Linguistique Française*, 16, 241-265.  
 -(1998): *Secuencias discursivas del desacuerdo. Aplicación del modelo ginebrino al análisis del debate parlamentario del artículo 2 de la Constitución española de 1978*, Anexo 43 de *Verba*, Univ. de Santiago de Compostela.
- MITTWOCH, A.** (1979): “Final parentheticals with english questions. Their illocutionary function and grammar”, *Journal of Pragmatics* 3, 401-412.
- MITXELENA K.** (1951): “Euskal literaturaren etorkizuna”, *Egan*, 3, 17-21 [MEIG IV, 21-27].  
 -(1953): “Arnaut Oihenart”, *BAP IX*, 445-463 [MEIG V, 35-57].  
 -(1954): “Orixe gure artean”, *Egan* 2-4, 3-4 [MEIG VIII, 69-70].  
 -(1955): “Berriketean. Pio Barojak esan digu”, *Egan* 3-4, 1-4 [MEIG I, 53-57].  
 -(1957a): “Berriketean. Plazido Mujikak esan digu”, *Egan* 3-4, 127-133 [MEIG I, 89-98].  
 -(1957b): “Berriketean. Etxekoekin hizketan”, *Egan* 3-4, 127-133 [MEIG I, 89-98].  
 -(1957c): “Sarrera- itz batzu”, J. L. Alvarez Enparantza, *Leturiaren egunkari ezkutua*, Bilbao, Euskal Idaz-lanak Euskaltzaindiaren ardurapean, 5-17 [MEIG V, 137-145].  
 -(1959), “Berriketean. Jurgi Oteizak esan digu”, *Egan* 5-6, [MEIG I 107-114].  
 -(1960): “Asaba zaarren baratza”, *Egan* 1-2, 121-134 [MEIG IV, 29-47].  
 -(1961): “Villasante, Luis: Historia de la literatura vasca”, *Egan* 4-6, 253.  
 -(1964): *Textos arcaicos vascos*, Madrid, Minotauro.  
 -(1966): “Euzko Gogoa” eta “Euskera”, *Egan* 5-6, 157-163 [MEIG VIII, 125-132].  
 -(1965): “Atarikoa”, *Orixe omenaldi*. Euskaltzaindia, Donostia, 5-9. [MEIG V, 125-129].  
 -(1968): “Euskararen batasun bideak”, *Euskera*, 1968, 203-219.  
 -(1970): *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, Bilbo, Publicaciones del centro de Estudios Históricos de Vizcaya (Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País).  
 -(1988): *MEIG I, II, III*, Erein, Donostia.

- MITXELENA, K. & SARASOLA, I. (1987): *Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- MOESCHLER, J. & REBOUL, A. (1999): *Diccionario enciclopédico de pragmática*, Madrid, Arrecife Producciones
- MONTOLÍO, E. (1999), “Las construcciones condicionales”, in Bosque I. & Demonte V. (ed.) (1999), 3643-3738.  
 -(1993): “Si me lo permiten... Gramática y pragmática: sobre algunas estructuras condicionales regulativas en español”, H. Haverkate, K. Hengeveld & G. Mulder (ed.) *Aproximación pragmalingüística al español (Diálogos Hispánicos 12)*, Amsterdam-Atlanta, Editorial Rodopi, 119-147.  
 -(1997): “La teoría de la relevancia y el estudio de los conectores discursivos”, in Fuentes, *Introducción teórica a la Pragmática Lingüística (Actas del Seminario de Pragmática Lingüística, Sevilla, 1996)*, Sevilla, Kronos (Pórtico, distr.), 27-39.
- MORENO CABRERA, J. C. (1985-1986): “Tipología de la catáfora paratáctica: entre la sintaxis del discurso y la sintaxis de la oración”, *Estudios de Lingüística*, 165-192.
- MORRIS, CH. (1985): *Fundamentos de la teoría de los signos*, Barcelona, Paidós.
- MOUNIN G. (1974): *Dictionnaire de la Linguistique*, Paris, Quadrige /Presses Universitaires de France, 1993.
- MUECHKE, D. C. (1969): *The Compass of Irony*, London, Methuen.  
 -(1978a): “Analyses de l’ironie”, *Poétique*, 36, 478-494 or.  
 -(1978b): “Irony markers”, *Poetics*, 7, 4, 363-375 or.
- MUJICA, A. (2008): *Letra larriak erabiltzeko irizpideak*. Gasteiz: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila, Eusko Jaurlaritza.  
 (<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>)
- MULDER, G. (1991), “Aproximarse y evitar: Estrategias de cortesía en castellano”, *Foro Hispánico*, 2, 69-80.
- MUÑOZ ROMERO, M. (2000): “El contexto como propiedad de los enunciados: pertinencia contextual de lo extralingüístico”, in *VII Coloquio APFFUE (Asociación de Profesores de Filología Francesa de la Universidad Española)*, Vol. II, 305-314.
- NARBONA JIMÉNEZ, A. (1996): “Sintaxis del español coloquial: algunas cuestiones previas”, Antonio Briz et al. 1996, 157-175.  
 -et al. (1998): *El español hablado en Andalucía*, Ariel, Barcelona.
- NEMMI, E. M. (1973): *Vers une définition syntaxique et phonologique de l’incise en franco-canadien et en français standard*. Thèse de Doctorat, Toronto, Université de Toronto.
- NUMBERG, G. (1990): *The linguistic of punctuation*, CSLI, 18.
- NÚÑEZ LADEVEZE, L. (1979): *El lenguaje de los “media”*. *Introducción a una teoría de la actividad periodística*, Madrid, Pirámide.
- NÚÑEZ, R. & TESO, E. del (1996): *Semántica y pragmática del texto común*, Madrid, Cátedra.
- ODRIOZOLA, J. C. (2005): “Puntuazioa gramatikagai”, *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia, Iker* 17, 354-373.  
 (<http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/59425.pdf>)
- OESTERREICHER, W. (1996): “Lo hablado en lo escrito. Reflexiones metodológicas y aproximación a una tipología”, in Thomas Kotschi, Wulf Oesterreicher y Klaus Zimmermann (ed.), 317-339.
- OIYHARCABAL, B. (1985): *Les relatives en Basque, Département de Recherches Linguistiques (D.R.L.)*, Université de Paris.
- OLAZIREGI, M.J. (1997): *Bernardo Atxagaren irakurlea*, Donostia, Erein.  
 -(2001): *Leyendo a Bernardo Atxaga*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.

- ONIEVA MORALES, J.L.** (1992), *Nuevo Método de ortografía*, Editorial Verbum, Madrid.
- ORTEGA OLIVARES, J.** (1985): “Apéndices modalizadores en español: los ‘comprobativos’”, Homenaje al Prof. D. A. Soria Ortega, Granada, 241.
- OSA, E.** (1990): *Euskararen hitzordena. Komunikazio zereginaren arauera*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.
- OTAOLA OLANO, C.** (1988): “La modalidad (con especial referencia a la lengua española)”, RFE, LXVIII, 97-117.
- PARTEE, B.H.** (1973): “The syntax and semantics of quotation”, in S. R. Anderson- P. Kiparsky (ed.), *A festschrift for Morris Halle*, Holt, Rinehart & Winston, New York, 410-418.
- PERELMAN, Ch. & OLBRECHTS-TYTECA, L.** (1989): *Tratado de la argumentación. La nueva retórica*, Madrid, Gredos.
- PEREZ GAZTELU, E.** (1991): “Mitxelena: Euskara noranahikotuz”, *Hegats* 4, 155-165.  
 -(1995a): *Koldo Mitxelena Elissalt, egitasmoa eta egitate*, Errenteria, Errenteriako Udala.  
 -(1995b) “Koldo Mitxelenaren zoko-garbitzea: liburugintza”. *Sancho el Sabio* 5, 75-116.  
 -(1997), “Koldo Mitxelenaren bibliografía”, *Koldo Mitxelena Elissalt 1915-1987*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia.  
 - (1998): “J. Garziaren *Joskera lantegiri* egindako kritika (erreseina)”, *Mundaiz*, 56, 118-124.
- PEREZ GAZTELU, E.; ZULAIKA, E.; MUÑOIA, I.** “Puntu bat, bi puntu, hiru puntu... Puntuazioa Gipuzkoako gazteen eskola-testuetan” (argitaratzear).
- PEREZ MARTÍNEZ, J.M.** (2000): *El editorialista como operador de inclusión*, Bilbao, EHU/UPV (doktorego tesia).
- PETŐFI J. S. & GARCÍA BERRIO, A.** (1979), *Lingüística del texto y crítica literaria*, Madrid, Comunicación.
- PETRIRENA, P.**, *Morfosintaxia*, Eusko Jaurlaritza, EIMA (laster argitaratzekoa).
- PIAGET**, (1967): *Biologie et connaissance*, París, Gallimard.
- PLANTIN, Ch.** (1998): *La argumentación*, Barcelona, Ariel.
- PLATON (1972)**: “Georgias, o de la retórica” in *Obras Completas*, Madrid, Aguilar, 353-414.
- POLO, J.** (1971), *Las oraciones condicionales en español*, Granada, Universidad de Granada.
- PONS BORDERÍA, S.** (1998): “Reformulación y reformuladores. A propósito de les opérations de reformulation”, *Oralia*, I, 183-198.
- PORROCHE, M. & LAGUNA J.** (2006): “Sobre correctamente e incorrectamente”, *Español Actual*, 84, 55-74.
- PORTOLÉS, J.** (1993): “La distinción entre los conectores y otros marcadores del discurso en español”, *Verba*, 20, 141-170.  
 - (1998): *Marcadores del discurso*, Barcelona, Ariel.
- QUIRK, R. ET AL.** (1985): *A comprehensive Grammar of the English Language*, London, Longman.
- REAL ACADEMIA ESPAÑOLA** (1999): *Ortografía de la lengua española*. Madrid, Real Academia Española,  
[http://www.rae.es/rae/gestores/gespub000015.nsf/%28voanexos%29/arch7E8694F9D6446133C12571640039A189/\\$FILE/Ortografia.pdf](http://www.rae.es/rae/gestores/gespub000015.nsf/%28voanexos%29/arch7E8694F9D6446133C12571640039A189/$FILE/Ortografia.pdf)
- RÈCANATI, F.** (1981): *La transparencia y la enunciación*, Buenos Aires, Hachette.  
 -(1984): “Remarques sur les verbes parenthétiques” in P. Attal & C. Mullers (ed.) *De la syntaxe à la pragmatique. Actes du colloque de Rennes*, vol VIII, Amsterdam-Filadelpia, John Benjamins, 319-352.

- REDER, L. & ANDERSON, J.R.** (1982): Effects of Spacing and embellishment on memory for the main points of a text, *Memory and cognition*, 10, 97-102.
- REDER L.** (1979): The role of elaborations in the processing of prose”, *Cognitive Psychology* (unpublished doctoral dissertation, University of Michigan).  
 - (1980): “The role of elaboration in the comprehension and retention of prose: a critical review”, *Review of Educational Reserch*, 50, 5-53.  
 - (1982): “Elaborations, when do they help and when do they hurt?”, *Text*, 2, 211-224.  
 - (1986): “The role of elaborations in learning a skill from Instructione Text”, *Memory and cognition*, 64-78.
- REINHART, T.** (1975): “Whose Main clause?: Point of view in sentences with parentheticals”, in S. Kuno (ed.), *Harvard Studies in syntax and semantics*, Cambridge, Mass, 127-171.  
 - (1983) “Point of view in Language. The use of parentheticals” in G. Rauh (ed.), *Essays in Deixis*, Tübinga, G. Narr, 169-194.
- REYES G.** (1992): “Lo serio, lo irónico y la búsqueda de interlocutor”, *Voz y Letra* 3, 1, 19- 34.  
 - (1984): *Polifonía textual*, Madrid, Gredos  
 - (1990): “Las voces del texto”, *La pragmática lingüística*, Barcelona, Montesinos, 120-144 .  
 - (1998): *Cómo escribir bien en español*, Arco Libros, Madrid.  
 - (1999): *Los procedimientos de cita: estilo directo y estilo indirecto*, Madrid, Arco/libros (1990): *La pragmática lingüística*, Barcelona, Montesinos.  
 - (1995): *El abecé de la pragmática*, Madrid, Arco / Libros.
- ROMÁN FERNÁNDEZ, M.** (1999): “Manifestaciones de oralidad en los textos escritos. Pautas para su análisis”, in Samper Padilla et al. (de.), *Actas del XI Congreso Internacional de la Asociación de Lingüística y Filología de la América Latina*, 791-800 .
- ROQUE EGUZKITZA, I.** (2008), “Puntuazioaren argi-ilunak” ikastaroa, *Ikasmaterialak eta zuzentze-lana ikastaroari dagokiona*.  
 (Http://www.unibertsitatea.net/otarrea/ikasmaterialak-eta-zuzentze)  
 - (2009), “Tartekien antolaeraz eta puntuazioaz”, *Administrazioa euskaraz*, 64, 13-14.  
<http://www.ivap.euskadi.net/t59aWar/articulosJSP/t59aVerArticulo.do?R01HNoPortal=true&t59aTipoEjemplar=R&t59aSeccion=9&t59aContenido=1&t59aCorrelativo=1&t59aVersion=2&t59aNumEjemplar=64>
- ROSS J.R.** (1970).”On declarative sentences”, in R.A. Jacobs-P.S. Rosenbaum (ed): *Readings in English Transformational Grammar*, Waltham, Mass: Ginn, 222-272.  
 - (1973): “Slifting”, H Gross & M. Halle & Schützenberger, M.P. (ed), *The Formal Analysis of Natural Languages Proceedings of the First International Conference*, Mouton, 133-165.
- ROSSARI, C.** (1990), «Projet pour une typologie des opérations de reformulation », *Cahiers de Linguistique Française*, 11, 345-359.  
 - (1994) *Les opérations de reformulation*, Berne, Peter Lang.
- ROULET, E.** (1987): “Complétude interactive et connecteurs reformulatifs”, *Cahiers de Linguistique Française*, 7, 193-210.  
 - (1991): “Vers une approche modulaire de l’analyse du discours” *Cahiers de Linguistique française*, 12, 53-81.  
 - (1997): “A modular approach to discourse structures”, *Pragmatics*, 7:2, 125-146.  
 - (1998): “Un modelo y un instrumento de análisis de la complejidad de la organización del discurso” in , *I Simposio Internacional de Análisis de discurso*, Madrid, 20-22.
- ROULET, E. et al.** (1987): *L’articulation du discours en français contemporain*, Derne, Lang.
- SADOCK, J.M.** (1974): *Toward a linguistic theory of speech acts*, New York, Academic Press.
- SAÍZ NOEDA B.** (1996-1997): “La dimensión pragmática de la lingüística del texto”, *Estudios de Lingüística*, 303-324.
- SARASOLA, I.** (1982): *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, Donostia, Kutxa.  
 - (1997): *Euskara batuaren ajeak*, Irun, Alberdania.

- (2007): *Euskal Hiztegia*, Donostia, Elkar (2. arg.)
- SARASUA, J.** (1996): *Bi begiratu euskarazko kazetari hizkerari: Gaiari egindako gainbegiratua eta euskarazko kazetaritzaren tradizioko lau kazetatan hitz eta esamoldeen hustuketa kualitatiboa*, E.H.U., (argitaratu gabeko doktore-tesia).
- SCHIMDT, S.** (1978): *Teoría del texto*, Madrid, Cátedra.  
- (1987): "Comprender textos. Interpretar textos", *E.L.U.A.*, 4, 9-32.
- SCHLIEBEN-LANGE:** (1986): *Pragmática lingüística*, Madrid, Gredos.
- SILVA-CORVALÁN, C.** (1996): "Estrategias sintácticas del español hablado", in Thomas Kotschi, Wulf Oestereicher y Klaus Zimmermann (ed.), *El español hablado y la cultura oral en España e Iberoamericana*, Vervuert, Iberoamericana, Madrid. (261-277).
- SITRI, Fr.** (1995): "L'incise: un point d'hétérogénéité dans les échanges entre pairs", *Cahiers du CEDISCOR*, 3, 173-191.
- SPANG, K.** (2005): *Persuasión, fundamentos de retórica*, Pamplona, Eunsa (Ediciones Universidad de Navarra, S A).
- SPERBER, D.** (1984): "Verbal Irony: Pretense or Echoic Mention?", *Journal of Experimental Psychology: General* 113, 130-136.
- SPERBER, D. & WILSON, D.** (1978): "Les ironies comme mentions", *Poétique*, 36, 399-412.  
- (1981): "Irony and the Use-Mention Distinction", in Cole, P., *Radical Pragmatics*, New York, Academic Press, 295-318.  
- (1986): "Sobre la definición de relevancia", *La búsqueda del significado*, Madrid, Ed. L. Valdés Villanueva, 583-598.  
- (1990): "Rhetoric and Relevance", Beuder, J. & D. Wellberg (ed.), *The ends of Rethoric: History, Theory, Practice*, Standford, 140-155.  
- (1994): *La Relevancia*, Madrid, Visor.
- STANTON, C.E.** (1996): "Metadiscourse: The Rhetorical Plane of Text", *Nottingham Working Papers*, 2, Nottingham, Nottingham University.
- STUBBS, M.** (1987): *Análisis del discurso*, Madrid, Alianza Editorial.
- SULEIMAN, S.**, (1977): "The parenthetical Function in A la recherche du temps perdu", *P.M.L.A. (Publications of the Modern Language Assosiation of America)*, 92:2, 458- 470.
- THOMPSON, S. & MULAC A.** (1991): "A quantitative Perspective on the grammaticalization of Epistemic Parentheticals in Englis", in E. Closs Trougott & Bernd Heine (ed.) *Approaches to Grammaticalization*, Vol II, John Benjamins publishing Company, 313-330.
- TONFONI, G.** (1983): *Dalla Linguistica del testo alla teoría testuale*, Milano, Unicopli.
- TORRES SANCHES, M<sup>a</sup>. A.** (1999), *Aproximación pragmática a la ironía verbal*, Cádiz, Servicio de Publicaciones de la Universidad de Cádiz.
- TUSÓN A.** (1991): "Las marcas de la oralidad en la escritura", *Signos. Teoría y práctica de la educación*, 3, 14-19.
- URKIZU, P.** (1998): *Koldo Mitxelenaren euskal gutunak (1951-1984)*, Errenteria, Errenteriako Udala. (<http://www.errenteria.net/es/ficheros/40>).
- URMSON, J.** (1952): "Parenthetical verbs" in *Mind* 61, 480-496. (Berrargitaratua: Charles E. Caton (ed.), 1963, *Philosophy and Ordinary language*, Urbana).
- VANDE KOPPLE, W.** (1985): "Some exploratory Discourse on Metadiscourse", *College Composition and Communication* 36, 82-83.  
- (1988): "Metadiscourse and the Recall of Modality Markers", *Visible Language*, 22, 232-271.
- VAN DIJK, T. A.** (1972): *Some Aspects of Text Grammars*, The Hague, Mouton.  
- (1980): *Texto y contexto. Semántica y pragmática del discurso*, Madrid, Cátedra.  
- (1983): *La ciencia del texto. Un enfoque interdisciplinario*, Barcelona, Paidós.

- (1989): *Estructuras y funciones del discurso*, México, Siglo Veintiuno editores.
- VENDLER, Z.** (1970): "Les performatifs en perspective", *Langages*, 17, 73-90.
- VIGARA TAUSTE, A.M.** (1992): *Morfosintaxis del español coloquial*, Madrid, Gredos.
- (1994): "Comodidad y recurrencia en la organización del discurso coloquial", in *El español coloquial. Actas del I Simposio sobre el análisis del discurso oral*, Almería, 23-25 de noviembre de 1994, Universidad de Almería, 1995 (175-209).
- (2005): *Morfosintaxis del español coloquial: esbozo estilístico* (2. arg.), Madrid, Gredos,
- VILLANUEVA, M.L.** (1998): "Oralidad y escritura: estrategias retóricas de la ficcionalización en el texto de la prensa escrita", in Olivares Vaquero et al., 1998, *Les Chemins du Texte. Tomo II, Traducción y didáctica histórica*, Universidad de Santiago de Compostela, Servicio de Publicaciones.
- VILLARNOVO A. & SANCHEZ, J. F.** (1992): *Discurso, tipos de texto y comunicación*, Nafarroa, Eunsa, Universidad de Navarra.
- VILLARNOVO, A.** (1990), "Coherencia textual: ¿coherencia interna o coherencia externa?" E.L.U.A., 6, 229-239.
- VILLASANTE, L.** (1960): "L. Michelena, Historia de la literatura vasca, Madrid 1960", *Egan* 228-230.
- (1978): "Euskara idatziaren joskera. Euskal idazle zaharren gaitzestea XX. mendean", *FLV*, 325.
- (1988): "Prosazko tradizio sendo bat osatu beharra", *Euskararen auziaz*, Nafarroa, Luis Elizalde saila.
- (1993): "Gernikako euskal jaien oroitzapenetan estilistikazko jardunaldiak", *Euskera*, 36/2, Bilbo, Euskaltzaindia.
- VOGHERÀ M.** (1992): *Sintaxi e intonazione nell'italiano parlato*, Bologna, Il Mulino.
- WALTER ONG, J.** (1982), *Oralidad y escritura. Tecnologías de la palabra*, México, FCE.
- WERLICH, E.** (1976): *A text Grammar of English*, Heidelberg.
- WILLIAMS, J.M.** (1981): *Style: Ten Lessons in Clarity and Grace*, Glenview, Illinois, Scott, Foresman and Co.
- WUNDERLI, P.** (1982). "Au sujet de l'intonation en français: la parenthèse en position médiane", *Travaux de Linguistique et de Littérature*, XX, 1, Strasbourg, Klincksieck, 233-270.
- (1987): "Les séquences extraposées", in Wunderli, P., *L'intonation des séquences extraposées en français*, Tübingen, Gunter Narr Verlag, 33-41.
- ZABALA I. (koord.)**, (1996): *Testu-loturarako baliabideak: Euskara teknikoa*, Bilbo, Argitalpen Zerbitzua Euskal Herriko Unibertsitatea.
- (2000): "Hitz-hurrenkera euskara tekniko-zientifikoan", *Ekaia*, 12.143-166.
- ZABALA, I., & ODRIOZOLA, J. C.** (1990): "Komaren erabilera", *Senez*, 1-2, 101-114.
- (1992): *Idazkera Teknikoa I. Hitz ordena, galdegaia eta komaren erabilera*, Bilbo, EHUKo Argitarapen Zerbitzua.
- ZADAVIL, B.** (1968): "Medios expresivos de la categoría de la modalidad en español", *Iberoamérica praguensia*, II, 47-88.
- ZAVALA, I. M.** (1996): *Escuchar a Bajtín*, Barcelona, Montesinos.
- ZAY, F.** (1995): "Notes sur l'interprétation des expressions référentielles dans les parenthèses", *Travaux neuchâtelois de linguistique*, 23, 203-223.
- ZIV Y.** (1985): "Parentheticals and functional Grammar" in A.M. Bolkestein et al. (ed.), *Syntax and Pragmatics in Functional Grammar*, Dordrecht, Foris, 181-199.
- ZUBIMENDI, J. R.** (1995): *Jokaera-liburua: euskara, kultura, estiloa eta komunikazioa*, Nafarroa, Sendoa.

-(1997), “Eskarmentu handia dugu, pontifikatzeko asmorik ez”, *Argia*, 1997-VII-15.

-(2004): *Ortotipografia: estilo-liburuaren lehen atala*. Gasteiz: Ikasmaterialen Aholku Batzordea-EuskoJaurlaritza.

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu\\_5490](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu_5490)

**ZUBIMENDI, J. R. & Esnal, P.** (1993): *Idazkera-liburua*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitarapen Zerbitzua.

**ZUBIRI, I. & ZUBIRI E.** (1995): *Euskal Gramatika Osoa*, Bilbo, Didaktiker.

CORPUSA<sup>1</sup>

## A TIPOA

## MODALITATE ALDAKETA

- 1- Baina kopet harro ez direnek (**ez garenek?**) ez dute damu izango ikustera joana. (ZIN: 124).
- 2- Nabari zaio ez dela gaia zenbaiten (**askoren edo gutxi batzuen?**) gogoko izango eta hala ere, edo horrexegatik beragatik, batere beldur eta kupidarik gabe azaldu nahi luke. (ZIN: 145).
- 3- “Bera Odise illaren gudaontzien jabe geratu zan gero, ta orregaitik Ayas´ek bere burua ito zun”. (“Bera”, gezurra badirudi ere, Odise da, eta hila Akile; “gudaontziak”, armak dituzu; Ayasek, berriz, Sofoklesek dioenez, ezpataz ito zuen bere burua) Troar´ek itxumustuan erasartu zuten zaldia...ta danak erri-barrura sarturik, egundoko lepoketa (itoketa) egin zuten”. (**Era-sartu? Ez ote dugu euskaldun guztiok “sar-erazi” esaten? Eta noiz ezkeru ito dezake inor burni edo tupiki zorrotzak?** ). (LIB I: 69).
- 4-5- Akamenon Mukene-urira elduala, bere emazte Klitaimnestere ta Aigista´k asmo batez erail zuten”. (**Zenbat Agamenon ziren heldu ahala hiltzeko?**) “Paris´ek sagarra Apododite´ri eman zion, norbera auzian ederren autetsi zuelako”. (**“Norbera”, nor da “norbera” hori?**). (LIB I: 69-70).
- 6- Inoiz edo behin —gero eta hobeto gabiltzala— egiazko Garoa-ren oroitzapena bera galduko balitz ere (**zer esango lukete orduan kritiko bihurriek?**), oraingo inausaldian baztertu diren abarrak jaso nahi genituzke *Egan*-en. (LIB I: 80).
- 7- Eta berak dakien bezain zehatz eta osotoro itzuli du, izena aldatu halere (**bidez ala premiarik gabe?**). (LIB I: 127).
- 8- Hemen, egia esan, bideak zabalik zeuden, baina, euskararen truk beren ametsak eman nahi dizkiguten gramatikariaren axolagabekeria batetik eta idazleen lasakeria bestetik (**ba ote dago nork bere gogara, antzora, eta moldera egitea baino errezagorik?**), aspaldi josi zitzaigun otez eta elorritz. (LIB I: 128-129).
- 9- Bagenituen lehen euskaraz sasi-jakintsuak, sasi-letraduak eta (**zergatik ez esan?**) sasi-kumeak; orain berriz, lehengoan gain, sasi-absolutuak, sasi-helburuak, sasi-kezkak, sasi-pakeak eta nik al dakit beste zenbait sasi-gauza . (LIB I: 139).
- 10- Honenbestez esana dago, noski, ez naizela aurrezaleegia, baizik-eta atzerazale (**ez ote da izan de Gaulle aipatzea nahikoa?**), geldizale edo astiro ibilzale horietakoa. (LIB I: 141).
- 11- Zer arraiotarako behar du euskaldun berriak jakin nola esaten diren “apogeo” eta “Perigeo” (**Nola esaten diren?**). Bada ordu gure egitekoari lot gakizkion (euskara irakastea bada, ahalik ongien eta errazen irakasteari), hodeietatik apur batez jetxiaz. (LIB II: 49).
- 12- Ez dira hemen ikusten ez gerraren gorabehera handiak, ezta aurkitzen ere agintari eta buruzagien asmo eta usteen berririk. Bada, ordea, besterik, Piralak ez dakarrenik: egun hemen eta bihar han, nola eta zertarako ez dakiela gehienetan, dabilen edo darabilten soldaduaeren nekeak, nahigabeak, usteak, pozak eta damuak. Aspaldidanik ikasia dugu (**Stendhal-en La Chartreuse de Parme-z gero?**) ez dutela elkarren

---

<sup>1</sup>Corpuseko adibideak biltzeko formalki bereizi ditugun TIPOETAN oinarritu gara. Adibide berean enuntziatu parentetiko bat baino gehiago egon daitekeenez, adibide bera sail ezberdinetan agertzea zilegi da eta letrakera lodiz paratu dugu sail jakinari dagokiona.



antz handirik historilariaren irudi zabal apainek eta burrukan sartua dagoen txingurri bakoitzak bere leiho meharretik ikusten duenak. (LIB II: 55).

13- Haiek baino hobeak eta dohatsuagoak ote gara, ordea, horrenbestez? eta, zinema artea denez gero — **zazpigarrena?**—, gure arte-lanak ederragoak ote haienak baino? (ZIN: 160).

14- Eta azkenean, behar bezala, onek daramate saria, diruaren ordeztantzia garbia besterik ez bada ere. Izan ere — **nork ukatuko?**— ez omen da aberastasun hoberik. (ZIN: 167).

15-16- Inprenta hutsak badira. Bat edo beste ipiniko dut hemen, irakurlearentzat irrixtakorrak izan daitezkeelakoan, neretzat bezala: Gorputz-egieraz (higieraz “e motu corporis”, 20), bortatzen (bortxatzen, 28), deabruaren xedea (xedera “laquei diaboli”, 60), entzuten zintzo billa nai (etzuten, 105), berenaga (berengana, 111) etzezakela egirik utzi (atzi, 117), gogoen atean (gogoematean, 118), lagunak (legunak, 121), ni aientzat niñedukan au (aintzat “quem non parvi penderet”, 147) aitortzea zindutan (aitortzen, 158), Itz zula eta edaten (**jaten? “quia manducavit eta bibit”, 178, latina ez dago osorik emana**), Eliza bete oi zatzaion (zitzaion, 184), txeko (etxeko, 189), Poztitian (pontitian, 195), ezaliko (**ezarriko? “ponitis”, 233, Eudi (Euodi, 236), itzuli zintzan (nintzan, 264)**), ateratzen dituk (ditut, 254), bera edukitzeke (idukitzeko “ad habendum se ipsum”, 255), *deudua* (dendua, 264), irrikuz (irriskuz, 289), eten oi zagun (zaigun, 290). (LIB I: 78).

17-18-19- Hona hemen batzu: zortzi konfiteruak (**25. or., zortzi konfitero ta?**), Lonjinos´ek auxe zion (28.or., au zion), ez al-daiteken (31. or) ez al-akiken-en ordezt (hurrengo etzala lizentzi entzun izan dut), abillidade gutxi dedala/ez esan iñori (32, daukanik behar luke), ezur igarrik austen zailla duk pixka bat bereraxeago (zaillak ttuk, zailla´ituk), Ni ezazu ibiltzen (35, enazu), panparroi pasatu zan ( 42, panparroi pasa zuten, “iru komertziante” baitziren), berari tira alde (49, dale da, ez alde), inbiriya nork ditu (61. inbiriya nork du, edo inbiriya nork ttu gehienez ere), barrurdia dirudi (85. basurdia), eztu galtziak merezi (95. galtzia), Iru leyua, Trinidadea (103. Iru leyua), bestela biziya pena (**104, ez ote da biziyan pena?**), eskatzen ditut zeorri (107. dizut) zortzi Ministro abilla (112. abiya), kartzela baneta jarri (114. banetan edo banatan), eriotzatik gabe (119. eriotzarik), Pilatos´ek sententziya (**120, Pilato´k ote?: silaba bat gehiegi baitu bestela**), oyeke danagatik (12, oyeke danagatik edo danagatik), munduari nai ziozkat (125, diozkat), eguneko esatea (131, egunero), Zugaz akordatzen naiz (132, zutaz). Hemen ibai guziya dioen lekuan (90) Makazagarenak erri danak dio, eta bere kutizi txarretan-en ordezt (92) bere guziyo txarretan, biziyo txarretan alegia.(LIB I: 107).

20- Esate baterako, jainko-jainkosak h-z jositako hizkera batean (**ai, behar den lekuan baleude!**) mintzatzen dira, eta gizon hilkorak halako Bizkai-usai arin bat darion beste batean. (LIB I:68-69).

21- Direnak direla, garai hartako aztarna aurpegian daramate (“**O Egiputzua glorioso!**”), eta nork esango du gure oraingo hau baino kaxkarragagoa zenik? (LIB II: 81).

22- Ongi merezia dute “Arantzazuko prailleek” aipamen berezi bat (...) Gainerako laguntzaileen izenak ere banan-banan emango nituzke, lekuri banu. Oker ez banabil, bi horiek barrenen ditugula, guztira (**o Oteiza adiskidea!**) hamairu dira. (LIB II: 101).

23- Clark Gable´ren kaskoa —**ai, gurearen gisara!**— gero eta urdinago ageri dela ere esango nizueke, baina hori badakizue honez gero, nik bezain ongi. (ZIN: 141).

24- Eta azken urteotan euskal gaietan egin ditugun aurrerapenez miretsirik baldin bagaude —**ai, aurrera egin bagenitu beti aurrerapen horiek!**—, ez dago ahaztutzerik aurrerapen horiek, gaurko izaerak eta egoerak, aldi igaroetan dutela erroa eta oinarria, batez ere oraindik orain, atzo esan dezakegu, euskaraz mintzatzen, hitz lauz nahiz neurtuz, ahalegindu ziren idazle eta bertsolariengan. (LIB II: 52).

25-26- Goramen bereziak merezi ditu euskal aditzaren berezitasunak bere lekuan utzi dituelako, euskalari gorenaren iritziak gorabehera (eta ez ziren zoritxarrez euskaldun berriak): bat da Olabiderentzat zatzaikit

(**zu!**, **ez zuek**) eta bestea, zein bestea ere, zakizkit (**zu! berriz ere!**). (LIB I: 119).

27- Euskal esaldiari buruz aspaldi azaldu zituen iritzietan aurki daitezke agian labor-behar honen erroak (**ikus RIEV 9, 9 eta hur.**): euskal esaldiak ez omen du zati berezirik, ez geldilekurik; gora eta gora omen doa doinu-gailurreraino, handik gainbehera, arnaserik hartu gabe, amiltzeko. (LIB I: 77).

28- Ohartxo bat. Euskaraz ere *Juslapeña* agertzen da 14 garren orrialdeko oharrean, *Txulapain*-en ordeztan (**ik. A. Irigaray, Euskerak, 1956, I, 46gn orrialdean**). (LIB I:104).

29- Hemen aipatu nuen *Orbelak*-en ondoren (**ikus iazko EGAN, 99-100 orrialdeetan**), laster irten da Arantzibia-ren bigarren olerki liburua. (LIB I: 142).

30- Eta Islandiako bazterretan 1600 inguruan entzuten zuten euskara (**ikus N. G. H. Deen, Glossaria duo Vasco-Islandica, Amsterdam, 1937**), gipuzkoarrak ere han gehiegixko nabarmendu zirela dakigularik, Lapurdikoa zen, dudarik gabe. (LIB II: 57).

31- Dirudienez, ez baitut kontatu, 255 lerro utzi nizkion Larramendiri, “cuya obra principal es un diccionario vasco-español (**atzeko aurtera irakur beza irakurleak**) plagado de aberraciones”, eta 38 Bilintxi, beste zenbaiten artean. (LIB II: 83).

32- lekuko dugu 1958ko “Txomin Agirre saria” eraman zuen *Araibar zalduna* (**ikus aurtengo EGAN, 87, gn. orrialdean**) eta, hori aski ez bazen, iaz saritu duten *Batetik bestera* hau. (LIB II: 91).

33- Eta ezaguna dugu batez ere Aita Villasantek duela zenbait urte (**ikus 1961-ko EGAN, 259-260 orrialdeetan**), haren gogoeta sakonak eta esaera zorrotzak ahotik paperera aldatuaz, bildu zuen *Aitonaren uzta* joria dela bitarte. (LIB II: 124).

34- Aspaldi ez duela (**ikus EGAN 1962, 309-310 orr.**) Aita Zavalak Txirrita bertsolariari jaso zion bezain oroitarri iraunkorra eraiki dio orain beste bertsolari handi bati: Pello Errotari. (LIB II: 129).

35- Proust eta Kaffka-zale amorratuak —**oraingoagoak ixil ditzagun**— hobeto dute, beharbada, orrialde horiek irakurtzen ez hastea, galbidean gerta ez daitezen. (LIB II: 82).

36- Liburua egiteko gaien bila 1970-eko udan hasi zenean, Sanchez Carrion-ek, ikaslea zelarrik, ozta-ozta zuen bukatua lehendabiziko urtea, komunitateko —**hitzaren itsusia barka**— lehendabiziko urtea. (LIB II: 156).

## ZUZENEKO ESTILOA

37- Hitz beldurgarria, euskaldunen artean ( “**Damua garaiz**” eta) guztiz ezaguna. (ZIN: 136).

38-39- Zortzi orduko lana gura genduke (**Moxolok: Askotxo dek, baño, tira, nahi duanak egin dezala**) oraiñ artean baño aloger obia biar dogu (**Denak: Ori, ori! Betor dirua! Venga diñero!**). (LIB I: 80).

40- Juduen profetak kristautasunaren aitzindariak dira guretzat, erlijio samurrago baten bideak zabaldu zituztenak. Beste zerbait ziren, ordea, garai hartako askorentzat eta batez ere orduko *beati possidentes* zirentzat: nolabaiteko bizimodu nabarmena daramaten arlote alprojak (“**Hoa, har ezak lizunkeriazko emaztea eta sor itzak lizunkeriazko seme-alabak**”), oiuhu eta garraxi herriz-herri dabiltzan bazter nahastaileak. (LIB II: 117).

- 41- Kolore bizirik ere ez, eguzkiaren basoko harrigarritzko ibilerak —“**osto-pilo eta izar izunak habe**”— eta euriaren etengabeko emana begietaratzeko. (ZIN: 130).
- 42- Eseriko dira orduan kai-ondoan dauden mahai luzeetan, nork bere botila ardoa aurrean, eta zintzurra urratu beharrean ekingo diote kantuari: “Anteron txamarrotia —**txikarren bigotia**— Arrese´k ei dauko...” (ZIN: 132).
- 43- Sinestarazten diote azkenean martiriak berak ere —“**candidatus martyrum exercitus**”— bideratuko zaizkiola, burrukarako gertu. (ZIN: 142).
- 44- Horrelako harrokeriatan ibiliko zitzaizuen Aias Oileu bat —“**Onik irtengo nauk, baita jainkoek besterik nahi badute ere**”— baina ez Ulisse. (ZIN: 147).
- 45- Azkenik —**last, but not least**—, aipa dezadan lehen argitaraldian hainbeste bider irakurria dugun Orixeren hitzaurrea. (LIB I: 66).
- 46- Ikasbide onik bada liburu honetan euskal irakurle eta idazleentzat, euskalariantzat eta, **last but not least**, zenbait euskal gramatikalarientzat. (LIB I: 130).
- 47- Hau da, ez duela aski betiko baiezkoa aritzearekin, hango gauza eder eta atseginak —**zorioneko amerikar bizibidea**— ezatarria urratu arte gozatzearekin. (ZIN: 149).
- 48- Euskara ez da nerea ez zurea: guziok erdizka aurrekoengandik hartu dugun ondasun ederra da. Eta ez du inork bere-berea balu bezala nahi duen gisara erabiltzeko —**utendi et abutendi**— eskubide osorik. (LIB I: 71).
- 49- Neronen bihotz gertariak, bidenabar ikusi ditudan huskeriak, urre gorri aberats dira neure gogoan, eta sarritan murgilduko naiz atseginez, laino tristetan bilduak agertzen bazaizkit ere —**forsam eta haec olim meminisse iuvabit**—, horien oroitzapenean. (LIB II: 141).
- 50- Hauek erdaraz agertzen dira lehenbizi (**erdara zuzenean, dio egileak**), euskal erdaraz gero (erdal hitzak euskal ordenan antolatutak) eta euskaraz azkenik. (LIB I: 98).
- 51- Gainerako euskaldunontzat hain berezia duen Bizkai euskaraz, Lekeitioko hitz-esaera jatorretan **blei (ut dicunt)** ageri den euskaraz, azaldu digu bada Erkiagak Lekeitioren edertasuna. (LIB I: 100).
- 52- Erliijioan bertan askozaz gehiago zor zion (**berak aitortua**) Gandhik Kristautasunari, edozein europar nabarmenek budismoari baino. (LIB I: 141).
- 53- Badakit liburu honen egilea, lehen iturburuari bagagozkio behintzat, ez dela bera, Gezaltzako aitona baizik (“**denak izan dira bere ezpainetatik jaulki bezela artuak**” **dio Villasantek**), baina esanak eta bertsoetarik asko haizeak eramango zituzkeen, “sekretario moduan” lagundu dionak lagundu ez balio. (LIB II: 71).
- 54- “Harrigarria da —**dio, gutxi gorabehera, maiz aipatzen dudan Donostiako kritiko erne eta trebe batek**— zein zuzen dabilen film hau gertatutakoen ondoan, zein zehazkiro biztu duen Douglas Sirk´ek aldi joana. (ZIN: 142).
- 55- “Gainalde zurituak nahikoa erakutsi eta goraiatu ditugu —**esan du berekiko**—, goazen behin zoko ilunak miratzera”. (ZIN: 145).
- 56- “Ba-duzu eskuetan, Euzkalduna! —**dio**—, “nai izan ezkerro, beñola izan dan Poemarik onena: ILIASena (Iliada)”. (LIB I: 67).

57- Bestetan ikusi ez dudana Olabidegan dakust: *Mari ez ote zeritzak onen ama...? "Amak behar luke, nik uste "* —**dio Zaitegi Jaunak Euzko-Gogoa, 1958, 603 or.**—: "ama irart-okerra bide da". (LIB I: 122).

58- Liburutxo hau —**dio azalean**— "bertako seme batek Ipiña'tarrei bihotzez eskaintzen deusie". (LIB I: 125).

59- Bion kezka ere ez da berdina: "lehenekoan aukeratu-bearra ba zan larrimiñaren iturria" —**dio hitzaurreak**—, "oraingo ontan igarokortasunaren oiñazeak erdibitzen du Leartzaren biotza". (LIB I: 137).

60- "Sorkaldeko erlijioak" —**dio hitzaurreak**— "oso lilura sakona piztutzen dute Europako gizonarengan". (LIB I: 139).

61- "Berak eraman du bertsoarritza" —**dio Aita Iturriak**— "periodiku eta radioetara". (LIB I: 144).

62- "Al P. Zabala-Arana y al P. Urrutia —**dio aurreraxeago kritikariak**—, que entre otros trabajos muy meritorios se preocuparon de preparar libros de texto en Euzkera para las escuelas vascas, ni se les cita en la obra; ah! pero si a "Vilinch", con 38 líneas". (LIB II: 83).

63- "Lehenago, gure Euskalerrian —**dio egileak**—, fedea gorde izan da giro egoki batek eusten ziolako". (LIB II: 88).

64- "Bertsolari gutxi dago" —**dio egileak**—, "eta agian inor ere ez, onelako itzala utzi duenik..." (LIB II: 98).

65- "Nekazari haurrentzat idatziak dira, ordea" —**esango du beharbada norbaitek**—, "eta orain kaletarrak dira gehienbat, ez baserritarrak, mota horretako irakurgaien beharrean daudenak". (LIB II: 112).

66- "Michel Garicoitzen eta bertze askoren bertutea gorestea ez askiz —**dio Lafittek**—, liburuaren egileak nahi ukan du irakurtzalea lagundu dohain berez jabetzen, eta horra zergatik bertute mota bakotcha barna danik ikertua den". (LIB II: 116).

67- "Bertso oyek —**dio Aita Zavalak**— Euskalerra guzira zabaldu ziran..." (LIB II: 122).

68- "Gure erriak, Bizkaiak" —**dio sarreran Kerexeta jaunak**— "ez dau euki orain arte Aita Santuak aitutzen dauen Meza-liburu ori; ..." (LIB II: 127).

69- Irakurle landuak, ordea —**euskal gaietan landuak, diot**—, nekerik gabe eta atseginez irakurriko ditu orrialde horiek. (LIB II: 127).

70- "Lau liburu auek" —**dio aita Zavalak**— "gordeko al dute Pello Errotaren izena gure artean betiko!" Bai, noski, eta ez da bide hoberik horretarako. (LIB II: 130).

71- "Begira, **esaten ziguten**, ez du horrek besteen gisa apainduri aberatsen beharrik. (ZIN: 135).

72- Badugu denok, **esaten digu Cayattek**, bai gerok ere, zer ikusirik auzi horretan. (ZIN: 138-139).

73- “Ez bazerate haurtxo bihurtzen, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan”, **esan zuen Norbaitek**. (ZIN: 141).

74- Buruz dakigun ipui honek, haurtxorik beldurtiena asaldatuko ez duten Robinsonen ibilerak, **berak esanda**, uki gaitzake. (ZIN: 153).

75- Behin, aldizkari honetan (EGAN 1957, 133 or.), Axularren alde onez eta txarrez mintzatu zitzaigun A. Mujika: arriskubide izan daiteke, **zioen**, euskal gaietan ongia eta gaizkia ezagutzeko adinbat jakituri ez dutenentzat. (LIB I: 121).

76- Ei tékna toû Abraám este, tà érga toû Abraám epoeiíte (**Vulgatak facite dio**). (LIB I: 118).

#### ADITZA (AGERIAN EDO ELIDITUTA) DARAMAN ENUNTZIATUA

77- “Bera Odise illaren gudaontzien jabe geratu zan gero, ta orregaitik Ayas´ek bere burua ito zun”. (“Bera”, **gezurra badirudi ere, Odise da, eta hila Akile; “gudaontziak”, armak dituzu; Ayasek, berriz, Sofoklese dioenez, ezpatatz ito zuen bere burua**) Troar´ek itxumustuan erasartu zuten zaldia...ta danak erri-barrura sarturik, egundoko lepoketa (itoketa) egin zuten”. (Era-sartu? Ez ote dugu euskaldun guztiok “sar-erazi” esaten? Eta noiz ezker o ito dezake inor burni edo tupiki zorrotzak? ). (LIB I: 69).

78- Liburutegietan noizean behin ikusi ohi ditugun *Aprenda V. el inglés en siete dias* eta horrelakoen gisara egina dirudi egile izenik gabe agertu den liburu koxkor honek (**164 orrialde baditu**), honelaxe baitio azalean: “Método sencillo y agradable para iniciarse en el aprendizaje de la lengua más antigua de Occidente”. (LIB I: 109).

79- Gai aukeraz zerbait esan daiteke (**arrantzari hiru hizketaldi ematea gehiegixko dirudi**), baina batez ere hor agertzen diren hitz-esaerak ez dira jatorregiak, maiz aski ezta dotoreegiak ere. (LIB I: 109).

80- Nik (**izenordain higuigarri hau ezinbestean darabilt**) lehenago ezagutu nuen Olabide (Itun berriko Olabide, jakina) besteak baino (LIB I: 112).

81- Gainerakoan, hitzez ugari, **ugariegitxo ere bai aukeran**, irakurleak ez baikaude horrelako aberastasunera ohituak. (42).

82- Ez dira berrikeria hauek Olabidek asmatuak, ezta Olabidek bakarrik erabiliak (**aberên eta antzekoak ez dira gainera Itun berria-n agertzen**), berrikeriak dira horratik: beharrik gabe, alegia, eta batasunaren eta euskal irakurlearen kaltean sorturikako era berriak, Altubek argi eta garbi adierazi zuen legez. (LIB I: 113).

83- *Emakume bat an ikusi nun birao-izenez kunkuin...*, ta eskuan urrezko ontzi bat iguingarriz kunkuin (Ap. 17, 3-4): Künküin “repleto” (*blei*, alegia) Zuberoan erabiltzen omen da (**Larrasquetek Künküño “(arbre) surchargé de fruits” dakar**). *Ekalo* “atmida Kapnoû vaporem fumi” (Act. 2, 19-loel 3, 3), *kelaino*, *kemeta* edo *kemordo* alegia, Baztangoa omen da. (LIB I: 114).

84- Aurrenekoari (*ekera*-ri alegia) dagokionez, norknahi daki *egutera* askozaz zabalduagoa dagoela gure artean *ekera* baino: hau (**Azkuek du berriz hitza**) Ezkiogan erabiltzen omen dute. (LIB I: 115).

85- Ez zuen *zeape*, *ziape* hartu nahi izan *sinapi* (*sinapis*) itzultzeko, latinetikakoa zela igerri ziolako nonbait, eta *yeben* (*yeben-azia*) sartu zuen horren lekuan. Baina *yeben* (***xeben* behar luke izan**) ez da euskal hitza eta horixe esan nahi dut, ez dela euskal hitza: (LIB I: 115).

- 86- Garoa berbera —**antzeko zerbait baizik**— ez delarik ere. (LIB I: 79).
- 87- Gertakariak kontatzen mutila izan da beti (**ez dago gure Patroi Aundia-ri begiratu besterik**) eta bizi eta argiro kontatzen duena euskara arraz, laster, malkarrik gabeko batean esaten du. (LIB I: 123).
- 88- Badirudi gainera (**besteregangandik hartu dut berri hau**) liburu hau 1885ean Tolosan argitara baino lehen agertu zela, Tolosan bertan, 1868an , beste “Santa Genovevaren vicitza” bat, “pertsonea prestu guztientzat, baña berezkiro amakin beren seme alabentzat ere egokia”. (LIB II: 43).
- 89- Sugearen antzekoena, Basurdi (**Barojarena bezala, ez da Basurde´raino heltzen**). (LIB II: 46).
- 90- Ez du ikusiko, beharbada, bi liburu hauen launa sailen taxua zernola sortu den (**lorategirik gehienak bestela bereiziak agertu ohi dira, abezez ala mendeka**), baina horrek ez du axola handirik horiek irakurtzen har dezakeen atseginerako. (LIB II: 144).
- 91- Ez du beraz hemen zuzendariak —**bestelako fimetara ohituak genduzkan J. L. Mankiewicz´ek**— axaleko zehaztasunaren bila ibili beharrik, “Quo vadis?” batean bezala. (ZIN: 125).
- 92- Neurritz gaineko gizona, jenioa —**hitz hori hamaika aldiz entzuna dugu**—, ez da besteen legetara makurtzeko sortua. (ZIN: 136).
- 93- Ez geroi —**gogoragoak ikusi izan dira**— gerta dakigukeelako bakarrik. Ez; ez delako aski gainera gizon bati, urkatzaileari, erru guztia egozte eta hura gizartetik baztertzea. (ZIN: 139).
- 94- Ez ote genuen ikusi nola joan zen “Monsieur Vincent” —**ez zen film txarra**— tximistak egiten gure artetik, karitateari buruz zalaparta gehiegixto ateratzen zuelako edo, gure kritikak, edozein “Sor Angélica” edo Madre Alegria” laudorioz betetzen duen kritika horrek, txintik esan gabe? (ZIN: 139).
- 95- Robert Aldrich´ek —**Venezian bigarren Zilarrezko Lehoia eraman du aurten**— hainbestean moldatzen ditu irudi moldakaitzak, ofiziale ikasiari dagokionez. (ZIN: 142-143).
- 96- “Azkenean —**besteren hitzak hartuko ditugu ahoan**—, ikusia zegoanez, Ben Trane zintzoak hiltzen du Joseph Erin bihurria”. (ZIN: 143).
- 97- Ez dute gaizki zinematatu —**Italiarren eskua ageri da horretan**— zaharrak ondu duen ipui eder hau. (ZIN: 146).
- 98- Ulysseren ibilerek —**adierazi nahi digute ia irudi bakoitzean**— erakusten digutena hauxe da: jainko etsaiei, Izadiaren indar itsuei alegia, gogor egitean dago gizonaren handitasuna. (ZIN: 147).
- 99- Eta atertu gabe aditzera ematen diguten irakaspen honetaz jabetu ez bagina ere —**ez digu guzoi argitasun berbera eman Jainkoak: zinemagile izango ginatete bestela zinema-ikusle izan beharrean**—, astiro azaltzen digute azkenean “De rerum natura”-tik hartua dirudien hitzalditxo baten bidez. (ZIN: 147).
- 100- Zenbaitek alde hauetan —**Ganivet eta Sánchez Mazas datozkit orain gogora**— Robinson beheartzeari ekin dio, bigarren mailako giza-sinbolua, merkatarien neurrikoa, dela eta. (ZIN: 153).
- 101- Dan O´Herlihy´k —**lehen aldiz aditzen dut bere izena**— prestutasun berezia eman dio jantzi duen pertsonari. (ZIN: 153).
- 102- Hori sortzeko batu dira, ezkontzaz ala sasi-ezkontzaz ez dakigu, Italiako edertasuna —**Gina Lollobrigida deritza**— eta Ipar Ameriketako trebetasuna, Robert Z. Leonard izenekoa, agi danean. (ZIN: 157).

- 103- Gerok ere —**zerbait jakiteko zaleturik geunden aspaldian**— ez ditugu gogo gaiztoz ikusi. (ZIN: 160).
- 104- Ez da, labur, Sinclair Lewis'en "Main Street" —**eztena ere falta zaio**—, baina badu guretzat gisa horretako zerbait. (ZIN: 164).
- 105- Dassin bera ere —**badakigu guztiok zergatik bidali zuten Ameriketatik**— ez da ausartu langile iaio eta adoretzu hauei zor zitzaien neke-saria ematera. (ZIN: 186).
- 106- Espaini aldean behintzat —**bestetan ez dakit**— bekaitzez begiratzen diote gai hauetan hasten denari, elizgizona ez baldin bada, eta ez dut, ahal baldin badut, neure burua auzitegitan ikusteko gogorik. (LIB I: 96).
- 107- Besteak —**ez dakit guztiak ohartu diren**— gai ezaguna du, eta gertatua gainera: Tombstone'ko inguruan Earp eta Crantondarrek tiroka egin zuten kontu-garbitzea. (ZIN: 190).
- 108- Aski izango omen da, diotenez, norbaitek —**ez dakigu nork**— botoi kaxkar bat estutzea edo urrutizkin bat eskuetan hartzea. (ZIN: 194).
- 109- Ez dut horrenbestez esan nahi Agirrek ez zuela barrena begiratzen. Gizonaren bihotzeko izkutuen berri ere bazekien —**ez zuen lanbide txarra horretarako**—, baina Pereda eta Rochel'en gisa, sortzen zituen gizakiek ez zuten gaurko nobeletan ageri diren zenbaitek adina azpil, bihurgune eta zoko ilun. (LIB I: 43).
- 110- Uzta ugaria izan da oraingoa: uste baino ugariagoa. Hamaika nobela bidali dituzte sariketara —**hamaika esan nahi dut, hamar eta bat gehiago**—, itzuliak eta asmatuak. (LIB I: 49).
- 111- Egia ere da horratik inguruko baserritarrek, berberak harri eta belarri eginik aitortzen digunez, ez ziotela haren euskal saioei halako harrera ona egiten —**parre ere egiten omen zuten lotsagabe haiek**—, baina ez zen horregatik asko larritu. (LIB I: 52).
- 112- Bere gizakiek diotena, honek erakutsi die esaten, ez baitira sarri bere baitatik mintzatzeko eta mugitzeko gauza. Zein euskal sukaldetan —**ez naiz kulpitoez ari**— entzun da sekula, adibidez, 100gn. orrialdean Eñaut Zaharrak emazteari zuzentzen dion bezalako predikurik? (LIB I: 57).
- 113- Poliki-poliki hasten da Maisu Juan ikusten —**horrelako zerbait gertatu bide zitzaion Sokratesekin jarduten zutenei**— erdi ustela zela zuen jakin-ustea. (LIB I: 72).
- 114- Poliki-poliki dihoakio Peru erakusten ez euskara bakarrik —**euskaltzalea zen Mogel, inor izan bada, baina ez zuen uste euskara berez ezer denik, zerbaitetarako ez bada**—, beste gauza asko baizik euskararen bitartez: izenak eta utzi eta barrengo izanari begira dagoen egiazko jakitea, lanbide berezien neke eta izkutuak, Bizkaitar ez diren euskaldunen euskalduntasuna, benetako kristautasuna eta zinetako gizalegea. (LIB I: 72).
- 115- Txalo eta laudorio ugari merezi dute bai argitaratze-lana bere gain hartu duen Aita Prantziskotarrak —**ixilpean gorde du damurik bere burua**— bai Arantzazuko Argitaldaria. (LIB I: 78).
- 116- "Itunbe" izengoitiaren azpian izkutatu diren itzultzaileak —**ez da gehiegi harritzeko**— hiru frantziskotar gazte dira, lehen ere ongi ezagunak euskal lanetan: Iturria'tar Joseba, Unzurrunzaga'tar Imanol eta Berasaluze'tar Sabin. (LIB I: 83).
- 117- Ez dut esango *Egunkari* honen azken zatia baino ederragorik ez dela ondu euskaraz — **belles-lettres direlakoetatik hagitz urruti gabiltza hemen**—, ezta era gai garaiagorik ez dela ukitu. (LIB I: 90).

118- Ba ote dakigu, horratik, zer-nolakoa den hobetu beharrean ari garen hizkera? Neri behintzat — **ikasiagoengatik ez naiz ari**— deus ere ez dakidala iruditzen zait Ibar-en itzulpen hau irakurri ondoren. (LIB I: 103).

119- Argitasunik nahi duenak jo beza Lafitte jaunak, *Herria* astekarian aurrenik eta liburuxka batean gero —**horren berria aurreraxeago ikus dezakezu**— euskal itzulpen zahar eta berriei buruz argitara berria duen idazlan jakintsura. (LIB I: 112).

120- “Zanpatuta zeukan Leturia” —**irakurtzen dugu azken liburuaren hitzaurrean**— “aukeratubear”aren larritasunak. (LIB I: 137).

121- Diskoak —**hizlarien izenik ez dut aipatuko, norbait ixilpean uzteko beldurrez**— atseginez beterik entzungo ditu edozein euskaldunek. (LIB II: 73).

122- Honako liburu hau ez da haren zatitxo bat besterik —**zein zati, izenak aski adierazten du**—, Aingeru Irigarayk ederki itzulia eta osatua. (LIB II: 86).

123-Meditazio gai egokia dauka, “Auspoa”-k bildu eta berriz argitara dituen orrialde hoetan, geroztik honako irabazia izan ote den guztia jakin nahi duenak. “Goazen aurrera” —**izan daiteke bilduma honen ikurritza**—, “baina lehengoaz ahaztu gabe”, aldi igaroan baititu sustraiak orainak eta geroak. (LIB II: 110).

124- Orain bilduak agertzen diren bertsoetan ez dago beharbada poesia gehiagorik —**neurria bera ere ez zuen, dirudienez, txit zuzen erabiltzen beti Imazek**—, baina bai garai luze bateko kondaira, eta ez kondaira hotza eta lehorra, bizia eta umoa baizik, gertakarien kontaketa iritzien beroa eransten dion herri periodismua. (LIB II: 110).

125- Hau guztia ez ote da gai egokia garai horretako kondaira, baina barrengoa, ez azalekoa —**Unamunok “intrahistoria” deitzen zuen hura edo**—, egin nahi duenarentzat? (LIB II: 111).

126- Liburu bakana da gure artean L.M. Mujikaren hau, euskaraz eta erdaraz egina —**erdal itzulpena aldamenean darama euskal testuak**—, bai darabilen gaiagatik, bai gaia darabilen eragatik. (LIB II: 140).

127- Euskararen hango egoera —**bagenuen susmo**— ez da pozgarria, baina nabari da egileari guri penagarri zaiola. (LIB II: 156).

128- Neroni ere, **aitortzen dut**, horietakoa nauzu. (ZIN: 123).

129- Kritikak ere, **Donostiako kritikaz ari naiz**, nahigabetsua zelako edo, ez du deus askorik esan. (ZIN: 139).

130- Egia da, **aitor dezagun lehenbaitlehen**, ez dugula Atila hau gure haurtzaroko eskola-liburuetan ikusi genuen Jaunaren Zigor ikaragarri hura. (ZIN: 142).

131- Ez dira, **esan nahi dut**, zineman egunoro ikusten ditugun neskatxa panpox, gazte beldurgabe eta blankolari huts ezinenak. (ZIN: 149).



132- Hori sortzeko batu dira, **ezkontzaz ala sasi-ezkontzaz ez dakigu**, Italiako edertasuna —Gina Lollobrigida deritza— eta Ipar Ameriketako trebetasuna, Robert Z. Leonard izenekoa, agi danean. (ZIN: 157).

133- Ez zaio erraz igertzen, **ez da harritzeko noski**, orain aurkeztu diguten umeari zein aritakoa den. (ZIN: 157).

134- Gutxi gorabehera, **badakizue**, Oraune´ko Errolbak itzuli zigun “Florenziar idazlari kokorra”-ren kidea. (ZIN: 158).

135- Kexu ginen lehen Hollywood´eko pelikulak ugari eta bestetarikoak urri genituelako. Orain, **gero eta hobeto gabiltza**, Hollywood´etik ere deus gutxi etortzen zaigu. (ZIN: 160)

136- Poliziak, **pentsa bada**, ez dauka ahazturik eta berriz ere teilaturik teilatu abiatu beharrean da katu zaharrak bere burua zurituko badu, ez baitu horretarako lapur berria harrapatzea beste biderik. (ZIN: 187).

137- Espainiako zineman, **gauza jakina da**, badira bi gazte zerbait egin nahi luketenak, dirua irabazteaz gainera: (ZIN: 191).

138- Egilea, **jakin behar da**, Esquilacheren alde dago: hobeto esan, Esquilache hartu du aitzakia maite dituen gauzak goratzeko. (ZIN: 192).

139- Eta ez dezazula Jainkoagatik gutxietsi, **garbizale horrekin ari naiz**, nahi bezain garbi ez deritzazulako. (LIB II: 40).

140- Gai honetan, **lasai esan genezake**, Euskaltzaindiaren sariketara agertu direnetarik asko bide onetik abiatuak eta arras aurreratuak agertzen zaizkigu. (LIB I: 50).

141- Nere begiak behintzat, **zorrotzagoak ez dakit**, ez ziratekeen konturatuko, alde zurretik jakin ez banu. (LIB I: 84).

142- Behin edo behin, **egia da**, Izpiritu Santuaren prozesioaz ordu t´erdiz mintzatu beharrean aurkitu izan naiz (irakastea debekatua badaukagu ere, ikastera behartu egiten baikaituzte), baina geroztik hona jakintza hau baztertuxe eduki dut. (LIB I: 96).

143- Orain, gogo osoz, bere neurriko euskal nobela bat egiteari lotu nahi bazaio, **beldurrik gabe egingo nuke hori ere emango digula**, horretarako trabagarri dituen dohai bikainak brida estuz menderatzen baditu. (LIB I: 101).

144- Aipatu ditudan xehetasunok, **berriz diot**, eta beste anitzek, garbiro azaltzen digute Olabide ez zela zinetako eta benetako euskaraz ari, saio euskara edo euskara experimental batean baino. (LIB I: 117).

145- Hitzek, **jakina da**, badute beste zerbait, adimenez nolazpait besarka daitekeen adieraz gainera, adimenak ikusten ez badu ere bihotzak uki dezakeena: beren giroa, usaia, lurrina eta sentimen kutsua. (LIB I: 117).

146- Orain, **egia da**, *mintzo zakida* ikusten dut Testamentu zaharrean (Cant. 2, 14): antolatzailearena?... (LIB I: 119).

147- Gregorio Arrue ez da, **jakina dago**, liburu honen egilea. Itzultzailea izan zen beti haren lana: erdaratik euskarara eta euskaratik erdarara. (LIB II: 43).

148- Ez dabil, ordea, **berak horrela dio**, jakintza lanean euskal aditzaren misterio ilunak argitzen edo, euskal irakasle eta ikasleei bide eroso bat eskeini nahian baizik, aditz jokoaz neke gehiegirik gabe jabe

daitezen. (LIB II: 46-47).

149- Eta azken urteotan euskal gaietan egin ditugun aurrerapenez miretsirik baldin bagaude —ai, aurrera egin bagenitu beti aurrerapen horiek!—, ez dago ahaztutzerik aurrerapen horiek, gaurko izaera eta egoerak, aldi igaroetan dutela erroa eta oinarria, batez ere oraindik orain, **atzo esan dezakegu**, euskaraz mintzatzen, hitz lauz nahiz neurtuz, ahalegindu ziren idazle eta bertsolariengan. (LIB II: 52).

150- Eta, **berriz esango dut**, ez zitzaien ez gogorik ez astirik falta. (LIB II: 63).

151- Donostia zaharreko donostiar jator baten irudi bizi horrek ez darama azpian izenik, baina, **egingo nuke zernahi galtzeko beldur handirik gabe**, hainbestearainoko arretaz eta bihotzez gure ondasun sakabanatuak biltzen ari den Aita Zabalari zor zaiola. (LIB II: 68).

152- Nolanahi ere, **esan dezadan lehen bait lehen**, sermoi malkarretan labaintzen bazaigu inoiz Erkiaga, ez du behinere han behera eroriko larririk egiten. (LIB II: 78-79).

153- Mujikak, **egia da**, gogorazten digu alde zurreretik Juan Ramonen hura: “No creo, *en ningún caso*, en un arte para la mayoría”. (LIB II: 141).

154- Eta ez daukat, **zilegi izan bekit hemen berriz aipatzea**, Oñatibia oiartzuarra ahazturik. (LIB II: 154).

155- Eta, **diodan bidenabar**, ez zukeen Peruk entzun dudana egia baldin bada, maisu txarra aurkituko Konfuziogan, sortaldetarra hori eta txinoa gainera. (LIB I: 140).

156- “Uts asko ditudala badakit, baña ez da nere errua, egillearena baizik”. Hona batzu: grafia aldetik s eta z-k nahaspila handi xamarrean dabilta —**erdarazko hutsak ere badira zenbait**—, aukeratu diren zatiak batasun gutxi ageri dute eta zenbait esaera harrigarri aurki daitezke liburuan barrena. (LIB II: 48).

157- Zer du, bada, film honek? Honen antzekoak, **beste behin esan nuen**, ez dira igerkizunak besterik izaten: heriotzaren bat aipatzen dute, baina ezinbestekoa izaten da eta odolik gabekoa. (ZIN: 174).

158- Begiez ez ezik, belarriez ere jabetzen da Jonh Houston, zalaparta beldurgarriaren ondoren itsasoko ixiltasun beldurgarriagoa —**zenbait itsas-hegatziren karraxiak besterik ez airean**— sentiarazten duenean. (ZIN: 186).

159- Lagunek parre egiten diote —**neskatxa ez da aldamenen harro harro erakutsi nahi izaten ditugun horietakoa**— eta bere ama ere, “Noiz ezkondu behar duk”-ka beti ari zaion ama, ez du semea ezkontzeko bidean ikusteak gehiegi alaitzen. (ZIN: 151).

160- Zenbait berrirekin agertu zaigu Oskillaso —**honela deitu beharko dugu egilea, bere izena salatzea debekatua daukagunez gero**— “Muttiko kaletarrak Bizkaian” izen ondokoa daraman liburu azalez eta mamiz ikusgarri eta irakurgarri honetan. (LIB II: 92).

161- Bada, ordea, Barojazaleek maite duten zerbait, gogoetak, hitzak eta esaerak baino barrenago datzan zerbait (**lurrin arina bezain iheskorra, egia**), eta zerbait hori, dena den, ez da beti ageri itzulpenean (LIB I: 119).

162- Liburu honetan bildu diren Artolaren bertsoak —**ez ondu zituen guziak, ezta alderatzeko ere**— hiru zatitan berez omen daitezke, eta hitzaurrearen ondotik nabil berriz ere: (LIB II: 52).

163- Soroa, euskal teatro berriaren aitzindari ernea, ez zen teatroaren barrutian mugatua gelditu. Jostaketak, izkirimiriak eta nolana hiko nahas-mahasak —**bi hizkuntzatan argitara zuen Azak eta naste eta gainerakoak lekuko**— arras gogoko zituen. (LIB II: 124).

164- Baina langileak —**berriz ere “maïña”-rekin hasi behar**—] lanean ari denak, hobeki daki lanaren berri besoak gurutzaturik begira dagoenak baino. (LIB II: 154).

#### ADITZIK GABEKO ENUNTZIATUAK

##### APOSIZIOEN ARABERAKOAK

165-166- Lima Barretori eskerrak, zenbait gauza berri ikusi eta entzun ditugu: lurralde berriak —**Brasilgoak** —, aurpegi berriak —beltz, txuri-beltx eta beltzeran—, kanta berriak —**orain arte handik etorri zaizkigunak baino jatorragoak**— eta gizaki berriak, ohi baino gizonagoak (ZIN: 134).

167- Horregatik edo, antzeztokirako utzi ditu pailasokeriak —**txarlotkeriak**—, berebizikoak badira ere. (ZIN: 136).

168- Eta aldamenekoaren oihuak belarrian ditugula, nola amets egin, “Cinemascope” —**“mundua sortu zenez gero ikusi den gauzarik miragarriena”**— berriarekin ere? (ZIN: 129).

169- Gaurko Estatua —**Miranderen ugazama**— omen da, euskal deitura izan arren euskaldunak oso gogoko ez gaituen idazle batek dioenez, gaurko gizonaren etsairik purrukatuena. (ZIN: 150).

170- Oraingoan, H. Melvilleren eleberrri ezaguna zinemaratzean, antolamendu leiala, trebea eta biluzia eman digu, ohi diren apaingarriak —**neskatxa lirainen maite-minak eta**— bazterturik. (ZIN: 186).

171- Poesiarako trebe dugu euskara, olerkari zahar eta berriei eskerrak, baina bestetarako? Nobelak eta ipuiak —**ez herri ipuiak**— euskaraz moldatzen ahalegindu direnek diotenez behintzat, badago oraindik oztopo eta eragozpen ugari. (LIB I: 49).

172- Gehienez ere, Luis XIV eta XV garrenak izan zituzten zenbait amoranteren izena —guztiak aipatzea lan luzeegia bailitzateke— eta gezurrezko aurpegia — **egiazkoagoa baino ponpoxagoa, beharbada**— ikasiko du edo gogora ekarriko. (ZIN: 178).

173- Ezin uka herri kantak —**zaharrenak eta berriagoak**— aukeratzeko begi eta aho gozoa izan duenik. (LIB I: 46).

174- Euskara —**hain eskuko duen euskara**— alde batera utzirik, nobela aldera zorroztu behar luke orain arreta Etxaidek. (LIB I: 57).

175- Eta horrenbeste gipuzkoar langile elkarren lehian ari bazaizkigu ere, oraingo gisan, mendiak murrizten —edo gehienez pinu beltzez jazten—, ez dute, eginahalak egin arren, Lizardik utzi zigun baso antzaldatua soilduko, harako leihoak itxitako jauregia dirudien hura, atsedena eliza, gau argi izarrez josia goian eta ur berdeak —**izar irudiz zirtatuak**— behean dituena. (LIB I: 64).

176- Ez zituen Bonapartek, egia esan, Elizak agindu bezala argitaratzen, ez baitzituen euskaldunen arimen onerako eragin, baina huts horiek —**behar ziren oharrak eta baimenak**— erraz osa zitezkeen, euskaldunok nahi izan bagenu. (LIB I: 111).

177- Aurrean bidaltzen dute, baina ez du goseak egoteko astirik, loteriak —**espainol guztien ametsak**— dirupilo polita uzten diolako. (LIB I: 138).

178- Cesarek dioenez, akitanoak —**gure senideak**— trebeak omen ziren zula-eta bete-lanetan: (LIB II: 46).

179- Zirikadak Jon Etxaidek moldatu zuen Pernando Plaentxiatarra-ren anaia da, baina ez anaia bixkia. Plaentxiako, Eibarko eta inguruko herrietako jendeen ipuiak —**gertatuak edo asmatuak**— eta ateraldiak aurkezten zaizkigu liburu honetan ere, baina bere xaltzan: (LIB I: 145-146).

180-181- Hizketa gaiak —**oraingo gizartean maizenik erabil daitezkeenetakoak**— ederki aukeratuak daude eta hitzak eta esaerak —**euskaldun ikasiari dagozkionak**— egokiak dira; gorago esan dut Andimak hautatuak eta asmatuak direla. (LIB II: 62).

182- Bordaxuriren gertakari negargarria —**“Galerianoren kantuen” iturburua**— sail hartakoa duzue. (LIB II: 83).

183- Ixil-ixilik, liburuaren izenari dagokionez, jardun du lanean Juan Inazio Goikoetxe — **“Gaztelu” euskal letretan**— apaiz jaunak Musika ixilla liburu mardul hau lantzen eta osatzen, eta ustekabeen hartu gaitu zenbait euskaltzale hain betea eta biribila argitara duenean. (LIBII:105).

184- Badu liburu eder honek harako Orixeren Urte guziko Mezabezperak ezagunaren egitea eta antza. Nola ez du, bada, izango? Paperak eta edergarriak —**euskal tankerakoak**— berdintsuak dira eta gaia, berdintsua ez ezik, berbera dute. (LIB II: 127).

185- Liburu hau hain lodia (**ia 700 orrialdekoa**) eta azal eta barren hain ederra izanik, ez dator bakarrik. (LIB I: 89).

186- Badakit, noski, nekez ikasiko dituela irakurleak “irakurletasunak” eskatzen dizkion zerak —**letraduna baldin bada, euskaraz letradunentzat egiten direnak irakurtzeko behar dituenak, erdarazkoak irakurtzen dituen eran**—, inork irakasten ez badizkio. (LIB II: 137-138).

187- Liburuari zerbait falta bazaio, nik uste, Aita Altunaren eragina —**lanean ikusi duenak ongi ezagutzen duen eragina**— falta zaio soil-soilik. (LIB II: 153).

188- Ahotan ditugu beti mailak, **gizarte-klaseak**, eta ahaztu egiten zaigu sarritan maila horiek, nagusi-langileez gainera, mota askotakoak direla. (ZIN: 149).

189- Hutsak, **huts nabarmenak**, axal-axalean azaltzen dira. (ZIN: 165).

190- Etsaia genuen, **etsaia ere amorratua**, euskal idazle jator bai aipatzeko, Luzear zena. (ZIN: 166).

191- Humphrey Bogart ere, **makur antzeko gizon zuzena**, hor daukagu. (ZIN: 167).

192- Eztena da, **erleak bezala barren-barrenean josirik utzi nahi lukeen eztena**, Bardem´ek duena eta Berlangak ez duena. (ZIN: 169).

193- Goragarria da, batez ere, garai hartako euskal giroa —**erdal paperen bitartez guregana den giroa**— berpizteko egin dituen ahaleginak. (LIB II: 138).

194 “Azkontegia” hitza (**“saetera”**) ikusi dut 44 garren orrialdean. (LIB II: 140).

195- “Tremendista” baten neurriko ehizea, **bestereña baino beldurgarriagoa**, han ugariago delako edo, Venezuelarrek diotenez, urrutiko gezurrak ederrago agertzen direlako. (LIB I: 52).

196- Egiteko hori, **Xanti Andia-ren itzulpena**, gutxik burutuko luketenetakoa dela nabari da. (LIB I: 128).

197- Hori, **eragin hori**, liburua gidari darabilen irakasleak sortu beharko du bere baitarik. (LIB II: 153).

198- Huskeriaren bat edo beste, bukatzeko. Ez ote legoke hobeki, 53gn. orrialdean, babarrun-en orde *baba* (**beltza**), grekoz *kúamos* baita noski? (LIB II: 77).

199- Sagartazutar Klaudi, **gure barrutian Satarka**, bere aldiko gizona da: nola ez da izango? (LIB I: 102).

200- Estilistika berriak maiz aipatzen ditu motsclés direlakoak, euskaraz giltz-hitzak (**giltz-harriak bezalatsu**) esan genitzakeenak. (LIB I: 139).

201- Gaia arrunta du eta zarpail xamarra. Pertsonak, eskasak eta ez jende dotore-argiaren artean bilatuak. Zirku-gizon arlotea —**kate haustailea besterik ezinean**— buruz baino indarrez hobeto hornitua, eta etxeokoe honi saltzen dioten neskatxa erdi inozoa. (ZIN: 173).

202- Lanean ari dira gelditu gabe guztiak, zahar-gazteak, gizon-emakumeak, beren herria —**zaharra eta berria**— jaso beharrez. (ZIN: 159).

203- Eta frantsesez ez dakienak? Horrek ere erabil dezake, neke gehixeago hartu nahi badu. Ez du aldamenen beste hiztegi bat —**gatzelania-frantsesa**— eduki besterik. Bi lan egin beharra izango du, alferraren gisa. (LIB I: 104).

204- Eta aintzindari nabarmenak, **zeru-lurretako nahaste ikaragarriak**, izango zituena. (ZIN: 193).

205- Ataka-gaitz honetan, behinola Eugenio d'Ors'ek (**artean "Xenius" zenak**) egin zuena egin beharko dut: neurri doi eta zehatzetara jo, usteak eta iritziak bertan behera utzirik. (LIB II: 115).

206- Eta hori gutxi balitz, "norbaitek" —**lotsaizunezko piku ostoz bere burua estali nahi duen "norbaitek"**— egilearen bizitzaz eta lanez berri ugari ematen digu liburu gehienen sarreran. (LIB II: 81).

207- Hona, txantxetako eta zinetako bertsoetan denbora bateko Tolosa eta garai hartako tolosar jator bat, beste batek —**Labayenek**— orrialde hauetan aurkeztu berri duena. (LIB II: 81).

208- Bertsolarien laguntzaile eta ezagutarazle gailena dugun Aita Zavalak —**betiko Aita Zavalak**— bildu ditu liburuxka polit honetan azken hamar urte honetako bertso-paperak. (LIB II: 134).

209- Apaizak ere, **edozertarako balio duen Deus ex machina horrek**, ez dezake deus askorik: ez ezkontza hautsi eta ez, daraman jantzia daramala, Iñaki galtz-ipurditik hartu eta arkaitz batetik behera bota. (ZIN: 134).

210- Zinema jator honek, **Chaplinenak**, aski ditu orain ere zeinuak eta imintzioak, irudi soila, itxurazko edergarri berri horiek jantzi gabe. (ZIN: 136).

211- Gazte batzuek, **18 urte ingurukoek**, bazeukaten film hori ikusteko gogoia. (ZIN: 161).

212- Ikusten ditugun aziendek, **abere larri eta txeeek**, animalia itxuratan, gizonaren izaera eta grinak gehiegi nabarmentzen baidituzte. (ZIN: 175).

213- Gazte batzuek, **haur mukizu batzuek ia**, jendartean lotsagarri eta bizibiderik gabe utzi zuten irakasle hark, damu badu behar ez zuenean barkatua, ez du asmo sendo gabeko damurik. (ZIN: 179).

214- Axularrek idatzi zuena baita gaur euskaldun askok, **gehienek beharbada**, esaten dutena, baita noski berak eta ingurukoek esaten zutena ere. (LIB II: 41).

215- Horrexek, **gauza ezerez horrek**, gidatzen du idazle eta hitzun trebea hitzak hautatzean eta horixe da —saio hizkera batean, baina ez benetako hizkuntzan— antolatzailearen erabaki hutsez bazter eta deusezta daitekeena. (LIB I: 117).

216- Euskaltzaleek, **edozein euskaltzalek**, komeni lukete astiro irakurtzea. (LIB II: 70).

217- Honako bertso honetan (Manual Devotionezkoa, I, 30), beste askotan bezalaxe, nori berea ematen dio burjesari (sic) (**ontzi-jabeari**), buruzagiari (**patroiari**) eta pilotuari, elizaren ontziaz ari dela. (LIB II: 57) .

218- Aldi honetan zenbaitek herri xeheari —**populuari**— azken hitza eman nahi badio ere, zertan eta arte gaitetan, ez litzateke harritzeko herri xeheak gai kaxkar eta belaxketara jotzea. (ZIN: 139).

219- Ez naiz, bada, gehiegi harritzen zarauztar batek aitortzen badu (184gn. or.) bere aitak Ziburuko (**orduko Zubiburuko**) ontzi batean arotz zelarik ikasi zuela bale eta bakalao arrantzaren berri eta ari (sic) eskerrak hartu zutela gero Zarauzko marinelek urrutietarako bidea. (LIB II: 57).

220- Ez dut behar baino gehiago esan uste, ikusle gehientsuen —**goiko eta behekoen**— gogoko izan dela esatearekin (ZIN: 135).

221- Egonaldi hori, laburxkoa izanagatik, aski eta gehiegi izan du “llaneroen” —**hango zabaldietako gizon-emakumeen**— hizkera ikasi eta barra-barra egiteko. (LIB I: 51).

222- Olerki oin-arin hauetan inoren itzalik ikus badaiteke, Lauxetarena dela esango nuke, **Arrats-beran-go Lauaxetarena**, euskalkia delako edo. (LIB I: 124).

223- Cecil B de Milleren tankera ezagunean moldatu dute show aberats, ugari eta luze (**hiru orduz gorako**) hau. (ZIN: 181).

224- Huts bat baitu hirugarren agerraldi honek, bat bakarra baina larria, jatorrizko pekatua bezala edozein izaera garbi kutsa dezakeena: hobetua izatea, azalean (**barrengo bigarren azalean**) dioenez. (LIB I: 79).

225- “llargiaren jira”, esate baterako, ez da zailagoa gure jendearentzat hemen (**8gn orrialdean**) eta bigarrenean irakur daitezkeen “llargiaren baranoa” baino. (LIB I: 79).

226- laz eman nuen aldizkari honexetan (**97gn, orrialdean**) idazlan larri eta eder honen lehenbiziko zatiaren berri. (LIB I: 146).

227- Berrogeitamarren bat orrialdeko liburutxo hau, laburra eta edergarririk gabea izanagatik, azkeneko EGAN-en (**114, 115 eta 119gn. orrialdeetan**) Lekuona jaunak goramenez bete zituen *Kristoren Antzibidea eta Itun zarreko kondairaren* anaia bixkia edo “irukia” duzu. (LIB I: 95).

228-229- Esate baterako, Elizan irakasleak eta ikasleak bezala, maila batean —**goikoan**— daude medikuak eta bestean —**gero eta behezagokoan**— eriak. (ZIN: 149).

230- Horrelako egun batez ikusi zituen azkenik munduak itsaso soilean —**Salamina, Actium, Lepanto, Trafalgar eta Tsushima´ren ondoren**— gerra-ontzi arinak elkarri atzaparka, inoren laguntzarik gabe. (ZIN: 177).

231- Ezagunen artean gaude, **betiko lpartar eta Hegoarren artean**, eta huts handirik gabe esango genuke alde zurretik zer gertatuko den. (ZIN: 131).

232- Hasiko zaizkizu txistulariak soinua jotzen, eta besteak dantzan, “**espatadantxan**”, eguerdialdean, izerditan blai, herrira itzuli arte. (ZIN: 132).

233- Beste hizkuntzetako asma-lanekin berdinduz gero —**ez gorengo edo beheengoekin, bai erdi mailakoekin**—, ez da *Joanak-Joan* nere iritziz, haien parera heltzen. (LIB I: 56).

234- Gurekin, **gaurko euskaldunekin**, garenak garela, ari da eta hortik datozkio liburuari doharik ederrenak. (LIB II: 89).

235- Hurrengoan, hirugarrenean, emango dizkigu Pelloren “bertso, pasadizo ta ateraldi guziak” herriaren ahotik —**ez alabagandik**— jaso zituen bezala, eta azkenik, laugarrenean, Pello Errotaren itzala izenarekin, honen hazi eta ondorengo diren bertsolarien bertsoak. (LIB II: 129).

236- Ez da hau Buñuelen “Zakur andaluzá”. Denentzat, **hazientzat eta haurrentzat ere bai**, ari da oraingoan. (ZIN: 53).

237- Honi eskerrak, beste inongo sailek ez duen aurrerapidea baitu “Auspoa”-k: guztientzat antolatua izanik liburuak, **goikoentzat eta behekoentzat**, asko-jakinik kontentagaitzenak argitaraldi kritiko bati eskatzen dizkion zer-nolako guztiak betetzen dituela. (LIB II: 94).

238- Honen antzeko liburuak hizkuntza ongi dakitenentzat eginak izaten dira nonnahi. Besteentzat, **ikasten ari direnentzat**, badira irakurgai neurtuak, behar diren argitasun, azalpen eta laguntza guztiez hornituak. (LIB I: 58).

239- Iguzkiak badu denentzat argi, **onentzat eta gaiztoentzat**, eta Mogelen irriparre gozoa ere, Cervantesena bezala, guziongana hedatzen da, Peru jatorragana beste Maisu Juanengana. (LIB I: 72-73).

240- Zenbait fruitu bakarrik berezi ditu baratze jori horretan, gaiez, tankeraz eta hizkeraz ezberdinak, bere atseginerako lehendabizi eta dastatu nahi lituzketen guztientzat, **euskaldunentzat eta erdaldunentzat**, gero. (LIB I: 45-46).

241- “Noizpait, **joan den udaberrian edo**, bere asmoaren jakile egin ninduen (Txillardegik): (LIB I: 89).

242- Gero, **askozaz geroago**, sortu zen gogoa eta atsegina, poliki-poliki, irakurri ahala. (LIB I: 112).

243- Globoa ez da nolanhikoa, gaurko gure begiek ikusten dituztenen antzeko maxkuri haizatua. Sorgindua dago, inoiz —**aspaldi baino aspaldiago**— Donostiako Louvre’n ostegunetan ematen zizkigutenak bezalaxe, haur irudimenak sorgindua. (ZIN: 170).

244- Jaiotza harrigarriak izaten dira noizean behin, **oso noizean behin**, mundu honetan, Juan Ramón Jiménez’ en ume honena bezalakoak. (LIB II: 42).

245- Ez zaigu bakarrik atsegin malko xamurretan lasaitzen den mina; maite dugu, gainera —**izu-ikaraz maite**—, inoren negarrak arinduko ez duen oinaze gordin errukigabea. (ZIN: 164).

246- Gizon prestu eta kristau on batzu —**ez gehiegi, “burgesa” ez baita lehen bezain erraz asaldatzen**— bere onetik atera dituzte liburu honetako nabarmenkeriek. (LIB I: 53)

247- Badira nonbait —**Euskalerrian edo**— euskaldun izeneko gizon emakume batzuek. (ZIN: 131).

248- Artean keinuka —**gor-mutuen antzera**— ari zitzaigun zinema hasi zen behin, ez oso gaxterik, hizketan. (ZIN: 160).

249- “Agintari” ez da “enperadore”-ren ordain jatorra, ezta “jakinzale” ere “filosofo”-rena, ez gaur eta ez

Agustinen denboran; “ele-zati” askotara —**gehiegitara**— har daiteke, ez “silaba”-tzat bakarrik. (LIB I: 76).

250- Zinetanago, **gizon hazientzat egokiago**, ari dela dirudi Joannon´ek. (ZIN: 180).

#### APOSIZIOEN ARABERAKOAK EZ DIRENAK

251- Poesi hizkerak badu bestelakoek —**egunerokoak edo jakite hizkuntzak**— ez duten zerbait eta horrexegatik izan ohi dugu hain estimu handitan. (LIB II: 141).

252- Eta, hau da beltzena eta gogorrena, gertakari berbera bi aldetara entzuten baldin badugu —**gaurko neska-mutilek irakurtzen dituzten nobeletan edo antzinako poema epikoetan bezala edertua eta goratua, edo oraingo eta lehengo zenbait idazlek ohi duten bezain beztua eta itxuratxartua**—, alderik politena ez dela beti ezta maizenik ere, egiazkoena izaten. (ZIN: 130).

253- Gerozkoan, guztiok dakigu edo erraz iger dezakegu zenbat bihotz prestu — **Europako haizeek gehiegi kutsatu ez zituztenak, nahiz kondaira hau ere handik zetorkigun**— ukitu dituzten Genovevaren poztahigabeek samurraren samurrezko negar-orritsetan. (LIB II: 44).

254- Euskaldunen, eta batez ere euskaldun gurasoen, aspaldiko egarria berdintzeko agertu dira noski bi liburuxo polit hauek: oraindik ikusi ez dugun hirugarrenak ere, (*Doni, konejuxu negartia*) ez omen du agertzea luzatuko. (LIB I: 97).

255- Hauek erdaraz agertzen dira lehenbizi (erdara zuzenean, dio egileak), euskal erdaraz gero (**erdal hitzak euskal ordenan antolatuak**) eta euskaraz azkenik (LIB I: 98).

256- Liburuaren itxuraz, aski da esatea Valverdereanean egina dela. *Ayaldek (lau arrasto beltz lirain paper zurian)* beste hizkuntza eder batetara itzuli ditu irudi maiteak (LIB I: 103).

257- Ez baitu *labore*-k Erreterian Azkuek beste lekutan bildu duen adiera: labore da jakia ez dena eta jakiarekin jaten dena (**ogia, taloa edo antzekoak**). (LIB I: 108).

258- Zer dago bazterterik Axularrengan, oraingo ustez? Hitza, gutxi edo gehiago (**desplazer, desordenatu eta antzekoak**), *ezen, nola, non* eta *zein* batzu; hitz ordena ere apur bat aldatu behar omen zaio, guztiok dakizkigun legeen arabera. (LIB I: 121).

259- Honela Leizarragak: (...) ; honela bizkaitarrek; *Alan derist Peru Landetako (Peru Abarka)*, ta alan orazinoe batari deritxo barrukua ta bestiari aozkua (**A. Villasanteri eskerrak ezagutzen dudan XVIII gn. mendearen azkenaldian egindako kristau ikasbide batean**). (LIB I: 122).

260- Hor daude azalduak auzoaren izara eta egoera, Ipiñako eliz gauzen kondaira (**eliza, abatetxea, hilerria, ermitak**) eta ipui sorta mardul bat azkenik, bertan bildua (LIB I: 125).

261- Axularrek gaurko *kh* adierazteko hauxe bera, *kh*, erabiltzen baitzuen batzuetan (**e eta i-ren aurretik**) eta *cc* gainerakoetan (LIB I: 130).

262- Honako bertso honetan (**Manual Devotionezkoa, I, 30**), beste askotan bezalaxe, nori berea ematen dio burjesari (sic) (ontzi-jabeari), buruzagiari (patroiari) eta pilotuari, elizaren ontziaz ari dela (LIB II: 57).

263- Zenbait gai utzi ditu bazterrean egileak, jakinaren gainean horratik eta alde aurretik aitortzen duelarik: herri literatura batetik (**bertsolariak, Zuberoako pastoralak eta**), hor hemenka aipatzen baditu ere, eta egungo egunean (edo behintzat liburua osatu zuenean) bizi diren euskal idazleak. (LIB II: 65).



264-265- Hona, sarreraz eta A. Villasantek egin duen “Programaren aurkezpena”-z gainera, hemen irakur ditzakezun hitzaldi eta lanak: Fr. Ignacio Ormaecheverría, “Razones y motivos que nos deben animar a trabajar por el euskera”; A. Villasante, “Aita Uriarte eta euskarazko bere biblia”; Fr. Idefonso Alustiza, “Igokundeko San Martin” (**F. Arozenaren eskutitz batekin**); Aita K. Zubizarreta, “Euskal liburutegi bat Arantzazun”; Fr. V. Gandiaga, “El euskera en el Colegio Seráfico y en la carrera”; Anai Aingeru Madariaga, “Zer egin gure komentuetan euskera biziari indarra emoteko”; Fr. Benito Azcarate, “El euskera entre nuestros Hermanos”, Iturriatar Karmel Aita, “El euskera en nuestros colegios y escuelas de externos” (**euskaraz**); (LIB II: 69).

266- Aurren-aurrenik, Grazianok dioskuna (**ipui zahar eta kontu berri**) entzunaz ezarian bezala finkatzen baitzaigu gure arteko nekazari baten uste, iritzi, asmo, nahi, beteginzarre eta eskastasunen irudi garbia. (LIB II: 71).

267- Batetik, eredu berri bat (**Orixek behinola, oker ez banago, segitu zuena Prudenzioaren zenbait itzulpenetan**) aurkezten die hitz neurtuz mintzatzen direnei: (LIB II: 107).

268- Hitzaurre eder bat du liburuak (“**Nondik eta nola**”) eta are ederrago den eskaintza. (LIB II: 139).

269- Honek, itzulinguruz bedere, jendearen bihotzetan sua pizteko erreka hoberik badu — **urrikia, gorrotoa, diru-gosea**— eta orain pizten duen suak Bruto eta bere lagunak kiskaliko ditu. (ZIN: 126).

270- Har itzazue hiru lagun —**senarra, emaztea eta lapurra**— eta bil itzazue elkarrekin basa-bazter batean. (ZIN: 130).

271- Lima Barretori eskerrak, zenbait gauza berri ikusi eta entzun ditugu: lurralde berriak —Brasilgoak—, aurpegi berriak —**beltz, txuri-beltx eta beltxeran**—, kanta berriak —orain arte handik etorri zaizkigunak baino jatorragoak— eta gizaki berriak, ohi baino gizonagoak. (ZIN: 134).

272- Duela zenbait urte —ez hainbeste, horratik— bestea ikusi genuenok —**Norma Shearer eta Leslie Howard´ena, eta John Barrymore´ren Mercutio**— badugu halere zalantza bat. (ZIN: 155).

273- Argentinako zokoren baten harrapatu duten “Toro Moreno”-ren ibilerek —**irabazle parregarri eta galtzaile zintzo**— biziro kezkatzen gaituzte. (ZIN: 167).

274- Gizonaren nausitzak errenkuraz beterik dauzka basetxe bateko abereak. Berengandik sortzen diren ondasunak —**artilea, esnea, haragia, arraultzak**— ez baitira beren zerbitzurako, gizonaren onerako baizik. (ZIN: 175).

275- Hilketan izaten dira zenbait txolarte alai —**adiskide artean, hildakoaz ahazturik, egiten diren berriketak eta**—, eta Sacha Guitry zena ere, goian bego, saiatu da aldiz aldiz ikuslearen zama arintzen. (ZIN: 178).

276- Eta gizonak —**beti bere buruari begira egon gabe**— besteri laguntzen dionean bere burua jasotzen duen gisa, horrelaxe lantzen dira hizkuntzak ere: gauza eder, behar, jakingarriak adierazteko bide bihurturik. (LIB I: 41).

277- Lehengo bi sailei buruz —**nobelak eta ipui laburrak**— Euskaltzaindiak hartu dituen erabakiak ezagunak dira, Euskalerriko egunerokoek zabaldu baitituzte. (LIB I: 48).

278- Aski genuke beti begien aurrean edukitzea euskarari “amets-bideetan barna” eragin zion ibilaldi luze hura. Euskarak inoiz egin duenik ederrena, eta halere egiteko —**gerok egiteko**— dagoena. (LIB I: 65).

279- Bi fede —**hila ala bizia**— bezala, bi arte mota dira: zinetakoa, jatorra, eta aizuna, gezurrezkoa. (LIB I: 53).

280- Ez genukeen aipatuko ere, egileari —**edozeini gerta lekiokreena**— itzuri zaion hutsa dela uste bagenu. (LIB I: 57).

281- Baita gainerako lagunak ere: andre ostalaria eta bere mirabea, orduko baserritarrak, linu ezpatariak, ola gizonak, baita azkenik —**paradisu ederreko suge beltza**— iskribau-aguazilak ere. (LIB I: 72).

282- Hizkera-mota asko daude eta badu bakoitzak bere garaia eta tenorea: ez gara kulpitotik ari —**ari direnak**— sukalde zokoan bezala. (LIB I: 89).

283- Herri literaturan izan duen oihartzuna ere —**Juan Krutz Zapirain lekuko**— ezaguna da. (LIB II: 44).

284- Maisua ere aukerakoa zuten, Vladivostoken jaiotako radiotelegrafista. Baina —**betiko “baina” madarikatua, Prai Bartolomek esango zukeen bezala**— Vladivostoktarrak ez zuen behinere inongo gramatikarik ikasi eta bere ikasleak ez ziren behinere gauza izan rusoz ikasteko, *atec, syn* eta horrelako hitz banaka batzuez kanpora. (LIB II: 63).

285- Askok zuten bada gogoia han-hemenka barreiatu utzi zituen ipui eta nolanhiko izkirimiriak —**liburutxo batean hil ondoan atera zizkiotenez beste**— bildurik eta berriz argitaraturik ikusteko. (LIB II: 69).

286- Bere eran eta taxuan —**besteak beste, eta inor gutxietsi gabe**— nekez ager daiteke Gandiagaren neurrikorik. (LIB II: 80).

287- Barrengo irudiak eta azala —**beltz, urdin, txuri**— Aita Iriondorenak dira. (LIB II: 80).

288- Hori dela eta, eta hauxe da axola zaiguna, kontakizun xotil eta paketsua —**ez luze, ez labur, bai bien erdiko**— hariltzen digu Izetak Baztango hizkera txukunean. (LIB II: 85).

289- Malen gaztea, bihozpera, xaloea eta xaloea bezain maliziarik gabea eta haren inguruan dabilzan gizon-emakumeak —**Petra koinata, inudea, Xalbador tratalaria, Don Bitor ardi itxurako otso bilbotarra, eta enparauak**— bizi bizirik ezartzen dizkigu begien aurrean, nork bere opilari ikatza eraman beharrean ahaleginean ari direla. (LIB II: 98).

290- Ez dio axolakabekeriaren pake gozoan bizi denari pake gozorik utzi nahi eta pakearen —**besteak beste**— jabe direnek ez diote berari ere barkatuko. (LIB II: 117).

291- Maiz erabili izan dituen Donostia zaharreko —**atzoko eta herenegungo**— oroitzapenak darabiltza, berriz, herri-min atseginez igortzirikako oroitzapen gozoak. (LIB II: 134).

292- Eta ondoren datorrena, **ongi itzulia beharbada**, ez luke Madrilgo Akademiak ontzat hartuko noski: (LIB I: 46).

293- Homerogandik hasi eta irakurleaganaino, luzexkoa zelako edo, bi gauza gelditu dira bidean, **nabarmen xamarrak biak**, eta ez dira inon ageri: poemaren edertasuna eta grazia batetik, eta euskara bestetik. (LIB I: 68).

294- Hemen ditugu —**laster, lirain, bildurgarri**— munduari hainbeste zihoakion ordu larri bateko egiazko

borrokalariak, “Achilles”, “Ajax”, “Exeter” eta itsaso hondargabeak ordu t´erdirako amets-bizitza eman dion “Admiral Graf Spee”-ren errainu iluna. (ZIN: 177).

295- Ameriketako berriak —**Sonata del Estío** alde batera utzirik— “Tirano Banderas”-en eman zizkigun. (LIB I: 52).

296- Cela ez da bestelakoa. Ondo jaioa, leunkiro hazia, goiz hasi zen —**gazte zuhurrari dagokionez**— bizibide eroso baten bila. (LIB I: 53).

297- Eta neurri horrekin —**nik dakidan hobekienik**— neurtuz gero, hutsetan aurkitzen dut darabilgun hau zenbait aldetatik. (LIB I: 56).

298- Zer dela eta ezin ikusi hori? Zurrundurik bezala ageri dira —**besteak Piarres galdu beharrean, bere burua hondatu beharrean Piarres**—, ez dakite beren erraiak urratzen besterik. (LIB I: 56).

299- Nobela da, beste edozein irakurgai baino gehiago, oraingo irakurle arruntaren janaria. Irakurlea eduki behar gogoan, azken hitza —**zuzen ala oker**— bere baitu beti. (LIB I: 57).

300- Badaki gertakariak bat besteari josten eta, hori aski ez dela, ederki —**arin, zorrotz eta bizi**— ematen dizkigu aditzera. (LIB I: 60).

301- Gizonak bere irudira —**poema epikoetan, draman, kontakizunetan**— sortu dituen errainu iraunkorrak gogoratuko litzaizkioke lehenbizi: Edipo, Macbeth, Don Quijote, Faust, Aita Goriot, Stavrogin eta horrelakoak. (LIB I: 63).

302- Haren gogo erne, beratx eta irrikor, bare eta aldartetsuak —**iguzki eta laino, eta hodei nabarrak zeruan barrera lasterka**— opa zuen bizi eta heriotza hortxe dago, hitz gutxitan emana, “Urte-giro”-en azken hogeitasei bertsoetan, eta ez luke inork, burniz eta tupikiz ondu nahi balu ere, irudi sendogorik sortuko. (LIB I: 64).

303- Irakurgai hori ez da sasikoa, badu bere jabea. Eta ezin alda daiteke jabearen baimenik gabe zenbait huskeriatan —**grafian, huts nabarrietan**— izan ezik. Are gutxiago egilea — nolakoa, gero!— hilik dagoenean. (LIB I: 79).

304- Inoiz edo behin —**gero eta hobeto gabiltzala**— egiazko Garoa-ren oroitzapena bera galduko balitz ere (zer esango lukete orduan kritiko bihurriek?), oraingo inausaldian baztertu diren abarrak jaso nahi genituzke *Egan*-en. (LIB I: 80).

305- Agertzen dizkigun lekeitiarrek hizketa bizia eta berezkoa dute —**egileak sentiera gordeak nabarmentzeko aho zabalegia ematen dionean ez hainbeste**— itxura polita dute kanpotik, baina arima aldean ez darakusate funts eta kemen gehiegirik. (LIB I: 100).

306- Horrexek, gauza ezerez horrek, gidatzen du idazle eta hitzun trebea hitzak hautatzean eta horixe da — **saio hizkera batean, baina ez benetako hizkuntzan**— antolatzailearen erabaki hutsez bazter eta deusezta daitekeena. (LIB I: 117) .

307- Ez baita gehiegi saiatu egilea sinbolo horren alderdi onak —**gizon den aldetik**— jasotzen, aitzitik badirudi eginahalean jardun duela bere seme hori bazter, itxuratxartzen eta oinperatzen. (LIB I: 139).

308- Eta, sasikoa ez dena jatorra eta behar bezalakoa denez gero, horra non aurkitzen dugun Peru arlotea egiaren eta zuzentasunaren martiri bihurtua, munduarentzat nardargarri baina norbaitentzat — **ez den Jainkoarentzat edo**— Kuttun eta maitagarri. (LIB I: 39).

309- Badakit edozeinek ikasiko duela hizkuntza bat —**gaizki gehienetan**—, gramatikaren laguntzarik gabe

ere, besterik egiten ez den lekuren batera aldatzen baldin bada. (LIB II: 63).

310- Zenbait nahasteren beharrean gara noski euskal literaturan, eta bide honetatik gabiltza — **batera edo bestera**— aspaldi honetan. (LIB II: 94).

311- Eta azkeneko kezkak eta kopeta ilunak irriparre bihurtzen dira, gainera zetorkigun ekaitza — **Artzai -sinfoniakoaren modura**— ez baita uda erdiko hodei trumoitsu baten eraso laburra baizik izan. (LIB II: 98).

312- Ez du ireki besterik — **hasieratik, erditik nahiz azkenetik**— diodanaren egiaz zerorrek jabetu nahi baduzu. (LIB II: 98).

313- Nik —eta barka bekit “izenorde higuigarri” honezaz hasten banaiz mintzatzen— profeta baten gisan ikusten dut aurrenik gure Oteiza, gure artean nola eta nondik ez dakigula — **aldiz bizardun, aldiz okotz soil** — agertu zaigun antzinako igarleen ondorengo galdu baten antzera. (LIB II: 117).

314- Argi eta garbi mintzatzea — **gerta ahala gerta**— zer den ere erakusten digu eta ez da hori irakaspen makala hizkuntza gogoeten estalki bihurtu dugun frankorentzat. (LIB II: 118).

315- Gaia, oraingo aldian, Antoine d’Abbadie ezagunak Azpetian, 1893an, eratu zituen euskal jaiak dira. Hobeto esan, jai horietan egin zen bertsolari saioa eta are hobeto saio horretako sariaren banatzeak — **Pello Errota, Joxe Beñardo eta Udarregui zirela merio, beste zenbait zituztela lagun**— sortu zituen ixtilu latz eta luzeak. (LIB II: 122).

316- Gaia ez zaio egileari ahitu oraindik ez agortu. Ea, bada, noiz — **berak nahiz bestek**—eskeintzen digun beste horrenbeste Bizkaiko argizagiolaz, Nafarroakoaz edo beste edozein Euskalerritakoaz. (LIB II: 145).

317- Aldi joanaren historia — **oraintsukoez ere mintzatze delarik**— emateaz gainera, gerora begira bukatzen du liburua. (LIB II: 148).

318- Ariketak osatzen dute, beraz, libururik gehiena eta gramatika, beti — **agirian eta barra-barra nahiz ixilpean eta ttanttoka**— beharrezkoa den gramatika, ariketen bitartez irakasten zaio euskaldun berriari edo euskaldun berri izateko bidean dabilenari. (LIB II: 153).

319- Esan daiteke, **gehiegizko gezurrik esan gabe**, hor dagoela euskal literaturari, eta literaturari erabat, utzi dion testamentua eta ordenua. (LIB II: 107).

320- Orain, Aita Zabalarri eskerrak, eskuetan daukagu berriz Bilintx: bere obra osoa —“**neurritzak eta neurri gabeko itzak**” — eta bizitza, baita ere batari nahiz besteari dagozkien argibide zehatz ugariak. (LIB II: 84).

## TITULUEN ITZULPENAK

- 321- Theodor Dreisser'en liburua, Joseph van Sternbergék eraman zuen zinemara aspaldi xamar; gero eta azkena pittinen bat gozatuta, duela urte gutxi, George Stevens'ek, ("**A place in the sun**", hemen "**Iguzkian lekua**", "**Iguzkitan**" izan beharrean, **bihurtu zutena**). (ZIN: 163).
- 322- William Holden, hainbeste aldiz ("**Union Station**", "**Sunset Boulevard**", "**Sabrina**") erakutsi duena baduela aurpegi polita baino gehiago balio duenik, Rousalind Russell, eta gainerakoak. (ZIN: 164).
- 323- Kim Novak lehen ikusia genuen, "Pushoven"-en ("**La casa número 322**", hemen), baina kolore txuri-gorritan panpoxagoa dirudi. (ZIN: 164).
- 324- Horretaz mintzatu zitzaigun "the Champion" ("**El ídolo de barro**") gogor hartan eta horretaz mintzatzen zaigu orain. (ZIN: 167).
- 325- Hoen artean leku berezia merezi du eskuarki THE PRODIGAL ("**El hijo prodigo**") delakoak, onena izatea bezain berezia eta nabarmena baita txarrena izatea. (ZIN: 189).
- 326- Beste burutik hastekotan, Elia Kazan'en EAST OF EDEN ("**Al este del Edén**") aipa dezagun aurrenik. (ZIN: 189).
- 327- Jendeak ez bide dio egin besteri aspaldian Billy Wilder'en The witness for the prosecution ("**Testigo de Cargo**") deritzanari egin dion harrera. (ZIN: 189).
- 328- Delmer Daves'en 3.10 to Yuma ("**El tren de las 3'10**") eta John Sturges'en GUN FIGHT AT THE O.K. CORRAL ("**Duelo de Titanes**"). (ZIN: 190).
- 329- Ez zen besterik John Ford'en My darling Clementine ("**Pasión de los fuertes**", hemen), Henry Fonda, Walter Brennan eta Victor Mature'kin. (ZIN: 190).
- 330- Ez da ixiltzekoa Joseph Pevney'ren Man of a thousand faces ("**El hombre de las mil caras**"), Lon Chaney sonatuaren bizitza. (ZIN: 190).
- 331- Inglaterratik ez zaigu bere biziko gauzarik etorri. Robert Neame'ren The man who never was ("**El hombre que nunca existió**"), azken gerrateko ixpiazkoaren gorabeherekin, polita da. (ZIN: 191).
- 332-The one that got away ("**El único evadido**") ingelesek alemanekin darabilten *fair play* edo joko garbiaren ezaugarria da: bekaitzik gabe ikus daitezke gaur atzoko etsaiaren ibilerak. (ZIN: 191).
- 333- Gehiago nahi zuen Ken Annakin'en ACROSS THE BRIDGE ("**Al otro lado del puente**") izenekoak. (ZIN: 191).
- 334- Frantziatik film bat behinipehin agertu zaigu, hamar bizitzako etxea etxola artean bezain nabarmena: Jacques Tati'k burutik burura betetzen duen Mon oncle ("**Mi tío**"). (ZIN: 191).
- 335- Ez dago bestela aurten ikusi dugun Dmytryk'en "The Young Lions"-ekin (**El baile de los malditos**, hemen) berdintzea besterik. (ZIN: 196).
- 336-343- Erdal prosa aurrenik: I. Urreiztieta ("**La vieja narración**", "**En el hogar**", "**La madre**"), Jean Jaureguiberry ("**Atxaita**"), M. Pelay ("**Lasurtegui el bohemio**", "**Tempestad**"), Miren Díez Ibarrondo ("**Mira, madre**"), J. M<sup>a</sup> Iribarren ("**La Barranca**", "**Tarde de domingo en Tudela**"), Felix Urabayen ("**La cueva de los centauros**"), Jose de Arteche ("**Manchoni**"), Esteban Calle Iturrino ("**En busca del tesoro**", "**Un alto en el camino**", "**Evocación del Valhala**", "**El monstruo**", "**Desenlace inesperado**"). (LIB II: 143).

344-345- Hirugarren zatian, beregain, Canpion (“**Roedores del mar**”) eta Baroja (“**Lecochandegui, el jovial**”). (LIB I: 144).

346-348- Lehen zatian, Olivares Larrondo (“**Tellagorri atsegina**”), Elias Amezaga eta Joxe Artetxe: Bigarrenan, Orixe (“**Jainkoagan bat**” eta “**Itziai zekena**”) eta Satarka (“**Zugandik urrun**”); (LIB II: 144).

#### METAHIZKUNTZAZKO OHARRAK

349-359- Bide ibiliak maiz utzi ditu Orixek, bai bestetan (“**ezaguten**”, “**ezagutzen**”-en ordeztan), baina adizkietan batez ere: gakion (**gakizkion**) nindezaten (**nintzaten**) zaida (**zait**), etzekizkidan (**etzitzaizkidan**) obeak iduri “nec ...mihi meliora videbantur” (**109. or.**), gendin (**gindezen**), nenzan (**nezan**), nenkusan (**nekusan** “**videbam**”, **193 or.**), nenkarren (**nekarren** “**thehebam**”, **147 or.**), nenkartzien (**nekartzan**, **159. or.**), eta hainbeste eta hainbeste. (LIB I: 77).

360-382- Inprenta hutsak badira. Bat edo beste ipiniko dut hemen, irakurlearentzat irrixtakorrek izan daitezkeelakoan, neretzat bezala: Gorputz-egieraz (**higieraz** “**e motu corporis**”, **20**), bortatxan (**bortxatzen**, **28**), deabruaren xedea (**xedera** “**laquei diaboli**”, **60**), entzuten zintzo billa nai (**etzuten**, **105**), berenaga (**beregana**, **111**) etzezakela egirik utzi (**atzi**, **117**), gogoen atean (**gogoematean**, **118**), lagunak (**legunak**, **121**), ni aientzat niñedukan au (**aintzat** “**quem non parvi penderet**”, **147**) aitortzea zindutan (**aitortzen**, **158**), Itz zula eta edaten (**jaten?** “**quia manducavit eta bibit**”, **178**, latina ez dago osorik emana), Eliza bete oi zatzaion (**zitzaion**, **184**), txeko (**etxeko**, **189**), Poztitian (**pontitian**, **195**), ezaliko (**ezarriko?** “**ponitis**”, **233**), Eudi (**Euodi**, **236**), itzuli zintzan (**nintzan**, **264**), ateratzen dituk (**ditut**, **254**), bera edukitzeke (**idukitzeke** “**ad habendum se ipsum**”, **255**), *deudua* (**dendua**, **264**), irrikuz (**irriskuz**, **289**), eten oi zagan (**zaigun**, **290**). (LIB I: 78).

383- Hirugarren liburuan, zatitxo batek (**3,4, hemen 77-78 orrialdeetan**) badirudi ez dagoela ongi itzulia. (LIB I: 78).

384- Letra larriz ipiniko ditugu soildu edo aldatu diren hitzak eta esaldiak (**284gn or. eta hurrengoetan**) (LIB I: 80).

385- “Antxen lañoz jantzitako zerupe illunean, suinkiro alkartu dira eibartarrik gehienak, onenak ez baña” (**orain**, “**mitinzale asko**”). (LIB I: 80).

386- “Bego Eibarren bizar biko gizontxoaren erakastea” (**orain**, “**Utzi dezagun...**”) (LIB I: 80).

387-393- Bart arratseko deitu dudana hizkera hori ezaguerazteko ezaugarri hauexek aukeratuko nituzke: hitz-laburtzeak (“**juten**”, “**erregin zirudin**”, “**laban txiki bat**” “**logurez**”, “**moitu**”, “**orduantxe**”, “**aberen bat**”, “**pentsa dezu**”, “**zer gerta da?**”, etc.), adizki sintetiko gutxitan erabiltzen direnak edo inoiz erabili ez direnak (“**dasan**”, ez “**dion**”, “**damaizu**”, “**darantzuio**”, “**daukadate**”, “**Begola pake**”), -ki atzizkia (“**erantzuki**”, “**atzematera jarraituki**”), aditz gabeko izen-esaldiak (“**Gerok ematen guretzako legeak, eta indarrez gorde-arazi**”), zukako hizketa elkarrizketaz kanpora (“**metro pare bat galdu gabe zetorkizun**”, “**garalle gendun**”), literatur hizkuntzan orain arte sarrerarik izan ez duten esaerak (“**dantzalari**” ez “**dantzari**”, “**osta-zale**” ez “**ostalari**” edo “**ostatari**”, “**dijoazte**, **zijoazten**”, “**bai’du**, **bai’zuen**”, “**Pizarra igikor zirudin**”, “**Nikanor’k**, **Soler’k**, **Agilar’k**, “**Matildetzaz**, “**ortzaka**”, etc.), lege jakinik eza zenbait puntutan (“**etzun iñork jakin gero nork il zuan**”, “**arkitu ninduala ta laztandu nindula**”), dialektu nahastea (“**ikusiren**, **ezkonduren**, **sendaturen**, **osatuten**”). (LIB I: 84).

394- Ortografia aldatu du, jakina, zenbait v et g (**j-ren ordeztan**) lehengoan uzten direla horratik (LIB I: 95).

395-414- Hona hemen batzu: *zortzi konfiteruak* (25. or., *zortzi konfitero ta?*), *Lonjinos’ek auxe zion* (28.or., *au zion*), *ez al-daiteken* (31. or) *ez al-akiken-en ordeztan* (hurrengo etzala lizentzi entzun izan dut), *abillidade gutxi dedala/ez esan iñori* (32, *daukanik* behar luke), *ezur igarrik austen zailla duk* pixka bat bereraxeago

(*zaillak ttuk, zailla'ituk*), Ni ezazu ibiltzen (**35, enazu**), panparroi pasatu zan (**42, panparroi pasa zuten, "iru komertziante" baitziren**), berari tira alde (49, *dale da, ez alde*), inbiryak nork ditu (**61. inbiriya nork du, edo inbiryak nork ttu gehienez ere**), barrurdia dirudi (**85. basurdia**), eztu galtziak merezi (**95. galtzia**), Iru leyua, Trinidadea (**103. Iru leyua**), bestela biziya pena (104, *ez ote da biziyan pena?*), eskatzen ditut zeorri (**107. dizut**) zortzi Ministro abilla (**112. abiya**), kartzela baneta jarri (**114. banetan edo banatan**), eriotzatik gabe (**119. eriotzarik**), Pilatos'ek sententziya (120, *Pilato'k ote?: silaba bat gehiegi baitu bestela*), oyek danagatik (**12, oyek danakatik edo danangatik**), munduari nai ziozkat (**125, diozkat**), eguneko esatea (**131, egunero**), Zugaz akordatzen naiz (**132, zutaz**). Hemen ibai guziyak dioen lekuan (**90**) Makazagarenak errio danak dio, eta bere kutizi txarretan-en orde (92) bere guziyo txarretan, biziyo txarretan alegia.(LIB I: 107).

415- Longinosekin izan zituen bertso aldrebesetan (**25gn.or**), hauxe irakurtzen da (LIB I: 108).

416- 1078-1079 orrialdeetan zabaldu zait liburua halabeharrez. (**Gogoetak- Eccl. 2, 26-4, 8**) eta hor bertan idoro daitezke gehientsuak (LIB I: 113).

417- Ortografiatik has gaitezke: *Yainkoak, yayotzeko, yosteko, azterrtu, makurrkeria, negarr-egunak (r gailurduraz idatziak hauek), aberên, gôra, zapaltzallên*. (LIB I: 113).

418- Hortik kanpora, nabarmenagoak ikus daitezke. Hona zenbait ale. Igarotzen ziranek, berriz, burbuñoka biraokatu ta esaten zioten (**Mt. 27, 39**): (LIB I: 114).

419- *Emakume bat an ikusi nun birao-izenez kunkuin..., ta eskuan urrezko ontzi bat iguingarriz kunkuin* (Ap. 17, 3-4): Künküin "repleto" (*blei*, alegia) Zuberoan erabiltzen omen da (Larrasquetek Künküña "(arbre) surchargé de fruits "dakar). *Ekalo "atmida Kapnoû vaporem fumi"* (**Act. 2, 19-loel 3, 3**), *kelain* kemeta edo *kemordo* alegia, Baztangoa omen da. (LIB I: 114).

420-421- Ez zuen *zeape, ziape* hartu nahi izan *sinapi (sinapis)* itzultzeko, latinetikakoa zela igerri ziolako nonbait, eta *yeben (yeben-azia)* sartu zuen horren lekuan. Baina *yeben (xeben* behar luke izan) ez da euskal hitza eta horixe esan nahi dut, ez dela euskal hitza: (LIB I: 115).

422- Honako hau, esate baterako: "Entzun duzute esanik dagola: EZ IZORRTU. Nik, berriz, dasaizuet: emakukea irritsez inork begira dunekoxe, bere biotzean arekiko izorrkeri egin du" (**MT. 5, 27-28: Ex.20, 14n bestela dago**). (LIB I: 117).

423-424- Euskalki nahastea ere saio tankera horretatik datorkio liburu honi. Elkarren ondoan ageri dira, esate baterako, *aalke, aantzi, arean, arrituenik ez duzu, asagotu, gaur (ez egun), iize (sua) lako, neba, senide (ez aurride), tuxuri ta txerren, yardetsi, zeia* eta nik dakit beste zenbat (LIB I: 117).

425-426- Euskal hitz eta esaeren balioa ederki azaltzen du sarritan: *eskuigar "habens manum aridam"* (**Mc. 3, 1**), *makur aundia da, noski, zuena (I Cor. 6, 7)*, *nereak egin du "consumatum est"* (**Ioh. 19, 30**), eta zenbat eta zenbat. (LIB I: 119).

427-428- Orain, egia da, *mintzo zakida* ikusten dut Testamentu zaharrean (**Cant. 2, 14**): antolatzailearena? Beste leku batean, behar bezala, *erruki zakizkigu* (bizk. *zakiguz*) ageri baita (**Tob. 8, 10**), *urrikal zakizkigu* Duvoisinenean.(LIB I: 119).

429- Behin, aldizkari honetan (**EGAN 1957, 133 or.**), Axularren alde onez eta txarrez mintzatu zitzaigun A. Mujika: arriskubide izan daiteke, zioen, euskal gaietan ongia eta gaizkia ezagutzeko adinbat jakituri ez dutenentzat. (LIB I: 121).

430-434- Itxura txarreko esaerak ugari ditu: *mintzo egiten zitzaien (Mc. 2,2)*, *zoaz, orde, apaizari*

aurkezteko (**Mc. I, 44**), amets askotik, iruzurak datoz (**Eccl. 5,6**), ezagun dut (**Eccl. 3, 12**): ez da nabari dut, ezagutu dut baizik, nereko niotsan (**nioen, Eccl. 3, 17**). (LIB I: 121).

435- Orobat Gipuzkoan: *Ango elizari deritza Eleiz garailea edo benzularia, Nola deritze beste ordenai?* (**Ubillos**). (LIB I: 122).

436-437- Ez dakit ba ote genuen beste bildumarik, Joannateguy´ren bi liburuez kanpora: *Ehunbat Sainduen bicitcea* (**1876**) eta *Sainduen bicitcea* (**1890, Ilbeltz Apirila bakarrik**). (LIB I: 123) .

438- Ohar bat. Royaumont´en antolatzailea —agian, hobeki, Larregirena— Lardizabal izan zen gure artean, ez Añibarro. Lardizabalen liburuaren bigarren zatia, Testamentu berriko kondaira edo historia, agertu berria da berriz ere. (**Bilbao, 1957**). (LIB I: 126).

439-440- Lehen Buenos Airesen (**1904**) eta gero Donostian (**1930**) argitaratuak nekez aurkitzen direnez gero, jakina da erostun eta irakurle ugari izango duela oraingo liburuak. (LIB I: 147).

441- Ez naiz, bada, gehiegi harritzen zarauztar batek aitortzen badu (**184gn. or.**) bere aitak Ziburuko (orduko Zubiburuko) ontzi batean arotz zelarik ikasi zuela bale eta bakalao arrantzaren berri eta ari eskerrak hartu zutela gero Zarauzko marinelek urrutietarako bidea. (LIB II: 57).

442- Ederki azaltzen du CiriQuiain jaunak nola har zezaketen azkenengo hau adiera horretan (**216 gn. or.**): (LIB II: 57).

443- Ez da, beraz, bestek esana berresaten ari, berbera baita gai horrezaz lan sakon bat argitara zuena erdaraz: La Sierva de Dios M. Angeles Sorazu. Estudio místico de su vida (**Arantzazun, 1950-1951**), bi liburutan. (LIB I: 60).

444- Honako beste ohar hau hizkuntzari dagokio. Ubillosez ari dela (**151gn. orrialdean**) dio A. Villasantek: (LIB II: 66).

445- Etxeberri saratarrak, adibidez, *alosis* darabil (**Obras, 123gn. or.**) latinezko *musa* itzultzeko eta beste leku batetan ere baliatzen da hitz horretaz: (LIB II: 67).

446- Harizmendik (**91gn. or. hemen**) *-ino* bukaera erabiltzeak ez du gauza handirik esan nahi, beste hainbeste egiten baitu, esaterako, Axularrek. (LIB II: 67).

447- *Peru Abarka*-tik honek hartu zuen pasartean (**127gn. or.**) *igunpian* goraxeagoko *gabi-igunaren* laburpena besterik ez baita. (LIB II: 77).

448- Halaz guztiz, nik ez dut uste, Unamuno eta Baroja, inondik ere, eta orobat horien gizaldikoak, “La reacción contra el Tratado de París” (**I, 9 or.**) direnik. (LIB II: 144).

449- Erdarazkoa, berriz, zenbaitek dioenez, N. de Cortazar´en Cien autores vascos (**Auñamendi, Donostia, 1966**) izan omen da. (LIB II: 151).

450- “La tercera Orden y el euskera”; A. Julian Alustiza, “Euskal mixio eta predikuak”; A. Kandido Izagirre, “Lo que los predicadores podrían contribuir a los estudios vascológicos” (**euskaraz**). (LIB II: 70).

451-454 Honela entzun genitzake bertsolarien ahotik, hau inguruko giroaren oihartzun dela nolabait ere, hogeiren bat urteko halabeharrak eta ezbeharrak: Messinako lurrikara (**1908**), pakezale eta burrukalarri agertzen digun Mellillako gerra (**1909**), 1909 eta 1912 eta 1912ko galernak, Orioko Aundiyak 1910ean bi baserriarren kontra galdu zuen estropada oroikarria, Donostia erre zuteneko ehun urtegarrena (**1913**), Europako lehen gerrate haundia (**1914-1918**), euskaldunon harrokeria zertxobait zapaldu zuen Prat eta



Ubarretxeren korrika apostua (1915), Zegamako heriotza (1924)... (LIB II: 110).

455 Jose Vicente de Echagaray (1773-1855) donostiarraren izena nahasi xamar dabil egungo euskaldunon oroimenean, geroago etorri diren Etxegarai argien ospea dela bide edo. (LIB II: 131).

## B TIPOA

### MODALITATE-ALDAKETA

1- Ingelesek *high-Brows* deitzen dituzten kontentagaitz haietako direnek (**edo garenek?**) esango dute beharbada ez dela hau zinema hutsa, literatura dela. (ZIN: 124).

2- Behingoz bederen, zinemak, ixpilu (**zeren ixpilu gero?**) izateari utzirik, amets-ateak iriki dizkigu, Albert Lamorisse´ri eskerrak (ZIN: 170).

3- Diodan orrialdean bi aldiz agertzen da *dordoa*. Ez nekien ongi zer zen eta Azkuegana jo behar: Bizkaiko hitza omen da *durdua* "dificultad" eta Mogelek (**baina zein Mogelek eta non?**) darabilena. (LIB I: 114).

4- Ulysseri —**zergatik, ordea?**— halako Luzifer-airetxo bat erantsi diote, edo Prometheu-airea, Greziatik aldegin nahi ez badugu. (ZIN: 147).

5- Irakurgai hori ez da sasikoa, badu bere jabea. Eta ezin alda daiteke jabearen baimenik gabe zenbait huskeriatan —grafian, huts nabarietan— izan ezik. Are gutxiago egilea —**nolakoa, gero!**— hilik dagoenean. (LIB I: 79).

6- Amerikanoen etsaiek ere —**eta nork ez ditu begitan gutxi edo gehiago Europa zahar honetan?**— ez dute noski nahi beste algara egin haien bizkarretik. (ZIN: 185).

7- Xenpelarren bertsoetan zenbait huts, edo huts diruditenak behintzat —**eta barka, oker banabil**—, ageri dira. (LIB I: 107).

8- Nolazpait ere ezagutzen du, ordeak, Pascalen hura (**eta barka besterena baldin bada, Pascalena izan beharrean**) egia baldin bada: "Ez zinateke ene bila ibiliko, aurkitu ez baninduzu". (ZIN: 198).

9- Gure-gureak baititugu biak —**eta barka biezat "kamiñazpi"-k**—, gure artetik sortuak eta geron antzera taxutuak. (LIB II: 146).

10- Nik —**eta barka bekit "izenorde higuigarri" honezaz hasten banaiz mintzatzen**— profeta baten gisan ikusten dut aurrenik gure Oteiza, gure artean nola eta nondik ez dakigula —aldiz bizardun, aldiz okotz soil — agertu zaigun antzinako igarleen ondorengo galdu baten antzera. (LIB II: 117).

11- Aita Villasante ezagutzen duenak —**eta nork ez du ezagutzen izenez behintzat gure artean?**— badaki nola ekiten dion beti lanari, sustraiz eta funtsez, bil eta azter ditzakeenak oro bildu eta aztertu ondoren, edozein sailetan. (LIB II: 60-61).

12- Egilearen iritziak —**eta norenak ez?**— okerrak izan daitezke hemen edo han. (LIB I: 130).

13- Patxi Urrutikoaraunabeitiaren haur eta mutikotango ibilerak gogoz irakurtzen dira burutik burura. Gogozago noski —**eta nola ez?**— zenbait lekutan beste batzuetan baino. (LIB II: 93).

## ERLAZIO ANAFORIKO-KATAFORIKOAK

14- Hitzak aldaturik, bigarren argitaraldia (**hobetua hura ere**) hartu dute gidari, lehendabizikoa, Agirrerena berarena, hartu beharrean. (LIB I: 79).

15- Harako “Viva Zapata”-n —**Elia Kazanena hura ere**— ezpain gainean zeraman bigote zarpail haren beharrik ez du orain, jakina, eta orduko kartoi-itxurazko gelditasun hura ere ez zaio nabari. (ZIN: 124).

16- Lagunek parre egiten diote —**neskatxa ez da aldamenean harro harro erakutsi nahi izaten ditugun horietakoa**— eta bere ama ere, “Noiz ezkondu behar duk”-ka beti ari zaion ama, ez du semea ezkontzeko bidean ikusteak gehiegi alaitzen. (ZIN: 151).

17- Diren baino hamar halako ardanegi gehiago irekiko balira —**ez da hau nik asmatua**—, ez lirateke hordiak hamar aldiz gehituko; etxean ditudan halako bi ohe baneuzka, ez nuke horregatik lo gehiago egingo. (ZIN: 152).

18- Beregana dezake ikuslearen gogoia, nahiz gertaera guztien berri alde aurretik jakin —**horixe gertatzen zitzaidan neroni**—, Charles Laughton eta beste lagun azkarren antzeari eskerrak. (ZIN: 189).

19- Hizkera berriz —**horretaz ausarkiago mintza gintezke**— ederra eta ugaria. (LIB I: 47).

20- Asko gara sail hau landu behar genukeela batez ere uste dugunok. Gaurkoa delako, oraingo gizakien bihotz-adimenak ukitzeko bide erosoagorik ez dagoelako —**horretara jotzen dugu euskaldunok ere erdaraz ari garenean**— eta euskara arlo horretan gutxi saiaturia dugulako. (LIB I: 49).

21- Ez zen berez hitzun trebe horietakoa —**Jainkoaren dohaia izaten da hori**—, jakintza gizona zen izatez, ezer bazen. (LIB I: 120).

22- Hizkuntza bat ikasi behar edo nahi duenarentzat, gramatika ez da —**hori behar luke behintzat izan**— lasterbide bat besterik, igo behar duen aldapa latza menderatzeko eskeintzen zaion laguntza eta erraztasuna. (LIB II: 62).

23- Zenbait berrirekin agertu zaigu Oskillaso —**honela deitu beharko dugu egilea, bere izena salatzea debekatua daukagunez gero**— “Muttiko kaletarrak Bizkaian” izen ondokoa daraman liburu azalez eta mamiz ikusgarri eta irakurgarri honetan. (LIB II: 92).

24- Liburu honek, honez gero guztiok dakigunez, eraman du aurtengo “Agora”-ren Gipucoa” eleberri saria. Eta burruka larrian eraman gainera —**horrenbeste esan dezaket, noski**—, ez baitzuen etsai indartsuren faltarik. (LIB II: 133).

25- Baina, **hau jakin nahi genuke poliziak bezala**, nola gertatu dira gauzak? (ZIN: 130).

26- Eta, **hau da beltzena eta gogorrena**, gertakari berbera bi aldetara entzuten baldin badugu—**gaurko neska-mutilek irakurtzen dituzten nobeletan edo antzinako poema epikoetan bezala edertua eta goratua, edo oraingo eta lehengo zenbait idazlek ohi duten bezain beztua eta itxuratxartua**—, alderik politena ez dela beti, **ezta maizenik ere**, egiazkoena izaten. (ZIN: 130).

27- “Abarretan”, ez dakigu Barnem´en filmen bat, **hau edo aurreragokoa**, sarturik ote dagoen. (ZIN: 146).

28- Azkenean, **eta aski dugu honekin**, aho batez aitortzen dute hamabiek gaizkile gogortua zirudiena ez dela halabeharraren jostailu errugabea baizik izan. (ZIN: 180).

29- Bergamen´ek ez du beraz, **eta ez da hau merezimendu laburra**, ezkutaria beztu nahi izan zalduna

areago edertzeko. (ZIN: 198).

30- “Joanak joan”-en gaia, **hau ere gauza nabaria**, Etxahunen biritza da. (LIB I: 49).

31- “Begira zein ederki, **eta hori euskaraz ari naizelarik**, esaten dudan nik: (LIB I: 58).

32- Horien guztien gain, **eta hau da hemen dihoakigun auzia**, ez dakit ia ezer zezenei eta zezenketari buruz. (LIB I: 92).

33- Gizonak bere eskuko duen borondatetik datorren gaitza, ordea, **eta hori da batipat gaitza guretzako**, ez da ia ageri. Gizonagandikako gaitzak ez bada, beraz, ez da egiazko dramarik ere. (LIB I: 101).

34- Gainera, **eta hau da okerre**na, *jeben*-en jatorria *ziape*-rena berbera da, alde hau gorabehera: *ziape*-ren *n*-rik eza eta *p* horrek argi adierazten dutela aspaldidanik gureganatua dugula eta horrenbestez euskal hitz garbia dela, *jeben*-en *n*-k eta *b*-k aitzitik erdarak hitzari eman dion itxura salatzen dutelarik. (LIB I: 115).

35- Barcelonan egina, erdarazkoa berbera da, irudi eta guzti. Baina, **eta hau da berri pozgarria guretzat, erdarazkoarekin batera**, euskarazkoa ere salgai dago gure artean. (LIB I: 133).

36- Aski izan bedi esatea hor aurkituko duela irakurle bertsozaleak, **eta gero baino ugariago ageri dira horrelakoak**, aurkitu nahi lukeen gehientsua. (LIB I: 144).

37- Liburua, bere laburrean, horrelako lanak egin behar diren bezalaxe egina dago, **eta ez da hori gutxi esatea gure artean**. (LIB I:145).

38- Ez zara erraz damutuko, **horixe alde aurretik esan diezazuket**, liburu hau erosteaz. (LIB I: 146).

39- Den bezalakoa da, **hori bai**, eta ez du arpegirik izkutatzen. (LIB II: 43).

40- Ez dabil, ordea, **berak horrela dio**, jakintza lanean euskal aditzaren misterio ilunak argitzen edo, euskal irakasle eta ikasleei bide eroso bat eskeini nahian baizik, aditz jokoaz neke gehiegirik gabe jabe daitezen. (LIB II: 46-47).

41- Badu liburuak hitzaurreaz landara beste hitzaurre edo erdiko hitz bat, arras biziki, egoki eta, **honela esan badaiteke**, toleskabeki idatzia. (LIB II: 59).

42- Nerau hizkuntzak irakasten zerbait —ez gehiegi beharbada— aritua naiz eta asko ezagutzen ditut eginkizun horretan langile trebeak direnak. Eta guztiok, **hau da harritzekoa**, gramatikaz baliatzen dira beti, gutxi edo gehiago. (LIB II: 63).

43- Geronen txilberrari begira egon ohi garenok izan dugu aldi batez, liburu honi eskerrak, kanpo-alde zabaletan gere burua hegoairatzeko egokiera eta horretarako, **hori da gehien balio duena**, ez dugu beste hizkuntzetara jo beharrik izan. (LIB II: 103).

44- Arlo berriak landu nahi baditugu —**eta horretan ari da, noski, Mujika, inor ari bada**—, gogorki eta baldarki mintzatu beharko dugu, leuntasunera eta txairotasunera iritxi baino lehen. (LIB II:142).

45- Euskalki guztietarik hartu du Olabidek hitzetan ere eta hitzetan batez ere. Ez dago ezer txarrik, berriz ere, bere neurrian eginez gero. Baina Azkue eta Lhanderen hiztegian aurkitzeagatik hutsagatik —**eta horietan aurkitzen ez direnak ere badira ugari liburu honetan**—, ez du hitz batek beste edozeinek adinbat esku. (LIB I: 114).

46- Beharrezkoa zen, izan ere. Euskal nobelak ez dira asko —**eta hau bezala erdara itzuliak izanak**

**gutxiago**— eta azkenengo argitaraldia, Durangon 1906 ean egina, ez zen erraz aurkitzen. (LIB I: 43).

47- Aspaldi ez duela, kontuak hartu dizkidate —**eta, jakina, ez diot horretarako eskubiderik ukatzen hartu dizkidanari**— euskal idazle bakoitzari liburu batean opa nizkion edo ez nizkion lerroak direla eta. (LIB II: 83).

48- Nahitaezkoa zen, **eta honelaxe ikusi du begi zorrotzez egileak**, euskal idazleez gainera —euskaraz mintzatu direnez gainera, alegia—, gure arteko erdal idazleez mintzatzea, gure hizkuntzari dagozkion lanak ondu dituzten neurrian behintzat, eta are erbesteko euskalariez, zahar eta oraingoez. (LIB II: 65).

49- Villasantek dio, **eta neronek ere hori esan nuen**, Etxeberri Ziburukoarenak direla; uste dut, ordea, zuzen zebilela Irigaray, eta gu oker, Claveriari aitortzen dizkionean. (LIB II: 66).

50- Horrezaz gainera, nolabaiteko gustoak dituztenentzat —**eta ni ere horietakoa nauzue**—, badaude hemen zenbait “pasadizo” polit, “Zeamako izkean” moldatuak. (LIB II: 97).

51- Gaur egunean euskaraz mintzarazten inor saiatzen baldin bada —**eta ez dira gutxi, Jainkoari eskerrak, horretan ari direnak**—, buruzagien artean dabil, dudarik gabe, Aita Patxi Altuna. (LIB II: 153).

52- Sarri aski, **eta eskertzekoa da hori**, Platoni berari utzi dio hitza egileak, eta horretan hain merezi onez entzutetsua den idazle haren prosa euskal idazleak dasta dezan bitartekorik gabe. (LIB II: 77).

53- Hori dela eta, **eta hauxe da axola zaiguna**, kontakizun xotil eta paketsua —ez luze, ez labur, bai bien erdiko— hariltzen digu Izetak Baztango hizkera txukunean. (LIB II: 85).

54- Baina, **eta horrelakorik ez da sarri gertatzen**, orrialdez orrialde irakurri nuen, eskutik utzi gabe azkeneko “A.M.D.G.”-raino heldu arte. (LIB II: 99).

55- Esanak oroitarazten dit hor daudela, Oteizak oldar bizian eraso dien etsaien artean, “Urkixotarrak” direlakoak ere: badirudi, gainera, **eta ez ninduke horrexek minduko**, neure buru tristea ez dabilela horiengandik urruti. (LIB II: 118).

56- Han-hemenka, **eta hauxe da aipa dezakedan alde txar bakarra**, motz agertzen dira, osatu gabe, zenbait aipamen: izenetan ere, hizkuntza arrotzetarikoetan batipat, badira zenbait oker. (LIB II: 148).

57- Eta berak bakarrik daki, **eta berari entzun diogunak ere bai zerbait**, nolako neke-larriak pasa zituen harako udaldi hartan, Nafarroan gora eta Nafarroan behera galdezka zebilelarik. (LIB II: 156).

58- Gero, **eta egoki dator hori ere**, baditu bi aldiz, 12garren eta 25garren ikasgaien ondotik, gramatika laburpenak ere. (LIB II: 153).

59- Soinua, **eta harekin batera hitza**, agertu zenean zineman, lehengo mutuan iraun zuen Charlotek. (ZIN: 136).

60- “Begira zein ederki , **eta hori euskaraz ari naizelarik**, esaten dudan nik: (LIB I: 58).

61- Egituraren ederrez ez genituzke beharbada aintzakotzat hartuko bertso hoek, **eta hoen antzera beste asko**, euskal literaturaren lorategi batean, baina ezin uka adierazi nahi dutena argiro eta bortizki adierazten dutenik. (LIB II: 111).

62- Halaz ere, **edo horrexegatik beragatik**, gogoz irakur daiteke liskar sumin haren oihartzun baketsu hau. (LIB II: 122).

## ETA-REKIN OSATUTAKOAK

63- Gorputz geneukan Mike Todd (**eta ez dakit hemengo Cervantes-zale porrokatuaren arao-biraoek ez ote duten horretan parterik izan**) berak eragin zuen izena bezain kostu handiko film hau aurkeztu digutenean. (ZIN: 181).

64- Nolazpait ere ezagutzen du, ordeak, Pascalena hura (**eta barka besterena baldin bada, Pascalena izan beharrean**) egia baldin bada: "Ez zinateke ene bila ibiliko, aurkitu ez baninduzu". (ZIN: 198).

65- Kontu honetan hauxe da neretzat parregarriena: inoiz ez direla izan gaur bezain Europaren mendeko (**eta Rusia, de Gaullek gogorazi berria duenez, Europa da eta Amerika Europaren alaba**) gainerako lurraldeak (LIB I: 141).

66- Hemen —**eta liburuaren egileari, Max Catto'ri, zor zaio noski eraberritze pozgarri hori**— ez dira hasierako itxurak azken-aldeko egia bihurtzen. (ZIN: 169).

67- Léo Joannon'ek lehenbizikoan irakatsi nahi lukeena —**eta beti irakasteko asmotan dabilzanetakoa da, noski**— hauxe da, gutxi gorabehera: ez duela gogortasunik, ezta alderatzeko ere, destenoreko urrikiak eta biguinkeriak adinbat kalte egiten. (ZIN: 179).

68- Jules Verne-aren liburuak haurtzaroan —**eta lotsarik gabe esan dezadan, baita geroago ere**— gogoz irakurri ditugunontzat badu film honek beste atsegin iturriarik, haurtzaroko amets-lainoz inguratua ageri baitzaigu. (ZIN: 181).

69- Amerikanoen etsaiek ere —**eta nork ez ditu begitan gutxi edo gehiago Europa zahar honetan?**— ez dute noski nahi beste algara egin haien bizkarretik. (ZIN: 185).

70- Beharrezkoa zen, izan ere. Euskal nobelak ez dira asko —**eta hau bezala erdara itzuliak izanak gutxiago**— eta azkenengo argitaraldia, Durangon 1906 ean egina, ez zen erraz aurkitzen. (LIB I: 43).

71- Iliada inork itzuli nahi badu —**eta izango da egun edo bihar egiteko larri horri ekingo dion euskaldun ausarten bat**—, aurkituko du laguntza Aita Barandiaranek egin duen lan izugarrian. Baina oraindik itzultzeko daukagu. (LIB I: 71).

72- Berdintsu gertatzen da *diago* eta bere senideekin. Dakidanez —**eta poztuko ninduke bizi oker nagoela jakiteak**—, euskal literatura guztian behin agertzen da adizki hori, Garibayk XVI. gn. mendean jaso zuen esaera batean: (LIB I: 77).

73- Euskal irakurleak gehitu eta euskara zabaltzeagatik ekin badio lan apal honi —**eta gehiagorako gai dela gauza nabaria da**—, ez du gutxi egin gure hizkuntzaren alde. (LIB I: 91-92).

74- Hain dira garbi —**eta halaz ere ez gexak**—, bizi eta egokiak, bai ipuiak eta bai edergarriak. (LIB I: 97).

75- Xenpelarren bertsoetan zenbait huts, edo huts diruditenak behintzat —**eta barka, oker banabil**—, ageri dira. (LIB I: 107).

76- Euskalki guztietarik hartu du Olabidek hitzetan ere eta hitzetan batez ere. Ez dago ezer txarrik, berriz ere, bere neurrian eginez gero. Baina Azkue eta Lhanderen hiztegian aurkitzeagatik hutsagatik —**eta horietan aurkitzen ez direnak ere badira ugari liburu honetan**—, ez du hitz batek beste edozeinek adinbat esku. (LIB I: 114).

77- Beharrak eta indarrak batera joarazten ez gaituzteino —**eta txorakeria litzateke orduan euskaldun guztiak giputzen esanera egongo direla sinestea**—, atzera begiratu behar dugu, euskalkiak are gehiago

elkarrengandik bazter ez daitezten. (LIB I: 120).

78- Hemen ere ez dago bide galtzerik gauzen berri dakienarentzat bai ordea auzi askori buruz —**eta euskal gramatiketan punturik gehienak auzi bihurturik ditugu gaurko eta hemengo euskaldunok**— zalantzan dagoenarentzat. (LIB I: 121).

79- Har dezagun *eritzi* aditzaren jokaera. Ohiturarik zaharrena —**eta jatorrena, noski**— datiboarekin erabiltzea da. (LIB I: 122).

80- Txillardegiren idazlanei arreta pixkaren bat opa dienak badaki —**eta euskal irakurle gutxi dira nik uste horrenbestearaino heldu ez direnak**— ez dela hitz ozen eta esaera apainen adiskidea, bihotz-errietatik dariola mintzabeharra. (LIB I: 135).

81- Aita Villasante ezagutzen duenak —**eta nork ez du ezagutzen izenez behintzat gure artean?**— badaki nola ekiten dion beti lanari, sustraiz eta funtsez, bil eta azter ditzakeenak oro bildu eta aztertu ondoren, edozein sailetan. (LIB II: 60-61).

82- Neronek ikus dezakedanez —**eta ez naiz nor horrelako auzietan mintzatzeko**—, ederki tajutua du gaia, lau kapitulutuan berezia, eta harira doa beti egilea, hitz alferrik gabe. (LIB II: 71).

83- Erkiaga lekeitiar olerkari bikaina —**eta hemen bertan daukazuen “Illobi izengabea” izan bedi diodanaren lekuko zintzo**— ez da esku trebez landu duen poesi barrutian mugaturik gelditu. (LIB II: 78).

84- Aspaldi ez duela, kontuak hartu dizkidate —**eta, jakina, ez diot horretarako eskubiderik ukatzen hartu dizkidanari**— euskal idazle bakoitzari liburu batean opa nizkion edo ez nizkion lerroak direla eta. (LIB II: 83).

85- Horrezaz gainera, nolabaiteko gustoak dituztenentzat —**eta ni ere horietakoa nauzue**—, badaude hemen zenbait “pasaduzo” polit, “Zeamako izkean” moldatuak. (LIB II: 97).

86- Labayen jauna eraberritzeko gogoz euskal teatroan agertu zenez gero —**eta aspalditxo agertu zen, hemen bere lanen berri laburrean ikus daitekeenez**—, ez du hutsik utzi aurreneko hartan hartu zuen leku jaso. (LIB II: 97).

87- Ez da beharbada guztion eredutzat hartzekoa, baina nabari da Txirritak jakin zuela —**eta Goethe baten ahaide hurbila dugu alde horretatik**— bere bizitza ontzen eta lantzen, bere bertsoak ez ezen. (LIB II: 98-99).

88- “Gisa hortan”—**eta Lafitte jaunak du hitza, berriz ere**— “Eskual-herriko ichtorio kantail bat emana zaiku begien aintzinerat... Horrek lanari emaiten dio hedadura gehiago, alde edo moldez”. (LIB II: 116).

89- Nik —**eta barka bekik “izenorde higuigarri” honez hasten banaiz mintzatzen**— profeta baten gisan ikusten dut aurrenik gure Oteiza, gure artean nola eta nondik ez dakigula —aldiz bizardun, aldiz okotz soil — agertu zaigun antzinako igarleen ondorengo galdu baten antzera. (LIB II: 117).

90- Ez dut, gorago esan dudan bezala, sentimenduen jatortasuna ukatzen, inolaz ere, baina ez dut uste —**eta nahiago nuke oker egon, zuzen baino**— jatortasun bizi hori irakurleari aditzera emateko, entzungor egin nahi badu ere, biderik eta modurik aurkitu duenik beti. (LIB II: 142).

91- Arlo berriak landu nahi baditugu —**eta horretan ari da, noski, Mujika, inor ari bada**—, gogorki eta baldarki mintzatu beharko dugu, leuntasunera eta txairotasunera iritxi baino lehen. (LIB II: 142).

92- Bion aurrean zalantzan gelditzen gara —**eta Fagoaga ere bai, noski**— nor aukera ez dakigulako: biok har ditzakegu, jakina, edo biok arbuia, baina badirudi, nola eta zergatik ez dakigularik, batari opa dioguna besteari ukatzen diogula. (LIB II: 146).

93- Gure-gureak baititugu biak —**eta barka biezat “Kamiñazpi”-k**—, gure artetik sortuak eta geron antzera taxutuak. (LIB II: 146).

94- Gaur egunean euskaraz mintzarazten inor saiutzen baldin bada —**eta ez dira gutxi, Jainkoari eskerrak, horretan ari direnak**—, buruzagien artean dabil, dudarik gabe, Aita Patxi Altuna. (LIB II: 153).

95- Basoan gertatutakoaren berri nahiz ez ongi jakin, zenbait gauza ikasi ditugu horratik, **eta ez nolanhikoak**. (ZIN: 130).

96- Jakitunek diotenez, **eta jakitunen esanak entzunbeharrekoak omen dira ezjakinonetatik urruti badabiltza ere**, utzi dio oraingoan Bardem´ek apurren bat artean erakutsi nahi izaten zuen “kaligrafiari”, hots, ikusleen harrimenerako Orson Welles´en antzera egiten zituen teknika-joko dotoreei. (ZIN: 170).

97- Azkenean, **eta aski dugu honekin**, aho batez aitortzen dute hamabiek gaizkile gogortua zirudiena ez dela halabeharraren jostailu errugabea baizik izan. (ZIN: 180).

98- Esango nuke, **eta asko esatea da**, hau dela higuingarriena amerikanoek Bibliarekin, gizon indartsu eta emakume erdi-biluxiekin, sortzen dituzten saltsa koipetsu horietan guztietan. (ZIN: 189).

99- Baina Fortebraccio della Rovere izen-deiturez jabetu den orduko, **eta ez da harritzeko horien pisu-astuna nabaritzea**, zerbait aldentzen da gure arlotearen barruan. (ZIN: 195).

100- Bergamen´ek ez du beraz, **eta ez da hau merezimendu laburra**, ezkutaria beztu nahi izan zalduna areago edertzeko. (ZIN: 198).

101- Mamia behar du lirikak, **eta mami joria**, behin eta berriro irakurriko badugu. (LIB I: 65).

102- Bi hitz esango ditut, **eta askozaz gehiago behar lirateke**, argitaldarien lana goratzeko. (LIB I: 65).

103- Itzultzaileek gorde dute, **eta ez zen egiteko samurra**, liburuaren bizia, arina eta erraza. (LIB I: 84).

104- Horien guztien gain, **eta hau da hemen dihoakigun auzia**, ez dakit ia ezer zezenei eta zezenketari buruz. (LIB I: 92).

105- Ikaskizun ugari aurki ditzakegu liburu honen orrietan, **eta aurkituko ditugu**, inoren begiko lastoaren bila ez bagabiltza. (LIB I: 94).

106- Egia esan, **eta ez da gutxi**, ez dirudi Agirreren errainuak gehiegi artegatu duenik Erkiaga, zerbait lagundu badio ere. (LIB I: 99).

107- Bere-berea duen bizkaieraz idatzi du, han-hemenka bildutako loreak noizean behin sakabanatuaz, **eta ez da inor damutuko**. (ZIN: 100).

108- Gizonak bere eskuko duen borondatetik datorren gaitza, ordea, **eta hori da batipat gaitza guretzako**,

ez da ia ageri. Gizonagandikako gaitzak ez bada, beraz, ez da egiazko dramarik ere. (LIB I: 101).

109- Gainera, **eta hau da okerrena**, *jeben*-en jatorria *ziape*-rena berbera da, alde hau gorabehera: *ziape*-ren *n*-rik eza eta *p* horrek argi adierazten dutela aspaldidanik gureganatua dugula eta horrenbestez euskal hitz garbia dela, *jeben*-en *n*-k eta *b*-k aitzitik erdarak hitzari eman dion itxura salatzen dutelarik. (LIB I: 115).

110- Huts larriak, bi ditu itzulpen honek. Esan dudan naturaltasunik eza, aurrenik, **eta pekatu larria da**. (LIB I: 120).

111- Santu bakoitzaren kondairari buruz ez naiteke ezer esaten ari, **eta ez dago ezer esan beharrik**, iturri honetara jo baitu A. Manzisidorrek ur bila. (LIB I: 123).

112- Nondik jo ongi ez dakiela somatzen dugu batzuetan, **eta ez da harritzeko**. (LIB I: 128).

113- Hor azaltzen digun aditza ez da “berrea”, euskal aditza baizik. Ez dago, beraz, **eta nahi eta nahiez ezin zegokeen**, azken urteotan –eta bat edo beste lehendanik— gure Gipuzkoa honetan agertu diren berrikerien alde. LIB I: 130).

114- Barcelonan egina, erdarazkoa berbera da, irudi eta guzti. Baina, **eta hau da berri pozgarria guretzat, erdarazkoarekin batera**, euskarazkoa ere salgai dago gure artean. (LIB I: 133).

115- Honaino heldu naiz, **eta pozkarri da**, liburu honen idaztanka ahotan hartu gabe. (LIB I: 142).

116- Badakigu guztiok, **eta ederki azaltzen du Aita K. Iturriak bere hitzaurrean**, leku berezia irabazi duela aspaldidanik I. Eizmendik euskal idazle eta bertsolarien artean. (LIB I: 144).

117- Aski izan bedi esatea hor aurkituko duela irakurle bertsozaleak, **eta gero baino ugariago ageri dira horrelakoak**, aurkitu nahi lukeen gehientsua. (LIB I: 144).

118- Liburua, bere laburrean, horrelako lanak egin behar diren bezalaxe egina dago, **eta ez da hori gutxi esatea gure artean**. (LIB I: 145).

119- Batzuek, berriz, **eta ez gutxi**, bere laburrean eta zorrotzean, gain-gainekoak. (LIB I: 146).

120- Artolaren ixuri eta gaitasuna bertso arinetan, anakreontiar horietakoetan, agertzen dira batez ere. Maitasun bertsoetan ere ba omen du Bilintxen egitea, **eta ez da harritzeko**, biak elkarren kidetsu zirelarik. (LIB II: 53).

121- Maiz esan ohi da, **eta okerrik gabe noski**, irakurgai irakurgarrien beharrean gaudela gure hizkuntzan. (LIB II: 59).

122- Nahitaezkoa zen, **eta honelaxe ikusi du begi zorrotzez egileak**, euskal idazleez gainera —euskaraz mintzatu direnez gainera, alegia—, gure arteko erdal idazleez mintzatzea, gure hizkuntzari dagozkion lanak ondu dituzten neurrian behintzat, eta are erbesteko euskalariez, zahar eta oraingoez. (LIB II: 65).

123- Villasantek dio, **eta neronek ere hori esan nuen**, Etxeberri Ziburukoarenak direla; uste dut, ordea, zuzen zebilela Irigaray, eta gu oker, Claveriari aitortzen dizkionean. (LIB II: 66).

124- Gogoz irakurriko ditu zeinnahi euskaldunek, **eta are gogozago beharbada hitzaurrean ematen zaizkigun Artolaren bizitzako berri ugariak**. (LIB II: 68).

125- Liburu atsegina da aurrenik, **eta atsegina bezain erraza**, irakurle askok gogoz eta nekerik gabe irakurriko duena burutik burura. (LIB II: 71).



126- Erraztasunak ezer galdu badu hemen edo han, **eta euskaraz tutik ez dakien ikaslea daukat gogoan**, ugaritasunak eta aberastasunak irabazi dute. (LIB II: 73).

127- Sarri aski, **eta eskertzekoa da hori**, Platoni berari utzi dio hitza egileak, eta horretan hain merezi onez entzutetsua den idazlearen prosa euskal idazleak dasta dezan bitartekorik gabe. (LIB II: 77).

128- Hori dela eta, **eta hauxe da axola zaiguna**, kontakizun xotil eta paketsua —ez luze, ez labur, bai bien erdiko— hariltzen digu Izetak Baztango hizkera txukunean. (LIB II: 85).

129- Hizkuntzaren aldetik, **eta gure sailean sartzen naiz horrenbestez**, ez da gogo gaiztoz bezala begiratzekoa, astiro eta sakon aztertzekoa baizik. (LIB II: 89).

130- Oskillasoren liburua irakurri ez duenari, **eta beharbada horrelako liburu lodixkoa irakurtzen hasteko beldurrak dagoenari**, eske bat egingo nioke. (LIB II: 93).

131- Hasieran aipatu dudan auzian buru-belarri sartu gabe ere, **eta ez daukat oraingoz horretarako gogorik ez astirik**, bistan dago Oskillasoren bi xedeak eta helburuak, euskararen batasuna eta euskal eleberraren ona, haserre xamar dabiltzala elkarrekin. (LIB II: 93-94).

132- Baina, **eta horrelakorik ez da sarri gertatzen**, orrialdez orrialde irakurri nuen, eskutik utzi gabe azkeneko “A.M.D.G.”-raino heldu arte. (LIB II: 99).

133- Horrezaz gainera, lehen ere abiatua dugu bestek deus gutxi edo batere ez ukitutako gaiak euskaraz azaltzen: berea da, **eta aspaldikoa**, Antzinako Olinpiar jolasak. Eta orainengo honek 1954 ean Saharan barrena, Alger´tik Alger´a, egin zuen ibilaldi polita kontatzen digu. (LIB II: 102).

134- Ez baita aski, prosaz bezala, besteren hitzen muina eta mamia adieraztea; haren hitzen musika ere, **eta ez musika ixila**, belarriek suma dezaketena baizik, nolabait ere berritu behar baita beste soinugailu baten bitartez. (LIB II: 105) .

135- Bestetik, ordea, **eta hemen badihoakit neri ere**, neurkera horren bidez esplika daiteke silaba jakinik ez duten kanta zaharren neurria. (LIB II: 107).

136- Guk zalantzarik gabe esan dezakeguna, **eta hemen ipiniko dut azken puntua**, beste hauxe da: ederki baino ederkiago dakitela “Auspoa”-koek zertan ari diren eta nora doazen. (LIB II: 113).

137- Buenos Airesko “Euskaltzaleak” elkargoak eman du liburutxo hau argitara, **eta merezi onez eman ere**. (LIB II: 114).

138- Esanak oroitarazten dit hor daudela, Oteizak oldar bizian eraso dien etsaien artean, “Urkixotarrak” direlakoak ere: badirudi, gainera, **eta ez ninduke horrexek minduko**, neure buru tristea ez dabilela horiengandik urruti. (LIB II: 118).

139- Badakigu, **eta ederki azaltzen du hori San Martinek beste hainbeste gauza bezala**, alferrik joko dugula honelako ipui eta alegietara gai berrien bila. (LIB II: 123).

140- Merezi zuten, **eta ongi merezi ere**, berriz agertzea hainbeste irakurle xehe eta larriren onerako, eta hemen ditugu gure artean “Auspoa”-ri eta San Martini eskerrak. (LIB II: 123).

141- Larzabal apaiz jaunaren izena ongi ezaguna da gure artean, **eta merezi onez ezaguna**, bere teatro lanei eskerrak. (LIB II: 130).

142- Gerta baitaiteke, **eta maiz gertatzen baita**, zailtasun horren hogena idazlearena ez izatea. Eta ez da idazlearena izango euskara argi eta garbian mintzatzen baldin bada, hemen Etxaide bezala, nahiz euskara argi eta garbi hori, hemen bezala berriz ere, aberatsa eta ohi baino ugariagoa izan. (LIB II: 138).

143- “Azkontegia” hitza (“saetera”) ikusi dut 44 garren orrialdean. Horrela balitz, **eta bestela baldin bada barka**, beharrik gabe asmatua dirudi, gure artean *saetera* euskal hitz ezaguna baita oraindik, antzinako leiho mehar horietakoa adierazteko. (LIB II: 140).

144- Han-hemenka, **eta hauxe da aipa dezakedan alde txar bakarra**, motz agertzen dira, osatu gabe, zenbait aipamen: izenetan ere, hizkuntza arrotzetarikoetan batipat, badira zenbait oker. (LIB II: 148).

145- Eta berak bakarrik daki, **eta berari entzun diogunak ere bai zerbait**, nolako neke-larriak pasa zituen harako udaldi hartan, Nafarroan gora eta Nafarroan behera galdezka zebilelarik. (LIB II: 156).

146- Gero, **eta egoki dator hori ere**, baditu bi aldiz, 12garren eta 25garren ikasgaien ondotik, gramatika laburpenak ere. (LIB II: 153).

147- Agatha Christiren ipui laburraren (**eta geroxeagoko komediaren**) gainean eraikitako film honek ez du suspense delakoa bakarrik. (ZIN: 189).

148- Liburu zaharrak, ordea, nekez topatzen dira eta ez ditugu beti gogoz irakurtzen, haietan —**eta baserriarren mintzairan ere bai**— agertzen baitira halako hitz eta esaerak gure belarri minberentzat mingarri direnak. (LIB I: 103).

149- Hor dauzka orrialde horietan, egia den ala ez bere begiz ikusi nahi lukeenak, Arranondoko kale mehar, oker, aldapatsuak, itsasoaren (**eta itsasgizonen**) zalapartak eta bazter guztietatik darion arrai usaia. (LIB I: 43).

150- Kontu honetan hauxe da neretzat parregarriena: inoiz ez direla izan gaur bezain Europaren mendeko (**eta Rusia, de Gaullek gogorazi berria duenez, Europa da eta Amerika Europaren alaba**) gainerako lurraldeak (LIB I: 141).

151- Japonen eta hemen gizona —**eta emakumea**— izukaitz baino bildurriago, prestu baino berekoiago, bihotz-zabal baino zitalago dela, alegia (ZIN: 130).

152- Baina kantari eta dantzari —**eta zahatoari eragiten**— ari direino ez dira, dirudienez, gehiegi oroitzen ez itsasoaz ez etxe gaineko hipotekaz. (ZIN: 132-133).

153- Ogia —lehorra badere—, jakitea, lasaitasuna ematen dizkigu, eskatzen ditugunean —**eta eskatu gabe ere bai inoiz edo behin**—, baina horren truk gero eta estuago lotzen gaitu. (ZIN: 150).

154- Illunabarrak, udazkenak —**eta gau-neguen itxuraren azpian izkutatzen zaigun heriotzeak**— zirrara ezti-mingotsa zabaltzen digute bihotzean, egunsentiak eta udaberriak ez bezala. (ZIN: 136).

155- Zeru garbiak —**eta han, urdinaren gainean, bizpahiru zuhaitz lirainen ostu ilunak**— *Quattrocento*’ko pintatzaileenak dira. (ZIN: 154).

156- Gure gorputz-arimak, gorosti-makilaz bezala astintzea ez da agian zinematik —**eta arteak erabat**— mendera dezakeen helbururik gorena. (ZIN: 174).

157- Zintzotu zen gerratean eta pakean —**eta oparo, ez bide baitzuten itzuli ondasun ostuak**— bizi da, beste “katu” bat katuarenak egiten hasi arte. (ZIN: 187).

158- Gerraren zentzugabekeria argi baino argiroago erakusteko egina dirudi. Elkarren lehian ari dira ingelesak, zubi-gintzan batzuek eta zubia desegin beharrean besteak. Lehen ere asko saiatu izan dira gerrako —**eta politikako**— hautsi-konpondu eta josi-urratuen itsumena adierazten. (ZIN: 187).

159- Nola esan berriz hainbestek eta hainbestek —**eta lau ebanjelariak aurrenik**— lehen esana daukatena? (LIB I: 59).

160- Ez baita besterik eleberri hau: interesduna, ederki moldatua, esku trebez josia, arina eta edozeinek —**eta gazte jendeak batez ere**— gogoz irakur dezakeena. (LIB I: 83).

161- Euskaraz pentsatuak eta esanak dirudite zati askok eta askok. Eta “auzo-lanean” egina delarik ere —**eta, esan didatenez, nork bere zatia banaka itzuli duelarik**— ez zaio gehiegi nabari batasunik ez hori. (LIB I: 84).

162- Guztioi —**eta neroni aurrenik**— itzurtzen zaizkigu zenbait huts baztertuz gero, egileek poesi-prosarako duten joeran daudela deritzat itzulpen honen alde txarrenak. (LIB I: 85).

163- Gogoz —**eta batzuetan parre-algaraz**— irakurtzen dira ipui guztiak, buru batetik bestera. (LIB I: 91).

164- Haiengan [bertsolariengan] maiz topa daitekeelako noski bestetan urri dabilen naturaltasuna, baita garbitasuna ez den —**eta Euskalerrian garbitasunaren etsai dirudien**— jatortasuna ere. (LIB I: 106).

165- Ez dago, beraz, eta nahi eta nahiez ez zegokeen, azken urteotan —**eta bat edo beste lehendanik**— gure Gipuzkoa honetan agertu diren berrikerien alde. (LIB I: 130).

166- Egilearen iritziak —**eta norenak ez?**— okerrak izan daitezke hemen edo han. (LIB I: 130).

167- Ez dago gustora lantegian, bereak eta bost maiz aski —**eta bada zergatik**— esaten dizkiotelako. (LIB I: 138).

168- Ez da noski Soroa, orain dakigunez, euskal teatroaren hazia lehen aldiz erein zuena, ospe hori —**eta ez hori bakarrik**— Barrutia aramaioarrari dagokionez gero, bai ordea euskal teatroa (sic) berriaren aita, eta teatro berri hori baizik ez da izan Euskalerrian bizi iraukorrik ezagutu duenik. (LIB II: 53).

169- Eskerrik bizienak zor dizkiegu guztiok Valverdetarrei —**eta lankide dugun “Ayalde”-ri aurrenik**— ikastaldi hau horren ederki argitara dutelako...eta beste zerbaitengatik ere bai. (LIB II: 73).

170- Eta egiazko lirikaren urrearen aldamenean gainerako guztia —**eta batipat jakituri ugariaren ume dena**— ez da tupiki ozena baizik, gehienaz ere. (LIB II: 84).

171- Orain, “Auñamendi”-k hain asmo onez —**eta izen txarrez**— eskura digun liburu honi eskerrak, ikus dezakegu guztiok bere garaikoen artean irabazi zuen entzuteak ez zuela gezurrezko oinarririk izan. (LIB II: 85-86).

172- Patxi Urrutikoaraunabeitiaren haur eta mutikotango ibilerak gogoz irakurtzen dira burutik burura. Gogozago noski —**eta nola ez?**— zenbait lekutan beste batzuetan baino. (LIB II: 93).

173- Halaz guztiz ere, irakurle-gai bakoitza errugabe agertzen baldin bada ere, banan-banan hartuz gero, ez da horrenbestez esan euskal irakurleak erabat errudun —**eta errudun larri, gainera**— ez garenik. (LIB II: 138).

174- Jostaketa atsegina izango litzateke agian zuretzat —**eta bide batez irakurleentzat**— barrena eta zeure

inguru hurbilera begira mintzatuko bazintzaizkigu, behin bederen. (LIB II: 140).

175- Hizkuntzaren aldetik, ordea, hori dugu zalantzarik gabe antzinako euskararen —**eta batez ere Bizkaikoaren**— lekukorik harrigarrietakoa eta guztietan miresgarriena ere bai, beharbada. (LIB II: 147).

176- Soinua, **eta harekin batera hitza**, agertu zenean zineman, lehengo mutuan iraun zuen Charlotek. (ZIN: 136).

177- Baina zineman, **eta gizartean ere sarri**, gehiago balio du itxurak izanak baino. (ZIN: 163).

178- Gisa horretako predikua, **eta luze xamarra aukeran**, da goian aipatu dugun Stanley Kramer'en film hau. (ZIN: 193).

179- “Begira zein ederki, **eta hori euskaraz ari naizelarik**, esaten dudak nik: (LIB I: 58).

180- Nahitaez irakurri beharrekoa izan ez banu, hasiko ote nintzen irakurtzen ere? Artean ezer argitara eman ez zuen autore baten lehen lana, **eta polizi nobela**, alafede. (LIB I: 60).

181- Ez, ordea, iguzki aldekoek, **eta neroni ere, haien artean**, batzuetan ak eta besteetan —ek-ka ari natzaizue hemen. (LIB I: 70).

182- Gaur, urteen joanak hoztu gaituelako edo, ezin genitzake Arreseren olerkiak ikus orduko euskaltzaleen, **eta batez ere Campionen**, begiz. (LIB I: 87).

183- Beste batzuek, ordea, agerian daramate Eibar inguruko marka: euskaraz besterik, **eta hango euskaraz hain xuxen**, ezin baitatitezke asma. (LIB I: 91).

184- Euskaldunen, **eta batez ere euskaldun gurasoen**, aspaldiko egarria berdintzeko agertu dira noski bi liburutxo polit hauek. (LIB I: 97).

185- Badira zorionez horretaz oharturik haur sailean ezin hobeki saiatzen direnak. Horiek, **eta nor bere etxekeekin ari direnak**, laguntza goragarria hartu dute Arantzazutik. (LIB I: 97).

185- Arrotz idurituko zaio zenbaiti Olabideren hizkera, beste zenbaiti arrotz gertatuko zaion bezalaxe Urte, Duvoisin, Uriarte, Larregi eta Lardizabalena: nolana ere, **eta beren artean dituzten berezitasun larriak gorabehera**, bizkiak dirudite azken hoek guztiok Olabideren aldamenean. (LIB I: 112).

186- Euskaldun berria izanik, **eta bere aldiko euskaldun berria**, ezin gauzak ikus Larramendiren begiz. (LIB I: 116).

187- Beste hutsa teoriari dagokio, baina saioetan teoriak, **eta teoria zuzenak**, behar du izan gidari, sasi tartean galduko ez bagara. (LIB I: 120).

188- Orain adierazi nahi nuke, ordea, luzatu gabe, A. Ormaetxeberriaren jardunei ez diedala alde txar bat baizik aurkitzen, **eta nolako alde txarra!** (LIB I: 129-130).

189- Erramun Artola hau berau da lekuko, **eta lekuko bikain**, liburutxoaren hitzaurreak gogoratzen digun bezala, 1959garrengo abuztuaren gauerdian batean Tolosako “Zeru-txikin” entzun zitekeen kantaren inguruan: (LIB II: 52).

190- Halaz guztiz, **eta inoren lumarik jantzi gabe**, aski harrigarriak dira gure mariñelen ibilerak. (LIB II: 57).

191- *Lumera*, esate baterako, ez zen “saina” eta “balea” bakarrik: horrezaz gainera, **eta horiek baino lehenago noski**, saina edo lumera ateratzeko egiten ziren suak eta labeak adierazten baitzituen. (LIB II: 57).

192- Prosazale agertzen zait neri Villasante, **eta are irakas prosaren zale**, olerkarien kaltean beharbada inoiz edo behin. (LIB II:66).

193- Hizkuntza gaietan urak beren bidera itzuli direnean, Urruzunok hartu du poliki-poliki euskal literaturan zor zitzaion, **eta Altube jaunak aspaldi begiz jo zion**, lekua. (LIB II: 68).

194- Hala eta guztiz ere, **eta galduak galdu**, Ramuntxo-ren leku aldatze hori euskaldunen onerako izan denik ezin uka. (LIB II: 81).

195- Eta doi-doi moldatzen naizenez gero olatuen gainetik arnasa noizean behin hartzeko, ez ahal zait inor minberatuko nahi nukeen, **eta ezin dezakedan**, bezain luzaz mintzatuko ez banaiz hemen obra bakoitzaz. (LIB II: 95).

196- Gaitz liltzateke, **eta are ezinezko**, lehen liburu honen aberastasunaren berri ematea. (LIB II: 98).

197- Euskaraz zerbait dakienak, **eta are zerbait ikasi nahi duenak**, laguntzaile bizkorra dauka orain liburu argi, trinko eta ongi banatu horretan. (LIB II: 104).

198- Gure hizkuntza dagoen baino landuago balego, pekatu larria litzateke, noski, mendeari eta garaiari dagokion giro jakin hori ez itzultzea. Gauden gaudenean, ordea, **eta inor gutxi saiatu denez gero giro berezien begitarte aldakorra itzultzen eta irakurleari erakusten**, ezin daiteke izan erru arina baizik, akats ezereza, Gazteluri egotzi diodana. (LIB II: 106).

199- Esan daiteke, gehiegizko gezurrik esan gabe, hor dagoela euskal literaturari, **eta literaturari erabat**, utzi dion testamentua eta ordenua. (LIB II: 107).

200- Egituraren ederrez ez genituzke beharbada aintzakotzat hartuko bertso hoek, **eta hoen antzera beste asko**, euskal literaturaren lorategi batean, baina ezin uka adierazi nahi dutena argiro eta bortizki adierazten dutenik. (LIB II: 111).

201- Eta, nahiz bere bertsoak herritarrek alaitzeko eginak izan, gertakariak eta egunak eskatzen zuen neurrian, atseginez irakurriko ditugu, **eta behin ere ez onurarik gabe**, antzinako gauzetan oraingoan iturburua bilatzen dugunok. (LIB II: 131-132).

202- Hizkera landuan, **eta landugabetasun landuagoan**, ari garen horrenbeste euskal idazleren artean, Baroja gisako naturaltasun zailean mintzatzen zaigu Bitaña, herri inguruan ikasi zuen euskara lauean. (LIB II: 152).

## Edo

203- “Ezin aurrera eginik aurki zirala...” “Aurki”, “berehala” da, eta hor esan nahi litzatekeen hori “aurkitu” esaten da euskaraz. Bertsoan zilegi da (**edo, gure Xenpelarrek zioen bezala, lizentzi**) bata bestearen orde erabiltzea *metri causa*, bi silaba besterik ez dituelako, baina ez euskal prosa jatorrean. (LIB I: 70).

204- Zer arraioren bila dabil gure Peru? Adimen kamutsa dudalako edo, nik ez diot igertzen. Harako Unamunoren hilezkortasun behar hura, bere nortasuna (**edo “nitasuna”**) deuseztatuko ez zuen hilezkortasun baten bila ibiltze hura, konprenitzen dut. (LIB I: 140).

205- Zenbait gai utzi ditu bazterrean egileak, jakinaren gainean horratik eta alde zurretik aitortzen

duelarik: herri literatura batetik (bertsolariak, Zuberoako pastoralak eta), hor hemenka aipatzen baditu ere, eta egungo egunean (**edo behintzat liburua osatu zuenean**) bizi diren euskal idazleak. (LIB II: 65).

206- Eskutitzek ez dute gure artean luzaro irauten; maiz doaz surtara, **edo paper zaharren saskira**, jaso bezain laster. (LIB II: 115).

207- Zerbait egiten zela erantzun zitzaion, **edo behintzat zerbait egiten zelako itxurak egiten genituela**. (LIB II: 155-156).

208- Eta gure arimaren eguneroko —**edo asteroko**— ogia hori dugunez gero, hemen ere aterpe txiki bat, narrasa bada ere, utzi nahi genioke. (ZIN: 123).

209- Eta mutilak gogoko duen neska —**edo neskak mutila**— ikusten duenean, hango apak eta laztanak, elkarriroratu, nahiz eta igande eguerdian herriko plaza nagusian aurkitu! (ZIN: 133).

210- Gina gaxoa saiatzen da, ba; batean mutur-joka —**edo zimatik tiraka**—, bestean ezpata dantzatzen, hurrengoan “Tosca” kantari. (ZIN: 157).

211- Mejicoko lur beroetan —**edo lur beroen mugan**— gertatzen den Graham Greene’n ipui labur bat hartu dute oinarri, ezin gehiago luzatuz. (ZIN: 191).

212- Gizon izanik, kaskarin xamarra da, eta ez du beti uste dugun —**edo nahi genukeen**— bezala erantzuten. (LIB I: 57).

213- Eta horrenbeste gipuzkoar langile elkarren lehian ari bazaizkigu ere, oraingo gisan, mendiak murrizten —**edo gehienez pinu beltzez jazten**—, ez dute, eginahalak egin arren, Lizardik utzi zigun baso antzaldutua soilduko, harako leihoak itxitako jauregia dirudien hura, atsedeenaren eliza, gau argi izarrez josia goian eta ur berdeak —izar irudiz zirtatuak— behean dituena. (LIB I: 64).

214- Euskarak, egia esan, badu premiari; zertxobait leuntzeko, hornitzeko eta egokitze premia ederrean dagoela guztiok dakigu. Baina egin beharrik ez, aspaldidanik egin-egina baitago. Euskera egiten —**edo egin ustez desegiten**— hasi baino hobe genuke euskaldunok euskara ongi ikasten hasi. (LIB I: 69).

215- Hizkuntza bat ikasteko —**edo ikasten hasteko, behinik behin**— bide eroso eskeintzen duten libururik gehienak motz gelditu ohi dira beren egitekoan, hizkuntzak nekerik eta gogo bizirik gabe ezin ikas daitezkeelako noski. (LIB I: 109).

216- Argia —**edo ilunbea**—, sortaldetik etortzekotan, ez ote zaigu Txinatik agertuko? (LIB I: 140).

217- “Hark berak hari berari” daramate buruan —**edo antzeko zerbait: liburua damurik ez daukat eskuartean**—, eta lehenbiziko “hura bera” aurreko bertsoen egilea bide da — hots, Claveria— eta bigarrena, bertso haiek eskeini zizkiona, hau da, Etxeberri. (LIB II: 66).

218- Literatur euskararen batasunerako bide berria edo eskeintzen du aurrenik, eta gure artean maizegi ikusten ez den eleberri saioa —**edo eleberri moduan antolaturikako haurtzaroko oroitzapenak behintzat**— besteaz gainera. (LIB II: 93).

219- Nabari zaio ez dela gaia zenbaiten (askoen edo gutxi batzuen?) gogoko izango eta hala ere, **edo horrexegatik beragatik**, batere beldur eta kupidarik gabe azaldu nahi luke. (ZIN: 145).

220- Horko lagun buru hausteek badute gerok ditugunen, **edo izan genitzakeenen**, eitea. (ZIN: 149).

221- Eskeini digun ingurutzoko dantzariak prozesio batean dabiltzala dirudite, **edo meza nagusia ematen**.

(ZIN: 165).

222- Historia ikusteko, **edo ikasia gogoratzeko**, liburu bat irakurtzea baino errazago delako, beharbada. (ZIN: 166).

223- Izan genuen Gipuzkoan ukabilkari trebe, **edo gutxienez sendo bat**. (ZIN: 166).

224- Ez deritzat nik euskara bide honetatik jaso litekeenik. Euskarak erdaraz esan ez diren, **edo hain ongi adierazi ez diren**, gogoeta eta bihotzondokoei bide emanaz bakarrik jaso dezake burua, lehen, orain eta beti. (LIB I: 58).

225- Negarrez gaude beti, euskal irakurgai gutxi ditugula eta, eta ditugun ederrak ere ezin ditugu, **edo ez ditugu nahi**, irakurri. (LIB I: 71).

226- Ez naiz honetan ari hutsak, **edo huts-ustekoak**, bilatzea maite dudalako. (LIB I: 85).

227- Honelako liburu bat egiten duenak bere buruaz eman ohi du iritzia, bestez ematen duelarik, **edo gutxienez behintzat irakurlearen eskuan ipini ohi ditu iritzi hori emateko behar dituen oinarriak**. (LIB II: 66).

228- Eleberria baita hain zuzen ere, **edo fiction delakoa orobat**, izan daitekeen lurrik elkorrena nolana hiko batasun saioendako. (LIB II: 94).

229- Galdera hori, **edo eske hori**, bestek erantzun beharko dio, ordea. (LIB II: 113).

230- Halaz ere, **edo horrexegatik beragatik**, gogoz irakur daiteke liskar sumin haren oihartzun baketsu hau. (LIB II: 122).

231- Bata eta bestea, gainera, ezinegonak, **edo hobeto esan larriminak**, darabiltza. (LIB I: 136).

#### GAINERAKO TESTU-ANTOLATZAILEEKIN OSATUTAKOAK

233- Cela nobelagile ezaguna da Espainian. Sail horretan, zuzen edo oker, buruzagitza emana —**ala hartua**— dauka, bere “Pascual Duarte” dela bide, batez ere. (LIB I: 51).

234- Erazte hori gezurrezkoa edo —**garbi baino zehatz hobe**— sinbolikoa dela esan beharrik ba al dago? (ZIN: 159).

235- Dei bat egiten digu film honek —**dei bat da, hobeto esan, film osoa**— zorigaitz beltz hori guztion artean gugandik alden dezagun. (ZIN: 195).

236- Hemen kolore nabar-alaiez pintatua ageri zaigun ipui xalo honek, **alegi honek hobeto esan**, ikusle bati baino gehiagori, ahoa gozaten diolakoan, sabela mingostuko dio. (ZIN: 175).

237- Nik, aukeran, berrieki aurkitzen ditut, **“garbiegiak” nolabait esateko**, erabateko aitzakietan sartu behar baldin badut. (LIB II: 106).

238- Gogora datozkigunak ez dira liburuak edo, gutxienez (**Beribitez, esaterako**), Euskalerritik edo Euskalerraren aldamenetik ez dira aldatzen. (LIB II: 102).

239- Nor banintz ere, ez nintzateke sartuko, nere gogoz behintzat, horrelako listor-kabian, harako Paris (**ez**

**Frantzia-koa, alegia**) gizarajo hura bezala. (ZIN: 158).

240- Aurrenekoari (**ekera-ri alegia**) dagokionez, norknahi daki egutera askozaz zabalduagoa dagoela gure artean ekera baino: hau (Azkuek du berriz hitza) Ezkiogan erabiltzen omen dute. (LIB I: 115).

241- Leizarragak itzuli zuen bezala, “Dohatsu dirade emeak” (**otzanak, alegia**), zeren hek lurra heretaturen baitute”. (LIB II: 152).

242- Baina ordukoen barrunbeak nolakoak ziren —**bere garaikoak, gaurkoak eta gerokoak bezalakoxeak, alegia**—, ederki zekien, hori bai, eta baita besteri adierazten ere. (ZIN: 125).

243- Ipar Ameriketako zinemas zerbait dakitenek —**etxe aurre zuritua baino barrenagoko zerbait, alegia** — badakite Stanley Kramer dela oraindik, hiru edo lau lagunekin, zerbait esan nahi luketenetakoa, noizik behin behintzat. (ZIN: 149).

244- Ukabilkadak behar bezala —**suminez itsutu gabe, alegia**— “jasotzen” ikasi duenak, ez du alajaina gutxi ikasi. (ZIN: 167).

245- Axularren garaikoek —**Pizkunde arokoek alegia, bera ere, berandu xamar jaiogatik, horietakoa baitzen**— antzinako Greko eta Erromatarrek hautu zituzten maisutzat, eta ez hizkuntza gaietan bakarrik. (LIB I: 140).

246- Ohi ez bezalako gizaki honen berezitasun nabarmenetan, batek harritu nau, aita Zabala harritu duen antzera, gure artean egunorokoa eta nonnahikoa ez delako: beste “hirugarren” bizitzan —**ospearenean, alegia**— zeukan sinesteak. (LIB II: 99).

247- Gauza bat nahi liguke ikuserazi, besteak beste: goragoko “ditugu” hori ez dela mintzatzeko modu hutsa, “**guk**” **hiltzen ditugula alegia**, ez dituela “beste norbaitek” hiltzen. (ZIN: 138).

248- Eta nor ausar zitekeen horrenbeste arriskuren erdian grekorik maltzur eta burutsuena, **Ulysse alegia**, izan ezik? (ZIN: 146).

249- Ulysseren ibilerek —adierazi nahi digute ia irudi bakoitzean— erakusten digutena hauxe da: jainko etsaiei, **Izadiaren itsuei alegia**, gogor egitean dago gizonaren handitasuna. (ZIN: 147).

250- Jakinaren gainean geunden, ordea, **azkenaren jakinean alegia**, bera eta gu. (ZIN: 151).

251- Urrezko giltzen jabe egiten denean, **hotel dotore bateko atezai nagusi, alegia**, eta gazte haiek berriro ikustean, ez du hondamendirantz doazela jakitearekin aski. (ZIN: 179).

252- Eta erraztasun hori makulurik gabe erdietsi da, **orrialde azpiko makulurik gabe, alegia**. (LIB I: 61).

253- Egiatzko lirika, **izen horren duin dena alegia** —ez baita aski hitzak lerro lerro banatzea—, da noski giza mintzoak menderatu duen gailurrik garaiena. (LIB I: 63).

254- Adizki jator baten orde, **natzaio-ren orde, alegia**, bi erabiltzen ditu, euskal literaturan sarrerarik izan ez dutenak: (LIB I: 77).

255- Barruti horretan “kristau berria” naizenez gero, **sarrera gutxi izan dudanez gero, alegia**, maiz somatzen dut ilunbetan nere burua. (LIB I: 124).

256- Azkenean, etxean berriz —**Londresen alegia**—, zertxobait aldaturik ikusten dugu David Niven'en eskuetan dagoen Phileas Fogg-en garaita eta erorikoa. (ZIN: 182).



257- Nahitaezkoa zen, eta horrelaxe ikusi du begi zorrotzez egileak, euskal idazleez gainera —**euskaraz mintzatu direnez gainera, alegia**—, gure arteko erdal idazleez mintzatzea, gure hizkuntzari dagozkion lanak ondu dituzten neurrian behintzat, eta are erbesteko euskalariez, zahar eta oraingoz. (LIB II: 65).

258- Hiru zati ditu: “Un poco de morfología” (**pixka bat ez ezik puxka bat baino gehiago ematen duena, ordea**), “Paradigmas” eta “Crestomatia”. (LIB I: 129).

259- Ez dute atsedean eta jolas beharrik; asmo batek, sentimendu batek, **beti batek ordea**, darabiltza. (ZIN: 124).

260- Inoiz edo behin bai, **baina urte luze ugarien buruan nolanahi ere**, gertatu behar zuen gertakaria zen hori ordukoentzat. (ZIN: 193).

261- Hau guztia ez ote da gai egokia garai horretako kondaira, **baina barrengoa, ez azalekoa** —Unamunok “intraistoria” deitzen zuen hura edo—, egin nahi duenarentzat? (LIB II: 111).

262- Poliki-poliki, **baina atertu gabe**, hor ari zaizkigu gure eskuak euskal aberastasunez mukurru betetzen. (LIB II: 113).

263- Berak baztertuko du menderatzailea, **zeharo baztertu gero**, baina ez gorroto duen etsaia, adiskiderik maiteena baizik. (ZIN: 126).

264- Irakurlearentzat gainera, **edozein irakurlerentzat gero**, arina da, atsegina, nahi badu han-hemenka, inon luzaroan gelditu gabe, miazka dezakeena, erle urduriaren antzera. (LIB II: 144).

265- Onak gailen, gaiztoak lotsagarri ikusirik azkenean, alai irtengo dira zinetik, eta sartu baino zintzoago direlakoan gainera, gogoan honen alde baitzeukaten —**badakizue alderdi horretakoak izaten garela beti, zineman behintzat**— eta eserlekutik mugitu gabe onei eginahalean lagundu baitiete. (ZIN: 124).

266- “Ez, ez”. Ez omen dute horrako txontxongilo horiek, ohi baino larrigoak izan arren, Erromar itxurarik —**nere gizontxoan Filologia Klasikoa ikasia duzue, izenez behintzat**—, ez giza itxurarik ere. (ZIN: 129).

267- Espainian —**zineman behintzat**— “betiko triangeluak” lau alde izaten ditu: senarra, emaztea, senarra ez dena eta apaiza. (ZIN: 133).

268- Moldatuko ote ginateteke Robinson adinean, horrelakorik gerta balekigu? Gu —**ni behintzat**— ez, eta lanak izango lituzke Sánchez Mazas jaunak berak ere. (ZIN: 153).

269- Gure egunotakoa batez ere, maliziaz josia baitago hainbeste eta hainbeste irakurgai —**axaletik bederen**— miratu ondoren. (LIB I: 57).

270- Izan ere, euskaldun ona izateko, eskas ageri zait nere burua zenbait aldetatik: sagardoa ez dut gogoko, dantza —**askatuan behintzat**— ez dut egiten eta pelotan arras traketsa naiz. (LIB I: 92).

271- Errenteriakoak behintzat horrelakoxeak ziren. Baldin beste herririk bada —**Gipuzkoan behinik behin**—, ohitura garbiagorik zituenik, jaso beza eskua bertako semeak. (LIB I: 92).

272- Zaitegigan askok —**ni behintzat horietakoa nauzue**— idazle landua, ikasia, ikusten dute euskaltzale sutsuaz gainera: (LIB II: 108).

273- Eusko idazleak, nolabait esateko, hiru sailetan bereizten dira —**azken aldi honetakoak behintzat**— erabili duten hizkuntzaren arabera: baditugu euskal idazleak eta, horiezaz gainera, bi erdaratan egin duten

Euskalerriko semeak. (LIB II: 143).

274- Zinera etorri gara gaur ere, **ustez behintzat**, baina, nola ez dakigula, teatroan aurkitzen gara. (ZIN: 124).

275- Badakizue badirela nonnahi, han eta hemen, askok irakurtzen dituzten liburuak eta iñor gutxi, **jende ikasien aurrean behintzat**, aipatzen dituztenak. (ZIN: 129).

276- Pozik badaude, riau!, irrintzi eta saltoka hasten dira; otoitz egin behar badute, **emakumeak behintzat**, erdi-erdian jarriko zaizkizu, harako Fariseuaren antzera, ezpain-ertzak makur eta begia erne. (ZIN: 133).

277- Han nonbait, **urruti behintzat**, edukiko ahal ditu Jainko urrikaltsuak. (ZIN: 134).

278- Ipar Ameriketako zinemaz zerbait dakitenek—etxe aurre zuritua baino barrenagoko zerbait, alegia— badakite Stanley Kramer dela oraindik, hiru edo lau lagunekin, zerbait esan nahi luketenetako, **noizik behin behintzat**. (ZIN: 149).

279- Nor banintz ere, ez nintzateke sartuko, **nere gogoz behintzat**, horrelako listor-kabian, harako Paris (ez Frantzia-koa alegia) gizarajo hura bezala. (ZIN: 158).

280- Ez ditu, ordea, inork beharbada Orwell'ek adina ezagutu arrisku-beldur horiek, **edo behintzat ez ditu inork horren argiro azaldu**. (ZIN: 175).

281- Oso gogoko baitzitu Vernek, dakigunez, **liburuetan behintzat**, zirt edo zarteko amerikano harro ausartak, haien jendetasunak artean gehiegi hondatu ez zituen ohitura lasaiak eta tren-bide bihurriak. (ZIN: 181-182).

282- **Oraingoa behintzat**, Bertoni-della Rovere'ren itxuran ikusitakoan, barka dakizkioke zenbait pekatu larri sarriegi agertu zaigun txoriburu puztu hari. (ZIN: 196).

283- Ez dut halare ukatu nahi badituela, **ene ustez behintzat**, zenbait gogorkeria, eta gogorkeriak zelai zabal honetan nabarmenago dira Shakespeareren malkarretan baino. (LIB II: 42).

284- Aitor dezadan berehala ez litzatekeela horiek euskal literaturan bakarrik ikasi, **gaurkoz behintzat**. (LIB I: 56).

285- Orain 25 bat urte, Loidi, **nekienez behintzat**, mutil zintzo eta saiatu horietakoa zen. (LIB II: 60).

286- Ezin berdin ditzakegu elkarrekin gainera, **erabat behintzat**. (LIB I: 112).

287- Gainerako gorabeherak, **gainaldekoak behintzat**, laburkiro konta daitezke. (LIB I: 138).

288- Gauza harrigarri xamar bat nabaritzen da liburu honetan, **nik daukadan alean behintzat**. (LIB I: 147).

289- Nahitaezkoa zen, eta honelaxe ikusi du begi zorrotzez egileak, euskal idazleez gainera —euskaraz mintzatu direnez gainera, alegia—, gure arteko erdal idazleez mintzatzea, **gure hizkuntzari dagozkion lanak ondu dituzten neurrian behintzat**, eta are erbesteko euskalariez, zahar eta oraingoez. (LIB II: 65).

290- Badakit liburu honen egilea, **lehen iturburuari bagagozkio behintzat**, ez dela bera, Gesaltzako aitona baizik (“denak izan dira bere ezpainetatik jaulki bezala artuak” dio Villasantek), baina esanak eta bertsoetarik asko haizeak eramango zituzkeen, “sekretario moduan” lagundu dionak lagundu ez balio. (LIB

II: 71).

291- Haren lanetarik bat edo beste, euskarazko *Pernando Amezketarra* esate baterako, ezagutzen dugu, baina ez, **behar adina behintzat**, aldizkari-egunkarietan argitara zituen gehienak. (LIB II: 85).

292- Orain ez da horrelakorik, **gehienetan behintzat**, baina ez pentsa orain ere ez dela halako bere gisako ausardiaren beharrik geron etxetik eta sorterritik irteteko. (LIB II:102).

293-Garai batean euskal teatroa landu zutenen artean, uste dudanez, gailen eta nabarmen agertzen zaigu Altxaga, **bere-berea zuen sailean behintzat**. (LIB II: 123).

294- Jose Vicente de Echegaray (1773-1855) donostiarraren izena nahasi xamar dabil egungo euskaldunon oroimenean, geroago etorri diren Etxegaray argien ospea dela bide edo: bazela badakigu, baina ez, **zenbaitzuk behintzat**, nor zen, ezta nongoa zen ere. (LIB II: 131).

295- Eta, halaz guztiz, bere bertsoetarik zenbait bizi-bizirik daude, **Donostia inguru honetan behintzat**. (LIB II: 131).

296- Ez da erraz, **neretzat behintzat**, honelako poema batez neurrizko iritzirik ematea: prosaz ondua izateak ez dit batere lana arintzen. (LIB II: 141).

297- Gehiegi espero du, beharbada, liburu honek irakurlearengandik, **nere antzeko irakurle kaxkarrarengandik, behintzat**. (LIB II: 142).

298- Gure kritikoez bere eginkizunari eta bere erantzunbeharrari, **behin edo behin bederen**, begiralditxo labur bat opako baliote, ez lukete noski gehiegikeriarik egingo. (ZIN: 139-140).

299- Italiakoa ez ezik, Ipar-Amerikako zinema, **behin bederen**, ixpilu bihurtu zaigu, geure aurpegi-gogoak ezagutzeko moduan. (ZIN: 152).

300- Hau ere ibilaldi luzeak egina zen, **irudimenez bederen**. (LIB I: 52).

301- Ez dago lanaren gaitza goraiatu beharrik, ongi baitaki norainokoa den edozein hizkuntzatan, **axaletik bederen**, Aitorkizunak urratu dituenak. (LIB I: 75).

302- Sacha Guitryk gaingiroki eskuztatzen duen irudi-liburutik gogoan gelditzen dira bat edo beste, egoera, ibilera edo jazkera —**gainaldea beti ere**— dela bide: Claudette Colbert-Mme. De Maintenon, Sacha Guitry-Luis XIVgarrena aguretua eta. (ZIN: 178).

303- Ez da erraz esaten zer egin duen: ikasbidezko ipuia, hitzaldia —**Pierre Fresnay´k esana, nolana ere**—, film bat ez beste edozer. (ZIN: 181).

304- Nere begi-adimenak ez dira zenbaitenak bezain zorrotzak eta ez dut esango film honetako sinbolo guztien funts izkutua —**sorgin gazterena, esaterako**— ezagutu dudarik. (ZIN: 198).

305- San Agustinengan dute sustrai ageria edo ezkutua geroko landare luze-zabal anitzek: filosofia berriak eta baita oraingo gizonak ere. Hark erakutsi baitzigun —**Aitorkizunetarako hamargarren jardun horretan, esaterako**— gure barrengo zoko ilunak aztertzen eta ezagutzen. (LIB I: 75).

306- Nere ustez, liburuak ez zuen deus askorik galduko ipui bat edo beste kentzearekin (**esate baterako, LXI garrena “Begiondokoa”**) ,erderaz ere ezagunegiak direlako (LIB I: 92).

307- Eta berea izateaz gainera euskaldun garbi sortu zaio. Ez euskaraz dagoelako bakarrik, baita ere euskal mamiz —**adibidez, bertsoz, pentsaeraz hitzez adina**— oratu duelako. (LIB II: 88).

308- Gauza bat erakusten digu, gainera. Espainian gaudela adierazteko ez dela deus askoren beharrik: aski dira kitarra soinua eta guardia civil baten (**hobe biren**) kapelu okerra.

309- Ohar bat. Royaumeont´en antolatzailea —**agian, hobeki, Larregirena**— Lardizabal izan zen gure artean, ez Añibarro. Lardizabalen liburuaren bigarren zatia, Testamentu berriko kondaira edo historia, agertu berria da berriz ere. (Bilbao, 1957). (LIB I: 126).

310- Goikoetxea jaunak, askok dakigunez, begi zorrotzez begiratu ohi dio darabilgun —**hobeto esan, darabilten**— euskal neurkerari:ez zaio ez egokia iruditzen ez jatorra. (LIB II: 107).

311- Elbar batek, **hobeto esan elbarritu batek**, ez du leioa beste ikuskizunik: leihotik ikusten duen etxartea, alegia. (ZIN: 144).

312- Erderatiko hitzak —**ez horrenbestez erdal hitzak**— kupidarik gabe hartzen ditu: animaliak, arma, duda, elefante, engañatu, heresi, heretiku, grazi, kasu, komeni, komerilari, madarikazio, markatu, misterio, mugimentu, musika, numero, seguru, serbitzu, siñale, tentatu, umil zirku, eta abar. (LIB I: 76).

313- Trebe baino trebeagoa izan da beti hitz berriak sortzeko —**hitz elkartuak batez ere**— edota hitz arrunt ezagunak adiera berri batera egokitzeko. (LIB I: 76).

314- Han-hemenka, eta haxe da aipa dezakedan alde txar bakarra, motz agertzen dira, osatu gabe, zenbait aipamen: izenetan ere, **hizkuntza arrotzetarikoetan batipat**, badira zenbait oker. (LIB II: 148).

315- Sarreraz gainera, zati hauexek ditu: I eta II atzikiak, III aditza (**laguntzailea batez ere**), IV elkarrizketak eta V erdal-euskal eta euskal erdal hiztegia. (LIB I: 109).

316- Zalantzaldi honetan —**zorioneko zalantzaldia, halare, bide hobeen bila gabiltzalako**—, hainbeste eta hainbeste haztamuka ari garen bitartean, bera lasai doa bere bidetik, bere-berea duen aspaldiko hizkera hura gero eta sendoago eta trinkoago eta, halaz ere, bigunago eta malguago agertzen delarik. (LIB II: 137).

317- Besterik da, **oso besterik gainera**, idazlea kritikapean egotea, baina, kritikak errurik egotzi nahi badio, begiz jo duen bidean zuzen ez dabilelako egotzi behar dio: gaia, saila eta arloa idazleak berak hautatzen du eta egin gogo eta uste zuenaren arabera hartu behar zaizkio neurriak haren lanari.(LIB II: 76).

318- Egilearen bizitza ere, **bizitza jakingarria gainera**, badakar liburu honek hasieran. (LIB II: 100).

319- Gizon berbera —**idazle berbera, beraz**— ageri da hiruotan. (LIB II: 152).

320- “Hark berak hari berari” daramate buruan —edo antzeko zerbait: liburua damurik ez daukat eskuartean—, eta lehenbiziko “hura bera” aurreko bertsoen egilea bide da — **hots, Claveria**— eta bigarrena, bertso haiek eskeini zizkiona, hau da, Etxeberri. (LIB II: 66).

321- Gregorio de Muxika ez da ia izena besterik —**ospe oneko izena, halarik ere**— neretzat , eta are gutxiago noski ni baino gazteagoentzat. (LIB II: 85).

322- “Kanpora begira ari zara beti zure idazlanetan, barren aldera baino areago. Bestez ari zara gehienbat, ez zeure buruaz eta zuretar hurkoez. Herabez ote den ala “ni higuigarria” higuin duzulako, ez dakit. Lokarri hori —**dena den**— hausten duzunean, ordea, mintzo ozena eta sarkorra duzu, ala nola eskeintza honetan eta zeure aita zenaren oroitzapenetan hemen argitara zenuen artikulu ederrean. (LIB II: 139-

140).

323- Hitzaurregileak —**Aita Zabalak, noski**—, ez du uste, ordea, bide berritik abiatzeak bertsoei onik egin zienik, gizonaren eginbideetan gogo bizia eta nahi sutsua, zein ere goragarriak diren, ez baitira aski izaten (LIBII:53).

324- Nerau hizkuntzak irakasten zerbait —**ez gehiegi beharbada**— aritua naiz eta asko ezagutzen ditut eginkizun horretan langile trebeak direnak. (LIB II: 63).

325- Simeon´en itzulpen polit bat —**argitaragabea, damurik**— eta *Arranegi*, jaioterriko lur eta giza-irudi biziz hornitua, ezagutzen dizkiot. (LIB II: 78).

326- Erkiaga lekeitiarra, poesia baztertu gabe —**zorionez**— eleberritari ekin zionean, ez zitzaigun nolanhahi hasi, haizearekin burruka ari dena bezala, ongi jakinaren gainean baizik. (LIB II: 91).

327- Axalaren lilura zen batipat lehendabiziko erromantikoentzat —**Manzoni eta besteren bat kenduz gero, agian**—; (LIB II: 138-139).

328- Aurpegiz, **hori bai**; hitzak, jakina, kendu eta aldatu egin baitizkiete. (ZIN: 127).

329- Japondarrek ere badute zinema eta, **harritzekoa**, Ortega y Gasset´en perspektibismuaren argibide polit batekin aurkeztu zaizkigu. (ZIN: 130).

330- Egunean eguneango kritikak, **nork nahi daki hori**, ez du zuzen irizten askotan, **ez gehienetan ere beharbada**. (ZIN: 135).

331- Zuzentzan ere, lan-banaketa sortu dugu beste gaietan bezala, **edo besteetan baino lehen beharbada**. (ZIN: 138).

332- Eta, **jakina**, zenbat ere puztuago, hainbat gizatasun gutxiago. (ZIN: 191).

333- Urrutizkin polit horren erretratuak ere, **lasaiago bizi gaitezen noski**, zabaldu dituzte batzuek. (ZIN: 194).

334- Hizkuntzari dagokionez ere, **dudarik gabe**, ezin utzizkoa eta miratu beharrekoa da aurrerantzean euskal aberastasun zahar eta berrien bilduma jori hau. (LIB I: 119).

335- Nik (izenordain higuigarri hau ezinbestean darabilt) lehenago ezagutu nuen Olabide (**Itun berriko Olabide, jakina**) besteak Urte, Duvoisin, etab-ez ari da baino (LIB I: 112).

336- Gaia ahula du: ustekabeen sortua izanik — **ez guretzat bakarrik, baita egilearentzat ere**—, ustegabeko sortze horren ezaugarriak agerian daramatza. (LIB I: 61).

337- Horrelakorik, **egia**, ez zaigu guri bakarrik gertatzen, gaztelerazko zenbait klasiko ere, gehientsuak ez badira, gehiago aipatzen baitira irakurri baino. (LIB I: 39).

338- Soila eta apaingarririk gabea delako gutxiagok ezagut eta goza badezakete ere, ez da sortu hitzen bidez, bere hutsean, **ezta sortuko ere**, poesia barrenkoi eta bakan horren antzekorik. (LIB I: 63).

339- Franko ezagutzen ditut hizkuntzak, **baita gurea ere**, gramatika lagun ikasi dituztenak. (LIB II: 63).

340- Olabide ez da, **egia**, hitz berrizale amorratua: maiz aski zenbait berriak iduri lekizkiokeenak ez dira berriak, zaharrak baizik. (LIB I: 113).

341- Ez zitzaion eman hizkuntza, **egia**, nekearen nekez bereganatu zuen, baina puntu honetan ez dio horrek, zoritxarrez, batere axola. (LIB I: 121).

342- Huts bat badute horratik, baina Aita Apalategigandik datorrena eta ezin zuzenduzkoa horrenbestez. Honek euskara garbia maite zuen, **maiteegi apika**, eta ez zuen etsiko entzuten zituenak nolazpait ere zuzendu eta apaindu gaberik. (LIB II: 55).

## C TIPOA

1- Eta harengan hasten da, noski (**Aita Meagher bazterten badugu**), Donostiako euskal idazleen arraza bortitza: Baroja, Bilintx, Soroa, Alzaga eta beste hainbeste eta hainbesterena. (LIB II: 131).

2- Egilea maite dudala gizon den aldetik eta aspaldidanik miretsi izan dudala: gizon jator bezain miratzaile zehatz (**ausartago balitz eta gorago joko balu, hobe guretzat**), euskaltzale gartsu bezain gogo-zabal, burutsu bezain bihoztun. (LIB II: 151).

3- Eta zenbait pezetaren truke —**askotxo badira ere**— bihotzeko pake hori ateratzea gutxi al da? (ZIN: 124).

4- Irakurle argia —**inoiz makurtu baldin bada horrelakorik lerro txaldan hauek irakurtzera**— ohartu da noski honez gero ez ditudala oso gogoko “Cenemascope”, “Superescope” eta antzeko izenak daramatzaten sistema berri harrigarriak. (ZIN: 141).

5- Oroi zaite ordea euskara ez dela, maiz —**oker baldin bada ere**— uste dugun bezala, gure etxeko hizkera, ez gure herrikoa, ezte gure eskualdekoa ere. (LIB I: 39).

6- Dena dela, buruan —**sakelean ez bada**— nobela bat duela etxeratu da. (LIB I: 51).

7- Gure euskara, baita Detxeparerena ere, hura baino bi mila urte gehiagoz gazteagoa da, Homero —**inoiz jaio bada**— Detxepare baino bi mila urtez lehenago jaio zen bezala. (LIB I: 68).

8- Badaiteke, beraz, nere adinera heltzean —**lehorrez, itsasoz eta airez darabiltzaten bonbatxoak ordurako lehertzen hasi ez badira**— Konfuzioganako joera gehiago izatea, gazteagokoen ixuriaz ohartzaka daudela haiek, Buddhaganako baino. (LIB I: 140).

9- Bestela ikasi duenik —**lehen esan dudan gisan ez baldin bada**— erakusten didatenerako, harri kokkor xuri bat gerturik daukat egun seinalagarri hura markatzeko. (LIB II: 63).

10- Klean, plazaren erdian, dugu azkenik aspaldiko amets bat: euskal ikasbide osoa —**izenez, lehendabiziko mailakoa bada ere**—, diskoak dituela lagun ikaslearen belarria ohitzeko. (LIB II: 72).

11- Maiz gertatu ohi da, izan ere, honelako liburuetan —**susmo txarrak ez dagoenik ikusarazi ez badit**— idazlea esanaren esanaz asperturik bezala mintzatzen zaigula, besteren ahotik entzuna hotz-hotzean birresaten, baina Villasante bero-beroan, su eta gar, mintzatzen da, ez Sertillanges'gandik entzunaz, bihotz barrendik datorkion etorri gartsuaz baizik. (LIB II: 88).

12- “Zein dut horretarako biderik erosoena eta, **horrela esan badaiteke**, dotoreena?, galdetzen dio bere buruari aurreratzean bizilagunik gabe, “txoria airean bezala”, bizi nahi duen senar gizarajoak. (ZIN: 128).

- 13- Senarrak, gizon saiatua izan arren, **saiaturik bada**, ezin xehetasun guztiak gogoan eduki. (ZIN: 128).
- 14- Nik, berriz, osorik gorde nahi nuke, **zimirrik ere gabe ahal balitz, gaurkoz behintzat**. (ZIN: 131).
- 15- Bihar, etzi, datorren astean utziko dut, **derrigorrezkoa baldin bada**, ongi marruska dezaten. (ZIN: 131).
- 16- Eta hori ez hemen bakarrik, **nondinahi datozkigun berriak ohi baino gezurtiagoak ez badira**. (ZIN: 135).
- 17- Eta badu negarbide oraingoan, **inoiz izan badu**. (ZIN: 136).
- 18- Horien madria nor den" ikusi duenak daki, eta ikusi duenak, **ongi aditu baditu ere**, ez du gehienetan gogo handirik izango besteri esateko. (ZIN: 141).
- 19- Gu ere bagaramatza medikuen azpi-lan okerre buruz, **horrelakorik baldin bada**, zerbait jakin-nahiak, baina zinemak eskeintzen digun zirriturik ez dugu askorik ikasiko. (ZIN: 149).
- 20- Poz eta negar-iturria, **uste ez badugu ere**, bihotz-barrenean dago, eta barrengo hutsa ez dezake kanpoko ezerk bete, ez han eta ez hemen. (ZIN: 152).
- 21- Ongi josia eta ongi emana dago, **ene hitzak ezer balio badu**. (ZIN: 192).
- 22- Itzultzeko ordea, **gure ustea garbiro agertu behar badugu**, ez du eskua hain trebe izan. (LIB I: 46).
- 23- Neronek ere egingo nuke, **inork eskatuko balit iritzia**, gorde behar genituenak oro gorde ez ditugarik, ez ditugula ere galdu galdu beharreko guztiak. (LIB I: 51).
- 24- Dirudienez... Ongi ikasi ez bagenu gehienetan, **beti ez baldin bada**, ausardia gehiago behar dela edozein arrazoizko huskeriaz mintzatzeko burugabeko nabarmenkeriarik gogorrenak esateko baino. (LIB I: 53).
- 25- Harrigarria da, **harrigarririk izan bada**, Judeak eta Galileak, duela bi mila urte, ikusi zutena. (LIB I: 58).
- 26- Bai, ordea, adierazi duela zein den euskal eredia, euskaldunik gehienok, **denok ez baldin bada**, maite dugun ametsa, xamurtasunez eta ixiltasunez nahasia. (LIB I: 64).
- 27- Hauxe esango dut, **auzokoen sailean sartuko banaiz ere**, Valverderen edergarriak Lizardiren poeman gogaide jator direla. (LIB I: 65).
- 28- Baina, **baldin nire iritzia estalkirik gabe agertu behar badut**, ez dut uste inoiz gure hizkuntzan entzun denik horrelako hitz larririk, horren zinezko aitotzirik, horrenbesteko karraxi sarkorrik. (LIB I: 90).
- 29- Ehunka dira liburu honetan, **milaka ez badira**, hitz berriak, zaharraren zaharrez ahaztuak edo bazterren baten ezagunak badira euskal literaturan inoiz sarrerarik izan ez dutenak: (LIB I: 116).
- 30- Neri behintzat, **egia aitortu behar badut**, gaitzago zait sarritan oraingo idazki franko barrentzea hamaboskarren mendeko kanta zaharrak baino. (LIB I: 136).
- 31- Oraingo hau, egilearen izenik ez badarama ere, Xebe Peña tolosarrarena da eta esango nuke bere mailan gaur aurki daitekeen beste edozein bezain ona dela, **hobea ez bada**. (LIB I: 143).
- 32- Nik esango nuke, **nere iritziak ezer balio badu**, Baiona aldetik etorri zitzaigula bale arrantzarako eragina eta are itsasorakoa erabat. (LIB II: 57).

- 33- Badu liburuak hitzaurreaz landara beste hitzaurre edo erdiko hitz bat, arras biziki, egoki eta, **honela esan badaiteke**, toleskabeki idatzia. (LIB II: 59).
- 34- Egilearen hizkeraz, **asko esan badaiteke ere**, ez dago luzaroan mintzatu beharrik. (LIB II: 61).
- 35- Haziagoek ere, ordea, badute hemen bazka atsegina, **neure buruaz neur baditzaket besteak**. (LIB II: 61).
- 36- Oro har edo guztira, nekez egin zitekeen, **ene iritziak ezer balio badu**, Etxanizek egin duen bezain lan eder, bide erdiko eta horniturik. (LIB II: 73).
- 37- Badakizue nondik nora datorkigun gehienok, **guztiok ez bada**, ikusi dugun teatro lan hau. (LIB II: 81).
- 38- Egiazko lirikarako joera ez dator ez jakitetik ez hizkuntza landutik. Barrendik dator edo, **nahiago baduzue**, goitik. (LIB II: 84).
- 39- **Nere iritzi eskasak ezer balio badu**, ez dut uste aspaldiko urteetan liburu honen baliokorik asko izan dugunik. (LIB II: 89).
- 40- Komeria hau, Malentxo alargun!, **nere iritziak ezer balio badu**, ondu dituenetarik onenetakoa dugu, seguru asko. (LIB II: 97).
- 41- Maizago irakurriko banitu, hobe, baina ez ditut maiz irakurtzen, **egia zor badizuet**, honen antzeko gaia duten liburuak. (LIB II: 99).
- 42- Gauza jakina da, **nahiago izaten badugu ere ixilean gorde**, ez direla erraz elkartzen eta egokitzen gure artean, honelako liburu batean, idazlearen nahia eta asmoa eta irakurlearen beharra eta gaitasuna: kenka txar horretan, gainera, irakurlearen kaltean jokatu ohi dugu gehienetan. (LIB II: 100).
- 43- Hizkuntzaren gorputz ustelkorrari, **ustelduari ez bada**, lotuak daudelako, hura pizten duen izpiritu biziari jaramonik egin gabe. (LIB II: 118).
- 44- Hego Amerikak baditu zaleak eta etsaiak, baina, **nori berea eman behar badiogu**, ez dira giro txarrak hangoak izan idazleentzat. (LIB II: 146).
- 45- Baina, **oker ez banago**, bestetara du ixuria Orixek. (LIB I: 76).
- 46- Zertxobait ukitu du itzulpena, **oker ez banago**, oraingoan ere. (LIB I: 103).
- 47- Oraindik orain idatzi nuen —**azkeneko Egan-en, gaizki ez banabil**— izango nuela luzatu gabe Kerexeta jaunaren idazlanez berriro ere mintzatu beharra. (LIB II: 60).
- 48- Herbart´ek esan zuen, **oker ez banago**, ez dela “Odyssea” baino irakurgai egokiagorik haurrak grekoa ikasten abiatzeko. (ZIN: 146).
- 49- Gaia, **oker ez bagaude**, komedia batetik hartua da. (ZIN: 163).
- 50- Duela zenbait urte ikusi genuen horrelako zerbait Curtis Bernhardt´en film batean: “Retorno al abismo” zuen hemen izena, **oker ez badaude**. (ZIN: 174).
- 51- Chaplin-zaleek, **oker ez banago**, ez dute uste bezalako gozamenik izan. (ZIN: 185).
- 52- Lehendabizikoaren bukaerak, **zoritxarrez ustekabekoa izanik**, ez du ikuslearen gogoia beteko, **oker ez banago**. (ZIN: 191).



- 53- Oroi zaite ordea euskara ez dela, **maiz —oker baldin bada ere—uste dugun bezala**, gure etxeko hizkera, ez gure herrikoa, ezta gure eskualdekoa ere. (LIB I: 39).
- 54- Baina, horretaz gainera, jabetu ote da honelako irudimen edo asma-lanak eskatzen dituzten zer eta nola guztiez? Ez behar adina, **oso oker ez banago**. (LIB I: 56).
- 55- Ez du, **oker ez bagaude**, horrelako kezkarik Artetxek izan.(LIB I: 59).
- 56- Puntuazioa, berriz, ez du ukitu, **oker ez banago**, eta zerbait ukitzekoa zen agian. (ZIN: 95).
- 57- Gure asaben alde zerbait esan nahi nuke azkenik: Erko jaio baino lehenago bazekitela noski burnizko goldeak egiten, horrelakorik agertu baita Euskalerrian, **Etxauri aldean oker ez banabil**. (LIB II: 46).
- 58- Ez du egileak, **oker ez banago**, ezer erabakitzen Bidasoaz alde bateko eta besteko euskaldunok aspaldidanik darabilgun auzian. (LIB II: 57).
- 59- Gainera, **oker ez banago**, ez *jakituria* ez *jakinduria* ez dira behin ere agertzen O. de Arin´gan. (LIB II: 66).
- 60- Ez du, **oso oker ez banago**, alferlanik egin. (LIB II: 72).
- 61- Teoria horrek, **oker ez banabil**, badu beste baten eitea: harako Manuel Lekuona jaunak bere *Literatura oral euskérica*-n azaldu zuen harena. (LIB II: 107).
- 62- Halaz ere, bada hemen bat, liburuari izena ematen dio Aizkolariak hain zuzen, besteetatik franko baztertzen dena, **oker ez banago**. (LIB II: 110).
- 63- Antze-bide berria zabaldu nahi digu, euskal arimaren mintzabide gerta dadin, eta antze horren eredua, **oker ez banago**, neolitikoan erakusten digu, euskal antzeak garaitu duen gailurrik soil eta gorenean. (LIB II: 118).
- 64- Nere *Historia de la literatura vasca*-n ez bide da bere aipamenik aurkitzen; ezta ere, **oker ez banago**, Aita Villasanteren izen berdineko liburu aberatsagoan. (LIB II: 131).
- 65- Ez da, ordea, **oker ez banago**, behar bezain ezaguna, halaz guztiz ere. (LIB II: 145).
- 66- Hiru zati ditu liburuak, **oker ez banabil**, azkeneko oharrak baztertuz gero: (LIB II: 152).
- 67- Eta berehala utzi zizkigun, hitz labur eta zorrotzez, gertakari larri horren aurretik zero-lurretan agertuko diren seinale harrigarriak. Lehenago ere, euskal literaturaren aurrenetan, zenbait bertso bizi utzi zizkigun Detxeparek gai honezaz. Honek, ordea, apaiza izanik —**zertxobait ahazturik bazeukan ere bere izaera, hagitx bestelako neurtitzak egin zituenean**—, ez zuen besteren hitzik entzun behar, bera baitzen prediku-lekuaren jabe. (ZIN: 193).
- 68- (...) “Beste aldekoa” izatea, esango du norbaitek. Halaz guztiz, beste aldekoak eta gu hizkuntza berberan mintzatzen garenez gero —**zenbait huskeria gorabehera**—, ez digu guri ere on baizik egingo. (LIB I: 104).
- 69- Bertsolaria hamar duroren truk edo “poison-pen” bihurturik —**nahiz luma besteren eskuetan egon batzuetan**— sortu ziren bertsoen bilduma hau ez da sail luzeago baten aurrena baizik.(LIB II: 96).
- 70- Gauza jakina da, **sarri esaten ez bada ere**, Larzabal deritzan langile purrukatu hori zabar xamarra dela, zabarra eta utzia, bere teatrolanak inprentara eramaten. (LIB II: 130).

71- Behin edo behin, egia da, Izpiritu Santuaren prozesioaz ordu t´erdiz mintzatu beharrean aurkitu izan naiz (**irakastea debekatua badaukagu ere, ikastera behartu egiten baikaituzte**), baina geroztik hona jakintza hau baztertuxe eduki dut. (LIB I: 96).

72- Beste zenbait hutsarte nabari dira, baita oihal zaharrari ez dagozkion adabakiak ere: infernuetara jeistea zakur-amets edo sorginkeria hutsal bihurtu da, ardoa egiteko ez da mahats-aleak oinkatzea aski, liktore-aizkorak —**horrela izendatzen baitituzte Ithaka´ko jauregian ikusten ditugunak**— ez ziren noski ugariak garai hartako Grezian, eta gainera gainerakoak (ZIN: 146).

73- Barrena begira, itsasoa eta ontziak baztertzen baditugu, agintariaren erantzunbeharra eta bakardade astuna erakusten saiatu dira gehienbat, azkenaldi honetan zinema —**besterik ukitzera ausartzen ez delako edo**— maiz erakusten saiatu den gaia. (ZIN: 177-178).

74- Gehienez ere, Luis XIV eta XV garrenak izan zituzten zenbait amoranteren izena —**guztiak aipatzea lan luzeegia bailitzateke**— eta gezurrezko aurpegia —egiazkoagoa baino ponpoxagoa, beharbada— ikasiko du edo gogora ekarriko. (ZIN: 178).

75- Bestelako “paisajeak” nahiago dituenak —**gehienon haragia argala da eta**—, badu ikusteko Sofia Lorenen dantza bat. A, gure Prai Bartolome bizi balitz! (ZIN: 191).

76- Lau-bost lagunen joan-etorrietan mugatzen duelarik —**oinarri izan duen N, Shute´ren liburua horrela moldatua aurkitu duelako, beharbada**—, esan daiteke berez duen indarrari zerbait ostu diola. (ZIN: 194).

77- “Hamlet”-en ondoren eman digun itzul lan hau hura baino arinagoa —**errazagoa ere zen eta**— eta hizkeraz jatorragoa iruditzen zait. (LIB I: 42).

78- Egiatzko lirika, izen horren duin dena alegia —**ez baita aski hitzak lerro lerro banatzea**—, da noski giza mintzoak menderatu duen gailurrik garaiena. (LIB I: 63).

79- Geroago —**apaiz eta praile-gai ez direnek ere batzuetan grekoz ikasi edo erdi ikasi behar izaten baitute Unibertsitatean**— lehen bezain gogoko dut, gutxienez. (LIB I: 67).

80- Lehen argitaralditik bigarrenera, besteak beste, *gauza gauz* bihurtu zen, *eleiza eleiz* eta *neskatxa neskatx*. Bigarrenetik oraingora, *a* batzuk kentzeari gutxi iritzirik —**eskuak ausartzen ari zaizkigu eta**—, esaldi osoak agertzen dira moztuak. (LIB I: 80).

81- “Itunbe”-ren hizkera nolabait esateko, berri xamarra dugu, baina ez berrienetakoa: bart arratsekoa dela esango nuke gaur eguerdikoa baino areago. Ez dut txartzat esan, ez bainaiz gaurkoek —**gaurko direlako bakarrik**— edozertan arrazoi dutela uste dutenetakoa. (LIB I: 84).

82- Ohiturari bagagozkio —**gutxitan izaten baitira ohiturak arrazoizko oinarririk gabeak**—, gainera, ez dugu hemen agertzen den bidegabereren bat edo beste bezalakorik egingo: oker bada *ajola*, okerrago *ayola* idaztea *axola* izan behar lukeena. (LIB I: 113).

83- Piarre Lafitte Kalonge eta euskaltzainaren eskutik —**berori baitugu aitzin solasaren egilea**— agertzen zaigu oraingoa Zaitegi jauna: hegazti harraparia hormatxori apalaren eskutik, norbaitek esango lukeenez. (LIB II: 75).

84- Beste batzuek, berriz —**bai baita guztietakorik gure artean**— halako prediku airea maizegi igertzen... (LIB II: 78).

85- Ez zait berehalakoan ahaztuko oraindik orain, Pabeko Pirineisten batzarrean, hartu nuen bihotzondokoa Haritschelharrek gure bertsolariaren bizitza eta heriotze tristeaz —**galeretan hil baitzen**— argitasun berriak ematen zizkigularik. (LIB II: 83).

86- *Suspense* gehiegirik gabeko gizon-hiltzea —**lehen hitzek salatzen baitute egilea**—, baina arimen barrunbean ekaitz eta zurrunbiloak sortzen dituen. (LIB II: 130).

87- Liburu horrekin batean —**lehen argitaraldian 63 orrialde besterik ez zituen liburuxka baita**— beste bat argitara du “Auspoa”-k: *Aita Agustin Cardaberaz Jaincoaren Serbitzari andiaren berri laburrak* izenarekin “apaiz batec” euskaraz eman zuena Durangon, Elosurenean, 1908garren urtean. (LIB II: 133).

88- Ezerezeko paperetan maiz ikusi izan ditugun zenbait ere, Edmond O’Brien bezala, **gaiak eragiten dielako edo**, gorengo pare ageri da. (ZIN: 127).

89- Eta hemen, **teatroan baikaude**, hitzak ez dira eranskin huts; hitzak dira azal eta mami. (ZIN: 127).

90- Zinemak eta liburuek aho batez erakusten digutenez, maiz aurkitzen da senarra bere emaztea “akabatzeko” behar gorrian. Noizik behin, **aldatzeko edo**, emazteari gertatzen zaio ezbehar hori. (ZIN: 128).

91- Guri, ordea, **hitz ederretan ez ezik hitz horiek adierazten dituzten gogoeta ederretan ere sinesten ez dugunez gero**, parregarri agertzen zaizkigu, haurtzaroko jostailuei ederretsirik bizi diren gizon-emakume hazien antzera. (ZIN: 158).

92- Honi eskerrak, **eskasiak berak ere alde onak baditu eta**, zeluloide zaharra agertzen zaigu noizean behin. (ZIN: 160).

93- Baina, **hain gaztea ez naizenez**, nahiago dut begiratu ea beti aurrerakada ibili ote garen. (ZIN: 160).

94- Aberastasun bila etorria da, **lagun zaharrak baitira**, baina beti norbaitekin egiten du topo adiskidearekin baino lehenago. (ZIN: 163).

95- Berari zor zaio, **berbera baitugu**, moldatzailea ez ezik, tren-gidari jatorra bera ere. (ZIN: 171).

96- Baina, **ikusleak bereganatzeko setak itsutu duelako edo**, ahaztu egin da zinemaz. (ZIN: 181).

97- Ez dut nik esango, **harrokeriaz mintzatzea litzateke eta**, euskal arima zer-nolakoa den aditzera eman duenik. (LIB I: 64).

98- Ez da amets hutsa, **behin bederen mamitu baita**, Lizardigan. (LIB I: 64).

99- Homerogandik hasi eta irakurleaganaino, **luzexkoa zelako edo**, bi gauza gelditu dira bidean, nabarmen xamarrek biak, eta ez dira inon ageri: poemaren edertasuna eta grazia batetik, eta euskara bestetik. (LIB I: 68).

100- Xehetasunetan sartuz gero, **gaurko auzia da eta**, nolako hitzak darabiltzan ikus dezakegu. (LIB I: 76).

101- Gaur, **urteen joanak hoztu gaituelako edo**, ezin genitzake Arreseren olerkiak ikus orduko euskaltzaleen, eta batez ere Campionen, begiz. (LIB I: 87).

102- Gainerakoek aurrean dute egilearen izena, baina “Jauna” erantsi diote bakoitzari: Herrera jauna, Valbuena jauna, eta abar. Badaiteke Arresek horrela argitaratuak izatea: orduko ohituren berri ez dakit. Gaur, ordea, **ohi ez bezalakoa delako**, bitxi xamarra dirudi izenondoko honek. (LIB I: 87).

103- Saia gaitezen, bada, **ongi merezi du eta**, Fernando honen izena bestearena adina barrea dadin. (LIB I: 92).

104- Halaz ere, **hitzak zezenak baino otxanagoak direlako edo**, Manoleteren toreo-gisa urri eta labur adina da aberats eta ingurutsu Altube jaunaren mintzaera. (LIB I: 93).

105- Lehen baino hobeto ezagutzen ditut orain haur liburuak, **etxeakoak direla eta**, eta ipui gutxi ikusi ditut, edozein aldetatik begiratuta ere, hauek bezalakoak. (LIB I: 97).

106- Gero, lehorreraturik, **lehengo ezinegonak berak darabilelako edo**, komeriante batzuekin abiatzen zaigu berriz Nafarroa-Gipuzkoetan barrena. (LIB I: 105).

107- Baina Xenpelarren bersoak, **ahotik belarrira ibili direnez gero**, nekez aurki genitzake aldaerarik gabe. Horrexegatik beragatik saiatu behar dugu eginahalean haren ahotik entzun zirenean zuten itxura gal ez dezaten. (LIB I: 108).

108- Ez zegoen deus itzulpen horietan, **Vulgatatik hartuak zirenez gero**, Elizak ontzat eman ez zezakeenik. (LIB I: 111).

109- Hotsak, **zorioneko y kenduz gero**, gipuzkoarrak dira: aparti ipiniko du, esaterako, ez afari. (LIB I: 118).

110- Euskal giroz beterik dauden Barojaren liburuak aipatuz gero, Zalacain-ek izaten ditu aldekoak, beste batzuek, **gorri antxeko horietakoak edo**, *La leyenda de Juan de Alzate* daukate Barojaren euskal testamentutzat. (LIB I: 127).

111- Nik, **lege zaharrekoa naizelako edo nere ofizioak gramatikarekin zer ikusirik duelako**, bestela deritzat. (LIB II: 63).

112- Dirudienez, **ez baitut kontatu**, 255 lerro utzi nizkion Larramendiri, “cuya obra principal es un diccionario vasco-español (atzeko aurrera irakur beza irakurleak) plagado de aberraciones”, eta 38 Bilintxi, beste zenbaiten artean. (LIB II: 83).

113- Horrexegatik, **labur eta berandu hobe denez gero inoiz ez baino**, zilegi izan bekit behar nukeen baino lasterrago —abespelean edo, antzinako bizkaitarrek esango zuketean bezala— neure egitekoak egitea. (LIB II: 121).

114- Gero, ordea, ixildu egin zitzaizkigun edota, **esan dudana esatea gehiegi denez gero**, ez zituzten ixuri zituzten hitzak gerorako erein, fruitu gozo bihur zitezen ondorengoentzat. (LIB II: 123).

115- Hizkera, **bestek ere esan du eta**, gogor xamarra agertzen du, han hemenka. (LIB II: 142).

116- Euskal letretan, **apala izanagatik edo apala delako**, aski nabarmendu da bere boza azkenaldi hontan. (LIB II: 152).

117- Badirudi poesian ontzat hartu dutela “Markue” inor gutxi ontzat hartzen dutenek ere eta, **maixuak mintzatu direnez gero**, ez dut nik zer esanik, poztu egin naizela baizik. (LIB II: 152).

118- Nik behintzat besoak desgurutzatzen ditut, Aita Altunak mordoilokeria barkakizun etsiko duelakoan, **behin-behingoa delako edo**, egina duen lana txalotzeko. (LIB II: 154).

119- Nik ez dut gehiago gorai patuko, **beharririk ere ez du eta**, elezahar berritzaile, artezale eta euskal idazle umil ahaztuen historiolari hau. (LIB II: 152).

120- Eta ez dut nahi, **alferrik delakoan, ez ezin daitekeelakoan**, bide honetarik aurrera segitu. (LIB II: 151).

121- Esan dezadan bidenabar, **egokitu denez gero**, gure arbasoek ez zituztela etxeak egurrez egiten, egurra surtarako gordetzen zutela. (LIB II: 49).

- 122- Ez da hau (“**curita, no; curaso**”, berak “**vasco romanico**”-z **dioen bezala**) makalena. (ZIN: 133).
- 123- André Cayattek ez zuen inoren jolaserako egin film hau, horren bidez mandatu bat —**gaur esaten den bezala**— zabaltzeko baizik. (ZIN: 137).
- 124- Eta, ausartzea asko ez dela, nor atzera itzul urteen buruan, hartaz kanpora, oso eta bizi —**Simbad Marinela geroago bezala**—, bere jaioterri harritsura? (ZIN: 146).
- 125- Ahalmen eta indar oro —**baleak itsasoko xardinak bezala**— beltzen eta bereganatzen ari den Goliath hori baino indartsuagorik nor? (ZIN: 150).
- 126- Zein kalean, zein lantegian, zein tren-bidean, zein taberna-zuloan, zein zezen-plazan, hor topatzen ditugu Martine Carol, Charles Boyer, Ronald Colman, Marlene eta —**eguzkia izar zurbilen aldemenean bezala**— Luis Miguel Iepaluzea. (ZIN: 181).
- 127- Ez naiz azkenaldi honetan ikusi ditudan beste zenbait film gailenekin berdintzen hasiko, filmak —**edozein arte-lan bezala**— gutxitan berdin daitezkeelako elkarrekin. (ZIN: 187).
- 128- Haurtzaroko ametsetan —**troxatan bezala**— bildua zebilen Leturia, ez zekien bere buruaren berri. (LIB I: 90).
- 129- Euskal eleberrigileetan gehiena —**xuberotarrek dioten bezala**— dugun Anabitarte jauna agertu zaigu berriz ere plazara, zori onean, *Usauri* eta *Donostia*-ren hurren hirugarrena den irakurgai honekin. (LIB I: 105).
- 130- Soroaren bizitza eta obrak —**bestean Erramun Artolarenak bezala**— ederki azalduak daude ale honen hasieran. (LIB II: 54).
- 131- Eta irakurri eta entzun ondoan, zerbait eta zerbait baino gehiago ikasia izango dugu, antzearen itxura apainen azpian bildurik —**troxatan bezala**— dagoen irakatsia, teatro onari dagokionez. (LIB II: 96).
- 132- Beste alde onik ez balute ere, lekuko diren aldetik duten indarra eta balioa ez die inork ukatuko: “Ondo gogoan artu behar genduke” —**berak dioen bezala**— “bertso auek ez dirala txantxetakoak izan...”. (LIB II: 96).
- 133- Gazteluren ustez, ez lukete silabek izan behar —**Detxeparez gero, gutxienez, diren bezala**— euskal neurtitzen oinarri: (LIB II: 107).
- 134- Lehenak eta azkenak Santu euskaldun honen bizitza eta heriotza agertzen digu —**“tiletez-tilet”, Lafitte jaunak ederki dioen bezala**—, bizi zeinokoa eta hil ondoren anitzen gogoetan itzali ez den “irugarren bizitza”. (LIB II: 116).
- 135- Horrexegatik, labur eta berandu hobe denez gero inoiz ez baino, zilegi izan bekit behar nukeen baino lasterrago —**abespeluan edo, antzinako bizkaitarrek esango zuketeen bezala**— neure egitekoak egitea. (LIB II: 121).
- 136- Hala balitz, **litekeen bezala**, ez zeundeke lagunarte txarrean. (ZIN: 135).
- 137- Irudi-andana luze honek prozesioa dirudi, **beste batean esan nuen bezala**, edo moda-erakusketa. (ZIN: 178).

138- Oroi zaite ordea euskara ez dela, **maiz —oker baldin bada ere— uste dugun bezala**, gure etxeko hizkera, ez gure herrikoa, ezta gure eskualdekoa ere. (LIB I: 39).

139- Aditz sintetikoa beti gailen, nahiz adizkiak zahartuak edo —**dakidanez**— inoiz erabili gabeak izan: legotzidaken, zigurikan, zitxeroken. (LIB I: 77).

140- Euskal egutegi berri bat agertu zaigu aurten —**lehendabiziko aldiz, dakidanez**—, JOC eta JOCF-en, hau da neska mutilen Langile Katoliko Gaztediaren egutegia. (LIB I: 133).

141- Gaiak, **ikusten duzunez**, nonnahikoak izanik, euskal olerkarien kuttunetakoak dira. (LIB I: 124).

142- Horrek esan du Orixeren ahoz, inoiz adiskidetasunak —**edozein hizkuntzatan, dakidanez**— esan duen esaldirik ederrena: “bekokian dik aren itzala, lagun dik oraindik ere” (LIB I: 66).

143- Eta “tierra Caliente” hori, jakina, ez dago inon edo, **berdin dena**, nonnahi dago, Río Grandetik behera izanez gero. (LIB I: 52).

144- Ongiegi ohituak gauzka, etsirik gaude zernahi gauza eman dezakeela euskara garbian eta, **okerrago dena**, nolanahi eta batere nekerik gabe eman dezakeela. (LIB I: 75).

145- Etxeberri Ziburukoak maiz darabil *kristau*, oraingo gipuzkoar baten antzera, baita, **are harrigarriagoa dena, dongea** ere. (LIB II: 67).

146- Eta irakurleak berea du beti azken hitza. Aski du ahoa ixtea edo, **berdin dena**, liburua ez zabaltzea (LIB II: 94).

147- Geronen txilberrari begira egon ohi garenok izan dugu aldi batez, liburu honi eskerrak, kanpo-alde zabaletan gere burua hegoairatzeko egokiera eta horretarako, **hori da gehien balio duena**, ez dugu beste hizkuntzetara jo beharrik izan. (LIB II: 103).

148- Ongi daki beti gaiaren berri, zein ere baita, Fagoagak; mendean du burutik burura, eta ezin hobeki daki, **zailago dena**, dakiena arin eta dotore esaten. (LIB II: 146).